Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea

FACULTAD DE CIENCIAS SOCIALES Y HUMANAS

DOCTORADO EN OCIO Y DESARROLLO HUMANO

EUSKAL BALADAK: AZTERKETA ETA EDIZIO KRITIKOA

I

Balada Historikoak
Balada Alegorikoak
Izen Ona
Itzulera

Doktorego-tesiaren zuzendaria:
Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Doktoregaia:
Javier Calzacorta Elorza

Bilbao
2015

AURKIBIDEA

I. LIBURUKIA

Ahozko literatura eta aisialdia ohar laburra 7
Tesi-lanaren metodologia eta helburu nagusiak 9

BALADA HISTORIKOAK 37

1. *Alostorrea* balada 39
2. *Anaiai gaztigatu nion* edo *Juan de Flores* balada 53
3. *Andre Emili* baladaren ereduak 61
4. *Apez Beltza* balada 85
5. *Atharratze jauregian* balada 123
6. *Behin batez joan ninduzun* balada 157
7. *Bereterretxe* balada 165
8. *Egun bereko alharguntsa* balada 227
9. *Hauzeko anderia* balada 241
10. *Hegabürü Eskiula* balada 255
11. *Ontziak eder du bela* edo *Itsasu Elizaldeko* balada 275
12. *Txori batek behin batez* kantaren gainean 301
13. *Uretako semea* edo *Zalduko jauna* balada 311
14. *Urrutiako anderea* balada 329
15. *Urteak zonbat egun tu* balada 345
16. *Urtsua* balada 355

BALADA ALEGORIKOAK 403

17. Balada alegorikoen gainean 405
18. *Urzo lüma gris gaxua* 411
19. *Urzo luma gris xuria* 453
20. *Urzo bat jin izan da* 463
21. *Urzua eta Harichabalet* 471

IZEN ONA 479

22. *Frantziako anderea* balada 481
23. *Neska ontziratua* balada 557
24. *Arrosa xuriaren azpian* balada 669
25. *Ana Juanixe* balada 697

26. *Bazko eta Salbatore* balada 731
27. *Egun onak Jaungoikuak* balada 747

ITZULERA 759

28. *Kanzuriano* balada 761
29. *Anderea gorarik* balada 789
30. *Errege Jan* balada 827
31. *Leisibatxo* balada 839
32. *Ene mutilik tipiena* balada 855

II. LIBURUKIA

AMODIOA 863

33. *Adios orain, dama gaztia* balada 865
34. *Aita konfesorea* edo *Aitorra* balada 871
35. *Asentsio-eguna da seiñalaturik* kantua 881
36. *Atea kis-kos* kantua 893
37. *Donioanen merkatu* balada 923
38. *Eguna zala* edo *Lantzarena* balada 933
39. *Eskoliertsa gaztea* balada 939
40. *Gure ortuan sagarra loran* balada 969
41. *Testamentuarena* balada 985
42. *Maitiak bilhoa holli* kantua 1017
43. *Musde Urrutia leihotik* balada 1041
44. *Pazkoetan den alegerena* edo *Amoros baztertua* balada 1079
45. *Perrotxikotan nenbilenean* kantua 1095
46. *Trinidadeak ditu* balada 1101

IPUINAK 1109

47. *Peru gurea* ipuina 1111

BERANDUKO ERROMANTZEAK 1123

48. *Alejotxo* balada 1125
49. *Neska soldadua* balada 1135
50. *Oi mirakulu sinheste nekea* balada 1139

ERLIJIOSOAK 1145

Eguberria 1147

51. *Abe Maria graziaz betea* edo *Nazareteko tenploan dago* balada 1147
52. *Nora zoazen erran daztazu* balada 1159

Jesukristoren Pasioa 1163

53. *Amabost pausuz* balada 1163
54. *Birjina Arantzazukoa* balada 1167
55. *Zer esaten didazu, Madalenea?* balada 1171
56. *Miserere, miserere* balada 1177

57. *Neure lagunak, lagun zakidaz* balada 1183
58. *Gurutze santuaren* balada 1187
59. *Urteak il bi ditu alegerarik* balada 1203
60. *Lagunak lagun kanta dezagun* balada 1207

Kristau fedea 1219

61. *Orriak aidez aide* balada 1219
62. *Birjinearen gaba da eta* balada 1231
63. *Iturri eder zuri* balada 1245
64. *Kristinau onak bear leuke* balada 1251
65. *Nere Ama Birjiña Kontzeziñokoa* balada 1265
66. *Zidar labraduz* balada 1273

Ama Birjinaren santutegiak 1279

67. Arantzazuko kantutegia 1279
68. *Arrateko zelaiko* balada 1307

Santuak 1327

69. San Juanen baladak 1327
70. *San Pedroren* balada 1337
71. *Maria Magdalena bere egunean* balada 1345
72. *San Migelen* balada 1353
73. *Loiolan jaio izan zan* kantua 1357

SASIBALADAK 1373
74. *Sasibaladak* 1375

ONDORIOAK 1425

BIBLIOGRAFIA ETA DOKUMENTAZIOA 1435

AHOZKO LITERATURA ETA AISIALDIA OHAR LABURRA

Ahozko literaturaren generoak, edozein direla ere, batez ere atsedenaldian eman ohi dira. Neguko gau luzeetan, iluntzeetan, familia osoa elkarrekin bildua zegoenean, eguneko berriekin nahaste kantu zaharrak kantatzen ziren. Kantu zaharrak, kontu zaharrak, buruz ikasitako bertso-paperetako bertso-sailak ariera atsedengarriak izan ohi ziren. Kontuan izan behar dugu sukaldea izan ohi zela etxeko denen bildulekua. Baserrietako lekurik bero eta argiena zen sutondoa eta haren inguruan, beheko suaren inguruan, elkartuta egon ohi zirela familiakoak. Beharbada, gaur egun irakurtzea atsedena hartzeko bide bat badugu ere, gogoan izan behar dugu, historikoki, irakurketa ez dela hain zabaldua izan. Irakurketaren hedadura eta sendotzea batez ere XVIII. mende bukaeratik aurrera eman da. Pasarte luzetxoa bada ere, argigarria da Manuel Cuencak bere *Ocio humanista* liburuan dioena:

> A finales del siglo XVIII la lectura extensiva pasó a ser una norma cultural obligada y dominante. El conocimiento de este proceso de cambio es un hito de interés en la génesis del ocio moderno, pero las investigaciones realizadas al respecto son todavía reducidas. A pesar de los planteamientos racionalistas propios de la Ilustración, en el último cuarto del siglo XVIII se impone una lectura individual y emocional. Es un tipo de lectura "sentimental" que busca la comunicación del lector con el relato vital que se esconde tras cada página. Este tipo de lectura reduce en cierta medida la cantidad para aumentar la intensidad. Rousseau propone la lectura como medio de superación y la Nueva Eloisa se convierte en un éxito insospechado, setenta ediciones antes de 1800 (la primera en 1761). En 1774 aparece uno de los best sellers, Las penas del joven Werther, de J. W. Goethe, lectura predilecta del joven Napoleón y una verdadera revolución entre la juventud.

Neguko gau luzeak euskal kulturan artazuriketarekin lotuta egon dira. Artazuriketa artaburuari inguratzen duen mataza kentzea da. Jean Haritschelharrek *L'oeuvre poètique de Pierre Topet-Etchahun* tesi-laneko sarreran hauxe dakar:

> Comme toutes les chansons populaires basques, les chansons d'Etchahun qui avaient beaucoup de succès au moment même où elles sont nées, se sont perpétuées à travers la mémoire collective du peuple souletin. Elles se chantaient à la veillée, lors des froides nuits de l'hiver, lorsque les gens se réunissaient pour dépouiller le maïs, ou encore à l'auberge des jours de fête, ou encore les soirs de marché.

Haritschelharrek dioenez, neguko gau luzeetako artazuriketetan kantatzen ziren Etxahunen kantoreak. Kantu horiek giroa berotu eta izpirituari hegoak emango zizkioten, inolako dudarik gabe. Ondarroako emakume sare-konpontzaileak, aldran, sareak konpontzen ari zirela, *Ana Juanixe* balada luzea beren ezpainetan erabiltzen omen zuten. Kantua eta kontua lanaren lagungarri ziren, dudarik gabe.

Etxahunek sortutako kantuek artazuriketako lana goxatu egingo zuten. Kantuak lanaren aringarri eta eramangarri badira ere, barneko sentimenduak agerraraziz aisialdiko denbora betetzeko modurik unibertsalenetakoa da. Bestela esan, kantuak lanari lotuak egon badira ere, XIX. mendeko testigantzarik politenetako bat Charles Bordes musikari eta biltzaileari zor diogu. 1900. urteko *La tradition au Pays Basque* liburuan *Maitiak bilhoa holli* kantua nola bildu zuen kontatzen digu Charles Bordesek:

> Qu'on me permete à ce propos un souvenir personnel. En septembre 1890, à la fête de la Chapelle, petit cartier de Barcus, par une nuit de pluie diluvienne, dans une auberge enfumée, je recueillis ce thème admirable de la bouche d'un garçon mélancolique nommé Notary.

Ez dago inolako dudarik esperientzia bortitz bezain ederra izan zitzaiola Charles Bordesi, euria goian-behean ari zuela, Barkoxeko festetan kantu bat ostatu ketsu batean entzutea. Euskal Herri osoan, ostatuetan, gauetan, lagunarte goxoan kantuak kantatu dira. Kantuek espiritua bizitu, lagunartea berotu egin ohi dute. Aisialdia eta kantua, beraz, lotuak daude.

TESI-LANAREN METODOLOGIA ETA HELBURU NAGUSIAK

1. SARRERA

Etxe sendoa eraikiko bada, zimentarriak sendo finkatu behar dira lurrean. Bide luzean aurrera egingo bada, noraezekoa da nondik abiatzen garen eta nora goazen jakitea. Era berean, lan zientifikoa egingo bada, metodologia egokia erabili behar. Euskal tradizio osoan izan diren baladen corpus finkatu bat eman nahi izan dugu geure tesi-lanean. Asmo horretarako behar-beharrezkoa ikusi dugu lehen pausotik beretik, ezer aurreratuko bada, metodologia ongi finkatua eta eraginkorra erabiltzea. Tesi-lan batek nekez besarkatu ahal ditu errealitate baten gorputz eta ertz guztiak. Gure tesi-lanaren xede nagusia euskal baladen testuak finkatzea izan da.

Euskal baladak euskarazko baladak dira, euskarazko kontapoesia molde bat. Euskal baladen eremua euskara hitz egin den eremu guztietakoa da: hasi mendebaldetik, Bizkaitik, eta Zuberoaraino. Balada horien lurraldea gaur egun euskaraz mintzatzen den eremukoa ez ezik, euskara galdu den eremukoa ere bada. Euskal baladen testuak finkatzea arrazoi argi bategatik sortu da. Batetik, gure baladen korpusa ez da handiegia; bestetik, gutxi ezagutzen da, eta, hirugarrenik, testu asko eta asko, gure lanean behin eta berriro frogatuko dugunez, gaizki emanak daude. Guk helburu bikoitza izan dugu batez ere tesi-lan honetan, ezagutzen diren baladen benetako edizio bat eskaintzea eta balada eredu berriak ere argitara ematea.

Atal nagusi honetan geure tesiaren metodologia eta helburu nagusiak zedarritu nahi ditugu. Geure metodologia eta helburu nagusiak zedarritzeko bide-erakusle izan ditugu testuak finkatu dituzten lan zientifikoak. Lan zientifikoak era askotakoak dira, aldizkari berezituetako artikuluak, testu zaharren edizio-liburuak, tesi-lanak... Testuak finkatu dituzten lan zientifikoak, beraz, asko eta askotarikoak dira. Testu zaharren edizio lan eredugarri bat, esaterako, Mitxelenaren *Textos arcaicos vascos* lana da. Mitxelenaren lan zientifiko guztiak, bestalde, nola ez, guretzat oinarri izan dira. Gure tesi-lanetarako Euskal Filologian eta ahozko literaturaren esparruan mugarri eta bide-erakusle izan dira, besteak beste direla, Jean Haritschelharren *L'oeuvre poètique de Pierre Topet-Etchahun* (*Euskera* 1969-1970) eta Julen Arriolabengoaren *Euskara Ibarguen-Cachopin kronikan (XVI. mendea)*. Haritschelharrek Etxahun zaharraren kantuak argitaratu eta finkatzeko orduan guk bezala iturri argitaratuak eta eskuizkribuak erabili zituen. Guk ere era bietako dokumentuak erabili ditugu.

Hurrengo puntuetan gure tesi-lan honetan zer egingo ez den adieraziko dugu, lehenik, eta zer egingo dugun, bigarrenik.

2. EZ DA EUSKAL BALADEN ALDERDI HISTORIKOA AZTERTUKO

Zenbait euskal balada Euskal Herrian berean jazo diren gertaeretan oinarriturik daude. *Berete-*

rretxeren k(h)antoreak XV. mendeko gertaera odoltsuetan du oinarri. *Urtsua* baladak, Arizkunen, Nafarroan, aurkitzen den Urtsuatarren dorretxeko eta ondoan dagoen Santa Ana ermitako gertaerak kontatzen ditu. Euskal kanta zaharrak bildu dituztenak, XIX. mendetik beretik hasita, kantuen alderdi historikoez axolaturik egon dira, inolako dudarik gabe. Are gehiago esango genuke, XIX. mendeko biltzaile guztiek gutxi-asko izan dutela alderdi historikoaren kezka. Chahok, esaterako, Atharratze jauregian balada bildu zuenean, zehaztasun hau dakar:

> Complainte de la fille du Compte de Luxe mariée contre son grée au roi de Hongrie. Il a, sur un monticule, près d. Tardets, les ruines du château qu'elle habitait.

Jean Baptiste Arxük, esaterako, *Urthubiako Alhaba* balada transkribatu ondoren, besteak beste direla, galdera hauek egiten ditu.

> Mais quel est ce roi de France au coeur dur et dissolu?/Est-ce Charles VII qui, en 1442, passa dans la Gascogne et s'empara de la ville de Dax. /Est-ce Louis XI qui, au dire de Mazeray, eut une entrevue avec Henry IV de Castille au chateau de Urtubie en 1462?

Salaberrik 1870ean bere kantutegia argitaratu zuenean ere Bereterretxeren gaineko zehaztasun historikoen gainean galdetu zuen:

> Quelle est l'origine vraie de cette légende? A quelle date remonte-t-elle? Le *Jaon kunte*, probablement un comte de Trois-Villes, lieutenent du roi en son château de Mauléon, avait-il condamné à mort Berterretch pour crime, ou Berterretch était-il l'innocente victime de la jalosie de ce seigneur, amoreux comme lui de la belle Marguerite d'Espeldoy? Il est difficile d'avoir là-dessous une opinion bien arrêtée et basée sur des preuves irrécusables.

Salaberrik zenbait legenda edo baladaren alderdi historikoa nahi du jakin eta askotan badakiela uste du, nahiz eta okerturik egon. Jean de Jaurgain historialariak, 1899. urtean, *La tradition au Pays Basque* liburuan, "Quelques légendes poétiques du Pays de Soule" lan bikainean, zenbait balada historikoren gertaerak finkatzen eta azaltzen ahalegindu zen. *Urrutiako anderia*, *Bereterretxen k(h)antorea*, *Atharratze jauregiko anderia, Egun bereko alharguntsa*, *Mus de Sarri*, *Arbotiko prima eijerra* baladak aztertu zituen. Bi hamarkada geroagora, Juan Karlos Gerrak, 1921. urtetik aurrera, Jean de Jaurgainek aipatu zituen baladetako zenbait eta beste banakaren bat –*Alostorrea* balada, besteak beste– aztertu zituen "Los cantares antiguos del Euskera" artikulu sailean. Julio Caro Barojak *El señor inquisidor y otras vidas por oficio* liburuan, "Pedro de Ursúa o el caballero" kapituluan, urtsuatarren linaia eta *Urtsua* baladaren alderdi historikoa ere aztertu zituen. Badira, jakina, euskal balada historiko gehiago ere aztertu gabe daudenak. *Uretako jauna* edo *Untziak eder bela* seguru asko gertaera historikoetan oinarriturik daude eta azterketa historikoaren zain daude.

Uste dugu alderdi historikoa aztertzea historialariei dagokiela, dokumentu historikoak aztertuz benetako ekarpena egin dezaketenak direlako. Alderdi historikoa lantzea gure konpetentzietatik urruti dago. Guk tesi-lan honetako ekarpen nagusia testuak berak finkatzea denez gero, alderdi historikoa ez dugu landuko.

3. EZ DA BALADEN DOINU ETA MUSIKARIK EMANGO

Baladak testu kantatuak dira. Euskal musikologoek baladak bildu dituztenean pentagrama eta guzti argitaratu dituzte. Are gehiago, zenbait biltzailek balada kantatuen doinuari arreta handiagoa eskaini diote hitzei berei baino. Azkuek, hiru aldiz behintzat, baladaren lehen ahapaldia doinu eta guzti eman eta gainerako balada osoa argitaratu gabe utzi zuen. Horixe gertatu zen, esaterako, hiru baladarekin, Fo-

ruko *Neska ontziratua*, Mañariko *Apezbeltza* eta Aulestiko *Birjinearen gaba da eta* ereduekin. Biltzailerik onenek balada bat bildu dutenean, bildu duten doinua ere argitaratu ohi dute. Lizarralderen *Romances euskéricos de Arantzazu* eskuizkribuan baladak askotan doinu eta guzti jasoak daude. XVII. mendean Oihenartek bildu zuen *Andre Emili* baladak edo 1801ean Humboldtek Itsasun bildu zuenak XX. mendean Azkuek bildu zuen doinu bera ote zuten? Ezin jakin. Baladetako testua oso antzekoa da, baina doinuaren berri ezin jakin dugu. Baladetako doinuen azterketa musikariei dagokie, inolako dudarik gabe. Baladetako doinua ematea ere gure konpetentziatik urrun dago.

Zenbait kasutan balada bildu den lehen dokumentuan pentagrama bat dator. Chahoren balada bitan, *Atharratze jauregian* eta *Neska ontziratuan,* pentagrama bat dator. Doinu hori, jakina, testuarekin batera argitaratu dugu. Doinuaren gaineko azterketarik, ordea, ez dugu egin tesi-lan honetan.

4. GURE TESI-LANEAN EZ DA IKERKETA KONPARATIBORIK EGINGO

Kontu jakina da euskal balada gai batzuk Europa osoan ere ematen direla. *Neska ontziratua*, *Errege Jan*, *Arrosa zuriaren azpian* eta *Egun bereko alarguntsa* baladetan, kasurako, dauden gaiak Europako hainbat herritako baladetan ere aurkitzen dira. Honelaxe zioen, esaterako, Manuel Lekuonak 1965. urteko *Literatura oral vasca* lanean:

> Muchos de los temas desarrollados por nuestros Romances, pertenecen a la Literatura universal, como ocurre también con los Romanceros de los demás pueblos; pero aun en estos casos su modo de tratarlos encierra innegables rasgos de verdadera originalidad.
>
> La forma es a las veces a modo de una serie de coplas redondeadas; otras veces en forma más tendida, con una rima continua y hasta reiterada (a diferencia de los *bertsolaris*). Es muy característica del género una gran sobriedad de expresión y la ninguna morosidad en las descripciones.

Gure baladetako gai asko Europako beste hizkuntza batzuetako balada gai batzuetan ere ematen dira, M. Lekuonak aspaldi esan zuenez. Hizkuntza diferenteetan eman diren gai beraren aldaerak aztertzea guztiz ernagarria da, inolako dudarik gabe. Europa osoko *ballad type* bat, esaterako, emazteak senarra edo amorantea hil ondoren bere etxean gordetzen duenekoa da. Euskaraz balada gai hori *Goizian goizik jeiki nündüzün* edo *Egun bereko alharguntsa* izendatzen da. Balada gai horri hizkuntza desberdinetan dauden ereduen gainean Diego Catalanek *Por campos del romancero* liburuan artikulu bat eskaini zion. Diego Catalanek Kataluniako eta Okzitaniako baladekin batera euskarazko ereduak ere aztertu zituen. Era honetako lanak egiteko hizkuntza askotako corpus nagusiak eta gai nagusiak ondo aztertuak izan behar dira. Beste herri batzuetako jakitunekin ere harremanetan egon behar da eredu nagusiak bideratu ahal izateko. *Egun bereko alharguntsa* baladako bertsio nagusiak Diego Catalanek, esaterako, Mitxelenarengandik jaso zituen.

Gure asmoa, ordea, besterik da: euskal balada gaietako ereduak finkatu nahi ditugu. Gure lana oinarrizko lana da, oinarriak berak finkatu nahi ditugulako.

5. ZEIN BALADA MOTA AZTERTU ETA FINKATUKO DIRA TESI HONETAN?

Gure artean, *Euskal baladak* liburu bikain biak argitaratu zituzten lantaldekoek bigarren liburuan, hots, baladen antologian, hiru sailetan sailkatu zituzten euskal baladak. Lehen sailean, *balada zaharrak*; bigarren sailean, *tradizio modernoko testuak;* eta hirugarren sailean; *balada arruntak*. Lehen sailean, *balada zaharretan*, Mitxelenaren *Textos arcaicos vascos* lanean finkaturik dauden zenbait testu iruzkindu zituzten: *Sandailia*, *Aramaioko kanta*, *Arrasateko erreketa*, *Bretainiako kanta*, *Milia Lasturkoren eresia*... Testu horietako zenbait, Ibarguen-Cachopin kronikan daudenak, Julen Arriolabengoak aztertu eta iruzkindu zituen bere tesian. Testu horietako asko balada-puskak, eresi zaharrak eta kantu historikoen puskak dira.

Erdi Aroko testu zaharren berri ematen Juan Karlos Gerra hasi zen 1921. urtetik aurrera *Euskaleŕiaren alde* aldizkarian. 1924. urtean *Viejos textos del idioma* liburuan argitara eman zituen hiru urte lehenago aldizkarian argitara emandako lan guztiak. Luis Mitxelenak, jakina, *Textos arcaicos vascos* lanean testuak zehaztasun handiagoz eman zituen. Testu zahar horiek ez ditugu aztergai izango. *Balada arruntak* gaztelaniazko *romances vulgares* deizioaren euskal ordaina da. Era honetako baladak bigarren mailakotzat jo daitezke asko eta asko. Bertso paperetan ateratako kantu narratiboak dira asko. Kantu narratibo horietan urkabe-bertsoek sail garrantzitsu bat hartzen dute. Urkabe-bertsoei hiruzpalau artikulu eskainiak gara. Balada arrunten sail desberdinak kontuan harturik lan monografiko andana bat egin liteke, inolako dudarik gabe. Balada arruntetan, batez ere urkabe-bertsoen gainean, lan luze bat egina dugu eta hurrengo aldi batean ikusiko du argia. Gure tesi honetan interesatzen zaizkigun baladak *tradizio modernoko testuak dira*. Horien berri hurrengo puntuan emango dugu.

6. TRADIZIO MODERNOKO TESTUAK AZTERGAI

Erdi Aroko kanta zaharrak eta balada arruntak alde batera utzirik, baladak, letra maiuskulaz, gelditzen zaizkigu. Horiek dira *Hauzeko anderea*, *Aldaztorrea*, *Alostorrea*, *Amoros baztertua, Ana Juanixe*, *Anderea gorarik*, *Andre Emili*, *Atarratze jauregian*, *Bereterretxeren kantoria*, *Egun bereko alarguntsa*, *Ene mutilik tipiena*, *Errege Jan*, *Frantziako anderea*, *Hiru kapitainak* edo *Larrosa xuriaren azpian*, *Jaun Barua*, *Judu herratua*, *Lantzarena*, *Musde Sarri*, *Neska ontziratua* edo *Brodatzen ari nintzen*, *Testamentuarena*, *Urtsua, Aitorra*, *Orriak aidez aide*, *neska soldadua*, *Arantzazuko kantutegia*, *Arrateko kantutegia*.

Euskal baladak lantaldekoek lehenengo aldiz balada-sail hornitu bat proposatu zuten. Antonio Zavalak bere *Euskal erromantzeak/ Romancero Vasco* liburuan *Euskal baladak* lantaldekoek eratutako zerrenda zabaldu egin zuen: guztira 94 gai. *Balada historikoak,* 22; *Izen ona* sailekoak, 7; *Itzulera* sailekoak, 8; *Amodioa* sailekoak, 17; *Ipuinak* sailekoak, 6; *Beranduko erromantzeak,* 4; *Balada erlijiosoak,* 31. Antonio Zavalak bere liburuaren bukaerako azken puntutzat *Erdi Aroko kantak/ Cantares de la Edad Media* saila dakar. Kantu zahar hauek balada guztien ondoren eman zituen. Tolosako ikertzaileak urkabe-bertsoekin liburu bat prestaturik bazuen ere, argitara gabe utzi zuen. Bere baladategian, zuzen den bezala, ez zuen asmoz behintzat urkabe-bertsorik sartu.

Antonio Zavalak balada gai eredu berriak proposatu zituen, hots, *ballad-type* berri harrigarriak eskaini zituen. Lehenengo aldiz, esaterako, *Kanzuriano* balada tipoa edo gaia, *Hala bada etxe noblia* edo *Untziak eder bela*, eta abar. Antonio Zavalak baladatzat eskaintzen dituen beste gai edo tipo batzuk ez dira baladak. *Maitiak bilhoa holli* edo *Loiolan jaio izan zan seme noblia* edo *Atia kis-kos* ez dira baladak, gure lanean frogatuko dugunez. Lehena, amodiozko kantu bat da, gure artean XVIII. mendeko herri lirika deitu ohi duguna, edo beste modu batera, Iparraldeko XVIII. mendeko amodiozko kantuetako bat da. Bigarrena, XVIII. mendean sortutako bertso sail interesgarri bat da. Hirugarrena, *Atia kis-kos* delakoa, amodiozko kantu dialektiko bat da. Ez du baladen eiterik.

Gure komunitate zientifikoak onartzen duen balada corpus ezagun bat badago ere, hainbat kantu narratibo eta amodiozko kantu baladak ote diren zehaztu gabe dago. Uste dut zein diren tradizio modernoko baladak eta zein ez, ez dela zenbaitetan pertsona bakar baten egitekoa, komunitate zientifikoarena baino.

7. GURE TESI-LANEAN ZEIN CORPUS ERABILI OINARRI ETA AZTERGAI?

Kantu narratiboen *corpus* nagusi edo bildumen beharra izan dugu Euskal Herrian. Kantu zahar narratiboen lehen bilduma bat 1924. urteko Juan Karlos Gerrarena izan zen. Aurretik baziren amodiozko kantuen bildumak, era bateko eta besteko kantuen bildumak, jakina. Lizarraldek ere *Romances euskéricos de Arantzazu* lanean, Arantzazu gaitzat zuten baladak bakarrik ez, euskal balada erlijiosoen bilduma oso

bat egin nahi izan zuen, bilduma horretarako Arrateko baladak eta beste balada erlijioso batzuk transkribatu baitzituen. *Euskal baladak I* eta *II* liburuetan, bi mendetan barrena, XIX. eta XX. mendeetan hanhor-hemen sakabanaturik zeuden kantutegi eta era askotako lanetako euskal baladen berri eman nahi izan zuten. Idatzitako eta bildutakoaren berri ez ezik, lantaldekoek berek bildutako balada eredu berriak eskaini zituzten. Antonio Zavalak bere bilduma eskaini zuenean ere bide bera ibili zuen. Aurreko bilduma eta lanetan eskainitako *ballad-type* edo *balada gaiak* onartu ondoren, gai eta eredu berriak eskaini zituen. Bere liburua aberatsagotzeko balada gai bakoitzean ahalik eta eredurik gehien txertatzen ahalegindu zen. Antonio Zavalak, gauzak alde batera ikusita, *Euskal baladak* lanaren egileen irizpide bera erabili zuen. A. Zavalak liburu bakar batean euskal balada gai guztien eredu guztiak sartzen ahalegindu zen, eta neurri handi batean lortu zuen. Ez da inondik ere erraza hain material sakabanatua liburu batean ordenaturik jartzea. Lan horretan ibili denak bakarrik asma lezake zein neurritako lana den. Liburu bakar batean ez zen inoiz hainbat euskal balada eskaini. Liburu horretan, bestalde, sakabanatutako bibliografia ia guztia erabiltzen saiatu zen eta euskal baladak zituzten dokumentu argitaragabe asko ere erabili zituen. Bibliografia ia guztia diodanean, guztia gehienetan ezinezkotzat jotzen delako da.

Geure tesi-lan honetan, beraz, A. Zavalaren *Euskal erromantzeak/ Romancero vasco* liburua erabiliko dugu oinarritzat. Zergatik? Zavalaren liburuan aurreko bilduma guztietako ekarriak bilduak daudelako. Baladak sailkatzeko erabiliko dugun sailkapena ere Zavalarena da. Uste dugu Zavalak proposatzen duen balada sailkapena guztiz argigarria suertatzen dela. Hobe da, inolako dudarik gabe, lehen pauso batean, sailkapen batetik abiatzea euskal balada guztiak nahas-mahas ematea baino lehen. Izan ere, gure ustez, euskal baladetan bi sailkapen argi egin litezke *balada historikoak* eta *balada erlijiosoak*. Bi multzo argi horiek erraz ikus litezke. Bi multzo horietan, ordea, ezin dira balada guztiak sartu. Balada erlijiosoen multzo nagusian, nahitaez, beste multzo batzuk egin beharra dago. Antonio Zavalak proposatzen dituen *Historikoak*, *Izen ona*, *Itzulera*, *Amodioa*, *Ipuiak*, *Beranduko erromantzeak*, ezin dira, egia esan, erabateko multzoak izan. Balada bat, esaterako, bi multzo desberdinetan sailka liteke edo hirutan, eta multzo desberdinetatik zein den egokiena ez da erraz erabakitzen. *Frantziako anderea*, esaterako, A. Zavalak *Izen ona/Honor* sailean sartu du, baina ezin zitekeen sailkatu, esaterako, *Itzulera/ El retorno* sailean?

A. Zavalaren *Euskal erromantzeak* ardatz hartuz gero, aurrerako balada lan monografikoak ere oinarri hartzen dira. Bestela esan, orain arteko balada bildumarik handiena oinarri hartuz gero, euskal baladak orokorrean hartzen dira lantegitzat. Aukera honek, jakina, genero batek euskaraz duen corpusa langai hartzea esan nahi du. Metodologia bat aplikaturik genero bat bere osotasunean hartzeak alde onak ditu; beste alde batetik, ordea, baditu bere arrisku handiak ere. Euskal balada gaietako eredu guztiak ezin dira denak aztertu tesi-lan bakar batean, ez eta eredu guztiak ere. Beharbada pertsona bakar batek neurri batean hainbat euskal *ballad-type* azter litzake. Kontuan izan bedi Zavalak bere baladategia 70 urte zituela argitaratu zuela, 1998. urtean. Bizitza guztian, jakina, izan zuen kantu narratiboak biltzeko ahalegin jarraitua. Haren lan-metodoa ezagutzen dugunok badakigu karpetetan gaika materialak biltzen urteetan zehar saiatzen zela. A. Zavalaren lanaren xede nagusia ez zen euskal baladen azterketa izan, euskal baladen bilketa bat pentagrama eta guzti eskaintzea baizik. Lan handia egin zuen. Baina uste dugu horretan ez dela bukatzen gure euskal baladen corpusa. Etxeari habe sendoak jarri zizkion, baina oraindik zer hobetua badago. Eta eskaini zuen etxe eder hori baino are ederragoa dela euskal baladategia frogatu nahi genuke gure tesi-lan honetan, eredu zenbait garbituz, testuak dituzten oker eta gaizki-ulertuak kenduz eta orain arte ezagutzen ez ziren *ballad-type* berriak eskainiz eta eredu berriak ere eskainiz.

8. AHOZKO TESTUAK PAPEREAN JASOTZEA: IRAUPENERAKO LEHEN BIDEA

Ahozko testu bat paperean jasotzen denean, noraezekoa da berriemaile bat eta transkribatzaile bat behintzat egotea. Transkribatzaileak berriemailearen kanta, ipuin edo dena delako ahozko generoa biltzen duenean argazki zehatza egin nahi izaten du. Argazki zehatza esaten denean, ahalik eta transkripziorik on eta fidelena lortzea esan nahi da. Berriemailearen kontaldi edo kantaldi bakoitza, hots, *perfor-*

mance bakoitza, paperean bil liteke biltzailearen gogoa, ahalegina hartara bideratua badago. Performance edo gauzatze bat paperean bil daiteke biltzailea hartara prestatua badago. Ez dago dudarik jasotzeko ariera horretan berriemaileak berak ere laguntza handia eman dezakeela, eta, hartara, paperean biltzen edo jasotzen dena zehaztasun eta fideltasun handiz egin litekeela.

Eman ditzagun euskal hiru kanturen adibideak. Hiru horietatik bi baladak dira eta hirugarrena Antonio Zavalak baladatzat hartu zuen, nahiz eta gure ustez amodiozko kantu bat izan. Has gaitezen amodiozko kantuarekin. Charles Bordesek *Maitiak bilhoa holli* kanta 1890. urtean bildu zuen. Charles Bordesek bildutako kantu eredu hori izan da euskal kantutegietan errepikatuenetakoa.

> Qu'on me permette à ce propos un souvenir personnel. En septembre 1890, à la fête de la Chapelle, petit cartier de Barcus, par une nuit de pluie diluvienne, dans une auberge enfumée, je recueillis ce thème admirable de la bouche d'un grand garçon mélancolique nommé Notary.

1890. urtean kantari batek kanta bat kantatu zuen leku berean musikari biltzaile bat egokitu zen eta musikariak kantua jaso zuen. Jasotzeko moduak asko dira, jakina. Kantari hark ere bere eredua ahoz jaso eta memorian gordea izango zuen noski, edo baliteke, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan askotan gertatu izan den bezala, kantari hark etxean kantu-kaier bat izatea, edo baliteke, era berean, kanturako zaletasuna izanik, kantariak berak kantu-kaier batean jasotzea ikasitako kantak. Charles Bordesek hitz egiten duen 1890. urteko bilketa hartan uste izatekoa da kantua bildua izan zela kantaria bera, beharbada, ohartu gabe. Zergatik? Biltzaileak berak nola jasoa zen baitio: Barkoxen festak ziren eta gaur truxutsu batean, euria goian-behean ari zuen gau batean, ostatu keztatu batean bildu zuela. Ez zuen bildu musikariaren etxera joanda, kantaria jakinaren gainean dagoela, biak bakarrik, musikariak eskaturik, kantariak kanta kantatu ahala. Biltzailearen gogoa, ahalegina eta prestakuntza biltzera bideraturik badaude, bilketa gauzatu liteke berriemailearen *performance* edo gauzatze bakar batean; hots, kasu honetan kantua behin kantaturik, kantua jaso lezake transkribatzaileak.

Eman dezagun beste adibide bat. 1890. urtean euskal baladarik baliotsuenetako bat bildu zen. Kasu honetan ez dakigu nor izan zen biltzailea, baliteke Charles Bordes bera izatea, baina ez gaude erabat seguru. Kantariaren izena badakigu, Liginagako Carrique Goyeneix. Lehen aldiz balada hau Kaliforniako astekari batean agertu zen, *California-ko Eskual Herria* aldizkarian, 1895. urtean, 45. zenbakian. Balada horrek gehienetan gure artean *Errege Jan* du izenburua. Hona 1895. urteko argitaraldian zer adierazten den:

> Bertsu eder bezen hunkigarri hok bilduak izan dire 1890ko uztarilan, Liginaga herrian, Atharratzeko kantonadan, herriko seme Carrique Goyeneix-ek kantatzen zituen ber demboran.

Kasu honetan, aurrekoan bezala, kantu ederra zelako bildua izan da, batetik, eta kantariagandik hurbil biltzaile batek jasotzeko gogo, ahalegin eta prestakuntza izan zuelako, bestetik. Kantua, kasu bietan, txori preziatu bat izan da, lumaje ederrekoa eta ehiztaria hurbil egon da, ondo prestaturik. Kasu bietan, konparantza berarekin jarraiturik, ehiztariak txoria ez du hil, txoria bildu egin du. Eta harrezkero *Errege Jan* kantatzen bada jasotako eredu horretan bakarrik oinarriturik, txoriak beti bere hegaldi dotorea berrituko du.

Eman dezagun, hirugarrenik, aita Donostiaren testigantza polit bat. Aita Donostiak 1936ko artikulu batean aitortzen duenez, euskarazko *Arrosa xuriaren azpian* balada bildu zuen eguna buruan iltzatuta gelditu zitzaion (Aita Donostia: 1936):

> Cantada, como yo la oí, por la *etxekoandrea* de Iriburua, un día lluvioso de otoño, en la cocina de un pobre caserío, rodeado del viejo Ganexon Laborde (de 82 años, arsenal de canciones), de su hermana (de más de 70, inmóvil en su banqueta, junto al fuego, en un estado de inocencia inconsciente), de *etxeko-nagusi* y del pequeño *Ganexon* (futuro *kantari* que aprende de su abuelo las viejas canciones), oída así, esta vieja leyenda se nos aparecía rodeada de un halo misteriosamente poético, bruma poética que circunda a estas fantasías populares, de las que un poeta como Baudelaire dijo que llevaban una *estampille divine*, y cuyas *naivetés et grâces*, decía Montaigne, *égalent les poésies les plus parfaites selon l'art*.

Puntu honetara ekarri ditugun adibideetan kantu zaharrak bildu ziren giroa adierazten da. Gehienetan, ordea, ez ohi da holako testigantzarik bildu izan. Kasurik onenean kantuaren testigantza bakarrik eman da, kantua noiz, zein ingurugirotan, eta abar adierazi gabe.

9. EUSKAL BALADEN TRANSMISIOA HEGOALDEAN

Euskal baladak ahoz aho, belaunaldiz belaunaldi, transmititu dira. Ahozko literaturaren kontzeptu nagusienetakoa horixe da: transmisioa. Oihenartek XVII. mendean, *Art poetique basque* lanean, *Andre Emili* balada bildu zuen. Humboldtek XIX. mende hasieran, 1801ean, bildu zuen Itsasun eta Azkuek XX. mende hasieran. Balada bera hiru mendetan bildu izan da. Hiru ereduak elkarrengandik hurbil daude, ia hitzez hitz berdinak dira. Testu finkatu batzuk ahotik belarrira eta belarritik ahora transmititzen dira. Balada batzuk komunitate baten memoria kolektiboan finkatuak daude eta transmisioa ematen bada, testuak oraindik bizirik daude. Hizkuntza bera erabiltzen duen komunitate baten barruan hainbat herri generoren transmisioa ahulduz joan da. Transmisioaren ahultasunak ondorio jakina ekarri ohi du: erabateko etendura.

Euskal baladen transmisioa etentzat jo liteke. Gure belaunaldikoak izan gara, neurri handi batean, etendura horren lekukoak. A. Zavalaren baladategian azken balada-jasoketak noiz izan diren aztertzen badugu, azken-azken jasoketa eta argitaratzea 1996. urtekoa da. Iñaki Gamindek *Bart amarretan* baladaren azken bertsioa 1996. urtean argitaratu zuen. Juan San Martinek 1973. urtean bildu zuen eredu bat Eibarren. Beste balada batzuen transmisioa askoz lehenago etenda zegoen. *Urtsua* baladaren azken lekukotza 1963. urtean Antonio Zavalak berak bildu zuena da. Azken bertsio hori, ordea, ahapaldi bakarrekoa dela esan liteke, eredu nahastu bat baita. Beste balada batzuen transmisioa lehenago etenda zegoen, itxura guztiak direnez. *Andre Emili* baladaren azken lekukotza Azkuerena edo XX. mendeko lehen erdialdeko Lafitterena da. Hegoaldean azken baladen jasoketa 80ko hamarkadan egin izan dira eta *Idatz&Mintz* aldizkarian argitaratu dira. 90eko hamarkadan egindako bilketetan lau-bost aldiz bildu genuen *Frantziako anderea* balada. Horietako berriemaile bati, Maria Josefa Zumalde araoztarrari, 1967an Bitoriano Gandiagak *Frantziako anderea* eta *Neska soldadua* baladak jasotako emakume berari, jaso nizkion *Frantziako anderea* eta *Neska soldadua*.

Hegoaldeko transmisioaren indargetzea eta etendura antzeman daiteke herri ondarea argitaratzen ari diren aldizkarietako ekarria aztertu ondoren. Herri euskara biltzen duten lan monografikoetan –askotan, ez beti– lanaren bukaera aldera jasotako kontakizun eta kantuen uzta azaldu ohi da. Herri guztietan bildutako kantu ondarea ahula izan ohi da, kopla solteak, umeak lokartzeko sehaska-kantu zenbait. Baladarik ez da inoiz aurkitzen.

10. EUSKAL BALADEN TRANSMISIOA IPARRALDEAN

Iparraldean euskal baladen transmisioa lehenago eten delako froga argiak ditugu. Ahoz bildutako kantuen azken lekukotza seguruak XX. mendeko lehen erdikoak dira. Zenbait baladaren transmisioa, ordea, XX. menderako etena zen. Eman dezagun adibide argigarri bat. *Untziak eder bela* edo *Elizaldeko alaba* baladaren transmisioa XX. mende hasierarako etenda zegoen. Azkuek XX. mende hasieran ahapaldi bakarra bildu zuen, baina ez zuen argitara eman. Kantua bera ere ez zuen identifikatuko seguru asko, kantu ezezagun baten ahapaldi bakarra zelako. *Untziak eder bela* baladaren bertsio osoenak XIX. mendeko kaieretan aurkitzen dira. Eredu horien iturriak Salaberriren kaierak eta Kanbo herriko Jean Fourcaderen kaiera dira. Guk beste eredu bi aurkitu ditugu Hiribarrenen paperetan. Eredu oso guztiak –hau da, zortzi ahapaldi baino gehiago izanik, argudioan hasiera, korapiloa eta bukaera dutenak, aski osotzat hartzen ditugu– XIX. mendeko kantukaieretan bilduak izan dira. Tradizioz norbaiten ezpainetatik bildutako eredu bakarra Azkuek bildua da. Azkuek bildu eta argitaratu ez zuen landa-kaiereko ereduak balio handia du, egiazko balada baten berme argia biltzeaz gainera, baladaren doinua ere bildu ahal izan zuelako.

XX. mende hasierarako, era berean, Iparraldeko *Neska ontziratua* baladaren transmisioa ia guztiz etenda zegoen. Azkuek eta aita Donostiak bildutako ereduak guztiz zatikakoak dira. Ahapaldi bakarrekoak. Caubet Chubuko Arhan altzaitarrak (1913-) ere eredu bat eman zuen 70eko hamarkadan, lauzpabost ahapaldi zituena. Ahapaldi bakar horietatik, ordea, ezin da atera istorioaren haria. *Neska ontziratua* baladaren eredurik osoenak, beraz, XIX. mendeko lehen dokumentuetara joz gero transkribatu eta eman ahal izan ditugu. Chahoren bi ereduak XIX. mendekoak dira, bi ereduetako bat Jean Baptiste Arxü (1811-1881) zuberotarraren transkripzioa da. Aiherrako eta Donibane Garaziko ereduak, zein Gotañeko eta Altzaiko ereduak, XX. mendeko hasierako kaieretan bilduak daude. Baliteke, ordea, kaier hauetako zenbait kantu beste kaier zaharrago batzuen kopiak izatea.

XIX. menderako zenbait baladaren tradizioa etenda zegoen, itxura guztiak direnez. Sauveur Lardapide (1812-1889) Arxüren garaikidea zen eta XIX. mendean ia kasualitatez bildu zituen *Uretako semea* eta *Zalduko jauna*. Honelaxe dio berak:

> Espèce de chansons copiées sous la dictée d'une vieille femme dont la mémoire avait retenu quelques lambeaux dechirés des chansons originales qui devaient être intéressantes quoiqu'elles n'aient quasi ni tête ni queue: elles paraissent avoir quelque valeur comme monument historique: elles sont certainement du temps où il y avait encore un roi de Navarre ayant son palais et sa cour à Pau: et peut-être ailleurs aussi quelques châteaux[1] royaux où la cour pouvait se transporter de temps en temps.

Sauveur Lardapideren testigantzari esker, XIX. mendean, 1889. urtea baino lehen, emakume zahar bati bildutako zenbait ahapaldik balada historiko bakan baten berri ematen digute. *Errege Jan* baladaren testigantza bakarrak ere, era berean, 1869. eta 1895. urtekoak dira. Bi eredu hauek tradiziotik bilduak dira, kantari biren ezpainetatik. Arxük bildu zuen *Urthubiako Alhaba* baladaren tradizioa ia etenda zegoen XIX. menderako; Arxük, Sauveur Lardapidek bezala, atso bati bildu baitzion.

Badira oraintsuagoko tradizioa izan duten ereduak ere, zorionez. Azter dezagun, kasurako, *Arrosa xuriaren azpian* baladaren transmisioa. Balada honen eredurik osoena Louis Dassancek bildu zuen bere herrian, Uztaritzen, 1930. urtean, Lafitte deitura zuen nekazari baten ezpainetatik. *Apez beltza* baladaren azken eredua Louis Dassancek Martin Larreri bildu zion karta bidez, 1963. urtean. Iparraldeko kantu zaharrak biltzen diren aldizkari zein artikuluetan ez da jasotzen XX. mendeko bigarren erdiko testigantza bizirik. Tradizioak eskatzen duen testigantza bizia, norbaiten ezpainetatik kantu bat bildu den testigantzarik ez dugu aurkitzen XX. mendeko bigarren erdian.

XX. mendean, Lehen Mundu Gerraren bukaeraren ondoren, 1921. urtetik aurrera, Iparraldean zenbait euskaltzalek *Gure Herria* hilekaria sortu zuten. Hilekari honen ale bakoitza musika-gehigarri aberats batez hornitua zen. *Gure Herria* hilekariaren lehen aroan, *Nehor* eta *Dufau* izenen azpian bi kantu-biltzaile aritu ziren Iparraldeko kantuak biltzen eta argitaratzen. Bi biltzaile hauek Chistoph Dufau medikua (1888-1922) eta Jean Barbier apeza (1875-1931) izan ziren. Bi-biek Senperetik bidaltzen zituzten kantuak. Bata, Christoph Dufau senpertarra zen (Dufau), eta, bestea, Jean Barbier (Nehor) Senperera apez etorria zen. Bi-biek *Gure Herria* aldizkariaren lehen aroan, balada bat edo beste argitaratu zituzten. *Anderia gorarik zaude*, *Brodatzen ari nintzen* (bertsio moztua). *Gure Herria* hilekarian Iparraldeko tradizio bizitik zein kantu-kaieretatik hartutako herri-kantak argitaratu zituzten. *Gure Herria* hilekariaren musika-gehigarriaren lehen aroa laburra izan zen Christoph Dufau 1922. urteko azaroaren 15ean, gazterik, hil baitzen. Behin 1923. urtetik aurrera aita Donostiaren esku gelditu zen musika-gehigarria. Pentagrama bakoitzaren gainean, askotan, *recueillie et harmonisée par R.P.J.A. de Donostia* dator.

Iparraldean, zenbait etxetan, etxe bakoitzeko kantu ondarea eskuzko kantu-bilduma batean jaso da. Kantu-kaier horien tradizioa handia izan bada ere, etxe askotan kantatzeko usadioa galdu egin da, eta ondorioz, kantu-kaiera bera ere galdu da. Euskal kantu-kaierak are biblioteketatik ere desagertu dira. Ahozko literaturak duen ondikozko patua denean ikusten da. Kantu-kaier horiek biltzea eta transkribatzea gure zeregin beharrezkoa da, hil edo bizikoa.

---

[1] Eskuidatzian *chateau* dator. Azentu zirkunflexua gurea da.

11. AHOZKO TESTUEN ETORKIZUNA: NONBAITEN GORDEAK IZATEA

Jasoa den ahozko testu bat egon daiteke urte askotan argitaratu gabe. Testua jaso den euskarria papera bada, gerora ere eman liteke argitara. Baina paperean jasoa egotea ez da nahikoa izaten, jakina. Paper hori ere jaso behar delako eta toki seguruan gorde. Toki seguru hori askoz seguruagoa da dokumentua —kantua jasotako papera— biblioteka batera badoa, edo kultura erakunde baten jabetza bihurtzen bada. Jasoa izan den paper hori askotan eta askotan desagertu egiten da eta papereko edukia argitaratu gabe gelditzen da. Beste kasu batzuetan, ikertzailearen eskuetara joaten bada, inprentako argia ikusteko zoria izan dezake. Euskal baladekin zerikusia duten zenbait dokumenturen berri emango dugu puntu honetan.

Eman dezagun, kasurako, *Errodrigo Zarateko* Erdi Aroko kantuaren adibidea. Ibarguen-Cachopin kronika deituriko dokumentuan, *Errodrigo Zarateko* deitu zaion kanta zahar bat egon da transkribatua. Dokumentu hori XVI. mendekoa bada ere, mende bat eta erdi lehenagoko bataila baten berri ematen duen kantu epiko bat dator transkribaturik. Kantu horren ahozko tradizioa ia guztiz galdu bada ere, tradizio horren berri ematen zuen dokumentua gorderik egon da. Ibarguen-Cachopin kronika bi zatitan banatua egon da: zati bat Markinako Mugartegitarren etxean eta beste zati bat Bilboko Aldundiko Bibliotekan. Guri dagokigun kantua ilunpean egon bada ere, XX. mende bukaeran, 1996. urtean, lehen transkripzioa egin zen. Hiru mendetan gutxienez – XVII, XVIII, XIX eta XX. mende zati handienean – ez dugu kantu horren berririk izan, eta XX. mende bukaera-bukaeran, 1996. urtean, kantuaren lehen transkripzio bat egin zuen Julen Arriolabengoak.

Andre Emili baladaren aldaera inportante gehienak argitara gabe egon dira hainbat urtetan. Humboldtek, Itsasun, 1801ean, Harambillet jaun apezagandik bildu zuen *Andre Emili* baladaren aldaera bat. Azkuek Berlinera egindako bidaia 5ean, 1922. urteko abuztuaren bostean, transkribatu eta 1925ean argitaratu zuen *Euskera* aldizkarian (Azkue: 1925). Humboldtek bere bidaia liburuan ez du esaten ezer *Andre Emili* baladaren gainean. Era berean, jakitun prusiarrak argitara emandako euskal materialen artean ez zuen inoiz argitara eman Itsasun bildu zuen *Andre Emili* balada. Humboldten *Andre Emili* baladaren aldaera 1801. urtetik 1925. urtera artean, ehun urte baino gehiagotan, argitara gabe egon da. Balada beraren aldaerarik zaharrena, ordea, Arnault Oihenartek bildu zuena, XVII. mendekoa, ez zen argitara eman 1967. urtera arte. Piarres Lafittek "L'art Poetique Basque" lanean eman zuen lehen aldiz argitara Oihenartek XVII. mendean bildu zuen eredua. Eulogio Gorrotxategi lazkaotarrak bere ama urdiaindarrari bildu zion balada zekarren dokumentu bat Manuel Lekuonaren paperen artean egon da, eta beste bat, Aitzolen *Colamus carmina nostra* bilduman. Dokumentu horietako bat, Manuel Lekuonarena, *Euskal baladak* liburua egin zuten ikertzaile gazteek argitaratu zuten 1980an, baina ez osorik. Beste transkripzio bat Antonio Zavalaren baladategian egindakoa da. Gure ustez bi transkripzioetako bat bera ere ez da jatorrizko dokumentuei fidel-fidela, guk geure tesi-lan honetan frogatuko dugunez. *Andre Emili* balada beraren aldaerak, beraz, lozorroan egon dira luzaroan.

Chahoren (1810-1858) kantu-bildumak historia bitxi baino bitxiagoa du. Chaho hil ondoren, haren kantutegia non zegoen ez zekien inork. Serpeille jaunak ere ez zeukan kantu-bildumaren berririk. Julien Vinson euskalaria, 1872. urtean, Chahoren bildumaren jabe mirakuluz egin zen. Chahoren kantutegia ez zen betiko desagertu zortearen apeta zoro bategatik. Alexandre Dihinx notarioa hil zenean, haren ondasunak salgai jarri ziren. Alexandre Dihinxek, hil zenean, ume txikiak utzi zituen babesgabe. Julian Vinsonek, Alexandre Dihinxen umeei laguntza bat ematearren, haren ondasunak saltzen ziren enkantera hurbildu zen zertxobait erosteko asmoz. Han, kasualitatez, Chahoren kantutegia aurkitu eta bi libera eta erdigatik erosi zuen. Bi libera eta erdi, oso gutxi zen, ezerezkeria bat. Honelaxe kontatzen du Julien Vinsonek berak "La bibliothèque de Silvain Pouvreau" artikuluan (Vinson: 1921):

> M. Serpeille était un ami de Chaho, dont il avait toutes les oeuvres, même les manuscrits et les épreuves. A sa vente, en 1891, j'ai acheté la plus rare, la brochure *Azti-Beguia* que M. d'Abbadie a vainement cherché toute sa vie; mais j'ai quelque chose qui avait échappé à M. Serpeille, un recueil de chansons que le hasard a amené entre mes mains. En Février 1872, mourait à Bayonne un notaire, Alexandre Dihinx, originaire

> d'Ustaritz. Comme il ne laissait que des enfants mineurs, on dut vendre ses biens. J'avais des relations avec lui et voulus avoir un souvenir de lui. J'allais à la vente et j'aperçus un jeune prêtre examinant une petite caisse avec attention. Je m'approchais et je vis des chansons et de la musique, dont le recueil de Chaho. Je demandai à ce jeune prêtre s'il s'occupait de basque, il me dit que non; je lui proposai d'acheter la caisse à frais communs; il accepta et elle fut adjugée por deux francs cinquante.

Chahoren kantutegiaren zati handiena kontserbatu bada ere, zenbait balada galdu egin dira. Chahoren kantutegiko *Bereterretxe* balada, esaterako, galdu egin da. Kantutegiaren zerrendan inbentariatua badago ere, kantutegian bertan ez da aurkitzen. Beste zenbait balada, zorionez, gorde egin dira: *Neska ontziratua* baladaren bi eredu, *Urrutiako anderea*, *Apez beltza*…

Guk tesi-lan honetan erabili dugun kantu-kaieretako bat *Croharé* kaiera da. Kantu-kaierek gehienetan jabearen izena hartu ohi dute. Delako Croharé Mauleko zapataria zen, eta berak zuen kantu-kaiera arropazahar biltzaile batek zaborrontzian aurkitu eta eman ziolako zeukan. Honelaxe kontatzen du Haritschelharrek "Auto-censure et rigueur scientifique dans les recherches folkloriques" artikuluan (Haritschelhar: 1965):

> J'en fus totalement informé de lire un manuscrit de chansons, actuellement en possession de M. Croharé, sandalier à Mauleon. M. Croharé me déclara que ce manuscrit lui avait été donné par un des ses amis, chiffonnier de son état, qui l'avait trové dans une poubelle. En réalité ce manuscrit es de J.D.J. Sallaberry: 30 chansons y figurent et trois feuillets séparés y sont ajoutés.

Zapatari baten eskuetan zegoen Salaberriren kantu-kaier hau Baionako Erakustokiko bibliotekan aurkitu genuen eta gure tesi-lan honetarako baliatu dugu. Hogeita hamar kantuetariko bat, zortzigarrena, *Abentiaren erdian Irisarriko herrian* kantua, *Eskoliertsa gaztea* kantu narratiboa aztertu dugunean erabili dugu.

Guk geure tesi-lan honetan bestek orain arte erabili gabeko hainbat dokumentu baliatu ditugu: Salaberriren paperak eta Arxüren kaier argitaragabea, esaterako. Francisque Michelek 1857. urtean argitaratu zuen *Le Pays Basque* liburua egiteko Arxü zuberotarraren kantu-bilduma bat baino gehiago erabili zituen. Non ote daude kantu-kaier horiek? Francisque Michelek erabili zituen moduko kaier baten kopia digitala gaur egun Mauleko *Sü hazia* kultura elkartean gordetzen da. Kantu-kaier hori Jean Baptiste Arxürena da. Kantu-kaier horretatik *Hauzeko anderia*, *Apez beltza*, *Anderea gorarik* eta *Urzo lüma gris gaxoa* baladak transkribatu eta iruzkindu ditugu. Balada horiek 1840. urtea baino lehenago transkribatuak dira, kantu-kaieraren azalean *Chants populaires du Pays Basque recueillis par J. B. et P. Archu* izenburua dakar eta.

Eman dezagun, kasurako, beste adibide bat. Julio Bareño (1890-1964) gernikarrak bildu zituen hainbat folklore material 1937. urteko Gernikako bonbardaketan suntsitu ziren. Beste zenbait mirariz salbatu ziren. Salbatu ziren materialen artean laurehun dantza-kopla baino gehiago eta bi balada daude: *Ana Juanixeren* eredu bat eta *Bart amarretan* baladaren eredu bat. Bi balada horiek 1918. urte aldera Lumon batutakoak dira. Balada horiek lehen aldiz 2014an ikusi dute argia geure artikulu batean (Kalzakorta: 2014). Bi balada horiek eta laurehun dantza-koplak ia ehun urte egon dira paperean transkribaturik inprentako argia ikusi gabe.

Zenbaitetan euskarri bakarra ez da papera izaten. Rudolph Trebitsch austriarrak Lehen Mundu Gerra baino lehen, 1913. urtean, Euskal Herrira egindako bidaian hainbat kontakizun eta zenbait kantu grabatu zituen. Iparraldeko materiala jasotzen Lacombek lagundu zion; Gipuzkoakoa, Gregorio Mujikak; eta Bizkaikoa, Julio Urkixok. Jasotako materiala Vienako Akademia Inperialean (gaztelaniaz Archivo Fonográfico de la Academia Imperial de las Ciencias) egon da gorderik hainbat hamarkadatan, harik eta Jose Maria Etxebarria karmeldarrak hainbat artikulutan argitaratu arte. Era berean, Lehen Mundu Gerrateko Iparraldeko euskal presoei egindako kantuen grabaketek mende bat itxaron behar izan dute –2015. urtera arte, alegia– horien berri jakin ahal izateko. Maider Berasagar zuberotarrak Berlinen jasotako materiala gaur egun Mauleko *Sü hazia* elkartean gordetzen da, nahiz eta argitaratzeko eskubiderik ez izan.

12. AHOZKO TESTUEN ETORKIZUNA: ARGITARATZEA

Jasoa den ahozko testu batek izan dezakeen zorterik onena argitaratzea da. Halaxe gertatu izan zen, esaterako, Charles Bordesek jasotako *Maitiak bilhoa holli* amodiozko kantuarekin. 1890. urtean jasotako testua 1900. urtean argitaratu zen *La tradition au Pays Basque* liburuan. Urte berean, 1890. urtean, jaso zen *Errege Jan* balada ere argitaratua izan zen 1895. urteko *Californiako Eskual Herria* aldizkarian zein 1899. urteko *La tradition au Pays basque* liburuan. Bigarren aldiz argitaratua izan zenean, Charles Bordesek argitaratu zuen. Argitarapen horretarako ez dakigu Charles Bordesek *Californiako Eskual Herria* aldizkaritik hartu zuen edo berak bildu zuen uztatik argitaratzen ari zen. Argitaratu ziren testu bietako transkripzioak onak dirudite. Testua guztiz ulergarria da kasu bietan. Baina baliteke jatorrizko eskuizkribuan argitaratu zen testuan baino argitasun edo informazio handiagoa izatea. Biltzaileen eskuizkribuak erabili dituen ikertzaileak badaki askotan eta askotan eskuizkribuan, hots, jasotako lehen dokumentuan argitasun eta garbitasun gehiago egoten direla testu argitaratuan baino.

Azkue handia da euskal balada gehien bildu dituen folklorista. Azkuek zenbait balada euskara hil den lekuan bildu zituen. Zaraitzun bildu zuen, esaterako, *Urteak zonbat egun tu* edo *Leisibatxoa* baladak. *Anaiai gaztigatu nion* Eugin bildu zuen. Leku horietako tradiziozko euskara galdua da. Uste izatekoa da, esaterako, Erronkarin *Neska ontziratua* balada gaiaren ereduak izango zirela. Zuberoako lau eredu osatu bildu dira: Arxüren biak, Altzaikoa eta Gotañekoa. Inoiz baino gehiagotan pentsatu dugu Erronkariko tradizioan ere izango zirela, baina ez dugu inolako frogarik. Azkuek egin zuen Erronkariko azken bilketa folklorikoa da ugariena. Gerora etorri diren biltzaile eta dialektologoen bilketa apurra da, kantu-hondakin gutxi batzuk guztira. Euskarazko *ballad-type* direlakoetan ez dugu Erronkariko eredu bat bera ere.

13. AHOZKO TESTUAREN LEHEN JASOKETA: LEHEN DOKUMENTUA

Gaur eguneko tresna eta baliabideak ez zeuden garaian, jakina, ahozko testu bat jasotzeko, berriemaileak eta biltzaileak leku berean eta aldi berean egon behar dute. Garai batean, gainera, *performance* edo gauzatzea eta lehen jasoketa denbora berekoak dira. Kantariak kantua kantatu ahala jasotzen du biltzaileak. Lehen jasoketa hori kantua kantatu edo kontua kontatu zen garaikoa denez gero, balio handikoa da. Lehen jasoketa horri, gorago aipatu dugun argazki horri, *lehen dokumentua* deituko diogu. Lehen dokumentua, beraz, jasoketa baten lehen testigantza da eta jatorrizko dokumentua da. Lehen testigantza, gehienetan, dokumentu eskuizkribatu bat da. Halaxe dira, esaterako, hemeretzigarren mendeko Arxüren kaier eskuizkribatua, Duvoisinen kaierak, Chahoren kantutegi eskuizkribatua, Azkueren landa-kaierak eta Aitzolen funtseko dokumentu eskuizkribatuak.

Lehen dokumentu hau eskuizkribu bat izaten da gehienetan, baina ez du zertan, nahitaez, eskuizkribua izan. Aitzolen funtseko hainbat lehen dokumentu, esaterako, testu makinatuak dira. Lehen dokumentu honetatik ateratzen diren dokumentuak, bigarren edo hirugarren dokumentuak dira eta ez dute ikertzailearentzat lehen dokumentuaren baliorik izaten. Bigarren dokumentua lehenaren interpretazioa delako, bigarren dokumentuak balioa izan dezake eta badu, baina bigarren dokumentuak balio handiagoa du lehen dokumentua gordetzen bada.

Har dezagun kontuan, kasurako, Azkueren lan egiteko modua. Azkuek bere bilketa folklorikoetan landa-kaierak erabiltzen zituen eta landa-kaier horietan jasotzen zuen egiten zituen inkesten emaitza. Landa-kaier horiek, beraz, lehen dokumentuak dira. Landa-kaier horietako zenbait kanta bigarren kaier batzuetara transkribatzen zituen, garbira pasatzen zituen, nolabait esateko. Bigarren dokumentu horietan, ordea, askotan ez zituen kanta osoak transkribatzen, eta hitzak ere garbitu eta txukundu egiten zituen. Bigarren dokumentu horiek ziren, gerora, *Cancionero popular vasco* edo *Euskaleŕiaren Yakintza* lan argitaratuetan agertzen direnak. Azkuek, askotan, lehen dokumentutik bigarrenera ez du ezer aldatzen. Beste batzuetan, lehen dokumentutik bigarrenera zerbait aldatu edo txukuntzen du eta aldaketa horien berri ematen du. Beste zenbaitetan, lehen dokumenturik bigarrenera gutxi-asko zerbait aldatzen du, baina

ez du aldaketaren berririk ematen. Zenbait kantutan kantuaren doinuari garrantzi handiagoa ematen dio eta ahapaldi bakarra bakarrik jasotzen du bigarren dokumentuan.

Azkueren kasuan behintzat lehen dokumentuak egiazkoak dira, eta bigarren dokumentuak, alegiazkoak, folklorista edo biltzailearen apetara egokituak. Lehen dokumentuak argazki fidelak dira eta bigarren dokumentuak argazki fidel hauen kopia lausotuak. Lana zientifikoa bada, lehen dokumentu horren argazki on bat ere lehen transkripzioarekin batera ematea komeni da. Euskal baladen gainean egin diren lanik zehatz eta aberatsenak Jesús Antonio Cid ikertzaile eta maisuak egin ditu. Azterketa lan eredugarria "La balada 'Urthubiako alhaba': problemas y conjeturas" lana da. Lan honetan Jean-Baptiste Arxüren lehen dokumentua dator lanaren eranskin bezala. Gure tesi-lan honetan ere, lehen dokumentuaren lehen transkripzioarekin batera, lehen dokumentuaren argazki on bat ematen ere ahalegindu gara.

Eman dezagun beste adibide argigarri bat. Bitoriano Gandiaga poetak, 1975. urtean, *Euskera* aldizkarian, "Iru erromantze eta gorazarre bat" artikuluan lehen aldiz argitaratu zuen balada baten izenburua *Adios orain, dama gaztia* da. Balada hau Jose Lizarralderen *Romances euskéricos de Arantzazu* eskuizkributik hartu zuen. Balada hau Antonio Zavalak ere bere baladategian sartu zuen 369. orrialdean, baina ez Jose Lizarralderen eskuizkributik, Bitoriano Gandiagaren 1975. urteko artikulutik baizik. Gaur egun, Interneten ere badago kontsultagai, Julen Urkiza karmeldarraren *Bertso eta olerkien hemeroteka* delakoan. Bitoriano Gandiagak, bestalde, 1975. urteko artikuluan arreta berezia eskaini zion *Adios orain, dama gaztia* baladari ahapaldiz ahapaldi iruzkindu baitzuen. Jose Lizarralderen *Romances euskéricos de Arantzazu* eskuizkribuko 36. orrialdea arretaz irakurtzen duen ikertzailea jatorrizko dokumentuan baladak sei ahapaldi izan beharrean, zazpi dituela konturatuko da. Bitoriano Gandiagak ez zuen bigarren ahapaldia transkribatu eta Antonio Zavalak Gandiagaren dokumentua erabili zuenez gero, A. Zavalak ere ez zuen balada osoa argitara eman. Interneten dauden dokumentuetan ere ez dator bigarren ahapaldirik. Ez zuen argitaratu, gure ustez, despiste edo arreta galtze bategatik, ez bestegatik. Eredu argitaratu guztiak sei ahapaldikoak direnez gero, hankamoztuak dira. Hona bigarren ahapaldia, orain arte argitara gabe egon dena, eskuizkribuan datorren bezalaxe:

Ama Birgiña Arantzazuko
Askoren debota maitia
Aŕetxek estimatzen dau
Eŕomerian joatia.

Lehen dokumentuko zenbait hitz ere ez datoz dokumentu argitaratuetan lehen dokumentuan datozen bezalaxe. *Panplonan bera banua eta* agertzen da dokumentu argitaratu guztietan; jatorrizkoan, ordea, *Planponan bera banua eta*. Zer gertatu da, beraz? Lehen dokumentu batetik bigarren bat sortu denean, ez da behar bezala transkribatu eta lehen dokumentuko hutsak gainerakoetan errepikatu eta are gehitzeko arriskua dago.

Esan dezagun puntu honetan, azkenik, ikertzaileak lehen dokumentuaren bila joan behar duela, ur garbia edan nahi duenak iturburura joan behar duen bezalaxe. Gure ideia hau argitzeko ekar dezagun Oihenarten paremia indartsu bezain labur bat. Oihenarten paremia politenetako bat hauxe da: 457-*Ur garbizura, iturburura.* Bi hitzetan euskaraz adierazia dagoena frantsesez hitz gehiago behar ditu: *Pour avoir de l'eau claire, il faut en aller querir à la source de la fontaine*. *Ur garbizun* edo *ur garbizura* delakoak "ur garbi bila" esan nahi du, hitzari itsasten zaizkion *–zun* edo *–zura* atzizkiek "bila" esan nahi dute. Iturriko ura baino garbiagoa da iturburukoa. Era berean, bigarren edo hirugarren dokumentuek beren iturburua lehen dokumentuan izan ohi dute. Ikerketa egingo duenak lehen dokumentuak bilatu beharko ditu, gainerako dokumentuak ere interesgarri izango baditu ere.

14. EUSKAL KANTUTEGIEK DUTEN AJE BAT: LEHEN DOKUMENTUA GAIZKI EMANA EGOTEA

Euskal balada gaiak, *ballad-type* direlakoak ez dira asko. Antonio Zavalak guztira, Erdi Aroko kantuak alde batera utzirik, 94 zerrendatzen ditu. A. Zavalaren zerrendaren arabera, guztira, ia ehun

euskal *ballad-type* daude. Garai batean uste zenetik kopuru ikaragarria eskaintzen du A. Zavalak bere baladategian. Juan Karlos Gerraren garaian, esaterako, askoz gutxiago zirela uste zen. Hona J. K. Gerraren hitzak (Gerra: 1924):

> Los cantares antiguos del euskera, por lo mismo que son tan pocos, merecen toda nuestra más solícita atención para ver de conservarlos y difundir su noticia, ya que á la vez de su escaso número, es igualmente escaso el de las personas que los conocen.

Gerrarentzat *cantares antiguos* horietan era bateko eta besteko kantu narratiboak sartzen ziren, ez bakarrik guk baladatzat ditugunak. A. Zavalak izendatzen zituen ia ehun eredu horietatik zenbait, ordea, eredu bakarrekoak dira. Euskaraz, esaterako, *ballad-type* edo balada gai aberatsena, eredu gehien dituena, *Frantziako anderea* dugu. Baina badira hainbat eta hainbat balada gai eredu bakarra dutenak: *Gure ortuan sagarra loran*, *Eguna zala, eguna zala*, *Anaiai gaztigatu nion*, *Behin batean joan ninduzun* eredu bakarrekoa zen eta guk beste eredu bat aurkitu genuen Aiherrako André Martinonen kaierean, *Hauzeko anderia* ere eredu bakarrekoa zen eta guk beste antzeko bat eskaini dugu Jean-Baptiste Arxüren kaier batetik. Eredu bakar horiek zenbaitetan ez daude ongi transkribaturik. Hau da, lehen dokumentutik ez da egin lehen transkripzioa ondo. *Anaiai gaztigatu nion* balada, esaterako, *unicum* bat izanik, apur bat desberdin dago transkribaturik ezagutzen dugun argitarapen guztietan. Azkueren CPV lanean era batera, *Euskal Baladak II* liburuan beste era batera, Jon Juaristiren *Flor de baladas vascas* antologian beste era batera... Eta denak, neurri handi batean, Azkuek jaso zuen lehen dokumentu horren lehen transkripzio fidela egin ez zuelako. Lizarralderen bildumako ale gehienak ondo emanak badaude ere, hitzen batean edo bestean, zenbaitetan hutsen bat bila liteke.

Eman dezagun adibidetzat amodiozko kantu bat. Francisque Michelek *Le Pays Basque* liburuan amodiozko kantuen artean *Amodiozko solasa* kantuaren ondoren, suiet bera zuen beste hau eman zuen argitara 301-302. orrialdeetan:

Zazpi urzo badohatci hamalaur hegalez,
Oihanian baitira haciren ezcurrez:
Ene bihotza da bethea dolorez
Çure begui eztiac ikhusi beharrez.

Mundu huntan bada nescato ederric;
Bainan ez dut ikhusten çuri pare denic.
Gaur çurekin egoiteco fortuna banu nic,
Bihotzeco doloren ez nuke beldurric.

-Cembat ere baitakic ederki mintçatcen,
Ez nuc ez, hic uste beçain aise, trompaturen;
Eguian mintça nadin, erraiten deraiat:
Orai logale bainiz, juan hadi etcherat.

–Logale ciradeia, maitea, logale:
Orai ezagutcen dut ez nuçula maite
Çaharren erranetan eguia guerthatcen:
Placerrari changrina ez dela faltatcen:

Santa-Catalinaren ondoco igandean,
Maitia, orhoit cireia cer hit eman cindautan?
Gau hotz terrible huntan çuganat nuçu jin:
Bortha idecadazu barnerat sar nadin.

–Ama dizu ohean, et'aita sukhaldean;
Heien bien artetic borthala ecin jin
Ichilic egoiteco heia eguiçu cin,
Bortha idekirendut placer bacina jin.

–Oihanean cein eder den iratce berdea!
Bi hitz eguiteco banuke lehia;
Ichilic egoitera ni ez naiz hunat jin:
Bortha idecadazu, barnerat sar nadin.

Amodiozko kantua osorik aldatu dugu. Francisque Michelen transkripzioak oso onak badira ere, ez dira hutsik gabekoak.

Gure asmoa, jakina, ez da haren edo bestearen huts edo transkripzio okerrak salatzea. Gure asmo nagusia, testuak ahalik eta modurik duinenean ematea da. Bigarren ahapaldian, esaterako, *Bainan ez dut ikhusten çuri pare denic* horretan, ez ote da *Bainan ez dut ikhusten çure pare denic*? Hirugarren ahapaldian, esaterako, *Eguian mintça nadin, erraiten deraiat* seguru baino seguruago beste modu honetara izan behar du: *Eguiaz mintça nadin, erraiten deraiat*.

Seigarren ahapaldiak *–Ama dizu ohean, et'aita sukhaldean* beste modu honetara izan behar du: *–Ama duzu ohean, et'aita sukhaldean*.

Amodiozko kantu baten adibidea ekarri dugu, baina Francisque Michelen balada bat ere ekar dezakegu. Francisque Michelen liburuko 401-403. orrialdeetan datorren *Apez beltza* baladaren ereduko ahapaldi bat:

Halzac eztu ekharten ezcurric
Ez gastamberac ezurric,
Eznien ouste bazela
Ginco semetan ghezurric.

Ahapaldi horretan huts nabarmen bat dago, tesi-lan honetan frogatuko dugunez: *Halzac eztu ekharten ezcurric* izan beharrean, *Halzac eztu ekhartzen ezcurrik* izan behar du. Bizkaiko euskaran posiblea da *ekarten*, baina baxenabartarrez *ekhartzen* behar du.

15. IKERTZAILEAREN LEHEN PAUSOA: LEHEN DOKUMENTUTIK LEHEN TRANSKRIPZIOA EGITEA

Lehen dokumentuen garrantziaz hitz egin dugu aurreko puntuan. Lehen dokumentuek, beraz, lan ongi eginaren oinarririk finkoena markatzen dute. Gorago erabili dugun irudia erabiliz, etxea ondo eraikiko bada, oinarriak lurrean sendo finkatu beharko dira.

Lehen dokumentuak izendatu ditugun paper horiek, testigantza horiek, gorde diren neurrian urrezko balioa dute. Noizbait, nonbait, norbaitek kantatu edo kontatu den zerbaiten testigantza fidel bakarrak direlako. Dokumentu horietako eduki nagusia, gehienetan eskuz transkribatutako dokumentu horien eduki nagusia, garaian garaiko ortografian aurkitzen da. Lehen dokumentuko lehen transkripzioa ondo egiten ez denean, kanta, balada edo eresia aldaturik, desitxuraturik, berrinterpretaturik argitaratzen da eta dokumentuan jaso den egiazko sorkaria alegiazkoa bihurtzen da, argitaratzailearen apeta edo usteak aldaturik, zenbaitetan. Beste batzuetan, transkribatzailearen presak edo jakinezak lehen dokumentuaren balioa baliogabetzen du.

Zientziak eta metodologia zuzenak eskatzen du jatorrizko dokumentuaren lehen irakurketa onaren ondoren, lehen transkripzio onaren ondoren, bigarren bat egitea. Ideia hau oinarrizkoa da eta Julio Urkixok Juan Karlos Gerrari metodologia bezala proposatu zion *Los cantares antiguos del euskera* saila argitaratzen ari zenean. Hona hemen Urkixoren hitzak (Urkixo: 1921):

> Con muy buen acuerdo, dada la índole de esta Revista, el autor reproduce los mencionados cantares, con ortografía moderna: pero, para el cabal conocimiento del asunto, sería de desear que el señor Guerra volviera á transcribirlos, en apéndice, con la ortografía original (respetando incluso las erratas evidentes y con indicación precisa de la fuente en que por primera vez aparece cada uno de ellos.

Julio Urkixok zentzuzko eskabide bat egiten dio Juan Karlos Gerrari: testuak jatorrizko ortografian transkribatzeko, dituen oker argiak ere bai, eta zein iturritatik edan duen ere esateko. Ezin da laburrago eta hobeto esan. Zientzia egingo bada, ezagutzen den lehen dokumentua dagoen-dagoenean transkribatu behar da, jatorrizko ortografian eta irakurketa zehatza eginez. Erratak edo hutsak bakarrik transkribatuko ez balira, gaitzerdi litzateke. Askotan gertatzen dena da ondo dauden hitzak ere gaizki transkribatzen direla eta transkripzioan egiazko testu batetik abiatu ondoren, alegiazko testu batera iristen garela. Juan Karlos Gerrak, Julio Urkixoren erreguari ondo iritzirik, hauxe erantzun zion (Gerra: 1921):

> Completamente de acuerdo con su autorizada opinión y contando con la conformidad de la Dirección de la revista, tendré, por mi parte, el mayor gusto en reproducir mediante apéndice los cantares con la ortografía original de los textos y nota precisa de la fuente de cada uno. Pero, puestos ya en ello, paréceme que, para el cabal conocimiento del asunto, será además conveniente publicar las diferentes versiones de aquellos que tanto llamaron la atención de los vascófilos. El ruego del señor de Urquijo no alcanza á este extremo y, en su virtud, espero obediente indicaciones concretas, pues no quiero faltar por carta de menos, pero tampoco por carta de más, temeroso siempre de aburrir á los suscriptores de *Euskaleŕiaren alde*. Respetaré escrupulosamente la ortografía original, incluso las erratas evidentes; pero no respondo de que de las cajas salgan los textos inmaculados, pues ya sabe el señor de Urquijo lo difícil que es publicar estos textos sin erratas de imprenta.

Baladak zein edozein kantu aztertzeko orduan, beraz, lehen transkripzio bat eskaini behar da. Lehen bide hau, lehen dokumentutik lehen transkripzioa egitea, ez dute gaur eguneko ikerlari askok egiten. Zuzenean interpretatzen dute testua eta askotan ez dute beste esangura bat duen beste testu bat ematen, esangura gabeko testu bat baino. Eman dezagun adibide bat. Patri Urkizuk Chahoren kantutegiaren zati bat bakarrik argitaratu zuen 2006. urteko *Agosti Chahoren kantutegia* lanean. Argitaratu zituen kantu eta baladetako mordoskada bat, esaterako, gaizki transkribatuak daude. Guk diogunaren erakusgarritzat ez ditugu balada osoak ekarriko, dantza-kopla batzuk baizik. Patri Urkizuk Chahoren edizioan hogeita lau koplako sail eder bateko hiru kopla honelaxe transkribatzen ditu:

7
Azpelik izango naiz
Etxian asarre,
Zeuria izango naiz
Ilten ezpanabe.

19
Jaungoikuak nai badau,
Munduan ez arren,
Bijok batuko gera
Izartxo baten

24
Esperantzaka bizi,
Maite gozua,
Nozbait kunpriduko da
Biotzien plazua.

Hiru kopla hauek Patri Urkizuren irakurketak dira eta *Agosti Chahoren kantutegia* liburuan 250-253. orrialdeetan aurkitzen dira. Patri Urkizuk lehen dokumentutzat Chahoren kantutegi eskuizkribatua erabili du eta gaurko ortografiara ekarri ditu koplak bere irakurketa eginez. Gorago jarri ditugun hiru koplen lehen transkripzioa –lehen dokumentutik abiaturik egindako lehen transkripzioa, alegia–, hauxe da:

7
Arpelic izangonaiz
echian asarre
ceuria izangonaiz
ilten espanabe.

19
Jaungoicuac nai badau
munduan esarren
biyoc batuco guera
isaracho baten.

24
Esperansaca bisi
maite gosua
nosbaista cumpriducoda
bioyuen plasua.

Lehen dokumentuko zazpigarren koplaren hasiera *Arpelic izango naiz echian asarre* da. *Arpelik* gaur egun Arratian esan ohi dute eta *alperrik* hitzaren aldaera bat da. Bestela esan, *alperrik* hitzaren metatesia da *arpelik*. *Arpelik izango naiz echian asarre* horrek *etxian asarre izango banaiz ere* esan nahi du. 19. kopla *biyoc batuco guera isaracho baten* dio lehen dokumentuko lehen transkripzioak, eta bizkaitarrontzat *izaratxo baten batzea*, "maindire baten batzea" edo "mihise baten batzea" da. Ez du inolako zerikusirik, beraz, Patri Urkizuk transkribatzen duen *izartxo baten batzea* horrekin. Izartxo baten batzea beste kontu bat da. 24. koplan*, nosbaista cunpruducoda bioyuen plasua* horretan, *nosbaista* agertzen da. Euskaraz dugun *–bait* atzizkiaren bizkaierako aldaera bat: *–baist*, hain zuzen. Kasu honetan, *noizbait* esateko *nosbaista* esaten da. Orain arteko zehaztasun guztiak objektiboak dira, inolako dudarik gabe. Lehen dokumentuko lehen transkripzioan *nosbaista cumpriducoda bioyuen plasua* esaldiaren korapilorik zailena, beharbada, *bioyuen* horretan dago. Gure ustez, *bioyuen* delakoak *biotsuen* esan nahi du, hots, *bioren* formak –tsu atzizkia duela; hau da, "laster beteko da bion plazoa". Patri Urkizuk transkribatzen duen *Biotzienplazua* delakoak ez du inolako zentzurik.

Lehenago aipatu dugun *Neska ontziratua* baladaren Foruko aldaerako ahapaldia ere adibide ona da. Lehen dokumentutik egiten den lehen transkripzioan argi ikusten da zein izan zen berriemaileak eman zuen eredua:

Portunaz bere suertau jatan ontziak atśa jotea
ordu atantśe itzartu jatan linda damatśu neurea.

Lehen dokumentutik lehen transkripzioa egin ondoren, ortografia berrian eman liteke testua, jakina. Lehen transkripzioa egitean lan handiagoa hartzen du ikertzaileak, baina testua finkatzeko noraezekoa da lehen transkripzioa ere finkatzea. Lehen dokumentutik lehen transkripzioa egitea, beraz, beharrezkoa da ikerketarako. Zabalkunde mailako testuetan, dibulgazio mailako testuetan, ortografia modernoan testuak ematea guztiz normala bada ere, aurretik ikerketa lana egin beharra dago. Bestela esan, egiazko zabalkunde lanek egiazko ikerketetan oinarriturik egon behar dute.

Gure tesi-lanean lehen transkripzioari, beraz, garrantzi handia eman diogu. Tesi honetan lehen dokumentuaren argazkia ere eman nahi izan da.

16. LEHEN DOKUMENTUTIK BIGARREN DOKUMENTURA

Lehen dokumentuak beti ematen du argitasun nagusia, inolako dudarik gabe. Gainerako dokumentuetan ere egon liteke, jakina, lehen dokumentuan ez dagoen argitasun eta garbitasunen bat, baina ikertzaileak beti behar du lehen dokumentua. Hona hemen zenbait adibide. Azkuek, gorago esan dugun bezala, 1922. urtean Berlinera egindako bidaian, Wilhelm Humboldten paperetan zeuden kantu zenbait transkribatu eta *Euskera* aldizkarian 1925. urtean argitara eman zituen. Eman dezagun adibidetzat *Euskera* aldizkarian datorren Azkueren testua:

> Así titula Humboldt unas canciones que aprendió de aquel noble anciano y candoroso etimologista sacerdote Harambillet, cura de Itsasou. *Lieder deren sich der 81 jährige Harambillet in Itsasou aus seiner Jugend erinnerte. Aus der Zeit der Maurer Herschaft, also sehr alt. In ersten Vers redet der Dichter; di Anderen sind die Antwort des Mädchens.* Canciones de las cuales se acordaba de su juventud el anciano Harambillet de 81 años en Itsasu. Son del tiempo de los moros; de consiguiente muy viejos. En la primera estrofa habla el poeta; las otras son respuesta de la muchacha.
>
> I. Andre Emili, andre gora
> orai ez arto-jorra
> oguiric orra hain guti,
> zoaz Mairu herrin gora.
>
> II. Saldu nintzen dirutan
> asco sari handitan,
> ehun pizu dirutan ta
> berrehun dupa eztitan.
>
> III. Aita nuen saltzaile,
> ama diruen hartzaile,
> anayaric chipiena
> Mairutaric kentzaile.
>
> Esta misma canción aprendí yo en Etxalar, con alguna variante, ciento y pico de años más tarde que Humboldt en Itsasu. Puede consultarse en mi *Cancionero popular vasco* edición manual, página 471.

Azkuek ondo baino hobeto transkribatu zuen jatorrizko Humboldten dokumentuko testua. Ez dago huts bat bera ere Humboldten dokumentuko testutik Azkueren transkripziora. Norbaitek duda egin lezake *aguiric*, *anayaric* eta *Mairutaric* agertzen badira nola izan litekeen *kentzaile* ere etortzea hasierako k– eta guzti, baina lehen dokumentuan halaxe dator. Izpien izpia bada ere, txikikerien txikikeria, Azkueren testuan jatorrizko puntuazioa aldaturik dago eta lerro bakoitzeko maiuskula edo letra larriak ere aldaturik daude. Hitz bakarra ere apurren bat desberdin dago jatorrizko dokumentutik, lehen dokumentutik, testu argitaratura edo bigarrenera. Lehen dokumentuan *Aita nuen salzaile* dator eta Azkuerenean *saltzaile*. Azkueren 1925. urteko testua irakurririk hainbat galdera sor litezke: Humboldt bera ote zen euskarazko testuaren transkribatzailea? Alemanezko testuaren idazlea, bai, dudarik gabe, baina euskarazkoa nork transkribatu ote zuen? Lehen dokumentuak, beraz, bigarrenak ematen ez duen hainbat argitasun eman ditzake. Lehen dokumentua aztertu ondoren zenbait korapilo aska litezke, zenbait galderek erantzuna dute. Lehen dokumentuan, Humboldten paperen artean aurkitzen den lehen dokumentuan, esku biren le-

trak ikusten dira: bata Harambillet zaharrarena da eta bestea Humboldtena. Dudarik gabe Itsasuko Harambillet apez zaharra izan zen euskarazko testuaren transkribatzailea. Humboldten eskuzko bi testu agertzen dira: bat kantu zaharraren azalpena alemanez eta euskal balada zaharraren itzulpena frantsesera. Frantsesera egindako testuaren itzulpena ez zuen Azkuek transkribatu eta guk *Andre Emili* baladari dagokion atalean egingo dugu. Harambillet zaharraren testuan txikikeria asko daude hemen esatea merezi ez dutenak: *anayaric chipirena* transkribatu du lehen aldiz, baina testuari zuzenketa txiki bat eginez, *chipirena* gelditu beharrean, *chipiena* da transkribatzailearen azken erabakia.

Bigarren dokumentua ere interesgarria da, inolako dudarik gabe. Azkueren bigarren dokumentu honegatik dakigu lehen dokumentua existitzen dela, Humboldten lan argitaratuetan, Espainiara egindako bidaietan eta abarretan ez baitzen esaten kantu hau bildu zuenik. Itsasun egun gogoangarriak pasatu zituela bai, Harambillet apezarekin, baina hari bildutako kantak zituenik edo, hobeto esan, hark berak transkribatutako kantak zituenik ez. Hau da alemanezko pasartea:

> Nie habe ich einem Greise eine so liebenswürdige, durch nichts gestörte Heiterkeit, eine solche Aufgelegtheit zum unterrichtenden Gespräch und zu jeder, auch weit über den Kreis seines beschränkten Lebens hinausgehenden Untersuchung, eine so herzliche Theilnahme an jedem unschuldigen Vergnügen, mit Einem Wort einen solchen Geist ächter Duldung und wahrer Humanitaet gesehen, als in dem wackeren Harambillet.

Kasu honetan zorte handia izan dugu, Harambilleten transkripzioa ona baita, baina ahozko literaturako ikertzaileak beti egin behar du lehen dokumentuaren jabe. Eman dezagun, kasurako, Julio Bareño Gernikako folklore biltzailearen adibide bat. Julio Bareño Atxirikak Antonio Zavalari 1958an berrogei urte aurretik bildutako kopla sorta bat bidali zion kartaz. Eskutitzaren pasarteak honelaxe dio (Kalzakorta: 2014):

> Como contestación a su amable carta del 4 de septiembre tengo mucho gusto en hacerle una primera remesa de “koplak” recogidas casi todas ellas en la anteiglesia de Lumo hace unos 40 años cantadas por personas ya ancianas en aquel entonces con lo cual quiero significarle que todas ellas son antiquísimas, y que fueron malamente escritas por los mismo aldeanos en un viejo cuaderno que no sé como se salvó de la quema del 37.

1958. urteko eskutitz-pasarte honetan berrogei urte aurretik, hots, 1918an, pertsona zaharrek kantatutako kopla-bilduma bat bidaltzen diola diotso Julio Bareñok Antonio Zavalari. Julio Bareñok 1918an edadetuak ziren pertsona atso-agureen ezpainetatik bildutako koplak bidali zizkion A. Zavalari. Kopla horiekin batera kaier zahar bat ere bidali zion. Koaderno horretan dio gaizki baino gaizkiago idatziak izan zirela eta 37ko erreketatik salbatu zirela. *La quema del 37* ez da besterik Gernikako bonbardaketa baino, non, besteak beste direla, ahozko material gehienak galdu baitzituen Julio Bareñok. Kopla-zerrenda horietatik lehen bederatziak hauexek dira:

1
Egun batian banenguan ni
Londresko ziudadian,
maitientzako jake erosten
denda aberats batian.

2
Dama galantak preguntau nion
kuisiak zegan zirean.
–Bestientzako dirutan eta
zeuretzat truke-trukian.

3
Eskarrik asko, dama galanta
eztot armarik aldien
neure armak an itxi dodaz
Mutriku erri onien.

4
Motriku erri onian eta
linde eder baten ganien,
perla eder bat agertuten da
mille santaren parien.

5
Araxe dator neure anaye[2]
txalupe elegantien.

6
–Neure anaye, ze barri dogu
gure Motriku aldien?
–Ana Junisa ezkondu dala
aitagaz aman pozien.

7
–Ana Junisa ezin ezkondu
neuk dot firmie aldien.
Kapitan, firme arriau bela
Mutrikun sartu goizien.

8
Ogetamairu linde damatxuk,
Motriku molle ganien,
batzuk agur, bestiek agur,
esanak joanak aidien.

9
–Ana Junisa, neure laztana,
orain zer asartadu de?
–Bixerrakin datorrenari
agur eitie da usue.

Julio Bareñoren dokumentuan, beraz, dantza koplekin *nahaste* lehen bederatzi ahapaldiko *Ana Juanixe* baladaren eredu argitaragabe bat bidali zion. Eredu hau, bestalde, ez zuen Antonio Zavalak bere baladategian sartu, seguru asko bere paperen arteko altxor guztiak ondo sailkatu gabe zituelako. Julio Bareñoren 1958ko kartaren kopia Bizkaiko Aldundian gordetzen da[3]. Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean, Antonio Zavalaren funtsean, Julio Bareñoren originala, eta, Bareñok berak dioen bezala baserritar atso-agureek gaizki idatzitako kaiera ere bai. Delako *viejo cuaderno* horretan agertzen den testua, hots, lehen dokumentuko transkripzioa hauxe da:

[2] Jatorrizkoan bi aldiz agertzen da *anaje*.

[3] ARA-ARTX 0057/003.

1

Egun Vatian Vaneguani
Londresco Siudadian Maytian
tsaco jaque Erosten denda
Aberatsat batian

2

Dama galantac preguntau nion
cuisia segan sirien Vestien
tsaco diruetan da seuretsat
truque truquien

3

Esquerric Asco dama galanta
estot Armaric Aldien neure
Armoc An itsi dodas Motricu
Erri Onien

4

Motricu Erri onian eta
linde Eder Vaten gainian
perla Eder bat Agertutenda
Mille Santanen parian

5

Araise dator neure Anaje tsa
lupe Elegantian

6

Neure Anaje Se barri dogu
gure Motricu aldian Ana
Junisa Escondudala Aytegas
Aman posian

7

Ana Juanisa esin Escondu
neuc dot firmie Aldian
Capitan firme Arrian Vela
goitsan Motrikun sartu g[aiti]an

8

Ogeta Amairu linde damatsoc
Motricu molle ganian batorrec
Agur Vestionec Agur
Esanac jonac Arian

9

Ana Juanisa nure lastana
Orain ser Asartadude Vijerra[quin]
datorrenari Agur Eytie usu
de Agur Eytie usu de Vaña
usu debejadude

Zorionez lehen dokumentua existitzen da eta lehen dokumenturik bigarrenera zenbaitetan alde nabarmena dago. Egia da 1918. urte inguruko Lumoko baserritar zahar haiek ez zutela euskaraz idazteko ohiturarik. Alfabetatu gabekoak ziren, baina ez ote du lehen dokumentu honek askoz gehiago balio ikertzailearentzat Julio Bareñorenak baino? Zortzigarren ahapaldia bakarrik hartuko dut iruzkintzeko:

Ogeta Amairu linde damatsoc
Motricu molle ganian batorrec
Agur Vestionec Agur
Esanac jonac Arian

Lehen dokumentuko ahapaldi hau Julio Bareñok beste modu honetara transkribatu zuen:

Ogetamairu linde damatxuk,
Motriku molle ganien,
batzuk agur, bestiek agur,
esanak joanak aidien.

Transkripzio hori ondo egina ote dago? Lehen dokumentuko *batorrec Agur Vestionek Agur* bigarren dokumentuan *batzuk agur, bestiek agur* bihurtzen da. Lehen dokumentuari fidelak bagatzaizkio, *batorrek agur, bestionek agur* izan beharko luke balada beraren pasarte bera beste zenbait eredutan agertzen den bezala.

Lehen dokumentu hori ondo baino hobeto aztertzea da inolako dudarik gabe ikertzaile finak egin behar duen lehen urratsa. Lehen dokumentu hori ondo aztertzeak ondorio argigarriak eman ditzake askotan. Eman dezagun beste adibide harrigarri bat. Parisko Bibliothèque National delakoan *Nouvelles acquisitions* sortan, 3342. zenbakian, euskaraz dugun baladarik interesgarrienetako bat dator. Balada horren izenburua *Urthubiako Alhaba* dugu. Antonio Zavalak uste izan zuen balada hori Eugène Garay de Monglave jaunak sortua edo norbaiti sortzeko agindu ziola, baladaren azpian *Eugène Garay de Monglave Paris, le 18 Décembre 1852* datorrelako. Eugène Garay de Monglave jauna gure artean famatua da frantsesez kantu apokrifo bat sortu, *Altabizkarko kantua* hain zuzen, eta Ezpeletako Louis Duhalderi, hau da, Duvoisin kapitainaren lehengusu bati euskarara itzultzeko agindu ziolako (Veyrin: 1934). Eta euskarazko testu apokrifoa benetakoa balitz bezala hartua izan zen gure artean, harik eta Duvoisinek Websterri karta batean kantuaren itzultzailea nor zen salatu arte. Antonio Zavalak ezezik, Patri Urkizuk ere *Urthubiako Alhaba* ez zeukan benetakotzat, itzulpentzat baizik. Hona *Urthubiako Alhaba* testuaren gaineko Patri Urkizuren *Balada zaharrez* liburuko pasartea:

> Ministroak agindu zion [Eugène Garay de Monglave-ri] Euskal Herrira joan zedin eta bertako artxiboetan bila zitzala euskaldunen kanta zaharrak. Monglave-k burutu bidaia horren fruitua igorri zion. Hemeretzi *Chants nationaux*, tartean hiru apokrifo *Lelo*, *Altabiçar (sic)* eta *Annibal*-en kantuak. Halaber beste bi kantu itzulpenak omen zirenak: *Urthubiako alhaba* eta *Domingoren eresia*. (...)
>
> *Urthubiako alhaba*, h-rik gabe Zavalaren 2000ko bertsioan eta *Gainkoak (sic) deizula egun on...* titulupean ematen diguna, kanta tragiko bat da, eta zioenez apokrifogileak Aphalh delako atso baten ahotik jaso zuen.
>
> Istorio xahar hura, Urthubiako alabak Frantziako errege bati birjinitatea ez eskaintzeagatik bere gurasoak urkabera bidaltzen zituela kontatzen zuena noizkoa ote, ordea?
>
> Zein ote zen errege gaizto hura, galdetzen zuen Monglave-k. Charles VII.a 1442an Gaskoina aldetik ibili zena, edota Gaztelako Enrique IV.arekin Urthubiako Gazteluan 1462an bildu zen Louis XI.a? Ez zuen erantzun zehatzik eman, ezin zezakeenez, beraxek, Macpherson-en Ossianen Kantuak irakurri ondoren, asmatuak baitziren.

Patri Urkizuk pasarte honetan agertzen dituen okerrak eta gaizki-ulertuak, neurri handi batean, lehen dokumentua ondo ez aztertzetik ateratzen dira. Egia da ministroak Eugène Garay de Monglaveri

eskatutako kantuak, hemeretzi, *Chants nationaux* horietan daudela. Hemeretzi horietatik zenbait, ordea, egiazkoak dira Jean Baptiste Arxüren letraz idatziak daudelako. *Urthubiako Alhaba*, besteak beste direla, egiazko kantu bat da. Eta kantuaren iruzkina ere Arxürena da. Parisko Biblioteka Nazionaleko lehen dokumentua aztertu ondoren bi letra arras diferenteak ikusiko ditu ikertzaileak: bata Monglaverena eta bestea Arxürena. Era horretara, Patri Urkizuk dioenean "Zein ote zen errege gaizto hura, galdetzen zuen Monglave-k" esaldi hori huts baten gainean eraikia dago. Galdera hori ez du Monglavek egiten Arxük berak baino. Eta Arxüren testua eta Monglaverena arras diferenteak dira eta eduki arras diferentekoak dira. Arxük dioenak urreak baino gehiago balio du eta Monglavek dioenak burdina herdoildua baino gutxiago balio du, horra aldea.

Eman dezagun laugarren adibide bat. Azkuek zenbaitetan bere kantutegian hari-mutur bat eskaintzen zuen eta ez mataza osoa. Bestela esan, gehienetan batez ere kantuen doinua interesatzen zitzaionez gero, kantu oso bateko lehen ahapaldia pentagraman jartzen zuen eta gainerako ahapaldi guztiak argitaratu gabe bere landa-kaieretan uzten zituen. Azkuek, esaterako, bere CPV lanean, Foruko *Neska ontziratua* baladaren lehen ahapaldia jarri zuen eta gainerako hamar ahapaldiak bere landa-kaierean argitaratu gabe utzi zituen. *Euskal baladak* lan zoragarria burutu zuten Maria Goiri mintegiko ikertzaileek Azkueren landa-kaieretatik CPV lanean osorik ez zetorren *Neska ontziratua* baladaren eredu bat argitaratu zuten. *Euskal baladak II* liburuan lehenengo aldiz argitaratutako eredu horretako zortzigarren ahapaldia hauxe da:

Portunaz bere suertau jatan
ontzian atia jotia
ordu atantxe itzartu jatan
linda damatxu neurea.

Ahapaldi horrek esangura argia du. Lo-belarrez lokarturik daramaten neskatoa halako batean iratzartzen da (*itzartu jatan*, hots, "iratzarri zitzaidan") ontzian atea jo zutelako. "Atea jo" delako iratzartzea normala da, baina *ontzian atia jotia* apur bat arraroa izan liteke. Hala ere, bego horretan. *Euskal baladak* lantaldekoek lehen dokumentua ikertu zutelako Foruko *Neska ontziratua* balada osatu ahal izan zuten. Gatozen orain gure ahapaldira. Azkueren lehen dokumentua aztertu ondoren zortzigarren ahapaldia oso diferentea da:

Portunaz bere suertau jatan ontziak atśa jotea
ordu atantśe itzartu jatan linda damatśu neurea.

Bigarren irakurketa hau oso desberdina da. Azkuek bere kantutegian *etxea*, *atxa, damatxu* hitzak, garai hartako ortografia zaharrean, *etśea*, *atśa, damatśu* transkribatzen zituen. Azkueren eskuizkribuko *atśa* hitzaren gaineko gangarra edo tildea irakurtzen ez bada, erraz irakur daiteke *atea* apur bat nekezago *atia*. *Ontzian atia jotia* irakurtzen bada, hiru hitzetan egiten den huts txikiak beste esangura batera eramaten gaitu, lehenengo dokumentuan *Portunaz bere suertau jatan/ontziak atśa jotea* esaten baitu, garbiki. Lokarturik dagoen linda dama, beraz, ontziak haitza jotzen duelako esnatzen da. Bizkaiko erara esanik: "ontziak atxa joten daualako edo dauelako". Eta ontziak haitza jotzen badu, zarata beldurgarria sortzen da eta normala, beraz, linda damatxoa iratzartzea. Bizkaiko Zamudioko ereduan, esaterako, ontziek alkar jotzen dute. Lehen dokumentuko irakurketa okerrak edonori gerta lekizkioke, jakina, baina kontuan izan behar da benetako giltza gehienetan lehen dokumentuan dagoela. Lehen dokumentuaren irakurketa okerra eginez gero, puntu honetara ekarri ditugun adibideek argiki erakutsi dutenez, ondorio okerretara eramaten gaitu, batetik; egiazko testuak alegiazko testuak bihurtzera eramaten gaitu, bestetik.

Lau balada gairen adibideak ekarri ditugu puntu honetara. Adibide askoz gehiago aurkitzen dira, jakina, tesi-lan honetan barrena.

17. LEHEN DOKUMENTURIK GABEKO BALADAK

A. Zavalak ia ehun *ballad-type* edo balada gairen ereduak eman zituen bere baladategian. Tesi-lan batean balada gai guztien eredu guztiak ematea ezinezkoa da. Bizitza bateko urteak baino gehiago behar dira. Lehen dokumentua gordetzen diren balada tipoetara dago zuzendua batez ere gure tesia. Ez dugu bestek egindako transkripzioak kopiatu eta bertan goxo gelditu nahi. Eman dezagun, kasurako, *Arbotiko prima eijerra* edo *Jaun baroinak xederak* balada. Balada gai honen lehen dokumenturik ez dugu aurkitu. Ezin, beraz, ekarpen edo aportaziorik eskaini tesi-lan honetan. Era berean *Aldaztorrean* baladan Azkueren lehen dokumentua ez da gordetzen, ezin beraz testurik finkatu ere.

Zenbait balada gai ondo baino hobeto aztertuak badaude, ez diogu atalik eskaini. Adibide nabarmenena, beharbada, *Urthubiako Alhaba* baladarena da. Zenbait balada ondo azterturik badaude, azterkizun zegoena agorturik gelditzen da. Jesús Antonio Cidek *Urthubiako Alhaba* baladaren gainean inoiz euskal balada baten gainean egin den lan konpli eta hornituena egin ondoren, Parisko lehen dokumentuaren argazkia ere eskainiz, lan hori eredugarri gelditzen da. Eredugarri den neurrian bide-erakusle da.

18. BIBLIOTEKETAKO DOKUMENTUAK

Ikertzailearen lehen lana, beraz, lehen dokumentuak biltzea eta ikertzea da. Lehen dokumentuak biltzea, eta, jakina, berak aztertzen ari den gaiaren gaineko bibliografia guztia. Lehen dokumentu hauek biblioteketan aurkitzen dira eta etxe partikularretan. Biblioteketako lana zein etxe partikularretakoa ez da nahi bezain samurra izaten.

Has gaitezen biblioteketako lehen dokumentu hauen gainean hitz egiten. Biblioteketetan dauden lehen dokumentu hauen bibliografia zehatzik edo zehaztasunak aurkitzea ez da batere erraza izaten. Zergatik? Ikertzaileek berek askotan informazio hori ezkutatzen dutelako. Ezkutatu edo, bestela esan, argibide argirik nekez aurkitzen delako inon. Diogunaren salbuespen bakarretako bat Haritschelharrek egindako "Baladaren inguruan" artikulua aipatuko nuke (Haritschelhar: 1988). Haritschelharrek Parisko Bibliotekako dokumentu hauen berri ematen du:

Chansons, cantiques, documents	Celte basque 116
Prières inédites	Celte basque 125
Cahier Duvoisin	Celte basque 153
Concours d'Abbadie	
1854-1870	Celte basque 164
1871-1889	Celte basque 165
1890-1901	Celte basque 166
Contes, chansons et poésies	Celte basque 169

D'Abaddieren gutundegia hiru liburukitan bildua da: NAF 21.746; NAF 21.747, NAF 21.748. Beste lan batzuen bilduma batzuk ere ematen ditu:

Recueil de pièces et poésies basques	Z basque 29
Recueil factice de pièces pour fêtes	Z basque 70
Recueil factice de poèsies sur feuilles volantes	Z basque 71
Recueil de pièces basques	Z basque 959
Recueil factice de prières et poésie	Z basque 960

Haritschelharrek aipatzen dituen funts horien kopia bat euskal biblioteketara etorri da. Lehen saileko guztiak (Celte basque 116, 125, 153, 164, 165, 166, 169) aurki litezke euskal biblioteketan –Biz-

kaiko Aldundiko bibliotekan eta Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan). Testu originalak ikusi nahi izanez gero, Parisko Richelieu kaleko egoitza zaharrera joan beharko du ikertzaileak. *Recueil* direlakoak aztertu nahi dituen ikertzaileak Richelieu kalera joan beharrean, Versailleseko egoitzara joan beharko du. Badira, bestalde, Parisko Bibliotekan Haritschelharrek aipatzen ez dituen euskal dokumentuak ere, gorago aipatutako *Nouvelles acquisitions* delakoa, esaterako.

Euskal Herritik urrutixko dagoen biblioteka bateko dokumentuen berri eman dut. Gatozen orain Euskal Herriko biblioteken berri ematera. Euskal Herriko biblioteketan lehen dokumentu hauek aurkitzea ez da batere erraza izaten, gehienetan. Eman dezagun adibide garbi bat. Aita Donostiaren dokumentuak Iruñeko kaputxinoen egoitzan, Rotxapea auzoan, Errotazar kalean, 42. zenbakian, aurkitzen dira. Aita Donostiaren artxiboa Jurgi Riezukoaren eskuetan gelditu zen eta jatorrizko artxiboa beretu eta bere apetara antolatu zuen. Horra, ikertzailearen lehen eragozpen handia. Aita Donostiaren artxiboa, bestalde, katalogatu gabe dagoenez gero, zailtasunak areagotu egiten dira modu ikaragarrian. Egunak eta egunak hartu beharko ditu ikertzaileak katalogatu gabe dauden lehen dokumentuak ikusi eta ikertu ahal izateko. Katalogatu gabeko dokumentu guzti-guztiak, liburuzainaren borondate ona gorabehera, ikustea eta ikertzea ezinezkoa egingo zaio.

Eman dezagun bigarren adibide bat eta kontu egin dezagun ikertzaileak beharrezkoa duela Aitzolen euskal kantuen bilduma osoa kontsultatzea. Horretarako, Koldo Mitxelena kulturgunera jo eta han aurkitu beharko du. Leku ofizial batean dokumentu bat aurkitzea, katalogazio modernoak eskaintzen duen aurrerapena kontuan izanik, erraza idurituko zaio ikertzaileari. Behin non dagoen jakinez gero, ez dagoela ezer aurkitu beharrik pentsatuko du ikertzaile eskarmentatuak. Ustezko aurkitze txiki hori aurkikuntza handia suertatuko zaio, ez baita batere erraza izango. Zergatik? Aitzolen bilduma bi zatitan zatitu zelako eta Koldo Mitxelena kulturgunean erdia bakarrik aurkitzen delako. Eta non dago, beraz, beste erdia? Aitzolen familiako adar bateko ondorengoei auzi baten ondoren eman zitzaien eta bigarren erdia galdutzat eman behar da. Antonio Zavalak Aitzolen funtsa bi zatitan egin baino lehen argazkiak atera zizkien kantuei eta argazki horiek orain Antonio Zavalaren funtsean gordetzen dira. Argazkiak, ordea, Aitzolen funtseko dokumentu guztiei dagozkienak ote dira? Eta hala balitz, ez ote dira zenbait argazki galdu? Uste dugu gehiena gorde bada ere, argazki sorta bat galdutzat eman beharko dela. Lehen dokumentuen argazkiak, lehen dokumentuak galdu ondoren, lehen dokumentutzat jo beharko dira, halabeharrez. Aitzolen funtsaren jabe egin nahi izan duenak, beraz, ezin inolaz ere funts osoaren jabe egin. Zorionez, Antonio Zavalaren funtsa Koldo Mitxelena kulturunera joan denean, Aitzolen funtsaren zati handi bat behintzat –argazkietan bada ere–, berriro bere sorlekura edo lehen artxibora joan da.

Aitzolen funtsaren misterioak ez dira horretan bukatzen. Antonio Zavala eta Satrustegiren lanetan behin eta berriro aipatzen da Aitzolen *Colamus carmina nostra* agiri-biltegia. Ikertzaileak *Colamus carmina nostra* agiri-biltegia ere Aitzolen funtsean aurkitu beharko luke, baina urteetan horren bila ibili ondoren ezin arrastorik ere aurkitu. Ez Satrustegik, ez Zavalak, ez dute salatzen non gordetzen den beraiek erabili zuten kantu-altxor hori. Miren Lara Iruñeko kaputxinoen bibliotekako katalogatzaileak, halako batean, aita Donostiaren eskuizkribuak ikustera joan ondoren kanta sorta eder bat erakutsi eta huraxe zela zorioneko *Colamus carmina nostra* konturatu nintzen. Aitzolen lehen dokumentuen altxorra, beraz.

Biblioteketan gordetzen diren kantu-kaierak ere ezin dira askotan katalogoetatik atera. Lehenengo Baionako Euskal Erakustokiko Bibliotekan aurkitzen ziren, besteak beste, Louis Dassanceren paperak. Paper horiek bederatzi kartoizko karpeta handitan gordetzen dira. Kantu askoren kopiak dira asko. Lehen dokumentu gutxi. Lehen dokumentuetako bat Santa Graziko Chambra kaiera da. Beste agiri asko eta asko berak erabilitako kaieretako kopia da. Eta Dassanceren lehen kopia ezin da lehen dokumentutzat hartu, lehen dokumentuaren kopia baino.

Biblioteketan gordeta egon beharko luketen dokumentu asko, zoritxarrez desagertuak daude. Eman ditzadan zenbait adibide. Sébastien Eppherre Altzaiko artzainak aita Lhanderi kantu-kaier bat eman zion. Kantu kaier-hori Jesuitek Paben duten egoitzako bibliotekan gordea egon da hainbat urtez. Haritschelhar jauna askotan joan izan zen kantutegi hori kontsultatzera. Honelaxe dio Haritschelharrek (Haritschelhar: 1969-1970):

> Mais l'on savait que la source principale était "le berger de Alçay, Sébastien Eppherre". Son cahier que nous avons retrouvé se trouve dans la maison que les Pères Jésuites possèdent 35 rue Montpensier à Pau. Nous avons recopié de ce cahier tot ce qui se référait aux chansons d'Etchahun, complétant ainsi l'information que le R. P. Lhande et l'abbé Larrasquet possédaient poru établir le texte de l'oeuvre poétique de Pierre Topet.

Kantu-kaier honetan aurkitzen diren kantuen zerrenda eta lehen ahapaldia Baionako Erakustokiko dokumentu batean zerrendaturik aurkitzen ziren. Dokumentu hori Pierre Lhanderena berarena da: MS/157. Pabeko 35 rue Montpensier jesuiten egoitzara bi bidaia eginak gara eta aurretik eskutitz bidez eskatu genuen ea aurkitzen duten Pierre Lhanderen kantu-kaiera, behiala Sebastian Eppherrek emana. Ahalegin guztiak, ordea, alferrikakoak izan dira. Kaier honek euskal baladak aztertzeko ere lehen dokumentu zoragarria izan behar zuen. Pierre Lhandek egiten duen inbentarioaren arabera, esaterako, hamairugarren kantua, *Atharatze jauregia* da, hamar ahapaldikoa. Lehen ahapaldia hauxe da:

Atharatzeko hiria hiri ordoki
Hour handi-bat badizu aldebatik
Maria Maydalena beste aldetik
Eregeren bidia erdi erditik.

Kaier bereko 39. kantua adierazteko bi izenburu ematen ditu *Berterech Laragne* eta *Jaun Countiac erhorik*. Lehen ahapaldia ere badakigu:

Jaun Countiak berhala
Traidore batek bezala
Berterech aigu borthala utzulien iz berhala.

Bereterretxeren kantoreak hamabost ahapaldi ditu eta lehena ez da gehienetan izan ohi duen sarrera ezaguna: *Haltzak ez dü bihotzik*. Chambra kaiereko ereduak hamabost ahapaldi bazituen, Salaberriren eredukoak beste ahapaldi zituen. Chambra kaiereko ereduak *Haltzak ez dü bihotzik* lehen ahapaldi ezaguna ez badu, beste ahapaldi ezezagun bat behintzat izan behar zuen. Eredu hori, zoritxarrez, galdutzat eman beharko dugu. Balada gehiago ere bazituen kantu- kaier horrek baina bi horien testigantza gogorra nahikoa izan bedi.

Beste misterioetako bat Salaberri mauletar kantuzalearen lehen dokumentuak non dauden aurkitzea izan da. Jean Dominique Julian Salaberri (edo berak idazten zuen bezala *Sallaberry*) mauletarraren kantutegia 1870. urtean argitaratu zen, Mauleko notario kantuzalea gazteak 33 urte zituela. Handik ehun urtera, 1970ean, notario mauletarraren mendeurrena ospatu zen Maulen eta berari buruzko zenbait artikulu hurrengo urtean, 1971ean, argitaratu ziren *Gure Herria* aldizkarian. Artikulu horietako bat deigarria da: Louis Dassanceren "Documents ayant appartenu à J.D.J. Sallaberry et destinés par son petit-fils au Musée souletin de Mauléon". Salaberrik zituen kantu kaier andana bat, euskaraz izan dugun lehen dokumentu altxorrik inportanteenetako bat, bere ilobaren eskuetan zeuden. Iloba horrek Maulen egin asmo zen museo baterako utzi zituen kantu-kaier guztiak. 1970eko omenaldian kaier guztien kantuen inbentarioa egin zen, kaieren zehaztasunak azalduz. Maulen egin asmo zen museoa ez zen egin eta kantu-kaierak nora aldendu ziren? Kantu-kaier horien peskizan ibili ondoren udaletxe berriko gela huts bateko maleta zahar batean zeuden zenbait kaier, XIX. mendeko bizpahiru liburu zaharrekin (Jean Baptiste Arxüren gramatika bat, besteak beste direla). Kaier guztiak zenbait egunetan astiro fotokopiatu eta maleta zegoen lekuan utzi genuen. Gaur egun, zorionez, kaier bilduma hori Mauleko *Su Azia* elkartean gordetzen da. Louis Dassancek zerrendatutako kaier guztiak, zoritxarrez, ez zeuden maleta zahar hartan. Handik zenbait urtetara, Errenterian, Eresbileko bibliotekan agertu zen kaier bat. Kanarietako musikazale batek erosi bide zuen merkatu batean. Lehen dokumentu bat, bidaia bitxia egin arren, ez zen galdu, bakarrik lekuz aldatu.

Jose Maria Satrustegi euskaltzaina Nafarroako balada zaharrez kezkatu eta dozena erdi artikulu interesgarri idatzi zituen. J.M. Satrustegik batez ere Sakanan eta partikularki Urdiainen kantatzen ziren balada zaharrez axolatu zen. Satrustegi hil zenean haren dokumentuen ondarearen kopia bat Euskaltzaindian gordetzen dira. Kopia horiek ezin dira kontsultatu ondorengoek kontsultatzeko baimena eman nahi ez dutelako. Aitzolen dokumentuekin gertatzen zen antzeko kasua gertatzen da hemen ere. Dokumentuak erabiliko ez dituenak debekuak jartzen dizkie ikertzaileei. Debeku hori ezeztatzeko bidea baimena eman dezaketen ondorengoei idaztea izan da. Halaxe egin genuen eta gure eskabidea ulerturik, zorionez, baimena eman ziguten.

Bibliotekako lehen dokumentu horietan ahalegin apartekoa egin dugu Azkueren landa-kaierak kontsultatzen. Azkueren landa-kaierak kontsultatzen hogei urte behintzat badaramatzagu. Duela hamarren bat urtera arte Azkueren dokumentuak ez zeuden digitalizaturik eta lehen dokumentuak Euskaltzaindiko Egoitza Nagusian, Bilboko Plaza Berrian, kontsultatu behar ziren. Azken urteetan, ordea, behin digitalizatu ondoren, errazagoa egiten da, kantu bat paperean izan beharrean, argazki digitalizatu bidez gordetzea. Ahalegin honetan eskerrak eman behar dizkiogu Josune Olabarriari, hainbat urtetan laguntza handia eskaini digulako dokumentuak eskuratzen.

Ez dago dudarik Euskal Herriko biblioteketako dokumentuak kontsultatzea eta kasurik onenean lehen dokumentuetako kopia on bat izatea urteetako lana dela. Guri behintzat nekeza egin zaigu, hogei urte behintzat badaramatzagu dokumentuen peskiza amaigabean eta.

19. LEHEN DOKUMENTU PARTIKULARRAK

Lehen dokumentuak folklore-biltzaile guztiek eduki ohi dituzte. Ikertzaileak bilketa lanetan ibili direnean, lehen fruituak, lehen gai edo materialak, bilketaren emaitza izaten dira. Azkuek bere landa-kaierak erabiltzen zituen kantuak biltzeko zein etnografia bilketetarako. Askotan lehen dokumentuak ez dira berriemaileak, kantatu edo kontatu ahala bildutako dokumentuak bakarrik. Eskutitzak ere izan litezke lehen dokumentuak, harek edo honek etnografo bati bidalitako eskutitzak, edo edozein etxetan gordeta dagoen kantu-kaier bat.

Biblioteketatik aparte etxe partikularretan ere badira kantu-kaierak, gure terminologiaren arabera, lehen dokumentuak. Honetan ere, zorionak eman behar dizkiogu Jean Haritschelharri berak erabili zituen zenbait dokumentu pribaturen zerrenda ematen baitu. Hona hemen zerrenda hori:

–Urrutigoity-rena	Dassancek berriz kopiatua
–Sebastien Eppherrerena	Paueko Jesuiten etxean
–Chambrarena	Dassanceren etxen
–Orbiscay-ena	Eskiulan
–Heguiaphalena	Sohütan
–Oholegikoa	Barkoxen
–Constantinen paperak	Dassanceren eskuetan
–Lhanderen paperak	Lafitten eskuetan

Non dagoen dokumentu bat lehen oinarria da dokumentua kontsultatu ahal izateko. Lehentxoago Haritschelharrek egiten duen zerrenda honetako dokumentu baten gainean hitz egin dugu, Sebastien Eppherreren dakumentuaren gainean. Haritselharren zerrenda horietako lehen dokumentu askok etxe partikularretan egotetik bibliotekarako jauzia egin dute. Lafitteren paperak, esaterako, orain Bilboko Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan aurkitzen dira. Eta dokumentu horiek ikertuz eta arakatuz *Ontziak eder du bela* baladaren aldaera berri bi aztertu ditugu gure tesi-lanean. Dassanceren paper zenbait Baionako Euskal Erakustokiko Bibliotekan egon ziren hainbat urtez. Orbiscay eskola-maisuaren kaierak bere ondorengoek gordetzen dituzte. Paper horien kopia baten jabe egin gara Eskiulako adiskide baten bidez.

Zerrenda horretatik kanpora badira etxe partikularretan dokumentu gehiago ere. Eman dezagun adibide bat. Zavalak bere baladategian San Ignazioren balada bat argitaratuzuen. Balada horren lehen dokumentuaren gainean honelaxe dio Zavalak:

> Tolosako Isaak Lopez-Mendizabal jauna zanak bialdua. Esku-idazki bat da. XVIII mendeko letra duana, gure iritzirako beintzat.

Isaak Lopez-Mendizabalek zer bidali ote zion dokumentu originala edo dokumentuaren kopia bat, fotokopia bat? XVIII. mendeko letra duela esaten badu, ezin izan Lopez-Mendizabalek egindako transkripzio bat. Nola Antonio Zavalak lehen dokumentuaren lehen transkripzio bat egiten ez duen ortografia gaurkotuan baino, lehen dokumentu horren peskizan mila bilaketa egin ditugu, baina alferrik. A. Zavalaren artxiboan ez dugu aurkitu. Isaak Lopez-Mendizabalen iloba Miren Lopez-Mendizabali ere galdetu diogu dokumentu horren gainean, baina orain arteko eginahal guztiak alferrikakoak izan dira.

Xipri Arbelbideri ea kantu-kaierik ote zuen galdera egin ondoren, etxean zituen pare bat aurkitu behar zituela esan zigun. Etxeko bi kaierak Aiherrako André Martinonek opari emandako kaierak ziren. Kaier horietan hiru balada interesgarri transkribatu genituen: *Neska ontziratua* gaiaren eredu bat, *Pazko eta Salbatore* gaiaren beste eredu bat eta *Behin batez joan ninduzun* baladaren eredua. Hiru eredu hauek zein baino zein interesgarriagoak dira, argi berria ematen dutelako. Aiherrako *Pazko eta Salbatore* eredua orain arteko ahapaldi gehien dituena da. Aiherrako *Neska ontziratua* Nafarroa Beherean aurkitu diren eredu bakanetako bat da eta *Behin batez joan ninduzun* kantuak Azkuek bildu zuen *Behin batez joan ninduzun* unicum edo kantu bakarra argi berriz argitu du. Askotan kaier bakar bateko balada batek argi berri handia eman dezake. Eredu berriak eskaintzen dituen neurrian ezagutzen diren beste eredu asko hobeki ulertzeko bidea ematen dute.

20. GURE ORAIN ARTEKO LANAK BALADEN GAINEAN ETA GURE TESI-LANA

Euskal baladen gainean argitara eman nuen lehen lana Antonio Zavalaren baladategia argitaratu eta gutxira izan zen. 2001. urtean, "Zuberoako bi khantore edo baladen gainean" artikulua (Kalzakorta: 2001). Ahozko literatura lantzen ibili naizen guztian genero desberdinak landu baditut ere, –paremia zaharrak, dantza-koplak, amodiozko kantuak– arreta berezia eskaini diet euskal baladei. 2001. urteaz gero euskal baladen gaineko hogei bat artikulu idatzi ditut. Lan horietan guztien artean *Neska ontziratua* baladari bost artikulu eskaini dizkiot. Artikulu bakoitzean balada gai bateko eredu bat edo gehiago eskaini izan dut. Eredu bat eskaintzeak, eredu argitaragabe bat eskaintzea esan nahi du. Artikulu horietako ekarria tesi-lan honetan bildua dago. Artikuluetan idatzi eta aldizkarietan argitaratutako emaitza guztia tesi-lan honetako puska txiki bat da, ordea, ehuneko hogeira ere heltzen ez dena. Ikertzailearen lana bide luzekoa da eta ez dut uste inoiz guztiz ikasten den lanbidea denik. Denborarekin sena eta ofizioa lantzen badira ere, inoiz ez da guztiz ikasten. Beti dago ikasi beharra, beti landu eta findu beharra. Neure tesi-lan honetan euskal baladen gaineko hogei artikuluetako ekarria gehitua, emendatua, hobetua dago. Hutsak neurri handi batean zuzenduak eta ekarpen berriz hornituak.

Euskal baladen tesi-lan honetarako euskal baladen gainean idatzi den guztia besarkatu dudala uste dut. Euskaraz, frantsesez zein gaztelaniaz euskal baladen gaineko lanak arretaz irakurriak eta aztertuak ditut. Bestek idatzitako euskal baladen gaineko lan bakoitzaren alderdirik onena, neurri handi batean, lan honen gida izan da.Tesi-lan honetako oinarri, gida eta bide erakusleak nire aurreko lan guztiak izan dira, inolako dudarik gabe. Nire lan hau, beraz, aurreko ikerlari guztien lanen zordun da. Lanbidea ikasi ahala bestek egindako lanetako on-gaitzak neurtzen dira. Lan bakoitzaren ekarria eta metodologia juzkatzen ditu irakurle ohartuak. Bestegandik eta norberaren ibilbidetik ikasiaz joaten gara. Tesi-lan hau, beraz, ibilbide luze bateko emaitza da. Euskal baladak aztertzeko metodologia zehatz bat eskainirik fruitu berriak eskaini nahi ditut. Zorionez, tesi-lan honekin ez da euskal baladen alorra agortzen. Gure asmo nagusia orain arte ezagutzen genituen euskal baladen testua finkatzea eta eredu berriak eskaintzea izan

da. Oinarriak finkatzea, hitz batean esateko. Testuak finkatu eta eredu berriak eskaini ez ezik, aztertutako euskal balada bakoitzaren argitasun eta zehaztasun berri asko ere eman dira.

BALADA HISTORIKOAK

1
ALOSTORREA BALADA

1. SARRERA

Alostorrea baladan ez dugu, zoritxarrez, aldaera berririk eskainiko. Bildu diren aldaera nagusiak iruzkintzea izango da gure helburu nagusia. Bildu diren testu guztiak ere ez ditugu gure atal honetara ekarriko. Azkuek bildu zuen elezaharra, esaterako. Gure helburu nagusia testuek sortzen duten arazo testual zenbait iruzkintzea da. Gure xederako Arakistainen testua eta Gorrotxategiren ereduei eskainiko diegu arreta.

2. BALADAREN ARGUDIOA

Euskal baladarik eder eta harrigarrienetako bat da Alostorrea balada. Balada honetako protagonistak Bertran Perez de Alos, haren alaba Usua eta Bertran Perez Alosen bigarren emaztea dira. Juan Karlos Gerrak honelaxe ematen du baladaren argudioa:

> Contaba la leyenda que un antiguo señor de esta torre, don Beltrán Pérez de Alós, estuvo casado dos veces. De su primer enlace sólo tuvo una hija, Usua, heredera de las virtudes de su madre, que fué una santa. Muy diferente la segunda, le fué infiel cuando marchó á Castilla á guerrear contra los moros. Al regresar á su torre el señor de Alós, se hizo cargo de que algo anormal había ocurrido á ella, y su mujer, para desvanecer toda sospecha, imputó á Usua la maternidad del bastardo fruto de sus clandestinos amores. Perplejo el buen don Beltrán, quiso descubrir la verdad de lo ocurrido é imaginó el arbitrio de simular su muerte. En el juicio supremo de Gau-illa descubrió el secreto, se levantó del féretro y tomó venganza atravesando con su espada al autor de su deshonra.

A. Zavalak zehetasun gehiagoz ematen du argudioa:

> Bertran Lopez de Alos, Debako Alos-torreko etxekojauna zan. Bere emazte ta alaba bakarrarekin bizi zan. Onen izena: Alos-Usua. Aita alargundu eta berriro ezkondu zan. Bigarren emazteak bi alaba eman zizkion.
>
> Beltran jaunak moroetara gerrara joan bear izan zuan. Ura an zalarik, andrea, senarrari zor zion leialtadeaz aaztuta, beste batekin konpondu zan: mutil koxkorretan etxera jaso zuten umezurtz batekin.
>
> Beltran jaunak, gerratik etorri zanean, bere alaba Alos-Usua Bidaniko maiorazko batekin ezkondu arazi zuan.

Beltranek giro txarra nabaitzen zuan etxean. Misterio edo izkuturen bat bazala, alegia; baiña zer ote zan ezin sumatu.

Orduan il-papera egin zuan. Urrengo gauan, etxekoak-eta gau-illa ospatzera bildu ziran; eta, garai artan oitura zanez, illaren goralpenak txandaka egiten asi. Alos-Usuak, or goien ezarri degun olerkia kantatu omen zuan.

Beltran jaunaren emaztearekin konpontzen zan mutilla, bere billaukeria agerian jarrita ikusi zuanean, Alos-Usua iltzera abiatu zan. Baiña Beltran jaunak, bat-batean zutitu eta bera il zuan; mutilla, alegia.

3. ARAKISTAINEN EREDUA

Kontu ezaguna denez, Juan Benanzio Arakistainen eredua "Gau-illa" leienda edo elezaharrean txertatua dago. Leienda hau 1866an Tolosan argitaratu zen *Tradiciones Vasco-cántabras* liburuan dator. Interesgarria da Juan Karlos Gerrak ematen duen balada honen gaineko argitasuna:

> El insigne leyendista Araquistain me decía en carta de 18 de Marzo de 1901: (...) Los versos publicados por mí son tomados literalmente de labios de una mujer, que en 1865 contaba ochenta y ocho años bien cumplidos: mujer extraordinaria por su memoria, y quien me dio también noticia de las tradiciones Las tres olas y la Hilandera de la Capilla de Zubelzu. Lo que puedo asegurar a usted es que aquella mujer tenía más fe en esas leyendas que en todas las historias del mundo, pues le señalaba los lugares, los peñascos y los puntos de todas las escenas.

Hona hemen *Tradiciones Vasco-cántabras* liburuan datorren euskarako testua:

Eche eder leyo bague onetan,
ez naiz sartu zazpi urte aüvetan,
eta zortzi garrenian
neretzat zorigaitzian
Aita Beltranen illtzian.

Amandria neria nizaz
bi erdi egun zanian,
milla ollo ill eta
ezcaratzian,
zazpi cecen corritu ere
emparantzian,
ni ere banengüen
lumacho artian,
eta nere Ama-andria
urre gortiña artian.

Guero Vidania guztian
bat zan eroric eta zororic,
Aita-jauna neriac aüra
senartzat eman dit,
baña ez nuque trucatuco
obiagoagatic.
Aita-jauna neriac
niri eman cidan
imiñan dotia,
Ama-andriac ere isihillic
bere partia.

Lenen gabian
beguiac viotzac luen mendian,
baita berriz ere bigarrenian:
Irugarrena igaro baño len
ondo poztu cinan Alós-torria
eldu zalaco neregan semia.

Alós-torria ¡Bay, Alós-torria!
¡Alós-torreco
escallera lucia!
Alós-torrian
nenguanian
goruetan
bela beltzac cuá, cuá
leyuetan.
Andic jaiqui eta
urre goruaz jó nuan
Baña andic laster
berri gaiztuac jo ninduan.

Zaldunac esan cion, ¡ishi, ishi!
Ama dollorcumia!
Ez da bada ori zure
ezateria.

Ishi! Ishi! Zaldun odol
charreco gaztia!
Ala ere guchiago zan
zure eguimpidia!
Aizpa ederrac or daude
ederric eta galantic,
atz ederrac eraztunez
beteric:
Ez daucatela mantubetan
zuloric.
Ala ere guchiago
beguiyan negarric.
Ama-andriari ere bai
poza dariyó;
nire viotzari bacarric
mindura jariyó!

Aita-jauna neria
Gastelan zanian,
Ishil ascoric jayo zan
Alós-torrian semia.
Eta hala ere ishillagoric
Dago baquian
Acitzen Zarauz aldian.
Gure jatorriarren loituquerian
Ay! au mindura belzá,
Ay nere lotzá!
Alavac negarra ta,
Aitac lur otza!

¿Ceñec loitu zaitu zu,
Alós-torria?
¡Ay! nere Aita maite,
Aita maitia!
Illtzia ondo egin dezu,
Aita-jaun maitia!
Aita maitia!
Illtzia ondo egin dezu,
Aita-jaun maitia!

4. ARAKISTAINEN TESTUA AHAPALDIETAN TOLESTURIK

Arakistainen *Tradiciones Vasco-cántabras* liburuan datorren testua beti eman da iturrian agertzen den bezalaxe, ortografia originalean edo eguneratuan. Atal honetan saio txiki bat egin nahi da. Arakistainek ematen duen testuetan zenbait lauko antzematen badira ere oso modu nahasian emana dago. Puntu honetan testu bera geure erara tolesturik emango da. Zenbaitetan bihurkia egon beharko lukeela antzematen da. Arakistainen testuari ezer erantsi bazaio kortxete artean jarriko dugu erantsitakoa. Puntu honetan eskaintzen den testua dena da jatorrizkoa. Puntu hau saiakera ausart xamarra dela beharbada otuko zaio testua irakurtzen duenari. Uste dugu jatorrizko testuaren hurbilpen saio bat besterik ez dela.

1
Eche eder leyo bague onetan,
[ez naiz sartu zazpi urte aüvetan,]
ez naiz sartu zazpi urte aüvetan eta
zortzi garrenian neretzat zorigaitzian Aita Beltranen illtzian.

2
Amandria neria nizaz bi erdi eguin zanian,
[milla ollo ill ziren ezcaratzian,]
milla ollo ill ezcaratzian eta
zazpi cecen corritu ere emparantzian,

3
[Zazpi cecen corritu ere emparantzian,]
[ni ere banengüen lumacho artian,]
ni ere banengüen lumacho artian eta
nere Ama-andria urre gortiña artian.

4
Guero Vidania guztian bat zan eroric eta zororic,
[Aita-jauna neriac aüra senartzat eman dit,]
Aita-jauna neriac aüra senartzat eman dit baña
ez nuque trucatuco obiagoagatic.

5
Aita-jauna neriac niri eman cidan imiñan dotia,
[niri eman cidan imiñan dotia eta]
Ama-andriac ere isihillic bere partia.

6
Lenen gabian beguiac viotzac luen mendian,
baita berriz ere bigarrenian:
Irugarrena igaro baño len ondo poztu cinan Alós-torria
eldu zalaco neregan semia.

7
Alós-torria, bay, Alós-torria!
Alós-torreco escallera lucia!

8
Alós-torrian nenguanian goruetan,
bela beltzac cuá, cuá leyuetan.
Andic jaique eta urre goruaz jó nuan,
baña andic laster berri gaiztuac jo ninduan.

9
Zaldunac esan cion: Ishi! Ishi! Ama dollorcumia!
Ez da bada ori zure ezateria.
Ishi! Ishi! Zaldun odol charreco gaztia!
Ala ere guchiago zan zure eguimpidia!

10
Aizpa ederrac or daude ederric eta galantic,
atz ederrac eraztunez beteric:
Ez daukatela mantubetan zuloric.
Ala ere guchiago beguiyan negarric

11
Ama-andriari ere bai poza dariyó;
nire viotzari bacarric mindura jariyó!

12
Aita-jauna neria Gastelan zanian,
ishil ascoric jayo zan Alós-torrian semia eta
ala ere ishillagoric dago baquian acitzen Zarauz aldian
gure jatorriaren loituquerian.

13
Ay, au mindura belza! Ay, nere lotzá!
Alavac negarra ta Aitac lur otza!
Ceñec loitu zaitu zu, Alós-torria?
Ay, nere Aita maite, Aita maitia!
Illtzia ondo egin dezu, Aita-jaun maitia!

5. ARAKISTAINEN EREDUA ETA *MILIA LASTURKO* ETA BESTE

J.B. Arakistainek bildu zuen ereduak baditu beste balada eta eresi zaharrekin antzekotasun handiak. Arakistainek *Tradiciones Vasco-cántabras* liburuan argitaratu zuen balada Deba edo Itziar inguruan zen bere etxetik gertu. Zergatik? Baladaren eremu naturala delako. Kontuan izan behar da

Beltran Lopez de Alos Debako etxeko jauna zela, eta Urtsuako balada edo Bereterretxeren kantorean bezala, baladaren gertaera-lekua da tradizioa indartsuen gorde den lekua. Baliteke, jakina, Arakistainek beste leku batean ere jaso izana, balada honek Urdiaineraino behintzat baitu bere tradizio hedadura.

Arakistainek bildu zuen baladak badu Milia Lasturko eresiarekin zerikusirik. Bateratasun handi samarrak daude, zenbait behintzat adieraziko ditut. Lehen bateratasuna gertaera-lekua da. Milia Lasturkoa da, Itziarkoa, Mondragoera ezkondua. Alostorrea Debako torre bat zen. Torre biak ingurutsu berekoak dira. Kantu biak hildako baten aurrean kantatzen dira. Milia Lasturkoa, Miliaren hilotzaren aurrean; Arakistainena, Beltranen hil-beilan. Kasu bietan ohitura baten berri ematen da: hilotza aurrean dela eresia kantatzekoa. Eredu bietan segmentu bat edo beste errepikatzen da. Milia Lasturkoren hasiera hauxe da:

Zer ete da andra erdiaen zauria?
Sagar errea eta ardao gorria,
alabaia kontrario da Milia,
azpian lur otza, gañean arria.

Arakistainen ereduan holaxe:

Ay au mindura belza
Ay! nere lotzá!
Alavac negarra ta
Aitac lur otza!

Testu bietan hildakoaren berri adierazteko *lur otza* erabiltzen da. Kasu bietan heriotzak hildakoarentzat dakarren patu beltza (hots, lur hotza) eta ingurukoen negar eta minduraren berri ematen du.

Baladako zenbakiei gagozkiela, zazpi zenbakia ugariro dator. *Zazpi urte auetan*, *zazpi zezen korritu enparantzian*. Zortzi zenbakia ere agertzen da *zortzigarren* forman eta zazpi zenbakiaren ondoren. Era berean, *lehen* agertzen den bezalaxe, *bigarren* eta *hirugarren* ere badatoz. Jaiotza handikiro ospatu zela adierazteko mila oilo hil ziren eta zazpi zezen korritu. Handikien jaiotza nola ospatu zen adierazteko era ederra.

Balada askotan ematen diren errepikak eta konparantzak ere ematen dira Alostorrea baladan. *Hara ere (eta) –ago* konparantza, esaterako, balada zenbaitetan aurkitzen da. Arantzazu gai duten baladetan, esaterako, Juan Karlos Gerraren *Armailetan altuan dago*:

Armailetan altuan
dago Birjina Begoñakoa,
ala beretan altuagoan
Birjina Arratekoa

Edo Juan Karlos Gerraren *Agostuaren amabosgarrena*:

San Agustinen liburutxo bat
eskutxo bien erdian,
pausua baratz botatzen zeban
Urtiagako gainean.

4
Ala bera ta baratzagoa
San Eliasen parean.

Alostorrea baladan behin baino gehiagotan dator baliabide bera. Hona adibide bat:

Ishi! Ishi! Zaldun odol charreco gaztia!
Ala ere guchiago zan zure egimpidia!

Alostorrea baladak balada askotan ematen diren egitura eta baliabide berak ditu. Eman ditzagun zenbait adibide. Alostorrea baladan *erorik eta zororik* egitura aurkitzen dugu. Era berean *ederrik eta galantik* ere badator. *Gure ortuan sagarra loran* Legutioko baladan ere egitura bera aurkitzen dugu: *Gure ortuban sagarra loran/ Donianeko eldurik;/ aren azpijan uso bi dantzan/ ederrik eta galantik*. Harrigarria bada ere *ederrik eta galantik* berdin-berdin dator Legutioko baladan. Era honetako bikoak beste balada batzuetan ere ematen dira. Chahoren *Apez beltza* baladan *churirik eta tendrerik* bikoa dator, era berean balada erlijiosoetan *ixilik eta bakarrik* aurkitzen dugu.

6. ARAKISTAINEN ESKUTITZA JUAN KARLOS GERRARI

Oihenartek bildu zuen paremia Ur garbizura, iturburura da. Juan Karlos Gerrak Arakistainek 1901eko martxoaren 18an idatzi zion karta baten bi puska dakartza, 1921 urteko *Euskalerriren Alde* aldizkarian. Hona hemen:

> Las endechas de Andre Milia de Lastur que trae Garibay, que son dos, no son tan largas como las de Alós, pero en mi concepto es porque no están completas, pero son unos giros tan poéticos, tan frescos y tan pintorescos, que á mil leguas se conoce por un canto y el otro, no sólo que son auténticos, sino que de época aproximada, pues no admiten imitación... Los versos publicados por mi son tomados literalmente de labios de una mujer que en 1965 contaba 88 años bien cumplidos, y que me dio también noticia de la tradicion Las tres olas y la Hilandera de la Capilla de Zubelzu. Lo que puedo asegurar V, que aquella mujer tenía mas fé en esas leyendas que en todas las historias del mundo, pues le señalaba los lugares, los peñascos y los puentes de todas las escenas.

Eskutitz puska hori argigarria da, dudarik gabe. Jatorrizko eskuizkribua Azkue liburutegian gordetzen da. Guk Arakistainen kartatik pasarte luzeagoa argitaratuko dugu, Juan Karlos Gerrak publikatu zuen informazio askoz gehiago dakarrelako. Guk dakigula inoiz hitzez hitz argitaratu ez diren pasarteak kurtsibaz jarriko ditugu:

> *Y con esto paso a contestar a sus preguntas. 1º Sobre la torre de Alos de Deva. Esa torre proxima a mi casa nativa que en mi niñez se hallaba derruida, fué reedificada por mi padre y hoy es mia. Fué torre antigua, de parientes mayores y cuyos bienes pasaron a la familia del Condado de Peñaflorida. En el archivo de esa casa en Marquina debe haber muchísimos documentos, y es seguro que en el Archivo del Ayun[tamien]to de Deva, habrá mil documentos referentes a ella.*
>
> 2º Los versos publicados por mi son tomados literalmente de labios de una mujer que en 1865 contaba 88 años bien cumplidos, mujer extraordinaria por su memoria y que me dio también noticia de la tradicion "Las tres olas" y la Hilandera de la Capilla de Zubelzu. Lo que puedo asegurar a V, que aquella mujer tenía mas fé en esas leyendas que en todas las historias del mundo, pues le señalaba los lugares, los peñascos y los puentes de todas las escenas.
>
> *Posible es que en algun verso truncado, en algun giro raro variara algo yo, pero si es así debe ser algun punto insignificante. Nada he visto [...] sobre eso en ningun lado, pero de que lo que yo transcribo es autentico de aquella vieja le respondo yo.*
>
> Las endechas de Andre Milia de Lastur que trae Garibay, que son dos, nos on tan largas como las de Alós, pero en mi concepto es porque no están completas, pero son unos giros tan poéticos, tan frescos y tan pintorescos, que á mil leguas se conoce por un canto y el otro, no sólo que son auténticos, sino que de época aproximada, pues no admiten imitación.
>
> *Tengo también otro romance ó tradición en vascuence que debe de ser posterior, que recogí despues de publicadas Mis tradiciones. No sé decir a V si es una tradición local, o una imitación de aquellas historias de damas y caballeros, tan de moda en los siglos 16 y 17. Está en verso vascongado pero muy poético y tierno*.

Eskutitz pasarte honetatik ondorio asko atera litezke. Arakistainentzat *romance (vasco)* eta *tradición* sinonimoak dira. Arxü eta aita Donostiak beste hitz bat erabiliko dute: *leyenda*.

Garai honetan benetakotasuna eta egiazkotasunaren defentsa egiten da. *Alostorrea* balada emakume zahar baten ezpainetatik hitzez hitz hartua izan zen. Egiazkoa eta autentikoa dela adierazten dio Arakistainek Juan Karlos Gerrari. Pentsatzekoa zen garai hartan gure artean –maila goratuetan, jakina– Ossianen beldurra zegoela. Garibaik bildutako Milia Lasturkoaren eresiak ere benetakoak direla adierazten da. Kasu bietan erabiltzen den hitza adierazgarria da: *auténtico*.

Zein ote zen Arakistainek bildurik zuen euskarazko beste balada zaharra? Ezin jakin, inondik inora ere. Arakistainek argitara eman ez zuenez gero, betiko galdutzat jo beharko da.

7. EULOGIO GORROTXATEGIREN HIRU TRANSKRIPZIOAK

Eulogio Gorrotxategi lazkaotarrak bere ama urdiandarrari bildutako bi eskuizkribu gordetzen dira. Bata Manuel Lekuonak Antonio Zavalari eman zizkion bertso eta balada bilduman eta bestea *Colamus carmina nostra* bilduman. Bi testu hauek Eulogio Gorrotxategik bere eskuz izkribatuak dira. Eredurik osoena *Euzkadi* egunkarian agertua da. Eredu honen eskuizkriburik ez dugu, eta, besterik ezean *Euzkadi*ko testua iruzkinduko dugu.

7.1. Euzkadi *egunkariko eredua*

Eulogio Gorrotxategik *Euzkadi* egunkarira eredua bidali ondoren 1932-VIII-17 argitaratu zen. Hutsez beterik agertu zen testua. Huts guztiak, ordea, konpontzeko modukoak dira. Inoiz ez da, guk dakigula, *Euzkadi*ko eredua dagoen-dagoenean agertu irakurketa zuzendua baino. Testua zuzenduko bada, ordea, Julio Urkixok Juan Karlos Gerrari egin zion proposamenean zioen bezala, testuak lehen transkripzioa izan behar du, nahiz eta huts eta oker nabarmenak izan. Hona *Euzkadi* egunerokoan, 1932. urtean agertu zen bezala testua:

Etxe aundi, edeŕ galantonetan
saspi urte dira ni sartu eznaizela.
Zortzigaŕenian ala eskeŕ gaizkotan
nere aita ŕonen-ronen iĺetan.

Eŕi guzian ere nundi bat izananik
aita neriak, bera senaŕ eman dit,
atoŕatxua jantzi dezala esanik
ero neuriak dinbi-danba eman dit.

Esku-musubak, garbi ditzala esanik
ero neuriak dinbi-danba eman dit.
oñetakuak jantzi ditzala esanik
ero neuriak dinbi-danba eman dit.

Ago ixilik ama zikiñen umia
ago ixilik andra lotsa-gabia.

Nere aita Valladolid'en zanian
ixil jayo zan seme-paria etxian.
Etziran batayatu elizako pontian
baizik, bat peŕtzian ta bestia azpiĺian.

Asko don gauŕko, enere alaba Maria,
asko don gauŕko, nere alaba maitia,
len irea zanen Bayonaren eŕdia
len erdia ta orain beŕiz guzia.

Testu honen buruan *Lazkano* jartzen zuen eta *azpian* abesijak (sic). Testuaren azpian *Goŕotxategi'tar Eulogi*. Testuaren ondoren ohar bat dator:

> Uaŕa.–Amaren abotik ikasijak dituzu abesti oneik ezta? Nabaŕako Uŕdain (sic) eŕi txikijan zeure amamea jayo ba-zan, andikuak ixango dira oneik. Uste dot oleŕki luzeren baten ataltxubak baño eztireala zati oneik. Iñok osotuten ba-dau, edeŕto.–Lauaxeta

Lauaxetak bere olerkari sena erakutsi zuen ohar honetan. Olerki luzeago baten ataltxoak zirela idatzi zuenean. Harrigarria da, bestalde, Laukizko olerkaria ez zela konturatu Arakistainen "Gau-illa" elezaharreko balada bera zenik.

7.2. Euzkadi *egunkariko eredua ahapaldiz ahapaldi*

Eulogio Gorrotxategiren eredurik aberatsena *Euzkadi* egunerokoan agertu zena da. Uste dugu eredurik aberatsenaren ahapaldiek merezi dutela gure iruzkina.

1
Etxe aundi, edeŕ galantonetan
saspi urte dira ni sartu eznaizela.
Zortzigaŕenian ala eskeŕ gaizkotan
nere aita ŕonen-ronen iĹetan.

Lehen ahapaldia hutsez josia dago. Lehen lerroan *galantonetan* batera idatzirik dago. Hutsik nabarmenena *esker gaizkotan* hitzean dator. Hitz hau *esker gaiztoan* edo esker gaiztotan izan behar du. Hurrengo bi ereduetan, M. Lekuonarenean eta *Colamus carmina nostra* bilduman *esker gaiztotan* dator. Lehen ahapaldi honek antzekotasun handia du Arakistainek bildu zuen ereduaren hasierarekin.

2
Eŕi guzian ere nundi bat izananik
aita neriak, bera senaŕ eman dit,
atoŕatxua jantzi dezala esanik
ero neuriak dinbi-danba eman dit.

Ahapaldi hau guztiz interesgarria da, M. Lekuonaren ereduan ta *Colamus carmina nostra* ereduan ez datozelako zenbait lerro. Arazo testual bakarra *ere nundi bat izananik* esaldian dago. Gaizki irakurtzen den esaldia *ero a(u)ndi bat izanik* da. Zergatik? Gainerako bi eskuizkribuetan ere halaxe datorrelako.

3
Esku-musubak, garbi ditzala esanik
ero neuriak dinbi-danba eman dit.
oñetakuak jantzi ditzala esanik
ero neuriak dinbi-danba eman dit.

Esku-musubak kopula gabeko hitz elkarketa eske kopla zaharretan ere aurkitzen da. Ahapaldi honetan aurkitzen diren zehaztasunak beste bi eskuizkribuetan ez daude.

4
Ago ixilik ama zikiñen umia
ago ixilik andra lotsa-gabia.

Interesgarria da *ama zikiñen umia* deikia. Arakistainen ereduan *ama dollorkumia* dugu. Uste dugu A. Zavala oker dabilela *dama dollorkumia* izan behar duela dioenean. *Ama zikiñen* umia eta *ama dollorkumia* bat datoz esanguran.

5
Nere aita Valladolid'en zanian
ixil jayo zan seme-paria etxian.
Etziran batayatu elizako pontian
baizik, bat peŕtzian ta bestia azpiĺian.

Badu ahapaldi honek nolabaiteko berdintasuna *Anaiai gaztigatu nion* baladarekin. Baladaren esanguran baino gehiago zenbait esapidetan. Azkueren lehen dokumentuan datorren azken ahapaldia hauxe da: *Nere aitak balaki nik/ zer daukatan etxean/ aitak ilen ninduke/ eta amak egosi bertzean.* Kasu bietan aipatzen da nere aitak eta ez espero zen bezala *aita nereak* edo *aita gureak*. Elizako pontean bataiatzen ez diren umeak, isil-umeak lekurik bitxiena dute bataiatzeko. Indar aparteko ahapaldia dugu.

Asko don gauŕko, enere alaba Maria,
asko don gauŕko, nere alaba maitia,
len irea zanen Bayonaren eŕdia
len erdia ta orain beŕiz guzia.

Euzkadi egunkariko testuko zenbait oker argi daude. Lehen lerroan *enere alaba Maria* dator eta bigarrenean *nere alaba maitia*. Azken ahapaldiko *zanen* ondo dago ezagutzen diren bi eskuizkribuetan ere halaxe datorrelako.

7.3. Euzkadi*ko testua gaurko ortografiara ekarririk*

Puntu honetan gaurko ortografiara ekarririk aldatuko dugu testua.

1
Etxe aundi, eder, galant onetan
zazpi urte dira ni sartu ez naizela,
zortzigarrenian ala esker gaiztotan,
nere aita Ronen-Ronen illetan.

2
Erri guzian ero a(u)ndi bat izananik
aita neriak, bera senar eman dit,
atorratxua jantzi dezala esanik
ero neuriak dinbi-danba eman dit.

3
Esku-musubak, garbi ditzala esanik,
ero neuriak dinbi-danba eman dit.
Oñetakuak jantzi ditzala esanik
ero neuriak dinbi-danba eman dit.

4
–Ago ixilik, ama zikiñen umia,
ago ixilik andra lotsa-gabia.

5
–Nere aita Valladoliden zanian
ixil jaio zan seme-paria etxian.
Etziran bataiatu elizako pontian
baizik, bat pertzian ta bestia azpillian.

6
–Asko don gaurko, nere alaba Maria,
asko don gaurko, nere alaba maitia,
len irea zanen Bayonaren erdia
len erdia ta orain berriz guzia.

7.4. *Manuel Lekuonaren paperetako eredua*

Manuel Lekuonak Antonio Zavalari bidalitako paperen artean aurkitzen da dokumentua. Paperaren neurriak hauexek dira: zabalera 218,5 milimetro eta altuera 195 milimetro. Testuaren ahapaldiak ez daude markatuak. Hauxe da testua:

Etxe aundi edeŕ galant onetan
zazpi uŕte dira, ni saŕtu ez naizela
zoŕtzi gaŕenian ala eskeŕ gaiztotan
nere aita ronen ronen iĺetan
Baĺaduŕian ero aundi bat izanik
aita neriak, bera senaŕ eman dit;
atoŕatxoa jantzi dezala esanik
ero neriak, dimbi-damba emandit.
(Continua en la misma forma mencionando
barias prendas de vestir que no recuerdo)
Ago ixiĺik ama zikiñen umia;
ago ixiĺik andra lotsa gabia.
Nere aita Balladolid'en zanian
ixil jaio zan, seme paria etxian
etziran batiatu elizako pontian
baizik bat peŕtzian ta, bestia aspiĺian.
Ago ixiĺik nere alaba Maria
ago ixilik nere alaba maitia
len irea zanen Bayonaren eŕdia
len eŕdia ta orain beriz guzia.

Testu hau ez da *Euzkadi* egunkarikoa bezain aberatsa. *Euzkadi* egunkariko testuak 27 lerro ditu eta honek hamazazpi. Hala eta guztiz ere lehen dokumentu bat da Eulogio Gorrotxategiren eskuzkoa eta *Euzkadi* eguneroko testua hobeki ulertzeko balio digu.


Etxe aundi ederí galant onetan
zazpi úrte dira, ni sárfu ez naizela
zortzi gárenian ala eskeŕ gaiztotan
nere aita ronen ronen ilétan
Baladuŕian ero aundi bat izanik
aita neriak, bera senaŕ eman dit;
atoŕatxoa jantzi dezala esanik
ero neriak, dimbi damba eman dit.
(Continua en la misma forma mencionando
varias prendas de vestir que no recuerdo)
¡Ago ixilik ama zikiñen umia;
¡ago ixilik andra lotsa gabia.
Nere aita Balladolid'en zanian
ixil jaio zan, seme bakia eskian
eskuban batiatu elizako pontian
bairik bat pértxian ta, bestia aspitian.
¡Ago ixilik nere alaba Maria
¡ago ixilik nere alaba maitia
len irca zanen Bayonaren ŕodia
len ŕodia ta orain beriz gusia.
Jóakategiztar E.

Alostorrea eredua M. Lekuonaren paperetakoa.

7.5. Colamus carmina nostra*ko eredua*

Colamus carmina nostra bildumako eredua (CCN modu laburtuan) Andre Emili baladaren ondoren idatzia da. *Colamus carmina nostra* bildumako eredu hau autografo bat da. Ez dago dudarik Lekuonaren testua eta CCN eredukoa berdin-berdinak izanik bata bestearen kopia dena.

Etxe aundi ederí galant onetan
zazpi uŕte dira, ni saŕtu ez naizela
zortzi gaŕenian ala eskeŕ gaiztotan
nere aita Ronen Ronen iĺetan
Baĺaduŕian ero aundi bat izanik
aita neuriak bera senaŕ emandit;
atoŕatxua jantzi dezala esanik
ero neriak dimbi damba eman dit.
Oñetakoak jantzi ditzala esanik
ero neriak dimbi damba eman dit.
¡Ago ixilik ama zikiñen umia;
¡ago ixilik andra lotsa bagia.
Nere aita Balladolid'en zanian

ixil jayo zan seme paria etxian
etziran batiatu elizako pontian
baizik bat peŕtzian da bestia aspiĺian.
Ago ixiĺik nere alaba Maria
ago ixiĺik nere alaba maitia
len irea zanen Bayonaren eŕdia
len eŕdia ta orain beriz guzia.



Colamus carmina nostra bildumakoa.

2
ANAIAI GAZTIGATU NION EDO *JUAN DE FLORES* BALADA

1. SARRERA

Euskaraz dugun baladarik eder bezain misteriotsuenetako bat *Juan de Flores* deritzana da. Azkuek Nafarroako Ezteribar haraneko Eugi herrian bildu zuen Mikaela Mendizabalen ezpainetatik. Bilketaren datu garrantzizkoenak baditugu, nori bildua eta non bildua. Berri-emailearen izena zalantzazkoa da Mikaela izenaren ostean galde-marka bat jartzen duelako biltzaileak. Falta dugu bilketa-data ere, baina pentsatzekoa da hogeigarren mende hasieratsukoa izango zela. Kanta hau *Cancionero popular vasco* laneko 384 zenbakian, eta *Euskalerriaren Yakintza* IV, 152. orrialdean, argitaratu zuen. Lekeitiar ikertzaileak, kantaren gaia kontuan izanik, "Endechas y elegías" sailean txertatu zuen batean, eta "Narrativas" edo "Gertaridunak" bestean. Balada honetako zaldun hila Juan de Flores denez gero, halaxe izendatu dugu kanta, beste zenbaitek egin duten bezala. Azkuek, ordea, bildu zuen sarrera-bertsolerroarekin izendatu zuen: *Anaiai gaztigatu nion*.

2. EUGIKO *JUAN DE FLORES* BALADA

Euskarazko beste balada nahikotxorekin gertatzen dena gertatzen da honekin ere: aldaera bakar bat baino ez izatea, zoritxarrez. Aldaera bakarra izateaz gainera, moztua, eskastua edo gutxirendua ere agertzen zaigu. Ez dago dudarik balada hau ahapaldi gehiagokoa izango zela antzinatean. Lau ahapaldi horietatik azkena, gainera, ez dirudi baladarena denik beste nonbaitetik txertatua baizik, geroago ikusiko dugunez. Kontuak horretara, hiru ahapaldi berezko edo bidezko baino ez zaizkigu gelditzen: balada osoaren pusketa bat. Hala ere, Azkuek bildu zituen balada honetako lau ahapaldiek aparteko edertasun eta indarra dute. Lau ahapaldi horiek eder diren neurrian misteriotsuak ere badira, Erregeren gortean falta den gizon baten ehorzketaren berri ematen dutelako. Misteriotsua da ez bakarrik balada-pusketa bat etorri zaigulako, baladako pertsonaia bat ere isilik eta misterioz ibiltzen delako karta bat idazten zein hildako bat ehorzten. Balada honetako pusketa urragarri eta erdiragarri hau beste zerbait handiagoaren adierazgarria da, soineko-adabaki eder bat soineko osoaren erakusgarri den bezalaxe. Edota, beste era batera esatera, jauregi suntsitu batetik gelditzen den atalburu ederra jauregi osoaren erakusgarri den bezalaxe. Kontuak honetara, eta beste gabe, ikus dezagun balada:

I. Anaiai gaztigatu nion
isilik karta batean,
ea lagunduko zidanez
gizona ortzitzen lurrean.

II. Anaiai gaztigatu nion
isilik karta batean
ea gizonik galdu zenez
¡o! Erregeren gortean.

III. Bai galdu da don Juan de Flores
yoan dan zazpi urtean;
zu bezalako dama batek
idukiko du etxean.

IV. Nere aitak ¡ai! balaki
nik zer daukaten etxean
aitak ni ilen ninduke
eta amak egosi bertzean.

Konta-poesia edo balada hau Azkue handiak, beste askotan bezala, ez du transkribatzen bildu zuen bezalaxe, berak egindako aldaketa, zuzenketa edo txukunketa zenbaitekin baizik. Hiru hitz horien artean, hirugarrena izango litzateke egokiena, jaso zuen testua hobetzeko edo ederragotzeko asmoz egiten baitzituen direlako txukunketak. Azkuek egin ohi zituen bere ustezko txukunketa edo hobetze gehienak oin-oharretan jarri ohi zituen. Hobetze gehienak esan dugu, baina ez guztiak. Txukunketak edo hobetzeak musikari zein hitzei dagozkienak izan zitezkeen. Gu bakarrik testuari dagozkion txukuntzeez ariko gara. Kanta guztietan ez zuen berdin jokatzen. Kasu batzuetan txukuntze-lan erdiak ere ez zituen jartzen oin-oharretan. Zergatik hobetzen ote zituen? Azkuek *Euskalzale* aldizkarian esan zuen ahotik harako euskal kanta asko ortutik harako porru fresko bezain guriak zirela, porru eder eta guriak, baina lur apur bat kendu beharrean aurkitzen zirela. Lur apur hori kentzea, askotan behintzat, erdaretetako hitzez gabetzea zen. Beste batzuetan, euskal egitura jatorragoz janztea. Gure eredu honetan joera biak ikusten dira. Ohartzekoa da ustezko hobetze horien berri bakarrik *Cancionero Popular Vasco* (hemendik aurrera CPV) lanean ematen zuela, eta ez *Euskalerriaren Yakintza*-n (hemendik aurrera EY). Liburu hura, beraz, musikaz eta letraz osoagoa eta hornituagoa da beste hau baino. CPV laneko eredutik geroagoko EY-ko eredura aurkitzen dugun aldaera bakarra *balaki* adizkia *baleki* bezala jartzea da. Gure atal honetan transkribatu ezin izan dugun huskeria bakarra, "lurrean" hitzeko zein "Erregeren" horretako garai bateko "r gangarduna" delakoa da. Kanta honen azpialdean egin bide zituen hobetze zenbait markatzen ditu, baina ez guztiak, geroago ikusiko dugunez. Zuzenketa edo hobetze horiek hurrengo puntu baterako utziko ditugu.

Kanta honen misterio edo garrantziaz ohartu zen Azkue handia, honelaxe adierazten baitu CPV-an:

> Obra de alguna importancia para nuestra literatura sería el completar poemas que, como éste, figuran en el *Cancionero*. Si alguien quisiera emprenderla, tendría yo sumo gusto en facilitarle cuantos datos pudiera acarrear (CPV, I, 481 or.).

Pentsatzekoa da Azkuek bildu zituen kantarik maite eta interesgarrienak bere *Euskalerriaren Yakintza*-ra ere aldatzen zituela, guztiok dakigunez. Kanta hau berriz ekartzeko arrazoia goraxeagoko baieztapenean ikusi daiteke.

3. JATORRIZKO ALDAERA: ESKUIDATZIETATIKOA

Kanta honen lehen transkripziora jo nahi izan dugu jatorrizkoaren bersioaren jabe egiteko. Guk kanta honen bilako peskizan Azkueren kaier eskuidatziak erabili ditugu eskuartean. Kanta hau bi kaier esku-idatzitan agertzen da, ABA-RMA-001-0001-012-560 signatura duen dokumentuko 233. orrialdean, eta ABA-RMA-001-0001-012-560 signatura duen dokumentuko 33. orrialdean. Kuaderno gorrian lehen hiru ahapaldiak agertzen dira musikaturik, eta kuaderno morean hiru azken ahapaldiak musika edo pentagrama gabe. Esan beharrik ez dago, puntuazioa gorabehera, bietan daudela bateratasun bete-betekoak. Hona hemen eskuidatzietan agertzen den bezalaxe:

(1)
Anayai gaztigatu nion
isilik karta batean
ea lagunduko ziran, bai ala ez,
gizona ortzitzen lurrean.

(2)
Anayai gaztigatu nion
isil(l)ik karta batean
ea falta zan gizonik, bai ala ez,
o erregeren kortean.

(3)
Bai falta da don Juan de Flores
joan dan zazpi urtean
zu bezalako dama ederren batek
idukiko du etxean.

(4)
Nere aitak balaki nik
zer daukatan etxean
aitak ilen ninduke
eta amak egosi bertzean.



ABA-RMA-001-0002-001



ABA-RMA-001-0001-012

Testua hemen garden aski agertu badugu ere, badira zenbait zalantzatxo. Lehen ahapaldiko *gizona ortzitzen lurrean* horretan, ortzitzen aditz izenean o- bokalea ez da garbi ikusten eta badirudi u- baten antz edo itxura handixeagoa duela. Hala ere, Azkuek bezala transkribatu dugu. Azken ahapaldiko *zer daukatan etxean* horretako adizkia ez dut garbi ikusten *daukatan/ daukaten*. Bada, hala ere, besterik ere. Goraxeago esan izan dugun bezala, CPV lanean Azkuek ez zuen jatorrizko eskuidatzitik, lehen dokumentutik, liburura egin zituen aldaera guztien berri eman. Behin eskuidatziak ikusi ondoren, kentze eta gehitze batzuen berri emango dugu. Lehen bi ahapaldietako hirugarren bertso-lerroak luzatu egiten zituen kantariak. Luzapen hori *bai ala ez* batek ematen zion. Esapide hau transkribatzeko era ere aldatu egiten da, kaier gorrian koma gabe eta kaier morean koma artean. Honelaxe dio Azkuek: "El tercer verso de una y otra estrofa alargaba desmesuradamente la cantora, destruyendo el ritmo de la melodía como también el metro del poema, en esta forma… (adibidea hitz eta musikaduna)".

Bigarren ahapaldian Azkueren eskuidatzian -l- baten gainean marratxo bat ikusten dugunez, uste dugu -l- gangarduna transkribatu nahi zuela, hots, gure –ll-. Jose Antonio Arana Martijari ere kontsulta egin diogu ea pentagramako zeinu bat ote del "l" gaineko ikur hori edo testuari dagokion transkripzioa. Erantzuna testuari dagokiola izan denez gero, parentesi artean transkribatu dugu.

Hirugarren ahapaldiko hirugarren bertso-lerroa ere gehitzen zuenik ez du esaten, baina eskuizkribua ikusi ondoren, *zu bezalako dama ederren batek* ikusten dugu, liburuan oharrik gabe agertzen den *zu bezalako dama batek* delakoaren ordez. Nola dakigu hirugarren ahapaldiko bertso-lerro hau luzatzen zuela emakume kantariak? Bide zeharkakotik, laugarren ahapaldiko hirugarren bertso-lerroaz honelaxe esaten duelako: *Este tercer verso consta así en el original, sin alargarlo como los terceros de las estrofas precedentes*. Eta bide zuzenetik ere bai, eskuidatzietan agertzen den *ederren* hori transkribatu ez duelako.

Kentze edo supresioez hitz egin dugu orain arte. Mintza gaitezen orain, beraz, gehitzeez. Eskuidatzian laugarren ahapaldian *Nere aitak balaki* irakurtzen dugu, transkripzioan, ordea, *Nere aitak ¡ai!balaki*. Laugarren ahapaldi bereko *aitak ilen ninduke* irakurtzen dugu, nahiz i- haserakoa ezabatuxe dagoen transkripzioan: *aitak ni ilen ninduke*. Gainerakoan argi dago azken ahapaldian *balaki* agertzen

dena, eta ez *baleki*. Badira argi ez dauden kontuak ere *gizonik falta zan kortean* edo *gizonik falta zen kortean* da? Koaderno gorrian *falta zen* irakurtzen dut, eta morean aldiz, *falta zan*. Bietan garbi dago hirugarren ahapaldian *falta dan* agertzen dena. Badira, dena dela, kontu ilunxkoak. Nola idazten du isilik palatalizazioarekin –eta beraz l gangardunarekin– edo palatalizaziorik gabe? Ez dago erabat argi,batetik, badirudi kaier gorrian l gangarduna darabilela, kaier morean ez. Bestetik, *aitak ilen ninduke* formako l gangarduna gabe agertzen denez gero, ez dugu uste bustidura edo palatalizazioa erabili zuenik. Laugarren ahapaldiko bigarren bertso-lerroko *daukatan/ daukaten* ere ez dago erabat argi.

Transkripziorako, beraz, nahikotxo egokitu edo aldatu da, eta egokitze eta txukuntze hauetako asko ez dira aipatzen CPV lanean. Badira bigarren mailako aldatze edo estandartzeak. Hona begi bistakoak. Hasierako *Anayai* delako hori *Anaiai* idazten du, baina ez *Anaiari*. Eskuidatziko hirugarren ahapaldiko *joan dan zazpi urtean* horretako aditza *yoan* bihurtzen du. Adizkietan nor-nori-nork (nirihark) *ziran* adizkia *zidan* bihurtzen du. *Kortean* eskuidatzikoa *gortean* bihurtzen du.

Argi dagoke, beraz, zer nolako garbitze eta txukuntzeak egin zituen Azkuek. Erdaratiko edo erdal kutsuko esapideei, esaterako, halako muzin bat egiten die: *falta da* argia esan beharrean, esangura lausotzen duen *galdu da* ordezkoa proposatzen du. Bertso-lerro hankaluzeak laburtuz eta hanka laburrak berdinduz egiten dituen konponketak ere agerikoak dira. Aldaketarik handiena, estilistikoki behintzat, nahiz musikalki hoberakoa den, *bai ala ez* indargarri horren deuseztea da. Galderari aparteko indarra ematen dio, erantzuna bera ere bai ala ez batera ekarririk. Horrexegatik hasten da hirugarren ahapaldia *Bai* indartsu batez…

4. *JUAN DE FLORES* BALADA EUSKAL BALADA-LIBURUETAN ETA ARTIKULUETAN

Azkueren EY lanetik bere artikulu batera balada aldatu zuen lehena, guk dakigunez, Aingeru Irigaray izan zen. Lastima handia da nafar ikertzaileak balada honek izan zitzakeen aldaera berri edo osoagorik aurkitu ez izana.

J. A. Lakarrak, K. Bigurik eta Blanka Urgellek egindako *Euskal Baladak Antologia eta azterketa*, II tomoan, balada hau transkribatu eta iruzkindu egiten dute orrialde eta erdi batean. Balada transkribatzeko orduan ez dute Azkueren aldaera orraztua edo txukundua hartzen, CPV lanetik ondorioztatzen den kantariaren ezpainetatik harakoa baizik. Liburu honen egileek Azkueren eskuidatziak ere erabili bide zituzten, Azkuek bere CPV liburuan agertzen ez den *zu bezalako andere ederren batek* bertso-lerro hankaluzea –jatorrizko eskuidatzian bakarrik agertzen dena– liburura aldatu baitzuten. Eskuidatzietako beste jatorrizko zenbait adizki zein hitz, ordea, ez zituzten beraiek proposatzen duten aldaeran txertatu. Esaterako, *gortean* agertzen dute eta ez *kortean*. *Bai ala ez* bi lehen ahapaldietakoa, bakarrik bigarrenean agertzen dute…

Jon Juaristik *Euskal baladen lorea/ Flor de baladas vascas* libururako J. A. Lakarra, K. Biguri eta B. Urgellen eredua hartu zuen oinarritzat, baina kopiatze huts handiak egin zituen (Juaristi: 1989). Gorago esan dugun eskuizkribuetako *dama ederren batek* jarri beharrean, *dama ederreren batek* jartzen du. Zoritxarrez ez du gaizki kopiatze bakarra egiten. Baladaren hitzak ere gaizki ulertu ditu liburu egileak. Lehen ahapaldiko *…/…/ea lagunduko zidanez/ gizona ortzitzen lurrean* nola itzuliko, eta hara*: Avisé a mi hermano en secreto/ con una carta,/ pidiéndole que me ayudara/ a traer el cielo a la tierra*. *Gizona ortzitzen lurrean* pleonastikoa *a traer el cielo a la tierra* itzuli zuen. Euskara zailtasun txiki bat agertzen badu testuak, liburuginak huts egiten du, maiz eta ardura. Azkuek ondo itzuli zuen duda izpirik gabe, J. Juaristik, ordea, huts negargarriak egiten ditu. Ez dugu inola ere Juaristiren herri-literatura zein literatura idatziaren jakituria zalantzan jartzen, baina euskararena? Arestiren poesia itzuli zuenean euskara erdipurdi zekiela erakutsi zuen, euskal baladak itzultzen dituenean ere, beste hainbeste. Guri dagokigun balada Azkuek Nafarroako Esteribar haraneko Eugin bildu zuela esan dugu gorago. J. Juaristik, ordea, gaizki kopiatzen du: "Versión de Labort y recogida también por Azkue. El nombre del personaje que da título a la balada, así como la circunstancia de que falta en la corte siete años atrás, sugieren alguna relación

con el romance hispánico de La Condesita o El Conde Flores". Nola egin liteke hain huts handia? Nondik nora atera du Lapurdikoa dela, Nafarroako bada? Baladak erdarazko bi horiekin ote du zerikusia? Lehenarekin, La Condesita delakoarekin, ez, seguru. Guk ikusi ditugun adibide guztietan besterik da gaztelaniazko La Condesita. Harako euskal baladen gaineko artikulu hain politak idatzi zituen J. Juaristi hark eta liburu honen egileak, egia esan, ez dirudite elkar.

A. Zavalak bere *Euskal erromantzeak/ Romancero Vasco* liburua gure atal honetako *Juan de Flores* baladarekin zabaltzen du. Zergatik? Baladak abezekiro ordenatzen dituelako, eta gure balada Azkuek bezala izendatzen duelako: *Anaiai gaztigatu nion*... Balada izendatzeko modu hau legezkoa da, eta bestetan ere erabiltzen du, Azkuek ez bezala, izenburua puntu jarraitu batzuekin markatuz. Hona hemen sistema argi horren erakusgarri *Andre Emili, andre gora…* edo *Atarratze jauregian…* edo *Behin batez yoan ninduzun…* Baladak gaika edo pertsonaia nagusika izendatzeko sistema aukeratzeari hobetsi beharrean, iturrian agertzen den bezala agertzeari hobesten dio, era horretara sarrera-hitzak izendapen nagusi bihurtzen dira. A. Zavalak gure balada transkribatzeko orduan Azkueren oin-oharrak hartzen ditu aintzat eta halaxe balada kantariaren ezpainetarik atera zen harako konta-poesia hartara gerturatzen du. Kontuak honetara, zer ondorio atera dezakegu? Azkueren liburuko balada iturri bakarrekoa izanik ere, gainerako liburuetan desberdin agertzen da. Aztertzaile adina eredu desberdin ditugu, beraz. Gainera, badago besterik ere, Azkueren beraren transkripzioa ere fidela ez denez gero, guk ditugun aldaera guztiak sasi-aldaerak dira, aldaera ukitu edo eskuztatuak, inolaz ere. Nola emango litzateke, beraz, eredu fidel eta egiazko bakarra? Azkueren CPV eta EY liburuen edizio kritiko bat eginez. Uste dugu eskuidatziekin kontrastatuz gero, aterako litzatekeela oraindik eginkizun dagoen edizio kritikoa. Edizio kritiko hau egin daitekeen egiazko hurbiltze bakarra da, nahiz bete-beteko hurbiltzea egiterik ez dagoen.

5. *JUAN DE FLORES* BALADAREN IRUZKINA: ALDERDI HISTORIKOA?

Juan de Flores baladak Euskal Herrian gertatu bide zen gertaera historiko batean ote du bere oinarria, Urtsuako baladak bezala edo Bereterretxen kantoreak bezala? Aingeru Irigaraik uste zuen kondaira edo elezahar batean zukeela oinarria: "He aquí una poesía de Eugui (Esteribar) que intriga algo y recuerda algún suceso dramático, parejamente a la conocida leyenda 'Goizean goizik jaiki ninduzun… ' suletina". Nafarroako iparraldean *Flores* deituradun familia asko omen daude, eta, beharbada, gure uste laburrean, handikiren bati gertatu bide zitzaiona agertzen edo ispilatzen zen balada horretan. Euskal Herriko handiki horrek ez zukeen inolako zerikusirik XVI. mendeko Juan de Flores idazle sibiliatarrarekin. Era bateko eta besteko historia zein literatura liburuetan ibili ondoren, Juan de Flores bat bizi omen zela agertzen da liburuetan, eta, herri-sona handiko idazlea izan zela bere garaian. Herri idazle honek arrakasta handiko zenbait liburu egin bide zituen, *Historia de los dos enamorados* eta *Historia de Grisel y Mirabella con la disputa de Torrellas y Braçaida*. Balada honen gaineko argibide historiko zein literarioak urriegiak direnez gero, ezin jakin dugu gauza handirik. Azkuek bere CPV lanean balada honen gaineko argibideak emateko prest zegoela dioenez gero, uste genuen haren eskuidatzietan zerbait aurkituko genuela, baina gure bilaketek fruitu urria izan dute.

6. *JUAN DE FLORES* BALADA ETA EUSKAL AHOZKO LITERATURA

Begi bistako zerbait aipatzekotan, Juan de Flores erregeren gortetik zazpi urtean falta da, eta, itxurak direnez, zazpi urte horietan norbaitek hila etxean gorderik izan du. Horrexegatik du balada honek zerikusi nabarmena *Goizian goizik jeiki nündüzün* famatuarekin. Baina orain ikusiko dugunez, badago beste kidetasunik ere. Azken ahapaldiko *Nere aitak, ai! balaki* horrek berdintasun nabarmena du Iparragirreren kantarik famatuenetako batekin, "Zibilak esan naute", delakoarekin. Urretxuarraren kantan, ahapaldi bat oso osorik baldintza eta ondorio batez osatua dago, eta gure baladan ere berdin gertatzen

da. Urretxuarraren baldintza *Nere amak baleki* da, gure baladan, ostera, *Nere aitak baleki*. Euskararen senaren defendatzaile sutsu eta aspergaitzek beste egitura jatorrago baten zaleak direteke: *gure aitak/amak baleki*, baina kasu hauetan, bietan, ez da horrelakorik agertzen.

Juan de Flores baladako laugarren ahapaldi honek badu gure baladategi urrian beste zentzukidetasunik ere: bertzean egosi eta jatea. *Ura isuri nuen sorginen bidean* baladan ere, antzeko zerbait gertatzen da, nahiz bestelako zerikusirik ez duen gure balada gaiarekin.

Bada besterik ere begi bistako kontu argi horiek alde batera utzirik. Gure azken ahapaldi honek eta euskal ipuin ezagun xamar batek berdintasun argiak dituzte, inolaz ere. Ipuin hori, guk dakigula, aita Donostiak bildu eta artikulu batean eman zuen argitara "Apuntes de folklore vasco"[1]. aita Donostiak garai hartan artean argitara gabe zen J.M. Barandiaranen aldaera eder bat ere ematen du bere lanean. Ipuin hori berori, gerora ere agertu zen beste aldaera berri birekin. Bi aldaera hauek J.M. Satrustegik bildu eta iruzkindu zituen artikulu batean "Versión popular vasca de un cuento de GRIMM"[2]. Aldaera hauek transkribatzeko orduan, ipuinaren gertaerak zenbaki bidez eman zituen Satrustegik. Guk geure atal honetara "Juan de Flores" baladaren azken ahapaldiari dagozkionak aldatuko ditugu bakarrik. Lehen ipuin-aldaerako 9 eta 18 zenbakietan honelaxe irakurtzen dugu: 9-*Gero, baita ankak ere, eta azkenean, mutikiaren gorputza puskatu zen eta bertz batean pâtu zen yosten(=egosten),* 18-*"Amonak il nau, aitak jan nau,/ nere arrebak ezur utsetan piztu nau!* Hona aldatu ditugun pasarteetan, beraz, amonak hiltzen du protagonista eta bertz batean egosi. Kontua, ordea, ez da horretan bukatzen, amonak bertzean egosi badu ere, aitak jaten duelako, 18. pusketan agertzen den bezalaxe. Bigarren aldaeran ere antzeko zerbait irakurriko dugu. Aldaera honetan aukeratuko ditugun pasarteak 21 eta 32 dira. Hona hemen, *21-Fan zan ebein etxiâ eta esan zian andra gaiztuari an etzôla; eta bitartien andra gaiztu arek mutikiaren gorputza bertz batien sartu zen*. 32-*Amak il nau, aitak jan nau,/ Poxpolin txuri, arrebak piztu nau*. Bi kasuetan hiltzailea amona edo ama dira, eta jalea aita. Antzekotasunak, beraz, begi bistakoak dira. Ipuineko pusketa kantatua izateaz gainera, ume-kanta ezaguna –eta erabat beldurgarria ere bai– ba omen zen, aita Donostiak bildu zuenez. Ipuin hau Europa osoan ezaguna den ipuin miresgarri bat da, zalantzarik gabe. J. M. Satrustegik Grimm anaiek bildutako ipuin baten tankera edo berdintasuna aurkitu zion. Europa osoko edozein ipuin miresgarri-bildumatan aurki daiteke horrelakorik. Aarne-Thomson-en ipuin miresgarrien katalogoan ere bere zenbakia du. Natalia Ginzburg idazle italiarraren narrazio zoragarri batean, "Invierno en los Abruzos"-an[3] bigarren mundu gerratean Italiako mendialdean berak entzunda bezalaxe dakar delako ipuin miresgarria. Ipuin horren klimax edo une dramatiko bortitzena, bertzean egositako ume zatikatuaren berria kantatzen duenekoa da. Umea egosia izan dela kantu batez esan ohi da gehienetan, eta kantu hori narrazioan txertatzen den lauko indartsu bat izan ohi da hizkuntza askotan. Ipuina, era horretara, bi erregistrotan egiten da, kontatuz eta lauko indartsu bat azken alderantza narrazioan txertatuz. Ipuin hau Aarne-Thompson-en sailkapenaren arabera 720 zenbakia daraman tipoa da, eta Julio Camarena eta Maxime Chevalier-en *Catálogo tipológico del cuento folklórico español* (Gredos 1995) liburuan hainbat erreferentzia ikus daitezke.

---

[1] BRSVAP, 1951, 28or.

[2] BSVAP, 1965, XXI, 283-291 or.

[3] Natalia GINZBURG, *Las pequeñas virtudes,* El acantilado-55, Barcelona 2002.

Hona narrazioa erdaraz agertzen den bezala: "Había una vez un niño al que se le murió la madre. Su padre se buscó otra mujer y la madrastra no quería al niño. Por eso lo mató mientras el padre estaba en los campos e hizo con él un cocido. El padre vuelve a casa y come, pero, cuando ha terminado de comer, los huesos que quedan en el plato se ponen a cantar:

Y mi madrastra maldita
me metió en la marmita
y de un solo bocado
mi papá me ha tragado.

Entonces el padre mata a su mujer con la guadaña y la cuelga con un clavo delante de la puerta. A veces me sorprendo murmurando los versos de esta canción y, entonces, todo el pueblo surge ante mi, junto con el sabor particular de aquellas estaciones, junto al soplo helado del viento y el tañido de las campanas.

Esan dezagun, azkenik, gure baladak baduela beste kide benazkoago bat gure baladistikan berean ere. Gorago esan dugun bezalaxe, gure baladak baditu antzekotasun nabarmenak "Egun bereko alharguntsa" baladarekin. Bietan gizon-gorpu bat gordetzen du isilean emakume maitemindu batek. "Juan de Flores" baladan hildako gizon hori lurperatzeko laguntza eskatzen da. Erdaraz badugu "La enamorada del muerto" romancearen gaineko lan polit bat Diego Catalanek egina. Lan hori, *Por campos del romancero* lanean agertzen da(Catalán: 1970). Lan zoragarri horretan euskal aldaera guztiak ere aztertzen dituen arren, atal honetan guri dagokiguna erdarazko aldaeretan aurkitzen dugu. Emakume maiteminduak ezin dio inori esan zer gordetzen duen, amari edo aitari esaten badio hilko duten beldurra duelako. Gure *Juan de Flores* honetan ere gauza bera gertatzen da: *Nere aitak balaki nik /zer daukatan etxean /aitak ilen ninduke/ eta amak egosi bertzean*. Erdal aldaeretan ere pasarte hori agertzen da. Diego Catalanek honelaxe adierazten du:

La descomposición del cadáver obliga a la infanta a pensar en desprenderse de su amado; pero no se atreve a abrir su corazón a ninguno de los suyos".

Baieztapen horren adibide bezala hainbat romance-pusketa txertatzen ditu:

A-*Si lo digo a mi madre, no es mujer para callarlo;/ si lo digo a mi padre, es hombre para matarme;/ mis hermanos son pequeños y de amor no entienden nada*. Bigarren adibide bat: B-*Si ho dic an el rei mi madre es hombre para matarme; / si ho dic a la reina mi madre, em dirà: Ten-t´ho i callo-ho;/ mis hermanas son pequeñas d'amores no en saben nada*. Adibide gehiago ere badira baina uste dugu *Gure aitak balaki…* ahapaldiaren berdintasuna ikusteko aski direla jarritakoak. Gure baladak, beraz, pasarte horrekin ditu antzekotasunik egiazkoenak.

3
ANDRE EMILI BALADAREN EREDUAK

1. SARRERA

Andre Emili dugu euskal balada *corpus*eko balada gairik zahar eta interesgarrienetakoa. Balada honen ereduak asko ez baditugu ere –Antonio Zavalak lau eskaintzen ditu eta guk bosgarren bat ere egingo dugu–, eredu gehienek transkripzio eta ulermen arazoak dituzte. Ezagutzen den lehen eredurik zaharrena XVII. mendeko Oihenarten *Art Poetique* lanean dator. Guk atal honetan ezagutzen ditugun eredu guztien testu finkapena eta iruzkina egiteko asmoa dugu. Gure "*Andre Emili* balada eredu desezagun bat eta Azkuek bildua" lanean bi eredu finkatu genituen (Kalzakorta: 2011). Oraingo atal honetan ezagutzen ditugun guztien berri emango dugu.

Andre Emili balada gaiaren eredu guztietan ahapaldi gutxi aurkitzen ditugu. Eredurik ezagunenetan, Oihenartek, Humboldtek eta Azkuek bildutakoetan, hiru ahapaldi baino ez ditugu aurkitzen. Gure atal honetan eredu guztien berri emango dugu eta aurkitu ahal izan ditugun testigantzak ere ekarriko ditugu.

Geure atalean ezagutzen ditugun eredu guztiak kronologikoki emango ditugu. Kronologia-irizpidea bi eratara erabiliko dugu: batu zen garaia eta argitaratu zena. Bi irizpide hauetatik, A. Zavalak bezala, lehenari jarraituko diogu batez ere.

2. BALADAREN GAIA, GARAIA ETA PERTSONAIAK

Gure baladaren gaia hitz gutxitan laburbiltzeko, eredu guztietatik bi lehen zaharrenak hartuko ditugu abiapuntutzat. Hona, beraz, Oihenart eta Humboldten ereduak oinarri harturik, ahapaldiz ahapaldi argudioaren haria.

Lehen ahapaldian adierazten da goi mailako emakumea dugula Andre Emili. Goi mailakoa da eta ezin du artorik jorratu, ogia oratu gutxiago. Artoa jorratzea eta ogia oratzea ez dagokio bera bezalako dama bati. Ahapaldiaren azkenean, agintera-adizki baten bidez, mairu-herrian zehar joateko adierazten da.

Bigarren ahapaldian emakumea zein prezio edo diru-saritan saldua izan den adierazten da. Lehen esaldian –esaldi pasibo baten bidez –*saldu nintzen dirutan*– dirutan saldua dela adierazten da eta bigarren esaldian dirua asko dela adierazten da. Ahapaldiaren bigarren erdian zehaztu egiten da diru askotasuna: ehun pizu dirutan eta berrehun dupa eztitan. Bigarren ahapaldi hau emakume salduaren ahotsean dator, lehen pertsonan. Dama bat saldua izan da eta saldukeria hori zehaztu egiten da. Dama handi bati dagokion diru-saria ere handia da.

Hirugarren ahapaldia ere, bigarrena bezalaxe, lehen pertsonan dago. Hirugarren ahapaldi honetan salpenaren berri ematen da. Salpena edo are saldukeriaren berri ematen da. Aita da saltzailea, ama diruen hartzailea eta anaiarik txikiena mairuetarik kentzailea, hots, salbatzailea.

Hitz gutxitan adierazi dugun baladaren hariari zehaztasun asko erants diezazkiokegu. Gure baladako protagonistaren izena *Emili* dugu. Izen honek zehaztaile bat darama aurretik: *andre Emili*. Emili izenak oihartzun zaharrak dakartza euskal kantu zaharretan. Lasturko Milia izen bera dugu. Gure baladako Andre Emili protagonistaren goi mailakotasuna, bestalde, adjektibo batean laburbiltzen da, *gora* adjektiboan. Andre Emili emakume goi mailako bat dugu. *Gora* adjektiboak, dilogia baten bidez, goi mailakoa eta are burugoia adierazi dezake. Gure baladan ez ezik, beste euskal balada batean ere ikusten dugu hitz bera –rik atzizkia erantsia duela. Izenbururik ezagunena *Anderea gorarik zaude leihoan* dugu. Gure balada zahar kutsu handikoa da. Mairuen garaira eramaten gaitu. *Mairu herri* hitz konposatuak mairuen lurraldea adierazten du. Euskal balada gutxitan aipatzen dira mairuak eta trukuak. Era berean, *mairu herri* hitza ere euskal balada gutxitan aipatzen da. Bakar bat aipatzekotan *Kanzuriano* balada dugu: *–Kanzuriano, Kanzuriano,/ lo bazagoz iratzarri./ –Enago ni lo, enago ni lo,/moru-erriko moru ori./ Nok esan deutsu neure izena, truko-erriko truko ori?/ –Enaz ni moru-errikoa,/ gitxiago truko-errikoa,/ obetuago izango naz ni/ zeruetako aingerua*. Hona aldatu dugun pasartean. *mairu erri* eta *truku erri* aipatzen dira, gainerako gure baladategiko aleetan bakar batean ere ez. Euskal olerki zaharretan ere gutxitan aipatzen dira. Hona (Lucien Clare: 1974) hamazazpigarren mendean Salamankan argitaraturiko euskal ahapaldi bat:

85
Goaçen Mairu errira
Mairuen zaticen
mendi Adlanteraño
guztia erreçen.

Ahapaldi horren ordaina honela dugu gaztelaniaz: *Vamos a Berbería/ a los moros a despedazar,/ hasta el monte Atlas/ a quemarlo todo*. Interesgarria da garai zaharretan *mairu herri* hitza agertzen zela ohartzea. Gure klasiko zaharrek ere badakarte hitz hori, Axularrek eta Kapanagak, kasurako. Axularrek bere *Gero* famatuan, *mairu herriko mairu beltzak* pasartean eta Kapanagak *katigu dagoana mauru errian* pasartean.

Aita damaren saltzaile izatea bestetan ere ikusten dugu. *Atharratzeko jauregian* baladan, esaterako. Gure baladaren ereduetan, gainera, beste kontzeptu bat ere aurkitzen dugu aita damaren saltzailea da, eta, itxurak direnez, oso urrunera saltzen du. Urruntasunaren ideia hau ez dator bakarrik mairu herrira saltzearekin, *mairu herrin gora* saltzearekin baino. Gure ustean, bigarren *gora* horretan, "mairu herrian barna" adierazi nahi du *–n gora* postposizio egiturarekin. Leku urrunera saltzeko ideia hori interesgarria dela deritzagu. Hegoaldeko *Frantziako anderea* balada ereduetan ere, Mikel Agirreazkuenagak Munitibarren bildutako eredu batean (Agirreazkuenaga: 1991). Guri dagokigun eredu horretako pasartea hauxe litzateke:

Aita bizi dodan lez
bizi banuen ama,
enenduela salduko
Espain urrunera.

Aita[k] saldu nenduen
idi bat bezala,
kenduteko bizia
Espain urrunera.

Gure baieztapena, gisa batez edo bestez, Agirreazkuenagaren lanean ere aurkitzen dugu:

> Hipothesisaren speculationezko munduan kokatu eta ere, bagenerrake Atarratze jauregia eta Andre Emilia-n ageri den mintzabide formulistikoa deklaratzen zaigula garbiki Franziako Anderea-ren aldaerea berri honetan.

Gurasoek alaba saltzeak zer adierazten du? *Atharratzeko jauregian* baladan eta *Andre Emili* baladan saltzeak ezkontzan saltzea adierazten du kasu bietan? Baietz uste dugu. Aitak alaba saltzen duela honen gogoz kontra. Bestela esan, aitak alaba ezkonarazten duela alabak maite ez duen gizon batekin diruaren truke. *Atharratzeko jauregian*, bai, aski argi, baina Andre Emili baladan ere alaba ezkontzan saltzen ote dute? *Euskal baladak* lantaldekoek ez dute ezkontza konturik adierazten. Hona *Euskal baladak* taldekoen laburpena (Lakarra et alii: 1983):

> Baladaren istorioa hitz gutxitan labur daiteke: bere senideek mairuei saldu eta hauetarik neba txikiak askatzen duen neska baten kondaira dugu berau.

Ezkontzaz saltzearena eta beste zertzelada batzuk Jean-Baptiste Orpustanek ere (Orpustan: 1996) badakartza bere lanean. Aipamena luzetxoa da, baina merezi du bere osoan hona ekartzea:

> Le destin des femmes, mères, épouses, soeurs, est au centre de tout un ensemble de ces récits poétiques qui tournent autour du mariage et du sentiment amoureux, les deux étant généralement en conflit. Thème littéraire médiéval si l'on veut; mais il persiste bien au-delà, et il es productif en tous lieux: Oyhénart cite parmi les "vieilles chansons" aussi bien la biscayenne *Atseyn andia* que la navarraise *Andr'Emili*; mais le Guipuscoa n'est pas en reste avec *Milia Lasturco*, ni surtout la Soule avec *Urrutiako anderea* ou *Ozaze Jaurgainian*. Comme c'est une veine qui s'est poursuivie jusqu'au XIXème siècle avec la bas-navarraise *Inchauspeko alaba* etc…, il faut penser qu'il y avait là une solide tradition de poésie "domestique" où la maison est souvent nommée.
>
> Le mariage convenu, règle générale des anciennes sociétés, s'opposant au sentiment personnel de la mariée fournit le sujet de la plupart des chants de ce type qui ont pu être conservés, peut-être parce qu'ils touchaient davantage. La chanson navarraise *Andr'Emili* ou "Dame Emilie" paraît remonter au temps où les Arabes (*Mairuak*) tenaient une partie de l'Espagne, avant 1492 et même peut-être bien avant, quand le relations avec la Navarre étaient assez étroites por autoriser des mariages de chrétiens et de musulmans.
>
> Dans les trois strophes en tercet inégal monorime recueillis par Oyhénart apparaît d'abord "Dame Emilie, haute dame", qui ne touche pas aux travaux quotidiens: *Ecin diro oguiric ora*, *Artoric jorra hain guti* ("elle ne peut pétrir le pain, tout aussi peu sarcler le mil"), où la première séquence devrait fair un heptasyllabe, ce qui suppose une altération (il suffirait de *eztiro* ou *ezin du* en évitant le pléonasme *ecin diro* "elle ne peut"). Le poète anonyme, sans doute d'origine plus humble que la dame, en tire une conclusion qui tient le second hémistiche du vers long: *Bihoa mairu herrin gora* (pour obtenir l'hémistiche final heptasyllabique, il faut ou que *bihoa* soit monosylabique, ou qu'Oyhénart ait restitué une aspiration perdue en dialecte navarrais où la synalèphe était possible dans *mairu/ errin*): "qu'elle s'en aille là-haut au pays de Maures!"
>
> Les deux autres strophes font parler Emilie. D'abord pour décrire son mariage comme une vente: "On me vendit pour de l'argent, Et pour un prix fort élevé. Pour cent poids d'or et deux cents cuves de miel". Le mariage assimilé à une vente reparaît dans d'autres textes: la demoseille de Jaurgain le répète plus crûment ("comme une génisse"), et Oyhénart n'oublie pas le motif dans son poème nº 6. La troisième strophe résume tout un drame familial, avec la liberation d'Emilie:
>
> *Aita nuen salçale*
> *Ama diru harçale*
> *Anayeric chipiena mairuetaric khençale*.
>
> Mon père fut le vendeur, Ma mère prit l'argent, Le plus petit de mes frères m'arracha des Maures". Nouveau topique de ces chants de mariage, la dénonciation des parents "vendeurs de leurs filles" réapparaît

textuellement en reprocche direct à la mère, le père qui l'eût défendue étant mort (ou Oedipe en Soule!), dans le chant de la demoiselle de Jaurgain. Les trois strophes ne forment manifestement qu'un résidu d'un récit qui dut être plus long. Le pays des Maures, l'Espagne méridionale, pour ces Basques des montagnes et des mers du nord, c'est l'ouverture au lointain, à un Orient plus dangereux que séduisant. La demoiselle souletine de Jaurgain verra dans l'Espagne où son promis (seigneur de Tardets pourtant) doit la conduire un exil insupportable.

Andre Emili balada oinarri harturik, Lauaxetak *Aŕats beran* olerki-liburuan "Etxeko alabea" olerkia txertatu zuen. Olerkiaren goialdean iturria adierazteko *(aita nuen saltzaile)* esaldia dator:

I

¡Aŕats-autsak daukoz bidiak!
Lau zaldun betoŕz España'tik
Mairu-eŕiko mairu baltzak
zidaŕ eta uŕez zamaturik.

Lau zaldi zuri, ugel goŕi,
zidaŕezko aukoz bitsetan.
Arin-arin, axia iduri,
eguak daukez zangoetan.

Zidaŕ eta uŕez zamaturik
Lau zaldun datoŕz España tik.

II

Etxeko alaba liraña
itxi eyozu dantzeari.
Txirula alai dabil, baña
edeŕ zayakoz mairuari.

Jantzi zadi gonantza goŕiz
zaldi-otsak dira landetan.
Sagoz lirain, aurpegi argiz,
iŕizko lorak ezpanetan,

Itxi eyozu dantzeari
edeŕ zayakoz mairuari.

III

–Neure alaba, ez negaŕik
ondo zaldu zaugu dirutan.
Beŕeun uŕe-dukat aŕturik
eta saspi dupa eztiťan–.

Lau zaldi zuri, ugel goŕi
Mairu- eŕira zailu duaz.
–Txiribogin: ardua neuri,
edontzi au bete napaŕez.

¿Beŕeun dukat a aŕturik
neure alaboi, ez nagaŕik.

Lauaxetaren olerkiak eman dezake aditzera poetak nola ulertzen zuen gure balada. Lauaxetaren olerkian neska baten saltze edo saltzapena ikusten dugu. Saltzearen arrazoien artean, Lauaxetaren testuan agertzen denez, "(neskatila) mairuari eder" zaiolako da. Interesgarria da, bestalde, Lauaxetaren olerkiak Axularren testuko oihartzun garbi bat izatea*: Mairu-eŕiko mairu baltzak*.

3. A EREDUA OIHENARTEN *ART POETIQUE BASQUE* LANEKOA

Kontu jakina denez, Arnaut Oihenarten *Art poetique basque* lanak berandu ikusi zuen argia. Piarres Lafittek *Gure Herria* aldizkarian, 1967ko urrian, eman zuen argitara (Lafitte: 1967). Lafittek dokumentu hau kontu eta arreta handiz argitaratu zuen, Mitxelenak aitortzen duenez (Mitxelena: 1971). Honelaxe dator *Art poetique basque* lanean guri dagokigun pasartea:

Il y a Une forme de quatrain <s> qui a esté, a mon opinion, propre et particuliere a nos basques, Car le ne trouve pas quelle ait esté pratiquee aux autres langues […] celle ou il a trois Uers dUne mesme Rime a scauoir Le premier, le deuxiesme Et le quatriesme, et le troisiesme n'a point de rime. Vous en verrés la preuue en La chansoin dUne fille nauarroise nommee Emilia, de laquelle Un more estant amouraché, Il Lachepta a pris d'or

Andr' Emili 'andre gora,
Ecin diro oguiric <orha> ora
Artoric jorra hain guti,
Bihoa mairu herrin gora.

Saldu nind [….] saritan
<aski s… illissible…>
Asco sari… handitan
<hoguei> ehun p'içu (1) Urhetan, eta
<Lauroguei> Berrehun dup'a Estitan

Aita nuen salçale
ama diru harçale
anayeric chipiena
mairuetaric <k'ençale> guençale

Le premier quatrain est de Uers feminins de huiet syllabes Et les autres deux sont de Uers glissans de sept syllabes Cette façon de rimer est gentile, det lUsage en doit estre eonserué.

(1)l'apostrophe des mots p'içu, dup'a et k'ençale est un "esprit rude" qui devrait être mis à l'envers, selon l'ortographe d'Oyhénart.

Hona aldatu dugun testuaren oharra Lafittek berak egina da. Gainerako testu guztia Oihenarten testuaren Lafitten transkripzioa dugu. Guri puntu honetan Mitxelenaren traskripzioa interesatzen zaigu. Lafittek transkribatutako testuaren bigarren ahapaldian hutsarte handi bi ditu. Guri dagokigun balada honelaxe transkribatzen du Mitxelenak (Mitxelena: 1971).:

Andr' Emili' andre gora,
Ecin diro oguiric ora
Artoric jorra hain guti,
Bihoa mairu herrin gora.

5 Saldu nind[…] saritan
Asco sari handitan
Ehun phiçu urhetan, eta
Berrehun dupha Estitan

10 Aita nüen salçale
Ama diru harçale
Anayeric chipiena
Mairuetaric guençale.

Oihenartek dioen Le premier quatrain est de vers femenins de huict syllabes et les autres deux sont de vers glissans de sept syllabes." Oihenarten pasartea honelaxe iruzkintzen du maisu errenteriarrak (Mitxelena: 1971).

> Me limitaré a recordar que llama versos femeninos a los acabados en palabra grave o llana (es decir, paroxítona), frente a los masculinos (agudos u oxítonos), y que los *glissans* son "ce genre de vers que les Italiens appellent *sdruccioli*; les Espagnols les appellent *esdruxulos*". Tampoco se puede pensar, en vista de *gora* al final de los versos 1 y 4, que le fueran desconocidas las reglas modernas del "poto": precisamente acusa a Etcheberri de Ciboure de servirse "dvn mesme mot, repeté, *au mesme sens*, a la fin de deux vers" (p. 38.s)

Mitxelenaren transkripzio osatuagoak eta iruzkinak argi berria ematen diote Lafittek 1967. urtean argitaratutako testuari. Mitxelenaren testuak bigarren ahapaldiko ilunune bat argitzen du, batetik; eta Oihenarten testua azaltzen du. Lehen ahapaldian agertzen den *gora* bikoitzaren gainean zeharbidez dio ez dela potoa bi adiera diferentetan emana dagoelako. Lehen ahapaldiko *hain guti* egituraren gainean ohar bat egiten du:

Hain guti, literalmente "tampoco" (es decir, *tan poco*), no aparece solamente en autores labortanos, etc. En los *Gabon-sariac* de Peñaflorida, p. 34. se lee: *Bassa arteco pistiac/ malso, malso eguiñic,/ ez dute ya alcar jaten,/ ta ain guichi guizonic*. Y en el ms. De Ochandiano, p. 28, hay una anotación: *ain guichi ori naidot*.

Mitxelenaren transkripzioak, argi berri handia eman arren, ez du guztiz argitzen Oihenartek bildutako balada. Korapiloa hauxe da *Saldu nind[..] saritan* horretako adizkia gelditzen da ilunsko. Korapilo bakar hori Ibon Sarasolaren transkripzioan askatua dago. *Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos* lanean beste irakurketa hau proposatzen da:

Andr' Emili' andre gora
Ecin diro oguiric ora
Artoric jorra hain guti
Bihoa mairu herrin gora.
Saldu nince[n] saritan
Asco sari handitan
ehun piçu vrhetan, eta
Berrehun dupha estitan
Aita nüen salçale
ama diru harçale
anayeric chipiena
mairuetaric guençale.

4. B EREDUA W.F. HUMBOLDTEK ITSASUN BILDUTAKOA

Andre Emili baladaren bigarren eredua Karl Wilhem Humboldtek Lapurdin, Itsasun, 1801ean Harambillet apezari bildua da. Euskal Herrira egin zuen bigarren bidaia honen gainean mintzatu gara beste behin (Kalzakorta: 2004). Hona Telesforo Aranzadiren *Diario del viaje vasco 1801* pasartea:

De los días que pasé en esta pacífica vivienda [Itsasu herriaz ari da] no referiré aquí mucho, pero su recuerdo nunca se apagará en mi corazón. El dueño un venerable anciano, había entregado a su sucesor la cura de almas de la comunidad, llevaba con inviolable fidelidad durante cincuenta años, para concluir aquí sus días en tranquilidad y soledad. Pero todavía disfrutaba en igual medida de la estimación y cariño de sus feligreses y muy poco antes de estar yo allí habían, sin requerimiento suyo, allanado la cuesta algo pina de delante de la casa y la habían hecho más accesible para sus envejecidas fuerzas.

(…) Nunca he visto en un anciano una sanidad tan amable, por nada turbada, una disposición para la conversación instructiva y para cada indagación, por lejana que fuese del círculo de su limitada vida, una participación tan cordial en cada diversión inocente, en una palabra un tal espíritu de genuina paciencia y verdadera humanidad, como es el honrado Harambillet. El más vivo interés para él tenía entre todos los objetos naturalmente su nación, y todo lo que algo se refería a ella. Se apoderaba de él una especie de entusiasmo, cuando hablaba de ella, de su antigua fama y de su idioma, y era conmovedor el oirle lamentar a él, que estaba al borde de la tumba, el antiguo desavenecimiento del último. Se acordaba con visible alegría de antiguas canciones aprendidas en su juventud, podía estar sentado horas enteras para recordar otras tonadas y estrofas medio olvidadas, y sabía siempre distinguir con el más ajustado gusto los genuinos tonos del pueblo de las imitaciones posteriores, tomadas de idiomas extraños. Desgraciadamente su memoria se había hecho tan débil, que de ordinario solo era capaz de recordar el encabezamiento y en todo caso las melodías. (180. or.)

Humboldtek bildutako eredu hau Azkuek bi aldiz argitaratu zuen. Lehen aldia 1922. urtean CPV lanean "Romances y endechas" sailean. Hona 375. kantu-zenbakian dioena:

Revolviendo este verano (agosto de 1922) los manuscritos de Humboldt, en la Biblioteca Nacional de Berlín, me encontré, entre otras curiosidades, con esta canción. Humboldt encabeza el poema con estas palabras de su puño y letra: *Lieder deren sich der 81 jährige Harambillet in Itsasou aus seiner Jügend erinnerte. Aus der zeit der Maurer Herrschaft, also sehr alt. Im ersten Vers redet der Dichter; die anderen sind die Antwort des Mädchens*. Canciones de las cuales se acordaba desde su juventud el octogenario Harambillet, en Itsasu, del tiempo de la dominación de los moros, de consiguiente muy antiguas. En el primer verso habla el poeta; los otros son respuesta de la muchacha.

I. Andre Emili, andre gora,
orai ez arto-jorra,
oguiric orra ain guti:
zoaz Mairu herrin gora.

II. Saldu nintzen dirutan
asco sari handitan
ehun pizu dirutan ta
berrehun dupa eztitan.

III, Aita nuen saltzaile
ama diru hartzaile,
anayaric chipiena
mairutaric kentzaile.

TRADUCCIÓN: I.–Señora Emilia, encumbrada señora, ahora no rastrilles el maizal, ni menos amases el pan: ve a tierra de moros arriba.

II. –Me vendí en dineros, en un precio muy elevado: cien pesos en dinero y doscientos toneles de miel.

III.–Mi padre era el vendedor, madre la que cobraba el dinero, el hermano menor el que libraba de los moros.

Azkueren pasarte honetako lehen esaldian Berlinen egindako aurkikuntzaren berri ematen du. Aleman edo doitxeraz jartzen duen testua Humboldten eskutikakoa da eta ondorengo erdarazko testua Humboldten testuaren erdararako Azkueren itzulpena. Itzulpen honetan hustxo bat aurkitzen dugu: *Im*

ersten Vers hori Azkuek “En el primer verso” itzultzen du, “En la primera estrofa” egin beharrean. Azkuek *Euskera* aldizkarian egingo duen artikuluko itzulpenean, ordea, ondo itzuliko du: En la primera estrofa.

Gure baladaren transkripzioaren bigarren aldia handik hiru urtera 1925. urteko *Euskera* aldizkariko “Curiosos documentos copiados en la biblioteca imperial de Berlín, de los manuscritos de Guillermo Humboldt, a 5 de agosto de 1922”. Artikulu honen hirugarren atalean honelaxe dio Azkuek:

> Así titula Humboldt unas canciones que aprendió de aquel noble anciano y candoroso etimologista sacerdote Harrambillet, cura de Itsasu. *Lieder deren sich der 81 jährige Harambillet in Itsasou aus seiner Jügend erinnerte. Aus der zeit der Maurer Herrschaft, also sehr alt. Im ersten Vers redet der Dichter; die anderen sind die Antwort des Mädchens*. Canciones de las cuales se acordaba de su juventud el anciano Harambillet de 81 años de Itsasu. Son del tiempo de los moros, de consiguiente muy viejos. En la primera estrofa habla el poeta; las otras son respuesta de la muchacha.
>
> I. Andre Emili, andre gora
> orai ez arto-jorra
> oguiric orra hain guti:
> zoaz Mairu herrin gora.
>
> II. Saldu nintzen dirutan
> asco sari handitan,
> ehun pizu dirutan ta
> berrehun dupa eztitan.
>
> III, Aita nuen saltzaile,
> ama diru hartzaile,
> anayaric chipiena
> Mairutaric kentzaile.
>
> Esta misma canción aprendí yo en Etxalar, con alguna variante, ciento y pico de años más tarde que Humboldt en Itsasu. Puede consultarse en mi cancionero popular vasco, edición manual, página 471.

Bi transkripzio hauen artean ortografia eta puntuazio aldaera txikiak daude bakarrik. Ortografia konturik aipagarriena lehen transkripzioan *ain guti* dator eta bigarrenean *hain guti*.

5. HUMBOLDT: JATORRIZKO TESTUAREN GURE TRANSKRIPZIOA

Guk jatorrizko Humboldten eskuidatzia ikusteko modua izan dugu Humboldten funtsa digitalizatu ondoren orain Azkue Biblioteka eta artxiboan kontsultagai baitago. Guri dagokigun dokumentua HUM-5166-56_57 signaturan ikus daiteke[1]. Guri dagokigun orrialdeetan hiru hizkuntza ikus litezke. Sarrera alemanez Humboldten esku letraz, balada euskaraz eta baladaren eskuinean frantsesezko itzulpena. Alemanez dagoen sarrera eta frantsesezko testua Humboldten eskutikakoak dira eta euskal baladaren transkripzioa beste esku batena. Humboldten esku letra ulertzen zail da, batez ere frantsesezko baladaren itzulpena. Euskarazko testua letra garbi eta arazorik gabekoa da. Uste izatekoa da euskarazko testuaren transkripzioa Harambillet itsasuarrarena izango dela. Hona euskarazko gure transkripzioa.

Andre Emili, andre gora,
Orai ez arto-jorra,
Oguiric orra hain guti,
Zoaz Mairu herrin gora.

[1] Humboldten hondo edo funtsa bederatzi multzotan banatua dago. Gure bi orrialdeek 341 eta 342 zenbakiak dituzte. Erreferentzia nagusia, ordea, HUM-5166-56_57 dugu.

Saldu nintzen dirutan
Asco sari handitan,
Ehun pizu dirutan ta
Berrehun dupa eztitan.

Aita nuen salzaile
Ama diru hartzaile,
Anayaric chipiena
Mairutaric kentzaile.

Horra, beraz, gure transkripzio zuzena, inolako arazorik sortzen ez duena. Merezi du, hala ere, ahapaldiz ahapaldikako iruzkin bat egitea transkribatzaileak izan dituen zalantzak garbiago jartzeko.


Französischen, Deutschen, Englischen,
Italiänischen.

241.

Lieder deren sich der 78jährige Harambillet in
Itzatzu aus seiner Jugend erinnerte.

1.

Aus der Zeit der Maurenherrschaft
also sehr alt. Im 1. Vers redet die Dichter,
die andern sind die Antwort der Mädchen.

Andre Emili, andre gora,
Orai ez arto-jorra,
Oguiric orra kainguti,
Joaz Mairu herrin gora.

Dame Emilie, dame élevée,
Aujourd'hui pas de cueillir le blé d'Inde,
Ni aussi peu de pétrir le pain.
Allez vous en à la hauteur au Pays des Maures.

Saldu nintzen dirutan
Asco sarri handitan,
Ehun pizu dirutan ta
Berrehun dupa eztitan.

J'ai été vendue pour de l'argent
Pour un prix assez considérable,
Pour cent pesos d'argent et
Deux cents livres de miel.

Aita nuen salzaile,
Ama diru hartzaile,
Anayaric chipiena
Mairutaric kentzaile.

J'ai eu non pour parrain un vendeur,
Ma mère pour marraine de l'argent,
Mon frère le plus jeune
Fut enlevé par les Maures.

2.

Lied eines Mädchens an ihren Geliebten,
der sie verläßt. Er wurde nur diese eine Strophe.

Beti bihar, beti bihar,
Esnuzuja icusi behar,
Ene zainac eguin dira
Galhar idorra becen ihar.

Toujours demain, toujours demain,
Ne devez vous jamais me voir.
Mes parents vont donner
Ses oreilles des brins d'herbe.
Ajoi, frappé partout à Bayonne.

3.

Zil-zilla nago
Mutua bezala.

Andre Emili: Humboldt eta Harambilleten testu autografoak.

6. HARAMBILLET: APEZAREN TRANSKRIPZIOAREN IRUZKINAK

Gure atal honetan, beraz, euskarazko transkribatzaileak egindako transkripzioa iruzkinduko dugu. Transkribatzailea Humboldt ez dela argi baino argiago dago beste letra molde garbiagoa eta guztiz desberdina agertzen duelako. Hona ahapaldiz ahapaldi iruzkina.

Andre Emili, andre gora,
Orai ez arto-jorra,
Oguiric orra hain guti,
Zoaz Mairu herrin gora.

Lehen ahapaldi honetan, lehen idazkeran *Andre Mili* idatzi du ondoan koma bat duela. Gerora *Mili* ezabatu eta *Andre Emili* idatzi du. Zer gertatu ote da? Gure ustez, Andre Emili ahoskatzeko orduan, *Andremili* egingo zen azken *–e* eta hasierako *–e* bat egiten dutela. Kontu hau Oihenarten testuan ere ikusten dugu, *Andr'Emili* transkribatzen baitu. Ahapaldi honetan bertan, transkribatzaileak *hain guti* transkribatu duenean marra bat jarri du bi hitzen artean *hain/guti*. Azkuek egindako bi transkripzioetan, beraz, bigarrena dago ondo. Argi baino argiago dago, bestalde, *Mairu herrin gora* idazten duela.

Saldu nintzen dirutan
Asco sari handitan,
Ehun pizu dirutan ta
Berrehun dupa eztitan.

Bigarren ahapaldi honetan ere bada zer iruzkindu. Lehen idazketan transkribatzaileak *sarri* idatzi du eta gero bigarren –r– ezabatu ondoren *sari* gelditzen da. Pentsatzekoa da aurreko ahapaldian *orra(tu)* aditza jarri duenez gero *ora(tu)* beharrean, dardarkariaren arazoa garai hartan era bazela. Gainerako hitzetan *diru*, *gora* hitzetan, esaterako, ez da dardarkarien arazoa azaltzen. Era berean, lehen transkripzioan *Brrehun* idatzi du eta *B–* eta *–rr* artean marra bat eginez *Berrehun* gelditzen da.

Aita nuen salzaile
Ama diru hartzaile,
Anayaric chipiena
Mairutaric kentzaile.

Hirugarren ahapaldi honetan *salzaile* dator jatorrizko transkripzioan. Azkuek bere bi transkripzioetan *saltzaile* jarri zuen. Jatorrizko testuaren transkribatzaileak *chipirena* jarri zuen lehen transkripzioan eta gero bokal arteko –r– ezabatu ondoren *chipiena*.

Frantseseko testuari gagozkiola, arazo bat baino gehiago izan ditugu transkripzioan.

Dame Emilie, dame élevée,
N'as plus (envie) de sarcler le blé d'Inde
Ni aussi pas de pétrir le pain
Va-t-en/ Allez vous en là-haut au Pais de Maures

J'ai été vendue par de l'argent
Par un prix assez invidiable
Par cent poids d'argent et
Deux cens tonneaux de miel

J'ai eu mon père par vendeur
Ma mère par preneuse de l'argent
Mon frere le plus jeune
Par enleveur des Maures

Ohartzekoa da Oihenarten XVII. mendeko testutik XIX. mende hasierakora zein aldaketa gutxi dauden. Honela laburbiltzen du Mitxelena maisuak (Mitxelena: 1971) Oihenart, Humboldt eta Azkuek bildutako testuen arteko antzekotasun eta bateratasunez:

Lo que acabo de señalar –aunque, vuelvo a insistir, acaso haya señalado ya algún otro– no se sabe muy bien si hay que imputarlo a pérdida o ganancia. Es cierto que un texto de la tradición oral del XVII, que teníamos por una adición a nuestros materiales, ha resultado ser conocido. Pero, por otra parte, se ha podido demostrar, y esta vez por testimonio fechado, no por simple conjetura, la conservación de elementos antiguos en la memoria popular: antiguo no significa, evidentemente, antiquísimo, ni la simple mención de la Morería tiene el valor probativo que Humboldt, con alguna ingenuidad o inexperiencia, le quería asignar. Ahora bien, en el mismo terreno de la historia de la lengua, no carece de interés el hecho de que la lección *Mairu herrin,* no *herrian*, con su flexión indeterminada aparezca ahora sancionada por Oihenart, ya que de otro modo se hubiera podido atribuir a una contracción reciente. Además, junto a la conservación global, podemos apreciar la variación de los detalles entre tres versiones recogidas, en números redondos, a mediados del XVII, en 1800 (muy próximas ambas entre sí) y en 1920.

Hitz laburretan eta maisu-hitzetan laburbilduak daude hiru ereduen ezaugarri nagusiak.

7. AZKUEREN C EREDU ARGITARATUA

Andre Emili baladaren hirugarren testigantza Azkuek Etxalarren, Nafarroan, bildutako eredua da. Eredu hori *Aita nuen saltzaile* izenburuarekin ezagutzen dugu. Balada bera Azkuek bi lekutan eman zuen argitara. Lehenengo *Cancionero Selecto* deitzen zuen kantutegian. *Cancionero Selecto* delako hau *Cancionero Popular del Pais Vasco; Canciones selectas armonizadas por el autor* delako lana da 1919koa. Eredu bera, bigarrenez, bere kantutegirik famatuenean argitara zuen *Cancionero popular vasco* izenekoan. Bigarren kantutegi honetako bosgarren liburukian "Endechas y elegias sailean" aurkitzen dugu gure balada 375 kanta-zenbakian. Honelaxe dator:

1. Aita nuen saltzaile,
   ama diruen artzaile;
   nere anaia Bernardo
   moru-eſira entregatzaile.

2. Saldu nenduen dirutan,
   dirutan ere aunitzetan;
   neunek pisaala uſretan
   eztitako bi kupeletan.

3. Neure alaba Miaſez
   ¿zer dun oſela nigaſez?
   ire yauntziak eginik tziauden
   uſregoſiz eta zilaſez.

Hiru ahapaldi hauek lehenago *Cancionero Selecto* delakoan argitara eman zituenean, lehen ahapaldiko *entregatzaile* jarri beharrean *esku-emaile* jartzen du. Era berean, *pisa ala* jarri beharrean, *pisa* jartzen du kantutegi berean.

Kantutegi nagusian, ordea, hiru ahapaldiko balada-testuari bi ohar nagusi eransten dizkio Azkuek. Lehena bigarren ahapaldiari dagokio eta *eztitako bi kupeletan* transkribatu badu ere, berriemaileak edo kantariak *bi ezti-kupeletan* esan zuela dio. Bigarren oharra hirugarren ahapaldiari dagokio: *uŕegoŕiz eta zilaŕez* bukaera kantariak *uŕearekin zilaŕez* esan zuela dio Azkuek. Bi ohar hauek, kontu diferenteengatik harrigarri egiten zaizkigu. Bi ohar hauek euskararen morfologia bereziko bi kontu interesgarri ditugu. Lehena bete-betean ukitzen du Patxi Altunaren[2] artikulu batek eta bigarrena Joseba A. Lakarraren artikulu interesgarri bik.

Egiaz eta begiaz esan ote zuen kantariak *bi ezti-kupeletan*? Ez ote da esapide hau euskal morfologiaren legeen kontrakoa? Euskal morfologia legeen arabera *ezti-kupela* eta *kupela-eztia* guztiz desberdinak dira. Lehena "ontzia" da, eztitarako erabiltzen den "kupela" dugu lehena. Bigarrena ezti-neurria edo ezti-kopurua da, bi kupela eztiz beteak, alegia. Bigarrena "eztia", dugu, beraz. Hitz nagusiak letra larriz jarriko bagenitu, lehena *ezti-KUPELA* litzateke, bigarrena *kupela EZTIA*. Azkuek eskaintzen dituen bi ereduak (hots, *eztitako bi kupeletan* eta *bi ezti-kupeletan*), beraz, guztiz harrigarriak egiten zaizkigu. Harrigarriak bezain euskal morfologia legeen kontrakoak. Bi-bietan kupelek balio duten prezioan saltzen da Andre Emili. Gainerako ereduetan, ordea, ez dugu horrelakorik ikusten. Oihenartek bildu zuenean *laurogei/berrehun dupha eztitan* dator. Humboldtek Harambilleten ahotik jaso zuen ereduan ere *berrehun dupa eztitan* ikusten dugu. Manuel Lekuonaren ereduan ere berdin: *zazpi kantaro eztiyetan*. Eredu guzti-guztietan, Azkuek transkribatu zuenean izan ezik, *eztia* saltzen da. Azkuek, beraz, zuzen transkribatu ote zuen? Duda egiten dugu, berak dioen bezalaxe, *Bi ezti-kupeletan, dijo el cantor* hori bene-benetakoa izatea. Ez ote zen buruz ari Lekeitioko biltzaile handia? Jatorrizko eskuidatzietara jo ondoren besterik ikusi dugu: *bi kupela eztietan*.

Hiru ahapaldiko kantu horretan, ordea, ez da hori aldaketa bakarra. Jatorrizkoan *dirutan eta aunitzetan* ikusten dugu. Aditzei dagozkienez, nola izan liteke *nenduen*? Alderdi harrigarri bi egiten zaizkigu. Etxalarren *ninduten* askoz gisakoagoa eta normalagoa egiten zitzaigun. Bizkaiko adizki bat lerratu zitzaiola iruditzen zitzaigun. Lehenengo eta behin *nen-* delakoa harrigarria da eta harrigarria da, era berean, *–ten* bukaera. Zalantza hauek argitzeko Azkueren paperetara jo eta hurrengo puntuan zulatuko dugu misterioa.

8. *ANDRE EMILI* D EREDUA AZKUEREN PAPERETAKOA

Jatorrizko eskuidatzietara jo eta benetako eredua transkribatu nahi dugu atal honetan, beraz. Azkueren jatorrizko eskuidatziak Bilboko Euskaltzaindiko egoitza nagusian, Azkue Biblioteka eta Artxiboan dautza. Eskuidatzi hauen artean lehen transkripzioak eta gerora garbira botatakoak daude. Bestela esan lehen dokumentuak eta bigarrenak daude. Bi eskuidatzi horiek desberdinak dira, askotxotan. Ez dago dudarik lehen transkripzioak direla interesgarrienak. Lehen transkripzioan hizkuntzalariak ez ditu aurreiritziak jartzen. Lehen eskuidatzia kantariaren kantu bene-benetakoa da. Bigarren eskuidatzian,

[2] Patxi Altuna: "Leizarragaren zenbait izen sintagma" in *Euskera*, XXVIII (1983-2) 463-473 or. Hona guri dagokigun pasartea: "Diodan oinarri gisa, guztiok nik baino hobeki dakizuen arren, gaztelerazko eta hizkuntza gehiagotako, baita latinezko ere, esan moldeak biziki arriskugarri direla puntu honetan euskaraz adierazi nahi ditugunean. "Una botella de vino", alegia, ez da euskaraz beti modu berean esaten. Inork hori eskatzean *botila bera* nahi baldin badu, nahiz eta hutsa, hartan, esate baterako, tomate zukua sartu edo gorde nahi duelako, orduan euskaraz *ardo botila bat* eskatu behar du. Ostera, botila bera ez, baizik botilak hartzen duen adina *ardo* nahi badu edateko, orduan *botila bat ardo* eskatu edo esan behar du dudarik gabe eta hari bost axola zaio botilan eman beharrean, dendariak pitxarrean edo txarroan ematen badio. Lehen kasuan, *ardo botila* hitz konposatua litzateke; bigarrenean, aldiz, izen zenbakaitzezko kantitate perpausa genuke aurrean. Batari eta besteari dagozkion galderak ere ez dira euskaraz berdinak; lehen kasuan *nolako botila*? galdetu behar lioke bezeroari ongi entzun ez duen dendari gorrak; bigarrenean, aldiz, *zenbat ardo*?

garbira botatakoa txukunduegia da askotan. Garbira botatakoan, askotan ez da egiazko kanta agertzen, Azkuek garbitua baino. Garbira bota edo txukundutakoak argitaratuaren tankera hartu ohi du. Azkueren eskuidatziak digitalizaturik kontsulta litezke aipatutako liburutegian. Josune Olabarri liburuzain prestuaren ahalegin eta jarrera onari zor diot eskuidatzien bilaketa.

Gure balada ABA-RMA-2-3-5 kuadernoan 1278 kanta eta 550. orrialdekoa dugu. Guk puntuazioa bakarrik erantsiko diogu, gainerakoa dena da lehen eskuidatzikoa.

Aita nuen saltzaile,
ama diruen artzaile;
nere anaya Bernardo
moru-errira entregatzaile.

Saldu nenduten dirutan,
dirutan eta aunitzetan
neunek pisa ala urretan,
bi kupela eztietan.

Lehen transkripzio honek baditu zenbait arazo txiki. Argi dago zein den transkripzioaren bigarren erabakia. Eman dezagun kasurako *moru-errira* hori bigarren idazketa bati dagokiola. Ez dugu argi *moru* gainean idatzi baino lehen azpian *mairu* jarri ote duen. Era berean, ez dakigu *neunek* horren azpian ez ote dagoen *neurek*. Azkuek, dudak alde batera uzteko, *neunek pisa ala urretan* garbi eta argi jarri du gainean.

Bi ahapaldi hauek honela agertzen dira lehen transkripzioan. Ohartzekoa da *errira* eta *urretan* transkribatzen duela Azkuek bere eskuidatzietan. Ez dago esan beharrik gerora *eŕira* eta *uŕetan* jarriko duela paper inprimatuan. Garbi dago, beraz, eskuidatzian *dirutan eta aunitzetan* eta *bi kupela eztietan* dela. Eskuidatziko *dirutan eta aunitzetan* hori aldatu egingo du Azkuek kantutegiko eredu argitaratuan: *dirutan ere aunitzetan*. Azkuek *eta* kopula *ere* batez aldatuko du. Guk lan honetan argitaratzen dugun Lafitteren ereduan ere antzeko zerbait ikusiko dugu: *saldu ninduzun dirutan/ dirua ere urretan*. Kasu honetan, folklorezalearen intuizioa zuzen zebilen. Guk geure aldetik, folklorezalearen intuizioa zuzen bazebilen ere, ez dugu ikusten ondo bere apetara aldaketa hau egitea.

Jatorrizko testuari gatxezkiola, badirudi *neunek pisa laurretan* transkribatu duela folklorezaleak, baina gerora modu garbiagoan, gorago esan dugun bezalaxe, *pisaala urretan* jartzen du. Lehen eredu hau (ABA-RMA-5-14-2-84 kanta 34. orrialdean) honela garbiratzen du Azkuek:

Aita nuen saltzaile,
ama diruen artzaile;
nere anaya Bernardo
moru-errira entregatzaile.

Saldu nenduen dirutan,
dirutan ere aunitzetan
neunek pisa ala urretan,
bi kupela eztietan.

Garbira emandako bigarren kuaderno honetan zuzenketa batzuk egiten ditu. Jatorrizko *dirutan eta aunitzetan* "dirutan ere aunitzetan" egiten du, baina *bi kupela eztietan*, ordea, ez du aldatzen. Froga argia dugu, beraz, *bi kupela eztietan* esan ziola kantariak Azkueri. Modu horretara euskal morfologia legeak gordetzen dira bete-betean[3]. Modu horretara, era berean, gainerako hiru ereduetako esapidearekin

[3] Ez dago dudarik *bi eztitako kupeletan* esapidea ondo dagoena. Ondo dago baina beste zerbait esaten da, hori da kontua. Eztitan saldu beharrean kupeletan saldu zela, alegia.

bat dator Azkuerena ere. Beste askotan bezala, herriko sena ez da okertzen dena, gramatiko eta eskolatuena baino.

Baladaren hirugarren ahapaldia ABA-RMA-5-144-18 orrialdean aurkitzen da. Hirugarren ahapaldi hau garbiratua edo garbira botatakoa da.

–Neure alaba Miarrez
zer dun horrela nigarrez?
Ire arropak eginik tziauden
urrearekin zilar[r]ez.

Ahapaldi honetan garbi ikusten dugu *arropak* hitzak eta ez Azkuek argitara eman zuen *yauntziak*. Ahapaldi honetan *neure* posesiboa agertzen bada, nola izan liteke lehen ahapaldian *nere* agertzea? Hirugarren ahapaldi honetan, era berean, *urrearekin zila[r]ez* egitura zaharra agertzen da. Egitura honetan *X-ekin/-egaz, Y* egitura zaharra ikusten dugu. Egitura hau balada batean baino gehiagotan agertzen da eta euskararen egitura zahar bat dugu[4].

Ez dugu, beraz, inolako dudarik Azkueren aldaera transkribatzeko orduan. Jatorrizko testua oinarritzat harturik, eta folklorezalearen apetak eta garbizalekeriak alde batera utzirik, testua askoz eder eta jatorragoa ateratzen dela deritzagu. Honelaxe transkribatuko genuke, beraz, jatorrizko testua:

Aita nuen saltzaile,
ama diruen artzaile;
nere anaia Bernardo
moru-errira entregatzaile.

Saldu nenduten dirutan,
dirutan eta aunitzetan:
neunek pisa ala urretan,
bi kupela eztietan.

–Neure alaba Miarrez,
zer dun horrela nigarrez?
Ire arropak eginik tziauden
urrearekin zilar[r]ez.



ABA-RMA-002-0003-005

[4] Joseba Andoni Lakarraren bi artikulu baditugu honen gainean. Lehena “Oharrak zenbait arkaismoz” in ASJU XVII, 1983, 43-68. or. eta “Vida con/y libertad: sobre una coordinación arcaica y la autenticidad de “Urthubiako Alhaba” in ASJU, XLII-1, 2008, 83-100. or.



ABA-RMA-001-0002-002

Testu honetan, beraz, Azkueren bost zuzenketa handi-handiak alde batera utzi eta benetako eredua eskaintzen dugu. Jatorrizko *nenduten* (ez ote dugu *ninduten* jarri behar?) *dirutan eta aunitzetan*, *bi kupela eztietan*, *arropak* eta *urrearekin zilarrez* jarri ditugu.

Azkueren ereduko azken ahapaldia ez dugu Oihenart ez Humboldten ereduetan aurkitu. Azken ahapaldi honetako *Neure alaba Miarrez ¿zer dun horrela nigarrez* sarrera hori bestetan ere ikusi dugu. Aita Aranaren paperetan herri kanta batean *Nere viotzeco Pierres/ cer dezu beti negarrez* sarrera duen herri kanta bat aurkitzen da. Kanta hau, guk dakigula, ez dago inon argitaratua. Kanta honen berri Antonio Zavalaren funtsean aurkitu dugu "Canciones del siglo XVIII" deitzen den karpeta batean. Kantaren izenburua *Senar emazte nolabaiteko* (1790) da. Hona berak transkribatzen duen moduan:

Nere viotzeco Pierres
cer dezu beti negarrez
aste onetan ezin vizinaiz
ceurequin beti aserrez.

Neure emaste Maria
erraten dizut eguia
ebadearequin iz eguitenbaden
ausico dizut buruia.

Gure auzoco Abadea
galanta da ta noblea
nic aueganican egin neuan (nic arganican aguinduneban)
lendavicico umea.

Bigarrena ceuganic (ceugadenic)
saude igilic tristea
coitacu orrec azi bearcodec
bada becela bestea (bata)

Eguingo dizut soñean
andre onaren leguean
tabernaraco emango dizut
ucinaguizu paquean.

Neure emaste zavala
Jaincoac paga zaizala
Abadeari ezango dion
gorainci asco devala.

Kanta hau oin-ohar batekin dator:

De la biblioteca de Loyola papeles del P. Arana la misma ortografía que la de los papeles. Después de cada estrofa un signo especial, seguramente llamada a estribillo. Ez dugu gaurko ortografiara ekarri kantu hau, hitz guztiak baitira ulergarri.

Badira, nola ez, kontu harrigarri askotxo. Bigarren ahapaldian *erraten* dator eta azkenengo ahapaldian *esango*. Lehenengo ahapaldian *nere* ikusten dugu, azkenean *neure.* Guk, ordea, kanta honetan kanta hasierako Nere viotzeco Pierres/ cer dezu beti negarrez hasierari erreparatu nahi izan diogu.

9. URDIAINGO E EREDUA

Eredu honek badu zer iruzkindu. Eredu honen bi dokumentu daude. Bata, Manuel Lekuonaren eskuetan zegoena eta aita Zavalari eman ziona. Eta bestea Aitzolen funtsekoa.

Eredu hau lehen aldiz *Euskal baladak* laneko taldeak eman zuen argitara. Ez zuten, ordea, bere osotasunean argitaratu, aldaketatxo txiki batzuk ere izan zituen. Honelaxe dator, bigarren liburuan, 69. or.:

Ama, alaba saltzailia
aita diruen artzailia.
Moro errira saldu omen dute
diruangaiti alabia.
Dirutan da gauza guztitan
zazpi kantaro eztietan
dirutan da gauza guztitan
zazpi kantaro eztietan.

Aurra egizak lo ta lo
moruak loak artzeraño.
Moruak loak artu ezkeroz
naiz izak eta naiz ago.
Nere anaia Don Fernando
atarietan or dago,
Zaldiari're kontra botata
sarri gerade joango

Bi ahapaldi balira bezala tolestua dago gure balada. Badira gero ikusiko dugun jatorrizko testutik zenbait aldaketa ere. Jatorrizkoan *emen*, transkripzioan *omen*, eta abar. A. Zavalak dioenez, lehen argitarapen honetan laugarren bertsoa falta dute, hau da, bost laukoetatik laugarren laukoa. Balada honen gainean laburpen eta iruzkin interesgarriak eskaintzen dituzte. Hona, 71. or. datorrena:

> Baladaren istorioa hitz gutxitan labur daiteke; bere senideek mairuei saldu eta hauetarik neba txikiak askatzen duen neska baten kondaira dugu berau. Testuaren egitura eta hizkuntzari dagokionez formula tradizionalak hain dira ugari non balada osoa berridatzi beharko genukeen haiek hona aldatzekotan; marka bitez dena den, Humboldten aldaerako lehendabiziko lerroko eta hirugarren ahapaldiko paralelismoak edota bigarreneko pilaketak eta zenbakiekin (ehun/berrehun) egin jokoak. (…)
>
> Interesgarria izan daiteke *Andre Emilia* eta *Atarratze Jauregian* gonbaratzea. Biak dira gaur egun elaberri baladak eta biek dute euskal tradizioan gaiek batez beste ohi duten baino geografi hedadura zabalagoa ere. Honen zergatia ziur asko zera izan daiteke, euskaldunek gai horiek historikotzat baino arketipo unibertsal batzuen ordezkotzat jo dituztela gehiago, honela historikoei atxikitzen zaizkien geografi muga hertsietarik askatzen direlarik. *Atharratze Jauregian*en kasuan mantentzen dira oraindik bere erreferente historiko zaharra, urrutitik baino ez bada ere, antzematea posibleztatzen duten xehetasunak eta nahiko argi dago bere elaberritasuna ez dela etorkizkoa baina denborarekin betetako prozesu bat.
>
> Lazkaoko aldaera horretan zenbait pasarte ilun (12. eta azken bi lerroak) eta alaba mairuetara saltzen dutela progotxatuz baladari eransten zaion mairuak aipatzen dituen sehaska batez kanpo, beste aldaeretan falta den azken ahapaldi interesgarri bat dugu. Izan ere, ahapaldi horretan aipatzen den Don Fernando izan daiteke zaldiz arreba mairuetarik erreskatatzen duen anaia txikia. Hau honela balitz pentsa dezakegu *Atarratze*

*Jauregian*ek eta gai honek beren sorreratik gerorantz izan duten hedadurak zentzua guztiz kontrakoak izan direla. Hura Zuberoan jaio eta Baxenafar, Lapurdi eta Nafarroa Garaian zabaldu zen bitartean, *Andre Emilia*ren zabalkundea mendebaldetik ekialderantz izan da: Nafarroan (Oihenartek "Chanson navarraise" deitzen du) eta mendebalderago jaio eta Gipuzkoan eta Lapurdin (gutxienez) ezaguna izatera heldu da.

Gure ustez gaizki ulertu batetik ere etor litezke hemen esaten diren zenbait kontu. *Euskal Baladak* taldekoek Juan Mari Lekuonak bialdutako eredua zuten. Ez zuten, itxurak direnez, testu originalaren fotokopiarik. Manuel Lekuonaren eskuidatzian baladaren buruan edo gainean *Lazcano* dator eta azpian *Gorrotxategi'tar E*. Gainerako zehaztasunik ez dator.

Aitzolen funtsean agertzen denez, ordea, Lazkaoko Gorrotxategik bere amari bildu zion eta ama Nafarroakoa, Urdiaingoa, zuen. Ez dugu, beraz, Andre Emiliren baladako jatorriz Gipuzkoakoa den eredurik ezagutzen. Atal honetan frogatzen ahaleginduko garenez, Antonio Zavalak ere ez zuen guztiz ondo transkribatu testua. Hona A. Zavalaren transkripzioa eta oharrak:

Ama alaba-saltzaillia
aita diruen artzallia,
moro-errira saldu emen dute
diruangaiti alaba.

Dirutan da gauza guztitan
zazpi kantaro eztiyetan.
Dirutan ta gauza guztitan:
zazpi kantaro eztiyetan.

–Aurra, egizak lo ta lo,
morua loak artzeraño;
morua loak artu ezkeroz
naiz izak eta naiz ago

–Chica ¿qué dices? ¿Qué dices?
–Zer qué dices, qué dices?
Gure errian aur txikiari
olaxe kantatzen zaiek.

Nere anaia don Fernando
atarietan or dago.
Zaldiari're kontra botata
sarri gerade juango.

Manuel Lekuona apaiz jaunaren bildumatik, eskuz idatzitako orri batetik. Bialtzaillearen izena ere badu: Gorrotxategi'tar E. Baita erria ere: Lazcano.

Jose Ariztimuño Aitzol apaiz jauna zanaren bilduman ere aurkitu degu kanta au, Lazkaoko Gorrotxategi'tar Eulojik bialdua. Eta bertsoak batere aldaketarik gabe. Iturri bera, beraz. Baia oar jakingarri au ere badu: "Nere ama (g. b.) zanari ikasiak Nabarra'ko Urdiainen".

J. Lakarra, K. Biguri eta B. Urgell: Euskal Baladak, II tomoan, 69. orrialdean. J. M. Lekuonak bialduta eta laugarren bertsoa falta dutela.

Behin honetaraz gero, jarri dezagun Manuel Lekuonaren funtsean fidelki transkribaturik Eulogio Gorrotxategiren eskuidatzia.

Lazcano

Ama alaba saltzaĺia
aita diruen aŕtzaĺia

moro eŕira saldu emendute
diruan gaiti alabia
Dirutan eta gauza guztitan
zazpi kantaro eztiyetan
dirutan da gauza guztitan
zazpi kantaro eztiyetan
Auŕa egizak lo ta lo
moruak loak aŕtzeraño
moruak loak aŕtu ezkeroz
naiz izak eta naiz ago.
Txika que dices que dices
zeŕ ke dize ta zeŕ medize
gure eŕian auŕ txikiairi
olaxe kantatzen zaiek
Nere anaia don Fernando
atarietan oŕ dago
zaldiarire kontra botata
sari gerade juango[5].

Andre Emiliren testu honen eskuinaldean biltzailearen firma dator: Goŕotxategi-taŕ E.



Manuel Lekuonaren dokumentua.

[5] Jatorrizko dokumentuaren neurriak hauexek dira: altuera 210 milimetro, zabalera 218 milimetro.

Colamus carmina nostra bildumako eredua apurren bat desberdina da:

<Au ere amari ikasia>

Aita alaba saltzailia
ama diruen aŕtzailia
moro eŕira saldu emendute
diruan gaiti alabia

Dirutan da gauza guztitan
zazpi kantaro eztietan
dirutan da gauza guztitan
zazpi kantaro eztietan

Auŕa egizak lo ta lo
moruak loak aŕtzeraindo
moruak loak aŕtu ezkeroz
naiz izak eta naiz ago.

Txika que dices que dices
zeŕ ke dize ta zeŕ medize
gure herrian auŕ txikiairi
olaxen kantatzen zayek



Colamus carmina nostra bildumako *Andre Emili* baladaren eskuizkribua.

10. URDIAINGO TESTUAREN IRUZKINA

Puntu honetan Gorrotxategik bere amari bildu zion testua gaurko erara jarri eta iruzkinduko dugu. Orain arte ez da inoiz Urdiaingo testua guztiz ondo transkribatu. Honelaxe jarriko genuke gaurko grafia-ortografietan:

1
Ama alaba-saltzallia,
aita diruen artzallia.
moro errira saldu emen dute
diruangaiti alabia.

2
Dirutan eta gauza guztitan,
zazpi kantaro eztiyetan;
dirutan da gauza guztitan,
zazpi kantaro eztiyetan.

3
Aurra egizak lo ta lo,
moruak loak artzeraño;
moruak loak artu ezkeroz
naiz izak eta naiz ago.

4
–Chica, ¿qué dices?¿ Qué dices?
–Zer *qué dice[s]* ta zer *medice[s]?*
gure errian aur txikiairi
olaxe kantatzen zaiek.

5
Nere anaia don Fernando
atarietan or dago.
Zaldiari [e]re kontra botata
sar[r]i gerade juango.

Orain arte neurri handi batean ez da ondo ez transkribatu ez ulertu Urdiaingo eredua. Laugarren ahapaldian datozen galderak, esaterako, honelaxe transkribatzen ditu A. Zavalak: *–Chica, ¿qué dices que dices?/ –*Zer *qué dices*, *qué dices*? Lehen galdera ondo transkribatua badago ere, bigarrena, inolako dudarik gabe, ez dago ondo transkribatua. Bigarren galdera horrek zentzu berezia du euskaraz. Euskaraz zerbait esaten denean ontzat hartzen ez bada edo errefusa erakutsi nahi bada, hitz bera errepikatzen da bi aldiz, eta bigarrenari hasieran m– eransten zaio. Eman dezagun *zer herritara joango gara?* galderari haserrea edo errefusa edo gaitzespen sentimentu bat erantsiz *zer herri ta zer merri?* erantzuten dela. Berdin gertatzen da Urdiaingo ereduan puntu honetan frogatuko dugunez.

Urdiaingo ereduak, bestalde, azken bi edo hiru ahapaldiak ez ditu bereak, beste kantu baten kontaminazioz txertatuak dira. Beste kantu hori, gainera, Urdiainen bertan kantatzen zen kantua da. Eman dezagun, kasurako, Azkuek Urdiainen Maria Martina Goikoetxeari bildu zion *Gure aurraren aur ona* kantua:

1
Gure aurraren aur ona,
nork eman deran toto bi?
Aitak bat eta amak bi,
san Martingoak amabi.

2
Neure anaya don Perrando
atai(atari) orretan balego,
zaldia kontra ferratu (y) eta,
sarri nintzake joango.

3
Chica qué dice, qué dice
¿Zer qué dice ta merice?
Gure errian aur txikiei
olaśe kantatzen zaye.


GURE AURRAREN AUR ONA (3-5,573-III)
1363 bi) 2º Neure anaya don Perrando atai(atari) orretan balego, zaldia kontra ferratu (y)eta, sarri nintzake joango — 3º Chica qué dice, qué dice — Zer qué dice ta merice? — gure errian aur txikiei olaśe kantatzen zaye.

ABA-RMA-002-0003-005

Puntu honetara ekarri dudan eredua Azkueren bi dokumentutan jasoa dago. Bi ahapaldiak ABA-RMA-002-0003-005 signatura duen dokumentuan jasoak daude.

Urdiaingo baladari txertatu zaizkion azken bi ahapaldiak askoz ulergarriagoak dira. *zaldiarire kontra botata* segmentu ulerkaitzak, beraz, *zaldia kontra ferratu (y) eta* esan nahi du. *Zaldia kontra ferratu* ezinezko kontu bat da, inolako dudarik gabe. Zaldiari ferrak kontrara jartzea esan nahi du. Baldin ferratzaileak zaldiari ferrak kontrara josiko balizkio, segika doazenak ez lukete asmatuko zein den zaldiak hartu duen noranzkoa. Modu horretara ihes egitea kontakizun askotan ematen da. Aita Donostiak, esaterako, Urtsuako balada ereduak bildu zituenean Urtsuako jaunak bere emazte berria hil zuenean ihes egin zuela kontatu zioten mandoari ferrak kontrara jarrita (A. Donostia: 1953).

> Dícese también que, después de matar a su mujer, tomó el de Ursúa el macho o mulo en Icazatea (venta), lo herraron allí, poniéndole las herraduras al revés (sin duda para despistar a los que quisieran seguirle).

Zaldiari ferrak kontrara jarrita ihes egitea, beraz, Euskal Herriko testigantzetan beretan leku batean baino gehiagotan dator.

11. LAFITTEREN LEHEN DOKUMENTUAREN TRANSKRIPZIOA

Orrialde bakar batean dago transkribaturik. Letra aldetik ez du transkripzio arazorik. Hona hemen dokumentuaren transkripzioa:

Ceci n'est pas de ma famille
j'ai toujours etée curieuse ou ca se
passait peut etre dans la Soule
———

Oi Larrondo
Oi Larrondo
Balinbazinu alaba eder ongizko
Mairu herrira zaltzeko
zaldu ninduzun dirutan
Dirua ere urhetan
Pissu nuen bezenbat urhetan
eta zilhar espata batetan

Oi Larrondo
Oi Larrondo
chanté sur un joli air de cor de chasse
un peu triste

Respectueuses salutations
Une vieille bascophile
M T L

Eskubiko aldean *Mairuyak c'etait les moures* zehaztasuna dator.



Andre Emili balada. Lafitteren funtsekoa.

12. LAFITTEREN F EREDUA BI AHAPALDITAN

Lafitteren aldaerak ohar harrigarri samar bat du. *Chanté sur un joli air de cor de chasse un peu triste* horrek zer esan nahi ote du? Baliteke bere doinutik aldatua izatea kantua. Diogunaren arrazoi garbiena da bere neurri naturaletik aldatuta egotea. Puntu honetan bertan ikusiko dugunez, ez zaizkigu koplaren silabak ondo ateratzen. Baliteke, modu horretara, errezitatu gisako zerbait izatea berriemaileak adierazi nahi zuen doinua. Puntu honetan zer dagoen soberan aztertzen saiatuko gara. Puntu hau, beraz, baladaren jatorrizko bi ahapaldi finkatzeko saio bat izango da. Guk puntu honetan saio bat egiteak ez du esan nahi nahitaez hala gelditzen dela Lafitteri eskutitz bidez bidali zioten balada.

Puntu honetan, era berean, balada gaurko grafiara ekartzen saiatuko gara. Horretan hasi baino lehen egin dezagun funtsezko galdera bat. Nongoa ote dugu testua? Emakume transkribatzaileak *Soule*, hots, "Zuberoa" aipatzen du, baina ez dirudi Zuberoakoa dugunik. Zuberoa emakume transkribatzailearen lurraldea da, itxurak direnez. Zuberoako euskaran balego *diru* baten lekuan *diharü* ikusiko genuke *ongizko*/*ongisko* forma ez genuke, *ninduzun* baten lekuan *nündüzün* izango genuke. Balada honetako lekukotasun gehienak nafarrak dira bat izan ezik. Humboldtek Harambileten ahotik bildutakoa Itsasukoa, Lapurdikoa da. Gure eredu honetako *ongizko* forma behin bakarrik dokumentatzen da euskara klasikoan *Jesus-Christo gure Jaunaren Testament berria. Lapurdico escuaralat itçulia* lanean, Baiona, 1828. Gure eredua, beraz, ez ote da Lapurdikoa?

Transkribatzeko orduan bi irizpide izan behar ditugu kontuan, euskara eredua, batetik, eta, kopla-lerroak nola lerrokatu, bestetik. Koplen egiturari gagozkiola, Oihenartek ematen digu argirik handiena bere *L'art poétique basque* lanean. Hona Lafitteren transkripzioaren puska bat:

> Le premier quatrain est de Uers feminins de huiet syllabes Et les autres deux sont de Uers glissans de sept syllabes Cette façon de rimer est enttile, det lUsage en doit estre eonserué.

Oihenarten pasarte eder honek emango digu Lafitteren aldaera tolesteko bidea. Hartara gure bigarren ahapaldia nola tolestu behar dugun argitzen digu. Ez dago dudarik 8A/ 8A/ 10-/8A eredua dugula. Guk bigarren ahapaldia honela tolestuko genuke, beraz:

Saldu ninduzun dirutan,
dirua ere urhetan;
pisu bezenbat urhetan eta
zilhar ezpata batetan.

Oihenart zuberotarrak Zuberoakoa ez zen kantu bat transkribatu zuen, *nauarroise*, hots, nafarra edo nafartarra. Ez dugu dudarik egin, era berean, kopula delakoa hirugarren kopla-lerroan jarri behar dugula. Halaxe agertzen da Oihenarten ereduko bigarren ahapaldian ere. Hirugarren ahapaldiak hamar silaba izateko *nuen* laguntzailea soberan dugu. Bide horretatik jokaturik lehenengo ahapaldia honelaxe egingo genuke:

Oi Larrondo, Oi Larrondo,
al(h)aba eder ongisko;
balin bazindu alaba eder
mairu herrira saltzeko.

Lehen ahapaldi honetan kontuak ez daude aurrekoan bezain argi. Bigarren ahapaldia transkribatzeko orduan, *nuen* aditza kendurik ondo ateratzen zitzaizkigun kontuak. Oraingoan ordena aldatu beharra izan dugu. Bestela esan, ditugun hitzekin 8A/8A/10-/8A eratzen ibili gara. Baliteke batentzat baino gehiagorentzat gehiegitxo aldatu izana, baina bigarren ahapaldiak bidea emanik halaxe tolestera behartuak egon gara.

Grafiari gagozkiola ez dugu dudarik izan, *zaltzeko*, *Pissu* eta *espata* direlakoak *saltzeko*, *pisu* eta *ezpata* bihurtzeko. Era berean, *zilhar* eta *urhe* horiek alaba *al(h)aba* egitera bultzatu naute.

Oi Larrondo, oi Larrondo,
al(h)aba eder ongizko;
balin bazindu al(h)aba eder
mairu herrira saltzeko.

Saldu ninduzun dirutan,
dirua ere urhetan;
pisu bezenbat urhetan eta
zilhar ezpata batetan.

Oi Larrondo, oi Larrondo

Horra, beraz, gure baladaren transkripzio saioa. Gure eredu honek, bere laburrean, hainbat misterio eskaintzen ditu. Zer edo nor ote da *Larrondo*? Aurrekoetan ditugun aditz-pertsonak ez dira gurean agertzen; *saldu ninduten* edo *saldu nintzen* aditzak ikusi beharrean *saldu ninduzun* agertzen da. Subjektua, beraz, beste bat da, *baldin bazindu* horretan agertzen den bera.

Oraingo eredu honetan, bestalde, beste inon agertzen ez den elementu baliotsu bat daukagu: *zilhar ezpata batetan*. Objektu edo gauza baliotsu hori beste ereduetako *laurogei/berrehun dupha eztitan* edo *berrehun dupa eztitan* edo *bi kupel eztietan* edo *zazpi kantaro eztiyetan* horien lekuan dago.

4
APEZ BELTZA BALADA

1. SARRERA

Kantu misteriotsu bezain harrigarri bat baldin badago euskal kantutegian *Apez beltza*ren kantua da. Eder bezain ulergaitz ere egiten da kantuaren haria. Eta ulergaitz bezain odolgiroa ere badela esango genuke. Kantu honetan apez beltz baten heriotza lehen pertsonan ematen da, batetik, eta hiltzailearen heriotza urkamendian iragartzen da, bestetik. Bien bitarteko zertzeladak, pertsonaiak eta abarrak ilunxko gelditzen dira. Kantu honen aldaera gehienak Baxenabarrekoak dira, Baxenabarre delako, itxura guztien arabera, kantuaren gertalekua. Lehen testigantza inprimatua Francisque Michelen *Le Pays Basque* (Paris 1857) liburuan agertzen da. Kanta honen orain arteko aldaera guztiak zein bibliografia ikusi nahi dituenak jo beza Antonio Zavalaren *Euskal erromantzeak/ Romancero vasco* liburura[1]. Gure atal honetako gunea edo ariera nagusia lehen dokumentuak transkribatu eta iruzkintzea da. Lehen eredua Chahoren kantutegikoa da. Bigarrena Mañarian (Bizkaia) batua da, baina orain arte osorik argitara gabea. Arxüren eta Dassanceren ereduak ere transkribatuko ditugu. Azkuek bere kantutegian Mañariko lehen ahapaldia besterik ez zuen argitaratu. Gainerako bostak haren eskuidatzietan zeutzan argitara gabe. Aurrera baino lehen, atera dezagun orain auzi bat sarrera honetara. Zer da gure "Apez beltzaren k(h)antorea", tradiziozko balada bat edo balada arrunta? Gaztelaniazko terminologiako *romance vulgar* delakoa *Euskal baladak* liburu bien egileek *balada arrunt* bataiatu zuten euskaraz. Eta bateo egoki zein desegoki horretako deitura edo terminologia darabilgu hemen, guk ere. Bi sail horietako zein dugu gurea? Guk, egia esan, *tradiziozko baladaren* sailean hobeto ikusten dugu beste sailean baino. Horrek ez du esan nahi kontua zuria edo beltza nahitanahiez izan behar duenik. Ez du esan nahi, era berean, tradiziozko baladaren ezaugarriak batez ere ukan arren, *balada arrunten* ezaugarriak ez dituenik.

2. BALADAREN JATORRI, GERTALEKU ETA LEKU-IZENAK

Balada hau, *Bereterretxeren kantorea* edo Urtsuako balada, beste balada historiko batzuk bezalaxe, leku zehatz bati lotua dago. Guk atal honetan saio txiki bat egingo dugu leku izenen gainean.

[1] Hemendik aurrera *Euskal erromantzeak/ Romancero Vasco liburua* (ER) izendatuko dugu gure lanaren argigarri eta laburgarri. Liburu horretako balada bakoitzaren eredua markatzeko zenbaki erromatarrez baliatuko gara. Antonio Zavalaren liburuko bigarren eredua aipatzeko honelaxe egingo dugu (ER-II).

Heriotzaren gertalekua desberdina da batean eta bestean. Heriotzagilea ihesean doala ere aipatzen dira toponimo batzuk. Guk dakargun Agosti Chahoren aldaerako gertalekuak *Bidarrai* (I ahapaldia) eta *Sagardoi hegi* (V. ahapaldia) dira. Bi leku izen horietako bat Bidarrai ezaguna da; bestea, ordea, ez. Bidarrai Baxenabarreko mendebaldeko herrixka bat da, Lapurdirekin mugante.

Francisque Michelek 1857. urtean argitaratu zuen aldaeran[2], Baxenabarreko leku izen bi agertzen dira *Urkaraiko lepoa* eta *Ozta(ko) plaza.* Leku hauetako bat behintzat segurtatu dugu. Frantsesez *Hosta* dena, euskaraz *Ozta,* Baxenabarreko ekialdean dagoen herrixka bat da. Herri beraren izena, *Hortza*, apurren bat aldaturik, ikusten dugu L. Dassanceren aldaeran[3].

GH 1924 aldaeran *Harrixuriko gainean* hil zuela apez beltza dio[4]. Harrixuri delakoa, frantsesez *Harrichuri,* Zuberoako Arbaila oihanean, Baxenabarreko Mendibe herritik sarrera duen 1167 metroko mendia da. Gertalekua, beraz, balada honen arabera, Baxenabarreko ekialdea da.

Aldaera gehienak, beraz, Baxenabarrekoak diren arren, ulertzekoa da Chahorena zuberotarra izatea.

Mintza gaitezen orain hiltzaile eta laguntzaile direlakoez. Borthirigarai hiltzailea Or(t)zaizekoa da, aitari honelaxe esaten baitio: *–Ene aita zer berri da/ Ortzaizeko aldetik,/ Ortzaizeko aldetik eta/ gure etxe tristetik?*Ahapaldi honek, Chahoren aldaeran bakarrik agertzen den arren, badu beste ahapaldi bat argibide bera ematen duena: *Borthirigarai Orzaizeko,/ Borthiri Ezpeletako,/ hi Bordelen, ni Bayonan,/ zer bi gizonak galdüko!* Ahapaldi honen gainean esan dezagun hiltzailea bera Ortzaizekoa bada baxenabartarra dela. *Ossès* frantsesez, euskarazko *Or(t)zaize* da eta Baxenabarre erditsuan dago. Bere laguntzailea bide dena, Borthiri edo Bortairu edo dena delakoa, lapurtarra da, Ezpeletakoa.

3. *APEZ BELTZA* BALADAREN ARGUDIOA

Zer da *Apez beltza*ren balada honetan kontatzen dena? Zein da balada honetako pertsonaien arteko gertaera? Zer gertatzen da Borthirigarairen, apez beltzaren eta aipatzen diren emakumeen artean? Balada hau mendeetan barrena istorio batekin edo gertaera batzuekin lotua izango zen noski. Istorioan argi dago apez bat plaza irekian edo jende aurrean hiltzeagatik norbait kondenatua izan dela. Zergatik gertatu da heriotza? Zerk eraginda hil du jende aurrean apeza? Azalpen bat baino gehiago daude, jakina. Ezagutzen den lehen azalpena 1840. urteko Jean Baptiste Arxüren *Chants populaires du Pays Basque* kaier argitaragabean dator:

> Borthagaray d'Ossès condamné à être pendu pour avoir tué le curé, amant de sa femme. Des personnes influentes s'intéresserent à lui et obtinrent sa grace, mais elle arriva au moment où il venait d'être pendu, trop tard. Cette complainte, composée par Borthagaray, avait trois cent soixante strophes, dont voici quelques fragments conservés dans les souvenirs populaires.

Arxüren lehen testigantza honen arabera Ortzaizeko Borthirigaraik apeza hil zuen bere emaztearen amorantea zelako. Borthirigarai urkatzera kondenatua izan zen heriotza honegatik eta barkamena urkatzen ari zen unean iritsi omen zen. Borthirigaraik egin zuen hil-kexuak hirurehun eta hirurogei ahapaldi zituen.

Geroagoko azalpen gehiago ere badira. Jean Baptiste Orpustanek *La vallée d'Ossès en Basse-Navarre* honelaxe azaltzen du:

> Il n'y a pas si longtemps, quand ce chant comme d'autres était encore partiellement dans les mémoires, on en donnait ainsi le détail:

[2] EE-II, 136-137. or.
[3] EE-IX, 144. or.
[4] EE-III, 138. or.

> Borthagaray, furieux d'avoir vu sa bien-aimée enlevée et mise au couvent pour empêcher le mariage par son frère prêtre (mais c'était peut-être trop tard, puisque la chanson jouant sur les mots laisse entrendre qu'un "Ramuntxo" naquit au "matin des Rameaux", le père étant déjà en prison!), était parti à pied jusqu'au couvent de Bayonne; il y avait trouvé porte close, et de retour, un dimanche et même disait-on un jour de Fête-Dieu, entendant du haut des collines du Baïgoura (Le Harrixuri de la chanson) la sortie de la procession, avait effectivement armé son fusil et arrivé à la hauteur du cortège tiré sur le prêtre "noir". On disait encore que la foule avait alors suivi le meurtrier en le lapidant et qu'il avait été pris quelque part du côté des collines de Murgiarte et de Mendikoaga.

Ahozko lekukotasunetik bildutako azalpen hau arras desberdina da. Apez beltza Borthirigarairen maitalearen neba zen. Borthirigarairen eta maitearen arteko ezkontza galarazteko, nebak arreba Baionako komentura eraman zuen. Borthirigarai Baionara joan eta komentuko ateak itxita aurkitu zituen. Bere etxera itzultzen delarik, Baigurako mendi-lepotik prozesioa entzunik, eskopeta kargatu eta segizioan doan apez beltza hil zuen.

Komentuan gorderik eta are giltzapeturik dagoen maitearen amodiozko kantuak ugariak dira Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan. Hainbat kantu daude gertaera hau ardatz dutenak. *Maitia, non zira* kantuan, esaterako, aitak alaba komentu batean atxiki nahi du alabak hogeita bat urte bete arte.

Orpustanek *La vallée d'Ossès en Basse-Navarre* liburuan idatzi zuen pasarte hau ahoz kontatu zidan 2014. urteko martxoaren hogeian. Handik urte batera, Orpustanek bere amagandik entzun zuen gertaera nolatsu zen euskaraz karta batean galdetu eta hauxe erantzun zidan:

> Borthagarai, bere maitea hunen anaia aphezak eremana eta komentuan ezarria ikusia ukanik erotua, Baionako komenturano joana zen oinez: han athea hetsia aurkitua zuen, eta itzulirik, igande batez eta ere zioten Besta-Berri egunaz. Baigurako mendixken gainetik prozesionea atheratzen entzutean eskopeta egiazki armatua zuen eta jende lerroaren heinera heldurik aphez "beltzaren" gainera tiro egina. Bazioten oraino jendea orduan hiltzaleari jarraikia zizakola harrikatuz eta hartua izana zela Murgiarte ta Mendikoagako munho aldetan nunbait[5].

Uste dut Jean-Baptiste Orpustanek behe nafarreraz jarri dizkidan hitz hauek urregorria balio dutela, batetik, berak entzun zituen Ortzaizeko euskaran daudelako, eta, bestetik, geure eskariari erantzunez, berariaz neure lanean txertatzeko idatzi dizkidalako.

4. *APEZ BELTZA* BALADAREN A EREDUA, FRANCISQUE MICHELEN EREDU ARGITARATUA

Apez beltza balada Francisque Michelek argitaratu zuen lehen aldiz 1875. urteko *Le Pays Basque* liburuan, 401-403. orrialdeetan. Baladari eman zion izenburua *Hil kechua* da. Izenburu honen azpian 'Basa nafartarra' zehaztasuna dator. *Hil-kexua*, gaur eguneko grafian, lehen aldiz Oihenartek berak sortu zituen poemetan erabili zuen: *Ezkontidearen hil-kexua museen kontra*. XIX. mendeko hiztegigileek ere –Duvoisinek eta Harrietek– badakarte beren hiztegietan. Arxük *complainte* frantses-hitzaren esanguran darabil.

Francisque Michelek emandako eredu hau Arxük bildua da, hurrengo puntu batean frogatuko dugunez. Francisque Michelek Arxüren transkripzioa argitaratu zuen. Francisque Michelen transkripzioan badago huts bat edo beste balada honen ikerketako punturen batean erakutsiko dugunez. Adibide bakar bat emate aldera *Halzac eztu ekharten ezcurric* hori *ekhartzen* behar du. Puntu honetan jar dezagun Francisque Michelen *Le Pays Basque* liburuko eredua:

[5] 2015eko ekainaren 28koa da. (Berak datatzen duen bezala esanik: Ekhain 28-an).

(1)
Borthagaray Orzaizeco,
Borthagaray Ezpeltaco,
Hi Bordelen, ni Baionan,
Oi! zer ghizonac galduco.

(2)
Halzac eztu ekharten ezcurric
Ez gastamberac ezurric,
Eznien ouste bazela
Ginco semetan ghezurric.

(3)
Chizpa nuen kargatu Urcaraico lephoan
Bai eta ere descargatu
Hozta plaza erdian
Aphez belcharen gainian.

(4)
Aphez belcharen arreba,
Ala nescatcha adreta!
Ni galerazico, bainan
Etzaun pizturen anaia.

(5)
Ehun behi baditut
Bere zezenareki:
Nic guziac emanen ditut
Bizia ukhaitiareki.

(6)
Aita, zoazi etcherat,
Ene arropac harturic;
Eta haurrer emozkozute
Bere neurrian josiric.

(7)
–Ez, ez, nuc ez joanen,
Hire arropac harturic:
Nic Baionan utziren diat
Arropac beno minagoric.

(8)
–Ene seme Erremoutto, aita ikhousi gabia,
Aita ikhousi gabia eta aita urkhatu semia.
Hargatic eztuc adituco
Aita ohoinaren semia.

(9)
Urtheac zembat egun tu?
Hemezortzitan hoghoi baditu.
Borthagaray gazte horrec
Hauc ditu componditu.

Hil kechua izenburupean datorren baladak ez du inolako azalpenik Francisque Michelen liburuan. Eredu honetan Arxüren grafia-sistema argiro ikusten da: *ghizonac* (1. ahap.), *ghezurric* (2. ahap.), *hoghoi* (9. ahap.).

5. *APEZ BELTZA* BALADA ARXÜREN ESKUIZKRIBUAN

Gorago esan dugun bezala, Francisque Michelek argitaratu zuen *Hil kechua* Arxük emana da inolako dudarik gabe. *Hil kechua* Arxüren ortografia berezian dago transkribaturik eta transkripzio-sistema berezi hori detektatzen erraza da. Arxüren transkripzioak aztertu dituenak, hala-nola *Urthubiako alhaba* baladakoak eta beste kantu zein baladetakoak, berehala detektatzen du zuberotarraren transkripzioa.

Segurantzia horiek gehiago segurtatzen ditu Arxüren kaier aurkituan agertzen den transkripzioak. Arxüren kaier aurkitu berrian, 22. zenbakian, gure *Hil kechua* balada dator *Complainte* izenburuaren azpian. Arxüren kaieretiko balada da Francisque Michelen liburuan agertzen dena.

Arxük bere kantu-kaierean zenbait kanturen bukaeran azalpen bat idatzi ohi zuen frantsesez. Kantuak balio historikoa bazuen, edo elezahar baten bidez ezaguna bazen, kantuaren ondoren, azalpen gisa, testu labur bat erantsi ohi zuen. Gure baladan ere azalpena badator, baina bestetan ez bezala, kantuaren hasieran.

Francisque Michelek transkripzio txukunak egin ohi zituen, huts gutxikoak, gehienetan. Arxüren hau ere ondo transkribaturik dago. Arxüren eskuidatzitiko frantsesezko sarrera, ordea, ez zuen transkribatu Francisque Michelek. Sarrera azalpen horrek argi apurren bat ematen du eta guk atal honetara ekarriko dugu.

Hona Arxüren eskuidatzian agertzen den frantsesezko azalpena eta balada bera:

Borthagaray d'Ossès condamné à être pendu pour avoir tué le curé, amant de sa femme. Des personnes influentes s'intéresserent à lui et obtinrent sa grace, mais elle arriva au moment où il venait d'être pendu, trop tard. Cette complainte, composée par Borthagaray, avait trois cent soixante strophes, dont voici quelques fragments conservés dans les souvenirs populaires.

(1)
Borthagaray Orzaizeco,
Borthagaray Ezpeltaco,
Hi Bordelen, ni Bayonan
Ah! Zer ghizonac galduco.

(2)
Halzac eztu ekhartzen ezkurric
Ez gaztemberac ezurric,
Ez nian ouste bazela
Ginco Semetan ghezurric.

(3)
Chispa nuen kargatu Urkaraico lephoan
Bai eta ere deskargatu
Hortzta plaza erdian
Aphez belcharen gainian.

(4)
Aphez belcharen arreba
Ala nescatcha adreta!
Ni galerazico, bainan
Etzaun pizturen anaia.

(5)
Ehun behi baditut
Bere zezenareki
Nic guziac emanen ditut
Bizia ukhaiteareki.

(6)
Aita, zoazi etcherat,
Ene arropac harturic;
Eta haurer emozkozute
Bere neurrian jossiric.

(7)
–Ez, ez, nuk ez joanen
Hire arropac harturic:
Nic Baionan utziren diat
Arropac beno minagoric.

(8)
–Ene seme Erremuntto aita ikhoussi gabia,
Aita ikhoussi gabia eta aita urkhatu semia.
Hargatic eztuc adituco
Aita ohoinaren semia.

(9)
Ourthiac zembat eguntu?
Hemezortzitan hoghoi baditu
Borthagarai gazte horrec
Hauc ditu componditu.


Borthayaraj orzaizeco,
Borthayaray Ezpeltaco,
Hi Bordelen, ni Bayonan
Ah! zer ghizonai galduco.
Halzac eztu ekhartzen ezkurric
Ez gaztemberac ezurric;
Iznian vusta bazelac
Ginco lemetan ghezurric.
Chispa muen kargatu Urkaraico lephoay
Bai eta eru deskargatu
Hortzta plaza erdian
Apher belcharen gainian.
Apher belcharen arruba
Á la nescatcha abreta!



Apez Beltza balada Arxüren eskuizkribuan.

Testu honek baditu, nola ez, misterio bat baino gehiago. Zortzigarren ahapaldia, esaterako, honelaxe tolestuko genuke:

Ene seme Erremuntto,
aita ikhoussi gabia,
Aita ikhoussi gabia eta
aita urkhatu semia.
Hargatic eztuc adituco
Aita ohoinaren semia.

Modu honetara, sei lerroko ahapaldia ateratzen da. Ahapaldi honek ez digu arazorik sortzen. Hirugarren ahapaldia beste modu batera tolestuko genuke. Hona gure proposamena:

Chispa nuen kargatu
Urkaraico lephoan
Bai eta ere deskargatu
Hortzta plaza erdian
[Hortzta plaza erdian eta]
Aphez belcharen gainian.

Ia beharrezkotzat jotzen dugu bihurkia sartzea ahapaldi honetan. Bihurkia jartzen badugu, ondo ateratzen zaizkigu hiru puntuak. Kontuan izan behar dugu balada askotxotan ez dela bihurkia transkribatzen derrigorreko leku zenbaitetan. *Urthubiako alhaba* baladan agertzen da kontu hau, *Urteak zombat egun tu* eta Crohare kaiereko *Eskoliersa gaztea* ereduan.

Ez dago dudarik, Francisque Michelek Arxüren kaier bat baino gehiago erabiliko zituela *Le Pays Basque* eta Pariseko Bibliothèque Nationalean dauden kantuak transkribatzeko. Francisque Michelek Arxüren kaier edo dokumentu horiek erabili zituen. Arxüren dokumentuetan kantu berak oso antzera transkribatuak izango ziren, inolako dudarik gabe. Baliteke, beraz, Francisque Michelek gure kaiereko eredu bera baina apurren bat desberdin transkribatutako beste dokumentu bat erabili izana. Hortik letorke Arxüren *Hil kechua* izenburua eta ez kaierean datorren *Complainte*. Bi ereduetako aldaera txiki zenbait ikusteko PV siglak *Le Pays Basque* liburua adierazteko erabiliko ditugu eta AK Arxüren kaiera izendatzeko. Aldaerak ez dagozkio edukiari, transkripzio-sistemari baino.

Lehen ahapaldian, PVn *Oi!*, AKn *Ah!* Bigarren ahapaldian, PVn *gastamberac*, AKn *gastemberac*. PVn bigarren ahapaldian *ekharten* aditz-izena hutsa dela pentsatzeko bidea dago, testu eskuizkribuan *ekhartzen* baitator. Hirugarren ahapaldian PVn *Chizpa nuen cargatu Urcaraico lephoan,* AKn *Chispa nuen kargatu Urkaraiko lephoan*.

Hona ekarritako adibideek aski argi isurtzen dute bi dokumentuetan dauden aldaera txikien gainera. Baliteke, azkenik, PVren azken-aurreko ahapaldiko *–Ene seme Erramoutto, aita ikhousi gabia* lerroan, izena *Erramoutto* izan beharrean *Erramontto* izatea, kaierean datorren bezala. Kontuak horretara, Francisque Michelek –n– gaizki irakurri eta –u– transkribatu zuen.

6. CHAHOREN *APEZ BELTZA* BALADAREN TRANSKRIPZIOA DASSANCEREN ARABERA

Louis Dassancek Chahoren kantutegiko kantu gehienak 1975eko abuztuaren 13a baino lehen transkribatu zituen. Telesforo Monzonek bere eskuetan zuen Chahoren kantutegia Louis Dassanceri utzi zion, prestamuz, hark bere etxean transkribatu eta ikertzeko. Louis Dassancek kantutegia itzuli zuenean, esker oneko karta hau idatzi zion T. Monzoni:

13/8/75

Adiskide maitea,

Berant bada berant, bainan esku on eta seguretan emanik, gibelerat igortzen daizkitzut Chaho eta Lacombe'k bildu kantu xaharrak.

Bihotzetik milesker, kantu hoiekin pasatu baititut oren goxo batzu...

Bainan orai ez detzazket balia. Zenbeit ilabethe hautan, bixta galtzen hari dut eta biziki nekez dut irakurtzen eta iskiriatzen. Egingo nintuen lanak betikotz utzi behar...!

Agur bihotzetik eta, Jainkoak nahi balin badu, elgar ikus arte.

Zure fidel

L. Dassance.

Dassanceren eskutitz hau Chahoren kantutegiarekin batera aurkitzen da. Dassance 1975. urterako xahartua zen eta begi-bista ia galdua zuen. L. Dassanceren transkripzioa, ordea, ezagutzen dudan hoberenetakoa da.

I

Joun dane Jouhane goïzian
Bidarraïco zubian
Pistolet bat cargatu nian, Ene kolera handian.

II

Bai eta deskargatu
Ehun gizonen artian
Ehun gizonen artianeta aphez beltzaren burian.

III

Jaun prebostaren zaldia
lau hatzetan xuria,
lau hatzetan xuria eta gizon isuki zalea.

IV

Harek pasa erazi dereit
zazpi brasako lezia
zazpi brasako lezia eta
Guiza betheco hessia.

V

Aldibat nengouelaric
Sagardoy heguin behera
Zazpi amore ikhousi nutian
Dantzan ari zirela.

VI

Batec erri, bestec kheñu,
Joan nendila dantzara
Dantza, dantza ene maitiac
Nic orai eztut aizina.

VII

Borthirigaraï, arrest'adi
Erregueren ordriari
Erregueren ordriari eta
Jaun Prebost bizargorriari.

VIII

Jaun Prebosta arrestatzen nuc
Erregueren ordriari
Hire behorrac atzaman benaï
Emotzac eskerra[c] horri.

IX

Borthirigarai gaztia
Amaren uda lilia
Amaren uda lilia eta
Aitaren seme maïtia.

X

Ene emazte Maria
Machela orrace luzia
En'ikhoustera jiten delaric
Uztaritzen da erdia.

XI

Nic etchen badit arreba bat
Chouriric eta trenderic
Hobekiago balizate
Labe gorrian sarthuric.

XII

Ene aita zer berri da
Ortzaïzeko aldetic
Ortzaïzeko aldetic eta
Goure etche tristetic.

XIII

Ene semia berri charrac
Orzaïzeco aldetic
Hire urkhatzeco cordac
Bayonan direla berriric.

XIV

Aita, zaüde ichilic
Ez othoï eghin nigarric
Bayonan ezta urkhatuco
Zure beste semeric.

XV

Ene semia Erramuntto,
Dolu dereiat gachoa
Zeren entzun behardia[ac]
Aït'urkhatiaren semia.

XVI
Lehen, lehen erraïliari
Ideki ezoc bicia
Bizia idok eta ez sofri
Holacorik erraïtia.

XVII
Borthiri garaï Orzaizeco
Borthiri Ezpeletaco
Hi Bordelen, ni Bayonan
Zer bi guizonac galduco!

7. CHAHOREN *APEZ BELTZA* BALADAREN TRANSKRIPZIOA PATRI URKIZUREN ARABERA

Patri Urkizuk 2005. urteko "Viejas baladas vascas del cancionero de Chaho" artikuluan Chahoren *Apez beltza* balada transkribatu eta gaztelerara itzuli zuen (Urkizu: 2005). 2006. urteko *Agosti Chahoren kantutegia* liburuan, ordea, ez zuen *Apez beltza* balada transkribatu. P. Urkizuk Chahoren jatorrizko testua ez du jatorrizko ortografian transkribatzen, era gaurkotuan baizik. Esan beharrik ez dago egiten dituen zenbait ohar eta iruzkin ondo eginak daudela. Patriren transkripzioak, ordea, baditu hainbat puntu ilun.

I
Jundane Juhane goizian
Bidarraiko zubian,
Pistolet bat kargatu nian ene kolera gaitzian.

II
Bai eta ere deskargatu
Ehun gizonen artian
Ehun gizonen artian eta aphez beltzaren burian.

III
Jaun prebostaren zaldia
Lau hatzetan xuria,
Lau hatzetan xuria eta gizun isuki-zalia.

IV
Harek pasaerazi dereit
Zazpi brasako lezia,
Zazpi brasako lezia eta giza bethiko hesia.

V
Aldi bat nenguelarik
Sagardoi hegin behera
Zazpi amore ikhusi nutian dantzan ari zirela.

VI
Batek erri, bestec kheinu,
Joan nendila dantzara,
Dantza, dantza, ene maitiak, nik orai eztut aizina.

VII

–Borthirigaraï, arrest’adi
Erregeren ordriari
Erregeren ordriari eta jaun Prebost bizargorriari.

VIII

–Jaun Prebosta arrestatzen nuk
Erregeren ordriari,
Hire behorrak atzaman benai emotzac eskerra horri.

IX

Borthirigarai gaztia
Amaren uda lilia
Amaren uda lilia eta aitaren seme maitia.

X

Ene emazte Maria,
Maxela orraze luzia,
En’ikhustera jiten delarik Uztaritzen da erdia.

XI

Nic etxen badit arreba bat
txuritxu eta trenderik,
Hobekiago balizate labea gorrian sarthurik.

XII

–Ene aita zer berri da
Ortzaizeko aldetik
Ortzaizeko aldetik eta gure etxe tristetik?

XIII

–Ene semia, berri txarrak
Ortzaizeco aldetik,
Hire urkhatzeko kordak Baionan direla berriric.

XIV

–Aita, zaude ixilik
Ez othoi egin nigarrik,
Baionan ezta urkhatuko zure beste semerik.

XV

–Ene semia Erremuntto,
Dolu deriat gaxoa,
Zeren entzun behar dia ait’urkhatiaren semia.

XVI

Lehen, lehen errailiari
Ideki ezok bizia,
Bizia idok eta ez sofri holakorik erraitia.

XVII
Borthirigarai Ortzaizeko,
Borthiri Ezpeletako,
Hi Bordelen, ni Baionan zer bi gizonak galtzeko!

Puntu honetan ez ditugu P. Urkizuren itzulpena eta oharrak iruzkinduko. Transkripzioaren huts nabarmen batzuk iruzkinduko ditut bakarrik.

P. Urkizuk Chahoren eskuizkribuko laugarren ahapaldiko *Guiza betheco hessia* gaizki irakurri ondoren, zentzurik ez duen *giza bethiko hesia* transkribatzen du. Patri Urkizuren transkripzioko hamaikagarren ahapaldia ere aldrebesa da guztiz. Jatorrizko eskuizkribuko *Nic etchen badit arreba bat/ Chouriric eta trenderic/ Hobekiago balizate/ Labe gorrian sarthuric* gaizki irakurria dago. P. Urkizuk Chahoren dokumentuko *chouriric eta trenderic* zentzu handirik ez duen *txuritxu eta trenderik* irakurtzen du; era berean, Chahoren dokumentuko *labe gorrian* sintagma *labea gorrian* ezinezkoa irakurtzen du. Hamabosgarren ahapaldiaren erdia Chahoren eskuidatzian *Ene semia Erramuntto,/ Dolu dereiat gachoa* irakurtzen da; P. Urkizuk *–Ene semia Erremuntto,/ Dolu deriat gaxoa* irakurtzen du. Pertsona-izena *Erramuntto* da eta ez *Erremuntto*, aditz laguntzailea *dereiat* da eta ez *deriat*. Azken-aurreko ahapaldian, Chahoren eskuizkribuan *Bizia idok* dator eta P. Urkizuk *Bizia edok* irakurtzen du. Azken ahapaldia gaizki irakurtzen du P. Urkizuk. Chahoren eskuizkribuko *Hi Bordelen, ni Bayonan/ Zer bi guizonac galduco!* bukaera *Hi Bordelen, ni Baionan zer bi gizonak galtzeko!* irakurtzen du, hots, *galduko* irakurri beharrean *galtzeko* irakurtzen du.

8. CHAHOREN *APEZ BELTZA* BALADAREN GURE TRANSKRIPZIOA

Chahoren *Apez beltza* baladak jatorrizko eskuizkribuan *Borthirigaraï* izenburua du. Kantuaren hamazazpi ahapaldiak plama bakar batean daude transkribaturik. Lehen hirurak zutabe bakarrean eta gainerakoak hiru zutabetan. Borthirigarai kantuak eskuinaldean 75 zenbakia darama. *Borthirigaraï* kantuak, Chahoren kantuak, 240 argazkitatik 117garrena da eta guztiz letra txukunez dago transkribatua, inolako zirriborro eta ezabatzerik gabe. *Borthirigaraï* kantuko hamazazpi ahapaldiak zenbaki erromatarrez markatuak daude.

I
Joun dane Jouhane goïzian
Bidarraïco zubian,
Pistolet bat cargatu nian,
Ene colera gaitzian.

II
Bai eta ere descargatu
Ehun guizonen artian
Ehun guizonen artian, eta
Aphez belzaren burian.

III
Jaun prebostaren saldia
Laü hatzetan chouria,
Laü hatzetan chouria, eta
Guizoun isouki-zalia.

IV

Harec pasa erazi dereit
Zazpi brasako lezia,
Zazpi brasako lezia eta
Guiza betheco hessia.

V

Aldibat nengouelaric
Sagardoy heguin behera
Zazpi amore ikhousi nutian
Dantzan ari zirela.

VI

Batec erri, bestec kheñu,
Joan nendila dantzara
Dantza, dantza ene maitiac
Nic orai eztut aizina.

VII

Borthirigaraï, arrest'adi
Erregueren ordriari
Erregueren ordriari eta
Jaun Prebost bizargorriari.

VIII

Jaun Prebosta arrestatzen nuc
Erregueren ordriari
Hire behorrac atzaman benaï
Emotzac eskerra[c] horri.

IX

Borthirigarai gaztia
Amaren uda lilia
Amaren uda lilia eta
Aitaren seme maïtia.

X

Ene emazte Maria
Machela orrace luzia
En'ikhoustera jiten delaric
Uztaritzen da erdia.

XI

Nic etchen badit arreba bat
Chouriric eta trenderic
Hobekiago balizate
Labe gorrian sarthuric.

XII
Ene aita zer berri da
Ortzaïzeko aldetic
Ortzaïzeko aldetic eta
Goure etche tristetic.

XIII
Ene semia berri charrac
Orzaïzeco aldetic
Hire urkhatzeco cordac
Bayonan direla berriric.

XIV
Aita, zaüde ichilic
Ez othoï eghin nigarric
Bayonan ezta urkhatuco
Zure beste semeric.

XV
Ene semia Erramuntto,
Dolu dereiat gachoa
Zeren entzun behardia[ac]
Aït'urkhatiaren semia.

XVI
Lehen, lehen erraïliari
Ideki ezoc bicia
Bizia idok eta ez sofri
Holacorik erraïtia.

XVII
Borthiri garaï Orzaizeco
Borthiri Ezpeletaco
Hi Bordelen, ni Bayonan
Zer bi guizonac galduco!



Borthirigarai.

I.

Jouan dane Jouhane goïzian
Bi'darraco Zubian,
Pistolet bat cargatu nian,
Ene colera gaitzian.

II.

Bai eta ere descargatu
Ehun guizonen artian,
Ehun guizonen artian, eta
Aphez beltzaren buruan.

III.

Jaun Gorbortaren saldia
Lau haltzetan chouria,
Lau haltzetan choaria eta
Guizon izouki-zalia.

IV

Harec pasa erazi dereit
Zazpi brasaco lezia,
Zazpi brasaco lezia eta
Guiza bathico hestia.

V

Aldibat nengoelarie
Jagardoy haguin behera
Zazpi amorc ikhousi nutian
Dantzan ari zirela.

VI

Bate erri, bertak khentu,
Jon nendila dantzara
Dantza, dantza, ene mattiac
Nic orai eztut aizina.

VII

Borthirigarai, arrest adi
Erreguen ordiari
Erreguen ordiari eta
Jaon Gorbort bizargorriari.

VIII

Jaun Gorbort arrestatzen nue
Erreguen ordiari
Hire gohoac atzaman benaï
Emotzac erkesle horri.

IX

Borthirigarai gazlia
Amaren ume litia
Amaren ume litia eta
Aitaren seme mattia.

X

Ene emazte Maria
Machila ornac luzia
En'ikhoustea jiten delarie
Ukharitzen da erdia.

XI

Nic etchen badit arrebobat
Chouriza eta trenderie
Hobekiago baltzatc
Lalee gorrian sarthurré.

XII

Ene aita zer berri da
Gizaïzco aldetic
Orzaïzco aldetic eta
Gure etche buruetic.

XIII

Ene semia berri charrac
Orzaïzco aldetic
Hire ukhatzaco tordac
Bayonan direla beriric.

XIV.

Aita, zaude ichilic
Ez othoi eghin nigarric
Bayonan ezta ukhatzaric
Zure berce semerik.

XV

Ene semia Erremantto,
Dola derriat gachoa
Zoren entzun behardiac
Ait' ukhatzaren semia.

XVI

Lehen, lehen erraïtiari
Idetki ezac bicia
Nizia idor eta ez supi,
Hotzarric erraitia.

XVII

Borthirigarai Orzaizco
Borthiri Gizpeldarac
Hi Bordolen, ni Bayonan
Zer bi guizonac gaudenco.

Borthirigarai edo *Apez beltza* Chahoren kantu-kaierean.

9. CHAHOREN EREDUA, AHAPALDIZ AHAPALDIKAKO IRUZKINA

A. Chahoren kantutegiko testua transkribatu zuenak aparteko arreta hartu zuen, inolako dudarik gabe. Letra txukuna bezain argia erabili zuen transkribatzaileak, eskuartean zuen harribitxi preziatua bere edertasun betean eman nahiz[6]. Guk ere modu berean jokatu nahi dugu. Eman dezagun adibide bat: transkribatzaileak frantses erara ez ahoskatzeko jarri zituen –i– bokalaren gainean *Bidarraïco, goïzian* eta abar. Guk era horretakoak lehen transkripziora ekarriko ditugu, eta ez bigarrenera. Gure lehen transkripzioan jatorrizkoan dauden zehaztasun guztiak markatuko ditugu. Bigarren transkripzioan gaur egun gure ortografian irakurriko genukeen erara ekarriko ditugu. Lehen transkripzioan, beraz, testuan agertzen diren kontsonante aspiratu zein bokal arteko –h– guztiak errespetatu ditugu. Ez dago arrazoi honen zergatia azaldu beharrik. Ez dugu testua hankamoztu nahi, eta, horrexegatik beragatik, bere itxurarik ederrenean eman nahi dugu. Ohartzekoa da, era berean, biltze-data zaharrena duen testu hau orain arteko aberatsena dela. Hiltzailea bera, esaterako, Borthirigarai dugu eta ez gainerako aldaeretan ikusten den Borthagarai eta abar. Esan dezagun, azkenik, gure kanta hau Chahoren kantutegiko 75garrena dela. Goazen, hortaz, ahapaldiz ahapaldi:

I
Joun dane Jouhane goïzian
Bidarraïco zubian,
Pistolet bat cargatu nian,
Ene colera gaitzian.

Jundane Juhane goizian,/ Bidarraiko zübian,/ pistolet bat kargatü nian,/ ene kolera gaitzian.

Lehen ahapaldian zehaztasunik garrantzizkoenak ematen dira. “Noiz” lehen lerroan, “non” bigarrenean, “zer” hirugarrenean eta “nola” laugarrenean. Ez dago hobeki adierazterik *noiz-non-zer-nola* direlakoak. Ohargarria da urteko egun seinalea dela Donibane eguna eta egun horretan goiza. Egun horretan gertatu ohi dira baladetako ekintza asko. Adibide bat ematearren, “La enamorada del muerto” baladan ere, Diego Catalanek ematen dituen aldaera askotan, egun izendatu bera agertzen da. Badago, azkenik, postposizio polit bat lehen ahapaldi honetan “ene kolera gaitzian”. *Neska soldadua*ren baladan[7], *Etxetik urten neban/ Mariatzeko illian,/ amasei urterekin,/ neure txoramenian*. Horrelako askotxo daudenez, bego honetan esapide hau. Badaude esapide honen aldaera interesgarriak. Hona, esaterako, GH 1924koan, A. Zavalaren III. ereduan, (135. or.): …/*eskopeta kargatu nuen/ neuretzat zorigaitzean.*

II
Bai eta ere descargatu
Ehun guizonen artian
Ehun guizonen artian, eta
Aphez belzaren burian.

Bai eta ere deskargatü/ ehün gizonen artian,/ ehun gizonen artian eta/ aphez beltzaren bürian.

Lehen ahapaldian *kargatu* aditza ikusten dugu, oraingoan heriotzaren uneari dagokion deskargatu. Gainerako balada ereduetan ahapaldi berean ikusten ditugu aditz biak. Halaxe daude 1924. urteko GHko

[6] Jean Haritschelharrek bere “Balada-ren inguruan” lanean, *Literatura biltzarra, II. Euskal Mundu-Biltzarra*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1988, 53. orrialdean, hauxe dio gure baladaren gainean: es magnífica.

[7] A. Zavalaren IV ereduan, 531. or.

alean edo (ER-IV) eta Dassancerenean (ER-IX) eta guk dakargun Mañariko aldaeran. Hitzei dagokienez, *gizon* hitza dator garbiki. Hurrengo ahapaldian, ostera, *gizun* irakurtzen da zubererako eta are Baxenabarreko ekialdeko forma dena. Zentzuari dagokionez, heriotza ez da isilean eta gordean egiten, denen agerian baizik. Ahapaldi honetan ehun gizon dira testigu. Gainerako aldaera bitan *(Hozta) plaza erdian* (ER-II) eta *(Hortza) plazaren erdian* (ER-IX).

III
Jaun prebostaren saldia
Laü hatzetan chouria,
Laü hatzetan chouria, eta
Guizoun isouki-zalia.

Jaun prebostaren zaldia,/ lau hatzetan xuria/ lau hatzetan xuria eta/ gizun isukizalia.

Jaun prebosta justizia-gizona dugu, gaizkin eta manduleren jarraikitzaile nekagaitz eta errimea, itxurak direnez. Prebostaren justizia-gosea edo gaiztotasuna bere zaldi polit bezain krudelaren zehaztasun batez emana dago: zaldiak gizonei horzka egiten omen die. Horzkalaria da gure "isukizalia". Zuberoako euskaran *usukizale* edo uste genuke, *üsükizale* asimilazioz. Zaldi honen ezaugarri politez orain baino lehen aritua naiz. Jo bedi, nahi izatera, "Herri literaturako altxorrik handiena" artikulura (Kalzakorta: 2000).

IV
Harec pasa erazi dereit
Zazpi brasako lezia,
Zazpi brasako lezia eta
Guiza betheco hessia.

Harek pasa erazi dereit/ zazpi brasako lezia,/ zazpi brasako lezia eta/ giza betheko hesia.

Saltu edo jauzi handia eman bide du apez beltzaren hiltzaileak prebostaren zaldia atzean duela. *Brasa* delakoa neurri bat dugu, frantsesez *brasse* eta erdaraz *braza. Brasa* delakoa metro eta erditik gorakoa da. Zazpi brasako leizea hamar metro ingurukoa da. Leize hau saltatzeko zaldiak saltu handia egin beharko du. Zaldi saltokari hau herri-literaturako beste kanta eta kopla batzuetan ere aipatzen da. Ikus bedi III. ahapaldian aipatutako geure lan bera. *Giza betheko hesia*, ordea, zer ote da? Neurri bat, hots, gizon baten tamainako hesi bat edo gizonez osatutako hesi bat? Bigarren modu honetara ulertzen du A. Zavalak "gaizkileak ihes egin ez dezan gizonez egindako hesi bat" honelaxe itzultzen baitu: "El me hizo pasar una sima de siete brazas,/ una sima de siete brazas y una barrera de hombres". Ohargarria da, dena dela, leizea aipatzen denean lurraren distantzia adierazten dela; hesiarekin, ordea, altuera.

Ohart dezagun azkenik, azken hiru ahapaldi hauetan barne bihurki zoragarri bat agertzen dela.

V
Aldibat nengouelaric
Sagardoy heguin behera
Zazpi amore ikhousi nutian
Dantzan ari zirela.

Aldi bat nenguelarik/ Sagardoihegin behera,/ zazpi amore ikhusi nütian/ dantzan ari zirela.

Ahapaldi honek bestetara garamatza. Aurreko narrazio-hariarekin zerikusi handirik ez dukeen beste eszena batera. *Aldi bat nenguelarik* edo *Aldixe bat nenguelarik,* bestalde, narrazioa hasteko modu

polit bat da, bestetan ere dokumentatzen dena. Ikus diogunaren lekuko batez ere "El marinero raptor" edo "Brodatzen ari nintzen" baladako aldaerak. Gure ulermenaren aizkorak, ordea, beste adabegi edo zailtasun batean egin du tope. Nola ulertu behar dugu *Sargardoy hegin behera* delakoa? Gure ustez, *Sagardoyhegi* leku-izen bat izan behar da, Bereterretxeren kantoreko *Ezpeldoi* den bezala. Dudarik ez dago zer den *Sagardoi* hitza. Hitz horren zehaztasuna izan behar du Ezpeldoyhegi, hegi hitza "ladera" edo horrelako zerbait ulertzen dugula. Zalantza, ostera, batez ere *egon* aditzak adlatibo kasuarekin agertzeak handitzen digu. *Sagardoihegin egotea,* mugagabean jokaturik, ulergarri da. *Sagardoihegin behera egotea*, aldiz, zailtxoago egiten zaigu. Zavalak bestetara ulertu du *Sagardoi hegin behera* "Estando una vez debajo de un manzanal" itzuli baitu. A. Zavalak ulertu duen erak antzekotasun handia du Arabako Legutioko balada zoragarri batekin: *"Gure ortuban sagarra loran/ Donianeko eldurik;/ aren azpijan uso bi dantzan/ ederrik eta galantik"*[8]. A. Zavalaren itzulpen honek, ordea, zailtasun edo harakaitz bat badu. Zergatik agertzen da *sagardoihegin* mugagabean? Eta bestela ere *Sagardoihegin behera* "debajo de un manzanal" itzultzea ez ote da zentzua apurren bat bortxatzea?

VI
Batec erri, bestec kheñu,
Joan nendila dantzara
Dantza, dantza ene maitiac
Nic orai eztut aizina.

Batek erri, bestek kheñu/ joan nendila dantzara./ Dantza, dantza, ene maitiak,/ nik orai eztut aizina.

Ihesean heriosuhar doala egindako dantzarako deia ote da bi ahapaldi hauetan aditzera ematen dena? Baladaren aldaera honetan hiltzaileak duen amore edo amoranteez hitz egiten da. Gure Bizkaiko aldaeran hildakoaren arreba begi nabarrak izango ditu amorante asko.

VII
Borthirigaraï, arrest'adi
Erregueren ordriari
Erregueren ordriari eta
Jaun Prebost bizargorriari.

Borthirigarai, arrest adi/ Erregeren ordriari,/ Erregeren ordriari eta/ Jaun Prebost bizargorriari.

Prebostak Borthirigarai ihesleari egindako manu edo agindu zorrotza. Ohargarria da postposizio polita *-ren ordreari*, hots, genitiboa + ordre–datiboa. Ohargarria da, era berean, Jaun Prebostaren aurpegiko bizargorria.

VIII
Jaun Prebosta arrestatzen nuc
Erregueren ordriari
Hire behorrac atzaman benaï
Emotzac eskerra[c] horri.

Jaun Prebosta arrestatzen nuk/ Erregeren ordriari,/ hire behorrak atzaman benaie/ emotzak eskerra[k] horri.

[8] Ikus ER 411-2 or.

Hitzei dagokienez, hirugarren ahapaldian *Jaun prebostaren zaldia* agertzen da, hots, animalia edo patari arra. Gure oraingo ahapaldi honetan, ostera, Jaun prebostaren animalia *behorra* da, hots, emea. Adizkiei dagokienez *nuk* eta *benai* eta *emotzak* ikusten ditugu. *Benai* forma *bait-* eta *nau* batetik dator. *Bait-* delakoa *bei-* eta uztarduran *be(t)-* bihurturik.

IX
Borthirigarai gaztia
Amaren uda lilia
Amaren uda lilia eta
Aitaren seme maïtia.

Borthirigarai gaztia,/ amaren üda lilia,/ amaren üda lilia eta/ aitaren seme maitia.

Ahapaldi honetan inongo hiztegitan agertzen ez den hitz konposatu polit bat ikusten dugu: uda lilia. Uda-lilia berez ez dirudi besterik denik udako lore edo lilia baino. Udako lorea edo udalorea gaztelaniaz "prímula" dugun hitz horrek lore eder eta zoragarrienetakoa adierazten du. Zuberoako herri literatura kutsuko testuetan behin baino gehiagotan ikusten dugu. "Filipiñekuak" konposizioan, esaterako: 3-*Üda lili ejerra, oi xarmagarria!/ Tallaz perfeita eta bilho hollia!/ Orai jiten nitzaitzü adio erraitera:/ Itxasoz banuazü fortüna egitera*. Beste ahapaldi batean ere badator, hona hemen: 5-*Üda lili eijerra ez egin nigarrik,/ Bardin ez ahal düzü orai profeitürik; Ene lagünak dira bortitan sarthürik/ Eta ni ezin pharti, maitia, züganik*. Kontuak honetara, zer da üda lilia? Haritchelharrek honelaxe dio bere azalpenetan: "üda lili: simbole de la beauté; mot composé". Ohartzekoa da amodio kantu honetako bi ahapaldietan modu polit finko batean agertzen dela: *üda lili eijerra*. Lili hitzaren erabilera uste baino konplexuagoa da Zuberoako herri literaturan. Etchahunen "Arengaraiko primaren khantoria" maitasun olerki zoragarrian, esaterako; hona hemen 15. ahapaldia: *Arañeko süjeta, ororen lilia,/ Neskatila gaztetan parerik gabia;/ Hanitx plazer hartü düzü (düzün) haitatü lekhia/ Barkoxen igaiteko zure zahartzia*. *Ororen lilia* delakoak "loreetan lore" edo horrelako zerbait adierazten du. Eman ditzagun adibide gehiago. "Mendiko herrian" konposizioan, esaterako, holaxe hasten da: *Mendiko herrian Jauregiberria/ Han düzü laborari alhaba lilia...* Zer da, hortaz, *alhaba lilia*? Honela dio J. Haritchelharrek: "apposition à *alhaba*; suggère la perfection tant morale que physique; cf. *Sohütako ezteietan*, strophe 2. Souvent employé dans les éphithalames". Aipatu epitalamioan *alhaba lilia* ez ezik *esposa lilia* ere agertzen da. Beraz, Etchahunen adibideetan emakumeei dagokien edertasun fisiko eta morala adierazteko hitz aberatsa da lilia. Hitz goresgarria, beraz, gorenetan gorena adieraztekoa. Gorenetan gorena "hauta" edo "hautazkoa". Iturri zaharragoetako zehaztasun bat ere aurkitu dugu. Agosti Chaho aterraztarrak honelaxe dio *Biarritz entre Les Pyrénées et l'océan. Itinéraire pittoresque* liburuaren bigarren alean[9]:

> La femme, dans la poésie des bardes, est une fleur. 'J'ai vu une fleur dans un jardin; je voudrais l'voir à mon côté'. Cette fleur est tour à tour une violette, une rose, un lis, un jasmin; toutes les richesses de la floriculture suffiraient à peine à représenter les fleurs de beauté que le Basque possède dans ses montagnes, les plus riantes de toute l'Europe. La fleur des montagnes, à l'heure où sonne l'âge de la nubilité, cesse d'être une fleur de printemps et devient une fleur d'été uda lilia.

Agosti Chahok zehaztasun garrantzizko bat ematen digu geure hitzez esateko: "udaberritik udara joaten garen moduan, udaberri-liliak ere uda-lili bihurtzen direla". Emakumeak ere neskatila izatetik ezkongaraira datozenean, "uda-lili" bihurtzen dira herri maitasun-kantuetan. Antzeko irudia ikusten dugu, esaterako, "Atharratze jauregian" baladan, *bi zitroñ loratü* eskatzen dizkio Hongariako erregeak eta erantzuna da *ez direla huntü,* ez direla heldu.

[9] Deuxième Partie, Bayonne, II, 188-189 or.

Gure balada honetako uda-lilia ezkongaraiari edo ezkontadin edo garai jakin bati badagokio ere, ez da neskatila bati dagokiona. Bestela esan, aurkitu ditugun adibide guztiak neska edo emakumeei dagozkienak izan arren, gure ahapaldi honetan mutilari dagokio. Guk geure hizkeran nekez antzeman dezakegun hitz goresgarria izan behar du, inolaz ere. Hitzak berak indar apartekoa badu zer esan ahapaldiaz? *Amaren uda lilia eta aitaren seme maitia* esaten badu? Semea ederretan ederrena eta maiteetan maiteena, eta, azkenik, mutil izatetik gizon gazte izatera, ezkontadinera etorri dela, esan nahiko du.

X

Ene emazte Maria
Machela orrace luzia
En'ikhoustera jiten delaric
Uztaritzen da erdia.

Ene emazte Maria,/ maxela orraze luzia,/ en´ikhustera jiten delarik/ Uztaritzen da erdia.

Ahapaldi harrigarria, benetan. Zer da "maxela orraze luzia"? *Maxela/ mazela* gure sartaldeko *masaila* da. Gorputzaren lohadar edo zatiak *orraze* hitzarekin konposaturik agertzen dira zenbaitetan; *oin-orraze* hitzak, esaterako, "empeine" adierazten du. *Maxela orraze luzia* zer ote da? Hona horren argibideak: *Begitartearen orrazea*, "gable coupe de la figure" dio Duvoisinek, "corte (de la cara)". *Azkuek Begitarte orraze-luzea* (BN, S), *bisai orraze-luzea* (L), "cara de corte largo" eta Lhandek "profil". Gure *maxela orraze luzeak* "masaila irtena eta luzea" adierazten du. Aurpegiaren zehaztasun hori pertsonaren izaeraren berri emateko izango da. *Pars pro toto* edo zehaztasun batekintxe gorputzaren ezaugarri nabariena ez ezik, izaeraren berri ere eman nahi dela dirudi. Badirudi Borthirigarai kartzelan dagoelarik emaztea erditzen ari dela. Borthirigaraik, era horretara, ezin izango du bere semea ikusi.

Dassanceren aldaeran bi mutikoz erdi da emaztea. Bi ahapalditan ematen da erditze hau: *–Uztaritze herria,/ ehiz izaitez berria;/ hitarik jali zautak/ ene bi semen sortzia*. Hona hemen bigarrena: *–Ene andria Maria,/ ezkoa bezain horia./ Uztaritzen omen zaude/ bi mutikottoz erdia*. Bi mutikotto hauetarik bat izango omen da aitaren eresia kantatuko duena. Kantu horren berri agertzen da F. Michelen azken ahapaldi honetan: *Urtheac sembat egun tu?/ Hemezortzitan hoghoi baditu./ Borthagaray gazte horrec/ Hauc ditu conponditu*.

XI

Nic etchen badit arreba bat
Chouriric eta trenderic
Hobekiago balizate
Labe gorrian sarthuric.

Nik etxen badit arreba bat/ xuririk eta trenderik,/ hobekiago balizate/ labe gorrian sarthürik.

Borthirigaraik emaztearen berri eman ondoren, arrebarena ematen bide du. Itxura amoltsuaren azpian, itxurak direnez, bihotz gogorra omen du Borthirigarairen arrebak. Ahapaldi honen tankerakorik ez da beste aldaeretan agertzen.

XII

Ene aita zer berri da
Ortzaïzeko aldetic
Ortzaïzeko aldetic eta
Goure etche tristetic.

–Ene aita zer berri da/ Ortzaizeko aldetik,/ Ortzaizeko aldetik eta/ gure etxe tristetik?

Ahapaldi honek eta hurrengo biek behintzat kartzelako berri ematen dute. Ahapaldi hauetan aita da seme hiltzailea kartzelan bisitatzen duena. Garbiago ikusten da (RV-V) ereduan: *Aita yin zaundan gaztelurat/ boneta diruz beterik:/ -To, seme, nik etzikeiat/ dirutan hire bizirik.*

XIII
Ene semia berri charrac
Orzaïzeco aldetic
Hire urkhatzeco cordac
Bayonan direla berriric.

–Ene semia, berri xarrak/ Orzaizeko aldetik/ hire ürkhatzeko kordak/ Baionan direla berririk.

Elkarrizketa indartsu honetan seme kartzelaratuak galdetzen dionean zer notizia dagoen, *berri* hitza erabiltzen du. Aitaren erantzuna, Baionan urkatzeko sokak berririk daudela dionean, *berri* hitza modu adberbialean darabil. GH 1924ko aldaeran ez dago hain garbi kartzelako eszena. Gure aldaera honetan laster urkatuko dutela diotso aitak semeari, eta urkatu, itxurak direnez, Baionan jende guztiaren agerian.

XIV
Aita, zaüde ichilic
Ez othoï eghin nigarric
Bayonan ezta urkhatuco
Zure beste semeric.

–Aita, zaude ixilik/ ez othoi egin nigarrik/ Baionan ezta ürkhatüko/ zure beste semerik.

Ahapaldi hau ez da erraza noren artekoa den zehazten. Aldaera batzuetan, gorago ikusi dugunez, aita da seme hiltzailea kartzelan bisitatzen duena. Baina hiltzaile kartzelatua bera semeei zuzentzen denez gero, semeak ere bisitatzen du aita kartzelatua? Balada honek dituen ilununetako bat hori da, dudarik gabe.

Aita-semeen arteko ahapaldi samin honetan lehen bi bertso-lerroak ezagunak ditugu. Marisantz eta Buztanobi gaztearen arteko autua honelaxe dakar Sallaberrik: X-*Arreba, ago ixilik/ ez othoi egin nigarrik/ .../.*

XV
Ene semia Erramuntto,
Dolu dereiat gachoa
Zeren entzun behardia[ac]
Aït'urkhatiaren semia.

–Ene semia Erramuntto,/ dolu dereiat, gaxoa,/ zeren entzün behar dia[ak]/ Ait' ürkhatiaren semia.

Urkagai den preso edo kondenatuak bere semeari zuzentzen dizkion hitzak dirudite. 1924ko GHko alean antzera dator, baina gehigarri bat duela: *–Ene seme Erramuntto,/ Erramu goizean sortia,/ Damurik aditu behar duk: "Ait'urkatiaren semia!"/ Ait'urkatiaren semia bainan,/ ez ait'ohoinaren semia!* Ahapaldi hau dela eta, hona zer dioten Nehor eta C. Dufau iruzkingileek:

A quand remonte-t-elle? Quel crime passionnel célèbre-t-elle? Quel est ce Prêtre noir? Quelle, cette soeur religieuse qui, probablement a dénoncé le meurtrier? Et ce meurtrier, possesseur de cent vaches et de leur taureau, est-ce-comme il est probable-Borthegarai d'Ossès, ou Borthairu d'Espelette? Ils sont complices tous les deux, car, tous les deux ils vont mourir. Et cet Erramon, né au matin des Rameaux, n'est-il pas le même que le jeune Borthgarai, l'auteur même de la complainte douloureuse?

Hemen eta hurrengo ahapaldian badirudi aita seme honi zuzentzen zaiola. Nola? Zuzenean edo bakar hizketa bat egiten duela? Francisque Michelen aldaeran, aitak semea ez duela ikusten dio: *–Ene seme Erramou[n]tto,/ aita ikhousi gabia,/ Aita ikhousi gabia eta/ aita urkhatu semia,/ Hargatic eztuk adituco/ Aita ohoinaren semia*.

XVI
Lehen, lehen erraïliari
Ideki ezoc bicia
Bizia idok eta ez sofri
Holacorik erraïtia.

Lehen, lehen errailiari/ ideki ezok bizia/ bizia idok eta ez sofri/ holakorik erraitia.

Laster urkatuko duten Borthirigaraik ez du nahi bere semeak aditu dezan aitaren gauza txarrik. Bizia gaizki esakak entzun baino lehenago kentzeko agintzen dio aitak semeari. Ez ote du, era berean, berak ere hil apez beltza gaizki esateagatik? Ez ote du apez beltza hil ohoina dela entzuteagatik? 1924ko aldaeran horrelako zerbait aditzera ematen da V. ahapaldian.

XVII
Borthiri garaï Orzaizeco
Borthiri Ezpeletaco
Hi Bordelen, ni Bayonan
Zer bi guizonac galduco!

Borthirigarai Orzaizeko,/ Borthiri Ezpeletako,/ hi Bordelen, ni Bayonan,/ zer bi gizonak galdüko!

Ahapaldi hau garrantzi handikoa izan da, ezagutzen ditugun IX aldaeretatik lautan agertzen baita. Ahapaldi hau Chahoren bildumako azkena da eta Francisque Michelen liburuko lehena. Ez dakigu ezer Ezpeletakoa zen *Borthiri* horren gainean. Borhirigarai hiltzailearen laguntzailea zen? Ditugun lau aldaeretako batean, Francisque Michelenean, izen bera ematen da, baina gainerako guztietan desberdina. Borthirigarai eta Borthiri bi-biak urkatuak edo justiziatuak izan ziren. Horretara dator *galdu* aditza.

Hizkuntzari dagokionez, *guizonac* ikusten da garbiki, bigarren ahapaldian ere bi alditan *guizonen*, hirugarren ahapaldian ordea, *guizoun* hots "gizun".

10. BIZKAIKO ALDAERA ARGITARATUAK

Azkueren *Cancionero Popular Vasco*, 424. zenbakiko alean, 530. orrialdean, Bizkaian Mañariako Eladia Zabala andreari bilduriko kanta bat dator. Hona hemen:

Negu goizalde batean,
albakoaren otsean,
eskopetea kargadu neban
arri otzaren gainean,
bai eta gero deskargau bere
apaiz jaun orren aldean.

Kanta hasiera baino ez da hor agertzen dena. Lehen ahapaldi honetan badago beste balada batzuetan agertzen den segmentu edo pasarte txiki bat. *Arri otzaren gainean*, esaterako, *Ana Juanixe*ren baladan agertzen da. *Ana Juanixe*ren balada aipatuz gero, gure atal honetako balada gaiari dagokion zehaztasun bat kontu handikoa da. Dimako *Ana Juanixe* balada aldaera batean, Eduarda Bilbao andreari jasotakoan, *Apez beltza* baladako zenbait ahapaldi agertzen dira kontaminazioz. Hona hemen:

1
Bordegaraien semiak
ai ze fortuna bagiak,
urkamendiko oñian dago
hango laugarren semia.

2
Bordegaraien zaldie
lau anketan zurie,
zazpi pausotan pasatuten deu
zortzi arkuko zubie.

3
Bordegarairen alabak
ai ze andra fortunosak,
hamai urte dituzaneko
garrian ditu kopetak.

Hona aldatu ditugun hiru ahapaldi hauek gure ahapaldi bereizketari dagozkio. *Euskal Baladak. Antologia eta azkerketa* iturrian zein A. Zavalaren *Romancero Vasco/ Euskal erromantzeak* lanean batera agertzen dira[10]. Labayruko artxibora jo eta hango beste *performance* edo "kantaldi" bat behin eta berriro entzuteko aukera izan dut. (1982ko abenduan, Karmen Bernaolak egina, Eduarda Bilbaok 75 urte zituela.) Hona entzuten dudana:

1
Bordegaraien semiak
a se fortuna bagiak,
urkamendiko oiñian dago
ango laugarren semia.

2
Bordegarayen alabak
ai se andra fortunosak,
amabi urte dituesaneko
garrirañoko kopetak.

[10] Garai beretsuetako transkripzio bat baino gehiago daude. Maria Goiri mintegikoak, 1981eko abuztuaren 23an, Jesús Antonio Cid, Koldo Biguri, Gabriel Fraile eta Ruper Lekue izan ziran biltzaileak. Biltokia Dima-Bargundian jaio eta Aranzazu Arratiakoan bizi zen Eduarda Bilbao andreari jasoa. Argitaratu ere urte berean egin ziren, 1983. urtekoa da *Euskal baladak. Antologia eta azterketa* I, II (Hordago, Donostia) eta *Idatz & Mintz-Literatur Atalen Sorta*, 6, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbao, 1983, 16-17 or. Ezagutzen dudan baladaren azterketa monografiko bakarra Igone Etxebarriarena da "*Ana Juanita* baladaren ereduak eta azterketa", *Litterae Vasconicae-Euskeraren Iker Atalak*, 4, Labayru Ikastegia, 1988, Bilbo, 129-177 or.

3

Bordegarayen saldie
lau kadaretan surie,
saspi pasotan pasatuten dau
sortzi arkuko subie.

Bi *performance* hauetan ez da ahapaldien ordena zaintzen. Dauden bi aldaeratxo nabarmenenak *garrirañoko kopetak* da 1982ko aldaeran eta 1981ekoan *garrian hiru kopetak*. Era berean, *lau kadaretan surie* 1982ko aldaeran eta 1981ekoan *lau anketan zurie*. Hiru ahapaldi hauek ezer adierazi nahi dute? *Garrirañoko kopetak*, esaterako, zentzu gehiago du *garrian hiru kopetak* baino. Dannaeren mitoarekin zerikusia ote du?

11. BIZKAIKO MAÑARIKO ALDAERA ARGITARAGABEA

Azkuek bere CPV lanean, 424. zenbakian, 530. orrialdean, Bizkaian Mañariko Eladia Zabala andreari jasotako kantaren lehen ahapaldia dakar, baina ez da berak bildu zuen kanta osoa. Bere liburuan argitaratzen duen hari-muturra kantaren lehen ahapaldia baino ez da. Hari-mutur horretatik tiratu eta mataza osoa agertuko dugu hemen. Behin Azkueren paperetara jo dugunean, lehen ahapaldia ez ezik, beste bost argitaragabe berri ere aurkitu ditugu. Kanta transkribatu baino lehen, "Endecha" hitza irakurtzen dugu. "Endecha" hau euskaraz *eresia* dugu, edo A. Zavalari lehenengoz irakurri diogun bezala, *hil-eresia*.

Negu goizalde batean,
albakoaren otsean,
eskopetea kargadu neban
arri otzaren gainean,
bai eta gero deskargau bere
apaiz jaun orren aldean.

Azkuek bere kantutegian argitaratu zuen lehen ahapaldi hau apurren bat aldatua dago. Ahapaldiaren hasiera *Negu goizalde batean* izan beharrean, *Doñean ere goizean* da. *Doñean ere goizean* delakoak "San Juan egun goizean" esan nahi du, udako solstizioaren hasieran. Datu hau ikaragarri interesgarria da Chahoren ereduan ere berdin-berdin delako: *Joun dane Jouhane goïzian*. Azkuek *Doñean ere goizean* hasiera *Negu goizalde batean* hasierarekin trukatzen duenean udako egunik esanguratsuena negura dakar. Mañariko lehen ahapaldi honetan, bestalde, *arri otzaren gainean* sintagma beste balada batzuetan ere badator. *Amoros baztertua* balada gaian dator, Azkuek bildu baina argitaratu ez zuen kopla batean:

Zerua klaro danean eta
paseatzeko kalean,
paseatzeko kalean eta
arri otzaren gainean.

Foruan, Bizkaian, batutako *Neska ontziratua* ereduan:

Bein banengoan kalean
arri otzaren gainean
dama polit bat etorri jatan
an zer egiten nengoan.

Dantza-kopla batean baino gehiagotan ere aurkituko dugu. Hona hemen Ataungo kopla-bilduman datorrena:

Kalean nago kalean
arri otzaren gañean
atea iriki zazu
barrua sartu nerian.

Gure atal honetan sei ahapaldiak jarriko ditugu lerrokaturik, ortografia egokiaz.

1
Doñean ere goizean,
albakoaren otsean,
eskopeta kargadu neban
arri otzaren ganean,
bai eta gero deskargau bere
apaiz jaun orren aldean.

2
Apaiz jaun orren arreba,
neskato begi nabarra,
ni urkatuten nazala entzunda
kontentu artzen al dona?
euk bere bada laster izango'n
neuk daroadan zigorra.

3
Ogei ditut urterik,
ogeta bost andrarik,
aren guztien artean bere,
ez Maripepa langorik.

4
Gorantzi bada gorantzi;
gorantzi Mari Pepari,
ak emoniko pañuelua,
borreru batek deust begi.

5
Borderagaiko etxea,
etxe portuna gabea,
urkamendiko soketan dago
ango boskarren semea.

6
Bordegarayen zaldia,
lau anketan da zuria,
iru saltuan pasauko leuke
zazpi estatuko zubia.



Mañarian, Bizkaian, bildutako *Apez beltza* baladaren eredua.

12. BIZKAIKO ALDAERA ARGITARAGABEA AHAPALDIZ AHAPALDI

Aurreko atalean Azkueren paperetan agertzen den eredu argitaragabea transkribatu dugu. Oraingo atal honetan jatorrizko eskuidatzian agertzen diren ahapaldi guztiak dauden daudenean transkribatuko ditugu, jatorrizko puntuazio eta grafiarekin. Atal honetan, jakina, ez ditugu ahapaldiak gaurko ortografian jarriko. Ez dugu, beraz, *hotsean*, *hartzen* eta abar transkribatuko, jatorrizko eskuidatzian datozen *otsean* eta *hartzen* baino. Behin ahapaldia iturrian bezala jarri ondoren, gure iruzkinez hornituko dugu atal hau. Hona hemen, beraz:

1
Doñean ere goizean
albakoaren otsean
eskopeta kargadu neban
arri otzaren ganean
bai eta gero deskargau bere
apaiz jaun orren aldean.

Lehen ahapaldi hau desberdin dator lehen dokumentuan, jatorrizko iturrian, eta *Cancionero*an. Zein da desberdintasun nagusia? Lehen bertso-lerroa. Gainerakoak ondo transkribaturik daude. Lehen bertso-lerroa ez da inondik inora ere *Negu goizalde batean,* beste zerbait den *Doñean ere goizean* baino. *Doñean ere goizean* ez da besterik *Donianean ere goizean* baino. Hau da, san Juan goizean. Uda hasten den egun seinalea, san Juan eguna, Azkuek "negu" bihurtzen du, itxurazko arrazoirik gabe. Hala izateko badira froga bat baino gehiago. Lehen bertso-lerro horretan *ere* hitza agertzen da eta ez Bizkaiko erara, geroago agertzen den "be(re)". Modu horretara, lehenago esan dugun bezalaxe, bateratasun bete-betekoa izango luke Chahoren kantutegikoarekin, bai eguna markatzeko orduan, bai eguneko aldian: goizean. Ohargarria da neguko eta udako solstizioek markatzen dituzten egunak (san Juan eta santa Luzia egunak) baladetan sarri agertzen direla. Euskal eremu urritxoan *Ana Juanixe*ren Ondarruko aldaeran santa Luzia gaua ikusten dugu. *Doniane* hitza agertu beharrean *Doñean ere* hori zergatik aldatu zuen? *Doniane*, esaterako, Legutioko *Gure ortuban sagarra loran/ Donianeko eldurik/...* horretan ikusten dugu.

Bateratasunak *kargadu/ deskargau* aditzetan ez ezik, aditz horiek txertatzeko egitura berezietan ere badaude. *Albakoaren otsean* horrek "albako kanpaiaren hotsean" esan nahi du, goizean goiz, beraz. *Albakoa* Bizkaiko euskaran albako kanpaia da, argi-ezkila, egun argitzearekin batera joten zen eta.

2
Apaiz jaun orren arreba
neskato begi nabarra,
ni urkatuten nazala entzunda
kontentu artzen al dona?
euk bere bada laster izango'n
neuk daroadan zigorra.

Ahapaldi honetako euskararen gainean, harrigarri egiten da batean *dona* eta bestean *don* agertzea emakumeen nokan. Azkuek dakarren *izango´n* hori ez da besterik "izango don" baten laburdura baino. Ahapaldi honen baliokideak dira *Pays Basque* liburuko laugarrena: *Aphez belcharen arreba,/ Ala nescacha adreta/ Ni galerazico, bainan/ Etzaun pizturen anaia*. Antzekoa da, era berean, GH 3. ahapaldia: *–Apez beltxaren arreba/ serora begi-ñabarra,/ ni galeraziren nun, bainan/ ez zain pizturen anaia,/ ni galeraziren nun, bainan/ ez zain pizturen anaia*.

Gure ahapaldiko euskarari begiratuz gero, *begi nabarra* irakurtzen dugu eta ez *begi ñabarra*. Hizkuntzaren aldetik ohikoagoa genuke Mañarian *abade jaun* ikustea eta ez *apaiz jaun*.

3
Ogei ditut urterik
ogeta bost andrarik,
aren guztien artean bere,
ez Maripepa langorik.

Harrigarria da ahapaldi hau. Ez dugu honen antzekorik beste inon aurkitu. Antzekoenak Chahoren V-VI. ahapaldiak dira. Chahorenean, zazpi amorek gelditzeko eskatzen diote Borthirigarai hiltzaileari. *Ogei ditut urterik*, batetik, *eta ogeitabost andrarik* egitura ez ote da bitxia? Antzeko zerbait ikusi dut Arrateko baladetan[11]: *Zeruan asko dagoz/ olibo adarrik,/ olibo adarrik eta/ lirio lorarik*.

Pertsona-izenei dagokienez, *Mari Pepa* ikusten dugu. Dantza-kopletan behin baino gehiagotan agertzen da emakume-izen bitxi hau. Eman ditzagun bi adibide, lehena Azkuek *Euskalerriaren Yakintza* lanean, 58. orrian dakarrena: *Mandiolan ei dagoz/ iru neskatila;/ asko egoten dira/ eurari begira*. *Bata da Mari Pepa/ bestea Karlota, irugarrena bere/ txairo txairoa da*. Bigarrena Zeanuriko kopladikoa: *Ortuen perejilla/ saleruen gatza/ ekarri Mari Pepa/ yan dogun lebatza*[12].

Transkripzioari gagozkiola, ahapaldiak ez du zailtasun handirik. *Andrarik* hitza baino lehenago zerbait idatzi du eta "andrarik" hitzaren bukaera *–rarik* gainean.

4
Gorantzi bada gorantzi;
gorantzi Mari Pepari,
ak emoniko pañuelua,
borreru batek deust begi.

Laugarren ahapaldi honetan badira hizkuntza-kontu harrigarriak. Hegoaldean, Bizkaialdean, *gorantziak emon, bialdu*… esaten da betiere pluralean, guk dakigula. Erdiko euskalkietan, Gipuzkoan, *eskum(u)iñak*. Bestaldekoetan, ostera, mugagabean *goraintzi*. Adibideak zenbat gura eman litezke. Interesa duenak jo beza *Orotariko Euskal Hiztegi* ederrera. Gure ahapaldi honetan *Gorantzi bada gorantzi* harrigarriaren gainean, are harrigarriago egiten duen *gorantzi Mari Pepari* esapidea dator. Ez dugu uste Hegoaldeko testu bakar batean ere mugagabean dokumentatzen denik. Bigarren ezustea *deust begi* esapidea da. Ez dugu uste beste inon aurki daitekeenik.

5
Borderagaiko etxea,
etxe portuna gabea,
urkamendiko soketan dago
ango boskarren semea.

[11] E E-XVIII, 738. or.

[12] Ez dago esan beharrik Pepa bere hutsean ere sarri xamar ikusten dugula dantza-kopletan. Izen hau zein Mari Pepa delakoak ez dira, itxura guztiek erakusten dutenez, tradizio zaharrekoak. Zeanuriko kopladia ikusi nahi duenak: Adolfo Arejita " Zeanuriko kopla zaharrak", EIHL, 1983, II, 223-236 or.

Ahapaldi zirraragarria da oraingoa. Hizkuntzari dagokionez. *Ana Juanixe* baladan txertatua dagoen lehen ahapaldiarekin antzekotasun handia du. Honela dio *Bordegaraien semiak/ ai ze fortuna gabiak/ urkamendiko oñian dago/ ango laugarren semia*. Bateratasuna eta aldaerak begi-bistakoak direnez gero, ez ditugu iruzkinduko. Ohargarria da esapideei dagokienez, "soketan egon" egitura.

6
Bordegarayen zaldia
lau anketan da zuria,
iru saltuan pasauko leuke
zazpi estatuko zubia.

Ahapaldi honen oso antzekoa, ia berdina huskeriaren bat gorabehera, ikusten dugu *Ana Juanixe* baladan kontaminazioz agertzen diren hiru ahapaldietako batean: *Bordegarayen saldie/ lau kadaretan surie,/ saspi pasotan pasatuten dau/ sortzi arkuko subie*. Aurkitu ditugun ahapaldi honen aldaera guztiak gorago aipatu artikuluan eman ditugu. Bitxi bezain harrigarri egiten zaigu muturretako bi euskalkitako ereduetan bakarrik, Bizkaikoan eta Zuberoakoan, aurkitzea ahapaldi hau. Chahoren III. ahapaldia eta gure Mañariko VI. ahapaldia bat datoz funtsean.

13. BALADAREN OIHARTZUNAK BESTE BALADA ETA KANTUETAN

Badira, denok dakigunez, balada batean eta bestean ikusten ditugun bizpahiru ahapaldi ezagun. Bereterretxeren kantoreko *Haltzak ez du bihotzik/.../* exordio famatua eta */.../ ehun behi bazereitzola/ bere zezena ondotik* gure baladaren bi aldaeratan ikusten ditugu. Aldaera bat 1857. urteko Francisque Michelen liburuan agertzen da, eta bestea, 1924ko GHkoan. *Atarratze jauregian* baladako *Ama saldu naizu/ miga bat bezala.* Bizkaiko *Frantziako Anderea* baladan ere ikusten dugu. Gai hau zehatz azterturik lan polit bat egin daiteke, inolako zalantzarik gabe. Eskuartean daukagun eredu honetan kontaminazioak edo bateratasunak bat baino gehiago ditugu. Ahapaldi interesgarri bat hauxe dugu:

Urteak zenbat egun tu?
Hemezortzitan hogoi tu.
Bortagarai jaun gazte horrek
hainbertze bertsu eman du.

Zer adierazi nahi du honek? Urtearen egun kopurua ematen da hogeinako euskal zenbaki-sistema zaharrean. Urteak ditu hemezortzitan hogoi egun, hots, 360 egun. Egun bakoitzean bertso bat kantatu badu Borthirigarai gazteak, hirurehun eta hirorogei bertso kantatu ditu. Hau da kantari datxekion leienda polita. Norbaitek bere nahigabea eta pasadizoa ehunka ahapalditan ematea. Elezahar hau gehienetan kartzelatuak dauden presoen pasadizoetan kontatzen da. Leienda hau Berdarioren kantan ere agertzen da. Horren gainean bildu genituen datu eta bibliografia guztia "Herri literaturako altxorrik handiena" lanean eman genuen (Kalzakorta: 2000). Gure balada honetan ere ematen da. Kasu honetan, ordea, hiltzailearen semeak, Erramunttok, kantatzen bide ditu aitaren gertaera guztiak. *Kanta Ber* izengoitiaz sinatzen duen egile ezezagun batek "La complainte de Borthagaray"[13] artikuluan honelaxe dio:

> *Hainbertze* confirme d'ailleurs la tradition qui veut que cette complainte compte autant de couplets que de jours dans l'année; Francisque Michel le supposait et avait du l'entendre dire. Un vieillard, que nous interrogions à ce sujet et qui, cela va sans dire, n'a jamais entendu parler du savant folk-loriste, nous dit avoir ouï dans sa jeunesse des couplets extrêmement nombreux de cette complainte et nous confirma

[13] *Gure Herria*, 1925 Urtharrila-Janvier, 49-52 or.

spontanément l'hypothèse de Fr. Michel, ajoutant même le détail suivant: "Borthagaray mourut juste après qu'il eut fini de chanter ce dernier couplet.

Ahapaldi honetako beronetako lehen bi bertso-lerroak ikusten ditugu Azkuek Saraitzuko Ezkorazen bildu zuen balada baten hasieran (RV, 160-162): *Urteak zenbat egun tu?/ Sorak kainbat zinta tu:/ erdiak ditu Probidoreanak,/ beste erdiak Urttik emanak*[14].

Bizkaiko hiru ahapaldiak, gorago ikusi dugunez, *Ana Juanixe* baladaren Arratiako eredu batean txertaturik aurkitzen ditugu. Hiru ahapaldi hauek antzekotasun bete-betekoa dute Mañariko gure ereduarekin, ikusi dugunez.

14. AZKUEREN LEHEN EREDU ARGITARATUA

Azkuek bere CPV lanean, 381. kantu-zenbakian, 477. orrialdean, bi eredu eskaini zituen. Lehen eredua lau ahapaldikoa da eta bi berriemaileren osatze bat da. Lehen ahapaldia eman zuena Graziosa Elejaurena Bozatekoa zen. Gainerako hirurak Battitte Sarri Hazparrengoak eman zituen. Puntu honetan bi berriemaileen puskak Azkueren landa-koadernoetan agertzen diren bezala emango ditugu.

Lehen ahapaldia ABA-RMA-002-0003-005 signaturan aurkitzen da. Kantaren gainean Arizkun jartzen du. Gainerako hiru ahapaldiak ABA-RMA-001-0002-001-2 signatura duen koadernoan dator, 869. zenbakian, *Hasp* laburdura duela. Hona lau ahapaldiak:

I
Ama, eldu naiz dolorez
eskua bete odolez,
apez gazte bat ilik eldu naiz
¡Oi! neure esku traidorez.

II
Urteak zeinbat egun tu?
Hemen zortzietan horoitu.
Bortehiruren seme horrek
hainbertze fertso eman ditu.

III
Aita jin zaundan gaztelurat
boneta diruz beterik:
–To, semea, nik etzikeyat
dirutan hire bizirik.

IV
–Aita, zaude iśilik
ez, otoi! eginnigarrik.
Bayonan urkaturen ezta
oi zure semerik.

Azkueren eskuizkribuetatik CPV lanera ez dago esateko moduko aldaketarik. Hazparrenen bildutako kantuan, *Urteak zeinbat egun tu* baladan, lehen ahapaldia transkribatu ondoren, Azkuek *Aita*

[14] Aldaera guztiak nahi izatera, ikus bitez Azkueren kantutegi eskuidatzian: 005-016-001-541 or.; 005-014-002-147-61 or.; 001-002-001-869-356 or.; 002-003-002-218-602 or.; 003-010 68 or.

jin zan dan gaztelura/ boneta diruz beterik,/ to seme nik transkribatu ondoren, ezabatu egin zuen geroxeago garbiago berriz transkribatzeko. Azparneko *Urteak zeinbat egun tu* desberdin dago transkribatua eskuidatzian eta CPV lanean, aldaketa bakarra *oroitu* hitzean dago. Eskuidatzian *horoitu* eta CPV lanean *orhoitu*. Zer ote da, bestalde, *hemen zortzietan orhoitu/horoitu* hori? Desitxuraturik dagoen zenbaki bat, inolako dudarik gabe. Zenbaki zuzena hauxe da: *hemezortzietan hogoi tu*. Bestela esan, urteak hemezortzi hogoi egun ditu. Hemezortzi hogoi, hogeikako euskaldunen sistema zaharrean 360 egun dira. Urteak dituen egunen kopuru zehatza, beraz.

Azken ahapaldian, Azkuek lehen idazkeran, *ez egin otoi nigarrik* idatzi du, eta, gero zuzenketa eginez, *ez otoi egin nigarrik*. Ohartzekoa da, bestalde, esaldi hori beste eresi batzuetan ere ematen dela, *Bereterretxeren kantorean* eta *Egunak zenbat egun tu* baladan.



ABA-RMA-002-0003-005



ABA-RMA-001-0002-001-2

15. AZKUEREN BIGARREN EREDU ARGITARATUA

Azkueren bigarren eredua Baztanen bildua da. Argibide hau ematen du Azkuek:

En la letra con que la buena Francisca (que a la sazón vivía en Maya) cantó esta linda endecha, se repetía algún concepto y había más de un barbarismo.

Baztango Maia herriko eresia bi ahapaldikoa da eta ABA-RMA-001-0002-001 signatura duen eskuizkribuan dator:

Oi, ama, dolorez
eskuak bete odolez.
Gizon bat hilik emen eldu naiz
nere esku traidorez.

Gizona balitz, deusik ez,
ezpalitz konsagratua,
konsagratua eta geyago
erriko parroko jauna.

Eredu honetan ere oso gutxi aldatu zuen Azkuek. Lehen ahapaldiko *Oi, ama, dolorez* hasiera *Ama, eldu naiz dolorez* bihurtu zuen. Lehen ahapaldiko bukaeran, *nere esku traidorez* apurren bat ukiturik, *¡Oi! neure esku traidorez* bihurtu zuen. Bigarren ahapaldian, *parroko* bildu arren, *parroku* agertzen da CPV lanean.



ABA-RMA-001-0002-001

16. AZKUEREN BI AHAPALDIKO EREDU ARGITARAGABEAK

Antonio Zavalak, VIII. eredu bezala, Azkueren bi ahapaldiko eredu argitaragabe bat eman zuen bere kantutegian. A. Zavalak honelaxe dio:

> R. M. Azkueren esku-idazkietatik. Hazparnen bildu omen zituan doiñu eta bertso auek; baiña emalearen izenik ez du esaten. Oker ez bagaude, etzituan iñon argitaratu.

Azkuek Hazparnen bildu zuen kanta ABA-RMA-001-0001-004-276 signatura duen eskuizkribuan aurkitzen da. Puntu honetan eskuidatziko bi ahapaldiei gure puntuazioa erantsiko diegu. Hona bi ahapaldiak eskuizkribuan datozen bezala.

Bortairu Garay Orzaizeko
Bortairu Ezpeletako,
hi Bordelen, ni Baionan,
o zer gizonak galduko!

Zortzi gizon hil nituyan,
zazpi laborariak,
zorzigarrena apez beltśa
hark bai nerama galtzera.



ABA-RMA-001-0001-004-276

A. Zavalaren transkripzioan bi ahapaldi hauek apurren bat aldaturik daude. Azkueren eskuizkribuan *zortzi gizon hil nituyan* dator; Zavalarenean, *Zortzi gizon hil nituen.* Azkueren eskuizkribuan, *zorzigerrena apez beltśa;* Zavalarenean *zortzigarrena apez beltxa.* Zavalak ongi transkribatzen du jatorrizko eskuidatziko *beltśa "*beltxa" bihurtzen duenean. Jatorrizko eskuidatziko *zorzigerrena*, ordea, "zortzigerrena" transkribatu beharko litzateke.

Bi ahapaldi hauek, bestalde, eredu moztu bezain interesgarria osatzen dute. Bi ahapaldietako lehena Chahoren ereduko azkenaren berdin-berdina da:

Borthiri garaï Orzaizeco
Borthiri Ezpeletaco
Hi Bordelen, ni Bayonan
Zer bi guizonac galduco

Harrigarria da zein berdinak diren Chahoren azken ahapaldi hau eta puntu honetara ekarri dugun Azkueren ereduko lehen ahapaldia: Hazparneko ereduko ahapaldia eta Chahok Zuberoan bildutakoa bat datoz bete-betean.

17. MARTIN LARREREN BIDARRAIKO EREDUA

Louis Dassance ikerlaria *Aphez beltza* baladaren eredu berrien bila zebilela Martin Larre bidarraitarrak eman zion eredu interesgarri bat. Eredu hau A. Zavalak bere baladategian IX. eredu bezala argitara eman zuen lehen aldiz. Dassanceren paperetan gordetzen dira ereduaren transkripzioa eta Martin Larreri bidalitako karta. *Cercle de L'union d'Ustaritz* deituriko kaierean Louis Dassancek Martin Larreri bidalitako karta baten zirriborroa aurkitzen da. Hona hemen:

Uztaritz, le 25-12-63

M. Larre adiskidea

Plazer handi bat egin nahi balin badautazu, arte[15] bat hartuko duzu eta papertto batean enetzat izkirioz ezarriko, dazkitzun bezala, erran nahi baitut zure aitacho zenaren ahotik ikasi bezala, Aphez Beltcharen kopla horiek.

Iduritu zait batean edo bietan Uztaritzez aiphu zela zuk eman kantuan. Eta toki izen bat bederen aditu dautzudala ez opitzenen zuen[16].

[15] Dassancek lehen idazkeran *artetto* idatzi duela dirudi.

[16] Dassancek *ez opitzenen zuen* edo horrelako zerbait transkribatu du.

Bertzalde ez balin bazautzu kopla bat edo bertze osorik heldu gogorat paperean emazu halere gogoan atchikia duzun hura pochi bat balin bada ere: irriskatzen baitu jadanik bilduak ditudan purruchketarik eskas duzuna osa ahal dezadan.

Hauxe da Louis Dassancek Martin Larreri bidali zion kartaren zirriborroa. Louis Dassancek zirriborro horretako bigarren erdian esaldi ezabatu eta berridatziak ditu. Dassanceren eskutitza laburra bezain zehatza da. Zer nahi duen garbi daki eta eskatzeko erabiltzen duen bidea ezin egokiagoa da. Martin Larrek erantzuna zintzo eman zion, eskutitza idatzi eta hilabetera, 1964ko urtarrilaren 29an datatutako eredua aurkitzen baita aipatu dugun kaierean. Eredu hau da A. Zavalak bere baladategiko IX. puntuan transkribatu zuena. Hona hemen Dassanceren dokumentuaren transkripzioa:

Aphez beltxaren kantuak

De Martin Larre, Anxoxuria, de Macaye, 60 ans, qui les tenait de son grand-père maternel, décédé en 1930, à 89 ans originaire de Bidarray.

1
Harma kargatu nian
Uzta sorhoaren gainean
Bai eta deskargatu Hortza plazaren erdian.

2
Urtxoa johan airian
Ihiztaria guardian
Nik tiroa ezarri dut Aphez beltxaren gainean

3
Aphez beltxaren arreba
Neska begi ñabarra
Ni galarazi nun bainan ez dun izanen ene anaia.

4
Uztaritze herria
Ehiz izaitez berria
Hitarik jaki zautak ene bi semen sortzea

5
Ene andrea Maria
Ezkoa bezein horia
Uztaritzen omen zaude bi muttikot[t]oz erdia

6
Ene seme Erramuntto
Uztaritzen sorthua
Zer gizonak adituko duen hir'aita duk urkatua

"Lehen eta azken pertsua"

Urtheak zenbat egun tu
Hemezortzitan hogoi tu
Borthagaray jaun gazte horrek hainbertze bertsu eman du.

Quelqu[e]s mariages[17] de Larre:

> Haltzak ez dik bihotzik! Ez gaztanberak hezurrik
> nik enian uste iten zutela aitoren semek gezurrik.

Puntu honetan Martin Larre eta Louis Dassanceren arteko karta trukaketatik ateratako dokumentuen transkripzio osoa egin dugu. A. Zavalak transkribatutako testutik gure oraingo puntuko testuetara badago desberdintasunen bat. Martin Larre Makeakoa *Anxoxuria* etxekoa zen. A. Zavalak *Auxoxuria* transkribatzen du, baina nahikoa argi dago *Anxoxuria* dela. A. Zavalak kontsonante aspiratuak ez zituen transkribatzen. Jatorrizko testuko *aphez*, *sorho*, *sorthu*, *urthe*, *Borthagaray* hitzak "apez", "soro", "sortu", "urte", "Bortagarai" transkribatu zituen. *Harma*, *hortza*, *ihiztaria*, *hitarik* hitzak dauden-daudenean transkribatu zituen. Bosgarren ahapaldia duda sortzekoa da. Dassanceren eskuidatzian *muttikotoz* dator, baina *Erramuntto* seigarren bertsoan. Uste izatekoa da, beraz, *muttikot[t]oz* izan behar zuela.



LOUIS DASSANCE
INGÉNIEUR AGRONOME
USTARITZ
(B.-P.)

USTARITZ. LE 25-12-63

M. Larre adiskida,

Plazer handi bat egin nahi balinbadautzue,
artetik bat hartuko dugu eta papertto
batean enetzat iskiriz ezarriko, daskizun bezala
bezala, esan nahi baitut zure aitatxo zenaren
ahotik ikasi bezala, Aphez Beltcharen
kopla horiek.

Idurita zait batean edo bietan Ustaritzen
aiphu zela zuk emaun kantuaren
neu bat bederen adibi dautzadala ez ogitzen.
Bertzalde, batean edo bertzean, ez balinba-
dautzu kopla bat osorik helaru gogoan
papereau emazu hakere gogoan atchikiko dueun hure
hura = irriskatzen baitu jadanik bilduak
dituen purruchketatik eta dueun oso ahal
izan dezakeen eskas
dueunaren osatzeko dezaken

Louis Dassancek Martin Larreri idatzitako eskutitzaren zirriborroa.

[17] Ez da hitza ondo irakurtzen. Lehen aldian *muniage* irakurri dugu. Bestalde, *mariage* hitza ere bitxi egiten zaigu.

Apher beltxaren kantuak

De Martin Larre, ansoxuria, de Maranje, qui le tenait de son grand-père maternel, décédé en 1936, à 89 ans - originaire de Bidarray

60 ans

1 Harma karzatu nian
Ustà sorhoaren gainean
Baietz dekarzatu Hortza plazaren erdian.

2 Urtxoa johan arrian
Zhurtasia guardian
Nik tiroa erarri dut Apher beltxaren gainean

3 Apher beltxaren arreba
Neska bepi ñabarra
Ni galaraji num bainan erdun izaren ene onaia

4 Ustaritze herria
Ehiz iratze berria
Hitarik jali zautak ene bi semen sortzia

5 Ene andrea Maria
Esko a bezein horia
Ustaritzen aren zaude bi mutikotze erdia


6
Ene senne Erramuntto
Ekhariten sorthua
Ser gironak aditeko duen hir'aita duk urkatua
Macaye 29-1-196[illegible]
"Lehen eta azken pertsua"
Zorthzak zembak egun tu
Hemerortzitan hogoi tu
Borthagaray Jaun jarte horrek hambertzbertsu eman du.
Gueltzes mirages de Lam:
Haltzak en dek di hotzik / En gartarbeak hezurrik
Nik emian uste iten zutela auto ren semek gezurrik
Completi copiú dam un cahier ayant appartenu à Geoffs

Martin Larreren *Apez beltza* baladaren eredua. Louis Dassanceren kopia.

18. AZKEN ONDORIO GISA

Jatorriz Baxenabarrekoa den balada baten Zuberoako eta Bizkaiko aldaerak ikusi nahi izan ditugu atal honetan. Bizkai-Zuberoak Euskal Herriko bi muturrak dira, sortalde-sartaldeak, begi-bistakoa denez. Euskal Baladak euskararen eremu guztian izan duen oihartzunaren lekuko argi dira orain arte *Ana Juanixe* baladan agertzen ziren hiru ahapaldiez gain, gure lan honetako Mañariko aldaera eta Chahorena.

Pertsonaia nagusiaren izenak ere ez du aldaketa nabarmenegirik egin, *Borthirigarai* ikusten dugu Chahoren aldaeran, *Borthagarai* Francisque Michelenean, *Borthegarai* 1924ko GHkoan. Bizkaikoa, *Bordegarai,* Mañariko eta Arratiako aldaeretan.

Hona Jesús Antonio Cidek bere "Romancero hispánico y balada vasca" lanean esandako hitzak gure lana giltzatu eta laburbiltzeko:

> "En suma, creo que puede hablarse de la balada oral vasca como un género unitario y común a todo el país, aunque la unidad "originaria" aparezca hoy fracturada, y a simple vista sean más perceptibles las diferencias que las similitudes entre el área occidental y el Norte".

Ondorio honetara iritsi baino lehen, sartaldekotzat ematen ziren baladetan –eta sartaldean Bizkaikotzat batez ere– sartalderago –Nafarroan eta are Iparraldean– aurkitu diren baladez hitz egiten du, aurrena. Berdin alderantzitara ere, sortaldekotzat –Lapurdi, Baxenabarre, eta Zuberoa– ematen ziren baladen eta sartaldean aurkitu diren balada beren aldaeren garrantzia azpimarratzen du, hurrena. Hona haren hitzak:

> "La existencia de un fondo primitivo común en el repertorio de la balada vasca, y la difusión más amplia de ciertos ballad-types que en principio parecían limitados a una tradición local o a una sola de las dos "ramas", se ha ido imponiendo como evidencia en estos últimos años gracias a las nuevas encuestas

y a la aparición de textos inéditos. “Ana Juanixe”, por ejemplo, parecía una balada propia de la zona costera (Mutriku, Ondarroa, Bermeo), en tanto en cuanto reflejaría un suceso “local” acaecido en Mutriku; se conocían, sin embargo, textos y fragmentos de la zona interior del País, que junto con nuevas versiones nos dan idea de una difusión mucho más amplia (Amorebieta, Galdakao, Lezama, Eibar); súmese las versiones muy notables recogidas recientemente en Arratia, y estrofas sueltas procedentes de Sunbilla y Aranaz, y el resultado es el de una balada poco menos que “pan-euskérica”, puesto que el principio de “Ana Juanixe” sirve de incipit a una versión labortana de un poema dialogado, que en mi opinión no es narrativa, “Atia kis-kos jo nion baña…”. De modo análogo, temas baladísticos que parecían confinados a sólo una de las dos grandes áreas del país han resultado tener su contrapartida en la otra. El caso más notable en este sentido es el de “Neska ontziratua”, que representa en la tradición oral vasca el tema baladístico del “marinero raptor” muy difundido en gran parte de Europa. La balada nos era conocida en textos del Norte, con el principio habial “Brodatzen ari nintzen” o “Egun batez ari nintzelarik…”, de gran belleza textual y melódica. Ha bastado, sin embargo, que se publicase completa la versión de Bermeo facilitada a Aitzol por M. Ziarsolo en 1936, y que se recogiesen en la década de 1980 otras versiones en verdad magníficas de Zamudio y Arratia, para que se advierta que el tema baladístico alcanzó difusión general en el país. Un ejemplo último: la balada de “Urtsua”, a que ya nos hemos referido, no era presumible que se difundiese fuera del área pirenaica, en cuanto expone un suceso trágico local del Baztán. Sin embargo Zavala publica un texto vizcaíno desconocido hasta ahora que tiene evidente parentesco con la balada navarra”.

5
ATHARRATZE JAUREGIAN BALADA

1. SARRERA

Euskal baladen artean balada gairik aztertuenetakoa *Atharretze jauregian* da. Jean de Jaurgainek 1900. urteko artikuluan "Quelques légendes poétiques du Pays de Soule" artikuluan azterketa gogoangarri bat eskaini zion. 1999. urtean Orpustanek artikulu bat eskaini zion gure baladari eta Jesús Antonio Cidek bi artikulu 2010ean. Artikulu guztiek ekarri interesgarriak badituzte ere, aipamen berezia zor zaie Cidek egindako azterketa bikainei. Geure atal hau osatzeko, Cidek lehen dokumentu eta guzti dakartzan ereduak ez ditugu berriro atal honetara ekarriko. Han esanak ez ditugu hona berriz ekarriko. Gure atal honetan zenbait eredu finkatu nahi genituzke: Chahoren ereduak eta Arxüren eredu argitaragabe bat. Nahiz eta ezer berririk eskaini ez, Bordatto eta Prada kaiereko ereduak ere ekarriko ditugu gure atal honetara. Antonio Zavalak XII. eredutzat dakarren Aitzolen bildumako lehen dokumentua ez dugu aurkitzerik izan.

2. *ATHARRATZE JAUREGIAN* BALADAREN ARGUDIOAZ

Ez da batere erraza argudioa hitz bitan laburbiltzea. Baladaren argudioak dituen alderdi ilunak Orpustanek eta abarrek salatu dute. Hona hitz bitan argudioa.

Aita bati Ongriako erregeak (beste eredu batzuetan Ongriagaraik) alaba baten eskua eskatzen dio. Aitak alabak gazteegiak direla eta ezkontadinera datozenean hartuko duela andretzat erantzuten dio. Ezkontzeko adinera direnean, alaba batek gogoz kontra ezkontzera behartua sentitzen denean, bere heriotza laster sumatzen du.

Jean-Baptiste Orpustanek Atharratze jauregian baladari eskaini zion lanean (Orpustan: 1999) balada honen gaineko Ortzaizeko ahozko testigantza bat eman zuen frantsesez:

> Il me souvient d'avoir entendu donner à notre mère interrogée à ce sujet l'explication suivante: La fiancée, ayant sans doute appris que c'est le vent du nord qui soufflait, s'était jetée par la fenêtre de sa "salle", celle-ci située haut à l'étage comme dans toutes les maisons-tours de facture médiévale qu'étaient les anciennes maisons nobles principales. Ainsi prenaient sens les allusions funèbres ("mis–pour Chaho– ou enterré dans la tombe", glas, habits de deuil), et surtout l'expression "ene khorpitzaren cherca jin dadila sarri".

Jean-Pierre Orpustani bere amak eman zion euskarako azalpena nola zen galdetu genion mezu batean eta hauxe erantzun zigun[1]:

> Orhoit niz gai hortaz galdekatu gure amari entzuna ukanik darraikan argibidea emaiten: "Emaztegaiak, ufatzen zuena iphar haizea zela jakinik agian, bere burua "salako" leihotik egotzi zuen, hau estaian gora jarria[2]".

Orpustanek guri emandako euskarazko erantzuna lan honetan txertatu nahi izan genuen. Frantseseko testuak balio badu ere, amak Orpustani euskaraz eman zion eta Ortzaizeko euskarazko testigantza nahi izan dugu lan honetan txertatu.

3. *ATHARRATZE JAUREGIAN* ETA BESTE BALADA BATZUETAKO AHAPALDIAK

Hegoaldeko *Frantziako anderea* balada ereduetan ere, Mikel Agirreazkuenagak Munitibarren bildutako eredu batean, *Atharratze jauregian* baladako pasartea dator (Agirreazkuenaga: 1991).

Aita bizi dodan lez
bizi banuen ama,
enenduela salduko
Espain urrunera.

Aita[k] saldu nenduen
idi bat bezala,
kenduteko bizia
Espain urrunera.

1870. urtean argitara eman zen Salaberriren liburuan datorren ereduan *Andre Emili* baladaren ahapaldi bat ere badator:

–Aita, zü izan zira ene saltzale,
anaie gehiena dihariren hartzale,
anaie artekua zamariz igaraile,
anaie xipiena ene lagüntzale.

Atal honetan emango ditugun Prada eta Bordatto kaieretako ereduetan ere ahapaldi hau badator. Bi kaier horietako eredua, itxura guztiak direnez, Salaberriren liburuan datorren ereduko kopiak dira.

4. CHAHOREN EREDUAK

J. Augustin Chahoren ereduak Bergarako Telesforo Monzonen Olaso torreko funtsean gordetzen den eskuidatzian daude. Testu originalak ez ditut eskuartean izan testuen kopia digitalizatua baizik. Hiru ereduak elkarren ondoan transkribaturik aurkitzen dira 132, 133, 134, 135 eta 136. argazkietan. Lehen

[1] Erantzuna 2015eko ekainaren 28koa da. Orpustanek berak idazten duen bezala: Ekhain 28-an.

[2] Orpustanek idazten didanez beste aukera bat du azken esaldiak: estaian gora jarria zen "salako" leihotik bere burua egotzi zuen.

eredua, sei ahapaldikoa, 132. argazkian dator eta ez du izenbururik. Eredu hau, garbi froga daitekeenez, Arxüren eskutikakoa da. Bigarren eredua 133. argazkian dator, hiru ahapaldi ditu eta *Santa-Clara* du izenburua. Hirugarren eredua bi argazkitan dator 134 eta 135. argazkietan. 134. argazkian lehen hiru ahapaldiak datoz eta 135. argazkian gainerako ahapaldiak. Hirugarren ereduak ere *Santa-Clara* izenburua du. 136. argazkian *Santa-Clara* izenburuarekin kantuaren pentagrama dator. 136. argazki honek *Atharratze jauregian* baladaren gaineko ohar bat frantsesez dakar:

> Complainte de la fille du Compte de Luxe mariée contre son grée au roi de Hongrie. Il a, sur un monticule, près d. Tardets, les ruines du château qu'elle habitait.

Ohar hau da, bere laburrean, *Atharratze jauregian* baladako argudiorik zaharrena. Chahoren paperen artean, beraz, *Atharratze jauregian* baladako hiru eredu daude elkarren segidan. Balada beraren hiru eredu horiek zerikusirik ba ote dute elkarren artean? Bestela esan, hiru eredu horietako bat bestearen kopia edo garbiratzea ote da? Edo hiru eredu desberdin ote dira?

Gure lan sistema kontuan harturik egingo dudan lehen lana eredu guztiak transkribatzea eta iruzkintzea izango da. Lehen helburu nagusia eskuizkribuaren transkripzio zuzena egitea da. Transkripzio zuzen hau finkatu ondoren transkripzio-arazoen eta testuaren gainean hitz egingo dut. Lehen transkripzio zuzen hau guztiz beharrezkoa da testua finkatzeko. Chahoren *Atharratze jauregian* balada aztertu eta transkribatu duten ikertzaileek, Patri Urkizuk eta Jean-Baptiste Orpustanek, ez dute lehen transkripzio hau egin, eta zenbait hitz eta aditzetan transkripzio okerra eskaintzen dute, inolako dudarik gabe. Lehen transkripzio honetan eskuidatziko testua errespetatzea da xede nagusia, goraxeago esan dudanez. Lehen transkripzio honetan irakurketa zuzena eskaintzeaz gainera, ahapaldietako lerroak tolesteko modua ere errespetatuko da. Lehen transkripzioan ahalik eta datu argigarri gehienak ematen saiatuko naiz: letraren ezaugarriak, transkribatzailea nor izan litekeen, eredu bakoitzaren aldaerak eta abar.

4.1.*Chahoren lehen ereduaren transkripzioa*

A. Xahoren lehen eredua 132. argazkian dator. Orrialde bakarrean datorren lehen eredu honek ez du izenbururik. Lehen eredu honek sei ahapaldi ditu eta ez du transkripzio aldetik, oro har, zailtasun handirik eskaintzen. Lehen ereduko sei ahapaldiek zenbakirik ez dutenez gero, ahapaldi bakoitzaren gainean zenbaki bat jarriko dut.

Eredu hau Patri Urkizuk B aldaera deitzen du (version B). Eredu honen letrak argi salatzen du nor den transkribatzailea: Jean Baptiste Arxü. Arxüren *Chants populaires du Pays Basque* eskuidatziko *Atharratze jauregian* balada eta Chahoren funtsean dagoena parez pare erkatu eta esku berak transkribatu dituela erraz ondorioztatzen da.

(1)
Atharatce jaureguian bi citroin doratu
Ongriagaray horrec batto du galdatu
Errapostu eman deie eztirela onthu
Ontcen direnian batto ukhenen du.

(2)
Aita saldu naïzu migabat bezala
Bai eta desterratu España barnara.
Ama bici izan banu, aita zu bezala,
Nintzan ni esconturen Atharatze salala.

(3)
Ahispa, jauntz ezazu aropa pherdia,
Nic ere jauntziren dut Satina churia,
Ingoitic hor heldu da zure Senhar gueya
Botzez utz ezazu zure sort etchia.

(4)
Aita, joanen guira oro elgarrekin
Etcherat jinen cira chagrin handirekin,
Bihotza cargatua, beguiac bustiric,
Eta zure alhava thomban ezariric

(5)
Ahispa, zoazi orai salaco leihora,
Iphar ala hegoa, cer den jakitera.
Ipharra balin bada, gorainci salari
Et'aldiz ene tcherca jin dadila sarri.

(6)
Atharatzeco zeiñiac tristeric du joiten
Andere Santa clara bihar da phartitzen.
Haren peco zaldia urrhez da zelatcen.
Hanco tchipi handiac belchez di[ra] bestitcen.

4.2. *Chahoren lehen ereduaren iruzkina*

Atal honetan ahapaldiz ahapaldi iruzkinduko dut Chahoren lehen eredua.

(1)
Atharatce jaureguian bi citroin doratu
Ongriagaray horrec batto du galdatu
Errapostu eman deie eztirela onthu
Ontcen direnian batto ukhenen du.

Transkribatzaileak *batto* zenbakiaren gainean marra luze bat jarri du. Lehen ahapaldi honetan ezin da zehatz jakin *Errapostu* edo *Errepostu* jartzen duen transkribatzaileak gaineko lerroko *Ongriagaray* hitzaren bigarren –g– hori behera asko luzatu baitu. Bi hitzen artean *Errepostu* hitzaren alde jokatu dut, nahiz eta beste aukera ere guztiz posible den. Transkribazaileak *Errepostu eman* kolokazioa baino lehen *Errepostu izan* jarri du lehen aldian. Lehen aldiko idazketa zuzendu du transkribatzaileak *izan* aditzaren gainean *eman* jarriz.

(2)
Aita saldu naïzu migabat bezala
Bai eta desterratu España barnara.
Ama bici izan banu, aita zu bezala,
Nintzan ni esconturen Atharatze salala.

Ez du ahapaldi honek transkripzio-arazorik. Adizkiei gagozkiela *Saldu naïzu* dator –i– bokalaren gainean bi puntu dituela; *bici izan banu* aditzean –u– bokalaren gainean marratxo bat dator. Ahapaldi



Chahoren *Atharratze jauregian* baladaren lehen eredua.

honetako baldintzaren ondorioari dagokionez, *ez nintzan ni esconturen Atharatze Salala* izan behar luke. Marka kasuei dagokienez, *España barnala* izan beharko luke, gainerako beste adibideetan bezala.

Bertso-lerro guztien hasiera, bestalde, letra larri kaligrafikoz idatziak daude akronimo bat osatu nahirik bezala.

(3)

Ahispa, jauntz ezazu aropa pherdia,
Nic ere jauntziren dut Satina churia,
Ingoitic hor heldu da zure Senhar gueya
Botzez utz ezazu zure sort etchia.

Ahapaldi honek badu transkripzio arazo bat edo beste. Transkribatzaileak lehen idatzialdian *Ahispa, jauntz ezazu aropa pherdia* idatzi du, baina gerora *aropa* hitzaren gainean *zuc saya* idatzi du. Bi modutara, beraz, irakur daiteke *Ahispa, jauntz ezazu aropa pherdia* edo *Ahispa, jauntz ezazu zuc saya pherdia*. Bestela esan, *aropa* hitzak hiru silaba dituenez gero, *zuc saya* batez ordezka liteke. Ez dut uste, beraz, Patri Urkizuk eskaintzen duen *Ahizpa, jauntz ezazü saia pherdia* irakurketa posible denik. Transkribatzaileak, bestalde, *Ingoitic hor heldu zure Senhar gueya* jarri du lehen idatzialdian eta gerora *heldu* eta *zure* hitzen artean –da– goian jarri du (*da* adizkia idazteko lehenengo *du* idatzi duela dirudi, eta zuzenketa eginez *da*).

(4)

Aita, joanen guira oro elgarrekin
Etcherat jinen cira chagrin handirekin,
Bihotza cargatua, beguiac bustiric,
Eta zure alhava thomban ezariric

Transkripzio arras aratza du ahapaldi honek. Ahapaldi honetan *bustiric* izan behar badu ere, ez da argi ikusten transkribatzaileak *busti–* eta *–ik* artean zer idatzi duen. Zerbait garbian ateratzekotan zentzurik ez duen –o– bat ikusten dut.

(5)

Ahispa, zoazi orai salaco leihora,
Iphar ala hegoa, cer den jakitera.
Ipharra balin bada, gorainci salari
Et'aldiz ene tcherca jin dadila sarri.

Testuak ez du adabegi ez harakaitzik. Azken bertso-lerroan *Et'aldiz* irakurtzen da, nahiz eta erdiko –t– iluntxo egon. Orpustanek irakurketa txar bat egiten duela deritzot, *Ahispa, zoazi orai salaco leihora* beste modu honetara irakurtzen baitu: *Ahizpa zuaza ora Salaco leihora*. Irakurketa honetan jatorrizko *zoazi* adizkia "zoaza" irakurtzen du eta jatorrizko *orai* adberbioa ezer ez den "ora".

(6)

Atharatzeco zeiñiac tristeric du joiten
Andere Santa clara bihar da phartitzen.
Haren peco zaldia urrhez da zelatcen.
Hanco tchipi handiac belchez di[ra] bestitcen.

Azken ahapaldi hau ez da guztiz ondo inoiz transkribatua izan. Patri Urkizuk hasierako *Atharatzeco* genitibo lekuzkoa *Atharretzeko* transkribatzen du. Jean-Baptiste Orpustanek jatorrizko eredutik hurbilago: *Atharratzeco*. Arazorik handiena, ordea, azken lerroan dator. Azken lerroan *Hanco*

tchipi handiac belchez di bestitcen irakurtzen da eta ez *Hanco tchipi handiac belchez dira bestitcen*. Jatorrizko testua transkribatzeko orduan, beraz, *Hanco tchipi handiac belchez di[ra] bestitcen* egin behar da. Azken ahapaldi honen ezkerretara, bestalde, bi ilununе edo orban ikusten dira. Orban horietako batek testua apurren bat zaildu egiten du. Azken lerroa *Han txipi handiak beltzez dira bestitzen* transkribatu du Patri Urkizuk irakurketa guztiz okerra eginez. Orbanak *Hanco* hasiera horren azken –co genitibo lekuzkoaren marka apurren bat indargetu egiten du, baina arreta apur batekin guztiz irakurgarria da. Orpustanek garbi irakurri eta transkribatu du: *Hanco tchipi handiac Belzez dira bestitzen*.

4.3. *Chahoren lehen eredua ortografia gaurkotuan*

Lehen dokumentuaren lehen transkripzioari ematen diogu batez ere garrantzia. Bigarren transkripzio hau gaurko ortografiara hurbiltze saio bezala ulertu behar da.

(1)
Athar[r]atze jauregian bi zitroin doratü
Ongriagaray horrek batto du galdatü.
Errapostü eman deie eztirela onthü,
ontzen direnian batto ükhenen dü.

(2)
–Aita, saldu naizü miga bat bezala,
bai eta desterratü España barnara.
Ama bizi izan banü, aita zu bezala,
[ez] nintzan ni ezkontüren Athar[r]atze Salala.

(3)
–Ahizpa, jauntz ezazü ar[r]opa pherdia,
nik ere jauntziren düt satina xuria,
Ingoitik hor heldü da zure senhargeia
botzez utz ezazü zure sortetxia.

(4)
–Aita, joanen gira oro elgarrekin
etxerat jinen zira xagrin handirekin,
bihotza kargatüa, begiak bustirik,
eta zure alhaba thonban ezar[r]irik.

(5)
–Ahizpa, zoazi orai salako leihora,
Iphar ala hegoa, zer den jakitera.
Ipharra balin bada, goraintzi Salari
eta aldiz ene txerka jin dadila sarri.

(6)
Athar[r]atzeco zeiñiak tristerik dü joiten,
andere Santa Klara bihar da phartitzen.
Haren peko zaldia ürrhez da zelatcen.
Hanko txipi-handiak belxez di[ra] beztitzen.

4.4. *Chahoren bigarren eredua*

Bigarren eredu honetako ahapaldiak beste era batera tolesturik aurkitzen dira lehen dokumentuan.

(1)
Atharatze jaüreghian
Zitrogna loratu
Hongriako erreghek
Batgno du galdatu
Ukhen du arrapostia
Eztirela hountu
Hountu diratinian
Batgno ukhenen du.

(2)
Aïta saldu naïzu
Idi bat bezala
Bai abandonatu
Ezpanintzan bezala
Ama bizi ukhen banu
Aita zu bezala
Enunduzun ez jouanen
Hongrian behera
Bena baï ezkounturen
Atharatze Salala

(3)
Atharratzeko zegniak
Berak arrapikatzen
Andere Santa Klara
Herritik phartitzen
Hanko tchipi handiak
Dira beltzez beztitzen
Haren peko zaldia
Da chouriz estaltzen…

4.5. *Chahoren bigarren ereduaren iruzkina ahapaldiz ahapaldi*

A. Chahoren bigarren eredua 133. argazkian dator, lehen ereduaren ondoren. Bigarren eredu honek Arxüren ortografia eredua eta eskua garbiro erakusten ditu. Bigarren eredu honen orrialdearen buruan *Santa Clara (Zouberoutarra)* zehaztasuna dator.

(1)
Atharatze jaüreghian
Zitrogna loratu
Hongriako erreghek
Batgno du galdatu
Ukhen du arrapostia
Eztirela hountu
Hountu diratinian
Batgno ukhenen du.



Chahoren *Atharratze jauregian* baladaren bigarren eredua.

Arxüren ortografian *zitrogna* eta *batgno* hitzak “zitroña” eta “batño” irakurri behar dira. Ahapaldi honetan lehen *batgno* hitzak –tg– horien gainean marra bat du, bigarrenak, ordea, ez. Azken lerroan *ukhenen* idatzi baino lehen *ukhan(en)* idatzi du transkribatzaileak.

(2)

Aïta saldu naïzu
Idi bat bezala
Bai abandonatu
Ezpanintzan bezala
Ama bizi ukhen banu
Aita zu bezala
Enunduzun ez jouanen
Hongrian behera
Bena baï ezkounturen
Atharatze Salala

Bigarren ahapaldi honek ez du sortzen irakurketa-arazorik. Hiru hitz bi modutara transkribaturik ikusten ditugu. Bigarren modua hobetsi dugu gure transkripzioan. Lehen lerroa *Aïta saldu nuzu* jarri du transkribatzaileak. Transkribatzaileak *nuzu* adizkiaren gainean, lehen –u– bokalaren gainean, –ai– jarri du. Lehen lerroa, beraz, *Aïta saldu nuzu* eta *Aïta saldu naïzu*, bi modutara izan liteke. Kontu bera gertatzen da azken aurreko bertso-lerroan ere. Lehen transkripzioa *Bainan baï ezkounduren* da. Transkribatzaileak *Bainan* eta *ezkounduren* hitzen gainean egindako oharrak kontuan izanik beste modu honetara irakurri behar da: *Bena baï ezkounturen*.

Transkribatzaileak bi modutara idazten du *bai* hitza: *baï/bai*.

(3)

Atharratzeko zegniak
Berak arrapikatzen
Andere Santa Klara
Herritik phartitzen
Hanko tchipi handiak
Dira beltzez beztitzen
Haren peko zaldia
Da chouriz estaltzen…

Ahapaldi hau aratza da, ez du transkripzio arazorik sortzen. Lehen lerroan *Atharratzeko* ikusten da garbiki, aurreko ahapaldian, ordea, *Atharatzeko*.

4.6. *Chahoren bigarren eredua ortografia gaurkotuan*

(1)

Athar[r]atze jauregian zitroña loratü,
Hongriako erregek batño dü galdatü.
Ükhen dü arrapostia ez direla huntü,
huntü diratinian batño ükhenen dü.

(2)

–Aita, saldü naizü idi bat bezala,
bai abandonatü ez banintzan bezala.
Ama bizi ükhen banü aita zü bezala,
ez nündüzün ez juanen Hongrian behera,
bena bai ezkuntüren Athar[r]atze Salala.

(3)

Atharratzeko zeñiak berak arrapikatzen,
andere Santa Klara herritik phartitzen.
Hanko txipi-handiak dira beltzez beztitzen,
haren peko zaldia da xuriz estaltzen.

4.7. *Chahoren hirugarren eredua*

I

Atharatze jaüreguian
Bi citroñ loratu,
Hongariaco erreguec
Batño du galthatu.
Arraposta ukhen du
Eztirela hountu,
Hountu diratinian
Batño ukhenen du

II

Aïta saldu naïzu
Idi bat bezala,
Baï eta desterratu
Espanintzan bezala,
Ama bizi ukhen banu
Aïta zu bezala,
Ni ezconturen nintzan
Atharratze Salala

III

Aïta, jouanen guira
Oro algarrekin,
Etcherat jinen cira
Changrin handirekin
Bihotza tristeturic
Beguiac bustiric,
Eta zure alhaba
Thumban ezariric

IV

Ahizpa jaünts ezazu
Saya berdia.
Nic ere jaüntsiren dut
Satina churia.
Ingoïti hor heltu da
Zure senhar gueya
Botzez utzi ezazu
Zure sorth' etchia.

V

Ahispa, zuaza oraï
Salaco leihora,
Iphar ala hegoua
Cer den jakitera,
Ipharra balinbada
Goraintzi Salari,
Et'aldiz ene tchercá
Jin dadila sarri.

VI

Atharratzeco ceñiac
Tristeric du joïten,
Andere Santa-Clara
Bihar-da phartitzen
Haren-peco zaldia
Urhez da zelatzen
Hanco tchipi handiac
Belzez dira bestitzen

VII

Atharratzeco ceñiac
berac arrapicatzen
Andere Santa-Clara
Herritic phartitzen
Haren-peco zaldia
Da chouriz estaltzen
Hanco tchipi handiac
Dira beltzez bestitzen

83

Santa - Clara.

I

Atharatze jäuregnian
Bi citroñ lorale,
Hongariaco erregnece
Batño dut galthatu.
Arraquna ukhen du
Ezteia hountu,
Nounta dirat Mirian
Batño ukhenen du

II

Aïta Saldu naïzu
Zoibat bezala,
Bai eta desesatu
Espainiatzan bezala, Hongarian beharra.
Ama bizi zathen tanu
Aïta Sic bezala,
Ni egonturen nintzan
Athe ireki ezazu
Saya berdia.
Nic erejäuntsiren dut
Salua churia.
Ingoïtic hor helthu da
Zure Senhar gueya
Belhaz utzi ezazu
Zure Sorth' etchia.

(nintzan)
nintzan (ni egonturen)

III

Aita, jonanen guiza
Oro algarretin,
Etcherat jinen-eira
Changrin handietin,
Bihotza tristaturic, languiac
Beguiac bustiric,
Era zure alhaba
Thumban ezarirle

—



Atharratze jauregian baladaren Chahoren hirugarren eredua.

Atharratze jauregian baladaren Chahoren doinua eta argibide historikoak.

4.8. *Chahoren hirugarren eredua ahapaldiz ahapaldi*

Chahoren hirugarren eredua 134. argazkian dator. Ereduaren gainean *Santa-Clara* izenburua dakar. Orrialdearen gainaldean, eskuinetara, 83. zenbakia dakar borobil batean sartua. Eredu honetako ahapaldiak, aurrekoak ez bezala, zenbaki erromatarrez zenbakiturik daude.

I
Atharatze jaüreguian
Bi citroñ loratu,
Hongariaco erreguec
Batño du galthatu.
Arraposta ukhen du
Eztirela hountu,
Hountu diratinian
Batño ukhenen du

Ahapaldi honen transkripzioak, oro har, ez du zailtasun handirik sortzen. Transkribatzaileak eman nahi izan duen eredua garbia da. Bigarren lerroan *erreguec* idatzi baino lehen badirudi *erregec* idatzi duela. Era berean, *diratinian* idatzi baino lehen *diratek–* idatzi duela dirudi.

II
Aïta saldu naïzu
Idi bat bezala,
Baï eta desterratu
Espanintzan bezala,
Ama bizi ukhen banu
Aïta zu bezala,
Ni ezconturen nintzan
Atharratze Salala

Irakurketa errazeko ahapaldia. Bigarren lerroan, *Idi bat bezala*, horretan *Idi bat* aurkeretariko bat da. Hitz horren ezkerretara beste aukera batzuk ere ematen dira: *anchu–bat, achuri–bat, biga bat*. Jatorrizko eskuizkribuan *Idibat* batera dator idatzirik. Laugarren lerroan *Ezpanintzan bezala* aukeraren ondoan beste bat ere badago: *Hongarian behera*. Azken-aurreko lerroan, ezkerretara, beste aukera bat ematen da: *nintzan ni ezcounturen* irakurtzen dut. Aukera hau, ordea, ez dirudi zuzena denik. Esaldiko hitzen hurrenkera kontuan izanik *enintzan ni ezcounturen* izan behar luke, hots, *ez nintzan ni ezcounturen*.

Patri Urkizuren irakurketan ez dira kontuan hartzen bigarren ahapaldi honetako aukerak. Testua, bestalde, ez dago ondo transkribatua. *Baï eta desterratu/ Espanintzan bezala* irakurri beharrean *Bai abandonatü ezpanintzan bezala* irakurtzen du.

III
Aïta, jouanen guira
Oro algarrekin,
Etcherat jinen cira
Changrin handirekin
Bihotza tristeturic
Beguiac bustiric,
Eta zure alhaba
Thumban ezariric

Transkripzio aski garbia da ahapaldi honetakoa. Duda bakarra bosgarren lerroak sortzen du. Zer dio *Bihotza tristeturik* edo *Bihotza tristaturik*? Itxura guztien arabera *tristeturik* bada ere, ezin da kategorikoki *tristaturik* ez denik baieztatu. Jatorrizko eskuizkribuan *tristeturik* hitzaren eskuin aldean *beguiac* ezabaturik dago. Patri Urkizuk lehen lerroa *Aita, joanen gira* transkribatzen du. Argi dago, ordea, eskuizkribuko *jouanen guira* aditzetik *juanen gira* transkribatu behar dela.

IV

Ahizpa jaünts ezazu
Saya berdia.
Nic ere jaüntsiren dut
Satina churia.
Ingoïti hor heltu da
Zure senhar gueya
Botzez utzi ezazu
Zure sorth' etchia.

Ahapaldi hau kantaren eskuin aldera idatzia dago eta III zenbakia du goian. Uste izatekoa da, beraz, ahapaldi hau hirugarrenaren ordain izan litekeela. Transkripzio honetan ahapaldi honi IV zenbakia jarri diogu. Uste dugu hori dela biderik egokiena hurrengo ahapaldiak eskuizkribuan V zenbakia darama eta.

Patri Urkizuk eskuizkribuko lehen bi bertso-lerroak *–Ahizpa, jauntz ezazü zük saia berdia* irakurtzen du. Irakurketa zuzena *–Ahizpa, jauntz ezazü saia berdia* da, inolako dudarik gabe. Bosgarren lerroa *Ingoïti hor heltu da/ Zure senhar gueya* dator eskuizkribuan. Patri Urkizuk, harrigarriro, *Ingoitik hor heltü dü zure senhar geia* irakurtzen du. *Ingoiti* hitzean ablatibo marka *–ti* da (Chahoren lehen ereduan, ordea, *ingoitik*); aditza *heltu da* irakurtzen da eta ez, inondik inora ere, *heltü dü*.

V

Ahispa, zuaza oraï
Salaco leihora,
Iphar ala hegoua
Cer den jakitera,
Ipharra balinbada
Goraintzi Salari,
Et'aldiz ene tchercá
Jin dadila sarri.

Ahapaldi honen transkripzioak ez du inolako arazorik sortzen.

VI

Atharratzeco ceñiac
Tristeric du joïten,
Andere Santa-Clara
Bihar-da phartitzen
Haren-peco zaldia
Urhez da zelatzen
Hanco tchipi handiac
Belzez dira bestitzen

Ez du zailtasunik eskaintzen ahapaldi honen transkripzioak. Azken lerroko *Belzez* hitzak ezkerretara *belchez* hitza du. Bi modutara ahozka litekeela adierazi nahi du, beraz. Ahapaldi honek

eskubitara beste aukera bat eskaintzen du: *Ata————/ Berac arrapicatzen/ A. S———-/ Herritic phartitzen./ Haren-/ da chouriz estaltzen/ Hanco tchipi handiac/ Dira beltzez beztitzen*. Ahapaldi honen aldaera, beraz, hauxe da:

Atharratzeco ceñiac
berac arrapicatzen
Andere Santa-Clara
Herritic phartitzen
Haren-peco zaldia
Da chouriz estaltzen
Hanco tchipi handiac
Dira beltzez bestitzen

4.9. *Chahoren hirugarren eredua ortografia gaurkotuan*

Ortografia modernora lehen transkripzioa ekartzeak arrisku handiak ditu. *Tristetü* aditza transkribatzeko arazorik ez dugu, baina *tristetürik* ondo ote dago? Bi transkripzioen artean, jakina, lehenari ematen diogu garrantzirik handiena.

I
Athar[r]atze jauregian bi zitroñ loratü,
Hongariako erregek batño dü galthatü.
Arraposta ükhen dü ez direla huntü,
huntü diratinian batño ükhenen dü.

II
–Aita, saldü naizü idi bat bezala,
bai eta desterratü ez banintzan bezala,
ama bizi ükhen banü aita zü bezala,
ni ezkontüren nintzan Atharratze Salala.

III
–Aita, juanen gira oro algarrekin,
etxerat jinen zira xangrin handirekin:
bihotza tristeturik begiak bustirik,
eta zure alhaba thunban ezar[i]rik.

IV
–Ahizpa, jauntz ezazü saia berdia,
nik ere jauntziren düt satina xüria.
Ingoiti hor heltü da zure senhargeia
botzez ützi ezazü zure sorthetxia.

V
–Ahizpa, zuaza orai salako leihora,
Iphar ala hegua zer den jakitera,
Ipharra balin bada, goraintzi Salari,
eta aldiz ene txerka jin dadila sarri.

VI

Atharratzeco zeñiak tristerik dü joiten,
andere Santa-Klara bihar da phartitzen;
haren peko zaldia ürhez da zelatzen
hanco txipi-handiak beltzez dira beztitzen.

VII

Atharratzeko zeñiak berak arrapikatzen,
andere Santa Klara herritik phartitzen;
haren peko zaldia da xuriz estaltzen
hanko txipi-handiak dira beltzez beztitzen.

5. ARXÜREN ESKUIZKRIBUKO EREDUA

Arxüren kaierean *Atharratze jauregia* baladaren izenburua lakonikoa da *Elégie*. Arxüren eskuidatziaren lehen plaman bere kaierari honako izenburu hau ematen dio: *Chants populaires du Pays Basque* recuellis par J. B. et P. Arxü 1840. Kantaren zenbakia 27 da. Arxük *Atharratze jauregian* balada letra onez transkribatu zuen inolako zirriborrorik gabe. Ahapaldiak ez daude zenbakiturik eta ahapalditik ahapaldirako tarterik ere ez da zaintzen. Arxük ahapaldi bakoitzaren lehen lerroan egiten duen sangratu batez lerroaren hasiera markatzen du. Kantaren bukaeran, Arxük askotan balada historikoekin egin ohi zuen bezala frantsesezko testu argigarri bat erantsiko du. Testu argigarri hori ikusi dugu *Aphez beltza* baladan eta *Urthubiako Alhaba* baladan ere bai. Arxüren eskuizkribuko eredua eta Chahoren lehen eredua bat datoz. Goraxeago esan dugun bezala, Chahoren lehen eredua Arxüren eskutikakoa da.

(1)

Atharratze jaureghian bi zitroin doratu
Ongriagaray horec batto du galthatu.
Arrapostu izandu etzirela hontu.
Hontzen direnien batto ukhenendu.

(2)

Aita, saldu naizu biga bat bezala
Bai eta desterratu Espagnian barna.
Ama bizi izan banu, aita, zu bezala
Ninzan esconturen atharratze Salala.

(3)

Ahizpa, jauntx ezazu arropa pherdia
Nic ere jauxieren dut satina chouria.
Ingoitic hor giten zure senhar gheia;
Botzez utz ezazu zure sorth etchia.

(4)

Aita joanen ghira oro elgarreki
Etcherat ginen zira chagrin handireki;
Bihotza kargatia, beghiac boustiric
eta zoure alhaba thounban ehortziric.

(5)
Ahizpa zoazi orai salaco leihora
Iphar ala hegoua denez jakitera.
Ipharra balin bada gorainzi salari
Ene khorpitzaren tcherca gin dadila sari.

(6)
Atharratzeco zeiñiac tristeric du joiten,
Andere Santa Clara bihar da phartitzen
Haren peco zaldia urhez da zelatzen
Hanco tchipi handiac belchez di beztitzen.

L'élégie qui précedè est extrê[me]ment vieille; elle est remarquable par la simplicité et la noblesse des sentiments. La jeune fille, forcé de prendre un époux dans la terre étrangère, et d'abandonner celui qui son coeur avait choisi, reproche à son père de l'avoir vendue comme une génisse. Prête à quiter la terre natale M. charge Zephir de porter à Sala ses dernières pensées. M. lui recommande d'aller en Espagne chercher promptement le cadavre de son amante.

Le départ de la jeune fille cause un deuil général dans la petite ville de Tardets. Chacun s'y revêt de noir.


27
Elégie.
Atharratze jaureghiaz bizitroiz doratu.
Ongriazaraz horec batto du galthatu.
Arrapostu izanbu etzirela hontu.
Hontzen direnier batto ukhenenbu.
Aita, salbu naizu bigabar bezala
Baieta desterratu Espaynian barna,
Ama bizi izan banu, aita, zu bezalaz
Ninzaz esconturen atharratze salalaz.
Ahizpa, jaunta erazu arropa phertia
Nic ere jauzi ereen dut salüna chouriaz.
Ingoitic hor giten zure sentar gheiaz;
Botzez utz erazu zure soth etchiaz.
Aita joanen ghira oro elgareki
Etcherat ginez zure chayrin handireki;
Bihotza kargatüa, beghiac boustiric
Eta zoure aitrabo thoumban ehortziric.
Ahizpa zuaz orai salaco leihora
Iphar ala hegoua denez jakitera.
Ipharra balin bada gorainzi salari
Ene khorpitzaren tcherca gin dadila sari.
Atharratzeco zeiñiac tristeric du joiten,
Andere Santa clara bihar da phartitzen,
Harenpeco zaldia urhez da zelatzen
Hanco tchipi handiac belchez di beztitzen.


L'élégie qui précède est extrêmement vieille; elle est remarquable par la simplicité et la noblesse des sentiments. C'est une jeune fille, forcée de prendre un époux dans la terre étrangère, et d'abandonner celui que son cœur avait choisi, reproche à son frère de l'avoir vendue comme une génisse. Prête à quitter la terre natale elle craint de porter à Sala ses dernières pensées. Elle lui recommande d'aller en Espagne chercher promptement le cadavre de son amante. Le départ de la jeune fille cause un deuil général dans la petite ville de Larceta. Chacun s'y revêt de noir.

Arxüren *Atharratze jauregian* balada.

6. *LE PAYS BASQUE* LIBURUA ETA ARXÜREN EREDU BERRIA

Arxüren eskuizkribuan datorren eredua sei ahapaldikoa da. 1857. urteko Francisque Michelen *Le Pays Basque* liburuan 265. orrialdean datorrena ere sei ahapaldikoa da. *Atharratze jauregian* baladako eredu asko hamar ahapaldikoak dira. Hemeretzigarren mende hasierako ereduak ez dira zertan osoagoak izan. Ikusi besterik ez dago Chahoren hirurak eta Arxüren eskuizkribukoa.

Le Pays Basque liburuko eredua eta Arxürena bat datoz edukian. Bi ereduak, ordea, eredu desberdin bi dira. Arxüren kaiereko eredua berria da, orain arte argitara gabekoa. *Le Pays Basque* liburuan datorren ereduak ez du, bestalde, Arxük erabili ohi zuen ortografia sistemarik. Arxüren eskuizkribuko ereduak, zuzen den bezala, Arxüren ortografia sistema darabil. Arxüren ortografia sistema salatzen dute *jaureghi* eta *senhar gheia* hitzetako –*ghi*– eta –*ghe*– ortografia sistemak. *Le Pays Basque* liburuko ereduak ez du ortografia sistema bera, *Atharrats jaureguian* eta *jaun gueia* transkribaturik aurkitzen ditugu eta. *Le Pays Basque* liburuko ereduak izenburua *Atharratceco escongaia* du eta azpian *(Suberotarra)* azalpena. Baladako gertaerak zuberotarrak dira baina euskara eredua mendebalderagokoa da, gure ustez.

A. Zavalak bere baladategian zazpigarren aldaeratzat Blanc Saint-Hilaireren *Les Euskariens ou Basques, le Sobrarbe et la Navarre. Leur origine, leur langue et leur histoire* liburuan datorren aldaera dakar. Aldaera hori ez da berria, *Le Pays Basque* liburutik hartua baino.

7. ARXÜREN EREDUA AHAPALDIZ AHAPALDI

Puntu honetan Arxüren eredua iruzkinduko dugu ahapaldiz ahapaldi.

(1)
Atharratze jaureghian bi zitroin doratu
Ongriagaray horec batto du galthatu.
Arrapostu izandu etzirela hontu.
Hontzen direnien batto ukhenendu.

Lehen ahapaldi honetan argi dio *bi zitroin doratu* eta ez *bi zitroin loratu*. Lehen ahapaldi honetan duda izpi bat sortzen du lehen *batto* delakoak. Duda sortzen du gaineko *jaureghian* hitzaren –g–

kontsonanteak apurren bat ezabatzen duelako –tt– bikoitza. Bigarren aldizko *batto*, ordea, argi ikusten da.

(2)

Aita, saldu naizu biga bat bezala
Bai eta desterratu Espagnian barna.
Ama bizi izan banu, aita, zu bezala
Ninzan esconturen atharratze Salala.

Munta handirik ez badu ere, *atharratze* irakurtzen da a– xehea duela. Zentzu gehiago du *eninzan escounturen Atharratze Salala* ondorioak.

(3)

Ahizpa, jauntx ezazu arropa pherdia
Nic ere jauxieren dut satina chouria.
Ingoitic hor giten zure senhar gheia;
Botzez utz ezazu zure sorth etchia.

Hirugarren ahapaldi honetan *jauxieren* irakurtzen da eta ez *janxieren*, ez *jaunxieren*, ez *janxiren*. Uste dut *jauntx* lehenago datorrenez gero, *jauntxiren* beharko lukeela, hots, gaurko erara idatzirik *jauntziren*.

(4)

Aita joanen ghira oro elgarreki
Etcherat ginen zira chagrin handireki;
Bihotza kargatia, beghiac boustiric
eta zoure alhaba thounban ehortziric.

Ahapaldi garbia da. Ahapaldi honetan *beghiac* eta *ghira* gaurko *begiak* eta *gira* bezala ahoskatu behar ditugu. Besterik da Arxüren *ginen zira* aditza, gaurko *jinen zira* bezala ahoskatu behar baita.

(5)

Ahizpa zoazi orai salaco leihora
Iphar ala hegoua denez jakitera.
Ipharra balin bada gorainzi salari
Ene khorpitzaren tcherca gin dadila sari.

Ez du transkripzio arazorik. Ahapaldi honetan *leihora* adlatibo lekuzkoa –t gabe irakurtzen da. Aurreko ahapaldian, ordea, *–rat* irakurtzen zen: *etcherat*.

(6)

Atharratzeco zeiñiac tristeric du joiten,
Andere Santa Clara bihar da phartitzen
Haren peco zaldia urhez da zelatzen
Hanco tchipi handiac belchez di beztitzen.

Ahapaldi honetako azken lerroa, harrigarria badirudi ere, halaxe dator. Chahoren lehen eredua eta Arxüren eskuizkribukoa bat datoz. Eredu bietan *belchez di beztitzen* dator.

8. SALABERRIREN LIBURUTIK BESTETARA ALDATUAK

Salaberrik 1870. urtean *Chants populaires du Pays Basque* argitara eman zuenean hainbat kantu tradizionalizatu egin zituen beren jatorrizko eremutik kanpora. Hainbat kantu-kaieretan, bai Zuberoakoetan zein Nafarroa Beherea zein Lapurdikoetan, Salaberriren kantuak ikusten dira. Tradizionalizatze-prozesua aztertzeko ez ezik, Zuberoako euskarazko testuak nola egokitzen dituzten beste euskalki batzuetara aztertzeko ere balio du. Puntu honetan hiru kaieretako transkripzio zuzena edo lehen dokumentuko transkripzioa eskainiko dugu. Ez dugu uste lehen transkripzio honek bigarren transkripziorik merezi duenik. Gure ustez argi baino argiago dago Salaberriren liburutik ikasitako kantua dela. Zergatik? Salaberriren hamar ahapaldiak daude, batetik; eredu ezagunetan, Salaberriren ereduan bakarrik aurkitzen den *Aita, zü izan zira ene saltzale/ Anaie gehiena dihariren harzale*... ahapaldia agertzen delako, bestetik.

8. 1. *Perseval jatsuarraren eredua*

Henri Perseval kantari jatsuarraren kaieretik hartutako eredua dugu puntu honetan emango duguna. Izenburua ere Salaberriren bera da: *Atharatse yaureguian*. Zuberoako euskara Lapurdiko eredura dago egokitua zenbait hitzetan. Eredu hau aztertzean euskalki batetik besterako egokitze aldaerak dira aurkitzen direnak. *Ingoiti* Zuberoako forma, esaterako, *Angoiti* edo *Aingoiti* egokiturik aurkituko dugu. Zuberoako *errege bidia*, esaterako, *errebide eder[r]a*.

1
Artarratsé yaureguian bi cidroin dohatu
ongriaco erregueac batto du galdatu
Ereposta izan du ez direla ontu
Ontzen direnian batto izannendu

2
Atharratzeco hiria oi hiri ordoci
Ur handi bate badugu alde batetic
Errebide edera erdi erditic
Maria Madaluna berstze aldetic

3
Ahispa yauntsisasu aropa churia
Nic ere yaunsirendut ferdia
Angoitic hor heldu da suré yaun geia
Borchas cita esasu sure sor echtia

4
Aita zuc Saldu nausu miga bat besala
Bait eta condenatu ongrian behera
Ama bisi izan banu aita zu besala
enindusun ez yuan ongrian behera

5

Ahispa soasi Salaco leyora
Aingoitic hor dago ongriaco eregea
eta erocasu eri nisala
saspi urte huntan ohian niséla

6

Ahispa ez nucezu es ni Sinetzia
zaspi urte huntan hohian siréla
saspi urte huntan hohian sirela
bera nahico dusu y[i]n sure lecura

7

Aita zu isan zira ene Saltsaile
Anaie gehiena diruaren hartzaile
Anayé artecoa samaris igortzaile
Anaya ticiena ené laguntsaile

8

Aispa soasi Salaco leyora
Ipara ala egoa den guardia emaitera
Ipara balin bada goraintzi Salari
Ene gorputzaren cherca jen dadien sari

9

Aita yuanen guira oro elgarecin
Etcherat yinen sira changrin handirecin
biotza ilun eta beguiac bustiric
Eta gure alaba tonban ehortziric

10

Artaratzeco seniec berec érépicatzen
Andére Santa Clara bihar da partitzen
H[a]ren peco saldia ures da selatzen
Hango tipi andiac beltchesdira bestitzen

Euskalki batetik besterako aldaketak ikusteko Salaberriren zazpigarren ahapaldia da esanguratsuenetakoa: *–Aita, zü izan zira ene saltzale,/ Anaie gehiena dihariren harzale, / Anaie artekua zamariz igaraile,/ Anaie chipiena ene lagüntzale*. Perseval 7*– Aita zu isan zira ene Saltsaile/ Anaie gehiena diruaren hartzaile/ Anayé artecoa samaris igortzaile/ Anaya ticiena ené laguntsaile*. Ahapaldi bera Zuberoako euskaratik Lapurdirako jauzia eginda ikusten da. *diharü* zuberotarra *diru* bihurtzen da; *zamariz igaraile* zuberotarra *zamariz igortzaile* Lapurdiko euskaran. Zortzigarrena ere interesgarria da: Salaberri 8*–Bihotza kargatürik, begiak bustirik* Perseval 9*–Bihotza ilun eta beguiac bustiric*. Salaberriren ereduan *kargatürik* aditza Persevalen ereduan *ilun eta* bihurtzen da.

Eredu batetik bestera esangura aldaketa zenbait ere badira. Salaberri *Botzik kita ezazü zure sor etchia;* Persevalen kaierean *Borchas cita esasu sure sor etchia* (ms. sor echtia).

2
5
Lorpiac emana skarci guziec arasta bera hilzeko
Bainan ez daciqu zoin izanen garen lehen mundutic pasatzeco
tic balimbanu zoriona behenic Iesuan saiatzeco
6 Ez nezace ahantze zure tokiaren yunco yainari galdatzeco

charmegarria konsidera zazu ene manera trichtia
Iesu gatzis gerozlic desiratzen nuce hepen bai lehen hiltzia.
Azken letra hau igortzen derautzut hasberapenez betia
Hau irakurtzian nutas oroitzeco kantore beren kopua

Atharatse yaureguan
1 X
Artarratse yaureguan bi cidroin dohatu
ongiaco erreguac batto du galdatu
Erposta izan du ez direla ontu
Ontzen direnian batto izannendu
2
Atharratzeco hiria oi hiri ordoci
Ur handi bate badugu alde batetic
Errebde edera erdi erditic
Maria Madalena bertze aldetic



3

Ahuspa yauntsisasu aropa churia
Ne ere yaun serenádat firdia
Aingoitic hor helau da suré yaun gea
Borchas cita esasu sure bor echtia

4

Aitá · zuc Salau nausu miga bat besaba
Baut eta condenatu ongrian behera
Ama bsi izan banu aitá zu besala
enundusun ez yuan ongrian behera

5

Ahispa soasi Saluco leyosa
Aingoitic hor dago ongriaco ereyia
eta erocosu eri nisala
sasri urte huntan ohian niséla

6

Ahispa es nuceju es ni Jerezia
zaspi urte huntan hohian siréla
Saspi urté huntan hohian sirela
béra nahico dusu yn sure lecura



Atharratze jauregian balada. Perseval jatsuarraren eredua.

8.2. *Prada kaiereko eredua*

Prada Altzaiko jostunaren kaieretan transkribaturik dagoen eredua ekarriko dugu puntu honetara. Eredu hau 26 eta 27. orrialdeetan aurkitzen da. Eredu hau, jakina, Salaberriren 1870. urteko liburutik hartua da. Iturria Salaberri izan arren, beti dago aldaera txikiren bat. Aldaera honekin lehen dokumentutik lehen transkripzioa egingo dugu bakarrik.

1
Atharratz jauregian bi zitroin doratu
Ongriako Erregiak batto du galthatu
Arrapostu ukhen du estirela huntu
Huntu direnian batto ukhenen du.

2
Atharratzeko hiria hiri ordoki
Hur handi bat ere badizu alde bateti
Errege bidia erdi erditi
Maria Maidalena beste aldeti

3
Aita zuk saldu naizu idi bat bezala
Ama bizi ukhen banu aita zu bezala
Enunduzun ez juanen Ongrian behera
Bena bai ezkunturen Atharratze Salala

4
Ahizpa juan zite portaliala
Ingoity horra duzu Ongriako Erregia
Hari erran izozu ni eri nizala.
Zazpi urthe huntan ohian nizala

5
Ahizpa, enukezu ez sinhetsirik
Zazpi urthe huntan ohian zirela
Zazpi urthe huntan ohian zirela
Bena nahi dukezu jin zu zien lekhila

6
Ahizpa jaunts ézazu arraupa choria;
Nik ere jauntsiren dit ene berdia
Ingoity horra duzu Ongriako Erregia;
Botzik kita ezazu zure sor etchia

7
Aita zu izan zira ene saltzale
Annaie gehiena dihariaren harzale
Annaie artekoua zamariz igaraile.
Anaie chipiena ene laguntzale.

8
Aita juanen gira oro algareki
Etcheat jinen zira changri handireki
Bihotza kargaturik begiak bustirik
Eta zure alhaba thunban ehortzirik

9
Ahizpa zuza Salako leihola
Ipharra ala hegoua denez jakitera
Ipharra balinbada goraintzi Salari
Ene khorphiaren cherkha jin dadila sari

10

Atharatzeko zegniak berak arrapikatzen
Hanko jenté gaztiak beltzez beztitzen
Andere Santa kharra hantik phartitzen
Haren peko zamaria urhez da zelatzen





27 6

Athizpa Jaunts ezazu arraupa choria
Nik ere Jauntsiren dit ene berdia
Ingoity horra duzu Ongriako Erregia
Bobzik kita ezazu zure bor etchia

7

Aita zu izan zira ene salzale
Annaie geihiena diharian harzale
Annaie arteKoa zamariz igaraile
Annaie tchipiena ene laguntzale

8

Aita Jouanen gira oro algarreki
Etcheak jinen zira changri handireki
Bihotza kargaturik begiak bustirik
Eta zure alhaba thunban ebortzirik

9

Athizpa zuza orai Salako leihola
Ipharra ata hegoa denez yakitera
Ipharra Calinoada goraintzi Salari
Ene Khorpuaren cherkha jin dadila sari

10

Atharatzeko zegoniak berak arrapikatzen
Hanko jenti gaztiak beltzez beztitzen
Andere Santa Kharra hantik ipharditzen
Haren peko zamaria urhez da zelatzen

Atharratze jauregian balada. Prada kaiereko eredua.

8.3. *Bordatto kaiereko eredua*

Bordatto kaiereko eredua, Prada kaiereko eredua bezala, Salaberriren ereduaren kopia da, itxura guztien arabera. Salaberriren kopia izan arren testuan aldaera txiki bat edo beste aurkitzen da. Bordatto kaierean ere lehen dokumentutik lehen transkripzioa egingo dugu bakarrik.

1
Atharratze jauregian bi zitroin doratü;
Ongriako Erregek batto dü galthatu;
Arrapostü ükhen dü Estirela huntü;
Huntü direnian batto ukhenen du,

2
Atharratzeko hiria hiri ordoki
Hour handibat badüzü alde bateti;
Errege bidia erdi erditi
Maria Maidalena beste aldeti;

3
Aita saldu naizü idi bat bezala;
Ama bizi ukhen banu aita zu bezala;
Enündüzün ez juanen Ongrian behera;
Bena baï ezkunturen Atharratze Salala;

4
Ahispa juan zite portaliala.
Ingoiti horra düzü Ongriako Erregia;
Hari erran izozü ni eri nizala.
Zazpi ourthe huntan ohian nisala;

5
Ahispa, enükezü ez sinhetsia;
Zaspi ourthe hountan ohian zirela;
Zaspi ourthe hountan ohian zirela
Bena nahi dukezü jin zü zien lekhila

6
Ahispa jaunts ezazu arraupa berdia;
Nik ere jauntsiren di[t] ene chouria
Ingoiti horra düzü Ongriako Erregia;
Botzik kita ezazü zure sor etchia

7
Aita zu izan zira ene saltzale
Anaie gehiena dihariaren harzale
Anaie artekoua zamariz igaraile.
Anaie chipiena ene laguntzale.

8
Aita juanen gira oro algareki.
Etcherra jinen zira changri handireki;
Bihotza kargaturic begiak boustirik
Eta zure alhaba thoumban éhortzirik

9
Ahispa zouza Salako leihorra
Ipharra ala hegoua denez jakitera
Ipharra balimbada goraintzi Salari
Ene khorphizaren cherka jin dadin sari

10

Atharatzeko zeniak berrak Arapikatzen
Hanko jende gasteria beltzez bestizen
Andere Santa Clara Hantik phartizen
Haren peko zamaria urhez da zelazen



Thanaon

Atharratze Jaureguia

1.er Couplet

Atharratze jauregian
bi Zitroin doratü;
Ongriako Erregek batü
dü galthatu;
Arraportü ükhen dü
Estrela kuntü;
Huntü durenyan bato
ükhenen dü;

2.ena Couplet

Atharratzeko hiria
hiri ordokia
Hour handibat badüzü
alde batetik;
Erege bidia erdi erditi
Maria-Maidalena
beste aldetik;



3.ème Couplet
Aita saldu naizü
idi bat bezala;
Ama bizi ukken
banu aita, zu bezala;
Eniündüzüün ez juan
Ongrian tchora;
Bena bai ez Kuntüren
Atharratze Salala;

4.ème Couplet
Ahispa juan Zite
portaliala.
Ingoili horra düzü
Ongriako Erregia;
Hari erran ützüzü ni
eri nizala;
Zaspi ourthe kuntan
ohian nisala;

5.ème Couplet
Ahispa, eni kezü
ez sinhetsia;
Zaspi ourthe hountan
ohian zirela;
Zaspi ourthe hountan
ohian zirela;
Bera nahi dukezü
jin zü zien lekhula

6.ème Couplet
Ahispa jaunts ez azu
arraupa berdia;
Nik ere jauntsiren
du ene ~~berria~~ chouria;
Ingoili horra düzü
Ongriako Erregia;
Botzik Kita ez azü
zure sor etchia;

7.ème Couplet
Aita, zu izan zira
ene saltzale;
Anaie gehiena diha
riaren karzale
Anaie arkhoua
Zamariq igaraile.
Anaie chipiena ene
laguntzale;

8.ème Couplet
Aita juanen gira
oro algaretki.
Etcherra ginen zira
changri handiretki;
Bihotza Margaturic
Begiak bustirik
Eta zure alhaba
thoumban ehorbzirik

9. Couplet
Ahispa Zouza Salak
lehorra
Ipharra ala hegoua
denez jakitera.
Ipharra balimbada
goraintzi Salari
Ene Khorphizaren
chenka findadin sari

10. Couplet
Atharatzeko Zeniak
lerrak Arrapitazen
Hantko jende gaxteria
leihoez beztizen
Andere Samba Elara
Hantik phartüzen
Karen pekho Zamaria
urkez da jolazen
Fin

Atharratze jauregian balada. Bordatto kaiereko eredua.

6
BEHIN BATEZ JOAN NINDUZUN BALADA

1. SARRERA

Behin batez joan ninduzun euskaraz dugun balada eder eta indartsu bat da. Herri-herrikoa da, gainera, balada hau. Manuel Lekuonak esan ohi zuen bezala, herrian ondutako kantek duten zapore harrigarri hori, kutsu bakar eta ezin adierazizko hori, alde guztietatik dario. Herritarren ahoetan denboran zehar ondutako zigilu berezi hori du balada honek.

Denbora luzean *Behin batez joan ninduzun* balada gaia eredu bakarrekotzat eduki da. Bestela esan, *unicum* bat edo eredu bakarra duen balada gaia. *Unicum* diogunean euskaraz orain arte bildu den balada gai honetako eredu bakarra dela adierazi nahi da. Euskaraz holakoak askotxo dira *Urthubiako alhaba* edo *Anaiai gaztigatu nion* edo *Urteak zonbat egun tu*? Eredu bakar hau Azkuek bildu zuen Izturitzen, Baxenabarren. Balada honen beste lau ahapaldi Aiherrako kaier batean bildu ditugu, kaier horretako eredua argitaragabea da.

2. AZKUEK ARGITARATU ZUEN EREDUA

Azkuek balada hau, Izturitzen, Nafarroa Beherean, bildu zuen Graziosa Zabaloren ezpainetatik. Bildu zuen eredua CPV liburuko 828 alea da, 959 orrialdekoa. Izturiztar bati bildu zion gertaera Izturitzen bertan gertatzen da. Datu xume honek beste baladetan ematen den lekukotasun harrigarri bat adierazten digu, neurri handi batean. Itxurak direnez, balada honek izango zuen esparrua gertaera lekutik urruti gabekoa izango zen. Bereterretxeren kantorearekin zein Baztango Urtsuako balada gaiko ereduekin beste hainbeste gertatzen da. Baladako gertaera lekuak dira transmisio gauzatzen den leku berberak.

Gaiari gagozkiola, indar handikoa dugu, dudarik gabe. Balada honetako protagonistak murde Beltzuntz eta Agerreko alaba dira. Murde Beltzuntz bat baino gehiago dira gure tradizioan. Beltzuntz deitura handiki eta nobleei lotua da, Urthubiakoa eta beste hainbat bezala. Baladaren lehen zatiak euskal esparruko beste balada batzuek konparagai harturik *Uretako jaunaren* antzekoa da. Balada gai bietan norbaiten edertasunaz mira eginik nor den galdetzen du norbaitek. *Uretako jauna*ren kasuan, Uretako jauna da gizon eder eta atentzioa ematen duena. Gure balada gai honetan Agerreko alaba dugu. Azken hiru ahapaldiak *Eskoliersa gaztearen* antza dute, dudarik gabe.

Baladaren egiturari dagokionez, lau elkarrizketatan dago zatitua; elkarrizketa bakoitza leku bati eta denbora bati dagokio. Balada honetan Beltzuntzeko jauna ehiztaria dela ikusten dugu, goizean goiz horak etxetik atera eta ehizara joan ohi dena. Ehiza ekintza zinegetikoa beste (sasi)balada batean ere

badugu, *Ura isuririk* delakoan. Hor ere Jakesek horak harturik ehizan ibili ohi da. Ehizaren alderdi sinbolikoa gure artean *Ura isuririk* baladaren aztertzaileari zor diogu, Jon Juaristiri.

Euskal balada zaharretan tratamendu erregistroak erabat zaintzen dira. *Bereterretxeren kantorean* zein *Anderea gorarik* balada gaian, hika-zuka eta erregistro neutroak ondo markaturik agertzen dira.

Tratamenduei dagokienez, aztergai dugun baladan hainbat erregistro ikusten ditugu: erregistro neutroa, zuka, xuka eta hika laurak ematen dira eredu honetan. Inoiz erregistro bat baino gehiago nahasirik ikusten ditugu. Lehen ahapaldian, esaterako, *joan ninduzun* agertzen bada, *ikusi nizun* espero genuen. Hasierako ahapaldian, beraz, erregistro biak nahasirik ikusten ditugu. Bigarren ahapaldian Beltzuntz jaunak emakume zaharrari erregistro normalean egiten dio: *Nongoa da andre eder hori?* Erantzuna zuka erregistroan da: *hori duzu*. Murde Beltzuntzen eta Agerreko alabaren amaren artekoa zukakoa da. Amak bere alabari hika egiten dio. Murde Beltzuntzek Agerreko alabari xuka. Agerreko alabak Murde Beltzuntzi, ordea, erregistro neutroan. Lau elkarrizketetan, beraz, konbinazio diferenteak ematen dira eta behin ere ez dira berdin.

I
Behin batez yoan ninduzun
Isturitzeko plazalat,
andre eder bat ikusi nuen
dantza-buruan zohala.

II
Atsoño bati galde egin nion
–¿Nongoa da andre eder hori?
–Murde Belzuntz: hori duzu
Ageŕeko alaba.

III
–Ageŕeko anderea,
hitz batez adi nezazu:
zure alaba Kaťaliñaño
emaztetako indazu.

IV
–Ene alaba Kaťaliñaño
hitz emanikan dagozu:
haren ondoko pupuñañoa,
Jauna, plazer baduzu.

V
–Ai-ei ai-ei penaz eta
ai-ei ai-ei ai dolorez:
eiherala yoan behar eta
Murde Belzuntzen belduŕez.

VI
–¡Habil hortik ergel xaŕa!
ezdun Belzunzen perilik:
Ihizira yoana ziagon
Goizean goizťo yeikirik;
Goizean goiz yeikirik eta
bere orak harturik.

VII
–Kaťaliñaño ¿norat xoaxi
xuhaur hola bakaŕik?
–Eiherala, Murde Beltzuntz,
nihaur honela bakaŕik.

VIII
–Kaťaliñaño ¿nai duxuia
nik emanikan lagunik?
–Nik eztut lagun behaŕik.
Lagunak nik ukaitekotz,
neure aitamek emanik.

IX
–Kaťaliñaño: baldin banaki
nor duxun eskolatzaillia,
paga ere nezakexu
xure eskolasaria.

X
–Ene eskolatzailea da
heŕiko jaun bikaria,
ene aitamez pagatuia da
ene eskolasaria.

3. AZKUEREN ESKUIDATZIETAN AGERTZEN DEN EREDUA

Atal honetara Azkueren eskuidatzietako transkripzioa ekarriko dugu. Lehen bi ahapaldiak ABA-RMA-001-0001-04 koadernoan dautza. Lehen bi ahapaldiak dakartzan kantaren zenbakia 143 dugu. Gainerako ahapaldi guztiak beste koaderno batean daude transkribaturik, ABA-RMA-003-0010 signatura duenean. Bigarren koaderno honetan lehen ahapaldia adierazteko hasiera bakarrik ematen du: *Behin batez joan ninduzun Isturitzeko plazalat*. Bigarren iturri honetan ahapaldiak zenbakiturik agertzen dira. 2 zenbakiarekin, ordea, bi ahapaldi ikusten ditugu transkribaturik. Transkripzio honetan, beraz, azken ahapaldiak 8 zenbakia darama. Bi koadernoetako ereduak letra argiz transkribatuak daude eta ez dago kasu bakar batean ere transkripzio arazorik. Bigarren koadernoko ahapaldietan badira elkarren gainean idatzitako edo zuzendutako bi-hiru hitz. Hona bi kaieretako ahapaldiak eredu bakar batean.

1
Behin batez *joan* ninduzun
Isturitzeko plazalat,
andre eder bat ikusi *nuyen*
dantza *buruyan zuhala*.

2
Atsoño bati galde egin nion
–¿Nongoa da andre eder hori?
–Murde *Belzunz*: ori duzu
Ageŕeko alaba.

3
Agerreko anderea,
hitz batez adi nezazu:
zure alaba *Kaťaliñañoa*
emaztetako indazu.

4
Ene alaba *Kaťaliñañoa*
hitz emanikan dagozu,
haren ondoko pupuñañoa,
Jauna, plazer baduzu.

5
Aiei aiei penaz eta
aiei aiei ai dolorez,
eiherala joan behar eta
Murde Belzunzen beldurrez.

6
Habil hortik hergel tarra
ezdun Belzunzen perilik:
ihizira joana ziagon
goizean goiz jeikirik;
goizean goiz jeikirik eta
bere orak harturik.

7
–*Kaťaliñañoa* ¿norat xoaxi,
xuhaur hola bakarrik?
–Eiherala, Murde *Belzuntz*,
nihaur *hola* bakarrik.

8
–*Kaťaliñañoa* ¿*nor* nai *duxuya*
nik emanikan lagunik?
nik eztut lagun-beharrik.
Lagunak ukaitekotz,
neure aitamek emanik.

9
–*Kaťaliñañoa*: baldin banaki
sure *eskolatzailea*,
paga ere nezakexu
xure eskolasaria.

10
–Ene eskolatzailea
herri jaun bikaria,
ene aitamez *pagatuya* da
ene eskolasaria.



Behin batez joan ninduzun baladaren sarrera.



Behin batez joan ninduzun balada. Izturitzeko eredu osoa.

Hona ahapaldiz ahapaldi Azkuek bildutakoa eta argitaratutako ereduaren arteko desberdintasunak.

1. Azkuek *nuyen* eta *buruyan* bildu zituen Isturitzen. Transkribatu, ordea, modu zabalago batean egin zuen fonetismo edo fonetizismoak alde batera utzirik: *nuen* eta *buruan*. Sistema honetakoa da azken ahapaldiko *pagatuya* eta *duxuya* ere. Era berean *zuhala* adizkia bildu zuen, transkribatu, ordea, *zohala* egin zuen. Lehen transkripzioan Azkuek eroso edo errazago egiten zitzaion bidea hautatzen zuen. Horregatik *joan* idatzi zuen, testu argitaratuan *yoan* bihurtu zuena.

2. Azkuek testu argitaratuan hiru modutara transkribatzen du baladako protagonista: *Belzuntz*, *Belzunz* eta *Beltzuntz*. Lehen transkripzioan behin bakarrik egiten du *Belzuntz* eta gainerakoetan *Belzunz*.

3. Eskuidatzian Agerreko alabaren izena beti da *Kaťaliñañoa*, azken artikulu eta guzti. Bost aldiz agertzen da hitz hau eta guztietan modu berean, artikuluarekin. *Atsoñoa* eta *pupuñañoa* hitzetan bezala. Azkuek argitaratutako ereduan, ordea, artikulurik gabe eman zuen bost kasuetan.

6. Azkueren eskuidatzian *goizean goiz jeikirik/ goizean goiz jeikirik eta* ikusten dugu garbiki. Era honetako *ritornello* edo bihurkiak ugari ditugu baladetan. Baladarik bihurkitsuena beharbada *Brodatzen ari nintzen* dugu. Bihurkia egiten denean, berdin errepikatzen da, eta gehienetan "eta" bat eransten zaio. Azkuek eredu argitaratuan, ordea, lehen esaldian –tto ttipigarria dakar eta bigarrenean ez. Kontu hau susmagarria da ahozko testuak ezagutzen dituen edozeinentzat. Bihurkian errepikatu egiten da zerbait gehituz azkenean. Zail baino zailagoa da, beraz, *goiz* agertzen bada batean hurrengoan *goiztto* ikustea. Argi agertzen da, beraz, hemen Azkueren eskua.

7. Ahapaldi honek badu aurrekoarekin zerikusia. Hemen ez da agertzen bihurkirik errepikapen argi bat baino: *xuhaur hola bakarrik/ nihaur hola bakarrik*. Era honetako errepikapenen erabilera baladen ezaugarri nabarmenenetakoa dugu, dudarik gabe. Bitxia da Azkuek argitaratu zuena: *xuhaur hola bakarrik/ nihaur honela bakarrik*. Eskuidatziak, beraz, argitasun handia ematen du. Azkuek bigarren *hola* jatorrizkoa *honela* "logikoago" bat bihurtu du testu argitaratuan.

8. Azkuek ahapaldi honetan argitaratutako ereduan gehitze edo eranste bat egin du. Lehen transkripzioan *lagunak ukaitekotz* jartzen du eskuidatzian. Argitaratzen duenean, ordea, *nik* bat gehitzen du: *lagunak nik ukaitekotz*.

9. Ahapaldi honetan aldaketa bat baino gehiago daude. Azkuek bere eskuidatzietan *eskolatzailea* biltzen du. Forma hau, gainera, bi lekutan berdin biltzen du, bederatzigarren eta hamargarren ahapaldietan. Argitaratzeko orduan, ordea, fonetismo edo fonetizismoarekin egiten du: *eskolatzaillia*. Transkribatzeko irizpide hau ez du Azkuek bestetan erabiltzen. *Buruyan*, *nuyen*, *pagatuya*, *duxuya* bezalako herri formak, lehen transkripzioan jartzen dituenak, *buruan*, *nuen*, *pagatua* eta *duxuia* bihurtzen ditu testu argitaratuan. Baina kontu hori baino harrigarriagorik ikusten dugu ahapaldi honetan. Azkuek lehen dokumentuko *baldin banaki sure eskolatzailea* argitaratzen duenean *baldin banaki nor duxun eskolatzaillia* bihurtzen du.

10. Azken ahapaldi honetan ere askotxo aldatzen da. Azkuek bildu zituen lehen bi bertso-lerroak hauek dira: *Ene eskolatzailea/ herri jaun bikaria.* Azkuek *herri jaun bikaria* hori esangura garbiagoa duen *herriko jaun bikaria* egin zuen. Era berean, *da* adizkia gehitu zuen testu argitaratuan: *Ene eskolatzailea da/ herriko jaun bikaria*.

4. *BEHIN BATEZ JOAN NINDUZUN* BALADAREN AIHERRAKO EREDUA

Aiherrako André Martinonen kaierean *Behin batez joan ninduzun* baladaren eredu bat dator. André Martinonen kaiera *Neska ontziratua* balada gaiaren eredu berri bat transkribatzeko ere erabili izan dugu. Eredu horrek ahapaldi bi ditu jatorrizko kaierean. Azkueren ereduaren erara bertso-lerroak tolestuz gero, ordea, lau ahapaldi ateratzen dira. Aiherrako André Martinonen kaierean kantak *Isturitzerat Beylara* du izenburua eta ahapaldiak, Baxenabarre eta Zuberoako kaier askotan bezalaxe, frantsesez adieraziak daude. Lehen ahapaldia adierazteko *1er Couplet* dakar eta bigarrena *2ème*. Hona hemen Aiherrako eredua:

Behin batez juan ninduzun Isturitzerat beylarat
Haratekuan aldatu Etchegno baten alderat
Etchegno hartan bazituzun hiru etcheko alaba
Sapetetan behar baitzuten hiruna berga chingola

Aguerreko anderia Hitz-gno bat erradazu
zure alaba Cattalignagnoua eman behar dautazu
Ene alaba Cattalignagnoua hitzemanik dagozut
Haren ondoko punpugnagnoua juana plazer baduzu

Bi ahapaldi horiek Aiherrako kaierean inolako puntuaziorik gabe daude transkribatuak.


Isturitzerat Beylara
1ere kopla
Behin batez yuan ninduzun Isturitzerat beylarat
Haratekuan aldatu Etchegno baten alderat
Etchegno hartan bazituzun hiru etcheko alaba
Sapetetan behar baitzuten hiruna berga chingola
2eme
Aguerreko anderia Hitz-gno bat eradazu
Zure alaba Cattalignagnoua eman behar dautazu
Ene alaba Cattalignagnoua hitzemanik dagozut
Haren ondoko punpugnagnoua yuana plazer bad
11 eme

Behin batez joan ninduzun baladaren Aiherrako eredua.

5. AIHERRAKO *BEHIN BATEZ JOAN NINDUZUN* EREDUAREN IRUZKINA

Puntu honetan Aiherrako jatorrizko dokumentuko bi ahapaldiak lautan tolestu eta ortografia berrira aldatu ondoren iruzkin batzuk eskainiko dizkiot. Aiherrako ereduak sortzen dituen ulermen arazo bat edo beste ere iruzkinduko dut.

Aiherrako ereduak, bere laburrean, desberdintasun nabariak ditu. Azkueren ereduan Izturitzerat zihoan gizonezkoa plazara doa eta han dantzan ikusten ditu dantzariak. Aiherrako ereduan beilara doa protagonista, eta beilara bidean etxe baten ondoan aldatzera doanean hiru etxeko alaba ikusi ditu. Jatorrizko kaiereko *Etchegno hartan bazituzun hiru etcheko alaba/ Sapetetan behar baitzuten hiruna berga chingola* ahapaldi erdia (edo gure tolesteko era berrian apaldi osoa), ezezaguna bezain harrigarria da. Beilara doazen neskatilak dotorezia nabarnegia erabiltzen dute beilara joateko. Neskatila bakoitzak zapatak dotoretzeko zinta luzeegia erabiltzen du: *hiruna berga xingola*. Berga bakoitzaren neurria 1,45

zentimetro bada, ia lau metro eta erdi zinta edo xingola behar du neskatila bakoitzak bere zapatak apaintzeko.

Aiherrako ereduak arazo testual nabarmen bat sortzen du. *Haren ondoko punpugnagnoua juana plazer baduzu* delakoa nola ulertu behar da? *Haren ondoko punpuñañua Juana, plazer baduzu* edo *Haren ondoko punpuñañua, jauna, plazer baduzu*. Jatorrizko testuan *Juana* pertsona izena dator eta badu zentzua. Hots, *Kattalinaren* ondoan dagoen *Juana* plazer baduzu. Bigarrenak ere zentzua du eta jatorrizko *Juana* deiki edo bokatibo bezala ulertu beharko litzateke: *jauna.* Bigarren aukera horren alde egin dugu, Azkueren ereduan ere halaxe agertzen baita. Kontuan izan behar da, gainera, *plazer baduzu* kortesiazko esaldiaren aurretik zentzu handia duela deikia jartzea: *jauna, plazer baduzu*.

1
Behin batez juan ninduzun
Isturitzerat beilarat,
haratekuan aldatu
etxeño baten alderat.

2
Etxeño hartan bazituzun
hiru etxeko alaba,
zapetetan behar baitzuten
hiruna berga xingola.

3
–Agerreko anderia,
hizño bat erradazu.
Zure alaba Kattaliñañua
eman behar dautazu.

4
–Ene alaba Kattaliñañua
hitzemanik dagozut.
Haren ondoko punpuñañua,
jauna, plazer baduzu.

6. AIHERRAKO EREDUAREN ETA AZKUERENAREN ARTEKO BATERATASUNAK

Bi ereduen artean bateratasun nabarmenak daude. Aiherrako ereduko ereduko 1, 2 eta 4 ahapaldiak eta Azkueren 1, 3 eta 4 bat datoz. Pertsona izenetan ere bat datoz. Azkuek *Kaťaliñañoa* bildu zuen bi ttikigarri behintzat zituela**.** Hitzaren erdiko –tt– eta azken -ñoa. Azkuek *Kataliñañoa* pertsona-izena bi aldiz bildu bazuen ere, artikulurik gabe argitara eman zuen: *Kattaliñaño*. Era horretara hoskidetasunik ez zuen ahapaldi hau gelditzen da:

–Ene alaba Kaťaliñaño
hitz emanikan dagozu:
haren ondoko pupuñañoa,
Jauna, plazer baduzu.

Ahapaldi honetan *Kattaliñaño* eta *pupuñañoa* hitzek ez dute hoskidetasunik. Aiherrako ereduan Katalina pertsona izena –ñoa txikigarria duela bietan dator artikuluarekin: *Kattaliñañoa*.

Aiherrako ereduko 3. eta 4. ahapaldiak bat datoz guztiz Azkueren landa-kaiereko 3. eta 4. ahapaldiekin. Bi ereduetan, jakina, neskatilen ama *Agerreko anderea* da.

7
BERETERRETXE BALADA

1. SARRERA

Euskarazko baladarik konpli eta zaharrenetakoa dugu *Bereterretxe*. Zuberoan kantatzen da tradizioz, eta Larraineko semea zen Bereterretxeren atxilotze eta heriotzea modu sarkor eta hunkigarrian deskribatzen du balada honek. Balada eta kantu deskriptiboek Zuberoan *khanto(r)e* izena hartzen dute, gehienetan. Bereterretxe baladaz Antonio Zavalaren ohoretan Deustun egindako hitzaldietan aritu ginen (Kalzakorta: 2000). *Bereterretxeren kantorea* gure balada-altxorreko bitxirik preziatuenetako bat denez gero, ikerlanik eder, sakon eta luzeenak eskaini dizkiote izan ditugun ikertzaile handienek. Ez dugu uste, hala ere, ikertzaile guztiek kanta honen sekretu guztiak zulatu dituztenik, hain da balada emankorra.

Balada-testuen edizio kritiko bat falta dela uste dugu. Lan zehatz hori egiteko zuberotar bat izango litzateke egokiena. Euskalkian euskalkiko ikertzaile eta finkatzaile bat falta dugula esatea gehiegi litzateke? Zuberoako balada zein maitasun kantuetan balegoke beste moduren bat ere: zuberotar baten laguntzaz manex euskaltzale bat abiatzea lan horretan. Halaxe egin zuten, esaterako, Jon Etxaidek eta Jon Mirandek, edo, denboran lehenago, Pierre Lhandek eta Jean Larrasketek. Pierre Topet Etchahunen kantore-testuak, esaterako, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak, Lafon atzerritar zuberotartuaren laguntza zuela, finkatu eta azaldu zituen zehaztasunez zehaztasun. Guk geure atal honetan kantore zahar baten aldaerak finkatu nahi genituzke. Kantoreak finkatu eta neurri handi batean azaldu ez ezik, kantorearen eskuizkribu jatorrizkoaren kopia ere eskaini nahi dugu. Uste dugu beharrezkoak direla era honetako lanak. Gure kanta zaharren altxorra nahi baino urriagoa da, eta, gainera, zoritxarrez, kanta asko ez daude nahi bezain ongi transkribaturik. Antonio Zavalak bere baladategian erabili zituen *Bereterretxe baladako* lehen dokumentuak ez ezik, beste hainbat ere finkatu nahi ditugu. Gure lan honetako helburua Chambra, Salaberri, Hegiaphal, Prada, Jon Miranderen ereduak finkatzea da.

Baladaren zertzelada historikoak, musikazkoak, Bereterretxeren kurutzebidea (edo preso egindako ibilbidea) ezin hobeki aztertu zuen Gavelek. Euskal balada bat alderdi guztietatik aztertu zuen: alderdi historikoa, baladaren aldaerak, baladaren musika, hilarriaren esangura (Gavel: 1924). *Bereterretxe baladaren* azterketa eta iruzkin literarioen bila dabilenak jo beza Jean Haritshelharren lanera Mitxelenari egindako omenaldi liburuan (Haritschelhar: 1985). Txomin Peillenek Bereterretxe baladaren eredu berri bat eskaini zuen, Marzelin Hegiaphalena (Peillen: 1991).

2. GURE EUSKAL BALADA ZAHARREZ OHAR BAT ETA GOGOETA BAT

Hemeretzigarren mendean, mugimendu erromantikoak eraginik, Erdi Aroko edo gure aintzi-

naterik zaharreneko balada zaharrak biltzen eta argitaratzen hasi ziren lehen erromantikoak. Gure euskal baratzean biltzailerik goiztarrenak A. Chaho, Arxü eta Francisque Michel izan ditugu. Lehenaren kantutegiaren kanta batzuk argitara eman badira ere, oraindik oso osorik argitara gabe daukagu. Bigarrenak, Francisque Michel irakasleak, gure kanta eta balada zaharrak argitaratuko bazituen, garai hartako euskaldun ikasien laguntza beharrean aurkitu zen. Badakigu, esaterako, J. B. Archu (1811-1881) izan zela laguntzaile nagusia, baina bestegana ere jo zuen. Argitaratu zuen lana *Les Pays Basque, sa population, sa langue, ses moeurs, sa litterature et sa musique* izan zen. Lan honen berri eman zion J. Duvoisin kapitainari gutun bidez, eta honek ez zituen bertso eta balada guztiak zahar eta maila handikotzat hartu:

> Dans la série de poesies que vous me faites connaître, je remarque un mélange d'antique et de moderne, de dialectes et de genres. Généralement, les morceaux les plus récents méritent le moins d'attention." (Duvarat: 1907).

Badakigu Duvoisinengandik balada edo kantuak iritsi nahi zituela Francisque Michelek. Hemen horren froga den karta bat transkribatu nahi dugu. Francisque Michel irakaslearen karta Dassance apezari zuzendua dago. Dassance jaun hau Baionako Katedraleko kalonjea zen. Hona kartazalean dakarren helbidea: Monsieur l'Abbé Dassance, chanoine de la Cathédrale, etc. A Bayonne. Jaun honengana jo zuen zuzenean ezin izan zituelako berak nahi zituen aleak zuzendu. Hona beste gabe karta hori:

> Monsieur l'Abbée
>
> Je vous fais deux lignes pour vous donner de mes nouvelles, surtout pour vous en demander des vôtres, et encore plus pour vous offrir, au renouvellement de l'année, le tribut empressé de mes sentiments de respect et d'affectueux dévouement.
>
> Mon Pays Basque a réussi au-delà de mes voeux: aussi songé-je déjà à en préparer une nouvelle édition. Là encore j'ose compter sur vous. Entre autres modifications, il faut que les textes soient revus avec le plus grand soin, et que les pièces faibles ou insignifiantes soient remplacées par des morceaux d'un mérite supérieur.
>
> A ce propos, je me rappelle que M. le capitaine Duvoisin m'a parlé d'une vieille romance, dans laquelle il était question d'un chevalier revenant incognito dans son château livré au désordre. Friand de ces sortes de légendes poétiques, j'insistai auprès du digne douanier pour obtenir copie de celle qu'il me signalait, mais autant eût valu lui demander de relâcher un contrebandier: il resta froid, comme à son habitude, froid de solemnel, et j'en fus pour mes frais d'éloquence. Ne pourriez-vous mettre la vôtre en campagne?
>
> Je comptai bien vous aller voir à la fin de la présente année; mais Paris m'a lancé un sourire auquel je n'ai pu résister. J'espère bien regagner au carnaval prochain ce que je perds maintenant.
>
> D'ici là maintenez-vous en santé et en joie, et ne laissez point effacer de votre souvenir votre serviteur empressé et humble ami,
>
> Francisque Michel
>
> Paris, rue Neuve des Bons-Enfants, nº 23, 29 décembre1859
>
> J'ai vu la famille Goyetche: Tous se portent bien et se recommandent à vous.
> Monsieur l'Abbé d'Assance, chanoine de la Cathédrale de Bayonne, etc., etc.

Karta hau, guk dakigula, argitara gabe egon da orain arte. Era honetako karta polit bezain argigarriak irakurtzean hainbat gauza datozkigu burura. Batetik, garai bateko lehen leienda eta kanta biltzaile erromantikoen amets ederrak: ahalik eta kantarik zaharrenak biltzea eta ahalik eta ondoen argitaratzea. Bazuten, gainera, istorio zaharretan oinarriturik leiendak idazteko guraria ere. Kontuan izan bedi Francisque Michelek euskal gaiezko leiendak idatzi zituela frantsesez*: Le Romancero du Pays*

Basque, Paris, 1859. Badirudi, zoritxarrez, Duvoisinek kontatu zion "bere gaztelu utzira doan zaldunaren balada" behin betiko galdu dela transkribatzaile faltaz. Hala nola garai batean. Zuberoan eta bestetan kontatzen ziren leienda asko ere galdu dira. Intxauspek, esaterako, honelaxe diotso Luis Luziano Bonaparteri garai beretsuko beste karta batean (Irigoyen: 1957):

> (Bayonne le 20 juillet 1858) En Soule on se sert du terme *herensuge* (gure gaurko grafian *herensüge*) pour exprimer un dragon-Les petits enfants eux-mêmes connaissent la signification de ce mot qu'on leur raconte des histoires ou légendes de *hensugue* tués dans le pays. Dragon ne s'emploie que pour exprimer le soldat qui appartient au corps des dragons.

Era honetako argibideek nor ez dute tristatzen? Bildu ez zirelako, batetik, eta, bildu zirenak galdu edo destokiren batera joan direlako, bestetik. Chahok, esaterako, bere kantutegiko zerrendan *Bereterretxeren khantorea* jartzen du, baina gaur egun ez dago haren bilduman. Duvoisinena ere ez dugu aurkitu haren paperetan. Eta zenbat halako? Eppherreren kaiera, Pabeko jesuiten bibliotekan zegoen. Pabeko jesuiten etxera P. Lhandek eraman bide zuen. Kaier horretan dauden Etxahunen kantak kopiatu zituen Lhandek (Baionako Museoko biblioteka MS-157), baita 15 ahapaldi zituen (15 breset) "Berterech Laragne" kantorearen berri eman ere. Hala ere kantoreko ahapaldi bat baino ez dugu transkribaturik:

Jaoun Countiak berhala
Traidore batek bezala
Berterech aigu borthala utzulien iz berhala

"Jaun Countiac berhala" esan beharrean, badirudi "Jaun Countiac erhorik" agertzen zela kaier horretan, baina Lhanderen kopian dagoen baino zehaztasun gehiago ezin dugu eman. P. Lhandek eraman zuen kaier hori nork destokitu du?

3. CHAMBRA ESKUIDATZITIK ATERATAKO *BERETERRETXE KHANTOREA*

Gure artean Chambra koadernoko Bereterretxeren baladaren aldaera lehenengoz moldezko letrara eman duen ikertzailea Antonio Zavala da. Aldaera hori A. Zavalaren baladategian (hemendik aurrera ERRV siglekin emango dugu honen berri) 124-125. orrialdean dator. Antonio Zavalak Dassanceren kopia bi izan zituen eskuartean bere transkripzioa egiteko. Dassanceren bi kantak, ordea, ez dira originalak, *Chambra* deitzen den kaier edo koaderno batetik egindako kopiak baino. *Chambra* delako koaderno hau J. Haritschelharrek behin baino gehiagotan erabili du P.T. Etxahunen kantoreak transkribatzeko (Ch) ikurra erabiliz (Haritschelhar: 1969-170).

Gure atal honetarako Chambra lehen dokumentua erabili dugu. Tesi-lan honetako helburu eta metodologia azaldu dugunean konparantza bat erabili dugu. Testuekin iturriko urarekin gertatzen dena gertatzen da: ez da ur bera iturrikoa eta iturburukoa. Urik garbiena iturburuan edo iturbegian egon ohi da. Horrek, jakina, ez du esan nahi iturrikoa gehienetan garbia ez denik.

Chambra deitu kaiera Zuberoako Santa Grazikoa da. Kaier horrek 47 kantore ditu. Kanta zenbait Zuberoakoak izan ez arren, Santa Graziko euskarara moldatuak dira. Kaier honetako 23-25. orrialdeetan aurkitzen den alea *Bereterretxeren kantorea* da. Aldaera honek garrantzi handia du, beste inon ez dagoen ahapaldi berri bat agertzen duelako. Ahapaldi horrezaz gainera, ia ahapaldi guztietan aldaera interesgarri bat edo beste aurkituko dugu. Gure lan honetan jatorrizkoaren transkripzio zuzen bat egin nahi genuke, azken zehaztasunerainokoa. Transkripzio hau oinarri hartuta gaurko grafiara ekartzen ahaleginduko gara.

4. CHAMBRA KAIEREKO *BERETERRETXE BALADA*

Lehen dokumentuko lehen transkripzioa da puntu honetara ekarriko duguna.

1

Halçaq eztu bihoxiq ezetaere Ecuriq
(bis) Enian ouste eraiten çiela aytonen semeq Gesuriq

2

Bereteretcheq ohety neskatouri segurky
(bis) Jeiki adi leyhouala agery denez gisoniq

3

Neskatouaq berhala ykhousician bes-ala
(bis) Hirour dozena basabilsala Leyho bateti bestera

4

Beretetchq umelki jean kontiary segurky
(bis)Ehun behi eman çerola bere Sesena ondoty

5

Jean kontiaq berhala Traidore bateq besala
(bis) Bereteretch agu eneky Uxulien berhala

6

Ama indasut athora benturas Seculakoua
(bis) min deronq orhit duke Basco gayherdi ondoua

7

Andoçeko ybara ala ibar lucia
(bis) Hirouretan ebakiçeitan Lanxariq gabe bihoxa

8

Heltu ninçan Ligira bouneta erori Lurera
(bis) Bouneta erory lurera eta Eskuriq eçin behera

9

Heltu ninçan ezpeldoya han harix baty ezteky
(bis) Han haris bati esteka eta biçia çeitan idoky

10

Ezpeldoyko Alhaba Margarita deyxenda
Bereteretchen odoletariq betheumendu fereta

11

Ama horen salhiabostmendietan behera
(bis) behagnaq arhin heltu umen da Lakhari bustanobia

12

Bustanobi gastia Ene anaye maitia
Hisas hoberiq ezpalin bada jouan duq ene Semia

13
Areba tchou ichiliq ez othoy egin nigariq
(bis) Maouliara helxen bada Ukhenen dugu biciriq

14
Ama jouan Maulera hantiq igan Thorera
jeaunaq eta eradaçie nounducien ene semia

15
Baduna hiq semeriq Bereteretchez besteriq
(bis) Ezpeldoy altian hiliq Orden eraikan bisiriq

16
Ezpeldoiko boukhata ala boukata lucia
(bis) Bereteretchen athoretariq hirour dozenahan bada



Jean Ronţiag berhala Enaidoz batez Bedala 24
(bis) Beretoretch aguenetBy Uzolian berBala
— 6 —
Ama irdabert athora benturas Seculakoua
(bis) Min derorg orhit dutte Baseo gaytzerdi ondoua
— 7 —
Ordoccetto ybara ala ibar luzia
(bis) Hirouretan ebaRiçentar Lanzariq gabe Ethoza
— 8 —
Helturrinean Ligira bouneta erori Lurrera
(bis) Bouneta erory lurrera eta Estaurigeçin behera
— 9 —
Helturrinean ezpeldoya hanhauzbaty eztetBy
(bis) Han haris bat estetRa eta beçia ceitan dotBy
— 10 —
Ezpeldoytto Alhaba Margalita deyzenda
Berelerchen odolgarig beltzumendu feretà
— 11 —
Ama horen Jalhabattmendutèn behera
(bis) Behagnag archin hellu izmen da Athaei buztanobi
— 12 —
Bustanobi Sartu Ene anaye maitia
Hisas Groberiq ezpalu bada Jouandeg ene Semia
— 13 —
Areba Ethouiçhilig ezathoy egin nigarig
(bis) Mizcotzoa helzen bada Rhemendugu beziq
— 14 —
Ama Jouan Maulera hantiq igan Ethozera
(bis) Jeaudag eta eradaçie nounducien ene Semia
— 15 —
Gaduna hiq Semeriq Beeleretkez besteriq
(bis) Ezpeldoy allian hilig Ordenera Hanbeziq



Bereterretxe balada. Chambra kaiera.

5. CHAMBRA KAIEREKO EREDUAREN ZENBAIT EZAUGARRI

Behin testu hau begien aurrean dugula, gure puntuazioa ezarriko diogu. Chambra kaiereko testuak ez du inolako puntuaziorik, baina hori gutxieneko kontua da. Ez ditu, era berean, letra larri eta xeheak desberdintzen: ez ditu gure maiuskulak eta minuskulak bereizten. Leku-izenak eta pertsona-izenak minuskulaz agertzen dira zenbaitetan. Maiuskulaz ikusiko ditugu, ordea, hitz zein atzizkiak. Hitz bera ere batzuetan ez du berdin idazten. Bereiz idatziko genituzkeen adizkiak ere batera edo loturik agertzen dira transkripzio honetan. Kontu hauek guztiak gorabehera, oso transkripzio garbia da eta ez du gehienetan dudarako zirrikiturik uzten.

Ahapaldien ordenari dagokionez, Louis Dassancek bere transkripzioan kantuaren jatorrizko ordena ez du errespetatzen. Hona Dassancek jarri duen ordena:1, 2 ,3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 11, 12, 13, 14 , 15, 10, 16. Dassancek egindako birrordena honek lojika handiagoa du, gure ustez. Ordena hau da, gainera, Salaberrik, H. Gavelek eta J. Jaurgainek dakartena.

Bokalei dagokienez, Chambra kaierak desberdindu egiten ditu grafian /u/ eta /ü/. Behin eta berriro agertzen den *ou* multzo idatziak bokale bakar bat itxuratzen du /u/, eta bestetik, *u* bakarrak Zuberoako /ü/. Kontsonanteei dagokienez, markagarrienetakoa r/**R** oposizioa da. Jakina da Zuberoako euskaran dardarkarien lenizio prozesua. Hona Mitxelenaren azalpena (Mitxelena: 1990):

> De entre los dialectos vasco-franceses es el suletino el más refractario a esta innovación. Pero también aquí han variado las condiciones: La oposición r/**R** ha desaparecido y sólo queda hoy un fonema vibrante. El proceso se ha cumplido así en la variedad descrita por Larrasquet".

Horrexegatik transkribatu ditugu lehen transkripzioan *Ecuriq* eta bigarrenean ezür[r]ik.Kontu hau izan da transkripzioan buruhausterik handiena eman diguna. Orain arteko *Bereterretxeren kantorearen* transkripzio osoenek, Salaberri, Gavel eta Dassance eta Peillenenak, r/**R** bereiztuz egin dute. Jean Haritschelharrek Etxahunen kantoreetan ere berdin jokatu du. Hona Haritschelharren hitzak (Haritschelhar: 1969-1970, 53): "Etchahun distingue r double de r *simple: erregue, batçarre,procuraduric, andere"*. Gure Chambra kaierean, ordea, ez dira behin ere idatziz /r/ eta /rr/ dardarkariak bereizten. Ez dugu behin ere *ferreta, erradaçu, erracoçu*, eta abar irakurri. Beti *fereta, eradaçu, eracoçu* eta abar. Bokal arteko /r/ dardarkariak askotan desagerturik agertzen dira. Baina beste zenbaitetan idatziz behintzat markatzen dira. Gure Zuberoako euskararen ezagutza batez ere liburuetatikoa da, eta problema hori kontuan izanik dagoen dagoenean trankribatzea pentsatu dugu hasieran. Kontuan hartzekoa da, gainera, Larraineko euskara Santa Grazikoaren antzekoa dela, biak ere Zuberoako Basabürü deitu eskualdekoak, edo frantsesez Haute-Soule lurraldekoak. H. Gavelek berak kanta transkribatzeko orduan honelaxe dio 165 or.:

> Il est sûr que chez beaucoup de Souletins, pour des raisons que nous avos indiquées dans nos *Eléments de phonétique basque*, RIEV , 1921, pp. 186-188, l'r forte intervocalique sonne plus faiblement que chez la plupart des Basques des autres régions; mais il est certain néanmoins que *Bereterrets* comporte normalement une r forte, comme on l'a vu plus haut.

Azkenean, guk ere geure aurreko maisu guztien bide bera hartu dugu.

Aspirizioari dagokionez, h guztiak transkribatu ditugu: *athora* eta ez *atorra*, *thorera* eta ez *torrera*, *arhin* eta ez *arin*.

Chambra kaiereko x grafemak, nahiz eta Iparralde osoko tradizioan gure *ts* bigrafoa transkribatzeko izan, *aberax, ixu*… gure eredu honetan tz adierazteko ere balio du. Era horretara *lanxa* guk "lantza", nahiz *isas* "itzaz" ere transkribatu dugun.

Eta zein puntuazio bide erabili? Eskuera izan ditugun eredu guztietarik H. Gavelenari jarraitzea iruditu zaigu egokiena.

6. CHAMBRA KAIEREKO *BERETERRETXE BALADA* GAURKO ORTOGRAFIAN

Puntu honetan lehen dokumentuaren transkripziotik abiaturik bigarren transkripzioa eratuko dugu.

1
Haltzak eztü bihotzik,
ez eta ere ezürrik.
Enian uste erraiten ziela || aitonen semek gezürrik.

2
Bereterretxek oheti
neskatu(a)ri segürki:
–"Jeiki adi leihuala, || ageri denez gizonik."

3
Neskatuak berhala,
ikhusi zian bezala,
Hirur dozena bazabiltzala || leiho bateti bestera.

4
Beretetx(e)k umelki
juan kontiari segürki
Ehün behi eman zerola, || bere zezena ondoti.

5
Juan kontiak berhala,
traidore batek bezala:
–"Bereteretx, a(i)gü eneki, || ützülien berhala".

6
–"Ama, indazüt athorra,
benturaz sekülakua!
(bis) min deron(a)k orhit düke .|| Bazko gaiherdi ondua!"

7
Andozeko ibarra,
ala ibar lüzia!
Hiruretan ebaki zeitan || lantzarik gabe bihotza.

8

Heltü nintzan Ligira,
buneta erori lurrera.
Buneta erori lurrera eta || eskürik ezin behera.

9

Heltü nintzan Ezpeldoia,
han haritx bati esteki,
han haritx bati esteka eta || bizia zeitan idoki.

10

Ezpeldoiko alhaba
Margarita deitzen da,
Bereteretxen odoletarik || bethe umen dü ferreta.

11

Ama horren zalhia
Bostmendietan behera!
be(l)hañak arhin heltü umen da || Lakharri-Büztanobia.

12

–"Buztanobi gaztia,
ene anaie maitia,
hitzaz hoberik ezpalin bada, || juan dük ene semia".

13

–"Arreba, txu ixilik!
ez, othoi, egin nigarik!
Mauliara heltzen bada, || ükhenen dügü bizirik.

14

Ama juan Maulera,
hantik igan thorrera.
–"Jaunak eta erradazie, || nun düzien ene semia!"

15

–"Badüna hik semerik
Bereterretxez besterik?
Ezpeldoi altian hilik; || orden, eraikan bizirik!"

16

Ezpeldoiko bukhata,
ala bukhata luzia!
Bereteretxen athorretarik || hirur dozena han bada.

7. CHAMBRA KAIEREKO *BERETERRETXE* EREDUA AHAPALDIZ AHAPALDI

Puntu honetan Chambra kaiereko eredua ahapaldiz ahapaldi iruzkinduko dugu. Gure azterketa Gavel eta Jon Etxaide eta abarren oharrekin lagundua etorriko da.

1

Halçaq eztu bihoxiq ezetaere Ecuriq
(bis) Enian ouste eraiten çiela aytonen semeq Gesuriq

Lehen ahapaldia gure ahozko literatura zaharreko exordiorik famatuena dugu. Lehen ahapaldi honek iruzkin bat baino gehiago izan ditu H. Gavel, Jean de Jaurgain, Jean Haritschelhar eta René Lafon dira, besteak beste direla, iruzkingileak. Ikus bedi azken honen "Remarques sur la phrase nominale en basque" (Gavel: 1999). Interesgarria da Salaberrik nola itzultzen duen lehen ahapaldia: *L'aulne n'a pas de moëlle,/ Ni le fromage d'os:/ Je ne croyais pas que le fils d'Aitor disaient des mensonges*. Itzulpen hau egitean, A. Chahoren idatziak –edo Aitor euskaldunen aitasabarik zaharrena delako ideia, behintzat– bereturik ditu *Enian uste erraiten ziela Aitunen semek gezürrik* horretako "Aitunen semek" maiuskulaz jarri eta "fils d'Aitor" itzultzen baitu. Eraskinean badu, zorionez, beste berririk: ***Aitunen onik Aitorren semek**, les fils d'Aitor. On désigne ainsi en Basque les enfants des anciennes familles nobles*. Jean de Jaurgainek Salaberriren euskarazko transkripzioa erabiliko badu ere, beste itzulpen bat egingo du, geroxeago ikusiko dugunez.

Gure Chambra kaiereko eredu honek duen desberdintasuna *gaztanbera* hitzaren ordez *ez eta ere* esapide ezezkakoa agertzea da. Berez, jakina, zaharragoa da bi imajina dituen irudia: *Haltzak ez du bihotzik,/ ez gaztanberak hezurrik*. Bi imajinadun irudia izatea kopla zaharren legerik iraunkorrena dugu: *Zeruan eder izarra,/ errekaldean lizarra*. Bi imajinako irudien legeaz, ordea, hitz egingo dugu hurrengo lan batean. Hasera miragarri edo exordio hau errefrau moduan ere agertu izan da. Martin Landerretxe (1842-1930) eta Mariano Izetaren lekukotasunez gainera, "Hitz zuhurren kantua" delakoan ere agertzen da (Duvoisin kapitainarena, nonbait. Ikus *Milla euskal-olerki eder*, 491. zenbakidun poema) bigarren ahapaldian: *Itsasoak, bixtan da, ez du, ez, adarrik,/ Ez eta gaztanberak erdiko hexurrik;/ Nehoiz ez da ikusi su gabeko kerik/ Bainan ez daite juja deus itxuretarik*. Bihotza, kontu jakina denez, arbola edo zuhaitzen erdiko gunea da. Arbola biziari bihotz horren inguruan eraztun bat gehitzen zaio urtero. Bihotzik gabeko arbola erdian hutsuneduna izango litzateke. Haltzak, beraz, beste arbola askok bezala badu bihotza. Argudio hau erabiltzen du Txomin Peillen euskaltzain eta biologoak bere lan batean (Peillen: 1991). Inozentzio Munitaren testigantza baliotsuez gainera, gaur eguneko nonahiko baserritar zein basomutilen jakituria ere bada. Bihotzik ez duena, esaterako, *kanabera* izango litzateke, barru hutsa duelako. Gure artean badago nobela bat Iñaki Mendigurerena arrazoi hau tituluan jartzen duena: *Haltzak badu bihotzik*. Gure exordio honetan kontuan hartzekoa da Gavelek dakarren aldaeretako bat: *Haltzak eztü bihotzik/ ez kanaberak hezürrik*. Aldaera hau Gaveli Santa Graziko berriemaileak emana da. Baliteke, beraz, gure aldaera hau baino lehenagokoa, "ez eta ere" *kanabera* hitzarekikoa izatea. Zentzuaren aldetik hurbilago dago Peillenek ematen duen *Haltzak eztü ezkürrik,/ ez gaztanberak ezürrik* irudia. *Irudia* hitza Ariztimuño *Aitzolen* erara darabilgu, hau da, pentsamendu edo *oldozkun*aren zati kontrajarri bezala. Era horretara, *ezkurrik/ hezurrik/ gezurrik* hitzak hoskideagoak dira.

Sarrera hau dela eta beti aipatu ohi da Francisque Michelen *Le Pays Basque* liburuko "Hil kechua" izenburupean, 401. orrialdean, agertzen den bigarren ahapaldia: *Halzac eztu ekharten ezcurric,/ Ez gastamberac ezurric:/ Ez nien ouste bazela/ Ginco semetan ghezurric*. Ahapaldi hau honela itzultzen du: *Le vergne ne porte point de fruit,/ Le mou fromage n'a point d'os:/ Je n'eusse jamais cru/ Que parmi les fils de Dieu il y eût des menteurs*. Behin honetaraz gero, gure arteko ikertzaile askok ikusi dituzte bi ahapaldien arteko bateratasunak: Jean de jaurgain, aita Donostia… Guk oharren bat egitekotan, arbolek fruitua *ek(h)arten* dutela esango genuke. Eta arbola aberatsari, fruitu asko dakarrenari, arbola *ek(h)arkorra* deitu ohi diote bestaldeko tradizioan (ikus *Orotariko hiztegia-n* ek(h)arkor). *Hil kechua* edo *Complainte Borthagaray* Nafarroa Beherekoa da edo lurralde mugante batekoa. Francisque Michelen liburuan, esaterako, argigarri hau dakar: Bas Navarrais. Beste iturri batean, *KKK* liburuan, 132 or., badago honen aldaketa txiki bat, honela transkribatzen baitute gure kantako bigarren ahapaldia: *Haltzak ez du maiten ezkurrik/ ez gaztanberak hezurrik;/ ez nian uste bazela/ Jainko-semetan gezurrik/ ez nian uste bazela/ Jainko-semetan gezurrik*. Eredu honetan, *ekharten* adizkiaren ordez *maiten* dakar, *emaiten* batetik

datorrena. Azken eredu hau, ukituren bat gorabehera, (GH, 1924 Abendoa), gehigarri musikaleko *Aphez Beltcharen kantuak* baladatik datorke. Balada hori Itsasun (Lapurdi) bildua da. Lapurdin bildua bada ere, Itsasu herria Baxenabarrerekin mugante dugu. A. Zavalak Luis Dassanceren paperetatik beste aldaera bat kopiatzen du (ikus ERRV 144 or.). Aldaera hau Martin Larrerena da, Makeakoa (Lapurdi). Hala ere zehaztasun argigarri bat ematen du "originaire de Bidarray", hau da, Bidarraikoa (Nafarroa Beherea) da jatorriz. Badago honetan besterik ere. L. Dassanceren paperetan A. Zavalak transkribatu ez duen ahapaldi bat ere aurkitu dugu. Ikertzaile tolosarrak beste kopia bat erabili duelako, gure ustez. Gu aztertzen ari garen kopla beraren aldaera denez, hona hemen: *Haltzak ez dik bihotzik/ ez gaztanberak hezurrik/ nik enian uste iten zutela/ aitoren semek gezurrik*. Harrigarria da, besteak beste, hikako erabilera *ez dik*. Oraingo ereduan, gainera, aditza ez da *erraiten* adizkia *iten* baizik, subjektua agerikoa da *nik*....

H. Gavelek dakartzan aldaeren zentzuari gagozkiola, *bihotzik* hitzarekin hobekien datorrena *Kanaberak ez du bihotzik*. litzateke. Ezkurrari dagokionez, zehaztasun bat edo beste egitea interesgarria da, azkenik. Zuberoan azken urte hauetan behintzat, bakarrik pagoaren fruitua da *ezkurra*, haritzarena *zi* edo *zia* omen da. Garai zaharretan baliteke euskaldun gehienok ezkurrari ematen diogun zentzua ematea, baina azkenaldian, azken berrehun urteetan behintzat, ez dirudi hala izan denik. Honelaxe diotso Intxauspek Bonaparte printzeari (Irigoien: 1957)*:*

> "Le mot *ezcurra* (gure grafian *ezkürra*) n'est employé en Soule que pour le faine, on dit *cia*, *ci*, pour le gland; nous devons par conséuent l'employer seul et pas dire *phago ou bago-ezcurra*, comme dans les autres dialectes".

Kantu zaharretan, Gavelek eta abarrek dioten bezala, zenbait hitz galdu ondorengo ordaina ez da askotan erabat argia izaten. Gure kantore honetan hitz edo are ahapaldi bat edo beste nahi bezain argigarri gertatu ez arren, ia miraritzat jo daiteke hainbeste ahapalditako kantore zaharra guganaino onik eta ederrik etortzea. Hainbat eszena bidez emana dago kantorea (leku eta gertaeren ordena logiko batez). Giuseppe di Stefanok egiten duen bi balada klaseen artean "alfa balada" izango genuke, hau da, ixtorio oso bat kontatzen duena.

2

Bereteretcheq ohety neskatouri segurky
(bis) Jeiki adi leyhouala agery denez gisoniq

Bigarren ahapaldian gehitze bat egin dugu *neskatouri* horretan artikulurik ez dugu ikusi, eta gure gehitzea dela adierazteko: *neskatu[a]ri* jarri dugu. Gainerako aldaeretako *habil eta so'gin ezan* hori beharrean, *jeiki adi leyhouala* agertzen da. Pasarte horretan gaua dela nabariagoa da neskatoa ere etzanda dagoelako, nonbait. Bestela ere irakur daiteke, etxedorreetako zein jauregietako leihoetara ere jaiki egiten da. Bigarren ahapaldi honetan nola transkribatu *gizonik* edo *gizunik*? Salaberrik Gavelek eta Peillenek hala dakarte. *Gizun* hitza ere dokomuntatzen da Zuberoako euskaran.

3

Neskatouaq berhala ykhousician bes-ala
(bis) Hirour dozena basabilsala Leyho bateti bestera

Hirugarren ahapaldi honetan agertzen da artikulua, *Neskatouaq* esaten baitu. Errondariak edo bilariak *bortha bateti(k) bestera* ere ibiltzen dira beste zenbait aldaeratan. Salaberri zein Gavelenean, ordea, gurean bezala agertzen da. Gure honetan *leyho bateti bestera* ibiltzen dira.

4

Beretetchq umelki jean kontiary segurky
(bis)Ehun behi eman çerola bere Sesena ondoty

Hasieran ezabaturik agertzen da *Jean K*, eta beste era batera hasi du: *Beretetchq*. Balada osoaren transkripzioan *jaun konte* agertu beharrean, *Jean konte* agertuko da. Hori ez da kantore honetan bakarrik erabiltzen den transkripzio sistema. Kaiereko lehen kantan, esaterako, hirugarren ahapaldiko lehen bertso lerroan ***Jeauna*** *behar dautasut gaissabat onhexy* dakar, nahiz eta 9an ***Jauna*** *ezdugu behar sarthu urguillutan/…/* ***jaunen jauna*** *dela gerthasen mundian*.

Hemen ere gehitze ulergarri bat egin dugu "Beretetch[e]q". *Umelki* hitza argi bezain garbi geratzen denez, horrelaxe transkribatu dugu: *ümelki*. Esaera zaharrak dioen bezala *in dubio pro reo*. Aditzari dagokionez, *eman çerola* edo *eman çerala*? Dassancek honelaxe transkribatzen du: *emanen zerola*. Nahiz beharbada *çerala* irakurri, *çerola* delako ustea egin dugu. Diogunaren froga gainerako testigantzak ditugu. Gavelek ematen dituen aldaerak era interesgarriak dira:

> S (Salaberri) et T (Irurikoa) donnent *bere* au lieu de *beren*: "son taureau". D: *Ehun behi baderola// bere zezenareki*.

Ahapaldi hau berau ere agertzen da, kontu ezaguna denez, Francisque Michelen *Hil kechua* kantuan: *Ehun behi baditut/ Bere zezenareki: Nic guziac emanen ditut/ Bizia ukhaitiareki*. F. Michelen eredu honetan, gainera, argiago dago mehatxatuak egiten duen eskaintza. Bi eredu gehiagotan ere aurkitzen da gorago aipatutako GH 1924 Itsasukoan eta *KKK* aldaeran. Eskaintza hau "hecatombe" hitzarekin erkatu da inoiz. Billabonako Euskaltzaindiko lehen ahozko jardunaldietan Patxi Altunaren ahotik entzun nuen nik lehenengo aldiz. *Hekatómbe* delakoa *hekatón* grekoz "ehun" eta *bous* "idi" hitzen konposiziotik dator. Ehun idi edo beste biktima batzuk eskaintzen zitzaizkien jainko paganoei. Espartako jaietan, kasurako, lakoniarrek hekatómbe bat eskaintzen zuten. Jai hauek Hecatombeas izena zuten. Gure baladan ehun idi eskaini beharrean, ehun behi eta zezena eskaintzen dizkio Bereterretxek. Eskaintza horren handitasuna, jakina, aberastasunaren seinale da, besteak beste.

5

Jean kontiaq berhala Traidore bateq besala
(bis) Bereteretch agu eneky Uxulien berhala

Jaugin aditzaren era jokatua da *aigu* hikako forma, gure honetan *agu* agertzen da. Futuroko *uxulien* adizkitik *ützülien* transkribatu dugu, bokal arteko –r- gabe. Dassancek, ordea, r-rekin "utzuliren hiz/ ützüliren". Adibide bat ematearren *Euskera* XIV-XV, 1969-170: "Arengaraiko primaren khantoria", 14. Ahapaldian: *Ene ustez ezpeitzira ützülien haboro*.

6

Ama indasut athora benturas Seculakoua
(bis) min deronq orhit duke Basco gayherdi ondoua

Seigarren honetan Bereterretxeren atxilotze-eguna markatzen da: Bazko gauerdia. Hemen agertzen da esaldirik urragarrienetako bat: *Min deronq orhit duke Basco gayherdi ondoua*. Jatorrizkoan falta den adizkiaren –a– bokal-artikulua gehitu dug*u Min deron[a]k* horretan. Gainerakoetan *bizi denak* da subjektua: hemen, ordea, *min dionak* horren kidea dugu. Etxahunen "Bi berset dolorusik" poeman (Haritschelhar: 1969-1970) honela dator azkena: *Zure karitatia Jinkuak orhit düke*. Balada honezaz J. Juaristiren lan bat egin eta argitara gabe dago. Lanaren izenburua: "Aplicación del modelo semiótico 'Romancero' a la balada vasca: Bereterretxeren kantorea" (Juaristi: 1982). Lan horren ardatz nagusia entzuna diogu J. Juaristiri. Hona hitz bitan muinaren muina. Bereterretxeren kantoreak duela bostehun urte baino gehiago Zuberoan gertatutako ekintza odoltsuetan du oinarri. Gertaerak benetakoak dira eta kanta bera ere gure altxorreko ale ederrenetakoa da balada-estetikaz eta herri ahozko baliapide ederrez hornitua. Kontatzeko modu nagusia, ordea, beste iturri batetik dator: Jesusen atxilotze eta heriotzarekin zerikusi handia du. Bazko bezperan, gau erdian, atxilotu zuten. Atxilotu baino lehen atxilotzaileak noiz

etorriko zain dago Jesus zein Bereterretx. Hirugarren egunean Jesus berbiztu egin zen. Marisantsi, Bereterretxeren amari, semea bizirik eraikitzeko diotso Jaun konteak.

Euskara zaharraren aztarnetan *indazüt* adizkia dugu (*niri* datibo-marka bikoitzak ditu: –da– eta –t). Gavelek honelaxe dio: la forme *indazüt* commence à vieillir. Agintera formak direla eta, nabarigarria da kantore osoa agintera adizkiz josia dagoela. Bereterretxek agindu egiten dio neskatoari eta amari. Amak Jaun kondeari eta bere segiziokoei. Jaun kondeak aginduak ematen dizkio Marisantsi… Tentsioa eta klimaxak eratzeko baliabideetako bat dugu erabilera hau.

Ahapaldi hau balada gehiagotan ere agertzen da. Azkuek Zaraitzun bildutako *Egunak zonbat egun tu* baladan: *Ama endazu atorra/ benturaz sekulakoa/ bizi denak orit izain du/ bazkoako oillaritea*.

7

Andoçeko ybara ala ibar lucia
(bis) Hirouretan ebakiçeitan Lanxariq gabe bihoxa

Gure oraingo ahapaldi honetan, beste guztietan agertzen den *armarik gabe bihotza* delako hori beste era batera dator: *lantzarik gabe bihotza*. *Harma* hiperonimoa esan beharrean *lantza* hiponimoa dakar. Biak, gainera, silaba eta bokal berak dituzte. Ahapaldi honetan dauden aldaerarik nabarmenenak Txomin Peillenek dakartza: *Andozeko ibarra/ gaü hartan ibar latza/ hiruretan armarik gabe || ebaki zeitan bihotza*.

Adizkiei dagokienez, nola agertu *zaitan* edo *zeitan*? Salaberrik eta Gavelek *zaitan* dakarte, guk Peillenek bezala irakurri dugu geurean: *zeitan*. Adizki hau bera agertzen da 9. ahapaldian: *bizia zeitan idoki*.

Ahapaldi hau erabili zuen, besteak beste, Rene Lafon Larraineratuak Jean Haritschelhar euskaltzainburuaren Euskaltzaindiko hitzaldi erantzunean (Lafon:1963).

8

Heltu ninçan Ligira bouneta erori Lurera
(bis) Bouneta erory lurera eta Eskuriq eçin behera

Ahapaldi hau eta hurrengoa dira, bestetan ere esan denez, *KKK* liburuan agertzen direnak. Hemen hainbat zehaztasun egin daitezke. Lehenik *Heltü nintzan* delakoa ez da gure mendebaldeko euskalkietako *(h)eldu nintzan*, besterik esan nahi duen *banentorren* baino. Zehaztasun hori gora handikoa da baladaren esangura ulertzeko. *KKK* liburuan *boneta* hitza agertzen da, gurean *buneta*. Peillenek beste era batera ematen du: *Heltü ginenean Ligira/ buneta erori lürrera/ buneta erori lürreala eta, eskürik ezin balia*. Ahapaldi honezaz ere hitz egin dugu orain baino lehenago. Ez ote dago *buneta* horren atzean gerrajantzia zen *yelmo* hitzaren ordain zaharrago bat?

9

Heltu ninçan ezpeldoya han harix baty ezteky
(bis) Han haris bati esteka eta biçia çeitan idoky

Ahapaldi hau aurrekoaren egitura oinarri harturik eratua dago. Bestela esan, aurreko ahapaldian Ligira badio, hots, nora kasua, honetan *Ezpeldoya* horretan ere nora kasua dago. Bokal arteko –r– biguna galdu da, beraz: *Ezpeldoi(r)a*. Bereterretx haritz batean lotzen dute. Harrigarria da "arbola bati lotu" egitura hau. Harritzekoa da, era berean, *esteki* aditza erabili arren, bihurkia egitean *esteka(tu)* aditza jartzen duela. Dassancek, itxura garbiak direnez, gaizki irakurri du jatorrizkoa. Eta A. Zavalak Dassancerena transkribatzen duenez gero, iturrian ez bezalako ahapaldi bat sortzen da. Chambra kaiereko eredu hau izan bide da oinarria *KKK* liburuko bi ahapaldi berri bezain famatuak kantuan txertatzeko. Hegiaphalen aldaeran beste inon ez bezalako ahapaldi bat agertzen da. Hegiaphalen ahapaldiak baditu iruzkingai dugun honekin berdintasun eta desberdintasunak: *Margaita gana heltzean/ zühaintze bati*

esteki/ belhariko ezarri eta || erho ezpataraki. Mirandek ere bere aitak kantatutako aldaera baten ahapaldi bat argitaratu zuen *Egan* aldizkarian: *Ezpeldoian nintzanian/ janak ba nian zer egina:/ haritx bati esteki eta, || bizia han galdü nian*. Ahapaldi honetako arbola *haritx* dugu, Zuberoako euskaran beti dokumentatzen den bezala. Peillenek ere hala dakar. Dassancek, ez, ordea.

10

Ezpeldoyko Alhaba Margarita deyxenda
Bereteretchen odoletariq betheumendu fereta

Lehen bi bertso-lerroak berdin ematen ditu Salaberrik eta Peillenek. Gavelek berak osatutako ereduan *Ezpeldoiko alhaba/ Margarita deitzen dena* hobetsi arren, gure eredukoa ere biltzen du oin-oharrean. Azken bi bertso-lerroak, edo nahiago bada, kopla-lerroak, aberatsagoak dira. Salaberrik eta Gavelek *Bereterretxen odoletik*, hots, singularrean jartzen dute. Gavelek ordea, oin-oharrean plurala ere esaten dela dio. Lekukoa gainera E dugu, gure ereduan bezalakoa, Santa-Grazikoa: "E-donne *odoletarik* au lieu de *odoletik*; le peuple dit de même en français *les sangs* pour *le sang"*. Peillenek ere *Bereteretxen odoletarik* ematen du. Odol hori edo horiek *ahürkaz biltzen ari da* dio Salaberrik, Peillenek *ahürzka biltzen ari da* eta Gavelek aldaera bat baino gehiago. Eredurako Salaberriren bera aukeratzen du, baina oin-oharrean: "Au lieu de *ahürkaz* T (Irurikoa) donne ahürka, et E (Santa-Grazikoa) donne *ahürretaka* (même sens), mot trop long pour le vers". Konturik harrigarriena, ordea, azkenean dator, ferreta betetzen baitu odolez. *Ferreta* garai bateko ontzi oso erabilia zen, gaztelaniaz "herrada". Gehienetan iturritik ura etxera ekartzeko erabiltzen zen. Odoltzaren handia adierazteko, beraz, hiru baliabide daude, odol pluralean erabiltzea (zer), odola esku beteka biltzea (nola), eta hirugarrenik zer ontzi betetzen den, hau da, ferreta (zerez zer bete).

11

Ama horen salhiabostmendietan behera
(bis) behagnaq arhin heltu umen da Lakhari bustanobia

Gavelek, Salaberrik bezala, *Marisantzen lasterra* dakar lehen bertso-lerroan. Peillenek *Ama haren lasterra* dakar, hasieran ama + erakuslea dakarrela. Gure eredu honetan bestetan agertzen ez diren adjektibo-adberbioak agertzen ditu. Lehenean *zalhia* adjetiboa izenaren funtzioan *haizearen epela* egiturakoa. Lakharri Buztanobira heltzen denean, belaunak *arhin* ditu. Guk zerbait zuzendu dugu testuan *behagnaq* delakoa *be[l]hagnaq* ulertu behar dela deritzagu. Eredu guztietan hala ematen delako. Gavelek oin-oharrean S: *Lakharri-Büztanobian sarthü da // bi belhañak herresta*.-T (Irurikoa): *Lakharri-Büztanobila heltü da // bi belhañak herresta*.

12

Bustanobi gastia Ene anaye maitia
Hisas hoberiq ezpalin bada jouan duq ene Semia

Ahapaldi hau da, xehetasunak xehetasun, gainerako aldaerekin antzekoena. Gainerako bi aldaeretan, Salaberri eta Hegiaphalenean, *hitzaz hunik ezpalinbada* agertzen da. Gavelek ere esapide hori hobetsi zuen bere eredurako. Hala ere oin-oharrean "(4) E: *hitzaz hoberik*" dakar. *E* delako horrek adierazten du Santa-Graziko lekukoak eman ziola beste aldaera hori. Gure kaierekoa ere, gorago esan dugunez, Santa-Grazikoa da. Bat datoz, beraz, ditugun datuak.

13

Areba tchou ichiliq ez othoy egin nigariq
(bis) Maouliara helxen bada Ukhenen dugu biciriq

Ahapaldi honetan duda batek baino gehiagok hartu naute atzaparpean. Zer da lehen bertso lerroko *tchou ichiliq* horretako *tchou* deabruzkoa? Adizki batek izan behar du, inolaz ere. Gainerako aldaeretan ere halaxe dagoelako: *ago*. Behin aginduak eman ondoren hitz esperantzatsuak esaten dizkio bere nebak, Maulera heldu bada bizirik izango duten kontua.

14

Ama jouan Maulera hantiq igan Thorera
jeaunaq eta eradaçie nounducien ene semia

Ahapaldi hau dugu kantore honetan bakarrik agertzen dentxoa. Ama Maulera joan ondoren, Mauleko gaztelura doa, eta behin gazteluan dagoela dorrera igaten da. Gaztelua Louis de Beaumont Leringo kondearen eta honen menpekoen egoitza da. Gaztelu honen beronen argazkia jartzen du Gavelek bere lan zoragarriaren edergarri eta hornigarri. Behin gazteluko dorrera igan ondoren, hango egoiliarrei zuzentzen die galdera-erregua Marisants Bereterretxeren amak. Transkripzioaren aldetik harrigarria da. Hemen *Jeaunaq* agertzen da –u- eta guzti, gainerakoetan Leringo kondeari zuzentzean beti *Jean*.

15

Baduna hiq semeriq Bereteretchez besteriq
(bis) Ezpeldoy altian hiliq Orden eraikan bisiriq

Ahapaldirik hunkigarrienetakoa da eta baladaren klimax-era eramaten gaitu. Ahapaldia bi zatitan zatitua dago: galdera urragarria eta agindu zorrotza. Gure balada eredu honetan galdera orainaldian emana dago, gainerakoetan iraganean. Iraganean ematen dute, J.D.J. Salaberrik, H. Gavelek eta Tx. Peillenek. Gure aldaera honetan ez da agertzen bestetako *Ezpeldoi altian dün hilik* horretako adizki jokatua: *dün*. Badago besterik ere. Hemen ikusten dugun *eraikan* adizkiaren aurrean hitz misteriotsu bat agertzen zaigu: *orden*. Gure *orden* horren lekuan, Salaberrik, Gavelek eta Peillenek *abil* dakarte. Baliteke, beraz, beste ereduak kontuan harturik, hau ere aginterako adizki bat izatea. Beste iturri batzuk kontsultaturik, badakigu seguru *orden* delakoa agintera adizki bat dena. Zuberoako agintera da *orden* emakumezkoen hikan, eta *ordek* gizonezkoenean. Adiera joan aditzaren *hoa* bezalakoa da, edo bestela esan, Iparraldeko *(h)abil* adizkiarena. Azkuek bere hiztegian jasoa zuen Erronkari eta Zuberoarako. Hona hemen: *ordek* (R, Sc), vete, va-t'en. Emakumezkoan eran, ostera, *orden* (R), vete, hembra: va-t'en, femme. Gure adibideko adizkia bigarren hau da, Azkuek bakarrik Erronkarikotzat duena. Lhandek ere ematen ditu forma hauek eta zukakoak ere: *ordezu*, *ordezue*… Azkuek besterik ere biltzen du: *ordezü* (Sc), vaya usted, allez-vous-en (singulier). Pluraleko forma ere ematen du Azkuek: *Ordezie* (Sc), váyanse ustedes, allez-vous-en (pluriel).

Behin zehaztasun hauen ondoren, galdera polit bat ere egiten du Lekeitioko ikertzaile argiak: ¿Cuál es el infinitivo de este verbo, como de *ordek* y *orden* y *ordezü*? Adizki hauek guztiak Lhandek ere badakartza bere hiztegian. Leku bitako lekukotasuna badugu, beraz. P. Lhandek Pierre Foix (1865-) autorearen lekukotasuna dakar. Pierre Foix zuberotarra, Santa Grazi ingurukoa zen. Lhandek honen hiztegi eskuidatzia erabili zuen berea egiteko. Diogunaren argigarri, ikusi besterik ez dago hiztegiaren izenburua: *Dictionnaire basque-français… d'après les dictionnaires manuscrits des abbés M. Harriet, M. Hiribarren et Pierre Foix*, Paris 1926. Behin kontuak honetara, ondorio bat atera genezake: gure adizkiak Basabürü lurraldeko Santa Grazi ingurukoak eta Erronkarikoak dira, mugalde bietako lurraldeak magante direlako. Erronkariko testigantza gehiago ere baditugu Kandido Izagirreren artikuluan "Erronkariko Euskal-Ondakin batzuk" (Izagirre: 1959): *órden urtúts*ik vete descalza, *órdek Pákoara* vete al Paco (es un lugar donde no da el sol). Erronkariko herri literatura apurrean ere agertzen da. Mendigatxak bildutako ipuin batean zorri eta kukuso baten arteko elkarrizketan bi aldiz agertzen da *ordek/ orden*. Ipuinaren pasartea hau dugu (Irigoien: 1957): "Kikosoak: a tonto *ordek* polopara onki ortzak kalkadozkian lekura". "Vada nai badun fan uzkiara, *orden* gaztiarniara". Santa Graziko euskaraz

dagoen Chambra kaierean adizki hori agertzeak esan nahi du, besteak beste, herri-literatura zaharraren agergarririk ederrenetakoa den *Bereterretxe baladan* ere baduela bere lekua. Hona azkenik jakingarri bitxi bat. Bereterretch Larraiñekoa da eta inguru horretan bildu dira ditugun kanta honen aldaeratxoak. Basabürüa leku menditsua da Erronkariko lurrekin mugan dagoena. Etxahun Irurik *Pette Beretter* pastoralean Bereterretx sortzez Erronkarikoa dela dio.

Beste agintera formari bagagozkio, *eraikan* adizkiari hain zuzen, *eraiki* aditzaren emakumehikako (emakumeei zuzendutakoa, nahiz gizonak nahiz emakumeak hitz egin, alegia) agintera dugu. *Jaiki* aditzarena *haika* da, eta *eraiki* aditzarena *eraikak/ eraikan*. Guk dugun literaturan, kanta honetako aldaera oso guztietan bakarrik dokumentatzen dena, hain zuzen.

Zentzuari gagozkiola, begi-bistakoa da bi esaldien krudeltasuna, galderarena eta aginduarena. Nola altxatuko du bizirik ama batek hildako semea? Harrigarri egiten zaigu, beraz, Gavelen oin-oharreko iruzkina: ."(…) mais devant la douleur de la mére il essaie de lui laisser encore quelque espoir de retrouver son fils vivant." Jon Etxaidek, guk bezalaxe, azken ahapaldiko Jaun kondearen doilorkeria eta krudeltasuna azpimarratzen ditu (Etxaide: 1977):

> Bertsuok, ernagarriak ez-ezik, zirraragarriak dira eta sarritan hunkigarriak. Ama baten larria bere semea galetsi duelarik eta jaun kuntiaren kinismu doillorra amaren bihotz minduari iseka egiñez, goi-arnas aberatsenaz adierazirik daude.

Esan daiteke besterik ere, krudeltasun honi dagokionez. Bereterretxe Pazko gauerdian hila dutenez gero, Jesukristo bezala hil izan da. Jesukristo hiru egun geroago berpiztu zen, edo Intxauspek Santa Grazin berean bildu zuen bezala, *berjaio* zen (berak beste era batera bildurik "on dit aussi berjazayoz pour rendre naturellement"). Gertaera hori oinarri dugula krudelkeria ukaldi handiagoa du *orden, eraikan bizirik* delakoak.

16

Ezpeldoiko boukhata ala boukata lucia
(bis) Bereteretchen athoretariq hirour dozenahan bada

Azken ahapaldi honetan, formari dagokionez, ez dago iruzkin-gai handirik. Chambra kaierean, modu desberdinean idatzirik *boukhata* eta *boukata* agertu arren, berdin jarri dugu bigarren transkripzioan: *bukhata*. Zuberoako euskaran *bükhata/ bukhata* bi erak dira posible. Berdin gertatzen da, besteak beste, *umen/ümen* hitzekin biak ematen baitira; ez, ordea, *omen* (Erronkarin *emon*). Aldaera-formei dagokienez, bi desberdintasuntxo ditugu, bata *bukhata luzia!* eta ez *bukhata ederra*!, eta bigarrenik, *hirur dozena han bada* eta ez gainerakoetako *hirur dozena umen da*. Gavelek ematen duen Atharratzeko berriemaile baten aldaera gurearen antzekoa da, baina hiperbolea erabiliz: *hogei dozena han, ba-da*.

Kontu hau dela eta Gavelen oharra hemen argigarri da: Hirur dozena ba-dira "il y a trois douzaines".

> Peut-être pour inspirer plus d'horreur, le poète termine par un détail macabre: apparemment, les gens de la maison Espeldoypè exercèrent envers le cadavre de Berteretch une pieuse et funèbre hospitalité: mais il continua de saigner longtemps encore, d'où ces paroles, non exemptes d'exageration poétique: "trois douzaines de chemises se teignirent, dit-on, du sang de Berteretch", soit que réellement l'on eût été obligé de changer plusieurs fois de suite la chemise dont on avait revêtu le corps, soit qu'á défaut d'autres linges on se fût servi de chemises pour étancher son sang. L'hyperbole n'a point paru suffisante encore à certains, car U donne la variante *hogei dozena han, ba-da* "il y a là vingt douzaines"- Le dernier vers n'est pas toujours compris des chanteurs ni de leurs auditeurs, et nous l'avons entendu interpréter dans ce sens que le mariage de Berteretch avec Marguerite d'Espeldoy devait avoir lieu si prochainement que le linge du futur époux était déjà transporté chez ses beaux-parents!-Dans l'expression *Bereterret'sen athorretarik*, le mot *Bereterrret's* est au génitif, mais ce cas, en basque, n'indique pas une idée d'appartenance aussi étroite qu'en d'autres langues, et il sert même souvent à marquer la simple destination; le sens est évidemment: "Des chemises qui servirent à étancher le sang de Berteretch, il y a, dit-on, trois douzaines".

8. CHAMBRA KAIEREKO EREDUAREN DASSANCEREN TRANSKRIPZIOA

Chambra kaier originala Louis Dassanceren eskuetan zegoen. Dassancek kaier honetatik egindako transkripzioa jarriko dugu puntu honetan:

1
Halzak ez du bihozik ez eta ere hezurrik (bis)
Enian ouste eraiten ziela Aitonen semek gezurrik (bis)

2
Bereteretchek oheti neskatouari segurki (bis)
Jeiki adi leyhouala ageri denez gizonik

3
Neskatouak berhala ikhousizian bezala
Hirour dozena bazabiltzala leyho bateti bestera

4
Bereteretchek umilki Jaun kuntiari segurki
Ehun behi emanen zerola bere zezena ondoti

5
Jaun kuntiak berhala traydore batek bezala
Bereteretch aigu eneki utzuliren hiz berhala

6
Ama indazut athorra benturan sekulakoua
minderonac orhit duke Bazko gaiherdi ondoua

7
Andoceko ibarra ala ibar luzia
Hirouretan ebaki ceytan lantzarik gabe bihotza

8
Heltu nintzan Ligira bouneta erori lurrera
Bouneta erory lurrera eta eskurik ezin behera

9
Heltu nintzan Ezpeldoyra han haritz bati esteki
han haritz baty esteki eta bizia zeitan idoki

10
Ama horren salhia bostmendietan behera
Balhagnak arhin heltu omen da Lakharry Bustanobia

11
Bustanobi gaztia Ene anaye maitia
Hitzaz hoberik ezpaliñbada jouan duk ene semia

12
Arreba tchoa ichilik ez othoi egin nigarrik
Maoulera heltzen bada ukhenen dugu bizirik

13
Ama jouan Maulera hanti igan Thorera
Jeaunaq… eta… erradazie noun duzien ene semia

14
Baduna hik semerik Bereteretchez besterik
Espeldoy altian dun hilik orden eraikan bizirik

15
Espeldoyko alhaba Margarita deitzen da
Bereteretchen odoletarik bethe umen du ferreta

16
Espeldoyko boukhata ala boukhata luzia
Bereteretchen athorretarik hirour dozena han bada

9. *KKK* LIBURUKO *BERETERRETXE* BALADA

Bereterretxe baladako testu argitaratuak ez dira, guk ezagutzen ditugun neurrian, herri-testigantza fidelari atxikiak. Ez dira beste hitzez esateko transkripzio fidel bati lotuak izan. Gavelen eredua *bertsio* osatu bat da. Eskualde berean kantatu ziren berriemaileen ahapaldiekin *bertsio* osatuago bat emana da. 1870ean argitaratu zen Salaberrirena ez dakigu zuzen, ditugun bi eredu eskuidatzietatikakoak ez baitatoz bat argitaratu denarekin. *KKK* 1967ko eredua oso antzekoa da Salaberriren eredu argitaratuarekin. Duen desberdintasunik handiena zortzigarren eta bederatzigarren ahapaldiek ematen dute:

8
Heltü nintzan Ligira,
Buneta erori lürrera,
Buneta erori lürrera eta eskurik ezin behera.

9
Heltü nintzan Ezpeldoira,
Han haritx bati esteki,
Han haritx bati esteki eta bizia zeitan idoki.

Bi ahapaldi hauek Chambrako kaierekoak dira baina ez guztiz Chambrakoak, Dassancek egin zuen Chambrako irakurketakoak baino. Honelaxe egin baitzuen irakurketa:

8
Heltu nintzan Ligira bouneta erori lurrera
Bouneta erory lurrera eta eskurik ezin behera

9
Heltu nintzan Ezpeldoyra han haritz bati esteki
han haritz baty esteki eta bizia zeitan idoki

Jatorrizko eskuidatzian, ostera, ez dugu erabat berdin ikusten. Ez dago, esate baterako, *esteki* bi aldiz berdin irakurtzerik (haritx bati esteki, haritx bati esteki eta (...)berean irakurtzerik. Batean *ezteky* eta bestean *esteka* ikusten dugu, argi baino argiago.

8

Heltu ninçan Ligira bouneta erori Lurera
(bis) Bouneta erory lurera eta Eskuriq eçin behera

9

Heltu ninçan ezpeldoya han harix baty ezteky
(bis) Han haris bati esteka eta biçia çeitan idoky

10. SALABERRIREN BI EREDUAK

J.D.J. Salaberrik 1870ean *Chants Populaires du Pays Basque Paroles et Musique Originales* liburuan argitara zuen lehen aldiz *Bereterretxeren kantorea*. Liburu horretako 212 eta 217. orrialdeetan eman zuen euskal testua, frantses itzulpena ondoan duela. Euskal baladaren aurretik lehen ahapaldia eman zuen pentagramaz horniturik. Lehen argitalpen hau hamabost koplako eredua da. Hamabost kopla hauek ez ditu Salaberrik, gainerako kanta guztietako ereduari jarraiki, bere liburuan zenbakituko.

Kantua transkribatzeko orduan, bi zatitan zatitu zuen balada. Lehen zortzi ahapaldiak eta gainerako zazpiak. Zatikatze hau bi denbora nagusiri dagozkio, Salaberriren ustez. Lehen zatia sarrera ahapaldiek Bereterretxeren etxean gertatzen diren gertaera eta elkarrizketek hartzen dute lekua. Zortzigarren ahapaldiak Bereterretxeren amaren, Mari Santsen, lasterraldia kontatzen du. Bi zati hauek ez daude beste kantu batzuetan bezalaxe modu enfatikoan markatuta. Hala markatu nahiko balu, zenbaki erromatarrez markatuko lituzke kantuaren osagaiak.

Salaberrik, argitara zuen liburuko kantu guztiei bezala, edizio txukuna eskaini zion *Bereterretxeren kantore*ari. Liburuaren bukaeran ohar bat ere eskaini zion.

Esan dezagun, azkenik, edizio honetako aldaera dela *Bereterretxeren kantuaren* aldaerarik kanonikoena. Ahapaldien ordena ere finkatutzat hartu izan da gainerako kantutegi eta moldapenetan. Ahozko tradizioan, ordea, ahapaldien ordena bat baino gehiago izango ziren, beste puntu batean ikusiko dugunez.

11. SALABERRIREN A ALDAERA ARGITARATUA

Liburuko aldaera ekarriko dugu ataltxo honetara, aldaerarik ezagunena eta mila lekutan agertua bada ere 1870. argitarapenaz gero. Aldi eta alde bateko transkripzioaren legeak segitzen ditu. Iparraldeko XIX. mendeko ortografia ispilatzen du bete-betean. Alde batetik onartuak ditu idazkera berriaren k direlakoak *haltzak, bihotzik,* eta abar. Baina bestetik *Berterretch* modu zaharrean transkribatuko du, ez gaur egun egingo genukeen bezala *Berterretx*. Chahoren lanen ezagutza ere erakusten du transkribatzaileak. *Aitunen semek*, *Aitunen* letra larriz dela badakigu zer esan nahi duen: Chahoren teorien onarpena. Itzulpenean Aitunen semek honelaxe agertuko da itzulirik *les fils d'Aitor*.

Haltzak eztü bihotzik,
Ez gaztamberak ezürrik:
Enian uste erraiten ziela Aitunen semek gezürrik.

Andozeko ibarra
Ala ibar lüzia!
Hiruretan ebaki zaitan armarik gabe bihotza.

Berterretchek oheti
Neskatuari estiki:
“Abil, eta so’ginezan ageri denez gizonik.”

Neskatuak berhala,
Ikhusi zian bezala:
Hirur dozena bazabilzala leiho batetik bestera.

Berterretcek leihoti
Jaon kuntiari goraintzi;
Ehün behi bazereitzola bere zezena ondoti.

Jaon kuntiak berhala
Traidore batek bezala:
“Berterretch, aigü borthala, ützüliren hiz berhala.”

–“Ama, indazüt athorra,
“Mentüraz sekülakua;
“Bizi denak ohit ükhenen dü Bazko biharamena.”

Mari-Santzen lasterra
Bost-Mendietan behera!
Lakharri Büztanobian sarthü da bi belhaiñak herresta.

–“Büztanobi gaztia,
“Ene añaie maitia,
“Hitzaz hunik ezpalimbada, ene semia juan da!”

–“Arreba, ago ichilik
“Ez, othoi, egin nigarrik;
“Hire semia bizi balimbada, mentüraz Mauliala da.”

Mari-Santzen lasterra
Jaon kuntiaren borthala!
–“Ai! ei! eta, Jaona, nun düzie ene seme galanta!”

–“Hik bahiena semerik
“Berterretchez besterik?
“Ezpeldoi altian dün hilik; abil, eraikan bizirik,”

Ezpeldoiko jentiak
Ala sendimentü gabiak!
Hila haiñ hüllan ükhen eta deüsere etzakienak!

Espeldoiko alhaba
Margarita deitzen da;
Berterretchen odoletik ahurkaz biltzcen ari da

Espeldoiko bükhata
Ala bükhata ederra!
Berterretchen athorretarik hirur dozena ümen da

12. SALABERRIREN A ALDAERA ESKUIDATZITIKAKOA

Salaberriren eskuidatzian agertzen den aldaera ekarriko dugu puntu honetara. Ezagutzen dugun lehen aldaera denez gero, A izendatuko dugu. Aldaera hau 139-141. orrialdeetan aurkitzen dugu. Eskuidatziko eredutik argitaratu zen eredura ia ez dago aldaerarik. Bi hitz zuzendurik edo osaturik agertuko dira argitaratutako ereduan. Hona eskuidatzikoa:

Haltzak eztu bihotzik
Ez gaztamberak ezurrik
Enian uste erraiten ziela Aituen semek gezurrik

Andozeko ibarra
Ala ibar luzia
Hiruetan ebaki zaitan armarik gabe bihotza

Berterretchek oheti
Neskatuari eztiki
Abil, etso'ginezan ageri denez gizonik

Neskatuak berhala
Ikhusi zian bezala
Hirur dozena bazabiltzala leiho batetik bestera

Berterretchek leïoti
Jaon kuntiari goraintzi
Ehu behi bazereitzola bere zezena ondoti

Jaon kuntiak berhala
Traidore batek bezala
Berterretch, aigu borthala, utzuliren hiz berhala

Ama indazu athorra
Menturaz sekulakua
Bizi denak ohit ukhenen du Basko biharamena

Mari Santzen lasterra
Bost-Mendietan behera
Lakharri Buztanobian sarthu da bi belhañak herrestag

Bustanobi gaztia
Ene anaie maitia
Hitzaz hunik ezpalimbada, ene semia juan da

Arreba ago ichilik
Ez, othoi, egin nigarrik
Hire semia bizi balimbada, menturaz Maulialada

Mari Santzen lasterra
Jaun kuntiaren borthala
Ai! ei! eta, Jaona, nun duzu ene seme galanta.

Hik bahiena semerik
Berterretchez besterik
Ezpeldoi altian dun hilik, abil, eraikan bizirik

Ezpeldoiko jentiak
Ala sendimentu gabiak
Hilahaiñ hullan ukhen eta deuserre etzakienak

Espeldoiko alhaba
Margarita deitcen da
Berteretchen odoletik ahurkaz biltzcen ari da

Espeldoiko bukhata
Ala bukhata ederra
Bertereetchen athorretarik hurur dozena umen da

Lehenengo eta bat egin dezagun eskuidatziaren deskripzioa. *Bereterretxe* balada lau. orrialdetan dago transkribaturik. 138tik 141era. Lehen orrialdean, 138an, ahapaldi bakarra dago; bigarrenean, 139an, sei ahapaldi; hirugarrenean 140an, sei ahapaldi eta 141ean, bi ahapaldi. Zuberoako kaier eskuidatzietan hiru modutara ikusi ohi dugu transkribaturik gure kantorea. Kopla bakoitza lau lerrotan. Lehen bi kopla-lerroak lerro batean eta hurrengo biak beste batean. Eta, azkenik, lehen bi kopla-lerroak lerro banatan eta azken bi kopla-lerroak lerro bakarrean. Gure eredu honek azken bidea edo idazkera erakusten du. Azken bide honetan irudikatuko dira, gainera, ezagutzen ditugun eredu guztiak.



Andoaeko ibarra
Ola ibar guzia
Hiruretan ehuki zaitan armarrik gabe bihotza

Bertaco etchek eheti
Nesketauac ezteki
Ahal, eta ez ginezan agoni denez gaizki.

Nesketak berhala
Ikhusi ziem bezala
Horiaz dozena bat ehalaba lako batetik bestera

Bertaco etchek beiheti
Jaun kuntiari gomendi
Eha beha baderaitzola berehezena aurkhi

Jaun kuntiak berhala
Guidore batik bezala
Bertaco etch, aitzu berthala, ützuli zen hiz berhala

Nonu indarra ehorra
Mendiuna zeharlakua
Biziko nak ohit nikhemen du Baska bihotzmina



120 Abari-Santzen Casterra
Bort-Abendietan Cehera
Lakhari Bustanobian sarthuda bi Celhuñak hemeta.

Bustanobi gastia
Ene amaia maritia
Hiltzak hunik espalimbada, ene semia juan da

Arreba, ago ichilik
Ez, athoi, egien nigarrik
Ikhe semia Siri balimbada, mendiuse Aberiada

Abari Santzen Castorra
Juan Kuntinuen Corthala
Hil'ei'eta, Jaunac, nun duzu ene seme galanta.

Bik Cahiena semerik
Bertzerik ez bestenik
Espelloi altian dun hilik, ehuli, eraikan Cizirik

Espelloiko jentiak
Alu sendimenta gabiak
Hilahaiz kultan ukhen eta deusere ezukiemak



Bereterretxe balada. Salaberrik 1870. urtean argitaratutako eredua.

13. SALABERRIREN B ALDAERAREN PATRI URKIZUREN TRANSKRIPZIOETAN

Patri Urkizuk bi aldiz argitaratu du Salaberriren aldaera hau. "Viejas baladas vascas del cancionero de Chaho" artikuluan (Urkizu: 2005) eta *Chaho*ren kantutegiko edizioan (Urkizu: 2006). *Bereterretxen kantorea* bi argitarapen horietan ez dago, geroago hobeki ikusiko dugunez, guztiz fidel argitaraturik. Patri Urkizuk nahiz eta Chahoren *Bereterretxe* balada galdua egon, Salaberriren aldaera eskaini zuen. Hona hemen 70-72. orrialdeetan datorren eredua.

1
Berterretxek ohetik
Neskatuari aphalti:
–Abil eta so'gin ezan leiho hortarik.

2
Neskatuak berhala
Ikhusi zian bezala,
Ehun gizon bazerola bortha batetik bestila.

3
Berterretxek leihoti
Jaun kuntiari eztiki:
Ehün behi bazerola beren zezenareki.

4
Jaun kuntiak eztiki,
Erraiten dero eztiki:
–Berterretx, aigü gureki, ützüliren hiz segurki.

5
–Ama, indazüt athorra,
Mentüraz sekulakoa!
Bizi denak orhit düke Bazko-oilaurentia!

6
Ama horren lasterra
Bostmendietan behera!
Belhainak sortharik zela sarthü da Lakharri-Büstanobila.

7
–Bustanobi gaztia,
Ene anaie maitia,
Zütan hunik ez balinbada, juan da ene semia.

8
–Arreba, ago ixilik!
Ez othoi egin nigarrik!
Maulen dün ingoitik, ützüliren dün bizirik.

9
Andozeko ibarra,
Ala zer ibar lüzia!
Hiruretan ebaki zaitan armarik gabe bihotza.

10
Ama horren lasterra,
Jaun kuntiaren borthala!:
–Ai, ei, eta jauna, nun düzie ene seme galanta?

11
–Bahiana semerik
Berterretxez besterik?
Ezpeldoi-altian dün hilik, abil, eraikan bizirik.

12
Ezpeldoiko alhaba
Margarita deitzen da,
Berterretxen odoletarik bethe ümen dü ferreta.

13
Ezpeldoiko bükhata,
Ala bukhata ederra!
Berterretxen han ümen dü hirur dozena athorra.

Lehen transkripzio honetan hitz bera bi eratara transkribaturik aurkitzen da, behin baino gehiagotan. Bigarren ahapaldian *ehun* eta hirugarrenean *ehün*. Seigarren ahapaldian *Lakharri-Büstanobila* eta zazpigarrenean *Bustanobi*. Eta hamairugarren ahapaldian bi eratara transkribaturik hitz bera *bükhata* eta *bukhata*. Transkripzioa arretaz irakurririk irizpide-falta ohar horietan errazki ikusten da.

Patri Urkizuren Salaberriren ereduaren transkripzio hau 2005ekoa da. Handik urte batera, 2006an, *Agosti Chahoren kantutegia* liburuan Salaberriren aldaera bera ez zuen modu berean argitara eman. Liburu horretako transkripzioa hona ekarri eta batetik besterako aldaketak letra etzanaz markatuko ditut.

(1)
Berterretxek *oheti*
Neskatuari aphalti:
–Abil eta so'gin ezan leiho hortarik.

(2)
Neskatuak berhala
Ikhusi zian bezala,
Ehün gizon bazerola *leiho* batetik *bestera*.

3
Berterretxek leihoti
Jaun kuntiari eztiki:
Ehün behi bazerola beren zezenareki.

4
Jaun kuntiak *nubleki,*
Erraiten dero eztiki:
–Berterretx, aigü gureki, ützüliren hiz segurki.

5
–Ama, indazüt athorra,
Mentüraz sekulakoa!
Bizi denak orhit düke Bazko-oilaurentia!

6
Ama horren lasterra
Bost-mendietan behera!
Belhainak sortharik zela sarthü da Lakharri-Büztanobila.

7
–*Büztanobi* gaztia,
Ene anaie maitia,
Zütan hunik ez balinbada, juan da ene semia.

8
–Arreba ago ixilik!
Ez othoi egin nigarrik!
Maulen dün ingoitik, ützüliren dün bizirik.

9
Andozeko ibarra,
Ala zer ibar lüzia!
Hiruretan ebaki zaitan armarik gabe bihotza.

10
Ama horren lasterra,
Jaun kuntiaren borthala!:
–Ai, ei, eta jauna, nun düzie ene seme galanta?

11
–Bahiana semerik
Berterretxez besterik?
Ezpeldoi-altian dün hilik, abil, eraikan bizirik.

12
Ezpeldoiko alhaba
Margarita deitzen da,
Berterretxen odoletarik bethe ümen dü ferreta.

13
Ezpeldoiko bükhata,
Ala bükhata ederra!
Berterretxen han ümen dü hirur dozena athorra.

Patri Urkizuk lehen aldiz argitaratu zuen zenbait huts zuzendurik daude bigarren argitarapen honetan. *Ehün* hitza bigarren eta hirugarren ahapaldietan berdin-berdin transkribatzen da. Seigarren ahapaldiko *Lakharri-Büztanobila* eta zazpigarreneko *Büztanobi* berdin daude transkribaturik eta azken ahapaldiko *bükhata* hitza bi aldiz berdin dago transkribaturik.

Harrigarria bada ere lehen lau ahapaldiak ez datoz bat. Eredu bera transkribatzen bada, zergatik desberdin transkribatu? Kurtsibaz jarri ditudan desberdintasun guztiak iruzkinduko ez baditut ere, zenbait behintzat egingo ditut. Lehen transkripzioan, bigarren ahapaldian, *Ehun gizon bazerola batetik bestila;* bigarren transkripzioan, *Ehün gizon bazerola leiho batetik bestera*. Bi horietatik zein da zuzenena? Jatorrizko eskuidatzian *Ehün gizon bazerola/ Leiho batetik bestera* dator.

Lehen transkripzioan, laugarren ahapaldian, *Jaun kuntiak eztiki,/ Erraiten dero eztiki*; bigarren transkripzioan, *Jaun kuntiak nubleki,/ Erraiten dero eztiki*. Bi horietatik zein da zuzenena? Jatorrizko eskuizkribuan *Jaon kuntiak nubleki/ Erraiten dero eztiki*.

Patri Urkizuren bi transkripzio hauetatik bigarrena jatorrizko eskuizkribuari lotuago dago, geroago erakutsiko dudanez. Galderarik funtsezkoena egin beharko bagenu hauxe litzateke. Patri Urkizuren bi transkripzioetan egiazki bildua ote dago Salaberrik bere kaierean idatzi zuen eredua? Galde honi erantzuna hurrengo puntuan emango diogu.

14. SALABERRIREN B EREDUAREN GURE TRANSKRIPZIOA

Bereterretxeren kantua Salaberriren kaierik txukunenean dago transkribaturik 16. zenbakian. Kantuaren izenburua letra gotiko txukunez idatzia dago: *Berterretchen kanthoria*. Ahapaldiak ere zenbakiturik daude, guztira hamairu. Kantorea lau orrialdetan dago idatzirik. Lehen orrialdean lehen bi ahapaldiak eta hirugarrenaren erdia; bigarren orrialdean hirugarrenaren erdia eta lau, bost, sei, zazpi ahapaldiak; hirugarren orrialdean bederatzi, hamar, hamaika eta hamabigarrenaren erdia; laugarren orrialdean hamabigarrenaren erdia eta hamairugarrena. Hona hemen:

1.
Berterretchek oheti
Neskatuari eztiki:
“So’ginezan leiho hortarik
Ageri denez gizonik.”

2.
Neskatuak berhala
Ikhusi zian bezala:
Ehün gizon bazerola
Leihobatetik bestera.

3.
Berterretchek leihoti
Jaon kuntiari eztiki:
Ehün behi bazerola
Bere zezenareki.

4.
Jaon kuntiak nubleki
Erraiten dero eztiki:
“Berterretch, aigü gureki
Ützüliren hiz segürki.”

5
“Ama, indazüt athorra
Mentüraz sekulakua;
Bizi denak orhit düke
Bazko oillaurentia.”

6
Ama horren lasterra
Bost-mendietan behera!
Belhaiñak sortharik zela
Lacarry Büztanobila.

7
“Büztanobi gaztia,
Ene anaie maitia
Zütan hünik ezpalimbada
Juan da ene semia!”

8
“Arreba, ago ichilik,
Ez othoi egin nigarrik;
Maulen dün ingoitik,
Ützüliren dün bizirik”.

9
Andozeko ibarra
Ala ibar lüzia!
Hiruretan ebaki zeitan
Armarik gabe bihotza.

10
Ama horren lasterra
Mauleko Jaon kunti’gana!
“Asa, Jaona, non düzie
Ene seme bakhoitza?”

11
–“Bahiana semerik
Berterretchez besterik?
Ezpeldoi altian dün hilik;
Habil! eraikan bizirik!”

12
Ezpeldoiko alhaba
Margarita deitzen da;
Berterretchen odoletarik
Bethe ümen dü ferreta.

13
Ezpeldoiko bükhata
Ala bükhata ederra!
Berterretchek han ümen dü
Hirur dozena athorra.

(32)

Mailhatü bat baizik.

4.

Amodio berriak
Sendotzen tizü eriak;
Zure begiak hain dira tendriak,
Zeren beitira eniak zuriak,
Zuriak eniak.

N.° 16
Berterretchen Khantoria.

1.

Berterretchek ohete
Meskatuari eztiki:
„ So'ginegan leiho hostarik
„ Ageri denez gizonik.„

2.

Meskatuak berhala
Ikhusi ziun bezala.
Ikhun gizon bazerola
Leihobatetik bestera.

3.

Berterretchek leihoti
Jaon Kuntiari eztiki:

Jhun behi bazerola
Bere zezenareki.

4.

Jaon Kuntiak nubleki
Soraiten dero ezteki:
„ Berterotsk, aizü-gureki
„ Ützübiren biz segürki. „

5.

„ Ama, indazut athorra
„ Mentüraz sekülakua;
„ Bizi denak orhit düke
„ Bazko villaurentia. „

6.

Ama horren lasterra
Bost-mendietan behera!
Belhaiñak sorthariK zela
Lacarry Büztanobila.

7.

„ Büztanobi gaztia;
„ Ene anaie maitia
„ Zütan hüniK ezpalimbada
„ Juan da ene semia!,



34

8.

— „ Ariuba, ago ichilik,
„ Iz othoi ezin nigarrik;
„ Maulen dün ingoitik,
„ Ützülüen dün bizirik. „

9.

Andozeko ibarra
Ala ibar lüzia!
Hiruretan ebaki zeitan
Armarik gabe bihotza.

10.

Ama herren lasterra
Maulelo Jaun kunti 'gana!
„ Aza, Jauna, non düzie
„ Ene seme bakhoitza?„

— 11.

— „ Bakiana semerik
„ Bertorretchez besterik?
„ Izpeldoi alitian dün hilik,
„ Habil! eraikan bizirik!„

12.

Izpeldoiko alhaba
Margarita deitzen da;



35

Berterretchen edoletarik
Bethe ümen dü ferreta.

13.

Ezpeldoiko bükhata
Ata-bükhata ederra!
Berterretchek han ümen dü
Hirur dozena athorra.

N.° 17.

Ichkerraren zamaria.

1.

Ichkerraren zamaria
Bilho urdiontzen hasia;
Zango besuak gogor eta bizkarrian zauria,
Bai eta istain guziez lumerat erortia.

2.

Ichkerrak zaldia prestatu
Eni hartzia dolatu.
Belek eta arranuek bidian mute atakatu:
Nikauerk badakit nola nizan jan beharik ezkaratu.

3.

Ichkerra, zal zak zaldia
Balin badük erostia;

Bereterretxe balada. Salaberriren bigarren eredua.

15. SALABERRIREN B ALDAERA AHAPALDIZ AHAPALDI IRUZKINDURIK

Puntu honetan Salaberriren eredua ahapaldiz ahapaldi iruzkinduko dugu. Salaberriren B ereduak hamairu ahapaldi ditu. 1870ean Salaberrik argitaratu zuen eredurik ezagunenak, ordea, hamabost ditu. *Bereterretxeren kantorea* gehienetan bere sarrera indartsuarekin identifikatu ohi dugu: *Altzak ez du bihotzik*... Gure eredu honek ez du sarrera-ahapaldi hori. 1870eko eredurik ezagunenak, lehen sarrera-ahapaldiaren ondoren, *Andozeko ibarra/ ala ibar luzia/ hiruretan ebaki zaitan armarik gabe bihotza*

izango du segida. Salaberriren bigarren ereduan ahapaldi hori bederatzigarrena izango da. Salaberriren eredu honetan ez ezik, Chambra eta Hegiaphalen ereduan ere ez da etorriko bigarren lekuan zazpigarrenean baizik.

Bereterretxeren amaren izena *Mari Sants* da Salaberriren 1870ean argitaraturiko ereduan. Orain iruzkinduko dugun eredu honetan ez da aipatuko *Mari Sants* izenik eta beraren lekuan *Ama hori/ horren* aurkituko dugu.

1.
Berterretchek oheti
Neskatuari eztiki:
"So'ginezan leiho hortarik
Ageri denez gizonik."

Ahapaldi honetan berritasun nabarmenena *Abil eta soginezan* agintera bikoitza bakarrera etorria dago: *so'ginezan leiho hortarik*. Interesgarria da, bestalde, Salaberriren eredu honetan ablatiboa modu batera baino gehiagotara aurkitzen dela ohartzea. Lehen ahapaldi honetan *oheti*, hirugarrenean *leihoti*; bigarrenean, ordea, *batetik*.

2.
Neskatuak berhala
Ikhusi zian bezala:
Ehün gizon bazerola
Leihobatetik bestera.

Ahapaldi honetan ere berritasun nabarmena. 1870. urteko ereduan *hirur dozena bazabilzala* aurkitu beharrean *Ehün gizon bazerola* aurkitzen dugu. Esaldi hau guztiz paraleloa da hurrengo ahapaldiko *ehün behi bazerola* esaldiarekin.

3.
Berterretchek leihoti
Jaon kuntiari eztiki:
Ehün behi bazerola
Bere zezenareki.

Hirugarren ahapaldi honetako *ehun behi bazerola bere zezenareki* eta 1870. urteko *ehun behi bazereitzola bere zezena ondoti* horietan *bazerola* eta *bazereitzola* adizkien artean zein alde dago? Itxura guztiak direnez, 1870. urteko *bazereitzola* horretan objetu plurala markatzen da eta *bazerola* adizkian, ordea, ez. Azkuek bildutako ahapaldi batean *Berterretśek umilki Jaun kunteari eztiki ehin behi baderola bere zezenareki* bildu zuen. Patri Urkizuk 2005eko artikuluan ohar hau egiten du:

> En una de las versiones de Gavel aparece Ehun behi baderola bere zezenareki, con el verbo en presente, que traduce como 'tiene para él cien vacas seguidas de su toro'.

Aipamen hau ez dugu aurkitu Gavelen artikuluan. Testuak itzulpena izatekotan, bestalde, fransesez izango zuen.

4.
Jaon kuntiak nubleki
Erraiten dero eztiki:
"Berterretch, aigü gureki
Ützüliren hiz segürki."

Ahapaldi honetan berritasun nabarmenak daude. Ahapaldi honetako nubleki adberbioa ez dator ezagutzen den beste inongo aldaeratan. Eredurik gehienetan kontrakoa esaten da: *Jaon kuntiak berhala/ traidore batek bezala*. *Segürki* adberbioa Chambra ereduan bigarren ahapaldian dator. P. Urkizuk 2006. urteko lehen argitarapenean *segurki* transkribatzen du, bigarrenean, ostera, *segürki*.

5

"Ama, indazüt athorra
Mentüraz sekulakua;
Bizi denak orhit düke
Bazko oillaurentia.

Ahapaldi honek aldaera asko ditu. Gavelek bakarrik eredu nagusian: *Bizi denak orhit ükhenen dü/ Bazko-gaiherdi-ondua* eredu nagusiaz gainera beste zenbait ematen ditu. E eta S berriemaileek: *bizi denak orhit ükhenen dü Bazko-biharamena*; T berriemaileak: *bizi denak ohart ükhen beza Bazko-gaiherdi-ondua*; U berriemaileak: *bizi denak orhit ükhenen dü Bazko-mezpera-arratsa*. Bosgarren eredu bat ere ematen du Gavelek: *Bizi dena ohi'dadila Bazko biharamena*. Ahapaldi honek bere kiderik hurbilena beste batean du *Urteak zonbat urte tu* baladan, hain zuzen. Azkuek balada hau *Legeak ni urkabera* izendatzen du[1]. Balada honetako bigarren ahapaldia hauxe da: *Ama: edazu atorra, benturaz sekulakoa; bizi denak orit izanen du Bazkoako oilaritea*. *Oilarite* hitzak "egunsentia" adierazten du eta Mitxelenak dioenez **oilar-jaite* konposatutik dator. *Oilarite* hitzaren aldaerak *oilarrite* eta *oilarreta* urruntxo dagoela dirudi. Gure hitza ez ote dator beste konposizio batetik, **oilar-hurrente/tze* batetik?

6

Ama horren lasterra
Bost-mendietan behera!
Belhaiñak sortharik zela
Lacarry Büztanobila.

Ahapaldi honetan eta hurrengoetan *Mari Santsen* lekuan *Ama horren* aurkituko dugu. Ahapaldi honetan *sortha* hitzak "astun" esan nahi du. Mari Sants belaunak astunduta dator bere burua eraman ezinik. Ahapaldi honetako *sortharik* forma adberbiala ez da, guk dakigula, beste testutan jasotzen.

7

"Büztanobi gaztia,
Ene anaie maitia
Zütan hünik ezpalimbada
Juan da ene semia!"

Mari Sants 1870. urteko Salaberriren eredu argitaratuan hika zuzentzen zaio bere nebari. Ahapaldi honetan zuka tratamendua erabiltzen du. Transkripzioari gagozkiola, *hünik* beharrean *honik* edo *hunik* dira Zuberoako forma normalak.

8

"Arreba, ago ichilik,
Ez othoi egin nigarrik;
Maulen dün ingoitik,
Ützüliren dün bizirik".

[1] CPV, 417. kantua 518 or.

Ahapaldi honek ere berritasun nabarmenak ditu. Nebak arreba esperantzaz betetzen du. Semea Maulen dagoela diotso eta bizirik itzuliko dela. 1870. urteko ereduan ez dago hain garbi bizirik dagoelako kontua, baldintza batez heriotzeko arriskua iragartzen baita: *Hire semia bizi ba-da, Mauliala dün juanik*.

9
Andozeko ibarra
Ala ibar lüzia!
Hiruretan ebaki zeitan
Armarik gabe bihotza.

Ahapaldi honetako bi transkripzioetan P. Urkizuk *Hiruretan ebaki zaitan* transkribatu du. Jatorrizko eskuidatzian, ordea, argi dator aditza: *ebaki zeitan*. Salaberriren 1870. urteko ereduan *zaitan* dator. Hortik ote dator, beraz, transkripzio nahasketa? Zer adierazten du, bestalde, *zeitan* adizkiak euskara batuko *zitzaidan* edo *zidan*? Inolako dudarik gabe *zereitan* batetik dator, eta, beraz, *zidan* adierazten du. Bestela esan, ibarrak (niri) armarik gabe bihotza ebaki zidan hiru aldiz. Ideia hau beste eredu batzuetan argiago egon liteke. Pradal kaierean *Hirouretan ebaki deitadac lantsaric gabe bihotsa* dator. Pradal ereduko *deitadac* delakoak inolako dudarik gabe "didak" esan nahi du. Salaberrik egindako itzulpenean honelaxe dator: *La vallée d'Andoce/ Oh! la longue vallée! Elle m'a fouché le coeur trois fois sans (aucune) arme*. Gavelen itzulpenean: *La vallée d'Andoce/ ah! quelle longue vallée! trois fois elle me foucha le coeur sans arme*. P. Urkizuren itzulpena beste era batekoa da eta ene ustez kritikagarria: *Valle de Andoze, ¡qué valle tan largo! Tres veces se me partió, sin armas, el corazón*! Itzulpen hau guztiz desberdina da. Itzulpen honek *bihotza ebaki zitzaidan* adierazten du eta ez besterik den (*ibarrak) bihotza ebaki zidan*.

10
Ama horren lasterra
Mauleko Jaon kunti'gana!
"Asa, Jaona, non düzie
Ene seme bakhoitza?"

Asa delakoak arreba pizteko dei-hitz bat da: "interj., pour exciter l'attention, la mise en mouvement". Eskuidatzian, bestalde, argiro dio *ene seme bakhoitza*. Urkizuk bere bi transkripzioetan *ene seme galanta* transkribatzen du. *Seme bakhoitza* argi baino argiago *seme bakarra* da.

11
–"Bahiana semerik
Berterretchez besterik?
Ezpeldoi altian dün hilik;
Habil! eraikan bizirik!"

Ahapaldi hau 1870. urteko Salaberriren ereduan berdintsu dator. Ahapaldi honetan *hik bahiena semerik* aurkitu beharrean modu xumeagoan dator: *bahiana semerik*. Aginteretan ez da irizpide bera erabiltzen. Laugarren ahapaldian *aigü* dator eta honetan *habil*. 1870. urteko ereduan *abil*.

12
Ezpeldoiko alhaba
Margarita deitzen da;
Berterretchen odoletarik
Bethe ümen dü ferreta.

Ahapaldi honek berritasun nabarmenak eskaintzen ditu. Chambra ereduko hamargarren ahapaldia berdin-berdina da: *Ezpeldoyko Alhaba Margarita deyxenda Bereteretchen odoletariq betheumendu fereta*.

13
Ezpeldoiko bükhata
Ala bükhata ederra!
Berterretchek han ümen dü
Hirur dozena athorra.

Azken ahapaldi honek badu berritasun apur bat *Berterretchen athorretarik* izan beharrean Berterretche da subjektua.

16. MARZELIN HEGIAPHALEN BERETERRETXEN KANTOREAREN EREDUA

Atal honetan Marzelin Hegiaphal pastoralgile eta errientaren *Bereterretxeren kantorearen* eredua eskaini nahi dugu. *Bereterretxeren kantorearen* eredu argitaratuak oso gutxi ditugu. Eredu gehienak Salaberriren 1870eko liburukoaren berralgitarapenak dira, kontu ezaguna denez. Hegiaphalek bildu zuena gure kantu zaharraren eredurik interesgarrienetakoa denez gero, atal berarizko bat eskaini nahi diogu. Eredu hau lehen aldiz 1989ko Billabonako jardunaldietako aktetan argitaratu zen (Peillen: 1991). *Bereterretxeren kantorearen* eredu hau ezagutzen ditugun guztietatik ahapaldi kopuru gehien dituena da, hamazazpi. Harrigarria badirudi ere ez dugu ikusi eredu honen aipamenik besteetan. Antonio Zavalaren baladategian ere ez dator inolako aipamenik. Patri Urkizuk Bereterretxeren kantorearen ereduak aipatzen dituenean ere ez du Hegiaphalen eredurik aipatzen.

Marzelin Hegiaphal[2] (1910-1996) Zuberoako Maule ondoko Sorhoeta edo nahiago bada Sohüta (frantsesez Cheraute) herriskako pastoral-idazle eta errienta izan da. Etxeko tradizioz pastoralgile izan zen. Aita eta aitona pastoralgileak izan zituen. Hegiaphalek berak idatzi dituen hiru pastoral aipatuz gero, *Euskaldünak Ibañetan*, *Jeanne d'Arc* eta *Roland* lanen aipamena egingo genuke. Guk ditugun datuen arabera 1949. urtean *Berterretch* pastorala ere jokatu zuen. Sohüta *Bereterretxeren kantorea* tradiziorik zuzenean kantatzeko gunea izan da, inolako dudarik gabe. Jon Miranderen aitak ere tradizioz kantatzen zuen gure kantore zaharra eta Hegiaphalen herri berekoa zen. Ulergarriago egiten zaigu pastoralgintzako tradizio baten seme izanik Marzelin Hegiaphalek kantore honen berri zuzena izatea[3]. Marzelin Hegiaphalen dokumentua eskutitz bat da. Eskutitz hori Salaberriri zuzendua da, baina ez Jules Salaberri (1837-) zaharrari, haren iloba Georges Salaberriri baino. Delako Georges Salaberri honek Maulen egin asmo zen museo baterako utzitako materialen artean aurkitu dugu eskuz idatzitako gutuna.

---

[2] Izen-abizenei dagokienez, Txomin Peillenek *Marzelino Heguiaphal* dakar. Aita Santi Onaindiak *Marzelin Egiaphal* dakar. Pastoralgileak berak bere dokumentu edo gutunen bukaeran *Héguiaphal Marcelin Cheraute* idazten du. Zalantzazko den kontu bakarra ea *Heguiaphal* edo *Héguiaphal* idazten duen da. Tilde hori berez, inolako dudarik gabe frantsesezko idazkerari dagokiona da, dudarik gabe.

Berri argitaratu guti ikusi ditugu Hegiaphal-en gainean. Elkarrizketa bat 1984, Uztaila 8, 2º or. Santi Onaindiaren *Euskal literatura* IV, Etor 1990. Txomin Peillenen hilberria "Marzelin Hegiaphal (1910-1996)", *Euskera* XLI (2 aldia).

[3] Etxahunen kanthoreen zale direnek ondo gogoratuko dute Hegiaphal deitura eta Zuberoako Barkoxeko Hegiaphalia baserria. Gure Marzelin Hegiaphalen aipamena Jean Haritschelharrek egiten du bere "L'oeuvre poètique de Pierre Topet-Etchahun", *Euskera*, 1969-1970, XIV-XV, 47 or.: Nous sommes allé voir aussi M. Marcellin Héguiaphal, régent de pastorales à Chéraute, fils et descendant de régents de pastorales. Lui aussi posséde un cahier de chansons très intéressant. Ces chansons ont été transcrites par lui-mème et il les avait apprises à sa vieille *amañi* qui les lui chantait au coin du feu lorsqu'il était enfant.

Gure kantore zaharraren edizio kritiko bat egiteko behar-beharrezkoa da Hegiaphalen eskutikako kopia bat izatea. Guk lan honetara dakargun aldaera Hegiaphalen eskutikakoa da. Txomin Peillenek argitara eman zuen aldaeratik apur bat hastantzen da, ikusiko denez.

17. HEGIAPHALEN EREDUAREN PEILLENEN TRANSKRIPZIOA

Billabonako Herri Literaturako Jardunaldiak aberatsak izan ziren euskal balada ikasketetarako. Antonio Zavalak, esaterako, Aitzolen bidez bildutako *Jaunzuriano* baladaren aldaera ezezagun baten berri eman zuen. Guk ataltxo honetan Peillenek *Euskera* aldizkarian argitaratua aldatuko dugu. Txomin Peillenek bakarrik Hegiaphalek iruzkintzen dituenak zenbakitzen ditu lehen kopla lerroan parentesian sarturik. Gainerakoak ez ditu zenbakitzen nahiz eta Hegiaphalen jatorrizko eskuidatzian agertu. Peillenen transkripzioa dagoen-dagoenean aldatuko dugu hona, inolako aldaketarik gabe. Transkripzioa baino lehen ohar hau dakar: *Marzelino Heguiaphal, Sorhoetakoak bidalitako aldaera*. Txomin Peillenek dioenez, euskararik ez zekien jaun erdaldun bati bidali zion karta eta jaun honek berari. Honelaxe dio hitzez hitz Peillenek:

> Testu hau Marzelin Heguiaphal "pastoral errejent" eta Euskaltzaindiko urgazle denak, Sallaberry jaun erdaldun bati bidali zion, eta hark neri, beraz hona nik euskaraz emanak Heguiaphalen oharrak.

Salaberri delako jaun erdaldun hori Paben bizi zen Salaberri zaharraren iloba zen: Georges Salaberri. Aipatu den kantorea eta ohar horiek euskaraturik emango ditugu atal honetan:

Haltzak eztü ezkürrik (1)
ez gaztanberak ezürrik;
E'nüan uste erraiten züela aitunen semeek gezürrik.

Bereteretxe-k ohetik
neskatoari eztirik:
Abil eta so egin ezan ageri denez gizonik.

Neskatoak berhala
ikhusi züan bezala:
Hirur dozena bazabiltzala, leiho batetik besteala.

Bereteretxe-k leihoti
Jaun kunteari goraintzi,
Ehün behi bazereitzola bere zezena ondoti.

Jaun kunteak berhala
traidore batek bezala
"Bereteretxe aigü borthala ützüliren hiz berhala".

"Ama indazüt athorra
mentüraz sekülakoa
bizi denak orhit ükhenen dü Bazko biharamena.

Andozeko ibarra (2)
gaü hartan ibar latza (sic)
hiruretan armarik gabe ebaki zeitan bihotza.

Heltü ginenean Ligira (3)
buneta erori lürrera
buneta erori lürreala eta, eskürik ezin balia.

Margarita gana heltzean (4)
zühaintze bati esteki
belhariko ezarri eta erho ezpatareki.

Ama haren lasterra (5)
Bost Mendietan behera
Lakharri Büztanobian sarthü da bi belhañak herresta.

Büztanobi gaztea
ene anaie maitea!
hitzaz honik ezpalinbada bentüraz Mauliala da.

Arreba, ago ixilik
ez othoi egin nigarrik
hire semea bizi balinbada bentüraz Mauliala da.

Ama haren lasterra
jaun kuntearen borthala,
ai! ei! eta Jauna nun düzü? ene seme galanta!

Hik bahüana semerik
Bereteretxez besterik
Ezpeldoi altean dün hilik, abil eraikan bizirik.

Ezpeldoiko jenteak
ala sendimentü gabeak
hila hañ hüillan ükhen eta deusik etzakiena.

Ezpeldoiko alhaba
Margarita deitzen da
Bereteretxe-n odoletarik ahürzka biltzen ari da.

Ezpeldoiko bükhata
ala bükhata ederra
Bereteretxen athorretarik hirur dozena ümen da.

Transkripzio honi dagozkion zenbakiak kantorearen ondoren azalduak daude. Zenbaki horien azalpenak euskaraturik honela ematen ditu Peillenek:

1.en bertsoan. Oker dago "haltzak ez dü bihotzik" haltzak este zuhaitzeen moduan "bihotza" daukalako "Haltzak ez dakar ezkurrik", da.

2.en bertsoan. Bere amari atorra eskatu ondoren d Ezpeldoiko bidea hartzen.

8.en bertsoan, Ligira irixtean bonetan (txapela) lurrera erori zaio eta ezin zuen hartu eskuak loturik baitzeuzkan.

9.en bertsoan. Gehiago pairarazteko Margaritaren ete alboraino eroan, zuhaitz bati lotu eta belauniko jarri –garai hartan zegiten moduan– hil baino lehen azken otoitza egin zezan.

Bertso hau –neretzat– azkena da eta ez "Ezpeldoiko bükhata" ezen Beaumont-i ezezkoa eman zion Margarita, honen eskupeko gelditzen baitzen.

Hona Bereterretxe-z arkitu ahal izan dudan guztia Sallaberry jauna. Maiz elkar ikusteko itxaropen ta atsegin handiarekin.

Heguiaphal Marcellin, Sorhoeta

Guk hurrengo atalean jatorrizko euskal kantorea zein frantsesezko oharrak jarriko ditugu.

18. HEGIAPHALEN EREDUAREN GURE TRANSKRIPZIOA

Marzelin Hegiaphalen transkripzioa hiru orritan egina da. Lehen orrian kantore zaharreko lehen zazpi ahapaldiak daude transkribaturik, lehenetik zazpigarrenera; bigarren orrian gainerako zazpiak, zortzigarrenetik hamalaugarrenera; hirugarrenean azken hiruak, hamabosgarrenetik hamazazpigarrenera. Hiru orrialde hauek ere zenbakiturik daude. Kantorearen transkripzioa letra handi samar eta lasaian idatziak daude, inolako dudarik gerta ez dadin. Eskuidatzian ahapaldiak ere zenbakiturik daude ezkerraldean. Izenburua ere jartzen du M. Hegiaphalek kantorearen buruan: *Berterretchen khantoria*. Guztiz interesgarria deritzagu izenburuaren ezkerraldera datorren zehaztasun bati: *Original* hitza azpimarraturik. Interesgarria da, era berean, zenbait pasarte indarturik daudela markatzea. Letra beltzagoz daude markarturik, esaterako, zazpigarren ahapaldiko *gai hartan ibar latza* eta zortzigarren ahapaldiko *heltu ginenin*. Hamaikagarren ahapaldiko *ene semia juran da* horrekin zalantza sortzen da. Zer ote da gaizki idatzi bat argiago jarri beharra edo aurrekoak bezala berezitasuna markatu nahia? Bi aukera horietatik bigarrenaren alde egingo genuke guk.

1

Haltzak eztu ezkurrik
Ez gaztanberrak ezurrik
Enian uste erraiten ziela aitunen semek gezurrik

2

Berterretchek ohetik
Neskatuari eztiki
Abil eta so egin ezan ageri denez gizonik

3

Neskatuak berhala
Ikhusi zian bezala
Hirur dozena bazabiltzala leiho bateti bestila

4

Berterretchek leihoti
Jaun kuntiari goraintzi
Ehun behi bazereitzola bere zezena ondoti

5

Jaun kuntiak berhala
Traidore batek bezala
Berterretch aigu borthala utzuliren hiz berhala

6

Ama indazut athorra
Menturaz sekulakua
Bizi denak orhoit ukhenen du Bazko biharamena

7

Andozeko ibarra
gai hartan ibar latza
Hirur etan armarik gabe ebaki zeitan bihotza

8

Heltu ginenin Ligira
Buneta errori lurrila
Buneta errori lurrila eta eskurrik ezin balia (balia)

9

Margaita gana heltzin
Zuhañ bati esteki nundin
Belharriko ezarri erho ezpatareki

10

Ama haren lasterra
Bost mendietan behera
Lakharri Buztanobian sarthuda bi belhañak herresta

11

Bustanobi gaztia
Ene anaie maitia
Hitzaz hunik ezpalinbada **ene semia juran da**

12

Areba ago ixilik
Ez othoi egin nigarik
Hire semia bizi balinbada benturaz Mauliala da

13

Ama haren lasterra
Jaun kuntiaren borthala
Ai ei ai ei eta jauna nun duzu ene seme galanta

14

Hik bahiena semerik
Berterretchez besterik
Espeldoi altian dun hilik abil eraikan bizirik

15

Espeldoiko jentiak
Ale sendimentu gabiak
Hila hañ huillant ukhen eta deusik etzakiena

16

Espeldoiko alhaba
Margarita deitzen da
Berterretchen odoletarik ahurska biltzen ari da

17

Espeldoiko bukhata
Ale bukhata ederra
Berterretchen athorretarik hirur dosena umen da

Ahapaldi hauen ondoren testu bat dator frantsesez. Testua Hegiaphalen beraren zenbait ahapaldiren iruzkina da. Dokumentua bere osoan atal honetan transkribitzeko asmoa hartu dugunez gero, hona hemen datorren-datorrenean, inolako ukiturik gabe:

1er couplet: L'aulne[4] ne porte pas de faîne et a le coeur comme les autres arbres.
Gaztanberra n'est pas le fromage mais le lait caillé[5] qui est en preparation du fromage
2er couplet: C'est après[6] avoir demandé la chemise a sa mère qu'il demarre de chez lui vers Espeldoy.
8 couplet Lorsque arrive à Licq le béret[7] lui est tombé et n'a pas pu le reprendre parce que il avait les mains liées[8]
9 couplet Pour lui faire souffrir davantage on l'avait amener chez Margaita attaché a un arbre de cet temps là cela se faisait mis en genoux pour sa dernière prière a fin de l'achever.
Pour moi ce n'est pas le dernier couplet "Espeldoiko bukhata" car Margaita qui avait refusé[9] Baumont restait la proie de celui ci
Voilà[10] monsieur Sallaberry tout ce que je peut vous découvrir sur Berterreitch
Avec un grand plaisir a l'espoir de vous rencontrer souvent
Héguiaphal Marcelin Cheraute

Karta honen arabera, itxurak direnez, benetako edo jatorrizko kanta adierazi nahi dio. Horrexegatik, gorago esan dugunez, jarri du *original* azpimarraturik.

Gure puntu honetan tiletez tilez transkribatu dugu M. Hegiaphalen testua. *Bereterretxen kantorean* ez dator behin ere puntuazio zeinurik. Ez da ikusten ez gidoi, ez puntu ez koma ez osteangorik. Hitzetako hizki guztiak ondo markaturik daude okerbiderik edo hutsik gerta ez dadin. Badago besterik ere. Aldaerarik ezagunenetatik desberdintzen diren segmentoak beste kolore bateko tintarekin markatuak daude. Guk holakorik ezin egin dugunez gero, letra beltzagoz jarri dugu autorearen azpimarra.

[4] Hemen *Laulne* irakurtzen dugu, marratxo edo apostroferik gabe.
[5] Hemen ere ez dugu tilderik ikusten, baina hala behar duelakoan jarri dugu.
[6] Hitz honetan ere nekez ikusten dugu tildea.
[7] Ez dut ikusten hemen tilderik, baina behar lukeelakoan jarri dugu.
[8] Ez dugu ikusten hemen tilderik.
[9] Hemen ere ez dugu tilderik ikusten.
[10] Ez dut ikusten hemen tilderik jatorrizko eskuidatzian.

1 Original

Berterretchen Khantoria

1

Halzak egin egKurrik
Ez gastanberrak egurrik
Gonian uste erraitenziela aitunen semek gezurrik

2 Berterretchek ohetik
Peskatuari eztiki
Obil eta so eguezaan ageri deneg gizonik

3 Peskatuak berhala
Khusi ziau bezala
Ahun dozena bazabilzala leiho batetik bestela

4 Berterretchek lehoti
Jaun Kuntieri goraintzi
Ehun behi bazereitzola bere zezena ondoti

5 Jaun Kuntiak berhala
Traidore batek bezala
Berteretch aitzu borthala utzulirenhiz berhala

6 ama indazut athorra
Menturaz sekulakua
Bizi denak orhoit ukhenen du Bazko-biharamena

7 Andozeko ibarra
gai hartan ibarlatza
Hirurehun armarik gabe ebaki zeitan lehoiza

8 Heltu ginenin Figura.
Bumeta errore lurrila.
Bumeta errore lurrila eta es KurriK egin bekha. (falia)

9. Margaita gana heltzu
Iuhain bata. es tekK nun dun
Belharriko egun erho eghatareki

10- ama haren lasterra.
Bost mendietan behera.
Lakharri Bustanobian sarthuda bibelhañaK herresta

11- Bustanobi gaztia.
Ene anaie maitia
Hitzaz hunik espalinbada ~~ene semia fidatuda~~

12 areba ago isilik
Bzothoi egin nigarik
Aure semia bizi balinbada bentura z. mauliaka da

13 ama haren lasterra
Jaun Kuntiaren borthala
ai ei ai ei eta jauna nun duzu ene semi galanta

14. 4iK borhiena semerik
Berterrehez besterik
Espeldoialtian dun hilik abil eraikan bizirik

15 Espeldoiko jentiak. 3
ale sendimentu gabiak.
Hila hau hullant ukhen eta. Deusik ez akiena

16 Espeldoiko alhaba
margarita deitzen da.
Besterentzat oldeta nik ahuska bilzen ari da

17. Espeldoiko bukhata
ale bukhata edena.
Besterentzat athorretarik ihiru dozena urrena da



1er couplet. Laulne ne porte pas de faine et a le coeur comme les autre arbres.
Gaztanberra n'est pas le fromage mais le lait caille qui est en preparation du fromage

2e couplet : C'est après avoir demandé la chemise a sa mère qu'il demarre de chez lui vers Espeldoy.

3e couplet. Lorsque arrivé à Lucq le beret lui est tombé et n'a pas pu le reprendre parce que il avait les mains liées

4e couplet Pour lui faire souffrir davantage on l'avait amener chez Margaita attaché a un arbre de ce temps cela se faisait mis à genoux. pour sa dernière prié et fin de l'achever.
Pour moi ce n'est pas le dernier couplet Hospeldeitho dre Khata" car Margaita qui avait refusé Baumont restait la proie de celui ci

Voilà Monsieur Gallaberry. tout ce que j'ai pu vous découvrir sur Bereterretch
Avec un grand plaisir et l'espoir de nous rencontrer souvent.
Hegiaphal Marechi Cherante

Bereterretxe balada. Hegiaphalen eredua.

19. HEGIAPHALEN EREDUAREN IRUZKINA AHAPALDIZ AHAPALDI

Puntu honetan Hegiaphalen *Bereterretxe* baladaren iruzkina egingo dugu.

1

Haltzak eztu ezkürrik,
ez gaztanberrak ezürrik;
ez nian uste erraiten ziela aitunen semek gezurrik.

Lehen ahapaldi honetan *gaztanberra* ikusten dugu, inolako dudarik gabe. Lehen ahapaldi honetako iruzkinean ere berdin jokatzen du: *Gaztanberra n'est pas le fromage mais la lait caillé qui est en preparation du fromage*. Zuberoako euskararen ezaugarri bat dugu hau. Dardarkarien nahastean r gogorra biguindu egin ohi da, eta biguina gogortu, hainbat kasutan. Kontrako bidea –edo bide bera, nahiago bada nahasketa garbi bat delako– da *areba* eta *nigarik* formak. Gure kantorean berean "eskurik", *esku* hitza partitiboan adierazteko *eskurrik* ikusten dugu.

Txomin Peillenek ez du *gaztanberrak* transkribatzen. Zuberoako testuak transkribatzeko *nian*/*nüan*, *ziela*/*züela* ditugu batetik, bestetik Hegiaphalen testuak markatzen ez diren Zuberoako ü bokala ikusten dugu *ezkürrik*/*ezürrik*/*gezürrik* hitzetan. Peillenen transkripziorik harrigarriena, ostera, *semeek* hitzaren traskripzioan ikusten dugu.

Ahapaldi honek dakarkigun ezaugarri nagusia *bihotzik* hitza agertu beharrean *ezkurrik* hitza agertzea da.

P. Haltzak eztü ezkürrik/ ez gaztanberak ezürrik;/ E'nüan uste erraiten züela aitunen semeek gezürrik.

2

Berterretxek ohetik,
neskatuari eztiki:
"Abil eta so egin ezan ageri denez gizonik".

Bigarren ahapaldi honetan Salaberriren eredu argitaratuaren arabera Andozeko ibarra batez hasten den ahapaldia dugu. Gure eredu honetan ahapaldi hori zazpigarrena izango da. Gure bigarren ahapaldi hau, beraz, Salaberriren hirugarrenari dagokio. Ahapaldi hau eta Salaberriren hirugarrena guztiz berdinak dira. Peillenen transkripzioak, ostera, badu aldaera markagarriren bat. Ez du jatorrizko fonetismorik errespetatzen. Bestela esan, *neskatuari* transkribatu beharrean *neskatoari* transkribatzen du. Beste desberdintasun bat da *eztirik* modu adberbializatzailea transkribatzen duela *eztiki* egin beharrean. Aldaera guztietan –ki atzizki adberbializatzailea ikusten dugu, *segürki* (Chambra), *eztiki* (Sagasta-Aña), *estiki* (Salaberri A eta B).

P. Bereterretxek ohetik/ neskatoari eztirik:/Abil eta so egin ezan ageri denez gizonik.

3

Neskatuak berhala,
ikhusi zian bezala
hirur dozena bazabiltzala leiho bateti bestila.

Salaberriren A ereduarekin oso antzekoa da. Zerbait markatzekotan ablatibo kasua genuke. Gurean ablatiboa singularra *–(e)ti* batez egiten du. Ablatibo hau dugu *oheti* hitzean edo ondoko ahapaldiko *leihoti* eta *ondoti* hitzetan ikusten duguna. *Oheti* hitza Salaberri A ereduan ikusten dugu. Adlatibo lekuzkoa Salaberriren A ereduan *bestera* dugu. Gurean Zuberoako ezaugarriak hobeto zainduz

bestila. Forma hau, dudarik gabe, *bestiala* batetik dator eta azken hau *besteala* jatorrizkotik. Peillenen transkripzioan ez bide dira onartzen fonetismoak eta ustezko jatorri baten alde egiten du.

P. Neskatoak berhala/ ikhusi züan bezala:/ Hirur dozena bazabiltzala, leiho batetik besteala.

4

Berterretxek leihoti,
jaun kuntiari goraintzi,
ehun behi bazereitzola bere zezena ondoti.

Salaberriren A ereduko berdin-berdina. Duda gehien ematen dituenetakoa *bazereitzola* adizkia da. Adizki hau beste modutan ere ikusten da. Pluralgilerik gabe *bazerola,* Chambra kaierean *eman zerola*. Ezaguna da ahapaldi hau *Le Pays Basque* liburuan (402 or.) ere agertzen da: *Ehun behi baditut/ Bere zezenareki: Nic tuziac emanen ditut/ Bizia ukhaitiareki*.

P: Bereterretxek leihoti/ Jaun kunteari goraintzi,/ Ehün behi bazereitzola bere zezena ondoti.

5

Jaun kuntiak berhala,
traidore batek bezala:
Berterretx, aigü borthala, ützüliren hiz berhala.

Ezagutzen ditugun eredu gehienetan antzekoa da Salaberri A eta Sagasta-Añaren ereduetan. Salaberriren A eredukoa berdina da. Salaberriren B eredutik, ostera, badira aldeak: *Jaon kuntiak nubleki/ Erraiten dero eztiki:/ "Berterretch, aigü gureki,/ Ützüliren hiz segürki."*. Salaberriren B eredu honek, ostera, berdintasuna du, zerbaitean bada ere, Chambra kaiereko ereduarakin. Eredu bietan ez da esaten *borthala* batean *eneki* (Chambra) eta *gureki* (Salaberri B).

P: Jaun kunteak berhala/ traidore batek bezala/ "Bereterretxe aigü borthala ützüliren hiz berhala".

6

–Ama, indazüt athorra,
mentüraz sekülakua.
Bizi denak orhoit ükhenen dü Bazko-biharamena.

Ahapaldi hau Bereterretxeren aldaera guztietan agertzen da. Bereterretxeren kantore guztietan ez ezik, bestetan ere ikusten dugu. Azkueren kantutegiko 417. kantuan, 518. orrialdean, *Urteak zonbat egun tu* kantua iruzkintzean ohar hau egiten du Azkuek: "La segunda estrofa de esta endecha es como la séptima de la leyenda suletina de Berterretxe, tal como figura en el Cancionero de Salaberri, pág. 214 (...) Esa t final de *indazüt* no la habría recogido Sallaberry del pueblo. Es indazu o edazu, como dijo la cantora de Ezkaroz".

Guk uste dugu Azkue oker zebilela adizkiaren uste horretan. Ikusi ditugun adibide guztietan *indazüt* agertzen da azken *–t* duela. Halaxe agertzen da Salaberriren A eta B ereduetan, Gavel-enean eta Chambra kaierean. Sagasta Aña ereduan, ultrakorrekzio batez *egidasut* agertzen da[11].

[11] Datibo marka berez bi aldiz markatzen da *in delako adizki horretan. Bi aldiz markatzea –da– horretan eta –t azken horretan. Forma pleonastikoa da berez adizkia. Adizki batzuetan hiru aldiz ere markatzen da datiboa. Eman dezagun, kasurako, *deitadazüt* forma edo adizkia. Hemen hiru aldiz ikusten dugu datiboaren marka.

Interesgarria da Aingeru Irigaraik duen eritzia Azkuek bildu zuen kantu honen gainean. Iritzi hori *Noticias y viejos textos de la "Lingua navarrorum"* liburuko "Un romance de Salazar" atalean dakar:

> (Azkuek bildutako *Urteak zonbat egun tu* kantuak) Relata la historia de un joven que llevan preso a Pamplona, sin haber cumplido los 23 años; también pasaron seis meses en la sombra otros dos jóvenes ezkaroztarras, aparte de una multa de cuarenta monedas. La fechoría no sería trágica, cuando la condena fue tan leve; sin embargo, el koblakari pone en boca del joven presidiario una estrofa que no es propia de este Romance, pues la ha copiado del famoso cantar suletino de Berterreche, del cual toma también la melodía.
>
> En éste encaja mejor, puesto que el joven Berterreche va a ser asesinado sin mucho tardar por orden del navarro, tristemente famoso, Conde de Lerin, que era alcaide del Castillo de Mauleón.

Uste dugu Aingeru Irigarai ez zebilela erabat zuzen bere esan guztietan. Izan ere, ez da ezer kopiatu eta "Ama edazu atorra.." delako ahapaldia beste balada batzuetan ere txertatua zegoen.

P: -Ama indazüt athorra/ mentüraz sekülakoa/ bizi denak orhit ükhenen dü Bazko biharamena.

7

Andozeko ibarra,
gai hartan ibar latza,
hiruretan armarik gabe ebaki zeitan bihotza.

Ahapaldi honek berritasun asko dakartza. Aipa dezagun, lehenik, ahapaldiaren ordena. Gure oraingo ahapaldi hau Salaberriren A ereduan, Gavelenean eta Sagasta Aña kaierean bigarren ahapaldia da. Gainerako bi ereduetan, ordea, ez da bigarren ahapaldia askoz geroagokoa baizik. Chambra kaierean ere zazpigarren ahapaldia da *Ama, indazüt athorra* ahapaldiaren ondoren. Salaberriren B ereduan oraindik hasieratik urrunago dago ahapaldi hau, bederatzigarren ahapaldia baita: Maria Sants Büztanobi nebarekin hizketatu ondorengo ahapaldia da.

Testuaren aldetik ahapaldi honetako *gai hartan ibar latza* delakoa ez dugu beste inongo aldaeratan ikusiko. Salaberriren ereduko *hiruretan ebaki zaitan/ armarik gabe bihotza* horren ordena bestelakaturik ikusten dugu. Ordena biak, bestalde, zilegi baino zilegiagoak dira.

P: Andozeko ibarra/ gaü hartan ibar latza (sic)/ hiruretan armarik gabe ebaki zeitan bihotza.

8

Heltü ginenin Ligira,
buneta erori lürrila,
buneta erori lürrila eta eskürik ezin balia.

KKK laneko bi ahapaldi berrietariko lehena dugu hau. Liburu horretako bi ahapaldiak Chambra kaieretikako ereduaren egokitzapenak dira. Bi ahapaldi horiek, ordea, ez dira bakarrik Chambra kaieretikakoak beste eredu batzuetakoak ere badira. Chambra kaierean singularrean agertzen da, gurean pluralean. Hona konparantza egiteko Chambra kaierekoa: *Heltu ninçan Ligira bouneta erori Lurera/ (bis) Bouneta erory lurera eta Eskuriq eçin behera*. Gaurko ortografiara aldaturik modu honetara izango litzateke: *Heltü nintzan Ligira,/ buneta erori lürrera/ buneta erori lürrera eta/ eskürik ezin behera*. Gure ereduan *Heltü ginenin* pluralean dator. Bereterretxe eta hiru dozena gizonen segizio beldurgarria hobeki adierazten du ahapaldi honek. Interesgarria da eskuidatzian ere letra beltzagoz nabarmendu edo markatu egiten dela *Heltü ginenin* delakoa. Beste aldaketatxo bat Chambra kaierekotik *behera* eta *balia* hitzetan daude. Gure *balia* hori *baliatü* aditzaren erroa dugu, inongo dudarik gabe.

Nahiz eta atal honetan *erori* eta *eskürik* jarri jatorrizkoan *errori* bi aldiz eta *eskurrik* agertzen dira. Gure lehen transkripzio eta bigarrenean, armonizazio bokalikoa onartu egiten dugu. Ez dugu transkribatu, Peillenek bezala, *ginenean* adizkia (modu honetara lau silaba edukiko lituzke sinalefa egiten ez bada *–nean* horretan). Jatorrizko *ginenin* jarri dugu. Era berean *lürrila* transkribatu dugu. Peillenek batean *lürrera* eta bestean *lürreala* jartzen du. Bihurkia egiten bada, bi adlatibo lekuzkoek berdinak izan behar dute.

P: Heltü ginenean Ligira/ buneta erori lürrera/ buneta erori lürreala eta, eskürik ezin balia.

9

Margaitagana heltzin,
zuhañ bati esteki nündin,
belhariko ezarri erho ezpatareki.

KKK liburuko ereduko ahapaldiarekin zerikusia du, baina desberdintasun franko ditu. Chambra kaiereko eredua da jatorriz, gorago esan dugunez, *KKK* liburukoa. Hona nola datorren Chambra kaierean: *Heltu ninçan ezpeldoya han harix baty ezteky/ (bis) Han haris bati esteka eta bizia çeitan idoky*. Gaurko ortografiara ekarririk: *Heltü nintzan Ezpeldoia,/ han haritx bati esteki/ han haritx bati esteka eta/ bizia zeitan idoki*. Gure eredu honetan noren aurrean hil zuten Bereterretxe ikusten dugu. Datu horrek urrea baino gehiago balio du. Mirandek *Egan* aldizkarian gure ahapaldiaren antzekoa argitaratu zuen (Mirande: 1961): *Ezpeldoian nintzanian/ janak banian zer egina:/ haritx bati esteki eta,/ bizia han galdü nian*.

Gure kantuan beti agertzen da *Margaita*. Dardarkarien nahasmen horretan *belharriko* dator jatorrizko eskuidatzian. Gure ahapaldi honetan *nündin* adizkia ikusten dugu. Zuberoako *nündian*/*nündien* oposizioa, hots, *ninduen*/*ninduten* oposizioa ezabatua gelditzen da. Neurri kontuan izanik, ez ote da hankaluze gelditzen? Bederatzi silaba zenbatzen ditugu. Horrexegatik moldatu ote du Peillenek ahapaldi hau? Peillenek *zuhain* jarri beharrean *zuhaintze* transkribatzen du, eta *nündin* adizkirik ez dakar. Peillenek, bestalde, fonetismoak desegiten dituenez gero, lehen dokumentuko *hetzin* desberdin trankribatzen du: *heltzean*. *Hetzean* transkribatzen du eskuidatzitiko *heltzin*.

P: Margaita gana heltzean/ zühaintze bati esteki/ belhariko ezarri eta erho ezpatareki.

10

Ama haren lasterra,
Bost-Mendietan behera,
Lakharri-Büztanobian sarthü da bi belhañak herresta

Salaberriren A ereduaren oso antzekoa. Dagoen desberdintasun bakarra Salaberriren A ereduko *Mari Santzen* horren ordez *Ama haren* agertzen dela. Salaberriren B eredukoa, ostera, gurearen ildo berekoa da. Salaberriren B ereduan *Ama horren* irakurtzen dugu. Bada eredu horretan besterik ere. Aldakuntza handitxoagoa ikusten dugu *belhaiñak sortharik zela Lacarry Büztanobyla* irakurtzen baitugu. Ama eriosuhar ari da semearen bila. Bere neba da lagun diezaiokeena.

P: Ama haren lasterra/ Bost Mendietan behera/ Lakharri Büztanobian sarthü da bi belhañak herresta.

11

Büztanobi gaztia,
ene anaie maitia,
hitzaz hunik ezpalinbada, ene semia juran da!

Jatorrizko eskuidatzian letra beltzagoz dago *ene semia juran da*. Zergatik? Ahapaldi hau eta Salaberriren A eredukoa berdinak dira. Batean *juan* dena, bestean *juran* da. Desberdintasun hori markatzeko zergatik ez juran bakarrik jarri beltzez? Arrebak nebari hika egiten badio, nola ez jarri *ju(r)an duk*? Galderan alokutiboko hirugarren pertsonak aldatzen ez direlako. Baina galdera ote da Salaberrik nahi zuen bezala edo harridura? Edo beharbada hobeto bien arteko zerbait edo bietako zerbait? Eredu desberdinetan *hitzaz/hitan* formak ditugu. Eta baita zukan ere. Salaberriren B ereduan *Zütan hünik ezpalimbada* ikusten dugu.

P: Büztanobi gaztea/ ene anaie maitea!/ hitzaz honik ezpalinbada ene semea joan da?

12

Areba ago ixilik
Ez othoi egin nigarik
Hire semia bizi balinbada benturaz Mauliala da

1870. urteko Salaberriren eredutik oso hurbil dago. Salaberriren ereduan *menturaz* zena gurean *benturaz* da.

P: Arreba, ago ixilik/ ez othoi egin nigarrik/ hire semea bizi balinbada bentüraz Mauliala da.

13

Ama haren lasterra
Jaun kuniaren borthala
Ai ei ai ei eta jauna nun duzu ene seme galanta

Salaberriren 1870. urteko ereduan Bereterretxeren ama Marisants da. Eredu honetan, ordea, ez da aipatzen Maritsants pertsona izena. 1870. urteko ereduan galdera *nun düzie?* da, gurea zuzenagoa da: *nun düzü?*

P: Ama haren lasterra/ jaun kuntearen borthala,/ ai! ei! eta Jauna nun düzü? ene seme galanta!

14

Hik bahiena semerik
Berterretchez besterik
Espeldoi altian dun hilik abil eraikan bizirik

Ahapaldi honetan *dun* adizkia gainean marratxo bat duela agertzen da. Transkribatzailearen okerren bat dirudi. Ahapaldi hau, bestalde, Salaberriren A ereduko bera da, 1870. urtean argitaratu zen eredukoa.

P: Hik bahüana semerik/ Bereteretxez besterik/ Ezpeldoi altean dün hilik, abil eraikan bizirik.

15

Espeldoiko jentiak
Ale sendimentu gabiak
Hila hañ huillant ukhen eta deusik etzakiena

Salaberriren dokumentutik hurbil dago. *Ale sendimentü gabiak!* esaldi indartsuan *Ale* ikusten dugu. Komunztadura hobeki zaintzen da Salaberriren A ereduan *deusik etzakienak* esaten delako. *Hurbil* adjektiboa batean *hüllan* da eta bestean *huillant*.

P: Ezpeldoiko jenteak/ ala sendimentü gabeak/ hila hañ hüillan ükhen eta deusik etzakiena.

16

Espeldoiko alhaba
Margarita deitzen da
Berterretchen odoletarik ahurska biltzen ari da

Ahapaldi hau Salaberriren 1870. urteko ereduan datorren bera da. Salaberrirenean *ahürkaz* dago argitaraturik; Hegiaphalen ereduan lehen dokumentuan *ahurska*, bigarren transkripzioan *ahürzka* behar luke.

P: Ezpeldoiko alhaba/ Margarita deitzen da/ Bereteretxe-n odoletarik ahürzka biltzen ari da.

17

Espeldoiko bukhata
Ale bukhata ederra
Berterretchen athorretarik hirur dosena umen da

Azken ahapaldi honetan zuzenketa bat egin du transkribatzaileak *dozena* jarri du lehen idazkeran eta gero zuzenduz *dosena*. Gainerakoan Salaberriren 1870. urteko ereduko azken ahapaldi bera da.

P: Ezpeldoiko bükhata/ ala bükhata ederra/ Bereteretxen athorretarik hirur dozena ümen da.

20. ALTZAIKO PINAPERRO KAIEREKO EREDUA

Puntu honetan Larraineko Sagaste Añaren Pinaperro etxeko kaiereko eredua transkribatuko dugu. Eredu hau Pinaperro kaierean, 80-81. orrialdean, aurkitzen da. Kantuaren izenburua *Chanson de Bertereits* da. Larrainekoa omen zen Bereterretxe eta gure baladaren leku naturala da. Bestaldeko kaier askotan bezalaxe, ahapaldiak frantsesez izendatuak daude. Lehen ahapaldia *1er couplet* da, bigarrena *2eme*, eta abar.

1

Haltsac estu bihotsic es gastenberac esuric
Enien es ouste eraiten siela aitounen seme gesuric

2

Andozeko ibar[r]a,
ale ibar lüzia.
bostetan ebaki zautan lantzarik gabe bihotza.

3

Bertereitsec oheti estiki neskatouari
Abiloua eta sogin esan ageri denes kanpouan gisounic

4

Nescatouac berhala ikhousi sien besala
Hirour dosena basirela leiho batetik bestera

5
Jaoun kountiac berhala traidore batec besala
Bertereits aigu borthala utsuliren his berhala

6
Bertereitsec ohetic arapostu jaoun kountiari
Ehun behi baseitserola bere sesenareki

7
Ama egidasut athora edo sekulakoua
Bisi denac ohart ukhen besa basko biharamena

8
Marie santsen lastera bos mendiac behera
Bi belhagnes heresta lakhari bustanobiala

9
Bustanoby gastia ai ene anaie maitia
Hitan hounic espalinbada adio duc ene semia

10
Marie sants ago ichilic es othoi egin nigaric
Maulia heltsen balimbada utsuliren dun bisiric

11
Marie santsen lastera jaoun khountiaren gana
Nounduc nounduc ene semia ene seme trichtia

12
Bahiana semeric bertereitses besteric
Espeldoiko borthan dun hilic eraik esan bisiric

13
Espeldoiko jentia ale jente nutria
Hila borthan ukhen eta es abertitsen aisouac

14
Espeldoiko alhaba Marguerita deitsen da
Bertereitsen odoletic ahurka biltsen arida.

15
Espeldoiko bukhata ale bukhata lusia
Bertereitsen athoretaric hirour dosena basirela



Chanson de Bertrets
1er Couplet
Jbaltsac estu bihotsic es gastenberac esuric
Enien es auste eraiten siela aitaunon seme gesuric
2eme "

80



81

Andoseko ibara ale ibar lusia
Bastetan ebaki saoutan lantsaric gabe bihotsa
3eme "

Bertereitsec ohetic es tiki nesKatouari
Abilona eta sogin esan ageri denes kampouangosouri
4eme "

NesKatouac berhala ikhousi sien besala
Hiraur dosena basirela leiho batetic bestera
5eme "

Jaaun kountiac berhala traidore batec besala
Bertrets aigu borthala utouliren his berhala
6eme "

Bertereitsec ohetic arapastu jaoun kountiari
Ehun behi basiitserola bere sesenareki
7eme "

Ama egidasut athora edo sekulakoua
Bisidenac ohart ukhen besa basto biharamna
8eme "

Karie santsen lastera bos mendiac behera
Bi belhagnes heresta lakhari bustanobiala
9eme "

Bustanoby gastia ai ene anaie maitia
Hitan haunic espalinbada adis duc ene semia
10eme "

81



Bereterretxe balada. Pinaperro kaiera.

21. PINAPERRO EREDUA AHAPALDIZ AHAPALDI

Pinaperro etxeko eredua guztiz aberatsa da. Puntu honetan ahapaldiz ahapaldi iruzkinduko dugu.

1

Haltsac estu bihotsic es gastenberac esuric
Enien es ouste eraiten siela aitounen seme gesuric

Haltzak ez du bihotzik/ ez gaztenberak ezürrik hasiera Salaberriren A ereduko berbera dugu. Kopla zaharretako teknika duen lehenengo ahapaldi hau da beharbada gehien ezagutzen dena. Marzelin Hegiaphal eta Chambra kaiereko ereduetan *Haltzak ez du ezkürrik* dator. Gainerako ereduetan *ez nien uste* aditza hemen bi lekutan indartua dago: *ez nien ez uste*. Bi aldiz *ez* agertzea ez dator ezagutzen ditugun gainerako ereduetan. Bereterretxeren eredu gehienetan *gaztanbera* etorri arren, beraren aldaera den *gaztenbera* ere posible da.

2

Andoseko ibara ale ibar lusia
Bostetan ebaki saoutan lantsaric gabe bihotsa

Ezagutzen diren eredu gehienetan *hiruretan ebaki zeitan/zaitan armarik gabe bihotza* esaten da. Sagaste Aña kaierekoa indartsuagoa da, *hiruretan* forma agertu beharrean *bostetan* agertzen baita. Zuberoako euskaran bost zenbakidun *bostetan* edo *biga-bostetan* esapideek asko ere asko esan nahi dute. *Armarik gabe bihotza* esan beharrean *lantzarik gabe bihotza* modu indartsua eta markagarria da. Hitz bat indartzeko errepikapen bidez *ala* batez egin ohi da zenbait kantu zaharretan. Eredu honetan, Marzelin Hegiaphalen ereduan bezala, *ale* dator.

3

Bertereitsec oheti estiki neskatouari
Abiloua eta sogin esan ageri denes kanpouan gisounic

Ahapaldi honetan ere badira berritasunak. Eredurik gehienetan, (Salaberriren biak, *(h)abil* adizkia dator. *Abilua* agintera *(h)abil* eta *(h)oa* adizkiez osatutako forma indartu bat da. Ahapaldi honetako *kanpuan* ez da bestetan agertzen eta ahapaldia hankaluze bihurtzen du.

4

Nescatouac berhala ikhousi sien besala
Hirour dosena basirela leiho batetik bestera

Ahapaldi honetan bestetan ez datorren aldaera txiki bat aurkitzen da. *Bazabilzala* adizkiaren lekuan *bazirela* dator.

5

Jaoun kountiac berhala traidore batec besala
Bertereits aigu borthala utsuliren his berhala.

Ahapaldi hau Salaberriren 1870. urteko ereduko bera da inolako aldaketarik gabe.

6

Bertereitsec ohetic arapostu jaoun kountiari
Ehun behi baseitserola bere sesenareki

Eredurik gehienetan *Berterretxek oheti[k] jaun kuntiari goraintzi* da. Ahapaldi honetan ordena aldaturik *ar[r]apostu jaun kuntiari*. Eredu honetako *ar[r]apostu* hitza ez da bestetan aurkitzen. 1870. urteko ereduko *bazereitzola* beste era batera dator hemen *bazeitzerola*. Eredu gehienetan *bere zezena ondoti* badator ere, ahapaldi honetan, Salaberriren bigarren ereduan bezala, *bere zezenareki*.

7

Ama egidasut athora edo sekulakoua
Bisi denac ohart ukhen besa basko biharamena

Ahapaldi honetako *Ama egidazüt athor[r]a* esaldian *egidazüt* adizkiak beste adiera bat du. 1870. urteko *indazüt* adizkiak "emaidazu" esan nahi du. Adizki horren jatorrizko zentzua galdu den neurrian zentzuberritu da *egidazüt* forma berrian.

Gavelek, kontu jakina denez, eredu nagusi bat ematen du *Bizi denak orhit ükhenen dü/ Bazko-gaiherdi-ondua* eta eredu honezaz gainera beste zenbait ematen ditu. E eta S berriemaileek *bizi denak orhit ükhenen dü Bazko-biharamena*; T berriemaileak: *bizi denak ohart ükhen beza Bazko-gaiherdi-ondua*; U berriemaileak: *bizi denak orhit ükhenen dü Bazko-mezpera-arratsa*. Gure ahapaldiko ereduak T eta S berriemaileen ereduetako hitzak ditu.

8

Marie santsen lastera bos mendiac behera
Bi belhagnes heresta lakhari bustanobiala

Eredurik gehienetan *Bostmendietan behera* da, oraingoan *Bostmendiak behera*. Esan liteke *behera* hitzak posposizioan dagoenean kasu genitiboa bezala kasu absolutua ere eskatzen duela. Ahapaldi honetan 1870. urteko ereduaren ordena aldatua dago *Lakharri Büztanobian sarthü da bi belhaiñak herresta* izan beharrean *bi belhañez her[r]esta Lakhar[r]i Buztanobiala*.

9

Bustanoby gastia ai ene anaie maitia
Hitan hounic espalinbada adio duc ene semia

Ahapaldi honek badu berritasunik. Hoskidetasunari gagozkiola, *gaztia*/*maitia*/*semia* hitzak hoskide dira. Hoskidetasun hau ez ote zegoen Salaberriren ereduan ere? Han ordena kontuak direla eta, ordena hautsi egiten da. Salaberriren 1870. urteko ereduan *ene semia juan da* hori ordenaz aldatuko balitz, hoskidetasuna gordeko litzateke, gure honetan gordetzen den bezalaxe. Salaberriren 1870. urteko ereduan hika egin arren, arrebak nebari *joan da* agertzen da eta ez *joan duk*. Hala izan behar lukeela deritzagu eta modu horretara *joan duk ene semia* geldituko litzateke hika eta oskidetasuna zainduz.

Gure ereduan agertzen den berritasunik nabarmenena *adio dük* esapidea dugu. *Joan da*/*duk* adierazteko esapide indartsu eta nahikoa ezezaguna. Salaberriren 1870. urteko ereduko *hitzaz hunik* gurean *hitan hunik* dugu. Esapide hau Salaberriren bigarren ereduan ere ematen da: *Zütan hünik ezpalimbada juan da ene semia*!

10

Marie sants ago ichilic es othoi egin nigaric
Maulia heltsen balimbada utsuliren dun bisiric

Salaberriren 1870. urteko ereduan *arreba* agertzen da, gure honetan arrebaren izena: *Marie Sants*. Ahapaldi honetan ematen den argibidea ez genuen ezagutzen. Salaberriren ereduan *Hire semia bizi balimbada, mentüraz Mauliala da* esaten zen: *Ton fils, s'il vit encore, doit être arrivé à Mauléon* Salaberrik berak itzuli zuenez. Gure oraingo ahapaldiak beste argibide bat ematen digu; hots, Maulera iristen bada, bizirik itzuliko dela. Bizirik itzultze hori ezaguna dugu. Jaun kondearen hitz berak dira. Guk ezagutzen ditugun eredu guztietan Salaberriren seigarren ahapaldian *ützüliren hiz berhala* dator eta berdin gure eredu honetako bostgarren ahapaldian. Jaun kondea eta Büztanobi biak ote dira modu horretara traidore?

11

Marie santsen lastera jaoun khountiaren gana
Nounduc nounduc ene semia ene seme trichtia

Ahapaldi hau ere berritasunez jantzia da. Ezagutzen ditugun ereduetatik berritasun franko ditu. Salaberriren 1870. urteko ereduan *Mari Santz Jaun kuntiaren borthala* doa, gure honetan *Jaun khuntiarengana*. Amaren galdera ere desberdina izango da. Gure eredu honetan hika zuzentzen zaio jaun kunteari eta bi aldiz egiten du galdera: *nun dük, nun dük*. Bi aldiz egiteak dramatismo handiagoa ematen dio. Errepikapen horren indarra handiagotu egiten da *ene seme trixtia* batez galdera bukatzen duenean. Lehenengo aldiz *ene semia* esanez egiten du galdera, eta gero errepikapena egin ondoren, *trixtia* adjektibo adierazkorra erabiliko du. Ezagutzen ditugun eredu guztietan seme honek adjektibo adierazkor eta markagarri bat dauka. Salaberriren eredu argitaratuan, A ereduan, *galanta* da adjektiboa. Bigarren

ereduan, *bakhoitza* dugu adjetiboa. Dudarik gabe *bakhoitza* honek *bakarra* esan nahi du, Bereterretxe seme bakarra dela adierazten da. Gure eredu honetan *seme trixtia* esatean, ez ote du neurri handi batean amak adierazten bere semea hila dela dagoeneko?

Galderari dagokionez, Salaberriren A ereduaren eskuidatzian *nun düzü ene seme galanta* galdetzen zuen. Galdera hau 1870eko testuan *nun düzie* bihurtzen da. Itxura guztiak direnez *nun dük/ nun düzü* singularrean egiten den galdera da eredu gehienetan agertzen dena.

Trichtia adjektiboak adierazkortasuna ote du *tristia* horren aldean? Badirudi hala dela, baina 1850. urtetik aurrera *ist-* multzoak bustidura automatikoa izan du. *Ixtorio*, *mixterio* edo *ixtorio-mixterio* hitzetan agertzen den moduan.

12

Bahiana semeric bertereitses besteric
Espeldoiko borthan dun hilic eraik esan bisiric

Ahapaldi honetan badira berritasun txikiak. Salaberriren 1870. urteko ereduan *Hik* batez hasten da; hemen, ordea, ez dago horrelakorik. Salaberriren bigarren ereduan ere guk lehenengoz behar bezala lan honetan argitaratuko dugunean, berdin gertatzen da. Jaun kuntearen galdera barnakor eta krudela bere betean dago. Salaberriren *bahiena* gurean *bahiana* da. Galdera zuzen horretan *–a* galdetzailea daukagu aditzari erantsita eredu bietan. *Ezpeldoiko altian* izan beharrean *Ezpeldoiko borthan* dugu gurean; hots, Ezpeldoiko sarreran. Eraiki aditzaren *eraikan* inperatibo arkaikoa ez dugu gure ereduan ikusten, forma geroagokoa den *eraik ezan* baino. Forma hau *Egun bereko alharguntsa* baladan ere aurkitzen dugu.

13

Espeldoiko jentia ale jente nutria
Hila borthan ukhen eta es abertitsen aisouac

Ahapaldi honetan ere berritasun markagarriak ditugu. Jentea pluralean egon beharrean singularrean dator. Salaberriren *sentimentü gabiak* horren ordez *jente nutria* ikusten dugu. *Nutre* hitza hiztegietan aurkitu dugunean *neutro* hitzaren aldaeratzat dakar. *Nutre* hitzaren esangurak txarra baino txarragoa izan behar du. Ez ote du zerikusirik gaztelerako *nutria* eta frantsesezko *loutre* hitzarekin? Bestela esan *loutre* horretatik ez ote dator nutria? Zuberotarrez *loutre ühaiña*[12] da, baina zentzu adierazkorrean ez ote da *nutre* esaten?

Aurreko ahapaldian *hila Ezpeldoiko borthan* dela esaten da. Oraingo honetan aurrekoarekin lotura eginez *hila borthan ükhen eta* esaten da. Berria da baina orain arteko aldaerekin zentzuan bat datorrena.

14

Espeldoiko alhaba Marguerita deitsen da
Bertereitsen odoletic ahurka biltsen arida

Ezpeldoiko alhaba Margerita deitzen da
Berter[r]eitxen odoletik ahurka biltzen ari da

Ahapaldi hau oso antzekoa da Salaberriren 1870. urteko ereduko hamabosgarrenarekin. Salaberrirenean *ahürkaz* zetorren, gurean *ahurka*. Hiru eratara urkitzen da ahurka/ ahurkaz/ ahurzka. Hiru molde horietan *aür–* irakurri behar da.

---

[12] Gogora bedi urrutira joan gabe *Ahaire zahar huntan* kantorea: *Ühaiña ihizlari arraiñ hurin deno/ Gizon gaztiak tendre amoros direno;/ Neskatiler ordian doloruski mintzo:/ Desirra kunplit eta haientzat adio*.

15

Espeldoiko bukhata ale bukhata lusia
Bertereitsen athoretaric hirour dosena basirela

Salaberriren 1870. urteko ereduan *bükata ederra* dator, gurean *bükhata lüzia*. 1870. urteko ereduan azken hiru hitzak hauek dira: *hirur dozena ümen da*. Gure ereduan *hirur dozena bazirela*. Interesgarria da Pinaperro ereduan *ale* esaten dela ohartzea. Bi ahapalditan aurkitzen dugu ale, bigarren ahapaldian eta azken honetan. Marzelin Hegiaphalen ereduan ere halaxe zetorren.

22. PINAPERRO EREDUA ORTOGRAFIA BERRITUAN

Behin iruzkinak egin ondoren Pinaperro kaiereko eredua gaurko ortografiara ekarriko dugu.

1

Haltzak ez dü bihotzik,
ez gaztenberak ezur[r]ik;
ez nien ez uste er[r]aiten ziela aitunen seme[k] gezur[r]ik

2

Andozeko ibar[r]a,
ale ibar lüzia.
bostetan ebaki zautan lantzarik gabe bihotza.

3

Berte[r]eitxek oheti,
eztiki neskatuari:
–Abilua eta so'gin ezan ageri denez kanpuan gizunik

4

Neskatuak berhala,
Ikhusi zien bezala
Hirur dozena bazirela leiho batetik bestera

5

Jaun kuntiak berhala,
traidore batek bezala:
–Berter[r]eitx aigü borthala, ützüliren hiz berhala.

6

Berter[r]eitxek ohetik
ar[r]apostu jaun kuntiari:
Ehun behi bazeitzerola bere zezenareki.

7

–Ama, egidazüt athor[r]a
edo sekülakua
bizi denak ohart ükhen beza bazko biharamena.

8
Marie Santsen laster[r]a
Bostmendiak behera,
bi belhañez her[r]esta Lakhar[r]i Buztanobiala.

9
–"Büztanobi gaztia,
ai ene anaie maitia,
hitan hunik ez balin bada, adio dük ene semia!"

10
–"Marie Sants, ago ixilik,
ez othoi egin nigar[r]ik;
Maulia heltzen balin bada, ützüliren dün bizirik."

11
Marie Santsen laster[r]a
Jaun khuntiarengana!
–"Nun dük, nun dük ene semia, ene seme trixtia?"

12
–Bahiana semerik
Berter[r]eitxez besterik?
Ezpeldoiko borthan dün hilik, eraik ezan bizirik!

13
Ezpeldoiko jentia
ale jente nutria!
Hila borthan ükhen eta ez abertitzen aizuak

14
Ezpeldoiko alhaba
Margerita deitzen da
Berter[r]eitxen odoletik ahurka biltzen ari da

15
Ezpeldoiko bükhata
ale bükhata lüzia
Berter[r]eitxen athor[r]etarik hirur dozena bazirela.

23. ALTZAIKO EREDUA, PRADA ESKUIZKRIBUKO EREDUA

Altzaiko jostuna zen Prada. Neska ontziratua balada gairik eredurik interesgarrienetakoa Prada kaieretik jaso genuen. Bereterretxe baladaren transkripzioa ere interesgarria izan liteke.

1
Halitsac estu bihotsic
Es gasna beriac esuric
Enian ouste aitouen semec eraiten sutela gesuric

2
Andotseco ibara
Ala ibar lusia
Hirouetan ebaki deitadac lantsaric gabe bihotsa

3
Berteretchec neskatouari
oheti estici
Eya soguin lesan lehoitic ageri senes guisonic

4
Neskatouac berhala
Ikhousi sian besala
Hirour dozena basabilala leyho batetic bestiala

5
Berteretchec Jaun countiari
Leyhoti estiki
Ehun behi baseyola bere sésénaeki

6
Jaun countiac berhala
Traidore bates besala
Aygu borthala utsuliren is berhala

7
Berteretch amaren gana
Athora chouriaren galthatsera
Bai eta seculakos amari adios eraitera

8
Mari Santsen lastera
Bost mendier behera
Laster sarthu da Laccari Bustanobila

9
Bustanobi gastia
Ene anaie maitia
Hitan hoberic espada juan duc ene semia

10
Ene Areba hic
Es eguin nigaric
Hire semia bada bisiric jinen du[n] Maulen isanic

11
Mari Sants bi belhagnes heresta
Jaun comtiaren borthala
Eta eran isasut noun dusun ene seme galanta

12
Bahiana semeric
Berteretchts besteric
Espeldoy altian dun hilic eraykesan bisiric

13
Espeldoyko jentic
Ala jente sendi mentu gabic
Hila hain huillan ukhen eta jakin gabic

14
Espeldoyko buthata
Ala bukhata lusia
Berteretchen athoretaric hirour dozena umenda

15
Espeldoyko Etcheco alhaba
Margarita deitsendena
Berteretchen odoletaric ahuretas biltsen ari umen da


4

Jaraikitzen nindustun itzar eder bati
Nola marinel ona bere oratzari
Oi atentzionez (bis) ene arazoin huni
Etzuitzela fida amodiouari.

5

Amodiua dutu arozaren parr!
Uzpina badu eta ondouan arhantze!
Maitia emaustié (bis) suz gana jin gabe
Hil behar banu ere hirour egun gabé.

1. complet

Halitzac esta lehotzic
Et gazna beriac esturic
Enian ouste aitzouen semec eraiten sutela gezurric

2

Andotzeco ibarra
Ala ibar lusia
Hirouetan ebaki dituadac lantzaric gabe lehotta

3

Bertheretchec mesedatouari
oheti estici
Eta zoguin letan lehoitic ageri senes guizonic

4

Nestatouac berhala
Ikhousi bian bezala
Hirour dozena bazabilzala leytho zabetic bestiala

5

Bertheretchec jaun coumbari
Lerchoti estibi
Ekhun behi baserzola bere sémeaceki

6

Jaun comfiac berhala
Traidore bates bezala
Arzgi borthala utzuiteren is berhala

7

Bertheretich amaren gana
Athora choauiaren galthatzera
Bai eta zeaulakas amari acusos eraitera

8

Mari Santsen lastera
Bast mendier behera
Laster sarthu ca Laccarry Bustanobila

9

Bustanobi gastia
Ene anaie maitia
Hiltan zoberic espada jian duc ene semia

10

Ene Areba luc
Et eguin nigarric
Hire semia bada bisirie jinen du Maulèon istanic

Bereterretxe balada. Altzaiko eredua.

8
EGUN BEREKO ALHARGUNTSA BALADA

1. SARRERA

Egun bereko alharguntsa edo *Goizian goizik jaiki nündüzün* baladako zenbait eredu emango ditugu atal honetan. Balada hau Jean de Jaurgainek alderdi historikotik aztertu zuen 1900eko "Quelques légendes poétiques du pays de Soule" lan gogoangarrian. Lan horretan, ezaguna denez, *Egun bereko alharguntsa* izendatu zuen gure balada. Alderdi historikoa beste zenbait ikertzailek ere aztertu dute, Juan Karlos Gerrak (Gerra: 1924) eta aita Donostiak ere bai (Donostia: 1954). Hona ez ditugu ekarriko balada honek izan dituen eredu guztiak. Salaberri, Villéhélio eta abarren ereduak ikusi nahi dituenak jo beza A. Zavalaren baladategira.

Gure atal honetako helburu nagusia Azkueren ereduak finkatzea, Julio Bareñoren eredu berri bat ematea eta Etxahun-Iruri, Lezarte, Prada eta Pinaperro kaieretako ereduak ematea izango da.

Ekialdeko euskalkietako *Goizian goizik jaiki nündüzün* balada gaiak, mendebaldean *Bart amarretan* bezala ezagutzen da. Balada horren Azkuek Olaetan bildutako eredua eta Julio Bareñorena ere emango ditugu.

2. AZKUEREN EREDUAK

Azkuek hiru eredu argitara eman zituen bere lanetan. Laugarren bat argitara eman gabe utzi zuen. Puntu honetan lau ereduen testuak ekarriko ditugu. Lau ereduetako hiruren testuen lehen dokumentuak aurkitu ditugu. *Euskalzale* aldizkarian 1897 urtean emana, ordea, ez.

2.1. Euskalzale *aldizkariko lapurdiko A eredua*

Azkuek *Euskalzale* aldizkarian 1897. urteko agorraren 26an argitaratu zuen ereduaren eskuizkriburik ez dugu aurkitu Euskaltzaindiko Azkue bibliotekan. Eredua aberatsa da eta Lapurdiko emakume bati bildua da. Zein emakumeri eta Lapurdiko zein herritan ez da esaten. Hona Azkueren azalpen-testua:

> Lapurdi ta Zuberoa ta Beeko Naparroan erezi edo musika zaar asko dagoz: euretatik geienak dira goibel edo tristeak, Bizkai ta Gipuzkoako erezi zaarrak aren aldean alai edo alegreak eta bizkorragoak dira. Zaar antz geiago dauke lehengoak.

Guk emen darakuskuzan koblak eta erezia, irurogei urte-inguruko emakuma argi baten aotik entzun doguz. (...) Beste kobla batzuk bere baeidira. Azkubia da Donibane Lohitzun edo San Juan de Luzetik urreko basetxe bat, Azkain deritœon baserri politekoa. Atzenengo kobla onek lenengo neurtitzean zer edo zer bear dabela esan leike.

Goizean goizik ieiki ninduzun
espos nintzen goizean,
bai eta ere sedaz beztitu
iguzkia ateratzean.

Etxeko andre haundi ninduzun
eguberdiren gaiñean,
bai eta ere alargun gazte
iguzkiaren sortzean.

Senar illa atxiki nuen
zazpi urtez etxean,
egunaz lasto pixka batean,
gabaz bi beso artean.

Laranya-urez garbitzen nuen
astean egun batean
astean egun batean eta
ortzirale goizean.

Azkubiako baratze...
usaiñ onikan badute,
buketa heien usaindatzean
iltzea gogoan ahal dagoke.

Euskalzale aldizkariko eredu honetako azken ahapaldia ez da euskal kantutegietan aurkitzen.

2.2. *Olaetako B eredua*

CPV lanean, 389. kantu-zenbakian, 486. orrialdean, Aramaion, Olaetako Engrazia Lazkanori jasotako eredua dator. Eredu hori ABA-RMA-001-0001-004 signaturan aurkitzen da:

Bart amarretan dontzella nintzan
amaiketako senarra
gaubeko amabi santuetarako
gelditu nintzen bakarra.

Sentimentua, sentimentua,
aundiagoa penea
ordu bateko senarragaitik
alargun gelditutea./gelditu bearra

Azkuek eredu hau txukundurik agertu bazuen ere, txukunketa zenbaiten berri eman zuen:

Se han puesto *atsekabea* y *andiago naibagea*, por *sentimentua* y *andiagoa penea*.

Horiek dira aldaketa nagusiak. Eskuizkribuak, ordea, aldaketatxo txikiak salatzen ditu. Azkuek *gaubeko amabi santuetako* argitara eman zuen, bildu, ordea, *gaubeko amabi santuetarako*. Era berean, *ordu beteko senarragaitik* eman zuen argitara; bildu, ordea, *ordu bateko senarragaitik*. Azken lerroan aukera bi bildu zituen *alargun gelditutea* edo *alargun gelditu bearra*.



ABA-RMA-001-0001-004

2.3. *Arizkungo C eredua*

Azkuek CPV lanean, 406. kantu-zenbakian, 507. orrialdean, Baztango Bozate auzoan Graziosa Elejaurenaren ahotik jasotako lau ahapaldiko eredua dakar. Eredu hori ABA-RMA-002-0003-004 signatura duen dokumentuan dator. Hona hemen:

(1)
Goizian goizik jeiki nintzen
oi espos nintzen goizean,
bai eta ere sedaz beztitu
eguzkia atera zue[ne]an.

(2)
Etśekoandre aundi jarri nintzen
eguberdiaren gainean
alargun gazte ni jarria nengoen
iruzkia sart.u zenean.

Bi ahapaldi bakarrik bildu zituen Graziosa Elejaurenaren ahotik. Lehen ahapaldia, gainera, aldaturik eman zuen Azkuek CPV laneko ereduan. Aldaketak kurtsibaz jarriko ditut:

Goizian goizik yeiki *ninduzun*
oi espus nintzen goizean,
bai eta ere sedaz beztitu
iruzkia ateratzean.

Gainerako beste bi ahapaldiak *Euskalzale*ko eredutik erantsi zizkion Azkuek. Diogunaren froga argia bi dokumentuek ematen digute. ABA-RMA-002-0003-004 lehen dokumentuan bi ahapaldi bakarrik aurkitzen dira eta honen kopia den ABA-RMA-005-00015-001 dokumentuan Azkuek zehaztasun hau ematen du: *más versos en* Euskalzale.



ABA-RMA-002-0003-004.

2.4. *Eredu argitaragabea*

ABA-RMA-001-0001-004 dokumentuan, 104. kantu-zenbakian, Azkueren argitalpenetan aurkitzen ez den eredu bat dator. Lehen dokumentu horretan ez dator nori ez non bildua den.

Goizian goizik jeiki ninduzun
espusa nintzan goizian
etśeko andere zabal nunduzun
eguerdi erdian
bai eta alharguntsa gazte
ekhia sartu zenian.



ABA-RMA-001-0001-004

3. GERNIKAKO EREDUA JULIO BAREÑOK BILDUA

Julio Bareñok Lumon bildu zituen dantza-koplen artean *Bart amarretan* baladaren eredu bat aurkitzen da. Eredu hau, hainbat dantza-koplarekin nahaste Antonio Zavalari bidali zion berrogeita hamarreko hamarkada bukaeran.

Bart amarretan dontzella nintzan,
amabietan, ezkondu,
ordu bietan, goizekoetan,
gelditu nintzan alargun.

Lumoko eredua ahapaldi bakarrekoa bada ere interesgarria da. Garai batean Bizkai osoan zabal zegoen kantua zen *Bart amarretan* balada (Kalzakorta: 2014).

4. ETXAHUN-IRURIKOAREN EREDUA

A. Zavalaren baladategiko bederatzigarren ereduak *Espousa dolorusa* du izenburua. Honelaxe dio A. Zavalak:

> Uztaritzeko Luis Dassance jauna zenaren bildumatik, eskuz idatzitako orri batetik. Izenburuaren ondoan onela dio: *(Etchaoun).* Ez dakigu zer esan naiko duan. Bearbada, Dassance jaunak Etxahun-Iruri zanaren ahotik jasoa zuela.

Horixe da A. Zavalak egiten duen iruzkina. Ez dago dudarik Dassanceren paperen artean aurkitzen den dokumentua azterturik Etxahun-Iruriren eskutikako dokumentu bat dela; hau da, Etxahun-Irurik bere letraz idatzitako dokumentu bat. Kantaren buruan ere argi dago nork transkribua den: *(Etchaoun) Espousa dolorousa*.

Etxahun-Iruriren letra berezia da, behin haren eskuzko dokumentu bat ikusten denean gainerakoak ere erraz igartzekoak dira. Eredu hau, beraz, lehen dokumentu bat da. Lehen dokumentu bat denez gero, eskuizkribuan datorren bezalaxe transkribatuko dugu. Lehen transkripzio honek ez du arazo handirik sortzen; hala ere, zenbaitetan *e* letraren gainean tildea egon litekeen edo ez eztabaidagarria da. Arazotxo hori kontuan izanik, tilde seguruak transkribatzea izango da gure helburua.

I

Goizian goizik jeiki nundutzun
Espousa nintzan goizian.
Bai eta ere zetas bestitu
Ekhia jeiki zenian.
Etchekandere zabal nundutzun
Eguerdi erditan
Bai eta alharguntcha gaste
Ekhia charthu zenian.

II

Mousdé Idigaray gastia
Eraikezasu buria
Ala amentch dolutu zaizu
Eneki espoujatzia [?]
Es etsitadazut dolutu
zoureki espoujatzia
Ez éta éré doluturen
Bizi nizano maïtia.

III

Bena banian maitettobat
mundu ororen ichilik
mundu ororen ichilik eta
Jinkouaren agéri
Harek eni égin boukettobat
lili araros éginik
lili araros éginik eta
Erdia phozouaturik.

IV

Zazpi ourthez eduki nian
Chenhara hilik khambéran
Egunaz lurpian eta gaiaz
Bi bechouen artian
Sitrou hourian ukhusten nian
Astian égun batian
Astian égun batian eta
Ostiralé goizian

Etxahun-Irurik eskaintzen duen ereduak berritasun nabarmen zenbait baditu. Eredu gehienetan, esaterako, *altxa izadazüt büria* agertzen da; Etxahunenean *eraikezasu buria*. Uste dugu *eraiki* aditzarekin agertzen den eredu bakarra Etxahunena dela.


(Etchahoun) Espousa dolorousa.

I

Goizian goizik jeiki nunduzun
Espousa hiribian goizian.
Bai eta ere zelas bestelan
Ekhia jeiki zenian
Etcheandere zabal nunduzun
Eguerdi erditan
Bai eta alhargunduchaz gaste
Ekhia charkhu zenian

II

Mousté Idigaraz gastia
Eraikezazu büria
Ala amentch dolutu zaizu
Eneki espousatzia.
Ez estozdazut dolutu ?
Zoureki espousatzia
Ez eta ere doluturen
Bizi nezanoz maitia.

III

Beina banian maitettobat
Munduru ororen ichilik
Munduru ororen ichilik eta
Jinkouaren agéri
Harek ene égin koukettobat
Lili araros égünik
Lili araros égünik eta
Erdia khozoa aduru

IIII

Zazpi ourthez eduki nian
Chenkaria hilik khamberan
Eguraz kurpian eta gauaz
Bi bekhoren artian
Sitrou khouzian ukhosten pian
Astian égun batian
Astian égun batian eta
Ostiraben goizian

Egun bereko alharguntsa balada. Etxahun-Iruriren eredua.

5. LEZARTE KAIEREKO EREDUA

Puntu honetan Lezarte eskuidatzian datorren bezala transkribatuko dugu balada. Ez du eskuidatziak arazo handirik sortzen, hona lehen transkripzioa:

Goisian goisik jeiki nudusun esposa nintsan goisian
Bai eta setaz ere beztitu ekhia jelki senian
Etchek'andere sabal nudusun eguerdi erditan
Bai eta ere alharguntsa gaste ekhia sarthu senian.

Mousde Irigarai, ene jaona altcha insadusut
buria
Ala dolutu othe saisu eneki espousatsia
Es eta ere doluturen bisi nisano lurian.

Nic Banisun maitetto bat mundu oroun ichilik
Mundu ororen ichilik eta jinko jaonaren ageririk
Bouket bat igorri ditadassut llii arrosaz eginik
Lili arrosaz eginik eta erdia phosuaturik

Saspi ulthez etcheki diz.gison hila kamberan
Egunas lur osian eta gaias besuen artian
Sitrou houres uqusten nialarik astian egun batian
Astian egun batian eta ostirale goisian
Saspi ourté igaran dit kapararen pian
Belé eroiek ustisien sagaroia ninlasa
Sagaroia ustésian haren sag-ara ninlasa

Fin


Goisian goisik jeiki nuduzun.

Goisian goisik jeiki nuduzun espousa nintzan goizian
Bai eta setazère bez-titu ehtia jelki zenian
1 Etheh-andere sabal nuduzun eguerdi erditan
Bai eta ere alharguntza gaste ehtia tarthu zenian
Mousche Irigarai, ene jaona altcha ins-achuzut
buria
2 Ala dolutu othe saizu eneki espousatzia
Es. eta ere dulutuzen bizi nizano lurian
Nik Banizun maitetto bat munduan ororen ichilik
Munduan ororen ichilik eta jinko jaonaren ageririk
3 Bouket bat igorri ditiadassut lili arrozaz eginik
Lili arrozaz eginik eta ereki phozuaturik
Jaspi ultherz etchehi diz-gitzon hila hamberan
Eguzkiaz lur hozian eta gaizo bezuen artian
Sitzou houres uguztan nialarik astian egun batian
4 Astian egun batian eta ostirale goizian
Jaspi ourté igaran dit kapazaren pian
Belé ezkontz eroziet ustitzien sagaroia nihlasa
sagaroia ustésian haren sagara nihlasa
Etzn

Egun bereko alharguntsa balada. Lezarte kaiera.

6. LEZARTE KAIEREKO EREDUA GAURKO ORTOGRAFIAN

Puntu honetan, ulergarriago egin dakigun, geure ortografian jarriko dugu Lezarte eskuidatziko eredua. Erantsi edo gaineratzen ditugun kontsonante zein pasarteak kortxete artean jarriko ditugu.

1
Goizian goizik jeiki nü[n]düzün espusa nintzan goizian
bai eta zet[h]az ere beztitu ekhia jelki zenian.
Etxekandere zabal nü[n]düzün egüerdi erditan
bai eta ere alhargüntsa gazte ekhia sarthü zenian.

2
–Musde Irigarai, ene jauna, altxa inzadazüt büria,
ala dolütü othe zaizu eneki espusatzia?
[Ez, ez etzitadazü dolütu zureki espusatzia,]
ez eta ere dolütüren bizi nizano lür[r]ian.

3
–Nik banizün maitetto bat mündü ororen ixilik,
mündü ororen ixilik eta Jinko jaunaren ageririk.
Buket bat igorri ditadazüt lili arrosaz eginik
lili arrosaz eginik eta erdia phozuatürik.,

4
–Zazpi urthez etxeki dit gizon hila kanberan,
egünaz lür hotzian eta gaiaz besuen artian.
Zitru hurez üküzten nialarik astian egün batian,
astian egün batian eta ostirale goizian.

5
–Zazpi urté igaran dit kapar[r]aren pian,
bele-er[r]oiek uste zien sagar[r]oia nintzala,
[bele-er[r]oiek uste zien sagar[r]oia nintzala,]
sagar[r]oiak uste zian haren sagar[r]a nintzala.

Gure eredu berri honek, lau ahapaldi ezagunez gain bosgarren ahapaldi bitxi bat eskaintzen du.

7. LEZARTEKO KAIEREKO EREDUA AHAPALDIZ AHAPALDI

Eredu honek ere azal-mamien iruzkin bat merezi du. Gure iruzkina ahapaldiz ahapaldikakoa izango da.

1
Goizian goizik jeiki nü[n]düzün espusa nintzan goizian,
bai eta zet[h]az ere beztitu ekhia jelki zenian.
Etxekandere zabal nü[n]düzün egüerdi erditan,
bai eta ere alhargüntsa gazte ekhia sarthü zenian.

Lehen ahapaldia eredu gehienetan agertzen den berbera dugu. Harrigarria da izenburuan eta lehen ahapaldian *nudusun* agertzea. Normalena, ordea, *nundusun* agertzea zen.

2
–Musde Irigarai, ene jauna, altxa inzadazüt büria,
ala dolütü othe zaizu eneki espusatzia?
[Ez, ez etzitadazü dolütu zureki espusatzia,]
ez eta ere dolüturen bizi nizano lür[r]ian.

Bigarren ahapaldian *altcha insadusut* ikusten dugu, –n– tartekatua duela. Harrigarria da, era berean, *izadazü[t]* horren tokian *–dusu* etortzea. Bigarren ahapaldi honetan falta da [*Ez, ez etzitadazü dolütu zureki espusatzia*] zatia.

3

–Zazpi urthez etxeki dit gizon hila kanberan,
egünaz lür hotzian eta gaiaz besuen artian.
Zitru hurez üküzten nialarik astian egün batian,
astian egün batian eta ostirale goizian.

Hirugarren ahapaldi honetan ezagutzen ditugun eredu gehienetan *Jinko Jaunari ageririk/ jakinik* dugu. Kasu datiboan, beraz. Gure ahapaldi honetan *Jinko jaunaren ageririk* esaldian *jauna* hitza genitiboan ikusten dugu. Genitiboan agertzen den beste eredu bat Iruriko Etxahunena da. Ahapaldi honetako beste berezitasun bat eredu gehienetako *lili arraroz* izan beharrean, *lili arrosaz* izatea da.

4

–Zazpi urthez etxeki dit gizon hila kanberan,
egünaz lür hotzian eta gaiaz besuen artian.
Zitru hurez üküzten nialarik astian egün batian,
astian egün batian eta ostirale goizian.

Ahapaldi honek ez du berritasun handirik. Ezagutzen ditugun gainerako ereduen oso antzekoa da.

5

–Zazpi urté igaran dit kapar[r]aren pian,
bele-er[r]oiek uste zien sagar[r]oia nintzala,
[bele-er[r]oiek uste zien sagar[r]oia nintzala eta]
sagar[r]oiak uste zian haren sagar[r]a nintzala.

Ahapaldi hau zinez bitxia da. Goazen galdera funtsezko batera. Nork hitz egiten du ahapaldi honetan? Emazteak edo senar hilak? Senarraren jarduna dela dirudi. Senar hila kaparraren azpian edo sasitzapean egon da ezkutaturik eta bele-erroiek uste zuten trikua edo kirikioa zela eta trikuak uste zuen sagarra zela. Ahapaldi honek misterio handiak ditu. Ahapaldi hau edo honen antzekorik ez dugu inongo euskal kantatan ikusi.

8. ALTZAIKO EREDUA, PRADA KAIEREKO EREDUA

Eredu hau letra garbiz dago transkribatua. Altzaiko Prada familiak zituen kaieretako bateko eredua da.

Goizian goizik jeiki ninduzun espussa nintzan goizian
Bai eta zetaz ere bestitu ekhia jelkhi zenian
Etchek'andere zabal nunduzun eguerdi erditan
Bai eta ere alharguntza gazte ekhia sarthu zenian.

Musde Irigari ené jaona altcha inzadazut buria
Ala dolutu othe zaizu enekin espusatzia
Es, es, etzitadazu dolutu zureki espusatzia
Es eta ere doluturen bizi nizano lurian

Nik banizun maitetto bat mundu ororen ichilik
Mundu ororen ichilik eta Jinko jaonari ageririk
Buket bat igorri ditadazut lili arraroz éginik
Lili arraroz eginik eta erdia phozuaturik

Zazpi urthez etcheki duzut gizon hila khamberan
Egunaz lur hotzian eta gaiaz bi besuen artian
Zitru hurez ikhusten niz[u]n astian egun batian
Astian egun batian eta ostirale goizian



Jentetan den ederrena cumen duzu Agota
Beltho holli, larru churi eta begi nabarra
Nik ikhusi artzainetan zu zira ederrena
Eeder izateko aments Agota izan beharda

So, izu muntik ezagutzen dien zuin den Agota
Lehen sua egiten zaio hari beharriala
Bata handiago dizu eta aldiz bestia
Biribil ét' orotarik bilhoz unguratia

Hori hala balinbada haietarik etzira
Ezi zure berriak alhar uduri dira
Agot denak chipiago badu beharri bata
Aitari errainen diot biak bardin tuzula

~~gaizik jeiki nunduzun~~

Goizian gaizik jeiki nunduzun espuzta nintzan
Bai eta zetaz ere bestitu ekhia jelkhi zenian goizian
Etchek'andere zabal nunduzun eguerdi erditan
Bai eta ere alhargûtza gazte ekhia sarthu zenian

Musde Irigarai ene Jaona altcha inzadazut buria
Ala dolutu othe zaizu enekin espusatzia
Es es etzitadazu dolutu zureki espusatzia
Es eta ere dolaturen bizi nizano lurrian



Nik banizun maitetto bat mundu oroen ichilik
Mundu oroen ichilik eta Jinko Jaonari ageririk
Buket bat igorri ditadazut lili arraroz eginik
Lili arroroz eginik eta erdia phozuaturik

Zazpi urthez etcheki duzut gizon hila khamboan
Eginaz lur hotzian eta gaiaz bi besuen artian
Zuru hucrez ikhusten niz nastian egun batian
Astian egun batian eta astirale gaizian.

Gaizetan jelkhitzen da

Gaizetan jelkhitzen da izar bat ederrik
Hura dela diote zelian ederrenik
Lurian ikhusten dit bat ederragorik
Zelietan ere espeitu harek bere parerik

Asspaldiko denboretan, gaiaz eta bethi
Ihizen nabilazu chori ejer bati
Azkenekoz atzaman dit ai bena tristeki
Lumarik eijerrena beitzaio erori

Chori khantazale eijer charmagaria
Asspaldian eztit entzun zure batz eztia
Arren kuntsola zik tristezkiaz bethia
Etzirade izanen gaizki tratatia

Egun bereko alharguntsa balada. Prada kaiereko eredua.

9. PINAPERRO KAIEREKO EREDUA

Pinaperro kaiereko ereduak ez du transkripzio eragozpenik sortzen. Hona hemen eredua:

1

Goisian goisic jeikhi nundusun espousa nintsan egunian
Bai eta ere setas bestitu ekhia jelkhi senian
Etcheko andere sabal nindusun eguerdiren hegnian
Bai eta ere alargntsa gaste ekhia sarthu senian

2

Mousde irigarai ene jaouna Altcha derasut buria
Ala dolutu othe saisu eneki espousatzia
Es etsitasut es dolutu soureki espousatzia
Es eta ere doluturen bisi nisano lurian.

3

Nic banisun maitegno bat mundu ororen ichilic
Mundu ororen ichilic eta Jinkoouaren ageriric
Bouket bat ukhen nisun lili araros eginic
lili araros eginic eta erdia phosuaturic

4

Saspi ourthes etcheki nisun gisoun hila khanberan
Egunas hour hotsian eta gaias bi besouen artian
Sitron houres chahatsen nisun astian egun batia
Astian egun batian eta ostiale goisian

Ahapaldietan lerroak tolesteko orduan, lehen ahapaldian *Goisian goisic jeikhi nundusun* lerro batean dago eta *Espousa nintsan egunian* beste batean. Biak lerro berera ekarri ditugu. Lehen ahapaldian adizki bera bi modutara dago idatzirik: *nundusun* eta *nindusun*.


1er Couplet

V Gaisian gaisic jeikhi nundusun

Espousa nintsan eguinian
Bai eta ere setas berritu ekhia jelkhi senian
Etcheko andere gsabal nindusun equerdiren heguian
Bai eta ere alharguntsa gaste ekhia sarthu senian

2eme "

Mausde irigarai ene faouna
Altcha derasut buria
Ala dolutu othe saisu eneki espousatsia
Es etsitasut es dolutu soureki espousatsia
Es eta ere dolutuzen bisi nisano turian

3eme "

Nic banisun maitegno bat
Mundu ororen ichilic
Mundu ororen ichilic eta fintouaren agerinic
Bouket eder bat ukhen nisun lili arosas eginic
Lili arosas eginic eta erdia phasouaturic

4eme "

Laspi ourthes etcheki nisun
Gisaun hila khamberan
Egunas hour batsian eta gaias bi besouen artian
Sitrou houriscka batsen nisun astian egun batian
Astian egun batian eta ostiale gaisian

Soldado jouraikic

15

Egun bereko alharguntsa balada. Pinaperro etxeko kaiereko eredua.

9
HAUZEKO ANDERIA BALADA

1. SARRERA

Hauzeko anderia dugu euskal baladategian dugun balada gai interesgarrienetakoa. Orain arte euskal balada gai honetan eredu bakarra izan dugu, *unicum* bat, alegia; balada gai bateko ale bakarra, alegia. Guk atal honetan ezagutzen zen eredu bakarraren beste bat oso antzekoa ekarriko dugu.

Kontu jakina denez, gure balada hau Francisque Michelek eman zuen argitara 1857. urteko *Le Pays Basque* liburuan "Eresia" izenburuaren azpian, 399-401. orrialdeetan. Euskal balada honen frantses itzulpena eman ondoren ez zuen inolako berririk ez zehaztasunik eman. Balada honen gainean egin diren ikerketa eta azterketetarik interesgarrienetan Francisque Michelek bildu zuela esaten da behin baino gehiagotan. Halaxe esten dute, esaterako, Jean de Jaurgainek bere "Quelques légendes poétiques du Pays de Soule" edo *Euskal baladaren azterketa eta antologia* taldekoek. Francisque Michelek argitaratu zuen testuak Arxüren ortografia berezia du, geroago frogatuko dugunez. Francisque Michelek Arxüren euskal testua eman zuen argitara, beraz. Gure atal honetan balada honen gainean ezagutzen diren jakingarriak eta zehaztasunak izpi berrien argitan arrazoituko ditugu. Arxüren jatorrizko transkripzioetako bat ere gure eskuetan dugunez gero, inoiz esan ez diren argibide berriak emango ditugu atal honetan. Arxüren eskutikako eskuidatziak xehetasun berri baliotsuak emango dizkigu eta Francisque Michelen transkripzioa zuzentzeko eta argitasun ezezagunak emateko baliatuko dugu.

Kritika testualaren aldetik guztiz interesgarria dugu balada hau. Are gehiago, euskal baladategi osoan kritika testualaren aldetik dugun baladarik interesgarrienetako bat dugu *Hauzeko anderia*. Francisque Michelek, gero frogatuko dugunez, Arxüren transkripzioa zenbait puntutan gaizki transkribatu zuen. F. Michelen eredua oinarri harturik –zehatz esatera eredu apurren bat desitxuratua– Jaurgainek zuzenketa batzuk egin zituen. Harrezkero Jaurgainen eredu zuzendua izan da gure artean kanonikoena. Zilegi al da eredu zuzendu bat kanonikoena izatea?

2. *HAUZEKO ANDERIA* BALADAREN ARGUDIOA

Hauzeko anderea Ürrütiako jaunarekin ezkondua dago. Hauzeko anderea Ürrütiako jaunaren etxera ezkondu da. Hauzeko etxearen berri handirik ez dakigu. Ürrütia jauregia Altzürükün dago. Bai bata, Hauzeko etxea zein bestea Ürrütia, biak dira handietxeak. Behin hemendik aurrera har dezagun lizentzia txiki bat. Zuberoako euskaraz gure protagonistak Ürrütia behar du, baina denek, ia salbuespenik gabe, Urrutia transkribatzen dutenez gero, denen bideari jarraituko diogu lan honetan.

Urrutiako jauna jeloskorra da uste du bere andrea adar biltzen ibili ohi dela kanpoan. Urrutiako jaunak gaizki hartzen du bere emaztea eta ileetatik arrastaka erabiltzen du etxean. Emazteak senarrari kulparik gabe (ogen gabe) gaizki tratatzen duela diotso. Hauzeko andereak bake txarra du, beraz, bere senarraren etxean eta bere etxeko mina du zazpigarren ahapaldian adierazten duenez: *–Gincoa, zer bizia?/ Oi! Jaun Urrutia,/ Ni Hauzeko echian/ nunduzun bai bakian*. Egun batean Hauzeko andereak goizean goiz jaiki, opilak egin eta zareta batean dituela kalera doa. Hauzeko anderea jende pobrearentzat opilak banatzera doa. Hauzeko anderea senarrak, sumindurik, geldierazi eta ia nora doan galdetzen dio. Senarrak eskuak zaretan sartzen dituenean opilak harilko bihurtzen dira eta orduan emaztea Ehulearen etxera harilkoak bilberaztera doala sinesten du.

Balada honetan Maria Goyri mintegikoek probatu zutenez, santa Klararen miraria ikusten dugu. Hona santa Klararen miraria Maria Goyri mintegikoen esanetan (*Euskal baladak*: 1983):

> Mauruen buruzagi baten emazte zen Santa Klarak preso kristauei ogia eraman ohi zien; behin batez bere senarrak aurkitu zuen eta bere burua salbatzeko artilea zeramala esan behar izan zuen. Senarrak begiratu zuenean ogia artile bihurtu zen mirakulu batez. Horrela maurutar buruzagiak ez zuen gehiago bere emazteaz susmo txarrik izan.

Horra hitz gutxitan santa Klararen mirariaren berri. *Hauzeko anderia* baladan, beraz, santa Klararen miraria dugu. Maria Goyri mintegikoak izan ziren, oker ez bagaude, santa Klararen miraria Hauzeko baladaren argudioan ikusi zuten lehenak. Piarres Lafittek beste mirari baten berri ematen du *La tradition au Pays Basque* liburuari egindako hitzaurrean (Lafitte: 1982):

> Il est clair par exemple que le thème du miracle qui sauve une innocente en changeant le contenu de son tablier est archi-connu (cf. Elizabeth de Hongrie ou Germaine de Pibrac)

3. *HAUZEKO ANDERIA* BALADAREN PROTAGONISTAK

Euskal balada askotako protagonistak handikiak dira, jauregietan bizi diren handikiak. Zenbaitetan senar-emazteak biak dira handikiak. Diogunaren erakusgarri eta proba ditugu *Urthubiako alhaba*, *Urtsua*, *Milia Lasturko*, *Uretako jauna*, eta abar. Goragoko puntuan esan dugunez, Urrutiako jauna (edo Ürrütiako jauna, Zuberoako euskaran) Altzürükükoa dugu eta Hauzeko anderea Garindaiñeko Hauze etxekoa. Protagonista hauen bien jatorria, ordea, ez dago hain garbi. Gizonarenak ez du dudarik sortzen. Gaur egun ere zutik dagoen Altzürüküko Ürrütia jauregikoa dugu. Emakumearenak, ordea, zalantza bat baino gehiago sortzen ditu.

Gure baladaren lehen azterketa Jean de Jaurgain zuberotar historialariari zor diogu. Haren lana guztiz interesgarria dugu. 1899eko *La tradition au Pays Basque* liburuko XIV kapituluan txertatua da bere lana: "Quelques légendes poétiques du pays de Soule". Lan honetako lehen leienda da gure *Hauzeko anderia*. Pentsatzekoa da ikerlari zuberotarrak lehen balada azterkizun badu, gora handian izango zuela balada hau. Jean de Jaurgain zuberotarra zen eta Francisque Michelek argitaratu zituen Zuberoako baladak erabili zituen aztergai. Baladen alderdi historikoa finkatzea zen Jaurgainen helburu nagusia. Urrutiako jaunarekin noiz ezkondu zen Hauzeko andere bat (frantsesez "Hauze" *Haux* dugu) datatu nahi zuen Jaurgainek. Holakorik ez bide zen gertatu inoiz. Ahetzeko andere bat, ordea, ezkondu zen XV. mendean Urrutiako jaunarekin (Jaurgain: 1899).

> Cet Menauton de Ruthie, qui est, très vraisemblablement, le héros den notre ballade, avait à peine vingt ans quand son père le maria, vers 1422, avec Domenge d'Ahetze, demoiselle, soeur de monseigneur Arnauton d'Ahetze, chevalier, seigneur d'Ahetze de Peyriède – depuis, Ordiarp– et d'Erbis de Musculdy.

Pasarte hori dugu Jaurgainen lanaren muina. Ahetzeko anderea 1422. urtean ezkondu zen Urrutiako Menauton-ekin. Ahetze honek ez du zerikusirk Lapurdiko herriarekin, Mattin Ahetzeko

bertsolariaren herriarekin. Ahetze hau Urdiñarbeko etxe edo jauregi bat zen (uste dugu gaur egun ez dela esistitzen). Zuberoako herri txiki bateko etxe edo jauregia. (Ordiarp da frantsesez Urdiñarbe eta lehenago Peyrède omen zen Jaurgainen arauera.)

Jaurgainen datu historiko hau kontu handitan izan dute harrezkero balada hau aztertu duten guztiek. Baladaren izenburua ere aldatu izan da datu hau dela eta. *Hauzeko anderia* izan beharrean *Ahetzeko anderia* jartzen dute askok edo gehienek. Ez ote da gehiegi? Historialari batek ematen duen datuaren arabera alda daiteke balada bat izendatzeko modua? Ez ote ditugu bi disziplina nahasten? Jaurgainek Francisque Michelen testua ere aldatu zuen. Egia esan, errata batzuk zuzendu zituen, baina egin behar ez zituen aldaketak ere egin zituen.

Jean Haritschelharrek beste hipotesi bat du "Baigorriko zombait kantu" lanean dioenez (Haritschelhar: 1963):

> Gure kantu zaharretarik bat da: "Urrutiako anderiaren" kantia. Hortaz mintzatu da ederki Jean de Jaurgain (Quelques légendes du Pays de Soule). Dio kantu horrek Ahetzeko anderia zela ezkondu Altzuruku Urrutian. Bainan 1857an Francisque-Michelek kantu ber-bera agertarazi zien bere liburu ederrian. Huna hastapena:
>
> Hauzeko anderia
> Urrütian khorpitzez;
> Hor dizü bere büria,
> Kampoan da bihotzez.
>
> Jaurgain-ek kambiatu zien lehen neurthitza ezarriz
>
> Ahetzeko anderia
> Urrütian khorpitzez
>
> Etzielakotz nihun ere atxeman Hauzeko andere bat ezkondu zela Urrütiko jaun batekin eta aldiz, ikusi zielakotz Manauton de Ruthie eta Domenge d'Ahetze ezkondu zirela 1422an. Damurik ez dakigu, paper zaharretarik ateraturik, ezkondu zen Etxauzeko andere bat, Altzuruku Urrutian. Hala dio Augustin Chaho-ren paperretan den kantu eder batek, zaharra hori ere dudarik gabe.
>
> Eta orai emanen dudan Etxxauzeko anderiaren kantia berriz irakurtzen dudalarik, nago bi horien "sujetak" direla behar bada presuna bakar bat ta izan ditaikela Ahetzeko edo Hauzeko anderia Etxauzeko anderia zela.
>
> Dena den, badute oraino lan, Eskual-ikertzalek. Telesforo de Monzon jauna, Chahoren paperren jabe berriak, hartuko ditu hemen ere eskerrik beroenak.

Eta testu honen ondoren Chahoren kantutegiko *Sorthu nintzan Echausian/ Hazi Garatian Aguerrian/ Eskolatu Bayounian/ Madamatu Urrutian* ahapaldiarekin hasten den kanta transkribatzen du Haritschelharrek. Kantu hau ordura arte 1963ko Haritschelharren artikulura arte gordean zegoen, Chahoren paperetan. Ulertzekoa da, beraz, inork ere kointzidentzia honen berri ez ematea. Kointzidentzia edo bateratasun handiegiak dira, jakina. Anderea Echausian sortzen da eta madamatu Urrutian. Echausia delako hori Baigorriko jauregi eder bat da. Haritschelhar baigorriarra zen eta herriko muino baten gainean dagoen Etxauzeko jauregia haren herrian dago, Baigorrin. Bateratasun hau egitea, beraz, zilegi baino zilegigoa da. Balada honen gainean badugu atal bat gure ikerketa honetan. Ikus bedi *Sortu nintzan Echausian* balada.

Gure emakume protagonistaren etxe edo jauregirako hiru aukera ditugu, beraz. *Hauze*, *Ahetze* eta *Etxauz*. Bi Zuberoakoak eta bat Nafarroa Beherekoa. Hiru aukera hauek elkarren arteko berdintasun handiagoa hartzen dute nongo kasuan (génitif locatif Lafonek esango lukeenez): *Hauzeko*, *Ahetzeko* eta *Etxauzeko*. Hiru aukera hauetan ia guztiek Ahetzeko horren alde egin dute. Zail baino zailagoa da hiru aukera horietatik itsu-itsuan jatorrizko testuan agertzen den Hauzeko horren kontra joatea.

Hiru aukera hauek direla eta Txomin Peillenek bere "Altzürüküko Urrutiako leinuaren eresiak XV. mendeko" lanean zehaztasun hau dakar (Peillen: 1990):

> Gure Herrian Euskaltzaindian Haritschelhar-ek egin mintzaldian bere dudak azaldu zituen *Hauze* hitzari buruz, zeren eta hala emanik pikoa ez baita aski luzea, berak uste zuen *Etxauze* izan zela. Kantua Zuberoan bildurik, ez da

harritzeko Hauze Etxauze baino hobeki ezagutua izatea. *Urrütia I*, eresiaren ikertzen ari nintzela, gogoratu nintzen *Urrütia II* delakoan etxe hortako anderea Etxauzen sortua dela dioela, beraz, iñolaz ere Hauzen. Orain azken oztopoa kentzeko, nola irakurri behar da Ahetze? Badakigu Ahetzeko jauregia Zuberoan Urdiñarben zegoela. Eta zer du ikusteko Etxauztarrekin? Jaurgain-engan arkitu dut erantzuna, bere les Trois Mosquetaires liburuan, Etxauztarrak Ahetzeko jaun zirela ere, idazten baitu. Beraz Jaurgain-ek bere ondorioztapenetan ta Haritschelharrek bere susmoetan arrazoin zuten.

Txomin Peillenek aipatzen duen Jaurgainen liburua hauxe dugu: *Troisvilles, d'Artagnan et les Trois Mousquetaires. Etudes biographiques et héraldiques . Nouvelle édition, augmentés et entièrement refoundue*. Paris: Campion 1920.

Testualki, ordea, hiru aukera hauek gorabehera, uste dugu ezin dela jatorrizko testua aldatu. Jatorrizko testua aldatu ondoren bakoitzak bere modura aldatzen du eta bakoitzak balizko testu bat sortzen du. Ustezko eta balizko testu bat. Horixe gertatu da gure baladarekin.

Gure balada hau modu batera baino gehiagotara deitua izango da. Jon Etxaidek bere "Euskal eresi zaharrak" lanean *Urruthiako etxanderearen eresia* deituko dio, Txomin Peillenek *Urrutiako anderia* baita *Ahetzeko anderia*.

4. *HAUZEKO ANDERIA* BALADAREN AZKERKETAK ETA TESTUAK

Lehen azterketa historikoa duena, gorago esan dugun bezalaxe, Jean de Jaurgainena da. Gerora Juan Carlos Guerrak ez du kontu berririk aipatzen. Aingeru Irigarai bere *Poesias populares de los vascos II* lanean, Jaurgainen testuari jarraitzen zaio zenbait kontutan baina ez guztiz. Lehen ahapaldian *Ahetzeko anderia* dio baina *korpitzez*, *ukenen*, *opilak* egiten du jatorrizko aspiraziorik gabe: *khorpitzez, ukhenen, ophilak*. Interpretazio bitxiak ere egiten ditu *goiz ophilak eghinik*, esaterako, *goiz-opilak* eginik idazten du, goiz adberbioa hitz konposatu bat eginik: *goiz-opil*[1]. Aingeru Irigaraik, beraz, ez du ez Francisque Michelen ez Jaurgainen eredua erabiltzen bietatik sortutako bat baizik. Transkripzio honek, egia esan, ez du argitasun berririk ematen.

Maria Goyri mintegikoek santa Klararen miraria aipatzen duten lehenak dira. Santa Klararen miraria txertaturik dago, gorago ikusi dugunez, *Hauzeko anderia* baladan. Maria Goyri mintegikoek, santa Klararen mirari honek ardatz harturik, argumentazioaren gaineko saio interesgarria egiten dute.

Beste saio interesgarri bezain eztabaidagarri bat Txomin Peillenek egina da bere "Altzürükü Urrutiako leinauren eresiak XV. mendeko" lanean (Peillen: 1991). Artikulu nahastetsu horretan Haritschelharren hipotesia azalduz zehaztasun berriren bat ematen du. Urrutia protagonista duten balada gai edo tipo guztiak –hiru dira eta atal berezi bat eskainiko diogu bakoitzari gure ikerketa honetan– pertsonaia bera dutela protagonistatzat uste du. Horrexegatik Urrutia I, Urrutia II eta Urrutia III erabiliko du. Lehena, Urrutia I gure *Hauzeko anderia* da, bigarrena *Sortu nintzen Etxausian*, eta hirugarrena *Musde Urrutia leihoti*.

Guk atal diferentetan frogatuko dugunez, balada desberdinak dira, nahiz denak Musde Urrutia bat duten protagonista nagusi.

5. *HAUZEKO ANDERIA* FRANCISQUE MICHELEN LIBURUAN

Francisque Michel mediebalistak batez ere J.B. Arxü zuberotarraren eta Heletako Etcheverry eskola-maisuaren kantuak sartu zituen bere *Le Pays Basque* liburuan. Are gehiago, lehen kantu-bilduma edo ondaretxoa Heletako Etcheverry eskola-maisuarena izan zen, 1855eko maiatzeko karta batean ikusten

[1] Kontu ezaguna denez *goiz* ernetzen den artoa *goiz-artoa* dugu Bizkaian. Tankera horretako hitz-konposatuak badira euskaraz. Antzeko zerbait egin du goiz-op(h)il hitzarekin.

denez.[2]. Arxüren ondarea askoz interesgarriagoa izango da, baina Heletako Etcheverryren bildumaren ondoren lortua da. Duvoisini ere herri-kanta eta baladak eskatzen bazizkion ere ez bide zuen ezer lortu kapitainarengandik. *Hauzeko anderia* Francisque Michelek argitara eman zuenean Arxüren transkripzioa zuen. Arxürena da dudarik gabe euskarazko testuaren transkripzioa eta Arxürena da, era berean, frantsesezko itzulpena. XIX. mendean balada zaharrak izendatzeko moduetako bat *eresia* zen eta izenburu hori jarri zuen Arxük. *Eresia* balada esateko euskal hitza zen eta frantseseko ordaina *légende*. Arxük eman zuen itzulpena, beraz, eresia hitzarena *légende* izan zen. Modu hau erabiliko du gerora Jean de Jaurgainek "Quelques légendes poétiques du Pays de Soule" lan interesgarria egin zuenean eta Aita Donostiak ere XX. mende erdi aldera *leyenda* erabiliko du gure balada adierazteko. Arxü zuberotarrak eresi edo balada zaharrak biltzen zituenean beren balioaz oharturik frantseseko azalpen bat eman ohi zuen. Halaxe egin zuen, esaterako *Urthubiako Alhaba* bildu zuenean edo beste eredu batzuetan. Arxüren azalpenak ere baliatzen zituen Francisque Michelek bere *Le Pays Basque* liburuan eta kantaren ondoren jarri ohi zituen Arxürenak edo benetako biltzailearenak direnik esan gabe. Horren adibide dugu, esaterako, *Anderea gorarik* baladaren ondoren ematen duen azalpena. Azalpena eta transkripzioa Arxürenak ditugu, baina ez du esaten Arxürena denik. Zeren Francisque Michelek besteren lanaz –tannskripzio eta oharrez– baliatzen zen bere liburuan eta ez zuen ematen biltzailearen berririk.

Francisque Michelek egiten dituen Arxüren eta gainerako biltzaileen transkripzioen gaineko transkripzioa nahiko ona izaten zen. Hala ere, baditu zenbaitetan huts nabarmenak. Huts nabarmena dugu, esaterako, bigarren ahapaldiko *Gincoac nohi badu* (II. ahapaldia) horretan nahitaez *Gincoac nahi badu* izan behar du. *Adar ene bilzera* (IV. ahapaldia) horretan errakuntzatxo bat da Jean de Jaurgainek asmatu zuenez. Laugarren ahapaldian *ene* izan beharrean *eni* behar du: *adar eni biltzera*. Era berean, beste puntu batean frogatuko dugunez, *Jin zirien haillicotan* (XVI. ahapaldia) horretan errakuntza bat dugu. Zuberoako euskaran *zirien* izan beharrean *ziren* behar du, Jean de Jaurgainek asmatu zuenez, eta gure eskuizkribuan frogatuko dugunez. *Goiz ophilak eghinik* (X. ahapaldia) behar luke eta *Goiz ophilak eginik* ikusten dugu. Errakuntza horiez guztiez gain *ikhasi* behar du (V) eta ez *ikasi*. Geure puntu honetan Francisque Michelek argitara zuen bezala egingo dugu. Transkripzio honi zenbaki erromatarrak erantsiko dizkiogu.

(I)
Hauzeco anderia
Urrutian khorpitzez;
Hor du bere buria,
Campoan da bihotzez.

(II)
–Nor du bere maitia?
Nahi nuke eghia.
Gincoac nohi badu,
Hilzia ukhenendu.

(III)
–Goure jaun Urrutia,
khechian bethi zia
Erradazu zertaco.
Ni enuzu campoco.

(IV)
–Hurrunt zite ni ganic,
Eztit zure beharric.
Bazoaza campora
Adar ene bilzera.

(V)
–Jauna, holaco lanac
Hauzeco anderiac
Eztitizu ikasi;
Hen doazu ihesi.–

(VI)
Elhe hoiec ahotic
Jalkitzen zielaric,
Urrutiac bilhoti
Therresta du ibili.

[2] DUBARAT, V. P.: "Lettres [de F. Michel] adressées au Capitaine Duvoisin", RIEV, 1907, I, 49-53 or.

(VII)
Gincoa, zer bizia!
Oi! jaun Urrutia,
Ni Hauzeco etchian
Nunduzun bai bakian.

(VIII)
Hounat jin behar nizun,
Ene zorthia zuzun,
Bihotz min ukheiteco,
Zure khecherazteco.

(IX)
Oghen gabe zu, bethi
Minzo zitzaist gogorki.
Othoi zure beghiac
Utz ditzala khechiac.

(X)
Goizian goiz jaikiric,
Goiz ophilac eghinic
Hauzeco anderia,
Lehia dun handia.

(XI)
Zareta bat burian,
Camporat jalkitzian,
Mous d'Urrutiac zian
Baratu bai bidian.

(XII)
Noun zabiltza hain goizic,
Jaureghia huxturic?
Galthatzen du Urruic
Beghiac oldarturic.

(XIII)
Jauna, ikhousten duzu,
Nahi balin baduzu,
Noat orai nabilan
Zareta hau burian.–

(XIV)
Gente eskeliari
Emaiteco sokhorri,
Madama Urrutiac
Hartu zutien bidiac.

(XV)
Ophilez zaria beitzen
Betheric gente prauben.
Urrutiac zarian
Eskia ezarri zian.

(XVI)
Ophilac ordu hartan
Jin zirien haillicotan,
Urrutiac behala
Uste trompatu zela.

(XVII)
–Ehuleco etchera
Zoaza bilberaztera?
–Jauna, ikhousten duzu…
Orai zuc badakizu…

(XVIII)
–Parca izadazut arren,
Bekhaitz enuzu izanen:
Emazte houn zirela,
Orai badit nic proba.

Ez dago esan beharrik Zuberoako euskaraz dagoela transkribatua testua. Francisque Michelen liburuan Eresia hitz larriz ikusten dugu eta azpian (Suberotarra) hitza parentesi artean. Zuberoako euskararen traskripzio-bide zaharra ikusten dugu XIX. mendean eta aurretik ere usu erabiltzen zena. *Ikhousten,* esaterako, *ikhusten* transkribatuko genuke guk gaur eguneko transkripzio sistema zabalduenean, eta Arxük *nunduzun* bezala transkribatzen duen adizkia, gaur eguneko sistiman *nündüzün*.

6. ARXÜREN TRANSKRIPZIO SISTEMAREN GAINEAN

Gorago esan dugunez, Jean Baptista Arxü dugu Francisque Michelek bere *Le Pays Basque* liburuan argitaratu zuen baladaren biltzailea eta lehen transkribatzailea. Baieztapen honen froga argiak ditugu. Lehenengo eta behin, Zuberoako testu bat dugu *Hauzeko anderia*, Francisque Michelek argitaratu zituen Zuberoako testuak –guztiak esatera ausartuko ginateke, Heletako Etcheverryk zeintzuk testu bidali

zizkion zerrendaturik baitaude F. Michelek Duvoisini igorri zion kartan[3]– Arxük bildu eta transkribatu zituen. Zehaztasun honezaz gainera, Arxüren testuak zeintzuk diren antzematen erraza dugu, transkripzio-sistema pertsonal eta berezi bat duelako. Sistema honen arabera *eghia*, *oghen*, *beghiac* transkribatuko du gh– ren ondoko bokala –e edo –i denean. Delako gh–/–gh– kontsonante bigrafoak zer markatzen du? Ahoskera [g] bati dagokiola. Arxük bere sistemaren arabera *Jainkoa*, esaterako, Zuberoako euskaran *Gincoa* edo *Jincoa* transkribatzen du. Sistema hau berau ikusten dugu *Urthubiako Alhaba* baladako transkripzioan.

–Gainkoak deizula egun hon, Erreghe Franziacoa
[Erreghe Franziacoa eta] nobletan pare gabecoa.

Errege hitza Arxük *Erreghe* transkribatzen du. Kontu hau nabarmena baino nabarmenagoa dugu. Gure testuan berean g baten ondoren beste edozein bokal datorrenean g– horren atzean ez du hatxerik jarriko: *gogorki*, *gabe*. Zehaztasun hau kontuan izatea Arxüren transkripzioak zeintzuk diren jakiteko frogarik errazena da. Gainerakoan Arxüren testuan k eta c kontsonanteen nahasmendu bat ikusi ohi dugu. Hitzen atzizkiari dagokionean ia beti ikusten dugu azken –c bat aurkitzen dugu. *Nic*, *Gincoac*, *beharric, lanac*, *anderiac*, *ahotic*, *zielaric*, *khechiac*, *Urrutiac*, *goizic*, *huxturic*, *beghiac*, *oldarturic*, *bidiac*, *betheric*. Hitzaren barnean badago, ordea, nahasmendu ttipi bat sortzen da. Kontsonantea aspiratua bada ez dago dudarik: *khorpitzez*, *ukhen*…

7. ARXÜREN KAIEREKO EREDUA

Atal honetako ekarririk handiena egingo dugu puntu honetan. Arxüren kaier eskuidatzian datorren eredua transkribatuko dugu. Arxüren kaierak bi izen oso antzeko ditu *Recueil de chants populaires basques* edo *Chants populaires du Pays Basque recueillis par J. B. et P. Archu. 1840*. Puntu honetan trasnskribatuko dugun eredu hau ez da orain arte inon argitaratua izan. Eredu hau Francisque Michelen 1857ko eredutik guztiz hurbil badago ere, hitz edo esapide zenbaitetan ez da guztiz berdina. Arxüren dokumentu hau lehen dokumentua da, balio handikoa 1840. urtea baino lehenagokoa. Arxüren kaieraren kopia bat digitalizaturik Mauleko Süazia elkartean gordetzen da Arxüren ondorengo batek, arrailoba batek eramanda. *Hauzeko anderia* kaieraren hasieran, 2 eta 3 argazkietan, dator. Kantuaren izenburua *Ruthie. (Légende)* da. Kantu honen lehen dokumentuko transkripzioa bi esku diferentek egina dela dirudi. Lehen bederatzi ahapaldiak esku batek eginak dira eta beste bederatziak beste batek. Lehen bederatziak Arxük berak eta gainerako beste bederatziak Chahok beharbada. Puntu honetan lehen dokumentuaren transkripzioa eskainiko dugu.

(1)
Hauzeko anderia
Urrutian khorpitzez;
Hor du bere buria,
Kanpoan da bihotzez.

(2)
–Nor du bere maitia
Nahi nuke eghia,
Gincoac nahi badu,
Hilzia ukhen du.

(3)
–Mousde Urrutia,
Khechian bethi zia,
Erradazu zertaco;
Ni enuzu kampoco.

(4)
–Hurrunt zite ni ganic,
Eztit zure beharric.
Zoaza bai kampora
Adar eni bilzera.

[3] Karta honen berri goraxeago eman dugu, Dubaraten 1907ko RIEVeko artikulua.

(5)
–Jauna, holaco lanac
Hauzeco anderiac,
Eztitizu ikhassi;
Hen doazu ihessi.

(6)
–Elhe hoien ahotic
Idokitziareki,
Urrutiac bilhoti
Therresta du ibili.

(7)
–Gincoa, zer bizia!!....
Oi! jaun Urrutia,
Ni hauzeco etchian
Nunduzun bai bakian.

(8)
Hounat jin behar nizun,
Ene zorthia zuzun,
Bihotz min ukheiteco,
Zure khecherazteco.

(9)
Oghen gabe, zu bethi
Minzo zitzaist gogorki.
Othoi, zure beghiac
Utz ditzala khechiac.

(10)
Goizian goiz jaikiric,
Goiz ophilac eghinic,
Hauzeco Anderia,
Lehia dun handia.

(11)
Zaretabat burian
Camporat jalkitzian,
Mous d'Urrutiac zian
Baratu bai bidian.

(12)
–Noun zabiltza hain goizic,
Jaureghia huxturic?
Galthatzen du Urrutic
Beghiac oldarturic.

(13)
–Jauna, ikhousten duzu,
Nahi balin baduzu,
Noat orai nabilan,
Zareta hau burian.

(14)
Gente eskeliari
Emaiteco sokhorri,
Madama Urrutiac
Hartu zutien bidiac.

(15)
Ophilez zaria beitzen
Betheric gente prauben,
Urrutiac zarian
Eskia ezarri zian.

(16)
Ophilac ordu hartan
Gin ziren haillicotan,
Urrutiac behala
Uste troumpatu zela.

(17)
–Ehuleco etchera
Zoaza bilberaztera?
–Jauna, ikhousten duzu
Orai zuc badakizu.

(18)
–Pharka zadazut arren,
Bekhaitz enuz'izanen:
Emazte houn zirela,
Orai badit nic proba.

Minzaturen gutuzu oraw habere
Han beherra joan zirez bew lehenago.
— Uda lili eigerra, oz eghin nigarric,
Zer profetu duzu hola zhagri naturric?
Ene lagunac dira ounxian sarthuric,
Ni albiz hebez egoiten erin parthic zuganic.
Oraï barnoatu itsasoz marignel;
Gincoa othoi zazu fortunaz nabigatzel;
Etxeticla izan enetaco kowdel,
Izan zite bethiere humil eta fidel.

2 Ruthie. (Légende)

Hauzeko anderia
Urrutian khorputzez
Hor du bere buria
Kanpoan da bihotzez.
— Nor du bere maitia,
Nahi nuke eghia,
Gincoac nahi badu,
Hilzia ukhenda.
— Mous de Jaun Urrutia,
Khechian bethizia,
Erraiozkit, zertaco;—
Ni enuzu kanpoco.
— Hurrun zirelarik ganic
Etxit zure beharric,
Zaza baikampora,
Adar eni bilzera.

— Jauna, holaco lanac
Hauzeco anderiac
Etxitzu ikhassi, —
Hen doazu ihessi.
— Elhe hoien ahoti
Idokitziareki,
Urrutiac bilhori
Eherresta du ibili.
— Gincoa! zer bizia!! .....
Oï! jaun Urrutia,
Ni hauzeco etchian
Nundauzun bai bakian.
Hounat jin behar nizun, —
Ene sorthia zuzun,
Bihotz min ukheiteco,
Zure khecherarteco.
Oghon gabe, zu bethi
Minzo zitzait gogorki.

Othoi, zure beghiac
Utz ditzala khechiac.
Gorizan goiz jaikiric,
Goiz ophila eghinic,
Hauzeco Anderia,
Lehia dun handia.
Zaretabat burian
Kanporat jalkitzian
Mous d'Urrutia zian
Baratu bai bidian.
— Nonn zebilza hain goizic,
Jaunghia kustutic,
Galthatzen du Urrutic
Beghiac olhartutic.
— Jauna, ikhousten duzu,
Nahi balin badukezu,
Noat orai nabilan,
Zareta han burian.
Gente etxeliari
Emaitzeo sokhorri,
Madama Urrutiar
Hartu zutien bidiar.
Ophilza zaria beitzen
Bithuric gente praubez,
Urrutiar zaridan
Etxia ezarri ziaten.



Hauzeko anderia balada. Arxüren kaierekoa.

8. ARXÜREN EREDU BERRIA AHAPALDIZ AHAPALDI

Garrantzi handiko testua denez gero, ahapaldiz ahapaldiko iruzkina eskainiko diogu. Ahapaldiak lehen dokumentuan ez daude zenbakiturik. Arxüren eskuizkribuko dokumentua 1857 ureko Franciaque Michelen liburukoarekin konparatuko dugu. Francisque Michelen liburu izendatzeko PV siglak erabiliko ditugu.

(1)
Hauzeko anderia
Urrutian khorpitzez;
Hor du bere buria,
Kanpoan da bihotzez.

Lehen ahapaldi honetan ez dago inolako aldaketarik. PV liburuan *Canpoan da bihotzez* dator, eskuizkribuan *Kanpoan da bihotzez*.

(2)
–Nor du bere maitia
Nahi nuke eghia,
Gincoac nahi badu,
Hilzia ukhen du.

PV liburuan *Gincoac nohi badu* dator transkribaturik. Arxüren eskuidatzian forma zuzena aurkitzen da: *Gincoac nahi badu*. PV liburuaren eta Arxüren eskuizkribuaren arteko desberdintasun handiena azken lerroan dator. PV liburuan *Hilzia ukhenen du* dator eta eskuidatzian *Hilzia ukhen du*.

(3)
–Mousde Urrutia,
Khechian bethi zia,
Erradazu zertaco;
Ni enuzu kampoco.

Hirugarren ahapaldi honetan testu batetik bestera zertxobait aldatzen da. Arxük lehen lerroan *Mousde Urrutia* idatzi du, eta *Mousde* eta *Urrutia* hitzen artean, gainean, *jaun* hitza tartekatu du. Itxurak direnez, Arxük hirugarren lerroan *Errazu othoi zertaco* idatzi du eta zuzenketa eginez *Erradazu zertaco* jarri du.

(4)
–Hurrunt zite ni ganic,
Eztit zure beharric.
Zoaza bai kampora
Adar eni bilzera.

Laugarren ahapaldian, PV lanean, *Hurrunt zite* dator, eskuizkribuan, *Hurrun zite*. Hirugarren lerroa, PV lanean, *Bazoaza campora* da, Arxüren eskuizkribuan, *Zoaza bai kampora*. Laugarren lerroa, PV lanean, *Adar ene bilzera* eta Arxüren eskuizkribuan, *Adar eni bilzera*. Uste izatekoa da PV liburuko *Adar ene biltzera* horretan *ene* beharrean *eni* beharko lukeela, eskuidatzian datorren bezalaxe.

(5)
–Jauna, holaco lanac
Hauzeco anderiac,
Eztitizu ikhassi;
Hen doazu ihessi.

Bosgarren ahapaldi honetan badira testu batetik besterako transkripzio aldaketa txiki zenbit. PV liburuan *Eztitizu ikasi* dator, Arxüren eskuidatzian, *Eztitizu ikhassi*. Azken lerroan, era berean, PV liburuan, *Hen doazu ihesi* eta Arxüren eskuidatzian *Hen doazu ihessi*. Zuberoako euskararen ahoskeran *ikhassi* aditzaren *–kh–* kontsonante aspiratuak transkripzio zuzenagoa adierazten du.

(6)
–Elhe hoien ahotic
Idokitziareki,
Urrutiac bilhoti
Therresta du ibili.

Seigarren ahapaldi honetan desberdintasun handi xamarrak aurkitzen dira testu batetik bestera. Lehen lerroan, PV liburuan, *Elhe hoiec ahotic* dator, Arxüren eskuidatzian, *Elhe hoien ahotic*. Batean nominatibo anitza da *hoiec*, bestean genitiboa *hoien*. Aldaketa PV liburuan bigarren lerro *Jalkitzen zielaric* da, Arxüren eskuizkribuan *Idokitziareki*.

(7)
–Gincoa, zer bizia!!....
Oi! jaun Urrutia,
Ni hauzeco etchian
Nunduzun bai bakian.

Zazpigarren ahapaldi honetan testuan ez dago eskuizkribu batetik besterako alderik. Puntuazioari dagokionez, PV lanean, *Gincoa zer bizia!* irakurtzen da Arxüren eskuidatzian *Gincoa, zer bizia!!*... PV liburuan *Ni Hauzeko etchian* irakurtzen da, Arxüren eskuizkribuan *Ni hauzeco etchian*.

(8)
Hounat jin behar nizun,
Ene sorthia zuzun,
Bihotz min ukheiteco,
Zure khecherazteco.

Zortzigarren ahapaldian testu batetik bestera aldaera bakarra dago. PV liburuan *Ene zorthia zuzun* irakurtzen da, Arxüren eskuizkribuan *Ene sorthia* zuzun. *Zorthe/ sorthe* bi aukeren artean transkripziorik zuzenena *zorthe* dela deritzagu. Hitz honek artikuluarekin *zorthia* izan behar du, PV liburuan datorren bezalaxe.

(9)
Oghen gabe, zu bethi
Minzo zitzaist gogorki.
Othoi, zure beghiac
Utz ditzala khechiac.

Bederatzigarren ahapaldi hau berdin-berdin dator batean eta bestean. Puntuazioan apurren bat desberdina da. PV lanean *Oghen gabe zu, bethi* irakurtzen da, Arxüren eskuidatzian *Oghen gabe, zu bethi*.

(10)
Goizian goiz jaikiric,
Goiz ophilac eghinic,
Hauzeco Anderia,
Lehia dun handia.

PV liburuan *Hauzeco anderia* irakurtzen da, Arxüren eskuizkribuan *Hauzeco Anderia*.

(11)
Zaretabat burian
Camporat jalkitzian,
Mous d'Urrutiac zian
Baratu bai bidian.

Hamaikagarren ahapaldi honetan Arxüren eskuizkribuan *Zaretabat burian* dator, *zareta* eta *bat* hitzak elkarturik; PV liburuan bereiz: *Zareta bat*. PV liburuan *campo* hitza dator ahapaldi guztietan, lehen, hirugarrenean, laugarrenean eta hamaikagarrenean. Arxüren eskuidatzian lehen ahapaldian izan ezik, gainerakoetan *kampo* aurkitzen da.

(12)
–Noun zabiltza hain goizic,
Jaureghia huxturic?
Galthatzen du Urrutic
Beghiac oldarturic.

PV liburuan lehen lerroa –Noun zabiltza hain goizic da, Arxüren eskuidatzian *Noun zabilza hain goizic*. Bigarren lerroa PV liburuan *Jaureghia huxturic?* da, Arxüren eskuidatzian, *Jaureghia husturic*.

(13)
–Jauna, ikhousten duzu,
Nahi balin baduzu,
Noat orai nabilan,
Zareta hau burian.

PV liburuan eta Arxüren eskuizkribuan bat datoz testuak. Arxüren eskuidatzian, hirugarren lerroan, koma bat dator, PV liburuan ez.

(14)
Gente eskeliari
Emaiteco sokhorri,
Madama Urrutiac
Hartu zutien bidiac.

Arxüren eskuidatziko ahapaldi hau eta PV liburukoa berdin-berdinak dira . Hitzen transkripzioan zein puntuazioan bat datoz.

(15)
Ophilez zaria beitzen
Betheric gente prauben,
Urrutiac zarian
Eskia ezarri zian.

PV liburuan, bigarren lerroaren bukaeran dator puntua: *Betheric gente prauben*. Arxüren eskuidatzian *prauben* hitzaren ondoren koma bat irakurtzen da. Esan gabe doa Zuberoako euskara zaharrean *gente prauben* horrek "jente pobreentzat" dela. Bestela esan, *praube* hitzari genitibo marka erantsi ondoren (*prauben*), destinatiboaren balioa ere badu.

(16)
Ophilac ordu hartan
Gin ziren haillicotan,
Urrutiac behala
Uste troumpatu zela.

Ahapaldi honen iruzkina egitea guztiz interesgarria da. PV liburuan bigarren lerroa honelaxe irakurtzen da: *Jin zirien haillicotan*. Bigarren lerro honetan ezinezko adizki bat dator: *jin zirien*. Aditz honek harakaitz bikoitza du. Arxürengan formarik normalena *gin ziren* da. Dena dela harrigarriena *zirien* adizkia da. *Jin* aditzaren esangura *bihurtu* da. Une hartan opilak mataza edo hailliko bihurtu zirela esan nahi du. Frantsesko itzulpenean ondo datorren bezala: *Les gâteaux de pain au même instant se convertirent en pelotons de fil*. Arxüren eskuidatzian ondo dator: *Gin ziren haillicotan*.

Azken lerroa PV liburuan *Uste trompatu zela* da, Arxüren eskuizkribuan *Uste troumpatu zela*.

(17)
–Ehuleco etchera
Zoaza bilberaztera?
–Jauna, ikhousten duzu
Orai zuc badakizu.

Testu batetik bestera puntuazioa aldatzen da bakar-bakarrik. PV liburuan hirugarren eta laugarren lerroak eten-puntuekin bukatzen dira.

(18)
–Pharka zadazut arren,
Bekhaitz enuz'izanen:
Emazte houn zirela,
Orai badit nic proba.

Azken ahapaldi honetan lehen bi lerroetan daude transkripzio-aldaketa txikiak. Lehen lerroa, PV liburuan, *Parca izadazut arren* irakurtzen da, Arxüren eskuizkribuan, *Pharka zadazut arren*. Bigarren lerroan, PV lanean, *Bekhaitz enuzu izanen,* Arxüren eskuidatzian, *Bekhaitz enuz'izanen*.

9. ONDORIOA

Aurreko bi puntuetan eskaini dugun eredua ez da PV liburuan agertzen den bera, hitzez hitz. PV liburuko eredua eskuizkribuko eredua aurrean dela hobeki ulertzen da, inolako dudarik gabe. Zenbait pasartetan desberdin da Arxüren eskuizkribuko eredua. Adibiderik argienetako bat seigarren ahapaldikoa da. *Elhe hoien ahotic idokitziareki* dator eskuizkribuan *Elhe hoiec ahotic jalkitzen zielaric* PV liburuan.

10
HEGABÜRÜ ESKIULA BALADA

1. SARRERA

Atal honetan *Hegabürü Eskiula...* bezala Antonio Zavalak bere *Euskal erromantzeak/ Romancero Vasco* liburuan dakarren kantua izango dugu aztergai. *Hegabüru Eskiula* kantuari gure baladen gaineko lehen artikulua eskaini genion "Zuberoako bi khantore edo baladen gainean"[1]. Harrezkero eredu argitaragabe berriak aurkitu ditugu eta baladen bidean gure ibilbidea sendotu dugu. Atal honetan aurkikuntza eta gogoeta horiek guztiak ekarriko ditugu.

Kontu ezaguna denez, baladaren izenburua finkatzeko kantaren hasiera-hitzak hartu ohi ditu Antonio Zavalak. Kasu honetan, gainera, baladaren hasiera edo lehen bi hitzek baladako protagonistaren deitura-goitizenak salatzen dituzte: *Hegabürü Eskiula*. Gure protagonistaren deitura *Hegaburu* edo *Hegabürü* da eta goitizena edo jatorri-izena Zuberoako *Eskiula*. A. Zavalaren baladategiaren arabera *Hegabüru Eskiula* balada gai bakarreko eredu bakarra litzateke, *unicum* bat alegia. Guk atal honetan beste bi ekarriko ditugu. Eredu bat *Gure Herria* aldizkarian argitaratua da eta bestea argitaragabea da.

A. Zavalak argitaratzen duen baladaren edo baladatzakoaren iturria Francisque Michel mediebalistaren *Le Pays Basque* liburua dugu, 424 orrialdea. Guk atal honetan Francisque Michelen eredua finkatuko dugu eta tankera bereko Arxük bildutako beste zenbait kartzela kantu narratibo argitaragabe ere transkribatuko ditugu. Francisque Michelen eredua finkatzeko Arxüren eskutikako eskuidatziko eredua ere transkribatu eta iruzkinduko dugu.

Hegabürü Eskiula kantaren eredu berriak eman ondoren galdera funtsezko bati erantzuteko prestago gaudeke. Galdera hori honelaxe egingo genuke. *Hegabüru Eskiula* balada bat ote da? Edo balada arrunt bat da, besterik gabe. Guk baladatzat hartzen ditugun goi mailako baladen kategorian edo sailean sartu behar ote dugu *Hegabüru Eskiula*?

2. FRANCISQUE-MICHELEN *LE PAYS BASQUE* LIBURUKO TESTIGANTZA

Francisque-Michelek bere *Le Pays Basque* liburu sonatuan krima-kantore edo kartzela-bertsoen gaineko orrialde batean bi konposizioren berri eman zuen. Lehen konposizioan ahapaldi bakarra ematen du, eta, bigarrenean, konposizio osoa. Krima-kantore edo kartzela-bertso hauei gure artean erdarazko

[1] *Idatz & Mintz* 2001, 31 zenb. , 23-35 or.

romance vulgar edo *romance de ciego* direlakoak euskaraturik *balada arrunt* deitu ohi diegu. Francisque Michelek, zuzen den bezala, frantsesez *complainte* deituko die. Hona 422-423. orrialdeetan dakarrena:

Comme ailleurs, les complaintes composées dans le Pays Basque à l'occasion de crimes célèbres et du supplice de leurs auteurs sont en grand nombre. En voici un échantillon:

Choriñoec beçala cantatzen banaki,
Munduian penaric gabe alaguera bizi!
Cantatzen dizut, bena triste bihotzetic:
Carzelun naucate burdinaz beteric.

Si je savais chanter comme le petit oiseau,
Si je pouvais vivre dans le monde exempt de chagrin!
Je chante bien, mais mon coeur est dans la tristesse:
On me retient dans la prison chargé de fers.

Cette complaite se rapporte à un Biscayen mis en prison à Bilbao, et menacé d'être pendu. Un autre pièce consacre ainsi le souvenir d'une mésaventure arrivée dans la Soule:

Hegaburu Eskioula, atzaman die Garaian.
Izan baliz guizon galant bere demboran,
Etzatekien ez etchezain gaztelian.

–Barcocheco burguian, beguiac nutien lurrian,
Acusatu nundien hanco cortian
Eia zer ebaxi nien il-herrian.

–Alo, guizonac, corage! Paubeac behar duzie;
Hanco justizierac haiduru daude;
Justo pinizitzaden, oguen baduzie.

Zazpi haurren aita niz, eta niz gaztelian,
Oguen handi egin beitut orori mundian.
Pharcamentu galtho nago Jaincoari, zelian.

On a arrêté Hegaburud (sic) Esquiule à Garay,
Si, dans son temps, il avait été galant homme,
Il ne serait pas locataire en prison.

–Au bourg de Barcus, je baissais les yeux,
On m'accusa en cour
D'avoir volé au cimetière.

–Allons, hommes, courage! Vous devez aller à Pau;
Les gens de justice vous attendent,
Pour vous punier justement, si vous êtes coupables.

–Je suis père de sept enfants, et je suis en prison,
Parce que j'ai fait grand trot à tous dans le monde.
J'en demande pardon à Dieu, au ciel.

Pasarte luzetxo honetan *complainte* direlakoen berri ematen du Euskal Herriko bi muturretakoak gainera, bata, Bizkaikoa, eta, bestea, Zuberokoa. Bizkaiko *complainte* edo eresian *échantillon* edo erakusgarri txiki bat ematen du. Konposizio baten lehen ahapaldia, alegia. Bigarrenean konposizio osoa ematen du. Euskal bertsoen itzulpena ere egokia da, kantuaren benetako zentzu edo esangura ondo ezagutzen duen batek egina. Francisque Michel mediebalistari Arxük eman zizkion bi konposizioak, geroago frogatuko dugunez, eta itzulpenak ere Arxük berak egingo zizkion, seguru asko, itzulpenetan ez baitago gaizki ulerturik ez *faux amis* delakorik. Azter dezagun, kasurako, *Hegabürü Eskiula* baladaren lehen ahapaldiko itzulpena *Etzatekien ez etchezain gaztelian* delakoan *gaztelü* hitza ikusten dugu Pierre Topet Etchahunek erabiltzen zuen bezala "prison" edo *kartzela* zentzuan. Kantu honetan ironikoki gaztelu hitzaren zentzu biekin ere joka liteke dilogia polit bat eginez. Gazteluan dagoena, *gaztelu* edo *jauregi* gisako etxean badago ere, kartzelan ere badago, eta inkilino edo etxezain dago luzaroan. *Gaztelian* "kartzelan" adierazteko Pierre Topet Etxahunen hainbat adibide eman ditzakegu. Antonio Zavalak bere *Euskal Erromantzeak* liburuan ez du Francisque-Michelek argitara emandako itzulpena kontuan hartu eta *faux amis* bat eginez itzulpen okerra ematen du. Hona hemen Antonio Zavalaren itzulpena:

A Hegaburu-Eskiula lo han detenido en Garaia
Si hubiera sido en su vida un hombre honrado,
No estaría en el castillo guardando la casa.

Itzulpen okerra alde askotatik da, dudarik gabe, ahapaldi honetan bi *faux amis* garbi egiten baititu. "Estar en el castillo" delakoa *gaztelian (egon)* horretatik dator; eta guardando la casa *etchezain* horretatik egiten du. *Etxezain egon* Bizkai-Gipuzkoetan "etxea zaintzen egon" adierazteko erabiltzen dugu, baina hemen "inquilino" edo "locataire" esan nahi du, dudarik gabe.

3. FRANCISQUE-MICHELEN BIZKAIKO BALADA ARRUNT ARGITARAGABEA OSORIK

Goragoko puntuan ikusi dugun moduan, lehen ahapaldi bat ematen du Francisque-Michelek. Lehen ahapaldi hori *échantillon* edo erakusgarri bezala ematen du. Guk Arxüren kaieretik balada arruntaren bost ahapaldiak oso-osorik emango ditugu atal honetan. Balada arrunt hori Arxüren kaiereko 36 kantua da eta izenburua *Complainte d'un criminel* da. Hona kantuko bost ahapaldiak, eskuidatzian datozen bezalaxe, inolako aldaketarik gabe:

(1)
Choriñoek bezala kantatzen banaki,
Munduian phenaric gabe alaghera bizi.
Kantatzen dizut bena triste bihotzetic,
Karzelan naukate burdinaz betheric.

(2)
Bi ama hirur ourthe komplitu gaberic
Ordukoz eghin nituien heriotza biga nic,
Jaunac eta neronec jakin gabetaric,
Aitzuraren kolpiaz muinac atheraturic.

(3)
Arrebañobat ukhan eta parusabat harc eman,
Lephoan paratu eta buruac eraman.
Ene arreba gachoa ez horrela phenatu,
Zure anaiac behardu Bilbaon urkhatu.

(4)

Bilbaoko Seiñoria hanitz da noblia,
Anitzi eghiten du misericordia.
Eniz bada ni ere bassoan topatua,
Ene ama honari onghi kostatua.

(5)

Abenduan gaua luze, goizetan izotza,
Urkhatu behar duenac tristeric du bihotza:
Urkatzia deusic ezta, gainerakoa ghehiago!
Datorren orzegunian laurdenzekoa nago.

Transkripzio moldeari gagozkiola, Arxüren idazkera ikusten dugu bete-betean *alaghera*, *eghin*, *onghi*, eta abar. Arxüren grafiaren ezaugarri askoz gehiago daude testu honetan, nola ez. Bat numerala, esaterako, aurreko hitzari datxekiola jartzea, *arrebabat*, eta abar. Interesgarria da, behin honetaraz gero, grafia kontu batez ohartzea. Arxük Francisque-Micheli emandako kantak bi eratara ager litezke publikaturik Michelen liburuan, Arxüren beraren grafian edo grafia normalago batean. Lehen ahapaldiko *alaghera* hitza, esaterako, *alaguera* ikusten dugu Michelen liburu argitaratuan; era berean, *phenaric* eta *betheric* eskuidatzikoak *penaric* eta *beteric* bihurturik daude liburuan. Errata garbi bat ere bai, gainera; eskuidatziko *Karzelan*, liburuan *Carzelun* bihurturik dator.

Hizkuntzaren aldetik hainbat gauza markagarri ditu, *anitz* hitzaren erabilera kasurako. Aurrean *h*– duela "oso" adberbioaren zentzuan: *hanitz da noblia*. Hasierako hatxerik gabe, ordea, "asko" adberbioaren esangura: *Anitzi eghiten du misericordia*.

Ulermenaren aldetik hirugarren ahapaldia ez da erraza ulertzen *Arrebañobat ukhan eta parusabat harc eman,/ lephoan paratu eta buruac eraman* horrek zer adierazi nahi du? Zer da *parusa* hitza? Euskal hiztegietan *pagotxa* hitzaren aldaera bezala dakarte, eta hala izan behar du. Urkagaiak urkatu baino lehen lepoan zorte ona izateko hirusta bat jartzea detaile harrigarria da.

Bost ahapaldiko konposizio honetan bestetan ere agertzen diren hainbat ezaugarri ditugu. Bestela esan, kartzela kantore honetan tankera bereko beste sail askotan agertzen diren ideia eta egiturak ikusten dira argi eta garbi. Hona hemen zenbait.

Lehen ahapaldian prisonierra *burdinaz betherik* dago. Hazparneko *burdinaz kargaturik* ikusten dugu Martin Larralde-Bordaxuriren kantuan bezalaxe.

Bigarren ahapaldian *aitzuraren kolpiaz muinac atheraturic* esaldia irakurtzen dugu. Esaldi grafiko eta indar handikoa da. Nola hil duen biktima ere esaten da modu zirraragarrian: *muinac atheraturic*. "Hamalau heriotzen" bertsoetan ere aizkora triste batez muinak saltatzen dizkio heriotze egileak biktimari.

Bosgarren ahapaldian hiltzailea hil ondoren laurdenkatua izango dela esaten da. Belateko lapurren bertso-sail famatuan ere modu berean jokatu zuten hiltzaileekin. Bertsoen puntua ere markagarria da *hotza, bihotza...* Urka-garaia gehienetan negua izan ohi da. Formula bat ere errepikatzen da askotan*: oi urkamendiko haizearen hotza.* Konposizio honetan *abendua gaua luze, goizetan izotza* esapide indartsua ikusten dugu. Esapide horrek badu beste balada batzuetan ere kiderik. Atal honetan Francisque- Michelek ahapaldi bat bakarra eman zuen eta guk Arxüren bost ahapaldiak eman ditugu. Badira Arxüren eskuidatzian *complaint* gehiago Francisque-Michelek argitara eman ez zituenak. Hona bat *Complainte* izenburua duen bat (9 or):

(1)

Kaloian den tchoriac triste du beghia,
Nahi bada badien trankilki argia;
Ardura ohartzen zaio bai bere habia,
Desiratzen beluke harta utzulzia.

(2)
Kantatzen ari duzu nigarra beghian
Dembora igaranaz ohartzen denian.
Bere hume gaichuen noun othe dutian,
Harc berac ezarten du dolore handian.

(3)
Ama sinhexi banu bere erranian
Eninzan troumpaturen ourthaxe egunian:
Bena ene malhurrac jin behar beitzian
Heltu izan nunduzun falsien artian.

(4)
Piarregni deitzen niz unduragneco seme.
Ene adichkidiac Omizen dirade,
Ourthaxe egunian markatu deitade,
Ounxa garrotaturic ezarri benaie.

(5)
Hameka adichkide ghira algarreki,
Assia dugularic dolorian bizi,
Herri, etchecoac oro kittaturic
Heben egoiten ghira segurki tristeric.

(6)
Ourtharilaren bosta ala egun tristia!
Ordian zen preziski goure haitatzia,
Mauleco gaztelutic goure phartitzia;
Askazi, adichkider adio erraitia.

Kartzela-kantore honetan ere lehen bi ahapaldietan txori kartzelatua hartzen da kantua hasteko iruditzat. Azken ahapaldian Mauleko gaztelutik ateratzen dute garrotatzeko.

4. *HEGABÜRÜ ESKIULA* ARXÜREN PAPERETAN

Atal honetan gure balada Arxüren eskuidatzian agertzen den bezala agertuko dugu. Arxüren eskutikako eskuidatzian biltzaile zuberotarraren ortografia sistema ikusten dugu. Era horretara, *ghizon*, *burghian*, *oghen* aurkituko ditugu. Arxüren eskuidatzian hamaikagarren zenbakia du baladak eta izenburua frantsesez: *Le Prisonnier*.

1
Hegaburu Eskioula, atzaman die Garaian
Izan baliz ghizon galant bere demboran
Etzatekien ez etchezain gaztelian.

2
Barkocheko burghian, beghiac nutien lurrian,
Acusatu nundien hanco kortian,
Eia zer ebaxi nian Il-herrian.

3

Alo, ghizonac, korage Paubeat behar duzie,
Hanco justizierac haiduru daude
Justo puni zitzaden, oghen baduzie.

4

Zazpi haurren aita niz, et niz gaztelian!
Oghen handi eghin beitut orori mundian
Pharkamentu galtho nago Gincoari zelian.



Hegabürü eskiula Arxuren paperetan.

5. ARXÜREN EREDUKO IRUZKINA AHAPALDIZ AHAPALDI

Gorago esan dugun bezalaxe, Arxüren eskutikako eskuidatziak bere transkripzio sistema berezia du. *Ghizon*, *burghian*, *beghiac*, *oghen* hitzak baina *Ginko* guk *Yinko* ahoskatuko genukeena. Hitz hasiera bezala k– aurkitzen dugu *kortian*, *korage*. Hitz barruan –k– ikusten dugu *Eskioula*, *Barkocheko*, *Etzatekien*, *Pharkamentu*, baina, era berean *acusatu* eta *Ginco*. Bigarren honetan behintzat *Ginko* uste izatekoa zen. Hitzen atzizki bezala –ac *beghiac*, *ghizonac* hitzetan. Era berean, *hanco* baina ez *Barkocheco* uste genukeen bezala, *Barkocheko* baizik. Arxüren transkripzio-bideak erregela batzuk baditu ere, baditu bere salbuespen nabarmenak ere.

1

Hegaburu Eskioula, atzaman die Garaian
Izan baliz ghizon galant bere demboran
Etzatekien ez etchezain gaztelian.

Lehen ahapaldi honetan ez dugu ikusten ez errakuntzarik ez testu aldaketarik. Ez dago dudarik etxezain hitza ironikoki erabitzen dela. *Etxezaina, etxetiarra* “locataire”, “inquilino” dugu, hau da norbaiten etxean egoteagatik alokairua ordaintzen duena.

2

Barkocheko burghian, beghiac nutien lurrian,
Acusatu nundien hanco kortian,
Eia zer ebaxi nian Il-herrian.

Interesgarria da *Hegabürü Eskiula* lapurrak edo lapurtzakoak Barkoxeko bürgian ostu izana. Barkoxe eta Eskiula auzo herriak dira. Eskiula Barkoxeko ekialdean dago, denok dakigunez. Ortografia zaharrari gagozkiola, Iparraldeko transkripzio sistema zaharra dugu *ebaxi,* guk *ebatsi* idatziko genukeena. Era berean, *hux*, *ixaso* egiten dute gaur *huts*, *itsaso* transkribatzen ditugunak. Jatorrizko eskuizkribuko *nian* zuzenagoa da *Le Pays Basque* liburuko *nien* baino.

3

Alo, ghizonac, korage Paubeat behar duzie,
Hanco justizierac haiduru daude
Justo puni zitzaden, oghen baduzie.

Errata garbi bat zuzen liteke. *Le Pays Basque* liburuan *Paubeac* dakar. Norat kasuari dagokion *Paube[r]at* behar du izan. Era berean, *zaitzaten*/*zitzaten* forma *zitzaden* dugu Zuberoako euskaran.

4

Zazpi haurren aita niz, et niz gaztelian!
Oghen handi eghin beitut orori mundian
Pharkamentu galtho nago gincoari zelian.

Le Pays Basque liburuko transkripzioan *Jaincoari, zelian* dator. *Jinco/Ginco* behar luke Zuberoako euskaran formarik hedatuena baita eta ez *Jainko* zabala. Eskuidatzian argi dator: *gincoari zelian*.

6. ARXÜREN A EREDUA GAURKO GRAFIAN

Atal honetan bestetako jokabidea erabiliko dugu. Gaurko ortografiara ekarriko dugu testua.

1

Hegabürü Eskiula atzaman die Garaian.
Izan balitz gizon galant bere denboran,
ez zatekien, ez, etxezain gaztelian.

2

–Barkoxeko bürgian begiak nütien lürrian,
aküsatu nündien hanko kortian,
eia zer ebatsi nian ilherrian.

3

–Alo, gizonak, koraie Paube[r]at behar düzie!
Hanko justizierak haidürü daude,
justo püni zitzaden, ogen badüzie.

4

–Zazpi haurren aita niz, et[a] niz gaztelian!
ogen handi egin beitüt orori mündian,
pharkamentu galtho nago Jinkoari zelian.

Lau ahapaldi hauetatik lehena narratzaile bati dagokio eta beste hiru ahapaldiak gure kantaren protagonistari, Hegabürü Eskiulari.

7. RODNEY A. GALLOPEN B EREDUA

Arxüren kantore honen kidea Rodney A. Gallop musikologoaren "Colectanea vasca" artikuluan aurkitu dugu (Gallop: 1931). Kantu honetan ere gizon bat preso hartu eta kartzelara sartzen dute. Kartzelan edo gaztelian (*gaztelü* hitzari *–an* inesiboa erantsita) luzaro daukate, ironikoki "etxezain" edo "inquilino" (lehen ahapaldian Francisque Michelen ereduan eta azkenean R.A. Gallopen ereduan). Bi kantetako protagonista lapurra ez da pertsona bera. Francisque Michelen aldaeran "Hegabürü Eskioula" da lapurra . Lapur honen izena guk honelaxe irakurri beharko genuke: Hegabürü Eskiula. Rodney A. Gallopen aldaeran lapurra nor den esaten ez den arren, "Pierre Topet Etxahun" da, kantuaren buruan honelaxe baitakar: "Communiqué par M. François Piérou de Tardets. Poème composé par Etchahun en prison". Non egiten den lapurreta ere aldatzen da. Bigarren aldaeran "Elharrian" da, hots, "Elhart"-en etxean , *chez Elhart* , Gallopek duda egiten du eta (?) galde marka batez markatzen. Lehen aldaeran kanposantuan edo *hil-herrian*. Etxe batean lapurtzea zentzuzkoago dirudi, astoa etxeko establetik, garia arkatik eta urdaiazpikoa sokatik kentzen dituelako.

Interesgarria da Francisque Michelen liburuan Hegabürü Eskiula lapurtzat dutela eta Rodney A. Gallopek hartu duen herri testigantzan Etxahun bera izatea lapurra. Ulergarria da Pierre Topet Etxahun mito edo leienda bilakatu zenean beste lapurreta eta kartzela-kantu batzuk berari egoztea. Ohart gaitezen Etxahun bera Barkoxekoa zela eta Rodney A. Gallopen lehen ahapaldian Barkoxe aipatzen dela. Ez dago esan beharrik kanta hau ez dela gure Etxahun handiarena. Haritschelharrek, zuzen onez alde batetik, bere tesian *Attribués* delakoa sailean ez dakar kanta honen aipamenik ere.

Eredu berri honetan ahapaldi berri bat dugu. Gainerako ahapaldietan ere aldaketa interesgarri zenbait daude, dudarik gabe.

1

Barkoxeko bürgian,
Ahalkez bi begiak lürrian,
Galtatü izan nun diren
Hanko kortian
Eia! zer ebatsi nion
Elharrian.

2
Zazpi unk'ogi arkhatik,
Astoa establetik,
Lau jambon zederetik!/
Maleruski
Hola benian fortüna/
Gibeletik.

3
Zazpi haurren aita niz eta
Ni hau tristerik gaztelian.
Izan banintz gizon galant
Ene demboran,
Enintzatian etchezain
Gaztelian.

8. BIGARREN EREDUAREN AHAPALDIZ AHAPALDIKAKO IRUZKINA

Puntu honetan, gure lan sistemari jarraiki, ahapaldiz ahapaldi iruzkinduko dugu Gallopek bildu zuen eredua.

1
Barkoxeko bürgian,
Ahalkez bi begiak lürrian,
Galtatü izan nun diren
Hanko kortian
Eia! zer ebatsi nion
Elharrian.

Arxüren ereduko bigarren ahapaldia ia hitzez hitz. Eredu berri honetan *ahalkez* ikusten dugu beste eredutan agertzen ez dena. Ondo baino hobeto dator ondoren datorren *bi begiak lürrian* segmentuarekin. Ez dator Arxüren *ilherrian* beste zerbait den *Elharrian* baino.

2
Zazpi unk'ogi arkhatik,
Astoa establetik,
Lau jambon zederetik!/
Maleruski
Hola benian fortüna/
Gibeletik.

Bigarren ahapaldi hau berria dugu. Ez dator Arxüren ereduan baina Argentinako koadernoan aurkituko dugu. Zer ostu duen esan ondoren zoritxarrez izango duen fortuna kartzelaldia dela ondorioztatzen dugu.

3
Zazpi haurren aita niz eta
Ni hau tristerik gaztelian.
Izan banintz gizon galant
Ene demboran,
Enintzatian etchezain
Gaztelian.

Hirugarren ahapaldi honetan *Ni hau* delakoa guk *nihau(r)* ulertu behar genuke, hots, "ni neroni" edo "ni neu". Harrigarria da ahapaldi hau alde askotatik. Arxüren lehen eta azken ahapaldiak hemen biltzen dira. Lehen ahapaldiko hirugarren pertsonako *Izan baliz ghizon galant bere demboran/ etzatekeien etchezain gaztelian* lehen pertsonara dator.

9. *HEGABÜRÜ ESKIULA* KANTOREAREN C EREDUA

Atal honetan eredu harrigarri bat transkribatuko dugu. Eredu hau ez dugu beste inon argitaraturik ikusi. Lehen hiru ahapaldiek balada eite handia dute. Eredu berri honek Arxük eta Gallopék bildu dituzten ereduek baino balada eite handiagoa du.

Cahier de Jean Fourcade de Cambo edo dokumentu bera den *Cuaderno de Argentina* delakoan, 184. orrialdean, *Hegabürü Eskiula* kantaren sei ahapaldi aurkitu ditugu. Koaderno honen kopia bat A. Zavalak ere bazuen hainbat aldiz erabili baitzituen horko bertso-sail asko. Harrigarria da, ordea, Jean Fourcade-ren eredu hau beraren baladategian agertu ez izana. Dudarik gabe itzuri egingo zitzaion. Eredu honek Francisque Michelek agertu zuena baino balada eite askoz handiagoa du. Eredu berri honetako azken hiru ahapaldiak bat datoz Francisque Michelek agertu zuen Arxüren ereduarekin.

Jean Fourcade koadernoaren jabea kanboarra izan zen, eta baliteke transkribatzailea ere bera izatea. Jean Fourcade Buenos Airesera XIX. mendean joandako kanboar bat zen. Jean Fourcaderen kaier hau Aita Donostiak 1930. urtean Argentinara egindako bidaia batean eman zioten eta berak horrexegatik deitzen zion *Cuaderno de Argentina*.

Gure kantua *Cahier de Jean Fourcade* dokumentuan beste izenburu hau ematen diote: *Preso ereman zuen bat*. Guk atal honetan Jean Fourcaderen eskuidatzian datorren bezalaxe transkribatuko dugu kantua.

Jean Forucaderen kaierean datorren kantu hau zein euskaratan dugu? Fourcade kanboarra zen, lapurtarra, baina kantaren euskara lapurtarra ote da? Gure eredu berri argitaragabe honetako euskara mendebaldekoagoa da.

1
Adios donioane
Izpura eta Uharte
Zuek hiruek har ezazue
Othoy nitaz pietate
Sakelan sosik ez dut eta
Goserik baineramate

2
Ilhuna ere hurandu
Nik aguardienta galdatu
Aguardienta galdatu eta
Jaulierra botatu
Arte hartan haurño batek
Bortha zeraundan zerratu

3
Jaulierrak ederki
Nola mintza baitaki
Nazioneko ogi hortarik
Ellande yazak gogotik
Hik egiten tukan gastuak
Erregek pagaturen tik.

4
Barkocheko bidian
Begiak nitian lurrian
Interrogatu ninditean
Hango portian
Heya zer ebatsi nian
Ilharrian.

5
Zazpi unga ogi arkhatik
Astoa ezkaratzetik
Lau chanbon selarutik
Maluruski
Ene fortuna bethi
Gibeletik.

6
Erhuak burua bero du
Pauerat joan behar
Omen du
Justiziako jaunak oro
Hire aiduru
Justu duk justu puni hadi
Hoben baduk

Hemen transkribatu ditugun lehen hiru ahapaldiak indar handikoak dira, dudarik gabe. Lehen hiru ahapaldiek balada eite handia dute. Balada eitea bere estiloan eta bere teknikan. Balada arruntetan, esaterako, ez dugu inoiz bihurkiaren erabilera ikusi. Balada arruntetan, era berean, ez dator inoiz kopla zaharren teknikaren erabilerarik. Eredu honetako bigarren ahapaldian, ordea, bihurki bat ikusten dugu: *nik aguardienta galdatu/ nik aguardienta galdatu eta*. Eredu honetako hirugarren ahapaldian bada segmentu bat bestetan ere ikusiko dena: *Jaulierrak ederki nola mintza baitaki* esaldia beste kantore edo baladatzako famatu batean ere agertzen da. *Eskoliersa gaztearen* laugarren ahapaldian:

Errient horrec ederqui nola mintçatcen baitaqui.
Jaun barberari galdeguin dio eri othe den borthisqui
Jaun barberari galdeguin dio eri othe den borthisqui
Hilcera utzi gabetaric behar guiçaizco jarraiqui.

Kantu batetik besterako kontaminazioak edo lerratzeak era baterakoak baino gehiagokoak dira. Ahapaldi osoak dira, kasu gehienetan, baina era honetako esaldi edo segmentu aldaketak ere badira.



Hegabürü Eskiula Argentinako kaiera.

10. AHAPALDIZ AHAPALDIKAKO IRUZKINA

Puntu honetan ahapaldiz ahapaldi iruzkinduko dugu Jean Fourcaderen kaierean datorren eredua. Gure iruzkinak alde bi besarkatuko ditu hizkuntzaren alderdia, testuak berak sortzen dituen problemak, eta esanguraren alderdia. Ez dago dudarik bi alderdi hauek guztiz aberatsak direla eta iruzkin bat merezi dutela.

1

Adios donioane
Izpura eta Uharte
Zuek hiruek har ezazue
Othoy nitaz pietate
Sakelan sosik ez dut eta
Goserik baineramate

Lehen ahapaldi hau ez dator aurreko beste eredu bietan. Lehen ahapaldi hau jatorrizko kantuarena izan daiteke. Indartsua da atxilo daramatenak egiten duen agurra. Harrigarria da, era berean, hiru herriri eskatzen diela erruki hartzea: Izpura, Uharte eta Donione herriei. Hiru herri hauek Nafarroa Beherekoak ditugu. Uharte, Donibane Garazitik hurbil dugu. Izpura ere ez dago urruti Uharte eta Donibane Garazitik. Hiru herriei *zuek* batez zuzentzea ez da harriagarria?

2

Ilhuna ere hurandu
Nik aguardienta galdatu
Aguardienta galdatu eta
Jaulierra botatu
Arte hartan haurño batek
Bortha zeraundan zerratu

Bigarren ahapaldi hau ere ez dator aurreko beste bi ereduetan. Ahapaldirik harrigarrienetakoa da, bestalde. *Iluna hur[r]andu* esapideak "gaua hurbildu" esan nahi du. Ahapaldi honetan adierazten denez, kantuko protagonista lapurra ez ezik, hordia ere bada. Kartzelan preso dagoenak aguardienta eskatzen dio kartzela-zainari. Ez dio, esaterako, ura eskatzen. Kartzela-zainak aguardienta eman beharrean bota egiten dio, destainaz, itxura guztiak direnez. Hala ere, ez al da konturik harrigarriena ume batek kartzela-atea ixtea? Zertara dator *arte artan* (hots, bien bitartean) *haurño batek bortha zeraundan zerratu*?

Era honetako esaldiak, dudarik gabe, indar berezia, enkantua eta misterioa ematen diote testuari.

3

Jaulierrak ederki
Nola mintza baitaki
Nazioneko ogi hortarik
Ellande yazak gogotik
Hik egiten tukan gastuak
Erregek pagaturen tik.

Ahapaldi honetan kartzelazainak edo jaulierrak (frantsesez *geôlier*) bortizki hitz egiten dio presoari. Bortizki hitz egiten dio eta nola egingo dio hika ez bada? Harrigarriak dira kontu horretan esaldi guztiak *Nazioneko ogi hortarik, Ellande, jazak gogotik* eta *hik egiten tukan gastuak Erregek pagaturen tik*. Interesgarria da *tuk* adizkiak "dituk" esan nahi duela eta *tik* horrek "ditik", hots, "ditu" forma ez markatua.

Presoaren izena ere argi ematen digu: Ellande. Ahapaldi hau transkribitzean duda bat edo beste erne zaigu burura. Zer da "razioneko ogia" edo "nazioneko ogia". Bistan da eskuidatzian *Nazioneko ogi hortarik* dakarrela, baina bi modutara uler daiteke. Ogia asko ez dela adierazteko razioneari dagokiona izan daiteke; baina Errege hitza geroago aipatzen duenez "nazioneko" ere izan ahal da.

4

Barkocheko bidian
Begiak nitian lurrian
Interrogatu ninditean
Hango portian
Heya zer ebatsi nian
Ilharrian.

Ahapaldi hau bestetan ere badugu. Preso bati egindako galdeketa dugu. Hikako formak ikusten ditugu. Aditz formarik harrigarrienetakoa *ninditean* dugu. *Hango portian* hori *hango kortian* izan behar du.

5

Zazpi unga ogi arkhatik
Astoa ezkaratzetik
Lau chabon selarutik
Maluruski
Ene fortuna bethi
Gibeletik.

Lapurretan egindako gauzen zerrenda harrigarria. *Unga* delakoa laborearen neurri bat dugu. Ungak berrogeita sei litro labore du. *Ogia* gure testuan "garia" dugu. Zazpi unga ostu baditu hirurehun eta hogeita bi litro gari ostu dituela esan nahi du. Gallopen testuan ere neurri bera zen zuberotarrez emana: zazpi unka. Zuberoako testuan astoa establetik osten zuela zioen, gure honetan ezkaratzetik.

Halako indar kolpe harrigarria du *Maluruski ene fortuna bethi gibeletik* esaldiak.

6

Erhuak burua bero du
Pauerat joan behar
Omen du
Justiziako yaunak oro
Hire aiduru
Justu duk justu puni hadi
Hoben baduk

Azken ikaragarria. Harrigarriak egiten zaizkit kanta honetako hainbat esaldi. *Erhuak burua bero du*, esaterako. Esaldi horren aliterazioa eta indarra apartekoak dira. Esaldi hau ez da bestetan ikusten, nahiz eta ahapaldi hau neurri handi batean goragoko ereduetan ere ikusi dugun.

11. HIRUGARREN EREDUA ORTOGRAFIA GAURKOTURIK

Gaur eguneko ortografiara ekarriko dugu Jean Fourcaderen kaiereko testua. Ahapaldi bakoitza sei lerrotan tolestu beharrean hirutan egingo dugu. Hona hemen testua:

1

Adios Donioane, Izpura eta Uharte.
Zuek hiruek har ezazue, othoi, nitaz pietate,
sakelan sosik ez dut eta goserik baineramate.

2

Ilhuna ere hu[r]randu, nik aguardienta galdatu,
aguardienta galdatu eta jaulierra[k] botatu,
arte hartan haurño batek bortha zeraundan zerratu.

3

Jaulierrak ederki, nola mintza baitaki:
–Nazioneko ogi hortarik, Ellande, ya[n] zak gogotik,
hik egiten tukan gastuak Erregek pagaturen tik.

4

Barkoxeko bidian begiak nitian lurrian
interrogatu ninditean hango kortian
“heia zer ebatsi nian Ilharrian”.

5

–Zazpi unga ogi arkhatik, astoa ezkaratzetik,
lau xabon selarutik, maleruski
ene fortuna bethi gibeletik.

6

Erhuak burua bero du, Pauerat yoan behar omen du
justiziako jaunak oro hire aiduru.
Justu duk, justu puni hadi! hoben baduk.

12. *HEGABÜRÜ ESKIULA* ETA *HEGABÜRÜ LIGINAGA*

Orain arteko hiru ereduak Hegabürü Eskiula dute protagonista. *Hegabürü* deitura dugu eta Eskiula Zuberoako herrixka bat Barkoxetik hurbil dagoena. Badirudi, beraz, Hegaburu edo Hegabürü kantuko protagonista Eskiulakoa zela. Puntu honetara Eskiulako Martin Urrutigoityren eredu bat ekarriko digu. Eredu hori Hegabürü Liginagari dagokiona da.

Martin Urrutigoity Eskiulako errienta edo herriko maisua izan zen eta haren kaieretan Hegoburu Eskiula kantua biltzeko asmoa eta esperantza izan dugu. Ez dugu delako kantua bildu baina Hegabürü Liginaga protagonista duen bat bai. Hona hemen:

1

Barcoiztarrac houna gira saldo eder bat beikira
Kharricart Atheregicuaren khantoriac berri berria
Gazteriac detzagun khanta ontsa dolorus beikira

2

Kharricart Athereguico mundu oroc hiri diro
Gizon galant bat dihuru hic diala erho
Jakile franco baduc eta hambat sordeis hiretaco

3

Jelkhiadi Carricart Carricart behar duc Pauberat
Heben badiaude prestic hire lagunzaliac
Han confirmatu behar umen dic heben eman sententziac.

4

Jeiki adi Carricart zamaria hau diala
Ni beno gaiskiago ezpahintze hanco jaun jujic trata
Jun beno alegaragorik utzul heinte Atharratzera

5

Paubera heldu nintzanian jaunak banian zer egin
Hanco palaziuan jaun haien aitzinin
Bihotza harrituric nin zer erran ezpenakin.

6

Jaun jujic eztic ogenic hire arresta emanic
Izigarri duc accionia odol hotzin eguinic
Bilhuac chuti erazten tic solanente entzunic.

7

Jaunac huna niz orano Pauberic Atharratzera
Archel saldo handi bat eta beste hainich compala
Haien bena lotzago beniz horra beita burrerua.

8

Hegoburu Eskiula makhila khalduz hil izan da
Errekia bat eman nahi derot adiskide bezala
Erhailiaren eta haren enzule oroc bezala.

9

Lau membriac hautsiric errotaren gainetic
Saihetsilat so egin zian bazianez adiskideric
Haren zorthe tristiac eztu ukhen orano pareric.

- 2 - Carricart 2 ta - 6

— 1 —

Barcoiztarrac houna gira saldo-ederbat beitira
Kharricart Atheregiraen Khantoriac berri berria
Jarleriac detrayun Khanta dutsa dolorus beitira.

— 2 —

Carricart Atheregico mundu oroc hire daro
Gizon galant bat dihuru hic diala erho
Jaukle franco baduc eta hambat tordeio hiretaco

— 3 —

Jeiki adi Carricart juan behar dut Paubera
Heben badiaude prestic hire Lagunaliac
Han confirmatu behar umendi heben eman sententziac

— 4 —

Jeiki adi Carricart Lamaric handiala
Nic beho gaiskiago ezpatintze hanco jaun jujee bata
Jun beno. alayerayoric ustul heinte Atharatzera

— 5 —

Paubera heldi nintzanian jaun ac banian zer egin
Banco galarriuan jaun haien aitzinn
Bihotza harrituric nin zer erran ere ezpenakin



— 6 —

Jaun jujic ariçe ogenic hire arresta emanic
Liçarri duc acziona nor hotzin eginic
Bilhuac chutierazentic solamente entzutic.

— 7 —

Jaunac hunia nic eranc Pauberic Atharratzera
Aichel saldo handi bat eta beste hanitch compañia
Hain bena lotzago beniz horra beita turrerua.

— 8 —

Hegoburu Liginaga matkila Kholdur hil iran da
Errekia bat eran na hiderot adistide berala
Erhailiaren eta haren enzule oroc bedera.

— 9 —

Lau membriac hautsiric errotaren gainetic
Laiketsilat so egin zian bazianez adistideric
Haren sorthe hirihac eatu ezthen orane parericc.

3. — Doñostiaco hirour damatcho.

Donostiaco hirur damatcho Enciuterian dendari
Jostenere badakite bainan annu edaten hobeki
Eta flachkoki flachkoki arrosa claberi
Annu edaten hobeki

Refrain- Tira! tira! tira garroitza
Phunta zorroitza
Arrapatzen beritut (bis)
Bertan (bis) hilco zautut.

Hegabürü Liginaga. Urrutigoity.

13. *HEGABÜRÜ LIGINAGA* PIERRE LHANDEREN ESKUIZKRIBUAN

Azken puntu honetan Hegabürü Liginagaren kantu beraren beste eredu bat eskainiko dugu. Eredu hori Baionako Erakustokiko MS/157 eskuizkribuan dator transkribaturik. Hegabürü Liginaga kantuan ere gertaera beltzak adierazten dira. Lhanderen testua ezin da ondo interpretatu. Kortxete artean dagoena, zenbaitetan asmatuko ez bada ere, kantuaren hurbilpen saio baterako gure interpretazioa da.

1
Barkochtarrak [h....] gira saldo handibat begira
Kharrikarten khantoriak hounturik [bei...]
Ditzagun [arien] orok khanta zeren dolorus beitira

2
Carricarte Athereiko mundu orok [hire] dio
Gizon galant baten diharuen t[ruku] hik diala erho
Badukek bai jakile franko sembait sen[di] hiretako

3
Hegaburu L[iginaga] makhila kolpuz il izan da
E[spetsia] [bat] erran dio adiskide ezala
Hilaren eta erailian, e[ntzule] orok bedera

4
Goiheneix [goitik] Karrikar[ti]: aski dik aski ingoiti
Ez ez oraino ez tik aski bizia dik hoŕen gati
Nahi [deroat] orano mihia mouztu ondoti

5
– – – ezkapi Karrikart aldiz atrapi
atzaman eta mementian p[resuntegi]
Lau ilhabethez eduki eta gero Pauerat igorri.

6
Ni Pauerat jouaiteko jauna badut lagun franko
Ez [nez]aiziela gaizki trata bidiana iragaiteko
Nik [merechia] ukhenagatik othoizten zutiet oro.

7
Ni [...] nintzanian jaunak banin zer egin
Hanko juje abokatu pr[adunten] aitzinian
Hambat nintzan lotsaturik ezpeinakian zer egin

8
[—-] Pauerik Atharratzera jaunak h[oura] niz [arzana]
Hamabi archel ar onaturik ori ene laguntzale
Haien beno lotsago beniz jaun lourien houno besta

9
Potentzia potentzia Kharrikart ukhak pazientzia
Gaur hountek mundiak erranen diagu hiretako errukia
Amorekatik hik ukhen dezan beste mundian bakia/phausia

Karrikarte aurait été exécuté sur la place d'Atherey. A son exécution 60 fem. auraient avorté de terreur. Mères obligées d'y assister et souffleter enfants pour que s'en souviennent.

On décida que plus jamais n'y aurait d'exécutions en pays basque à cause de l'émotion odola borthitzegi zelakoz

(Etchahoun de Trois Villes vers.)

Karrikarte emporta longue dans sa poche et souper chez Tootouan, seul la langue: Jinkoua! oiĺar hoŕek eztik haboro khantatuko. Servante épouvantée, s'attarde aux gascons qui font appeler gendarmes. S'échappe par la fénêtre à Ochagavia. Colation dans une venta eta odola gatzaturik de ses émotions dans m[ême] v[enta] le lendemain.



Pharadusuko borthak zabalturik izanen dia!

Barkochtarrak h gira saldo handibat begira
Kharrikarten khantoriak hounturik bei
Ditzagun arien orok khanta zeren dolorus beitira

Carricarte Athereiko mundu orok hire dio
Gizon galant baten diharuen truku hik diala erho
Badukek bai jakile franko sembait sendi hiretako

Hegaburu Liginaga makhila kolpuz hil izan da
Espetsia bat erran dio hiradiskide ezala
Hilaren eta eraihan, entzule orok, bedera

Gorheneix gorik Karrikarti: aski dik aski ingoiti
Ez ez oraino ez tik aski bazia dik horen gati
Nahi dezoat orano mihia mouztu ondoti

— — ezkapi Karrikart aldiz atrapi
atzaman eta mementian presuntegi
Lau hilabethez eduki eta gero Pauerat igorri

Ni Pauerat jouaiteko jauna badut lagun franko
Ez nezaizela gaizki trata bidiana igaraiteko
Nik merechia ukhenagatik othoizten zutiet oro



Ni — nintzanian jaunak banin zer egin
Hanko juge abokatu praduntен aitzinian
Hambat nintzan lotsaturik ezpeinekian zer egin

— Pauerik Atharratzera jaunak houra niz arzana
Hamabi archel ar onaturik oro ene laguntzale
Haien beno lotsago beniz jaun lourien houno besta

Potentzia potentzia Kharrikart ukhak pazientzia
Gaur hounteki mundiak erranen diagu hiretako errukia
Amorekatik hik ukhen dezan beste mundian bakia

Karricarte aurait été exécuté sur la place d'Atherey.
A son exécution 60 fem. auraient avorté de terreur.
Mères obligées d'y assister et souffleter enfants pour
que s'en souviennent.
On décida que plus jamais n'y aurait d'exécutions
en pays basque à cause de l'émotion odola borthi-
tzegi zelakoz
(Etchahoun de Trois Villes vers

Karrikarte emporta longue dans sa poche et souper
chez Tootouan, seul la langue: Jinkoua! oilar hoŕek
eztik haboro khantatuko). Servante épouvantée,
s'attarde aux gascons qui font appeler gendarmes.
S'échappe par la fénêtre à Ochagavia. Colation
dans une venta eta odola gatzaturik de ses émotions
mourut dans m[ême] venta le lendemain.

zahar:

(27) Abissu eman nahi dit moutil gaztieri

Hegabürü Liginaga.

11
ONTZIAK EDER DU BELA EDO *ITSASU ELIZALDEKO* BALADA

1. SARRERA

Gure lanean atal berezi bat eskainiko diogu *Ontziak eder du bela* edo *Itsasu Elizaldeko* baladari. Euskal baladarik ederrenetan ederrenetako bat da Itsasuko Elizaldekoa. Balada honek gertaera historikoak kontatzen ditu. *Urtsuako balada*, *Bereterretxeren kantorea* edo *Emilia Lasturko eresia* bezala, leku zehatz bati lotuta dugu gure kantu narratiboa. Balada honen berririk ez geneukan harik eta Antonio Zabalak bere baladategian bi eredu eskaini arte. Zavalaren bilduma baino lehenagoko euskal balada bildumetan ez dugu eredu honen arrastorik ere aurkitzen. Ez du aipatzen, beraz, ez Azkuek, ez Juan Karlos Gerrak, ez Mugikak, ez Euskal Baladak lan taldekoek. Balada honen lehen ereduak, beraz, Antonio Zavalak sartu zituen bere kantutegian lehen aldiz (113-116 or.); sailkatu gainera, (balada) historikoen sailean, erdaraz ematera, "Romances históricos" atalean. Baladaren izenburua, guk ez bezala, bere irizpideari jarraikiz, lehen esaldiak ematen du: *Hala bada etxe noblia*... Balada gai berri bat denez gero *ballad-type* berri bat dugu, aparteko enkantuak eta pamerialak dituena, gure ustez.

Hemeretzigarren mende bukaeran edo hogeigarreneko hasieran ahapaldi bakarra bildu zuen Azkuek, baina ez zuen bere kantutegian sartu. Hogeigarren menderako *Ontziak eder du bela* baladaren transmisioa etenda bide zegoen. Antonio Zavalak bi eredu aurkitu zituen, bata *Cuaderno de Argentina* bezala ezagutzen den aita Donostiaren Kanboko kaier batean, eta, bestea, Dassanceren paperetan. Guk beste eredu biren berri eman genuen "*Ontziak eder du bela* edo *Itsasu Elizaldeko* balada"[1]. Balada honen lau eredu osoenak, beraz, XIX. mendeko kantu-kaier idatzietatik ateratakoak edo transkribatutakoak dira. Zuberoako *Brodatzen ari nintzen* baladako lau ereduak bezala, kaier idatzietatik transkribatuak dira.

Balada honek Lapurdiko Itsasu herriko Elizalde etxe nobleko jaun premu edo maiorazko bat du protagonista. Baladan kontatzen diren gertaeren aztarrena edo hari nagusia, kasurik onenean, atera liteke historia-gertaerak aztertuz. Balada honi eskainiko diogun kapitulu honetan ezagutzen ditugun eredu guztiak ekarriko ditugu. Eredu guztietan jatorrizko eskuidatzia edo lehen dokumentua zein lehen transkripzioa eskainiko ditugu.

2. *ITSASU ELIZALDEKO* BALADAREN ARGUDIOA

Mulineneko jauna kontrabandoa egiten harrapatu eta preso hartu zuten. Mulineneko premu jauna

[1] *Idatz & Mintz* , 45 zenbakia, 2008, 26-36 or.

Itsasuko Elizaldeko etxe noblera ezkontzekoa zen, eta behin ezkonduz gero Elizaldeko andregai aberatsarekin, aberats handi egiteko modua zuen. Baina kontrabandoan harrapatuz gero, preso hartu dute eta galdu du libertatea. Ez dago, gainera, diru-sari nahikorik, ez eta Elizaldeko etxea diruz beterik ere, Mulineneko jaunaren libertatea erosteko. Horrelaxe laburbilduko genuke baladaren hari nagusia.

Hona hobekiago ulertzeko A. Zavalaren azalpena:

> Leenengo bertsoak dionez, kontrabandoan arrapatuta galdu du Mulineneko primu delako orrek bere libertatea. Seigarrenean, berriz, anperadoria aitatzen da. Napoleon aundia izango ote da? Bigarrenean, berriz, Anglaterre irakurtzen da. Ara eramango ote duten bildur da Mulineneko premu ori. Itxas-armadara kondenatua, alegia. Bolara batean Inglaterrari erasoko ote zion asmoak erabili zituan, izan ere, Napoleonek.
>
> Onen garaikoa izango ote da, beraz, kanta au? Ditekena da. Baiña, ala balitz, beste ondoren bat ere atera bearko genduke: erromantze edo baladen garaia guk uste baiño beranduago itzali zala; kanta auek egiteari etziola gure erriak ain aspaldi utzi; erromantzeak eta bertsolaritza alkarrekin bizi izan zirala bolara batean.
>
> Kanta onek kontatzen digun gertaera Napoleonen denborakoa balitz, agiri edo paperen bate egongo da bearbada artxiboren batean, Baionan edo Paben edo beste nunbait. Agertuko balitz, garrantzi aundikoa litzake guretzat, bai gertatua argitzeko eta bai gure susmo oiek egiazkoak diran erabakitzeko.
>
> Seigarren bertsoak badu beste txeetasun jakingarri bat: andregaia enperadorearen mintzatzera ere joango litzakela, frantzesa baleki.

Pasarte honetako uste bat segurtatuko da guk eskeintzen ditugun bi ereduetariko lehenean. Gure balada honek berrehun urte pasaxeak izango ditu seguru asko –XVIII. mende bukaerakoa edo XIX. mende hasierakoa–, baladak amodiozkoa kantuaren klitxe bera erakutsiko baitigu: *Kantoreñoak berririk, apirilean emanik*...

Baladaren hari nagusiari begira, eredu guztietako ahapaldiak aztertuz gero, zehaztasun gehiagoren jabe egin gaitezke. Zeren kontrabandoa egin ote zuen Mulinek? Baliteke armadarako kartuxak izatea kontrabandoko gaia. Baliteke gerra garaian, Mulineneko premua Ingalaterra eta Frantziako gerratean, kartuxa-kontrabandoan ibiltzea. Mulineneko premua, beste alde batetik, herriren bateko pikotan jendearen eskarmentagarri eduki bide zuten A. Zabalaren bigarren ereduko hirugarren aipamenean datorrenez: *3-Kontrabandaren borthitza,/ partikulazki kartuxa!/ Harrapatu ez balute/ Mulin premu[a]ren urusa!/ Etzioten, ez, haur guziek/ hunkituko kokotsa!*. Zergatik ukitzen diote haur guztiek kokotsa Mulini? Baliteke, herri osoaren eskarmentagarri, herriko pikotan belauniko lotua izatea zenbait egunez Mulin jauna. Era horretara, haurrak hurbildu eta kokotsa ukituko zioten…

Mulin Larresoron arrastatu zutela agertzen da eredu bitan. Zer dago Larresoro hitz horren azpian? Ez ote da La Rochelle hitzaren euskal forma? Kontrabandoa itsasoz egiten bide zuen Mulineneko premuak eta Uztaritze ondoko Larresoro herriak ez digu argirik ematen.

3. A EREDUA, AZKUEREN PAPERETAKOA

Azkuek ez zuen argitara eman eredu hau. ABA-RMA-001-001-004-274 zenbakian azaltzen da. Ahapaldi bakarra izan arren guretzat arraz interesgarria da. Kanta osoaren lehen ahapaldi bat behintzat ahozko transmisioan ailegatu zela frogatzen baitu. Lehen ahapaldi hau zergatik ez zuen argitara eman Lekeitioko folklorista handiak?

> Untziak eder du bela, zaldiak ere bai zela
> Mulin premu ibiliko zen kabalier bat bezela
> Portemantuan izkiriaturik Elizaldeko jaun zela.

Azkuek bildu zuen lehen ahapaldi honen berdina hurrengo puntuetako ereduetan aurkituko dugu.



ABA-RMA-001-0001-004-274

4. B EREDUA SALABERRIREN PAPERETAKOA

Atal honetan Salaberrik bere kaieretan zuen eta argitaratu ez zuen kantu bat transkribatuko dugu. Kontu jakina denez, lehen argitalpena Antonio Zavalaren *Euskal erromantzeak/Romancero vasco* liburukoa da. Antonio Zavalak, ordea, ez zuen jatorrizko iturritik, hots, Salaberriren kaieretik kopiatu, Louis Dassanceren kopia batetik baino.

Guk atal honetan jarriko dugun eredua lehen dokumentuari dagokio eta Dassancek egin zuen dokumentu honen transkripzioa hurrengo puntuan transkribatuko dugu. Ez dago batetik bestera aldaketa nabarmenik, baina lehen dokumentua denez gero, azterketa zehatz baterako beharrezkoa da jatorrizkoa tiletez tilet jartzea.

Atal honetan transkribatuko ditugun zortzi ahapaldiak Salaberriren kaier bateko lehen kantukoak dira. Kaiereko lehen kantua izateak halako gora edo garrantzia ez ote dio ematen kantuari? Uste dugu transkribatzaileak kantuaren gaintasun eta bikaintasuna kontuan izanik kaiereko lehen lerroa eman nahi izan ziola.

Kantuaren transkripzio erari gagozkiola, ohartu behar dugu lehen ahapaldia bakarrik dagoela zenbakiturik. Gainerako ahapaldiek, ostera, ez daramate zenbakirik. Eredu hori kaier bereko gainerako kantuek ere jarraitzen dute. Lehen ahapaldiaren buruan *Premier couplet* dator eta gainerakoetan, beraz, ez dator inolako zenbakirik. Ahapalditik ahapaldira marra luze xamar bat idazten du transkribatzaileak. Kantaren zortzigarren ahapaldiaren ondoren *fini* jartzen du. Hitz honen azpian *Ourzo chouriaren aïrian* zehaztasuna dakar. Guztiz interesgarria da jakitea kantua bere osotasunean transkribatua dagoela. Kaiereko lehen kantua izateak badu beste alderdi interesgarri bat, kantuaren letra hobexeagoa edo garbixeagoa da gainerako kantuetan baino.

Gure kantua datzan kaierak ez du estalkirik edo izan duen estalkia galdua du. Estalkirik ez izatean lehen orria bihurtzen da estalki eta, era horretara, kantua desitxuratzeko arriskua dauka. Kantua ondo zaindu den arren azken hiru ahapaldietako orria eskuinaldean deseginxea dago. Louis Dassanceren

inventariumaren arabera, gure kaierak zortzigarren zenbakia darama. Hona Dassanceren deskribapena (Dassance: 1971):

> 8.–Cahier, sans couverture, contenant 29 chansons: La première débute ainsi: *Itsasu Elizaldeko etche noblia*. (Lecture difficile.)

Hona hemen, beraz,Salaberriren lehen dokumentuko gure transkripzioa:

Halabada étché Noblia, itchasou ellissaldia
Hango Jaoun éguin béhara sinin, moulinéneco primu
Contrebandan galdou issan espassindou (çouc çoure libertatia)

Malouric aski badout nic, néoure bouriari émanic
Libertatia galdout[2] éta issaiteco es moyenic
Anglataré iccoussi behardout, (itchasouetan youanic) bis

éllissaldeco andregeyac yakin douenian berria
ichasouetan youan bearséla, Moulinénéco primouya
diroutan galdatou issan dou[3] (yaoun haren libertatia) bis

issandou arapostia, baïnan es anhits estia
issanic éré ourhes bethia, ellissaldeco etchia
étsouyela harec es issanen, (yaoun haren libertatia) bis

Ellissaldeco andregueyac, issandouenian arapostia
Sortsi gaou égounes égon oumen da[4], ohian, éri yarria
Beldourez[5] eta étsiyen issanen (Jaoun haren libertatia) bis

Baratsian éder arosa, haren[6] balaki frantsésa
Anpéradoriaren mintsatseco bérac balouké irisa
Bayonako hirian eros baïlesake (harat youateco carosa[7]) bis

Cartouchac éder saïcouyan, beren balac barnia[n][8]
éssagoutou issan es palacoté larréssoroco portouyan
Moulin bessaïn guisson ourosic (etsen issan[9] frantsían) bis

Ountsiac éderdic bélla, çaldiac éré baï séla
Moulin primou ibili behartsen, cabalierbat beçala
portemantouan iscri batouric (éllissaldeco yaoun séla)

---

[2] Halaxe idazten du transkribatzaileak, inolako dudarik gabe.

[3] Badirudi adizki hau ahantzi egin zaiola transkribatzaileari eta gero letra txikiagoz hasi da idazten. Adizki hau idazteko, beraz, leku faltaz parentesi barruan ere idaztera behartu du transkribatzailea.

[4] Dudarik gabe *da* agertzen da jatorrizkoan. Zalantzan jartzekoa da *da* adizkia *oumen* horri itsatsia edo bereiz dagoen.

[5] Hemen, inolako dudarik gabe *Beldoures* dio jatorrizko eskuidatzian.

[6] Halaxe da inolako dudarik gabe. Ez du jartzen beraz, askok zentzuz uste luketen bezala, *harec*.

[7] Hitzik ilunenetarikoa da inolako dudarik gabe. Cena dela carosa iracurtzen dut c– batez hasten da ene ustez.

[8] Ez da azken –n ikusten dokumentuan. Orria bukatzen delako?

[9] Nola jartzen du, *issan* edo *issen*? Nahiz eta harrigarria gertatu bigarrena errazago ikusten da lehena baino.



Ontziak eder du bela balada. Salaberriren kaierekoa.

5. B EREDUAREN L. DASSANCEK EGINDAKO TRANSKRIPZIOA

Orain artean bezala L. Dassanceren eskuidatzia transkribatuko dugu, ispilu fidel bat bezala, dituen xehetasun eta ñabardura guztiekin. Ohartzekoa da Dassancek letra argi xamarra duela eta eskuizkribu honen transkripzioa egiteak ez dakarrrela arazorik. Ez dugu ahaztu behar Dassanceren eskuizkribua bigarren dokumentua dela, Salaberriren lehen dokumentu edo originalaren kopia.

1

Halabada étché Noblia, itchasou ellissaldia
Hango Jaoun éguin béhara sinin, moulinéneco primu
Contrebandan galdou issan espassindou (çouc çoure libertatia)

2

Malouric aski badout nic, néoure bouriari émanic
Libertatia galdout éta issaiteco es moyenic
Anglataré iccoussi behardout (itchasouetan youanic) bis

3

Ellissaldeco andregeyac yakin douenian berria
Ichasouetan youan bearséla, Moulinénéco primouya
Diroutan galdatou issan dou (yaoun haren libertatia) bis

4

issandou arapostia, bainan es anhits estia
issanic éré ourhes bethia, ellissaldeco etchia
etsouyela harec es issanen (yaoun haren libertatia) bis

5

Ellissaldeco andregueyac issandouenian arapostia
Sortsi gaou égounes égon oumendou, ohian, éri yarria
Beldourez eta etsiyen issanen (Jaoun haren libertatia) bis

6

Baratsian éder arosa, haren balaki frantsesa
Anperadoriaren mintsatseco bérac balouké irisa
Bayonaco hirian eros baïlesake (harat youateco errosa) bis

7

Cartouchac éder saïcouyan, beren balac barnia
Essagoutou issan ez palacote larréssoroco portouyan
Moulin bessaïn guisson ourosic (etsen issan frantsían) bis

8

Ountsiac éderdic bélla, saldiac éré bai séla
Moulin primou ibili behartsen, cabalierbat beçala
Portemantouan iscri batourik (ellissaldeco yaoun sela)

Ourzo chouriaren airian



Halabada étché Nollia, itchasou ellissaldia
Hango Jaoun éguin béhara sinin, moulinéneco primbe
Contrebandan galdou issan espassindou (gorçaun libertatia) bi

Malouric asti badout nic, néouré bouriari émanic
Libertatia galdout éta issaiteco es moyenic
Anglatarré iccoussi behardout (itchasouetan youanic) bi

Ellisseldeco andregeyac yakin douenian berria
itchasouetan youan behar séla, Moulinéneco primouya
dirontan galdatou issan dde (yaoun haren libertatia) bi

issandou arapostia, bainan es anhitz estia
Issanic éré ourhes bethia, ellissaldeco etchia
etsouyela harec es issanen (yaoun haren libertatia) bi

Ellissaldeco andregueyac issandouenian arapostia
Sortzi gaou égaunes égon oumendou, ohian, éri yarria
Beldouroz eta etsiyen issanen (Jaoun haren libertatia) bi

Baratsian éder arosa, haren balaki frantsesa
Anperadoriaren miatsatseco bérac balouké iriza
Bayonako hirian eros baitesaké (harat youateco errosa) bi

Cartouchac éder saicouyan, beren balac barnian
essagoutou issan es palacaté harrissoroco portouyan
Moulin bessain guissan ourotic (etsen issan frantsian) bi

ountziac éderdic béla, galdiac éré bai séla
Moulin primou ibili behartsen, cabalierbat beçala
portemantouan iseri batouric (ellisseldeco yaoun séla) bi

Ourzo chouriaren airian

Ontziak eder du bela balada. Dassanceren kaierekoa.

6. B EREDUAREN TRANSKRIPZIOEN IRUZKINA

Hona ahapaldiz ahapaldi Salaberriren ereduaren iruzkina.

1

Halabada étché Noblia, itchasou ellissaldia
Hango Jaoun éguin béhara sinin, moulinéneco primu
Contrebandan galdou issan espassindou (çouc çoure libertatia)

Poetak edo narratzaileak hitz egiten dio Mulineneko premuari eta Itsasu Elizaldeko andrearekin ezkondu balitz, etxe on baten jabe egingo zela diotso. Badirudi lehen ahapaldi hau baladaren lehena izan litekeela, hitz oso gutxitan gertaeraren hor-hemenak zehazki laburbiltzen dituelako.

Transkripzioari dagokionez, hona geure zalantzak eta erabakiak. Bi aukera hauetatik *Itsason Elizaldia/ Itsasu Elizaldia,* zein da? Guk bigarrena ikusten dugu argi eta garbi trankribatzaileak ene kontsonanteak eta u bokalak transkribatzeko modu argiagatik. Zer da bigarrenik, *Mulieneko/Mulineneko* aukera bietan jatorrizkoa. Hemen ere, inolako dudarik gabe, bigarrena dugu. Transkribatzaileak, bestalde, lehen idazkeran *prima* idatzi du, baina azkena –a horren gainean –u jarri du. Guk, A. Zavalak bezalaxe, bigarren transkripzioan, gerora agertzen den *primuya* hitzaren aldekoak gara.

2

Malouric aski badout nic, néoure bouriari émanic
Libertatia galdout éta issaiteco es moyenic
Anglataré iccoussi behardout (itchasouetan youanic) bis

Lehen pertsonan Mulineneko premuaren esana dugu bigarren ahapaldi hau. Ahapaldi honetan badugu zalantza bat edo beste. Ez dago dudarik *Libertatia galdout éta* jartzen duenik transkribatzaileak, baina guk nola ulertu behar dugu? Bi aukera hauetatik *gal dut eta/ galdu eta* zeini hobetsi? Bigarrena askoz hobea dela deritzagu.

Bihurkariei gagozkiela, lehen ahapaldian *zuk zure* ikusten dugu, bigarrenean, ordea, *neure buriari*. Lehena, beraz hortatik, ez ote genuke *zuk z[e]ure libertatia* eman behar? Aditzei gagozkiela, nola transkribatu *iccoussi* delakoa *ikusi* edo *ikhusi*?

3

Ellissaldeco andregeyac yakin douenian berria
Ichasouetan youan bearséla, Moulinénéco primouya
Diroutan galdatou issan dou (yaoun haren libertatia) bis

Lehen ahapaldian bezalaxe, hemen ere *Mulineneko* garbiro ikusten da. Esan dezagun, bestalde, *premu* hitzak artikuluarekin *primuya* ematen duela lehen transkripzioan. Ez dago dudarik, bestalde, *dirutan* mugagabean transkribatu behar dugula *Diroutan* delakoa. Ohargarria da, hala ere, *diruetan*, hots, pluralean ere izan daitekeela testu zaharretan. Ikus bedi, nahi izatera, *Ana Juanixe* baladaren Lumoko aldaera.

Ahapaldi honetako konturik ohargarriena adizki batek hartuko luke. Lehen idazkeran *diroutan galdatou issan da* jarri du transkribatzaileak, eta gero *da* horren bokalaren gainean –u.

4

issandou arapostia, bainan es anhits estia
issanic éré ourhes bethia, ellissaldeco etchia
etsouyela harec es issanen (yaoun haren libertatia) bis

Ahapaldi honetan ez dugu inolako zalantzarik izan. Ahapaldi indartsua dugu, benetan. Transkripzioari gagozkiola, jatorrizko aspirazioak ere ekarri ditugu, inolako zalantzarik gabe, bi transkripzioetan. Era horretara, *anhitz/ bethia/ urhez* eman ditugu bigarren transkripzioan. Hala egin ez bagenu, hizkuntzalari ohartu bat zoratuko litzateke testu ezinezko baten aurrean…

5

Ellissaldeco andregueyac issandouenian arapostia
Sortsi gaou égounes égon oumendou, ohian, éri yarria
Beldourez eta etsiyen issanen (Jaoun haren libertatia) bis

Ahapaldi honetan kontu batzuk argi ditugu *umen* transkribatu behar da eta ez *omen*, *beldur[r]ez* eta ez *bildur[re]z*. Zerbait aldatzekotan transkribatzailearen hutsa edo erratua delako, *égon oumendou* jatorrizkoa "egon umen da" egin beharko litzateke, nahiz azken *dou* hori "du" den.

Lehen transkripzioari gagozkiola, lehen idazketan *sortsi gaou egon* idatzi du traskribatzaileak eta gero azken *egon* horen gainean "égounes"…

6

Baratsian éder arosa, haren balaki frantsesa
Anperadoriaren mintsatseco bérac balouké irisa
Bayonaco hirian eros baïlesake (harat youateco errosa) bis

Kopla zaharreko teknikadun lehen ahapaldia, hurrengo biak ere halakoxeak izango dira. Hemen dena dago argi xamar. Ohargarria da *arrosa/herexa* hitzak kopla zaharretako irudian agertzen badira, ondorioan *karrosa* agertzen dela. Horrexegatik interpretatu dugu azken hitz bezala *karrosa*. Diogunaren indargarri kopla zaharrak ez ezik, bigarren ereduko *karrosa* ere badugu.

7

Cartouchac éder saïcouyan, beren balac barnia
Essagoutou issan ez palacote larréssoroco portouyan
Moulin bessaïn guisson ourosic (etsen issan frantsían) bis

Hau ere, aurrekoan bezalaxe, kopla zaharren teknikaduna da. Moulin jauna kontrabandoan harrapatu ez balute, Frantziako gizonik zoriontsuena izango zela diosku ahapaldi honek.

8

Ountsiac éderdic bélla, saldiac éré bai séla
Moulin primou ibili behartsen, cabalierbat beçala
Portemantouan iscri batourik (ellissaldeco yaoun sela)

Ourzo chouriaren airian

Ahapaldi honetako irudiak bi imajina ditu. Behin eta berriro itsasoarekin zerikusia duen ontzia aipatzen du. Kontrabandoa ontziz egiten harrapatu dutelako edota galeretan zigorturik untziz joan behar duelako Ingalaterrara? Ditugun datuetatik ilunxko gelditzen da interpretazioa.

7. B EREDUA GAURKO ORTOGRAFIAN

Oraingo atal honetan, geroagora utzi gabe, jarriko ditugu bi baladen gure transkripzioa, oraingo ortografiara egokitua. Bertso-lerroak ere, bestalde, geure erara tolestuko ditugu. Hurrengo bi ataletan lehen transkripzioa eta bigarrena azalduko ditugu.

1
Hala bada etxe noblia Itsasu Elizaldia.
Hango jaun egin behar[r]a zinin, Mulineneko primu[ia],
kontrebandan galdu izan ez bazindu zuk zure libertatia.

2
–Malurik aski badut nik,/ neure buriari emanik,
libertatia galdu eta izaiteko ez moienik
Anglatar[r]e ikusi behar dut (itsasuetan juanik).

3
Elizaldeko andregeiak/ jakin duenian berria,
itxasuetan juan behar zela Mulineneko primuia,
dirutan galdatu izan du/ (jaun haren libertatia).

4
Izan du ar[r]apostia bainan ez anhitz eztia
izanik ere urhez bethia Elizaldeko etxia,
etzuiela harek, ez, izanen (jaun haren libertatia).

5
Elizaldeko andregeiak/ izan duenian ar[r]apostia,
zortzi gau-egunez egon umen da ohian eri jarria
beldur[r]ez eta etziyen izanen (jaun haren libertatia).

6
Baratzian eder ar[r]osa,/ harek balaki frantsesa,
anperadoriaren mintzatzeko berak baluke ir[r]isa,
Baionako hirian eros bailezake (harat yuateko [k]arrosa).

7
Kartuxak eder zaikuian,/ beren balak barnia[n];
ezagutu izan ez balakote Larresoroko portuian,
Mulin bezain gizon urosik (etzen izan Frantzian) bis

8
Untziak eder dik bela,/ zaldiak ere bai zela;
Mulin primu ibili behartzen, kabalier bat bezala,
portemantuan iskribaturik (Elizaldeko jaun zela) bis

8. C EREDUA ARGENTINAKO KAIEREKOA

Hirugarren testua Jose Antonio Donostiaren, Aita Donostiaren, *Cuaderno de Argentina* delakoan aurkitzen da, 145. orrialdean. Koaderno hau Jean Fourcadek Michel Iriarti eginiko oparia da, azalean berean agertzen denez. Jean Fourcaderen kaiera *Arjentinako kaiera* deitu ohi zaio, Buenos Airesetan, 1922an egindako erregaloa delako. Kantuaren izenburua *Itsasu Elizaldeko Arrosa* da eta ez dago dudarik *Arrosa* delako hori Mulineneko premuaren emaztegaia edo andregaia dela. Izenburu hori jartzen badio, inolako dudarik gabe, jendeak halaxe deitzen ziolako da, balada izendatzeko modua, beste hitzez esanda. Argentinako kaiereko kantek ez dute, zorionez, inolako ilun-unerik agertzen letra interpretatzeko orduan.

Hirugarren aldaera hau ahapaldi gutxiagokoa den arren, bestea bezain aberatsa ez den arren, baditu besteak ez dituen argitasunak ere. Badago, bestalde, beste kontu interesgarri bat, beste baladen ilununeak argitzeko balio digu bigarren eredu honek.

Jatorrizko eskuidatzian *Itsasu Elizaldeko Arrosa* izenburuaren azpian bigarren izenburutzat beste bat dakar parentesi artean *(Untziak eder du bela).* Pentsatzekoa da, beraz, bi modutara ezagutuko zela balada hau.

Bigarren eredu hau lehen aldiz Antonio Zavalak bere *Euskal erromantzeak/Romancero vasco* lanean argitara zuen. Eredu honen gaineko berri zehatza dakar: *Aita Jose Antonio Donostia zanaren artxibotik, Cuaderno de Argentina deritzaion esku-idatzi batetik*.

Aita Zavalaren transkripzioa oro har ondo egina dago. A. Zavalak, eredu honetan ere, ez ditu beti bezala kontsonante leherkari aspiratuak transkribatzen. Lehen dokumentuko *borthitza*, *phartitzen*, *bethea* hitzak *bortitza*, *partitzen* eta *betea* transkribatuko ditu.

1
Untziak eder du bela
Zaldiak ere bai zela
Mulin premu ibili behar zen
Kabalier bat bezala
Porte mantoan izkiriaturik
Elizaldeko yaun zela

2
Ala etche noblia
Itsasun Elizaldia
Harat yaun egin beharzela
Mulieneko premua
Komtra bandan galdu ez balu
Oy bere libertatia

3
Komtrabandaren borthitza
Partikulazki kartucha
Harrapatu ez balute
Mulin premuren urusa
Etzioten ez haur guziek
Hunkituko kokotsa

4
Neskatoaren tristia
Yakin zuenian berria
Itsasotan phartitzen zela
Mulieneko premuya
Dirutan galdegin izandu
Yaun horren libertatia

5
Izan du arrapostuya
Ez baitzen hanbat eztia
Urhez bethea balu ere
Itsasu Elizaldia
Dirutan ezin dezakeyela
Yaun horen libertatia

6

Elizaldeko arrochak
Berak balaki frantsesa
Emperadorearen ikusteko
Berak baluke irrisa
Bayonan eros bailio
Harat yoaiteko karrosa

Ikusi dugunez jatorrizko eskuidatzian ez dator inolako ortografia-zeinurik. Ez dator ez puntu ez komarik.



Ontziak eder du bela balada. Argentinako kaiera.

9. C EREDUAREN GAINEKO OHARRAK AHAPALDIZ AHAPALDI

Puntu honetan Argentinako kaiereko eredu iruzkinduko dugu ahapaldiz ahapaldi.

1

Untziak eder du bela
Zaldiak ere bai zela
Mulin premu ibili behar zen
Kabalier bat bezala
Porte mantoan izkiriaturik
Elizaldeko yaun zela

Harrigarria badirudi ere hirugarren ereduko lehen ahapaldi hau bigarren eredukoaren azkenaren oso berdina da. Ohargarria da lehen-azken ahapaldiek istorioa laburbildu egiten dutela esaldi indartsuetan, horrexegatik beragatik balada gai beraren aldaera bateko azken ahapaldi bat beste eredu batean lehena izan daiteke. Ondo ulertzen da, bestalde, esangura. Kabalier edo jaun handi bat bezala ibili arren galeretan edo beste nonbait preso egon behar du. Portemantoan ezkondu den emakumearen etxe-izena jarri beharrean, aberats-jantzietan ibili beharrean, preso bizi beharko du…

2

Ala etche noblia
Itsasun Elizaldia
Harat yaun egin beharzela
Mulieneko premua
Komtra bandan galdu ez balu
Oy bere libertatia.

Bigarren ahapaldi hau bigarren ereduko lehena da. Hemen ere aurreko ahapaldian esan duguna berresan daiteke. Ahapaldi laburbiltzaileak azken-amaieretan joan daitezke.

3

Komtrabandaren borthitza
Partikulazki kartucha
Harrapatu ez balute
Mulin premuren urusa
Etzioten ez haur guziek
Hunkituko kokotsa.

Ahapaldi hau ez dago beste ereduan. Zentzuari dagokionez, egin ditzagun zenbait galdera. Zergatik dio kartuxaren kontua? Gertaera berria zenean baladan kantatzen dena ulertuko zen, dudarik gabe. Balada, ordea, kontesturik gabe dagoenez gero, halako misterio ezin zulatuzkoak aurkitzen dizkiogu. Dena dela argitasunen bat eman ote genezake? Kartuxak horren aipamena bigarren ereduko zazpigarren ahapaldi hasieran ere ikusten dugu: *Kartuxak eder zaikuian*… Ez ote da, gure hitzetan esateko, kontrabandoa zigorgarria da, eta are zigorgarriago gerra denboran kontrabandoa egiten ari bada norbait gerrako armekin, kartuxekin. Kartuxa-kontrabandoan ari ote zen, beraz, gure Mulin premua? Litekeena da… Beste era batera esanik, frantsesen arerioak edo kontrarioak ziren ingelesei kartuxak saldu nahi ote zizkien Mulinek? Nola barkatu Napoleonen garaian horrelako krima bat?

Badago beste misterio ttiki bat, bigarrenik. Zergatik ukitzen diote haur guztiek kokotsa Mulini? Baliteke, lehenago esan dugun bezalaxe, Mulin jauna herri osoaren eskarmentagarri, herriko pikotan belauniko lotua izatea zenbait egunez. Era horretara, haurrak hurbildu eta kokotsa ukituko zioten…

Transkripzioari gagozkiola, nola transkribatu *prumuaren* edo *premuren*? Beste alde batetik *kokotsa* ala *kokotza*?

4
Neskatoaren tristia
Yakin zuenian berria
Itsasotan phartitzen zela
Mulieneko premuya
Dirutan galdegin izandu
Yaun horren libertatia.

Ahapaldi honetako *dirutan* eta *itxasotan* kasu bera ote da. Biak mugagabeak? Lehen ereduan itsasoetan agertzen zen. Ohargarria da hasierako *Neskatoaren tristia* horretako *tristia* substantiboa dela eta ez adjektiboa. Eskatu aditzaren era biak –*galdatu* eta *galde egin*– ikusten ditugu batean eta bestean. Lehen ereduan *dirutan galdatu izan du*, bigarren ereduan, *dirutan galdegin izan du*.

5
Izan du arrapostuya
Ez baitzen hanbat eztia
Urhez bethea balu ere
Itsasu Elizaldia
Dirutan ezin dezakeyela
Yaun horen libertatia.

Ahapaldi hau oso antzekoa da egitura eta hitzetan bigarren ereduko laugarrenarekin. Gure oraingo honetan ere, gure ustez behar den bezala, *urhez* eta *bethea* transkribatu ditugu. Bitxia da, bestalde, dauden desberdintasun txikiak: 1 eredua *bainan ez anhitz eztia*, 2 eredua: *ez baitzen hanbat eztia*; 1eredua*: izanik ere urhez bethia*, 2 eredua: *urhez bethea balu ere*…

6
Elizaldeko arrochak
Berak balaki frantsesa
Emperadorearen ikusteko
Berak baluke irrisa
Bayonan eros bailio
Harat joaiteko karrosa.

Azken ahapaldi honek lehen ahapaldiko duda batzuk argitzen eta garbitzen dizkigu. Baionan erosiko lukeena ez da *arrosa*, *karrosa* baizik. Adizkiei gagozkiela, *liro* adizkiak *lezake* aditzaren balio bera du. Bokalarteko –r– galdurik *bailio* ikusten dugu. Aditz forma hori ez da besterik *bailezake* baino.

10. C EREDUA GAURKO ORTOGRAFIAN

Oraingo atal honetan Argentinako kaiereko eredu bera ekarriko dugu gaurko ortografiara aldaturik. Ahapaldiak tolesteko sistema ere apurren bat aldatuko dugu. Bi aukerarik ezagunenetatik Iparraldean gehienetan erabili ohi den bezala egingo dugu.

1
Untziak eder du bela,/ zaldiak ere bai zela;
Mulin premu ibili behar zen/ kabalier bat bezala,
portemantoan izkiriaturik/ Elizaldeko yaun zela.

2
–Malurik aski badut nik,/ neure buriari emanik,
libertatia galdu eta/ izaiteko ez moienik
Anglatar[r]e ikusi behar dut/ (itsasuetan juanik).

3
Elizaldeko andregeiak/ jakin duenian berria,
itxasuetan juan behar zela Mulineneko primuia,
dirutan galdatu izan du/ (jaun haren libertatia).

4
Izan du ar[r]apostia,/ bainan ez anhitz eztia:
izanik ere urhez bethia Elizaldeko etxia,
etzuiela harek, ez, izanen (jaun haren libertatia).

5
Neskatoaren tristia,/ jakin zuenian berria!
Itsasotan phartitzen zela/ Mulieneko premuya.
Dirutan galdegin izan du/ jaun horren libertatia.

6
Elizaldeko arroxak/ berak balaki frantsesa
enperadorearen ikusteko/ berak baluke irrisa,
Baionan eros bailio/ harat joaiteko karrosa.

11. D EREDUA HIRIBARRENEN PAPERETATIKOA

Piarres Lafitte jaunaren dokumentuen artean Martin Hiribarren (1810-1866) azkaindarraren paperak aurkitzen dira. M. Hiribarrenen dokumentuen artean gure baladaren transkripzio bat aurkitzen da Laf 401-011-123 signaturan. Kontuan izan behar dokumentu honek gutxienez ehun eta berrogeita hamar urte dituela. Gure baladak Napoleonen garaiko gertaerak islatzen baditu, balada ia sortu berria zeneko garaiko dokumentuko transkripzioa da puntu honetan eskainiko duguna.

1
Untciac eder du bela çaldiac ere ba cela
Mulin premu ibiliren cen cabalier bat becela
portemantuan iskiribaturic elizaldeco yaun cela

2
Contra bandaren borthitça particulazki carthucha
gardec arrastatu ezpalute Larresoroco portuan
Moulin beçaïn guizon abilic etchen izanen frantçian

3
Elizaldeco andere gueac yakin zuenean berria
hirur egun pasatu cituen ofian eri handia
heien buruan galdeguin çuen yaun haren libertatia

4
Izan çuen errapustia ez baitcen hambat eztia
urhez bethia izan balu ere Elizalde gucia
etçuela izanen galdeguiten çuen graciac

5
Elizaldeco arrosa[c] balimbaliki frantsesa
emparadoriaren mintzaceco berac baluke irrisa
bayonan eros leçake harat gaiteco carrosa

Hiribarrenen paperetako lehen dokumentuak, Arxü eta Chaho biltzaileen dokumentuen garaitsukoak dira. Euskal kantuen lehen dokumentu zaharrenetakoak.



LAF 401-011_123

12. D EREDUA AHAPALDIZ AHAPALDI IRUKINDURIK

Eredu guztietako protagonistak berberak dira: *Mulin (premua)* edo *Mulineneko premua* eta *Elizaldeko anderegaia*. Gure eredu berri honetan beti berdin transkribatuko da kontrabandistaren izena *Mulin (premua)* eta *Elizaldeko anderegeia* edo *Elizaldeko arrosa*. Gure oraingo eredu honetan ere irizpide finkoak jarraitzen dira, *Elizalde* etxe-izena beti berdin izango da transkribatua. *Mulin*, ordea, bi modutara: *Moulin* eta *Mulin*.

1

Untciac eder du bela çaldiac ere ba cela
Mulin premu ibiliren cen cabalier bat becela
portemantuan iskiribaturic elizaldeco jaun cela

Lehen ahapaldi hau azken-aurrekoa izan ohi da eredu gehienetan. Gure lehen ereduan zein A. Zavalaren azkenean dator. Honelaxe dator A. Zavalaren bigarren ereduan: *Untziak eder dik bela,/ zaldiak ere bai zela;/ Mulin primu ibili behartzen, kabalier bat bezala,/ portemantuan iskribaturik (Elizaldeko jaun zela) bis.* Hirugarren ereduan, ordea, hasieran: *1-Untziak eder du bela,/ zaldiak ere bai zela;/ Mulin premu ibili behar zen/ kabalier bat bezala,/ portemantoan izkiriaturik/ Elizaldeko yaun zela.* Zergatik, ordea, dantza hau eredu batetik bestera? Erantzuna garbia da guretzat. Kopla zaharren teknika duten ahapaldiek kantuak zabaltzen edo giltzatzen dituzte. Horrexegatik agertzen dira kantuaren bi buruetan: hasieran edo bukaeran.

2

Contra bandaren borthitça particulazki carthucha
Gardec arrastatu ezpalute Larresoroco portuan
Moulin beçaïn guizon abilic etcen izanen frantçian

Ahapaldi hau ere eredu guztietan aurkitzen dugu A. Zavalaren lehen ereduko zazpigarren ahapaldian: *7-Kartuxak eder zaikuian,/ beren balak barnia[n];/ ezagutu izan ez balakote Larresoroko portuian,/ Mulin bezain gizon urosik (etzen izan Frantzian) bis,* eta gure ataleko azken ereduko zortzigarrenean. A. Zavalaren bigarren ereduko bigarrenarekin, ordea, antzekotasun handia du hasiera-hasieran : *Kontrabandaren borthitza,/ partikulazki kartuxa!/ Harrapatu ez balute/ Mulin premu[a]ren urusa!/ Etzioten, ez, haur guziek/ hunkituko kokotsa!* Ez ote da ari esaten arma-kontrabandoan harrapatu zutela Mulin?

3

Elizaldeco andere gueac jakin zuenean berria
hirur egun pasatu cituen ofian eri handia
heien buruan galdeguin çuen jaun haren libertatia

Ahapaldi hau eta gure bigarren ereduko bosgarrena bat datoz. Gure bigarren ereduan hamabost egun pasatzen du ohean, oraingo ereduan hiru egun, A. Zavalaren lehenean *zortzi-gau egunez* egon zen ohean. Aldaera guztiek indar handia dute, inolako dudarik gabe. Gure bigarren ereduan zein A. Zavalaren lehenean *eri jarria* (datza ohean). Gurean, nahiz eta hoskidetasuna hain bete-betekoa ez izan *berria*-rekin *eri handia* dio. Ez dago dudarik ezkontzeko bezperan dagoen emakumearen nahigabea handiagoa da *eri handia* badatza ohean. Bada besterik ere, A. Zavalaren bigarren ereduko laugarren ahapaldia *Neskatoaren tristia,/ jakin zuenian berria!/...* batez hasten da gero beste ahapaldi bateko hariarekin jarraitzeko: *Itsasotan phartitzen zela/ Mulieneko premuya./ Dirutan galdegin izan du/ jaun horren libertatia.*

4

Yzan çuen errapustia ez baitcen hambat eztia
urhez bethia izan balu ere Elizalde gucia
etçuela izanen galdeguiten çuen graciac

Lehenean izan ezik eredu guztietan aurkitzen dugu ahapaldi hau. A. Zavalaren lehen ereduan: *4-Izan du ar[r]apostia,/ bainan ez anhitz eztia:/ izanik ere urhez bethia Elizaldeko etxia,/ etzuiela harek, ez, izanen (jaun haren libertatia)*. A. Zavalaren bigarren ereduan: *5-Izan du arrapostuia,/ ez baitzen hanbat eztia:/ urhez bethea balu ere/ Itsasu Elizaldia,/ dirutan ezin dezakeiela/ yaun hor[r]en libertatia.* Gure honetan, ordea, beste inongo eredutan agertzen ez den hitz indartsu bat ikusten dugu: *grazia*. Enperedoreak ez dio emango eskatzen duen grazia. Ez dio emango bere senargaiaren libertatea.

5

Elizaldeco arrosa[c] balimbaliki frantsesa
emparadoriaren mintzaceco berac baluke irrisa
bayonan eros leçake harat gaiteco carrosa

Ahapaldi hau Azkueren ahapaldi bakarreko ereduan izan ezik gainerako guztietan aurkitzen dugu. A. Zavalaren lehen ereduan kopla zaharren teknika erabiliz ematen da ahapaldi hau *6-Baratzian eder ar[r]osa,/ harek balaki frantsesa,/ Anperadoriaren mintzatzeko berak baluke ir[r]isa,/ Baionako hirian eros bailezake (harat yuateko [k]arrosa)*. Hitzei gagozkiela, *irritsa* delakoak "desira handia" esan nahi du. Azken ahapaldi hau eta hirugarren ereduko seigarrena bat datoz: *6-Elizaldeko arroxak/ berak balaki frantsesa,/ enperadorearen ikusteko/ berak baluke irrisa./ Baionan eros bailio/ harat joaiteko karrosa.* Eredu guztietan, hitz batean, kontu bera ikusten dugu. Senargaiaren libertatea erosteko ezin du gorago jo, ezin du Enperadorearekin hitz egin…

13. D EREDUA GAURKO ORTOGRAFIAN

1

Untziak eder du bela, zaldiak ere ba zela,
Mulin premu ibiliren zen kabalier bat bezela
portemantuan izkiribaturik Elizaldeko jaun zela.

2

Kontrabandaren borthitza, partikulazki karthuxa.
Gardek arrastatu ez balute Larresoroko portuan
Mulin bezain gizon abilik ez zen izanen Frantzian.

3

Elizaldeko anderegeiak jakin zuenean berria,
hirur egun pasatu zituen ofian eri handia
heien buruan galdegin zuen jaun haren libertatia.

4

Izan zuen errapustia ez baitzen hanbat eztia,
urhez bethia izan balu ere Elizalde guzia,
ez zuela izanen galdegiten zuen graziak.

5

Elizaldeko Arrosak balin baliki frantsesa,
enparadoriaren minzatzeko berak baluke irritsa:
Baionan eros lezake harat gaiteko karrosa.

14. HIRIBARRENEN PAPERETAKO E EREDUA

Piarres Lafittek zituen Martin Hiribarrenen paperen artean letra ederrez transkribatutako azken eredua ekarriko dugu puntu honetara. Letra ederrez, guk uste dugunez, transkribatu nahi den kantorearen balioak halaxe eskatzen duelako. Eskuidatziaren erreferentzia zehatza *LAF 401-002* da, eta dokumentu honetako 10. zenbakian dator gure kanta. Euskara ereduari dagokionez, testu hau ezagutzen ditugun testu guztien artean ekialdekoena dugu. Euskara eredurik garbiena ere berak ematen duelakoan gaude, hitz eta irizpide guztiak garbi-garbiak agertzen dituelako[10]. Baxenabarreko ekialdeko kutsua du gure ustez. Horko hitzek *kantoreñuak*, *duhuru*, *primia* ez ote digute salatzen? Beste ereduetan Lapurdiko euskara garbiagoa ikusiko dugu: *diru*, *primu*.

Eredu hau ere dugun zaharrenetako bat da, 1866. urtea baino lehenagokoa. Gure balada, beharbada, XIX. mendearen lehen erdian bertso-paperen bidez argitaratu zen. Amodiozko kantuen sarrera ezagun bat *Kantoreñuak berririk aphirilian (edo dena delako hilean) emanik* da. Sarrera ezagun horren beste zehaztasun polit bat dator azken eredu honetan: *Berri segur jin içan çaiku paper finian emanic*. Esaldi honek, seguru asko, balada bertso-paperean argitaratu zela salatzen digu.

1
Cantoregnuac berriric aphirilian emanic
Berri segur jin içan çaiku paper finian emanic
Paper finian emanic eta cacheta belchez loturic

2
Elichaldeco anderegayac aditu çuenian berria
Hamabortz egun egon içan cen ohian eri jarria
Aïratcerat utci cuela escuan çarocan choria

3
Hala etche noblia Itxasso Elichaldia
Harat jaün eguin beharra cen Mulineneco primia
Contrebandan galdu ez balu bere libertatia

4
Elichaldeco anderegayac adituric berria
Itxasuetan juan behar cela Mulineneco primia
Dihurutan galdeguin çuen jaün haren libertatia

5
Içan du errepostua ez baïcen sobera eztia
Urrez bethia içanic ere Itxasso Elichaldia
Ez lezaqueyela ardietz galdeiten duen gracia

6
Elichaldeco arrosac balinbalaqui fransesa
Empeadoriaren mintzatceco bera[c] baluque irritza
Bayonan eros baileçaque harat juaiteco carrossa

[10] *Elichalde*, anderegaiaren etxearen izena, beti modu berean idatziko du. Berdin idatziko du 2, 3, 4, 5, 6, 7. ahapaldietan. Halaxe ote zen jatorrizkoan? Besteetan Elizalde agertzen da.

7
Untziac eder du bella çaldiac ere baï cela
Mulin primu ibili behar cen cabalier bat beçala
Portamantuan izkiriaturic Elichaldeco jaun cela

8
Cartuchac eder zacuan beren balac muturrian
Mulin becen guiçon urosic ez cen içanen frantcian
Arrastatu ez balute Larresorhoco portuan


1°

1.
Cantoregnuac berriric aphirelian emanic
Berri segur yin içan çaiku paper finian emanic
Paper finian emanic eta cachela bilcher loturic

2.
Elichaldeco anderegayac aditu çuenian berria
Hamabortz egunez egon içan cen ohian eri zarria
Airatenat utci cuela esnuan çarocan choria

3.
Hala etche noblia Itxasso Elichaldia
Harat yaün eguin beharra cen Millonesco prima
Contrebandan galdu ez balu bere libertatia

4.
Elichaldeco anderegayac adituric berria
Itxassuetan yuan behar cela Mulinenecp prima
Dihurutan galdeguin çuen yaün haren libertatia

5.
Jean du emposlua ez baicen sobera ertia
Urroz bethia icanic era Itxatso Elichaldia
Ez lezaqueyela ardieta galdeiten duen gracia

6.
Elichaldeco arrosac balinbalaguic fransesa
Empeadoriaren mintzatceco bera balugu iritsi
Bayonan nos baileçague harat yuaiteco carrosa

7
Untziac eder du bella çaldiac ere baicela
Mulin primu ibili behar cen cabalier bat beçala
Portamantuan izkiriaturic Elichaldeco yaun cela



LAF 401-002_10

5. E EREDUAREN AHAPALDIZ AHAPALDIKAKO IRUZKINA

Azken eredu honek badu zer iruzkindu. Puntu honetan, aurreko ereduekin bezala, ahapaldiz ahapaldi iruzkinduko dugu eredua.

1
Cantoregnuac berriric aphirilian emanic
Berri segur jin içan çaiku paper finian emanic
Paper finian emanic eta cacheta belchez loturic

Lehen sarrera hau ez dator argitaratutako A. Zavalaren bi ereduetan. *Kantoreñuak berririk X-ean emanik* amodiozko kantu zein kantu narratiboetako sarrera klitxetua dugu. Amodiozkoetan, ordea, sarriago ikusi dugu sarrera hau. Duvoisinen kaieretan ere aurkitu dugu *incipit* hau. Adibidea ematera, *Deux contrariés* izenburupean, honelaxe irakurtzen dugu lehen ahapaldian: *Kantoreak berririk/ Aphiriléan emanik./ Tristeziak harturik nago bihotzaren erditik;/ Uso churi bat galdurik/ Nago begiak ilhunik*[11].

[11] Adibideak zenbatgura aurki litezke. *Kant(h)oreak berririk/ X-ean emanik* delako formula bi eratara ulertu daiteke: X-delakoa denbora edo lekua dela. Azkueren kantutegiko bi bakarrik ekartearren "Canciones narrativas sailean", bigarren tomoan, 645-*Kanthoreak berririk /BaxeNabarren eginik./ Nihor, nihor ere balin bada/ Ikasi nahi tuenik/ Kostaturen etzaio deus ere/ atentzionea baizik (bis).*Canciones amorosas sailean, lehen tomoa, 54-*Kantoreñoak gure herrian amodioaren gainean/ berri berriak emanak dire Bazko biharamunetan./ Urtzo kolonba xuri polit bat neuraukan sare barnean;/ ene sareak urtxorik gabe miatu nintuenean/ harritu nintzan joan ote zene hegalik gabe airean (bis).*

Kantore hitza, bestalde, ez dugu inoiz balada batean aurkitu, nahiz Baxenabarreko ekialdean eta Zuberoan halaxe deitu baladei zein amodiozko kantuei zein autoredun kantuei. Paper finean eta zigilu, hots, kaxeta, beltzez datorren kantu hau Erregearen edo Enperadorearen ordenaz datorrela dirudi. Paper zigilatu hau erregeren aginduz –lau haizeetara zabaltzen zen– garai bateko papera dirudi: paper biribilkatua eta xingola edo eraztun batez erdialdean gerrikatua edo lotua. Bada beste kontu azpimarragarririk: hainbat baladatan bezala, barne *ritornello* edo bihurkia dator lehen ahapaldi honetan.

2

Elichaldeco anderegayac aditu çuenian berria
Hamabortz egun egon içan cen ohian eri jarria
Aïratcerat utci cuela escuan çarocan choria

A. Zavalaren lehen ereduko bostgarren ahapaldiaren tankerakoa: *5-Elizaldeko andregeiak/ izan duenian ar[r]apostia, / zortzi gau-egunez egon umen da ohian eri jarria/ beldur[r]ez eta etziyen izanen (jaun haren libertatia)*. Bostgarren ahapaldi honetan emaztegaia gaisotzen da erantzun txar baten ondoren. Gure kasuan modu generikoa batean. Gure bigarren ereduko hirugarren aipamenean ere gertaera nagusiaren ondoren gaixotzen da. Hiru egun besterik ez ditu ohean egiten: *3-Elizaldeko anderegeiak jakin zuenean berria,/ hirur egun pasatu zituen ofian eri handia/ heien buruan galdegin zuen jaun haren libertatia*. Gure eredu honetan bestetan ez dagoen brisara estilistiko bat ikusten dugu. *Airatzerat utzi zuela eskuan zarokan xoria* bi eratara behintzat irakur eta uler daiteke. Senargaia galtzen duenean emaztegaiak xoria galdu duela pentsa liteke. Pentsa liteke, era berean, Mulineneko premua ez dela gehiago libre izanen, libertatea, hots, eskuan zarokan xoria, betiko airatzera utzi duelako… Bi adiera hauetatik, batek baino gehiagok bigarrena onartuko lukete. Bigarren adiera honen alde hurrengo ahapaldiak indar egiten duen arren gure ustez ezin da lehena bazterrean utzi[12].

3

Hala etche noblia Itxasso Elichaldia
Harat jaün eguin beharra cen Mulineneco primia
Contrebandan galdu ez balu bere libertatia

A. Zavalaren lehen ereduko lehen ahapaldia oso antzekoa da: *1-Hala bada etxe noblia/ Itsasu Elizaldia./ Hango jaun egin behar[r]a zinin,/ Mulineneko primu[ia],/ kontrebandan galdu izan ez bazindu/ zuk zure libertatia.* Gure eredu berri honetan hirugarren pertsonan dator Mulineneko premua. A. Zavalaren lehen ereduan bigarren pertsonan, dramatismo eta indar handiagoa hartuz. Gure eredua oso antzekoa da A. Zavalaren bigarrenarekin: *2-Ala etxe noblia/ Itsasun Elizaldia!/ Harat jaun behar zela/ Mulieneko premua, / kontrabandan galdu ez balu/ oi! bere libertatia.* Bi eredu hauetan egitura polit bat agertzen zaigu: *harat jaun (egin)*. Ez dago dudarik: Itsasuko Elizaldeko andregaia askoz etxe aberatsagokoa da Mulineneko premua baino.

4

Elichaldeco anderegayac adituric berria
Itxasuetan juan behar cela Mulineneco primia
Dihurutan galdeguin çuen jaün haren libertatia

A. Zavalaren lehen ereduko hirugarren ahapaldiaren oso antzekoa: 3- *Elizaldeko andregeiak/ jakin duenian berria,/ itxasuetan juan behar zela Mulineneko primuia,/ dirutan galdatu izan du/ (jaun haren*

[12] Beste era batera esateko: gure ustez zentzu-dilogia baten aurrean gaude. Hau da, esaldi bat bi era desberdinetan, zuzenki eta zentzuz, interpretatu daiteke. Kontu honek, dudarik gabe, aberastasun berriak ematen dizkio destuari.

libertatia). Ahapaldi honetan bati baino gehiagori atentzioa emango dio "itsasoetan (preso) joan" esapidea. Ahapaldi hau hobeto ulertzen da A.Zavalaren lehen ereduko bigarren ahapaldiaren segida bezala: 2-*Malurik aski badut nik,/ neure buriari emanik,/ libertatia galdu eta/ izaiteko ez moienik/ Anglatar[r]e ikusi behar dut/ (itsasuetan juanik).* Ahapaldi hau lehen pertsonan Mulineneko jaunaren ahotikakoa dugu.

5

Içan du errepostua ez baïcen sobera eztia
Urrez bethia içanic ere Itxasso Elichaldia
Ez lezaqueyela ardietz galdeiten duen gracia

Ahapaldi hau eredu guztietan agertzen da A. Zavalaren lehen ereduan: *4-Izan du ar[r]apostia,/ bainan ez anhitz eztia:/ izanik ere urhez bethia Elizaldeko etxia,/ etzuiela harek, ez, izanen (jaun haren libertatia).* A. Zavalaren bigarren ereduan: *5-Izan du arrapostuia,/ ez baitzen hanbat eztia:/ urhez bethea balu ere/ Itsasu Elizaldia,/ dirutan ezin dezakeiela/ yaun hor[r]en libertatia.* Gure D ereduan ere antzera*: Izan zuen errapustia ez baitzen hanbat eztia,/ urhez bethia izan balu ere Elizalde guzia,/ ez zuela izanen galdegiten zuen graciac*.

6

Elichaldeco arrosac balinbalaqui fransesa
Empeadoriaren mintzatceco bera[c] baluque irritza
Bayonan eros baileçaque harat juaiteco carrossa

Hemen ere, A. Zavalaren lehen ereduan bezala, Elizaldeko anderegaia enperadorearekin hitz egin beharrean dago. Ahapaldi hau estetika maila goragoan ikusten dugu A. Zavalaren lehen ereduko seigarren ahapaldian: *6-Baratzian eder ar[r]osa,/ harek balaki frantsesa,/ Anperadoriaren mintzatzeko berak baluke ir[r]isa,/ Baionako hirian eros bailezake (harat yuateko [k]arrosa[13]).* Hiribarrenen bi ereduetan *Elizaldeko arrosa* dator Elizaldeko anderegaiaren aipamena egiteko.

Hoskidetasunari dagokionez, *arrosa/karrosa* dira hoskide bete-betekoak, eske-kopletan bezalaxe.

7

Untziac eder du bella çaldiac ere baï cela
Mulin primu ibili behar cen cabalier bat beçala
Portamantuan izkiriaturic Elichaldeco jaun cela

Kopla zaharren teknikako ahapaldia. A. Zavalaren lehen ereduan ere badator ahapaldi hau, baina *Kartuxak eder zakuan* hori lehenago duela. Bada bestalde bitxitasuntxo bat: portamantua erabiltzea jaun handien bereizgarria omen zen. Zergatik egiten du gure ahapaldiko irudiko bi imajinetan untziaren eta zaldiaren aipamena?

Hoskidetasunari dagokionez, *bela/zela* ezin hobekiago datoz. Eta *zela* substantiboa *zela* adizkiarekin hoskidetzea ez ote da markagarria?

8

Cartuchac eder zacuan beren balac muturrian
Mulin becen guiçon urosic ez cen içanen frantcian
Arrastatu ez balute Larresorhoco portuan

[13] Kopla zaharren teknika dugu ahapaldi honetan *non eder zer* egitura irudian agertzen dela. Arrosa eta karrosa hitz hoskideak kopla zaharretan ere ikusten ditugu. Eman dezagun adibibe bat. Azkuek Iturenen (ikus bedi "Canciones de ronda" sailean "913-Agur agur etxekoak" kopla-bildumaren VI. ahapaldia: *Etxean eder herresa,/ yauregian karrosa,/ etxe huntako nagusiak iduri du karrosa*.

Hemen bestetan baino argiago dator esangura. A. Zavalaren lehen ereduan, 7. ahapaldian, halaxe dator: *7-Kartuxak eder zaikuian,/ beren balak barnia[n];/ ezagutu izan ez balakote Larresoroko portuian,/ Mulin bezain gizon urosik (etzen izan Frantzian) bis.* Gure eredu honetan bestetan iluntxo dagoen "zaikuian" garbiago dator: *zakuan*. Kartuxak zakuan datoz eta hori izan bide da Mulineneko primuaren galdumendia: kontrabandan ibiltzea kartuxa-balekin. A. Zavalaren bigarren ereduko 3. ahapaldian dator zergatikakoa: *3-Kontrabandaren borthitza,/ partikulazki kartuxa!/ Harrapatu ez balute/ Mulin premu[a]ren urusa!/ Etzioten, ez, haur guziek/ hunkituko kokotsa!*

16. E EREDUA GAURKO ORTOGRAFIAN

Martin Hiribarrenen eredurik osoena gaurko ortografian jarriko dugu puntu honetan. Eredu hau izan liteke ezagutzen diren bostetatik zaharrena. Eredu honetan ez dago inolako elkarrizketarik dena narratzaile batek esana da. Humboldtek *Andre Emili* balada komentatu zuenean bezala *Dichter* edo poeta batek kontatua da dena.

1
Kantoreñuak berririk aphirilian emanik,
berri segur jin izan zaiku paper finian emanik,
paper finian emanik eta kaxeta bel(t)xez loturik.

2
Elixaldeko anderegaiak aditu zuenian berria,
hamabortz egun egon izan zen ohian eri jarria,
airatzerat utzi zuela eskuan zarokan xoria.

3
Hala etxe noblia Itsaso Elixaldia,
harat jaun egin beharra zen Mulineneko primia.
kontrebandan galdu ez balu bere libertatia.

4
Elixaldeko anderegaiak aditurik berria
Itxasuetan juan behar zela Mulineneko primia
dihurutan galdegin zuen jaun haren libertatia.

5
Izan du errepostua, ez baizen sobera eztia,
urrez bethia izanik ere Itsaso Elixaldia
ez lezakeiela ardiets galdeiten duen grazia.

6
Elixaldeko Arrosak balin balaki fransesa
Enpeadoriaren mintzatzeko bera[k] baluke irritsa
Baionan eros bailezake harat juaiteko karrosa.

7
Untziak eder du bela, zaldiak ere bai zela,
Mulin primu ibili behar zen kabalier bat bezala
portamantuan izkiriaturik Elixaldeko jaun zela.

8

Kartuxak eder zakuan, beren balak muturrian;
Mulin bezen giizon urosik ez zen izanen Frantzian
arrastatu ez balute Larresorhoko portuan.

Eredu honetan balada zenbaitetan datorren *hala*... indargarria dator. Bereterretxeren kantorean *Andozeko ibarra/ hala ibar luzia*. Azken eredu honetan, hirugarren ahapaldiko *Hala etxe noblia Itsaso Elixaldia!* esaldia lehen ereduko *Hala bada etxe noblia Itsasu Elizaldia* garbiagoa iruditzen zaigu.

12
TXORI BATEK BEHIN BATEZ KANTAREN GAINEAN

1. SARRERA

Antonio Zavalaren baladategian *Txori batek behin batez* kantua "Istorikoak/Romances históricos" sailean sailkaturik dator. Antonio Zavalak Louis Dassanceren paperetan aurkitutako eredu bat eskaintzen du. Louis Dassanceren eredu hori bat bakarra da A. Zavalaren baladategian. Eredu bakar horren aldaera berri gehiago transkribatu eta iruzkinduko ditugu puntu honetan. Kanta honi *Idatz & Mintz* aldizkarian artikulu bat eskaini genion (Kalzakorta, 2001). Artikulu horretan –baladen gainean egindako lehenean– beste eredu bat aztertu genuen, Caubet Chubuko Arhanen eredua.

2. A. ZAVALAK DAKARREN EREDUA

A. Zavalak bere baladategian datu hauek ematen ditu *Txori batek behin batez* kantuaren gainean:

> Luis Dassance zenaren paperetatik, esku-idatzi batetik.
> Grenadier izeneko soldaduak aitatzen dira emen irugarren bertsoan. Itz orrek bertso auek Frantziako Iraultza denborakoak edo Napoleonen garaikoak izango ote diran susmoa sortu arazten digu. Orduko gerraren batean moldatuak, alegia. Ori egia balitz, erromantze edo baladen aroa ez dala gure artean oso itzali zaarra pentsatu bearko genduke.

Hona hemen A. Zabalak ematen duen eredua.

1
Txori batek behin batez erran zeitan egia:
Baiunan ukenen niala, oi!, ene malura
–Txoria, ago ixilik, ez egin nigarrik,
ez eman bihotzari holako trixturarik.

2
Gure jaun komendanta jin zeikigun herriala,
bai eta deklaratu ni desertur nintzala.
–Zeluko Jinko Jaunak eman dizazula
zuk eni bezalako miserikordia.

3
Hamazortzi grenadierra jin zeitadan etxiala,
bai eta estekatu kriminel bat bezala,
erraiten zielarik: –Oi! Hau da malura,
soldado gazte baten gal erazitia.

4
–Adio diot erraiten orain Sohutari,
eta partikularein, ama maitiari:
Orai nik hil behar dut dudarik gaberik,
ene haurride maitiak ikusi nahirik.

Kantu honetako protagonista Sohütakoa da. Baliteke Sohütakoa izatea egilea ere. Testu zuberotar honek harakaitz bat baino gehiago ditu. Zuberoako euskararen edozenbat ezaugarri izenda litezke. Nora kasua, esaterako, *etchiala*, *her[r]iala*.

3. L. DASSANCEREN ESKUIDATZIAREN TRANSKRIPZIO ZUZENA

L. Dassanceren paperen artean aurkitu dugun eskuidatziaren transkripzio fidela eskainiko dugu puntu honetan. Kantua orrialde batean idatzirik dago. Kantuaren izenburua *Tchori batek* da. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako kantu askotan bezala honetan ere ahapaldia markatzen duen zenbakiaren ondoren *couplet* hitza dator. Lau ahapaldiak *1er Couplet*, *2m Couplet*, *3m Couplet* eta *4m Couplet* dira. Hona hemen:

1
Tchori batek behin batez eran seitan egia
Baiyounen ukhénén niala oy éné malura
Tchoria ago ichilik ez egin nigarik
Es eman bihotzari holako trichturarik

2
Gouré jaoun komendenta jin seikigun heriala.
Bai eta déclaratu ni desertur nintzala.
Zeluko jinko jaounak eman disasula.
Suk eni bésalako mizirikordia.

3
Hamazortzi grénadiera, jin seitadan etchiala
Bai eta eztekatu Criminel bat besala
Eraiten zielarik oy haouda malura
Soldado gaste baten gal'erasitia.

4
Adio diot èraiten oray sohutari.
Eta partikularein, ama maitiari.
Oray nik hil behar dut dadarik gaberi[k]:
Ene aourhidé maitiak ikhousi nahirik.



« Tchori batek »

1er Couplet

Tchori batek behin batez eran seitan egia
Baiyounen ukhénén niala oy éné malura
Tchoria ago ichilik ez egin nigarik.
Es eman bihotzari holako trichturarik

2 m Couplet

Gouré jaoun Komendenta jin seikigun heriala.
Bai eta déclaratu ni desertur nintzala.
Zeluko jinko jaounak eman disasula.
Suk eni bésaleko mizirikordia.

3 m Couplet

Hamazortzi gramadiena jin seitadon ehiala.
Bai eta ezteratu Criminel hat besala.
Eraiten zielarik oy hacuela malura.
Soldado gasté baten gal'erasitia.

4m Couplet

Adio diot èraiten oray schutari.
Eta parentikularein, ama maitiari.
Oray nik hil behar dut dudarik gaberi.
Éné aourhidé maitiak ikhousi nahirik.

« Fin »

Txori batek behin batez kantua.

4. DASSANCEREN EREDUAREN AHAPALDIZ AHAPALDIKAKO IRUZKINA

Puntu honetan ahapaldiz ahapaldi iruzkinduko ditugu ahapaldi guztiak.

1

Tchori batek behin batez eran seitan egia
Baiyounen ukhénén niala oy éné malura
Tchoria ago ichilik ez egin nigarik
Es eman bihotzari holako trichturarik

Ahapaldi honetan txori batek protagonistari izango duen zorigaitzaren berri iragartzen dio. Ahapaldi honetako *txoria hago ixilik, ez egin nigarrik* esaldi egina da, klitxetua, amodiozko kantuetan eta baladetan ere ematen dena. 1870. urtean Salaberrik argitaratutako Bereterretxeren kantorean, esaterako, *arreba ago ichilik, ez othoi egin nigarrik* esaten dio Buztanobik bere Arreba Mari Santsi.

2

Gouré jaoun komendenta jin seikigun heriala.
Bai eta déclaratu ni desertur nintzala.
Zeluko jinko jaounak eman disasula.
Suk eni bésalako mizirikordia.

Ahapaldi honetako transkripzioan duda bat edo beste izan dugu. Zer jartzen du eskuizkribuan *komendenta* edo *komendanta*? Era berean, *béselako* edo *besalako* dakar eskuidatziak?

3
Hamazortzi grénadiera, jin seitadan etchiala
Bai eta eztekatu Criminel bat besala
Eraiten zielarik oy haouda malura
Soldado gaste baten gal'erasitia.

Lehen dokumentuan *grenadiera* hitza dator. Gramatikalki, uste dugunez, *hamazortzi grenadier* izan beharko luke.

4
Adio diot èraiten oray sohutari.
Eta partikularein, ama maitiari.
Oray nik hil behar dut dudarik gaberi[k]:
Ene aourhidé maitiak ikhousi nahirik.

Azken ahapaldi honetako *partikularein* irakurketa oker batetik eratorria izango da. Seguruena *partikularski* adberbioaren bukaera, *–rski* hain zuzen, gaizki irakurriko zuen transkribatzaileak.

5. *TXORI BATEK BEHIN BATEZ* GAURKO ORTOGRAFIAN

Kontu jakina denez, A. Zavalak ez ditu transkribatzen kontsonante aspiratuak. Zavalaren testuan *ukenen niala*, jatorrizko testua kontuan izanik, *ükhenen niala* transkribatzeko erabakia hartu dugu. Era berean, gure transkripzioan *aurhide* behar du.

1
Txori batek behin batez er[r]an zeitan egia,
Baiunen ükhenen niala oi ene malüra.
–Txoria ago ixilik, ez egin nigar[r]ik,
ez eman bihotzari holako trixtürarik.

2
Gure jaoun komendenta jin zeikigun her[r]iala,
bai eta deklaratü ni desertur nintzala.
–Zelüko Jinko Jaunak eman dizazüla,
zük eni bezalako misirikordia.

3
Hamazortzi grenadiera, jin zeitadan etxiala,
bai eta eetekatu kriminel bat bezala,
er[r]aiten zielarik oi hau da malüra
soldado gazte baten galerazitia.

4
Adio diot er[r]aiten orai Sohütari,
eta partiküla[rzki], ama maitiari.
Orai nik hil behar düt düdarik
ene aurhide maitiak ikhusi nahirik.

6. *TXORI BATEK BEHIN BATEZ* CAUBET CHUBUKO ARHANEN EREDUA

Puntu honetan transkribatuko dugun eredua osoagoa da. Eredu hau ez zuen Antonio Zavalak bere baladategian sartu. Eredu hau Caubet Chubuko Arhan altzaitarrari bildua da (Gaiteros de Pamplona: 1978). Kantu honek Iruñeko gaitajoleen artikuluan "Soldado franses désértur baten khantoya" du izenburua. Hona hemen kantua jatorrizko iturrian agertzen den bezala:

1
Astélehèn goïsian, Santa Clairan nintsan
Baï éta gaïherditan, phéna handitan
Ghori bat jin séreitadan, abértitsera
Gaï houra isanèn séla oï éné malura.

2
Ghoria othoitsèn haït, ago ichilik
Es othoi éni éman, bihotsian minik
Hik sér hobé aski duk, ni changrinaturik
Es éta guéhiago, nigar éguinaturik.

3
Jaun comesaria, jin da hérila
Ni désértur nintsala, déclaratsera
Séluko Jinko Jaunak, Eman disola
Harék Eni besala, Miserikordia.

4
Hamabi grenadier, jin seistan tchérkara
Bai eta fité eraman, gastéliala
Eraitèn siélarik, oï ser malura
Soldado gasté hounèn, galérastia.

5
Adios Cattalina, Éné Maïtia
Ene bihotséko, lili haitatia
Ni eri nintsanéko, sendo zalia
Phénétan nintsanéko contsola salia.

6
Adios Eraitèn diot, Ník oray Aitari
Eta particulaski Ama Maitiari
Nik oray hil béhar dizut duda gabétarik
Éné aurhidiak, ikhousi nahirik.

A. Zavalaren baladategiko lau ahapaldiko eredua baino osoagoa da hau. Laugarren ahapaldiko *gasteliala* horrek "gaztelura" esan nahi du. Eta *gaztelua* ez da besterik "kartzela" baino. Pier Topet Etxahunen bertsoetan askotan agertu ohi da *gaztelü* "kartzela"-ren adieran.

7. *TXORI BATEK BEHIN BATEZ* KANTOREAREN KIDEAK

Txori batek behin batez kantuak bi zutabetan jarriz gero, errazago ikusten dira batetik besterako aldaera eta zehaztasunak. Jar dezagun, beraz, ezkerretara Zavalak emandako eredua eta eskuinetara Caubet Chubuko Arhanen eredua:

TXORI BATEK BEHIN BATEZ

1

Txori batek behin batez erran zeitan egia:
Baiunan ukenen niala, oi! ene malura.
–Txoria, ago ixilik, ez egin nigarrik,
Ez eman bihotzari holako trixturarik,

2

Gure jaun komendanta jin zeikigun herriala,
bai eta deklaratu ni desertur nintzala.
–Zeluko Jinko Jaunak eman dizazula
Zuk eni bezalako miserikordia.

3

Hamazortzi grenadierra jin zeitadan etxiala,
bai eta estekatu kriminel bat bezala,
erraiten zielarik:-Oi! Hau da malura
soldado gazte baten gal erazitia!

4

–Adio diot erraiten orain Sohutari,
eta partikularein (sic) ama maitiari;
orai nik hil behar dut dudarik gaberik,
ene haurride maitiak ikhusi nahirik.

ASTELEN GOIZIAN

1

Astélehèn goïsian, Santa Clairan nintsan
Baï éta gaïherditan, phéna handitan
Ghori bat jin séreitadan, abértitsera
Gaï houra isanèn séla oï éné malura.

2

Ghoria othoitsèn haït, ago ichilik
Es othoi éni éman, bihotsian minik
Hik sér hobé aski duk, ni changrinaturik
Es éta guéhiago, nigar éguinaturik.

3

Jaun comesaria, jin da hérila
Ni désértur nintsala, déclaratsera
Séluko Jinko Jaunak, Eman disola
Harék Eni besala, Miserikordia.

4

Hamabi grenadier, jin seistan tchérkara
Bai eta fité eraman, gastéliala
Eraitèn siélarik, oï ser malura
Soldado gasté hounèn, galérastia.

5

Adios Cattalina, Ené Maïtia
Ene bihotséko, lili haitatia
Ni eri nintsanéko, sendo zalia
Phénétan nintsanéko contsola salia.

6

Adios Eraitèn diot, Ník oray Aitari
Eta particulaski Ama Maitiari
Nik oray hil béhar dizut duda gabétarik
Ené aurhidiak, ikhousi nahirik.

Caubet Chubukoren aldaera bi ahapaldi gehiagokoa da. Kantaren lehen ahapaldian Zuberoako beste kanta batzuetako *Txoria, ago ixilik, ez egin nigarrik* edo *Ghoria othoitsèn haït, ago ichilik /Es othoi éni éman, bihotsian minik* esaldi klitxetuak agertzen zaizkigu. Kantu honek irakurle batentzat baino gehiagorentzat izango ditu Bereterretxeren kantorearekin kidetasun nabarmenak. Kantore bietan gizon gazte bat preso hartzen dute etxean eta galerazi edo hiltzen dute. Bereterretxeren kasuan "jaun kondea eta hiru dozena gizon" dira etxera joaten direnak, gure bi adibideetan "jaun komandanta/ jaun komesaria" eta "hamazortzi/hamabi" grenadier. Ohartzekoa da konparatzen ditugun kantore bietan gizon bakar bat preso hartzeko gizon saldo handia joaten zaiola. Gizon saldo handi hau, gainera, gizon bakar baten manura edo agindura dago. Preso hartua den gizonak bere heriotza hurbil ikusten duenean, agur bihozti eta urragarri bat eskeintzen dio bere aitari eta, batez ere, amari. Bereterretxeren kasuan ere halaxe gertatzen zen amari "athorra" eskatzen dionean. Guk hemen agertzen ditugun bi aldaerek izango zuten noski segida handiagoa. Bi aldaera hauek irakurtzean, beste kanta osoago baten pusketak direla iruditzen zaigu.

8. ETXEKOPAR NAPOLEONEN BI EREDUAK

Larraineko Etxekopar Napoleonen kantu-bilduman birritan agertzen da gure alea. Izenburua *Desertur baten khantoriac* da eta kaiereko 37 eta 38 zenbakia daramate. Lehen aldaeran sei ahapaldi ditugu, bigarrenean lau. Hona hemen:

1
Astelehen goïzian Santa Clarian nintzan
Bai eta gaïerditan phena handitan
Chori bat jin zereïtan abertitzera
Gaï houra izanen zela ai! ene malura.

2
Choria othoitzen haït ago ichilik
Ez othoi eni eman bihotzian minic
Hic zer hobe aski duc ni changrinaturic
Ez eta gehiago nigar eginaziric

3
Jaun komizaria jin da heriala
Ni desertur nintzala abertitzera
Zeluco jinco jaunac eman dizola
Harec eni bezala misericordia

4
Hamabi grenadier jin zeiztan tcherkara
Bai eta fite eraman gazteliara
Eraïten zielaric Oï! Zer malura
Soldado gazte hounen galeraztia

5
Adios eraïten diot oraï aitari
Eta particularzki ama maitiari
Nic oraï hil behar dut duda gabetaric
Ene aurhidiac ikhousi nahiric

6
Adios Catalina ene maïtia
Ene bihotzeco lili haïtatia
Ni eri nintzaneco sendo erazlia
Phenetan nintzaneco sendozalia

Bigarren bertsioa kaier berean dator aurrekoaren ondoren. Bigarren aldaera dela frantsesez dio: *2eme version du desertur*. Hona hemen:

1
Ezkontu nintzanian gazte nintzan gazte
Oraino ezpenian hamazortzi ourthe
Halere ukhen nian hanichko eraïle
Bazela libertate ezkounturic ere

2
Astelehen goizian Santa Clairan nintzan
Bai eta gaiherditan factuonnian
Quitatu ukhen nian oren baten burian
Ene galtzeco houra aski beitzen izan

3
Aste harte goïzian jeiki nintzanian
Sei soldado banian ene saïhetzian
Baïonetac emanic armen aïtzinian
Ené lagunac ziela nourk eranen zian

4
Eretiatu nintzan postaren hartzera
Enakian nintzala bizian galtzera
Chorigno bat jin izan zeitan eni eraïtera
Gaï hartan izanen zela öi ene malura

5
Choria ago ichilic ez eman changrinic
Ez duka aski nigar orano eraginic
Ez duc ez profeituric ni afligituric
Ez eta gutiago ni thoumban sarthuric


nº 37
Pag 70
Desertun baten khantoriac
1er
Astelehen goizian Santa Clairan nintzan
Bai eta gaiherditan phena handitan
Chori bat jin zeritan abertitzera
Gaï houra izanen zela oi! ene malura
2eme
Choria athaitzen haït ago ichilik
Ez athai eni eman bihotzian mimic
Ihic zer habe aspi duc ni changrinaturic
Ez eta gehiago nigar eginazinic
3eme
Jaun koruigaria jin da heriala
Eki desertun nintzala abertitzera
Zelueo jinco jaunac eman digula
Ihesec eni bezala misericordia
4eme
Hamalbi Grenadier jin zeitan tchapkara
Bai eta fitä eramaïn gaztéliana
Eraiten zielanic Oi! zer malura
Soldado gazte haunen galeraztia
page 71
5eme
Adios eraiten diat orai aïtari
Eta partieulanzki anna maitiari
Nic orai hil bethan dut dudan gabetanic
Ene aunhidiac ikhousi nahirie
6eme
Adios Catalina ene maitia
Ene bihotzeco lili haïtatia
eki eri nintzaneco sendo eraglia
Phenetan nintzaneco sendagalia
fin
1er 2eme version du desertein
nº 38
Ezkontu nintzanian gazte nintzan gazte
Graino ezpenian hamazortzi urthe
Ihalere ukhen nian hanielko eraïle
Bazela libertate ezkountzeric ere
2eme
Astelehen goizian Santa Clairan nintzan
Bai eta gaiherditan factonnian
Quitatu ukhen nian oren baten burian
Ene galtzeco houra aski beitzen izan
3eme
Aste harte goïzian jeiki nintzanian
Sei soldado banian ene saïhetzian



Txori batek behin batez kantua. Etxekopar Napoleonen bi ereduak.

13
URETAKO SEMEA EDO *ZALDUKO JAUNA* BALADA

1. SARRERA

Bada orain arte euskal balada-biltegi edo liburuetan agertzen ez den balada gai edo *ballad-type* berri bat: *Uretako jauna* edo *Zalduko jauna* balada. Balada hau, oraindik sailkatu ez duten mitxeleta zoragarri baten gisa, oraindik aztertu eta sailkatu gabeko balada gai berri eta harrigarri bat da. Zahar kutsu handia duen baladarik baldin badago gure bilduma urrietan, hauxe da bat. Gaztelu eta korte girokoa da bete-betean. Balada honetan errege-erreginak, anderauren, zaldun, ezkutari eta mandatariak agertzen dira. Lekuak ere halakoxeak dira: gortea, erregearen etxea, (jauregiko) sala ederra. Zahar kutsuko balada gehienetan bezalaxe, elkarrizketa zorrotz eta indartsuak ere badaude. Eta, nahiz euskal testuan ilunxko gelditzen den, heriotza bat ere egiten da modu basatian, euskal kanta narratiboetan ohi denez. Balada historikoa denez, Ureta etxeari lotua, historialariek ere izan dezakete zer aztertua.

Balada honen lehen dokumentua Sauveur Lardapide (1812–1889) abatari zor diogu. Geroago aztertuko dugun lehen dokumentua, beraz, XIX. lehen mende erdikoa izan liteke. Balada gai bat dakarren dokumentu hori, bestalde, euskaraz dugun zaharrenetako bat da, Arxü eta Chahoren dokumentuen garaitsu berekoa.

2. *URETAKO JAUNA* BALADAREN ARGUDIOA

Balada zahar honetako haria edo gertaera-katea ez da erraz antzematen. Haria ulertzeko euskal testua ez ezik, testuaren argigarri den frantseseko sarrera edo azalpen bat ere badugu. Zer da, beraz, hitz bitan, balada honetan gertatzen dena?

Lehen aldaeran, ahapaldi gutxi badira ere, erregina batek bere gortean zaldun bat dantzan ikusten duela, honen edertasunaz ohartzen da. Hain zaldun eder eta apaina ikusirik bere senarrari ea nongoa den galdetzen dio. Erregeak Lapurdikoa dela diotso, baina mehatxu egiten dio ez dela etxera bizirik joango. Lehen bi ahapaldietan halaxe ulertu arren, beste bietan ilunago gertatzen da haria.

Bigarren aldaera askoz osoagoa denez, argudio biribilago bat antzeman dezakegu: erregina bat, bere jauregian dagoela, zaldun dotore bat ikusi ondoren maitemindu egiten da. Zaldun hau aberatsa eta apaina da –satin morez janzten da–, eta erreginaren gogoa bereganatzen du. Zalduna apain eta liraina da, hain gizonezko ederra sortu zuen amaren gorantzak egiten baititu. Zaldun honek, itxurak direnez, gitarra bat jotzen du. Garai bateko trobadoreen bertsio modernoa ote da? Zaldun honek erreginarekin harremanak izaten ditu, eta erregearen belarrietara iristen da izterbegien salaketa bidez. Erregeak, orduan,

zalduna bere begien aurrera erakarri eta traidore izendatzen du. Zaldunak bere burua defendatu arren, ezin du erregeak ematen dion heriotza-zigorretik aldendu. Zazpi hor edo txakurrek triskatzen dute heriotza krudelean gure zalduna, azkenik. Zazpi txakur hauek "otso-zakurrak" dira, edo testuan agertzen den moduan, *sarroin-horak*, hau da, *sagarroi-horak*. Txakurren lepokoa arantzez josia baitago.

Argudioari edo gertaera-kateari dagokionez, baditugu antzera xamarrekoak. Bi antzekoenak aipatzekotan *Behin batez yoan ninduzun* eta *Erraplanpan atabala joiten dute herrian*[1]. Gure atal honen helburu nagusia, gainerako atalen berbera da: balada ezezagun bat eman eta testuak finkatzea. Testuak finkatzea gure kasuan ez da erraza jatorrizko lehen dokumentua ilunxkoa delako.

Alderdi historikoak, beste hizkuntza batzuetako parekotasunak eta abar ez ditugu ukituko. Uste dut gure balada-korpuseko testuak ez daudela ondo finkaturik, huts eta gaizkiulertu bat baino gehiago ditugu. Oinarri-oinarrizko lana dugu hau, xumea bezain beharrezkoa.

3. GURE BALADAREN ITURRI ETA ZEHAZTASUNAK

Balada hau lehenengoz Piarres Charrittonek argitara eman zuen artikulu interesgarri batean: "Aita Sauveur Lardapide (1812-1889) Hazparneko Misionestaren paperak" (Charritton: 1992). Guk ez dugu, bistakoa denez, Lardapide honen berri emango. Interesa duenak jo beza aipatu artikulura. P. Charrittonen artikuluko muin nagusia, Lardapide eta misionesten berri zehatz eta aberatsak eman ondoren, Baionako museoan gordetzen zen berrogei orrialdeko eskuidatzi bateko kanturik interesgarrienak argitaratzea izan zen. Lardapideren eskuizkribuak Baionako Erakustokian MS 168 signatura zuen, eta guri dagokigun balada lehen kantua da. Lehena izatea, gure ustez, ez da kasualitate hutsa. Lehentasuna bat dator, beti ere gure ustean, kantuak duen mentu edo gorarekin. XIX. mendean, Arxü zuberotarrak kantu honen esapide bat behintzat (*Nungorik nungo*, hain zuzen) bere hiztegi argitaragabean jaso zuen. Zergatik? Arxük Francisque Michel historialariari hainbat balada eta euskal kantu eman zizkion eta bazekien kantu historikoak izan zezaketen balioa. Arxük, besterik demostratzen ez den bitartean, Lardapideren paperak ikusi eta bere hiztegian jaso zituen hitz zein unitate fraseologikoak. Arxüren uzta, neurri batean behintzat, Retanaren hiztegian jasoa dago, eta nahi duenak jo beza aipatu iturri zein iturbegira.

Berrogei plamako eskuidatziko letra, askotxotan gertatzen denez, ez da nahi bezain argia izaten eta artikulugileak testua ulertu ez ezik, gaurko erara txukun transkribatzen eta puntuatzen saiatzen da. Baladak badu frantsesez emandako azalpen bat, nori bildua den, kantuaren hitz bitxiak eta abar. Euskal literaturan era honetako material zahar eta baliotsu gutxi ditugunez gero, ahal bezainbat saiatuko gara ongi transkribatzen. Charrittonen transkripzioarekin bat etorri arren gehienetan, guk iturrian, lehen dokumentuan dagoen bezalaxe transkribatuko dugu, bere ohar eta zertzeladekin.

4. FRANTSESEZ DAUDEN TESTU ETA ARGIBIDEAK

Batez ere testu bi ematen ditu Lardapide misionestak. Testu bi horiek, era berean, bi aldaera dituzte. Frantsesezko azalpena nagusiki bat izan arren, bi aldaeratan dago. Frantseseko testuei ere ezagutzen diren bi ereduen ondoren daudenez gero, A eta B deituko diegu. Testu bi hauek ez ditu Charrittonek bere artikuluan transkribatu, bai, ordea, bi hauen laburpen bat. Hona Charrittonek dioena:

Lardapideren esku-izkribuaren lehen bizpalau orrialdetan kausitzen ditugu bertso zenbait, idazleak berak dionaren arabera, emazte xahar baten oroimenari puskaka edekiak izan direnak (147 or.).

[1] Antonio Zavala. *Euskal erromantzeak/ Romancero vasco*. Auspoa Liburutegia, 1998, 61-66. or.

Espèce de chansons copiées sous la dictée d'une vieille femme dont la mémoire avait retenu quelques lambeaux dechirés des chansons originales qui devaient être intéressantes quoiqu'elles n'aient quasi ni tête ni queue: elles paraissent avoir quelque valeur comme monument historique: elles sont certainement du temps où il y avait encore un roi de Navarre ayant son palais et sa cour à Pau: et peut-être ailleurs aussi quelques châteaux[2] royaux où la cour pouvait se transporter de temps en temps:

La première chanson est l'histoire de la mort d'un seigneur de Zaldua de Haspar[3] pour laquelle la reine ayant eu quelque attention le roi le fit mourir par sentiment de jalousie.

La seconde parle de la mort tragique provoquée par la même cause d'un seigneur ou Mr. d'Ureta: ce qui prouve qu'il y avait eu ce temps dans le pays basque une maison ou un château appelé Ureta: Où était-ce?... Qui le sait...

Le roi lui fit lancer sept chiens (dogues ou autres) je ne sais ce que c'est sarroina ou sarroinu. Il en avait déjà tué six lorsqu'une femme du palais par une fenêtre lui yeta un tamis de cendre qui lui aveugla les yeux, ce qui donna gain au chien qui le etrangla...

Bigarren testu frantsesak (B testuak) honelaxe dio:

Espèce de chansons copiées sous la dictée d'une vieille femme dont la mémoire avait retenu quelques lambeaux dechirés des chansons originales qui devaient être interessantes quoiqu'elles n'aient quasi ni tête ni queue: elles paraissent avoir quelque valeur comment monument historique: elles sont certainement du temps où il y avait ancore un roi de Navarre ayant son palais et sa cour à Pau et peut-être ailleurs aussi quelques châteaux[4] royaux, où la cour pouvait s'y transporter de temps en temps...

La première chanson est l'histoire de la mort d'un seigneur de Zaldua de haspar: pour lequel la reine ayant eu quelque attention de roi le fit savoir par sentiment de jalousie.

La seconde chanson parle de la mort tragique provoquée par la même dame d'un seigneur ou Mr d'Ureta.

Ce qui prouve qu'ìl y avait eu ce temps dans le pays basque...

Hirugarren testu bat ere badago:

Dans le pays basque, une maison ou un château appelé Ureta! Où etait ce? Qui le sait.

Le roi lui fit lancer sept chiens (dogues ou autres): je ne sais ce que c'est sarroin ou sarroina!

Il en avait déjà tué six lorsqu'une femme du palais par une fenêtre lui jeta un tamis de cendre qui lui aveugla les yeux, ce qui donna gain au chien qui l'etrangla.

Frantsesezko bigarren testua, lehen testuaren oso antzekoa izan arren, laburxeagoa da. Zergatik dira interesgarriak hiru testu hauek? Zuzenean eta zeharka dagoen informazioagatik. Has gaitezen zeharkakoekin. Azken testu honetan biltzaileak dio ez duela ezagutzen *Uretako* gaztelua, jauregia edo jaun-etxea. *Zaldu*ko gazteluaz, ordea, ez dio ezer. Zergatik? *Zaldua* ezagutzen bide zuelako. Honelaxe dio, esaterako, Charrittonek oin-oharrean:

Zaldua Hazparnen *Sault* izeneko jaunen jauregia zen eta bazeuden *Zaldu Zaharrea* eta *Zaldu Berria*, lehena Labirin, bigarrena Zelaian.

---

[2] Eskuidatzian *chateau* dator. Azentu zirkunflexua gurea da.

[3] Maiuskula gurea da. *Haspar* delako hau ez ote da *Hazparne* herri izenaren laburdura? Gu geu baiezkoan gaude.

[4] Jatorrizkoan ez dugu azentu zirkunflexurik ikusten.

Lardapidek, beraz, Zalduatarren etxea ezagutzen zuen Hazparnen eta ez Uretakoa. Frantsesezko testu hauetan, bestalde, badira baladetan ez dauden datu berriak ere. Erregeak zazpi ortzar edo zakur beldurgarri jaurti ondoren, sei hiltzen omen ditu Zalduko jaunak. Jauregiko emakume batek, ostera, bahe bat errauts bota ondoren, zalduna itsutu eta zakurrak errazago itotzen du zalduna. Bahe bat errauts leihotik botatzea eta gizona itsutzea informante edo berriemaile xaharrak kontatuak izan behar dute. Zehaztasun horiek euskal baladan sartuak izango ziren antzinatean... Emakume xaharrak, ordea, xehetasun horiekin balada jantziago eman zion... Antzeko elementuak baditugu beste balada batzuetan *Behin batez yoan ninduzun* baladan Musde Belzuntze ehizara doa bere txakurrekin. Testuan agertzen ez bada ere, badirudi bere orak emakume bat hiltzen dutenak izango direla... Antzeko zerbait gertatzen da *Ura ixuririk* baladan ere: Piarresen horek oreina triskatzen dute.

Historikoki balada interesgarria dela dio biltzaileak. Badirudi Lapurdin, Hazparne inguruan lekutua dagoela gure balada. Hor agertzen den Martin Azantza protagonista Azantzatarren leinukoa zen. Azantzatarrak Kanboko jaun ezagunak izan omen dira. Zaldu(a)tarrak ere Hazparneko etxe ezagun batekoak. Alderdi historiko hau ez da, dena den, gure atal honen helburua. Utz dezagun, beraz.

5. *ZALDUKO JAUNA* A EREDUA

Puntu honetan lehen dokumentutik ateratako lehen transkripzioa eskainiko dugu. Testua XIX. mendekoa denez gero (ez dakigu lehen mende erdikoa edo bigarrenekoa den, ez baita lehen dokumentuan jasotze datarik ematen).

1
Zalduco jauna guerletan
erregueren jendietan
dantzan ari cen
erregueren etchian
eta sala eder batian

2
erreguinac erregueari
nungoric nungo zaldun escutar[i] hori?
Anderia Laphurdico
biciric ez da etcheraco:

3
goraintci! goraintzi
azparnerat orori
ez orori bardinki
ene emazteari hobeki
eta pupuna Anderiari.

4
Jaincoac eman dozola Senharra
guizon thipi on handi
Amac bezain gori
ez duen hihotz-mina





Zalduko jauna eta *Uretako semea* baladak.

6. *ZALDUKO JAUNA* B EREDUA

Puntu honetan Zalduko jauna baladaren bigarren eredua transkribatuko dugu.

1

Zalduko jauna guerletan
erregueren jendietan
danzan ari cen
erregueren etchian
eta sala eder batian..

2

erreguinak erregueari
nungorik nungo zaldun: escutar hori
Anderia Laphurdico
bicirik ez da etcherako

3

goraintzi: goraintzi...
Azparnerat orori
ez orori bardinki..
ene emazteari hobeki
eta ponpouna Andereari

4

Jaincoak eman dozola senharra
Guizon thipi on handi
Amak bezain gori
ez duen biotz-mina...



Uretako semea eta *Zalduko jauna* baladak.

7. *URETAKO SEMEA* A EREDUA

Puntu honetan Uretako semea baladaren lehen eredua transkribatuko dugu.

1
Goizean hotz da eguerdico bero da
Uretaric lanhoa atheratcen da
Martin Azanza Uretanra badoha
badoha, bainan amaren manuz ez doha

2
Martin Azanza satin morez da beztitu
[K]Alean gora guitharra soinuz phassatu
erreguina leïhoan guerthatu

3
erreguinac bere Anderaurenari
nungoric nungo, Zaldun: escutar[i] hori?
ez da ez hori ez zaldun ez escutari
uretaco semea da hori

4
Arranda bat eman nezake
Hura etzan den sabelari
Bai eta benedica hari eman dion uhat[za]

5
Ichter beguiek laster zaïen erregueri
Erreguec berehala gutunarekin mandatar[i]
Khausi dadila haren cortean laburzki

6
Botaq janxi eta igan zaldiari
eta eman lasterrari...
Jaincoac egun on dizula erregueren corte[a]
Bai eta hiri ere Uretaco Semea!

7
Martin Azanza, hi omen hut traidore
bai Martin Azanza hi omen hut traidore
ez nauzu ni traidore
ez ene linian batere
traidoreac badira ere zure leinian dire
eta zu cerori heyer ogui emaile

8
Bai martin Atzanza hi omen hut traidore
Salbu ordena eta guezurra dioc Erregue
Ez khoroa sal truq ere, Uretaco semea

9
guerthuri[k], erregue, ez nuc orhoitu ere
martin Azanza gudulariz gudulari
nic dauzkiat zazpi sarroin hor

10
Sarroin horïq ez dagosu guizonari
Indatzu zazpi zaldun escutari
Eta cerori heyen guidari

8. *URETAKO SEMEA* B EREDUA

Gure lan sistemari jarraiki lehen dokumentuak jatorrizko ortografian transkribatzen ditugu. Puntu honetan azken aldaera transkribatuko dugu.

1
goizean hotz da, eguerdiko bero da;
uretarik lanhoa atheratcen da
martin Azanza uretara badoha.
badoha, bainan amaren manuz ez doha.

2
martin Azantza satin morez da beztitu,
[K]alean gora guitharra soinuz phassatu,
Erreguina, leïhoan guerthatu.

3
erreguinak bere Anderaurenari:
nungorik nungo, zaldun, escutar[i] hori?
ez da ez hori ez zaldun, ez escutari
uretako semea da hori...

4
Arranda bat eman nezake
hura etzan den sabelari
bai eta benedika hari eman dion uhatxa.

5
ichter beguiek laster zaïen erregueri
erreguek berehala gutunarekin mandatari
khaussi dadila haren kortean laburzki.

6
botak janxi eta igan zaldiari
eta eman lasterrari...
yaincoac egun on dizula
erregueren cortea
baï eta hiri ere Uretako semea
martin Azanza

7
Martin Azanza hi omen hut traidore!...
Bai martin Azanza hi omen hut traidore!...
ez nauzu ni traidore
ez ene linean batere,
traidoreak badira ere zure linian dire,
Eta zu zerori heier ogi emaile".

8
bai martin Azanza hi omen hut traidore!
Salbu ordena eta, guezurra diok errege
ez khoroa sal truk ere, Uretako Semea".

9
guezurthi erregue, ez nuk erregue ere
Martin Azanza, gudulariz gudulari...
nik dauzkiat zazpi sarroin hor

10
Sarroin horik ez dagozu guizonari.
In datzu zazpi zaldun escutari
eta cerori heyen guidari.

9. *ZALDUKO JAUNA* BALADA AHAPALDIZ AHAPALDI

Lehen eredu honek oso ahapaldi gutxi ditu. Hona argudioaren hari nagusia. Erregina maitemindu egiten da Zalduko jaunaz eta erregeak hil egiten du delako Zalduko jauna. Bersio honetako bigarren ahapaldia eta ondoren emango dugun baladako hirugarrena antzerakoak dira. Gainerakoan, bateratasun gutxi daude. Balada hau *Behin batez yoan ninduzun* baladarekin erkatuko dugu.

1
(A)
Zalduco jauna guerletan
erregueren jendietan
dantzan ari cen
erregueren etchian
eta sala eder batian

(B)
Zalduko jauna guerletan
erregueren jendietan
danzan ari cen
erregueren etchian
eta sala eder batian.

Zalduko jauna gerletan/ erregeren jendietan/ dantzan ari zen/ erregeren etxian/ eta sala eder batian.

Eskuidatziko bi transkripzioetan zein Charrittonenean ez dago diferentzia handirik. Esangurari gagozkiola, ilunxkoa da. Zalduko jauna Erregearen etxean, jauregi eder batean dantzan ari da. Pentsatzekoa da erregina maitemindu egiten dela dantzan ari den Zalduko jaun ederraz. Esangurari gagozkiola, ilun gelditzen da Zalduko jauna gerletan egotea, erregearen jauregian dantzan ari baita.

Ahapaldi honek *Behin batez yoan ninduzun* baladako lehenarekin badu eite bat: *Behin batez yoan ninduzun/ Isturitzeko plazarat,/ andre eder bat ikusi nuen/ dantza-buruan zuhala*. Gurean alderantziz da, emakumea da jaun eder bat dantzan ikusten duena...

Charritton: *Zalduko Jauna gerletan/ Erregeren jendietan,/ Dantzan ari zen,/ Erregeren etxian,/ Eta sala eder batian*.

2

(A)

erreguinac erregueari
nungoric nungo zaldun escutar[i] hori?
Anderia Laphurdico
biciric ez da etcheraco:

(B)

erreguinak erregueari
nungorik nungo zaldun: escutar hori
Anderia Laphurdico
bicirik ez da etcherako

Erreginak erregeari: —Nungorik nungo zaldun eskutari hori?/ —Anderia, Laphurdiko/ Bizirik ez da etxerako.

Autu edo elkarrizketa zorrotzez hornitua dago ahapaldi hau. Erreginak galdetzen dionean senarrari nongoa den zalduna bere interes eta amodioa agertzen du. Erregeak, bizirik ez dela etxerako dioenean, zeloti eta herratsu agertzen du bere burua. Nongoa den jauna hemen garbiro esaten da: Lapurdikoa. Baladaren lekutzea sinadura bezalakoa da. Beste ereduan ez da agertzen.

Bigarren ahapaldia ere "Behin batez..." horren bigarrenarekin du zerikusia: *Atsoño bati galde egin nion: —Nongoa da andre eder hori?/ —Murde Belzunze, hori duzu Agerreko alaba*. Norbaiti begia ezarri ondoren nongoa den galdetzen dio Murde Belzunzek. Gure baladan erreginak galdetzen du nongoa den zalduna...

Ahapaldi honetako bi ereduetan, itzulpen bat dator *zaldun* eta *escutar* hitzen azpian edo ondoan. *Zaldun* hitzaren ondoan/azpian "chevalier" eta *escutar* horren ondoan/azpian "écuyer".

Charritton: *Erreginak erregeari:/ Nungorik nungo/ Zaldun eskutari hori?/ —Anderia, Lapurdiko./ Bizirik ez da etxerako*.

3

(A)

goraintci! goraintzi
azparnerat orori
ez orori bardinki
ene emazteari hobeki
eta pupuna Anderiari.

(B)

goraintzi: goraintzi...
Azparnerat orori
ez orori bardinki..
ene emazteari hobeki
eta ponpouna Andereari

Aurreko ahapaldian Lapurdiko zigilua ikusten genuen. Hemen Lapurdiko lekua markatzen da zehazki: Hazparne. Transkripzioari gagozkiola, bi ereduetan *bardinki* ikusten dut, Charrittonenean *berdinki*. Hitzei gagozkiola, *pupuna* eta *ponpouna* hauen artean *pupuna* da aldaerarik inportanteena. *Pupuña* hitza *panpiña*-ren aldaera izan daiteke, eta emakume eder eta lirain adierazi nahi du. "Behin batez..." baladan ere agertzen da: *—Ene alaba Kattañiñaño/ hitz emanikan dagozu;/ haren ondoko pupuñaño,/ jauna, plazer baduzu*.

Charritton*: Goraintzi! Goraintzi!/ Hazparnerat ororí./ Ez ororí berdinki,/ Ene emazteari hobeki,/ Eta pupuna andereari*.

4

(A)

Jaincoac eman dozola Senharra
guizon thipi on handi
Amac bezain gori
ez duen hihotz-mina

(B)

Jaincoak eman dozola senharra
Guizon thipi on handi
Amak bezain gori
ez duen biotz-mina...

J*ainkoak eman dozola senharra/ gizon thipi on handi/ amak bezain gori ez duen bihotz-mina*.

Charrittonek eskaintzen duen transkripziotik bi kontutxo desberdin aipatuko ditut. Adizkiei gagozkiela, *dezola* ikusten du Charrittonek. Bi ereduetan, ostera, *dozola* ikusten da. Lehen ereduan, beharbada, *dorola* irakurtzeko arriskua dago. Beste alde batetik bihotz-mina *gori* edo *gorri* ote da? Eredu bietan guk *gori* ikusten dugu, inolako dudarik gabe. Bihotz-mina gorri irakurriko bagenu, metafora polit bat legoke: bihotzeko zauria, minez odoletan dago... zauria hertsi gabe odola dariola dago, *gorri*... Bihotz-mina *gori* ez da, guk uste, galdatan edo *gori-gori* egotea txingar irazekietan goritutako burdina bezala. Bestaldeko tradizioko *gori* hitz honek "fertile, fécond, abondant" euskaraz *ugari* adierazten du[5]... Edo figura polit bat eginez adiera biak. Anfibologia edo polisemia interesgarri bat eginez...

Charritton: *Jainkoak eman dezola senarra/ Gizon tipi on handi/ Amak bezain gorri/ Ez duen bihozmina*.

10. *URETAKO SEMEA*-REN BI TESTUEN TRANSKRIPZIOA

Atal honetan ere bi testuetako ahapaldiak jarriko ditugu bata bestearen ondoren. Bi ahapaldien ondoren, bietatik osatu daitekeen gure transkripzio-testua jarriko dugu. Testu honek gure puntuazioa eta erabakiak ere bilduko ditu. Oraingo honetan ere zenbait iruzkin egingo ditugu. Eskuidatziko bi transkripzioak direla eta, lehen bost ahapaldiak zenbakituak daude, gainerakoak osorik ez daudenez gero, batera emanak daude. Guk, geure atal honetan, Charrittonen transkripzioa eredua jarraituko dugu. Bosgarren ahapalditik aurrerakoak desegin eta desitxuratuak daudenez gero, ezinezkoa dirudi ahapaldiak bertso-lerroetan tolestea.

1

(A)

Goizean hotz da eguerdico bero da
Uretaric lanhoa atheratcen da
Martin Azanza Uretanra badoha
badoha, bainan amaren manuz ez doha

[5] Hitz hau *jori* bezala ere dokumentatzen da. Leizarragak *heuragi* erabiltzen zuen, eta hortik bide dator ugari Mitxelenak dioenez. Ikus *Fonética histórica vasca* heuragi hitzean.

(B)

goizean hotz da, eguerdiko bero da;
uretarik lanhoa atheratcen da
martin Azanza uretara badoha.
badoha, bainan amaren manuz ez doha.

Goizean hotz da eguerdiko bero da;/ Uretarik lanhoa atheratzen da./ Martin Azantza Uretara badoha./ Badoha, bainan amaren manuz ez doha.

Bi testuetako lehen ahapaldi hau izan daiteke jatorrizko kantaren lehen ahapaldia ere. Zergatik? Kopla zaharretako teknikaduna delako bete-betean. Era horretako sarrerak edo exordio indartsuak balada batek baino gehiagok dituzte. Bereterretxeren kantorearena da ezagunenetakoa, dudarik gabe. Era horretako sarreran, izadian ikusi ohi ditugun fenomenoak ageri dira. Ahapaldi honetan ere argi ikusten da diogun kontu hori.

Transkripzioari dagokionez, *Uretaric* eta *Uretanra/Uretara* biak ote dira izen propio? Halaxe uste dugu, izen propioak ez balira eta pluralean ez baleude, *urera(t)* eta *uretik* izango litzatekeelako Lapurdiko euskaraz. Adibideak milaka eman daitezke. "Goizean goiz jeikirik" kantan honela ikusten dugu: *Goizean goiz jeikirik, argia gaberik/ Urerat joan ninduzun, pegarra harturik*. Harritzen gaitu Charrittonek bata maiuskulaz eta beste minuskulaz agertua. Era berean, ablatiboa kasu bietan da *Uretaric* eta ez, inondik inora ere, *Uretatik*.

Charritton: *Goizean hotz da, eguerdiko bero da;/ Uretatik lanhoa ateratzen da./ Martin Azantza uretara badoa./ Badoa, bainan amaren manuz ez doa*.

2

(A)

Martin Azanza satin morez da beztitu
[K]alean gora guitharra soinuz phassatu
erreguina leïhoan guerthatu

(B)

martin Azantza satin morez da beztitu,
[K]alean gora guitharra soinuz phassatu,
Erreguina, leïhoan guerthatu.

Martin Azantza satin morez da beztitu,/ [k]alean gora githarra soinuz phasatu,/ erregina leihoan gerthatu.

Ahapaldi honetan bi transkripzioak bat datoz. Hitzei dagokienez, *alean gora* hori, baliteke [*k]alean gora* izatea. Harrigarri baino harrigarriago egiten zaigu *karrika* ez agertzea, askoz ere egokiago izango litzatekeelako lapurteraz. Errege eta jaun handikien jantziaren ezaugarria dugu *satin morea*. Martin Azantza satin morez jaztea jauntasunaren seinale argia da.

Charritton: *Martin Azantza satin morez da beztitu,/ Kalean gora gitarra soinuz pasatu, / Erregina, leihoan gertatu*.

3

(A)

erreguinac bere Anderaurenari
nungoric nungo, Zaldun: escutar[i] hori?
ez da ez hori ez zaldun ez escutari
uretaco semea da hori

(B)

erreguinak bere Anderaurenari:
nungorik nungo, zaldun, escutar[i] hori?
ez da ez hori ez zaldun, ez escutari
uretako semea da hori...

Erreginak bere anderaurenari: —Nungorik nungo zaldun eskutari hori?/ —Ez da ez hori ez zaldun, ez eskutari/ uretako semea da hori.

Ahapaldi honetan ere batera datoz bi transkripzioak. Ahapaldi honen oso antzerakoa da gorago ikusi dugun ereduko bigarrena. Ezer harrigarri egiten bada eskutar hitza da. Arxük eta Retanakoek ere berdin transkribatzen dute. Ez da dudarik "escutar" *eskutari* denik. Zergatik, beraz, horrela eman?

Charritton: *Erreginak bere anderaurenari:/ "Nungorik nungo zaldun eskutari hori?/ —Ez da ez hori ez zaldun, ez eskutari,/ Uretako semea da hori"*.

4

(A)

Arranda bat eman nezake
Hura etzan den sabelari
Bai eta benedica hari eman dion uhat[za]

(B)

Arranda bat eman nezake
hura etzan den sabelari
bai eta benedika hari eman dion uhatxa.

Arranda bat eman nezake/ hura etzan den sabelari,/ bai eta benedika hari eman dion ugatza.

Bi transkripzioak bateratsu datoz oinarrian. Uretako zaldunaren amaren goraipamena egiten da semearen edertasuna eta handitasuna goratuz. *Arranda* hitza ondo dokumentatua dago bestaldeko tradizioan, batez ere Zuberoakoan. Hitzik ilunena *uhat[za]* edo *uhatxa* transkripziopean gordetzen dena da. Charrittonek bete-betean asmatu duela deritzagu: *ugatza*. Amaren gorputz-alderdien gorantza egiten duela lehen hitza *sabela* da eta bigarrena *ugatza*.

Charritton: *Arranda bat eman nezake, /Hura etzan den sabelari,/ Bai eta benedika hari eman dion ugatza*.

5

(A)

Ichter beguiek laster zaïen erregueri
Erreguec berehala gutunarekin mandatar[i]
Khausi dadila haren cortean laburzki

(B)

ichter beguiek laster zaïen erregueri
erreguek berehala gutunarekin mandatari
khaussi dadila haren kortean laburzki.

Ixterbegiek laster zaien erregeri,/ erregek berehala gutunarekin mandatari,/ khausi dadila haren kortean laburzki.

Lau hitz behintzat desberdin transkribatu ditugu Charrittonen testutik. Lau hitzetan, gainera, bateratasuna dago jatorrizko testu bietan. Lehenean, *ister/ixter* dugu zalantza. Ez dago dudarik bi aldiz

argiro ikusten dugun "Ichter beguiek" gure erara *ixterbegiek/-ak* transkribatu behar denik. *Ichter-*(...) horretako bustidura, zer da adierazkorra edo automatikoa? Bestela esan, zer esan nahi du *areriotxoek* edo *arerioek*. Pentsatzekoa da orain dela ehun eta berrogeita hamar urte hasi zela Iparraldean *trixte, ixtorio* eta abarretan (*ist–* kontestuetan) bustidura automatikoa. Gure adibide hau ere tankera horretakoa da, inolaz ere. Ahapaldi bakoitzean bi aldiz agertzen da errege hitza. Bi era horietan beti mugagabean ikusten dugu *erreguec/erregueri*. Bi transkripzioetan argi ikusten dugu. Ez dugu, beraz, dudarik ttipiena ere izan. Bi transkripzioetan argi ikusten dugu *cortean* eta ez inondik ere *gortean*[6]. Hurrengo ahapaldian ere berdin ikusten dugu *corte-*, nahiz honetan ere Charrittonek *gorte-* transkribatu. Laugarren hitza *laburzki* dugu, eskuizkribuko bi transkripzioetan berdin ikusten duguna, Lapurdiko tradizioan agertzen den bezalaxe, eta ez inondik ere *laburki*.

Charritton: *Isterbegiek laster zaien erregeri,/ Erregeak berehala gutunarekin mandatari,/ Kausi, dadila haren gortean laburki*.

6

(A)

Botaq janxi eta igan zaldiari
eta eman lasterrari...
Jaincoac egun on dizula erregueren corte[a]
Bai eta hiri ere Uretaco Semea!

(B)

botak janxi eta igan zaldiari
eta eman lasterrari...
yaincoac egun on dizula
erregueren cortea
baï eta hiri ere Uretako semea
martin Azanza

Botak ja(u)ntzi eta igan zaldiari/ eta eman lasterrari.../ Yainkoak egun on dizula/ erregeren kortea.

Jatorrizko bi transkripzioetan ez dago aldaera nabarmenik. Bigarren transkripzioan *Uretako semea* horren gehigarria aposizio esplikatiboa da: *Martin Azantza*. Ahapaldi honetako gauzarik markagarriena da Charrittonek ez transkribatzea bi ereduetan agertzen den "eta eman lasterrari". Beste alde batetik, "janxi" irakurtzen dugu bi ereduetan. Charrittonek Lapurdiko tradizioari jarraiki "jauntzi" transkribatzen du. Ahapaldi honetan ere, aurrekoan bezala, ez dugu dudarik egin: *cortea* irakurtzen dugu eta ez *gortea*.

Charritton: *Botak jauntzi eta igan zaldiari:/ "Jainkoak egun on dizula, erregeren gortea!/ — Bai eta hiri ere, Martin Azantza, Uretako Semea"*.

7

(A)

Martin Azanza, hi omen hut traidore
bai Martin Azanza hi omen hut traidore
ez nauzu ni traidore
ez ene linian batere
traidoreac badira ere zure leinian dire
eta zu cerori heyer ogui emaile

[6] Harrigarria badirudi ere, berdin gertatzen zen Azkuek transkribatu zuen *Conde Flores* baladan. Eskuidatzian *korte* idatzi arren Azkuek, argitaratzeko orduan *gorte* ipini zuen.

(B)

Martin Azanza hi omen hut traidore!...
Bai martin Azanza hi omen hut traidore!...
ez nauzu ni traidore
ez ene linean batere,
traidoreak badira ere zure linian dire,
Eta zu zerori heier ogi emaile".

Martin Azantza, hi omen hut traidore/ bai, Martin Azantza, hi omen hut traidore!/ —Ez nauzu ni traidore, ez ene l[e]inuan batere/ traidoreak badira ere zure l[e]inian dire,/ eta zu zerori heier ogi-emaile.

Elkarrizketa indartsua Martin Azantza eta erregearen artekoa. Bi ereduetan errepika bat agertzen da. Errepika hau ez du jaso Charrittonek. Hitzei gagozkiela, *leinu* hitza, beti inesiboan dagoela, hiru eratara agertzen da: *linian/ leinian/ linean*. Adizkiei gagozkiela, *hut* agertzen da beti *haut* formaren aldaera bezala, baina *nauzu* eta ez *nuzu*. Duda handiagoa dugu *dira* atzizkiarekin. Baldintzan, eredu bietan, *badira* ikusten dut, baina *dire* bertso-lerro bukaeran, *traidore* eta *emaile* hitzekin hoskide dela.

Charritton: *"Martin Azantza, hi omen hut traidore!/ -Ez nauzu ni traidore, ez ene leinian batere,/ Traidoreak badira ere, zure leinian dire,/ Eta zu zerori heier ogi emaile"*.

8

(A)

Bai martin Atzanza hi omen hut traidore
Salbu ordena eta guezurra dioc Erregue
Ez khoroa sal truq ere, Uretaco semea

(B)

bai martin Azanza hi omen hut traidore!
Salbu ordena eta, guezurra diok errege
ez khoroa sal truk ere, Uretako Semea".

Bai, Martin Azantza, hi omen hut traidore!/ —Salbu ordena eta gezurra diok, Errege,/ ez khoroa sal truk ere, Uretako Seme.

Aurreko ahapaldian zuka egiten dio Martin Azantzak erregeari. Oraingoan berotu dira eta hikara pasatzen da M. Azantza. Euskarari dagokionez, badago kontu interesgarri bat. Martin Azantzak erregeari *gezurti* deitzeko *salbu eta* aurrekaria erabiltzen du. Hitz hau askotan erabiltzen zuten euskaldunek. Pertsonak animaliekin konparatzeko, esaterako, *arima salbu* erabiltzen zen: *txerria dirudizu, arima salbu*[7]. Hemen erregeari gezurti deitzea gogortxoa denez, *salbu ordena eta* aurrekaria dator.

Charritton: *"Bai Martin Azantza, hi omen hut traidore!/ -Salbu ordena eta gezurra diok Errege,/ Ez koroa sal truk ere Uretako Semea"*.

9

(A)

guerthuri[k], erregue, ez nuc orhoitu ere
martin Azanza gudulariz gudulari
nic dauzkiat zazpi sarroin hor

[7] Mahaian hitz gordintxo edo gogortxoak esateko, adibidez, *mahaia salbauta* esan eta gordinkeria zetorren. *Salbu arima* edo *arima apartatuta* esapideek zein hedadura izan duten ikusteko, jo bedi *Orotariko* hiztegiko *arima* sarrerara.

(B)

guezurthi erregue, ez nuk erregue ere
Martin Azanza, gudulariz gudulari...
nik dauzkiat zazpi sarroin hor

—Gezurti/ gerthurik, errege, ez nuk orhoitu ere/ Martin Azantz, gudulariz gudulari/ —Nik dauzkiat zazpi sarroin hor.

Bi transkripzioetan ez dago bateratasunik. Hitz bat desberdin irakurtzen da batean eta bestean. Lehen transkripzioan *guerthuri[k]* irakurtzen dugu eta "dirudienez", "ausaz" edo horrelako zerbait adierazten du. Adberbio hori *gerthuz* baten baliokide da. Bigarrenean hitz horren lekuan *guezurthi* dator. Beste desberdintasun bat ere badago lehen transkripzioan *orhoitu* ikusten dugu, eta bigarrenean *erregue*. *Gudulari* hitza Silvain Pauvreauk eta Duvoisinek ere agertzen dute. Hitz bitxiagoa da, inolaz ere, *sarroin hor*. Hitz hau birritan dokumentatzen da balada honetan, X. eta XI. ahapaldietan. Pentsatzekoa da hitz honen bidez esaten zena gora handikoa izan behar zuela emakume xahar berriemailearen azalpena frantsesez ere jaso baitzuen Lardapidek. Sarroin –hor– hau txakur klase bat da eta transkribatzaileak ere ez zekien zer adierazten zuen *sarroin* delakoak. Sarroin-hor horretan hitz konposatuaren bigarren elementua garbi dago *(h)or*, hau da, "txakurra". Hitz hau tradizio zaharrean, Euskal Herri osokoa zen, are Bizkaikoa ere. Gaur egun ekialdeko tradiziokoa dugu, batez ere. Guk asmatu uste dugu sarron-hor hitz horren esangura. *Sarroin-or* ez da besterik *sagarroi-hor* baino. Eta zer da sagarroi-hor? *Sagarroia* "kirikioa" edo "trikua" da. Hitz hau ondo baino hobeto dokumentatua dago. Halaxe erabiltzen zuten autore klasikoek, Axularrek eta abarrek. *Sagarroi* hitzaren laburdura *sarroi* dugu. Sarroi hitza ere ondo dokumentatua dago batez ere XIX-XX. mendeetan. Hitz konposizioa denez gero, *sarroiN-or* ikusten dugu. Eta zer adierazten du horrek? Txakur armatua dugu, *sarroin-(h)ora* lepoko iltzeduna duen txakurra. Lepoko iltzeduna zuten txakurrak otso-zakurrak ziren, gazteleraz "mastín" eta otsoen kontra erabiltzen ziren[8]. Erregeak Martin Azantza menderatzeko zazpi *hor iltzedun* bota nahi dizkio, zazpi triku-txakur... Elkar hizketa honetan garbi dago *—Gezurti/ gerthurik, errege, ez nuk orhoitu ere* gure protagonista Martin Azantzak dioela. Mehatxua edo zemaia, ostera, Erregearen ahotik etorriko da: *— Nik dauzkiat zazpi sarroin hor.* Hau da, zuk niri gezurti esan didazu eta erantzuera horren sari izango dituk hi triskatuko hauten lepoko iltzedun zazpi txakur.

Joan gaitezen orain beste kontu batera *—Martin Azantza, gudulariz gudulari* dioenean zer dio Erregeak? Uste dugu *duelo* edo borroka batera deitzen diola Erregeak Martin Azantzari. *Gudulariz gudulari* hori ez da besterik erderaz "(un duelo) de guerrero a guerrero" baino. Giza-borroka edo duelo horretan, ordea, Erregeak abantaila handiarekin jokatu nahi du zazpi sarroin-orekin, eta zazpi sarroin-or zortzi gizon armatu baino gehiago dira...

Charritton: "Gezurti Erregue, ez nuk oroitu ere,/ Martin Azantza, gudulariz gudulari,/ Nik dauzkiat zazpi sarroin hor".

10

(A)

Sarroin horïq ez dagosu guizonari
Indatzu zazpi zaldun escutari
Eta cerori heyen guidari

[8] Berez, ez da dudarik. *sarroin-hor* metafora formal bat dugu, sagarroiak bezala iltzeak dituen txakurra. Erderaz otso-zakurren lepokoari *collar de púas* deitzen diote edo *carlanca de mastín*. Era horretako lepokoaren berri izan nahi duen irakurle ikusmindunak jo beza *Ganadería y pastoreo en Vasconia*, Atlas etnográfico de Vasconia, Bilbao, 2000, 554 or. eta aurrerakoak.

(B)
Sarroin horik ez dagozu guizonari.
In datzu zazpi zaldun escutari
eta cerori heyen guidari..

—*Sarroin horik ez dagozu gizonari/ indatzu zazpi zaldun eskutari/ eta zerori heien gidari*.

Azken ahapaldi honetan bi transkripzioak berdintsuak dira. Charrittonen testutik dagoen diferentzia hauxe da: guk "dagozu" irakurri duguna Charrittonek "dagoko". Beste aditz bati gagozkiola, *indazu* adizkiak objetu zuzen singularra adieraziko luke eta *indatzu* objetu zuzen plurala. Era horretara, *dagokizu* gurea *dagozu* bada, *dagozkizu* ez ote litzateke *dagotzu* izango?

Joan gaitezen, azkenik, esangurara. Erregeak zazpi txakur armaturekin mehatxatzen duenean Martin Azantza, honen erantzuna zorrotza baino zorrotzagoa da. Zazpi txakur iltzedun botatzea ez dagokio gizonari, ez dagokio jaun bati, ez dagokio errege handi bati. Honelako zerbait esan nahi du Martin Azantzak: *Nahiago dut zazpi zaldun ezkutari botatzea zu zeu errege gidari zarela*. Zazpi gizon armatu baino beldurgarriagoak zirelako zazpi hor iltzedun edo sarroin-hor. Erregeak egiten dion mehatxua gizon kaxkar eta ohoregabeko batena omen.

Sarroin horik, beraz, *hor* hitza partitiboan dela ulertu behar da. Bestela esan, *txakur iltzedunik ez dagokio gizonari*...

Charritton: *"Sarroin horik ez dagoko gizonari./ Indatzu zazpi zaldun eskutari/ Eta zerori heien gidari"*.

11. AZKEN ONDORIOA

Bi balada transkribatu ditugu. Bi baladak, aski desberdinak badira ere itxuraz, bat bera dira funtsean. Bi baladetako bakoitzak, era berean, bi transkripzio ditu. Transkripzio horiek beren itzal-argiekin lan honetara ekartzea izan da gure jomuga. Zenbait kontutan oinarri sendoaren gainean ibili garela iruditu zaigu. Duda egin dugunean ere gure dudaren berri eman dugu. Hemen eman ditugun bi ereduak balada gutxirenduak edo deseginak dira, inolaz ere. Emakume xahar baten memoriatik erreskatatutako puskak. Puska horiek beren ezerezean dugun balada baten testigu bakarrak dira oraingoz. Puska horiek ahalik eta ondoen ematea izan da gure asmo xumea.

14
URRUTIAKO ANDEREA BALADA

1. SARRERA

Urrutiako anderea kutsu zaharreko euskal balada zoragarria da. Euskal jatorriko *Hauzeko anderia*, *Bereterretxeren kantorea* eta *Urtsuako balada* bezala, euskal balada historikoetan dagoen alerik preziatu eta ederrenetakoa da, inolako dudarik gabe. *Urrutiako anderea* balada lehen aldiz, 1963. urtean, Jean Haritschelharrek transkribatu eta euskal ikertzaileentzat gai ederra zela adierazi zuen artikulu batean (Haritschelhar: 1963). *Urrutiako anderea* balada Jesus Maria Leizaolak, EB lan taldekoek, Txomin Peillenek eta Patri Urkizuk aztertu eta iruzkindu dute. A. Zavalak bere baladategian balada historikoen sailean*, Sortu nintzan Etxauzian* izenburuarekin gure baladaren transkripzioa eskaini zuen.

Euskal jatorriko balada honek pertsonaia Euskal Herriko etxe-izen ezagunetako pertsonaiak ditu protagonista. Nafarroa Behereko Baigorriko Etxauzeko andrea eta Zuberoako Altzürükü herriko Urrutia etxeko jauna. Balada honen gaineko alderdi historikoa, etxe-izenena, eta abar Patri Urkizuk egin zuen.

2. BALADAREN IZENA *URRUTIAKO ANDEREA*

Nola deitu atal honetan iruzkinduko dugun balada? Biderik egokiena orain arteko ikertzaileek finkatu eta onartu dutena da, inolako dudarik gabe. 1963. urtean, aztergai dugun balada lehen aldiz argitaratu zenean Haritschelharrek *Urrutiako anderiaren kantia* deitu zion. Jesus Maria Leizaolak 1978. urteko *El refranero vasco antiguo y la poesia vasca* lanean ere Haritchelharren izendapen bera erabili zuen. EB taldekoek ere *Urrutiako anderea* deitu zioten eta Patri Urkizuk aurreko ikertzaileen ildoari jarraiturik *Urrutiako anderea* deitzen dio. *Urrutiako anderea* izendapena, beraz, egokia eta adierazkorra da. Izendapenari berari dagokionez, gure balada *Hauzeko anderia*, *Frantziako anderea* baladen sailekoa da. Zuberoako bokalismoari kasu eginez, ordea, *Ürrütiako anderea* izan beharko luke, baina orain arteko tradizioari eutsi eta gure aurretikoek bezala *Urrutiako anderea* izendatuko dugu.

3. BALADAREN ARGUDIO ETA PERTSONAIAK

Hauzeko anderia baladaren gainean esandako argibide asko ondo datoz gure *Urrutiako anderea* baladarako ere. *Urrutiako anderea* baladaren argudioa honelaxe laburtuko genuke hitz bitan. Baigorriko Etxauzeko jauregi edo handietxeko andrea Zuberoara ezkontzen da. Baigorriko Etxauseko andrea

Altzürüküko Urrutia jaunarekin ezkontzen da. Senar-emazteak, bi-biak dira handikiak. Urrutiako jaunak eta herriko erretoreak, ordea, bake txarra ematen diote emazteari. Urrutiako jaunak emaztea gaizki tratatzen du eta batetik bestera, sukaldetik logelara, arrastaka erabili ohi du. Halako batean, Urrutiako anderearen nebak, Etxauzeko bizkondeak, zaldi urdina hartu eta bere arreba salbatzeko erabakia hartuko du. Urrutiako anderearen neba, Etxauzeko bizkondea, Urrutiako jauregian sartzen denean Urrutiako jaunak leihotik ihes egingo du. *Urrutiako anderea* baladaren gaineko lehen transkripzioa eta azterketa-ildoak Jean Haritschelharrek markatu zituen bere 1963. urteko *Gure Herria* aldizkariko artikuluan (Haritschelhar: 1963). Hona zer dioen:

> Gure kantu zaharretarik bat da: *Urrutiako anderiaren* kantia[1]. Hortaz mintzatu da ederki Jean de Jaurgain (Quelques légendes du Pays de Soule). Dio kantu horrek Ahetzeko anderia zela ezkondu Altzuruku Urrutian. Bainan 1857an Francisque-Michelek kantu ber-bera agertarazi zien bere liburu ederrian. Huna hastapena.
>
> Hauzeko anderia
> Urrütian khorpitzez;
> Hor dizü bere büria,
> Kampoan da bihotzez.
>
> Jaurgainek kambiatu zien lehen neurthitza ezarriz
>
> Ahetzeko anderia
> Urrütian khorpitzez.
>
> etzielakotz nihun ere atxeman Hauzeko andere bat ezkondu zela Urrüti[a]ko jaun batekin et aldiz, ikusi zielakotz Menauton de Rutie eta Domenge d'Ahetze ezkondu zirela 1422an. Damurik ez dakigu, paper zaharretarik ateraturik, ezkondu zen Etxauzeko andere bat Altzuruku Urrutian. Hala dio Augustin Chahoren paperretan denkantu eder batek, zaharra hori ere dudarik gabe.
>
> Eta orai emanen dudan Etxauzeko anderiaren kantia berriz irakurtzen dudalarik, nago bi kantu horien "sujetak" direla behar bada presuna bakar bat eta izan ditaikela Ahetzeko edo Hauzeko anderia Etxauzeko anderia zela.
>
> Dena den, badute oraino lan, Eskual-ikertzalek. Telesforo Monzón jauna, Chahoren paperren jabe berriak, hartuko ditu hemen ene eskerrik beroenak.

Horra bada, Haritschelharren pasartea. Gure zeregina, ordea, ez da izango alderdi historikoa lantzea. *Hauzeko anderia* baladaren gainean, balada hori aztertu eta eredu berri bat eman dugunean hitz egin dugu horretaz.

4. *URRUTIAKO ANDEREA* ETA *HAUZEKO ANDERIA* BALADAK: BATERATASUNAK

Urrutiako anderea eta *Hauzeko anderia* bi balada desberdin dira. *Urrutiako anderea* Chahoren kantutegikoa da eta lehen aldiz 1963. urtean eman zen argitara; *Hauzeko anderia* Arxük Francisque Micheli eman eta 1857an argitaratu zen. *Hauzeko anderia* baladaren beste eredu bat eskaini dugu balada honi dagokion lekuan, ezagutzen zenaren antzekoa, baina beste bat. Bi baladen testuak guztiz diferenteak badira ere, edukian zenbait gauzatan bat datoz. Andere biak ezkontzen dira Urrutia jaunarekin eta Urrutia jaunak, gaizki tratatzen du emaztea. Bi ereduetako ahapaldi bat, gainera, oso antzekoa da. *Hauzeko anderia* baladako seigarren ahapaldia hauxe da:

---

[1] Haritschelharrek gidoien artean eta beltzez dakar: "**Urrutiako anderiaren**" kantia.

Elhe hoiec ahotic
Jalkitzen zielaric,
Urrutiac bilhoti
Therresta du ibili.

Urrutiako anderea balada eredu nagusiaren laugarren ahapaldia hauxe da:

Kosinatin kanberala
khanberati kosinala
hirouretan ungurarac zeïtan
Bilho adatza eskietan.

Balada eredu bietan senarrak emaztea iletik hartu eta arrastaka erabiltzen du. *Hauzeko anderia* baladan *Urrutiac bilhoti therresta du ibili* dio. *Urrutiako anderea* baladan zehaztasun handiagoz eta kiasmo baten bidez: *k[h]osinati[k] kanberala/ khanberati kisinala*.

Balada bietan badira nolabaiteko antzekotasun harrigarriak ere. *Hauzeko anderia* baladan senarra emaztearen beldur da. Uste du amoranteren bat duela. *Urrutiako anderea* baladan, ordea, Urrutiako jaunak ditu amoranteak.

Balada biek, beraz, argudioaren lehen erdia antzekoa dute. *Urrutiako anderea*, bestalde, baladaren Chahoren kantutegian aurkitzen da. *Urrutiako andere* baladaren bi transkripzio aurkitzen dira Chahoren kantutegian, bata, 166 argazkian, eta, bestea, 228an. Bi argazkietan datozen ereduak ez dira esku berak transkribatuak, letra diferentea baitute. 166 argazkiko eredua 228 argazkiko ereduaren garbiratzea da.

5. *URRUTIAKO ANDEREA* BALADAKO AHAPALDIEK BA OTE DUTE KIDERIK BESTE KANTU EDO GENEROEKIN

Harichtselharrek bere 1963. urteko artikuluan Oihenarten bi paremiaren berri ematen du. Lehena Oih 65 *Baigorrico Biscondea, Beldurrac diacarquec ahalguea*. Vicomte, c'est la peur qui produit la honte. *Urrutiako anderea* baladaren ahapaldi batek eta paremia horrek bat egiten dute. Hona gure baladaren pasartea:

Etchauzeko bizkoundia
Beldura duzu ahalkia
Uzten duzu phenaz hilzera
Zure arreba anderia.

Testu ihartuak balada zein esaera zaharrak dira. Hitzez hitz ia esaldi bera batean eta bestean ikusten da. Esaera zaharra hika dago eta *beldurrak diakarkek ahalgea* delakoak "beldurrak lotsa ekar diezakek" adierazten du (ekarri ahal du, edo ekarri ahal dik hiri); Baladan, ordea, zuka dator: *beldurra duzu ahalkia*.

Urrutiako anderea baladako ahapaldi bat beste kantu batzuetan ere aurkitzen da. Chahoren bigarren ereduko bosgarren ahapaldia hauxe da:

Abenduko gaü hotzetan/luzetan
Izotz eta kharroñetan
Murde d'Urruti etzen agheri
Ene tela mihissetan
Nahichago beitzuen
Amouren kapitetan.

Ahapaldi honetan Urrutiako anderea kexu da bere senarra ez delako berarekin batera ohe berera joaten, nahiago zuelako maitaleen kapitetan etzan. Ahapaldi honetako lehen erdia beste kantu batzuetan ere ematen da. *Itsasuko Olha* kaiereko *Garia saltzen* kantuan, bosgarren ahapaldia hauxe da:

Abendoan gaua luze,
elhur eta hormate .
Borta ondoan dagon gaixoa
hotzak ere hilko luke (bis)

Harrigarria da Zuberoako *Urrutiako anderea* baladan eta Lapurdiko *Itsasuko Olha* kaierean ia hitzez hitz errepikatzea lehen bi lerroak.

Antzeko ahapaldi bat eske kopla bat ere bada. Urdiainen, urteko lehen egunean urte berriko ur berriaren bila abiatzen zirenean eskolariak *Ur goiena, ur barrena* kopla saila kantatzen zuten. *Colamus carmina nostra* bildumako ahapaldi bat hauxe da.

Izotzetan, elurretan,
abenduko gau luzetan
beste guziak oyan eta
gu gaisuok oñutsetan.

Gaueko hamabietan lehenbizi iturrira joan ondoren etxerik etxe joaten ziren eskolariak koplak kantatzen. Sakanako ohitura zen hau. Eske-kopla horietako bat *Urrutiako anderea* baladan agertzen denaren antzekoa da. Kopla eta zehaztasun gehiago J. M. Satrustegiren "Canto ritual del agua en Año Nuevo" artikuluan aurkitzen dira (Satrustegi: 1971).

Hegaburu Eskiula balada iruzkintzean, Arxüren urkabe-bertso batzuen berri ematen genuen. Azken bertsoa hau zen:

Abenduan gaua luze, goizetan izotza,
Urkhatu behar duenac tristeric du bihotza:
Urkatzia deusic ezta, gainerakoa ghehiago!
Datorren orzegunian laurdenzekoa nago.

Uste dugu bertso honetako lehen erdia klixe moduko bat dela, beste urkabe-bertso batzuetan ere ematen dena.

6. *URRUTIAKO ANDEREA* HARITSELHARREN TRANSKRIPZIOA

Haritschelharrek 1963. urteko artikuluan ematen duen transkripzioa ekarriko dugu puntu honetara. Transkripzioa ona da, baina zenbait arazo planteatzen ditu. Hona hemen:

(1)
Sorthu nintzan Etchausian
Hazi Garatian Aguerrian
Eskolatu Bayounian
Madamatu Urrutian.

(2)
Altzuruko Urrutia
Ala lekhu famatia
Enetako ja izan duzu
Phenaz hiltzeko lekhia

(3)
Mousde Urrutia bilhoua holli
Jaun erretorak hortzak chouri
Haiek biek ninarabila
Urrutian ezterari

(4)
Kosinatik kanberala
Kanberatik kosinala
Hirour etan ungurarazi zeitan
Bilho adatsa eskietan

(5)
Mousde Urrutia etzen lotzen
Bere tela mihissetan
Arauche nahiago beitzen
Amouriaren kapitetan

(6)
Abenduko gau luzetan
Irotz eta kharroñetan
Mourde d'Urruti etzen ageri
Ene tela mihissetan
Nahichago baitzuen
Amouren kapitetan.

(7)
A Baigorri
Baigorri maite
Nik hilik re
Hara nahi nuke
Han harriak ere
Althe nituzke.

(8)
Etchauzeko bizkoundia
Beldura duzu ahalkia
Uzten duzu phenaz hilzera
Zure arreba anderia

(9)
Etchauseko bizkoundia
Non da zure ohoria
Zure arreba anderia
Changrinez hiltzen ari da.

(10)
Bizkoundiak mithilari
Zela bedi zaldi hori
Erra bedi urzo hori
Jar guitian bide horri

(11)
Bizkoundia armaturik
Zaldi ourdina zelaturik
Urrutian sarthu zuzun
Urrutia ezkapi leihotik.

Jean Haritschelharrek Chahoren kantutegiko bi ereduetatik bakarra transkribatzen du, osoena eta beteena. Transkribatzeko modua ere bitxia da. Hiru ahapaldi 6, 7 eta 9a kurtsibaz egiten ditu, gainerakoak letra beltzez. Nola interpretatzen da hartu duen bide hori? Hurrengo puntuetan emango dugu galdera horren erantzuna. Transkripzioa oro har ongi egina dago. Seigarren ahapaldian *Abenduko gau luzetan/ Irotz eta kharroñetan* delakoan *Irotz* irakurri beharrean *Izotz* irakurri behar da.

7. CHAHOREN LEHEN DOKUMENTUA

Urrutiako anderea baladaren lehen dokumentua, katalogazio argazkien arabera, Chahoren kantutegiko 240tik 228 argazkian aurkitzen da. Dokumentu honetako ahapaldiak marraz ezabaturik daude, hala ere ez du transkripzio arazo handirik sortzen. Hona hemen:

Sorthu nintçan Etchaussian
hassi Garatian Aguerrian
Escolatu Bayounian
Madamatu Urrutian.

Alçuruqu Urrutia
Ala lhechu famatia
enetaco ja izan duçu
Phenas hilçeco lekhia

Mousde Urrutiac Bilhoua holli
jaun Erretorac hortçac chouri
hayec biec ni narabila
Urrutian Ezterari

Cosinatic khamberala
Khamberatic kosinala
hirour eta ungurarac ceitan
Bilho adaxa Esquietan

Abentuko gai hotcetan
içots eta kharrointetan
Mourde Urrutia eçuçun nahi
Abentuco gai hotcetan
Mourde Urrutia etçen nahi
bere tela mihissetan
nahiago çen amouriaren kapitean.

Lehen eredu hau ez ohi da aintzat hartzen. Patri Urkizu izan zen lehen aldiz eredu honen berri eman zuena. Bigarren transkripzio osoago baten zirriborro bezala hartzen da.



Urrutiako anderea balada. Chahoren lehen dokumentua.

8. CHAHOREN BIGARREN DOKUMENTUA: A EREDUA

J. A. Chahoren kantutegiaren azken alderantz dator Arxüren jatorrizko eskuizkribua. Chahoren funtsean aurkitzen da dokumentua. Jatorrizko eskuizkribuan baladak ez du inolako izenbururik. Goian eskuinetara bi zenbaki ditu. Lehen zenbakia 99. biribil batean sartua da eta bigarrena Chahorena berarena 21. Katalogazio argazkien arabera, 240tik 166. zenbakia du. Puntu honetan 166 argazki-zenbakian datorren zutabe nagusia hartuko dugu aldaera nagusitzat. Eta bigarren aldaeratzat zutabe nagusi horren bi aldamenetan dauden ahapaldiez osatutako aldaera.

I
Sorthu nintzan Etchaüsian
Hazi Garatian Agherrian
Eskolatu Bayounian.
Madamatu Urrutian

II
Alzuruku Urrutia
Ala lekhu famatia
Enetako ja izan duzu
Phenaz hilzeko lekhia.

III
Mousde Urrutia[k] bilhoua holli
Jaon Erretorak hortzak chouri
Haiek biek ni narabila
Urrutian ezterari.

IV
Kosinatin kanberala
khanberati kosinala
hirouretan ungurarac zeïtan
Bilho adatza eskietan.

V
Mousde Urrutia etzen lotzen
Bere tela mihissetan
Araüche nahiago beïtzen
Amouriaren kapitetan.

VI
Etchaüzeko bizkondia
Beldurra duzu ahalkia
Uzten duzu phenaz hilzera
Zure arreba anderia.

VII
Bizkoundiak mithilari
Zela bedi zaldi hori
Erra bedi urzo hori
Jar guitian bide horri. bis

VIII
Bizkoundia armaturik
Zaldi urdina zelaturik
Urrutian sarthu zuzun
Urrutia ezkapi leïhotik.



Urrutiako anderea balada. Bigarren dokumentua.

9. AHAPALDIZ AHAPALDIKAKO IRUZKINA

Puntu honetan ahapaldiz ahapaldi iruzkinduko dugu Chahoren eredua.

I
Sorthu nintzan Etchaüsian
Hazi Garatian Agherrian
Eskolatu Bayounian.
Madamatu Urrutian

Lehen ahapaldi horrek ez du transkripzio arazorik. Ahapaldiak duen zirriborro bakarra *sorthu* lehen hitzean du: halako beltzune bat ikusten dugu azkenaldera. *Bayounian* hitzaren ondoren puntu bat ikusten dugu. Harrigarria da, errimak hala agindurik, *Bayona/Bayuna* hiriaren izena inesibo kasuan artikuluarekin egiten duela: *Bayounian*.

II
Alzuruku Urrutia
Ala lekhu famatia
Enetako ja izan duzu
Phenaz hilzeko lekhia.

Ürrütia handi-etxea da, Zuberoan Altzürrükün dago. Handi-etxe horren izena *Altzür[r]üku-Ürrütia* da. Handi-etxe edo jauregi eder horretaz ari da *ala lekhu famatia* esaldi indartsuan.

III
Mousde Urrutia[k] bilhoua holli
Jaon Erretorak hortzak chouri
Haiek biek ni narabila
Urrutian ezterari.

Ez dugu ikusten jatorrizko eskuizkribuan *Urrutia* hitzean ergatibo markarik. Hurrengo substantiboak garbi dakar: *Jaon Erretorak*. Aditzari gagozkiola, zer behar luke *narabila* edo *narabile* (hots, estandarreko *narabil(a)te*)? Argi dago subjektua anitza dela, musde Urrutia eta jaun erretorea baitira, gainera *haiek biek* pluraltasuna garbi markatzen dute. Transkribatzaileak eskuizkribuan lehen aldian *esterari* idatzi du, Zuberoako hitza, ordea, *esteiar(i)* da: *Gizon gaztea andrekari, higa daite esteiari* Oih 195.

Ez dugu uste *esterari/ezterari* beste inoiz dokumentatzen denik. Chahoren dokumentuko testuan transkribatzaileak oker bat egingo zuen seguru asko. *Esteiari* hitzeko –i– gaizki irakurri eta *ezterari* bihurtuko zuen.

IV
Kosinatin kanberala
Khanberati kosinala
Hirouretan ungurarazi zeïtan
Bilho adatza eskietan.

Ahapaldi horren ezkerretara ES maiuskulaz zeinu bat dator. Maiuskula horietako lehena ez da erraz igartzen E edo L den. Zer esan nahi ote dute zeinu horiek? Jatorrizkoan *Kosinatin* dator, baina ablatiboak *kosinati* edo *kosinatik* behar luke. Bi aukera horietatik, dudarik gabe, lehena da pisutsuena: *khanberati*. Aspirazioari gagozkiola, ez du sistema bera erabiltzen hitz guztietan. Lehen aldian *kanbera*

irakurtzen dugu eta bigarrenean *khanbera*. Zenbakiei gagozkiela, *hiru* zenbakia inesiboan dator: *Hirouretan*. Ia hitz bitan idatzia dagoela dirudi: *Hirour etan*. Berdin gertatzen da lehen *k(h)anbera* hitzean ere. Lehen aldian *kanberala* dator, eta, bigarrenean, *Khan berati*. Hiruretan delakoak askotan esan nahi du. Zuberoako tradizioko beste balada batean ere aurkitzen da esapide bera. Salaberriren Bereterretxeren A ereduan *hiruretan ebaki zaitan armarik gabe bihotza* esaldi ezaguna da. *Bereterretxe* baladako esaldi horretan aditz era eta aditz laguntzailea ere berbera dugu. *Bereterretxe* baladako beste eredu batzuetan *hiruretan* horren ordez *bostetan* da.

V

Mousde Urrutia etzen lotzen
Bere tela mihissetan
Araüche nahiago beïtzen
Amouriaren kapitetan.

Ez du transkripzio arazorik ematen ahapaldi honek. Urrutia jauna ez zela lokartzen bere telazko maindiretan esan nahi du. Jaun handi eta aberats bati maindire telazkoak dagozkio. Musde Urrutiak nahiago du lo egin maitalearen kapitetan, hau da, mihise pobre eta zakarretan.

Transkripzioari gagozkiola, nola jarri du transkribatzaileak *Mousde* edo *Mourde*? Bi aukeretatik lehena da, dudarik gabe. Ahapaldi honen aldaera bezala *Abenduko gaü hotzetan/luzetan/Yzotz eta kharroñetan/ Murde d'Urruti etzen agheri/ ene tela mihissetan/ Nahichago baitzuen/amourenkapitetan* irakurtzen dugu.

VI

Etchäuzeko bizkoundia
Beldurra duzu ahalkia
Uzten duzu phenaz hilzera
Zure arreba anderia.

Transkribatzaileak ez du transkripzio-sistema bera erabili. Lehen aldian *Etchaüsian* jarri du eta bigarrenean *Etchäuzeko*. Transkribatzaileak lehen aldian badirudi *phenas* idatzi duela eta gero zuzendurik *phenaz* gelditu da. Lehen idatzialdian transkribatzaileak *anderiari* idatzi du eta gero zuzendurik *anderia*.

VII

Bizkoundiak mithilari
Zela bedi zaldi hori bis
Erra bedi urzo hori
Jar guitian bide horri. bis

Lehen *bis* markak lehen bi lerroak hartzen ditu eta bigarrenak azken bi lerroak. Transkribatzaileak *zelabedi* eta *errabedi* lumarik altxatu gabe idatzi baditu ere, tarte bat duela idatzi dituenez gero, bereiz transkribatu ditugu.

VIII

Bizkundia armaturik
Zaldi urdina zelaturik
Urrutian sarthu zuzun
Urrutia ezkapi leïhotik.

Ahapaldi honetan *Bizkundia* idatzi du, aurreko bietan *Bizkoundia*. Ablatiboari dagokionez, hainbat baladatan bezalaxe, eredu ez finkoa agertzen da hemen ere. Gure baladako testuan –ti da ablatibo

lekuzkoaren atzizkia: *khanberati*/ *kosinati*. Ahapaldi honetan, ordea, *leihotik* ikusten dugu argi eta garbi. Gaurko grafiara nola ekarri *zelatürik* edo zelaturik? Lafonen legeen arabera, –u– ondoan r biguna badu, *gure* bezala egin beharko luke, –u– bat, alegia.

10. *URRUTIAKO ANDEREA* BALADAREN A EREDUA GAURKO ORTOGRAFIAN

Puntu honetan Chahoren eredu nagusia honelaxe ekarriko genuke gure ortografiara.

I
Sorthü nintzan Etxausian,
hazi Garatian, Agerrian, ,
eskolatü Baiunian.
madamatü Ürrütian.

II
Atzürükü-Ürrütia,
ala lekhü famatia,
enetako ja izan düzü
phenaz hilzeko lekhia.

III
Musde Ürrütia[k] bilhua holli,
jaun erretorak hortzak xuri.
Haiek biek ni narabila
Ürrütian ezterari.

IV
Kosinati kanberala,
hanberati kosinala.
Hiruretan üngürarazi zeitan
Bilho-adatsa eskietan.

V
Musde Ürrütia etzen lotzen
bere tela-mihisetan,
arauxe nahiago beitzen
amuriaren kapitetan.

VI
Etchäuzeko bizkundia,
beldürra düzü ahalkia,
üzten düzü phenaz hiltzera
zure arreba anderia.

VII
Bizkundiak mithilari:
–zela bedi zaldi hori, bis
erra bedi urzo hori
jar gitian bide horri. bis

VIII
Bizkundia armaturik,
zaldi urdina zelaturik,
Ürrütian sarthü züzün
Ürrütia eskapi leïhotik.

11. *URRUTIAKO ANDEREA* BALADAREN B EREDUA

Bigarren eredu hau Chahoren funtseko 166 argazki-zenbakian dagoen transkripziotik aterea da. Transkripzioko zutabe nagusiko eredua A eredua izan da. Lehen ereduaren aukera bezala dauden aldameneko ahapaldiez osaturik bigarren eredua sortzen da. Aukera hau alde batera kritikagarria da, baina beste alde batera hiru ahapaldi berriren aukera ematen badu, beste eredu batentzat har liteke, inolako dudarik gabe. Hona hemen:

I
Sorthu nintzan Etchaüsian
Hazi Garatian Agherrian
Eskolatu Bayounian.
Madamatu Urrutian.

II
Atzuruku Urrutia
Ala lekhu famatia
Enetako ja izan duzu
Phenaz hilzeko lekhia.

III
Mousde Urrutia[k] bilhoua holli
Jaon Erretorak hortzak chouri
Haiek biek ni nanabila
Urrutian ezterari.

IV
Kosinatin kanberala
Khanberati kosinala
Hirouretan ungurarazi zeïtan
Bilho adatsa eskietan.

V
Abenduko gaü hotzetan/luzetan
Izotz eta kharroñetan
Murde d'Urruti etzen agheri
Ene tela mihissetan
Nahichago beitzuen
Amouren kapitetan.

VI
Ala baïgorri
Baïgorri maïte
Nik hilik ere /
Hara nahi nuke/bis
Han harriak ere
Althe nituzke

VII
Etchauzeko bizkoundia
Nonda zure ohoria
Zure arreba anderia
Changrinez hilzen arida.

VIII
Bizkoundiak mithilari/
Zela bedi zaldi hori/bis
Erra bedi urzo hori/
Jar guitian bide horri. /bis

IX
Bizkundia armaturik
Zaldi urdina zelaturik
Urrutian sarthu zuzun
Urrutia ezkapi leïhotik

12. *URRUTIAKO ANDEREA* BALADAREN B EREDUKO AHAPALDIEN IRUZKINA

Musde Urrutia baladaren B ereduak A ereduaren hiru ahapaldien lekuan beste hiru ditu. Hiru ahapaldi berri horiek, kantu-zutabe nagusian aldamen bietan daudenak, iruzkinduko ditugu puntu honetan.

Abendüko gai hotzetan/lüzetan,
izotz eta kharroñetan,
murde d'Ürrüti ez zen ageri
ene tela mihisetan,
nahixago beitzuen
amuren kapitetan.

Ahapaldi hau bosgarren ahapaldiaren ezkerretara dator. Bosgarrenaren aldaera garbia da. Hasierako *Abendüko gai hotzetan/ izotz eta kharroiñetan* delakoa gehigarri bat dugu, geure ustez. Zuberoako Larraineko *albada* direlakoetan kantatzen diren kopla erdi bat dugu. Gainerakoa ia bosgarren ahapaldia bera da, aldaera gutxi dituela. Zuzenago esanda, ahapaldia hau bosgarren ahapaldia lehen pertsonan jarria da. *Bere tela mihisetan* esan beharrean, hirugarren pertsonan esan beharrean, lehen pertsonan badator askoz ere dramatismo handiagoa hartzen duela.

Ahapaldi honen arabera amorantea bat izan beharrean asko dira: *amuren kapitetan*.

Ala Baigorri, Baigorri maite,
nik hilik ere hara nahi nuke;
nik hilik ere hara nahi nuke,
han harriak ere althe nituzke.

Ahapaldi hori ezkerretara dator V eta VI. ahapaldien altueran. Transkribatzailea lehen idazkeran *Hala* batez hasi da eta gero zuzenduz *Ala* jarri du. Transkripzioari dagokionez, konturik interesgarriena *Ala baïgorri* idatzi ondoren *b* bat jartzea da. Zergatik? Inolako dudarik gabe bertso-lerroa jarraitu nahi izan duelako da. Lekurik izan ez duenez gero, azpian jarri du hurrengo *Baïgorri Maïte*.

Etxauzeko bizkundia,
non da zure ohoria?
Zure arreba anderia
xangrinez hiltzen ari da.

Ahapaldi hau seigarren ahapaldiaren ezkerretara idatzia dago. Seigarrenaren aldaera dugu, beraz. *Non da* edo *Nun da* idazten ote du transkribatzaileak? Ez dago jakiterik. Hasierako *non da* eta azkeneko *ari da* batera idazten du transkribatzaileak.

15
URTEAK ZONBAT EGUN TU BALADA

1. SARRERA

Azkuek CP lanean *Endechas y Elegías* sailean, 417. kantu-zenbakian *Legeak ni urkabera* deritzan kantua dakar. Kantu hori Nafarroan, Ezkarotzen, Javiera Gorri emakumeari bildu zion. Kantu hori *unicum* bat da. Kantu berak izenburu bat baino gehiago izan ditu. EB lan-taldekoek *Pedro Carlos Mendi* izendatu zuten. Azkuek, goraxeago esan dudan bezala, *Legeak ni urkabera*. Antonio Zavalak *Urteak zonbat egun tu*. Hiru izendatzeko modu, beraz, kantu berarentzat. Atal honetan ez dut kantuaren izenburutzat *Legeak ni urkabera* izenburua erabiliko kantaren hasiera den *Urteak zonbat egun tu* baizik. *Legeak ni urkabera*, bestalde, presondegi gaia harturik Azkuek berak sortu zuen olerkiaren hasiera da.

EB lan taldekoek lehenengo eta A. Zavalak ondoren *Urteak zonbat egun tu* beren bildumetan sartu zuten. EB lan taldekoek, ordea, balada arruntzat zuten *Urteak zonbat egun tu* kantua. Atal honetan Azkueren eskuidatzietara jo eta kantuaren lehen transkripzioa ere eskainiko dut. Transkripzio honek testu argitaratuak dituen ilun-une zenbait argituko ditu.

2. AZKUEK ZARAITZUN BILDU ETA ARGITARATUTAKO EREDUA

Zaraitzun bildutako eredua presondegi gaia da. Itxurak direnez Ezkarotzeko hiru mutil atxilotu eta isun handi bat ordaindu behar izan zuten. Javiera Gorri berriemailea bera ere Ezkarotzekoa zen. Hona hemen:

I
¿Urteak zonbat egun tu?
Śorak kainbat zinta tu:
erdiak ditu Probidoranak
beste erdiak Urt'ik emanak.

2
Ama: edazu atoŕa
menturaz sekulakoa;
bizi denak orit izanen du
Bazkoako oilaritea.

3
Pedro Carlos Mendi, aur gazte,
ogei eta bi urte;
irugaŕena bete gabe
Iruñara preso daramate.

4
Irañako kartzela,
Nafarroan den andiena,
Ezkarotzeko irur mutil gaztek
ongi gozatu dutena.

5
Gozatu bai gozatu
seira ilabete pasatu
eta beŕogeira otxin pagatu.

6
Bornas eta Algaŕa
Atxiri eta sangua
aiek laurek dirabilate
Ezkarotzeko eŕia.

7
Oŕaxea ezpelez
ortzak ditik exuŕez,
Fandrozaneko nausi makuŕak
irakitzen du gezuŕez.

3. *URTEAK ZONBAT EGUN TU* KANTUAREN ARGUDIOA

Azkuek bere kantutegian ez zuen balada honen argudioaren gainean inolako daturik eman. *Urteak zonbat egun tu* kantuak presondegi gaia du. Kantuaren argudioa bi hitzetan hauxe da: Ezkarotzeko hiru mutil gazte Iruñako presondegira sartu dituzte eta sei hilabeteko kartzelaldia egin eta berrogeina otxin ordaindu dituzte. Xehetasun gehiago ere ematen dira kantuan. Ezkarotzeko hiru mutiletako bat Pedro Carlos Mendi da, hogeita bi urtekoa, hogeita hirugarrena artean bete gabe zuena. Ezkarotzeko hiru mutil gazteak Iruñako kartzelan dauden bitartean beste lauk darabilte Ezkarotzeko herria: Bornas, Algarra, Atxiri eta Sandua. Lau pertsona horien izenak gaitzizenak direla dirudite. Lau pertsona hauek, itxurak direnez, herria zentzu txarrean erabiltzen dute. Lau pertsona hauek nahastaileak direla dirudi.

Aingeru Irigaraik kantu honen gainean *Noticias y viejos textos de la "lingua navarrorum"* lanean zehaztasun hauek ematen ditu (Irigarai: 1971).

> Un cantar del valle de Salazar descubre el hilo aunque no el ovillo, de un suceso acaecido en Ezcároz, y transmitido por Javiera Gorri, de dicho pueblo.
>
> Como el cantar fue recogido por Azkue hace muchos años, y el suceso que rememora llevaba ya otros tantos al menos, los nombres que aparecen en las estrofas pertenecen ya a la Historia y a nadie dañan.
>
> Relata la historia de un joven que llevan preso a Pamplona, sin haber cumplido 23 años; también pasaron seis meses en la sombra otros dos jóvenes ezkaroztarras, aparte de una multa de cuarenta monedas. La fechoría no sería trágica, cuando la condena fue tan leve; sin embargo, el koblakari pone en boca del

joven presidiario una estrofa que no es propia de este Romance, pues la ha copiado del famoso cantar suletino de Berterreche, del cual toma también la melodía.

Gure kantuaren argudioa apurren bat lausoturik dago, beraz. *Descubre el hilo pero no el ovillo* esaldiak kantuak argi baino itzal gehiago dituela adierazten du.

4. *URTEAK ZONBAT EGUN TU* BALADA ARRUNTA DA ALA TRADIZIOZKO BALADA OTE DA?

Urteak zonbat egun tu kantuak zazpi ahapaldi ditu. Uste izatekoa da kantuak bere sorreran eta zenbait mendetan barrena zazpi ahapaldi horiek baino ahapaldi gehiago izango zituela. Kantu hori gugana etorri denean menostua, gutxirendua etorri da. Kontuak honetara, tradiziozko balada bat edo balada arrunta ote da *Urteak zonbat egun tu*? Kantu honetako hiru ahapaldi behintzat tradiziozko baladetakoak dira.

Azter ditzadan lehen hiru ahapaldiak. Lehen ahapaldiko *Urteak zonbat egun tu*? galdera *Apez beltzaren* balada-aldaera batzuetan agertzen da. Francisque Michelen *Le Pays Basque* liburuan, 401. orrialdean *Apez beltza*ren kantua honelaxe bukatzen da:

Urtheac zembat egun tu?
Hemezortzitan hoghoi baditu.
Borthagaray gazte horrec
Hauc ditu componditu.

Martin Larrek Dassanceri bidali zion Apez beltzaren aleak ahapaldi hau du.

Urtheak zenbat egun tu
Hemezortzitan hogoi tu
Borthagaray jaun gazte horrek hainbertze bertsu eman du.

Gure Herria aldizkarian 1924 urtean argitaratu zen ereduan ere antzera:

Urtiak zonbat egun ditu?
Hemezortzitan hogoi tu...
Bortegaray gazteño horrek
persuak hemen eman ditu. (bis)

Hiru testigantza hauei, Azkueren laugarrena gehi dakioke. Urteak hainbat bertso egitea balada presondegi-kantu zenbaitetan ematen da. Adibiderik argigarriena Berdabioren kantua litzateke. Honela idatzi nuen Antonio Zavalaren omenaldi liburuan (Kalzakorta: 2000):

> Berdabio Nafarroako Goizuetan omen dago. Goizuetako mendi-basoan. Oraindik ere zutik omen dago Berdabio burdinola eta baserria. Hango semea omen zen, berdabiotar bat omen zen, urre-meatze bat zuena eta diru faltsua egin omen zuena. Diru faltsua egiten zuen gizon honek izan zuen salatzaile bat, saltzaile bat. Trabuko deitzen zen gizatxar bat, eta Iruñeko kartzelan sartu omen zuten berdabiotar dirugilea. Kartzelan sartu ezezik, heriotzeko epaia ere eman zioten. Hil baino lehen berdabiotar dirugileak urte beteko epea eskatu zuen bere bizitza bertsotan jartzeko. Bere bizitza urtebetez luzatu zuen bertsoak jartzeko. Eguneko bertso bat egin omen zuen bertsolari preso hark. Urteak egun hainbat bertso jarri zituen, beraz.

Berdabioren gainean kontatzen den ahozko leienda hau biltzaile batek baino gehiagok dakarte. *Apez beltza*ren baladan, ordea, ahapaldi batean kontatzen da. Gure kantuaren lehen ahapaldiak ere

galdera-sarrera hori badu ere, gerora datorrena ilunxko gelditzen da. Zer adierazten du *Sorak kainbat zinta tu: /erdiak ditu Probidorenak,/ beste erdiak Urttik emanak*. Azkuek pasarte hau itzuli zuenean galdemarka bat jarri zuen itzulpenean; Aingeru Irigaraik ere lehen ahapaldi honen gainean honelaxe idatzi zuen (Irigarai:1971):

> La primera estrofa es más enigmática; las copiaremos en su lengua salacenca, por si alguno intenta descifrar este intrigante a la par que confuso Romance.

Ahapaldiaren lehen zatiari zentzua aurkitu diogu, baina gainerakoari ez. Seguru asko presondegi-kantua denez gero, Zaraitzuko kantu honen lehen bertso-lerroak salatzen duenez, gainerakoa ere *Apez beltza* baladan datorren modukoa izango zen.

Zaraitzuko kantuaren beste ahapaldi batek ere zer aztertua badu. Beste ahapaldi hori hauxe da:

Ama: edazu atoŕa
menturaz sekulakoa;
bizi denak orit izanen du
Bazkoako oilaritea.

Ahapaldi honek izan ditu iruzkingile bat baino gehiago. Azkuek ohar hau egiten du:

> La segunda estrofa de esta endecha es como la séptima de la leyenda suletina de Berteŕetxe, tal como figura en el *Cancionero* de Sallaberry, pág 214:
>
> Ama, indazüt athoŕa
> menturaz sekulakoa;
> bizi denak ohit izanen dü Bazko-biharamena.
>
> Esta t final de indazüt no la habría recogido Sallaberry del pueblo. Es indazu o edazu, como dijo la cantora de Ezkaroz.

Azkuek garbiro dio Bereterretxeren kantoreko ahapaldi bera dagoela Zaraitzuko kantuan txertaturik. Aingeru Irigaraik ere antzera dio (Irigarai: 1971).

Bigarren ahapaldi horren ahapaldirik antzekoena, ordea, Salaberrik bildu eta argitaratu ez zuen ereduan dator.

–Ama, indazüt athorra,
mentüraz sekulakoa!
Bizi denak orhit düke Bazko-oilaurentia!

Hurbilen dagoen ahapaldia da eredu batean *Bazkoako oilaritea* eta bestean *Bazko-oilaurentia* aipatzen delako. Ahapaldi guztietan interesgarriena, ordea, azkena da inolako dudarik gabe:

Orraxea ezpelez,
ortzak ditik exurrez;
Fandrozaneko nausi makurrak
irakitzen du gezurrez.

Kopla hau euskal ahozko literaturako koplarik interesgarrienetako bat dela iruditzen zait. Eta bigarren ahapaldiak ez ezik, honek ere *Bereterretxeren kantorearekin* ere berdintasun eta bateratasun handiak ditu. Ahapaldi honetan irudi garbia dator: *Orraxea ezpelez/ ortzak ditu exurrez*. Ondoren datorrena, Aitzolen terminologiaren arabera, "oldozkun" garbia da: *Fandrozaneko nausi makurrak/*

irakitzen du gezurrez. Bereterretxeren kantoreko *Haltzak ez du bihotzik* lehen ahapaldiko errima ere bera dugu. Batean, *(ezkürra)/ hezürra/ gezürra* eta bestean *(...)/ exurrez/ gezurrez*. Bereterretxeren kantoreko oldozkuna *enian uste aitoren semek* delakoa gurean *Frandozaneko nausi makurrak* da.

Kopla zaharraren teknika duten ahapaldiek gehienetan kantuaren introito edo bukaera bezala erabili ohi dira. Bereterretxeren kantorean sarrera da, Zaraitzuko kantuan bukaera. Balada arruntetan ez dator inoiz kopla zaharraren teknikako ahapaldirik. Puntu honetan iruzkindu ditugun hiru ahapaldiak tradiziozko baladakoak dira, inolako dudarik gabe. Gainerakoek badute halako balada arrunten eitea. Herriko pertsona baten izena ematen da, Ezkarotzeko herriko beste lau pertsonaren gaitzizenak ere ematen dira. Goraxeago iruzkindu ditugun hiru ahapaldiez gainera, bosgarrenak ere merezi du iruzkin txiki bat:

Gozatu bai gozatu
seira ilabete pasatu
eta berrogeira otxin pagatu.

Ahapaldi hau guztiz ironikoa da, sarkastikoa ere bai neurri handi batean. Ahapaldi hau hobeto ulertzen da aurreko *Ezkarotzeko irur mutil gaztek/ ongi gozatu dutena* kontuan hartzen badugu. Lurjabeak bere lurra lantzen ez badu eta beste norbaiti ematen badio, lurra landu eta fruituak biltzen dituenak gozatzen du lurra. Lurra besterena bada ere, lurraren gozamena lurra bera lantzen eta fruituak hartzen dituenarena da. Kartzela ere beste norbaitena izan arren, kartzelan zigorra pairatzen duenak gozatzen du, modu ironikoan, betiere. Kartzela besterena izan arren (eta eman dezagun Fandrontzeneko nausi makurrarena edo gobernariarena dela) giltzapean egunak eta gauak pasatzen dituztenek gozatzen dute kartzela. Ahapaldi honi gagozkiola, beste modu honetara tolestu beharko litzateke:

Gozatu bai gozatu
[seira ilabete pasatu]
seira ilabete pasatu eta
berrogeira otxin pagatu.

A. Zavalak halaxe egiten du eta halaxe izan behar du. Nahiz eta Azkuek testu argitaratuan bihurkia ez jarri, landa-kaiereko testuan bihurki eta guzti agertzen da ahapaldi hau. Balada arruntetan, bestalde, ez da ematen bihurkirik. Bihurkiaren teknika tradiziozko baladetako kontamoldeari dagokio, inolako dudarik gabe. Aingeru Irigarai "Apat-Etxebarne"rentzat Javiera Gorrik Azkueri eman zion kantua bi modutara adierazten du *cantar* eta *romance*. Bi hitz hauek erabiltzen ditu Zaraitzuko kantua aztertzen duen atalean. Atalaren beraren izenburua ere adierazkorra da: *Un Romance del valle de Salazar*. Irigarai *cantar* hitza darabil Bereterretxeren kantorea adierazteko "cantar suletino de Bereterreche". Irigarairentzat *cantar* eta *romance* sinonimoak dira eta bigarren hitza darabilenean beti maiuskulaz jartzen du: *Romance*.

Zaraitzuko kantuak, beraz, tradiziozko baladaren eite handiagoa du balada arruntarena baino. Zazpi ahapaldietatik hiruk behintzat, eta iruzkindu dugun laugarrenak ere bai, tradiziozko baladen eite garbia dute. Antzeko eredu bat edo beste aurki dezakegu gure ahozko tradizioan. Itsasuko Olha kaierean, esaterako, eredu hau aurkitzen dugu:

1
Iruñako cartzelan nindagonian
Bertsu bien paratzen ari nintzanean
Niau alperra nitz bainan badakite lanian
nornahic bérent hobeki hasten naitzénian.

2
Mendiric gorenian lehenic élura
Trompatzen nindusula banuen beldura,
ikusi nahi sindusket haléré ardura
izanen badut éré nihaurek malura.

3
Franciako érégec othé du séméric
Orain mémento huntan escondu beharik
Harek aditzen badu oi sure famarik
Printzesa izaiteas ez izan beldurik.

4
Corpus lerdena duzu maneras airosa
Colore churi gorri bégi amorosa
Maneras iduri duzu claberin arrosa
Ochala zu basiné oi nére esposa.

Olha kaieretik aldatu dudan eredu hau, esaterako, diogunaren adibide garbia da. Lehen ahapaldia balada arrunt bateko (eta hemen balada arrunt gaztelaniazko *romance vulgar* adierazi nahi da) lehen ahapaldia da, baina gainerako lau ahapaldiak amodiozko kantu batekoak dira, inolako dudarik gabe. Holako nahasketak izan ohi dira gure kantutegiko zenbait kantutan. Are gehiago, azken hiru ahapaldiak amodiozkoak direlarik bigarrena guztiz ezaguna da; laugarrena bitxi samarra, amodiozko kantu guttitan aurkitzen dena eta hirugarrena guk behintzat inongo kantutan aurkitu ez duguna.

5. *URTEAK ZONBAT EGUN* TU AZKUEREN ESKUIZKRIBUAN

Azkuek Zaraitzun Javiera Gorriren ezpainetatik bildu zuen kantaren testua ABA-RMA-OO3-0010 signatura duen dokumentuan gordetzen da. Puntu honetan eskuizkribuan datorren bezalaxe transkribatuko dut. Puntuazioa bakarrik ukituko dut.

1
Urteak zonbat egun tu?
Śorak kainbat zinta tu;
erdiak diti[k] Probidoranak,
beste erdiak Urt'ik emanak.

2
–Ama, edazu atorra,
menturaz sekulakoa!
Bizi denak orit izanen du
Bazkoako oilaritea.

3
Pedro Carlos Mendi, aur gazte,
ogei eta bi urte,
irugarrena bete gabe
Iruñara preso daramate.

4
Irañako kartzela,
Nafarroan den andiena,
Ezkarotzeko irur mutil gaztek
ongi gozatu dutena.

5
Gozatu bai gozaitu,
seira ilabete pasatu,
seira ilabete pasatu eta
berrogeira otxin pagatu.

6
Bornas eta Algarra,
Atśiri eta Sandua,
ayek laurek dirabilaye
Ezkarotzeko erria.

7
Orraśea ezpelez,
ortzak ditik eśurrez;
Fandrontzeneko nausi makurrak
irakitzen du gezurrez.



ABA-RMA-003-0010

6. *URTEAK ZONBAT EGUN TU* BALADAREN AHAPALDIZ AHAPALDIKAKO IRUZKINA

Puntu honetan ahapaldiz ahapaldikako iruzkina egingo dut. Zenbait hitzek eta adizkik iruzkina merezi dute, inolako dudarik gabe. Azkueren eskuizkribuaren letrak, zorionez, ez du dudarik sortzen.

1
Urteak zonbat egun tu?
Śorak kainbat zinta tu;
erdiak diti[k] Probidoranak
beste erdiak Urt'ik emanak.

Ahapaldi hau ez dator guztiz berdin transkribatua eskuidatzian eta Azkueren kantutegian. CPV laneko hirugarren lerroan *ditu* dator eta eskuidatzian *diti.* Adizki hori zer ote da? Adizki bera azken

ahapaldian ere aurkitzen dugu *ortzak ditik eśurrez* lerroan. Baina beste arazo bat sortzen digu transkripzio horrek. Baldin *ditu* adizkiaren hikako forma bada *ditik,* gainerakoak ere halaxe izan beharko lukete. Korapilo hau lehen lerroan aska liteke *Urteak zonbat egun tu?* galdera baita eta galderetan ez baita forma alokutiborik erabili behar. Galdera halaxe egiten bada, zergatik ez erantzunean? Hoskidetasuna zaintzeko?

Ahapaldi honetan eskuidatzian *Probidoranak* aurkitzen da, CPV lanean *Probidoreanak*.

2

Ama, edazu atorra,
menturaz sekulakoa!
Bizi denak orit izanen du
Bazkoako oilaritea.

Azkueren eskuidatzian eta CPV lanean bat datoz ahapaldiak. Ezkuizkribuan lehen idazkeran *Pazkoako oilaritea* irakurtzen da. Badirudi geroagoko zuzenketa dela *Bazkoako oilaritea*. Zentzu edo esangurari gagozkiola Bazkoako oilaritea Bazko egunaren ondoko egunsentia esan nahi du. Oilariteak "egunsentia" esan nahi du, hots, oilarrak goizean jotzen duen garaitsua. Zail egiten da, beraz, Azkueren itzulpena: *el canto de gallo de Pascuas*.

3

Pedro Carlos Mendi, aur gazte,
ogei eta bi urte,
irugarrena bete gabe
Iruñara preso daramate.

Azkuek lehen idazkeran *Iruñara preso sarama-* idazten hasi dela dirudi. Hirugarren pertsonaren lekuan bigarren pertsona, beraz.

4

Irañako kartzela,
Nafarroan den andiena,
Ezkarotzeko irur mutil gaztek
ongi gozatu dutena.

Eskuizkribuan eta testu argitaratuan berdin dator. Esangurari gagozkiola zer esan nahi du Iruñako kartzela Ezkarotzeko irur mutil gaztek ongi gozatu dutela?

5

Gozatu bai gozaitu,
seira ilabete pasatu,
seira ilabete pasatu eta
berrogeira otxin pagatu.

Eskuizkribuan lehenengoa *gozatu* dakar, baina bigarrena *gozaitu*. Eskuizkribuan barne-bihurkia garbi-garbi transkribatzen du Azkuek. Zergatik ez zuen testu argitaratuan barne-bihurkia transkribatu? Zuberoako euskaran eta Zaraitzukoan behintzat *seira* delakoak gainerako euskalkietako *seina* adierazten du; era berean, *berrogeira otxin pagatu* "berrogeina otxin pagatu" esan nahi du. Ordaindu behar izan dutena ez da asko Azkuek itzultzen duenez "cuarenta ochenas".

6

Bornas eta Algarra,
Atśiri eta Sandua,
ayek laurek dirabilaye
Ezkarotzeko erria.

Ahapaldi honetan landa-kaierean lau hitzak maiuskulaz datoz: Bornas, Algarra, Atśiri eta Sandua.

7

Orraśea ezpelez,
ortzak ditik eśurrez;
Fandrontzeneko nausi makurrak
irakitzen du gezurrez.

Azken ahapaldi honetan kontu harrigarri bat aurkitzen dugu eskuizkribuan eta testu argitaratuan. Irudian aditza hika dator ortzak ditik *(orraśeak) ortzak ditik eśurrez* irudian *ditik* adizkiak "ditu" esan nahi du, hots, *(orraxeak) hortzak ditu hexurrez*. Adizki hau berau lehen ahapaldian ere agertzen zen: *erdiak diti[k] Probidorenak*. Bigarren zati edo oldozkunak ere hika izan beharko luke aditza: *Fandrontzeneko nausi makurrak irakitzen dik gezurrez*.

16
URTSUA BALADA

1. SARRERA

Euskal balada eder bezain garrantzitsu bat dugu *Urtsua*. Euskal balada historikoak leku bati loturik agertu ohi zaizkigu. *Urtsua* balada Baztango ibarrean, Arizkungo dermioetan datzan Urtsuako handietxeari lotua dago. Handietxe hau dorretxea dugu eta ondoan dagoen Santa Ana ermita ere gure baladako gertaera odoltsuaren testigu izan bide zen. Handietxea, edo Apat-Etxebarnek dioen bezala, are gaztelu edo jauregi ere bada. Balada honek ikerlari askotxoren interesa biztu du. Azkue handia izan zen lehen aldiz *Urtsua* balada argitaratu zuena. Bere bi lanik handienetan eskaini zion leku berezia. *Cancionero popular vasco* eta *Euskalerriaren Yakintza* lanetan. Gerora ere musikologo eta historiadoreen gaia izan dugu. aita Donostiaren (1886-1956) bizi guztiko arreta biztu zuen balada ere izan bide zen. Berari zor dizkiogu aldaera bilketa gehien eta baita bere azken lanetako bat ere, 1953koa, *Lecaroz* aldizkarian argitara zuen "Leyendas navarras" izenburua duena. Aingeru Irigarai "Apat-Etxebarne"k ere, ustezko eredu berri bat iruzkintzen zuela, atal interesgarri bat eskaini zion bere *Noticias y viejos textos de la "lingua navarrorum"* liburuan: "Dramas del Baztán. La canción de Ursúa". Julio Caro Barojak *El señor Inquisidor y otras vidas de oficio* liburuko "Pedro de Ursúa o el caballero" atalean Ursuatarren linaia edo etorkia aztertu ondoren gure baladaren gaineko ohar interesgarriak egin zituen. Francisco J. Orozek "Una canción hermana de *Agur, nere arreba*, en menor" artikuluan[1] zenbait alderdi interesgarri aztertu zituen. Interesgarriak dira Jurgi Riezukoak *Flor de canciones populares vascas* (Buenos Aires: 1948) laneko 70. zenbakian egiten duen sarrera; eta batez ere *Nafarroa-ko euskal kantu zaharrak* liburuko oharrak eta bibliografia. Azken lan honetako hamalau ahapaldiko eredua eklektikoa da.

Antonio Zavalak ezagutzen genituen testu horiek guztiak bildu eta Aitzolen ondareko beste sei aldaera, 1936ko gerra baino lehentxoago bilduak, eskaini zituen bere *Euskal erromantzeak/ Romancero vasco* lanean[2]. Aitzolen sei aldaera edo eredu on horiek uste ez bezalako aberastasun berriz jantzi zuten gure balada. Antonio Zavalak balada honetan egin zuen ekarpenik handienetako bat Aitzolen eredu argitaragabeak agertzea eta berak bildutako eredu berri bat ere eskaintzea izan zen. Balada honen gaineko ohar interesgarriak egin zituen Jesús Antonio Cid-ek "Romancero español balada vasca" lanean (Cid: 2000).

Guk geure aldetik hainbat urtetan aldaera berriak biltzen saiatu gara. Mariano Izeta bizi zela beraren lan eta artikuluekin liburu bat prestatu genuen *Baztango kontuak* titulupean agertu zena. Gure

[1] *FLV*, Julio-Diciembre 1982, 511-522 or.

[2] Ikus 393-421 or.

asmoetako bat Urtsuako baladaren eredu edo argitasun berriak biltzea izan zen. Ez genuen gauza handirik lortu "Urtsuko ermitan" atalean Azkueren eta abarren ahapaldi ezagunak bildurik hamabost ahapaldiko aldaera eklektiko edo nahasi bat eskaini zuen. Neurri batean behintzat, geure ahaleginen araberako emaitza izan ez arren, zerbait berri lortu dugula deritzagu. Azkueren aldaera argitaragabeak eskainiko ditugu eta Arxüren aldaera argitaragabe bat ere bai. Arxüren aldaerak, 1840 urtea baino lehenagokoa denez gero, argitasun berriak eskainiko dizkigu.

Balada honen alderdi historikoak, leinu eta jatorriaren gizaldiz gizaldiko zertzeladak, ez ditugu hemen emango. Historialariek eman dituzten berrietatik harago ez garelako joan. Leinuaren berri jakin nahi duenak jo beza Luis de Roa y Ursuaren *El Reyno de Chile (1535-1810). Estudio histórico, genealógico y biográfico* (Valladolid, 1945) liburura zein aipatu dugun Julio Caro Barojaren lanera.

1. *URTSUA* BALADAREN EZAUGARRIAK

Urtsua balada, balada historiko bat dugu. Euskal Herriko leku zehatz bateko gertaeraren berri ematen duena. Guk balada historikoa dela esan dugu, Antonio Zavalak *Euskal erromantzeak/ Romancero Vasco* liburuan *Istorikoak/ romances históricos* jartzen du. aita Donostiaren izendapenez *leyenda historica* litzateke. Hona "De Música Popular Vasca". Conferencias leídas (1916) en la sala de la Filarmónica de Bilbao lanean[3] dakarren pasartea:

> Hablemos de leyendas cantadas. Son rarísimas. ¿Las hemos tenido y nuestro abandono las ha hecho olvidar? Tal vez. Pero BORDES más se inclina a creer que, "reconcentrados en nosotros mismos, poco relacionados con nuestros vecinos y muy particularistas, no hemos tenido en nuestra historia temas para cantos épicos". Hoy día, todos sabemos a qué atenernos respecto de la pretendida antigüedad de algunas composiciones de este género. Las leyendas cantadas que conozco son escasísimas. BORDES en su precioso trabajo ya citado *La Música Popular de los Vascos* pone tres recogidas por él. Una, la *Errege Jan*, que no es sino la versión vasca de la célebre canción francesa de *Jean Renaud*; la llamada de Tardets (Atarratze, en vasco), y la curiosa e informe *Anderia gorarik*. Juan de Jaurgain, el eminente historiador suletino, añade a éstas otras cinco leyendas poéticas que comenta espléndidamente, rectificando algunas veces pequeños detalles. Una muy conocida de vosotros, por el arreglo que para el orfeón hizo el maestro Guridi, es la *Goizian goizik*, cuyo texto no es anterior al siglo XVII, y de cuya música puede hacerse idéntica afirmación. Añadamos a éstas las que trae Azkue en su conferencia, recogidas en Elgoibar, titulada *Alostorrea*, que es la *Gau illa* de ARAKISTAIN, y sabremos todas las leyendas cantadas. A estas pocas puedo yo sumar otra baztanesa, de la cual no se conservan sino girones: unas cuantas estrofas que tras mucho hurgar, he conseguido reunir. Consultados diversos amigos de ambas vertientes del Pirineo, verdaderas autoridades en la materia, no han podido darme más luz sobre ella. Tal vez, algún archivo particular que permanece cerrado, podrá esclarecer este punto de historia baztanesa.

Balada historiko hauek edertasun handikoak izan ohi dira. Honelaxe mintzo da Julio Caro Baroja urtsuatarrei eskaintzen dien lanean:

> En todo caso, las estrofas y la melodía con que se canta un terrible suceso ocurrido en la torre son de una belleza de que pocas gentes de fuera del país pueden tener idea. Y aun dentro no se valoran, como no se ha valorado el resto de la poesía vasca antigua.

Edertasun honen berri ematen dute ia ahapaldi guztiek. Arnasa kentzeko modukoak dira hainbat ahapaldi. Eman ditzagun, kasurako, Azkueren lehen biak:

---

[3] Bilbao, 1918, 36-39 or.

I
Urtsuan zazpi leio
zazpiak lerro lerro,
Lantainako alaba
Urtsuan defuntu dago.

2
Urtsuan defuntua
Santa Anan kausitua,
adios erran gabe
etxetik partitua.

Euskal ahozko poesian gutxi daude hain indar handiko ahapaldiak. Aizkorakada indartsu baten ukaldia dirudite. Modu hotz eta zorrotzean tragedia baten ondoren tristea adierazten dute bi estrofek.

Balada historiko hauen beste ezaugarri bat aintzinatasuna da. Zahartasunaren ezaugarria oso inportantea da. Zahartasun hau ez da askotan zehazten erraza. Zahartasun honek halako ukitu poetiko handia du eta ez da gutxi. Zahartasun hau laburbiltzeko hona Julio Caro Barojaren hitzak:

> Ultimamente, Donostia creía que el suceso al que se refiere la leyenda no es anterior al siglo XVIII, mientras que antes aseguraba que databa de época más remota. Para el efecto poético, lo mismo da; el perfume de las estrofas es medieval y gustaría uno de ponerlas precisamente en tiempo en que luchaban los agramonteses con los beamonteses. Por otra parte, no es fácil imaginar a los señores de Ursúa viviendo en su torre en épocas muy modernas. La forma poética tampoco se ajusta a cánones modernos.

Zahartasun hau, nola ez tradizioan gugana heldu da. Gugana heldu da baina kontuan har dezagun tradizio hau etenda dagoela. *Urtsua* baladaren azken testigantza berria, tradizioz gugana heldu den azken testigantza dokumentatua Antonio Zavalak 1964an bildutako eredua da. Kontuan hartzekoa da gure balada honek baduela –bere gutxian asko ere izan daitekeena beste balada batzuen ikusian– hiru eratako tradizioa. Baladako ahapaldiena, baladaren azalpena osatzen duten leienda edo elezaharrena eta txistulariek, –Baztan aldean bakarrik– ezteietan ezkonberriei jotzen dieten melodian[4].

Balada historiko hauetako protagonistak handikiak izan ohi dira, etxejaun aberatsak, erregearen zerbitzariak, lur sail handien jabeak. Aberastasun horren berri ematen da baladan berean:

Zazpi errota berri
Zortzi jauregi xuri,
Orien guzien gatik
Nik ez Urtsura nahi.

---

[4] Honela bukatzen du aita Donostiak 1953eko "Leyendas navarras" artikulua:

Nota curiosa la que tengo anotada en mis cuadernos; doblemente curiosa por ser el banquete de boda el momento en que los tcistularis tocan esta melodía de recuerdo tan trágico para una recién casada. Cuando llegan los asados (errekie), entran los tuntuneros y tocan (E de Maya, Antonio Elizande citado más arriba) la melodía esta de Ursúa. Mientras tanto los novios colocan dos tenedores con asado, uno cruzado con otro y sosteniéndolos mutuamente. Colocan también un vaso de vino. Después de un rato breve de música, los novios ofrecen a los tuntuneros los dos tenedores provistos de asado. Comen y beben de pie y se retiran. Todo el pueblo conoce que se hace esta ceremonia, es decir, que se han servido los asados, porque al mismo tiempo se tiran cohetes (antes descargas de pólvora). En los asados comienza la batalla de *chochos* (confites), arrojándose unos a otros unos chochos muy pequeños.

Euskal balada historikoetan sarri ikusten dira horrelakoak. Hainbat adibide eman ditzakegu. *Alostorrea* balada zein *Aldaztorrea*. Bietan dorre baten aipamena egiten da. *Urthubiako Alhaba* baladan ere gaztelu handi baten aipamena egiten da. Dorretxeetan, jauregietan eta gazteluetan bizi ohi diren handikiak izatea ezaugarri inportante bat dugu. Handiki hauek gertaera odoltsuen lekuko dira. Krudeltasuna, ankertasuna, borondatez kontrako ekintzak gertatu ohi dira balada historikoetan. Tragedia da balada historikoetako ezaugarri nagusienetakoa, handikien arteko tragedia. Herri xeheak ez du parterik holako baladetan. Maisuki laburbiltzen du ideia hau Julio Caro Barojak:

> Sea ésta la [poesía vasca antigua] guipuzcoana, recogida ya en el siglo XVI, fragmentariamente, por Esteban de Garibay, sea la suletina, que en el XIX tuvo excelentes editores y comentaristas como F. Michel, Sallaberry y Jaurgain, suele caracterizarse por un perfume especial: es trágica, amorosa y, hasta cierto punto aristocrática, pues narra muertes, amores y desgracias de hombres y mujeres pertenecientes a linajes señalados, vinculados a torres y fortalezas que, como ésta de Ursúa, alzan aún su silueta altiva y sombría, como la de algunas personas de la Edad Media misma, encerradas en sí e indiferentes u hostiles al mundo exterior.

Ondo laburbildurik dago adierazten duenean lurrin edo usain berezi hori: tragikoa, amodiozkoa eta neurri batean aristokratikoa, heriotza, amodio eta ondikoak adierazten dituena…

Urtsua baladan pusketak baino ez dira bildu askotan. “de la cual no se conservan sino girones” horrek ondo adierazten du balada menostua, gutxirendua edo desegina dela neurri handi batean. Ideia honekin bat etortzen da Jurgi Riezukoak *Flor de canciones populares vascas*, 1948an Azkueren eredua berriz argitaratzen duenean, dioen pasartea:

> Restos informes de una leyenda del valle de Baztan, nabarra, que espera impaciente su Jaurgain que la complete, identifique y estudie.

Interesgarria da, behin honetaraz gero balada moztua, ebakia eta osatu gabea bada osagabetasun horrek eman ohi diola zenbaitetan enkantua. Ideia hau Menéndez Pidalen *Flor nueva de Romances viejos* liburuko hitzaurrean, “Estilo de los romances: el fragmentarismo” irakurri genuen (Menéndez Pidal: 1928):

> Pero al hojear un romancero del siglo XVI nos sorprende la gran abundancia de asuntos inacabados. Puede ser olvido o descuido lo que así deja incompleta la versión de un romance; pero en seguida desechamos esta explicación. Bien se comprende que en el siglo XVI las versiones truncas fuesen tenidas por defectuosas, no hubieran hallado tan fácil y frecuente acogida en los romanceros, pues éstos se publicaban para el recreo del público, no para el estudio de los eruditos o arqueólogos; y esta observación se comprueba al comparar la belleza de esas versiones fragmentarias con otras que tienen su final completo, pues fácilmente se echa de ver que el fragmento es más hermoso que el todo.

Guk hona ekarri dugun pasarteko azken esaldia, *el fragmento es más hermoso que el todo* delakoa, urregorrizko esaldi bat da baladei gagozkiela. Ideia bera adierazten du Julio Caro Barojak “Pedro de Ursua o el caballero” atalean:

> La misma forma mutilada da a la balada cierta belleza enigmática, porque el que la oye debe suplir no poco de lo que se da cuenta que ocurre.

Puska horiekin aldaera eklektiko edo fiktizioak egin dira. Jurgi Riezukoak, esaterako, hamalau ahapaldiko konposizio bat eskaini zuen *Nafarroa-ko euskal lantu zaharrak* liburuan. Mariano Izetak aita Donostiaren puskekin Riezukoak eskaintzen duen hamalauko ereduari Azkueren laugarren ahapaldia erantsirik hamabost ahapaldiko konposizio eklektikoago bat eskaintzen du.

2. *URTSUA* BALADAREN ARGUDIOA

Balada honek kontatzen digunak hainbat ilununе ditu. Argudioaren haria ez da agertzen beste zenbait baladatan bezain argi. Balada hau puskaka eman izan da eta hari logikoa jarraitzeko zalantzak sortu dira. Balada honetan, geroago ikusiko dugunez, zenbait kontaminazio ere agertzen dira. Bestela esan, beste balada batzuetako puska edo ahapaldiak gurean txertatu dira. Interesgarria dela deritzagu biltzaileek bildu dituzten puska edo balada ereduekin batera bildu dituzten azalpenak ere puntu honetara ekartzea. Behin biltzaile guztien laburpenak ekarri ondoren zenbait ondorio ateratzen ahaleginduko gara. Biltzaileen laburpenak ordena kronologikoan aldatuko ditugu puntu honetara. Azkuek honela laburbiltzen du bere *Cancionero popular vasco* lanean:

> Las noticias que pude recoger acerca de este horrendo suceso fueron: 1º, que una noble francesa de Lantaine se casó con el heredero de Urtsua, castillo sito entre Arizkun y Azpilikueta (Baztán); 2º, que al notar su marido el embarazo de la mujer, pretextó que debían a la noche bajar a orar a la capilla de Santa Ana, situada a unos pasos del palacio, y allí la mató; 3º, que montando un caballo que su criado le tenía prevenido, huyó a Francia el asesino.

Testigantza hau baino interesgarriagoa da Azkuek *Euskalarriaren yakintza*-n II alean, 126. zenbakian eman zuen leienda. Leienda edo elezahar horren ondoren CPV lanean argitaratu zituen sei ahapaldi datoz. Sei ahapaldi horiek geroko utziko ditugu eta elezaharra bera bakarrik aldatuko dugu hona:

> Naparroan, Baztango ibarrean, Arizkungo lurrean Urtsu edo Urtsua deritzaion yauregi zahar bat zen. Orain ere bere arresiak zutik daude. Izen andikoa zen aldi batez Naparroan. Ango yaun bat Naparroako Erregeren inguruko izan zen. Bertze bat Frantziako emazteki batekin ezkondu zen. Anai apeza zuen emazteki onek eta Naparroara andiki batekin ezkontzera zetorrela agur egitera agertu zitzaion. Apezak, arreba aur egiteko zela igarrita, gurasoen yauregian iduki nahi zuen. Arrebak anai apezari, isileraztearren, ezpata bat agindu zion. Ezkontzerakoan emaztegaiak eundaka ekarri zituen txikiroak, urrezko uztaiez orniturik.
>
> Urtsura iritsi zenean, etxekoandre zagarra, oitura zenez, jetxi zen erraingaia besarkatu zuen. Ezkondu ziren ta bereala zagutu zuen senarrak emaztea nola zegoen eta etxeko mutil bati erran zion zaldia ermitaren ondoan gerta zezala, perrak aitzinekoa gibelera zituela. Lotarako zeudela, senarrak emazteari erran zion:
>
> –Nai baduk, goazin ermitara.
>
> Yetxi ziren ta xixtako batez senarrak emaztea il zuen eta beerala zaldi gaineraturik lauringoan Frantziara iges egin zuen.

Azkueren ondoko hurrengo biltzaile handia aita Donostia izan zen. Batez ere bi lekutan idatzi zuen elezahar honen gainean. 1916ko hitzaldian eta 1953ko artikuluan. Hona, lehenengo eta behin, aita Donostiak 1916ko hitzaldian esan zuena (Donostia, 1917: 38):

> Es muy difícil, por no decir imposible, poder señalar el nombre de los protagonistas de la leyenda de que trato. Las poquísimas estrofas conservadas nos han transmitido los nombres de un *D. Juan de Utsuko beltza* y los correspondientes de las dos casas de que es cuestión; la de *Ursua* y la de *Lantana*, aunque ésta aparece de diversos modos cambiada y es, sin género de duda, aquella de donde era oriunda la mujer que entra en escena.
>
> Háblase, también, de las grandes rentas de Urtsua. *Zazpi errota berri, zortzi jauregi xuri*, "siete molinos nuevos, ocho blancos palacios". Menciónase también una ermita de Santa Ana que subsiste todavía. Tal como se conservan en la memoria del pueblo estos girones de leyenda, váis a oirlos:
>
> Un hijo de esta casa de Ursua tomó por esposa a una del otro lado de los montes que cercan el valle de Baztán. Vino ella con mucho acompañamiento, pues cuenta el pueblo que era princesa. Celebróse la boda con el aparato que se deja adivinar. Conoció él la noche de bodas que ella no había aportado al

matrimonio aquella joya, que, por ser de orden espiritual, aventaja a las riquezas y hermosura. Disimuló su sorpresa. A la mañana siguiente, hízola vestir sus mejores galas para mostrarle las posesiones de la Casa: aquellos "siete molinos nuevos, ocho blancos palacios" de que nos hablan los versos: y allí, en el campo, sin más explicaciones, dio muerte a su esposa. Su cadáver fué hallado en la ermita de Santa Ana: así lo dicen los versos.

Utsuan difuntua
Santa Anan kausituba.

Nuevos detalles orales, (que no aparecen en los versos) dicen que el de Ursua ensilló su caballo y escapó en él. Otros, en cambio, nos dicen que, muy altanero, envió un emisario a los de Lantana, encargándoles vinieran a buscar el cuerpo de su hija.

1916ko hitzaldian laburbiltzen duen argudio hau, hain ongi laburbildurik ere, 1953ko artikuluan zehaztasun berri ugariz jantziko du:

He aquí algunos datos folklóricos recogidos por mí. Escolástica Elizondoberria de Garzain (Baztán) me decía que la novia era de la casa Inda de Arizcun y que tenía un hermano cura, extremo éste que parece verosímil por el modo respetuoso con que la hermana responde al hermano. Antonio Elizalde, txistulari (que fue de Maya luego de Arizcun) me decía que la mujer era de la casa Bantana de Bidarrai. Otro comunicante me decía que la mujer era de Hazparren. Según uno, euskaldun "ola gurasu ez ezkonazi bortxara Utsuako semiaikin ta San Migueleko ermita an da; an urkatu, esposatu zen egunian, aatzean, galdu zun; ezpaitzen ezkondu nai mutil arekin; …etzen frantzesa, ez", que traducido es: así, los padres no querían casarla por la fuerza con el hijo de Utsua y la ermita de S. Miguel está allí, allí la ahorcó, (la estranguló); el día que se casó a la noche, la perdió (mató) parece que no quería casarse con aquel joven… no era francesa, no". Esto parece confirmar la desgana con que debió casarse la dicha Juana, según la referencia de los versos. Existe o existió efectivamente en las cercanías una ermita de S. Miguel que no está abierta al culto. Se dice también que hubo 300 personas en el convite de la boda. Se casaron a las 10 de la mañana y la mató a las 5 (‘). Item que había un papel (¿dónde?) en que se decía que la había matado él (el novio), que no acusaran a nadie, y por qué la mató. Se dice también que el cura oyó hablar del estado de su hermana y que a esto alude la canción (en las primeras estrofas). Dícese también que, después de matar a su mujer, tomó el de Ursúa el macho o mulo en Icazatea (venta), lo herraron allí, poniéndole las herraduras al revés (sin duda para despistar a los que quisieran seguirle).

Guztiz interesgarria da Antonio Zavalak EE lanean argitara zuen Aitzolen bildumako ohar luze bat. Ohar hau IX. puntuan argitara zuen eta neurri batean baladaren laburpen bat dugu lekuko edo berriemaile batek emana:

Eztaitako jantziaz jantzita zegoan, eta il baño lenago jantzia autsi egin zion./ Iges egin zuan mandoain perrak aldrebes jarrita, aldrebes jarri zizkan perrak arotzari sari ona emanaz./ Ezkonduta arratsean juan ziran nun mezak ematen ziran egunoro: eta, aldare aurrean jarri zanean, aizkoraz il zuan.

Apat-Etxebarneren testigantza ere ezin utzizkoa da. Aingeru Irigaraik bazekien balada interesgarri bat zena eta aldaera berrien peskizan ibili zen. Baladaren elezaharra dela eta uste interesgarri bat bildu zuen: Urtsuako jaunak Lantainako alaba modu harrigarrian hil zuen, mokanes batez itorik. A. Donostiak bildutako testigantzetan aizkorakada batez hil zuela bildu zuen. Hona hitzez hitz Apat-Etxebarneren laburpena (Irigarai: 1971):

Una versión cuenta que una hermosa dama, hija de la casa Lantaina, del Norte del País, se casó con el heredero del palacio baztanés; y que en el banquete nupcial notó éste que su esposa estaba encinta; le engaña diciendo que antes de retirarse debían hacer una visita a la Ermita de Palacio; llegados que fueron al patio, el novio le vitupera y le arranca el vestido de la novia. Y después de estrangularla con su pañuelo de seda, toma un caballo que un criado lo tenía apostado, huyendo seguidamente a Francia. Algunos añaden que las herraduras del caballo las tenía clavadas de atrás adelante, para confundir la pista de la huída.

3. AZKUEREN EREDUAK

Urtsua baladak aztertzeko orduan eredu argitaratuak eta argitaragabeak hartuko ditugu kontuan. Eredu argitaragabeak aurkitu ahal izan direnean, eredu argitaratua hobeki azter liteke, inolako dudarik gabe. Lan-sistema bezala biltzailerik handienen ereduak aztertuko ditugu. Biltzaile handien artean Azkuerekin hasiko gara.

3.1. *Azkueren eredu argitaratua*

Azkue izan zen *Urtsua* balada hau lehenbizikoz argitara zuena. Bi aldiz eman zuen argitara, lehen aldia CPV lanean. Gure balada, merezi zuzenez, X. atalean sartu zuen, "Romances y cuentos" sailean. Sei ahapaldiko konposizio bera eman zuen EY lanean ere aurretik hitz lauzko elezaharra zuela. Azkuek argitara eman zuen eredu hau nondik osatu zuen zehaztuko dugu hurrengo puntuetan. Zehaztasun hauek egiteko Azkueren eskuzko kuadernoak erabiliko ditugu aztergai. Azkuek hiru eredu behintzat bildu zituen, eta uste dugu hiru eredu horietatik osatuena erabili zuela bat bakarra argitaratzeko. Merezi du hiru eredu horiek hemen aztertzea. Lan horri ekin baino lehen, eman dezagun eredu argitaratua:

I
Urtsuan zazpi leio
zazpiak lerro lerro,
Lantainako alaba
Urtsuan defuntu dago.

II
Urtsuan defuntua
Santa Anan kausitua,
adios erran gabe
etxetik partitua.

III
Zazpi errota berri,
zortzi yauregi xuri:
orien guzien gatik
nik ez Urtsura nari.

IV
Goiti zazu burua,
ene arreba Juana.
–Eztezaket goratu,
anai Batista Yauna.

V
Izorra omenzara
ene arreba Juana
–¿Zertan zagutzen nauzu
nere anaia yauna?

VI
Zaldia zelarekin
zuretzat yarria da.
–Nik iten dudan aurra
zure besokoa izain da.

Sei ahapaldi hauek eman baino lehen ohar labur hau egiten du: "De Tomasa Urrutia, de Gartzain (Baztán, AN)":

> Estas son las estrofas que pude reunir de este dramático romance. Quizás las tres últimas hayan precedido a las primeras. Se ve que el poema está incompleto.

Ohar hau hartu bide dute kontuan geroagoko baladazale zenbaitek, sei ahapaldiak beste ordena batean emateko. Jurgi Riezukoak bere *Flor de canciones populares vascas* lanean, 1948 urtean, IV, V, III, VI, I, II ordenan ematen ditu ahapaldiak. Bide bera jarraitu zuten Santi Onaindiak *Milla euskal olerki eder* lanean eta Julio Caro Barojak *El señor Inquisidor y otras vidas de oficio* liburuan. Baina Azkuek nola argitara zuen badakigu ere, ez dakigu zehatz nola bildu zuen. Kontu horretarako, goraxeago esan dugun bezala, Azkueren paperetara jo dugu eta beraren eredu argitaratuaren jatorrizko bertsioa ikusi ondoren, ez zuela berdin-berdin argitara eman ondorioztatu dugu.

3.2. *Azkueren A eredua, Erratzukoa*

Lehen eredu hau, gaur eguneko signatura berrien araberako kodean, bi kuadernotan aurkitzen da. Lehen bi estrofak ABA-RMA-001-0002-001 kuadernoan, eta azken biak, III. eta IV. estrofak, ABA-RMA-001-0002-002 kuadernoan. Lehen kuadernoko kantaren zenbakia 535 da eta 259 orrialdean aurkitzen da. Azkuek lehen eredu hau Paz Salabururi bildu zion. Kantaren zenbakiaren gainean *Baztan* jartzen du eta azpian *Paz Salaburu*. Bigarren aldaera ikustean Paz Salaburu Baztango zein tokitakoa den jakingo dugu: Erratzukoa.

Hirugarren-laugarren ahapaldiak RMA-001-0002-002 kuadernoan 634 zenbakiaren azpian datoz. Kuaderno honetako bi estrofak ilunxkoagoak direnez gero, argibide eta iruzkin batzuk eskainiko ditugu. Hona kanta bere osotasunean:

I
Urtsuak eder leyo [,]
Lantainak ederrago [,]
Lantainako alaba
Urtsuan difuntu dago [.]

II
Urtsuan difuntua
Santa Anan kausitua (bis) [.]
Adios erran gabe
etśetikan partitu da [.]

III
Zazpi errota berri,
zortzi jauregi śuri,
eken guzien gatik
eznuke Utsura nai.

IV
Intzuak eder leyo,
Utsuak are geyago,
Utsuko etśeko andrea
Santa Anan ila dago.

Lehen transkripzio hau jarri ondoren interesgarria iruditzen zaigu ahapaldiz ahapaldi iruzkintzea. Interesgarria da eredu hau, eredu bezala, ez zuela Azkue handiak argitaratu. Hemengo pasarte bat iruzkindu edo oharrean bezala jarri zuen hirugarren ereduan, baina iruzkin hori ez zen argitaratu. Hona hemen ahapaldiz ahapaldikako iruzkina:

I. Kopla zaharren teknikakoa dugu lehen ahapaldia. *Zerk eder zer/ zerk (eder) –ago* egitura duena. Urtsua eta Lantaina bi handietxeak aipatzen ditu lehen ahapaldiak. Bi handietxe horietako neska-mutilak izango dira gure baladaren protagonista. Bata hiltzailea eta bestea hildakoa. Interesgarria da *Urtsuan difuntu dago* egitura. Euskal egitura da norbait hila dagoenean *gorputz egotea*. Euskal egitura hori aplikatzen da *difuntu dago* egituran ere. Interesgarria da, era berean, *difuntu* hitza esaten dela eta ez *defuntu*, Azkuek argitaratu zuen ereduan bezala.

2. Bigarren ahapaldian bihurki baten bidez hasten da. Interesgarria da ahapaldi honetan ere *difuntu* hitza datorrela ohartzea. Azkueren eredurik ezagunenean, argitaratu zuen bakarrean, *partitua* dator. Lehen dokumentuan, ostera, beste era batera: *partitu da*.

3. Hirugarren ahapaldi honek transkripzio aukera bat baino gehiago eskaintzen ditu. Lehen transkripzioan *orien guzien gatik* idatzi du Azkuek. Gero *orien* ezabatuz *eken* jarri du. Zein alde dago batetik bestera? Esan dezagun *(h)orien* bigarren gradukoa dela eta *(h)eken* delakoa hirugarren gradukoa. Euskara batuko *heien* baten kide da Baztango *(h)eken*. Interesgarria da, bestalde, *ez nuke nai* aditzaren erabilera. Azkuek argitara zuen ereduan askoz taxatiboagoa edo indartsuagoa den *ez dut nai* ikusten dugu.

4. Laugarren ahapaldiak badu berritasun nabarmenik. Ahapaldi hau ere kopla zaharren teknikakoa dugu, lehen ahapaldia bezala. Laugarren ahapaldi honetan ere *zerk eder zer/ zerk (eder) are geiago egitura* du. Interesgarria da *Intzuak eder leyo* ikusten dela lehen transkripzioan. Orain arte agertzen ez den etxeizen berri bat dugu: *Intzua*. Hitz hau gero ezabatu ondoren *Utsuak* jartzen du transkribatzaileak. Baina delako *Utsuak* ere ezabatu egiten du Azkuek. Hitz honen azpian zenbaki bat eta galde marka bat jartzen du. Galde-marka hitz arraroa edo ulergaitza delako da. Zenbakiko oharrak, ordea, argitu egingo digu misterioa: *Intzu, Utsu ondoko etśe bat. Intzu (vale.)*.

Laugarren eredu honetako azken oharra *(V. La pag. siguiente)* da. Orrialde horretan agertuko da Azkuek argitara emango duen eredua.

Oin-oharrak argitasun handia eskaintzen du. Batetik, oin-oharragatik dakigu *Intzu* esistitzen dela eta *Utsu* ondoan dagoela, eta, bestetik, *Intzu* delakoa ondo dagoela adierazten digu *vale* hitzak.

Besteetan ikusiko ez dugun hitz bat ere agertzen da azken ahapaldi honetan: *etśeko andrea*. Indar handikoa dela iruditzen zaigu. Lantainako alaba Urtsura ezkondu denez gero, Urtsuko etxeko andrea dugu, eta Santa Anan hila dagoena Urtsuko etxeko andre berria dugu. Uste dugu azken ahapaldi honek dramatismo handia erasten diola.



ABA-RMA-001-0002-001



ABA-RMA-001-0002-002

3.3. *Azkueren B eredua, Erratzukoa*

Azkueren bigarren eredua lehen ereduaren oso antzekoa da. Bigarren eredu hau lehenaren kuaderno berean dago, ABA-RMA-001-0002-001 signatura duenean, hain zuzen. Bigarren eredu hau kuaderno berean eta zenbaki goragoko batean, 875an, aurkitzen da. Berdintasunaren arrazoia garbi dago, lehen ereduko berriemaile berari bildua dagoelako, Erratzuko Paz Salabururi, alegia. Aldaera honek eta aurrekoak badute desberdintasunik?

I
Urtsuak eder leyo [,]
Laintainak ederrago[.]
Lantainako alaba
Urtsuan difuntu dago [.]

2
Urtsuan difuntua [,]
Santa Anan kausitua [,]
Adios erran gabe
etśetikan partitua.

Bigarren honek eta aurrekoak zein berdintasun eta desberdintasun dute? Begi bistakoa denez, bigarren eredu hau askoz laburragoa da. Bigarren eredu honek ahapaldi bi bakarrik ditu. Bi ahapaldi hauetan duten desberdintasuntxoa oso txikia da. Lehen ereduan *partitu da* dator eta bigarrenean *partitua*.



ABA-RMA-001-0002-001

3.4. *Azkueren C eredua, Gartzaingoa*

Azkueren hirugarren eredu hau argitara eman zuena da. Hirugarren eredu hau ABA-RMA-002-0003-005 kuadernoan dago. Zenbakiaren kanta 1403 dugu. Zenbakiaren gainean berriemailearen izena eta bizitokia ematen ditu: Tomasa Urrutia, Gartzain. Kuaderno honetan lehen ahapaldia baino ez da agertzen:

I
Urtsuak zazpi leyo [,]
zazpiak lerro lerro [.]
Lantainako alaba
Urtsuan defuntu dago [.]



ABA-RMA-002-0003-005

Ahapaldi honen gehigarri modura ABA-RMA-001-0002-002 UTSUA hitzaren ondoren datozen ahapaldiek osatuko dute Azkueren eredu argitaratua. Hona zehaztasun guztiak:

1º –Utsuan defuntua Santa Anan kausitua. Adios erran gabe etśetik partitua –2º Utsuak eder leyo Santa Anak are geyago (1) Utsuko etśekoandrea Santa Anan defuntu dago.–3º Utsuak errotak aundi, zazpi errota

berri zortzi jauregi śuri orien guzien gatik nik eztut Utsura nai (2)[.] –4º Goiti zazu burua, nere arreba Juana, eztezaket goratu anaia Batista jauna. –5º Izorra omen zara nere arreba Juana–zertan ezautzen nauzu, nere anaya Jauna?– (Recuérdese la canción báquica con prólogo (?) Nere arreba Juana)–(3)

(1) Algunos dicen Utsuak eder leyo Lantainak ederrago, Lantainako alaba Santa Anan defuntu[5] dago.
(2) Algunos dicen nik ez utsura nari.
(3) 6º estrofa. Zaldia zelarekin zuretzat jaŕia[6] da, nik iten dudan aurra zure besokoa izain da.

Zehaztasun hauekin osatuko du Azkuek eredu argitaratua. Zehaztasun hauek guztiak, ordea, joko handiagoa emango dute. Hemengo bertso-lerro bat edo beste ez baitzuen argira eman. Eredu hau berau, bestalde, eredu bat da bere osoan. Ez du gure ustez *Urtsuak zazpi leio* sarrerakoa behar. Ahapaldiei gaurko puntuazioa erantsiz gero, onela geldituko litzateke, beraz:

1
Urtsuak zazpi leyo,
zazpiak lerro lerro.
Lantainako alaba
Urtsuan defuntu dago.

Azkueren C ereduko ahapaldi honek bere barruan hainbat misterio gordetzen ditu. Argi ditzagun zenbait. Azkueren jatorrizko eskuidatzietan *Urtsuak zazpi leyo* dakar, inolako dudarik gabe. Azkuek, ostera, *Urtsuan zazpi leio* argitara zuen. Inesiboa, beraz, ergatiboaren lekuan jarri zuen. Uste dugu ergatiboan jartzeak arrazoi pisutsuagoak dituela. Azkuek halaxe jaso zuelako eta ezagutzen diren aldaera gehienetan halaxe delako. Ergatibo honek badu beste kiderik ere Azkueren beraren bilketetan. Azkuek jaso zuen A eta B ereduetan ere (Erratzuko bi ereduetan) ergatiboz horniturik dator: *Urtsuak eder leyo*.

Ahapaldi honek badu, bestalde, beste misterio bat. Urtsuak dituen leihoak *lerro lerro* daude. "Lerro lerro egoteak" elkarren ondoan egotea adierazten du, ez gorago eta ez beherago. Egitura adberbial horretatik atera da, gaurko euskara modernorako, *lerro* "linea" esangura duen hitza. Kontu ezagun xamar horretatik goazen beste batera. Hasiera honek beste kantu famatu baten hasiera dakarkigu burura *lertsunak lerro lerro hasiera* duena. *Lertsunak lerro lerro* badu antzekotasuan foniko bat gure kantarekin. Hor ere (l)er*tsu*nak *lerro lerro* delako sarrera zoragarri hori oso berdintsu dator gure kantarekin.

Lehen bi kopla-lerroetan ematen den Urtsuko gazteluaren leihoen zehaztasun hori irudi grafiko zoragarri bat dugu, kopla zaharren teknikan "irudi" bezala bataiatu zena. Irudi goitar horrek ondoren datorren mezu zehatz erdiragarriari eduki berezia ematen dio. Herri poesiaren elementurik adierazgarrienetako bat dugu kopla zaharren teknika da, eta lehen apahaldi honetan ezin hobeki betetzen da.

1
Urtsuak zazpi leio,
zazpiak lerro-lerro.
Lantainako alaba
Urtsuan defuntu dago

2
U[r]tsuan defuntua,
Santa Anan kausitua,
Adios erran gabe
etxetik partitua.

3
U[r]tsuak eder leio,
Santa Anak are geiago,/ Lantainak ederrago
U[r]tsuko etxekoandrea
Santa Anan defuntu dago.

4
U[r]tsuak errotak aundi
zazpi errota berri
zortzi jauregi xuri,
orien guzien gatik
nik eztut U[r]tsura nai/nari.

[5] Azkueren eskuidatzian *defuntu* ezabatuxe ikusten dugu eta gainean *ila*.

[6] Hemen ere ezabapen ttipi bat dugu. Azken ahapaldi honetan *izango* ezabaturik agertzen da eta gainean *jaŕia*.

5

–Goiti zazu burua,
nere arreba Juana.
–Eztezaket goratu,
Anaia Batista jauna.

6

–Izorra omen zara,
nere arreba Juana.
–Zertan ezautzen nauzu,
nere anaia jauna?

7

–Zaldia zelarekin
zuretzat jarria da.
Nik iten dudan aurra
zure besokoa izan da.



ABA-RMA-001-0002-002

3.4.1. Azkueren C ereduaren iruzkina

Goragoko puntuan transkribatu dugu Gartzaingo eredua oso-osorik. Azkuek eredu hau ez zuen bere ñabardura guztiekin argitaratu. Azkuek Gartzainko hirugarren ahapaldia ez zuen argitaratu. Laugarren ahapaldiko *U[r]tsuak errotak aundi* kopla-lerroa ere ez zuen argitaratu.

Gorago eredu osoaren lehen eta hirugarren ahapaldiak oso antzekoak izan arren ez dira guztiz berdinak. Uste dugu, gainera, lehen ahapalditik hirugarrenera aldaketa estilistiko interesgarriak daudela. Lehen ahapaldia berriro transkribatuko dugu:

1
Urtsuak zazpi leio,
zazpiak lerro-lerro.
Lantainako alaba
Urtsuan defuntu dago

Lehen ahapaldi honetan, lehen erdian, gorago esan dugun bezalaxe, jauregiek izan ohi dituzten leihoak nola dauden adierazten da. Bigarren erdian Nafarroa Behereko Lantaina etxeko alaba Urtsuan hila dagoela adierazten da. Bi erdiak oso desberdinak dira. Lehenean etxearen ezaugarri eta dotorezia adierazten da. Bigarren erdian ideia zuzen eta erdiragarri bat emana dago. Hirugarren ahapaldia oso antzekoa dugu:

3
U[r]tsuak eder leio,
Santa Anak are geiago,/ Lantainak ederrago
U[r]tsuko etxekoandrea
Santa Anan defuntu dago.

Hirugarren ahapaldian *Urtsuak zazpi leio* lehen kopla-lerroa apur bat desberdin dator: *Urtsuak eder leio*. *Zazpi* zenbakiaren ordez *eder* hitza dator. Kopla zaharretako ohiko egitura egina bete-betean ikusten dugu. Hirugarren *ahapaldiaren Santa Anak are geiago/ Lantainak ederrago* berria da guretzat. Azkuek argitaratu ez zuen arren, beste eredu batzuetan aurkitzen dugu. Guztiz interesgarria da ohartzea lehen ahapaldiko *Lantainako alaba* hirugarren ahapaldian *U[r]tsuko etxekoandrea* bihurtzen dela.

3.4.2. Azkueren D eredua

Azkueren ABA-RMA-001-0002-002 kuadernoan, 1402 zenbakian beste eredu bat dator. Eredu horrek, batetik, Urtsuko baladaren zati bat badu eta bestetik beste kantu batena, geroxeago ikusiko dugunez. Honelaxe dator:

> 1 –Simpleza batengatik ogean datzana ¿Nork erran dautzu ori anaya jauna? –Zure amiarrebak, arreba Juana.
> 2 –Alde batetik ditut amar ukaldi, beste aldetik berriz amar eta bi. Oriek badirade ogei eta bi/ Orretan pentsa zazu nola ez naizen eri[7]: Sayatsaren erditik aurra dut agiri-Ziburuan ote da barbera aiturik, edo mediku entzunik. Eztut ez nik bear barbera aiturik, ez eta ere geyago mediku entzunik, oren bat gabetanik illa nagozu ni.

Honelaxe tolestuko genuke Azkueren kuadernoko eredua:

[7] *Oriek badirade ogei eta bi* apurren bat ezabaturik daude eta gainean *Orretan pentsa zazu nola e naizen* eri ikusten da.

1
Sinpleza batengatik
ogean datzana.
–Nork erran dautzu ori
anaia jauna?

2
–Zure amiarrebak,
arreba Juana.
Alde batetik ditut
amar ukaldi,
beste aldetik berriz,
amar eta bi.
Oriek badirade ogei ta bi.
Orretan pentsa zazu
nola naizen eri.
Saiatsaren erditik
aurra dut agiri.

3
Ziburuan ote da
barbera aiturik,
edo mediku entzunik.
Eztut nik bear barbera aiturik
ez eta ere geiago
mediku entzunik.
Oren bat gabetanik
illa nagozu ni.


ZIBURUAN OTE DA (3.5,5 84 orr.)
1402 1° Simpleza batengatik ogean datzana, nork erran dautzu ori anaya jauna? —Zure amiarrebak, arreba Juana
2° Alde batetik ditut amar ukaldi, beste aldetik berriz amar eta bi. Orretan pentsa zazu ~~ozaig~~ nola naizen eri. ~~Dirat Barbera ogei eta bi.~~ Saiatsaren erditik aurra dut agiri — ziburuan ote da barbera aiturik, edo mediku entzunik. Eztut ez nik bear barbera aiturik ez eta ere geiago mediku entzunik, oren bat gabetanik illa nagozu ni.

ABA-RMA-001-0002-002

Ez dago dudarik Azkuek lehen zenbakiarekin dakarren pasartea *1 –Simpleza batengatik ogean datzana ¿Nork erran dautzu ori anaya jauna? –Zure amiarrebak, arreba Juana* gure baladakoa dela. aita Donostiak *sinplezia batengatik obean etzana* bildu zuen geroago ikusiko dugun eredu batean. Azkuek *oen etzana* ekarri beharrean *ogean datzana* dakar, forma jokatuan. Azkuek bildu zuen gainerako puska

beste kantu batena da, dudarik gabe. Beste kantu hori aita Donostiaren “Ziberuan ote da” 1069 kantua dugu. Honelaxe dator argitaraturik beraren lan osoetan:

1
Ziburuan ote da
Barbera aiturik,
Barbera aiturik edo
Mediku entzunik?
Oren bat gabetanik,
illa nauzu ni.

2
Ez dut, ez nik biar
Barbera aiturik,
Ez eta ere geiago
Mediku[8] entzunik.

Aita Donostiaren eskuidatzietan kanta hau osoago aurkitzen da. Guk hemen aita Donostiaren eskuizkribuan datorren bezalaxe transkribatuko dugu. Ulergarriago egin dadin gure puntuazioa jarriko diogu.

1
Ziburuan ote da
barbera aiturik,
edo mediku entzunik.
Eztut nik biar
barbera aiturik
ez eta ere geyago
mediku entzunik.
Oren bat gabetanik
illa naizu ni.

2
Alde batec ditut
amar ucaldi
berce aldetic ber[r]iz
amar eztari,
oriec badirare
oguei ta bi
sayesaren erditic
aurra dut agueri.

4. AITA DONOSTIAREN EREDU ARGITARATUAK

Aurreko puntuan Azkueren aldaera argitaratuaren ondoren eskuizkribuetako aldaerak aztertu ditugu. Oraingo puntu honetan ere ildo beretik joango gara. aita Donostiaren eredu argitaratuak eman

[8] Lan osoetan Médico dator.

ondoren bildu zituen eskuizkribuak aztertuko ditugu. Aita Donostiaren eredu argitaratuak modu kronologikoan emango ditugu. Eredu argitaratu guztiak, jakina, Zavalaren EE/RV liburuan zein aita Donostiaren CV 1031. zenbakian "Utsuan difuntua" kantan datoz.
Urtsuako baladaren aita Donostiaren lehen aipamena 1917. urteko *De la música popular vasca* hitzaldian eman zuen (Donostia, 1917: 38).

4.1. *Aita Donostiaren A eredua, Arizkungoa*

Aita Donostiaren lehen eredua ahapaldi bakarrekoa da. 1921 urteko *Euskal eres sorta* kantu-bilduman dator. Ahapaldi bakarra Amaiurren bildua da Arizkungo Antonio Elizalde txistulariari, 1914ko irailean:

Utsuan difuntua
Santa Anan kausitua: (bis)
Adios erran gabe
Etxetik partitua. (bis)

Eredu hau Amaiurren bildua bada ere, Arizkungoa zen berriemailea.

4.2. *Aita Donostiaren B eredua*

Aita Donostiaren bigarren eredua *Lecaroz* aldizkarian "Leyendas navarras" 1953. urtean argitara eman zuen artikuluan aurkitzen da. aita Donostiak lehen testu honen zertzelada hauexek eman zituen:

> Este es el texto más completo que he podido recoger. Azkue nos da otro parecido. El mío ha sido dictado a José Tellaetxe, txistulari, en 1934, por Maria Gamietea, dueña de la casa Perixene, de 59 años de edad.

1
–Kallean, zer berri,
nere anaya jauna?
–Zu embraza zarela,
nere arreba Juana.

2
–Zertarik zautu ote naute
nere anaya jauna?
Kotilluna laburtu,
nere arreba Juana.

3
–Ez nazazula sala,
ez nere aite-ametara;
ez eta are gueyago
Utsuko kondetara.

4
–Zer manen duzu sari,
nere arreba Juana?
–Bortzetan egun luis,
nere anaya jauna

5
–Oriek guziek ez duzu aski
nere Arreba Juana;
–Zaldia zelaturik,
Nere anaya jauna.

6
–Oriek guziek ez duzu aski,
nere areba Juana.
–Aurra besoetara,
nere anaya jauna.

7
–Zazpi errota berri,
zotzi jauregi xuri,
oyen guziengatik
ez nago Utsure nai (nagi, nari).

8
Utsuek eder leyo
bentanak are geyago;
Utsuko etxeko andrea
Santanan difuntu dago.

9
Utsuan difuntua,
Santanan kausitua,
adios erran gabe
etxetik partitua.

4.3. *Aita Donostiaren C eredu argitaratua*

Hirugarren eredu hau ere 1953. urteko Lecaroz aldizkarian argitara emana dago.

I
–Agur, agur, nere arreba
nere arreba Juana.
Arrazoin bat aditu dut
nere arreba Juana.

II
–Zer aditu duzu bada,
nere anaya Jauna?
–Embraza zarela aditut
nere arreba Juana.

III
–Ez nazazula sala
nere aitametara.
Ez eta ere geyago
Utsuko kalonjetara.
(Are gutiago
Utsuko semetara)

IV
Utsuak leyoak eder
Bentanak egiyago
Iru lau egun untan
Santa Anan ila dago.

4.4. *Aita Donostiaren lehen eskuizkribua*

Puntu honetara ekarriko dugun lehen dokumentua eskutitz bat da. Eskutitz hau interesgarria da alderdi askotatik. Alde batetik, aita Donostia kantuak biltzen hasi zen lehen garaietakoa delako, bestetik, eredu interesgarri bat dakarrelako. Eredu interesgarri hau modurik fidelenean emateko dagoen-dagonean emango dugu, inolako aldaketarik gabe.

Lecároz. 2. VI. 1915

Mr. le chanoine Daranatz
Bayonne

Excusez[9] moi, Mr. Daranatz, de vous écrire sans aucun intermédiaire Mlle Adèle Diharassarry m'a transmis les renseignements que vous lui[10] avez adresséz. Je suis touché de votre amabilité. C'est celle-ci qui m'anime à vous écrire pour avoir d'autres renseignements dont j'ai besoin.

Dans mon récueil de chansons basques j'en ai une, dont le tître Uśua; elle m'a été chantée à Elizondo. Il est question de l'héritier de cette maison d'Usua (la plus ancienne du Baztan, dit-on). Il vient de se marier. La nuit de noces il croit reconnaître que sa jeune femme n'est pas vierge. Il l'emmène avec soi voir ses domaines et possesions. Là, au champ, il tue son épouse, dont le cadavre est exposé dans la petite chapelle de "Santa Ana" qui existe encore.

J'ai fait beaucoup de démarches, j'ai beaucoup fouillé dans ler archives vivants, qui sont les gens du peuple. Je n'ai pu réunir que trois ou quatre strophes. Pas plus. On m'invite a donner à Pampelune une

[9] Jatorrizko testuan *Excuses* dakar.
[10] Hitz hau ez da garbi ikusten.

petite conférence sur ce sujet: la musique basque je désire vivement y inclure cet spécimen de légende chantée, si rare chez nous. Auriez vous la bonté de me renseigner sur ce point? Je vous en serais bien reconnaissant. J'ose le demander, puisque dans votre lettre à Mlle Diharassarry vous vous montrez bien disposé á mon égard.

Voici les strophes recueillies:

Usuan difuntuba
Santa Anan kausituba
Adios errangabe
Etchetik partitua.

Usuak eder leyo
Lantaña ederrago (bis)
Lantañako alaba
Santa Anan difuntu dago.

Izorra omen zara
nere arreba Juana:
–Zertan ezautzen naizu
nere anaya, Jauna.

Zaldia zelarekin
Zuretzat izango da
Nik iten duden aurra
zure besokoa izain da.

Usuac errentak aundi
Zaspi errotaberri
zortzi jauregi zuri
Oyen gusiengatik
Nik es Uśura nari.

Usuan eder bertza
Dn Juan de Usuko beltza
Nik oi erranagatik
enauk iretzat lotsa.

Le sens y manque, continuellement: vous le remarquerez. –"Lantaña", c'est le nom de la maison à elle. = Le archive de cette maison est à Madrid. J'entends dire, celui de la maison Uśua: J'ai fait quelques démarches (par mediations des amis) pour y fouiller: je n'ai pas réussi.

Excusez moi, Mr Daranatz le petit dérangement que je vous cause et croyez-moi humble serviteur et afectionne in Xto.

(Sinadura) Fr. José Ant. de S.S.

Adrese: Colegio de Ntra Sra del Buen Consejo (Baztán-Navarra) Lecaroz.

Eskutitz hau, goraxeago esan dugunez, aita Donostiaren kantu bilaketen hasiera xamarrekoa da, 1915ekoa, mende bat baino gehiagokoa. Ezagutzen dugun aita Donostiaren *Urtsua* baladaren lehen bilketa 1914ko iraileko 14koa da. Lehen bilketa honetatik –Arizkungo Antonio Elizalderi egina, Amaiurren– ahapaldi bakarra argitara eman zuen. Eskutitzean datorren eredua Elizondon bildua da eta sei ahapaldi ditu, beste eredu bat da, beraz. Eredu honek baditu, A. Donostiaren testu askok bezala, zenbait huts eta bateratasun falta. Lehen ahapaldian, *difuntuba* eta *kausituba* aurkitzen badira, *partituba* ere aurkitu beharko genuke. Beste aukera bat ere egon liteke lehen ahapaldiak *partituba* edo *partitu da*.

Bigarren ahapaldian, hasiera *Usuak eder leyo* bada, *Lantañak ederrago* eskatzen du, hots, ergatiboarekin: *Lantañak*.

+

4.1

Lecároz. 2. VI. 1915

Mr. le chanoine Daranatz
Bayonne.

Excuses moi, Mr. Daranatz, de vous écrire sans aucun intermédiaire. Mlle Adèle Diharassary m'a transmis les renseignements que vous lui avez adressés. Je suis touché de votre amabilité. C'est celle-ci qui m'anime à vous écrire pour avoir d'autres renseignements dont j'ai besoin.

Dans mon recueil de chansons basques j'en ai une, dont le titre Usua; elle m'a été chantée à Elizondo. Il est question de l'héritier de cette maison d'Usua (la plus ancienne de Bastan, dit-on). Il vient de se marier. La nuit de noces il croit

reconnaître que la jeune femme n'
est pas vierge. Il l'emmène avec soi
voir ses domaines et possessions. Là, au
champ, il tue son épouse, dont le
cadavre est exposé dans la petite chapelle
de "Santa Ana" qui existe encore.

J'ai fait beaucoup de démarches,
j'ai beaucoup fouillé dans les archives
vivants, qui sont les gens du peuple.
Je n'ai pu réunir que trois ou quatre
strophes. Pas plus. On m'invite à donner
à Pampelune une petite conférence sur
ce sujet: la musique basque. Je désire
vivement y inclure ce spécimen de
légende chantée, si rare chez nous.
Auriez-vous la bonté de me renseig-
ner sur ce point? Je vous en serai
bien reconnaissant. J'ose le demander,
puisque dans votre lettre à Mlle Dibi-
rassarry vous vous montrez bien dis-
posé à mon égard.

Mila Donostia eu Kantutegia
VIII, 1427 om.
"Utsuan difuntua"

Voici les strophes recueillies:

Usuan difuntuba
Santa Anan kausituba
Adios esangabe
Echetik partituba
Usuak eder leyo
Lantaña ederago (bis)
Lantañaks alaba
Santa Anan difuntu dago.
Izorra oinen zaza
nere areba jlana:
- Zertan ezautzen naizu
nere anaya, jauna.
Jaldiá zelaretan
Zeretzat izango da
Nik ekenbiden aurra
Zure besokoa izain da.
Usuac esentak aundi
Zaspi errotaberri
Zortzi jauregi zuri
Ozen gusiengatik


4.3

nik es Usūra nari.
Usuan eder berpa
Dn Juan de Usūko belka
nik oi eranagatik
enauk uetzat lotsa.

Le sens y manque, continuellement: vous le remarquerez! - "Lantaña", c'est le nom de la maison à elle. = L'archive de cette maison est à Madrid: j'entends dire, celui de la maison Usūna: j'ai fait quelques démarches (par médiation des amis) pour y fouiller: je n'ai pas reussi. —

Excusez-moi, Mr Daranatz le petit dérangement que je vous cause et croyez-moi humble serviteur et affectionné in Xto

Fr. José Ant.o de S.S.

Adresse: Colegio de Ntra Sra del Buen Consejo. - (Bastan-Navarra)

Lecaroz
Aita Donostiaren karta Daranatz kanonigoari.

4.5. *Aita Donostiaren bigarren eskuizkribua*

Dokumentu hau 1934 urtekoa da eta aita Donostiaren paperetan aurkitzen da. Atal honetan iturrian datorren bezalaxe transkribatuko dugu. Biltzailea Jose Telletxea izan zen eta lekukoa Maria Gamietea. Eredua bederatzi ahapaldikoa da. Azken ahapaldiaren transkripzioaren ondoren zehaztasun hau dator: *Maria Gamieteari artutacoac Pericheneco etcheco andreari adiña 59 urte etan José Tellecheac 1934*.

1
Kallean cer berri dago
: nere Anaya jauna
: zu Embraza zarela
: Nere Arreba Juana.

2
Zertarik zautu ote naute
: Nere aya Jauna
: cotilluna laburtu
: nere areba Juana

3
Ez nazazula sala
Ez nere aite ametara
Ez eta are gueyago
utsuco Condetara

4
Ceŕ manen duzu sari
: nere arreba Juana
: Borcetan Egun Luis
Nere Anaya Jauna

5
Oyec guciak ez duzu Askui
: nere Arreba Juana
Zaldia zelaturik
Nere anaya jauna

6
Oriek guciek ez duzu aski
: nere areba Juana
: Aurra besoetara
: Nere Anaya Jauna.

7
Zazpi Errota Berri
zorrzi jauregui śuri
Ayen guziengatik
ez nago Utsure nay/nagi

8
Utsuek eder leyo
bentanac are gueyago
Utsuco Etcheco andrea
Santanan difuntu dago.

9
Utsuan difuntua
: Santanan kausitua
: adios Erran gabe
Etchetic partitua

Dokumentuaren transkripzioak ez du inolako arazorik sortzen. Zortzigarren ahapaldian, bigarren kopla-lerroan, *Santanac are gueyago* horretan, *Santanac* ezabaturik dago eta gainean *Bentanac* idatzi du transkribatzaileak.


1
Kallean cer berri dago
: nere Anaya Jauna
: Zu Embraza Zareta
: Nere Arreba Juana

2
Zerta rik Zautu ote naute
: Nere Aya Jauna
: Catilluna laburtu
: nere areba Juana

3
Ez naz Zula sala
: Ez nere aite ametara
: Ezeta are gueyago
: Utsuco Condetara

4
Cer manenduzu sari
: ne re arreba Juana
: Borreatan Egun Luis
: Nere anaya Jauna

5
Ojecguia ez duzu Askui
: nere Arreba Juana
: Zaldia zelaturik
: Nere anaya jauna

Oriek guzik erduzuaski
: nere Areba Juana
: Aurra besoetara
: Nere anaya Jauna

7
Zaz pi Ersota Berri
: Zorri yaureguiSuri
: Ayen guriengatik naz
: ez nago Utsure nay

8
Utsuek eder leyo
: Bentanac Santanak are gueyago
: Utsuco Etcheco Andrea
: Santanan difuntu dago

9
Utsuan difuntua
: Santanan kausitua
: adios Erran gabe
: Etchetic partitua

Maria Gamietea ri arte
ta coac Perichenecco
etcheco andreari adiño
59 arte etan
Jose Zallechea C
1974
Santanak

Urtsua balada. Maria Gamietearen eredua.

4.6. *Aita Donostiaren hirugarren eskuizkribua*

Dokumentua ere, aurreko puntukoa bezalaxe, Jose Telletxeak bildua da. Dokumentu honek aurreko puntuko dokumentuan ez datozen bi ahapaldi berri dituenez gero, zenbakiak 10 eta 11 dira. Dokumentu honen ondoren azalpen bat dakar biltzaileak:

> ya procuro re aber si busco mas mas despues por ahora no se mas y dispenseme la tardanza asus ordenes este servidor Jose Tellechea. Estas dos son tomados à Francisco el Posadero biejo de Errazu.

Bi kopla hauek, beraz,

10	11
Gure Mari Katalin	Etzinaquien bada
Emacume fidela	traba guelditua zinela
Pesalombre aundietan	Orduan ezaitequen
Guelditua bide da.	ezconzarican zerra.



Francisco Erratzuko tabernari zaharrari hartuak.

4.7. *Aita Donostiaren laugarren eskuizkribua*

Dokumentu hau Jose Telletxeak berak bildua da. Lekukoa edo berriemailea, ordea, ez dakigu nor den. Bi ahapaldi hauek gainean nº 13 zenbakia dute.

Nere arreba Juanak
sinplezia baten gatic
obean da etzana
dena ura ere senarra[k] emana
nor[k] erran dazu ori
anaya Jauna.

Zure amiarreba
muscar berdea
sierpe gaiztos duela
obe buruquipia
edan sube gaiztoz
obera bidia



Jose Telletxeak bildua. Lekukoa ezezaguna.

4. 8. *Aita Donostiaren seigarren dokumentua*

Aita Donostiaren eredu hau Ursua deritzan karpetan eta kuadernoan aurkitzen da, aita Donostiaren funtsean. Eredu honetako laugarren ahapaldi erdi bat ezabatua dago. Puntu honetan testu beraren bi transkripzio egingo ditut, lehena dagoen-dagoenean ekarriko dugu eta bigarrenean, ezabaturik dagoen laugarren ahapaldi erdia kontuan harturik. Kontuan izan behar da ahapaldiak marra batez bereizirik daudela. Marraren lekuan zenbakia jarri dut testua hobeki uler dadin. Hona hemen:

1
Utsuak eder leyo
Lantanak ederrago
Lantanako alaba
Santanan difuntu dago.

2
Ez nazazula sala
nere aitametara
ez eta ere geyago
Utsuko kalongetara.

3
Usuko echekoandrea
Santa Anan causitua
adios erran gabe
echetik partitua

4
Utsuak-errentak
Lantanak are gueyago
ayen gucien gatik
nik eztute Utsura nar[i]

5
Utsuak errentak andi
Lantanak aren geyago
Zazpi jauregi zuri
zortzi errota berri
oyen guzien gatik
ni ez naiz Uxurat [n]ari.

Hona aldatu dugun lehen eredu honek badu zer iruzkindua. Kuadernoan transkribaturik dagoen testua esku bik egina da. Lehen zatiaren transkribatzailea nor den ezin jakin dugu. Bigarren zatiaren transkripzioa argi baino argiagoa da aita Donostiarena. Bigarren zatia bukaera da eta bost zenbakia jarri diogun puska dugu, hots:

Utsuak errentak andi
Lantanak aren geyago
Zazpi jauregi zuri
zortzi errota berri
oyen guzien gatik
ni ez naiz Uxurat [n]ari.

Lehen transkripzio honetan hitz bera bi eratara transkribaturik ikusten dugu. *Utsua*, *Utsuak*, *Utsuko* dator ahapaldi guztietan hirugarrenean izan ezik *Usuko* agertzen baita. Transkripzioak inolako ilununerik ez duen arren, letraren bat edo beste ezabatu eta gainean idatzia dago. Hirugarren ahapaldian, esaterako, transkribatzaileak *echecoandrea* idatzi du lehen idazkeran eta gero *echekoandrea*. Bigarren ahapaldian *ez eta ere geyago/ Utsuko kalongetara* harrigarria egiten da. Berez beste forma bat behar luke *ez eta are gutiago/ Utsuko kalongetara*. Puntu honetan transkribatu ditugun bost ahapaldiak lehen transkribatzaileari dagokiona da. Bigarren eredua aita Donostiark egin duen eranskina eta are azken ahapaldien eraketa (azken 4 eta 5 ahapaldiena) salatzen dute.

Bigarren eredua ahapaldi erdia ezabaturik honelaxe geldituko litzateke, beraz:

1
Utsuak eder leyo
Lantanak ederrago
Lantanako alaba
Santanan difuntu dago.

2
Ez nazazula sala
nere aitametara
ez eta ere geyago
Utsuko kalongetara.

3
Usuco echekoandrea
Santa Anan causitua
adios erran gabe
echetik partitua

4
Utsuak-errentak
Lantanak are gueyago
Utsuak errentak andi
Lantanak aren geyago

5
Zazpi jauregi zuri
zortzi errota berri
oyen guzien gatik
ni ez naiz Uxurat [n]ari.

Atal honetako ereduan edo ereduetako azken ahapaldiaren ordena *zazpi jauregi zuri/ zortzi errota berri* delakoa aita Donostiaren eredu guztietan alderantzira da, hots, *zazpi errota berri/ zortzi jauregi zuri*. Eta badirudi logikak halaxe agintzen duela. Azkueren eredu guztietan zein beheraxeago ikusiko ditugun Aitzolenetan halaxe agertzen da.



Aita Donostiaren azken dokumentu originala.

5. JOSE ARIZTIMUÑO *AITZOL*EN FUNTSEKO EREDUAK

Antonio Zavalak bere baladategian bosgarren eredutik hasita bederatzigarren puntuak Aitzolen funtseko baladei eskaintzen dizkie. Bost puntutan ez ditu, ia beti bezala, bost eredu eskaintzen. Azken ereduan lau eredu eskaintzen ditu. Guztira, beraz, zortzi aldaera datoz. A. Zavalak lehen aldiz transkribatu eta argitara zituen Aitzolen funtseko baladak. Aitzolen *Urtsua* balada argitaragabeek lehen aldiz ikusi zuten argia Zavalaren baladategian. Eredu hauek badute zer iruzkindua eta hurrengo puntuetan horretan

saiatuko gara. Aitzolen lehen eredua izan ezik (geroxeago frogatuko dugunez aita Donostiak bidalitakoa da), gainerako guztiek Baztanen Jose Fagoaga apaizak bilduak dira. Eredu guztiek, beraz, esku-letra bera izango dute. Eredu guztiak, bestalde, (Bozate eta Lekarozko Miserikordia etxean) lekuko zaharrei bilduak izango dira 1934-1935 urteetan. Eredu hauei guztiei ere gure transkripzioa eta iruzkina eskainiko dizkiegu.

5.1. *Aitzolen lehen eredua*

A. Zavalak bosgarren puntuan, 170. orrialdean, Aitzolen lehen eredua dakar. Eredua transkribatu ondoren azalpen txiki hau dakar:

> Jose Ariztimuño Aitzol apaiz jauna zanaren bilduman, irugarren zenbakiaz seinalatutako kuadernoan. Ez da esaten nundik edo zeiñen aotik jasoak diran bertso auek. Baiña biltzaillea baditeke Jose Fagoaga apaiz jauna izatea.

Eredu hau Aitzolen gainerako ereduen ondoren aurkitzen da (473-474 argazkietan) eta frogatuko dugunez, A. Donostiak Aitzoli bidalitako eskuizkribu batean oinarritua dago. A. Zavalaren azalpen hau oker dagoela frogatuko dugu puntu honetan. Antonio Zavalak V. puntuan dakarren eredua guztiz ezaguna eta dudarik txikiena sortzen ez duena da. Hona hemen:

1
–Kalean, zer berri, dago
nere anaia jauna?
–Zu enbraza zarela,
nere arreba Juana.

2
–Zertaik zautu naute
nere anaia jauna?
–Kotillune lagurtu,
nere arreba Juana.

3
–Enazazula sala,
nere anaia jauna,
ez ene aita ametara
ez eta ere Utsuko kondetara.

4
–Zer manen duzu sari,
nere arreba Juana?
–Bortzetan egun luis,
nere anaia jauna.

5
–Oriek guziak ez dituzu aski
nere arreba Juana;
–Zaldia zelaturik,
Nere anaia jauna.

6
–Oriek guziak ez dituzu aski,
nere areba Juana.
–Aurra besoetara,
nere anaia jauna.

7
–Zazpi errota berri,
zortzi jauregi xuri,
oien guziengatik
ez nago Utsure nahi (nagi, nari).

8
Utsuan difuntua,
Santanan kausitua,
adios erran gabe
etxetik partitua.

9
Utsuak eder leio
bentanak are geiago,
Utsuko etxeko andrea
Santanan difuntu dago.



Ttxua-Jaungiko ereia

melodia confessuaia a
P. Donosti. –

Bozale-a

Ba

I

Kalean zer beri daga
Nere anaya jauna?
Zu enbidza zarela
Nere arieba Juana.

II

Zertatik ezautu dagute ole naute
Nere anaya jauna?
Kotilune Ilaguntu
Nere arieba Juana.

III

Enazaguta sala
Nere anaya jauna.
Ez nere bitta ametara
Ez eta ere Mtsuko Kondetara

IV

Zer emayen duzu sari
Nere arieba juana?
Bostzetan egun Luis – Lubis
Nere anaya jauna.

V

Oriek guziek ez ditutzu asko
Nere arieba juana.
Zaldia zelaturik
Nere anaya jauna.

VI

Oriek guziek ez ditutzu asko
Nere arieba juana.
Auza besoetara
Nere anaya jauna.

VII

Laspi erota beri
Zoatzi yauregui txuri.



Urtsua balada. Aita Donostiaren eskuzko letra.

Antonio Zavalak transkribatzen duen eredu hau aita Donostiarena da, dudarik gabe. Aita Donostiaren B eredua, hain zuzen. Aitzolen bilduman aita Donostiaren eskutikako eredu garbi bat dago A. Donostiak berak bidalia. Diodanaren froga argiak baino argiagoak ditugu. Zavalak dioen *Biltzailea baditeke Jose Fagoaga apeza izatea* gaizki dago. Biltzailea eta azken transkribatzailea aita Donostia da. Honelaxe dator hitzez hitz Aitzolen funtsean, jatorrizko ortografia eta puntuazioa errespetaturik:

Ursua-Jauregiko eresia Melodia conferencia P. Donostia
Bozate

1
Kalean zer beŕi dago
Nere anaya jauna?
Zu embraza zarela
Nere aŕeba Juana.

2
Zertaik ezautu ote naute
Nere anaya jauna?
KotiĺLune lagurtu
Nere aŕeba Juana.

3
Enazazula sala
Ez nere anaya jauna,
Ez nere aita ametara
Ez eta ere Utsuko Condetara

4
Zer emanen duzu sari
Nere aŕeba Juana?
Bortzetan egun Luis/ Lubis
Nere anaya jauna.

5
Oriek guziek ez dituzu aski
Nere aŕeba Juana.
Zaldia zelaturik
Nere anaya jauna.

6
Oriek guziek ez dituzu aski
Nere aŕeba Juana.
Aurra besoetara,
Nere anaya jauna.

7
Zaspi eŕota beŕi
Zortzi yauregui xuri
Oyen guziengatik
Ez nago Utsure nahi.

8
Utsuan difuntua
Santanan kausitua
Adios eŕan gabe
Etxetik partitua

9
Utsuak eder leyo
Bentanak are geyago
Utsuko etxekoandrea
Santanan difuntu dago.

Testua tintaz idatzia dago aita Donostiak ohi zuen letra garbian. "Ursua-Jauregiko eresia Melodía P. Donostia" goiburuaren ondoren *Bozate* dator. Argi dago, beraz, Bozaten bildua dagoela eredua. Guk dugun kantaren argazkian ezin jakin da zer jartzen duen ondoren.

Aita Donostiaren testuan zenbait hitz ezabatu eta ondoan lapitzez idatziak daude. Zuzenketak berak ere aita Donostiarenak dira, inolako dudarik gabe. Hona zuzenketen berri. Bigarren ahapaldian *Zertaik ezautu ote dagute* jarri du transkribatzaileak eta ondoan *nagute*. Bi adizkiak ezabatu ondoren gainean *ote naute* jarri du lapitzez. Laugarren ahapaldian *Luis* hitzaren ondoan *Lubis* ere jarri du transkribatzaileak. Zazpigarren ahapaldian *Utsure nagi* jarri du transkribatzaileak eta gero zuzendurik

(Utsure) nahi. Bederatzigarren ahapaldian transkribatzaileak *Santanak are geyago* zuzendu ondoren *Bentanak are geyago* gelditu da.

Aldaera honetan dagoen aldakuntzarik nabarmenena azken bi ahapaldien ordena da. Aurrerago ikusi ditugun A. Donostiaren eredu argitaratu zein eskuizkribuzkoan 9-8 da ahapaldien ordena.

5.2. *Aitzolen bigarren eredua*

Aitzolen funtseko bigarren eredua aski osoa da. Guztira bost ahapaldi zenbakitu gabe ditu. Hona hemen:

1
Usuan difuntua
Santa Anan kausitua
Adios eŕan gabe
etxetik partitua.

2
Usuak eder leyo
Bentanak are geyago
Usuko etxeko andrea
Santa Anan difuntu dago.

3
Usuak erenta aundi
zazpi erota beŕi
zortzi yauregi zuri
oien guzien gatik
Nik ez dut usura nai.

4
Kalean zer beŕi dago
nere anaya jauna?
zu enbraza zarela
nere aŕeba Juana.

5
Ez nazula sala
nere aita ametara
eta are gutiago
Usuko kondetara.

6
Franziara pasa da
gure infantea
uŕena Dn Fernando
gure eŕege gaztea.





Aitzolen bigarren eredua.

Transkripzio oker txiki bat edo beste egiten du Jose Fagoagak. Hirugarren ahapaldian *erenta* eta *erota* ematen ditu *eŕenta* eta *eŕota* egin beharrean. Transkipzioaren ondoren *Recogido a un anciano de Bozate* jartzen du transkribatzaileak. A. Zavalak transkripzio zuzena egiten du. Azken ahapaldiaren gainean ohar hau egiten du:

> Azken bertsoak, dudarik gabe, ez du Urtsuako kanta zaar onekin zer ikusirik izango. Frantsestean jarritako bertso-puskaren bat degu, ziur asko.

Ohar hau bete-betean onartzekoa da, inolako dudarik gabe.

5.3. *Aitzolen hirugarren eredua*

Aitzolen hirugarren eredua Jose Fagoaga apezak bildua da. Ereduaren ondoren ohar hau dakar: *Recogidos a la cieguita de la Misericordia Juliana Goñi de Lekaroz-85 años 1934*. Harrigarria bada ere itsuak berriemaile zoragarriak izan dira. Azkuek Urdiainen bildu zuen *Pazkoetan den alegerena* balada ere emakume itsu bati bildu zion.

Gure eredu hau 460-461 argazkietan dator:

Zertatik ezautzen nauzu
nere anaya jauna
[delantala zaizu lagurtu,
nere arreba Juana.]

Delantala zaizu lagurtu
gerrira ongi loditu
ortaik ezautzen zaitut
nere aŕeba Juana.

Ez nazula sala
Uxuko Condetara
ez eta ere nere
aita ama etara

Zer emanen datazu sari
Nere Aŕeba Juana
plumarekin
Nere Anaya Jauna.

Ezta ez ori sari
nere aŕeba Juana
Auŕa beso etara
nera anaya Jauna.

Orixe da ori sari
nere aŕeba Juana
Auŕa beso etara
nera anaya Jauna.



Urtsuako balada. Aitzolen hirugarren eredua.

Gure eredu honetako lehen ahapaldiko bigarren erdia falta da. Zavalak lehen erdia falta dela dio, baina bigarren erdia da. Jose Fagoaga transkribatzaileak lehen erdia transkribatu eta bigarren erdia hutsik jarri ondoren ohar bat egiten du: *De este no recuerda la terminación*. Baliteke, beraz, geroago *delantala zaizu lagurtu* dionez gero, horixe bera izatea. Gure osatzea da, beraz, kortxete artean jarria dagoena. Ahapaldi guztietatik bigarren ahapaldiak sortzen du zalantzarik handiena. Nola ote da *delantala zaizu lagurtu,/ gerria ongi loditu* edo *delantala zaizu lagurtu,/ gerrira ongi loditu?* Bi aukeretatik A. Zavalak lehena aukeratu du. Guk, ordea, bigarrena irakurtzen dugu.

Transkribatzaileak lehen ahapaldian Zertatik jartzen du eta hirugarrenean ortaik. Pentsatzekoa da *(h)orta(r)ik* badator nahitaez *zerta(r)ik* izan behar duela. Bestela esan, legea da ablatiboan behin *–ta* baten ondoren Baztango euskaran –(r)ik izatea. *Zertarik* eta *(h)orta(r)ik* behar luke, gainerako gure baladaren eredu guztietan ematen den bezalaxe.

5.4. *Aitzolen laugarren eredua*

A. Zavalak dakarren laugarren ereduak problema handiagoak sortzen ditu. Bost ahapaldiko eredu honetan azken hiruak argazki batean datoz (462). Beste bi ahapaldietatik lehena bakarrik ikusi dugu. Lehen ahapaldia 456koa bada eta gainerako hiruak 462koak. Badirudi hala ere bi argazki horiekin osatzen dena bosgarren ereduan datorrela. Hala ere berdintasun ikaragarria denez gero, puntu honetara ekarriko ditugu.

Enazazula sala
Nere aita ametara
Eta are gutiago
Utzuko kondetara.

Gure Mari Katalin-(Aizpa)
Emakume fidela
Pesalumbre aundieta
gelditu bide da.

Deklaratu izan balu
traba gelditua zela
orduan ezaiteke
Eskontzarik zeŕa

Ataŕazko ezkilak
ederki du soñatzen
Andere santa Juana
oray zaigu partitzen

A. Zavalak bigarren eta hirugarren artean Aitzolen funtseko argazkietan aurkitzen ez dugun ahapaldi bat dakar:

Utsuak errenta aundi,
zazpi errota berri,
zortzi jauregi berri,
orien guziengatik
ez nago Utsure nahi.

Ahapaldi ezaguna den arren berritasun txiki bat dakar *errota berri* eta *jauregi berri*. Gainerako ereduetan *errota berri* eta *jauregi xuri* izan ohi da.

5.4.1. Bosgarren ereduetako lehen puska

A. Zavalak bosgarren ereduetan ahapaldi solte eta listuak dakartza. Eredurik maiztu eta erosionatuak, nolabait esan. Puntu honetan eskuizkribuan datozen bezala transkribatu eta iruzkinduko ditugu. Lehen adibidea 453 argazkian dator. Puska bakoitzeko pasarteak jatorrizko dokumentuan datozen bezala errespetatuko ditugu.

Nik bertze eŕegalorik
ez datzut eŕegalatuko
txapela orelagatikan

Antziñako gauza badauzkit
Aŕeba zoazi niganik
Bertzela gauz onik
Ez duzu aituko

Aitari ez du kaso
egitia nai
Adios eŕan gabe
juan zaigu gure galaia

Lehen puska honetan *orelagatikan* forma bitxia dator. Forma bitxi hau *orrela* edo *orregatikan* izan behar luke eta ez bien nahasketa A. Zavalak jatorrizko testuari men eginez *orrelagatikan* transkribatzen du. Hitz hau hurrengo puskan ere etorriko da. Eskuidatzian *Antziñako gauza badauzkit* dator. A. Zavalak *Antziñako gauzak badauzkit* irakurri du. Pluralean jartzea guztiz zentzuzkoa da hurrengo puskan ikusiko dugun bezalaxe. Esaldi hau, bestalde, bigarren pasartean dator jatorrizko eskuidatzian eta ez lehenean A. Zavalak egiten duen bezala.


Nik bertze eŕegalorik
ez datzut eŕegalatuko
txapela orelagatikan
Antziñako gauza badauzkit

Aŕeba zoazi niganik
Bertzela gauz onik
Ez duzu aituko

Aitari ez du kaso
egitia nai
Adios eŕan gabe
juan zaigu gure galaia

Urtsua balada. Bosgarren ereduetako lehen puska.

5.4.2. Bosgarren ereduetako bigarren puska

Bigarren puska aurrekoaren oso antzerakoa da. Puska honetan *bertziak badauzkit* eta *antzinako gauzak badauzkit esaldiak* datoz.

Nik bertze eŕegalorik
ez zaitut eregalatuko
txapela eta
bertziak badauzkit

Aŕeba zuazi
ni gandikan
bertzela gauz onik
eztuzu aituko

Nik bertze eregalorik
ez zaitut eregalatuko
txapela orrela gatikan
aintzinako gauzak badauzkit.

Transkribatzaileak lehen puskan *eŕegalorik* jarri du eta azpian *eregalatuko*.
Bigarren puska honetan bi lehen pusken ondoren lehen puskaren aldaera dena eskuinerago jarri du transkribatzaileak.



Urtsua balada. Bosgarren ereduetako bigarren puska.

5.4.3. Bosgarren ereduetako hirugarren puska

Hirugarren puska hau Aitzolen laugarren ereduaren gainean hitz egin dugunean (A. Zavalaren baladategian VIII. eredua, 172 or.) aztertu dugu. Puska hau 456, 462 argazki-zenbakietan datoz. Bi argazkiko koplekin osatzen dena ia guztiz bat dator Aitzolen laugarren ereduarekin.

Enazazula sala
Nere aita ametara
Eta are gutiago
Utzuko kondetara.

Gure Mari Katalin-(Aizpa)
Emakume fidela
Pesalumbre aundieta
gelditu bide da.

Deklaratu izan balu
traba gelditua zela
orduan ezaiteke
Eskontzarik zeŕa

Ataŕazko ezkilak
ederki du soñatzen
Andere santa Juana
oray zaigu partitzen



Urtsua balada. Bosgarren ereduetako hirugarren puska.

5.4.4. Bosgarren ereduetako laugarren puska

Oraingo puska honetan ez dago inolako bertso edo ahapaldirik. Narrazio edo kontaketa husa da. Hala ere jatorrizko testuan datorren transkribatuko dugu. Testuaren buruan *Ortzaiz-Bentana* dakar. Zer esan nahi ote du Ortzaizen bildua dela? Zaila da hala izatea. Jose Fagoagaren testuak Baztanen bilduak daude eta Ortzaize mendi Pirineoez bestaldean dago, Izpegiko gaina iragan ondoren.

Eskondutako aŕatsean juan ziran
nun mesa ematen ziran egunoro
Eta aldare auŕean jaŕi zanean
aizkoraz il zuan=

Estaitako yauntziaz jantzita zegoan
eta il baño lenago jantzia autzi
egin zion

Iges egin zuan mandoan peŕa[k]
aldrebes jaŕita-Aldrebes jaŕi
zizkan perak arotzari sari ona
emanaz.

Transkribatzaileak, beste testu askotxotan bezalaxe, ez ditu berdin transkribatzen hitzak. Bestela esan, hitz bera era bitara ikusten da *peŕa[k]* eta *pera*. Nahiz eta *Eslaitako yauntziaz jantzita zegoan* jarri transkribatzaileak *Estaitako* izan behar du. Jatorrizko testuan, bestalde, *yauntziaz jantzita* ikusten dugu eta ez A. Zavalak dakarren bezala *jantziaz jantzita*.



Urtsua balada. Bosgarren ereduetako laugarren puska.

5.4.5. Bosgarren ereduetako bosgarren puska

Puska hau 457 argazkian dator. Puska hau hiru lerrokadatan transkribatua dago. Jatorrizko eskuidatzian honelaxe dator.

Bertziak berziak direla
gure familia oi dela medio
eŕeka yo biardu

Amak ikusi zaitunian
bertziak bertze negaŕa eman zion
senara beriz oi dela medio
eŕekara sartu bear degu

Lenago bizi giñan aide usu edeŕian
orai zer da diabrua lertu gaitu
eta gure Usuko bizizia diabrua eraman du.

Harrigarria badirudi ere transkribatzaileak ez ditu ergatiboak jarri. Lehen pasarte edo lerrokadan gure *familia[k] (erreka yo biardu);* hirugarrenean, *diabrua[k] lertu gaitu* eta, era berean, *diabrua[k]eraman du*. A. Zavalak transkripzio-hutsak zuzendu eta ergatibo markak jarri ditu. Irakurketa arazotxo bat badu testu honek. Zer dio jatorrizko eskuidatziak *diabrua[k] lotu gaitu* A. Zavalak irakurtzen duen bezalaxe edo *diabrua[k] lertu gaitu?*Guk bigarren irakurketa egin dut. Puska honetako beste ilunune bat azken aldera dator. *Usugo bizizia* uste dugu irakurtzen dela azken *–go* duela eta *–ko*. Transkribatzailearen okerra delakoan *Usuko* jarri dugu.

Eskuidatziko ordena hau bada ere, A. Zavalak hirugarren pasartea lehenera ekarri du.



Urtsua balada. Bosgarren ereduetako bosgarren puska.

6. AINGERU IRIGARAI EDO APAT-ETXEBARNEREN EREDUA

Apat-Etxebarnek edo bere egiazko izen-deiturez Aingeru Irigaraik *Urtsua* baladaren eredu bat eskaini zuen *Noticias y viejos textos de la Lingua Navarrorum* liburuan. Aingeru Irigarai nafarra, euskaltzaina eta herri literaturazalea zen. Gerra aurrean, 1928. urtean "Una variante del cantar de la palaciana de Tardets" artikuluan *Atarratze jauregian* baladaren Otsagiko aldaera berri bat eskaini zuen. Barandiaranen *Anuario de Eusko Folklore* aldizkarian Nafarroako gabon kantak argitaratu zituen. Gerora, besteak beste direla, Francisque Michelen 1857 urteko *Le Pays Basque* liburuko euskal kantak bi liburukitan argitaratu eta iruzkindu zituen. *Noticia y viejos textos de la Lingua Navarrorum* liburu aberatsean "Dramas del Baztán. La canción de Ursúa" atalean gure baladaren aldaera bat eskaini zuen. Hona hemen:

I
–Kalian zer berri da
ene anaia jauna?
–Zu añaña zarela
ene arreba Ioana.
–Zertaik zautu datate,
ene anaia jauna?
–Kotilluna laburtu,
nere arreba Ioana.

II
–Enazazula sala
nere aitametara
eta. are gutiago
Utsuko kondetara
–Zer emain duzu sari
nere arreba Ioana?
–Txapela lumarekin
nere anaia jauna.

III
–Hori ez dut aski
nere arreba Ioana.
–Bortzetan ehun Luis
nere anaia jauna.
–Hoiek ezditut aski
nere arreba Ioana.

IV
–Zaldia zelaturik
nere anaia jauna.
–Hoiek guzik eztuzu aski
nere arreba Ioana.
–Haurra besoetara
nere anaia jauna.

V

–Utsuak errentak handi
zazpi errota berri,
zortzi jauregi xuri.
–Hoien guzien gatik
eznago Utsura nahi.

VI

Utsuak eder leio
bentanak are geiago
Utsuko etxekoandrea
Santanan defuntu dago.
Utsuan defuntua
Santanan kausitua,
Adios erran gabe
Etxetik partitua.

VII

Nere arreba Mari Kattalin
emakume fidela,
pesalunbrea haundiarekin
gelditu bide da.
Denboran aitortu balu
traba gelditu zela,
horrengatikan ezdaiteke
ezkontzarik zerra.

Aingeru Irigaraik eredu bat eman eta erdarazko itzulpena eskaintzen du goraxeago aipatu dugun "Dramas del Baztán. La canción de Ursúa" atalean. Lehen ahapaldian *zu añaña zarela* horren azpian *añaña* hitza bitxi edo ezezagun egingo delakoan (Variante: *embraza*... y también ... *izorra* zarela.) jartzen du. Aldaera hau, A. Zavalak aitortzen duenez, bi leku gehiagotan argitara zuen *Diario de Navarra* 1979-XI-18 eta 1980-X-I.

6.1. *Irigarairen ereduaren berritasuna eta egiazkotasuna*

Irigarairen ahapaldiak modu desberdinean tolesturik daude. Azkuek eta aita Donostiak laukoetan tolesten dute *Urtsua* balada. A. Irigaraik lehen bi ahapaldiak zortzikoan, erdiko hiruak seikoetan eta azken biak zortzikoetan.

Testuari dagokionez, ezer berririk eskaintzen ote du A. Irigarairen ereduak? Azken ahapaldia alde batera utzirik aita Donostiaren B ereduarekin oso antzekoa da, inolako dudarik gabe. Hitz batzuk aldaturik ia berdina dela esan daiteke. Lehen ahapaldian *añaña zarela* dator eta sinonimotzat *embraza zarela* eta *izorra zarela*. Irigarairen ereduan bi aldiz *ene anaia jauna* eta behin *ene arreba Ioana* deiki edo deigarriak datoz. Gainerakoetan *nere anaia jauna* eta *nere arreba Ioana. Zertaik zautu datate* dator Irigarairenean, Aitzolen funtseko aita Donostiarenean *zertarik zautu dagute/ nagute* edo *ote naute*. Nebaarreben arteko nebaren lehen eskaintza *txapela lumarekin/ nere anaia jauna* ez dator aita Donostiaren ereduan Aitzolenetan baino. Gainerakoan ahapaldien ordenan eta are hitzetan ere aita Donostiaren B eredua Aitzolenekin konpondua dirudi. Azken ahapaldia oso antzekoa da Aitzolen laugarren ereduarekin:

Aitzol	Irigarai
Gure Mari Katalin-(Aizpa) Emakume fidela Pesalumbre aundieta gelditu bide da. Deklaratu izan balu traba gelditua zela orduan ezaiteke Eskontzarik zeŕa	Nere arreba Mari Kattalin emakume fidela, pesalunbrea haundiarekin gelditu bide da. Denboran aitortu balu traba gelditu zela, horrengatikan ezdaiteke ezkontzarik zerra.

Irigarairen eredua, beraz, aita Donostiaren B eredutik hurbil dago. Gorago esan dugun bezala aita Donostiaren B eredua Jose Tellaetxeak Maria de Gamieteari, 1934. urtean batutako eredua da. B eredu hau berau ukitu txiki batzuk dituela eta Aitzolen funtseko ereduekin egindako *colage* bat dela dirudi. Era bateko kopia edo konponketa ehuneko ehunean ezin da ziurtatu, baina benetasuna ziurtatzea askoz zailagoa da, inongo dudarik gabe.

6.2. *Irigarairen ereduaren egiazkotasun zalantzak*

Irigarairen ereduak baditu ilunune nabarmenak. Noiz batua da, nori batua da? Non batua den badio Arizkunen baina ez du esaten noiz eta nori. Hain eredu luzea hain berandu argitaratzea posible ahal da?

Lehen argitaratze garaiari dagokionez, Aingeru Irigaraik 1971n publikatu zuen *Urtsua* balada. Garai haretarako ez ote da beranduegi? Kontuan izan behar dugu, bestalde, gerra aurrean aita Donostiak bildu zuen eredurik osoena bederatzi laukokoa izan zela. Aitzolen eredu guztietan sei laukokoa da luzeena. Irigarairen ereduak hamar lauko eta bertso bat gehiago du, baina laukoetan kontatuz gero, hamabi lauko. Eredurik luzeena da, beraz, gainerako eredurik luzeena baino askoz luzeagoa. Gauza seguruen artean bat da Irigarairen eredua konponketa bat dela eredu bat baino gehiagoko gehitze edo elkartze bat. *Urtsua* balada eredu horiek Irigaraik berak bilduak izatea da zalantzagarriena.

Nori batua ote da eredua? Aingeru Irigaraik *Atarratze jauregia* baladaren Otsagiko eredua bildu zuenean, 1928an, RIEV aldizkarian artikulu interesgarri bat eskaini zion: "Una variante del cantar de la palaciana de Tardets". Artikulua honelaxe hasten da:

> "Estando en Ochagavia, oí de labios de doña Ramona Landa y Recalde, vecina de la misma villa, una canción que desde el primer momento reconocí no era nada vulgar; haciéndosela repetir pude comprobar se trataba de la vieja canción (1584) llamada de la palaciana de Tardets, sobre la cual se ha escrito bastante, sin que a mi juicio se haya llegado todavía a su reconstrucción completa: la última y más satisfactoria interpretación fué publicada por D. Juan Carlos Guerra en "Euskalerriaren alde", y en su precioso libro "Los cantares antiguos del euskera" 1924.–San Sebastián, Martín y Mena, San Marcial, 23".

Aingeru Irigaraik artikularen hasiera honetan balada aldaera baten berri emateko noiz bildu zuen (1928), non bildua den (Otsagin), eta nori bildu duen (Ramona Landa y Recalde) aitortzen du. Ez dago dudarik Irigaraik bilketa interesgarri horren berri eman nahi duela. 1971 urteko argitarapenean ez dator holako zehaztasunik. Ez da esaten ez noiz eta ez eta ere nori bildua den. Non bildua den adierazteko ez dago inolako arriskurik Arizkunen berean bildua omen da, gertaeren lekuan.

7. ANTONIO ZAVALAK BILDUTAKO EREDUA

Antonio Zavalak 1964ko udan, Arizkunen, balada-eredu bat bildu zuen. Eredu berri honek badu zer iruzkindua. Hona hemen:

Urtsuak iru leio
Santa Anak or geiago
Urtsuko etxekoandrea
Santa Anan defunta dago.

Itxasoan amar ontzi,
amarrak mariñelekin,
mendian iru artalde
beren artzainorarekin;
oriengatk guziengatik
Urtsura etxekoandre
ez nua ni

Urtsuan defuntua,
Santa Anan kausitua,
adiosikan erran gabe
etxetik partitua.

Antonio Zavalak hiru ahapalditan ematen du berak bildu zuen eredua. Erdiko ahapaldia beste kantu bati dagokio. Beste kantu horren aldaera bat eskainiko dut puntu honetan. Baionako Dassanceren funtsean, Chansons basques C-B karpetan *Bortietan badisut ardi* amodiozko kantua dator:

I
Bortietan badisut ardi, bere arsagneki
Katalognen éhun mando silhar mounedareki
Itchasouan hamar ounsi beré marigneleki
Hourak oro ukenen tusu jiten basira eneki.

II
Bortietan badisut ardi bére arsagneki
Katalognen ehun mando silhar mounédareki
Itchasouan hamar aounsi bere marigneleki
Hourac oro ukenic ere enusu jinen souréki.

III
Etchetobat eginen dit jauregibaten parere
Hartan, barnen égonen sira silharesko caidéran
Ihourkere estéisu eranen plaser estusun élheric

A. Zavalak bildutako ereduan neba-arreben arteko elkarrizketan Laintanako alabak ez du Urtsura joan inondik inora ere, ez itsasoko hamar ontzirengatik ez mendian dauden hiru artalderengatik ere. Askotasunaren ideia beste era batera emana dago.

8. ARXÜREN ALDAERA ARGITARAGABEA

Idatz & Mintz aldizkarian Arxüren kanta eredu baten berri eman genuen. Kanta-eredu horrek neba-arreben arteko elkarrizketa bat du ardatz. Elkarrizketa hori Urtsuako balada-eredu gehienetan ardatz nagusia da. Puntu honetan Arxüren testua dagoen-dagoenean emango dugu, jatorrizko ortografia errespetatuz.

–Plazan zer berri da
Ene anaia jauna?
–Zu izorra zirela,
Ene arreba anderia.

Trala la la la
Tra la la la la

Nountic? dioie hoiec
Ene anaia jauna?
Ene ganic ziradiala
En arreba anderia
Tra la la la la la (bis)

Nic zer eghin behardut
Ene anaia jauna?
–Erromara joan
Aita Santia gana
Tra la la la la la (bis)

–Zer emanen deitadazu
Erromara joaiteco?
–Zaldi eigerbat chouri
Ehun pichtola gorri
Tra la la la la la (bis)

Ni erromara heltu
Nic han haurra sorthu
Aphezkupiac egari
Aita Saintiac batheiatu
Tra la la la la la (bis)

Arxüren testua kaier eskuidatzi batean datza. Kaieraren orrialdearen zenbakia hamabia da eta kaieraren eskuineko orrialdea dugu. Arxüren ereduko bost ahapaldiek orrialde oso-osoa hartzen dute. Beste balada edo kantu historiko zenbait transkribatzen duenean halako azalpen bat jarri ohi du Arxük kantuaren ondoren. Gure eredu honetan ez du ezer jartzen. Testuaren transkripzioak, Arxüren transkripzio gehienetan bezala, argia bada ere, arazoren bat edo beste sortzen du. Lehen hiru ahapaldietan dudan izan gara *anaia/anaie* transkripzioaren artean. Arazo bera izan dugu bigarren ahapaldiko *ziradiala/ziradiela* adizkien artean. Oraingo honetan garbiago ikusi dugu *ziradiela*.


12 — Plazan zer berri da
Ene anaia jauna?
-Zu izorra zirela,
Ene arreba aberiac.
Iralala la la la
Iralala la la la.
Nountic? diois hoiec
Ene anaia jauna?
Ene ganic ziradela
En arreba auberiac.
Iralalala lal (bis)
- Nic zer eghin behardut
Ene anaia jauna?
- Erromara joan
aita saintia ganac
Iralala lala (bis)
- Zer emanen deitabaxu
Erromara joaiteco?
- Zaldi eigerbat chouri
Ehun pichtola gorri
Iralalala la la (bis)
- Ni erromara heltu
Nic hiru hamru tarthu
Aphezkupiac egari
aita saintiac bathciatu.
Iralala la la lal (bis)

Plazan zer berri da kantua. Arxüren kaierekoa.

BALADA ALEGORIAK

17
BALADA ALEGORIKOEN GAINEAN

1. SARRERA

Antonio Zavalak bere baladategian *Istorikoak* sailean azken hiru balada gai ematen ditu: *Urzo luma gris gaxua*, *Urzo luma gris xuria* eta *Urzo xuri bat jin izan zaikü*. Hiru balada gai hauek usoak dituzte protagonistatzat. Guk balada gai hauekin sail bat osatzea pentsatu dugu. Sail horri eman diogun izenburua *balada alegorikoak* dira. Zavalaren sailkapenak, bestalde, badu zentzua *Mus de Sarri* edo *Urzo lüma gris gaixoak* garai historiko bateko pertsonaia historikoen berri ematen dutelako.

Balada alegorikoak banan-banan ikusi baino lehen balada alegorikoen sarrera bat egitea komenigarria iruditu zaigu. Sarrera honetan batez ere uso-ehiztariak protagonistatzat dituzten kantuak eman nahi izan ditugu. Garai bateko euskal gizartean, Iparralde osoan jakina, usoen ehiza oso zabaldua izan zen. Ehiza munduaren analogian era bateko eta besteko kantu asko uso-ehiztarien gaineko sinbologian eratuak daude. Uso-ehiztariak aipatzen badira, iruditerian aurrera eginez, sareak ere aipatuko dira, inoiz gelditzen ez den usoa, usoak harrapatzeko arbola gainetako usategiak, usoak harrapatzeko xederak... Kantu hauek metaforabide handia eskaintzen dutenez gero, kantu alegoriak bezala izendatu ditugu.

Idazteko arauak direla eta *lüma* idazten badagu, *ürzo* ere idatzi beharko ote genduke. Beti *Urzo* ikusi dugunez gero, beharbada zuzenez kontra, halaxe idaztea erabaki dugu.

2. EHIZTARIAREN ETA USOAREN EHIZAREN ALEGORIA

Goraxeago esan dugunez, balada alegoriko hauetako protagonistak usoa eta ehiztaria dira. Ehiztariak usoa engainatu nahi izaten du. Ezagutzen ditugun euskal balada alegoriko gehienetako ehiztariak apaizak izan ohi dira. Ehizatu nahi dituzten usoak, ordea, neskatila gazteak. Eman dezagun adibidetzat Salaberrik bildu zuen kantu bat. Salaberri kantu biltzaileak bildu zuen kantu honetan beste Salaberri bat da protagonista:

1

Khantatçeco bi bersou berri baitout hemen
Khantatçeco
Demboraren passatçeco
Compagnan balinbada nehor
Plazer duyenic entçuteco
Khantatçeco khantatçeco
Demboraren passatçeco

2

Sorhamendin ourçateguy batçu berriric
Sorhamendin
Jaun aphez batec ditu eguin
Ihiztariac bilduric haütuz
Hamabia luis pagatuz
Sorhamendin sorhamendin
Nahi lukete fortuna eguin

3

Bordeletic ficela erakhari duçu
Bordeletic Bidegarayec hautaturic
sariac dira pare gabe
Ourçouac loxa beitirade
jouaiten dira jouaiten dira
Cier gagnetic soguin eta

4

Sare eguiten Dartagnan guiça gaiço hori
Sare eguiten
Ez douzou gaïzki fatigatzen
Oillasco hegal çoumbat janez
Eta pousa cafe edanez
Sare eguiten sare eguiten
Ez duçu gaizki fatigatzen

5

Ihicira gouacen oro algarekila
Ihicira
Sorhomendico gagnera
Han behar dugu errecreatu
Bai eta ere plazer hartu
Apheceki apheceki
Salaberri jaunareki

6

Jaoun apheça çu cirade ororen guida
Jaoun apheça
Eta ororen forniça
Mila libera sare berrien
Aïsa bildouiac beitcientien
Jaoun apheça Jaoun apheça
Ez othoi escadalisa

7

Ourço grisac baçoazte oro aïtcina
Ourço grisac
Jin gabetaric bat hounat
Mousde Sallaberric balikec
Cientçat khambera eder bat
Ourço grisac ourço grisac
Azcar tucie hegallac

8

Aphecekin ez guirade laket khamberan
Aphecequin
Jaoun arropa beltz haiekin
Debeiatu guira espagnolekin
Espagnian espagnian
Daigun bortz hilabetian

9

Ourço okher bat hatceman oukhan omen dute
Ourço okher bat
Eztaki guicentcen ez hambat
Hamar ihiztari gouardian
Beldurrez jouan ledin aïrian
Ourço okher bat ourço okher bat
Ez daki guizentcen ez hambat

Kantu argitaragabe hau alegoria da. Alegorian erabiltzen ziren metaforak ulergarriak ziren garai hartakoentzat. Iruzkindu ditzagun, esaterako, zenbait ahapaldi. Bigarren ahapaldian Sorhamendin apez batek usategiak egin dituela dio, beste zenbait apez hara joan eta fortuna egiteko. Usategiak arbola gainetan usoen tirabidean egiten diren txabolak dira. Txabola haietara joango dira usoak harrapatzera beste zenbait apez. Usoak harrapatzeo sareak egiten ditu Dartañan delako batek. Kantu honetan elkarrizketa bat ematen da uso eta apezaren artean. Kantu hau, beharbada, beste batzuk baino zuzenagoa da, zazpigarren ahapaldian apezen ganbera edo logelan deskantsu hartzeko esaten baitzaie usoei. Usoen erantzuna ere garbia da: *Aphecekin ez guirade laket khamberan/ Aphecequin/ Jaoun arropa beltz haiekin*. Kantu hau baladatzat har ezin badugu ere, baditu *Mus de Sarri* eta *Urzua eta Harichabalet* baladekin zerikusia.

Kantu honetako lehen ahapaldian bertsoak kantatuko direla esaten da. Bertso horiek, alde batera, balada alegorikoen erara eratuak daude.

3. USOEN ALEGORIA EZTEI KANTUETAN

Kantu alegoriko zenbait eztei-kantuak ere izan litezke. Jean Baptiste Arxük esaterako bere kantu kaierean Montreale kontea ezkondu zenean guk hona ekarriko dugun kantua kantatu dela dio. Arxük Montreal kondearen gaineko kantua ezkontza-kantua dela garbiki dio frantsesez: *Sur le mariage du comte de Montréale*. Hona kantuaren hitzak:

1

Ziberoko pharte da Bassaburia
Frances-uskaldunen ere goien kartiela.
Kantabren seme zombait han bizitzen da
Generoski agitzen koragiakila

2

Kartiel hortan jaun bat handiric badugu.
Tresvillaren odola bere zainetan du,
Urzo eder haitatzen pareric ezpeitu
Desiratzen liokena kaiolan barnen du.

3
Franzian Anglaterran ihizlari franko,
Urzo eder hari so charmaturic oro,
Houra bethi aidian ihon phausatzeco,
Konde zaldidunaren saretara drano

4
Urzoua jin zenian Paubera passagez,
Jauna, huillantu zinen eztiki soghitez
Hantic Anglaterrara hari jarrikitzez,
Zihauren moyen horez sarretara bilzez.

5
Jaun-konde Monreal, Bassaburutarra
Ihizlari houn baten eman duzu marka,
Urzo brikant horeki orai laket zira,
Aradamentu oroz beitzira lehena.

6
Gincoac dereizula plazer eta bake,
Posteritate eta bizitzia luze;
Zure izenac bethi gain behar luke,
Bassaburu ororen abantaila date.

7
Kantore huntzalia da Atharratzeco,
Escola gabe eta fortuna tchipico,
Boronthatzez aberatx onra eghiteco,
Jaun Konde Monrealen bethi zerbutchuco.

Kantu argitaragabe honetan ere, Jaun konde Monreal ezkondu denean usoa bere sareetara bildu duela esaten da. Jaun konde Monrealek bildu duen usoa ez da nolanahikoa. Uso horrek ehiztari asko eduki ditu guardian. Emakumeak jarraitun edo merkatari asko eduki dituela esan nahi da. Emakume honekin ezkondu nahikoak Frantzian eta Inglaterran izan dira: *Franzian Anglaterran ihizlari franko,/ Urzo eder hari so charmaturic oro,/Houra bethi aidian ihon phausatzeco, /Konde zaldidunaren saretara drano*. Analogiak, jakina, alderdi asko izan ohi ditu. Usoari begira xarmaturik baldin badaude ehiztariak, usoa ederra delako da, ohi ez bezalako edertasuna duena. Usoa inon pausatzen ez bada, inolako pertsonarekin harremanak izan gabeko emakumea dela esan nahi da eta esaten da. Emakumea halako batean konde zaldidunaren *saretara drano* joan da, hots, *sareetaraino*. Ezin hobekiago adierazia dago emakumeak egin duen aukera eta senargaiaren dotorezia. Eztei-kantu gehiagotan ere eman dira holako analogiak. Beste adibide interesgarri bat beste eztei-kantu batean dugu. Francisque Michelek *Ihizico partida urosa* izenburupean eztei-kantu baten pusketa argitaratu zuen. Kantuaren izenburua *Ihiziko partida urosa* da, hots, "L'heurese chasse": "ongi atera den ehiza", beraz.

Jaun baroinac chedelac ountsa hedatu çutian,
Choribat hanitch ejerra hetan beharrez atçeman;
Orai harekin dago, nahituric aspaldian.

–Chedera baliz halaco mercatuetan saltceco,
Aitoren seme guciec eros litzazkete oro,
Choritto ejer holaco cembaiten atzemaiteco.

Francisque Michelek dakarren ereduan ere ideia bera ematen da. txori eder bat atzeman duen ehiztaria ez da nolanahikoa, jaun baroi bat baizik. Harrapatu duen txoria ere ez da nolanahikoa. Era horretako xederak, ordea, ez dira edonon saltzen bestela Aitoren seme guztiek erosiko lituzkete. Uso-ehizaren sinbologia amodiora ekarria dago.

4. USOEN SINBOLOGIA AMODIOZKO KANTUETAN

Batez ere amodiozko kantuetan ematen da usoaren sinbologia. Gure artean saio bat baino gehiago egin dira usoaren sinbologia aztertu nahirik. Fernando Artola "Bordari" olerkariak "Usoa maite kantetan" hitzaldian usoaren sinbologia eta adibideak eman zituen (Artola: 1982). Jean Haritschelhar, Txomin Peillen eta Juan Mari Lekuona ere aritu dira uso eta gainerako hegaztiek amodiozko kantuetan duten sinbologia aztertzen. Usoen artean, badira uso mota batetik besterako aldeak eta ñabardurak. Usaphala dugu, esaterako, maiteak utzi duen osoa. Haritschelharrek honelaxe hitz egiten du (Haritschelhar: 1969-1970):

> *Ürx'aphal*. Des noms différénts sont donnés à la bien-aimée dans la poésie basque: izar, lili, lore, xori, urzo, ürx'aphal.
>
> Les premiers mots nous montrent la bien-aimée triomphante, éclatante dans sa beauté de fleur qu'on aimerait bien cueillir, ou lointaine comme l'étoile.
>
> Xori et urzo supposent aussitôt l'image du chasseur. La bien-aimée apparait davantage comme une proie possible. cf = *Urzo xuria errazu*, *Musde Sarri*, *Arbotiko prima eijerra*.

Haritschelharrek aipatzen dituen hiru kantuetatik lehena amodiozko kantua da, bigarrena balada bat, eta hirugarrena eztei-kantua baladatzat hartu duguna.

5. SINBOLOGIA BERTSOPAPERETAN

Usoaren sinbologia bertsopaperetan ere erabili izan da XIX mende bukaerako edo XX. mende hasieran. Hona adibide bat. Lacomberen funtseko azken aurreko bertsopapereko 5, 6 eta 7. bertsoak hauexek dira (21. zenbakia, *Bertzu berri batsuek baitugu arrontzen* hasiera):

Uso bat auzatzen suen Doniouané Garazin
Harren idera ere bihotzian bazin
Cabesatuta utzi balu eta lan hoi es in
Bertzek graciarekin familian isanen tzin.

Bi urteren hintzua suen atchikitzen
Herritic quartiererat maisco sen ibiltzen
Ihistari habil hori hamarrus betia sen
Lau uso situenian betan enganatzen.

Sare hascar batzuec baititu hedatu
Bi uso hatzeman tu bertziac especatu
Bat segurican baitu ederki colpatu
Bere conkestarekin etchen saio isatu.

Lacomberen funtseko bertsopaper bateko hiru ahapaldi hauetan ehiztari abil batek uso bat atzeman duela esaten da. Gainerako kantuetan bezala, ehiztaria engainatzailea da eta amarruz betea. Ehiztari abilak sare (h)azkarrak (*hazkar* "indartsu" zentzuan) hedatu ondoren usoak biltzen ditu.

6. *URZO LÜMA GRIS GAXUA* OLERKI MODERNOA

Tradizio zaharrean oinarritutako eredu berriak ere sortu izan dira azken hamarkadetan. Pabeko *Lagunt eta Maita* aldizkarian, noizean behin euskarazko kantuak agertzen ziren. Balada alegorikoetako sarrera eta sinbologia dator 1976. urteko abenduan argitaratutako olerki honetan. Olerkia berria da, dudarik gabe, baina usoaren ehizak eskaintzen duen alegoria mundua tradizioan erabili den moduan erabilia dago.

1
Urzo lüma gris gaxua,
Zertako haiñ gora hua?
Entzün diat borthü hoietan azkartto dela hegua;
Aitzina juan beno lehen, bil ezak zerbait anhua.

2
Agur hiri, Ziberua
Lür ezinago goxua!
Pe hortan, ordoki handiak lüze tük, etsitzekua;
Phausü llabür baten hartzeko, hi hitz haitüzko xokhua.

3
Aigü! Hortxe dük bagua!
Untsa beth'ezak papua!
Ez dük urthe batez ahatze ezkür hunaren gozua?
Nasaiki anpleraziko deik hire barneko galthua.

4
Ai, ihizlari gaizua!
Hi, bethi hiz ohikua!
Hanitx badiat ikhusirik; behatüz ene gogua,
Orhitzen zitak heben dela aise phartitzen tirua.

5
Ago! Hegazti fripua!
Errabiazle egiazkua!
Balin badük ere zorthia eni ezkapatzekua,
Ez dük orano ikhusirik lür hegiaz-haintikua.

6
Mendi artetan lephua,
Han ere dükek zephua…
Bena gorde-zalek ez tie ez aski üsü ostua,
Bat edo beste ikhusten diat, hantxe, üdüri khüsua.

7
Zertako haiñ gora hua?
Hoi dük hegalen ganua;
Badiat khideki orano bizitzeko aihua,
Holaz gero ere badükek zelian ürzo saldua.

18
URZO LÜMA GRIS GAXUA BALADA

1. SARRERA

Urzo lüma gris gaxua bezala ezagutzen dugun balada gaia aberastasun handikoa da. Garai bateko gertaera historiko bat ematen digu. Izen propioak ere baditugu: musde Sarri, Agaramunte. Jean de Jaurgainek *Mus de Sarri* bezala bataiatu zuen balada hau bertako protagonista nagusia delako. Balada hau izendatzeko bi izen ditugu, beraz.

Gertaera historikoetan oinarritua dago, dirudienez. J.B. Arxük adierazten digunez, 1815. urtekoa da. Testigantza historiko hau Arxüren testigantzari berari dagokion puntuan aztertuko dugu. Oraingoz esan dezagun euskarazko XVIII. mendeko Iparraldeko amodiozko kantuetako usoaren sinbologiaz baliatzen dela kantua. Iparraldeko amodiozko kantuetan hegaztiak agertu ohi dira sinbologia aberatsa dutela. Hegazti guztien artean basoilarra eta pelikanoa maiztasun gutxienekoak dira eta usoa, ordea, maiztasun handiena duena. Usoak amodiozko kantuetan zein baladetan sinbologia aberatsa izan ohi du. Usoak analogia kate aberatsa ohi dakar berekin.

Atal honetan balada beraren aldaerak aztertuko ditugu. ERRV lanean hiru eredu ematen ditu Antonio Zavalak. Guk geure atal honetan hiru ereduak ordena berean emango ditugu. Baina gure atal hau ez da mugatuko A. Zavalaren hiru ereduetara, gure atal hau aurkitu ditugun eredu guztiez aberastuko da. Atal honetan alerik duen lehen dokumenturik aurkitu badugu, eskuizkribuko lehen transkripzioa eta bigarren gaurkotu bat ere emango dugu.

Eskuizkriburik aurkitu ez dugun eredurik ez dugu hona ekarriko. Francisque Michel, Charles Bordes eta Azkueren ereduak ez ditugu hona ekarriko.

2. BALADAREN GERTAERA HISTORIKOAK

Balada honen gertaera historikoak aztertzeko bi iturri nagusi daude, lehena eta zaharrena, Arxürena da eta Parisko Bibliothèque National delakoan aurkitzen den Arxüren beraren baladaren transkripzioaren ondoren dator:

> Ce chant allégorique date de 1815, époque de reaction politique. Les partisants du grand homme, a la chute de l'Empire, s'enfuirent du Pays Basque en Espagne pour ne pas tomber entre les mains des royalistes que, à cette époque, firent verser bien de larmes dans les provinces méridionales.
>
> M de Gramont, envoyé à Hartwel pour annoncer à Louis XVIII la chute de l'Empire, devint député des Basses Pyrénées.

Arxürena ere izan behar du Francisque Michelen liburuan datorren azalpena:

> La chanson suivant fut composée pour garder le souvenir d'une petite mésaventure d'un certain seigneur de Sarri, bâtard de Tresville, qui, sous prétexte de chasser la palombe, s'était installé avec ses filets sur un coteau, où il guettait le passage d'une etcheko-alaba, que la crainte des Anglais chassait vers l'extrême frontière.

Jean de Jaurgainek bere azterketa historikoan nor zen Mus de Sarri jauna adierazten du. Mus de Sarriren aita Jean-Pierre de Sarry zen. Gizon honen aita nor zen adierazi ondoren datu hauek ematen ditu:

> Noble Jean-Pierre de Sarry était encore titulaire de la cure de Beyrie le 4 novembre 1749. Il y fut remplacé, avant le 1er janvier 1753, par noble Armand-Jean d'Irigaray-Jaureguizahar, prêtre, de Menditte.

Jean-Pierre de Sarry Maulen hil zen eta Barkoxeko elizaren atarian lurperatua dago. Hilarrian hitz hauek daude idatzirik:

> Ici repose messire Jean Pierre de Sarry de Troisvilles, prêtre, docteur en théologie, prébendé de Barcus, Beyrie et Monein, membre des États Généraux du Pays de Soule, décédé a Mauléon le 25 octobre 1777, agé de 66 ans. Priez pour lui.

3. *URZO LÜMA GRIS GAXUA* BALADA: LACOMBEREN EREDUA

Lehen puntu honetan Georges Lacomberen funtsean gordetzen den eredua izango dugu aztergai. Gorago esan dugun bezalaxe, A. Zavalaren lehen aldaera dugu Lacomberena. A. Zavalak zehaztasun hau dakar:

Augustin Chaho zanaren (1810-1958) bildumako esku-idazki batetik, gaur Telesforo Monzón-Olaso alargunaren mendean.

Zehaztasun hau ez da guztiz hala. G. Lacomberen funtsean Chahoren kantutegia eta beste kantutegi zenbait ere badira. Gure ale hau ez da berez Chahoren bildumakoa, Lacomberena baino.

3.1. *Lacomberen ereduak A. Zavalak transkribaturik*

Puntu honetara A. Zavalak egiten duen transkripzioa ekarriko dugu hurrengo ataletan guk egingo dugunarekin alderatzeko. Zavalak, beti bezala, ez du egiten jatorrizko ortografia eta grafia errespetatzen duen lehen transkripziorik. Zuzenean bere erara moldatu eta transkribatzen du. Hona hemen Zavalaren transkripzioa:

–Urzo luma gris gaxua,
hore bidajin bahua;
hatzamaiten balin bahai
Musde Sari jaun apetitu hun harek,
begiz ikusten balin bahai,
Petiriñalat bahua.

Urzo gaxuak umilki
diozu Musde Sariri:
egundano eztereiola
egin ogenik jaunari,
igaraitera utzi dezan
usatu dian bideti.

–Auher duk, urzo maitia,
juratu diat buria:
aurten, aurten jin behar duk
eneki Petiriñalat
nik han emaneko dereiat
arto et'aziz asia.

–Artoz asia hun duzu
libertatia bagunu;
bena guri Oriko ezkurtto
hurak hobe zizkutzu,
anglesa Frantzian sartzen beita
Espagnalat baguatzu.

–Urzo maitia, au'ixilik,
Frantzian eztuk anglesik:
Baionara jinak oro
Agaramuntek akaziren tik,
Frantzia lurrian eztuk sarturen
zaragolla luz hetarik.

–Jauna, fida niz zure erraner,
fidago ene hegaler;
guraintzi erraneko derezu,
jiten badie, angleser,
nik ere esaneko dereiet
españul papo gorrier.

–Guraintzi erraitez angleser
ni naika ezarten mezuler?
Orai diat, orai, ekusten
nitzaz hizala trufatzen,
eta beste urte batez
enaik bortin freskeraziren

Testu hau bakarrik irakurtzen duen irakurle ohartuak transkripzio arazo bat baino gehiago aurkituko ditu. Den-denak ez ditugu zerrendatuko. Hona hemen zenbait, begien bistakoak direnak. Joan gaitezen irizpide berekoak ez diren arazoetara. Nola liteke *españul* eta *Petiriñalat* transkribatzea eta hurrengo jiran *Espagnalat*? Ez dago dudarik *Españalat* transkribatu beharko litzatekeela. Nola liteke ahapaldi berean, seigarrenean, *erraner*, batetik, *erraneko derezu,* bestetik, eta, azkenik *esaneko dereiet* transkribatzea? Denak es ote dira *erran* izan behar? Era berean, lehen ahapaldian *ikusten bahai* bada, nola liteke azken ahapaldian *Orai diat, orai, ekusten* izatea? *Ikusi* ala *ekusi* izan behar. Irizpideak huts egiten duela ikusten dugu, beraz.

Badira gaizki transkribatutako hitzak ere *arto et'aziz asia* ezin da izan. Beste modu batera izan behar *arthoz eta ziz asia* hitz bietan –z marka instrumentala dela *artho* hitzean eta *zi* (ezkur) hitzean.

Kontsonante aspiratuak *artho*, *urthe* eta abar ez ditugu, bestalde, ikusten A. Zavalaren testuan. Zuberoako euskara bada, transkripzioan agertzen ote dira Zuberoako bokalismoko u hertsia edo ü delakoa? Zavalaren testuan ez dugu ikusten. Transkripzio arazoak azaleratu ditugu. Guk hemen markatu ditugunak baino askoz gehiago dira, dudarik gabe. Zavalaren testua, beraz, itxuratxartua edo desitxuratua dago, guztiz pipiatua. Ez dago dudarik, beraz, jatorrizko testuaren transkripzio fidel bat egin behar dugula.

3.2. *Lacomberen ereduaren gure transkripzioa*

Puntu honetara dagoen-dagoenean transkribatuko dugu testua. Testua letra argikoa da eta ez du transkripzio arazorik sortzen. Lehen transkripzio hau oinarritzat erabiliko dugu. Transkripzio honetan ahapaldiak zenbakituko ditugu.

1

Ürzo luma gris gachua,
Ore bidagin bahua
Hatzamaiten balimbahai
Musde Sari jaun appetitü hun harek
Begis ekhusten balimbahai,
Phetiriñalat bahua

2

Ürzo gachuak ümilki
Diozü Musde Sariri
Egündano estereiola
Egin ogenik yaunari
Igaraitera ützi dezan
Usatü dian bideti.

3

Auher dük ürzo maitia
Jüratu diat büria
Aurthen, aurthen yin behar duk
Eneki phetirignalat
Nik han emaneko dereyat
Arthoz eta siz asia.

4

Arthoz asia hun düzü
Libertatia bagünü.
Bena guri Orhiko
Ezkürtto hurak hobe zizkützü
Anglesa Franzian sartzen beyta
Espagnalat baguatzü

5

Urzo maitia, auchilik,
Franzian eztük anglesik
Baijonara jinak oro
Agaramuntek akaziren tik
Franzia lurian eztuk sarthüren
Zaragolla luz hetarik.

6

Jauna, fida niz zure eraner
Fidago ene hegaler
Gurainzi eraneko derezu
Jiten badia Angleser,
Nik ere eraneko dereiet
Españul papo gorrier

7

Gurainzi eraitez Angleser
Ni naika ezarten mezüler
Orai diat, orai ekhusten
Nitzaz hizala trüfatzen
Eta, beste urthe batez
Enaik bortin freskeraziren


Ürzo lüma gris gachua
andante
Ür- zo lü ma gris gachu a o- ze bi- da gin
ba- hu- a
Hatza- mai ten ba lim ba- hai, Mus de sa ri
pke ti- zi- ña lat ba- hu a
I
Ürzo lüma gris gachua,
Ora bidagin bahua
Hatzamaiten balimbahai
Mus de Sarü jaun appetü hun harek
Begis ekhusten balimbahai,
Ekhiñalat bahua.
II
Ürzo gachuak ümilki
Diozü Mus de Sariri
Egündano esterciola
Egin ogenik jaunari
Igaraitzea ützi dezan
Usatü diaz bidetik.—



Urzo lüma gris gaxua balada. Lacomberen eredua.

3.3. *Lacomberen eredua ahapaldiz ahapaldi*

Puntu honetan Lacomberen testuaren ahapaldiz ahapaldikako iruzkina egingo dugu.

1
Ürzo luma gris gachua,
Ore bidagin bahua
Hatzamaiten balimbahai
Musde Sari jaun appetitü hun harek
Begis ekhusten balimbahai,
Phetiriñalat bahua

Antonio Zavalak h aspiratuak transkribatzen ditu, baina kontsonante aspiraturik ez. Ez ditu, beraz, eskuizkribuko *Phetiriñalat* eta *ekhusten* transkribatuko, *Petiriñalat* eta *ikusten* baizik. Markatzekoa da eskuizkribuan *ekhusten* irakurtzen dela, hasierako e– garbiki agertzen dela. Aditz izen hau, geroago ere ikusiko dugunez, azken ahapaldian ere agertzen da. Gainerako h aspiratuak jartzen baditu ere, *bahua*, *bahai*, *hatzamaiten,* berez behar ez lukeen bat ere jartzen du: *hore*. Jatorrizko eskuizkribuan ez dator horrelakorik, *Ore* baizik. Erakusle hau aurkitu ditugun kanta honetako eskuizkribu guztietan h hizkirik gabe ikusiko dugu: *ore/Ore*.

Ohargarria da Iparraldeko transkripziobide tradiziozkoa darabilela transkribatzaileak *gachua* guk *gaxua* egingo genukeena, eta abar. Badira hainbat kontu ohargarri *appetitü* hitzaren –pp– bikoitza ez dagokio ahoskera aspiratu bati frantsesezko *appétit* hitzaren transkripzio tradizioari baino. Adierazi behar dugu, bestalde, *appetitü* hitza adjetiboa dela eta ez sustantiboa eta *apetituos* adierazten duela. *Apetitu* hitza adjetibo bezala ez dugu inongo hiztegitan ikusi, ez eta OEH lanean ere.

Ahapaldi honek baditu kontu iruzkingarri askotxo, *begiz ekhusi* pleonasmoa, esaterako.

2
Ürzo gachuak ümilki
Diozü Musde Sariri
Egündano estereiola
Egin ogenik yaunari
Igaraitera ützi dezan
Usatü dian bideti.

Transkripzio arazorik ez dugu ahapaldi honetan. Jatorrizko eskuizkribuan markaturik daude Zuberoako ü direlakoak: *ürzo*, *ümilki*, *diozü*, *egündano*, *ützi*. Ahapaldi honetan arazoak sortu dizkigun hitz bakarra eskuizkributiko *Usatü* izan da. Nola transkribatu behar ote da *usatü* edo *üsatü*? Gerora ikusiko dugun Salaberriren eskuizkributiko ereduak duda guztiak garbitzen ditu, *üsatü* transkribatzen baitu.

3
Auher dük ürzo maitia
Jüratu diat büria
Aurthen, aurthen yin behar duk
Eneki phetirignalat
Nik han emaneko dereyat
Arthoz eta siz asia.

Ahapaldi honetan bada zer iruzkindu. Formaren aldetik beste inon ikusten ez dugun *Jüratu diat büria* ikusten dugu eskuizkribuan. Transkripzioaren aldetik ez du, gainerako ahapaldi guztiek bezalaxe,

eragozpenik. Jatorrizkoan lehen *Auher dük* agertu arren, gero *behar duk* ikusten dugu, adizki bera bi modu desberdinetan idatzirik. Oraingo honetan ere ez ditu kontsonante leherkari aspiratuak transkribatu Antonio Zavalak. Garbiago esateko: *aurthen*, *arthoz* eta *Phetiriñalat* transkribatu beharrean *aurten*, *arto* eta *Petiriñalat* transkribatuko ditu. Konturik aipagarriena, ordea, jatorrizko *Arthoz eta siz asia* eskuizkributikoa *arto et'aziz asia* transkribatzea da. Ez dago dudarik instrumental marka hitz bietan jarri behar dela, eta halaxe jartzen duela eskuizkribuko idazleak: *arthoz eta siz*. Ez dago esan beharrik, bestalde, kantuko ahoskera kontuan harturik transkribatua dela A. Zavalaren apostrofoa.

4

Arthoz asia hun düzü
Libertatia bagünü.
Bena guri Orhiko
Ezkürtto hurak hobe zizkützü
Anglesa Franzian sartzen beyta
Espagnalat baguatzü

Hemen ere ez dugu dudarik izan hasierako *arthoz* –th– batez transkribatzeko eta *Orhi* mendia –rh– duela. Ez dago inolako dudarik *asia* ez dela besterik *asea* delakoaren fonetismo edo fonetizismoa baino. Kontu harrigarria da, gorago esan dugun bezala, A. Zavalak jatorrizko *Espagnalat* berdin transkribatzea, *Espagnalat,* eta ez uste eta espero genuen bezala *Españalat*.

5

Urzo maitia, auchilik,
Franzian eztük anglesik
Baijonara jinak oro
Agaramuntek akaziren tik
Franzia lurian eztuk sarthüren
Zaragolla luz hetarik.

Ahapaldi hau dugu ezagutzen dugun eredu guztitatik desberdinena. Gainerako eredu guztietan agertzen den *hil* aditza *akaba erazi* edo, forma laburtuan, *akazi* dugu hemen, modu indartsuagoan. *Frantzian* esaten delarik ere *Frantzi lu[r]ian* ere ikusten dugu. Oraingo ahapaldi honetan A. Zavalak bezala apostrofoa jarri dugu. Eskuizkribuko *auchilik* gaurko grafiara aldatzean: *au'xilik*. Gure transkripzio gaurkotu honetan beharbada gehiegizkoa da (*h)ago ixilik* jartzea.

6

Jauna, fida niz zure eraner
Fidago ene hegaler
Gurainzi eraneko derezu
Jiten badia Angleser,
Nik ere eraneko dereiet
Españul papo gorrier

Oraingo ahapaldi honetan badago transkripzio arazotxo bat edo beste. Lehengo eta behin has gaitezen seguru baino seguruago ditugunekin. Ez dugu inolako dudarik eskuizkribuan bi aldiz agertzen den *eraneko* formaz. Lehenengo aldian *eraneko derezu*, eta bigarrenean *eraneko dereiet* irakurtzen da garbiki. Bi aditz hauek transkribatzeko bidea *er[r]aneko derezü* eta *er[r]aneko dereiet* izan behar, nahi eta nahi ez. Transkripzio huts nabarmena da modu desberdinean eginez: *erraneko derezu* eta *esaneko dereiet* egitea, A. Zavalak egiten duenez. Zuberoako euskaraz ezinezkoa baita *esaneko* forma. Ez dago dudarik, bestalde, etorkizun marka bikoitza edo pleonastikoa dela *erraneko* forma, *erran* aditzari –en

eta –ko futuro edo etorkizuneko desinentziak itsasten baitzaizkio. Markagarria da, bestalde, –o–/o– bokalaren itxitura *guraintzi* eta *españul* hitzetan. Itxitura hau ez da kasuala. Hurrengo ahapaldian ere ikusiko dugunez, *gurainzi* irakurtzen dugu, hots, gaurko grafian *guraintzi*.

7

Gurainzi eraitez Angleser
Ni naika ezarten mezüler
Orai diat, orai ekhusten
Nitzaz hizala trüfatzen
Eta, beste urthe batez
Enaik bortin freskeraziren

Azken ahapaldi honek ez du zailtasun handiegirik agertzen. Lehen ahapaldian agertzen den *ekhusten* aditz izen bera dator modu berean idatzirik: hasierako e– zaharra duela eta –th– leherkari aspiratua. Gorago ere aipatu dugun bezalaxe, Antonio Zavalak fonema bigrafo hauek ez ditu markatzen bere transkripzioan. Azken ahapaldi honetan A. Zavalaren transkipzioko konturik nabarmenena azken hitza *freskerazitzen* transkribatzen duela da. Gaineko lerroko *trüfatzen* hitzeko –z– luzeegia denez gero, –t– bat dela iruditu zaio transkribatzaileari. Ondo begiratuz gero, ordea, ez dago inolako dudarik. Argi eta garbi ikusten da eskuizkribuan *freskeraziren* dela.

3.4. *Lacomberen eredua gure ortografian*

Puntu honetan gaurko grafia-ortografietara ekarriko dugu eredua. Sei bertso-lerrotan tolestu beharrean lauetan tolestuko dugu, gehienetan egin ohi den bezala.

1

Ürzo luma gris gaxua,
ore bidajin bahua,
hatzamaiten balin bahai Musde Sarri jaun apetitü hun harek
begiz ekhusten balin bahai, Phetiriñalat bahua.

2

Ürzo gaxuak ümilki,
diozü Musde Sarriri:
egündano eztereiola egin ogenik jaunari
igaraitera ützi dezan üsatü dian bideti.

3

–Auher dük, ürzo maitia,
jüratu diat büria.
Aurthen, aurthen jin behar dük eneki Phetiriñalat.
Nik han emaneko dereiat arthoz eta ziz asia.

4

Arthoz asia hun düzü,
libertatia bagünü;
bena guri Orhiko ezkürtto hurak hobe zizkützü,
anglesa Frantzian sartzen beita, Españalat baguatzü.

5

Ürzo maitia, au'xilik,
Frantzian eztük anglesik
Baionara jinak oro Agaramuntek akaziren tik
Frantzia lurrian eztük sarthüren zaragolla luz hetarik.

6

Jauna, fida niz zure er[r]aner,
fidago ene hegaler.
Guraintzi er[r]aneko derezü jiten badia Angleser.
Nik ere er[r]aneko dereiet españul papo gorrier.

7

Guraintzi er[r]aitez angleser
ni naika ezarten mezüler?
Orai diat, orai ekhusten nitzaz hizala trüfatzen;
eta, beste urthe batez enaik bortin freskeraziren

4. PARISKO BIBLIOTEKA NAZIONALEKO ARXÜREN B EREDUA

Parisko Biblioteka Nazionaleko ereduaren lehen berria, guk dakigula, Jorge Riezukoak ematen du bere *Nafarroako euskal-kantu zaharrak* liburuan. Balada bera transkribatzen ez badu ere, baladaren ondoko frantsesezko oharra itzultzen du. Honelaxe dio berak:

> Tocante al origen de la canción *Ürzo lüma gris gaxua*, en uno de los volúmenes de *Poésies Populaires de la France* de la Sala de Manuscritos de la Biblioteca de París (signatura: Fr. Nouv. Acq. 3342, pág. 46: *Chant historique. Le Chasseur allégorie),* hay una noticia (*Notice*) que, a título de información, trasladamos aquí en castellano.

Jorge Riezukoak berri hau eman arren ez du balada bera transkribatzen. Guk ezagutzen dugun lehen transkripzioa *Euskal baladaren azterketa eta antologia* lanean dator. Lan honetan, berriz, ez dago zuzeneko transkripziorik gaurko egunera egokitutako transkripzioa baino. Antonio Zavalaren *Euskal erromantzeak/ Romancero vasco* laneko 181-182. orrialdeetan ere transkribatua dago. Oraingo bigarren transkripzio honetan ere ez dago transkripzio zuzenik, gaurko eguneko ortografiara aldatutako testua baino. Interesgarriak dira, beraz, Antonio Zavalak transkripzioaren ondoren ematen dituen berriak:

> Parisko Liburutegi Nazionalean gordetzen dan esku-idazki batetik, Nouvelles acquisitions sortan, 3342 zenbakian.
>
> Esku-idazkiaren bukaeran, Eugène de Monglave izena agertzen da. Bera izango da, ziur aski, kanta au nunbaitetik edo norbaitegandik jaso zuana.
>
> Bertsoen atzetik, adierazpen jakingarri au irakurtzen da.
>
> "Ce chant allégorique date de 1815, époque de reaction politique. Les partisants du grand homme, a la chute de l'Empire, s'enfuirent du Pays Basque en Espagne pour ne pas tomber entre les mains des royalistes que, à cette époque, firent verser bien de larmes dans les provinces méridionales.
>
> M de Gramont, envoyé à Hartwel pour annoncer à Louis XVIII la chute de l'Empire, devint député des Basses Pyrénées."
>
> Laugarren bertsoaren irugarren lerroan, ohiko irakurtzen dan ortan, Oriko bearko luke. Ori mendi baten izena dala ez jakiñik, gaizki kopiatu alegia.
>
> J. Lakarra, K. Biguri, B. Urgelle: *Euskal Baladak* (Donostia, 1984), bigarren tomoan, 129 orrialdean.

Zehaztasun hauek kontu jakingarri batzuetara garamatzate. Antonio Zavalak berak ere lehen transkribatzaileak EB taldekoak ditu. Bada, orain frogatuko dugunez, gaizki-ulertu bat. Antonio Zavalak Eugène de Monglave hartzen du Parisko eskuizkribuaren autoretzat eta hori ez da hala. Gure balada honen eskuizkribua J.B. Arxüren eskutikakoa da. Antonio Zavalak *Urthubiako alhaba* baladarekin egiten duen huts bera egiten du oraingoan ere. Kontu hau zehatz mehatz adierazteko kopia dezagun Jesús Antonio Cid-en "La balada 'Urthubiako alhaba' problemas y conjeturas", 9. or.

> Sucede, sin embargo, que Garay de Monglave no tuvo relación ninguna con "Urthubiako Alhaba", y la anotación que transcribía Zavala no se refiere a este poema. El manuscrito que nos ha transmitido el texto de la balada forma parte de un conjunto de poemas populares de distintos géneros que se integraron en el volumen V de la colección de *Poésies populaires de la France,* que recoge los materiales de la gran encuesta promovida por el ministro Fortoul, y se conserva actualmente en la Bibliothèque nationale, en París (fonds français, nouvelles acquisitions, núm. 3342). La sección vasca de este manuscrito se inicia, en efecto, con aportaciones de Garay de Monglave, remitidas al ministerio en 1852 y 1853, que incluyen sus ya conocidas fabricaciones de Altabiscar y la "complainte" Domingo, además del canto de Aníbal y la traducción francesa del de Lelo. A ellas se suman composiciones populares auténticas ("Txori erresiñola", "Izar batek zerutik", etc.), que copia, con abundantes incorrecciones lingüísticas, de diversas fuentes impresas que no confiesa. Los materiales vascos de Garay en este tomo ocupan los folios 25 a 36, y 48 a 53, los folios 54 a 58 contienen una sección de "chants nationnaux béarnais", también remitidos por Garay de Monglave, junto con una larga exposición preliminar. En medio de toda esta colección de autógrafos de Garay, remitidos en remesas de distintas fechas, se inserta un conjunto de composiciones de otra letra, que ocupan los folios 37 a 47; y es en esta parte donde se copió el texto de "Urthubiako Alhaba" (fol. 42rº&vº y 43 rº). La procedencia de estos materiales se indica al principio del folio 37: "Communication de M. Archu, 11 avril 1853".

Multzo honetakoa dugu beraz gure kantua ere. *Urzo lüma gris gaxua* Arxüren eskutikakoa da. Hona hemen:

Chant historique
Le chasseur,
Alegorie

1
Urzo luma gris gaichoa,
Ore bidagian bahoa,
Batzen bazaic Mousde Sari,
Jaun apetitu houn hori,
Beghiz, ikhousten balin bahai,
Petirignerat Bahoa.

2
Urzo gaichoac eztiki
Derio Mousde Sariri
Egundano ezteriola oghenic eghin jaun hari
Baratu gabe utzi dezan usatu dien bideti.

3
–Auher duc, auher urzoa,
Juratu diat fedia;
Aurthen gin beharduc eneki Petirignera
Nic han emanen deriat arthoz eta ziz assia.

4

–Arthoz assia hor duzu,
Libertatia bagunu:
Ohico bago ezkurtto gouri hobeche zikuzu,
Anglesa Franzian sartzen eta Españalat bagoatzu.

5

–Urzoa, ago ichilic,
Franzian eztuc Anglesic.
Baïonara giten bada zagoilla luzetaric
Erreghe Graamontec oro erhoren zitic.

6

–Fida niz zoure erraner,
Fidago noure hegaler.
Gorainzi erran ezazu Angles zaragoilla luzer,
Nic erranen Español kokox gorrier.

7

Mousde Sarri Lapitzondo
Erretor bi herritaco
Harec aurthen eghiten deie urzoer evangelio;
Hugunturic ezpeitzien Españalat joan zaitzo.

8

Adio, Urzoac, adio
Daigun setemer artio
Hume ederric haz ezazie; ginen ghirade gu oro
Sare berriac hedaturic ziren atzamaiteco.

9

–Sarri, zoatza etcherat
Mauleric Petirignerat.
Tchori edo bilhagarro ghizen zembeiten jaterat,
Urzo luma azkar hoiec ezkutuc hire bianda

10

–Urzo azai edo epher
Eniz hambat fida haier,
Hegaltoxez igaraiten goure poumpa handier
Hountbide hounic eman diegu goure polbora trageer.



Urzo lüma gris gaxua balada. Arxüren eskutikakoa.

5. AHAPALDIZ AHAPALDIKAKO IRUZKINA

Iruzkin dezagun puntu honetan Arxük transkribatutako balada. Uste dugu Arxüren ortografia bereziak eta partikularzki eredu honek iruzkin bat merezi dutela.

1

Urzo luma gris gaichoa,
Ore bidagian bahoa,
Batzen bazaic Mousde Sari,
Jaun apetitu houn hori,
Beghiz, ikhousten balin bahai,
Petirignerat Bahoa.

Antonio Zavalaren EE lanean zein EB lanean ez da markatzen Zuberoako bokalik. Jatorrizko eredutik hurbilean dagoena EB lanekoa dugu. Hala ere *bidagian* jatorrizkoa *bidaian* jartzen du. Interesgarria da posesiboei gagozkiela hemen ere *Ore* ikusten dugula. Azkenaurreko ahapaldian *hire* ere badator, *(gu) ezkütük hire bianda*. Bihurkari denean *(h)eure* horren aldaera dugu *ore* delakoa. Bi posesiboak *ore/hire*, hots, bihurkaria eta ez bihurkaria desberdintzen direla.

2

Urzo gaichoac eztiki
Derio Mousde Sariri
Egundano ezteriola oghenic eghin jaun hari
Baratu gabe utzi dezan usatu dien bideti.

Jatorrizko eskuizkributik geroagoko transkripzioetara badago alderik. Jatorrizko adizkia *derio* dugu. Halaxe irakurtzen du Antonio Zavalak EE liburuan. EB laneko taldekoek, ordea, *desio* irakurtzen dute. Eskuizkribuan ez dago inolako dudarik: *Derio*. Aditz laguntzaile honetako *deri–* hori geroago ere ikusiko dugu: *emanen deriat*. Beste adizki batek ere arazotxoak sortzen ditu. Nola da lehen dokumentuan *usatu dien* edo *usatu dion*? Lehena da inolako dudarik gabe. Halaxe transkribatu du, esaterako, A. Zavalak bere EE lanean.

3

–Auher duc, auher urzoa,
Juratu diat fedia;
Aurthen gin beharduc eneki Petirignera
Nic han emanen deriat arthoz eta ziz assia.

Ahapaldi honek ez du transkripzio arazorik. Antonio Zavalak ez ditu jartzen kontsonante aspiratuak. Jatorrizko *arthoz* eta *aurthen* hitzak *artoz* eta *aurten* transkribatuko ditu. Jatorrizko transkripzioari gagozkiola, transkribatzaileak Petirigera jarri du eta gero –g– eta –e– ren artean –n– ttipi bat.

4

–Arthoz assia hor duzu,
Libertatia bagunu:
Ohico bago ezkurtto gouri hobeche zikuzu,
Anglesa Franzian sartzen eta Españalat bagoatzu.

Jatorrizko eskuizkribuan *hor duzu* irakurtzen dugu argiki eta garbiki. Transkribatzailearen huts ttipi bat izan behar du, gainerako ereduetan *hun/hon* agertzen baita.

Nola transkribatu behar dugu, bestalde, *hon* edo *hun*? EE lanean *hon* dator eta EBn, ordea, *hun*. Jatorrizko eskudatzian –o– garbi bat dagoenez gero, *hon* jarri dugu. Korapilorik handiena, ordea, *Ohico bago ezkurtto* delakoak ematen digu. Antonio Zavalak letra ttipiz jartzen du baina kanta transkribatu ondoren ohar interesgarri bat egiten du: "Laugarren bertsoaren irugarren lerroan, *ohiko* irakurtzen dan ortan, *Oriko* bearko luke. *Ori* mendi baten izena dala ez jakiñik, gaizki kopiatu alegia".

Ohar honen arabera uste dugu A. Zavalak ez zuela jatorrizkoa ikusi, beharbada, jatorrizkoan *Ohico* jartzen baitu transkribatzaileak eta ez *Oriko*. Arxü zuberotarra izanik transkribatzailea, bestalde, nola ez jakin *Orhi* mendi bat denik? Ez ote da beharbada besterik gertatu? Kantarik ezagunenetariko batean *Ohikoa nüzü* esaten den bezala, ez ote da berdin interpretatu?

Itzulpenean ere ez du transkribatzaileak Orhi mendiaren aipamenik egiten: *La faine de nos vieux hêtres vaut pour nous mieux que le mais*. Hau da, *vieux* hori izan liteke *ohiko* delakoa transkribatzailearentzat.

5

–Urzoa, ago ichilic,
Franzian eztuc Anglesic.
Baïonara giten bada zagoilla luzetaric
Erreghe Graamontec oro erhoren zitic.

Eskuizkribuko lehen hitza garbi ikusten da *Urzoa* artikuluarekin. Hitz hau deiki edo deigarria dugu, bokatibo garbia. EE liburuan artikulurik gabe ikusten dugu: *Urzo*.

Transkripzioaren aldetik badago kontu ilunxkoago bat. Nola da jatorrizko eskuizkribuan *Graamontec* edo *Garamontec*? Ezagutzen ditugun transkripzio bietan, EEn eta EBn, *Garamontek* transkribatzen dute. Jatorrizko eskuizkribuan, ordea, *Graamontec* irakurtzen da argiki eta garbiki. Kantaren azpiko oharrean *Gramont* dator frantsesez.

6

–Fida niz zoure erraner,
Fidago noure hegaler.
Gorainzi erran ezazu Angles zaragoilla luzer,
Nic erranen Español kokox gorrier.

Hemen ere badugu transkripzio arazo bat baino gehiago. Nola daude posesiboak lehen dokumentuan? EBkoek *zure/neure* egiten dute eta EE lanean ere berdin agertzen da. Jatorrizko eskuizkribuan *zoure/noure* ikusten dugu. Guk ere berdin transkribatuko bagenu, bihurkariaren legea betebetean beteko litzateke. Gure transkripizio gaurkoturako erdibide bat aukeratu dugu: *zure/n[e]ure*. Transkripzio beste arazotxo bat ere badugu, nola gaurko grafiara ekarri jatorrizko *kokox gorrier*? Gure ustez *kokots gorrier* egin beharko genuke, bestaldeko *aberax ixaso* grafia zaharrak gaur egun *aberats* eta *itsaso* transkribatzen ditugun bezalaxe. Azkenengo ahapaldian ere *Hegaltoxez* transkribatzeko arazo bera izango dugu. Gure usten *Hegaltotsez* izan beharko luke, hots, *hegaltatü* aditzaren eta *hotsez* hitzaren konposizioa.

7

Mousde Sarri Lapitzondo
Erretor bi herritaco
Harec aurthen eghiten deie urzoer evangelio;
Hugunturic ezpeitzien Españalat joan zaitzo.

Nola transkribatu behar dugu gure pertsonaia? EEan *Musde Sari Lapitzondo* ikusten dugu eta EBan *Mus de Sarri Lapitzondo*. Frantsesez (*monsieur) de Sarry Lapitzondo* irakurtzen da. Euskaraz guk

eskuizkribuan datorren bezala grafia gaurkoturik egin dugu: *Musde Sarri Lapitzondo*. Ez dugu ahaztu behar eskuizkribuko bigarren ahapaldian, ordea, Mousde Sari(ri) ere irakurri dugula.

Traskripzio kontuetan EE eredua gehienetan orpoz orpo darraio EB transkripzioari. Oraingo honetan, ez ordea. EB lanean *egiten duk urzoer ebangelio* irakurtzen dugu, EE lanean *egiten deie urzoer ebanjelio*. Adizkia garbi dago jatorrizkoan: *deie*. Azkenengo adizkia eskuizkribuan *zaitzo* da, inolako dudarik gabe.

Puntuazioari gagozkiola *erretor bi erritako* aposizio esplikatibotzat hartu dugu eta horrexegatik jarri dugu komen artean.

8

Adio, Urzoac, adio
Daigun setemer artio
Hume ederric haz ezazie; ginen ghirade gu oro
Sare berriac hedaturic ziren atzamaiteco.

Ahapaldi honek transkripzio desberdinak izan ditu EE eta EB lanetan. EBan *setomer* eta *hunik ederrik haz ezazie* irakurtzen dugu. EEn, ordea, *setemer* eta *hume ederrik haz ezazie*. Ez dago dudarik halaxe dela. Bada gure ustez EE lanean irakurketa okerrik *ziren atzamaiteco* ikusten da eskuizkribuan eta ez *zien atzamaiteco*. Esan dezagun, bidenabar, *ziren* forma "zuen", hots, "zuek" pertsonaren genitiboa dela eta Arxüren eskutikako *Urthubiako alhaba* baladan ere ematen dela.

9

–Sarri, zoatza etcherat
Mauleric Petirignerat.
Tchori edo bilhagarro ghizen zembeiten jaterat,
Urzo luma azkar hoiec ezkutuc hire bianda

Ahapaldi honetan ere desberdin transkribaturik ikusten dugu EE eta EB lanetan. Antonio Zavalak bigarren bertso-lerroa *Mauletik Petiriñerat* transkribatzen du. Ablatiboa, ordea, *Maulerik* dugu, hots, *Maulerik Petiriñerat*. Halaxe transkribatzen dute EB taldekoek.

Beste hitz bati gagozkiola, nola da *zombeiten* edo *zembeiten* jatorrizko eskuizkribuan? EB taltekoak *zonbeiten* transkribatu dute eta A. Zavalak *zenbeiten*. Guk ere jatorrizko eskuizkribuan *zembeiten* ikusten dugu. Adizkiei gagozkiela, eskuizkribuan *ezkutuc* jartzen du garbiki. Adizki hori *ez gütük* dugu berez.

10

–Urzo azai edo epher
Eniz hambat fida haier,
Hegaltoxez igaraiten goure poumpa handier
Hountbide hounic eman diegu goure polbora trageer.

Azken ahapaldi honek ere baditu transkripzio arazotxoak. Hitzik korapilotsuena eskuizkributiko *Hegaltoxez* dugu. Hitz honek ez du lehen transkripzioan eragozpen handirik sortzen. Nahiko antzekoak izan arren –x– eta –z uste dugu ohartuki aztertuz gero, bereiz daitezkeela. Antonio Zavalak *hegaltorez* transkribatu du eta EB taldekoek *hegaltazez*. Biak dira irakurketa txarrak. Lehen dokumentuan *Hegaltoxez* agertzen bada, ez dugu dudarik egiten gaurko transkripzioan: *Hegaltotsez*. Hitz hau konposatua da eta bere bi osagaiak ez dira zail ulertzen. Lehena *hegaltatü* litzateke, konposizioan *hegalt–* eta bigarrena *–hotsez*. Bigarren *hots* honen esangura (instrumentalean *hotsez*) garbi dago. Hitz konposatu hau bildua dago Lhanderen hiztegian eta jasoa OEH lanean. *Hegaltots* "*Egaltotsez* (S, Foix), en s'envolant avec bruit" Lh. Behin kontuak honetara aitortu beharra dugu hiztegietan ez dela agertzen inolako

adibiderik, herri kanta edo idazle baten testurik. Parisko testu hau ondo transkribatua balego, adibide ederra izango litzateke.

6. ARXÜREN EREDUA GAURKO ORTOGRAFIAN

Puntu honetan Arxüren testua gaurko ortografian jarriko dugu.

1
Ürzo lüma gris gaixoa,
ore bidajian bahoa,
batzen bazaik Musde Sarri, jaun apetitü hun hori,
begiz ikhusten balin bahai, Petiriñerat bahoa.

2
Ürzo gaixoak eztiki
derio Musde Sarriri,
egündano ezteriola ogenik egin jaun hari
baratu gabe ützi dezan üsatü dien bideti.

3
–Auher dük, auher ürzoa,
jüratu diat fedia.
Aurthen jin behar dük eneki Petiriñera,
nik han emanen deriat arthoz eta ziz asia.

4
–Arthoz asia hon düzü,
libertatia bagünü:
Orhiko bago-ezkurtto guri hobexe ziküzü,
anglesa Frantzian sartzen eta Españalat bagoatzü.

5
–Ürzoa, ago ixilik,
Frantzian eztük anglesik.
Baionara jiten bada zagoilla lüzetarik,
errege Graamontek oro erhoren zitik.

6
–Fida niz zure erraner,
fidago n[e]ure hegaler.
Goraintzi erran ezazu angles zaragoilla luzer,
nik erranen español kokots gorrier.

7
Musde Sarri Lapitzondo,
erretor bi herritako;
harek aurthen egiten deie ürzoer ebanjelio,
hügüntürik ezpeitzien Españalat joan zaitzo.

8

Adio, ürzoak, adio.
daigun setemer artio!
Hume ederrik haz ezazie; jinen girade gü oro,
sare berriak hedatürik ziren atzamaiteko.

9

–Sarri, zoatza etxerat,
Maulerik Petiriñerat!
Txori edo bilhagarro gizen zenbeiten jaterat,
ürzo lüma azkar hoiek ezkütük hire bianda.

10

–Ürzo, azai edo epher,
ez niz hanbat fida haier.
Hegaltotsez igaraiten gure punpa handier.
Huntbide hunik eman diegu gure polbora-trageer.

7. ARXÜREN TESTUAREN FRANTSES ITZULPENA

Arxüren euskal testua frantseseko itzulpena duela aurkitzen da lehen dokumentuan. Itzulpen hau, guk dakigula, ez da inoiz argitaratu. Frantseseko testua ere Arxüren eskutikakoa da, inolako dudarik gabe. Arxürena da, era berean, frantseseko azalpen testua.

1

Pauvre palombe aux plumes grises,
Tu poursuis ton long voyage.
Ce Monsieur le grand appétit,
Si son oeil perçant t'aperçoit
Tu prends la route de Petirigné.

2

La pauvre palombe avec douceur
Fait observer à Monsieur de Sary,
Qu'elle n'a jamais causé dommage à sa seigneurie
Qu'il daigne, en conséquence, la laisser poursuivre son chemin habituel.

3

–Vaines, oui vaines sont les réclamations, palombe.
Ma parole d'honneur est donnée,
Il faut que cette année tu viennes avec moi à Petirigné
Je t'y fourmirai en abondance et du maïs et du gland.

4

L'abondance de maïs est une bonne chose,
Quand on jouit de la liberté:
La faine de nos vieux hêtres vaut pour nous mieux que le mais,
L'Anglais entre en France et nous fuyons en Espagne.

5

–Tais-toi, palombe, tais-toi,
Il n'y a point d'Anglaisen France.
Si le peuple aux longues culottes venait a Bayonne,
Le Royal Grammont (X) l'exterminerait completement.

6

J'ai conviance en vos paroles
Et plus de confiance encore en mes aîles.
Faites mes compliments aux anglais aux longues culottes
Je porterai les vôtres aux Espagnoles hatés par le soleil

7

Monsieur de Sarry Lapitzondo,
Ce Recteur de dux villages,
Adresse cette année des évangiles aux palombes;
Toutes lui son échappées en Espagne, elles y ont leurs amis.

8

Adieux, palombes, adieux!
Jusqu'au mois de septembre prochain,
Elevez de beaux nourrissons; nous viendrons nous tous
Avec de filets nouveaux por nou apprivoiser.

9

Sarry, retournez chez nous,
Abandonnez Mauléon pour Petirigné;
Allez manger quelqu'oiseau ou quelque grisu
Les palombes aux fortes aîles ne sait pas des mets pour toi.

10

Palombes bécasses ou perdrix
Je n'y compte guère,
Elles bravent à tire d'aile nos grands coups d'arquebus
Notre poudre et notre plomb ne nous ont rien produit

Ce chant allégorique date de 1815, époque de reaction politique. Les partisants du grand homme, à la chute de l'Empire, s'enfuirent du Pays Basque en Espagne pour ne pas tomber entre les mains des royalistes qui, à cette époque, firent verser bien de larmes dans les provinces méridionales.

(X) M de Gramont, envoyé à Hartwel pour annoncer à Louis XVIII la chute de l'Empire, devint député des Basses–Pyrénées.

8. ARXÜREN BIGARREN EREDU ARGITARAGABEA

Arxüren kaier argitaragabe bat bere arrailobaren eskutik lortu dugu. Kaier honen izenburua *Recueil de chants populaires basques* dugu, lehen orrialdean agertzen den bezalaxe. Azken orrialdean data bat agertzen da: 1840.

Kaier horretan *Anderea gorarik* eredua edo *Hauzeko anderia* baladak aurkitzen dira. Kaier horretako hamargarren kantua *Urzo lüma gris gaxua* balada dugu. Balada honen izenburutzat *Allégorie*

frantsesezko hitza dator. Parisko ereduan ere *Chant historique/Le chasseur/Allégorie* hitzak zetozen. Gure eredu honek ere hamar ahapaldi ditu eta Pariskoaren oso antzekoa da. Baditu, hala ere, aldaera txiki batzuk. Eredu honek eta Pariskoak ortografia sistema bera dute, Arxük erabili ohi zuena. Eredu hori transkribatzea eta iruzkintzea guztiz garrantzizkotzat jotzen dugu.

1

Urzo luma gris gaichoa,
Ore bidagian bahoa,
Batzen bazaic Mourde Sari,
Jaun apetitu houn hori,
Beghiz, ikhousten balin bahai,
Petirignerat bahoa.

2

Urzo gaichouac eztiki
Derio Mourde Sariri,
Egundano ezteriola oghenic eghin jaun hari
Troublatu gabe utzi dezan usatu dien bideti.

3

Auher duc, auher urzoua,
Juratu diat fedia;
Aurthen gin behar dukiala enekin, Petirignera;
Nic han emanen deriat arthoz eta ziz assia.

4

–Arthoz assia hon duzu,
Libertatia bagunu:
Ohico bago ezkurtto horic gouri hobeche zikuzu,
Anglesa Franzian sartzen eta Españalat bagoatzu.

5

Urzoa, ago ichilic,
Franzian eztuc anglesic.
Baionara jiten bada zaragoilla luzetaric
Goure Erreghe Graamontec oro erhoren zitic.

6

Fida niz zoure erraner
Figado noure hegaler.
Gorainzi erran ezazu Angles zaragoilla luzer,
Nic ere erranen diet Espagnol kokox gorrier.

7

Mourde Sari Lapitzondo
Erretor bi herritaco
Harec aurthen eghinen deie urzouer evangelio;
Hugunturic ezpeitzien Españalat joan zaitzo.

8

Adio, urzouac, adio
Daigun setemer artiño
Hume ederric haz ezazie. Jinen ghirade gu oro
Sarre berriac hedaturic ziren atzamaiteco.

9

Sarri, zoatza etcherat
Mauleic Petirignerat,
Tchori edo bilhagarro ghizen zombeiten jaterat,
Urzo luma azkar hoiec ezkutuc hire vianda

10

Urzo, azaia edo epher,
Eniz hambat fida haier.
Hegaltoxez igaraiten goure poumpa handier
Hounbide hounic eman diegu goure polbora-trageer.

allégoriel.

10/ Urzo luma gris gaichoa
Ore bidagian Cahoal.
Batzen bazaic Mounde Sari,
Jaun apetitu hour hori,
Beghiz iKhousten Calin Cahoai,
Petirignerat Cahoal.

Urzo gaichoai eztiki
Deri Mounde Sariri,
Egun dano exteriola oghuni eghiz jaun hari
Troublatu gabe utzi dezan usatu dien bideti.

_ Author Jue, author, urzoua,
Jura tu diat fedia,
Aurthen gin betarbutu viola Petirignera;
Ni tran emanen dezat arthoz ta liz asia.

Arthoz asia hour dezue,
Libertatia Cagunu,
Ohitko Cago exkuntio hure gouri hobecto zi kuzu;
Anglesa Franzian sartzen ta Espagnatar Cagoatzu.

Urzoa, ago ichilic
Franzian eztue angleric.
Baionara jiten Cada zagoilla luzetaric
Jour Erreghe Graamontec ore erhoren zitic.

Fida niz zure erranez
Figado noure hegalez
Gorainzi erran eztu Angles zaragoilla luzez,
Ni ere erranen dizt Espagnol kokox gorriez.

Mounde Sari kapitzondo
Erretor bi hesritaco


Harec austhuy eghinen deie urzouer evangelio
Huguntzric expeitziny Espagnalat joan zaitzo
Adio, urzoua, adio
Daigun Setemer artino.
Hunu ederric haz ezazie. Tiny ghiza de gu oro
Sarre berriac hedatzric ziren atzamaitzo.
Sarri, zoatza etcherat
Maulaix Petirignerat,
Tchori edo bilhagarro ghizen zombaitzu jabetzat
Urzoluma, azkhar hoiec ezkutatzie hira ziarda.
Urzo, azaia edo epher,
Eniz hambat fida traier.
Hegaltoxer igaraitzen gouze joumpa handier
Hourbida hounic eman diegu gure polbora-trageer.

Urzo lüma gris gaxua balada. Arxüren bigarren eredu argitaragabea.

9. ARXÜREN EREDUA AHAPALDIZ AHAPALDI

1

Urzo luma gris gaichoa,
Ore bidagian bahoa,
Batzen bazaic Mourde Sari,
Jaun apetitu houn hori,
Beghiz, ikhousten balin bahai,
Petirignerat bahoa.

Kaiereko lehen ahapaldi hau Parisko Biblioteka Nazionalekoaren berdin-berdina da. Agertzen diren desberdintasun bakarrak Pariskoan *Mousde* dator eta kaierean *Mourde*. Lehen ahapaldia sei bertso-lerrotan tolestua dago. Gainerako ahapaldi guztiak lau bertso-lerrotan tolestuko ditu Arxük. Parisko ereduan eta gure kaierean jokabide bera hartzen du.

2

Urzo gaichouac eztiki
Derio Mourde Sariri,
Egundano ezteriola oghenic eghin jaun hari
Troublatu gabe utzi dezan usatu dien bideti.

Ahapaldi honetan ere aldaketa gutti dator. Eredu bietan ikusten dira Arxüren ortografiako *oghenic/eghin* hitzak. Hiru aldaketatxo daude bakarrik: lehena, *Mousde* Pariskoan, *Mourde* kaierean; bigarrena, *gaichoac* hitza dator Pariskoan eta *gaichouac* kaierean; hirugarrena deigarriagoa da. Pariskoan *Baratu gabe* aurkitzen dugu, eskuizkribuan *Troublatu gabe*.

3

Auher duc, auher urzoua,
Juratu diat fedia;
Aurthen gin behar dukiala enekin, Petirignera;
Nic han emanen deriat arthoz eta ziz assia.

Parisko ereduan *urzoa* dator, gurean *urzoua*. Parisko ereduan *gin beharduc* dator. Gurean, lehen idazkeran ere halaxe jarri du, baina gero zuzendu du *dukiala* adizkiarekin. Era berean, lehen idazkeran *eneki* jarri du, baina gero azken *–n* bat gehiturik *enekin* irakurtzen dugu.

4

–Arthoz assia hon duzu,
Libertatia bagunu:
Ohico bago ezkurtto horic gouri hobeche zikuzu,
Anglesa Franzian sartzen eta Españalat bagoatzu.

Parisko ereduan *hon duzu* irakurtzen da, gure kaierean *houn duzu*. Parisko ereduan singularrean dator *anglesa.* Gure ereduan pluralean *anglesac*.

5

Urzoa, ago ichilic,
Franzian eztuc anglesic.
Baionara jiten bada zaragoilla luzetaric
Goure Erreghe Graamontec oro erhoren zitic.

Lehen idazkera zuzendua agertzen da. Lehen idazkeran *zagoilla luzetaric* dator eta bigarrenean zuzendurik za– eta –go silaben gainean *ra* irakurtzen da. Lehen idazkeran, beraz, Parisko ereduan bezala dator eta bigarrenean zuzendurik *zaragoilla luzetaric*. Lehen idazkeran Parisko ereduan bezala *Erreghe Graamontec* irakurtzen dugu, baina luma finago batez *Erreghe* hitzaren aurrean *Goure* irakurtzen dugu.

Ortografia aldetik *Baïonara giten* irakurtzen dugu Pariskoan, gure ereduan *Baionara jiten*.

6

Fida niz zoure erraner
Figado noure hegaler.
Gorainzi erran ezazu Angles zaragoilla luzer,
Nic ere erranen diet Espagnol kokox gorrier.

Arxük *figado* idatzi du *fidago* idatzi beharrean. Ez dago dudarik *fidago* izan behar duela, hamargarrenean ere *fida* jartzen baitu. Lehen idazkeran Arxük Parisko ereduan bezalaxe *Nic erranen Espagnol kokox gorrier* jarri du. Gerora luma finago batez gehitzeak izan dira eta *ere* eta *diet* tartekatu ditu: *Nic ere erranen diet Español kokox gorrier*. Ez ote zuen *diet* jarri beharrean *deiet* jarri behar?

7

Mourde Sari Lapitzondo
Erretor bi herritaco
Harec aurthen eghinen deie urzouer evangelio;
Hugunturic ezpeitzien Españalat joan zaitzo.

Gure ereduan beti *Mourde* agertu ohi da, Pariskoan *Mousde*. Era berean, gure ereduan *Sari* dator, Pariskoan *Sarri*. Argi ikusten da, beraz, Arxüren garairako ere dardarkarien dantza zegoela Zuberoako euskaran.

Fonetismoei dagokienez, Pariskoan *urzoer* dator, gurean *urzouer*. Badago aditzaren aspektuari dagokion aldaeratxo bat. Pariskoan *eghiten deie* dator, gure ereduan *eghinen deie*.

8

Adio, urzouac, adio
Daigun setemer artiño
Hume ederric haz ezazie. Jinen ghirade gu oro
Sarre berriac hedaturic ziren atzamaiteco.

Aldaketa apur batzuk markatuko ditugu. Ortografiari eta puntuazioari dagozkionak ezerezkeriak dira. Pariskoan *ginen ghirade* dator eta gure kaierean *Jinen ghirade*. Bi-biak Arxüren ortografia-sistemakoak dira, zalantzarik gabe. Fonetismo eta aldaerei dagokienez, Pariskoan *Urzoac,* gure ereduan *urzouac*. Pariskoan *setemer artio* dugu, gurean *setemer artiño* irakurtzen dugu. Azkenik, azken aldaketatxoa: Pariskoan *Sare berriac* dator, gure ereduan *Sarre berriac*.

9

Sarri, zoatza etcherat
Mauleic Petirignerat,
Tchori edo bilhagarro ghizen zombeiten jaterat,
Urzo luma azkar hoiec ezkutuc hire vianda.

Aldaketa gutxitxo ditugu ahapaldi honetan. Ortografiari dagozkionak huskeriak dira. Pariskoan *bianda*, gure kaierean *vianda*. Parisko ereduan *Mauleric Petirignerat* aurkitzen dugu, gure kaierean

Mauleic Petirignerat. Pariskoan *azkar* ikusten dugu gure kaierean *azkhar*. Pariskoan *zembeiten* gure kaierean *zombaiten*.

10

Urzo, azaia edo epher,
Eniz hambat fida haier.
Hegaltoxez igaraiten goure poumpa handier
Hounbide hounic eman diegu goure polbora-trageer.

Kaiereko ereduan ia berdin transkribaturik dago. Aldaketa txikitxoak puntuazioari dagozkio. Diren aldaketatxoetan Pariskoan *azai* ikusi dugu eta kaierean *azaia*. Txori mota hau ez da urzoa edo epherra bezain ezaguna. *Azaia* hitza hobeto dago *azai* baino. *Azaia* hitzean azken –a organikoa dugu eta *becada* adierazten du; latinetiko *acceia* hitzaren prestamua da. Parisko ereduko *Hountbide* hitza gure kaiereko ereduan *Hounbide* dator. Ez dago, bestalde, inolako dudarik, *Hegaltoxez* hitza dator Parisko ereduan eta gure kaiereko ereduan. *Hegaltoxez* hitza gaurko grafian *hegaltotsez* dugu eta *txorien hegal hots indartsua* adierazten du. Azken ahapaldi honetako *hounbide* hitzaren adiera OEH lanean galdemarka batekin jasoa dago: *Uso, empleo(?)*.

10. SALABERRIREN EREDUA

Gure kantu hau kronologikoki bigarren aldiz J.D.J. Salaberrik bere *Chants populaires du Pays Basque* liburuan dakar. Kantu hau gerora hainbat lekutan berrinprimatu da. Kontu jakina denez, Salaberriren liburuko kantek izan dute zabalkunderik handiena. Geroagoko kantutegi askotan ere agertu dira kantu berak. Salaberrik gure eredua 201-207 bitartean dakar. Salaberriren ereduaren izenburua *Musde Sarhi* da. Salaberrik zortzi ahapaldi besterik ez dakartza. Salaberriren paperetan, ordea, bederatzigarren ahapaldi bat agertzen da argitara eman ez zuena. Hona ahapaldia:

Musde Nogues Lapitzondo
Erretor bi hiritako,
Aurthen ürzoer egin diezu bortian Ebanjelio,
Inkuntürik ezpeitzian Españalat juan zeitzo

Zergatik ez zuen azken ahapaldi hau argitara eman? Apaiz baten deiturak agertzen direlako eta apaiz horren egitateak kritikagarriegiak direlako?

1

Ürzo lüma gris gachua,
Ore bidajin bahua;
Baratzen bazaik musde Sarhi, jaon apetitü hun hura,
Begiz ikusten balin bahai Pethiriñalat bahua.

2

Ürzo gachuak ümilki
Diozü musde Sarhiri:
Egündano eztereiola ogenik egin jaon hari,
Ützi dezan igaraitera üsatü dian bideti.

3

–Auher dük auher, ürzoa,
Jüratü diat fedia!
Aurthen aurthen jin behar dük eneki Pheteriñala;
Han nik emanen dereiat arth'eta zahiz asia.

4

–Arthoz asia hun düzü
Libertatia bagünü;
Orhiko bago ezkürtto hurak guri hobeche zizkützü;
Anglesa Frantzian sartzen bada Españalat bagoatzü.

5

Ürzoa, ago ichilik,
Frantzian eztük Anglesik;
Baiunara jiten badira Agaramuntek hilen tik;
Phetiriñalat eztük jinen zaragoilla lüzetarik.

6

–Fida niz zure erraner,
Fidago ene hegaler.
Goraintzi erran behar derezü jiten badira Angleser,
Nik ere ber gisan erranen diet Español papo-gorrier.

7

–Goraintzi erraile Angleser
Ni naika ezarten mezüler?
Orai diat orai ikhusten nitzas hizala trüfatzen,
Ar'eta enaik beste urthe batez bortian freskeraziren.

8

–Jaona, zuaza etcherat
Mauletik Pethiriñelat;
Tchori eta bilhagarro gizen zombaiten jatera,
Ürzo hegal azkartto hoiek ezkira zure bianda.

9

Musde Nogues Lapitzondo
Erretor bi hiritako,
Aurthen ürzoer egin diezu bortian Ebanjelio,
Inkuntürik ezpeitzian Españalat juan zeitzo.

N.° 1

Musde Sarki. (C) -

1.

Ürzo lüma gris gachua,
Ore bidajin bahua;
Baratzen bazaik musde Sarki jaon apetatü hun hura,
Begiz ikhusten balin bahai Pethiñalat bahua.

2.

Ürzo gachuak ümiltki
Düzü musde Sarkisi.
Egündano ezterela ogenik egin jaon hari,
Ützi dezan igaraitzea üsatü dian bidesti.

3.

– Auher dük author, ürzoa,
Jüratü diat fedia!
Aurthen aurthen jin behar dük eneki Pheteriñala;
Han nik emanen dorciat arth' eta zahiz asia.

4.

– Arthoz asia hun düzü
Libertatia bagünü,
Orhiko bago ezkürtto hunak guri hobeche zizkützü;
Anglesa Frantzian sartzen bada Españalat
[bagoatzü.

5.

– Ürzoa, ago ichilik,
Frantzian eztük Anglesik;
Baiunara ziten badira Agaramontek hilen tik;
Thetiuñalat eztük jinen zaragoilla lüzetarik.

6.

– Fida niz zure eraner,
Fidago ene hegaler
Goraintzi eran behar derezü jiten badira Anglesez,
Nik ere ber gitxan eranen diet Español papo-gorier.

7.

– Goraintzi erraik Anglesez
Ni naiska egarten meyülez?
Orai diat orai ikhusten nitzas hizala trüfatzen,
Ni' eta eraik beste urthe batez bortian frakherazien.

8.

– Jaona, zuaza etcherat
Maulatik Pethiuñilat;
Echeri eta bilhagarro gizen zombaiten jatera,
Urzo hegal agkarto hoiek ezkira zure bianda.

9.

Musde Noques Lapitzmeo
Eretor bi hiritako;



Urzo lüma gris gaxua balada. Salaberriren eredua.

11. CHAMBRA KAIEREKO EREDUA

Chambra kantariaren kaierean ere badator gure baladaren eredua. Chambra kaierean kantuaren izenburua *Urçouarenac* da eta kaierean 66-68 zenbakietan dator. Hona kantu-kaierean datorren bezalaxe:

1
Urso luma gris gachoua
hire bidajian bahoua
Basen bacaiq moude Chari jean apetitu hounhoura
Beguies ikhousten balinbahai Phetirignalat bahoua

2
Urso Gachouaq Umilky
Erepostu Mousde Chariry
Egun dano eztereyola ogeniq egin jean hary
Trublatu gabeuxideçan usatudian bidety

3
Aouherduq ouher urxoua
Juratu diat Fedia
Aurthe aourthen jin beharduq eneky bentaberila
Niq han emanen dereyat arthos eta çis asia

4
Axe houra houn lukeçu
Libertatia bagunu
Orhiko bago ezkurtto houraq gouri hobecheçikuçu
Angleza françian sarxen beita Espagñalat bagouaçu

5
Urçoua ago ichiliq
Franxian eztuq angleziq
Bayonarat jiten badira agaramunteq hilentiq
Phetirigñalat eztuq ez jinen saragolla Lucetariq

6

Goanxi ereçu anglezer
Goure Phartez othoy jean hayer
Guq ere eraneko deregu espagnoulepo gorier
Fidanis çoure eraner bena fidago ene hegaler

7

Ninaika esarten mesajer
Eraiteko Anglezer
Orai diat oray sinhesten nisas hisala Trufaçen
Enaiq ez ni daygun Ourthian bortian hoxeraciren

8

Jeauna çouaxa Etcherat
Mauleriq benta berilat
Chocho edo bilhagaro gisen çoumaiten jatera
Urxo luma gogor horiq eztira jeaunen bianda

9

Mousde vobes Laphixondo
Eretor by heritako
Hareq aurthen egin umendu Urcouer ebajelio
bena inkounturiq ezpeisian Espagñalat Jourançaixo

10

Urso Gachouaqadio
Daygun setemer artino
Hume onsatto hasesasu Goure ikhoustera jiteko
Guq ere sariaq berituren tugu çien erecebiceko



Urso Gachoxag Umeltzy
Erepostu Mourde Chazuy
Egun dano ezterenyola egunig egin Jean Bary
Erublatu Gabeziadean uraturiam budely

— 3 —

Aourher dug ouher uraurie
Lurata ohiat Ageria
Aurthe, aurthen jis betaudig eneky bentabeule
nig han emanen Dereyat arthos eta eis abla

— 4 —

Axe hzuna Joan by Reen
Libertatia bagaina
Ol orhitko bago eztiratto hourag gauiholechez Rima
Anglesa-Frantzian Dauzenbeita Espagnolat bagoanen

— 5 —

Ureona ago ichuli
Frantzian eztug angleziz
Bayonnat Jiten baduia agaramentez Juteniz
Phisturiatalat eztug ez jinor Jaragolla Lucetaniz

— 6 —

Goanzi erecu angleser
Goure Charles ohoz Jean Jean hayer
Gug ere eramaiko Dereyen Espagnulapo Jorie
Jidanis goure eramen bena bago ene hegalen

— 7 —

Ninaiko esarten mesajen
Erantzuko Angleser



Urzo lüma gris gaxua balada. Chambraren kaierekoa.

12. CHAMBRA KAIEREKO EREDUA AHAPALDIZ AHAPALDI IRUZKINDURIK

Euskaraz dugun kantu-kaierik aberatsenetakoa da Chambra. Chambra kaiereko eredua ahapaldiz ahapaldi iruzkinduko dugu.

1

Urso luma gris gachoua
hire bidajian bahoua
Basen bacaiq moude Chari jean apetitu hounhoura
Beguies ikhousten balinbahai Phetirignalat bahoua

Chambra kaiereko ezaugarri zenbait ahapaldi honetan datoz laburbildurik. *Jaun* hitza adierazteko *jean* ikusten da beti Chambra eskuizkribuan. Idazkerari gagozkiola, *ou* guztiak *u* bokala itxuratuko dute. Zuberoako ü bokala, ordea, *u* batez emango da. Transkripzio hutsen bat ere egon daiteke, *moude* hori *mousde* jarri behar luke transkribatzaileak, gainerako adibide guztietan egiten duen bezalaxe.

2

Urso Gachouaq Umilky
Erepostu Mousde Chariry
Egun dano eztereyola ogeniq egin jean hary
Trublatu gabeuxideçan usatudian bidety

Ahapaldi honek badu kaier bereko Bereterretx kantoreko ereduarekin zerikusirik: *Beretetchq umelki jean kontiary segurky/ (bis)Ehun behi eman çerola bere Sesena ondoty*.

Transkripzio aldetik ez du eragozpenik. Zubererako dardarkarien arazoa ikusten dugu *erepostu*, *Chari*.

3

Aouherduq ouher urxoua
Juratu diat Fedia
Aurthe aourthen jin beharduq eneky bentaberila
Niq han emanen dereyat arthos eta çis asia

Ez du eragozpen larririk eskaintzen transkripzio egoki baterako. Hitz propiotzat hartu dugu *Bentaberri* Dassancek bezalaxe. Ahapaldi honetan ikusten dugu orain arteko transkripzio-aldaketarik handiena. Jatorrizko testuan *emanen* ikusten dugu eta inola ere ez Dassancek dakarren *izanen.* Ez du, bestalde, inolako zentzurik Dassanceren *izanen dereiat* delakoak.

4

Axe houra houn lukeçu
Libertatia bagunu
Orhiko bago ezkurtto houraq gouri hobecheçikuçu
Angleza françian sarxen beita Espagñalat bagouaçu

Bada hemen ere transkripzioan desberdintasunik. Dassancerenean *baginü* dator eta jatorrizkoan, inolako dudarik gabe *bagunu* ikusten dugu; hots, gure gaurko ortografian *bagünü*. Ahapaldi honetan agertzen den mendia argi eta garbi *Orhi* dugu, bestaldeko ekialdeko tradizioan beti dokumentatzen den moduan. Antonio Zavalak, beraz, arrazoi ote du Arxüren testuan Orhi mendia ikusten zuenean?

Ohargarria da ehiztaria usoari hika zuzentzen zaiola. Usoaren ehiztariarekiko tratamendua, ordea, zukakoa dugu.

5

Urçoua ago ichiliq
Franxian eztuq angleziq
Bayonarat jiten badira agaramunteq hilentiq
Phetirigñalat eztuq ez jinen saragolla Lucetariq

Ahapaldi honetan zailtasun bakarra ikusi dugu: *agaramunteq* edo *agaramonteq* ote da? Bi aukera hauen artean lehena dela uste dugu zuzena.

6

Goanxi ereçu anglezer
Goure Phartez othoy jean hayer
Guq ere eraneko deregu espagnoulepo gorier
Fidanis çoure eraner bena fidago ene hegaler

Ez du transkripzio zailtasunik. Zuberoako euskararen kontsonante aspiratu guztiak markatu ditugu *othoi*, *phartez*, eta abar. Lehen dokumentuko *eraneko deregu* transkribatzeko dudarik ez dugu bigarren dokumentuan: *er[r]aneko deregu*. Berez bi atzizki etorkizuneko ditugu *erraneko* adizkian: –(r)en eta –ko.

7

Ninaika esarten mesajer
Eraiteko Anglezer
Orai diat oray sinhesten nisas hisala Trufaçen
Enaiq ez ni daygun Ourthian bortian hoxeraciren

Transkripzio zailtasun bat edo beste badugu ahapaldi honetan. Adizkiei gagozkiela, *naik* hori *nauk* eraren Zuberoako aldaera dugu. Lehen aldiz agertzen denean, *naika* delakoan, –a galdetzailea duela ikusten dugu. Bigarren transkripziorako *hoxeraziren* hori gaurko ortografiara nola ekarri? Gure ustez *hots erazi* izan behar du "deitu", "dei egin", "hots egin" edo horrelako adieraren bat duena.

8

Jeauna çouaxa Etcherat
Mauleriq benta berilat
Chocho edo bilhagaro gisen çoumaiten jatera
Urxo luma gogor horiq eztira jeaunen bianda

Ahapaldi honek ez du transkripzio eragozpenik. Alegoriari jarraiturik, bi hegazti-izen berri ikusten ditugu: zozo eta birigarro. Txori bi hauen ordena zaharra ere ikusten dugu: xoxo edo bihagarro(ak). Ordena zahar honek konposatu zaharra ere ematen du euskaran: zozo-birigarroak.

9

Mousde vobes Laphixondo
Eretor by heritako
Hareq aurthen egin umendu Urcouer ebajelio
bena inkounturiq ezpeisian Espagñalat Jourançaixo

Transkripzioaren aldetiko eragozpenik handienak azken adizkiak eman dizkigu. Azkenean *çaixo* bat dela erabaki dugu, eta honen transkripzioa *zaitzo* izan behar, ez *zaizko*.

10

Urso Gachouaqadio
Daygun setemer artino
Hume onsatto hasesasu Goure ikhoustera jiteko
Guq ere sariaq berituren tugu çien erecebiceko

Chambrako kaierean agertzen den azken ahapaldi hau ez dator Antonio Zavalaren azken ereduan. Arrazoia garbia dugu: Dassancek ez zuelako transkribatu. Azken ahapaldi honen ahapaldirik antzekoena Aingeru Irigaraik *Poesias populares de los vascos*, 1963 liburuan dakarrena da. Aingeru Irigaraik agertzen dituen hiru ahapaldiak Antonio Zavalak dakartza III. ereduan.

Hamargarren ahapaldi honek baditu transkripzio arazotxoak. Lehen zailtasunetariko bat lehen bertso-lerroan daukagu: *Gachouaqqdio* edo *Gachouaqadio* ote da? Hau da, gaurko grafiara ekarririk, *gaxuak dio* edo *gaxuak adio* izan behar ote du? Bi aukera horiek desberdinak dira, begi bistakoa denez. Bi aukeretatik, jatorrizko letrari erreparatuz gero, lehena dela dirudi; zentzuari erreparatu eta gainerako aldaerak aztertuz gero, bigarrenak izan beharko luke.

13. CHAMBRA KAIEREKO EREDUA GAURKO ORTOGRAFIAN

1

–Ürzo lüma gris gaxua,
hire bidajian bahua,
batzen bazaik musde Sarri jaun apetitü hun hura,
begiez ikhusten balin bahai Phetiriñalat bahua.

2

Ürso gaxuak ümilki,
errepostü musde Sarriri,
egündano ez dereiola ogenik egin jaun hari,
trüblatü gabe ützi dezan üsatü dian bideti.

3

–Auher dük, auher, ürxua,
jüratu diat fedia.
Aurthe[n] aurthen jin behar dük eneki Bentaberrila,
nik han emanen dereiat arthoz eta ziz asia.

4

–Ase hura hun lükezü,
libertatia bagünü.
Orhiko bago-ezkürtto hurak guri hobexe ziküzü,
anglesa Frantzian sartzen beita Españalat baguazü.

5

–Ürzua ago ixilik,
Frantzian eztük anglesik.
Baionarat jiten badira, Agaramuntek hilen tik,
Phetiriñalat eztük ez jinen zaragolla lüzetarik.

6

–Goantzi errezu angleser,
gure phartez, othoi, jaun haier.
Gük ere erraneko deregu españul lepo gorrier.
Fida niz zure erraner, bena fidago ene hegaler.

7

–Ni naika ezarten mesajer
erraiteko angleser?
Orai diat, orai, sinhesten nizaz hizala trüfatzen,
ez naik ez ni daigün urthian bortian hotseraziren.

8

–Jauna, zuaza etxerat,
Maulerik Bentaberrilat,
Xoxo edo bilhagarro gizen zumaiten jatera:
ürzo lüma gogor horik eztira jaunen bianda.

9

Musde Bobes Laphitzondo,
erretor bi herritako,
harek aurthen egin ümen du ürzuer eba[n]jelio
bena inkuntürik ezpeitzian: Españalat juran zaitzo.

10

Ürso gaxuac, adio,
daigun setemer artino.
Üme ontsatto haz ezazü gure ikhustera jiteko
gük ere sariak berritüren tügü zien errezebizeko.

14. ALTZAIKO EREDUA: CAUBET CHUBUKO ARHAN JAUNAK EMANA

Caubet Chubuko Arhan edo, beste era batera, *Caubet Chubuko Altzai* Zuberoako kantoreen azken berriemailea izan da. 1913. urteko uztailaren 14an jaioa zen. Gaztetatik morroi ibilia. Zuberoako kantore zenbait Gaiteros de Pamplona taldekoek argitaratu zituzten (Gaiteros de Pamplona: 1977). Puntu honetara ekarri dugun eredua karta batean Dassanceri bidalia da. Puntu honetan Caubet Chubukoren transkripzio zuzena egingo dugu. Hona hemen:

1

Urso luma gris gaysoua hiré bidajin bahoua..
Baratsen baduk Mousdesaré Jaun Apetitu houn houra
Bégies bera Ikhousten bahai Phetignilat bahoua

2

Urso gaysouak umilki diosu Mousdé Saréri
Eugun dano Esdeyola ogénik eguin jaun hari
Utsi désan Igaraitera usatu dian bedetik

3

Aouherden Aouher Ursoua juratu diat fédia
Haurthe Aourten béhar duk jin Enéki Phétignilarat
Nik han Emanen déréyat Arthos Eta sahis Asia

4

Arthos Asia houn dusu libertatia Bagunu
Ohiko baguo Eskurtto horik gouri hobeche siskutsu
Anglésak Frantsian sartsen badira Espagnalat bagouatsu

5

Ago ichilik Orsoua Frantsian ésduk Anglésik
Bayounala héltsen badira Agaramounten helentik
Frantsian Esduk és sarthuren Saragoilla lusétarik

6

Fida nis souré Eraner Fidago Ené hégalér
Gouraintsi Eranen dérésu jiten badira Angleser
Ni éré bergisan Eranen diet Espagnul papo gorier

7
Ni nay-ka Esartén Mésulér goraints Eraïle Anglesér
Orai diat orai ikousten nitsas hisala trufatsen
Areta béstébéhin Enaikes bortian freskérasirén

8
Jaùna soùasa Etchérak Mauletik Phetignilarat
Chori Eta Bilhagaro guisén soumaitén jatera
Urso luma Askartto horik Eskira souré bianda.





Urzo lüma gris gaxua balada. Caubeten eredua.

Puntu honetan transkripziorik fidelena egiten ahalegindu gara. Bokalen gaineko tildeak ez dira beti seguruak. Behin baino gehiagotan tildeak transkribatzeko zalantzatan ibili gara.

15. SALABERRIREN KAIERETIK SORTUTAKO EREDUAK

Atharratze jauregian balada aztertu dugun atalean bezalaxe, puntu honetan Salaberriren 1870. urteko eredutik hurbil dauden bi kaieretako ereduak ekarriko ditugu: Altzaiko Margarita Pradas jostunaren eredua eta Pinaperro kaierekoa. Lehen dokumentutik lehen transkripzioa bakarrik egingo dugu ondoko azpipuntuetan.

15.1. *Altzaiko eredua*

Margarita Pradas Altzaiko anderearen kaierean ere agertzen da aldaera bat. Aldaera honek lau ahapaldi ditu bakarrik eta lau horiek oso antz handia dute Salaberriren eredu argitaratuarekin. Hona lau ahapaldiak:

1
Urso luma gris gaychoua orai bidajes bahoua
Baratsen basaic mousde sarri jaoun apetitu houn houa
Begis ikhusten balin bahai phetinala bahoua

2
Urso gachoua umilki Diosu mousde sariri
Egundano esteriola oguenic eguin jaun hari
Utsi igaraitera usatu dian bideti

3
Auher duc auher ursoua jurat diat fedia
Aurthen aurthen jin behar duc énéqui pheti[ri]gnala
Han nic emanen deiat artho eta oguis asia

4
Arthos asia houn dusu Libertatia bagunu
Orhiko bago eskurtto hourac gouri hobeche sikutsu
Anglesa Frantsian sartsen bada Espagnalat bagouatsu



Urzo lüma gris gaxua balada. Altzaiko eredua.

15.2. *Larraineko eredua*

Atal honetan, Larraineko Pinaperro etxeko kaiereko eredua transkribatuko dugu. Kaierak *Sagaspe Aña* jartzen du buruan, eta, uste dugunez, jabearen izen-deiturak izango dira. Kaieraren 50. orrialdean dator eredua:

1
Urso luma gris gachoua ore bidajes bahoua
Barasen basaic musde sari jaun apetitu houn hura
Begis ikhousten balin bahai Phetirignalat bahua

2
Urso gaichua umilki diosu mousde sarari
Egundano estereiola ogenic egin jaun hari
Utsi desan igaraitera usatu dien bidetic

3
Auher duc auher ursoua juratu diat fedia
Aurthen aurthen jin behar duc eneki phetirignala
Han nic emanen dereiat arthos ta sis asia

4
Arthos asia houn dusu libertatia bagunu
Orhiko bago eskurto hourac gouri hobeche siskutsu
Anglesa Frantsian sartsen bada Espagnalat bagouasu

5
Ursoua ago ichilic Frantsian estuc anglesic
Baiounara jiten badira agaramentec hilen tic
Phetirignalat estuc jinen saragolla lusetaric

6
Fida nis soure eraner fidago ene hegaler
Goraintsi eran behar deresu jiten badira angleser
Nic ere ber gisan eranen diet espagnoul papo gorier

7
Goraintsi eraile angleser ni naika esarten mesuler
Orai diat orai ikhousten nitsas hisala trufatsen
Ar eta enaie beste urthe bates bortian freskerasiren

8
Jauna souasa etcherat mauletic Phetirignalat
Tchori eta bilhagaro gisen soumbaiten jatera
Urso hegal askarto hoiec eskira sure bianda

15.3. *Borda Kaiereko eredua*

Ligiko kaiereko 3 eta 4. orrialdeetan aurkitzen da eredua. Eredu hau ere Salaberrirenetik hurbil dago.

1
Urso luma gris gachoua hire bidajin bahoua
Baratzen baduc mousde Sari jaoin apetitu houn houra
Beguies Ikhousten bahai Phetirignalat bahoua

2
Urso gachouac umilki diossu mousde Sareri
Egundano esteiola oguenic éguin jaoun hori
Utsi desan igaraitera usatu dian bidetic.

3
Aouher duc aouher urssoua juratu diat fedia
Aourthen aourthen jin behar duc énékin phetirigalat
Nic han emanen dereiat arthos eta sis assia.

4
Arthos assia houn dussu libertatia bagunu
Orhico bago eskurtto hori gouri hobeche sikussu
Anglesa Frantsian sartsen beita Espagnalat bagouatsu

5
Ursoua ago ichilik Frantsian éstuc Anglesik
Bayounarat juiten badira Agaramountec hilen tic
Phetirignalat estuc jinen saragoilla lusetaric

6
Fida nis soure eraner fida ago éné hegaler
Goraintsi eranen deressu jiten badira Angleser
Nic éré ber gisan eranen diet Espagnoul papo gorier

7
Goraintsi eraile Angleser ni naika esarten messuler
Orai diat orai ikhousten nitsas hisala trufatsen
Beste behin enaïe es ni bortian freka erasiren

8
Jaouna, sourassa Etcherat Maouletik phetirignalat
Tchori chocho bihagarro guissen soumbaiten jatera
Urso hegal askar horic eskira soure bianda

19
URZO LUMA GRIS XURIA BALADA

1. SARRERA

Aldaera bakarreko balada gaiak baditugu geure baladategian. Horietako bat da, dudarik gabe, *Urzo luma gris xuria* bezala ezagutzen duguna da. Aldaera bakar hau *Errepikan* eta KKK liburuko 211. orrialdean dugu. Balada hau ez da beste kantu asko bezala kantutegietan hain usu ikusten. Egia esan, aipatu ditugun bi iturrietan eta Antonio Zavalaren baladategian bakarrik aurkitu dugu. Balada honen eskuizkribuak ere urri baino urriagoak dira eta elkarrengandik ez dute alde handirik izaten. Salaberriren paper solteen artean eta Lacomberen korpusean aurkitu ditugu.

2. KANTUAREN ARGUDIOA

Urzo luma gris xuria balada alegorikoa dugu. Balada honetan ez da, beste batzuetan bezala, ehiztaririk ez ehizarik aipatzen. Jaun batek airean hegaz doan uso bati jaisteko eta atseden hartzeko esaten dio. Baladan bi pertsona-izen aipatzen dira: Duprat nagusia eta jaun Bidarte. Gure balada honetan jaun Bidarte eta usoaren arteko elkarrizketa ematen da. Balada alegorikoetan elkarrizketa ematen da, XVIII. mendeko amodiozko kantuetan bezalaxe. Elkarrizketa horretan ehiztariak usoa edo uso saldoa engainatu nahi izaten du. Gure kasuan jaun Bidartek usoa hitz leunez engainatu nahi du. Hitz goxo eta kortesiazkoek huts egiten dutenean, mesprezuzko hitzak eta laidoak entzuten dira jaun Bidarteren ahotik.

Gure baladan Nafarroa behera eta Zuberoako leku-izenak aipatzen dira. Iratiko oihanean bazkatzen dira usoak. Jaun Bidartek diotso usoari Iratiko oihanak ez duela berak duen ezkur fina. Donazaharre ere aipatzen da eta Oxkax lepoa adierazteko, modu enfatiko batean egiten da: *Oxkax handiko lepoa*. Donazaharretik Zuberoara bidea hartzen denean, Lartzabaletik barrena, Oxkaxeko mendi-lepoa dago. Mendi-lepo hau igarotzeko, usoak hegoak indartsu izan behar ditu. Jaun Bidartek dioen *Aguian ez duc iraganen, biciric ochcach hegala!* desira esaldi bat da. Esaldi horrek *Ez ahal duzu pasatuko bizirik Oxkax hegala!* adierazten du, hots, *oxala ez duzu bizirik pasatuko Oxkax hegala!*

3. SALABERRIREN EREDUA

Salaberriren paper solteen artean ere aurkitzen da. Bi paperetan dago transkribatua: lehen lau ahapaldiak paper batean eta beste lauak beste batean. Balada baino lehen zehaztasun hauek ematen dira.

(Nota) La scène se passe dans la plaine d'une montagne qui mène à la penthière d'Osquiche. Uste dugu *penthière* esan beharrean *à la pantière* esan nahi duela transkribatzaileak, frantsesez pantière uso-postua edo usotegia esan nahi duelako. Frantsesezko sarrera-hitz horien ondoren euskarazko izenburua dauka: *Ihiztari eta urzo baten arteco solasa*.

1

Urzo luma, gris, churia,
Jakinzac hire bidia;
Ziloca horiec utziric, barazac hemen juaitia
Mendi pareta poillit huntan, baduc hiretzat tokia [.]

2

Nahi dut juan erditic,
Ez duket hor, nic lanjerric;
Nahi baduzu zuc igorri, etcherat zure berriric
Airian phasatugogo dut, laster Donazaharretic.

3

Ez duk ikhusten urzua,
Ochcach handico lephua,
Horgo saretan utzico duc, segur hic heure burua
Nahi baduc hor escapatu, jo zac hegalez cerua.

4

Hainitz esker, zuri jauna,
Hartcen dut zure errana
Ochcacheco makhil zuriac, Duprat nausiaren lana
Utzico ditut erortcera, eta juanen niz aintzina.

5

Urzuetan ederrena,
Jainco jaunac hiz eguina;
Mendi gorac iragan gabe, phasa zac hemen eguna,
Iratico oihanac ez dic, eniaren ezcur fina.

6

Ezcurrac ez du pareric,
Hartarican maïte dut nic;
Baïnan zure ezcurra cer den, goguan dut iraganic,
Botiguetan saltcen den draya, harman duzula emanic.

7

Urzo tchar, mehe, pherdela,
Bichtatic haïl berehala:
Indar handiric ez ukhanez, juaïten hiz aphal aphala,
Aguian ez duc iraganen, biciric ochcach hegala.

8

Orachtian nintzan eder,
Khambiatu nuzu laster;
Adios beraz, jaun abila, bi milaca zuri esker,
Urzo hegal baten jateco, bertce guisaz jokha bester.

Eredu honek ohar bat du laugarren ahapaldian Duprat nagusiaren gainean. Honelaxe dio oharrak: *Duprat est le maître chasseur à Ochquiche*. Salaberriren eredu hau Txomin Peillenek transkribatu zuen lehen aldiz *Ehiza eta zepoka* liburuan.



B

1- Urro lurra, gris, churia,
Yaukinzac hire bidia;
Lilura horiec utziric baraiau hemen
Mendi pareta poillit hunetan, baduc higuin ta aintzina

2- Nahi dut yuan erditic,
Ez dukez hor nic lanyerric;
Nahi baduru zuc iguerri, etcherat zure berriric
Siriau phasatuguco dut, laster Donaraharretic

3- Ez dukʼiKhusten urrua,
Ochoach handico lephua,
Horgo saretan utzico duc, seigur hic heure burua
Nahi baduc hor escapatu, yo zac hegaler cerua,

4. Hainitz etker, zuri yauna,
Karcen dut zure erlanga
Ochoacheco makhil zuriac, Duprat nausiaren lana
Utzico ditut erortcera, eta yuaren nir aintzina

(1) Duprat est le maître chasseur
à Ochquiche


5. Urruetan ederrena,
Jainco yaunac hiri eguina;
Mendi gorac iragan gabe, phasa zac hemen eguna,
Iratico oihanac er dic, eniaren ercurtzina.
6. Ercurrac er du pareric,
Kartaricau, maitc dut nic;
Baïnan zure ercurra cer den, goguan dut iraganic,
Botiquetan saltcen den draya, harman durutademanic.
7. Urrco tchar, mehe, pherdela,
Bichtatic haïl berehala;
Indar handiric er ukhaner, yuaiten hir aphal aphala,
Aguian er duc iraganen, biciric ochcoak hegala.
8. Urachtian nintran eder,
Khambiatu nuru laster;
Adios berar, yaun abila, bi milaca zuri esker,
Urrco hegal baten yateco, bertce guisar yoltha bester.

Urzo luma gris xuria balada. Salaberriren eredua.

4. SALABERRRIREN EREDUA AHAPALDIZ AHAPALDI

Salaberriren eredu hau baxenabartarra da. Puntu honetan ahapaldi bakoitza iruzkinduko dugu.

1

Urzo luma, gris, churia,
Jakinzac hire bidia;
Ziloca horiec utziric, barazac hemen juaitia
Mendi pareta poillit huntan, baduc hiretzat tokia [.]

Gure usoaren zehaztasunak *lüma gris xuria* dira. Beste balada batean *Urzo lüma gris gaxua* da. Ehiztariak usoari hika marka gabea egiten dio. Nahiz eta usoaren sinboloaren azpian neskatila gazte bat egon, usoari hika marka gabea egiten dio: *jakin zak*, *bara zak*, *baduk*. Ahapaldi honetan *zilokak* zer ote dira? Usoak gordetzen diren lekuak, edo harpeak ez dirudi direnik.

2

Nahi dut juan erditic,
Ez duket hor, nic lanjerric;
Nahi baduzu zuc igorri, etcherat zure berriric
Airian phasatugogo dut, laster Donazaharretic.

Usoak ehiztariari zuka hitz egiten dio. Jaunaren gonbidapenari uko egin eta airean jarraitzeko asmoa agertzen du. Donazaharretik pasatzen bada, laster hamabosten bat kilometrora izango du Oxkaxeko lepoa.

3

Ez duk ikhusten urzua,
Ochcach handico lephua,
Horgo saretan utzico duc, segur hic heure burua
Nahi baduc hor escapatu, jo zac hegalez cerua.

Usoak bere hegaldian duen mendirik gorena Oxkaxeko lepoa da. Modu indartsuan esanik *Oxkax handiko lepoa*. Usoketariek mendi gora horretan beren usategiak arbola gainetan dituzte eta sareak zabalduta usoak harrapatu ohi dituzte. Ehiztariak usoari ia zeruraino hegan egiteko diotso usoketarien sareetan atzemana ez izateko.

4

Hainitz esker, zuri jauna,
Hartcen dut zure errana
Ochcacheco makhil zuriac, Duprat nausiaren lana
Utzico ditut erortcera, eta juanen niz aintzina.

Usoak ontzat hartzen du ehiztariak ematen dio abisua. Usoaren esana ironiaz betea dago. Zer dira *Ochcacheco makhil zuriak*? Garai bateko soldadu mota bat osatzen ote zuten makhil zuriek.

5

Urzuetan ederrena,
Jainco jaunac hiz eguina;
Mendi gorac iragan gabe, phasa zac hemen eguna,
Iratico oihanac ez dic, eniaren ezcur fina.

Ehiztariak proposamen zuzena egiten dio usoari, mendi altuak iragan gabe berak emango diola jatekoa. Usoak ezkurra jan ohi du. Usoaren ezkur-lekurik oparoena Irati oihana da. Ehiztariak usoari, alegoria bidean aurrera, Iratiko oihaneko ezkurra baino finagoa emango diola diotso.

6

Ezcurrac ez du pareric,
Hartarican maïte dut nic;
Baïnan zure ezcurra cer den, goguan dut iraganic,
Botiguetan saltcen den draya, harman duzula emanic.

Usoak ezagutzen ditu ehiztariaren engainuak. Ehiztariak emango dion ezkurra harman edo eskopetan sartzen den *draya* edo bala dela diotso. Itxurak direnez, arma barruan dagoen bala ezkurrarekin konparatzen du usoak. Ehiztariaren engainua agerian gelditzen da usoaren erantzun egoki honen bidez.

7

Urzo tchar, mehe, pherdela,
Bichtatic haïl berehala:
Indar handiric ez ukhanez, juaïten hiz aphal aphala,
Aguian ez duc iraganen, biciric ochcach hegala.

Engainua agerian jartzen denean, ehiztariak usoa laidoztatu egiten du. Usoa nekaturik dago eta ez da gauza goraki hegaz egiteko. Ehiztariak madarikazio bat botatzen dio: *oxala pasatuko ez bazenu Oxkaxeko hegala*.

8

Orachtian nintzan eder,
Khambiatu nuzu laster;
Adios beraz, jaun abila, bi milaca zuri esker,
Urzo hegal baten jateco, bertce guisaz jokha bester.

Usoak ehiztariari bere jarrera aldaketa zakarra aurpegiratzen dio.

5. LACOMBEREN PAPERETAN AURKITZEN DEN EREDUA

Eredu hau da A. Zavalak bere baladategian transkribatzen duena. Honelaxe dio:

> Leenengo bertsoa, itz baten aldaketarik gabe, A. Chaho zanaren bilduman ere arkitu degu. Bilduma ori gaur egun T. Monzon zanaren alargunak gordetzen du. Ez genduan geiago kopiatzerik izan. Baiña baditeke L. Dassance jaunak andik kopiatua izatea.

Puntu honetan transkribatuko dugun eredua Chahoren kantutegitik kanpora dago. Lacombek Chahoren kantutegiarekin batera bazituen beste kantu-paper batzuk. Puntu honetan transkribatuko dugun eredua paper solte horietan dago transkribaturik. Eredu hau baxenabartarra dugu.

1

Urzo luma gris churia
jakintzak hire bidia
Ziloka horiec utziric, barazac hemen juaitia
Mendi pareta pollit huntan, baduc hiretzat tokia

2

Nahi dut juan erditic
Ez duket hor nik lanjerrik
Nahi baduzu, zuc igorri, etcherat zure berriric
Aïrian pasatucogo dut, laster Donazaharretic

3

Ez duc ikusten, urzua
Ochkach handico lepua
Horgo saretan utzico duc, segur hic heüre burua
Nahi baduc hor escapatu, jozac hegalez cerua.

4

Hanitz esker zuri jauna
Hartzen dut zure errana
Ochkacheco makil zuriac, Duprat nausiaren lana
Utzico ditut erortzerat eta juanen nuc aintzina.

5

Urzuetan ederrena
Jeinco jaunac hu eguina
Mendi gorac iragan gabe, pasazac hemen eguna
Iratico oïhanac ez dic emanen ezkur una.

6

Ezkurrac ez du pareric
Hartarican maïte dut nic
Baïnan zure ezkurra cer den, goguan dut iraganic
Botigetan saltzen den draga, harman duzula emanic.

7

Urzo tchar, mehe, perdela
Bichtatic haïl berehala
Indar handiric ez ukanez, juaïten hiz aphal aphala
Aguian ez duc pasatuco, biciric Ochkach hegala

8

Oraïchtian nintzan eder
Cambiatu nuzu laster
Adios beraz, jaun Bidarte, bi milaka zuri esker
Nahi baduzu, gaür afaldu, ichilkiago joka bester.





Urzo luma gris xuria balada. Lacomberen eredua.

Bi eredu hauek elkarrengandik oso hurbil daude. Lacomberen ereduko *pasatucogo dut* gaizki dago. Oker transkribatua dago *pasatu gogo dut* dator Salaberriren ereduan eta halaxe izan behar du. Bigarren eredu honetan lehenean aipatzen ez den jaun Bidarte aipatzen da.

6. NAFARROA BEHEREKO EREDU BAT

Beste kaier batzuetan ere aurkitu dugu balada hau. Oso gutxi aldatzen da Lacomberen kaieretik. Lacomberen eredua apurren bat desitxuraturik aurkitzen da beste kaier batzuetan. Hona hemen adibide bat:

1

Urzo luma gris churia
jakintzak hire bidea
Ziloka horiec utziric, barazac hemen juaitia
Mendi pareta pollit huntan, baduc hiretzat tokia

2

Nahi dut juan erditik,
Ez duket hor, nik lanjerrik,
Nahi baduzu, zuk igorri, etcherat zure berririk
Airian pasatuco dut, laster Donazaharretik.

3

Ez dut ikhusten, urzua,
Ochkach handico lephua;
Hango saretan utzico duc, segur hic heure burua
Nahi baduk hor eskapatu, jozac hegalez zerua.

4

Hanitz esker zuri, jauna,
Hartzen dut zure errana.
Ochkacheco makil zuriak, Duprat nausiaren lana,
Utziko ditut erortzerat, eta juanen hiz aintzina.

5

Urzuetan ederrena,
Jinko jaunac hak egina,
Mendi gorak igaran gabe, pasazak hemen eguna,
Iratiko oihanak ez dic emanen ezkur una.

6

Ezkurrac ez du parerik
Hartarican maite duk nik.
Bainan zure ezkurra zer den, goguan dut iraganik,
Botigetan saltzen den draia, harman duzula emanik

7

Urzo tchar, mehe, perdela,
Bistatik hail berehala.
Indar handirik ez ukhanez, juaiten hiz aphal aphala:
Agian ez duk pasatuko, bizirik ochkach hegala.

8

Oraichtian nintzan eder,
Kambiatu nuzu laster.
Adios beraz, jaun Bidarte, bi milaka zuri esker;
Nahi baduzu, gaür aphaldu, habilkiago joka bester.



Urzoa.

Urzo luma gris churia
Jakintzak hire bidea.
Zilotko horiek utzirik barazak hemen juaitia,
Mendi pareta pollit huntan, baduk hiretzat lekia.

Nahi dut juan erditik,
Ez dukez hor, nik lanjerik,
Nahi baduzu zuk igorri etcherat zure berririk
Eta Airian pasatuko dut laster Donazaharetik.

Ez dut ikhusten, urzua,
Ochkach handiko lephua;
Hango saretan utziko duk, segur hik heure burua,
Nahi baduk hor eskapatu, jozak hegalez zerua.

Hanitz esker zuri, jauna,
Hartzen dutq zure errana.
Ochkachetke makil zuriak, Duprat nausiaren lana,
Utziko ditut erorterat, eta juanen hiz aintzina.

Urruetan ederrena,
Jinko jaunak hak egina,
Mendi gorak igaran gabe pasazak hemen eguna,
Iratiko olhanak ez dik ermanen ezkur huna.

Ezkurrak ez du parerik,
Hartarikan maite duk nik.
Bainan zure ezkurra zer den goguan dut iraganik,
Botigetan saltzen den dralia harman duzula emanik

Urzo tchar mehe perdela,
Bistatik hail berehala,
Indar handirik ez ukhanez juaiten hiz aphal aphala:
Agian ez tuk pasatuko bizirik ochkach hegala.

Oraichtian nintzun eder,
Hambiatu nuzu laster.
Aldios beraz jaun Bidarte, bi milaka zuri esker;
Nahi baduzu gaur aphaldu, habilkiago jotka bester.

Urzo luma gris xuria. Hirugarren eredua.

Zenbait adizki desitxuraturik daude. Seigarren ahapaldian, esaterako, *maite duk nik* dator maite dut nik etorri beharrean.

Bigarren ahapaldian Lacomberen pasatu gogo dut eredu honetan pasatuko dut da. Azken ahapaldian, esaterako*, ichilkiago* esan beharrean *habilkiago* esaten da.

20
URZO BAT JIN IZAN DA BALADA

1. SARRERA

Atal honetara usoa protagonista duen kantu baten aldaerak ekarriko ditugu. Kantu alegoriko bat dugu, baladatik baino gehiago amodiozko kantuetatik hurbilago. Kantu honetan ere usoari bere hegaldia eten eta atseden hartzeko eskatzen zaio. Tankera honetako kantuetan usoaren itxura bere lumajea oinarritzat harturik egiten da. Gure kantuan *urzo luma gris eta zanko horiak* ditu. *Musde Sarri* baladako *urzo luma gris gaixoa* gogorarazten du. Aurkitu izan ditugun *Urzo bat jin izan da* kantuko aldaera gehienen eskuizkribuen transkripzioarekin batera, iruzkin bat ere eskainiko diegu.

2. CHARLES BORDESEN EREDUA

Charles Bordesek *La tradition au Pays Basque* liburuko "La musique populaire des basques" lanean hiru ahapaldiko kantu bat dakar. Kantu hori behin bakarrik entzun zuen eta kantu bitxitzat zeukan. Honelaxe dio berak: *Voici une chanson à mesure mobile: je ne l'ai entendue qu'une seule fois; comme toute chose rare, elle est restée dans peu de mémoires*. Hona kantua:

Urzo bat jin izan da Katalouña aldetik
Pharagolan phaosatu da bere linjarekin,
bere luma gris eta zankho holliekin.

Urzoa nourat houa, hegalez aidian,
aita ama zaharrak eitzirik habian?
Lumasutu nuk eta acholik eztiat.

Janak triste niz eta enaite kontsola;
bi maite ukhen, eta otsoek jan bata:
Ezpenian gogatzen holako malurra.

Lehen eredu honetako *Pharagolan* bildu arren, Charles Bordesek ongi itzuli zuen frantsesera, *Elle s'est arrêtée à Phagolle* itzuli baitzuen.

3. CHAHOREN EREDUA

Augustin Chahoren ereduan 110 kanta ditugu. Eskuizkribuaren digitalizazio-zenbakia 189/ 240 dugu. Badirudi bi kantu desberdin nahasian daudela. Lehen hiru ahapaldiak kantu bati dagozkio eta gainerako hirurak beste bati.

1

Urzo papo chouri bat Catalougnaldetic
Bere luma gris eijer zanko gorriequi
Phagolan phaussatu da bere linjarequi
Bere linjarequi tralaralara trala

2

Urzo papo chouria nourat jouaïnten his
Aita eta ama zaharrac caloyan utciric
Lumaçuturic beiniz estiat acholic trala la tralara lala
Estiat acholic

3

Ussoua Barbandone eta Lequione
Çuc erradaçut nounden hasparne
Nic hara jouaiteco dessegna banuque tra lara lara trala
dessegna banuque



Urzo bat jin izan da balada. Chahoren eredua.

4. CHAHOREN EREDUA AHAPALDIZ AHAPALDI

Chahoren ereduaren hiru ahapaldiak iruzkinduko ditugu puntu honetan.

1

Urzo papo chouri bat Catalougnaldetic
Bere luma gris eijer zanko gorriequi
Phagolan phaussatu da bere linjarequi
Bere linjarequi tralaralara trala

Lehen ahapaldi honetan, usoa nondik etorri den eta non pausatu edo gelditu den adierazten da. Kataluniatik etorri eta Phagolan pausatu bide da. Phagola Zuberoako Urdiñarbeko mendi bat dugu. Beste balada famatu batean ere *urzo lüma gris gaixua* bezala izendatua zegoen usoa. Oraingoan, *lüma gris* horien ondoren, *eijer* eta *zanko gorri* adjektiboak izango ditu. Ahapaldi hau sarrera-ahapaldi bat dugu. Ohartzekoa da usoak daraman *linja* delakoa frantsesez *linge* dela, hots, ezkontzeko doterako arropa xuria. Lehen ahapaldi hau Charles Bordesek ere bildu zuen. Charles Bordesek *Pharagolan phaosatu da* bildu zuen. Gure ereduan hobeki jasoa dago: *Phagolan*.

2

Urzo papo chouria nourat jouaïnten his
Aita eta ama zaharrac caloyan utciric
Lumaçuturic beiniz estiat acholic trala la tralara lala
Estiat acholic

Ahapaldi hau Charles Bordesek ere bildu zuen aldaera zenbait zituela. Ahapaldi honetan elkarrizketa bat dugu. Usoa gazteegia da itxurak direnez. Oraindik aita-amen hegalpean egon beharra du. Usoaren erantzuna da nagustu dela, luma-orraztu dela. *Lumazütü* delakoak *lumazü bihurtzea* esan nahi du. Usakumea behar dituen luma-orratzen jabe egiten da.

3

Ussoua Barbandone eta Lequione
Çuc erradaçut nounden hasparne
Nic hara jouaiteco dessegna banuque tra lara lara trala
dessegna banuque
Dessegna banuque

Hirugarren ahapaldi hau ez da besteetan aurkitzen. Euskal Herriko Hazparne herria bezala, Barbandone eta Lekione Biarnoko herri izenak ote dira? Edo usoak galdetzen baldin badu, pertsona-izenak ote dira Barbandone eta Lequione?

5. CHAHOREN EREDUA GAURKO ORTOGRAFIAN

Puntu honetan lehen transkripzioa abiaburu harturik, bigarren transkripzioa egingo dugu.

1

Ürzo papoxuri bat Kataluña aldetik,
bere lüma gris, eijer, zanko gorrieki,
Phagolan phausatü da bere linjareki.
Bere linjareki tralaralara trala.

2
–Ürzo papoxuria, nurat juaiten hiz
aita eta ama kaloian ützirik?
–Lümazütürik beiniz ez diat axolik
Ez diat axolik.

3
Usua Barbandone eta Lekione,
zük erradazüt nun den Hazparne.
Nik hara juaiteko deseña banüke tra lara lara trala
deseña banüke,
deseña banüke.

6. LIGIKO EREDUA

Ligiko eredua Louis Dassanceren paperen artean aurkitu dugu. Paper bakarrean idatzia dagoen ereduak *Urzo bat jin izan da* du izenburua. Paper honetan beste inolako daturik ez badator ere, badakigu eredua Ligiko Pierre Etchecoparrena dela. Berri hau dakigu Dassancek egiten duen paper honen transkripzioan *Pierre Etchecopar (Licq)* dakarrelako. Eredu honetan, ahapaldi bakoitzaren azpian *tralala* errepika dator.

1
Urzo bat jin izan da Catalouñ aldetik
Berre luma gris eta sankho goriekin
Arbolan phausatu izan da berre laungarrekin

2
Urzoua nourat houa Hegalez airian
Jakin gabé phausia noun hartu behar dian
Hire phausia har esac oi éné étchian

3
Phausiaren hartzeko dessegna badit nik
Maitiaren etcherat gaur heltu behar dit
Haren aldian esbanitz nik esdut phausurik

4
Hain hurun jouaiteko dago berranturik
Hi harrat heltu gabé ulhun serraturik.
Hua? bihar goizian ountza phausaturik

5
Esparper bat zirela nik ezdut dudarrik
Ene troumpatu nahiz dessegna harturik
Ene hegal askarekin banoua ihesi
Trala la


Urzo bat jin izan da

1

Urzo bat jin izan da Catalaiñ aldetik
Berre lumaz gris eta sankho gorriekin
Arbolan phausatu izan da berre laungarrekin
tralala

2

Urzaua naurat haua Hegaltz airian
Jakin gabé phausia naun hartu behar dian
Hire phausia har esac ai iné itsian

3 trala la

Phausiaren hartzeko desegna badit nik
Haitiaren etcherat gaur heltu behar dit
Haren aldian eslaniz nik erdut phausarik
trala la

4

Haim limum gorriteko sago berranturik
Hi harrat heltu gabé ilhum serraturik
Nua? Bihar gaizian auntza phausaturik
trala la

5

Espanber bat zirela nik erdut dudarik
Zure traumpatu naiz desegña harturik
Zuré legal askarekin basaua ihesi K?
trala la

Urzo bat jin izan da balada. Ligiko eredua.

Lehen ahapaldia apurren bat desitxuratua dago. Lehen ahapaldian, *bere linjarekin* etorri beharrean, *bere laungarrekin* dator. L. Dassancek hitz honen transkripzioa egiten duenean, *laungarrekin* hitzari galde-marka bat jarri zion. Charles Bordes eta Chahoren ereduetan, usoa, *Pharagolan* edo *Phagolan* pausatzen da, gure ereduan *arbolan*. Lehen ahapaldia bat badator ere gainerako bi ereduekin, gainerakoak desberdinak dira.

7. LOUIS DASSANCEREN EREDUA

Louis Dassancek Ligiko Pier Etchecoparren eredua zeukan. Orrialde batean Dassanceren transkripzio zuzena aurkitzen dugu. Guk puntu honetan transkribatu dugun eredua, Dassancek berak bere eskuz transkribatutako eredua, ortografia gaurkotuan dago. Eredu hau Pier Etchecoparrena ote da apurren bat aldaturik edo beste leku batekoa? Aldaketak askotxo dira batetik bestera. Etchecoparren ereduan *zankho gorriekin* dena, Dassancerenean *zankho horiekin* da. Etchecoparren ereduan *berre laungarrekin* dena, Dassancerenean *bere linjareki* da. Aldaketa zenbait letra etzanez eman ditugu. Baliteke Dassanceren eredua eredu txukundua izatea. Pier Etchecoparren testua hartu eta aldaketa nabarmenak egiten ditu zenbait ahapalditan. Laugarren ahapaldia da, ahapaldi guztietatik, txukundu eta aldatuena.

1

Ürzo bat jin izan da Kataluña aldeti
bere lüma gris eta *xankho horieki*:
arbolan phausatü izan da *bere linjareki*.
tralalala..... bere linjareki.

2

Ürzua nuat hua hegalez airian?
Jakin gabé phausia nun hartü behar dian?
Hire phausia har ezak oi! gure etxian.
tralalala..... oi! gure etxian.

3

Phausiaren hartzeko deseiña *hartü* dit,
Maitiaren etcherat gaur heltü behar dit
Haren aldian ezpaniz phausurik nik ez dit.
tralalala..... phausurik nik eztit.

4

Haiñ hürrün juraiteko dago berantürik
aspaldian beitükek ülhün zerratürik,
Bihar goizian *juranen hiz* untsa phausatürik.
talalala..... untsa phausatürik.

5

Esparper bat zirela *ez dizüt* düdarik,
Ene trunpatü nahiz deseiña hartürik,
Hegal hazkarrak *dütüt*, banouak ihesi
tralalala....., banouak ihesi.


Urzo bat jin izan da ...

Urzo bat jin izan da Katalunia aldeti
Bere tiuma gris eta xanko horieki;
arbolan phausatü izan da bere tinjarieki -
tralalala ..... bere finjarieki.

— Urzua nuat hua hegalez aireian?
Jakin gabe phausia hun-hartü behar dian?
Hire phausia har ezak oi! gure etxean ...
tralalala ..... oi! gure etxean.

— Phausiaren hartzeko deseiña hartü dit,
maitiaren itzeràt gaur hettü behar dit ...
Haren aldian espania phausürik nik ez tit.
tralala ..... phausürik nik ez tit.

— Hain hürrün juraiteko dago berantürik,
aspaldian beitükek ülhün zerratürik,
Bihar goizian juranen hiz untsa phausatürik.
tralalala ..... untsa phausatürik.

— Esparber bat zirela ez dizüt düdarik,
Ene trampatü nahiz deseiña hartürik,
Hegal hazkarrak dütüt, banuak ihesi.
tralalala ....., banuak ihesi.

Urzo bat jin izan da balada. Dassanceren eredua.

8. MICHEL HASTOY-REN EREDUA

Michel Hastoyren eredua ekarriko dugu puntu honetara. Kantu hau Fernando Sagarzazu *Bordarik* "Usoa maite-kantetan" hitzaldian iruzkindu zuen (Sagarzazu: 1982). Kantaren hasiera aurreko ereduen antzekoa bada ere, desberdintasun handiak ditu. Ez du beste ereduekin antzekotasun handirik, baina lehen hiru ereduetako espiritua biltzen du. Kanta honetan ere, usoak bidaia luze bat egin ondoren, atsedena hartzeko esaten dio norbaitek. Bigarren eta hirugarren ahapaldietan, elkarrizketa bat dago uso eta konbidatzailearen artean.

1

Urzo chourri bat jin izan zaikhu
Arhantsuzeko bortun gañan
Erran geneion khortereski
Gaour bara ladin goureki

2

Urzo chouria, urzo chouria
Erran izadan othoi egia
Nouat houndouen bidajez
Lunjatu gabe passajer.

3

Ene herritik partitu nintzan
Españaleko desiñian
Heldu niz Arhantsutzera
Ene plazeren galtzera

4

Artzain gaztia bortu goretan
Oyhuz ari da doloretan
Antzu bat diala erosi
Bera dereyela ebatsi

5

Ene antzu, antzu karioua
Biotzez ountsa maitatua
Niz etzitut ez kitaturen
Lehen dit bizia galduren.



Urzo bat jin izan da balada. Michel Hastoyren eredua.

21
URZUA ETA HARICHABALET BALADA

1. SARRERA

Orain arteko balada-bildumetan aurkitu ez dugun balada gai berri bat eskaini nahi dugu atal honetan. Balada honen izenburua *Urzua eta Harichabalet* da. Balada hau *Urzo lüma gris gaxua* eta *Urzo xuri bat jin izan zaikü* kantuen tankerakoa da. Balada honek usoa eta gonbidatzaile bat ditu protagonista. Balada hauetan metafora-bide bat baino gehiago erabili ohi dira. Metafora hauek guztiak alegoria bat osatu ohi dute. Gizon prestu itxurako batek usoari jaisteko gonbita egin ohi dio. Usoa nekatua dago mendi gorak zeharkatu behar izan dituelako. Nekatua eta goseturik dagoen usoari gizon prestu itxurakoak zia edo ezkurra jateko gomita egin ohi dio. *Urzua eta Harichabalet* baladan uso aitzindariak gainerako usoei jaisteko agindua ematen dienean, su handi batek bi uso erretzen ditu.

Usodun baladek aparteko eite bat dute. Alegoria garbi batean mugitzen dira. Gizonak ehiztariaren papera hartzen du. Ehiztaria edo beharbada engainatzailea usoa sareetara engainuz ekarri nahi duelako. Pentsatzekoa da era honetako kantuak balada eta amodiozko kantuen artean daudela.

Atal honetan beste ataletan bezala jokatuko dugu. Kantuaren iturriko lehen transkripzio fidela egingo dugu eta gero gaurko ortografiara ekarriko dugu. Ez dago esan beharrik balada honek edertasun balio handia duela guretzat. Gure kantutegietan ez dugu aurkitu balada honen testurik. Erabili ditugun argitaratutako kantutegietan ez dugu balada hau behin ere aurkitu. Erabili ditugun Zuberoako kaier guztietan bi kaieretan bakarrik aurkitu dugu. Kaier horietako baten irudia bakarrik eskainiko dugu atal honetan, Michel Astoiren kaiera ikusteko aukerarik ez baitugu.

2. NOR DA BALADAKO HARICHABALET?

Urzua eta Harichabalet eta *Urzo lüma gris gaxua* baladek bat egiten dute estiloan eta alderdi historikoan. Eredu bietan pertsonaia historiko bat dugu. Batean, *Mus de Sarri,* eta, bestean, *Harichabalet* (bi eratara idatzirik *Harichabalet* eta *Haritchabalet*). Mus de Sarriren gainean Jean de Jaurgainek azterketa interesgarri bat egin zuen (Jaurgain: 1899), Harichabaleten gainean ez dugu azterketa historikorik. Kantu hau aipatzen duen autorerik ere ez dugu.

Harichabalet hau ez ote da Engrace Palentoren osaba? Pierre Topet Etxahun 1808an ezkondu zen, 22 urte bete zituen egunean. Marie Rospide izeneko etxeko mirabearekin ume bat izan zuen lehenago. Etxahun maite ez zuen emakume batekin ezkondu zen: Engrace Palentorekin. Emakume honen osaba Harichabalet apeza zen eta, itxurak direnez, garai hartan Zuberoan indar handia zuen. Gure baladako bi

ereduak zuberotarrak dira eta Zuberoako jaun apez bat dute protagonista. *Musde Sarri* baladan ere apez bat dute protagonista. Mus de Sarriren hil-lauza Barkoxeko elizaren sarreran omen dago. Kasu bietan apez zuberotar bi neskazale dira. Hegan doazen usoei kortea egiten diete eta etxean bazkatzeko erregutzen diete. Engrace Palentoren osaba Harichabaleten gainean Jean Baptiste Constaninek lan bat idatzi zuen. Honelaxe dio Luis Villasantek bere *Historia de la literatura vasca* lanean (Villasante: 1961):

> 342 (pasartea). Otro suletino digno de mención y fallecido el mismo año de 1957 fue el profesor *Jean Bte. Constantin*, escritor asiduo de *Eskualduna* y otras publicaciones vascas. Escribió *Harichabaleten bizia*. Harichabalet fue un célebre cura en torno al cual hay muchas historias y leyendas populares, que Constantin ha recogido. Ha escrito mucho en el habla local de Santa Engracia, variedad peculiar dentro del dialecto suletino. Su valiosa producción se halla dispersa en las páginas de *Eskualduna* y otras revistas.

Harichabalet jaunari buruzko istorio eta elezaharretan ez ote da *Urzua eta Harichabalet* balada gai hau ere sartzen?

3. *URZUA ETA HARICHABALET* BALADAREN A EREDUA

Balada gai honen lehen eredua Martin Ürrütigoitiren bigarren kaierean aurkitu dugu. Eskiulako errient edo maisu izan zen Martin Ürrütigoiti (berak idazten zuen bezala *Urrutigoïty*). Errient honek idatzi zituen euskal kantuzko zazpi kaier ttipien artean gurea bigarren kaiereko hamabosgarrena dugu. Kantua plama bakarrean dago idatzia eta, gorago esan dugun bezala, *Urzua eta Harichalet* da kantuaren izenburua. Gero, maisuaren semearen zuzenketaren arabera, *Harichabalet* hitzaren gaintxoan *ba* jartzen du *Harichabalet* irakur dadin. Kantuaren ondoan (*airea: Hegobe*) dakar. Zehaztasun honekin argi adierazten da Pierre Topet Etxahunen "Musde Hegobe" bezala kantatzekoa dela. Puntu honetan balada Ürrütigoitiren kaierean datorren bezala transkribatuko dugu.

1
Ourzo hegal ejerra
Untsa goratic bahoua
Menguatzen hasizala badiat ustekeria
Eraitsadi bazcatzera ene oihan gaztiala

2
Menguatzen hasi nuzu
Eztit ez nahi ukhatu
Norteco oihanetaric goiz huntan phartitu nuzu
Nahi baniz trankil bazcaltu behar dit Orhira heldu

3
Ourzo luma azcarra
Hain hurruntic horra iza
Eguerdi igaranic eta bi aldiz barur gachoa
Aigu ene oihanila bizpalaou ziren jatera.

4
Zure khumitu charmanta
Orori zaicu agrada
Bena nahi nuke jakin nula den zure izena
Eraits nadin bazcatzera ene lagun ororekila

5
Ni deitzen nuc Harichabalet
Ene izena clar duc net
Adeskide francó orotan gizon galant eta onest
Baratzarri hun egiteco orai zier heben nuc prest.

6
O ene lagun maitiac
Detzagun eman hegalac
Harichabalet Atharratze pheretchá haren khumitia
Gizon haren fama hunac betheic beitira bazterrac.

7
Ourzo inozent erho
Laster zaizie dolutuco
Errabiaz orai zutiet tiroz erdic chehatuco
Atharratzeco jauner gaur mahañan zerbutchatuco

8
Jeiki citeie lasterrac
Phizten dirade su lamac
Gure lagunetaric biga hilic baratu beitira
Gizon galant famatia urçuen burreu handia.

9

Abis bat ororentaco
Urzuac deiku emaneco
Zumbatez ere eztikigo gizona beita mintzatuco
Hambat gutigo gitzaio heben harat behatuco


15. Urzua eta Harichalet. (aire: Bagabe)

— 1 —

Ourzo hegal ejena
Untsa goratic bahoua
Menguatzen hasizala badiat ustekeria
Eraitsadi bazcatzera ene oihan gaztiala

— 2 —

Menguatzen hasi nuzu
Ezti ez nahi ukhatu
Nortzeo oihanetarik ejoiz huntan plantatu nuzu
Nahi banin hanitx bazcaltu beha dit Harichalet

— 3 —

Ourzo luzia arcana
Hain humanic hora ian
Eguerri igaranic eta hi beldur banuc gaichoa
Aigu ene olhanilo bizpalaur Ireun jalera

— 4 —

Ene khuntu charmanta
Troi Zaicu agrada
Beita nahi nuke jakin nula derizure izena
Eraitsadi bazcatzera ene bagatoretkila

— 5 —

Ni beitzen nuc Harichabalet
Ene izena clordue net
Adeitide francé orotan gizon galant eta onest
Baratzari hun egidco orai Zier helben nue prest

— 6 —

Oene lagun maitiac
Detzagun eman hegalac
Harichabalet Athamatze jaherretzhá haren khuntia
Gizon hunen fama hunnac bethetic beitira bazternac

— 7 —

— 8 —

Jaiki gitzic castanac
Iphurten dirade surlarnac
Gure bagnoterác biga hilic banatu beatrix
Gizon galant famatia urrhen hunen handia

— 9 —

Urzua eta Harichabalet balada. Ürrütigoitiren kaiera.

4. AHAPALDIZ AHAPALDIKO IRUZKINA

Puntu honetan Martin Ürrütigoitiren eredua iruzkinduko dugu ahapaldiz ahapaldi.

1

Ourzo hegal ejerra
Untsa goratic bahoua
Menguatzen hasizala badiat ustekeria
Eraitsadi bazcatzera ene oihan gaztiala

Usoa duten kantuek estetika-bide finko batzuk jarraitzen dituzte. Lehen ahapaldian usoaren ezaugarriak eman ohi dira. *Urzo lüma gris gaxoa*, edo *Urzo lüma gris xuria*. Gure lehen ahapaldian ere estetika-bide bera jarraitzen da: *uso hegal ejerra*. Usoek goratik egiten dute hegal eta halako batean deskantsatzera eta ezkurrez bazkatzera oihanera jaitsi behar izaten dute. Lehen ahapaldi honetan usoari jaisteko gonbita egiten dio Harichabaletek.

2

Menguatzen hasi nuzu
Eztit ez nahi ukhatu
Norteco oihanetaric goiz huntan phartitu nuzu
Nahi baniz trankil bazcaltu behar dit Orhira heldu

Ahapaldi honetan usoak zintzo asko erantzun dio Harichabalet jaunari. *Orhi mendi gora* izan ohi da era honetako kantuetako erreferentzia nagusia. *Urzo lüma gris gaxoa* balada gaian eta beste zenbait eredutan *Orhi mendi gora* agertzen da.

3

Ourzo luma azcarra
Hain hurruntic horra hiza
Eguerdi igaranic eta bi aldiz barur gachoa
Aigu ene oihanila bizpalaou ziren jatera.

Lehen ahapaldian *Urzo hegal ejerra* aurkitzen, oraingo honetan *urzo lüma azkarra* dugu. *Azkarra* adjektiboak batez ere, gure ahapaldi honetan, indartsua esan nahi du. Harichabalet jaunak bizpalau zi jatera gomitatzen du. *Ezkur* eta *zi* sinonimoak dira, Zuberoako euskaran.

4

Zure khumitu charmanta
Orori zaicu agrada
Bena nahi nuke jakin nula den zure izena
Eraits nadin bazcatzera ene lagun ororekila

Khümitü gonbita dugu. *Urzo lüma ejerrak* gonbita denentzat hartzen du eta zeru goretatik jaisteko gonbidatzaileari nor den galdetzen dio.

5

Ni deitzen nuc Harichabalet
Ene izena clar duc net
Adeskide francó orotan gizon galant eta onest
Baratzarri hun egiteco orai zier heben nuc prest

Harichabalet jaunak bere burua aurkezten du modu itxurazkoan. Bere buruaren alderdi positiboak eta gezurretakoak esan ohi ditu: *adiskide asko dituen gizon galant eta onesta.*

6

O ene lagun maitiac
Detzagun eman hegalac
Harichabalet Atharratze pheretchá haren khumitia
Gizon haren fama hunac betheic beitira bazterrac.

Kantu honetako uso protagonista, *urzo hegal ejerra*, uso gidaria da, itxurak direnez. Uso honek agindurik jaisten dira gainerako usoak.

7

Ourzo inozent erho
Laster zaizie dolutuco
Errabiaz orai zutiet tiroz erdic chehatuco
Atharratzeco jauner gaur mahañan zerbutchatuco

Engainuaren ondoren egiazko ehiztari izaera erakusten da. Behin usoak hurbil, eskuera, daudenean, ehiztariak usoak hilko ditu Atharratzeko gainerako jaunei mahai gainean zerbitzatzeko. Alegoria garbia ikusten dugu ahapaldi honetan ere.

8

Jeiki citeie lasterrac
Phizten dirade su lamac
Gure lagunetaric biga hilic baratu beitira
Gizon galant famatia urçuen burreu handia.

Engainuaren ondoren ehiztariek su handi batekin, eta eskopeta kargaturik itxaroten die usoei. Sugarrengatik bi uso hilda gelditzen dira. Harichabalet gizon galant famatua usoen borrero handi gertatu da.

9

Abis bat ororentaco
Urzuac deiku emaneco
Zumbatez ere eztikigo gizona beita mintzatuco
Hambat gutigo gitzaio heben harat behatuco

Azken ahapaldia abis edo kontseilu on batez bukatzea amodiozko kantuetako ezaugarri bat da. Azken ahapaldia epitimio bat izan ohi da. Animalia-alegietan bezalaxe, azkenean irakaspen bat eman nahi izaten da. Gure kasuan gizona zenbat eta eztiago mintzatu, hainbat gutxiago sinetsi behar zaio. Badira, jakina, euskarazko baliabide politak. *Heben harat* delakoak "hemendik aurrera" esan nahi du. "Zenbat eta gizona eztiago mintzatu, hemendik aurrera hainbat eta gutxiago egingo diogu kasu" da azken esaldiaren adiera.

5. *URZUA ETA HARICHABALET* GAURKO ORTOGRAFIAN

Urzua eta Harichabalet kantua gaurko ortografia modernora aldatuko dugu puntu honetan.

1

–Urzo hegal ejerra,
untsa goratik bahua,
mengüatzen hasi [h]izala badiat ustekeria,
eraits [h]adi bazkatzera ene oihan gaztiala.

2

–Mengüatzen hasi nüzü
eztit ez nahi ükhatü.
Norteco oihanetarik goiz huntan phartitu nüzü,
nahi ba[i]niz trankil bazkaltü behar dit Orhira heldü.

3

–Urzo lüma azkarra,
hain hürrüntik horra hiza?
Egüerdi igaranik eta bi aldiz barür, gaxoa.
Aigü ene oihanila bizpalau ziren jatera.

4

–Zure khümitü xarmanta
orori zaikü agrada,
bena nahi nüke jakin nula den zure izena
eraits nadin bazkatzera ene lagün ororekila.

5

–Ni deitzen nük Harichabalet,
ene izena klar dük net.
Adeskide franko orotan gizon galant eta onest
baratzarri hun egiteko orai zier heben nük prest.

6

–O ene lagün maitiak,
detzagun eman hegalak.
Harichabalet Atharratze pheretxa haren khümitia
gizon haren fama hunak betheik beitira bazterrak.

7

Urzo inozent erho,
laster zaizie dolütüko.
Errabiaz orai zütiet tiroz erdik xehatüko
Atharratzeko jauner gaur mahañan zerbütxatüko.

8

–Jeiki ziteie lasterrak
phizten dirade sü lamak.
Gure lagunetarik biga hilik baratu beitira
gizon galant famatia urzuen burreu handia.

9

Abis bat ororentako
Urzuak deikü emaneko:
Zunbatez ere eztikigo gizona beita mintzatüko
Hanbat gutigo gitzaio heben harat behatuko.

6. *URZUA ETA HARICHABALET* B EREDUA

Bigarren eredu hau Santa Graziko Michel Sagardoiren kaierean, 34. orrialdean, aurkitu dugu. Eredu honek kantuaren argudio osoa biltzen ez badu ere, oso ederra da. Aldaera honek, bestalde berritasun nabariak dakartza.

1
Urzo koulier zouria ountza goratik bahoua
Ingoiti ni enganatu hiala banikek oustekeria
baskatzera ene oihan gaztiala

2
Bai bai enganatu nuzu eztit behar iguratu
Olbeaniako dezertian goysian phartitia nuzu
Nahia tranquilki azkaltu orhia behar dit heltu

3
Oy urzo bihos gogora haiñ huruntic jin hisala
Eguerdi izanik tuk eta barour agen gabia
Aigu biziaren jatera aiza heltzeko orhia

4
Amodioua duzu eni mintzo basiradé klarki
Bena nahi nikesu jakin zu noula deitzen siren
Tranquilki phauza ahal nadin lagun ororekin

5
Ni deitzen Haritchabalet ene izena klardanet
Lagun franko badit eta oro ditit hanitch ounest
Sier zo niz bethi laket izan sakistadé dichkret

7. *URZUA ETA HRICHABALET* B EREDUA, AHAPALDIZ AHAPALDI

Bigarren eredu hau Santa Graziko Michel Sagardoiren kaierean, 34 orrialdean, aurkitu dugu. Eredu honek kantuaren argudio osoa biltzen ez badu ere, oso ederra da. Aldaera honek, bestalde berritasun nabariak dakartza.

1
Urzo koulier zouria ountza goratik bahoua
Ingoiti ni enganatu hiala banikek oustekeria
baskatzera ene oihan gaztiala

Lehen ahapaldian uso nagusiari egiten zaio deia. B ereduko lehen ahapaldia eta hau oso antzekoak dira. Aurreko ereduan *hegal ejerra* zen aposizioa, oraingoan *kulier zuria*, biak edertasunaren seinale.

2
Bai bai enganatu nuzu eztit behar iguratu
Olbeaniako dezertian goysian phartitia nuzu
Nahia tranquilki azkaltu orhia behar dit heltu

Lehen ereduaren antzekoa bada ere, berritasun nabarmenak ditu. Baliteke bazkatü aditza apurren bat egokiturik *azkaltü* aditz forman bihurtzea. Hemen ere *Orhi[r]a* heldu nahi du uso saldoak.

3

Oy urzo bihos gogora haiñ huruntic jin hisala
Eguerdi izanik tuk eta barour agen gabia
Aigu biziaren jatera aiza heltzeko orhia

Biziaren jatera nola ulertu? Argi dago *ziaren jatera* behar duela. Irakurtzeko beste modu bat ez ote da *bi ziaren jatera*? *aiza heltzeko orhia*. Esaldi hau honelaxe uler daiteke: *Bi ziaren jatera aisa heltzeko Orhi[r]a*.

4

Amodioua duzu eni mintzo basiradé klarki
Bena nahi nikesu jakin zu noula deitzen siren
Tranquilki phauza ahal nadin lagun ororekin

Ahapaldi hau A ereduko laugarrenaren antzekoa da. Komitatiboa, unitiboa edo soziatiboa hiru eratara izan liteke Zuberoako euskaran: *lagün ororeki*, *lagün ororekin* eta *lagün ororekila*.

5

Ni deitzen Haritchabalet ene izena klardanet
Lagun franko badit eta oro ditit hanitch ounest
Sier zo niz bethi laket izan sakistadé dichkret

Ahapaldi hau A ereduko bosgarren ahapaldiaren antzekoa da.

8. B EREDUA GAURKO ORTOGRAFIAN

1

Urzo kulier zuria untsa goratik bahua,
ingoiti ni enganatu hizala banikek ustekeria
bazkatzera ene oihan gaztiala.

2

–Bai, bai, enganatu nüzü eztit behar igüratü
Olbeaniako dezertian goizian phartitia nüzü
Nahia trankilki azkaltü Orhi[r]a behar dit heltü.

3

–Oi urzo bihotz gogor[r]a, haiñ hür[r]üntik jin hizala,
egüerdi izanik tük eta barur egin gabia,
Aigü bi ziaren jatera aisa heltzeko Orhi[r]a.

4

–Amodioua düzü eni mintzo bazirade klarki,
bena nahi nikezü jakin zü nula deitzen ziren
trankilki phausa ahal nadin lagün ororekin.

5

–Ni deitzen Haritxabalet, ene izena klar da net.
Lagün franko badit eta oro ditit hanitx unest
zier so niz bethi laket izan zakiztade dixkret.

IZEN ONA

22
FRANTZIAKO ANDEREA BALADA

1. SARRERA

Euskal balada munduan ditugun aberastasuntxoak urriak dira gaztelaniaren eremuan ditugunekin alderatuta. Eredu beraren milaka aldaera (bost bat mila, bai, behintzat *Gerineldo* erromantzean) egon daitezke erdal eremuetan; euskaraz aldaera gehien dituen eredua, edo hobeto esan, aldaera gehien batu den eredua *Frantziako anderea* edo *Frantzia kortekoa* deitzen duguna da. Ugaritasun hori ez doa, hala ere, bi dozena aldaeratik gora. Antonio Zavalaren *Euskal Erromantzeak/ Romancero Vasco (EERV)* liburuan, 201-231. orrialdeetan eredu beraren hogeita lau aldaera ikusten ditugu.

Frantziako anderea baladaren aldaera gehienak Euskal Herriko eremu mendebaldekoenetan bilduak dira, Bizkaian. Bizkaiko eredu askotxo 80ko hamarkadan bildu ziren. Garai hartako eredu jaso berriek ia talde homogeneorik osatzen zuten zen orduko kezka bat. Adolfo Arejitak publikatu zituen *Idatz & Mintz*, 2 zenbakian, Ereñoko, Arantzazuko, Dimako eta Galdakaoko ereduak. 18-19 zenbakian Markinakoa eta Zeberiokoa. Eredu hauetan guztietan badira, nola ez, berritasun nabariak. Bakarren bat aipatzearren Markinakoa dugu. Markinako ereduak bestetan nekez baino nekezago aurkitzen diren ahapaldi kopuru handia zuen: hogeita hiru ahapaldi. Gainerako eredu gehienetan hamabi bat ahapaldira ere ailegatzen ez diren eredu asko dira.

Markinako eredu aberatsak azterketarako bide handiak zabaltzen zituen. Mendebaldeko balada batean ikusten genuen, esaterako, Iparraldeko balada batean, *Atharratze Jauregian* konkretuki agertzen den ahapaldi gogor hura bi ahapalditan emana. Hona ahapaldia:

Aita, saldü naizü idi bat bezala;
ama bizi üken banü, aita, zü bezala,
enündüzün ez juanen Ongrian behera,
bena bai ezkontüren Atharratze Salala.

Zuberoako euskaran dagoen ahapaldi hori berori ikusten genuen bi ahapalditan emana Markinako ereduan:

16
Aita bizi'otan legez bizi banuen ama
eniñuan salduko España urrunera.

17
Aitak saldu niñuan idia bezela
Españan kenduteko bai neure biotza.

Era honetako bi mugaldeetako bateratasun aberatsez gainera baziren hainbat alderdi aztergarri. Bizkaiko eredu guztiek, ostera, aldakiak aldaki, ez dute gure ustez alde nabarmenegirik. Ez dugu uste Bizkaiko eredu guztien artean eskualde bateko ereduak azpieredu markaturik osatzen dutenik. Eskualde batzuetan eredu aberatsagoak bildu izan dira, beharbada. Baina askotan berriemaile onari zor dizkiogu edo biltzaile saiatuei.

Bizkaiko eta Nafarroako ereduen artean, ostera, badira azpijeneroei dagozkien zenbait ezaugarri. Uste dugu Nafarroako ereduek azpisail berri bat osatzen dutela. Uste dugu ezagutzen diren Nafarroako ereduek badituztela ezaugarri multzo bat lan monografiko batean aztertu beharko liratekeenak. Nafarroako eredu hauek aztertzean batez ere Aitzolen bildumako Elizondoko eredua aztertuko dugu.

Gure lantxo honek bi alderdi izango ditu. Batetik Juan Martin Iriondok emandako grabazioetatik abiatu eta eredu horiek finkatu eta zertzelatuko ditugu; bestetik, nik neuk batuak zein aldizkari eta liburuetan argitaratuak lan honetara ekarriko ditugu. Guzti horiezaz gainera, balada honek mereziko lukeen azterketa sakonik ez dugu hemen egingo. Hala eta guztiz ere, eta iraizean bada ere, gogoeta batzuk egin gabe ezin gelditu gaitezke.

2. BALADA NON BILDUA DA? NOIZ BILDUA? ZER BATERATASUN DITU?

Euskal Herriko bi lurraldetan bilduak dira balada honen eredu guztiak. Batetik, Nafarroa menditarrean: Elizondon (Baztan), Gartzainen (Baztan), Sunbillan, Baraibarren; bestetik, Bizkaiko lurretan (Markinan, Galdakaon; Arratiako lurretan, Zeanurin, Diman…). Nafarroan bildutako ereduak aspaldi bilduak dira. Oraintsuengo publikatua dena *Lekaroz* aldizkarikoa da, 1953. urtekoa, gainerako hirurak gerra zibila baino lehenagokoak dira. Bizkaiko aldaerak, ostera, oraintsukoak dira asko. Gehienak 80ko hamarkadan *Idatz & Mintz* aldizkarian argitaratuak dira. Eredu guztien zehaztasunak ikusi nahi izatera, jo bedi aipatu dugun A. Zavalaren *EERV* lanera (201-231 or.).

Bateratasunak aztertuko bagenitu, begi-bistakoa denez, Nafarroakoak elkarren artean dituztenak hizkeraren zein edukiaren aldetik handiak dira. Era berean, Bizkaikoak elkarren artean dituztenak ere berdintasun edo bateratasun handikoak dira: formula eginetan, ahapaldietan eta abar. Bateratasun hauek Aztertu dituzte bi ikerlarik, Adolfo Arejitak (ikus *Idatz & Mintz* aldizkariko artikuluetan) eta oraintsu Jesús Antonio Cidek. Badira, hala ere, hainbat bateratasun zertzelatu ez direnak. Zergatik? Bateratasunak begi-bistakoak direnez, irakurle ohartu batek erraz egin ditzakeenak dira eta guztiak xehe-xehe jartzea lan luzeegi bezain astunegia gertatuko litzateke. Bateratasunak, gainera, azter daitezke Bizkaikoak elkarren artean eta Nafarroakoak elkarren artean, zein Bizkaikoak Nafarroakoekin dituztenak. Horietako bat aipatzekotan *EERV* liburuko lehen bi ereduetan Frantziatik etorri den ezkonberriak *morturat eraman eta il egin behar du* emaztea formula bera duela behin eta berriro: *morturat eraman eta il egin nezala*. Bizkaiko aldaera guztietatik bakar batean, Mendatako ereduan, da bakarrik basamortua heriotza-lekua: (*EERV*, VI eredua) *Urten basamortura ta/ il, ene semea*.

3. AITZOLEN FUNTSEKO GARTZAINGO EREDUA

Jose Ariztimuño *Aitzol*en funtsean, 091-Ait doc 93 001 signaturan, ezagutzen den *Frantziako anderea* baladaren eredurik ederrenetakoa dator. Eredu hau Bitori Etxeberriak bidali zion Aitzoli. Bitori Etxeberriaren “Poesias enviadas por Bitori” dokumentuan guztira 28 kantu daude Baztanen, Elizondon, batuak edo eskuizkribuetatik transkribatuak. Bitori Etxeberriaren kantu guztiak makinaz idatzita egon

arren, transkripzio arazo handiak ematen dituzte, kantu asko makina-huts askotxorekin datozelako. *Frantziako anderea* balada gaiaren eredua multzo honetako bigarrena da. Eredu hau Antonio Zavalak bere baladategian transkribatu zuen lehenengoz. A. Zavalak ez du jatorrizko dokumentuko eredua jasotzen, berak egindako irakurketa baizik. Eredu bakarra eskaintzen du eta ez jatorrizko eredua eta eredu horren irakurketa. Gure atal honetako lehen pausoa A. Zavalaren eredua eskaintzea izango da.

Aztertuko den eredua Gartzaingoa da. Bitori Etxeberriak honela jartzen du ereduaren azkenean: (Elizondon 1934-II-6'an Gartzaingo Inda'tar Ignazia'ri artua: biltzalea: Etxeberria'tar Bitori.)

3.1. *Gartzaingo ereduaren argudioa: berritasunak*

Gartzaingo *Frantziako anderea* baladaren argudioa beste aldaeretakoa da funtsaren funtsean. Hona hitz bitan. Amak semeari, etxera sartu bezain laster, ia ezkondurik edo ezkongai datorren galdetzen dio. Semeak ezkondurik datorrela esaten dionean, amak emaztea hil behar duela agintzen dio: frantses errainik ez duelako onartzen. Semeak diotso amari emaztea frantsesa izan arren guztiz noblea dela. Amak mortura eraman eta emaztea hiltzeko agintzen dio. Gartzaingo ereduan senarrak laguntza bila lehenengo anaia zaharrarengana jotzen du, gero arrebarik zaharrarengana, hurrengo apezarengana, eta, azkenik, arreba gaztearengana. Laguntza bakar-bakarrik bere arreba gaztearengandik hartuko du. Emazteak bere burua salbatzeko gaitzeru bat urre eskaintzen dio senarrari. Senarrak gaitzeru urrearen ordain-saria errefusatzen duenean, emazteak sabelaren barruan duen umeagatik ez hiltzeko eskatzen dio. Emazteak sabelean umea izatea beste ereduetan, bakarren batean izan ezik, ez da aurkitzen. Era berean, anai-arrebengana laguntza bila joatea Nafarroako ereduetan bakarrik aurkitzen dugu. Nafarroako ereduan aurkitzen da senar-emazteen arteko inoizko elkarriketarik gogorrenetako bat:

(7)
Neregatik ezpada ere barnekuagatik.
–Ik barrenian zer dun onbor zar bat baizik?
–Onbor zar balin badut egonek emana tuk,
onbar zar balin badut egonek emana tuk.

Andreak diotso beragatik ez bada ere barnekoagatik, hots, sabelaren barnean duen umeagatik. Frantziatik ezkondurik datorren andrea haurdun dago eta gizonak gaitzeru urreagatik bizia barkatuko ez badio ere, barruan duen umeagatik errukia eskatzen dio. Eta orduan gizonak, zakarki eta krudelki, galdera hau egiten dio: *Ik barrenian zer dun onbor zar bat baizik*? Jaio ez den umeari, amaren sabelean dagoen umekiari, *onbor zar* deitzen dio mesprezuz eta higuinez. *Enbor* hitzaren aldaeretako bat *onbor* da. *Enbor/onbor* hitza gaztelaniazko *tronco* bezala ulertzen baldin bada, hitzaren konnotazio guztiz interesgarriak galtzen dira. Leitzan eta inguruetan, eta berdin uste izatekoa denez Baztanen, desberdintasun nabarmenak daude *trunko* eta *enbor* hitzen artean. Azalpen esanguratsu hau eman dit Patziku Perurenak enbor eta trunko hitzen artean:

> Guretzako trunkua zilindrikoa eta uniformea da, zurajetarako balio duena, eta motzean, aizkolariek erabiltzen dituzten horiek ere trunkuak dira. Enborrak, aldiz, molde gaiztoko trunkukondoak dira, multiformeak, bost adaburu eta zain bihurrikoak, batez ere, trunkutarako materialik xuxenena eta uniformeena kenduta gelditzen diren egurkondo trakets eta handiak.

*Frantziako andere*ak sabelean duen umekiari enbor deitzea, itxuragabeko ume bat duela esatea da. Konnotazio horiek, hiztegietan guk dakigula biltzen ez direnak, guztiz interesgarriak dira. *Frantziako andere*ak gizonari ematen dion erantzuna, bestalde, indar ikaragarrikoa da: *onbor zar baldin badut egonek emana tuk*. Bestela esan, enbor zaharra badut, hik emana duk. Umearen sortzean biek hartu dute parte salatzen dio emazteak. Baliteke ahapaldi hau askok ez ulertzea. Ez dugu dudarik ahapaldi horretan

adierazten dena emakumea haurdun dagoela dela. Munitibarren Sabina Urriolabeitiari batutako ereduan honelaxe dator ahapaldi batean:

–Bederatzi illabete
ezkondu giñala,
zazpi illabetekua
sabelien dodala.

Bizkaiko Munitibarren ezezik, beste lekutan ere bildu izan da ideia bera. Agustin Mendizabalek Errenterian bildutako ereduaren arabera bost hilabeteko haurra du emazteak sabelean:

Bost ilabeteko haurra
daukat sabelian
hori egin artian
utzi neri pakian.

3.2. *Gartzaingo ereduaren A. Zavalaren irakurketa*

A. Zavalaren baladategiko *Frantziako anderea* balada gaiko lehen adibidea da Aitzolen funtseko aldaera. Ez dago dudarik A. Zavalak hartu dituen transkripzio-erabaki asko ondo harturik daudela. Beste zenbait duda egitekoak dira eta badira transkripzio-erabaki okerrak ere. A. Zavalaren ereduak, esaterako, bederatzi ahapaldi ditu. Jatorrizko ereduak, ostera, hamar. Gure iruzkinak erraztearren A. Zavalaren ereduaren ahapaldiak zenbakituko ditugu.

(1)
–Agur, agur, agur, ama neuria.
Ongi torri zarela, seme neuria.
Ezkondu edo ezkongai eldu zara, semia?
–Ezkondurik eldu naiz, ama neuria.

(2)
–Frantzesa edo española dakartzu, andrea:
–Frantzesa dut bañan soil guziz noblia.
–Nik ez dut amititzen frantzesa erreñaik;
morturat eraman eta ilo egin bear dik.

(3)
Andik gan nitzen anaiarengana,
anaiarengana ta zaarrarengana:
ark ere erran zidan amak bezala:
mortura eraman ta il egin nezala.

(4)
Andik gan nitzen anaiarengana,
anaiarengana ta apezarengana:
ark ere eŕan zidan bertziak bezala:
mortura eraman eta il egin nezala.

(5)
Andik gan nitzen arrebarengana,
arrebarengana eta gaztenarengana;
artxek erran zidan biar den bezala:
etxera eraman ta maitatu nezala,
ark iñen nauela kuñata bezala.

(6)
Yendiak eldu dire andik-emendik
nere arreba Yuana ezta ageri iñundik.
–Gaizueu bat urre badut aitetxik emana,
bizik uzten banauena eman daizuet dena.

(7)
Neregatik ezpada ere barnekuagatik.
–Ik barrenian zer dun onbor zar bat baizik?
–Onbor zar balin badut egonek emana tuk,
onbar zar balin badut egonek emana tuk.

(8)
Andria igan nian zaldian gañera,
mortura eraman ta il egitera.
–Bat au dut senarra ta bertzia apez kuñatua,
oken bien artian zer egin bear da?

(9)
–Senarrak eman zion lenbiziko kolpia,
apez kuñatuak berela bertzia.
–Ai, ai kanabitaren puntaren xorrotza!
Laster arrapatu dio nere amaren biotza!
Madarika daiela oi in duen arotza!

A. Zavalaren irakurketan nekez ulertzen den hitzen bat badago. (6) ahapaldiko *gaizueu bat urre* zer ote da?

3.3. *Gartzaingo eredua eta Sunbillakoa*

Frantziako anderea baladaren Gartzaingo eredua eta Aita Donostiak Sunbillan batu eta 1953. urtean *Lekarotz* aldizkarian argitara zuena, harrigarriro, bat datoz. Aita Donostiak 1953. urtean "Leyendas navarras" artikuluan Sunbillako eredua eman ondoren iruzkin argigarriak egin zituen (Donostia: 1953). Artean Gartzaingo eredua argitaragabe zegoenez gero, ezin eredu biak erkatu. Gartzaingo eredua ezagutzen dugunez gero, bi ereduen arteko berdintasuna harrigarria da. Hasiera-bukaerako ahapaldiak bat datoz. Lehen ahapaldian dagoen aldaketa bakarra amaren galderan dago. Gartzaingoan *Ezkondu edo ezkongai, eldu zara, semia?* esaten dio; Sunbillakoan *Ezkondurik edo ezkongai eldu zara, semia?* Eredu bietan, ordea, erantzuna bat dator: *Ezkondurik eldu naiz, ama neuria*. Bukaerako ahapaldiak ere bat datoz ia modu harrigarrian. Gainerakoetan ere berdintasun harrigarriak aurkitzen dira.

(1)
–Agur, agur, agur, ama neuria.
–Ongi etorri zarela, seme neuria.
Ezkondurik edo ezkongai eldu zara, semia?
–Ezkondurik eldu naiz, ama neuria.

(2)
–Frantzesa edo española duzu, andria?
–Frantzesa dut baño da guziz noblia.
morturat guan eta ill egin biar dik.
Nik eztiet kusi nai frantzes erreiñarik.

(3)
Andikan guan nitzen apezarengana,
apezarengana eta anaiarengana.
Ark ere esan ziran amak bezala:
mortura gan eta ill egin nezala.

(4)
Andiken guan nitzen arrebarengana,
arrebarengana eta gaztenarengana.
aretxek erran zidan biar zen bezala:
etxera ekarri eta maitatu nezala,
estimatzen zuela koñata bezala.

(5)
–Andria, igesi, igesi zaldien gañera,
mortura guan eta ill egin biar dun.
Andriak eldu dira andik eta emendik,
nere arreba Juana ezta ageri iñondik.

(6)
–Senarrak eman zidan lenbiziko kolpia,
bereala koñadu apezak aldamenetik bertzia
–Oi kanabitaren puntaren zorrotza!
Usu arrapatu dio nere amari biotza!

3.4. *Gartzaingo lehen dokumentuaren transkripzio zuzena*

Gartzaingo eredua bi orrialdetan makinaz transkribaturik dago. Izenburua *Aguŕ ama neuria* da. Lehen dokumentuan zenbakitu gabeko hamar ahapaldi datoz guztira. Hamar ahapaldi hauetatik bederatzi bakarrik transkribatu zituen A. Zavalak. Ohargarria da zenbaki bakoitzean bi ahapaldi daudela, guztira beraz, hogei lauko edo ahapaldiko eredua da.

(1)
Agur, agur, agur, ama neuria:
ongi toŕi zarela, seme neuria,
ezkondu edo ezkongai eldu zara semia:
ezkondurik eldu naiz, ama neuria.

(2)
Frantzesa edo española dakarzu andrea:
frantzesa dut bañan soil guziz noblia:
nik ez dut amititzen frantzesa ereñaik
morturat eraman eta iĺe egin biar dik.

(3)
Andik gan nitzen anayarengana:
anayarengana ta zaaŕarengana:
ark ere eŕan zitan amak bezala
mortura eraman ta il egin nezala.

(4)
Andik gan nitzen aŕeba arengana
aŕeba arengana ta zaŕarengana:
ark eŕan zidan ama bezala
mortura eraman ta il egin nezala.

(5)
Andik ganitzen anaya arengana
anaya arengana ta apezaarengana:
ark ere eŕan zidan bertziak bezala
mortura eraman eta il egin nezala.

(6)
Andik ganitzen aŕeba arengana
aŕeba arengana eta gaztenaarengana
artxek eŕan zidan biar zen bezala
etxera eraman ta maitatu nezala
ark iñen auela kuñata bezala.

(7)
Yendiak eldu dire andi emendik
nere aŕeba Yuana ezte ageri iñondik:
gaizueuet uŕe baut aitetxi emana
bizik uzten banauena eman daizuet denak.

(8)
Neregatik ezpada ere barnekuagatik
Ik baŕenian zer dun onbor zar bat baizik:
onbor zar balinbaut egonek emana tuk
onbar zar balinbaut egonek emana tuk.

(9)
Andria iganian zaldian gañera
mortura eraman ta il egitera
Bat an dut senaŕa ta bestela apezkuñatua
oken bien artian zer egin bear da.

(10)
Senaŕak eman zion lenbiziko golpia
Apezkuñatua bereala bertzia
ai ai kanabitzaren puntaren xoŕotza!
laster aŕapatu dio nere amaren biotza
madarika daiela oi in duen arotza.



Agur ama neuria

Agur,agur,agur,ama neuria:
ongi tori zarela,seme neuria,
ezkondu edo ezkongai eldu zara semia:
ezkondurik eldu naiz,ama neuria.

Frantzesa edo española dakarzu andrea:
frantzesa dut bañan soil guziz noblia:
nik ez dut amititzen frantzesa ereñaik
morturat eraman eta ile egin biar dik.

Andik gan nitzen anayarengana:
anayarengana ta zaarengana:
ark ere eran zitan amak bezala
mortura eraman ta il egin nezala.

Andik gan nitzen areba arengana
areba arengana ta zarengana:
ark eran zidan ama bezala
mortura eraman ta il egin nezala.

Andik ganitzen anaya arengana

anaya arengana ta apezaarengana:
ark ere eran zidan bertziak bezala
mortura eraman ta il egin nezala.

Andik ganitzen areba arengana
areba arengana ta gaztenaarengana
artxek eran zidan biar zen bezala
etxera eraman ta maitatu nezala
ark iñen auela kuñata bezala.

Yendiak eldu dire andi emendik
nere areba Yuana ezte ageri iñondik:
gaizueuet ure baut aitetxi emana
bizik uzten banauena eman daizuet denak.

Neregatik ezpada ere barnekuagatik
Ik barenian zer dun onbor zar bat baizik:
onbor zar balinbaut egonek emana tuk
onbor zar balinbaut egonek emana tuk.

Andria iganian zaldian gañera
mortura eraman ta il egitera
Bat an dut senara ta besteia apezkuñatua
oken bien artian zer egin bear da.

Senarak eman zion lenbiziko golpia
Apezkuñatua bereala bertzia
ai ai kanabitzaren puntaren xorotza!
laster arapatu dio nere amaren biotza
madarika daiela oi in duen arotza.

(Elizondon 1934-II-6'an Gartzaingo Inda'tar
Ignazia'ri artua:
biltzalea:Etxeberia'tar Bitori.)

Frantziako anderea balada. Gartzaingo eredua.

3.5. *Gartzaingo eredua ahapaldiz ahapaldi iruzkindua*

Makinaz idatzitako testuak akats nabarmen asko ditu eta guztiz interesgarria da iruzkin testual bat egitea. Puntu honetan jatorrizko ahapaldiak kontuan harturik era bateko eta besteko iruzkinak egingo ditugu: transkripzioari dagozkionak eta testuaren ulerkuntzari.

(1)
Agur, agur, agur, ama neuria:
ongi toŕi zarela, seme neuria,
ezkondu edo ezkongai eldu zara semia:
ezkondurik eldu naiz, ama neuria.

Lehen ahapaldian ama-semeen arteko elkarrizketa dator. Lehen ahapaldiko aditzek badute zer iruzkindua. *Ongi (e)torri zarela* amaren erantzunean *etorri zarela* indikatibo forma badu ere, subjuntibo zentzua du: *ongi etor zaitezela*. *Ezkondu edo ezkongai eldu zara* galderako *eldu zara* aditzak *zatoz* esan nahi du. Bestela esan, *eldu zara* aditzaren aspektua orainaldikoa da eta ez iraganekoa. Era berean, *ezkondurik eldu naiz* horrek *ezkondurik nator* esan nahi du.

(2)
Frantzesa edo española dakarzu andrea:
frantzesa dut bañan soil guziz noblia:
nik ez dut amititzen frantzesa ereñaik
morturat eraman eta iĺe egin biar dik.

Bigarren ahapaldian *andria* behar luke *andrea* hitzaren lekuan, zenbaki honetan berean ere *biar* agertzen baita. Lehen ahapaldian ere *neuria*, *semia* datoz eta. Interesgarria da ohartzea *guziz noblia* aurretik *soil* bat duela agertzen dela, sintagma markatu edo oso enfatikoa da, beraz. Harrigarria da *frantzesa erreñaik* ere. Modu naturalago bat da *erreiñ frantsesik* eta apur bat forma bortxatuagoa *frantses erreiñik*. Azken lerroan, era berean, *iĺ egin bear dik* forma zuzenagoa da.

(3)
Andik gan nitzen anayarengana:
anayarengana ta zaaŕarengana:
ark ere eŕan zitan amak bezala
mortura eraman ta il egin nezala.

Ahapaldi honetan adlatibo marka *–gana* dugu: *anayarengana* (bi aldiz) eta *zaaŕarengana*. Bigarren ahapaldian, *–rat* dugu: *morturat*. Zenbaki honetan eta hurrengoan *il egin nezala* aurkitzen da, aurrekoan, ostera, *iĺe egin*. Zenbaki honetan *eŕan zitan* huts nabarmena da. Gainerako 4, 5, 6. zenbakietan datorren bezala *eŕan zidan* izan behar du. Adizki bera lau aldiz agertzen bada, eta hiru berdin badaude, bi aukeren artean berdin dauden hirurek dute indarrik handiena.

(4)
Andik gan nitzen aŕeba arengana
aŕeba arengana ta zaŕarengana:
ark eŕan zidan ama bezala
mortura eraman ta il egin nezala.

Aurreko ahapaldiaren egitura bera du. *Andik gan nitzen* batetik hasi eta *mortura eraman* eta *il egin nezala* esaldiarekin bukatu. Ahapaldi honetan *ark eŕan zidan ama[k] bezala* behar du, ergatibo markarekin. Jatorrizko dokumentuan lehen lerrotik ondoko lerroetara tarte bat dago.

(5)

Andik ganitzen anaya arengana
anaya arengana ta apezaarengana:
ark ere eŕan zidan bertziak bezala
mortura eraman eta il egin nezala.

Aurreko bi ahapaldien egitura bera du. Hirugarren honetan ere anaia apezak, anaia zaharrak eta arreba zaharrak bezala erantzuten du, *ark ere erran zidan bertziak bezala* dio Frantziako anderearen senarrak.

(6)

Andik ganitzen aŕeba arengana
aŕeba arengana eta gaztenaarengana
artxek eŕan zidan biar zen bezala
etxera eraman ta maitatu nezala
ark iñen auela kuñata bezala.

Aurreko ahapaldien egitura bera du, baina oraingoan arreba gazteak beste erantzun bat ematen dio. Etxera joan eta maita zezala. Zenbaki hau besteak baino luzeagoa du eta azken luzagarriak zer esan nahi ote du? Zer esan nahi ote du *ark iñen auela kuñata bezala* horrek? A. Zavalak *ark iñen nauela kuñata bezala* zuzentzen du. Aita Donostiaren Sunbillako ereduan *estimatzen zuela kuñata bezala* dator. Irakurketa bat, beraz, *ark iñen zuela kuñata bezala* izan liteke *auela* adizkiaren hasierako bokalaren ordez z– bat irakurriz.

(7)

Yendiak eldu dire andi emendik
nere aŕeba Yuana ezte ageri iñondik:
gaizueuet uŕe baut aitetxi emana
bizik uzten banauena eman daizuet denak.

Ahapaldi honek sortzen ditu irakurketa-arazo handienak. *Jendeak eldu dire andi-emendik* horrek "jendeak datoz leku guztietatik" esan nahi du. Gartzaingo eredu honetan *Urtsua* baladan bezala arreba Juana baten berri ematen da. Zenbaki honetako bigarren erdia osa liteke. A. Zavalak *gaizueu bat urre badut aitetxik emana* irakurtzen du. Esaldi horretako *baut aitetxi emana* ondo baino hobeto irakurtzen du *ba[d]ut aitetxi[k] emana* egiten duenean. Irakurketa hobea litzateke *gaitze[r]u bat urre ba[d]ut aitetxi[k] emana* eginez gero. Azken lerroa ulergarriagoa litzateke baldin *bizirik uzten banauzue, emain daizuet dena* balitz. Baldintza-ondorioetako komunztadurak ondorioa edo apodosia futuro edo etorkizunean eskatzen du: *emain daizuet dena*. Era horretara, *eman daizuet* aditza *ema[i]n daizuet* irakurri behar da. Baztango euskaran *emanen* aditzaren laburdura *emain* da. Disimilazioz emanen>emaen>emain formara heltzen gara.

(8)

Neregatik ezpada ere barnekuagatik
Ik baŕenian zer dun onbor zar bat baizik:
onbor zar balinbaut egonek emana tuk
onbar zar balinbaut egonek emana tuk.

Ahapaldi honetan harakaitz bat baino gehiago dago. Emaztearen erantzunean *onbor zar balin ba[d]ut, [h]egonek emana duk* izan beharko luke, *tuk* forma objetua pluralerako baita. Oroit bedi, besteak beste direla, *Urteak zonbat egun tu* baladaren hasiera.

(9)

Andria iganian zaldian gañera
mortura eraman ta il egitera
Bat an dut senaŕa ta bestela apezkuñatua
oken bien artian zer egin bear da.

Zenbaki honek ere ulermen-arazo nabarmenak ditu. Antonio Zavalak *Andria igan nian zaldian gañera* transkribatzen du. Zer adierazten du horrek? Nik andrea igan erazi nuela zaldiaren gainera? Zer adierazten du *nian* adizkiak? *Nian* aditz jokatua *nuen* ote da hikan? Sunbillako ereduan *Andria, igesi, igesi*.

(10)

Senaŕak eman zion lenbiziko golpia
Apezkuñatua bereala bertzia
ai ai kanabitzaren puntaren xoŕotza!
laster aŕapatu dio nere amaren biotza
madarika daiela oi in duen arotza.

Azken ahapaldi honetan *apezkuñatua[k]* hitzean ergatibo marka falta da. Transkripzio oker bat dator *ai ai kanabitzaren puntaren xoŕotza!* esaldian. *Kanabit(e)aren puntaren xoŕotza!* izan behar du. *Kanabita* hitza apur bat desitxuraturik dago. Gartzaingo ereduan datorren kanabitaren puntaren zorrotza Bizkaiko ereduetan ere badator. *Madarika daiela oi in duen arotza* madarikazioa *Neska ontziratua* baladako madarikazioa da. Kontaminazioz gure ereduan ere aurkitzen da. Madarikazio hori, bestalde, egoki dator. *Neska ontziratua* balada gaian hainbat eredutan aurkitzen da; guk bakarra ekarriko dugu Chahoren A erdukoa: *Maradika dakiola/ arotzari bessoua/ zeren aïn zorrotz eghin dian/ ezpata houni moskoua/ ezpata houni moskoua eta/ maïtiaren phensamentia*.

4. *FRANTZIAKO ANDEREA* BALADAREN AZKUEREN EREDUAK

Azkuek *Frantziako anderea* baladaren hiru eredu oso bildu zituen eta azken ahapaldi solte bat. Hiru eredu osoetatik eredu bakarra argitara eman zuen bere kantutegian. Argitara eman zuen eredua Nafarroako Larraunen, Baraibar herrian, bildu zuen. Gainerako bi ereduak eta azken ahapaldia bere eskuizkribuetan transkribaturik utzi zituen. Azkuek argitara eman ez zituen bi ereduetako bat, Mendatakoa, EB lantaldekoek eman zuten argitara. Beste eredu argitaragabea, Gabikakoa, Mikel Zarate Iker mintegikoek eman zuten argitara 1991. urteko antologian (Arejita: 1991). Eredu hauek guztiek testu-ohar bat edo beste merezi dutela uste dut.

4.1. *Azkueren lehen eredua, Baraibarkoa*

Azkueren lehen ereduaren eskuizkriburik ez da aurkitzen Azkue Bibliotekan. Lehen eredu hau nafarra da eta ezagutzen diren Nafarroako gainerako ereduen oso antzekoa da. Aitzolen Gartzaingo eredua, Aita Donostiaren Sunbillakoa eta Azkueren Baraibarkoa bat datoz argudio eta egitura ezaugarri nagusietan. Aitzolen Gartzaingoa Nafarroako beste biak baino askoz ere osoagoa da. Azkuek Baraibarren jasotakoa gertaera-hari laburrekoa da. Ez dira motibo asko agertzen.

I

Urra, urra, urra seme nerea!
prantzes edo española egin dek andrea.

II
Prantzesa da baiña txit da noblea
txit da noblea eta aunitzen yabea.

III
……..
……..

IV
Andikan yoan nintzan anaiarengana
anaiarengana eta zarrenarengana.

V
Anaie zarren orrek, am'orrek bezala,
etxera ekarri gabe deboila nezala.

VI
Andikan yoan nintzan arrebarengana
arrebarengana eta zarrenarengana.

VII
Arreba zarren orrek, am'orrek bezala,
etxera ekarri gabe deboila nezala.

VIII
Andikan yoan nintzan anaiarengana
anaiarengana eta gaztênarengana.

IX
Anaie gazte orrek, amak ez bezala,
etxera ekarri eta maitatu nezala.

Baraibarren jasotako eredu honetako *deboilatu* aditza, uste izatekoa denez, *degoilatu* aditzaren aldaera bat da.

4.2. *Azkueren bigarren eredua, Mendatakoa*

Bigarren eredua Mendatan jasoa da. Azkuek kanta askorekin modu berean jokatzen zuen. Lehen ahapaldia, zenbaki jakin bat zuela, kaier batean kopiatu ohi zuen pentagramarekin eta kantu horri zegozkion gainerako ahapaldi guztiak beste kaier batean kopiatzen zituen. Bigarren kaier horrek kantuen hitzak zituen eta ez doinu edo pentagramarik. Mendatako ereduan, beraz, berdin gertatzen da. Lehen ahapaldia landa-kaier batean bildua dago eta gainerako ahapaldi guztiak beste landa-kaier batean. Lehen ahapaldia ABA-RMA-001-0002-001 signatura duen landa-kaierean jasoa dago. Mendatako ereduak kaier honetako 1041 zenbakia du. Gainerako ahapaldi guztiak ABA-RMA-001-0002-002 kaierean aurkitzen dira. EB lan taldekoek bigarren kaiereko ahapaldiak bakarrik kopiatu zituzten eta Antonio Zavalak EB lan taldekoen eredua kopiatu eta bere baladategira VI zenbakian jarri zuenez gero, eredua osatu gabe gelditzen da. Puntu honetara, beraz, lehen aldiz Mendatako eredua osorik ekarriko dugu. Puntuazioa erantsiko diogu. Hona hemen:

1
Etorri nintzanean
Frantziako kortetik,
Ama topadu neban
etsean bakarrik.

2
–Zer egite ozu, ama,
orrelan tristerik.
–Nobedade barriak
jakin ditudaz nik.

3
–Ze nobedade barri
jakin dozu, Ama?
–Ezkondu egin zareala
bai, neure semea.

4
–Ez eizu ekarri ona
Frantziako andrarik.
–Zer eingo tsat ba
Ama, orain nik?

5
–Urten basamortura ta
il ene semea.
–Ezin il nei bakarrik,
bai, ama neurea.

6
–Artuizu laguntzako
zeure anayea,
anayetatik bere
estudiantea.

7
–Egun on dakarrela
Frantziako andrea
–Alan ekarri dayala
Bizkaiko semea.

8
–Emen il bear dozu,
Frantziako andrea.
–Zegaitik il biot ba,
Bizkaiko semea?

9
–Jesus, Maria ta Jose,
ori da kutsilloaren
puntearen zorrotza!
Ikusi ta beste barik
ilten deust biotza.

10
Agur Bizkaiko seme
amaginarreba,
suge-muskar aundi bat
sartuko al jana.

Mendatako eredu honek merezi du ohar bat edo beste. Lehen kaierean *ama topadu neban/ ama topadu neban* bi aldiz ikusten da. Gainerako ahapaldi guztietan ere berdin egin beharko da.



ABA-RMA-001-0002-001



ABA-RMA-001-0002-002

4.3. *Azkueren hirugarren eredua, Gabikakoa*

Azkuek Gabikako eredua Bibiana Gerrikaetxebarria andreari bildu zion. Eredu honetako landa-kaierik ez da gordetzen Euskaltzaindiko Azkue bibliotekan. Landa-kaierik gorde ezean ez dago lehen dokumenturik. Lehen dokumentuaren garbiratzea gordetzen da bakarrik, bigarren dokumentua, beraz.

Gorago esan dugun bezala, eredu hau lehen aldiz Mikel Zarate Iker Mintegikoek argitara eman zuten 1991. urteko antologian. Eredu honetako ahapaldi bakoitzeko hirugarren lerroa bi aldiz errepikatzen da. Lehen ahapaldian ulertzen ez den hitz bat dago: *turitik*. Azkuek *Etorri nintzanean/ Frantziako turitik/ ama topadu neban/ etśean bakarrik* bildu zuen. Lehen ahapaldiko *turitik* ulertezina denez gero *(sic)* jarri zion, berriemaileak halaxe esan zuela garbiki adierazteko.

1
Etorri nintzanean
Frantziako turitik (sic)
ama topadu neban (bis)
etśean bakarrik.

2
–Ama, zer dozu bada
zuk orren tristerik.
–Nobedade barri batzuk
jakin deutsudaz nik.

3
–Zer nobedade barri
jakin dozu, ama?
–Ezkondu egiten zareala (bis)
neure seme ona.

4
–Nundikoa dakazu
zerorrek andrea?
–Frantziako kortekoa (bis)
bai, ama neurea.

5
–Zetarako da emen
Frantziako umea?
–¿Zer egingo deutset bada (bis)
bai ama neurea?

6
–Urten bidera eta
il, ene semea.
–Baina bakarrik ezin (bis)
bai, ama neurea.

7
–Artuizu lagun eta
zeure arrebea,
zeure arrebea eta (bis)
estudiantea.

8
–Egun on dakarrela,
neronen andrea.
–Alan ekarri dayela, (bis)
Bizkaiko semea

9
–Ori da kutśiloaren
puntuaren zorrotza
ikusi ta beste barik (bis)
ilten daust biotza-

10
–Amalau mando datoz
urrez kargaturik,
arek artuizuz baina (bis)
itśidazu bizirik.

11
–Ekarrizu abadea
konpesaduteko,
sakramentu santua (bis)
errezibietako.

12
Abadea urrun dago
eleizea urrunago
orretan ibilteko (bis)
asti gitxi dago.

13
Agur Bizkaiko seme,
amaginarreba,
suge-muskar andi bat
sartuko aljana.



ABA-RMA-005-0016-001



ABA-RMA-005-0016-002

4.4. *Azkueren laugarren eredua, Zugaztietakoa*

Azkuek Zugaztietan bildu zuen eredua ezin da osotzat hartu, azken ahapaldia baizik ez dator eta. Azken ahapaldi hau ABA-RMA-001-0002-001 dokumentuan dator eta zehaztasun bakarra *Zugastieta Var. de 1401* da. Ahapaldi hau berau Mendata eta Gabikako ereduetan dator. Egia esan, Gabika eta Mendatako ereduak berdin-berdin amaitzeak duda egiteko bidea ematen du. Bi ereduetan hitzez hitz berdinak dira. Baliteke Bizkaiko berriemaile batek *suge-muskar handi bat sartuko al jana* batez ahapaldia eta balada bera bukatzea. Sugeak eta muskerrak euskal folklore eta sineskerietan batera ibili ohi dira. Madarikazioan errainak amaginarrebari ohean suge bat edo musker bat sartzea opa dio. Bitxi baino bitxiagoa da suge-musker konposizioa ematea ahapaldi bakar batean, are bitxi eta harrigarriagoa hiru eredutan halan izatea. Susmoa dugu Azkuek Zugaztietan bildu zuen bukaera urregorrizko hau Mendata eta Gabikako ereduei txertatu ziela.

Agur Bizkaiko seme
amagiñarraba
suge musker andi bat
sartuko al jana.

5. *FRANTZIAKO ANDEREA,* MUNITIBARKO ALDAERA

Mikel Agirreazkuenagak, Mikel Busturia izenpean ostendurik, "Aulestia eta Munitibarren jaso balada zenbait" izenburuko artikuluan zenbait balada argitara zituen (Agirreazkuenaga: 1991). Artikulugileak balada-eredu berri eta zoragarri bat eskeintzeaz batera, balada zikloen gaineko gogoeta egoki bat ere plazaratzen zuen[1]. Hona hitzez hitz:

> Hypothesisaren speculationezko munduan kokatu eta ere, bagenerrake *Atarratze jauregia* eta *Andre Emilia*-n ageri den mintzabide formulistikoa deklaratzen zaigula garbiki *Franziako Anderea*-ren aldaera berri honetan. *Ursua* baladak, aldiz, agertarazten duen elkarrizketa eta *Franziako Anderea*-ren zenbait aldaeron amankomunezko puntuek gogoan hartzekoak dira *Ursua* ere ez ote den ziklo horren barrenean egongo. Plazaratzen dugunak ere geografiaz hari berriak eskein litzake: Franziako Anderea mendebaldean dagoenez zabaldurik, Atarratzeko Jauna ekialdetik, erdialdetik bi horiek jaso badaitezke ere, Ursua aurkitugo dugu hor guztien gain.

Balada batean eta bestean agertu ohi diren segmentoak balada ziklo berekoak direlako izango da, lehen hipotesiaren arabera. Beste modu batera esanda, balada batean eta bestean bi ahapaldi edo gehiagoko ahapaldi-multzoak lerratzen dira zenbait baladatan. Ahapaldi-multzo hori, begi bistakoa denez, ez da batean eta bestean agertzen baladaren hariaren indargarri baizik. Horrexegatik ziklo berekoak direlako froga litzateke. Hona hemen aipatu dugun artikuluko eredua:

1
–Atzo etorri nintzan
Frantzieko kortetik,
ama topatu neban
etxien bakarrik.

[1] Jesús Antonio Cid-ek egiten du balada honen aipamena eta bi ahapaldi bateraturik argitaratzen ditu bere "Romancero hispánico y balada vasca" lanean.

2
–Ama, zer egiten dozu
zeuk olan tristerik?
–Nobedade barriak
entzun ditudaz nik.

3
–Ze nobedade barri
entzun dozu, ama?
–Ezkondu ei zariela
a, ene semia.

4
–Ez dozu entzun, ama,
hain guzur haundia
hortzi atzien dator
neure emaztia.

5
–Frantses ala ingeles
zeure emaztia
–Frantzieko kortekua
bai, ama neuria.

6
–Ez dot gura frantzesik
hain gitxi errenik
deukedan obeniau
kunplitu biot nik.

7
–Zer egingo diogu, ba,
ai ama neuria,
hain da galnata ere
neure emaztia.

8
–Zeu kapaz ezpazar[a]
haru anaijia,
hain da galanta ere
neure emaztia.

9
Estudiantia ere
ondiño gaztia
hogeta zazpi urte
kunplitu bagia.

10
–Aita bizi dodan lez
bizi banuen ama
ez nenduela salduko
Espain urrunera.

11
Aita[k] saldu nenduan
idi bat bezela
kendutzeko bizia
Espain urrunera.

12
Hamalau mando dodaz
bai perlaz jantzirik,
hamabostgarrentxuau,
bai, urrez doraurik.

13
–Hartu izuez horrek eta
itxidazue bizirik.
–Hartukoguz horrek baña
ez itxi bizirik.

14
–Zazpi izera dodaz
odolez beterik,
zortzigarrentxu honek
naroie mundutik.

15
Agur, agur, egiten deutsut,
amatxu neuria, /…/

6. JUAN MARI IRIONDOREN BALADA BILDUMA

Euskal balada zaharrak gure gaurko idazleen narrazioetan txertaturik ikusi ditugu zenbaitetan. Narrazioaren edergarri ez ezik, ardatz ere badira batzuetan. Hitz lauz azaldu, itxuratu ez ezik, gorpuztu ere egiten da baladaren edukia. Bernardo Atxagak *Ana Juanixe* balada, esaterako, *Henri Bengoaren inventarium*ean txertatu zuen. Juan Martin Iriondo etxanotarrak *Sutondoko berriketaldia* liburuan (Ibaizabal Argitaletxea, 1995) badu narrazio bat "Titili-totoloka senargaia ihesi saltoka". Delako Sutondoko berriketaldia liburua neska-mutilei zuzendua da, liburuaren goialdean "Gaztaro bilduma" argigarria baitakar. Aipatu dugun narrazio horretan *Frantziako anderea* baladaren berrogeita bi ahapaldi dakartza. Eredu hori, jakina, eklektikoa da, eredu askotatik hartuak. Eredu eklektiko horretako ahapaldi gehienak ezagunak ziren arren, ezezagunak ere baziren.

Sutondoko berriketaldia liburua ikusiz gero, kezka bat jaio zen gure burura. Nola liteke urregorri zati hori txertatua egotea umeentzako liburu horretan? Kezka horrek zuzenbide batzuk egitera eraman gintuen. Liburuaren egilearengana jo eta nola osatu zuen ipuina galdetu genion. Ipuineko edo kontakizuneko ahapaldiak berak bildutako balada beraren bertsio diferenteetatik eratutako balizko balada

bat zela kontatu zigun. Hamarren bat balada bertsio grabatu ondoren, ahapaldi diferenteak josi zituen –batetik eta bestetik hartuak, jakina– eta berrogeita bi ahapaldiko balada osatu zuen kontakizunaren ardatz eta zutabe nagusi. Henri Gavelek ere berdin egin zuen, *mutatis mutandis*, Zuberoan bildutako Bereterretxeren bersio diferenteekin. J.M. Iriondoren kasuan, ordea, umeentzat zuzendutako liburu horretan ez zioen zer ahapaldi zein bertsiotatik hartua zen.

Bildu zituen baladen grabaziorik gordetzen ote zuen galdetu genion, eta handik egun gutxira zein izan zen gure poza denak zinta bakar batean elkarren ondoren emanak zituela esan zigunean. Zintak aurkitu eta bertsio diferenteak zinta bakar batera aldatu zizkigun. Grabazioak hamar urte behintzat lehenagokoak zirenez gero, zehaztasun batzuk galduak ziren. Bestela esan, berri-emaile edo lekuko baten edo besteren izena jarri gabe eta biltze-data gutxi gorabeherakoa. Badago besterik ere, grabazioren bat edo beste galdua zuen, eman zizkigun zintan agertzen ez diren ahapaldi batzuk baitaude *Sutondoko berriketaldiak* liburuan. Hona hemen beste gabe *Sutondoko berriketaldiak* liburuko balizko balada:

1
Soldadu joan nintzan
zortzi bat urteko
errege serbidu eta
libre izateko.

2
Etxera nentorrela
lizentzia horrekin,
enamoratu nintzan
damatxo batekin.

3
Etorri nintzanean
Prantzie kortetik,
ama topatu neban
etxean bakarrik.

4
Bai bakar bakar eta
bai triste tristerik
ni etxeratu arren
ez zan jarri pozik.

5
–Egunon Jaungoikoak
emon daiskun, ama.
–Holan ekarri daizun
bai, neure semea.

6
–Ama, zer egiten dau
horrelan tristerik?
–Nobedade barriak
entzun dodaz bai nik.

7
–Ze nodedade barri
entzun dau ba, ama?
–Ezkonetan zareala
bai, ene semea.

8
–Ezkonduta ala ezkongai
zatoz zeu, semea?
–Ezkondute ni nator
bai, ama neurea.

9
–Ez dau entzun guzurrik
ez, ama neuria,
hortxe bidean dator
neure emaztea.

10
–Nondikoa dakarzu
zeure emaztea?
–Prantzie partekoa
bai, ama neurea.

11
–Ez dau behar prantsesik
hangoxe errainik;
esan dodan berbiaz
urten behar dot nik.

12
–Ze promes dauko ba, ama
nik hori eiteko?
–Urten bidera eta
Juanita hilteko.

13
–Ez da posible, ama
nik hori eitea,
hain da eder galanta
neure emaztea.

14
–Hain da polita ba ze
neure emaztegaia
ez da posible ama
bertan behera iztea.

15
–Hain da ederra eta
hain da lastimea
nik hil ezin naikela
neure emaztea.

16
–Hain da polita ama
neure emaztegaia
ez nintzakela ahaztuko
bizitza guztian.

17
–Zu kapaz ez bazara
hartu egizu anajea,
anaje gaztea ta
estudiantea.

18
–Harexek kenduko dautso
hareri bizia,
harek lagundukotsu
hilten emaztea.

19
–Goazen bai goazen,
anaia neurea,
bidean topaukojuk
bai neure emaztea.

20
–Nora zoaz, andrea
gau honen erdian?
Igual joango zara
egunen erdian.

21
–Juanita, jatsi zaitez
zaldi horren gainetik
sar daitsudan puiñal hau
bihotz bihotzetik.

22
–Bata senarra zadek
bestea koinetu,
nora naroazuen
esan einbeostezu.

23
–Juanita, jatsi zaidaz
zaldi horren gainetik
hementxe nire eskuetan
hil behar zaitut nik.

24
–Ai! horren puinal horren
puntearen zorrotza!
ikusiaz beste barik
hilten daust bihotza.

25
–Hamalau mando dodaz
urre gorriz kargaturik
beste hamalau datoz
zidarrez beterik.

26
–Hareek emondotsuedaz
itzi ni bizirik.
–Hareek hartuko baina
ez itzi bizirik.

27
–Horrez gainera daukat
urre kalizia
urre kalizia ta
sobrepelezia.

28
–Hareek emongotsuedaz,
itzi ni bizirik.
–Hareek hartuko baina
ez itzi bizirik.

29
–Zazpi neba dodaz nik
Prantzie kortetik,
beste hiru palazio
urrez doraturik.

30
–Horrek nik emon baga
neureak dodaz nik,
lehenengo puinalkadan
zeartau ba da nik.

31
–Itziok ba itziok,
anaia neurea,
holan ikusi eta
erruki emona.

32
–Ez dago errukirik
bai pena tristea
hementxe nire eskuetan
itzi behar dau bizia.

33
–Ai! nire amak baleki
ni zelan nabilen
zabalduko leukie
Prantzie guztien.

34
–Bederatzi hila bete
ezkondu ginala,
zazpi hilabetekoa
sabelean dodala.

35
–Zazpi izera dodaz
odolez beterik,
zortzigarrentxu honez
banoa mundutik.

36
–Kanpai bat entzuten dot
neure Jaungoikoa
igual izango da
neure agoniekoa.

37
–Zeruan be kanpak dire
ez dakit zergaitik,
igual izango dira
neure heriotzeagaitik.

38
–Abadea ekarrizue
konfesatu naiten,
neure anima triste
hau kontsolatu daiten.

39
–Abadea urrin dago
eleizea urrinago,
honetan ibilteko
asti gitxi dago.

40
–Agur, ama Juanita,
amari goraintzi
sekula ta betiko
ikusi nozu ni.

41
–Zeure aman bihotz gogorra
zuk ere daukazu,
agoni odol santue
opatan zagoz zu.

42
–Ai!, nire amaginarreba
muskerrez betea,
subeak egingo dautsu
arrastiko ohea.

7.1. *J.M. Iriondoren baladak transkribatzeko bidea*

Puntu honetarako banan banan transkribatuko ditugu J.M. Iriondok emandako eredu guztiak. Zergatik? Batetik, eredurik ugariena izan arren, gaur egun balada hau ere nekez bildu daitekeelako; bestetik, nahiz askotan antzerakoak izan, uste ez bezalako zehaztasunak eta aberastasunak dituztelako. Badago besterik ere, J.M. Iriondok izan zituen berriemaile guztiak, gaur egun hilda daude. Grabazioaren garaian berriemaile gehienak laurogeitaz urte zituzten eta hogei urte baino gehiagokoak badira grabazioak, gaur egun biziko balira, ehun urtetik gora izango lituzkete denek.

Lan honetarako aldaerak zenbakitu eta nongoa den esan ondoren, berriemailearen daturik badugu balada baino lehen jarriko dugu. Behin transkripzioa egin ondoren, ahapaldiz ahapaldikako iruzkin bat egingo dugu. *Sutondoko berriketaldiak* liburuan dauden bi ahapaldi, 40 eta 41. Zenbakikoak, ez datoz gure transkripzioetan. Beste eredu batekoak dira eta guk ez dugu geure zintan. Bi horietatik lehena ezagunagoa da, bigarrena aldiz ez dugu beste inon ikusi.

7.2. *Erletxetako aldaera*

Lehenengo aldaera hau Susana Petralanda Etxebarriari (Artola baserria, Erletxekoa, Bizkaia) bildua da 85 urte zituenean. Aldaera honek baditu orain arte argitaratuek ez duten berritasunen bat edo beste. Hamabigarren ahapaldian lau neba-arrebak *Frantzieko errege* direla dio. Balada askotan Frantziako kortetik datorrela esan arren, ez da esaten erregeren arreba denik emaztegaia edo ezkonberria. Gure lehen eredu honetan zehaztasun polit hori ematen da. Gure lan honetako beste eredu batean zehaztasun horrekin bat etorriko da *erregiñesia* dela emaztea esaten baitu.

1
(Etorri) nintzanean
Frantzieko erraiti,
ama billatu neban
etxian bakarrik.

2
–Zer eiten dozu, ama,
orrelan tristerik?
–Nobedade barriak
entzun dodaz, bai, nik.

3
–Zer entzun dozu, ama,
amatxo maitea?
–Ezkondu zareala,
bai, ene semia.

4
–Nondikoa[2] dakarzu
zeure emaztea?
–Frantzieko erraikoa,
amatxo maitea.

5
–Ez dot nik nai errenik
gitxiau frantzesik,
zeure dan berbatxua
kunpridu bagarik.

6
–Zer egingotzet, ama,
amatxo maitea?
–Urten bidera eta
il, ene semia.

7
–Ain da ederra ta
ain da lastimia,
neuk ezin il naikela
neure emaztea.

8
–Zeu kapaz ezpazara,
artuizu anajea,
zeure anaje gazte
estudiantea,
arek lagundukotzu
ilten emaztea.

[2] Zer dio *nondikoa* edo *nundikoa*? Behin eta berriro entzun arren, ez dut ezer garbirik ateratzen.

9
Kapaza geratzen da
bestia(k) kunplitu
——-

10
–Nora naroazue
esan eiñ biostezu?
–Amore kurutz santue
kunplitzen zera zu.

11
–Zazpi mando dakardaz
bai urrez jantzirik,
arexek artu eta
ni itxi bizirik!

12
–Lau neba-arreba dodaz
Frantzieko errege,
ai arek balekie
ai zelan nabillen

13
Orrako or bentanako
ai or emaztea
muskerrak egingotzu
gaur gabean oia!

7.3. *Erletxeko transkripzioari gure oharrak*

Guk transkribatu dugun testua hobeto ulertzeko oharrik behinenak egingo ditugu. Lehenengo eta behin, esan beharrik ere ez dago gaur eguneko eta Bizkaiko euskara idatziaren tradizioan transkribatu ditudala sibilante guztiak: *ezkondu*, *gazte*, *dozu*… Aditz laguntzaileei dagokienez, *deutsut*, *deutsu* eta abar agertzen diren laburduretan eman ditugu *egingotzu* eta ez *egingo deutsu*. Era honetako kantuetan nahitaez adierazi beharreko kontu bat ere badago: berriemaileak ez ditu berdin egiten fonetismo guztiak. Beste modu batera esateko, kasurako –ea guztiak ez ditu beti *-ea* egingo, noizean behin –ia bat ere entzun daiteke. Horrelako zerbait gertatzen da, esaterako, ttikigarriarekin –txo eta –txu ere entzun daitezke. Ohar orokor hauek egin ondoren, iruzkindu ditzadan bat banaka ahapaldi guztiak:

1
(Etorri) nintzanean
Frantzieko erraiti,
ama billatu neban
etxian bakarrik.

Lehen ahapaldia guk dugun grabazioan ez da erabat osoa, hasierako *etorri* ez baita entzuten. Gure baladako senar ezkonberria *Frantzieko erraiti* dator. Halaxe dio eta ez ahapaldi batean bakarrik, laugarrenean berdin esaten du. Guk ditugun beste balada batzuetan ere berdin gertatzen da. Zer adierazten

du *errai* hitzak? Badira hainbat aukera, hiru ematekotan hona hemen: *(h)erri, errai* edo *errainu*. Lehena izan daiteke, Euskal Herri edo Gaztelerri dauden bezalaxe Frantziako erri ere izan daiteke. Lehen aukera hau, hala ere, ez zaigu erabat egokia iruditzen. Bigarrena, Frantziako erraitik izan ote daiteke, errai *entraña* edo horrelako zerbait adierazten duela? Kasu honetan zentzu adierazkorra izango luke; hau da Frantziako erditik edo Frantzia sakonetik edo Frantzia barru-barrutik… Bizenta Mogelek *neguaren erraia* zioen neguaren bihotza edo gerria adierazteko. Horrelako zerbait izan ote daiteke? Hirugarren esangura bat *errainu* hitzaren laburpen bat izango litzateke. Mendebaldeko euskaran *errainu* ekialdeko euskalkietako *erresuma* hitzaren ordain den neurrian izan daiteke hirugarren adiera hau ere.

2
–Zer eiten dozu, ama,
orrelan tristerik?
–Nobedade barriak
entzun dodaz, bai, nik.

Eredu askotan aurkitzen den ahapaldia. Frantziatik datorren semeak ama tristerik aurkitzen du. Zenbaitetan non aurkitzen duen ere esaten da, etxeko sukaldean.

3
–Zer entzun dozu, ama,
amatxo maitea?
–Ezkondu zareala,
bai, ene semia.

4
–Nondikoa dakarzu
zeure emaztea?
–Frantzieko erraikoa,
amatxo maitea.

Laugarren ahapaldian, lehenean bezalaxe, *Frantzieko erraikoa* dator.

5
–Ez dot nik nai errenik
gitxiau frantzesik,
zeure dan berbatxua
kunpridu bagarik.

6
–Zer egingotzet, ama,
amatxo maitea?
–Urten bidera eta
il, ene semia.

Urten bidera eta agintera eredu askotan ematen da. Mendatako ereduan *urten basamortura ta* dator.

7
–Ain da ederra ta
ain da lastimia,
neuk ezin il naikela
neure emaztea.

Halaxe entzuten da *lastimia*, batetik, eta, *emaztea*, bestetik. *Ain da lastimia* esaldian lastima hitza adjektibo zentzuan, *hain da lastimagarria* esan nahi du. Ahapaldi honetako bi ideia nagusiak, emaztearen edertasuna eta emazte hiltzeko ezintasuna, balada gai honetan askotan aipatzen dira.

8
–Zeu kapaz ezpazara,
artuizu anajea,
zeure anaje gazte
estudiantea,
arek lagundukotzu
ilten emaztea.

9
Kapaza geratzen da
bestia(k) kunplitu

Gure berriemaileak lehen zortzi ahapaldiak kantatu ondoren, isilune bat egin eta *oixe da* dio, eta ondoren *ondikarren geratzen da* gaineratzen du. Behin bederatzigarrena kantatzen hasten denean, ahapaldi pusketa bat kantatzen du. Guk ulertzen duguna *Kapaza geratzen da/ bestia(k) kunplitu* da. Zer esan nahi du horrek? Hiltzeko kapaz edo gai dena gelditu egiten dela, hau da, estudiante gazteak ez duela hiltzen, eta besteak, seme ezkonduak, *kunplitzen* duela amaren agindua. Horrelaxe interpretatzen dugu guk.

10
–Nora naroazue
esan eiñ biostezu?
–Amore kurutz santue
kunplitzen zera zu.

Ahapaldi honetan badira nahasian kontu ilunak eta argiak. Argietan argiena lehen bi bertso-lerroak dira. Bi bertso-lerroetako aditza ere garbi entzuten da: *naroazue*. Bere garbitasun horretan, zentzuari gagozkiola, kontraesan moduko bat dago, naroazue pluralean dioelako, hau da zuek, eta *biostezu* horretan singularra, hots, *zuk*. Ahapaldiaren bi azken bertso-lerroak ilunxkoak dira. Behin eta berriro entzunez *Amore kurutz santue* entzuten dugu, eta badirudi errainak bere (paparreko edo eskuko) kurutzeari hil aurretxoan eskatzen dioen laguntza-deia dela. Baliteke, beste modu zabalago eta argiago batean ulerturik, Jaungoikoari laguntza eskatzen diola kurutzea izendatuz. Harrigarriena eta ulerkaitzena, ordea, azkeneko *kunplizen zera zu* esaldia da.

11
–Zazpi mando dakardaz
bai urrez jantzirik,
arexek artu eta
ni itxi bizirik!

Adizkiei dagokienez, garbi entzuten da: *dakardaz*. Laugarren ahapaldian, ostera, ez da hain garbi entzuten *dakarzu* adizkiko –r– konsonantea.

12
–Lau neba-arreba dodaz
Frantzieko errege,
ai arek balekie
ai zelan nabillen

Ahapaldi honetan aski garbi entzuten da transkribatutako guztia. Adizkiei dagokienez, baliteke *nabillen* adizkia hasiera batean *narabilen* edo *narabilden* izatea, hau da, ni nola "narabilten" (amaginarreak eta honen semeak).

13
Orrako or bentanako
ai or emaztea
muskerrak egingotzu
gaur gabean oia!

Azken ahapaldi honetan ilunxko entzuten da, esaterako, *Orrako or* hasierakoa; *bentanako*, ostera, ondo entzuten da. Badirudi, beraz, amaginarreba bentanatik ari dela ikusten bere errainaren heriotza. Azken hitzari dagokionez, *oia* silaba bitan ahoskatzen du balada kantariak.

7.4. *Erletxetako bigarren aldaera*

Juan Mari Iriondoren bigarren aldaera hau lehenaren toki berean bildua dago Erletxetan. Lekukoa edo berriemailea Zelestina Altuna Mendiola, 87 urte, Erletxekoa.

1
–Etorri nintzanian
Frantzia (i) aldeti,
ama topadu neban
etxian bakarrik.

2
–Zer egiten deu, ama,
orrelan tristerik?
–Nobedade barriak
entzun dodaz, bai, nik.

3
–Ze nobedade entzun dau,
bai, ama guriak?
–Ezkondu zariela,
bai, nere semia.

4
–Eztau entzun guzurrik
esan dabenian,
ortxe bidian da ta
neure emaztia.

5
–Nunditikoa dozu
zeure emaztiori?
–Frantzesaren alaba
an goiko bidian.

6
–Eztot bier frantzesik
añ gitxi ingelesik,
urten bidera (i) eta
kenduizu bizia!

7
–Ezta posible, ama,
neuk ori (i) eitia!
Ain de eder-galanta
neure (i) emaztia!

8
–Zeu kapaz ezpazara
(i) artizu anajia,
orretarako bere
estudiantia..

9
–Bajatu zaiz, Juanita,
mando orren ganeti,
sartu deizudan puñalau
biotzan erditi.

10
–Zeure puñalaren
puntiaren zorrotza!
Ikusiaz beste barik
ilten deust biotza.

11
–Zazpi izera dodaz
odolez mantxaurik,
zortzigarrentxu onek
banoa muduti.

12
–Ekarrizu abadia
ni konfesetako.
–Abadia (i) urrin dago
(i) eles(a) urriñago,
orretan ibilteko
(i) asti gitxi dago!

13
Zeure amaren
biotzan gogorra!
Sugeak eingo baleuskio
(i)arratserako oia.

7.5. *Erletxetako bigarren eredua ahapaldiz ahapaldi*

Azpipuntu honetan, aurreko ereduan bezalaxe, ahapaldi guztiak banan-banan ditugu.

1
–Etorri nintzanian
Frantzia (i) aldeti,
ama topadu neban
etxian bakarrik.

Oraingo aldaera au, aurrekoa bezala, Bizkaiko Erletxekoa izan arren, *nintzanian* bezalako formak ikusiko ditugu beti. Aurreko aldaeran, ordea, ia beti -ea: *emaztea, gaztea*…

2
–Zer egiten deu, ama,
orrelan tristerik?
–Nobedade barriak
entzun dodaz, bai, nik.

Amari berorika hitz egiten dio semeak. Guk ditugun testigantza ez oso zaharretan ere halaxe ikusten dugu. Balentin Berriotxoakoak amari egindako kartak berorika daude, Azkuek bere amari egin zizkionak ere berorika… Aditzari dagokionez *deu* entzuten dugu, eta hurrengo ahapaldian eta hurrengoagoan, ostera, *dau*.

3
–Ze nobedade entzun dau,
bai, ama guriak?
–Ezkondu zariela,
bai, nere semia.

Goragoko arrastoan jarraitzen du oraingoan ere: amari berorika egiten dio. Fonetismoen aldetik oraingo eredu honek ez du salbuespenik, ea>ia bihurtzen da, beti.

4
–Eztau entzun guzurrik
esan dabenian,
ortxe bidian da ta
neure emaztia.

Hasieran *ortxe bidian dator* transkribatu dugu. Hurrengo entzunaldietan, ordea, *ortxe bidian da ta* entzun dugu. Gainerakoak ez du inolako zalantzarik.

5
–Nunditikoa dozu
zeure emaztiori?
–Frantzesaren alaba
an goiko bidian.

Galdetzailea ahapaldi honetan *nonditikoa* da, forma pleonastikoa, ablatiboaren marka bi aldiz agertzen baita. Ablatiboaren marka bikoitzaz gainera, forma adnominala ere badugu. Polita da, era berean,

galdetzailearen ondoren datorren *dozu* adizkia. Ahoskerari dagokionez, *emaztiori* hiru silabatan dio *–tio–* silaba bakarrean ebakiz.

6
–Eztot bier frantzesik
añ gitxi ingelesik,
urten bidera (i) eta
kenduizu bizia!

Hemen ere, bestetan bezala, ez da agertzen datiboaren markarik, ez du esaten “kenduiozu bizia” uste genukeen moduan.

7
–Ezta posible, ama,
neuk ori (i) eitia!
Ain de eder-galanta
neure (i) emaztia!

Ez du inolako arazorik transkribatzeko orduan.

8
–Zeu kapaz ezpazara
(i) artizu anajia,
orretarako bere
estudiantia.

Transkripzio garbiko ahapaldia.

9
–Bajatu zaiz, Juanita,
mando orren ganeti,
sartu deizudan puñalau
biotzan erditi.

Transkripzio garbikoa. Ahoskerari dagokionez, *mando orren ganeti* sintagman *mando orren* hiru silabatan ahoskatu du.

10
–Zeure puñalaren
puntiaren zorrotza!
Ikusiaz beste barik
ilten deust biotza.

Transkripzio garbikoa. Ahoskerari dagokionez, berriemaileak *puntiaren* hitza hiru silabatan ahoskatu du. Ahapaldi honetan, beste eredu batzuetan agertzen den egitura finko bezain indartsu bera ikusten dugu*: ilten deust biotza*.

11
–Zazpi izera dodaz
odolez mantxaurik,
zortzigarrentxu onek
banoa muduti.

Ahapaldi honetako ablatiboari dagokionez, balada osoan entzun dugun –ti jarri dugu oraingoan ere. Esan beharrik ez dago *banoa* adizkia *banaroa* baten laburdura dela. Balada askotan ematen den *zazpi/zortzigarrentxu* egitura ere bere betean ikusten dugu.

12
–Ekarrizu abadia
ni konfesetako.
–Abadia (i) urrin dago
(i) eles(a) urriñago,
orretan ibilteko
(i) asti gitxi dago!

Kopla luze bat balitz bezala transkribatu dugu. Esan beharrik ez dago "elesa urrinago" behar lukeela, baina ahoskatzen duen moduan transkribatzen ahalegindu gara.

13
Zeure amaren
biotzan gogorra!
Sugeak eingo baleuskio
(i)arratserako oia.

Madarikazio indartsu horrek ematen dio baladari amaia. Bizkaiko euskaran *arrats* hitzaren erabilera galdua dago. Esaera zaharretan eta zahar kutsuko kantu edo kopletan bakarrik gordetzen da; Satrustegik zioen bezala testu ihartuetan gordetzen den hitza da *arratsa*. Azken kopla honetakoa adibide garbia da.

7.6. *Hirugarren aldaera, Zeanurikoa*

Bizkaiko mendebaldeko Zeanuri herrian egindako hainbat aldaera ezagutzen ditugu: *Anuario de Eusko Folklore* 1933, 71 or. (*EE* VII), Aitzolen bildumakoa (*EE* VIII), Manuel Lekuonaren bildumako bat (*EE* IX), *Mendebaldeko Euskal Baladak* (*MEB*) liburukoa (*EE* X). Gure oraingo hau *MEB* liburuko berriemaile berari egina da, Bitoria Artetxeri, hain zuzen 82 urte zituela.

1
Etorri nintzanian
Frantzie partetik,
ama topadu neban,
ama topadu neban
etzean bakarrik.

2
–Ze egiten dozu, ama,
orrelan tristerik?
–Nobedade berriek
nobedade berriek
entzun dodaz, bai, nik.

3
–Ze nobedade entzun dau
bai, ama neuria?
–Ezkonetan zariala,
ezkonetan zariala,
bai, ene semia.

4
–Nundikoa dakazu
zeure emaztia?
–Frantzie partekoa,
Frantzie partekoa,
bai, ama neuria.

5
–Ez dot gure frantzesik
ain gutxi errenik.
Egin dodan promesau,
egin dodan promesau
konpridu biot nik.

6
Ze promes dauko, ba, ama,
konpridu eiteko?
–Yoan bidera eta,
yoan bidera eta
Juanita ilteko.

7
–Ain de ederra eta
ain de galanta be,
nik ori egitia,
nik ori egitia
ez da inposible.

8
–Zau ezpazara kapaz,
anajia artu eizu
anajia ezpada kapaz,
anajia ezpada kapaz,
estudiantia.

9
–Joanita, yatsi zaitez
zaldi orren ganeti,
sartu deitzuden puñelau,
sartu deitzuden puñelau,
biotzen erditi.

10
–Ai orren puñelorren
puntiaren zorrotza!
ikusiak beste barik
ikusiak beste barik
ilten dust biotza!

11
–Amalau mando dodaz
urregorriz kargaurik,
aik emongo'utzudez da,
aik emongo'utzudez da
ni itxi bizirik.

12
–Aik artuko'odaz baie
ez itxi bizirik.
Lelengo puñelkadan
lelengo puñelkadan
zeartau bagarik.

13
–Abadea ekarrizu
konfesaduteko,
neure arima tristiau,
naure arima tristiau
konsoladuteko.

14
–Abadea urrin dago,
elexea urrinego,
orrelan ibilteko,
orrelan ibilteko,
asti gitxi dago.

15
–Zeruen kanpak direz
eztakit zegaiti,
igual izingo direz,
igual izingo direz,
neure eriotzeagaiti.

7.7. *Zeanuriko eredua ahapaldiz ahapaldi*

1
Etorri nintzanian
Frantzie partetik,
ama topadu neban,
ama topadu neban
etzean bakarrik.

Lehen ahapaldi honetan, berriemaileak bertso-lerroaren azkena ondo ahoskatzeko ahaleginez edo, ondo markatzen du ablatiboaren –tik forma *Frantzie partetik* dioenean. Oraingo gure *performance* honetan argi entzuten dugu *etzean* horretako –ea– bokalak.

2
–Ze egiten dozu, ama,
orrelan tristerik?
–Nobedade berriek
nobedade berriek
entzun dodaz, bai, nik.

Bigarren ahapaldian, amari zuka egiten dio. Geroagokoetan, ordea, berorika. Harrigarria da erregistro aldaketa hau balada berean. Markatzekoa da *dozu* eta *ama* hitzen artean egiten den yod edo delako kanturako bigungarria: *ze egiten dozu (i), ama*, …

3
–Ze nobedade entzun dau
bai, ama neuria?
–Ezkonetan zariala,
ezkonetan zariala,
bai, ene semia.

Gorago aipatu dugun erregistro aldaketaz gainera, markagarria da Bizkaiko mendebaldeko *ezkonetan* forma. Bizkaian bertan *ezkontzen* eta *ezkonduten* formak ekialdekoagoak dira. Polita da, era berean, ahapaldi berean ikustea *neure/ene* posesiboak. Historikoki funtzio desberdina izan dutenak *bihurkaria/ez bihurkaria* hemen ez dago holako oposiziorik.

4
Nundikoa dakazu
zeure emaztia?
–Frantzie partekoa,
Frantzie partekoa,
bai, ama neuria.

Zer entzuten da *dakarzu* ala *dakazu*? Bi aukera horien artean bigarrena garbiago dago. Zeanuritarren hizkeran posesiboak *naure/zaure* eta abar dira. Bihurkari zaharretatik eratorritako *neu, zeu* eta abar *nau, zau* dira zeanuriztarren ahoan Hemen, ostera, *zeure emaztia* entzuten dugu.

5
–Ez dot gure frantzesik
ain gutxi errenik.
Egin dodan promesau,
egin dodan promesau
konpridu biot nik.

Oraingo ahapaldi honetako konturik harrigarrienetakoa *ain gutxi* horretako *gutxi* dugu eta ez, Bizkaiko euskaran normala den *gitxi*. Kontuan hartzekoa da kanta zaharretako egitura hori erdarazko *tampoco* horren ordain ez ezik, are baliokide zuzena dela.

6
Ze promes dauko, ba, ama,
konpridu eiteko?
–Yoan bidera eta,
yoan bidera eta
Juanita ilteko.

Beste transkripzio batzuetan Mendebaldeko Euskal Baladak, 32 or. (hemendik aurrera, laburtzearren MEB) Ez da aipatzen *Juanita*, *andria* baizik. Guk "joan" aditza transkribatzeko *yoan* jarri dugu, Bizkaiko mendebaldeko zeanuritarren euskara hobeto ispilatzeko.

7
Ain de ederra eta
ain de galanta be,
nik ori egitia,
nik ori egitia
ez da inposible.

Ahapaldi hau baino lehenago berriemaile berak beste ahapaldi bat kantatu ohi du, baina gure transkripzioan ez da agertzen. Zentzuaren aldetik badirudi *ez da posible* beharko lukeela, baina ikusi ditugun kantaldi edo *permormance* guztietan *ez da inposible* esan ohi du. MEB liburuan beste era batera agertzen da: *Ain de ederra eta/ ain de galanta be,/ ez da inposible, ama,/ ez da inposible, ama,/ nik ori egitia*.

8
–Zau ezpazara kapaz,
anajia artu eizu
anajia ezpada kapaz,
anajia ezpada kapaz,
estudiantia.

Gorago aipatu dugun *zau* agertzen da. *MEB* liburuan honela hasten da: *Zau ezpazara kapaz/ artu eizu anajia.*

9
–Joanita, yatsi zaitez
zaldi orren ganeti,
sartu deitzuden puñelau,
sartu deitzuden puñelau,
biotzen erditi.

Badira zenbait gauza iruzkingarri. *Joanita* pertsona izena *jauna*, *jaungoiko* eta *basajauna* bezala ahoskatzen dute Zeanurin, hau da, kontsonante belarearekin. *Jaitsi* aditza, aldiz, ez. Horrexegatik trankribatu dugu *yatsi*. Ahapaldi honetako ablatiboak *ganeti* eta *erditi* dira. Ez dugu, beraz, entzuten *ganetik* eta *erditik*. Lehen ahapaldian, ostera, *partetik* entzuten genuen argi eta garbi. Azken bertso-lerroko *biotzen* forma aldetik plurala badirudi ere, singularra dugu. MEB liburuan ez da artikulu hurbilik ikusten eta *puñela* transkribatu dute kasu bietan. Adizki laguntzaileari dagokionez, guk geure grabazioan *zaitez* entzuten dugu garbi, nahiz, gehienetan, Arratian, *zate* entzuten den. Duda txiki bat sortu zaigu beste adizki laguntzaile batean: nola transkribatu behar da (nola dio, beraz, berriemaileak) *deizuden* edo *deitzuden*?

10
–Ai orren puñelorren
puntiaren zorrotza!
ikusiak beste barik
ikusiak beste barik
ilten dust biotza!

Ahapaldi honetan ere artikulu hurbila ikusten dugu: *orren puñelorren*. Aurreko ahapaldian ez ezik, bosgarrenean ere berdin agertzen da*: promesau*. Duda txiki bat ere izan dugu honetan. Nola dio *ikusiaz beste barik* edo *ikusiak beste barik*? Behin eta berriro entzun ondoren, bigarren aukera transkribatu dugu.

11
Amalau mando dodaz
urregorriz kargaurik,
aik emongo'utzudez da,
aik emongo'utzudez da
ni itxi bizirik.

Ahapaldirik ederrenetakoa dugu hau. *(H)areek* erakuslea Zenuriko euskaran *aik* da. Ez dago esan beharrik *emongo'utzudez* hori *emongo deutsudaz* aditzaren laburdura dela.

12
–Aik artuko'odaz baie
ez itxi bizirik.
Lelengo puñelkadan
lelengo puñelkadan
zeartau bagarik.

Ditugun aldaera guztietan agertzen da aditz bera: *zeartau*. Aditz honek *zartatu* esan nahi ote du?

13
–Abadea ekarrizu
konfesaduteko,
neure arima tristiau,
naure arima tristiau
konsoladuteko.

Ahapaldi honetan *tristiau* hitzean artikulu hurbila ikusten dugu. Baina kontu hau balada honen beraren aurreko bi ahapalditan ere ikusi dugu. Hain garbi ikusten ez duguna da zer ote dioen *neure* edo *naure*? Bigarrenean *naure* garbiago entzuten dugulakoan nago.

14
–Abadea urrin dago,
elexea urrinego,
orrelan ibilteko,
orrelan ibilteko,
asti gitxi dago.

Ahapaldi honek ez digu inolako arazorik eman. Zerbait markatzekotan *gitxi* forma dugu. Lehenago *ain gutxi* ikusi dugu, baina bakarrik egitura horretan ematen da, ez gainerakoetan.

15
Zeruen kanpak direz
eztakit zegaiti,
igual izingo direz,
igual izingo direz,
neure eriotzeagaiti.

Beste kantaldi edo *performance* batzuetan beste ahapaldi bat ere kantatzen du berriemaileak. Hona MEB liburuan agertzen dena: *–Zazpi izera dodaz/ odolez mantxaurik,/ zortzigarrentxu onek,/ zortzigarrentxu onek/ naroia ni mundutik*. Gure ahapaldi hau beste modu batera kantatu eta beste modu batera transkribatzen dute *MEB*eko adiskideek*: Eleizan kanpaiak dire,/ eztakit zegati/ igual izingo dire,/ igual izingo dire/ neure eriotzeagaiti*.

7.8. *Laugarren aldaera, Munitibarkoa*

Munitibarren (Bizkaiko ekialdean), 76 urte zituela Sabina Urriolabeitiari bildua da orain transkribatuko dugun aldaera.

1
Soldadu juan nitzan
zortzi bat urteko,
errege serbiduta
libra izateko.

2
Etxera netorrela
lizentzia (i) orrekin,
enamoratu nintzan
damatxu batekin.

3
Gero juan nitzan
Prantzieko kortetik,
ama billatu neban
etxian bakarrik.

4
–Egunon Jangoikuak
eman deizun, ama,
–Alan ekarri daizun,
bai, neure semia!

5
–Ezkonduta ala ezkongei
zatoz zeu semia?
–Ezkondute nator,
bai, ama neuria!

6
–Prantzesa ala ingelesa
daka(r)zu andria?
–Prantzesa daka(r)da ta,
bai, ama neuria.

7
–Prantzesik eztot biar
erregiñesia,
onera ekarri baga
il zaizu bidia(n).

8
–Guazen, bai, guazen
anaia geuria!
bidian topauko juau,
bai, neure (i) andria.

9
–Nora zoaz andria
gau onen erdian?
Igual juango zera
(i) egunen erdian!

10
–Jatsi zagidaz
kaballo ganeti,
amentxe il bear zaitut
oraintxe nik!

11
–Zazpi mando dakarraz
urraz kargaturik,
beste iru palazio
urraz doraturik.

12
–Onetxek emongo deutzuaz
lagaizu bizirik!
–Orretxek eman baga
neuriak ditut nik.

13
–Itxiok, bai, itxiok
anaia neuria!
Olan ikusi eta
erruki emana.

14
–Ez dago (i) errukirik,
bai, pena tristia,
amentxe neure eskuetan
itxi bear dau bizia!

15
–Bederatzi illabete
ezkondu giñala,
zazpi illabetekua
sabelien dodala.

16
–Agur, Bizkaiko seme,
amagiñerraba,
auen musker andi bet
sartuko ialkana!

7.9. *Munitibarko eredua ahapaldiz ahapaldi*

Munitibarko aldaera hau da, beharbada, gure lan honetako harrigarriena. Gure ale honetako lehen bi ahapaldiak beste eredu batean ikusi ditugu. *Soldadu joan nintzan* ereduko bi ahapaldi (ez lehen biak) eta Munitibarkoak bat datoz. Aita Bitoriano Gandiagak bildu eta Luis Villasantek argitaratu zuen eredu hori. Guk geuk ere Araotzen bildu genion aita Bitoriano Gandiagaren berriemaile berari. Hona beste gabe B. Gandiagaren lehenengo eta bosgarren ahapaldiak (Villasante: 1968):

Soldadu sartu nintzan
zortzi bat urteko,
Errege serbidu-ta
trikitin parian baiña,
ai libre izateko.

Bergaran nindoiela
birgariarekin,
enamoratu nintzan,
trikitin parian baiña,
ai, damatxo batekin.

Lehen eta bosgarren ahapaldi hauek berak dira gure lehen biak aldaera nimiño batzuk gorabehera. Sarrera horrezaz gainera, badago besterik ere. Zazpigarren ahapaldian *erregiñesia* dela emaztegaia dio. Errege serbidu ondoren emaztea kendu ote dio? Edo emaztearen alaba edo printzesa *erreginesa* egin ote du? Edertasunaren aldetik, hamargarrena zoragarria da beste inon agertzen den nor-nori aditz laguntzailea duela (jatsi zagidaz kaballo ganetik). Eder mailarik handienetakoa beste inon ikusi ez ditugun "hiru palazio doratuak" dute. Honatx beste gabe eredua:

1
Soldadu juan nitzan
zortzi bat urteko,
errege serbiduta
libra izateko.

Entzun ditugun balada beraren bi kantalditan berdin esaten du: *libra*. Kontu ezaguna da Bizkaiko euskeran –e bukatzen diren zenbait hitz –a dutela bukaera, laba, lora, errega… Hau ere holakoa ote da?

2
Etxera netorrela
lizentzia (i) orrekin,
enamoratu nintzan
damatxu batekin.

Adizki barruko –n– horiek ez ditugu entzuten. Nola dio *nitzan* (bi aldiz), *netorren* edo *nintzan* eta *nentorren* ? Behin eta berriro entzun ondoren, *nitzan* eta *netorren* transkribitu dugu. Bokalez amaitzen diren bi hitzen artean *lizentzia* eta *orrekin* horien artean loturazko (i) egiten du balada-kantariak.

3
Gero juan nitzan
Prantzieko kortetik,
ama billatu neban
etxian bakarrik.

Hirugarren ahapaldi hau garbi baino garbiago agertzen da. Eredu ia guztietan *etorri nintzan Frantzie kortetik* da; gurea, alderantzira: *juan nitzan Prantzieko kortetik*.

4
–Egunon Jangoikuak
eman deizun, ama,
–Alan ekarri daizun,
bai, neure semia!

Ahapaldi honetan konturik harrigarriena *eman* aditza dugu. Bizkaiko euskaran *emon* agertu beharko luke. Kontu ezaguna dugu Bizkaiko balada askotan giputz-euskararen arrastoak agertzea.

5
–Ezkonduta ala ezkongei
zatoz zeu semia?
–Ezkondute nator,
bai, ama neuria!

Eredu honetan ere, beste eredu askotan bezalaxe, *ezkonduta ala ezkongei zatoz?* galdera dator. Harrigarria da amak *ezkonduta* galdetu ondoren semeak *ezkondute* erantzutea. Lehenaren azken –a ondoko *ala* horren eraginezkoa ote da? Lehen entzunaldietan *ezkonge* entzuten genuen arren, gerora garbi konturatu gara *ezkongei* dioela, hau da, bazter euskalkietako –gei atzizkiarekin.

6
–Prantzesa ala ingelesa
daka(r)zu andria?
Prantzesa daka(r)da ta,
bai, ama neuria.

Hitzei dagokienez*, ingelesa* dio, bete-betean, *muta cum liquida* edo *anaptisia* eginez. Aditzei dagokienez, bada kontu ilunxkorik. Ekarri aditzaren forma jokatua *dakart* horretan, aditz erroko –r– ez dugu argi entzuten, kasu bietan. Bigarrenean *daka(r)da ta* entzuten dugu behin eta berriro.

7

–Prantzesik eztot biar
erregiñesia,
onera ekarri baga
il zaizu bidia(n).

Ahapaldi hau dugu iluntxoena. Hizkerari dagokionez, giputz-euskarako *(h)onera* entzuten da garbi eta *zaizu* aditz laguntzailea. Aditz laguntzaile honek zerbait izatekotan *(e)zazu* baten desitxuratzea izan behar du, inolaz ere. Semeak emaztea *bidean* hil behar luke, gure berriemaileak inesibo marka gabe dio: *bidia*. Zentzuari dagokionez, badago berritasun polit bat: Frantzia kortetik dakarren emaztea *erreginesa* da. Ez dugu uste beste inon esaten denik datu hau. Erregina hitzak Bizkaiko ekialdean –sa atzizkia hartu ohi du. Markinaldean, kasurako, beti entzun dugu *erregiñesa* eta ez *erregiña*.

8

–Guazen, bai, guazen
anaia geuria!
bidian topauko juau,
bai, neure (i) andria.

Dena argi entzuten dugu oraingo ahapaldi honetan. Anaiari *guazen* birritan esaten dio. Geroago *topauko juau* dio, gaur egun ere Bizkaiko ekialdean esaten den bezalaxe. Adizki hori, esan beharrik ez dago, joagu(k) batetik dator. Adizkiak berka baino adizkiaren ahoskerak harritu gaitu, bi silabatan baitio, jua– hori silaba bakarrean ahoskatuz.

9

–Nora zoaz andria
gau onen erdian?
Igual juango zera
(i) egunen erdian!

Gauza harrigarrien artean fonetismoetan berdin ez jokatzea da. Ahapaldi berean *zoaz* dio eta hurrengo *juango* eta ez *joango*. Etorkizuneko forma hau, gainera, hiru silabatan dio.

10

–Jatsi zagidaz
kaballo ganeti,
amentxe il bear zaitut
oraintxe nik!

Jaitsi aditza, gaur egun bizkaitar gehienok *jatzi* esan arren, tradiziozko forman transkribatu dugu: *jatsi*. Aditz laguntzaileari dagokionez, beti entzuten dugu *zagidaz* eta ez tradizioak eskatzen duen *zakidaz*. Ablatiboari dagokionez*, ganeti* entzuten dugu, behin eta berriro, nahiz eta gero hoskide duen *nik* batez bukatu ahapaldia.

11

–Zazpi mando dakarraz
urraz kargaturik,
beste iru palazio
urraz doraturik.

Garbi entzuten da. Aditzei dagokienez, infinitiboek –tu dute bukaera: *kargatu/doratu*. Aditz jokatua literaturan *dakardaz* agertu arren, gaur eguneko ahoskeran *dakarraz* da. Urre hitza *urra* entzuten dugu mandoak *urraz* kargaturik daude eta jauregiak *urraz doraturik*.

12
–Onetxek emongo deutzuaz
lagaizu bizirik!
–Orretxek eman baga
neuriak ditut nik.

Emazteak aberastasunak eskaintzen dizkio lehen bi bertso-lerroetan. Bizkaiera literarioan *one(t)xeek emongo deutsudaz/ laga nagizu bizirik!* izango litzateke. Harrigarria bada ere, eta nahiz eta lehen bertso-lerroa luzatu, *emongo deutzuaz* entzuten da eta ez *emongotzuaz*. Mutilaren erantzun krudela argi baino argiago ulertzen da: emazteak, hiltzera doanez gero, ez dauka ezer eman beharrik. Oraingoan ere ez da Bizkaikoa den *emon* entzuten, ekialderagoko *eman* baizik.

13
–Itxiok, bai, itxiok
anaia neuria!
Olan ikusi eta
erruki emana.

Oraingoan *anaia neuria* entzuten dut eta ez gorago bezala *anaia geuria*. *Erruki emana* horrekin hoskidetasuna ez ezik, beste zerbait galdu edo aldatu delako irudipena egiten zaigu.

14
–Ez dago (i) errukirik,
bai, pena tristia,
amentxe neure eskuetan
itxi bear dau bizia!

Kontu harrigarri bat baino gehiago badira ahapaldi honetan. *Pena tristia* bi hitzeko egitura pleonastikoa eder bezain harrigarria egiten zaigu. Silaba kontatzeari dagokionez, *eskuetan* hiru silabatan kantatu beharrean aurkitzen da berriemailea. Bada, azkenik, duda bat. Zer dio azken bertso-lerroan *dau* edo *do(t)* edo *don*? Zentzuari dagokionez, lehen aukera ondo legoke nahiz bitxia izan: zuka hitz egiten hasi ondoren, berorika forma batera pasatu? J.M. Iriondok *itzi bear dau bizia* transkribatu du, gure lehen aukera on eginez. Bigarren aukera ere harrigarria da, senarrak hitz egiten duenez gero, ezin da *do(t)* adizkia izan, hiltzen dena emakumea delako. Baina berriro markatu behar dugu: zerbait garbi entzuten bada *do–* da. Badago besterik ere *do–* entzuten bada, ez ote da *don* esaten, hau da, emazteari hika eginez eta errespetu guztia galdurik?

15
–Bederatzi illabete
ezkondu giñala,
zazpi illabetekua
sabelien dodala.

Ahapaldi hau ez da Bizkaiko beste aldaeretan agertzen. Nafarroako aldaeran, Gartzaingoan, argi agertzen da hil behar duen emakumea haurdun dagoela. Balada edertasunez janzten du ahapaldi berri honek. Ez dago esan beharrik krudeltasuna handiagotu egiten duela ahapaldi honek, pertsona bat hil

beharrean bi hiltzen baititu hiltzaileak. Ahapaldi honetan agertzen den argitasunak antzekotasun handiagoak ematen dizkio *Urtsua* baladarekin. Ahoskeraren aldetik *illabetekua* bost silabatan ematen du *–kua* silaba bakarrera ekarriz eta *sabelian* hiru silabatan ahoskatzen du.

16
Agur, Bizkaiko seme,
amagiñerraba,
auen musker andi bet
sartuko ialkana!

Hemen ahapaldian badago berritasunik. Muskerra sartzeko desira ez da besteetan bezala *ohean, auen* baizik, behin eta berriro entzuten dugunez. Aditzari dagokionez, yakana/iakana entzun beharrean "ialkana" entzuten dugu. Birritan kantatzen duenez balada bera bi aldietan entzuten dugu adizki bera. Kantariaren huts bat ote da? Edo desira adierazten duen *al* hori aditzaren erdian txertatu du? Tratamenduari dagokionez, oraingo ahapaldi honetan ez dago dudarik: amaginarrebari lotsagabeki hika egiten dio. *Agur, Bizkaiko seme*, bitxia iruditzen zaigu benetan. Deiki hau Azkueren Bizkaiko hiru ereduetan aurkitzen zen, Mendata, Gabika eta Zugaztietakoan. Azken ahapaldi honen gainean Azkueren ereduak aztertzean hitz egin dugu.

7.10. *Bosgarren eredua Dimako Artaungoa*

Eredu hau Juliana Sagarna Ortuondori bildua da. Ez daukagu berriemailearen zehaztasun gehiago. Ez dakigu, era berean, noiz bildu zen.

1
Etorri nintzanian
Frantzie parteti,
ama topadu neban
etzian bakarrik.

2
–Ama, zer egiten deu
orrelan tristerik?
–Nobedade barriek
antzun dodaz, bai, nik!

3
–Ze nobedade barri
entzun dau neure amak?
–Ezkonetan zariala,
bai, neure semea.

4
–Nondikoa dakarzu
zeure emaztea?
–Frantzie partekoa
da, (i) ama neuria.

5
–Eztot bear frantsesik
angotxe errenik,
egin dodan promesa
konpridu bear dot nik!

6
–Ze promesa egin deu ba,
bai, ama neuria?
–Urten bidera eta
il eizu, semia.

7
–Ez da posible, ama,
nik ori eitia.
–Zeu kapaz ezpazera
(i)artizu anajia!

8
–Anaje gaztea ta
estudiantia,
aretxek kendukotze
areri bizia!

9
–Juanita, yatzi zaitez
mando orren ganeti!
sartu deizudan puñelau
biotzen erditi!

10
–Ai orren puñelorren
zorrotzen zorrotza!
ikusiaz beste barik
ilten daust biotza!

11
–Ai nire amak baleki
zelan nabillien,
zabalduko leukie
Frantzie guztien!

12
–Amalau mando datoz
urriagaz jantzirik,
beste hamalau datoz
zidarrez beterik.

13
–Are(e)k artuizuz eta
itxi ni bizirik!
–Are(e)k artukuz, baia
ez itxi bizirik!

14
–Zazpi izera dodaz
odolez beterik,
zortzigarrena, barriz,
etzien mantxaurik.

15
–ta entzuten dot,
bai, neure kanpaikua
igual izingo da
(i)agobanikua.

16
–Abade ekarrizue ba
konfesau naitian!
–Abadea urrin dago
elexea urrinago!
Orretan ibilteko
asti gitxi dago.

17
–Ai nire amagiñerraba
muskerrez betia!
subeak egingotzo
arratseko oia!

7.11. *Dimako eredua ahapaldiz ahapaldi*

1
Etorri nintzanian
Frantzie parteti,
ama topadu neban
etzian bakarrik.

Arratiako beste aldaera honek baditu kidetasunak aurreko Bitoria Artetxerenarekin. Eredu askotan suetean bakarrik topatzen da ama. Zeanuriko aldaeran eta Dimakoan, etxean dago ama. Gaur eguneko *etze* ahoskatzeak *etse* hitzetik datorrela esan nahi du.

2
–Ama, zer egiten deu
orrelan tristerik?
–Nobedade barriek
antzun dodaz, bai, nik!

Eredu honetan ere amari berorika egiten zaio, ia eredu guztietan bezala. Amari zuzentzeko adizkia *deu* dugu, hurrengo ahapaldian, ostera, *dau*. Arratiako aldaera guztietan, Dimakoa eta Zeanurikoa ikusi ditugu, *entzun dodaz* aditza dator. Bizkaiko ekialdean *entzun ditut* edo *entzun ditudaz*.

3
–Ze nobedade barri
entzun dau neure amak?
–Ezkonetan zariala,
bai, neure semea.

Ahapaldi honetan ere, Zeanuriko aldaeran bezala, *ezkonetan* entzuten dugu argi eta garbi.

4
–Nondikoa dakarzu
zeure emaztea?
–Frantzie partekoa
da, (i) ama neuria.

Ahapaldi hau transkribatzea buruhausterik gabekoa da. Harrigarria badirudi ere *emaztea* eta *neuria* entzuten dut eta ez *neurea*.

5
–Eztot bear frantsesik
angotxe errenik,
egin dodan promesa
konpridu bear dot nik!

Ahapaldi honek badu zer aztertu. *Ain gutxi* edo *ain gutxi* egitura berraldatu edo moldatu egiten da eta ulergarriagoa egiten da gaurko euskara mintzatuan *(h)ango(t)xe* bihurturik. Aditzari dagokionez, *konpridu* dio garbi. Azken eta lehen bertso-lerroetako *bear* luzetxoa denez gero, bizkor edo silaba batean ahoskatzen du eta ez dakigu zein den garbi ahoskatzen duen bokala.

6
–Ze promesa egin deu ba,
bai, ama neuria?
–Urten bidera eta
il eizu, semia.

Zentzuari dagokionez*, ai ama neuria?* behar genukeelakoan gaude, ezer baieztatzen ez delako eta beldurra agertzen duelako semeak. Berriemaileak, aldiz, *bai ama neuria?* dio. Ahapaldi honetan ere bestetako *urten bidera eta il eizu, semia* agindu bortitza dator.

7
–Ez da posible, ama,
nik ori eitia.
–Zeu kapaz ezpazera
(i)artizu anajia!

Euskara eredu garbia erabili du orain arte: Arratiako Dimakoa. Ahapaldi honetan, ordea, *ezpazera* darabil *ezpazara* uste genuen lekuan.

8

–Anaje gaztea ta
estudiantia,
aretxek kendukotze
areri bizia!

Ahapaldi hau ez da ondo entzuten. Dudak sortu dizkigu bigarren zatiak: *aretxek kendukotze areri bizia!* Guk entzun dugun bezala transkribatu dugu.

9

–Juanita, yatzi zaitez
mando orren ganeti!
sartu deizudan puñelau
biotzen erditi!

Dena ulergarri den arren, ahoskeran bi zehaztasun. Batetik, *mando orren ganeti* delakoa *mandorren ganeti* ahoskatzen du; bestetik, *deizudan* edo *deizuden* bi silabatan ahoskatzen du.

10

–Ai orren puñelorren
zorrotzen zorrotza!
ikusiaz beste barik
ilten daust biotza!

Geure bizkai euskara kontuan harturik, harritzen gaitu genitibo singularra nola darabilen *biotz* eta *zorrotz* hitzetan. Ez da *biotzaren* eta *zorrotzaren* ez hauen laburdura izan daitekeen *biotzan* eta *zorrotzan*, *biotzen* eta *zorrotzen* baizik.

11

–Ai nire amak baleki
zelan nabillien,
zabalduko leukie
Frantzie guztien!

Behin baino gehiagotan agertzen da baldintza klase hau. *Conde Flores* baladan ere *nire amak baleki* esaten du protagonistak. Joskera aldetik ere ez dio batean zein bestean *gure amak baleki*, nonbait jatorragoa dena. Adizkiei dagokienez, *nabillien* adizkia *narabillien*, edo nahiago bada, euskara batuko *narabilten* ordainaren laburdura da.

12

–Amalau mando datoz
urriagaz jantzirik,
beste hamalau datoz
zidarrez beterik.

Ahapaldirik gehienetan *mandoak dodaz* esaten du ezkonberriak; hemen, aldiz, *datoz.* Beste desberdintasun txikirik ere badu; urre-zirarrak aipatzen ditu, baina batak *urriagaz jantzirik*, besteak, ordea, *zidarrez* beterik.

13
–Are(e)k artuizuz eta
itxi ni bizirik!
–Are(e)k artukuz, baia
ez itxi bizirik!

Are(e)k silaba bakarrean esaten du, baina plurala dela adierazteko literatura tradizioan bezala markatu dugu. Adizkiei dagokienez, ez dugu ondo entzuten *artukuz* zorionekoa. Nola da *artukuz* ala *artukoaz*? Lehena *artuko doguz*-en laburdura da; bigarrena, *artuko dodaz*-ena.

14
–Zazpi izera dodaz
odolez beterik,
zortzigarrena, barriz,
etzien mantxaurik.

Ahapaldi honek indarra galtzen du besteen ikusian. Zortzigarren izara etxean mantxaurik izateak zer esan nahi du? Askoz indartsuagoa da *zortzigarrentxoak/ naroa munduti*.

15
–ta entzuten dot,
bai, neure kanpaikua
igual izingo da
(i)agobanikua.

Ahapaldi hau apurren bat desitxuratua dago.

16
–Abade ekarrizue ba
konfesau naitian!
–Abadea urrin dago
elexea urrinago!
Orretan ibilteko
asti gitxi dago.

Halaxe entzuten da. Lehenengoan, *Abade ekarrizue ba* dio. Bigarren aldiz, *abadea* hiru silabatan kantatzen du.

17
–Ai nire amagiñerraba
muskerrez betia!
subeak egingotzo
arratseko oia!

Transkripzio garbiko ahapaldia. Azken ahapaldi honetan ere *arrats* hitza dator, gaur egun Bizkaiko euskaran erabiltzen ez dena. Hitzaren konposatuak, bai, jakina, arratsalde, arrasti eta abar. *Arratseko ohea* edo *arratserako ohea egin* testu ihartu bat dugu.

7.12. *Seigarren eredua*

Seigarren eredu hau kantatu duen berriemailearen daturik ez dugu. Eredu hau transkribatu dugun arren, inolako daturik ez dugunez gero, ez sartzea pentsatu dugu. Hala ere, edozein ereduk betiere zerbait berri ematen duelakoan, azkenean sartzea erabaki dugu.

1
Ama topau ninduan
etxian bakarrik,
……..
……..

2
–Ama, zer egiten dau
orrelan tristerik?
–Nobedade berriak
entzun dodaz, bai, nik.

3
–Ze nobedade berri
entzun dau neure amak?
–Ezkontzen zeriala,
bai, ene semia.

4
–Nondikoa dakarzu
zeure(i)emaztia?
–Frantzie partekua,
bai, ama neuria!

5
–Ez dot bear frantsesik
erranik gitxiego,
urten bidera eta
ilzu andreori!

6
–Juanita, yatzi zatez
zaldiorren gañeti!
sartu deitzudan puñelau
biotz biotzeti.

7
–Ai orren puñalorren
puntaren zorrotza,
ikusiaz batera
ilten deust biotza!

8
–Zazpi izera dodaz
odolez beterik,
zortzigarrentxu ori
bai dot erruki.

9
–Zeruan kanpa kanpai
eztait zegaiti
igual isengo dire
neure eriotzeagaiti.

7.13. *Zazpigarren eredua, Galdakaokoa*

Eredu hau berau *Idatz & Mintz* aldizkariaren bigarren zenbakian eta *EE* XIX. zenbakian ere agertzen da. Lekukoa, Ramona Ajuria, 82 urte, Olazarretako baserrikoa, Galdakaokoa. Aldizkari horretan Galdakaoko bi bertsiorekin osatzen da beste bat. Bi aldaerak garbi daude, hala ere. Guk, dena dela, berriro transkribatu dugu eta zenbait iruzkin eta zehaztasun jarriko ditugu.

1
Etorri nintzanian
Prantziaren partetik
ama tope ninduan (bis)
etzian bakarrik.

2
–Ama, zer egiten deu
orrelan tristerik?
–Nobedade barriak (bis)
entzun dodaz, bai, nik.

3
–Ze nobedade barri
entzun deu, bai, (y) ama?
–Ezkondu ziñiela (bis)
Frantziako partea(n).

4
–Ez deu entzun guzurra
ez, ama neuria,
ortxe atean dator (bis)
neure (y) emaztia.

5
–Urteizu bidera eta
kenduiozu bizia!
–Ez da ama posible (bis)
nik ori itea.

6
–Zu ezpazara kapaz
artuizu anajea,
anaje ezpada kapaz (bis)
estudiantia.

7
Estudiantia abade
ondiño gaztea,
ogeta zazpi urte (bis)
kunplidu bagea.

8
–Baje zaitaz, kuñada,
zaldiorren ganetik,
sartu iotzudan puñalau (bis)
biotzan erditik.

9
–Ai orren puñalorren
puntearen zorrotza!
ikusiagaz batera (bis)
ilten dust biotza!

10
–Amasei mando dodaz
urrez kargaturik,
aiek artuizuz eta
itxizu bizirik.

11
–Aiek artukoaz baña
ez itxi bizirik,
deukedan ordenea (bis)
kunplidu bagarik

12
–Zazpi izeratxu dodaz
odolez beterik,
zortzigarrentxu onek
naroa mundutik.

7.14. *Galdakaoko eredua ahapaldiz ahapaldi*

Galdakaoko eredua aberatsa denez gero, ahapaldiz ahapaldi iruzkinduko dugu.

1
Etorri nintzanian
Prantziaren partetik
ama tope ninduan (bis)
etzian bakarrik.

Berriemaileak, kantuan hasten denean, *etorri naintzenian* dio, hasiberritako hustzat hartu dugu *naintzenian* delakoa. Ablatiboaren *–tik* marka garbi xamar entzuten da. Harrigarriena, beharbada, *tope ninduan* aditza da. Zergatik *nendun? Nenduan* Bizkaiko mendebaldekoa delako eta *neban* ekialdekoa. Harrigarriagoa da *nik* subjektua delarik *ninduan* entzutea. Beste berezitasun bat *etse* hitzak ematen duena da. Euskal Herri osoan *etxe* dena, Bizkaiko mendebalde edo erdialdean eta nonbait Erronkarin, Azkueren hiztegian agertzen denez, *etse* da, eta gaur eguneko ahoskeran *etze*.

2
–Ama, zer egiten deu
orrelan tristerik?
–Nobedade barriak (bis)
entzun dodaz, bai, nik.

Hemen ere, gehienetan bezala, amari berorika zuzentzen zaio semea. Transkripzioaren aldetik ahapaldi honek ez digu arazorik txikienik ere eman.

3
–Ze nobedade barri
entzun deu, bai, (y) ama?
–Ezkondu ziñiela (bis)
Frantziako partea(n).

Ahapaldi honetan *ezkondu zara* esan beharrean, *ezkondu zinen* dio. Aditz-denbora hori ez da beste inongo aldaeratan agertzen. Badirudi ezer markatzen bada ezkontzeko denbora kontu horretan, ezkonberriak direlakoa dela. Munitibarreko aldaeran datu berri bat ematen da: bederatzi hilabete joan direla dio ezkondu direnetik. Gure aldaera honetan ere ez da inesibo markarik ematen: *Frantziako partea*.

4
–Ez deu entzun guzurra
ez, ama neuria,
ortxe atean dator (bis)
neure (y) emaztia.

Inongo arazorik gabeko ahapaldi garbia. Fonetismoei dagokienez, hemen ere askotan ematen den ñabartasuna ematen da: *neuria* eta *emaztia* izan arren, *atean* dio, eta ez, uste izatekoa den moduan, *atean*.

5
–Urteizu bidera eta
kenduiozu bizia!
–Ez da ama posible (bis)
nik ori itea.

Ahapaldi hau ere garbi ematen du gure lekukoak. Bizkaiko euskera literarioan*: –Urten egizu bidera eta/ kendu egiozu bizia!/ –Ez da ama posible/ nik (h)ori egitea.*
Ahoskera aldetik, *kenduiozu* lau silabatan ematen du; *egiozu* adizkitiko *iozu*, beraz, bi silabatan ematen du.

6
–Zu ezpazara kapaz
artuizu anajea,
anaje ezpada kapaz (bis)
estudiantia.

Hemen ere, fonetismoei dagokienez, nola izan liteke *anajea* esatea eta gero hurrengo *estudiantia*. Nola egiten du, beraz, bukaera batean *–ea* eta bestean *–ia*? Guk hala ahoskatzen duela baino ezin dugu ziurtatu… Harrigarriena batentzat baino gehiagorentzat *anaje ezpada kapaz* horretako *anaje* izango da.

7
Estudiantia abade
ondiño gaztea,
ogeta zazpi urte (bis)
kunplidu bagea.

Oraingo ahapaldi honetan estudiantea abadea dela esaten da.

8
–Baje zaitaz, kuñada,
zaldiorren ganetik,
sartu iotzudan puñalau (bis)
biotzan erditik.

Ahapaldi honetako *baje* aditzak "bajatu" esan nahi du. Kontuan hartu beharra dugu lehen ahapaldiko *tope* aditzak "topadu" edan nahi duela. Ahapaldi honetan hitz egiten duena ezkonduta datorrenaren anaia da. Inoiz ez dugu ikusi *kuñada* deiki edo deigarria beste ahapaldi batean. Bizkaiko euskaran ohituago gaude *koñata* hitza entzuten, kantu hau kantatzen den lekuan ere bai usteak ustel ateratzen ez badira. Bizkaiko euskaran *koinatu-koinatak* den bezala, Gipuzkoakoan *koñadu-koñadak* da.

Kontu harrigarri bat aipatzekotan, lehen kantaldian *puñalau* dio artikulu hurbilarekin. Bigarren kantaldian, ostera, *puñela*… artikulu hurbilik gabe.

9
–Ai orren puñalorren
puntearen zorrotza!
ikusiagaz batera (bis)
ilten dust biotza!

Oraingoan ere garbi eta garbi ematen du. Lehen lerroan, *Ai orren puñalorren* horretan artikulu hurbila ikusten dugunez gero, *puñal* hitzari itsatsita idatzi dugu. Ahoskera aldetik, *puntearen* hitza hiru silabatan ahoskatzen du *–tearen* bi silabatan eginez.

10
–Amasei mando dodaz
urrez kargaturik,
aiek artuizuz eta
itxizu bizirik.

Ahapaldi honetako *itxizu bizirik* horretan *itxi nagizu bizirik* uste genuen.

11
–Aiek artukoaz baña
ez itxi bizirik,
deukedan ordenea (bis)
kunplidu bagarik

Oraingo ahapaldi honetan, lehenagoko ereduetan bezala, laburdura bat ematen da. *Aiek artuko dodaz baña* hori *Aiek artukoaz baña* egiten du balada-kantariak.

12
–Zazpi izeratxu dodaz
odolez beterik,
zortzigarrentxu onek
naroa mundutik.

Dena dago garbi eta garden. Polita da balada honetan eta besteetan agertzen den zazpi/zortzi zenbakietako jokoa.

7.15. *Bederatzigarren eredua*

Oraingo eredu honetan ere ez dugu berriemaileen izenik. Balada bera bi aldiz kantatzen dute. J.M. Iriondok diostanez, amama-lobak kantatzen dute. Balada hau ahapaldi gutxien duena da. Lan honetako beste baladak bezain ederra izan ez arren, hona aldatuko dugu.

1
Etorri nintzanian
Frantzie partetik,
ama topadu neban
oso samindurik.

2
–Ama, zer eiten dozu
ain triste, bakarrik?
–Nobedade barriek
entzun dodaz, bai, nik.

3
–Ze nobedade barri
entzun dozu, ama?
–Ezkonduten zarela,
semetxu neuria.

4
–Nondik eta nongoa
da zure emaztegaia?
–Frantzie partekoa,
bai, ama neuria.

5
–Ez dot gure errenik
gitxiago frantzesik,
esan dodan berbeaz
urten bear dot nik.

6
–Esan dozun berbeaz
urten bear badozu,
urten bidera eta
agur esaiozu!

7
–Ain da polita ba ze
nire emaztegaia,
ezta posible, ama,
bertan bera istea.

8
–Juanita, yatzi zaite
zaldi orren gañetik
artez esaten deutzut
biotzen erditik.

7.16. *Bederatzigarren eredua ahapaldiz ahapaldi iruzkindurik*

J.M. Iriondok emandako azken eredua iruzkinduko dugu.

1
Etorri nintzanian
Frantzie partetik,
ama topadu neban
oso samindurik.

Aldaera hau da, inolako dudarik gabe, txukunduena edo garbituena. Garbizaletasun horren seinale da *samindurik* aditza ez ezik, hurrengo ahapaldiaren lehen kantaldian dioen *itun* hitza.

2
–Ama, zer eiten dozu
ain triste, bakarrik?
–Nobedade barriek
entzun dodaz, bai, nik.

Lehenengo kantaldian, *ain itun, bakarrik* dio; bigarrenean *ain triste, bakarrik*. Tratamenduari dagokionez, zuka dugu nagusi eredu guztian. Juanitarekin eta amarekin zuka hitz egiten du protagonistak.

3
–Ze nobedade barri
entzun dozu, ama?
–Ezkonduten zarela,
semetxu neuria.

Ahapaldi garbia alde guztietatik. Lehen kantaldian, honela ematen du: *–Ze nobedade barri/ entzun dozu, ama?/ –Ezkonduten zariela/ semetxu neuria*. Hirugarren bertso-lerroa luzeegi egin ez dadin, *zariela* hiru silabatan ahoskatzen du berriemaileak lehen kantaldian. Bigarrenean, ostera, *ezkonduten zarela* entzuten dugu. Bigarren kantaldiari ederragoa iritzi diogu eta eredu nagusi modura transkribatu dugu.

4
–Nondik eta nongoa
da zure emaztegaia?
–Frantzie partekoa,
bai, ama neuria.

Ahapaldi hau da politenetakoa galdera bikoitza egiten duelako: nondik eta nongoa. Galdera bikoitz honek edertasun aparta ematen dio ahapaldiari. Antzeko zerbait gertatzen da Hazparneko Lardapidek bildutako *nongorik nongo* galderarekin. Bizkaiko euskaran, beste alde batetik, *emaztegeia* entzutea normalagoa da, edo gure tradizioan errotuagoa, *emaztegaia* baino. Bigarren bertso-lerroa luzexkoa denez, sinalefa bat egiten du *zure emaztegaia* hitzen artean; hala eta guztiz ere, luzeegi egiten da.

5
–Ez dot gure errenik
gitxiago frantzesik,
esan dodan berbeaz
urten bear dot nik.

Semeak amaren agindua egin behar duela adierazteko, *amak bere berbeagaz* urten behar duela adierazten du ahapaldiak. Ahapaldi hau baino lehen galdu diren bat edo gehiago egon beharko zuten. Ahapaldi horietan semeak *hil* egin behar duela emaztea aginduko zion amak.

6
–Esan dozun berbeaz
urten bear badozu,
urten bidera eta
agur esaiozu!

Amaren berbea ez da besterik, gure ustean, emaztea hiltzeko agindu edo ordena zorrotza baino. Gure eredu honetan horrelakorik agertzen ez denez, bestelakatu edo gexatu egin da balada. Indar-galtze horretan ez du inolako dramatismorik.

7
–Ain da polita ba ze
nire emaztegaia,
ezta posible, ama,
bertan bera istea.

Lehenengo kantaldian, *Ain da polita ba ze* dio; bigarrenean, *Ain da polita, ama*. Gure honetan lehenengoari hobetsi diogu. Bigarren kantaldian, beste era batera bukatzen du: “ez nintzake aztuko/ bizitza guztia”.

8
–Juanita, yatzi zaite
zaldi orren gañetik
artez esaten deutzut
biotzen erditik.

Juanita edo emaztearen heriotzarik ez da agertzen. Juanitaren beldurraren arrastorik ere ez dago, *puñala sartu daitzudan/ bi(h)otzaren erditik* beste modu gexa eta indargeago bat bihurtzen da: *artez esaten deutzut/ biotzen erditik*. Lehen kantaldian, *biotz biotzetik* kantatu du; bigarrenean, *biotzen erditik*.

8. *FRANTZIAKO ANDEREA* DIMAKO ARTAUNGO EREDUA

Diman, Artaun auzoan, eredu hau batu genuen. Gure eredua ere Juliana Sagarna Ortuondori bildua da. Gure balada bilako ibilietako alerik ederrenetako bat da, inolako zalantzarik gabe. Eredua

kantatu ondoren, berriemaileak *baia eneuan ondo esango* esan zigun. Guk geure transkripzio honetan berriemaileak *ser, dodas, eskonetan, dakasu*, *emastea*, *estot*, eta abar esaten baditu ere, *zer*, *ezkonetan*, *dakazu*… transkribatuko ditugu. Era berean, *frantzesa* eta bukaera ahapaldiko *arratzeko oia* ere *frantsesa* eta *arratseko oia* bihurtu ditugu. Guk bildutako eredua, guk eta J.M. Iriondok Artaungo berriemaile berari bildua da.

1
Etorri nintzanean
Frantzie partetik,
ama topadu neban
etxian bakarrik.

2
–Ama, zer egiten deu
orrelan tristerik?
–Nobedade barriek
entzun dodaz, bai, nik.

3
–Ze nobedade barri
entzun deu ba, ama?
–Ezkonetan zareala,
bai, neure semia.

4
–Nundikoa dakazu
zeure emaztia?
–Frantzie partekoa,
bai, ama neuria!

5
–Eztot biar frantsesik,
angoxe errenik,
egin dodan promesa
kunpridu bear dot nik.

6
–Urten bidera eta
il eizu, semia,
zu kapaz ezpazara
iartuisu anajia.

7
–Anaje gaztia ta
estudiantia,
arek kenduko dotzo
areri bizia!

8
Esta posible ama
nik ori eitea
[————————————-
————————————]
Erratuot

9
–Juanita yaki […]
mando orren ganetik,
sartu deitzun puñela
biotzen erditik.

10
–Ai orren puñel orren
zorrotzen zorrotza,
ikusiaz beste barik
ilten deust biotza.

11
–Amalau mando datoz
urreagaz beterik,
beste amalau datoz
sidorres (sic) beterik.

12
Arek artuizuez ta
ni itxi bizirik.
–Arek artukuiz, baia
ez itxi bizirik.

13
–Agur, ama Juanita,
amari gorantzi,
sekule ta betiko
ikusi nosu ni.

14
–Kanpaia entzuten dot ba,
neure jaungoikoa,
igual izengo da
agoanikoa.

15
–Abadea ekarrizue ba
konfesau naitian.
–Abadea urrin dago
ta elexea urrinago,
orretan ibilteko
asti gitxi dago.

16
–Zazpi izera dodaz
odolez beterik,
zortzigarrena, berriz,
erdie mantxaurik.

17
–Ai nire amaginarreba,
muskerrez betia,
subiak egingotzo
arratseko oia.

Gure ereduko zenbait ahapaldi garbiago daude 7.9. azpipuntuan transkribatutako ereduan baino, eta alderantzira ere bai. *Zazpi izera dodaz/ odolez beterik, zortzigarrena, berriz,/ erdie mantxaurik* ahapaldiak zentzu handiagoa du *Zazpi izera dodaz/ odolez beterik,/ zortzigarrena, berriz,/ etzien mantxaurik* baino. Gure ereduan osatu gabeko zenbait ahapaldi osoago datoz J.M. Iriondoren ereduan. Zortzigarren eta bederatzigarren ahapaldiak ez datoz osorik gure ereduan; J.M. Iriondorenean, bai ordea. Gure ereduan datorren hamairugarren ahapaldia ez dugu, esaterako, J.M. Iriondoren ereduan aurkitu.

9. *FRANTZIAKO ANDEREA* BALADAREN ERRENTERIKO EREDUA

Eredu berri hau Agustin Mendizabalek bildua da Errenterian, 2012ko uztailaren 7an, Borda baserriko Karolina San Sebastian Almandoz andreari. Karolina San Sebastiani bilketa hau egin zionean laurogeita hamar urte beteak zituen, 1921. urtean jaioa baita. Bilketa honen berri postaz eman zidan. Hona eredua:

1
–Zer dakartzu semia
Prantziko portutik?
–Arrai txuri eder bat
urrez kargaturik.

2
–Ez degu arrai beharrik
ez nere semia,
etxera juan eta
hil ezazu emaztia.

3
Allegatu giñanian
basamortu batera
nere eraztuntxua
zijuan mudatzera.

4
–Jetxi andria jetxi
jetxi aberin gañetik
emen il behar dezu eta
ez egin dudarik.

5
–Bost ilabeteko aurra
daukat sabelian,
ori egin artian
utzi neri pakian.

6
–Ai, aita, aita, aita,
ezpata zorrotza,
bost parte egin diyozu
amari biyotza.

Eredu hau, itxurak direnez, egun askotan egindako grabaketa eta galdeketa saioen ondoren bildua da. Berriemailearen esanetan, lehen ahapaldiko *arrai txuri eder bat urrez kargaturik, urrea dakarren umea da*.

Eredu hau argitaragabea da eta bere laburrean guztiz inportantea. Euskaraz bildu den azken balada izango da, 2012. urtean bildua baita. Errenterian bildua, bestalde. Eredu honek Nafarroan bildutakoekin zerikusi handiagoa du Bizkaian bildutakoekin baino. Nafarroako Gartzain eta Bizkaiko Munitibarreko ereduetan bezalaxe, emakumea haurdun dago. Nafarroako ereduetan bezalaxe, amak semeari mortuan edo basamortuan hiltzeko agintzen dio. Eredu honek bere laburrean enkantu eta edertasun handiak ditu. Guztiz harrigarria da, esaterako, emakumearen narrazioko hirugarren ahapaldia. Zer misterio handia daukan *nere eraztuntxoa zijoan mudatzera* esaldiak! Seigarren ahapaldietan nork hitz egiten du? Gure ustez sabelean dagoen haurrak.

10. *FRANTZIAKO ANDEREA* BALADAREN OÑATIKO EREDUAK

Puntu honetan Oñatiko lau ereduren berri emango dugu. Bitoriano Gandiagak bildutako bi, Jose Ariztimuño Aitzolen eredua, puntu honetan frogatuko dugunez Oñatikoa dena, eta, azkenik, guk geuk Araotzen bildutakoa. Hiru eredu behintzat Araotzekoak dira, Gandiaren biak eta guk geuk batua. Jose Ariztimuñorena ere Araotzekoa dela frogatuko dugu.

10.1. *Bitoriano Gandiagak Araotzen bildutako lehen eredua*

Bitoriano Gandiagak Araotzen bi eredu bildu zituen eta 1974. urteko *Euskera* agerkarian eman zituen argitara (Gandiaga: 1974). *Frantziako anderea* baladaren bi ereduei izenburu adierazgarri bat eman zien: *bertso lastimosoak*. Lehen eredua Marijoxepa Zumalde aroztarrari bildua da; bigarrena, beraren ahizpa Maxima Txantonmalduenakoari. Bi ahizpek, beraz, eredu desberdinak eman zituzten. Hona Bitoriano Gandiagaren beraren azalpena:

> Migelentxikiñeko Marijoxepa Zumalde araoztarrak kantu asko daki eta ongi kantatzen du. Hemen jarriko dudan hau ez omen da fraide bati kantaittekoa. Gogorreixa bide da. Gainera ahaztuta ere ba ei dauka ixa. Dena dela, tiraka-biraka atera ahal izan niona ifiniko dut. Eta zerbait gehiago: Marijoxepari jaso niona haren aizpa Maxima Txantonmalduenakoari kantatzen hasi nintzaion, eta harek nondik jotzen ote zuen. Maximak zenbait aldakuntzarekin kantatu zidan. Haren kantaera ere ifiniko dut. 1967-an jaso nuen kantu hau eta bertsoak ez ezik doinua ere oso lastimosoa.

Gure atal honetan bi ereduak parez pare jarri beharrean, bata bestearen ondoren emango ditut. Lehen eredua Marijoxepa Zumalderena da.

(1)
Etorri nintzanian
Frantziako partetik
ama billatu neban
etxian bakarrik.
Bakar bakarrik eta
bai triste tristerik
silliaren espaldan
haiziak arturik

(2)
Egun on Jainkuak dizula
ama ona neuria,
halan euki deizula,
bai, seme maitia.
Ezkonduta ala ezkongei
zatoz ba semia?
Ezkonduta nator ba
bai, ama neuria.

(3)
Frantsesa ala española
daukak ba andria?
Frantzesa daukot ba nik
bai, ama neuria.
Frantzesik etxuau biar
erranik etxian;
hona ekarri gabe
hil zazu bidian.

(4)
Guaziok ba, guaziok,
guaziok anaia.
Hor billatuko xuau
ta hiltxeguk andria.
Egun on Jainkoak dizula,
andra ona neuria.
Halan euki daizula,
bai senar neuria.

(5)
Hamalau asto hor ditut
urrez kargaturik,
haiek emungo dizut,
utziazu bizirik.
Haiek neuriak dira
zuk emun gaberik.
Hemen il biarko dezu
dudarik gaberik.

(6)
Utziok ba utziok,
utziok anaia,
etzaiz errukitutzen
olan ikustia?
Lenago esan biar eban
esan duan berbia,
onezkero emun xat
lenengo golpia.

10.2. *Bitoriano Gandiagaren Araozko bigarren eredua*

Bigarren eredua Maxima Zumalderena da. Bigarren eredu hau aurrekoa baino luzeagoa da. Zortziko bat, edo, nahiago bada lauko bi gehiago ditu. Ez da harritzekoa bi ahizpek kanta bera desberdin kantatzea. Nik neuk Araotzen bildu nuen eredua berriemaile berak modu batera baino gehiagotara zekien, geroxeago ikusiko dugunez.

(1)
Etorri nintzanian
Frantziako kortetik
ama billatu nuan
etxian bakarrik.
Bakar bakarrik eta
bai triste tristerik
sillan jazarri eta
haiziak arturik.

(2)
Gabon Jainkuak dizula
ama ona neuria,
halan daikala,
bai, seme maitia.
Ezkonduta ala ezkongei
ator ba semia?
Ezkonduta nator ba
bai, ama neuria.

(3)
Frantsesa ala española
daukak ba andria?
Frantzesa daukot ba nik
bai, ama neuria.
Frantzesik etxuau biar
erranik etxian;
hona ekarri gabe
hizak bidian.

(4)
Gauziok ba, gauziok,
anaia neuria,
birian billauko xuau
andria neuria.
Andria, nora zuaz
zaldi horren gaiñian?
Hemen hil biar dezu
dudarik gabia.

(5)
Andria, jetxi zaitez
zaldi horren gaiñetik:
hemen hil biar dezu
dudarik gaberik.
Hiru soiñeko hor ditut
urrez bordaturik,
haiek emungo dizut
utziazu bizirik

(6)
Haiek neuriak dira
zuk emun gaberik,
Hemen hil biar dezu
dudarik gaberik.
Hiru anaitxo ditut
soldadu juanik,
harek hemen baneuko
ez neuke bildurrik.

(7)
Utziok ba, utziok
anaia neuria.
Pena emutenxotak
holan ikustia.
Lenago esanbiar ebian
esan duan berbia,
onezkero hartu xok
erida golpia.

10.3. *Aitzolek bildutako (Oñatiko) eredua*

Aitzolen funtsean, 56 zenbakiarekin, *Frantziako anderea* baladaren hasiera dakarren eredu bat dago. Eredu hau Antonio Zavalaren baladategian XIII zenbakiarekin dator. Zehaztasun hau dakar Zavalak:

> Jose Ariztimuño Aitzol zanaren bilduman, Irunen jaio eta Plazentzian bizi izan zan Andres Ezenarro Urzelai-k bialduta, onako oar onekin:
>
> Biltzailleak geienak ikasi ditu Isabel Kerexeta ta Lasa. 1854-garren Urrillana 24-an Irunen jaiotako andereagandik.

Irunen jaiotako andre batengandik bildutako eredua dela dio Zavalak, Aitzoli balada bidali zion Andres Ezenarroren datuak aztertu ondoren. Baina egiaz eta begiaz ote da balada hau Irungoa? Guk uste, nonbaitekoa izatekoan Oñatikoa dela eta uste hori frogatzen ahaleginduko gara atal honetan. Aurrera baino lehen, gure balada Aitzolen funtsean datorren bezalaxe transkribatuko dugu:

Etorri nintzanian
Frantziako aldetik
Ama topatunuan
Etxean bakarrik
Bakar bakarrik eta
triste triserik
Burua sillaruz
Zierketalurik.

Eskonduta al eskongai
Ator ba semia
Eskonduta nator ama
Eskonduta nator ama
Bai ama neria

Fransesa ala Euzkalduna
Dakak ba andria
Fransesa dakat ama
Fransesa dakat ama
Bai ama neria.


Nº 56 = Etorri nintzanian
Prantziako aldetik
Ama topatunuan
Etxean bakarrik
Bakar bakarrik eta
Triste triserik
Burua sillaruz
Zierketalurik

Eskonduta ala eskongai
Ator ba semia
Eskonduta nator ama
Eskonduta nator ama
Bai arna neria

Fransesa ala Euzkalduna
Dakak ba andria
Fransesa dakat ama
Fransesa dakat ama
Bai ama neria

Aitzolen funtseko *Frantziako anderea* balada. Oñatiko ereduaren antzekoa.

Testu honetako lehen ahapaldiaren erdia bakar-bakarrik Oñatiko ereduetan aurkitzen da. Oñatiko ereduetan, lehen laukotik bigarrenekora bihurki bat egon ohi da. Hona hemen azalpena:

Etorri nintzanian
Frantziako kortetik
ama billatu nuan
etxian bakarrik.
Bakar bakarrik eta
bai triste tristerik
sillan jazarri eta
haiziak arturik

Lehen zortziko hori bi laukotan banaturik honelaxe gelditzen da.

1
Etorri nintzanian
Frantziako kortetik
ama billatu nuan
etxian bakarrik.

2
Bakar bakarrik eta
bai triste tristerik
sillan jazarri eta
haiziak arturik

Lehen laukoa *etxian bakarrik* batez bukatzen da. Hurrengoa *Bakar bakarrik eta* batez hasten da. Honi ahapalditik ahapaldirako bihurkia deitu ohi diogu. *Frantziako anderea* baladan gutxitan ematen da ahapalditik ahapaldirako bihurkirik. Araozko eredu guztietan, bai, ordea. Jose Ariztimuñoren ereduan ere ikusten dugu Araozko berdina dela. Gure baieztapen honi indarra ematen dio Jose Ariztimuñoren funtsean gaizki bildua dagoen lauko honek:

Bakar bakarrik eta
triste tris[t]erik,
Burua sillaruz
zierketalurik.

Aitzolen ereduan zer da *zierkelaturik* delakoa? Inolako dudarik gabe transkripzio oker bat da. *Zierkelaturik* delakoa *aiziak arturik* gaizki ulertu batetik edo gaizki kantatu batetik sortu den munstroa da. Horixe da frogarik argienetakoa eredu hau Oñatikoa dela baieztatzeko.

Testuak, inolako dudarik gabe, huts asko ditu. A. Zavalak, bere irizpidea tinko mantendurik, beti eredu zuzendua eskaintzen du eta egiten dituen zuzenketa guztiak ez ohi ditu, gehienetan, aipatzen. Kasu honetan, *Fransesa ala Euzkalduna* zuzendu duela dio:

> Zuzenketa bat egin degu: bigarren bertsoan "frantzesa ala euskalduna" zegoan idatzita "Frantzesa ala española" bear du noski, eta orrela ezarri dugu.

Zuzenketa hau, noski baino noskiago, guztiz onargarria da. Baina ez da egiten duen zuzenketa bakarra. Aitzolen funtseko testuan *triste triserik* dator eta Zavalak *triste tristerik* jartzen du inolako azalpenik gabe. Zuzenketa, jakina, egokia da. Ez dago dudarik testu bakoitzean egiten dituen zuzenketa guzti-guztiak esatea aspergarri eta neketsua dela.

10.4. *Araotzen guk bildutako* Frantziako anderea *balada*

Guk 90eko hamarkadan Maria Josefa Zumalderi, Bitoriano Gandiagaren berriemaile berari, bildu genion *Frantziako anderea* balada.

Guk bildutako eredua laukoetara ekarriko dugu. Lehen laukoan, *Frantziako parterik* kantatu ondoren, berriemaileak *ori be batzuk Frantziako partetik, beste batzuk Frantziako kortetik* azaldu zuen. Seigarren laukoaren ondoren, *ori alde askotara ortik aurrera;* zazpigarren ahapaldiaren ondoren, berriemaileak *baña beste batzuk, berriz...* bederatzigarren ahapaldiaren ondoren, *baña ori be da lenengo andriari esan biexako egunon;* hamargarrenaren ondoren, azalpena luzeagoa da: *baatzuk ola esaten daue, beste batzuk, berriz, iru zazpi aldiz buelta eiten dabe asto muxal (...) beste batzuk iru soñeko musal eta batzuk eztakit zer akabaitten dabe segidan. Neskatilla nintzan denporan kantaitten neban. Or beeko batzuk modu batera, beste batzuk beste modu batera...*

1
Etorri nintzanian
Frantziako partetik.
ama billatu neban
etxian bakarrik.

2
Bakar-bakarrik eta
bai, triste tristerik
silliaren espaldan
aiziak arturik.

3
–Egun on Jangoikuak dizula,
ana ona neuria.
–Alan euki dezula
bai, seme maitia.

4
–Ezkonduta ala ezkongai
zatoz, ba, semia?
–Ezkonduta nator, ba,
bai, ama neuria.

5
–Frantzesa ala española
daukatzu,andria?
–Frantzesa daukot, ba, nik
bai, ama neuria.

6
–Frantsesik eztot biar
erranik etxian,
ona ekarri gabe
il zazu bidian.

7
–Guaziok ba guaziok,
guaziok, anaia,
or billatuko xuau
or xeguk andria/andria neuria.

8
–Amalau asto or ditut
urrez kargaturik
aiek emango dizut
utziazu bizirik.

9
–Aiek neuriak diraz
.....

10
–Egun on Jaungoikuak dizula,
andra ona neuria,
emen il bear dezu
dudarik gabia.

11
–Iru soñeko or ditut
zidar loraturik,
aiek emungo dizut
utziazu bizirik.

12
–Aiek neuriak dira
zuk eman gaberik.
Emen il biarko dezu
dudarik gaberik

13
–Iru anaitxo ditut
soldadu juanik,
aiek emen baneuko
ez neuke bildurrik.

14
–Utziok, ba, utziok,
anaia neuria,
pena emuten xotak
ola ikustia.

15
–Lenago esan bear eban
esan duan berbia
[onezkero] emontxat
lenengo golpia.

11. *FRANTZIAKO ANDEREA* BALADAREN ZEBERIOKO EREDUA

Zeberioko aldaera Juan Manuel Etxebarria irakaslearen *Zeberioko kantak* liburuko 60-63. orrialdeetan dator (Etxebarria: 1999). *Frantziako anderea* baladaren aldaerarik luzeenetakoa, hogeita bat ahapaldikoa, Zeberiokoa da. Auspoa argitaletxean agertu zen Zeberioko aldaera hau eta Antonio Zavalaren baladategia garaitsu berekoak dira, 1999. eta 1998. urtekoak. Antonio Zavalak Zeberioko aldaera ez zuen bere baladategian sartu, hau argitaratu eta denbora gutxira argia ikusi zuelako *Zeberioko kantak* liburua. Uste dugu Zeberioko aldaera ez dela inongo balada-bildumatan argitaratu. Aldaera honek, bestalde, ez du, guk dakigula, inolako aipamen ez iruzkinik izan. Lege da, beraz, eredu hau hona ekartzea.

Gure puntu honetan testua guztiz errespetatu dugu. Gainerako testuekin bezala ahapaldi bakoitzari dagokion zenbakia jarri diogu. Testuan parentesi artean datozen azalpenak kendu egin ditugu, testutik kanpora daude eta. Zazpigarren ahapaldiko *urten bear bozu (badozu)*, esaterako, *urten bear bozu* transkribatu dugu. Modu horretara jokatu dugu hamairugarren, hamabosgarren eta hemeretzigarren ahapaldietan.

1
Etorri nintzanean
Frantzia kortetik,
ama topadu nendun
sutean tristerik.

2
– Zer egiten dau, ama,
orrela bakarrik?
–Nobedade barriak
entzun dodaz, bai, nik.

3
–Ze nobedade barri
entzun dozu, ama?
–Ezkontan zareala,
bai, seme laztana.

4
–Ezkonduta nago ta
on dator andrea.
–Ori il eizu eta
artu eizu bestea.

5
–Nondikoa dakarzu
zure emaztea?
–Frantzia kortekoa,
bai, ama neurea.

6
–Ez dot gura frantzesik,
gitxiago errenik.
–Esan dodan berbeaz
urten bear dot nik.

7
–Esan dozun berbeaz
urten bear bozu,
urten bidera eta
il egin bear dozu.

8
–Ain da polita ba ze
nire emaztea,
ez da posible, ama,
nik ori eitea.

9
–Zuk ez bozu posible
artu anajea,
anaje gaztea ta
estudiantea.

10
–Juanita, jatsi zaitez
zaldian ganetik,
sar daizudan puñal au
biotzan erditik.

11
–Ai, orren puñal orren
puntean zorrotza!
ikusiz beste barik
ilten deust biotza.

12
–Zazpi zaldi daukadaz
izaraz jantzita,
zazpigarrena barriz
perlaz estarita.

13
–Aixek emongotzudaz
ixtearren bizirik.
–Arek neuretzat baia
ez itxi bizirik.

14
–Orrez ganera daukat
urre kalizea;
urre kalizea ta
sobrepellizea.

15
–Danak emongotsudaz
itxi ni bizirik.
–Dana neutzako baia
ez itxi bizirik.

16
–Zazpi nebatxo dodaz
Frantzia kortean.
Ai, areik balekie
emen zer dabilan!

17
Zortzi izara dodaz
bai, neure dotea;
zortzigarrentxu ori
odolez betea.

18
Kanpai bat entzuten dot
ez dakit nongoa;
igual izango da
agoniakoa.

19
Abadea ekazu
konfesatu naiten,
arimaren okerrak
arteztu daidazen.

20
–Abadea urrin dago
eleiza urrinago;
oin orretan asteko
asti gitxi dago.

21
–Amaxe biotz gogor
muskerrez betea,
subeak ein daiola
gaubean oea.

12. *FRANTZIAKO ANDEREA* BALADAREN DIMAKO ALDAERA

Julian Yurre kaputxinoak Diman bildutako eredu argitaragabea aldatuko dugu puntu honetara. Julian Yurre kaputxinoak ez zuen berriemaileagana hurbildu eta ahotik hara biltzen. Dakigunaren arabera, bere ezagunei kuadernoan koplak eta ume-kantuak idazteko agindu ondoren, kuadernoa bera biltzen zuen. Horrelaxe azaltzen dira puntu honetan transkribatutako ereduan datozen oharrak.

Lehen puntu honetan, eredua testu makinatuan dagoen bezala aldatuko dugu. Bigarren azpipuntuan, gaurko ortografian eta ahapaldietan tolesturik. Hona hemen:

Etorri nintzanean
Frantziako kortetik
Ama topadu neban
etsean bakarrik.
Etoŕi nintzanean frantzie aldetik
topa nauen neure ama,
etxean laŕirik.
–Zer pasetan yatzu, ama,
ain zagoz laŕirik?
–Nobedade baŕiek, seme,
entzun dodaz nik
–Ze nobedade baŕi,
entzun dozu zuk
–Ezkondu eiten zareala,
bai seme neuria.
Nongua ete daukazu zeuren emaztea (Onelan Natitxuk kuadernoan)
–Frantzie aldekoa,
bai Jauna neurea.
–Ez du bear frantzesik,
gitxiago eŕenik.
Artu izu gasto ori (aizto ori?)
eta ilzu ori-
–Ain da guztiz maitea
neure emaztea,
oŕek ez dau poztuten
ez nere biotza
Etoŕi nintzanean frantzie aldetik
topa nauen neure ama,
etxean laŕirik.
–Zer pasetan yatzu, ama,
ain zagoz laŕirik?
–Nobedade baŕiek, seme,
entzun dodaz nik
–Ze nobedade baŕi,
entzun dozu zuk
–Ezkondu eiten zareala,
bai seme neuria.
Nongua ete daukazu zeuren emaztea (Onelan Natitxuk kuadernoan)
–Frantzie aldekoa,
bai Jauna neurea.
–Ez du bear frantzesik,
gitxiago eŕenik.
Artu izu gasto ori (aizto ori?)
eta ilzu ori-
–Ain da guztiz maitea
neure emaztea,
oŕek ez dau poztuten
ez nere biotza
Zuk ilten ezpadozu
il daiela Amaliak;

Amaliak ilten ezpadeu,
anai estudianteak.
Juanita yatzi zaitez
zaldi oŕen ganetik,
sartu diotzuten gasto au (aizto au?)
biotzen erditik.
–Ene oŕen gaistoen (aiztoen?)
zoŕotzen zoŕotza.,
ieusiegaz batera,
ilten dau biotza.
Zazpi mando daukodaz
uŕegoŕiz beterik;
Arik artuzuz baña
ni itxi bizirik.
–Arik artukodaz baña
zu ez itxi bizirik
–Zazpi mando daukodaz
uŕe zuriz beterik.
arik artuzuz baña
ni itxi bizirik.
–Arik artukodaz baña
zu ez itxi bizirik
–Zazpi neba daukodaz
Frantzie aldean (Natitxuk "aldian")
arik jakingo balekie,
ni zelan nabien, (sic idatzi-ta)
laster altzauko laukie
Frantzie guztie
Zazpi isera daukodaz
odolez beterik,
eta zortzigaŕena
orain betekot nik.

12.1. *Dimako eredua gaurko ortografian*

1

Etorri nintzanean
Frantzie aldetik,
topa nauen neure ama,
etxean larririk.

2

–Zer pasetan yatzu, ama,
ain zagoz larririk?
–Nobedade barriek, seme,
entzun dodaz nik.

3
–Ze nobedade barri,
entzun dozu zuk?
–Ezkondu eiten zareala,
bai, seme neuria.

4
–Nongua ete daukazu
zeure emaztea?
–Frantzie aldekoa,
bai, ama neurea.

5
–Ez du bear frantzesik,
gitxiago errenik.
Artu izu *puñal* ori
eta ilzu ori!

6
–Ain da guztiz maitea
neure emaztea,
orrek ez dau poztuten
ne[u]re biotza.

7
–Zuk ilten ezpadozu,
il daiela Amaliak.
Amaliak ilten ezpadeu,
anai estudianteak.

8
–Juanita, yatzi zaitez
zaldi orren ganetik,
sartu diotzuten *puñal* au
biotzen erditik.

9
–Ene orren *puñalen*
zorrotzen zorrotza!
Ikusiegaz batera
ilten dau biotza.

10
–Zazpi mando daukodaz
urregorriz beterik.
–Arik artuzuz, baña
ni itxi bizirik.

11
–Arik artukodaz, baña
zu ez itxi bizirik.
–Zazpi mando daukodaz
urrezuriz beterik.

12
–Arik artuzuz, baña
ni itxi bizirik.
–Arik artukodaz, baña
zu ez itxi bizirik.

13
–Zazpi neba daukodaz
Frantzie aldean,
arik jakingo balekie
ni zelan nabien,
laster altzauko laukie
Frantzie guztie

14
–Zazpi izera daukodaz
odolez beterik,
eta zortzigarrena
orain betekot nik.

Dimako eredu hau guztiz interesgarria da. Eredu honetan besteetan aurkitzen den *tristerik* hitzaren lekuan *larririk* dator. Biltzaileak egiazko *tristerik* hitza ordezkatu egingo ote zuen? Ez dugu uste hala denik. Gainerakoan testuak ez du inolako aldaketarik nozitzen. Hitzen bat erdarakada begitantzan bazaio biltzaileari, kurtsibaz jartzen du. Halaxe dator originalean.

23
NESKA ONTZIRATUA BALADA

1. SARRERA

Bada euskaraz balada zoragarri bat hainbat kantutegi eta balada-bildumatan agertzen dena. Balada horri gure artean *Neska ontziratua* deitzen diogu. Gaztelaniaz, ordea, *El marinero raptor* bezalaxe ezaguna da herri literaturako ikertzaileen artean. Bestaldeko kantutegi eta aldizkarietan, kantaren *Brodatzen ari nintzen* hasierarekin ezagunagoa da, inolaz ere. Badirudi baladagaiaren izena gaztelaniaz marinel engainatzaileak ematen diola; eta euskaraz, ordea, neskatila engainatuak. Gure balada *Neska ontziratua* lehenengoz izendatu zuena Santi Onaindia izan zen bere 1954ko *Milla euskal-olerki eder* liburuan. Behin baino gehiagotan pentsatu dut hobeki jokatuko genukeela, baldin balada gaia lehenengoz S. Onaindiak izendatu zuen bezalaxe gaur ere erabiliko bagenu, hau da, *Neskatx(a) ontziratua* eta ez *Neska ontziratua*, bahitzen edo engainatzen dutena neskatila edo neskatxa gazte bat baita. Zergatik jarri ote zion Santi Onaindiak izenburu hori gure baladari? Beharbada *Le romancero populaire de la France, choix de chansons populaires françaises. Textes critiques par George Doncieux* (Paris 1904) liburuko "L'embarquement de la fille" atala gogoan izanik, euskaraz ere berdintsu jokatu nahi izan zuelako.

Neska ontziratua balada gaia euskaraz dugun ederrenetako bat da. Doinu pausatu eta erakargarria du, batetik; eta, indar handiko hitzak ditu, bestetik. Gure balada gai hori, gutxi-asko, Europa osoko balada tradizioan zabaldua da. *Neska ontziratua*ren euskarazko ereduak, gure ustez, ez dira merezi duten adinean ezagutuak. Guk azken hamar urte hauetan lau eredu zuberotar argitara ditugu. Chahoren bi eredu, Altzaiko bat eta Gotaineko bat eta Baxenafarroako eredu berri argitaragabe bat ere bai. Iparraldeko eredu horiek guztiak eredu argitaragabeak izan dira. Eredu horiez gainera Bizkaiko Azkueren ereduak finkatu ere egin ditugu. Atal honetan eskuizkribuetan Euskal Herri osoan sakabanaturik dauden *Neska ontziratua* balada gaia duten ereduak ekarri eta iruzkinduko ditugu.

Neska ontziratua baladari bost artikulu monografiko eskaini dizkiogu. Lehena 2003. urtean, azkena 2014. urtean. Artikulu bakoitzean eredu argitaragabe bat edo gehiago finkatu ditugu. Atal honetan bost artikulu horiek oinarri harturik batez ere Bizkaiko eta Iparraldeko ereduak finkatuko ditugu. Bizkaikoetan grabazioak eta eskuizkribuak erabili ditugu, Iparraldekoetan hainbat kantu-kaier.

2. *NESKA ONTZIRATUA*: ARGUDIOA ETA PERTSONAIAK

Neskatila gazte batek bere jauregian, brodatzen ari delarik, marinel baten kantu ederra entzuten du. Euskarazko aldaeretan ez da jauregirik inoiz aipatzen. Neskatilak bere bizilekuari erreferentzia egiten

dionean, *etxe* hitz soila aipatu ohi du. Neskatila, gehienetan, sala edo galeria batean ari da brodatzen. *Sala* edo *galeria* jauregi edo handietxe bati dagozkion lekuak izan ohi dira. Kantu eder horrek xoraturik amagana doa eta amak alabari diotso kapitainagana joan eta gonbida dezala etxean afaltzera. Neskatila bere jauregitik itsasbazterrera joan eta ntzian dagoen kapitaina afaritera gonbidatzen du. Aiherrako gure ereduan neskatila sala batean ari da brodatzen, baina kantua entzuteko goiko ganbera batera joateko baimena eskatzen dio amari. Alaba kapitainagana doanean, kapitainak itsasoratu behar duela diotso, haizea alde duelako. Gure Aiherrako aldaeran *haizea* alde izan beharrean *ura* duela alde dio kapitainak. Ura alde izatea ez dugu beste gainerako euskal eredu bakar batean ere aurkitu. Behin ontzian sartu ondoren, kapitainak lo-belarra ematen dio eta neskatxa lokartzen da. Kapitainaren engainuzko bahitzea marinel on batek salatu ohi du, gehienetan. Itsasoan barrena legoa asko nabigatu ondoren, neskatilak iratzarri eta etxera itzultzeko erregutzen dio kapitainari. Baxenabarreko aldaeretan *aita-amen etxerat itzultzea* esan beharrean *aita-amen porturat turnatzea* erregutzen du neskatilak. Itsasoan barrena legoa asko egin dituztela eta ezin dela turnatu erantzuten dio kapitainak. Neskatilak bere burua galdurik ikusten duenean, ganibeta eskatzen du soineko estua askatzeko. Kapitainak ganibetarik ez du eta bere ezpata ematen dio. Aiherrako ereduan, ganibeta eman beharrean, puñala ematen dio. Neskatilak puñalarekin bere jantziak askatu beharrean, bihotzean sartu eta lurrera erortzen da.

Neskatila hil ondoren denen artean musu bana eman eta itsasora jaurtitzen dute hilotza. Kapitainak neskatila aita-amen portura itzultzen ez badu ere, itsasoko uhinek itzuliko dute hilotza gurasoen portura. Aiherrako ereduan ez dator azken bukaera hau.

Neska ontziratua baladako ereduetan bi estilo trukatu ohi dira: elkarrizketa eta narrazioa hirugarren pertsonan. Hirugarren pertsonan ari den narratzailea adierazteko "poeta" hitza erabiliko dugu. Hitz hau Humboldtek *Andre Emili* baladaren transkripzio sarreran erabili zuen: *Dichter* alemanez. Euskarazko *Neska ontziratua* balada ereduetan elkarrizketa eta poeta horiez gain, lehen pertsonan ari den neskatila protagonistaren narrazioa ere agertu ohi da (lehen, bigarren eta are hirugarren ahapaldietan), eta are lehen pertsonan ari den poeta batena (Donibane Garaziko ereduko 15. ahapaldian, kasurako).

Puntu honetan, gaingiroki bada ere, argudioa eta zenbait zehaztasun eman ditugu. Gure asmoa xumea da: baladara hurbiltze saio txiki bat egitea, hain zuzen. Baladetako argudioak odoltsuak, bihotz-erdiragarriak izan ohi dira. Baladetan argudio bihotz-erdiragarri eta hunkigarriak estetika landu eta markatu batez kontatu ohi dira. *Neska ontziratua* baladan errepika berezi bat agertzen zaigu eredu gehienetan, errepika hori *ritornello* edo bihurkia izendatu ohi dugu.

Neska ontziratua baladaren euskarazko eredu guztiek bateratasun nabarmenak dituzte. Bizkaiko eta Zuberoako ereduen artean, ordea, badira diferentzia nabarmenak. Bizkaiko aldaeretan neska lokartua itsasoaren erdian esnatzen da, zarata eta ontzi-ikara handi bategatik. Ontziak haitz bat edo beste ontzi bat jotzen du eta zarata horrek neskatila esnatzen du bere lo sakonetik. Bizkaiko ereduetan neskatila hila itsasora botatzen dute. Honela dio, esaterako, Dimako ereduak: *–Neure lagunok, bai, marinelak, oin oni zer ein gineio?/ –Belatxu bati amarradute ureri emon gineio*. Derioko aldaeran *zazpi astean* erabiltzen dute hildakoa *intzentzuagaz intzentzadu te erinotzagaz lurrundu* ondoren; gero itsasora botako dute *zazpina mosu* eman ondoren.

Zuberoako ereduetan gainerakoetan agertzen ez diren zehaztasun harrigarriak ditugu. Hona zenbait. Eredu guztietan kapitainak neskatilari lo-belarra –Bizkaiko ereduetan txikigarriarekin: *lo-bedartxu bat*– ematen dio lokartzeko. Zuberoako eredu zaharretan kapitainak neskatilari urre-sagarra eta lo-belarra ematen dizkio. Urre-sagarra delako objektua Zuberoako ereduetan bakarrik ikusten dugu.

Bi madarikazio agertu ohi dira Zuberoako testuetan. Neskatilak, esaterako, madarikatu egiten du jostunaren eskua soinekoa estuegi egin diolako. Zuberoako eredu guztietan, Chahoren bietan, eta Altzaiko eta Gotainekoan ere, aurkitzen dugu. Behin neskatila hila erori ondoren, kapitainak errementariaren eskua madarikatzen du ezpatari moskoa zorrotzegi egin diolako.

Neska ontziratua balada gai duten euskarazko ereduak geure ahozko ondareko kantu narratiborik ederrenetakoak dira, gure ustez. Kontu ezaguna denez, gure balada gaia Europako balada tradizioan ondo txertatua da. Gure atal honetan batez ere eskuizkribuan gorde diren ereduen transkripzio zehatza egiten da.

3. AHOZKO LITERATURA PUSKAK ETA BALADAK

Euskal herri-literaturako generoetako aleak biltzen berandu hasiak gara. Gu biltzen hasi garenerako altxor handi bat galdua izango zen betiko. Bildu ditugun kantu zenbait kantu osoago batzuen pusketak dira, inolako dudarik gabe. Jauregi bateko ate dotore baten harri batek edo bestek ate horren jatorrizko itxura nolakoa zen irudikatzera eramaten gaitu. Lurpean harrizko ate baten giltzarria bakarrik aurkitzen badugu, giltzarria ate bati dagokiola jakin dezakegu; baina harri galduren bat aurkitzen badugu, ate edo leiho edo beste zein lekutakoa den ere ezin dezakegu asmatu askotan. Gure hitzen sendogarri eta erakusgarri ekar dezagun Luis Villasanteren "El euskera, la literatura vasca y la zona de Guernica" artikuluko pasarte bat (L. Villasante: 1966):

> La disociación que secularmente ha existido –y que aún hoy perdura– entre el pueblo y los cultos ha sido causa de que la literatura popular vasca de tipo oral nos sea tan mal conocida. Muchas de sus joyas se perdieron para siempre; las viejas generaciones se llevaron consigo su secreto a la tumba.

Hitz hauek 1966. urtean idatziak daude, Gernikako VI. mendeurreneko esku-programa batean. Herri-literaturako ahozko genero askoren aleak galduak daudela herri-literaturazale guztiok onartu ohi dugu. Kopla bat edo beste galdua izateak min ematen digu, balada oso bat galdua izateak min handiagoa. Balada baten ahapaldi batek edo bestek nekez eman dezake balada osoago baten irudia. Balada baten ahapaldi bakarrak edo bakarren batzuk mosaiko zoragarri bateko tesela bakanak izan ohi dira. Hona hemen Luis Villasanteren artikuluko pasarte argigarri bat:

> La literatura y poesía popular vasca es particularmente rica en piezas de subido valor, en contra de lo que a veces se ha afirmado por quienes la desconocían y aun la creían inexistente; pero el hecho se explica por esta disociación a la que hemos aludido. Las clases cultas, formadas en las lenguas oficiales, prestaban escasa atención a la lengua vasca, que era el órgano de expresión del pueblo, y aun estaban con frecuencia incapacitadas para apreciar las formas poéticas en que se expresaba éste.
>
> El romancero vasco *–las kopla zarrak–* es tal vez la manifestación más alta de la poesía popular. Aún no se ha hecho un estudio acabado de esta peculiaridad poética, que debió de florecer en el país del siglo XVI al XVIII, y de la que han llegado hasta nuestros días, por vía oral, numerosos fragmentos. Este romancero nos da fe de lo que nuestro pueblo ha sentido y vivido. Hay en este repertorio amoríos, odios, muertes, nacimientos, adulterios, fábulas de animales. El tema religioso ocupa también en él un puesto importante. El Hijo de Dios hecho carne, sus misterios, su nacimiento, la Pasión, la Virgen, la repulsa que José y María reciben en Belén al pedir hospedaje, etc. La peregrinación a Aránzazu ha dado ocasión a algunos de los más bellos y de los más divulgados de estos romances. Para más de un crítico, el romancero vasco constituye la joya de más valor de toda nuestra literatura.

Hitz seinalagarriak dira pasarte honetakoak. Euskal prosaren maitale eta ikertzaile handienetako batek, Axularzalerik handienetako batek, euskal baladen gaineko hitz sutsuak erabiltzen ditu. Euskal baladak euskal literatura osoko bitxirik preziatuena osatzen dutela dio; eta euskal literatura osokoa idazten badu, ahozko zein idatzizko literatura ulertzen dugu, bere osotasun guztizkoan. Gure lan honetan Luis Villasantek dioen balio handiko pieza baten berri eman nahi dugu.

Luis Villasanteren ideiak besterengan ere aurki ditzakegu. Euskal baladen edertasunaz eta balioaz orain baino lehenagoko ikertzaileak konturatu ziren, hona Rodney Gallopen aipamen bat (R. Gallop: 1934):

> Only one race, and that a small one, the Basques, has so far escaped attention, thanks largely to the difficulty of the language. The Basque ballads may be few in number, but they rank high not only in beauty and vigour, but also for the contribution they bring to the controversies already alluded to.

Euskal balada gaiak gutxi dira baina esan-indar edo edertasun handikoak, ikertzaile ingelesak egoki aitortzen duenez. Euskal balada hauen tradizioa galdu xamarrik zegoen, ordea, orain dela aspaldi

ere. Rodney Gallopek *Errege Jan*, *Anderea gorarik*, *Berterretxen khantorea*, *Atharratzeko jauregia*, *Egun bereko alharguntsa* eta *Urtsua* baladak ingelesez eman eta iruzkindu ondoren hauxe dio:

> Unfortunately these old ballads are dying out. In a few years they will be remembered no more. But the spirit which gave than birth lives on, though diverted into other channels.

Rodney Gallopek ez du *Mariñelaren khantorea* edo *Neska ontziratua* euskal baladen artean izendatzen. Ordurako Iparraldean balada honen ahozko tradizioa galduxea zen. Balada honen testigantzarik ez zegoen manualik ezagunenetan; ez zegoen Francisque-Michelen *Le Pays Basque* (1857) lanean edo Sallaberryren *Chants populares du Pays Basque* (1870) kantutegian edo *La tradition au Pays Basque* (1900) liburuan. Gure baladaren lehen transkripzio ia osoa 1921eko *Gure Herria* aldizkariko gehigarri musikal batean agertua zen. Balada gai horren gaineko ikerketa eta balorazioak, ordea, askoz geroagora etorriko ziren.

Gure beste balada gai batzuk halaxe datozkigula uste du Rodney Gallopek:

> It is hard to know how much credence may be attached to these legends dating from the Reconquest of Spain from the Moors. Now that even the legend of Roland has been shown to be a fiction (with at the most a shallow substratum of truth) devised bay the monks of Roncevaux to entertein the pilgrims to Compostella, many would claim that nine ballads out of ten contain no more than a local rechauffé of some medieval tale brought originally from the East.

4. BIZKAIKO EREDUAK

Bizkaiko *Neska ontziratua* baladaren ereduen berri ematen hasiko gara. Iruzkinduko dugun Bizkaiko lehen eredua Foruko *Neska ontziratua* balada izango da.

4.1. *Azkuek bildutako Foruko aldaera*

Istorio bitxi bezain harrigarria du Azkuek bildutako balada honek. Azkuek Bizkaian, Gernika ondoko Forua herrian, bildu zuen balada *Cancionero Popular Vasco* (CPV) kantutegian argitara zuen lehenengoz, eta gero, *Euskaleŕiaren Yakintza*-n (EY). Kontua da, ordea, eredua bat bera izanik, lekuko edo berriemaile beraganik jasoa hain zuzen, ez zuela berdin eman leku bietan. Azkuek Maria Manuela Artetxeri Foruan bildu eta honelaxe transkribatu zuen CPV kantutegian, 866. zenbakian, 1006. orrialdean:

Neure alaba Manuelatxu
neure esan bat eidazu
atostean dagon kantari oŕi
datorkidala esaiozu.

Bein banengoan kalean
aŕi otzaren ganean
dama polit bat etoŕi đatan
an zer egiten nengoan.

–Aitak eta Amak biraldu naude
damatxu oŕi esatera
datorkigula geurera eta
geurekin apaldutera.

Geurekin apaldu eta gero
kantuz irakastera.
–Nire kantua gura dabena
betor neurekin bordera.



Neska ontziratua balada. Azkuek bildutako Foruko aldaeraren puska bat.

Azkuek lau ahapaldi hauek pentagrama bidez eman ondoren, erdal itzulpena ere ematen du. Itzulpen horretako gauza harrigarriena, ordea, bukaeran dator. *Betor neurekin bordera* "venga conmigo a la borda" itzultzen duelako, eta ez "(que) venga conmigo a bordo". Puntuazioan *Nire* posesiboaren aurreko gidoitxoa bakarrik jarri dugu, nor den hiztuna bereizteko. Azkuek *kantuz* eta *irakastera* hitzen artean puntu bat jartzen du, baina erratu edo inprenta huts bat dela uste izanik, ez dugu transkribatu. Nahiz eta lekuko edo berriemaile beraren eredu bera izan jatorrizkoa, ez du berdin transkribatzen EY lanean, IV alean, XXIII zenbakian, 191. or.:

1
Neure alaba Manuelatxu,
neure esan bat indazu:
ateostean dagon kantari orri
datorkidala esaiozu.

2
Bein banengoan kalean eta
arri otzaren ganean,
dama polit bat etorri ddatan
an zer egiten nengoan.

3
–Aitak eta amak biraldu naude
damatxu orri esatera
datorkigula gurera
geurekin apaldutera.

4
Geurekin apaldu eta gero
kantuak irakastera.
–Nire kantua gura dabena
betor neurekin eztegura.

Bi transkripzioen artean badira hainbat gauza harrigarri. Handi-handienak esateko, lehen ahapaldiko *indazu* adizkia *eidazu* baten ordez jarri du. Laugarrenean, *kantuak irakastera* CPVko *kantuz irakastera* moduaren ordez. Eta azkenik, *eztegura* jarri du *bordera* horren ordez. Bati baino gehiagori harrigarri bezain ulertu ezinezko egingo zaizkio aldaerok, guri ere halaxe iruditzen zaigu. Badira beste xehetasun batzuk begi-bistakoak direnak eta hemen aipatzea luze lihoazkigukeenak. Puntua bukatzeko esan dezagun Lekeitioko biltzaileak honelaxe iruzkintzen duela balada: "De Maria Manuela Artetxe, de Forua. Su linda melodía hállase en la pág. 1006 del *Cancionero*. Sin duda nació esta canción de Guipúzcoa".

4.1.1. Foruko aldaera *Euskal baladak* liburuan

J.A. Lakarrak, K. Bigurik eta B. Urgellek beren *Euskal Baladaren azterketa eta antologia bilduma* egiteko, Azkueren paperetara jo eta CPV eta EY liburuetan argitara ez ziren ahapaldiak aurkitu zituzten. Honelaxe azaltzen dute beren aurkikundea:

> Azkuek Foruan Maria Manuela Artetxeri jasoa; CPV 866 zb.an ez zituen lehenbiziko hogei lerroak baino eman. Guk osoan ematen dugu Azkue Bibliotekako paperetarik kopiatuz.

Azalpen honen ondoren Azkueren landa-kaieretik transkribatu zuten Foruko aldaera. Euskal baladak liburuko transkripzioa hauxe da:

Neure alaba Manuelatxu
neure esan bat eidazu
atostean dagon kantoreari
datorkidala esaiozu.

Bein banengoan kalean
arri otzaren ganean
dama polit bat etorri jatan
an zer egiten nengoian.

Egun on asko euki daiala
ontziko maisu gastea.
Beste ainbeste euki daiala
linda damatxu geurea.

Aitak eta amak biraldu nabe
datorkidala geurera
datorkidala geurera eta
geurekin apaldutera
geurekin apaldu eta gero
kantuen irakastera.

Nire kantua gura dabena
betor neurekin bordera.
Eskerrik asko mila mesede
Estot olako usterik
Etxean nabe aitak eta amak
ni ondo estimaturik.

Egin zuen berba bat eta
sartu zuen kapapean
sartu zuen kapapean eta
eroan zuen untzian.

Lo bedar bat ipini zion
bi bularraren erdian
linda dameau lo joan jatan
bosteun legua bidean.

Portunaz bere suertau jatan
ontzian atia jotia
ordu atantxe itzartujatan
linda damatxu neurea.

Ontziko maisu gaztea
badezu kainibetea?
Eztot nik kainibetarik baia
emongo deutsut sablea.

Sableau eskura artuta
emen sartu zuen sabel berean
ordu atantxe ilotzitu zan
linda damatxu neurea.

Neure mutilak lagunak onak
zer egongo diot oneri?
Guzti guztiok lastan bana emon
bota daiogun urari.

Azkueren paperetatiko *Euskal Baladak* liburuko transkripzio hau beste kantu-bilduma batzuetara ere aldatu da, X. Amurizaren *Bizkaiko bertsogintza I Izengabeak* liburura eta A. Zavalaren *Euskal erromantzeak/Romancero Vasco* bildumara. *Orotariko Euskal Hiztegia*n (OEH) ere ikusi daiteke *borde* hitzaren testuinguruarekin. Jon Kortazarren "*Neska ontziratua* baladaren inguruan" artikuluan ere EB liburuko transkripzio bera dator, inolako aldaketarik gabe.

Transkripzio horrek badu bere meritua, inolako zalantzarik gabe, baina ez da ezkutatu behar hutsak ere badituela. Azkueren zenbait kantu ondo transkribatzeak lan handiak ematen ditu. Lan handiak eta, hala ere, huts egiteko arriskua. Zergatik? Batzuetan letra txikia, nimiñoa, erabiltzen duelako. Letra txikiegia dela ere esatera ausartuko nintzateke. Pentagramako bost marratik bost marrarako tarte txikietan testu luzea egoki transkribatzea doinu-marka guztiekin zuen helburu Azkuek. Eta horretarako letra txikia egin behar, nahi eta nahi ez. Badu beste zailtasunik ere Azkueren transkripzioak. Ez du beti hitz bera modu berean transkribatzen. Eman dezagun, kasurako, *ontzi* eta *untzi* transkribatzen dituela kanta berean, edo *maisu* eta *maixu,* bigarren hau -ś- batez, s grafemaren gainean marratxo bat duela. Norbaitek galdetuko balu zergatik jo dugun Azkueren jatorrizko eskuidatzietara, erantzuna prest genuke: ezin genituelako ulertu baladako hainbat pasarte, batetik, eta lehen dokumentura jotzea gure lan sistema delako, bestetik. Zenbaitetan balada ondo transkribatua egon arren, badira hainbat gauza ezin ulertuzko. Gure transkripzioak ez du, inolaz ere, besterenik zetakatu edo belztu nahi. Gure asmoa baladazaleari jatorrizko eskuidatzian dagoen argia eskaintzea izan da. Gure transkripzioak ere badu, jakina, huts egiteko arriskua. EBko adiskideek barkatuko didate nire saiotxo hau. Betiere argi berria isuri beharrez eta hobe beharrez saiatu naiz.

Hona EB liburuko transkripzioa

4.1.2. Foruko baladaren Azkueren ereduak

Azkueren eskuidatzietan hiru aldiz agertzen da *Neure alaba Manuelatśu* baladaren transkripzioa. Lehen bi transkripzioak zatikakoak dira, eta hirugarrena osoa, edo, behintzat, osoagoa. Joan gaitezen, beraz, astiro-astiro xehetasunak aipatuz.

Transkripziorik ttipiena, lehen ahapaldikoa eta zerbait gehixeago, ABA-RMA-005-016-001/002 koadernoan agertzen da, 418. orrialdean, 1087. kantuan. Honelaxe agertzen da:

Neure alaba Manuelatśu neure esan bat eidazu,
atostean dagon kantariari datorkidala esayozu
Geurekin apaldu eta gero

Kanta baino lehentxeago xehetasun hauek ematen ditu:

NEURE MANUELATŚU" Romance de Forua (B) Artetśe Maria Manuela v(er) su variante en la página 581.

Esan beharrik ez dago kantaren hitzak pentagrama edo musika-zeinuei lotuta daudela. Azkuek nahiz kantutegi argitaratuan *tx* transkribatu, eskuidatzian tś transkribatzen du. *Artetśe* deitura eta *Manuelatśu*, beraz, *tś*-rekin daude. Koaderno berean ere agertzen da beste aldaera luzeago bat, Azkuek iragartzen duenez. Honelaxe dator:

(–)Neure alaba Manuelatśu neure esan bat eidazu
atostean dagon kantari orri datorkidala esayozu

Bein banengoan kalean arri otzaren gainean
dama polit bat etorri jatan an zer egiten nengoyan

Aitak eta amak biraldu nabe datorkidala geurera
datorkidala geurera eta geurekin apaldutera

Geurekin apaldu eta gero kantuen irakastera
Nire kantua gura dabena betor neurekin bordera

Lau ahapaldi transkribatu ditugu inolako puntuaziorik gabe, jatorrizkoan agertzen den bezalaxe. Kantaren buruan *variante de 1087 de Forua (B): Artetśe Maria Manuela*. Eta transkripzioaren azpian: *Más versos en la pág 1 del nuevo borrador*. Hirugarren hau izango da, beraz hortatik, osoena. Hirugarren koaderno honen kodea ABA-RMA-003-010 da, eta kanta agertzen den orrialdea, lehena. Koadernoaren izenburua: *Cuadernitos de viaje. B.* Azkue handiak bere kanta bilako ibilaldietan erabiltzen zituen koadernoetako bat da. Koadernoak 26 eta 16 cm. ditu luze-zabalean.

4.1.3. Foruko aldaera: Azkueren landa-kaieretako transkripzioa

Puntu honetan baladaren transkripzio osoa jarriko dugu. Gure transkripzioaren zein iruzkinen argigarri, ahapaldiak zenbakitu ditugu. Hona, beste gabe gure transkripzioa. Puntuazioa Azkuerena izan beharrean gurea bada, parentesi artean jarriko dugu dena delako idazketa zeinua.

1
(–)Neure alaba Manuelatśu(,) neure esan bat eidazu(:)
atostean dagon kantoreari datorkidala esayozu(.)

2
Bein banengoan kalean arri otzaren ganean(,)
dama polit bat etorri jatan an zer egiten nengoyan(.)

3
(–)Egun on asko euki dayala(,) ontziko maiśu gaztea.
–Beste ainbeste euki dayala linda damatśu geurea.

4
(–)Aitak eta amak biraldu nabe datorkidala geurera(,)
datorkidala geurera eta geurekin apaldutera(,)

5
Geurekin apaldu eta gero kantuen irakastera.
(–)Nire kantua gura dabena, betor neurekin bordera (=ontzira).

6
(–)Eskerrik asko mila mesede eztot olako usterik,
etśean nabe aitak eta amak ni ondo estimadarik.

7
Egin zuen berba bat eta sartu zuen kapapean(,)
sartu zuen kapapean da eroan zuen untzian.

8
(–)Lobedartśu bat ipini nion bi bularraren erdian(,)
linda dameau lo joan jatan bosteun legua bidean.

9
Portunaz bere suertau jatan ontziak atśa jotea,
ordu atantśe itzartu jatan linda damatśu neurea.

10
(–)Ontziko maisu gaztea badezu kaiñibetea(?)
–Eztot nik kaiñibetarik baya emongo deutsut sablea.

11
–Sableau eskura artuta emon sartu zuen sabel berean(,)
ordu atantśe il otzitu zan linda damatśu neurea.

12
–Neure mutilak, lagunak onak, zer egingo diot oneri(?)
(–)Guzti guztiok laztan bana emon bota dayogun urari.



Neska ontziratua balada. Foruko eredu osoa.

4.1.4. Foruko aldaera ahapaldiz ahapaldi

Foruko aldaera honek badu zer iruzkindu. Puntu honetan ahapaldiz ahapaldi balada osoa iruzkinduko dugu. Puntu honetan Azkueren dokumentuko transkripzioa iruzkintzeko *Euskal baladak* lan taldekoen transkripzioa hartuko dugu kontuan.

1

(–)Neure alaba Manuelatśu(,) neure esan bat eidazu(:)
atostean dagon kantoreari datorkidala esayozu(.)

Balada askotako pertsonaiak txikigarri bat izan ohi dute. Gure baladako protagonistak Manuelatxu izena du. Foruko *Neska ontziratua* balada *Neure alaba Manuelatxu* izenarekin ezagutua izango da. Lehen ahapaldia ondo baino hobeto transkribatua da EB liburuan. Jatorrizko eskuidatzitik egin diren aldaketa bakarrak gaur eguneko ortografia idazkerari dagozkio. Era horretara, *Manuelatxu* eta *esaiozu* transkribatu dira jatorrizko *Manuelatśu* eta *esayozu*. Markagarria da CPV eta EY lanetan erabili den bidea apur bat txukuntzekoa izan dela, *kantoreari* idatzi beharrean *kantari orri* transkribatu delako. Eta, bigarrenik, EY-n, *neure esan bat indazu* agertzen da eta ez *neure esan bat eidazu*.

2

Bein banengoan kalean arri otzaren ganean(,)
dama polit bat etorri jatan an zer egiten nengoyan(.)

Ahapaldi hau *Ana Juanixe* baladakoa da. Kontaminazioz gure baladan txertatu da. Kontaminazioz izan arren nolabaiteko lotura lortzen du gure baladarekin. Etxean dagoen neskatila etxetik kanpora joaten baita ate ostean dagoen kantorearekin hitz egitera.

Ahapaldi honen ondoren transkribatzaileak kurutze bat jarri du. Zeinu horrek, jakina, ondoren zerbait txertatu edo erantsi behar zaiola adierazten du.

Bigarren ahapaldian, denean dago antzera. CPV lanean besteetan agertzen ez den zehaztasun bat dago *dama polit bat etorri jatan* horretako adizkiaren bustidura adierazteko *d* grafemaren gainean gangartxo bat dago. Ahapaldi honen bukaerako *nengoyan* bai Azkueren CPV eta EY lanetan, bai EB lanean berdin transkribatu da: *nengoan*. Baladaren batasun edo zentzuari dagokionez, ahapaldi hau balada-hari edo argudiotik kanpora gelditzen da. Bigarren honi buruz, A. Zavalak ER lanean (250. or.) honela dio: “Bertso ori, izan ere, alperrik dagoala esango genduke, kontaeraren aria eten egiten baitu. Bearbada eraskiñen bat izango da”. Bigarren ahapaldi honen antzerakoa *Ana Juanixe* baladan aurki dezakegu. Balada bietan itsasoko gaia agertzen denez gero, normala da batetik besterako kontaminazio edo kutsadura izatea.

Balada bietan, gainera, neskaren deikia *linda damatxu* (ER, 280. or.), edo euskarazko modu jatorragoan, adjetiboa ondorik duela, *dama lindatxu* (ER, 275. or.).

3

(–)Egun on asko euki dayala(,) ontziko maiśu gaztea.
–Beste ainbeste euki dayala linda damatśu geurea.

Ahapaldi hau transkripzioaren bukaeran dator. Ahapaldi honen hasieran *Egun* hitzaren ezkerretara + zeinua dator. Zeinu horrek adierazi nahi du bigarren ahapaldiaren ondoren gehitu behar dela ahapaldi hau, bigarrenaren ondoren zeinu bera agertzen baita.

Hirugarren ahapaldi hau berriemaileak kantaren bukaera aldera kantatua zuela dirudi, kantaren azkenean datorrelako. Kantaren hariari dagokionez, ordea, gure ahapaldi-segidan hirugarren lekua dagokio. Azkuek maisu hitza transkribatzeko, bere eskuidatzian *ś* darabil, gure *maixu* hitzaren ordain. Zenbait lekutako sibilantearen aurreko bokale palatalak sibilantea edo txistukaria bustitzen duen seinale. Birritan agertzen den *dayala* dagoen bezala transkribatu dugu guk, nahiz erabat onargarria izan EB lantaldekoek hartu duten bidea. Ez dago esan beharrik, azkenik, *damatśu* hitzeko afrikatua Azkuek *tś* gangardunarekin transkribatu zuela eskuidatzian. Ohargarria da A. Zavalak bere lanean (ER) aldatu egiten duela *linda damatxu geurea* forma logikoago batera: *linda damatsu neurea.* Forma hau, ordea, ez dator jatorrizko eskuidatzian.

4

(–)Aitak eta amak biraldu nabe datorkidala geurera(,)
datorkidala geurera eta geurekin apaldutera(.)

Laugarren ahapaldia EB taldekoek bezalaxe transkribatu dugu. Azkuek, ordea, bere CPV lanean honelaxe agertzen du: *–Aitak eta Amak biraldu naude/ damatxu orri esatera/ datorkigula geurera eta/ geurekin apaldutera*. Antzera, baina ez erabat berdin, EY lanean ere: *Aitak eta amak biraldu naude/ damatxu orri esatera/ datorkigula gurera/ geurekin apaldutera* transkribatzen duelako. Azkuek asmatu egiten du adizki bat *naude* jatorrizko *nabe* jarri ordez, eta jatorrizkoan agertzen den *damatxu orri* ere agertzen du ahapaldi honetan. Ahapaldi barruko bihurkiari betegarri hutsa iritzi ote ziolako? Badirudi, bestaldetik, ezinezko-edo egingo zitzaiola adizki eta izenordeen bateratasun eza, hots, *datorkidala* eta *geurera* direlakoena.

5

Geurekin apaldu eta gero kantuen irakastera.
(–)Nire kantua gura dabena, betor neurekin bordera (=ontzira).

Bosgarren ahapaldian ere bat gatoz EB taldekoarekin. Badira, ordea, hiru ohar markagarri. Azkuek *kantuen irakastera* idatzi zuenean, *kantuen* hitzaren azpian bi marra jarri zituen. Zergatik? Objektu direktua aditz izenarekin genitiboan jartzea ez delako mendebaldeko euskararen ezaugarria. Zenbait kanta zaharretan, ordea, agertzen da, esaterako, marijesietako *astotxuaren txalmatzen* eta abar. Azkuek bitxitasunak markatzeko ohitura zuelako froga argi bat hemen dugu. Ahapaldiaren azken bertso-lerro bezala *betor geurekin bordera* transkribatu dugu, EB taldekoek bezala. Nahiz testutik kanpora gelditzen den, Azkuek beste ohar bat jarri zuen segidan: berdintasun marka eta parentesi artean *(=ontzira)*. Horrek zer esan nahi du? *bordera* delakoak *ontzira* esan nahi duela, hots, erdarazko *a bordo* adierazten duela. Ohar hau EBkoek transkripzioaren ostean jarri dute. *Borde* hitza gaztelaniazko *bordo* dela adierazteko, badago beste balada bat guk azterkizun dugun honekin zerikusi handia duena, Derio-Zamudioko aldaerako bosgarren ahapaldia: *Berbau aotik esan bazuan ze/ sartu zioen kapapean/ sartu zioen kapapean ta/ eroan zuen bordera*. Badago, azkenik, beste ohartxo bat. Azkuek lehen transkripzioan *geurekin* transkribatu badu ere, gerora *neurekin* transkribatu du, g grafemaren gainean indartsuago n idatzi baitu.

6

(–)Eskerrik asko mila mesede eztot olako usterik,
etśean nabe aitak eta amak ni ondo estimadarik.

Seigarren ahapaldian ez dugu berdin transkribatu EB taldekoek eta guk. Zergatik? Guk *ni ondo estimadarik* irakurtzen dugulako, eta EB taldekoek *ni ondo estimaturik*. Ongi ohartu garenean, argi bezain garbi dago *estimadarik* dela. Eguzkiaren argia baino argiago dago *–tu–* baten ordez *–da–* irakurtzen dela. Modu horretara, pertsonaren genero marka garbi dago, eta bizkaieraren aditz bukaera ere errespetaturik. Bizkaieraz *kanta(d)u*, *estima(d)u* eta abar, eta ez, jakina, *kantatu*, *estimatu*. Balada honetan berean, gainera, agertzen da *suertau* aditza eta ez *suertatu*. Egia da testuak aditz nahaste handia agertzen duela, eta beharbada horrexegatik irakurri dute EB taldekoek *estimaturik*. Nahaste handia dago Bizkaiko adizkiak (*nabe, jatan, deutsut, dayala, eztot, dayogun*…) eta giputz euskarakoak (*badezu, zuen, nion, diot*) nahasten direlako. Biak batera ere agertzen dira nahasteka bitxian, zazpigarren ahapaldiko *eroan zuen*, kasurako. Kontuan hartzekoa da, honezaz guztiaz gainera, Zamudioko aldaerako *neu ondo estimadarik* horrekin duen bateratasuna.

Badago aipatuko dugun beste txikikeriatxo bat, *eztot olako usterik* irakurtzen dugu guk, eta ez *estot olako usterik*. Beste era batera esan, jatorrizkoan ondo transkribaturik dago, euskara estandarrean bezalaxe, *eztot* formako *ez* adberbioa. Berdin gertatzen da azken ahapaldiko *laztan* hitzarekin ere. Kontuan hartzekoa da Azkuek euskara idatzian bezalaxe transkribatu zuela kanta (*zuen, gaztea*…) nahiz, normala den bezala, Foruko hiztunak XX. mende hasieran ez desberdindu ahoskeraz s/z txistukariak. Guk geure lan honetarako jatorrian bezalaxe jarri dugu.

7

Egin zuen berba bat eta sartu zuen kapapean(,)
sartu zuen kapapean da eroan zuen untzian.

Zazpigarren ahapaldian ez dago irakurketa-desberdintasun handirik. Badira, ordea, bi ohartxo egin beharrekoak. Guk *sartu zuen kapapean da* irakurtzen dugu eta EBkoek *sartu zuen kapapean eta*. Hasierako bertso-lerroan, guk EBkoek bezalaxe, *Egin zuen berba bat eta* irakurri arren, bigarrenean ez dugu *eta*-rik irakurtzen. Azken bertso-lerroan, hasieran *eroan zuten untzian* idatzi arren, *zuten* adizkiaren gainean *zuen* idatzi du transkribatzaileak. Ohartzekoa da, era berean, orain arte *ontzi* transkribatu duen arren, oraingoan *untzian* transkribatu duela Azkuek.

Ontzi/untzi alternantzia Foruko ereduan ez ezik, Derio-Zamudiokoan ere ematen da. Berriemaile berak hitz bera o–/u– hasiera duela berdin kantatzen du.

Ahapaldi hau, bestalde, Derio-Zamudioko aldaeran ia berdin-berdin ikusten dugu. Bahitzaileak kapapean hartzen du neskatila eta bihurki bat eman ondoren *eroan zuen ontzian* dio Derio-Zamudioko aldaeran bezalaxe.

8

(–)Lobedartśu bat ipini nion bi bularraren erdian(,)
linda dameau lo joan jatan bosteun legua bidean.

Zortzigarren ahapaldia ere ez dugu berdin transkribatu. Desberdintasun nagusiak lehen bertso-lerroan aurkitzen ditugu. Guk *lobedartśu bat ipini nion* ttipigarria edo diminutiboa duela, batetik, eta adizkia lehen pertsonan, bestetik. Zehatzago joko bagenu, hasieran *lobedertśu bat* idatzi duela dirudi, eta gero zuzenduz, *lobedartśu bat*. Ez dago esan beharrik *bat* zenbaki edo artikulua beherago egon arren, guk ere EB taldekoek bezala transkribatu dugula. Adizkiari gagozkiola, ez dugu zalantza izpirik ere *nion* dela, eta ez inolaz ere *zion*. Testuak ematen duen argitasun handiaz gainera, badago Zamudioko aldaerarekin bateratasun argia, ttikigarrian zein adizkiaren pertsonan: *Lobedartxu bat ipini neuntzen*.

9

Portunaz bere suertau jatan ontziak atśa jotea,
ordu atantśe itzartu jatan linda damatśu neurea.

Bederatzigarren ahapaldia da desberdinen irakurtzen duguna. Hemen egin den hutsa edo gaizki irakurria, nolaerebait esatearren, garbien ikusten dena da. Guk *Portunaz bere suertau jatan/ ontziak atśa jotea* irakurtzen dugu. *Atśa* hitza Azkuek *–tś–* batez idazten du, eta orduan *atia* irakurri izan dute EBkoek. Bizkaiko euskaran *atxa* ekialderagoko *(h)aitza* da. *Ontziak* delakoak ergatiboaren marka darama, "ontziak haitza jotzen duelako". EBkoek ergatiboaren marka ikusi dute, transkripzioaren oinean "ontzian=ms.-k" jartzen dutelako. Esaldia ulertzeko, hasieran bi hitzetarik bat bakarrik ondo ikusi badute ere, gero zentzua emateko orduan *atśa* irakurri beharrean, *atia* irakurri dute. Bada besterik ere gure argumentazioan, *jotea* irakurtzen bada, ezin da *atia* irakurri *atea* baino. Zentzuaren aldetik ere askoz hobeto dator esaldi osoarekin *Portunaz bere suertau jatan* horrekin. Modu honetan, ezagutzen diren Bizkaiko hiru eredu osoenak, Dimakoa, Zamudiokoa eta Azkuerena elkarrengandik hurbilago daude. Zergatik? Itxura guztiak direnez, ontzi-istripu handi bat gertatzen delako. Derioko ereduan, *Alan ta bere subertia zan/ untziek alkar jotia*; Dimakoan *Ontzitxo onek jo abenian/ itxasoa ta mastria;* eta gure Azkuerenean *Portunaz bere suertau jatan/ ontziak atśa jotea*. Hiru ereduetan agertzen den (itsas)ontzi-istripu handiak zarata edo orro handia ateratzen du, eta horrexegatik esnatzen edo iratzartzen da lo-belarrez lokartua dagoen dama polita. Dama hau iratzartzeko ez da nahikoa ate-hotsa, bestelako orro edo zarata handia baino. Hiru ereduetan, orain arte ikusi dugun bezala, Deriokoak du antzekotasun handiagoa Azkuerenarekin, bietan *suerte* hitza aipatzen delako: *subertia zan/ suertau jatan*. Azkuek bildua maila estilistiko handiagokoa da, eta, era berean, pleonastikoa. Maila estilistiko handikoa da *Portunaz bere… –tea* egitura darabilelako, ahozko bizkaieran nahiko arrunta den *hain su(b)ertez be(re)… –tea* edo Lapurdiko *hain zoriz ere… –tea* egitura erabiltzen delako. Pleonastikoa da, era berean, *portunaz bere* batetik, eta *suertau* bestetik, egitura berean biltzen dituelako.

10

(–)Ontziko maisu gaztea badezu kaiñibetea(?)
–Eztot nik kaiñibetarik baya emongo deutsut sablea.

Hamargarren ahapaldi honetan bat gatoz EB taldekoekin. Ezer ohartzekotan, hasierako *Ontziko maisu gaztea* horretan *ontzi* eta *maisu* hitzak agertzen direla, eta ez inoiz lehenago jarri den bezala, *untzi* eta *maixu* hitzak. Adizkien kontuan ere badago nahastekarik, batean *eztot* agertzen da, Bizkaiko erara, eta bestean, *badezu* Gipuzkoako erara.

11

–Sableau eskura artuta emon sartu zuen sabel berean(,)
ordu atantśe il otzitu zan linda damatśu neurea.

Hamaikagarren honetan bada zertxobait markagarri. Lehen ahapaldian *Sableau eskura artuta emon* transkribatu dugu, *emen* idatzi beharrean jatorrizko *emon* aditza jarriz. EBkoek, oraingoa ondo irakurri dute transkripzioaren oinean agertzen delako "emen sartu=ms. emon". Ondo irakurri badute ere, uste dugu gaizki ulertu edo interpretatu dutela, *emon* transkribatu beharrean *emen* egin dutelako. Bertsolerroan jartzeko orduan ere, *emon* lehen bertso-lerroan jarri dugu. Sablea, beraz, kapitainak edo kantariak edo dena delakoak eskura hartu egiten du eta gero damari eman. Izan dugu zalantzatxo bat *sabel* hitza transkribatzeko orduan. Badirudi jatorrizko dokumentuan Azkuek *sabel* hitzaren s horretan gangartxo bat jarri zuela. Seguru egon ez garenez gero, ez dugu transkribatu. Hirugarren bertsolerroan *il otzitu* bereiz idatzi ditugu, iturrian agertzen den bezalaxe, nahiz eta gaizki ez dagoen, gaur eguneko eredu idatzian bezalaxe, batera idaztea.

12
–Neure mutilak, lagunak onak, zer egingo diot oneri(?)
(–)Guzti guztiok laztan bana emon bota dayogun urari.

Hamabigarren ahapaldian badira bi gauzatxo berdin transkribatu ez ditugunak. Batetik lehen bertso-lerroan *Neure mutilak, lagunak onak,* idatzi dugu, aposizio esplikatiboa koma artean dela, jatorrizkoan bezalaxe. Hirugarren bertso-lerroan *laztan* transkribatu dugu, jatorrizkoan bezalaxe, eta ez *lastan*. Badago azken ahapaldi honetan garrantzi edo gora handia duen zerbait. EBko taldekoek nahiz eta eskuidatzian *bana emon* ikusi, transkripzioaren ondoren "bana emon=ms. bana emon [ta]" jarri dute. Eta hori berez etorri ez arren jatorrizko eskuizkribuan, transkribagarri liteke, betiere kortxete artean.

4.2. *Bermeoko eredu beraren aldaera biak*

Ezagutzen ditugun Bermeoko bi ereduak aztertuko ditugu puntu honetan. Lehen eredua, Manu Ziarsolo *Abeletxek* bildua da eta Jose Ariztimuño *Aitzol* apaizari 1936-1939 gerra baino lehen bidalia. Aitzolen hondo edo funts desagertuan egon behar luke Abeletxek bidalitako dokumentua. Jatorrizko dokumentuaren ordez A. Zavalak egindako argazki bat erabili dugu. Argazki hori Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean datza. Argazkiaren zenbakia Ait 000280 dugu. Bigarren eredua oraintsuago argitaratua da. Bigarren eredua *Bermeotarrak gara gu* 1998ko CDtik guk transkribatutako eredua eskainiko dugu.

Bi aldaera hauek eredu bakarra dira, dudarik gabe. Bi aldaera hauek, bestalde, Foru, Derio-Zamudio, Dimakoen aldean askozaz pobreagoak dira. Aldaera pobreagoak izan arren, guztiz interesgarriak dira eta merezi dute arretaz egindako transkripzio eta ikerketa bat. Gure atal honetan bi aldaerak aztertuko ditugu.

4.2.1. Manuel Ziarsoloren ereduaren transkripzioa

Antonio Zavalak 1998. urteko bere baladategian argitara zuen lehenengoz Manuel Ziarsolo *Abeletxek* bildutako aldaera. A. Zavalak aldaera argitaratu ondoren ohartxo hau dakar:

> Jose Ariztimuño Aitzol zanaren bilduman azaldua; 1936 . urtean, Bilboko Manuel Ziarsolo *Abeletxe* zanak bildua, berak Bermeoko Felipe Bilbaoren aotik jasoa.

A. Zavalak egindako transkripzioan ez da ikusten argi bost ahapaldi direnik, ahapaldiak ez baititu M. Ziarsolok bezain argi bereizten. Jatorrizko dokumentuan baladak duen izenburua ere ez du jartzen: *Neskatil baten suertia*. Guk puntu honetan M. Ziarsolok J. Ariztimuñori bidali zion bezala transkribatuko dugu:

NeskatiĺeakŠ Aitak eta amak bialtzen naube
Zeure kantak entzutera
Zeure kantak entzutera eta
Etortzeko apaldutera.
———————————-

KapitanakŠ Nire kantak entzun nai dabenak
Salta dayala baŕura
Ordu aŕtantxe lo-bedaŕ artu
Linda damatxu maitiak.
———————————-

Neskatiĺeak—- Mariñeltxubek zenbat legu dauz
Nire aman da attan etxera?
Neure aman da attan etxera
Eta neu jayo nintzan eŕira?
———————————————-

Mariñelak —— Kapitan jauna, kapitan jauna
Damiak il dau burube
Kapitanak —— Berak il badeu bere burube
Nok dautso ari eŕue?
———————————————

Mariñelak —- Kapitan jauna kapitan jauna
Ze eingo yako oneri?
Kapitanak —- Pater noster bat eŕeseu eta
Eman dayogun urari.


X NESKATIL BATEN SUERTIA

Neskatiĺeak--Aitak eta amak bialtzen naube
Zeure kantak entzutera
Zeure kantak entzutera eta
Etortzeko apaldutera.

Kapitanak--Nire kantak entzun nai dauenak
Salta dayala baŕura
Ordu artantxe lo-hedaŕ artu
Linda damatxu maitiak.

Neskatiĺeak-- Mariñeltxubek zenbat legu dauz
Nire aman da aitan etxera?
Neure aman da aitan etxera
Eta neu jayo nintzan eŕira?

Mariñelak-- Kapitan jauna, kapitan jauna
Damiak il dau burube
Kapitanak--Berak il badeu bere burube
Nok dautso ari eŕue.

Mariñelak-- Kapitan jauna kapitan jauna
Ze eingo yako oneri?
Kapitanak--Pater noster bat eŕeseu eta
Eman dayogun urari.

Olerki oneik, Bermeo'ko Bilbao tar Pelipe'ri entzunak dira.

Neska ontziratua balada. Bermeoko aldaera Manuel Ziarsolo *Abeletxek* bildutako eredua.

Manuel Ziarsolok balada transkribatu ondoren ohartxo bat egiten du: Bermeo'ko *Bilbao tar Pelipe'ri entzunak dira*.

M. Ziarsoloren transkripzio honek ez du inolako arazorik sortzen makinaz orrialde batean idatzia baitago. A. Zavalak transkripzio hau gaurko ortografiara ekarri eta puntuazio egokia eransten dio. A. Zavalak bere transkripzioan, ordea, zenbait huts garbi egin ditu. Bigarren ahapaldian *Nire kantak entzun nai dabenak* dio jatorrizkoak. A. Zavalak *Nire kantak entzun nai duenak* transkribatzen du. Laugarren ahapaldian jatorrizko *Berak il badau bere burube* A. Zavalak *Berak il badeu bere buruba* transkribatzen du. Bosgarren ahapaldiko *Ze eingo jako oneri* eta *Pater noster bat eŕesau* esaldiak *ze ingo jako areri* eta *Pater noster bat errezeu* egiten digu. Erakuslearen gradua, besteak beste direla, aldaturik ikusten dugu: *oneri* jatorrizkoa *areri* eginez.

Salatzeko hutsak aipatu baditugu ere, erabaki zuzenak ere hartzen ditu jatorrizko transkripzioa zuzenduz. Hirugarren ahapaldia honelaxe dakar:

–Mariñeltxubek, zenbat legu dauz
nire aman da aitan etxera?
Neure aman da aitan etxera eta
neu jaio nintzan errira.

Ahapaldi honetan *eta* baten bidezko bihurkia hobeto transkribatua dago jatorrizko M. Ziarsoloren transkripzioan baino.

4.2.2. M. Ziarsoloren eredua ortografia gaurkotuan

Puntu honetan gaurko ortografian jarriko dugu M. Ziarsoloren eredua. Ez dago dudarik eredu hau guztiz dagoela gutxirendua eta ahapaldi jatorrizko gutxi dagoela. Lehena ahapaldi oso bat da, bigarrena, beste ahapaldi biren esaldiekin osatua dago eta ez da horrexegatik ulertzen. *Ordu a(r)tantxe* denbora esapidearen ondoren –halaxe ikusten dugu garbiro Foru, Bedia eta Derio-Zamudioko ereduetan– iratzarri edo aditz honen aldaerak aurkitzen ditugu. Ontziak elkar jo edo ontziak haitz bat jotzen duenean esnatzen da neskatila. Bestela esan, Bermeoko aldaerak *Neska ontziratua*ren hasiera-bukaerak ditu. Hasiera eta bukaerak bakarrik baditu kontaeraren gorapiloa eta bihotza falta ditu.

Baditu, bere laburrean, kontu interesgarri asko. Baliapideei dagokienez, *eta* bidezko bihurkia lehenengo eta hirugarren ahapaldietan ikusten dugu. Bihurkietako bat, hirugarren ahapaldikoa, berezia dugu, Bermeoko ereduetatik kanpora ikusten ez duguna: *nire amaren da attan etxera?/ Neure aman da attan etxera eta/ neu jayo nintzan errira?* Neskatila hiltzen danean Pater nosterra errezatzen diote. Kontu hori, geroxeago ikusiko dugunez, Bermeoko ereduetan bakarrik ematen da.

1
–Aitak eta amak bialtzen naube zeure kantak entzutera,
zeure kantak entzutera eta etortzeko apaldutera.

2
–Nire kantak entzun nai dabenak salta dayala barrura.
Ordu artantxe lo-bedar artu linda damatxu maitiak.

3
–Mariñeltxubek zenbat legu dauz nire aman da attan etxera?
Neure aman da attan etxera eta neu jayo nintzan errira?

4
–Kapitan jauna, kapitan jauna, damiak il dau burube.
–Berak il badau bere burube, nok dautso ari errue?

5
–Kapitan jauna, kapitan jauna ze eingo jako oneri?
–Pater noster bat erresau eta eman daiogun urari.

4.2.3. Bermeoko bigarren aldaera

Bigarren eredu hau kanta osoago batetik ateratakoa dugu. *Jose Migelen batela* kanta kostaldekoa Bermeon *Neska ontziratua* baladaren koplekin nahasian kantatzen dute. *Bermeotarrak gara gu* CDtik laugarren, bosgarren eta seigarren eta zazpigarren ahapaldiak hauexek ditugu.

1
–Mariñeltxoak belak aforra,/ doas untzidxek kanpora,
Saspi urtien logra(d)u esin dot/ orain noa logratzera.

2
–Kapitan jauna, kapitan jauna,/ senbat legua dauz errira?
–Leguarik asko dau sure errira,/ zu dxaidxo ziñan errira.

3
–Kapitan jauna, kapitan jauna,/ zer egingo dxako orreri
–Berak il badau bere burue,/ emon eiosu ureri.

4
–Kapitan jauna, kapitan jauna,/ ser egingo dxako orreri?
–Paternosterra erresa eta/ emon eiosu ureri.

4.2.4. Bermeoko bi ereduen arteko bateratasunak

Bermeoko gure lehen ereduan badira bigarren agertzen ez diren ahapaldiak. Lehen ereduko lehen bi ahapaldiak ez datoz bigarrenean. Hurrengo hiru ahapaldiak, ordea, oso antzerakoak ditugu bigarren ereduko azken hirurekin. Bigarren ereduko ahapaldi bat, ordea, ez da lehen ereduan agertzen.

Lehen ereduko hirugarrenean *zenbat legu(a) dauz*? galdetzen du neskatilak. Erantzuna antzekoa da kasu bietan. Are gehiago Bermeoko aldaeretan bakarrik aurkitzen dugu *zu jaio zinan errira* esaldia (*zu dxaidxo ziñan errira*).

Lehen ereduko laugarren ahapaldiak eta bigarren ereduko hirugarrenak berdintasun nabarmena dute, ia ahapaldi bera da hitzez hitz.

Lehen ereduko bosgarren ahapaldiko galdera eta bigarren ereduko laugarren ahapaldikoa, galdera bera da hitzez hitz: *Kapitan jauna, kapitan jauna/ zer egingo dxako oneri/orreri?* Galdera modu inpersonalean egiten da Bermeoko eredu bietan. Gainerako eredu guztietan ez: Derio-Zamudiokoaan *zer ingo'tzegu oneri*?; Arratia-Dimakoan *oiñ oni zer ein geiñeio*?; eta Forukoan *zer egingo diot oneri?*

Derioko eredu bietan paternosterra edo paternoster bat errezatzen dute. Gainerako ereduetan ez da errezatu konturik aipatzen.

4.2.5. Bermeoko ereduaren bateratasuna gainerako ereduekin

Bermeoko lehen ereduan neskatilari deitzeko modu markatua *linda damatxu (maitia)* agertzen da. Era hori berori ikusten dugu Derio-Zamudio eta Foruko aldaeretan. Aipatu ditugun hiru ereduetan

linda dama egitura ttikigarriz dator: *linda damatxu*. Egitura hori, gehiago zehaztuz izenondo bat ere eransten zaio: *linda damatxu maitia, linda/–e dama(txu) gaztia*. Euskaraz *dama linda* kopla eta are erromantzeetan ere aurkitzen dugu, baina izenondoa aurretik duela, *linda dama(txu) (gaztia)/(maitia)*, *Neska ontziratua* ereduetan bakarrik.

Aitak eta amak egitura Foru eta Derio-Zamudioko ereduetan aurkitzen dugu. *Aitak eta amak bialtzen naube* Bermeko lehenengoan. *Aitaren d'amaren errire* Arratia-Dimako ereduan; *aiten d'amaren errire* Derio-Zamudio ereduan. Gure Bermeoko lehen ereduan ordena aldaturik ere bai: *nire aman da attan etxera/ Neure aman da attan etxera eta/ neu jayo nintzan errira?*

Hildakoa *urari emon* egiten da Arratia-Dimako aldaeran. Foru eta Derio-Zamudioko aldaeran, ordea, *urari bota*.

4.2.6. Bermeoko aldaera nahastua

Kantu hau *Bermeotarrak gara gu* 1998. urtean ateratako CDtik transkribatu dugu. CD horretan Bermeoko herri kantak biltzen dira. Kantariak Josu Zabalondo, Lupe Fernandez eta Ana Tere Bengoetxea dira.

1
Itxasuntzidxek duasenian/ beseguten itxasora,
Neskatillek artuten dabe/ tresna gustidxen ardura.

2
Loidxetan gertatuten dire/ karnada ta apaidxuek,
bidxaramungo egunien/ prest dan euki daidxien.

Jose Migelen batela, txitxarrua (e)ta berdela (bis)

3
Loidxetako neskatilliek/ txalupek datosenien
Asten dire gorabeetan/ otzara zaarren tzien.

4
–Mariñeltxoak belak aforra,/ doas untzidxek kanpora,
Saspi urtien logra(d)u esin dot/ orain noa logratzera.

5
–Kapitan jauna, kapitan jauna,/ senbat legua dauz errira?
–Leguarik asko dau sure errira,/ zu dxaidxo ziñan errira.

6
–Kapitan jauna, kapitan jauna,/ zer egingo dxako orreri
–Berak il badau bere burue,/emon eiosu ureri.

7
–Kapitan jauna, kapitan jauna,/ ser egingo dxako orreri?
–Paternosterra erresa eta/ emon eiosu ureri.

Jose Migelen batela, txitxarrua ta berdela (bis)

Hona aldatu dugun kantuan bi kantu nahasian ikusten ditugu. Jose Migelen batela, kostalde osoan ezaguna eta are Bizkaia barruan ere, eta *Neska ontziratua* baladaren ahapaldi batzuk.

4.3. *Derio-Zamudioko aldaerak*

Neska ontziratua balada gaiaren Derio-Zamudioko aldaerak aztertuko ditugu puntu honetan. Derio-Zamudioko eredua guztiz interesgarria da alderdi askotatik. Gure baladaren Bizkaiko hiru ereduetatik interesgarrienetakoa da. Bizkaian bildu den azken eredua izanik edertasun eta ezaugarri guztizkoak ditu, ikusiko dugunez. Balada honen bertsiorik osatu eta luzeena argitaraturik egon arren, beste bi *performance*-tan berriemaile berak emandako bi eredu argitaragabe ere transkribatuko ditugu lan honetan.

Puntu honetan transkribatu eta aztertuko ditugun hiru aldaerak Derio-Zamudiokoak izendatu ditugu. Orain arte Derioko aldaera bakarrik izendatzen zen. Guk zehaztasun txiki bat gaineratu diogu, Derio-Zamudioko aldaeraren berriemailea Zamudiokoa izanik Deriora etorri zelako bizi izatera 25 urte zituela. Derio eta Zamudio Bizkaiko Txorierriko bi herri dira. Guk hiru eredu eskainiko ditugu, denak Derioko Labayru Fundazioaren artxiboan gordetzen dira, 298. zinta-zenbakian. Hiru ereduetatik lehena errezitatua da eta bigarren-hirugarrenak kantatuak.

Lehen errezitatua:

1
Lobedartxu bet ipini notzen
bular biaren erdien,
linde damea loak daroa
bosteun legoa bidien.

2
Alan ta bere suertia san
untziek alkar jotea,
ordu atantxe itxartu zala
linde damatxu gastea.

3
–Eroan naixue, (untziko maisu gastea), eroan naixue
aiten d'amaren errire
–Aiten d'amaren errire joateko
bosteun legoa bear dire.

4
Untziko maisu gastea,
badesu kañabetea,
esteukat kañabetarik baña
eroango deutzut saflea.

5
Eman sioten saflia eta
sartu sion bere biotzian
ordu atantxe illotzitu sen
linde damatxu gastia.

6
–Ene mutillak, lagunek onak,
ser ingotzegu oneri?
Emon deiogun saspine mosu ta
bota deiogun ureri.

7
Emon sioten saspine mosu ta
bota sioten ureri,
ordu atantxe akabe sala
linde damatxu gastie.

Bigarren bertsioa, bertsio kantatua:

1
–Aitek ta amak bialtzen neude
au kantatxuau ikasten.
–Au kantatxuau ikis nai bosu
erdu neurekin bordera.

2
–Eskerrik asko mille mesedes
ez dot olango usterik,
aitek etamak etxian neukie
neu ondo estimadarik.
Aitek etamak etxian neukie
neu ondo estimadarik.

3
Berba au ata basuan se
Koiu sioen besapian,
bertotik ara…
eroan seudien untzien.

4
Lobedartxu bat ipini zioen
bular biaren erdian,
linde damia loak daroa
bosteun legoa bidien.

5
Alan ta bere suertia san
untziek alkar jotia,
ordu atantxe itxartu zala
linde damatxu gastia.

6
–Untziko maisu gastia,
eroan naixue, eroan naixue,
aitan da amaren errira
aiten da amaren errire joateko
bosteun legoa bear dire.

7
Bosteun legoa olan eiteko
orren erresak estire,
aitan da amaren errire joateko
orren erresak estire.

8
Ontziko maisu gastia,
badaukasu kañabetia?
Estaukat kañabetarik baña
eman sioten saflia.

9
Eman sioten saflia eta
sartu seuen sabeletik
ordu atantxe illotzitu sen
linde damatxu gastia.

10
–Ene mutillak, lagunek onak,
ser eingotzegu oneri?
Emon deiogun saspine mosu
bota deiogun ureri.

11
Emon sioten saspine mosu
gustiek alkar arturik,
ordu atantxe linde damia
bota deiogun ureri.

Hirugarren eredua, eredu kantatua:

1
–Isabelatxu, Isabelatxu, arren esan bat eidasu
atian dauen kantoriorri etor dila esaiosu.

2
–Egun on asko euki disule untziko maisu gastia
–Alango asko ekar disule linde damatxu gastia.

3
–Aitek eta amak bialtzen neude au kantatxuau ikasten.
–Au kantatxuau ikis nai bosu linde damatxu gastie.

4
Eskerrik asko mile biderres es dot olango usterik
aitek eta amak etxian neukie neu ondo estimadarik.

5
Berbau aotik esan basuan se sartu sioen kapapean
sartu sioen kapapian ta eroan suen bordera.

6
Ipini nontzen lo-bedartxu bet bular biaren erdian,
linde damia loak daroa bosteun legoa bidian.

7
Ara ta bere subertia san untziek alkar jotia,
Ordu atantxe itxartu sala linde damatxu gastia.

8
–Eroan neisue, eroan neisue aitan d'amaren errire.
Aiten d'amaren errire joateko bosteun legoa bear dire

9
Aiten d'amaren errire joateko bosteun legoa bear dire
bosteun legoa olan eiteko orren erresak es dire.

10
–Ontziko maisu gastia badisu kainabetia?
–Estaukat kainabetarik baina emango ditu saflia
estaukat kainabetarik baina emango deitu saflia.

11
Eman sioten saflia eta sartu sioen sabeletik
Ordu atantxe ilotzitu san linde damatxu gastia.

12
–Ene mutilek, lagunek onak, ser eingo'tzegu oneri?
–Intzentzoagas intzentzatute erañotzagas lurrundu.

13
Linde damia saspi astian geurekin erabil daigun,
linde damia saspi astian geurekin erabil deigun.

14
–Ene mutilek, lagunek onak, ser eingo'tzegu oneri?
–Emon deiogun saspine mosu ta bota deiogun ureri.
Emon deiogun saspine mosu te bota situan ureri.

4.3.1. Derio-Zamudioko eredua ahapaldiz ahapaldi

Berriemaileak balada honetako ahapaldi guztiak bata bestearen ondoren kantatzen ditu. Galdetzaileari (*h)asiko nas?* Galdera egin ondoren kantatzen ditu ahapaldi guztiak.

1
–Isabelatxu, Isabelatxu, ar[r]en esan bat eidasu
atian dauen kantari orri etor dila esaiosu.

Lehen ahapaldi hau ez da agertzen aurreko bi aldaeretan.

Derio-Zamudioko aldaera honetan, Foruko aldaeran bezala, neskatila ontziratuaren izena aipatzen da. Foruko aldaeran *Neure alaba Manuelatxu* dugu, gure Zamudiokoan, bi aldiz: *Isabelatxu, Isabelatxu*.

Transkripzioari dagokionez, argi baino argiago dio berriemaileak: *kantari orri*. Orain arteko argitalpen oinarrizkoenetan 1986ko artikuluan eta *Mendebaldeko Euskal baladak* lanetan *kantore orri* irakurtzen dugu. Kantariak *aren esan bat eidasu* dio. 1986ko artikuluegileak argi dio *aren esan bat eidasu* kantatzen badu ere, *ar[r]en esan bat eidasu* izan behar duela.

Nola dio berriemaileak *etor dila* edo *etor deila*? Guk beti *etor dila* entzuten dugu

2

–Egun on asko euki disule untziko maisu gastia
–Alango asko ekar disule linde damatxu gastia.

Ahapaldi honetako *egun on asko* formula bakar-bakarrik Foruko aldaeran aurkitu dugu. Bestela esan, *egun on* agurrari *asko* zenbatzailea erantsirik Foruko aldaeran eta Derio-Zamudiokoan aurkitu dugu. Are gutxiago *euki d(ag)izule* ondoan duela. *Egun on* agurrari *alan ekarri* erantzun ohi bazaio Bizkaian, *Egun on asko euki (aditz jokatua)* delako agurrari modu paraleloan *Alango asko ekarri (aditz jokatua)* dugu. Foruko ereduan zazpigarren ahapaldian hauxe dugu: *–Egun on asko euki dayala,/ ontziko maišu gaztea./–Beste ainbeste euki dayala/ linda damatśu geurea*. Gure bigarren ahapaldia eta Foruko zazpigarrena, beraz, bat datoz ia hitzez hitz.

Agur-formulak euskal balada askotan ditugu. *Frantzia korteko* ereduetan, *Lisibatxoa*, *Urthubiako Alhaba*, eta abarretan.

3

–Aitek eta amak bialtzen neude au kantatxuau ikasten.
–Au kantatxuau ikis nai bosu erdu neurekin bordera.

Borde hitza bi aldiz aurkitzen dugu geure eredu honetan: hirugarren eta bosgarren ahapaldietan. Ez dago esanguraren aldetik inolako zalantzarik *erdu neurekin bordera* aginduak erdarazko "ven conmigo a bordo" esangura du. Bosgarren ahapaldian kantariak bere desira bete ondoren *eroan zuen bordera* dio. Foruko aldaeran *Nire kantua gura dabena/ betor neurekin bordera* irakurtzen dugu. Foruko esaldi hori eta gure ahapaldi honetakoa bat datoz bete-betean. OEH hiztegian Foruko adibidea jarririk ondoan *'a bordo'?* jartzen du galde-markarekin. 1986ko *Idatz & Mintz*-eko artikulua ordurako argitaratua zegoen eta berez aski garbi zegoen kontua are era garbiagoan uzten du Zamudio-Derioko ereduak.

Adizkiei gagozkiela, *neude* entzuten dugu. Adizki guztietan *–au–* guztiak *–eu–* bihurtzen dira: *neude, neukie*.

4

–Eskerrik asko mile biderres es dot olango usterik
aitek eta amak etxian neukie neu ondo estimadarik.

Hirugarren *performance* honetan *mile biderres* entzuten dugu argi. Lehen bertsio kantatuan, ordea, *mile mesedes* entzuten dugu. Foruko aldaeran *mila mesede* esapidea ere agertzen da. Guk transkribatutako Foruko aldaeran ere *ondo estimadarik* aurkitzen dugu.

5

Berbau agotik esan basuan se sartu sioen kapapean
sartu sioen kapapian ta eroan suen bordera.

Duda egin dugu *aotik/agotik* aukera bien artean. Lehenengo aldian *kapapean* entzuten badugu ere, bigarrenean *kapapian* entzuten dugu. Harrigarriak dira gipuzkerako *zuen* (suen ahoskatua) eta *sartu zioen* (sioen ahoskatua).

6

Ipini nontzen lo-bedartxu bet bular biaren erdian,
linde damia loak daroa bosteun legoa bidian.

Halaxe entzuten dugu: *bular biaren erdian*. Harrigarria bada ere Duvoisinen *Ana Juanixe* baladaren aldaeran *laztan eder bat eman ziraten bular biaren erdian* biltzen du. Bateratasuna hain modu harrigarrian nola izan liteke?

7

Ara ta bere subertia san untziek alkar jotia,
Ordu atantxe itxartu sala linde damatxu gastia.

Ahapaldi hau eta Forukoa bat datoz hainbat hitzetan. Foruko aldaeran *subertau jatan* dator, gurean *subertia zan*. Gure eredu honetako subertia san seguru asko *subertau zan/ jatan* aditzetik etorria izango da. Badago beste kontu interesgarri bat *ordu atantxe* horretako *ordu* hitzak "unea" esan nahi du, gure ustean, Iparraldeko tradizioko testuetan bezalaxe. Foruko ereduan ere berdin-berdin esaten da: *Portunaz bere suertau jatan ontziak atśa jotea,/ ordu atantśe itzartu jatan linda damatśu neurea*.

8

–Eroan neisue, eroan neisue aiten d'amaren errire.
Aitan d'amaren errire joateko bosteun legoa bear dire.

9

Aiten d'amaren errire joateko bosteun legoa bear dire
bosteun legoa olan eiteko orren erresak estire.
Bosteun legoa olan eiteko orren erresak estire.

10

–Ontziko maisu gastia badisu kañabetia?
–Esteukat kañabetarik baña emongo dizut saflia,
esteukat kañabetarik baña emongo deizut saflia.

Ahapaldi honen transkripzioak eman dizkigu arazorik. Dudarik ez dugu *badisu kañabetia* esaten duela eta ez *badezu kañabetea*. Duda handiena *emongo dizut* eta errepikan *emongo deizut* horrek eman dizkigu, ez baita erabat argi ahoskatzen.

11

Eman sioten saflia eta sartu sioen sabeletik
Ordu atantxe ilotzitu san linde damatxu gastia.

12

–Ene mutilek, lagunek onak, ser eingo'tzegu oneri?
–Intzentzoagas intzentzatu te erañotzagas lurrundu

Ahapaldi honek eta hurrengoak lehenengoz ematen ditu berriemaileak. Lehen eredu errezitatuan eta bigarren ereduan (lehen eredu kantatua dena) ez da agertzen ahapaldi hau ez hurrengoa.

13

Linde damia saspi astian geurekin erabil daigun,
linde damia saspi astian geurekin erabil deigun.

14

–Ene mutilek, lagunek onak, ser eingo'tzegu oneri?
–Emon deiogun saspine mosu ta bota deiogun ureri.
Emon deiogun saspine mosu te bota situan ureri.

Argi baino argiago dago *Idatz & Mintz* aldizkariko 1986. urteko ereduan eta MEB (*Mendebaldeko euskal baladak*) liburuko *Emon zioten zazpine mosu bota zioten ureri* ez duela berriemaileak kantatzen. Lehen bertsio errezitatuan: *emon sioten saspine mosu ta/ bota sioten ureri./ Ordu atantxe akabe sala linde damatxu gastie*. Bigarren bertsioan: *Emon sioten saspine mosu/ gustiek alkar arturik. Ordu atantxe bota deiogun ureri*.

5. AITZOLEN FUNTSEKO *NESKA ONTZIRATUA* BALADA

Donostiako Koldo Mitxelena kulturuneko Jose Ariztimuño *Aitzol*en funtsean, *Neska ontziratua* balada gaiaren hiru eredu aurkitzen dira. Ereduetako bat Bermeon Ziarsolo idazleak bildua izan zen. Bermeoko eredua gainerako Bizkaiko ereduen artean aztertu izan da. Beste bi ereduak ekialderagokoak dira. Bata, geroago ikusiko dugunez, Lapurdin, Saran, bildua izan zen Itsasuko Ana Iturriague andreari 1917. urtean. Beste eredua biltzaileak Elizondon bildua izan zela adierazten badu ere, sasieredu garbia da. Eredu biek alderdi askotatik badute zer iruzkindua. Eredu biak banaka hartu eta analisi testuala egitea ere beharrezkoa dela deritzagu.

5.1. Neska ontziratua *baladaren lehen eredua*

Neska ontziratua baladaren lehen eredua *Poesias vascas labortanas* izenburuarekin, gaur eguneko 091-Ait doc 39 signaturan, 23. orrialdeko dokumentu batean 36 kantu biltzen dira. Kantu guztiak makinaz idatziak daude eta akats tipografiko askotxo daude kantu guztietan. Kantu-bildumaren bidaltzailearen izenik dokumentuan agertu ez arren, Mayi Ariztia saratarra dela uste dugu. Ez dugu uste, geroxego frogatzen saiatuko garenez, J.M.S. dokumentu-bidaltzailearen siglak direnik. Kantu bakoitzaren berriemailearen izenik ere ez dator.

Dokumentu horren zenbait zertzelada ezagutzen ditugu. Lehen orrialdean 2-2-34 jartzen du. 1934ko otsailaren bia adierazten dute zenbaki horiek. Uste izatekoa da dokumentua Mayi Ariztia saratarrak bidali zuela. Kantu bildumaren bidaltzailea Sarako *Lehetchipia* etxeko Mayi Ariztia dela uste izateko arrazoi bat baino gehiago ditugu. Uste dugu kantu bilduman datorren gure baladaren eredua Mayi Ariztiari Lehetchipia etxean, 1917. urtean bildua izan zela. Aita Donostiak *Euskal Eres Sorta* 111. zenbakian honelaxe dio:

> Infor.: Ana Iturriague, de Itsasu, en Lehetchipi. Loc. rec.: Sara. Fecha: 8 de febrero de 1917. Clas.: amorosa. Ref.: Texto remitido por Adrianne Diharasarri.

Kontu ezaguna da Mayi Ariztia aita Donostiaren eraginez kantuak eta ipuinak biltzen hasi zela. Aita Donostiak argitaratu zuen *Neska ontziratua* kantuaren eredu osoena, lau ahapaldikoa, Mayi Ariztiaren Lehetchipia baserrian bildutako kanta izan zen. Eredu hori berori beste eredu batzuekin nahaste bidali zion M. Ariztiak Aitzoli ere.

Dokumentuaren izenburua ere adierazgarria da, dudarik gabe: *Poesias vascas labortanas*. Aitzoli bidalitako urte berean, 1934an, "Leyendas laburdinas" izeneko lana argitaratu zuen *Anuario de Eusko Folklore* aldizkarian.

Poesias vascas labortanas dokumentuaren zazpigarren orrialdean, inolako izenbururik gabe, lau ahapaldiko eredua dator. Honela dator:

I

Egun batez ari nintzelarik sala batian brodatzen
itxasotik aditu nuen, mariñel bat kantatzen
Mariñel bat kantatzen eta bertso oien emaiten.

II

Utzurik brodatzia eta joan nintzan amarenganat
eian utziko ninduenez itxaro batererat
itxaso batxerreat eta etitxuterat

III

Nera alaba abil abil itxaso bastererat
bainan orroit adi argatik, illuna urbil dela
illuna urbil dela eta etxerat itxultzia

IV

Mariñela, mariñela emoe untziari bela
aspaldien desir nuena, jin zantak untziak bera
jin zantak untzirat bera eta parti gaiten bereala



(Karikaturin tokian)

7

I

* Egun batez ari nintzelarik sala batian brodatzen
itxasotik aditu nuen,mariñel bat kantatzen
Mariñel bat kantatzen eta bertso oien emaiten

II

Utzurik brodatzia eta joan nintzan amarenganat
eian utziko ninduenez itxaro batererat
itxaso batxerreat eta etitxuterat

III

Nere alaba abil abil itxaso bastererat
bainan orroit adi argatik,illuna urbil dela
illuna urbil dela eta etxerat itxultzia

IV.

Mariñela,mariñela emoe untziari bela
aspaldien desir nuena,jin zantak untziak bera
jin zantak untzirat bera eta parti gaiten bereala

Antxu gaste bilo ori txarmanta zar zaite zar
korrelan larnera artaldian bada oi zure baahara
turna zaite turna zura zor lekura
Nik begistatzen dut ura,aren ondotik nabila ardura

II

Egun oroz goiz eta arratsetan nago beti pena doloretan
ez dioket jan,ez eta ere edan,ez dakit ze z dudan
gaitz andi bat dani baitan amarratu nau bet betan
ez naiteke bizi gisa ontan

Ai ai ai ai ai ai ene maitia ez zirarea lozase
jaiki,jaiki,jaiki,zaite ganberako leyorat edo bortarat
zura ondotik emen nabilazu desertorbat bezala

Neska ontziratua balada. Aitzolen funtsekoa. Sarako eredua.

Eredu honek huts nabarmenak ditu. Zenbait huts, inolako dudarik gabe, erraz zuzentzekoak dira, baina beste zenbaitetan hitzak guztiz desitxuraturik aurkitzen ditugu. Antonio Zavalak bere baladategiko laugarren eredua aita Donostiaren eredu osoena da, lau ahapaldikoa, Lehetchipia etxean bildua. Aita Donostiaren eredua transkribatu ondoren ohar argigarri hau egiten du:

> Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bilduman ere agertu dira lau bertso hauek, eta berdin-berdin agertu ere. *Poesias vascas labortanas* deritzaion sorta batean.

Eredu bera denik, beraz, ez dago dudarik. A. Zavalak ez dio Aitzolen bildumako eredua transkripzio tipografikoen hutsak dituenik. Aita Donostiaren eredua txukunagoa ematen du, besterik gabe. Hona eredu biak erkatzeko aita Donostiarena:

(I)
Egun batez ari nintzelarik
sala batian brodatzen,
itsasotik aditu nuen
mariñel bat kantatzen,
mariñel bat kantatzen eta
bertsu auen emaiten.

(II)
Utzirik brodatzia eta
juan nintzen amaren ganat,
heian utziko ninduenez
itsaso bazterrerat,
itsaso bazterrerat eta
kantuen entzuterat.

(III)
–Nere alaba, abil, abil
itsaso bazterrerat,
bainan oroit hadi hargatik
iluna hurbil dela,
iluna hurbil dela eta
etxerat itzultzia.

(IV)
–Mariñela, mariñela,
emok untziari bela,
aspaldian desir nuena
jin zautak untzirat bera,
jin zautak untzirat bera eta
parti gaiten bereala.

Aitzolen funtseko eredua eta aita Donostiarena guztiz bat datoz. Badago, hala ere, desberdintasun bat edo beste. Lehen ahapaldian erakuslearen gradua desberdina da. Aitzolenean *bertso oien emaiten* dator aita Donostiarenean *bertsu auen emaiten*. Baliteke, beharbada, jatorrian ez bata eta ez bestea izatea. Ezagutzen ditugun bestaldeko eredu guztietan *bertso ederren emaiten* da. Aita Donostiak argitaratutako transkripzioa askoz txukunagoa izan arren, baliteke zenbaitetan garbiegi jokatzea. Dardarkarien transkripzioak arazo handiak eman ohi ditu. Aita Donostiarenean *oroit hadi* jartzen du eta Aitzolenean *orroit adi*. Baliteke kantari itsasutarrak *orroit hadi* kantatu izatea.

5.2. Neska ontziratua: *Aitzolen bigarren eredua*

Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz ekintzailearen bigarren eredua Koldo Mitxelena kulturuneko 091-Ait doc 93 001 signatura duen dokumentuan aurkitzen da. Bitori Etxeberriak, Jose Ariztimuño *Aitzol* apaizari, 1934. urtean, 28 kantu bidali zizkion makinaz idatziak. Kantu gehienak Elizondon, Baztanen, bilduak dira. Bitori Etxeberriak eskuidatzi bi ere erabili zituen bere bilduma egiteko. Matias Mendikoa arizkundarraren eskuizkributik *Sorlekua Frantzian nuen* kantu ezaguna transkribatu zuen. Karrikaburu jaunaren eskuizkribuetatik bost kantu bildu zituen: *Kaikua*, *Txori erresiñula*, *Dozena erdi bat berso*, *Txibirin brinkulin*, *Iru eta bida bortz*. Kantu guztien azkenean biltzailea etorri ohi da. Kantu gehienetan nori bildua edo zein eskuidatzitatik kopiatua (Arizkungo Matias Mendikoa edo Karrikaburu jaunaren eskuidatzietatik) izan den ere ematen da hamar kantutan izan ezik.

Bitori Etxeberriaren 28 kantuetako azken aurrekoa *Neska ontziratua* balada gaieko bi ahapaldiko eredu bat dator. Ereduaren transkripzioaren ondoren ez da esaten nori bildua izan den. Hitzez hitz honelaxe dator: *(Elizondon 1933'gaŕen urtean bildue biltzalea: Etxebeŕia'tar Bitori). Neska ontziratua* kantaren izenburua hauxe da: *Eguntxo batez nindagolari* (sic). Bi ahapaldiak hauexek dira jatorrizko dokumentuan datozen bezalaxe:

Eguntxo batez nindagolari nere aterian biryosten
Aiton seme bat ate man izun itxaso aldetik abesten
Itxaso aldetik abesten eta eresi edeŕen ematen.

Zer nai duzu zuk ereslari zaldun neri etxian zuk egun
Otoi, andrea, nai nikezu zurekentxe mintza lagun
Zurekentxe mintza lagun izan biryosten ere ikastun.



Eguntxo batez nindagolari

Eguntxo batez nindagolari nere aterian biryos-
ten
Aiton seme bat ate man izun itxaso aldetik
abesten
Itxaso aldetik abesten eta eresi edeŕen ematen.

Zer nai duzu zuk ereslari zaldun neri etxian
zuk egun
Otoi,andrea,nai nikezu zurekentxe mintza lagun
zurekentxe mintza lagun izan biryosten ere
ikastun.

(Elizondon 1933'gaŕen urtean bildue
biltzalea:Etxebería'tar Bitori)

Neska ontziratua baladaren sasieredua.

Eredu hau A. Zavalak bere baladategian jaso zuen *Brodatzen ari nintzan* balada gaian, zazpigarren zenbakian. A. Zavalak egin ohi duen moduan lehenengo eredua jarri eta ondoren azalpena ematen du. Honela dakar:

Eguntto batez nindagolarik
nere aterian bordatzen,
aiton-seme bat atxeman nizun
itxaso aldetik kantatzen,
itxaso aldetik kantatzen eta
eresi ederren ematen.

–Zer nai dezu zuk, ereslari zaldun,
nere etxian zuk egun?
Otoi, andrea, nai nikezu
zurekentxe mintza lagun,
zurekentxe mintza lagun, izan
bordatzen ere ikastun.

Bi bertso auek Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bilduman agertu dira. Bitori Etxeberriak Elizondon 1933. urtean jaso eta bialduak.

1/2 eta 2/6 lerroetan biryosten esaten da. Dudarik ez da bordatzen bear duala eta orrela idatzi degu; 1/5 lerroan, berriz, *abesten* zegoan eta *kantatzen* ezarri degu; 1/6 lerroan, berriz, *eresi* dio, baina *kanta, kantu, kobla* edo *bertso* bearko luke, dudarik gabe. Oietakozein izango dan ezin erabaki, ordea. Orregatik, dagoan bezala utzi degu. Azkenik, 2/1 lerroaren ereslari itzaren lekuan, *kantalari, kantari, bertsolari, koblari* edo olako zerbait beharko luke. Arrazoi beragatik ez degu aldatu.

Antonio Zavalak bere baladategian Elizondon bildutako alea benetakotzat hartzen du eta apur bat orrazturik beste eredu bat bezala sartzen du. A. Zavalarentzat Elizondoko eredua apur bat orraztua dagoenez gero, bere jatorrizko izatera bihurtzeko zuzenketa batzuk egiten ditu. Dena, ordea, ezin zuzendu eta zenbait hitz dauden-daudenean jartzera behartua aurkitzen da.

Bitori Etxeberriaren gainerako 27 kantuetan, ordea, ez da agertzen testu orrazturik. Tradiziotik jasotako testu jatorrak dira guztiak. Makina-hutsak agertzen dira tarteka, baina ezin esan, inolaz ere, Bitori Etxeberria jaso zituen testuak txukuntzen edo "garbitzen" ibili zenik. Ez zituen kanta bakar batean ere era bateko edo besteko garbizaleek erabiltzen zituzten hitzak sartu. Kontuan izan behar dugu garai hartan Larramendiren joera garbizalea ahuldua bazegoen ere, aranismoa puri-purian zegoela. Zer gertatzen da, beraz, Aitzolen funtseko bigarren eredu honekin? Bigarren eredu hau sasi-eredua dela. Ez da, inondik inora ere, egiazko eredu bat. Azkuek, Larrainen (Zuberoa), bildu zuen *Neska ontziratua*ren lehen ahapaldi batean oinarritu eta sei ahapaldiko eredu bat sortu zuen. Konturik harrigarrienetakoa, ordea, hauxe da: Azkuek sortu zuen eredu balizkoa egiteko Zuberoako euskaran oinarritu zen gehienbat. Larrainen ahapaldi bakarra bildu zuenez gero, Zuberoako euskaran eredu osoago bat sortzen ahalegindu zen. Aditz eta morfologia zuberotarra oinarri harturik sortu zuen berea. Azkueren sorkariko lehen bi ahapaldiak hauexek dira (CPV, 3 zk. 3, 56-59. or.):

I

Aldixe batez[1] nindagoelarik ene etsarian birjosten,
Aiton-seme bat auteman nizun itsasaldetik kantatzen,
itsasaldetik kantatzen eta eresi edxeŕen emaiten.

[1] Bost artikuluak bibliografian zerrendaturik daude.

II

¿Zer nahi düzü, ereslari zaldun ene etsarian zük egün?
–Othoi, anddere, nahi nikezü zurekilan mintzo-lagün,
zurekilan mintzo-lagün izan, birjosten ere ikhastün.



Neska ontziratua balada. Zuberoako Larrainen bildua. Lehen ahapaldia.

Eredu hau sortu ahal izateko bere hitzen gaineko jakituria erabili zuen. Aditzak eta desinentziak Zuberoakoak badira ere, hitz zenbait beste leku batzuetakoak dira. *Etsari* hitza, esaterako, hiztegiko gehigarrian eta morfologia liburuetan jaso zuen eta ez dugu Zuberoakoa. *Ikastun* hitza, Azkuek berak bere hiztegian dakarrenez, (AN-Esteribar, Bc, Gc) Bizkai-Gipuzkoetakoa da, Nafarroako Esteribarren bildua, hots, Zuberoatik oso urrun. *Mintzo-lagün* ere Azkueren hitz-konposizio da, beste inongo testigantzarik ez da aurkitzen eta.

Ez dago dudarik Aitzolen funtseko eredua honen desitxuratzea garbia dela. Jatorrizko lehen ahapaldiko *etsarian* delakoa *aterian* bihurtzen da; bigarren ahapaldian, ordea, *etxian*. Harrigarri baino harrigarriago da A. Zavala ez konturatzea eta Aitzolen funtseko eredua bere oinera ekarri nahirik txukuntzen hastea.

Baliteke Azkueren sorkaria neurri txiki batean tradizionalizatu edo ahozkotu izana. Ahozkotze hau Azkueren beste olerki batzuetan ere, oso maila txikian bada ere, gertatu izan da. Adibide garbi bat ematekotan *Basatxoritxu* kantarekin gertatu da.

6. *NESKA ONTZIRATUA* BALADAREN AZKUEREN EREDUAK

Azkueren kantutegia (CPV) irakurri besterik ez dago ikusteko Zuberoan ere bazirela *Neska ontziratua* baladaren ereduak. Maitasun kantuetako saileko (*amorosas*) hirugarren kantan, lehen tomoan (57. or.) *Aldixe batez* kantaren sarrera hau egiten du Lekeitioko jakitunak:

> J. Algorri, carretero recadista (no sé si natural de Larraine, Zuberoa,) cantó la melodía con sólo la primera estrofa. Las otras cinco, así como algunas correcciones de la primera, son del folclorista. *Sala baxean brodatzen* decía el original "bordando en sala baja" por *ene etsarian birjosten* (neolog.) "bordando en mi sala". *Kobla edxerrak emaiten* decía por *eresi edxerren emaiten*. *Jaun gazte bat entzun nian* decía cojamente por *Aiton-seme bat auteman nizun* "advertí la presencia de un noble galán.

Lehen ahapaldiaz baizik ez zen gogoratzen gurdizalea, eta Azkuek lehen honen bere ustezko konponketa eta txukunketak egin ondoren, beste bost berri asmatu zituen bere ustezko Zuberoako euskara apainean. Esan dezagun oraingoz, Azkueren paperetan badirela argitaratu zituen baino zehaztasun gehiago. Bi lekutan behintzat, bi koadernotan alegia, agertzen da kantutegian publikatu zuen pusketatxoa. Bere bi koadernotan agertzen da kanta-hasiera: 001-002-001 kodeko 813. zenbakian, 334. orrialdean, eta bigarrenik, 005-0014-002 kodeko 125. zenbakian, 53. orrialdean. Bi leku hauetan agertzen dena da CPV lanera aldatu zuena. Bi aldaeren artean ia ez dago aldaketarik. Lehen iturrian *kobla ejerrik emaiten* esaten duena, bigarrenean *kobla ejerrak emaiten* jartzen du. Bi ereduen oinean badago hizkuntza ohartxo bat kantutegira aldatu ez zuena. *Sala baxean* horretako *sala baxe* delakoa, frantesez *basse sale* dela. Hizkuntza aldetiko ohar horretaz gainera, berriemaileak eman bide zion zehaztasun polit bat ere badugu kantaren goiko alderdian, ezkerretara: *Mariñelaren "khantorea" var. de 80?*

Azter dezagun orain zehaztasun bikoitz horrek bere mamian duena. Zuberoako euskaran kantu narratiboei *khantore* deitzen dietela kontu nahikoa ezaguna dugu. Euskaraz dugun baladarik zahar bezain ederrenetako bati *Bereterretxen khantoria* deitzen diote. Ekialdeko euskararen hitz hau izenburuan aipatzen duen *Kantu kanta khantore* bilduma polita gogoratu besterik ez dago. Ekialdeko euskara esaten dugunean, Zuberoakoa eta Baxenabarrekoa ere aipagai ditugu. Zuberoan bezain usu dokumentatu ez arren, Nafarroa Beherean ere dokumentatzen da. Diogunaren lekuko dira Oxalde eta M. Etxamendi kanta egile baxenabartarren konposizioak. *Khantore* hitzaren bidez, beraz, balada zaharrei ere deitzen zaienez gero, gure *Neska ontziratua* baladari *Mariñelaren khantorea* deitzen bide zion Larraineko itzainak. Badago besterik ere hitz horren esanguran. Pierre Topet Etxahunek ere, bere kantu narratibo askori *khantore* deitzen zien. Zenbaitetan kanta bakarrari ere pluralean deitzen dio. Bere bizitzako kantari, ordea, nahiz ahapaldi asko dituen *Etxahunen bizitziaren khantoria*, singularrean. Pluralean, esaterako, *Desertuko ihizic* eta *Khantoren khantatzeko* eta abarretan. Badago besterik ere, bertso-paperen bidez zabaltzen ziren kantei *Khantore berri* esaten zitzaien Zuberoa aldean. Era horretakoak ziren, jakina, Etxahunen *Complainte Heguilus* (1848) eta *Amogio gati* (1854). Baina *khantore* hitza zehatz zedarritzea gure oraingo kontua ez denez gero, gakizkion, orain, goragoko zehaztasunaren bigarren alderdiari. Zer da var. de 80 horrek azpian daukana? Lehenengo eta behin kantutegiko 80. zenbakira bagoaz, 001-001-004 koadernoan, 40. orrialdean, hauxe aurkitzen dugu:

Madarika dakiola
dendariari besoa
dendariari besoa eta
oratzaren (sic) golkoa
arroparen besua

Neska ontziratua balada. Azkuek bildutako ahapaldi bat.

Kanta pusketa edo ahapaldi bat dugu bere pentagramaz hornitua. Azkuek ez du beste inolako zehaztasunik jartzen. Bakar-bakarrik *91 bis* ezabaturik ikusten dugu gaintxoan. Aurreko kantak, lehen hirurak behintzat, Zuberoakoak direnez gero, hau ere hangoa dela deritzagu. Lan honen irakurlea erraz konturatuko da *besoa* bi aldiz jartzen duela, eta *golkoa* behin, zergatik jartzen du, orduan, azken hitz bezala *besua*? Kanta pusketa hau berau beste behin ere ematen du 005-015-001 koadernoan, 974 kantan, 373. or.: *Madarika dakiola/ dendariari besoa/ dendariari besoa eta/ orratzaren (sic) golkoa/ arroparen besoa*.

Bigarren transkripzio honetan aldakuntzatxoa *oratzaren* izan beharrean *orratzaren* izatea da. Oraingoan, aldiz, azken hitza *besoa* da. Txikikeria hauek alde batera utzirik, oraingoan badago aurrekoan baino zehaztasun gehiago. Oraingoan hitzaren buruan datu hau dugu: *canción humorística de (L)*.

Kontuak honetara, egin ditzagun zenbait galdera. Azkuek birritan bere koadernoetan duen kanta-pusketa hori *Neska ontziratua* baladaren eredu bateko ahapaldi bat ote da? Halaxe dela baderitza, zergatik egin zuen susmo hori? Bi eskuidatzi-koadernoetan agertzen den pusketa berriemaile berarena ote da?

Lehen galderak erantzun erraza du, gure lan honetan emango ditugun eredu berriei esker. Puntu honetan transkribatu dugun *Madarika dakiola*... ahapaldia *Neska ontziratua* baladaren eredu bateko pusketa da, inolako zalantzarik gabe. Chahoren kantutegiko bi aldaeretan aurkituko dugu delako ahapaldi hori, geroagoko puntuetan ikusiko dugunez. Badago beste frogarik ere. Ditugun Bizkaiko *Neska ontziratua* baladako ereduetan ere madarikazio bera aurkitzen dugu. Nahiz madarikazio bera egon, Iparraldeko ereduekin mami kidetasunez gainera, azalezko bateratasunak ere izango dira, begi-bistakoa denez. Bigarren galderaren gakoa, guk uste, musikala izan daiteke. Guk transkribatutako *Madarika dakiola* pusketa eta *Aldixe batez*, beharbada, musikalki hurbil daudeke, eta hortik datorke Azkueren susmoa. Galdera horri erantzuteko, ordea, gu baino musikaz jantzixeago dagoen baten iritzia entzun beharko litzateke. Hirugarren galdera gure susmo batetik dator. Badirudi lehen *Madarika dakiola* eredua Zuberoakoa dela. Zergatik? Lehen transkripzio -koadernoan Zuberoako kanten ondoren datorrelako, batetik, eta guk transkribatuko ditugun Chahoren Zuberoako bi ereduetatik hurbil dagoelako, bestetik. Zergatik jartzen du, hortaz, Azkuek Lapurdin bildua dela? Huskeriatxoak gorabehera, bi koadernoetako transkripzioa berriemaile berari bildua izanik, ez ote da izango Iparralde osoko ereduetan kantatzen zen pusketa bat? Gure ustez, galdera honetan dago ahapaldi horren gakoa. Utz dezagun, beraz, erantzun luze eta frogaz hornitutako bat hurrengo lan baterako.

Azkuek badu beste kanta-pusketa bat bildurik Hazparnen, Lapurdin. Kanta zati hau da EB liburukoek aipatzen dutena eta A. Zavalak bere ER liburuan publikatu duena, VI. zenbakian (240. or.). Iturria zehatz jakin nahi duenak jo beza Azkueren zirriborroetako 001-001-001/12 eskuidatzira, 280 kantara, 111. or.



Neska ontziratua balada. Hazparneko lehen ahapaldia.

7. *NESKA ONTZIRATUA* BALADA: AIHERRAKO ALDAERA

Puntu honetara Baxenabarreko eredu bat ekarriko dugu. Eredu horri Aiherrako eredua deitu diogu, herri hartako André Martinonen kaier batean bildua delako. Kaier hau ez dakigu noizkoa den. Data gutxigorabeherako bat jartzearren, gutxienez hirurogei urte dituela ziurtatu dezakegu.

Aiherrako ereduak, aski osoa bada ere, falta ditu bukaerako ahapaldiak. Bukaerako ahapaldietan neska hil ondoren itsasora jaurtzen dute. Bukaerako ahapaldirik ez badu ere, gure hau guztiz interesgarria dela iduritzen zaigu. Eredu bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta eredu aski osoa bada –Aiherrako ereduak hamairu ahapaldi ditu–, zehaztasun berriak eskaini ohi ditu. Ez dago esan beharrik eredu berri bakoitzak hizkuntza ezaugarri interesgarriak –euskalki-ezaugarri baliotsuak, gure kasuan Baxenabarreko mugakoak– zein baliabide estilistiko berriak eskaini ohi dituela.

Puntu honetan eskuidatziko transkripzio zuzena eta gaurkotua emango ditugu. Gure transkripzioan izan ditugun arazoak ez ezik, gure aldaeraren zenbait ezaugarriren berri ere emango ditugu. Balada eredu hau Xipri Arbelbidek utzitako kaieretatik atera eta *Idatz & Mintz* aldizkarian argitaratu genuen (Kalzakorta: 2014).

7.1. *Aiherrako eskuizkribuaren transkripzioa*

Puntu honetan Aiherrako eskuizkribuko testua dagoen-dagoenean transkribatuko dugu. Gure helburu nagusia iturritik fidelki transkribatzea da. Ahapaldi bakoitzaren lerroen eraketa, ortografia eta are puntuazioa ere fidelki transkribatuko ditugu. Kaier askotan bezala, ahapaldiak zenbakiturik daude. Zenbakiaren ondoan ordena jarri ohi da. Lehen ahapaldian *1er couplet*, eta gainerakoetan *2eme*, *3eme* eta abar. Guk zenbakiak bakarrik jarriko ditugu ahapaldi bakoitzaren gainean.

1
Behin ari ninzelarik sala batian brodazen
Sala bathian brodazen eta bersu ederren enzuten

2
Broderia phausaturik
Jauninzen amaren ganat (bis)
Heian uziren ninduenes gaineko gamberalat
Bertsu ederren enzuterat.

3
Bai ene alaba, bai habil
Gaineko gamberalat et errokon jin dadiela
Gurekin afaiterat, gurekin afaiterat eta
Hiri kobla erakusterat.

4
Capitaina, capitaina, zato gure etcherat berehala
Gurekin afariterat eta
Niri kobla erakhusterat (bis)

5
Andere churi charmanta
Ene jitia impossible da
Ura dugu alde eta
Unsia phartitu beharra (bis)

6
Andere churi charmanta
Sarzite untzi huntara /bis
Emanen dauzut kopia eta
Erakusiren airia

7
Andere churi charmanta
Sarzen da untzi hartarat (bis)
Emaiten dako lo belharra
Lokharthu zen berehala.

8
Capitaina capitaina
Nun duzu konsiensia?
Andere churi charmanta
Horren hola tratazia nun duzu konsienzia?

9
Mariñela mariñela
Emak unsirat bela
Aspaldian desira nuena
Orain jin zatak bera, emak untzirat bela.

10
Capitaina capitaina
Norat jina nais ni hunat
Turna nesassu hartu lekhura
Ene aita amen phortura (bis)

11
Andere churi charmanta
Nun uste duzu zirela
Badu sei ehun oren lekhura
Bidian girela, impossible turnasia

12
Capitaina, capitaina
Badusuiea ganibetik
Ez es dut ganibetik bainan
Pugnala chorroch berria

13
Andere churi charmantak
Harsen du pugnela eskura
Tirazen dako lephora eta
Erori zen hil gogorra.

Puntu honetara aldatu dugun transkripzioa jatorrizko kaierean lau plamatan dator. Lehenean lehen biak, bigarrenean hurrengo bostak, hirugarrenean hurrengo bostak eta laugarrenean azkena.



1ºº couplet
Behin ari ninzelorik sala batzian brodazen
Sala batzian brodazen eta berzu ederren enzuten
2 emº
Broderia phausaturik
Jaunin zen amaren ganat (bis)
Heian ezirau nin duenes gainekho gambes alat
Bertzu ederren enzuterat.

3 emº
Bat ene alaba, bai habil
Gainekho gamberalat etorrikon jin da di ela
Gurekin afaiterat, gurekin afaiterat eta
Hiri kobla erakusterat.
4 emº
Capitaina, capitaina, zato gure etxerat berehala
Gurekin afaiterat eta
Hiri kobla erakhusterat (bis)
5 emº
Andere churi charmanta
Ene jëtia imposible da
Ibra dugu alde eta
Ibusia phartitu beharra (bis)
6 emº
Andere churi charmanta
Inzite untzi hurtara (bis)
Emanen dauzut kopia eta
Erakusiren airia
7 emº
Andere churi charmanta
Sarzen da untzi hartarat (bis)
Emaiden dabe lo beharra
Jokhartzu zen berehala.



7 eme
Capitaina capitaina
Nun duzu konsiensia?
Andere churi charmanta
Horren hola tratazia nun duzu konsiensia?
9 eme
Marinela marinela
Emak umirat bela
Aspaldian desira nuena
Irai jin zatiak bera, emak umirat bela.
10 eme
Capitaina capitaina
Norat jina nais ni hunat
Ezpata nesasu hartu lekhura
Ene aita ainen phortura (bis)
11 eme
Andere churi charmanta
Nun uste duzu zirela
Badu sei hun oren lekhura
Bidian jiela, imfozible turnasia
12 eme
Capitaina, capitaina
Badusuiea ganibetik
Ez es dut ganibetik bainan
Ene mala diorroch berria



13 eme
Andere churi charmantak
Harsen du pugnela eskura
Eta zen dako lephura eta
Eroitzen hil gogarra.

Neska ontziratua balada. Aiherrako aldaera.

7.2. *Aiherrako ereduaren ahapaldiz ahalpadikako iruzkina*

Puntu honetan ahapaldiz ahapaldi iruzkinduko dugu geure balada. Saiatuko gara azaltzen, era berean, lehen transkripzioa nola osabete eta ulertu behar dugun. Gure eredu hau, azkenik, beste eredu batzuekin ere erkatuko dugu.

1
Behin ari ninzelarik sala batian brodazen,
Sala bathian brodazen eta bersu ederren enzuten,
[Marignel bat entzun nuen itsasoan kantatzen.]

Lehen ahapaldi honek, itxurak direnez, zerbait falta du. Gainerako eredu gehienetan *Marignel bat entzun nuen itsasoan kantatzen* esaldia edo antzekoa den *aire eder bat entzun nuen itsasotik kantatzen* agertu ohi da.

2
Broderia phausaturik jauninzen amaren ganat
Heian uziren ninduenes gaineko gamberalat,
[Gaineko ganberalat eta] bertsu ederren enzuterat.

Bigarren ahapaldi hau ere apurren bat aldatua dagoela dirudi. Donibane Garaziko aldaeran *Heian utziren ninduenez itsaso bazterrerat* dio. Brodatzen ari den neskatilak itsasoko aldetik entzuten badu kantua, itsasora joateko baimena eskatzen dio amari. Gure kasuan geroagoko aldaketa baten bidez, itxurak direnez, kanta itsasoko bazterretik etorri beharrean, *gaineko ganberalat* dator. Guk geure bigarren ahapaldia osoago izan dedin bihurki bidez errepika egin ondoren *eta* jarri diogu: [*gaineko ganberalat eta*].

3
Bai ene alaba, bai habil gaineko gamberalat
Et[a] errokon jin dadiela gurekin afaiterat,
Gurekin afaiterat eta hiri kobla erakusterat.

Transkribatzaileak hiru puskatan transkribatu du *dadiela* adizkia. Ahapaldi hau, bestalde, oso-osorik dator. Hirugarren ahapaldi hau bat dator Donibane Garaziko laugarrenarekin. Donibane Garaziko ereduan ama-alaben arteko elkarrizketa estilo zuzenean eta zeharrean dator. Gure ereduan estilo zuzenekoa bakarrik dugu. Ohargarria da amak alabari beti hika egiten diola. Donibane Garaziko ereduan *erran zacon* dator, gurean, aditz perifrastikoa aurkitu beharrean trinkoa aurkitzen dugu: *errokon*. Ohargarria da, bestalde, *Neska ontziratua* baladan aginterak duen presentzia harrigarria. Ezagutzen ditugun eredu guztietan presentzia handia badu ere, Aiherrako gure ereduan are handiagoa duela dirudi. Hona adibide hauek diogunaren erakusgarri. Amak alabari agintera bidez hitz egiten dio: *habil*, *errokon*; andereak kapitainari: *zato gure etcherat berehala*; kapitainak andereari: *sarzite*; kapitainak marinel onari: *emak untzirat bela*; andereak kapitainari: *turna nezazu hartu lekhura*.

4
Capitaina, capitaina, zato gure etcherat berehala
Gurekin afariterat eta niri kobla erakhusterat,
Gurekin afariterat eta niri kobla erakhusterat.

Kapitaina, kapitaina bi aldiz deikia Iparraldeko eredu batean baino gehiagotan aurkitzen dugu. Chahoren B ereduan, Altzaiko ereduan, Goitainekoan, Donibanekoan. Eredu guztietan, gainera, *afariterat/afaiterat* aurkitzen dugu. Eredu gehienetan *kobla* eta *pertsu* hitzak erabili ohi dira.

5

Andere churi charmanta, ene jitia impossible da
Ura dugu alde eta unsia phartitu beharra,
Ura dugu alde eta unsia phartitu beharra.

Kapitainak Iparraldeko ia eredu guztietan –guk argitaratutako eredu osoez ari gara: Donibane Garazikoa, Chahoren biak, Altzaikoa, Gotainekoa– esaldi bera erabili ohi du ezina adierazteko. Esaldi honetan bateratasun handia dago bestaldeko eredu guztietan: Donibane Garaziko ereduan, seigarren ahapaldian, *Inposible da anderia orai ni harat jitia*; Chahoren B ereduan *Anderia, inposible da ene hara jitia*; Gotaineko ereduan *Inposible da, anderia, gaur zure etxerat jitia*; Altzaikoan *Anderia, inposible da gaur ene hara jitia*.

Ahapaldi honetan *ura dugu alde* dio. Iparraldeko gure eredu osoetan *airia da alde* edo *faborable* aurkitu ohi dugu. Chahoren B ereduan *airia faborable dit*; Gotaineko ereduan *aria faborable dügü*; Altzaikoan: *adia faborable beitü[t]*. Donibane Garaziko ereduan ez dugu esaldi hau aurkitzen. Interesgarria da nabarmentzea guk aipatu ditugun eredu guztietan *faborable* hitza agertzen dela. Aiherrako ereduan, ordea, *ura dugu alde* dio, *airia faborable* hitzen lekuan.

6

Andere churi charmanta, sarzite untzi huntara,
Andere churi charmanta, sarzite untzi huntara
Emanen dauzut kopia eta erakusiren airia.

Beste ereduetan agertzen ez den *churi* izenlaguna aurkitzen dugu ahapaldi honetan. Izenlagun horrek zer berritasun ematen du? Ezagutzen degun Iparraldeko lehen eredu osoan (GH aldizkariko 1928. urtekoan) *andere gazte xarmanta* dugu neskatilaren deikia. *Gazte* izenlaguna egokia eta esangura handikoa dugu. Baliteke gure baladan *andereauren xarmanta* deikia *andere xuri xarmanta* bihurtzea ez hurbiltasun fonetikoz, silaba kopuruak aginduta baino.

Gure eredu honetan bakarrik aurkitzen dugu *Emanen dauzut kopia*. Kapitainak andereari kopa bat emateko gonbita egitea bitxi bezain polita da.

7

Andere churi charmanta sarzen da untzi hartarat,
Andere churi charmanta sarzen da untzi hartarat
Emaiten dako lo belharra, lokharthu zen berehala.

Ahapaldi hau narratzailearena dugu. Hirugarren pertsonan ari den poetarena (*Dichter* Humboldten terminologiaren arabera). Ahapaldi hau berau agertu ohi da gainerako ereduetan. Chahoren A eta B ereduetan zazpigarren ahapaldia, Altzaiko ereduan hamargarrena, Gotaineko ereduan zazpigarrena eta Donibane Garaziko ereduan ere zazpigarrena.

Transkripzioari gagozkiola, *untzi* irakurtzen badugu ere, bi aldiz datorren *sarzen* ere *sartzen* irakurri beharko dugu. *Lokharthu* aditza, bestalde, bigarren transkripzioan aspirazio bakarrarekin transkribatuko genuke: *lokhartu*.

8

Capitaina, capitaina, nun duzu konsiensia?
Andere churi charmanta horren hola tratazia,
[Capitaina, capitaina,] nun duzu konsienzia?

Trankripzioan duda izan dugu *horren/harren* aukeren artean. Bi aukeretatik askoz argiago ikusten dugu *horren* izatea. Zentzuari gagozkiola ere, *horren hola* hobeto dator *horren hala* baino.

Zortzigarren ahapaldia marinel onaren esana dugu. Gainerako ereduetan ere aurkitu ohi dugu. Donibane Garaziko ereduan zortzigarrena, Chahoren B ereduan bederatzigarrena, Altzaikoan hamabigarrena.

Marinel ona kapitainari –bera baino gradu edo maila goragokoari– beti zuka zuzenduko zaio. Kapitainak, ostera, marinelari hika egingo dio.

Ahapaldi hau osatzeko [kapitaina, kapitaina] deiki bikoitza gaineratu dugu.

9

Mariñela, mariñela, emak unsirat bela
Aspaldian desira nuena orain jin zatak bera,
Orain jin zatak bera eta emak untzirat bela.

Ahapaldi hau kapitainaren agindua da marinel onari. Agindu hau aldaera oso guztietan aurkitzen dugu. Donibane Garaziko ereduan *emok untziari* (datiboan) *bela* dator. Gure ereduan *emak untzirat* (adlatiboan) *bela*. Ahapaldi honetako esaldia gainerako eredu askotan ikusten dugu. Chahoren B ereduan: *aspaldian desir niana jin dük bera eskura*; Donibane Garazikoan: *Aspaldian desir nuena jin zautak orai eskura*.

10

Capitaina, capitaina, norat jina nais ni hunat?
Turna nesassu hartu lekhura ene aita amen phortura,
Turna nesassu hartu lekhura ene aita amen phortura.

Ahapaldi honetan *kapitana, kapitana* aurkitzen dugu. Eredu honetako gainerako ahapaldietan, ostera, *kapitaina*, *kapitaina*.

Neskatilaren erregu hau bat dator ezagutzen ditugun Baxenabarreko bi ereduetan, hau da, Donibane Garazikoan eta gure oraingo honetan. Neskatilak aita-amen portura itzultzeko agintzen dio kapitainari. *Phortu* hitza, bestalde, Baxenabarreko ereduetan bakarrik aurkituko dugu.

11

Andere churi charmanta, nun uste duzu zirela?
Badu sei ehun oren lekhura bidian girela,
impossible [da, anderia, zure harat] turnasia.

Gainerako eredu guztietan itsasoan barrena egindako distantzia legoatan adierazi ohi da. Gure ahapaldian *sei ehun oren lekhura* esaten denez, denbora ere adierazten da. Are gehiago, *Badu sei ehun oren* egiturako *badu* horrek denborarekin –hots, *oren* hitzarekin– egiten du lotura.

Gure ahapaldi hau osatu gabea denez gero, beronen eredurik hurbilena erabili dugu, Donibane Garaziko eredukoa.

12

Capitaina, capitaina, badusuiea ganibetik?
Ez, es dut ganibetik bainan pugnala chorroch berria,
[Ez, es dut ganibetik bainan pugnala chorroch berria.]

Kapitainak andereari biluzteko eskatzen dio. Andereak ganibeta eskatu baino lehen zaia –hots, gona– estua duela esan ohi du. Zaia estua duela dioenean, zaia egin duen dendariaren eskua madarikatu ohi du (Chahoren eredu bietan: Altzaikoan, Gotainekoan eta Donibane Garazikoan). Kapitainak ganibetik ez duenez gero, ezpata eskaini ohi dio.

Kapitaina, kapitaina baduzuiea ganibetik? galderan –(ie)a galdetzailea adizkiari erantsia dugu. Gure ahapaldi honetan ezpatarik ez dio eskaintzen, puñala baizik. *Pugnala* hitza dator –a organikoarekin,

itxurak direnez– ahapaldi honetan, hurrengoan, ostera, *pugnela*. Delako *Pugnala chorroch berria* horrek, gure ustez, puñal zorroztu berria adierazten du.

13
Andere churi charmantak harsen du pugnela eskura,
[Harsen du pugnela eskura eta] tirazen dako lephora,
[Tirazen dako lephora eta] erori zen hil gogorra.

Gure ahapaldi hau ere poetak hirugarren pertsonan adierazia da. Andereak ezpata edo puñala hartu ondoren bere bihotzean sartu ohi du, aldaera gehienetan ikusten denez. Gure ahapaldi honetan ere berdin gertatzen ote da? Lehen ikusi batean badirudi andreak kapitaina hiltzen duela. Zergatik? Aldaera guztietan "sartu" aditza erabili ohi da, gurean, ordea, "tiratu" aditza. Gure aldaeran, bestalde, bihotzean sartu beharrean *lephora* tiratzen dio kolpea. Gure esanaren indargarri nagusia *tirazen dako* aditzean datza. Badirudi andreak kolpea besteri tiratzen diola eta ez bere buruari.

"Hil-gogorra" erori esapidea "zerraldo erori" esapidearen kidea da. Maurice Harrietek *hil gogorra erori zen* esaldia *il tomba raide mort* itzultzen du. Bernard Larreguyk *Sarthu zion ezpata gorphutzetik eta artiki zuen hil gogorra lurrerat* (I, 319).

7.3. *Aiherrako eredua gaurko ortografian*

Puntu honetan Aiherrako eredua gaur eguneko ortografiara ekarriko dugu. Guk testua emendatzen edo osatzen dugunean, gure emendioa kortxete artean jarriko dugu.

1
Behin ari nintzelarik sala batian brodatzen,
sala batian brodatzen eta bertsu ederren entzuten,
[mariñel bat entzun nuen itsasoan kantatzen.]

2
Broderia phausaturik joan nintzen amarenganat,
heian utziren ninduenez gaineko ganberalat,
[gaineko ganberalat eta] bertsu ederren entzuterat.

3
–Bai, ene al[h]aba, bai, habil gaineko ganberalat
et[a] errokon jin dadiela gurekin afaiterat,
gurekin afaiterat eta hiri kobla erakusterat.

4
–Kapitaina, kapitaina, zato gure etxerat berehala,
gurekin afariterat eta niri kobla erakhusterat,
gurekin afariterat eta niri kobla erakhusterat.

5
–Andere xuri xarmanta, ene jitia inposible da,
ura dugu alde eta untzia partitu beharra,
ura dugu alde eta untzia partitu beharra.

6
–Andere xuri xarmanta, sar zite untzi huntara,
andere xuri xarmanta, sar zite untzi huntara,
emanen dautzut kopia eta erakutsiren airia.

7
Andere xuri xarmanta sartzen da untzi hartarat,
andere xuri xarmanta sartzen da untzi hartarat,
emaiten dako lo-belharra, lokhartu zen berehala.

8
–Kapitaina, kapitaina, nun duzu kontsientzia?
Andere xuri xarmanta horren hola tratazia,
[kapitaina, kapitaina,] nun duzu kontsientzia?

9
–Mariñela, mariñela, emak untzirat bela!
Aspaldian desira nuena orain jin zatak bera,
[orain jin zatak bera eta] emak untzirat bela.

10
–Kapitana, kapitana, norat jina naiz ni hunat?
Turna nezazu hartu lekhura, ene aita-amen phortura!
Turna nezazu hartu lekhura, ene aita-amen phortura!

11
–Andere xuri xarmanta, nun uste duzu zirela?
Badu seiehun oren lekhura bidian girela,
inposible [da, anderia, zure harat] turnatzia.

12
–Kapitaina, kapitaina, baduzuiea ganibetik?
Ez, ez dut ganibetik bainan puñala xorrox berria,
[ez, ez dut ganibetik bainan puñala xorrox berria.]

13
–Andere xuri xarmantak hartzen du puñela eskura,
[hartzen du puñela eskura eta] tiratzen dako lephora,
[tiratzen dako lephora eta] erori zen hil-gogorra.

8. *NESKA ONTZIRATUA* BALADA: DONIBANE GARAZIKO ALDAERA

Puntu honetan *Neska ontziratua* balada gaiaren Donibane Garaziko eredu argitaragabea eman nahi dugu. Puntu honetan argitaratuko dugun eredua XIX. mende bukaerako edo XX. mende hasierako dokumentu idatzi batetik jaso dugu. Eredu hori Pierre Duny-Pétré (1914-2005) idazle eta folklorista garaztarraren paperen artean aurkitu dugu. Idazle eta folklore-biltzaile honen bilketa lana Donibane Garazi ingurukoa zenez gero, Donibane Garaziko eredutzat hartu dugu geure ale argitaragabea. Jean Etxeparek, Eiheralarrekoa izanik, *Garaziko herria* deizioa erabiltzen zuen mendi Pirineoen oinetan aurkitzen den bailara zoragarri bat izendatzako: Donibane Garazi, Eiheralarre, Esterenzubi, etab. Gure ereduak, geroago ikusiko dugunez, beste leku batzuetako eredu puskatu batzuekin berdintasun handia du.

9. *NESKA ONTZIRATUA* BALADAREN AZKUEREN EREDU OSATU-ASMATUA

Manuel Lekuonak esan ohi zuen herri kanten arima ezin zuela inola ere idazle bakar batek plagiatu. Herri kantek duten arnasa eta edertasuna ezin du ezein idazlek bere lumaz sortu. Kanta bat herrian denboran barrena bizi izan bada, aparteko grazia du. Herriko sen, arnasa, arima hori herri-herrikoa da eta kantuaren alderdi guztietatik ateratzen da. Azkuek *Neska ontziratua* balada gaiaren ahapaldi bat bildu zuen, Zuberoan. Hona bildu zuen bezalaxe:

Aldiśe batez nindiagoen sala baśean brodatzen
Jaun gazte bat entzun nian itśasaldetik kantatzen
itśasaldetik kantatzen eta kobla eijerrik emaiten.

Kanta honi jarraipena eman nahirik beste bost sortu eta argitara zituen bere CPV, 57. or. Bildu zuen lehen ahapaldi hau orrazturik bost ahapaldiko segida asmatu zuen. Hona Azkueren sorkaria gure erara tolesturik:

I
Aldixe batez[2] nindiagoelarik ene etsarian birjosten,
Aiton-seme bat auteman nizun itsasaldetik kantatzen
itsasaldetik kantatzen eta eresi edxeŕen emaiten.

II
¿Zer nahi düzü, ereslari zaldun ene etsarian zük egün?
–Othoi, anddere, nahi nikezü zurekilan mintzo-lagün,
zurekilan mintzo-lagün izan, birjosten ere ikhastün.

III
–Aitonsemeak gezi ta azkonen izan oi zire behoŕez;
nik eztakizüt geziz birjosten, lan dagit soilik oŕatzez:
zilhar-arizko eskü-lanttoak, oŕaxko luze mehailez.

IV
–Guduz gaintiko eskü-lanetan ene erhiak tüzü bigun;
itsasegiko txürülaketan hau izan düzü ezagün.
Zilegi bezait zilhar-bihotz baten izaitea birjostun.

V
–Zilhar-bihotzak nihaurek ere badakizkizüt egiten.
Zilhar-urheak ene gogo hau eztite zoriz bethetzen.
Beste galthapen gabe bazira zoazkit, zaldun, lehen bai lehen.

VI
–Soŕ bite zapi hortan bihotz bat, nihauren hau biz eredu;
üdako ekhia bezen sutsu da ta eztiaren goxoa du.
Nik besteño bat hor biŕjosteko, zure bihotza indazü.

Azkuek lehen ahapaldia guztiz aldatu ondoren –*sala baśean* beharrean *etsarian*, *jaun gazte* beharrean *aiton-seme*, etab.– bere baitako beste bost ahapaldi sortu zituen. Bost ahapaldi horien itzulpena

[2] Testu argitaratuan *batek* dator. Huts garbia denez gero, aldatu egin dugu.

Cesareo Miangolaŕak egin zuen. Azkuek ez dio zuzenki azken bost ahapaldiak bereak direnik, baina nori otu bestela balizko Zuberoako euskara garbi batean holako sorkari bat egitea? Baina gatozen harira. Azkueren sorkari honek zer zerikusi du herri baladarekin? Inolakorik ez. Herri baladak beste aire eta grazia bat du. Guztiz bestelakoa da herri balada. Bigarren ahapaldian kateamendu edo bihurki gisako bat ikusten dugu, baina ez da inondik inora ere gure baladetan aurkitzen dugun modukoa. Herri baladetan, bihurkia emango balitz *zurekilan mintzo-lagün* horren ondoren *zurekilan mintzo-lagün eta* eskatuko luke, gehienetan.

Transkribatuko dugun Donibane Garaziko ereduak, geroago ikusiko dugunez, aita Donostiak bildu zituen pusken osagarria izango da, inongo autorek nekez bere baitarik egin dezakeena. Herriaren arnasa eta jeinua herriarena delako, denena eta ez inongo idazlerena. Eta, era berean, kantu bat urteetan barrena ahotik belarrirako joan-etorri horretan ibili luzea egin duena da, arragoan metal urtua bezala.

10. AITA DONOSTIAREN *NESKA ONTZIRATUA* BALADAREN TESTIGANTZAK

Goragoko puntuan ikusi dugunez, *Mariñelaren khantore*aren ezer gutxi bildu zuen Azkuek Iparraldean. Denak ahapaldi bakarrak, bi lehen ahapaldi eta kantu barruko hirugarren bat. *Neska ontziratua* baladaren gaineko aita Donostiaren bilketa, ordea, aberatsagoa da, ikusiko dugunez.

Aita Donostiak gure baladaren bost eredu bildu zituen. Bi eredu sei eta lau ahapaldikoak dira, aski osoak garai hartan bilduak izateko[3] eta hiru eredu ahapaldi bakarrekoak. Ahapaldi bakarreko hiru ereduek lehen ahapaldia, hasierakoa dute. Aita Donostiak bildu zuen eredurik osoenak sei ahapaldi ditu. Eredu hau 1919ko "Euskalduna, abeslari" hitzaldikoa da. Eredurik osoen hau non eta nori bildua den ez du jartzen. Eredu honi gure lan honetan D-A deituko diogu. Hona hemen sei ahapaldiko eredua bere sarrera eta guzti:

> Ikusten dezute gure erri zarretako karrika ixil-illunetan, benetako jauregi zar bat, arri beltzez egiña, burnizko balkoiaz, eta ate gañian ikurdi edo armarri aundi bat duana? Leyo itzalen atzetik, barnian, neskatxa josten ari da. Bere ama, jauregi-etxekoandrea, estu-xamar da. Alabaren biotzean finkatua ikusten du erriko mutil baten iduria; mutil ona, azkarra, denetarakoa; ala ere ezetza eman dio amak; bere gisakua, aundikitakoa ez da-ta. Neskatxa, giltzez gordetuak, bere pena aizeari ematen du, uxo baten iduriz, ele zaar au kantatzen:
>
> 1
> Egun batez ari nintzelarik sala batean brodatzen
> entzun nuben mariñel bat itsasuan kantatzen,
> itsasuan kantatzen eta bersu ederren emaiten.
>
> 2
> Broderia utzi eta joaiten naiz amarengana
> eian utziren ninduien itsaso bazterrerat,
> itsaso bazterrerat eta bersu heien entzuterat.
>
> 3
> –Mariñela, mariñela, zatoz beraz barnerat,
> zatoz, beraz, barnerat eta gurekin afariterat;
> gurekin afariterat eta aita-amen mintzatzerat.

[3] 1921eko *Gure Herria* aldizkarikoa Nehor eta Dufauk argitaratua da. KKK obran agertzen da 133-134. or. GH aldizkarikoa baino osoagoa da. Bi eredu hauek ez dira guztiz berdinak. Aita Zavalak eredu bakartzat ematen du baina bi aldaera dira, gure ustez. Bata osoagoa bestea baino. Bi ereduetan, gainera, bi edo hiru ahapaldi falta dira. Neskaren biluztearena eta madarikazioarena, gure ustez.

4
–Kapitaina, kapitaina, etzaiziya bekatu,
andere gerri-lerden polit ori behar duziya tronpatu?
Andere gerri-lerden polit ori behar duziya tronpatu?

5
–Mariñela, mariñela, emak untziari bela;
orai hemen atzeman dut desiratzen nubena,
orai hemen atzeman dut desiratzen nubena.

6
Itsasuan ura lodi, zolarik ez du ageri,
ene maitia han dabila arraina bezain igari,
ene maitia han dabila arraina bezain igari.

Bigarren eredu interesgarri bat bildu zuen Saran, Lehetxipia deituriko etxean. Sarako etxe horrek gure ahozko literaturan inportantzia handia du, Mayi Ariztia biltzailearen etxea baita. Mayi Ariztia aita Donostiaren laguna izan zen eta haren etxean, Sarako Lehetxipian, hainbat ipuin-kontalari eta kantariren ipuin zein kantuak bildu izan ziren. Guztiz interesgarria da berriemailea Itsasuko zela jakitea eta ez Sarakoa. Bigarren eredu honi D-B deituko diogu.

1
Egun batez ari nintzelarik sala batian brodatzen,
itsasotik aditu nuen mariñel bat kantatzen,
mariñel bat kantatzen eta bertsu hauen emaiten.

2
Utzirik brodatzia eta joan nintzen amaren ganat
heian utziko ninduenez itsaso bazterrerat
itsaso bazterrerat eta kantuen entzuterat.

3
–Neure alaba, abil, abil, itsaso bazterrerat,
bainan oroit hadi hargatik iluna hurbil dela,
iluna hurbil dela eta etxerat itzultzia.

4
–Mariñela, mariñela emok untziari bela
aspaldian desir nuena jin zautak untzirat bera,
jin zautak zautak untzira bera eta parti gaiten bereala.

Eredu honen argibideak hauek dira: Infor.: *Ana Iturriague, de Itsasu, en Lehechipi. Loc. Rec.: Sara. Fecha 8 de febrero de 1917*. Eredu honetako lau ahapaldiek, orain dela ia ehun urte bilduak badira ere, ez dute gure kantaren hari osoaren berri ematen. Gainerako ereduak ahapaldi bakarrekoak dira. Ahapaldi bakarreko ereduak bi dira. Lehenari D-C deituko diogu eta bigarrenari D-D:

Egun batez ari nintzelarik sala batian brodatzen,
entzun nuen mariñel bat itsasuan kantatzen,
itsasuan kantatzen eta pertsu ederren emaiten.

Ahapaldi hau Luzaideko J. M. Iraburu zerbitzariari etzuna da, 1919ko urriaren 30an. Pertsona berari egun berean bildua da beste sarrera hapaldi bat ere:

> Brodatzen ari nintzen ene salan jarririk,
> aire bat entzun nuen itsasoko aldetik,
> itsasoko aldetik untzian kantaturik.

Harrigarria da berriemaile berak gai beraren segidarik gabeko bi sarrera diferente ematea. Azken aldaera Leon Elissalde Larresoroko seminarista bati bildua da 1941ko ekainaren 10ean.

> Behin ari nitzelarik sala batean brodatzen,
> aire eder bat entzun nuen itsasotik kantatzen,
> itsasotik kantatzen eta mariñelak kobla emaiten.

Hona ekarri ditugun aita Donostiaren ereduak interesgarriak direla deritzagu arrazoi argi bezain garbi bategatik. Guk hurrengo puntuan eskainiko dugun Donibane Garaziko eredua D-A kantaren bost ereduen osagarri zoragarria delako. Osatze hau askoz argiroago ikusiko dugu, esaterako, laugarren eta seigarren ahapaldiko ereduak kontuan hartzen baditugu. Eredu osatuagoan ahapaldi berak –ia aldaketarik gabe– txertaturik ikustean zentzu handiagoa hartuko dute. Tesela galduak mosaiko osoan txertatzen direnean irudiak indar biziagoa hartzen duen bezala, Donibane Garaziko *Neska ontziratua* baladaren istorioak testuinguru argiago bat emango die aita Donostiak bildutako eredu hauei.

10.1. *Aita Donostiaren balada-puskak* Neska ontziratua *baladaren osotasunean*

Atal honetan nola txertatuko genituzkeen balada puskak eredu osoago batean ikusiko ditugu grafiko baten bidez. Aita Donostiak bildu zituen balada puska horiek balada osoago baten hondarrak dira, inolaz ere. Etxaurre baten zenbait harri bain+o ez. Baladaren ekintza batzuk baino ez dira ematen. Baladaren eszena batzuk ikusten ditugu puska horietan.





11. DONIBANE GARAZIKO EREDUAREN LEHEN TRANSKRIPZIOA: EZAUGARRI NAGUSIAK

Puntu honetan Donibane Garaziko eredu argitaragabea transkribatuko dugu. Gure eredua bi plama edo orrialdetan eskuz idatzia da. Gure eredua ez dugu kaier batean aurkitu, bi orrialde soltetan baino. Zorionez, gure eskuidatziko letra argiak transkripzioa asko erraztu digu. Gure baladak, bestalde, eskuidatzian ez du inolako izenbururik. Baliteke Azkuek Hazparnerako bildu zuen bezala, *Mariñelaren kanthorea* izatea gure kantaren izenburua.

Gure dokumentuko lehen plama edo orrialdean zazpi ahapaldi daude eta bigarrenean zortzi. Ahapaldi bakoitzaren gainean zenbakia dator eta zenbakiaren ondotxoan frantsesezko ordinalaren marka (uste dugunez, adibide batzuk emateko, *cinquième*, *sixième*, *septième* adierazteko *5en*, *6en*, *7en* zenbakiak ikusten ditugu). Zenbakiaren ondoren, Iparraldeko kaier askotxotan agertzen den bezala, *couplet* hitza aurkitzen dugu. Lehen orrialdeko zazpigarren ahapaldiaren ondoren, orrialdearen hondarrean, *la suite* frantsesezko azalpena dator. Frantsesezko hitz horrek, jakina, hurrengo orrialdean jarraitzen duela adierazten du. Gure eskuidatziko transkripzioan bestetan ikusi ez dugun ezaugarri batez konturatu gara: transkribatzaileak ia hitz bakoitzaren ondoren puntu bat jartzen du eta zenbaitetan bi puntu. Ezin izan dugu argitu zergatik transkribatzaileak jartzen duen puntu bat ia gehienetan eta bi puntu inoizka. Harrigarria da, bestalde, ez duela inoiz komarik jartzen. Lehen ahapaldia, esaterako, honelaxe dator:

1er. Couplet.
Behin. batez. ari. ninduzun. salatian. brodazen.
Marignel. bat. entzun. nuen. itsasoan. cantatzen
itsasoan. cantatzen. eta. Pertsu. ederren. emaiten.

Lehen ahapaldian guztira hamazazpi puntu aurkitzen ditugu. Lehen ahapaldi honetako *cantatzen* hitzak izan ezik, hitz guztiek dute atzean puntu bat. Hasiera batean halaxe transkribatzea pentsatu dugu, baina zertarako? Uste izan dugu puntu horiek guztiak itsusgarriak bezain nekagarriak direla; eta are alferrikakoak ere. Eskuidatziaren argazkia emanez gero, ez dugu beharrezkoa ikusi puntu horiek guztiak transkribatzea. Gure transkripzio honetarako ahapaldi bukaerako puntua bakarrik jarriko dugu. Era berean, alferrikakoak iruditu zaizkigu zenbaki guztien atzean goialdean letra txikiaz *en* jartzea, ez baitugu asmatu gure ordenagailuan nola irudikatu dezakegun letra ttipi horiek. Hona, hortaz, gure eskuidatziaren transkripzio zuzena.

1 couplet
Behin batez ari ninduzun salatian brodazen
Marignel bat entzun nuen itsasoan cantatzen
itsasoan cantatzen eta Pertsu ederren emaiten.

2 couplet
Broderia utzi eta juanitzen amaren gana
heya utziren ninduenez itsaso bazterrerra
itsaso bazterrerra eta pertsu heyen aditzera.

3 couplet
Amac erran zautan habil habil ene alaba maitea
Bainan oroithadi iluna dela hourbildia
iluna dela hurbildua eta gibelerat itzultzea.

4 couplet
Habil eta erran zacon din dadin gure etcherat
jin dadin gure etchera eta gurekin afaiterat
gurekin afaiterat eta pertsu heyen emaiten.

5 couplet
yincuac dauzuela egunhun untzi capitain gaztea
aitac eta amac igortzen naute yintziten gure etchera
gurekin afaiterat eta bi coblen ihacusterat.

6 couplet
inpossible da anderia orai ni harat yitia
sarzaite sala huntan barnerat andere horen pollita
hemen eratcutsiren dautzkitzut coblekilan airia.

7 couplet
Andere horen, pollit hori sartutzen sala barnerat
sartuzen sala barnerat eta lobelarra ukan golcorat
lobelarra ukan golcorat eta locartuzen berehala.

La suite

8 couplet
Capitaina, capitaina es zauzia bekatu
Andere horen pollit hori beharduzia tronpatu
Andere lerden pollit hori behar dutzia tronpatu.

9 couplet
Marignela marignela emoc untzihori bela
aspaldian desir nuena yinzautac orai escura
yinzautac escurat eta nere bi besoen artera.

10 couplet
Lobelarra kendu eta ihizartutzen berehala
norat eremaiten nuzu untzi Capitain gaztea
turna nezazie turna hartu nuzien lekura.

11 couplet
Impossible da anderia zure harat turnatzia
Bortz hehun lekua zu hartu zintugun lecurat
zu hartu zintugun lecurat eta zure ait amen porturat.

12 couplet
madarica balakio dendariari besoa
zeren baiteraut egine zaiaren zola herchiche
zaiaren zola herchiche eta geruntzian tinkiche.

13 couplet
Capitaina capitaina baduzia ganibetic
Ez ezdut ez ganibetic bainan ezpata ongi chorotchic
hartuzuen escurat eta sartu zuen bihotzetik.

14 couplet
Ai ai ai zer egine behaut hau
zer egine behardut orai nik
emozu bi musu eta aurticazu itcasorat
Itsasorat eremanen dau, bere aita amen porturat.

15 couplet
Itsasoan hura lodi zolarik ez du agueri
Ene maitia hantchet dabila arraina bezala igeri
Ene maitea hanchet dabila arraina bezala igeri.

Baladaren transkripzioaren ondoren ez dator inolako zehaztasunik. Zuberoako kaieretan, askotan, *fin* bat aurkitu ohi dugu. Gurean ez dator ezer. Baliteke azken hitzaren eskuin aldera datozen bi marratxoak bukaera adieraztea.

1er. couplet.

Dohin batez ari ninduzun soldatan brodazen,
Marignel bat entzun nuen itsasoan cantatzen
itsasoan cantatzen eta Pertsu ederren emanten,

2en. couplet.

Broderia utzi eta Guanitzen amaren gana,
heza utziren ninduenez itsaso bazterrerra,
itsaso bazterrerra eta pertsu hezyen aditzera

3.er couplet.

Amac erran zautan habil habil ene alaba maitea,
Bainan orsthadi iluna dela hourbildia,
iluna dela hurbildua eta gibelerat itzultzea.

4en. couplet,

Habil eta erran zacon din dadin gure etcherat,
jin dadin gure etchera eta gurekin afaitterat.
gurekin afaiterat eta pertsu hezyen emaiten.

5en. couplet

jincuac dauzuela equinhun untzi capitain gaztea
aitac eta amac igartzen naute jintziten gure etchera,
gurekin afaiterat eta bi cobten ihaousterat,

6en. couplet.

inpossible da anderia orai ni harat ayitia.
sarraite sala huntan barnerat andere haren gallita.
hemen eratautsiren dautzkitzut cobtchilan diria.

7en. couplet.

Andere haren pollit hori sartutzen sala barnerat.
sartuzen sala barnerat eta Cobrlarra uhan golcarat,
Cobelarra uhan golcarat eta locartuzen berehala,

La suite.



8en. couplet
Capitaina. capitaina. es. gauzia. bekatu;
Andere. horen. pollit hori. beharduzia. trompatu;
Andere. berden. pollit hori. bekur. dutzia. trompatu;
9en. couplet.
marigneta. marigneta. emac. untzihori. bela.
aspardian. desik. nuena. ajinzautac. oiai' escura.
Ajinzautac. escurat. eta. nere. bi. bisoen. artera.
10en. couplet.
Sabelarra. Kenau. eta. ikizartutzen berehala.
norat. eremaiten. nuzu. untzi. Capitain. gaztea.
tarna. nezazie. turna: hartu. nuzien. bekura;
11en. couplt.
Imposible. da. anderia. zure. harat. turnatzia.
Bartz. bekun. bekua. zu. hartu. zintugun. becurat.
zu. hartu. zintugun becurat. eta; zure. ait. amen. parturat.
12en couplet.
madarika. balakio. dendariari; besaa,
zeren. baiteraut. egine. ajaiaren. zola. herchiche.
Zaiaren. zola. herchiche. eta. geruntzian: tinkiche.
13en couplet;
Capitaina, capitaina. baduzia. ganibetic.;
Ez. ezdut. ez ganibetic. bainan. ezpata. ongi. chorchiric,
hartuzuen escurat. eta sartu. zuen bihotzetik.
14en couplet!
Ai. Ai. Ai. zer. egine. behaut. hau.
zer egine. behardut orai. nik:
emazu. bi. musu. eta aurticazu. itsasorat.
Itsasorat. eremanen dau. bere. aita. amen. parturat. 15en couplet
15. couplet.
Itsasoan. hura bodi. gotarik. ez. du. agueri;
Ene. maitia hantchet dabila arraina bezala. igeri,
Ene. maitea. hanchet. dabila arraina. bezala. igeri.=

Neska ontziratua balada. Donibane Garaziko eredua.

11.1. *Hizkuntza-ezaugarriak*

Euskal balada askotan hitz eta esapide ihartuak aurkitu ohi ditugu. Gure Donibane Garaziko baladan agertzen den hitz zahar bat *anderauren* dugu. *Anderauren* hitza Bizkaiko euskara zaharrean (XVI.

mende bukaerakoan) RS liburuko hiru esaeratan eta batez ere XIX. mendera arteko ekialdeko euskaran dokumentatzen da. Bizkaiko euskararen tradizioa aspaldi bukatua da. XVI. mende bukaeran bakarrik aurkitzen baitugu hitz hori. Ekialdeko tradizioa, ordea, XIX. mendean bildutako baladetaraino luzatu da (bakarren bat XX. mendean ere, Zaraitzuko *Leisibatxo*, esaterako).

Hona, esaterako, Bizkaiko XVI. mendeko adibideak. RS–210 *Andraurenak etsea lauzatu gino daroa betatu,* "la mujer de buen recado, la casa suele henchir hasta el tejado"; RS–317 *Andrahurenac ese husa betatu,* "la mujer principal la casa vacía hinche"; RS–527 *Andraurenen essea, garazazal,* "la casa de la señora de buen recado acolmada". Ekialdeko euskararen lehen testigantzak Oihenarten poemetan aurkitzen ditugu. Iparraldeko euskaran batez ere Baxenabarreko eta Zuberoako testuetan aurkitzen dugu. Hitz honen gainean ikus bitez OEHko oharrak. Hitza, dena dela, nekez aurkitzen dugu XX. mende hasieran. Hitzaren esangura "dama gaztea" edo "goi mailako dama" da, gehienetan. Hitzaren etimologia argi xamarra da: *and(e)ra- (<and(e)re)+ guren)*.

Anderauren hitza beste balada batzuetan ere aurkitzen dugu. Azkuek Zaraitzuko Otsagin bildu zuen *Leisibatxo* gaia duen baladan, ahapaldi bakoitzean *andere aurena* eta *galaia zalduna* protagonistak aipatzen dira. *Uretako semea* baladan hirugarren ahapaldian ere *anderauren* hitza ikusten dugu *erreguinac bere Anderaurenari* esaldian. *Neska ontziratua* baladan, ordea, gure atal honetako Zuberoako aldaera guztietan aurkitzen dugu hitz hau. Chahoren A ereduan, XI. ahapaldian, *Eskutaria erho heltu/ Emaiten diro ezpata/ Anderaurenak harekila/ Sarthu du bihotziala*. Chahoren B ereduan, IX ahapaldian: *Capitagna capitagna Pharcamentu eske nauçu/ Otho libra eçaçu/ Andere auren hori/ Othoi libra eçaçu andere auren hori*. Altzaiko ereduan eta Gotainekoan ere aurkitzen dugu. Altzaiko ereduan X. ahapaldian: *Anderaurena fazil heltü da sarthü da untzin barnera,/ hainbestereki jaun kapitaña[k] eman deio ürhesagar[a], [eman deio ürhe sagarra] eta harekin lo-belhar[a]*. Gotaineko ereduan, ordea, *andereaurena* apur bat desitxuratu eta *andere Elèna* bihurtzen da, herri etimologia bidez. Hona Gotaineko ereduko XIV. ahapaldia: *Marinela inosent da phèrèstatsen do espata/ Haign bestenarekin andere Elènac erdiratsen du bihotsa/ Haign bestenarekin andere Elenac erdiratsen du bihotsa*. Adibide hauetan guztietan *andere* hitza eta *anderauren,* biak ikusten ditugu balada berean. Kasu bokatiboan (edo deikian) ia beti da *anderea* edo *andere gaztea*. Gure baladan birritan aurkitzen da dokumentaturik, VII. eta VIII. ahapaldietan: *andere horen*. Hitz hau, bestalde, nola transkribatu beharko genuke *anderauren* edo honen aldaera den *andereoren/anderehoren*? Gure ustez bigarren aukeretako bat izan beharko du. Hitzaren erabilera dela eta, gure baladan kontaketan *andere* eta *anderauren* biak ikusten ditugu. Bestela esan, gure baladan bi aldiz agertzen da, batean deikian, eta, bestean, kontaketan.

X–ekin/–gaz Y egitura zaharra euskal testurik zaharrenetan aurkitzen dugu. Mitxelenak (TAV, 123. or.) dakar lehenengoz fenomeno honen berri eta J. A. Lakarrak bi lanetan ematen du egitura zahar honen berri (J. A. Lakarra: 1983, 2008) eta aipamen asko dakartza garai eta euskalki diferentetakoak. Hona Ataungo eske kopla zaharretako bi adibide (I. Bastarrika: 1982):

12
Piparrarekin espezi
Baionan degu erosi;
nagusi jaunari eskatzen diogu
kopelatzeko lizentzi.

Baimen-kopla honetan *Piparrarekin espezi* horrek "piparra eta espezi(a)" esan nahi du. Egitura zahar honetan lehen elementua –rekin/–gaz kasuan dator (deitu bedi soziatiboa, komitatiboa, unitiboa) eta bigarren hitza absolutuan edo beste kasu batean. Bigarren hitzaren kasuak, jakina, markatzen du egitura guztiarena. RS-264an, esaterako, *Oguiagaz hura oragaz heroen elikatura* esaerak "ogia eta ura oren eta eroen elikatura (da)" esan nahi du. Tankera honetako egitura ikusten dugu, esaterako, Ataungo kopladi berean, beste kopla luze honetan:

32
Bestela gizon ona delarik
jakerea du nagie,
baldin erregek jakiten badu
orren tretaren berrie,
sari batean bialduko lioke
ezpatarekin zaldie.

Kopla honetan *ezpatarekin zaldie* ez da besterik *ezpata eta zaldie* baino. Egitura zahar hori berori aurkitzen dugu gure Donibane Garaziko baladan ere. Seigarren ahapaldiko *hemen eracutsiren dautzkitzut coblekilan airia* delakoak *hemen eracutsiren dautzkitzut kopla eta airia* esaldiaren baliokidea da. Egitura horretan ohargarria da, bestalde, *coblekilan airia* objektu zuzenak *ad sensum* aditza pluralean eskatzen duela: *eracutsiren dautzkitzut*.

Gure Donibane Garaziko ereduan adlatibo kasu singularra bi modutara ikusten dugu: –ra/–rat. Ez dugu uste batetik bestera inolako zentzu desberdintasunik dagoenik.

11.2. *Estilo-ezaugarriak*

Puntu honetan gure Donibane Garaziko ereduaren zenbait ezaugarri zirriborratuko ditugu. Gure eredua guztizko aberatsa da alderdi guztietan eta aberastasun hori ezin dugu, inola ere, gure iruzkinetan agortu. Zenbait ezaugarri, hala ere, zirriborratuko ditugu.

Gure Donibane Garaziko aldaera aski osoa da: *Neska ontziratua* baladaren argudio osoa eskaintzen du. Baladaren istorioa gardena da: sarrera-bukaera eta gertaerak garbi azaltzen dira. Elkarrizketez gainera, lehen pertsonako zein hirugarren pertsonako narratzaileak ere baditu. Alfa balada zoragarri bat dugu: denboran barrena eta gertaleku desberdinetan barrena garatzen da argudioa.

*Neska ontziratua*ren euskal eredu guztiak errepikaz osatuak daude. Errepiken artean bihurkiak leku berezia hartu ohi du. Donibane Garaziko ereduan errepika arruntak (7, 8, 15 ahapaldiak) eta bihurkiak aurkitzen ditugu. *Neska ontziratua* baladaren aldaeretan bihurkia ahapaldi barrukoa izan ohi da eta ez ahapalditik ahapaldirakoa. Gure ereduan ahapaldi batek edo bestek bihurki bikoitza (7. ahapaldia) ere eskaintzen du. Bihurkia edo Margit Frenk-en zioen *kateamendu* edo *encadenamiento* delakoa gure baladategi osoan bi balada gaitan ikusten dugu ugarien. *Neska ontziratua* baladan eta *Pazkoetan den alegerena* edo *Amoros baztertua* balada gaian (erdaraz *Romance de la amada relegada* J. M. Satrustegik zioenez). Hona hemen zer dioen Satrustegik *Pazkoetan den alegerena* balada gaiko bihurkiaren gainean (J. M. Satrustegi: 1969):

> Otro de los datos que descubrimos en esta composición sirve para el estudio de la métrica vasca. Se trata de una fórmula muy primitiva y elemental, que consiste en la repetición sistemática de que el segundo verso se repite, viniendo a ser la arrancada del siguiente pareado; la sola adición de la conjunción copulativa sirve para engarzar con la idea propiamente nueva de la segunda parte. No abundan las composiciones completas de este estilo, en su versión original; pero quedan vestigios evidentes en el Cancionero.

Donibane Garaziko aldaeran badira zenbait ezaugarri estilistiko ezagutzen ditugun Iparraldeko balada gehienetan ematen direnak. Gurean, esaterako, amak alabari hika egiten dio; kapitainak marinel onari ere hika; marinel onak kapitainari zuka; kapitainak anderaurenari zein anderaurenak kapitainari zuka; Chahoren A ereduan amak alabari hika, B ereduan, ordea, zuka; B ereduan kapitainak marinel onari hika; Altzaiko eta Gotaineko ereduetan gure baladaren sistema bera errepikatzen da; hika amak alabari eta kapitainak marinel onari, gainerakoetan zuka.

Kontu hauetatik guztietatik aparte harrigarria da lehen pertsonako narrazioan zukako forma bat edo beste agertzea ia era sistematikoan. *Behin batez ari ninduzun*, baina *entzun nuen* eta ez, espero genuen

bezala, “entzun nizun”. Chahoren A ereduan, ordea, *ari nündüzün* eta *entzün nizün*. Altzaiko ereduan ere lehen pertsonako narrazioan zukako formak aurkitzen dira.

Kapitainaren eta marinelaren arteko elkarrizketetan errepika bidez ematen dira bataren ere bestearen izenak: *kapitaina*, *kapitaina* eta *mariñela*, *mariñela*. Donibane Garaziko baladan ez ezik, Altzaikoan ere berdin-berdin ikusten dugu.

Gure baladaren bukaerak, bestalde, badu mamia, gure ustez. Azken aurreko ahapaldi bukaeran esaten da itsasoak eramango duela gorpua *bere aitamen porturat*. Anderaurenak kapitainari zoli eskatzen badio ere “turnatzeko”, kapitainak beste asmo batzuk izango ditu. Neskatilak bere burua hil ondoren itsasoa bera izango da bostehun legoara gorpua itzuliko duena. Dramatismo handia du ahapaldi honek; eta dramatismoaz gainera literatura unibertsaleko motiborik zaharrenetako bat ere ikusten dugu bertan, Herodotoren *Historia* liburuetan datorren Polikratesen eraztunaren motiboa, hain justu. Motibo horren arabera, *boomerang* efektu batez, bere jatorrira itzultzen da, miragarriro, objektu bat. Herodotoren jatorrizko kontaeran eraztuna itzultzen da, santuen bizitzetako kontaeretan giltzak. Gure baladan ere berdin itsasoa izango da gorpua aita-amen portura eramango duena. *Gure Herria* aldizkariko zein KKK liburuko ereduetan ere berdin ikusten dugu: itsasoak andere gaztearen gorpua bere amaren itsasertzera eramango du: *Oi Ama anderea, so egizu leihora…/ Zur’alaba gaichoa, uhinak derabila (berriz)*.

Donibane Garaziko ereduko azken ahapaldiak badu mamia. Gure literaturako beste genero batzuetan ere aurkitzen dugu antzerako irudia eta hitz hoskide berak. Gure lan batean ahapaldi honetaz ari izan bagara ere (J. Kalzakorta: 2004), oraingo honetan egokiago ikusten dugu iruzkin txiki bat egitea. Gure baladako azken ahapaldiak dantza-kopla ezagun batekin kidetasun handia du. Hona ahapaldia:

Itsasoan urak handi,
ez du hondorik agiri,
maitea ikusteagatik
pasako nintzake igeri.

Ahapaldi hau oso ezaguna da Bizkai-Gipuzkoetan. Motiboa, bestalde, literatura unibertsalekoa dugu. Maitea ikusteagatik itsasoa igeri pasatuko lukeen maitalearena. Hona, esaterako, Duvoisinek “Amodioak bainerabila” artikuluan bildu zuen (J. Duvoisin: 1841) kantaren hirugarren ahapaldia:

Amodioric badudala ez ote zautzu iduri?
Ixasoa pasa nezake zure ondotic igeri,
Oi! hambat cira charmagarri!

Gure kopla honetaz bestetan era jardun gara. Dantza-kopla horren gaineko aipamena George Borrow-ren 1843ko *The Bible in Spain* liburuan, XXXVII kapituluan, aurkitzen dugu:

> “It will, perhaps, here be asked whether the Basques do not possess popular poetry like most other nations, however small and inconsiderable. They have certainly no lack of songs, ballads, and stanzas, but of a character by no means entitled to the appellation of poetry. I have noted down from recitation a considerable portion of what they call their poetry, but the only tolerable specimen of verse which I ever discovered amongst them was the following stanza, which, after all, is not entitled to very high praise:
>
> Ichasoa[n] urac aundi,
> Estu ondoric agueri
> Pasaco ninsaqueni andic
> Maitea icustea gati.
>
> That is, “The waters of the sea are vast, and their bottom cannot be seen; but over them I will pass, that I may behold my love.”

Gure baladako azken ahapaldiak antzekotasun handiak ditu kopla honekin. Gure koplak bi aldaera izan ohi ditu *Itsasoan ura(k) handi* edo *Itsasoan ura(k) lodi,* batetik, *ez du ondorik agiri* edo *ez du ondarrik agiri*, bestetik, Borrow-en aldaeran agertzen ez den *igeri* aditza izan ohi da *andi/agiri/igeri* hitzen hoskide. Gure baladan, ordea, hitz oskide hauekin beste dimentsio bat hartzen du betiko kopla ezagunak. Borrow-k dioen *They have certainly no lack of songs, ballads, and stanzas, but of a character by no means entitled to the appellation of poetry* delakoak, hots, "(euskaldunek) ez dituzte falta, egia esan, kantu, balada eta koplak, baina hain modutakoak non ez diren poesiara heltzen", ez du zentzu handirik. Seguru gaude beraren belarrietara ez zela iritsiko Donibane Garaziko eredua bezalako baladarik.

11.3. *Donibane Garaziko ereduaren ahapaldiz ahapaldikako iruzkina*

Puntu honetan ahapaldiz ahapaldi iruzkinduko ditugu geure Donibane Garaziko ereduko ahapaldi guztiak. Iruzkina batez ere alderdi bitakoa izango da. Batetik, transkripzioak sortu dizkigun arazoak aipatuko ditugu; bestetik, hitzak, egiturak, eta beste eredu batzuekiko bateratasunak aipatuko ditugu. Ez dugu pentsatzen geure saio honekin, inondik inora ere, testuaren zailtasun eta aberastasun guztiak iruzkinduko ditugunik.

1

Behin batez ari ninduzun salatian brodazen
Marignel bat entzun nuen itsasoan cantatzen
itsasoan cantatzen eta Pertsu ederren emaiten.

Herri ipuinetako hasiera formula du gure Baxenabarreko ereduak: *behin batez*. Zuberoako *Neska ontziratua* balada ereduetan hasiera *Aldi batez* edo *Aldixe batez* izan ohi da; *Aldi batez* ikusten dugu Gotaineko ereduan eta *Aldixe batez* Altzaikoan. Kantu narratiboek, beraz, berezkoa dute sarrera formula hau. Ez dago dudarik *salatian* delakoa *sala batian* sintagmaren laburpena dela. Iparraldeko eredu guztietan *brodatu* aditza eta *broderia* hitzak aurkitu ohi ditugu. Ez dugu ahantzi behar frantsesez *broder* dela aditza eta *broderie* substantiboa.

2

Broderia utzi eta juanitzen amaren gana
eya utziren ninduenez itsaso bazterrerra
itsaso bazterrera eta pertsu heyen aditzera.

Transkripzioari gagozkiola, lehen idazkeran *Brodaria* idatzi du transkribatzaileak, eta, gerora, zuzenduz *Broderia*. Era berean, *guanitzen* irakurtzen dugu argiro eta hasierako g– ezabatu ondoren *joi* ikusten dugu. Nola, beraz, transkribatu, *Juanitzen* edo *joinitzen*? Bi aukeretatik lehena dela zentzuzkoena iruditu zaigu. Beste korapilo txiki bat *heja* (edo *heya*) edo *heza* aukeren artekoa izan dugu. Transkripzioaren aldetik, *bazterrerra* agertzen da bi aldiz eta ez, uste izatekoa zen bezala, *bazterrera*. Dardarkarien nahasmena gure baladan ere argiro ikusten dugu.

3

Amac erran zautan habil habil ene alaba maitea
Bainan oroithadi iluna dela hourbildia,
iluna dela hurbildua eta gibelerat itzultzea.

Ahapaldi honek ez du transkripzio arazorik. Beste ahapaldi batzuetan ikusiko dugun bezalaxe, bi eratara transkribatua ikusiko dugu hitz bera, bata, fonetizismoarekin eta bestea gabe, hots, *hourbildia* eta *hurbildua*. Hitz honetan, bestalde, *hour–/hur–* bi eratara transkribaturik ikusten dugu. Ahapaldi ho-

netan ikusten dugu lehen aldiz –rat adlatiboaren azken –t delakoa. Aurreko ahapaldietan ez genuen marka hau.

Ahapaldi hau bat dator bete-betean Itsasuko berriemaileak aita Donostiari kantatu zion ereduko hirugarren ahapaldiarekin.

4

Habil eta erran zacon din dadin gure etcherat
jin dadin gure etchera eta gurekin afaiterat
gurekin afaiterat eta pertsu heyen emaiten.

Transkripziori gagozkiola, bi modutara ikusten dugu transkribaturik *jin* aditza: *din* eta *jin*. Era berean, adlatiboa bi modutara ikusten dugu *etchera* eta *etcherat*. Hoskidetasunari gagozkiola *etcherat/afaiterat/emaiterat* zen uste izatekoa eta ez *emaiten*.

5

yincuac dauzuela egunhun untzi capitain gaztea
aitac eta amac igortzen naute yintziten gure etchera
gurekin afaiterat eta bi coblen ihacusterat.

Ahapaldi honek ez du transkripzioaren aldetik arazorik sortzen. Euskal baladetan dagoen agur formularik errepikatuena ikusten dugu aldaera honetan: *Jinkuak dauzuela egun hun, untzi-kapitain gaztea!* Formula hau Chahoren A ereduan ere aurkitzen dugu *Jinkuak deizüla gai huna, jaun ezkütaria!* Bizkaiko ereduetan ere, Foruko eta Derio-Zamudioko ereduetan ere aurkitzen dugu. Formula hori *Leixibatxo* balada gaietako hainbat eredutan, *Urthubiako Alhaba* baladan, etab. gertatzen da. Ahapaldi honetako hitzei gagozkiola, *untzi-kapitain*[4] hitz konposatua lehenengoz aurkitzen dugu *Neska ontziratua* baladan. Harrigarria da, bestalde, ekialderagoko ezaugarriak ikusten ditugula *egun hun* horretan. Batetik, bokalaren itxiera eta hasierako *h–,* Zuberoako ereduko *gai hun* horretan bezalaxe.

Aditzei gagozkiela, *ihacusterat* horrek *irakusterat/erakusterat* adierazten du, –r– galeraren ondoan –h– sortzen dela. Hurrengo ahapaldian ere *eratcutsiren* ikusiko dugu garbiki.

6

impossible da anderia orai ni harat yitia
sarzaite sala huntan barnerat andere horen pollita
hemen eratcutsiren dautzkitzut coblekilan airia.

Untzi-kapitainaren erantzuna dugu hau. Anderaurena bere jauregian sala batean ari zen brodatzen. Untzi-kapitainak untzi barneko salara sartzeko gonbita egiten dio. *Sala* diogunean, gela apain eta dotorea ulertzen dugu, jauregietan edo untzi handietan egon ohi direnetakoa.

Gure eredu honetan *inposible da (...) –tea* agertzen den egitura beste eredu batzuetan ere aurkitzen dugu. Chahoren B ereduan eta Altzai eta Gotaineko ereduetan.

Harrigarria da *koblekilan airia* egitura. Beste balada batzuetan ere agertzen den X–ekin Y egitura dugu. Ohargarria da, era berean, komunztadura *ad sensum* egina dela, aditza pluralean agertzen baita: *erakutsiren dauzkitzut*.

[4] Tankera honetako hitzak aurki litezke muga alde bietan. "Untzi-ola" hitz ezagunaren ondoan badira oraindik hiztegietan jaso gabe dauden zenbait hitz. Lekeition, esaterako, "ontzi-arotza" hitza irakatsi zidan Rufo Atxurrak "calafate" adierazteko. Ikus "Lekeitioko arrantzaleen biziera eta kanten gainean" in *Idatz & Mintz*, 27. zk., 1997, 24-37. or.

7

Andere horen, pollit hori sartutzen sala barnerat
sartuzen sala barnerat eta lobelarra ukan golcorat
lobelarra ukan golcorat eta locartuzen berehala

Zuberoako ereduetan lobelharra eta urhe-sagarra ematen dizkiote anderaurenari. Gehienetan ez dute esaten non jartzen dizkioten, Bizkaiko ereduetan bi bularren artean jartzen diote lo-belarra. Gure ereduan golkora ematen diote lo-belarra, Zuberoako A ereduan bezalaxe.

8

Capitaina, capitaina es zauzia bekatu
Andere horen pollit hori, beharduzia tronpatu
Andere lerden pollit hori behar dutzia tronpatu.

Aita Donostiak bildu zuen lehen ereduko laugarren ahapaldiaren berdin-berdina dugu hau. Ahapaldi honetan hirugarrenez errepikatzen da *andere horen* hitza, hots, "anderauren" hitz zaharra. Ahapaldi hau marinel onak esana da kapitainari. Marinel on hori kapitainaren kontzientziaren boza dugu.

9

Marignela marignela emoc untzihori bela
Aspaldian desir nuena jinzautac orai escura
Yinzautac escurat eta nere bi besoen artera.

Transkripzioari gagozkiola, nola transkribatu *emac untzihari bela* edo *emoc untzihori* bela? Garbi xamar ikusi dugu *untzihori* horretako –o–, baina zailtxoago *emoc* horretan. Aita Donostiaren ereduan ere, bestalde, *emok* aginterako adizkia dator. Nola jarri beharko genuke untzihori gaurko erara? *Untzi hor[r]i* edo beste aukeraren bat ote dago? *Untziari* izatekotan, zergatik dator erdi-erdiko –h– hori?

10

Lobelarra kendu eta ihizartutzen berehala
Norat eremaiten nuzu untzi Capitain gaztea
Turna nezazie turna hartu nuzien lekura.

Transkripzioari gagozkiola, "iratzarri/iratzartu" aditza *ihizartu* dugu gure ereduan. Hasierako *ira–* batetik sortua den *ihi–* beste aditz batean ere aurkitzen dugu. Bosgarren ahapaldian *erakutsi/irakutsi* aditza *ihacusterat* forman aurkitzen dugu. Aditz honek, ordea, beste arazo bat ere sortzen digu: nola ahoskatuko zen; *ihizartu* edo *ihitzartu*? Arazo hau bestetan ere aurkitzen dugu. Era berean, nola transkribatu behar dugu bosgarren ahapaldiko *dauzuela* aditza: *dauzuela* edo *dautzuela*? Bestela esan, afrikatuak –erdarazko *africadas*– diren formak –z– hutsez ikusten ditugu idatzirik. Era berean, kontrakoa ere aurkitzen dugu eredu honetan. Zazpigarren ahapaldian *locartuzen* eta *sartutzen* biak aurkitzen ditugu. Zortzigarren ahapaldian *beharduzia* eta *behar dutzia*.

Bizkaiko ereduetan anderea iratzartzen da untziek elkar jotzen dutelako. Arratiako Dimakoan *untzitxo onek jo abenian itxasua ta mastria*, Txorierrikoan *untziak alkar jo*, Forukoan *ontziak atxa jotea*. Gure ahapaldi honetan bestetan agertzen ez den zehaztasun zoragarri bat dator: lo-belarra kentzen diotenean iratzartzen da anderaurena.

11

Impossible da anderia zure harat turnatzia
Bortz hehun lekua zu hartu zintugun lecurat
zu hartu zintugun lecurat eta zure ait amen porturat.

Anderaurena bostehun legoa eramaten dute itsasoan barrena bahiturik. Eredu diferentetan ez dira zenbakiak errepikatzen. Zuberoako Altzai eta Gotaineko ereduetan hiru mila legoa, Lapurdikoan hirurehun. Bizkaiko bi eredutan behintzat zenbakia bostehun legoa da. Bizkaiko Foruko ereduan bostehun dira (*bosteun legua bidean*) Derio-Zamudiokoan ere bai (*Aiten d'amaren errira joateko bosteun legoak bear dire/ bosteun legoa olan eiteko),* Dimakoan, ordea, mila.

Baxenabarreko eredu honetan *ait amen portua* aipatzen da ahapaldi honetan zein hamalaugarrenean. Ezagutzen ditugun gainerako ereduetan ez da aipatzen porturik.

12

madarica balakio dendariari besoa
zeren baiteraut egine zaiaren zola herchiche
zaiaren zola herchiche eta geruntzian tinkiche.

Neskatilaren madarikazio indartsua dugu hau. Interesgarria da ohartzea Zuberoako eredurik osoenetan madarikazio bikoitza egon ohi dela: neskatilarena eta kapitainarena. Neskatilak madarikazio bat botatzen du dendariaren kontra gona estuegia egin duelako. Behin neskatilak bere burua hil ondoren, kapitainak madarikazioa botatzen du arotzaren kontra ezpataren punta zorrotzegia egin duelako. Neskatilak dendariaren (hots, jostunaren) eskua/orratza madarikatzen du eta kapitainak arotzaren (hots, errementariaren) besoa. Gure ereduan neskatilak dendariaren *besoa* madarikatzen badu zer pentsatua ematen digu, kapitainak madarikatzen baitu arotzaren besoa. Baliteke, beraz, kontaminazio txiki bat egotea eta kontaminazio honek gure ereduan berean ere ahapaldi bat behintzat falta dela salatzen du, hau da, kapitainaren madarikazioaren ahapaldia. Hona beste eredu batzuetako madarikazioak modu zehatzago batean. Chahoren A ereduan *maradika dakiola dendariari orratza* eta Chahoren B ereduan *maradikatia dela dendariaren eskia*. Zuberoako Gotaineko eta Altzaiko ereduetan *madarika dakiola dendariari eskia* eta *madarika dakiola dendariari e[r]hia* ditugu. Chahoren B ereduan kapitainaren madarikazioa: *Maradika dakiola arotzari besua!/ zeren hain zorrotz egin dian ezpata huni moskua,/ ezpata huni moskua eta maitiaren phensamentia!* Madarikazio ahapaldi hau Azkuek ere bildu zuen, gorago ikusi dugunez.

Baxenabarreko aldaera honetan gonaren estutasuna goi-behetan dela adierazten da era harrigarri batean, zolan edo barrenean *herchiche* da "estutxo" eta *gerruntzean* (hots, gerrian) ere *tinkiche* (hots, tinkotxo). Hitz biak *tinkia* eta *hertsia* antzekoak dira. *Hertsi* hitza gure hegoaldeko "estua" da gure ondoko erdaretan "estrecho" "étroit/-e" eta *tinki* "apretado, prieto", "juste", la "jupe être juste". Kasu bietan –xe ttikigarria dugula: *hertsixe* eta *tinkixe*. Ohartzekoa da *zola* hitza gonari dagokiola agertzen dela, azken ahapaldian hitz bera aurkituko dugu itsasoari dagokiola. Zehaztasun zoragarri hauek ez ditugu ikusi ezagutzen ditugun beste aldaeretan.

Gaurko grafiara ekartzean arazoak sortzen dizkigu afrikatu/frikatuak. Bi aldiz agertzen den *herchiche* nola ekarri behar dugu gure grafiara? Bi aukeratatik –hots, *herxixe* edo *hertsixe* aukeretatik– guk bigarrenaren alde jokatu dugu.

13

Capitaina capitaina baduzia ganibetic
Ez ezdut ez ganibetic bainan ezpata ongi chorotchic
Hartuzuen escurat eta sartu zuen bihotzetik

Transkripzioari gagozkiola, ez du dudarik sortzen ahapaldi honek. Ederra da, dudarik gabe, *xor[r]otxik* adberbio edo adizlagunari ohartzea. "Zorrotzik" adizlaguna bustirik edo modu markatuan dator: *xor[r]otxik*. Balada honek baditu Bizkaiko ereduekin antzekotasun nabariak. Bizkaiko Derio-Zamudioko aldaeran bezala, ganibeta eskatzen du eta ganibetaren faltan *sablea/ezpata* ematen dio kapitainak. Ezpata eskuetan hartu ondoren bihotzean sartzen du (Foruko ereduan, *sabelean* sartzen du sablea) ia eredu guztietan bezala. Zuberoako ereduetan ez dago holako jokorik: ezpata eskatu eta ezpata sartzen du bihotzean.

14

Ai, Ai, Ai zer egine behaut hau
zer egine behardut orai nik
emozu bi musu eta aurticazu itcasorat
Itsasorat eremanen dau, bere aita amen porturat.

Ahapaldi irregularra dugu bete-betean. Ahapaldi hau beste biren nahasmena ote da? Transkripzioari buruz zalantza bat baino gehiago sortu zaigu. Garbi dago *behaut/behardut* bi modutara transkribatua dagoela. Lehena, laburdura eta guztikoa; bigarrena, forma osoa. Era berean, *itcasorat/itsasorat* ere bi modutara transkribatua ikusten dugu. Beste hitz batzuetan, ordea, zalantza garbiak sortu zaizkigu. Nola irakurri behar da eskuidatziko "eman" aditz jokatua, *emazu* edo *emozu*? Zenbaitetan ez da erraza antzematea. Ahapaldi honetan berean *orai* hitz garbian, esaterako, ez da garbi ikusten: hasierako o– delakoa eta a– ezinezko batekin nahasteko bidea ematen du. Grafiari gagozkiola, *aurticazu* aditzeko –oz– /–az– bokal eta kontsonante multzo berarekin konparatzeko bidea argigarria ematen bazigun ere, praktikan ez da hain erabakigarria izan. Bederatzigarren ahapaldiko *emoc* garbiagoa ikusten dugu. Bi aldiz agertzen den *egine* delakoa ez al da harrigarria? Nola azaldu, bestalde, *eremanen dau* futuro formaren *dau* laguntzailea? *Eramanen dau* horren subjektua, ordea, ez al du ergatibo batek izan behar, hots, (uh(a)inak edo) itsasoak?

Ahapaldiaren balio poetikoari gagozkiola, zoragarria da. Chahoren ereduetan A ereduan bezalaxe, gorpua itsasora bota baino lehen *bi musu* ematen zaizkio. Chahoren A ereduan *bi potño*, "pot" ("musua") hitzak –ño ttikigarria duela. Bizkaiko ereduetan ere aurkitzen dugu ideia bera: Foruko aldaeran *guztiguztiok laztan bana* eta Derio-Zamudioko aldaeran *zazpine mosu* ematen dizkiote. Behin uretara jaurti ondoren, itsasoak gorpua gurasoen portura eramango du. Zehaztasun honek, dudarik gabe, dramatismo handia emango dio gure baladari. Zehaztasun hau aurkitzen dugu lehen aldiz 1921. urtean, gorago jarri dugun bezala, *Gure Herria* aldizkarian agertu zen ereduan: *Oi ama anderea, so egizu leihora/ zur'alaba gaixoa uhinak darabila/ zur'alaba gaixoa uhinak darabila*. Interesgarria da, behin alaba gurasoen etxetik bostehun legoa urrundu ondoren, uhinak edo itsasoak berriro daramala gurasoen begien aurrera. Baxenabarreko eredu honetan aita-amen portura bidaltzen du itsasoak anderaurena. Aita-amen portuaren aipamena hamaikagarren ahapaldian ere aurkitzen dugu.

15

Itsasoan hura lodi zolarik ez du agueri
Ene maitia hantchet dabila arraina bezala igeri
Ene maitea hanchet dabila arraina bezala igeri.

Transkripzioari gagozkiola, harrigarria egiten zaizkigu hainbat kontu. Harrigarria da *agueri* aditza transkribatzen duen arren, ez transkribatzea *igueri* espero genukeen bezala, bi aldiz *igeri* baino. *Ura* hitza zuberotarrez bezala *hura* ikusten dugu, hasierako *h*– duela. (Ohart bedi lehenago ere *egun hun* ikusi dugula bosgarren ahapaldian.) Beste zenbait ahapalditan bezala, bi eratara dago: *maitia/maitea* fonetizismoarekin eta gabe.

Baladaren azken ahapaldi hau aita Donostiaren 1919ko lehen ereduarekin bat dator. Gure ereduko *arraina bezala igeri* konparantza askoz hobeki dator aita Donostiak bildu zuen *arraina bezain igeri* konparantzarekin baino. 1921. urteko GH aldizkariko ereduan *nora aurtiki haurra?* galderari *hortxet itsaszolara* da ematen den erantzuna. Gure ahapaldi honetan antzeko zerbait esaten da *hortxet* horren antzekoa den *hantxet* dator.

11.4. *Donibane Garaziko balada gaur eguneko grafia-ortografietan*

Lehen transkripzioa edota transkripzio zuzena egin ondoren, eman dezagun gure eredua gaurko ortografian. Kontu honetarako puntu hau baino lehen egin ditugun iruzkin eta konparantzak testua finkatzen eta ulertzen lagunduko digute. Hona hemen:

1
Behin batez ari ninduzun sala [ba]tian brodatzen,
mariñel bat entzun nuen itsasoan kantatzen,
itsasoan kantatzen eta pertsu ederren emaiten.

2
Broderia utzi eta juan nitzen amarengana
heia utziren ninduenez itsaso bazterrera,
itsaso bazterrera eta pertsu heien aditzera.

3
Amak erran zautan: –habil, habil, ene alaba maitea,
bainan oroit hadi iluna dela hurbildia,
iluna dela hurbildua eta gibelerat itzultzea.

4
–Habil eta erran zakon jin dadin gure etxerat,
jin dadin gure etxera eta gurekin afaiterat,
gurekin afaiterat eta pertsu heien emaiten.

5
–Jinkuak dau[t]zuela egun hun, untzi-kapitain gaztea!
Aitak eta amak igortzen naute jintziten gure etxera
gurekin afaiterat eta bi koblen ihakusterat.

6
–Inposible da, anderia, orai ni harat jitia,
sar zaite sala huntan barnerat, andere(h)oren pollita,
hemen erakutsiren dautzkitzut koblekilan airia.

7
Andere(h)oren pollit hori sartu zen sala barnerat,
sartu zen sala barnerat eta, lobelarra ukan golkorat,
lobelarra ukan golkorat eta, lokartu zen berehala.

8
–Kapitaina, kapitaina, ez zauzia bekatu
andere(h)oren pollit hori, behar duzia tronpatu?
Andere lerden, pollit hori behar duzia tronpatu?

9
–Mariñela, mariñela, emok untziari bela!
Aspaldian desir nuena jin zautak orai eskura,
jin zautak eskurat eta, nere bi besoen artera.

10
Lobelarra kendu eta ihizartu zen berehala:
–Norat eremaiten nuzu, untzi-kapitain gaztea?
Turna nezazie, turna, hartu nuzien lekura!

11
–Inposible da, anderia, zure harat turnatzia,
bortzehun lekua zu hartu zintugun lekurat,
zu hartu zintugun lekurat eta zure aita-amen porturat.

12
–Madarika balakio dendariari besoa!
Zeren baiteraut egine zaiaren zola her[t]xixe,
zaiaren zola her[t]xixe eta ger[r]untzian tinkixe.

13
–Kapitaina, kapitaina baduzia ganibetik?
–Ez, ez dut ez ganibetik bainan ezpata ongi xor[r]otxik.
Hartu zuen eskurat eta sartu zuen bihotzetik.

14
–Ai, ai, ai zer egine behaut hau?
Zer egine behardut orai nik?
–Emozu bi musu eta aurtikazu itsasorat,
itsasorat eremanen dau, bere aita-amen porturat.

15
Itsasoan hura lodi, zolarik ez du ageri;
ene maitia hantxet dabila arraina bezala igeri,
ene maitea hantxet dabila arraina bezala igeri.

Puntu honetan eman dugun transkripzioa ez da behin betikoa. Erabaki argi asko izan arren, ez dugu puntu guztietan behar dugun argitasun guztia izan.

12. *NESKA ONTZIRATUA:* CHAHOREN A EREDUA

Neska ontziratua edo *El marinero raptor* baladaren bi eredu agertzen dira Chahoren kantutegian. Bi eredu hauek Zuberoakoak dira. Bi ereduok, guk baino lehen irakurri dituztenak izango dira, noski. Luis Dassancek, esaterako, irakurriak eta bere paperetara transkribatuak ere bazituen, guk geuk ikusi dugunez. *Diccionario Retana de Autoridades del Euskera* hiztegiaren egileek ere ikusia bide zuten, "mosko" hitzean lehen ereduko pusketa bat agertzen delako. Bi eredu hauen hasiera eta Azkueri Larraineko itzainak edo gurdi-gidariak kantatu zion kanta-hasiera bat datoz.

Chahoren ereduak finkatzeak lan zail eta arazotsua ematen du. Lan zail eta arriskutsua, gainera, euskalkia norberarena denean ere. Transkribatu beharreko ereduak Zuberoakoak badira, zailagoak iruditzen zaizkigu. Lafon, Gavel, Larrasket eta Haritschelharren lanak irakurriak eta arretaz aztertuak ditugu. Zuberoako euskaran irakurtzen ohituak gauden arren, ez gara euskalki horretakoak. Behin-behineko transkripzioa egin ondoren, hurrengo batean emango ditugu zertzelada gehiago.

Chahoren kantutegiko bi ereduak ez dira esku berak transkribatuak. Ez dira izango, noski, berriemaile berak emanak ere. Bi ereduek, beraz, letra desberdina dute. Lehen ereduak, ahapaldi eta eszena gehiago izateaz gainera, baliapide estilistiko aberatsagoak ditu. Transkripzioa ere txukunagoa da, izkirio dotoreagoa eta garbiagoa erakusten du. Bigarren eredua aberatsa izan arren, ez da lehena bezain betebetekoa. Transkripzioan ere esku bizkorragoa ikusten dugu, bere ezabatze eta tinta-borroiekin. Bi ereduak, ordea, Zuberoako euskarakoak dira. Ez gara oraingoz gauza Zuberoako zein azpieuskalkitakoak diren zehazteko. Bi ereduak argitaratzen gu izan ginen lehenak. Aipatu ditugun bi ereduok Chahoren kantute-

giko zerrendan 101 zenbakidunak dira. Hau da, 101. zenbakia osatzen duten bi kantu gai berekoak dira. Lehen eredua 168-169/240 zenbakian, bigarrena 170-13 zenbakietan; doinu-pentagrama 174/240 zenbakian. Bigarren ereduaren ondoren musika pentagrama bat ere agertzen da. Horrexegatik J. Haritschelharren "Baladaren inguruan" artikuluan agertzen da eredu baten zehaztasuna (15 couplets + musique) (Haritschelhar: 1988). Guk kantutegian agertzen diren ordena berean emango ditugu. Gure atal honetan, beraz, lehen ereduari A eredua deituko diogu.

12.1. *Chahoren A ereduaren transkripzio argitaratuak*

Chahoren A eredu honen lehen argitarapena *Idatz & Mintz* aldizkarian egin genuen, 2003. urtean, "*Neska ontziratua* baladaren eredu zahar berriak" lanean. Lan honetan bi eratako transkripzioa egin genuen, zuzena eta eguneratua. Gerora, behin eta berriro jatorrizkoarekin erkatu ondoren, hutsen bat edo beste itzuri zitzaigula ikusi genuen.

Antonio Zavalak, berak ahoz adierazi zigunez, Chahoren kantutegia kopiatzeko Telesforo Monzoni eskatu zion baimena. Kopiatu ere egin zituen zenbait balada, baina presaka antzean. *Neska ontziratua* eredu bietariko bat bera ere ez zuen kopiatu, ordea.

Patri Urkizuk 2006. urtean argitara zuen *Agosti Chahoren kantutegia 1844-1855* liburuan ez du *Neska ontziratua* baladaren bi ereduetariko bat bera ere argitaratzen. Harrigarria badirudi ere liburu honetan ez da Chahoren kantutegi erditsua baino argitaratzen. Chahoren kantutegikoak argitaratzen ez baditu ere, kantutegi horretakoak ez diren kantu batzuk ere sartzen ditu. Patri Urkizuren beraren "Viejas baladas vascas del cancionero de Chaho" artikuluan argitaratzen ditu bi ereduak beste inoren berri ez argitaraldiren berri eman gabe (Urkizu: 2005). Ohar interesgarriz hornituak badira ere huts zenbait egiten ditu. Hona bakar batzuk. Bigarren ahapaldian bi eratara ikusten dugu *entzütera* eta *entzutera*, bi modutara, laugarren ahapaldian *gureki* eta *Gurekin*, batean –n duela eta bestean ez. Eskuidatzian, ordea, bietan dago –n. Hamargarren ahapaldian bi aldiz jartzen du *pherezta*. Hitz hau transkribatzeko, ordea, ez dago dudarik: "prestu" eta "prestatu" hitzak Zuberoako euskaran *p(h)erestü* eta *p(h)erestatü* izan litezke –ez nahitaez, baina bai askotan– *muta cum liquida* edo *anaptisis* bitartez hortaratuak. Hona OEH-an datorren azalpena: "En textos suletinos, además de *pherestatü*, hay *prestatü* (Maister, AstLas y Constantin), *perestatü* (Xarlem) y *pestatü* (AstLas).

Zalantza gehien eta handienak ematen dituen kontua u edo ü transkribatu behar den da. Chahoren kantutegiko transkribatzaile gehienek, Chaho bera barnean dela, irizpide finko eta garbiak erabiltzen dituzte: u/ou grafiekin /ü/ eta /u/ fonemak desberdintzen dituzte, gehienetan. Nola transkribatu behar dira, ordea, eskuidatzitikako *jostura* eta *buria*? Nahitanahiez *Ichouri*, *jostüra* eta *büria*? Hirugarrenarekin ez dugu dudarik, bigarren transkripzioan *büria* jarri behar dugu –eta ez Urkizuk bezala *buria*– baina lehen eta bigarrenarekin? Eta Arxük hamalaugarren ahapaldian, eskuidatzian *eghin behar dut* idazten badu, ez ote dugu, dudarik gabe *egin behar düt* bigarren transkripzioan jarri behar? Honetan ez dugu dudarik. Patri Urkizuk, ordea, harrigarriro *egin behar dut* transkribatzen du.

12.2. *Louis Dassanceren transkripzio argitaragabea*

Atal honetara Louis Dassanceren eskutikako transkripzioa aldatuko dugu. Louis Dassancek Chahoren kantutegiko kantu gehienak bere kaier batera aldatu zituen. Kantu hauek, ordea, ez zituen inon argitara eman. Kantuaren izenburua azpimarra batekin hauxe da: *Brodatzen ari nintzen*. Izenburu honen eskubi aldera ohar interesgarri bat dakar: *aire de Basoilarrak kantatzen du note!*

Atal honetan Dassancek egin zuen transkripzioa aldatuko dugu. Dassanceren esku letra argia da eta ulerterraza. Guk testua ez ezik puntuazioa ere aldatuko dugu.

Aldi batez ari nunduzun
Sala baxian brodatzen
Eskutari bat entzun nizun
Galeriati kantatzen
Galeriati kantatzen eta
Kobla ederren emaiten.

Aita eta amak elizatik jin zeiztan samurrik
Heia zeren enintzan juan mezaren entzutera
Mezaren entzutera eta haien kunpañatzera

Aita eta ama othoi, othoi pharka zadazie
Eskutari bat entzun dizut galeriati kantatzen
Galeriati kantatzen eta kobla ederrik emaiten.

Ene alaba habilua eskutari haren gana
Erran izakon jin dadila gurekin aiharitera
Gurekin aiharitera eta kobla eder emaitera.

Jinkuak deizula gai hun jaun eskutaria
Aita eta amak igorten nizie jin ziten aiharitera
Gurekin aiharitera eta kobla eder emaitera.

Anderia sar zite untzi hunen barnera
Arratsan juanen gira biak aiharitera
Biak aiharitera eta kobla eder emaitera

Anderia erho heltu sartu da untzin barnera
Eskutariak harekilan lo belharra golkora
Lo belharra golkora eta belaren desplegatzera

Tira mariñelak tira tira ezazie untzia.
Ene aita ama gaxoak ene billa dabiltza
Ene billa dabiltza eta nigarrez so itsasora

Zure aita eta ama zure bilha dabiltzeïa?
Haietarik urruntxe gira hirur mila lekua
Beste hanbesten buruko helturen zira etxera.

Madarika dakiola dendariari orratza
Zeren hain hertxi egin dian kota hunen gerria
Kota hunen gerria eta ene bihotzeko pena

Peresta eskutaria peresta zure ezpata
Kota gerria thikiegi baitut larga dezadan jostura
Jostura larga dezadan eta, ene buria deskansa.

Eskutaria erho heltu emaiten diro ezpata
Anderaurenak harekila sartu du bihotziala
Bihotziala sartu eta, ixuri bere odola

Madarika dakiola harotzari besua
Zeren hain zorrotz egin dian ezpata huni moskua
Ezpata huni moskua eta, maitiari phensamentia.

Aiei, aiei, aiei, aiei! Zer egin behar dut orai nik
Bi potño eman eta itsasoalat aurtiki
Itsasualat aurtiki eta nihaur jarraiki undoti.

Idek mariñelak idek idekazie untzia:
Itsasuakeztiro sofri arima desesperatia
Arima desesperatia eta, inozentaren odola.

12.3. *Chahoren A ereduaren lehen transkripzioa*

Augusti Chahok bildu zituen *Neska ontziratua* baladaren bi aldaeretatik lehena aldatuko dugu puntu honetara. Bi aldaera hauetatik lehena Arxüren eredua dugu. Lehen aldaera honek 46. zenbakia dauka eskubialdean[5]. Lehen eredu honi A eredua deituko diogu. Eredu honetako *thinkieghi/gherria* hitzak transkribatzeko moldea edo ortografia-sistema Arxürena da. Aldaera honetako ahapaldiak zenbakitu gabe daude eskuizkribuan.

A deitu dugun balada hau hiru orrialdetan transkribatua dago. Berez orri bat bi plegutan emana dela dirudi. Lehen hiru orrialdeetan hamabost ahapaldiak transkribatuko ditu, orrialde bakoitzean bost ahapaldi sartzen dituela. Lehen orrialdean lehenean lehen bost ahapaldiak, 1etik 5eraino; bigarrenean hurrengo bostak, 6tik 10eraino eta hirugarrenean azken bostak, 10etik 15era.

Gure transkripzioa bikoitza izango da. Batetik, bildu zuen eskuidatzitiko transkripzio zuzena egingo dugu, eta, bestetik, nola transkribatuko genukeen gaur egun. Gero egingo ditugun oharren argigarri, egoki iritzi diogu ahapaldiak zenbakitzeari. Orain behin eta berriro jatorrizko eskuidatziarekin erkatuz honela transkribatuko genuke:

(1)
+Aldi chebatez nenguelaric
+Aldibatez ari nunduzun
Salabachian brodatzen
Eskutari bat entzun nizun
Galeriati khantatzen
Galeriati khantatzen eta
Kobla ederren emaïten

(2)
Aita eta ama elizatik
Jin zeïztan samurrik
Heïa zeren enitzan jouan
Messaren entzutera
Messaren entzutera eta
Haien kounpagnatzera

[5] Euskaltzaindiko CDan begiratu nahi bada, 240tik 168 plama edo argazkian.

(3)
Aita eta ama othoï
Othoï pharka zadazie.
Eskutari bat entzun dizut
Galeriati khantatzen
Galeriati khantatzen eta
Kobla ederrik emaïten

(4)
Ene alhaba habiloua
Eskutari haren gana
Erran izakon jin dadila
Gurekin aïharitera
Gurekin aïhatera eta
Kobla eder emaitera.

(5)
Jinkouak deizula gaï houna
Jaün Eskutaria.
Aita eta amak igorten nizie
Jin ziten aïharitera
Gurekin aïhaitera eta
Kobla eder emaitera.

(6)
Anderia sar zite
Ountzi hounen barnera
Arratsan jouanen ghira
Biak auharitera,
Biak aüharitera eta
Kobla eder emaïtera.

(7)
Anderia erho heltu
Sarthu da ountzin barnera
Eskutariak harekilan
Lo belharra golkhora
Lo belharra golgkora eta
Belaren desplegatzera.

(8)
Thira marinelak thira
Thira ezazie untzia.
Ene aita ama gachouak
Ene bilha dabilza,
Ene bilha dabilza eta
Nigarrez so itchassora.

(9)
Zure aita eta ama
Zure bilha dabilzeïa.
Haïetarik hurrunche ghira
Hirour mila lekhoua
Beste hanbesteren buruko
Helturen zira etchera.

(10)
Pheresta eskutaria
Pheresta zure ezpata
Kota gherria thinkeghi beitut
Larga dezadan jostura
Jostura largha dezadan eta
Ene buria deskancha.

(11)
Eskutaria erho heltu
Emaiten diro ezpata
Anderaurenak harekila
Sarthu du biŏtziala
Bihotziala sarthu eta
Ichuri bere odola.

(12)
Maradika dakiola
Dendariari orratza
Zeren hain herzi eghin dien
Kota hounen gherria
Kota hounen gherria eta,
Ene bihotzeko phena.

(13)
Maradika dakiola
Arotzari bessoua
Zeren aïn zorrotz eghin dian
Ezpata houni moskoua
Ezpata houni moskoua eta,
Maïtiaren phensamentia.

(14)
Aiei, aiei, aïei, aiei!
Zer eghin behar dut orai nik
Bi potño eman eta
Itchassoalat aurthiki
Itchassoualat aurthiki eta
Nihaür jarraïki oundoti.

(15)

Idek marinelak idek
Idekazie untzia
Itchassouak eztiro sofri
Arima desesperatia
Arima desesperatia eta,
Inozentaren odola





Neska ontziratua balada. Chahoren A eredua.

Horra, beraz, dauden-daudenean hamabost ahapaldiak. Bada gora handiko kontu bat argitu beharrekoa. Bederatzigarren ahapaldia transkribatu duenean marra bat egin eta ezkerretara *Maradika* jarri du eta hamabigarren ahapaldia lauki batean bezala jarri du. Zer esan nahi du? Berak transkribatu duen bederatzigarrenaren ondoren lehen transkripzio honetako hamabigarren ahapaldia darraiola.

12.4. *Testuaren oinarrizko ohar nagusiak*

Testuan agertzen den eredua Arxüren ortografia salatzen du. Letra bera, ordea, ez da Arxürena. Ez ditu hitzeko bokal-kontsonante guztiak lotzen baina hitzetik hitzerako tartea gehienetan ondo zaintzen duenez gero lehen transkripzioa egitea erraza izan ohi da.

Hitzetik hitzerako tartea egiteko ere luma altxatu arren batera idazten ditu hitzak. Seigarren ahapaldia, esaterako, huskeria horiexek kontuan hartzera, honelaxe transkribatuko genuke:

A nd eri a s ar zit e
O untzi ho unen barn era
Arrats an j ou an en ghira
B i ak auh arit era,
Bi ak aüh aritera eta
Kob la ed er emaït era.

Modu horretara transkribatzea erokeria hutsa litzateke eta gehiegizko zehaztasun horrek ez ginderamake inora ere.

Bada beste kontu interesgarri bat lehen transkripzio honetan gora handia duena. Uste dugu Chahoren kantutegian dagoen dokumentua Chahoren letraz transkribatua dela Arxüren dokumentu batetik. Chahok *gherria/thinkeghi/largha/eghin/ghira* transkribatzen dituenean, zorioneko –gh– horietan ez dago aspiraziorik. "Etorri" aditza adierazteko *gin* idatzi dezake, /jin/ ahoskatzeko. "Egin" aditza, ordea, *eghin* transkribatuko du.

Zuberoako u eta ü desberdintzeko bidea argia da Chahorengan *ountzia/hounen/habiloua/houna* horiek *untzia/hunen/habilua/huna* irakurri beharko ditugu. Lehen dokumentan *samurrik/entzutera/entzun/eskutari* hitzak bigarren dokumentuan *samürrik/entzütera/entzün/ezküta* transkribatuko ditugu.

Duda sortzen du *urrunche/dabilza/phensamentia/deskancha* horietan nahitaez *urruntxe/dabiltza/pentsamentia/deskantxa* transkribatu behar ditugu? Ez ote dira *urrunxe* eta *deskanxa* transkribatu behar?

12.5. *Chahoren A ereduaren iruzkina ahapaldiz ahapaldi*

Eskuidatzitiko transkripzio zuzena egin ondoren, uste dugu komeni dela ahapaldiz ahapaldi iruzkintzea eta gaur eguneko grafian nola geldituko litzatekeen zehaztea. Uste dugu, era berean, zenbait erabaki arriskutsu gerta daitezkeela. Zuberoako euskaran jakitun den baten lana dela deritzagu gure oraingo hau. Hala ere testua finkatzeko saio bat egingo dugu. Gaurko grafiara aldatzeko uste baino arazo gehiago daude. Zuberoako sibilante sistemak uste baino zailtasun handiagoak ditu transkribatzeko orduan. Kontsonantismoari dagokionez, konplexutasun hori grafiara ekarri izan du kantu biltzaileak s/z/ss grafemek hots desberdinak irudikatzen dituztelako. Aspirazioari dagokionez ere, zalantza bat baino gehiago sortzen du transkripzioak. Bokalismoari dagokionez, zenbaitetan argi dago noiz den ü edo u, H. Gavelek eta R. Lafonek egin zituzten maisu-lanei esker. Bi idazteko sistema egon dira behintzat /ü/ eta /u/ bereizteko orduan. Gure eskuidatzitikoa sistema zaharrekoa da, hots, /ü/ delakoa u batez transkribatzen duena, eta /u/ delakoa ou transkripzioa bi bokalez itxuraturik.

(1)
+Aldi chebatez nenguelaric
+Aldibatez ari nunduzun
Salabachian brodatzen
Eskutari bat entzun nizun
Galeriati khantatzen
Galeriati khantatzen eta
Kobla ederren emaïten

Lehen ahapaldian, hasteko bi aukera zilegi edo posible daude. Bata *Aldixe batez nenguelarik* da, eta bestea, *Aldi batez ari nündüzun*. Bi aukera daudenez gero, eskuidatzian + zeinua agertzen da sarreran. *Aldixe batez* kanta-sarrera beste maitasun-kanta batean ere agertzen da. Ez dago esan beharrik –xe atzizkia "aldi" hitzaren ttikigarri dela. Kanta hasteko modu hau, kanta-hasiera formula zoragarria da inolaz ere, zenbait ipuinetako harako *Behin batean* hura bezalaxe. Lehen ahapaldi honetan eduki dugun zalantza *nenguelarik* adizkia transkribatzean izan dugu. "Nengoelarik" forma batetik datorrenez gero, u transkribatu dugu eta ez ü.

(2)
Aita eta ama elizatik
Jin zeïztan samurrik
Heïa zeren enitzan jouan
Messaren entzutera
Messaren entzutera eta
Haien kounpagnatzera

Bigarren ahapaldi honetan *jin zeïztan samurrik* ulertzeko "etorri zitzaizkidan haserreturik" ulertu behar dugu. Aita eta ama elizatik etortzen zaizkio neskatxari haserraturik mezatara lagundu ez dielako. Konturatzen bagara ez da ablatibo bera agertzen lehen ahapaldian eta bigarrenean. Lehenean *Galeria–ti* dugu, eta bigarrenean *eliza –tik*. Aditz-izen bat agertzen bada, objetu direktua genitiboan agertzen da. Modu horretara, *mezaren entzütera* eta *haien konpañatzera* aurkituko dira. Markatzekoa da puntu bi jartzen dituela askotan *i* baten gainean, frantses ahoskerarekin ez nahasteko.

(3)
Aita eta ama othoï
Othoï pharka zadazie.
Eskutari bat entzun dizut
Galeriati khantatzen
Galeriati khantatzen eta
Kobla ederrik emaïten

Lehen hitzean, *Aita* hitzean, ez dago argi *Aïta* edo *Aita* idatzi duen Chahok. Hirugarren honetan garbi ikusten da i bokalaren gaineko puntu biak zertara datozen. Esate baterako *othoi* hitzak i gainean ezer ez duela *ot(h)ua* ebakitzeko arriskua legoke frantsesean alfabetatuta legokeen batentzat. Hemen ere, lehen ahapaldian bezalaxe ablatiboa –ti da. Markatzekoa da *ederrik* agertu arren ez dakigula berez ez ote den *edderrik/eijerrik* bustia transkribatu behar.

(4)
Ene alhaba habiloua
Eskutari haren gana
Erran izakon jin dadila
Gurekin aïharitera
Gurekin aïhatera eta
Kobla eder emaitera.

Laugarren honetan *habiloua* adizkia gaur ahoskatuko edo ebakiko genukeen *habilua* bezala transkribatu dugu. Agintera hau, berez, bi adizkiren gehiketa da, edo adizki geminatu bat: "hábil" eta "hoa" adizkien bateratzea. Nahiz eta *Gurekin* hori –u– bakarrarekin idatzi transkribatzaileak, guk ez dugu –ü– transkribatu ondoren –r– biguna datorrelako. Transkribatzaileak bi era diferentetan transkribatu du gure *afaritera* hitzaren ordaina: *aïharitera/aïhatera*. Bestaldeko tradizioa da "gana" formadunak bereiz idaztea: "ama gana", "ama gan(d)ik" eta abar.

(5)
Jinkouak deizula gaï houna
Jaün Eskutaria.
Aita eta amak igorten nizie
Jin ziten aïharitera
Gurekin aïhaitera eta
Kobla eder emaitera.

Transkribatzaileak *izakon* eta *jin* idatzi dituenean, luma altxatu du eta tartea egin arren, batera idatzi ditu. Azken hitza transkribatzeko orduan, *emaïtera* delakoa, ez dago argi bi puntu dauden –i– bokalaren gainean. Bosgarren honetan neskatxak ontziko jaunari zuka egiten dio. Era horretara, *igorten nizie bidaltzen nauzute* izango litzateke, "(haiek) igortzen naute" baina zuka haiek "igortzen nauzute". "Naute" Zuberoako euskaran "naie" da, eta zuka "naizue" batetik "nizie" formara dator. Hemen ere transkripzioaren aldetik bi eratara agertzen da *afaritera*. Lehenengoan bezala *aïharitera/aïhaïtera*.

(6)
Anderia sar zite
Ountzi hounen barnera
Arratsan jouanen ghira
Biak auharitera,
Biak aüharitera eta
Kobla eder emaïtera.

Seigarren honetan badira zenbait kontu garbi eta ez hain garbi. Esaterako, *ountzi hounen barnera* transkribatzeko, gaur eguneko *untzi hunen barnera* formara ekarri dugu, ou bikoak /u/ ahoskatua adierazten duelako. Zenbait hitzetan, *ountzi/hounen/jouan* eta abarretan, ou bigrafoak gure *untzi/hunen/juan* ahoskera adierazten du. *Arratsan* inesiboa, *ihizin*/*itaurren* bezala, inesibo arkaikoa da, Pierre Topet Etxahunen bertsoetan ere agertzen dena. Adizki zenbaitetan dudak hartu gaitu. Ahapaldi honetan ere, *afaritera* forma agertzen da Zuberoako euskaraz. Sei aldiz agertzen baldin bada forma bera, bostetan behintzat desberdin transkribatua dago: *aïharitera/aïhatera/aïhaïtera/auharitera/aüharitera*. Oraingo ahapaldi honetan ere *eder* agertzen da bustigabea, eta ez *edder/eijer* bustia. Ez dakigu transkripzio hau ahoskera bustiari dagokion.

(7)
Anderia erho heltu
Sarthu da ountzin barnera
Eskutariak harekilan
Lo belharra golkhora
Lo belharra golgkora eta
Belaren desplegatzera.

Zazpigarren ahapaldi honetan *erho heltü* kolokazioak "zoratu" edo "erotu" esan nahi du. *Untzin barnera* ez da besterik "untzian barnera" egituraren laburdura baizik. Bi modu desberdinetan idazten da gure *golko/kolko* delakoa *golkho/golgko*. Bi aukeretatik lehena da batez ere dokumentatzen dena. Bizkaiko aldaeretan eta Zuberoakoetan ematen den ideia bera hiru hitzekin adierazten da: lo-belarra *bi bularraren erdian, bular biaren erdian* edo *golkhora* edo *papora* jartzea edo ematea. Azken bertso-lerroko *belaren desplegatzera* orain arte ikusi dugun objektu direktua genitiboan agertzearen beste adibide bat da.

(8)
Thira marinelak thira
Thira ezazie untzia.
Ene aita ama gachouak
Ene bilha dabilza,
Ene bilha dabilza eta
Nigarrez so itchassora.

Neskatilaren ahotan agertzen den ahapaldi hunkigarria. Ez du zailtasun handirik transkribatzeko orduan. *Gachouak* hitza *gaxuak* transkribatu dugu, zalantzarik gabe. Ahapaldi guztian dagoen transkripziorik harrigarriena *untzia* hitza agertzea da, guk *ountzia* espero genuen lekuan. Erratu edo oker bat dela deritzagu, gainerako mendebaldeko euskalkietako "ontzi" ekialdekoetan "untzi" delako eta inoiz ere ez Zuberoako euskaran "üntzi". Zortzigarren ahapaldi hau, nahasgarri gerta daiteke ondo irakurtzen ez badugu. Lehen bi bertso-lerroak ezkutariari dagozkio. Ezkutariak bere meneko marinelei ontzia aurrera eramateko esaten die. Gainerako bertso-lerroak gatibu dagoen neskatilari dagozkio.

Transkribatzaileak *Ene bilha* bi aldiz transkribatu duenean, luma altxatu du baina tinta hari mehe batez lotuak utzi ditu.

(9)

Zure aita eta ama
Zure bilha dabilzeïa.
Haïetarik hurrunche ghira
Hirour mila lekhoua
Beste hanbesteren buruko
Helturen zira etchera.

Oraingo honetan ere badira kontu argiak eta transkribatzeko errazak. Bigarren bertso lerroaren bukaeran galde-marka jarri behar dugu bigarren transkripzioa egitean. Zergatik? *Dabilzeia* –a galdetzailea adizkiari erantsia dagoelako. Markagarria da *dabilzeïa/Haïetarik* eta holakoetan *i* gainean jartzen den puntu bikoitza frantses hizkuntzaren erara ez irakurtzeko dela. Aztergarria da estilistikoki ttikigarri edo diminutiboen erabilera. *Hürrunxe* hitzak, esaterako, "urruntxo" edo "apur bat urrun" esan arren, justu kontrara adierazi nahi du: "oso urrun". Berdin gertatzen da Lapurdiko *Brodatzen ari nintzen* famatuan ere (1928. urtean GH aldizkarian agertu zen eredua), *zaluxko itzulazu hartu duzun lekura* horretako *zaluxko* ttikigarriak ez du adierazi nahi "apur bat zalu edo bizkor", "oso bizkor" baizik. Adibideak zenbatgura eman daitezke, zalantzarik gabe.

Transkribatzaileak *Zure bilha* tarte txiki batez idatzi du. Badirudi bereiz idatzi nahi izan dituela.

(10)

Pheresta eskutaria
Pheresta zure ezpata
Kota gherria thinkeghi beitut
Larga dezadan jostura
Jostura largha dezadan eta
Ene buria deskancha.

Hamargarren ahapaldi honetan eder egiten zaigu *pheresta (ezazü)* forma *presta(tu)* aditzaren *muta cum liquida* edo *anaptisis* delakoa. *Kota gherria thinkeghi beitüt* Zuberoako euskaran "gona gerria estuegi dudalako" da. Emakumeak ezpata eskatzen dio gona-gerria estuegi duelako. *Larga dezadan jostura* horrek "nasaitu dezadan jostura" adierazten du. Badira kontsonante ozenaren aspirazio arraroak bere horretan utzi ditugunak: *gherria/largha/thinkeghi*. Betor ekialdetik forma hauek argituko dituen eguzki-argia! *Jostura* bezalako hitzetan, orain arte bezala jokatu dugu u transkribatuz *gure* hitzean bezala.

Ene buria idatzi duenean transkribatzaileak tarte txiki bat egin arren, luma altxatu arren, tinta hari mehe batez batera idatzi ditu.

(11)

Eskutaria erho heltu
Emaiten diro ezpata
Anderaurenak harekila
Sarthu du biŏtziala
Bihotziala sarthu eta
Ichuri bere odola.

Hamaikagarren honetan berriz ere *erho heltü* egitura errepikatzen da. Behin ezpata hartu ondoren, andereak bere burua hiltzen du. Lehenengoz agertzen da *anderauren* hitza, "andere" eta "guren" hitzez konposatua da. Hemen ere ez dugu *anderauren* horren u hori ü bihurtu, *gure* eta *jostura* hitzak bezalakoa delako.

Transkribatzaileak lehen aldiz *biotza* idatzi du gainean zeinu bat duela. Gainerako aldi guztietan, ordea, *bihotza* jarri du.

12
Maradika dakiola
Dendariari orratza
Zeren hain herzi eghin dien
Kota hounen gherria
Kota hounen gherria eta,
Ene bihotzeko phena.

Hamabigarren hau da ahapaldirik indartsuenetakoa gonaren hertsitasuna penarenarekin konparatzen baitu. *Dendari* hitzak "jostun" esan nahi du. Haritchelharrek Etxahunen gaineko lan bikainean Barkoxeko euskaran hiru eratara esan zitekeela jostuna zioen (Ikus *Ofizialenak khantorea*n, 314. or.): "tallür", "dendari", "yosle". Nahiz transkribatzaileak *kotahounen* batera idatzi, guk bereiz idatzi dugu, lumaren altxaldiak adierazten baitu bi hitzen tartetxoak. Guk hamabigarrentzat jarri dugun ahapaldi honek berez bederatzigarrena izan behar luke, eskuizkribuan ikusten diren irudi eta marrak kontuan hartuz.

13
Maradika dakiola
Arotzari bessoua
Zeren aïn zorrotz eghin dian
Ezpata houni moskoua
Ezpata houni moskoua eta,
Maïtiaren phensamentia.

Oraingo honetan ere madarikazioaren ondoren konparantza bat dator. Madarikazioa errementariarentzat da, ezpatagilearentzat. *(H)arotz*, dakigunez mendebaldeko euskalkietan "zurgina" da eta ekialdekoetan "burdingina". Aurreko ahapaldian hartu dugun bidea on egiten du ahapaldi honek *ezpatahouni/ezpata houni* idatzi arren, argi agertzen baita hitz batetik bestera dagoen tartea.

14
Aiei, aiei, aïei, aiei!
Zer eghin behar dut orai nik
Bi potño eman eta
Itchassoalat aurthiki
Itchassoualat aurthiki eta
Nihaür jarraïki oundoti.

Oraingo honetan ere badago zer transkribatu. Zuberoako euskaran "gau" hitza "gai" egiten badute ere, "gaur" hitza esaten dute "gai hunetan" adierazteko. Zergatik? Au diptongoa ez dutelako ai egiten ondotik –r badu. Modu horretara *aurthiki* eta *nihaur* transkribatu behar ditugu. *Itchassoalat/itchassoualat* bietara agertzen bada ere, iruditzen zaigu bigarrena dela zuzena. "Itsaso" hitza nola transkribatu behar ote dugu? Bestaldeko tradizioan, Lapurdi-Baxenafarroetan *ixaso* agertu ohi da gehienetan. Bestaldean x grafema *aberax* hitzean eta abarretan agertzen da gaurko ts irudikatzeko. Gure testuan gehienetan *tch* agertzen denez *tx* jarri behar dugula iruditzen zaigu. Mendebaldeko *ondoti* forma Zuberoako euskaran *undoti(k)* izango da, *gizon/gizun, ontzi/untzi, on/(h)un* eta abar bezala.

(15)
Idek marinelak idek
Idekazie untzia
Itchassouak eztiro sofri
Arima desesperatia
Arima desesperatia eta,
Inozentaren odola

Azken ahapaldi honetan ere badago zer esanik. Hemen ere *untzia* hitza agertu arren, ez dugu transkribatu *üntzi*. Zergatik? Goraxeago ikusi dugun bezalaxe, **gizün*, **(h)ündar* eta abar ezinezkoak direlako. *Itchassouak eztiro sofri* horretan, *diro* forma agertzen zaigu. Beste *diro* bat agertzen da hamaikagarren ahapaldiko *emaiten diro ezpata* horretan. Bi *diro* horiek, ordea, ez dira berdinak. Lehena nor-nori-nork dugu gure *dio* formaren kidekoa, bigarrena, hamabosgarren ahapaldi honetakoa **iron* aditzaren adizkia. *Ez diro sofri* horrek, beraz, "ezin dezake jasan" adierazten du.

12.6. *A eredua gaurko grafia-ortografietan*

Bi eratara toles daiteke A eredu hau. Agosti Chahok dakarren bezalaxe edo lehen aldiz *Kantu Kanta Khantore* liburuan agertzen den bezalaxe, bi bertso-lerro lerro bakarrean. Lehen eredua bigarren erara ekarriko dugu atal honetan. Lehen ahapaldiak bi sarrera ditu posible *Aldixe batez nenguelarik* edo *Aldi batez ari nündüzün*.

1
Aldixe batez nenguelarik
Aldi batez ari nündüzün sala baxian brodatzen,
ezkütari bat entzün nizün galeriati khantatzen,
galeriati khantatzen eta kobla ederren emaiten.

2
Aita eta ama elizatik jin zeiztan samürrik,
heia zeren ez nitzan juan mezaren entzütera,
mezaren entzütera eta haien kunpaiñatzera.

3
–Aita eta ama, othoi, othoi pharka zadazie!
Ezkütari bat entzün dizüt galeriati khantatzen,
galeriati khantatzen eta kobla ederrik emaiten.

4
–Ene alhaba, habilua ezkütari harengana,
erran izakon jin dadila gurekin aiharitera,
gurekin aiharitera eta kobla eder emaitera.

5
–Jinkuak deizüla gai huna, jaun ezkütaria!
Aita[k] eta amak igorten nizie jin ziten aiharitera,
gurekin aiharitera eta kobla eder emaitera.

6
–Anderia, sar zite untzi hunen barnera,
arratsan juanen gira biak aiharitera,
biak aiharitera eta kobla eder emaitera.

7
Anderia erho heltü, sarthü da untzin barnera.
Ezkütariak harekilan lo-belharra golkhora,
lo-belharra golk[h]ora eta belaren desplegatzera.

8
–Thira, marinelak, thira, thira ezazie untzia!
Ene aita-ama gaxuak ene bilha dabiltza;
ene bilha dabiltza eta nigarrez so itxasora.

9
–Zure aita eta ama zure bilha dabiltzeia?
Haietarik hürrünxe gira, hirur mila lekhua,
beste ha(i)nbesteren bürüko helturen zira etxera.

10
Maradika dakiola dendariari orratza!
Zeren hain hertsi egin dien kota hunen gerria;
kota hunen gerria eta ene bihotzeko pena!

11
Pheresta, ezkütaria, pheresta zure ezpata!
Kota-gerria thinkegi beitüt larga dezadan jostura;
jostura larga dezadan eta ene büria deskantxa.

12
Ezkütaria erho heltü, emaiten diro ezpata.
Anderaurenak harekila sarthü dü bihotziala;
bihotziala sarthü eta ixuri bere odola.

13
Maradika dakiola arotzari besua!
Zeren (h)ain zorrotz egin dian ezpata huni moskua,
ezpata huni moskua eta maitiaren phensamentia!

14
Aiei, aiei, aiei, aiei! Zer egin behar düt orai nik!
Bi potño eman itxasoalat aurthiki;
itxasualat aurthiki eta nihaur jarraiki undoti.

15
Idek, marinelak, idek idekazie untzia!
Itxasuak ez diro sofri arima desesperatia,
arima desesperatia eta inozentaren odola.

Atal honetako ahapaldien ordena eta lehen transkripziokoa ez da bera. Hamabigarren ahapaldia eskuidatzian markaturik dago bederatzigarren eta hamargarren ahapaldien artean jartzeko. Ordena hori errespetatu dugu atal honetan.

12.7. *Chahoren B ereduaren ezaugarriak*

Chahoren beraren kantutegian balada gai beraren Zuberoako beste aldaera bat aurkitzen da. Aldaera hau ere, aurrekoa bezalaxe, guk argitara eman genuen lehenegoz *Idatz & Mintz* aldizkarian. Bigarren hau, aurrekoak beste ahapaldi ez izanik ere, oso interesgarria da. Aurrekoarekin egin dugun gauza

bera egingo dugu honekin ere. Hitzez hitzeko transkripzioa egingo dugu lehenik, eta gero bigarren transkripzioa eta ulertze saio bat, gure gaur eguneko ortografia sistemara egokituz. Guk transkripzio finkatu bat dugu helburu.

Transkripzioa hasi baino lehen eman ditzagun zenbait zertzelada. Bigarren eredua bi orriko lau orrialdetan transkribatua dago. Kantuaren zenbakia 101 dugu eta lehen orrialdeko eskuinaldean zirkulu baten barruan dago 101. zenbakia. Euskaltzaindiko PDF zenbakia 170-3/240 da. Lehen lau ahapaldiak lehen orrialdean daude; bigarrenean, bosgarren ahapalditik zortzigarrenera; hirugarren orrialdean beste lau ahapaldi datoz; eta azken orrialdeko goiko aldean ahapaldi bakarra, azkena.

Ahapaldiak, bestalde, ez daude zenbakiturik. Ahapalditik ahapaldirako tarte marra bihurritu bat egiten du transkribatzaileak, txerri buztanaren gisakoa. Letra larri eta xeheen nahasmen handia izan ohi da. Puntu honek du gure ustean garrantzirik gutxiena. Hitzak bereiz idatzi beharrean luma altxatu arren batera idazten ditu zenbait hitz. Beste batzuetan tarte gutxiegi dago hitzetik hitzera. Hitz bakarra ere bi hitz balira bezala transkribatzen du batzuetan. Zehaztasun hauek, askotan, diskutigarriak dira eta ez dute munta handirik. Hitzak berak ondo irakurtzea da holako kasuetan munta gehien duena. Transkripzio honen ondoren pentagrama bat dator kantutegian.

12.8. *Louis Dassanceren B ereduaren transkripzioa*

Chahoren bigarren eredua transkribatu eta iruzkinduko dugu atal honetan. Bigarren eredu honek azken eszena falta du: andereak bere burua hiltzen duenekoa eta gorpua itsasora jaurtzen dutenekoa. Bukaera hori falta duen arren, lehen eredutik, A eredutik desberdina da eta balio handikoa, inolaz ere.

Aldixe batez nengualarik sala baxian brodatzen
kapitain entzun dizut itsaso gañen kantatzen
itsaso gagnen kantatzen eta kopla eijerrik emaiten.

Brodura salan pausa eta juan nintzan ama gana
ama plazer nahizia eitu? istanpat galeriala
kantari eijer bat entzuten beitut hari koblen ikastera.

Bai ene alhaba zuaza kapitain haren gana
eia plazer duen jin gaur gurekin aiharitera
gurekin aihaitera eta zuri koblen kantatzera

Kapitaña hau duzula zure gana mezia
eia plazer duzunez jin gaur gurekin aihaitera
gurekin aihaitera eta eni koblen kantatzera

Anderia imposible da ene hara jitia
airea favorable dit eta juan behar aintzina (bis)

Anderia otoi sar zite untzi hunen barnera
gero biak jun ginteke heiekin aihaitera
heiekin aihaitera eta zuri koblen kantatzera.

Anderia fazil izana sartu untzin barnera
kapitañak ere berhala eman urhe sagarra
urhe sagarra eta hareki lo belharra

Mariñela mariñela tira ezak untzia
aspaldian desir niana jin duk bera eskura (bis)

Kapitaña, kapitaña pharkamentu eske nauzu
othoi libra ezazu andre auren hori (bis)

Marinela marinela idek ezazu bortha
engoiti ene etxekuak ene onduan baitira (bis)

Hebenti eta zure etxera berrehun lekua da
Hainbesteren burian etxiala/erriala helturen gira
eta haiñbesteren burian eniala helturen gira

Jauna peresta izadazu istanbat zure sabria
Nahi nikezu laxatu mement bat ene zintura (bis)

Madarika dadila dendariaren eskia
Zeren hertsiegi egin beitu anderiari zintura (bis)

12.9. *Chahoren B ereduaren gure transkripzioa*

Chahoren bigarren ereduaren transkripzioa egingo dugu puntu honetan. Transkripzio honek lehenak baino problema gehiago sortzen ditu.

1
Aldiche bates nengouelaric
Sala bachian Brodatcen
Capitaïn entçun diçut
Itchasson gagnen khantatçen
Itchasson gagnen khantatçen eta
Kobla eïjerrik emaïten

2
Brodura salan phaussa eta
jouan nintçan ama gana
Ama plazer naïcia eitci
istampat galeriala
khantari eïjerbat entçuten beitut
hari koblen ikhastera

3
Baï ene ahalba çouaça
capitaïn hare gana
eya plaser denez yin
Gaur gourekin aïhaitera
Gourekin aïhaitera eta
Çouri koblen khantatcera

4

Capitagna hau duçula
çoure gana Mecia
Eya plaser duzunez jin
Gaur gourekin aïhaitera
Goureki aïhaitera eta
Eni koblen khantaçera

5

Anderia impossible da
ene hara yitia
Aïria favorable dit eta
youan behar aïtçina
Airia favorable eta
youan behar aïtçina

6

Anderia othoi sar cite
Ountci hounen barnera
Guero biac youn guinteke
hekin aihaitera
hekin aïhaitera eta
Couri koblen khantatçera

7

Anderia facil izana
Sartu ountcin barnera
Capitagnac ere berhala
eman urhe sagarra
urhe sagarra eta
hareki lo belharra (bis)

8

Marinella Marinella
Thira eçac ountcia
Aspaldian desirniana
Jin duc bera escura (bis)

9

Capitagna Capitagna
Pharcamentu eske nauçu
Othoi libra eçaçu
Andere auren hori
Othoi libra eçaçu
andere auren hori

10
Marinella Marinella
idek ezaçu Bortha
ingoiti ene etchecouac
ene oundouan Beïtira
Ingoïti ene echecouac
Ene oundouan Beitira

11
hebetic eta çoure etchera
Berrehun lecouada
eta haïbesteren burian
Eniala helturen guira
Eta haïnbesteren burian
eniala helturen guira

12
Jauna Pheresta izadaçu
istampat çoure Sabria
Nahinikeçu lachatu
Memenpat ene sintura
Nahi benuke lachatu
istampat ene cintura

13
Maradikatia dela
dendariaren eskia
Ceren hersiegui eguin beitu
anderiari cintura
hersiegui eguin beitu
anderiari cintura.

–fin–


Aldichebatez neneguela
E
101



Marinella Marinella
thisa ecce ountéra
asparóin deirmiana
jinden bera bruxa (bis)



anderia imposible da
ene hara jitia
aïria favorable dit eta
jouan behar aïtena
~~anderia bar éte ountí hounen barnera~~
Aïria favorable eta
jouan behar aïtena
ee
anderia bar ~~éte~~
ountí hounen barnera
~~guero bia~~
anderia othoi bar éte
ountí hounen barnera
guero bia jaun Guintéki
hekin aïhaïtera
hekin aïhaïtera eta
Couri Koblen Khantateçue
ee
anderia faïl izane
Sastre ountan barnera
Capitaïnac ere berbala
eman urke sagarra
urke sagarra eta
Sarki lo bethovera (bis)
ee
Marinella Marinella
thisa ecce ountéra
asparóin deirmiana
jinden bera bruxa (bis)



Neska ontziratua balada. Chahoren B eredua.

Ezabaturik agertzen diren hitzak edo segmentuak hauexek dira. Seigarren ahapaldian ezabaturik dago *Anderia sar cite arren/ ountçi hounen Barnera/ Guero biac.* Era berean *cite* orren gainean beste *arren* bat ere jartzen du. IX. ahapaldian *Andere auren* eta *hori* hitzen artean *gacho* ezabaturik ikusten dugu. XII. ahapaldian *Memenpat* hitzaren azpian *Ichtampat* ezabaturik ikusten dugu.

12.10. *Chahoren B ereduaren transkripzioaren ezaugarriak*

Chahoren kantutegiko letra ezaguna da B eredukoa. Transkribatzaileak itxura zabar xamarra badu ere, ortografia-sistema koherentea erabili ohi du. Sistema horretan ez ohi dugu aurkitzen diskordantziarik. Zabartasun honen itxura, lehen begiratura, inolako puntuaziorik ez erabiltzea izan liteke. Testuan ezabatzeak eta zirriborroak agertzen dira batzuetan. Bestela esan, oraindik garbira pasatu gabeko testu bat ematen du, askotan. Itxura erabat garbia ematen ez dituzten ezaugarri hauek izan arren, B ereduko testua uste baino xahu eta garbiagoa da, funtsaren funtsean.

Arxüren ortografia-sistema eta gure B ereduko transkribatzailearena desberdinak dira. Adibide zenbait jartzeko Arxüren *eghin*, *ghira*, esaterako, *eguin* eta *guira* jarriko luke B ereduko transkribatzaileak. Bi sistema hauetan arraroena edo gutxien ematen dena, inolako dudarik gabe, Arxürena da. B ereduko transkribatzaileak letra larri eta xeheak nahasian erabiltzen ditu.

12.11. *Chahoren B ereduaren iruzkina ahapaldiz ahapaldi*

Puntu honetan Chahoren bigarren ereduko hamairu ahapaldiak iruzkinduko ditugu. Azal-edukiak aztertzen saiatuko gara. Edukiaren aldetik eredu honek berritasun nabariak ditu. Guk eredu hau aztertzean batez ere Chahoren lehen eredua izango dugu kontuan. Atal honetan argitaratu ditugun Aiherra, Gotaine eta Altzaiko ereduekin ere, jakina, bateratasun nabarmenak ditu.

1

Aldiche bates nengouelaric
Sala bachian Brodatcen
Capitaïn entçun diçut
Itchasson gagnen khantatçen
Itchasson gagnen khantatçen eta
Kobla eïjerrik emaïten

Lehen ahapaldi honek badu kidetasunik gorago transkribatutako Chahoren lehen ereduarekin. Kidetasunak begi-bistakoak direnez gero, beude horretan irakurlearen juzkagai. Aurreko baladan *eder* agertzen zen bukaerako bertso-lerroan: *kobla ederren emaiten*. Oraingo honetan *eijer* edo *edder*, hots, forma palatalizatua. Aurreko ereduan kantaria eta engainatzailea *ezkutari* bat den bezala, oraingo honetan *kapitain* bat da. Aurreko ereduan bezala, frantsesaren eran ez irakurtzeko edo ebakitzeko bi puntuz transkribatu ditu *capitaïn/emaïten* eta, beharbada, *eïjerrik*.

2

Brodura salan phaussa eta
jouan nintçan ama gana
Ama plazer naïcia eitci
istampat galeriala
khantari eïjerbat entçuten beitut
hari koblen ikhastera

Bigarren ahapaldi honek zailtasunak ditu. Neskatilak bordatua salan utzi eta amagana abiatzen denean, galdera bat egiten dio*: Ama plazer naizia eitzi/ Istanpat galeriala?* Hau da: "Ama plazer duzu ni uztea momentu batean galeriara joaten?" Guk halaxe ulertzen dugu. Badira bi hitz ilun, batetik *naizia* deabruzkoa. Zer ote da *nahi duzia* formaren laburdura? Hala balitz, *plazer (duzia)* formaren esangura berekoa da. Beste bide bat *nauzu* adizkia azken –a galdetzailea duela; hots, naizua forma batetik eratorria izatea da: *naizia*. Bigarren hitz ilunxkoa *eitzi* delakoa da. Forma hori **eutzi* formatik datorkeena da, gure *utzi*-ren kidekoa. Azken bertso-lerroko *hari koblen ikhastera* horretako *hari* erakusleak "kantariari" adierazten du. Markagarria da lehen ereduan *ezkutaria galeriatik* ari dela kantatzen; oraingo honetan, ordea, kapitainari kantatzen entzuteko *galariala joan* behar duela neskatilak.

3

Baï ene ahalba çouaça
capitaïn hare gana
eya plaser denez yin
Gaur gourekin aïhaitera
Gourekin aïhaitera eta
Çouri koblen khantatcera

Hirugarren ahapaldi honetan transkribatzaileak huts egin du *alhaba* transkribatu beharrean *ahalba* egin duelako. *Gaur gurekin aihaitera* horretan garbi dago, *gaur* adberbioak "gai hunetan" adierazten duela eta horrela transkribatu behar dela. *Gurekin* eta *zuri* horrelaxe transkribatu ditugu, gorago esandako arrazoiengatik.

4

Capitagna hau duçula
çoure gana Mecia
Eya plaser duzunez jin
Gaur gourekin aïhaitera
Goureki aïhaitera eta
Eni koblen khantaçera

Laugarren honetako *zuregana mezia* ez da besterik *zureganako mezua* baino, hau da, amak alabari ematen dion mezua kapitainari emateko. Honetan ere, aurrekoan bezala, objektu zuzena genitiboan: *koblen khantatzera*. Ikusten denez bestaldeko tradizioa da *çoure gana* eta *ama gana* transkribatzea, gorago esan dugun bezala. Lehen transkripzioan bereiz idatzi badugu ere, oraingoan batera. Soziatibo edo komitatibo kasuari dagokionez, ahapaldi honetan bi eratara ikusten dugu *gureki/gurekin*. Lehenagoko ereduan ia gehienetan *gurekin* agertu arren, ez da ahaztu behar zazpigarren ahapaldian *harekilan* agertzen dela. Laugarren ahapaldi honetan laugarren eta bosgarren arteko lerroa ezabaturik dago: *anderia sar cite ountçi hounen barnera*. Uste dugu bertso-lerro hau hurrengo ahapaldiaren sarrera denez gero, berriemailea aurreratuko zela bere kantuan.

5

Anderia impossible da
ene hara yitia
Aïria favorable dit eta
youan behar aïtçina
Airia favorable eta
Jouan behar aïtçina

Bosgarren ahapaldiaren sarreran ezabaturik dagoena hauxe da: *Anderia sar cite arren/ ountzi hounen barnera/ guero biac*. Lehen bertso-lerroko *cite* horren gainean ere *arren* ikusten dugu ezabaturik. Transkribatzaileak ontzat ematen duen testuan ez da gero ikusten agindua indartzen duen *arren* partikula. Zentzuari dagokionez, kapitainak bosgarren ahapaldi honetan esaten dio neskatila bahituari haizea poparean dutenez gero, aurrera joan beharra duela. Ezagutzen dugun Lapurdiko eredurik barreiatuenean, laugarren ahapaldian, gure ahapaldi hau antzera agertzen da: *Andre gazte xarmanta/ hoi ezin ditekena/ iphar haizea dugu/ gan behar dut aintzina/ ezin ilkia baitut/ hauxe da pena*. Ni genitiboan dago aditzizenarekin. "Inposible da ni ara joatea" esan beharrean *inposible da ene hara yitia*.

6
Anderia othoi sar cite
Ountci hounen barnera
Guero biac youn guinteke
hekin aihaitera
hekin aïhaitera eta
Couri koblen khantatçera

Oraingo seigarren ahapaldi honek ez du iruzkingai handirik transkripzioaren aldetik, gorago iruzkindu gertaera berak agertzen dira.

7
Anderia facil izana
Sartu ountcin barnera
Capitagnac ere berhala
eman urhe sagarra
urhe sagarra eta
hareki lo belharra (bis)

Oraingo ahapaldiak aparteko edertasuna du. Neskatilari *lobelharra* eman ondoren *urhe sagarra* ere ematen diote. Urre sagarra ez da besterik urrezko sagarra baino, eta zer da urrezko sagarra? Hiztegietan agertzen denez, garbizaleek "naranja/laranja" edo "liranja" esateko *urresagarra* erabiltzen zuten. Uste dugunez ahapaldi honetan, ordea, gauzaki edo fruitu miragarri bat da. Herri-ipuinetan, Mayi Ariztiak bildu zituenetan, adibidez, errege-alaba lokartuak bular biluzien artean urresagarra du, eta heroiak tentaldian erori gabe ezin izango dio bular artetik kendu. *Belhar* hitza *h* duela transkribatu dugu, *belhar/belar* oposizioa baitago zubereran. Lehena gure "belarra" da, bigarrena "bekokia" edo "kopeta". Transkripzioaren aldetik *ountan* aurkitu dugu jatorrizkoan, *hountan* aurkitu beharrean. Komitatiboari dagokionez, oraingoan ere *hareki* agertzen da, laugarren ahapaldiko *gureki* bezala. Ahapaldiaren azkenean, azkenik, *bis* ezabaturik ikusten dugu.

8
Marinella Marinella
Thira eçac ountcia
Aspaldian desirniana
Jin duc bera escura (bis)

Zortzigarren ahapaldi hau laburtuxea denez gero, errepikapen batez ordaintzen da falta den pusketa. Badago bitxitasunik hemen. *Mariñela* ez da guk jarri dugun bezala, *marinella* baizik. Zer gertatzen da hor? Bizkai euskarako *senalle* hitzean gertatzen den gauza bera, palatalizazioa aldatu dela. Palatalizazioa aldatzea palatalizazioaren metatesia da. Hau da *señale* hitza Markinaldean *senalle* bihurtzen da.

Mariñela hitzetik *marinella* sortzen den bezalaxe. Aditzei dagokienez, *thira ezak* egitura ikusia dugu lehen ereduan ere. Ontzia aurrera eramatea, haizea laguntzaile edo poparean dutela. Kapitainak meneko marinelei ematen dien agindu edo ordena da. Oraingo ereduan, agindua edo manua bakarrari zuzendua dago, lehenean askori (*thira ezazie*). Bada gauza ilunskorik ere, hirugarren bertso-lerroa nahasmen handiena duena da. Badirudi hasieran *aspaldian* idatzi duela, eta gero ezabaturik azken *–an*, beste aukera bat egin duela: *aspaldin*. *Desirniana* batera idatzia egon arren, bitan jarri dugu: *desir niana*.

9

Capitagna Capitagna
Pharcamentu eske nauçu
Othoi libra eçaçu
Andere auren hori
Othoi libra eçaçu
andere auren hori

Bederatzigarren hau ararteko egiten duen marinel onaren ahotik ateratzen den ahapaldia da. Eskuidatzian bi hitz agertzen dira ezabaturik. Bigarren bertso-lerroari sarrera ematen dion *pharkamentü* hitzaren aurrekoa, *othoi* hitza, hain zuzen. Bigarren ezabatzea laugarren bertso-lerroko *gacho* da, gaur egun *gaxo* transkribatuko genukeena. Ahapaldi garbia izan arren, badago zuberotarrez bitxi dirudien adizki bat: *naüzü*.

10

Marinella Marinella
idek ezaçu Bortha
ingoiti ene etchecouac
ene oundouan Beïtira
Ingoïti ene echecouac
Ene oundouan Beitira

Oraingo hamargarren ahapaldi honetan ere, zortzigarrenean bezalaxe, *marinella* agertzen zaigu, hots, gorago azaldu dugun palatalizazioaren metatesiarekin. Transkripzioaren aldetik ez dugu inolako eragozpenik izan lehen dokumentuko *etchecouac* eta *oundouan, etxekuak* eta *unduan* transkribatzeko bigarren trasnskripzioan. Badago ezabatze bat hirugarren bertso-lerroan, *dira* ezabatu ondoren *beitira* jarri du transkribatzaileak. Ahapaldi honetan, azkenik, orain arteko ereduetan agertzen ez den neskatilaren etxera heldu nahi zorrotza, eta etxetik hurbil delako uste inozoa ageriki nabarmentzen dira.

Ahapaldi honetan baditugu zenbait zalantza eta segurantzia ere. Segurantzien artean, ablatiboaren forma da. Zuberoako euskaran *heben* da inesiboa, gure *hemen* inesiboaren forma zaharragoa, eta ablatiboa *hebetik* gure ahapaldian bi aldiz *hebetic* dokumentatzen delako. Bi aldi horietako bigarrena ezabaturik agertzen denez gero, ez dugu gurean transkribatu. Ez dugu traskribatu, era berean, *beste haïbesteren burian* horretako *beste* delakoa, nahiz ahapaldiaren beste aldaera posible bat izan. Orain arte iruzkindu ditugun ezabatze guztiak hirugarren bertso-lerrokoak dira.

11

Hebetic eta çoure etchera
Berrehun lecouada
eta haïbesteren burian
Eniala helturen guira
Eta haïnbesteren burian
eniala helturen guira

Ahapaldi hori berori garbi ikusten da azken bertso-lerroan ere. Kanta osoa iluntzen duen esaldi bat dago ahapaldi honetan. Zer da *eniala helturen gira*? Zehatzago esan, zer da *eniala* hori? Batek baino gehiagok pentsa lezake nora kasuaren aurrean gaudela. Hitza *-a* batez bukatzen bada, *–ala* da: *galeriala*. Baina *-e* batez bukatzen bada hitza: *ikhastera, aihaitera, khantatcera, etchera, barnera*. Aldiz –ü/–u batez bukatzen bada, *eskura*. Beraz hortatik, *eniala* delakoa *ene* (hitza)*–ala* > *eniala* ote da? Edo beste zerbait ote da? Adizkia eta konpletibaren "–la" marka ere izan daiteke. Hau da, *ez* + *nian* + *-la*. Bigarren bide honen indargarri da hirugarren ahapaldian agertzen den *enialaco* forma, azken *-co* hori ezabatua dela. Bi aukerak kontuan izanik ere, ilunsko agertzen da, hitzen bat desagertu denez gero, beste zerbaiten truke ordezkatu delako.

12
Jauna Pheresta izadaçu
istampat çoure Sabria
Nahinikeçu lachatu
Memenpat ene sintura
Nahi benuke lachatu
istampat ene cintura

Hamabigarren honetan ere, aurreko ereduan bezala, *pheresta* aurkitzen dugu; hots, *presta(tu)* aditzaren anaptisia. Alderdi fonetikoari dagokionez, ederra da "instant + bat" edo "mement + bat" horietan gertatzen den asimilazioa: *istampat* edo *memenpat*. Transkribatzaileak hartzen duen bidea ez da bera kasu bietan *p*-ren aurreko hotsa transkribatzeko. Batean, *istampat* da bi aldiz idatzia, nahiz behin ezabatua izan; eta bestean *memenpat*, nahiz badirudien *mementpat* ere idatzi duen. Transkribatzaileak *zintura* hitza bi modutara transkribatu du *sintura/cintura*. Bi hauen artean bigarrena izan dugu aintzat, azken ahapaldiko azken bertso-lerroan ere *cintura* jarri duelako. Gure oraingo bigarren transkripziorako, beraz, *zintura*. Hitzaren *-ura* bukaera horrelaxe transkribatu dugu, *gure*, *bordura* eta abar bezala.

13
Maradikatia dela
dendariaren eskia
Ceren hersiegui eguin beitu
anderiari cintura
hersiegui eguin beitu
anderiari cintura.

Azken ahapaldi honetan ez dugu zalantza handirik izan ulertzeko zein transkribatzeko orduan. Lehen balada ereduko madarikazioaren antzekoa da: *Madarika dakiola/ dendariari orratza!/ Zeren hain hertzi eghin dien/ Kota hunen gherria/ Kota hunen gherria eta/ ene bihotzeko phena!* Madarikazioei gagozkiela, badira hainbat gauza polit eta jakingarri. Lehen balada ereduan bi madarikazio agertzen dira. Lehena, andereak dendariaren kontra egiten duena. Bigarrena, ordea, ezkutariak edo bahitzaileak errementariaren kontra egiten duena da, behin maitea hil ondoren. Bigarren eredu honetan, madarikazio bakarra agertzen denez gero, kapitainak edo bahitzaileak errementari edo (h)arotzaren kontra egiten duena da. Madarikazioak berak ere estilizatuagoak dira lehen ereduan, bigarrenean baino.

Bigarren eredu honek, lehen eredua bezain aberatsa izan ez arren ahapaldi kopuruz eta edertasunez, balio handia du. Lehen ereduak duen gorpuaren despedida ez dago oraingo honetan, esaterako. Gurasoak mezatatik haserre etortzea ere, ez dago bigarren eredu honetan. Lehen ereduak badu zehaztasun aldetik ere bigarren honek ez duen aberastasuna. Bi ereduetako euskara Zuberoakoa izan arren, oraingo bigarren eredu honek zabarxeagoa ematen du. Lehen eredua askozaz ere txukunagoa da gehienetan. Eman dezagun, kasurako, madarikazioen kontua. Lehen ereduan madarikazio bi agertzen dira: neskatilak

dendariaren orratza madarikatzen du, eta ezkutariak errementariaren (*arotza* gure kasuan) besoa. Baten lekuan bi agertzen dira lehen ereduan. Euskararen aldetik, lehen ereduak *zeren hain hertzi eghin dien/ kota hounen gherria*; bigarren ereduan, aldiz, *ceren hersiegui eguin baitu/ anderiari cintura.* Ikusten denez, egitura sintaktiko beretsuan hitzak ere berak izan arren, batak *cintura* dioena besteak *gerria* dio zehaztasun berri bat emanez: *kota hounen gherria*. Hori guztia gutxi balitz, lehen ereduko madarikazio biak bikoitzak dira, hau da, bi gauza desberdin madarikatzen dira madarikazio bakoitzean. Madarikatuak dira *orratza* eta *phena*, batetik, eta *bessoua* eta *phensamentia* bestetik. Badago besterik ere, bigarren ereduko ahapaldi askotan bihurkia egin beharrean azken bi bertso-lerroen errepikapen hutsa egiten da. Errepikapen hau, jakina, ez da bihurkia bezain aberatsa, bihurkiaren ondoren, errepikaz gainera, beste zerbait berri delako.

Gehienetan, beraz, soilagoa eta urriagoa izan arren bigarren eredua, badu inoiz edo behin besteak ez duen aberastasuna. Zazpigarren ahapaldian, esaterako, lehen ereduan aipatzen ez den *urhe sagarra* ikusten dugu *lo belharra*-rekin batera.

12.12. *Chahoren B eredua gaurko ortografian*

1
Aldixe batez nenguelarik sala baxian brodatzen,
kapitain entzün dizüt itxason gañen khantatzen,
itxason gañen khantatzen eta kobla ejerrik emaiten.

2
Brodura salan phausa eta juan nintzan amagana.
–Ama, plazer naizia eitzi istant bat galeriala?
Khantari ejer bat entzüten beitüt hari koblen ikhastera.

3
–Bai, ene alhaba, zuaza kapitain haregana,
eia plazer denez jin gaur gurekin aihaitera,
gurekin aihaitera eta zuri koblen khantatzera.

4
–Kapitaña, hau[r] düzüla zuregana mezia,
eia plazer düzünez jin gaur gurekin aihaitera.
gureki aihaitera eta eni koblen khantatzera.

5
Anderia, inposible da ene hara jitia,
airia faborable dit eta juan behar aitzina,
airia faborable eta juan behar aitzina.

6
Anderia, othoi sar zite untzi hunen barnera,
gero biak jun ginteke hekin aihaitera,
hekin aihaitera eta zuri koblen khantatzera.

7
Anderia, fazil izana sartü untzin barnera,
kapitañak ere berhala eman ürhe-sagarra,
ürhe-sagarra eta hareki lo-belharra. (bis)

8
–Marinella, marinella! Thira ezak untzia!
aspaldian desir niana jin dük bera eskura,
aspaldian desir niana jin dük bera eskura.

9
Kapitaiña, kapitaiña! pharkamentü eske naüzü
Othoi libra ezazü andereauren hori!
Othoi libra ezazü andereauren hori!

10
Marinella, marinella! Idek ezazü bortha!
Ingoiti ene etxekuak ene unduan beitira!
Ingoiti ene etxekuak ene unduan beitira!

11
Hebetik eta zure etxera berrehün lek[h]ua da
eta hainbesteren bürian eniala heltüren gira,
eta hainbesteren bürian eniala heltüren gira.

12
Jauna, pheresta izadazü istant bat zure sabria,
nahi nikezü laxatü mement bat ene zintura,
nahi benüke laxatü istant bat ene zintura.

13
Maradikatia dela dendariaren eskia!
Zeren hertsiegi egin beitü anderiari zintura,
hertsiegi egin beitü anderiari zintura!

13. *NESKA ONTZIRATUA* BALADA: GOTAINEKO EREDUA

Puntu honetan *Neska ontziratua* balada gaiaren Zuberoako Gotaineko ereduaren berri emango dugu. Gure oraingo Gotaineko ereduak balioko digu Altzaikoa hobeki irakurtzeko. Altzaiko eredua da, bestalde, guk ezagutzen dugun eredurik eder eta aberatsena. Ahapaldi gehien dituena da, eta beste euskal ereduetan aurkitzen ez diren zehaztasunak ditu. Altzaiko eredu desegin eta maluskatu batetik datorrela dirudi gure Gotaineko eredua: azal eta mamiz bat dator, euskalki eredu bera du, batetik; eta eskena berak, bestetik. Konta-haria edo argudioa ere berbera da, aldaketarik txikienik ere ez dagoela batetik bestera.

Puntu honetan Hanikiborda kaieren artean *Germaine Parage* kaiereko *Neska ontziratua* balada transkribatuko dugu. Hanikaborda kaiera Mauletik lau-bost kilometrora aurkitzen den Gotaine herrikoa da. Puntu honetan dagoen-dagoenean transkribatuko dugu jatorrizko grafia eta ortografiak errespetatuz. Puntu honetan transkribatuko dugun ereduak antzekotasun handiak ditu, gorago esan dugun bezala, Altzaiko ereduarekin.

Hanikaborda kaiereko ereduak hamasei ahapaldi ditu. Lehen hamabi ahapaldiak bi plamatan daude transkribaturik; azken lau ahapaldiak hirugarren plama batean. Ahapaldiei zenbakiak jartzeko orduan oker bat egiten du transkribatzaileak: bosgarren ahapalditik zazpigarrenera egiten du jauzi. Era horretara, lehen bi plametan nahiz eta hamabi ahapaldi transkribatu, azken ahapaldiak hamairu zenbakia darama. Hurrengo plaman transkribatzaileak oker hori zuzendu eta hamalaugarrena jarri beharrean, hamairu zenbakia jartzen du.

Baladaren logikaren arabera, 13, 14, 15 eta 16. ahapaldiek beste ordena bat izan beharko lukete: 15, 13, 14 eta 16. Altzaiko gure ereduak Gotainekoa argitzen du. Altzaiko ereduan badira Gotainekoan falta diren lau ahapaldi. Altzaiko ereduko 6, 7, 8 eta 20. ahapaldiak ez daude Gotaineko ereduan.

Gotaineko ereduan zenbakiak frantsesez daude. *1er couplet*, *2eme couplet,* eta abar. Guk zehaztasun horiek zenbaki hutsez jarriko ditugu.

1
Aldi bates nintsalaric chalabachian brodatsen
Chantari eijer bat entsuten dit houren gagne khantatsen
Houren gagnen khantatsen eta kobla eijeric emaiten

2
Broderia phausa eta jouraites nis ama gana
Eya plaser nundines utsi istan bat galeriala
Chantari eijer bat entsun beitut hari koblen ikhastéra

3
Alhaba abiloua marinel harègana
Abil eta eran ison jin dadin gourèkin aihaitera
Gaur gourèkin aihaitera eta hiri koblen khantatsera

4
Jaun gastia hau naisula ni souri mesutsera
Eya plaser dusunes jin gaur gourèkin aihaitera
Gaur gourèkin aihaitera eta eni koblen khantatsera

5
Inposible da anderia gaur sourè èchèrat jitia
Aria favorable dugu eta jouan behar aitsina
Adia favorable dugu eta jouan behar aitsina

7
Anderia plasèr dusia sarthu outsiaren barniala
Guero algarèkin jouanen guira siekin aihaitera
Gaur sièkin aihaitera eta souri koblen khantatsera

8
Anderia fasil sartsen da ountsiaren barniala
Hagn bestènarèkin jaon kapitagnac eman urhe sagara
Eman urhè sagara eta harèkin lo belhara

9
Marinela marinela alhaesac ountsia
Ceren nic aurai boulharian diat desiratsen nin bouqueta
Desiratsen nin bouqueta eta lili araros èguina

10
Capitagna capitagna eta ser dusu phensatsen
Andèrè gastè hori èmosu othoi libertatia
Anderè gaste hori èmosu othoy libertatia

11
Marinela marinela alha esac ountsia
Nic khanberako nic nahi diat andèrè charmagaria
Alha èsac ountsia edo galduren duc bisia

12
Capitagna capitagna eta ser dusu phentsatsen
Ingoytic enè aita eta ama dabiltsa enè cherkatsen
Ingoytic ene aita eta ama dabiltsa ene cherkatsen

13
Sourè aita eta ama dabiltsa sourè chèrkhartsen
Hirour mila lèkoua aurai haiètaric hurun guira
Bestè haign bestèren buruko haien ècherako guira

13
Marinela plaser badusu pherestisasut espata
Ella larga ahal diokèdanes saiagno houni gueria
Larga ahal diokedanes saiano houni gueria

14
Marinela inosent da phèrèstatsen do espata
Haign bestenarekin andere Elènac erdiratsen du bihotsa
Haign bestenarekin andere Elenac erdiratsen du bihotsa

15
Maradika dakiola dendariari eskia
Ceren hagn hersi eguin deron saiagno houni gueria
Ceren haign hersi eguin deron saiagno houni gueria

16
Maradika dakiola aotsari eskia
Ceren haign sorots eguin deron espata houni moskoua
Ceren haign sorots eguin deron espata houni moskoua/fini

Horra hor, beraz, Gotaineko ereduko hamasei ahapaldiak. Azken ahapaldia transkribatu ondoren transkribatzaileak kantua bukatu dela adierazteko *fini* jartzen du.



Neska ontziratua balada. Gotaineko eredua.

13.1. *Gotaineko ereduaren ahapaldiz ahapaldikako iruzkina*

Puntu honetan ahapaldiak banan-banan iruzkinduko ditugu. Gotaineko ereduak eta Altzaikoak dituzten zenbait antzekotasun aipatuko ditugu. Zuberoako gainerako ereduekin ere erka liteke gure eredu

berria, baina luzeegi joko liguke. Diogun, azkenik, eskuidatziko letra argia bada ere transkripzioak sortu dizkigun arazoen berri ere emango dugula.

1

Aldi bates nintsalaric chalabachian brodatsen
Chantari eijer bat entsuten dit houren gagne khantatsen
Houren gagnen khantatsen eta kobla eijeric emaiten

Lehen ahapaldi honetan transkripzio arazo bakarra aurkitu dugu. Lehen bertso-lerroan, lehen ikusian, *nintsalari* aurkitzen dugu transkribatzaileak azken –i– horren gainean –c bukaerakoa transkribatu baitu. Argi agertzen dira, era berean, bokalaren gaineko puntua eta –c azken kontsonantea. Transkribatzaileak lehenengo aldiz *gagne* idazten badu ere, bigarrenean, guk espero genuen bezala egiten du: *gagnen*. Ohartzekoa da *gañen* forma inesibo arkaikoa dela, *ihizin*, *haintzurren,* eta abar bezala. *Uraren gainean* kantatzen du kantari eder batek. Gure kanta honetan *Huren gañen* egiten du *ura* hitzak hasierako h– duela. Altzaiko ereduan zein Chahoren B ereduan *itxason gañen* aurkitzen dugu.

2

Broderia phausa eta jouraites nis ama gana
Eya plaser nundines utsi istan bat galeriala
Chantari eijer bat entsun beitut hari koblen ikhastéra

Harrigarria gerta baledi ere, *jouraites nis* dator eskuidatzian eta ez *jouraiten nis*. Forma bitxia da *plaser nundines* delakoa. Guk *plazer zianez utsi/eitsi nendin* espero genuen. Adizki bitxi hori, ordea, Altzaiko ereduan ere aurkitzen dugu: *èia plaçer nundianes éitsi ichtan bat galériala*.

3

Alhaba abiloua marinel harègana
Abil eta eran ison jin dadin gourèkin aihaitera
Gaur gourèkin aihaitera eta hiri koblen khantatsera

Aurreko ahapaldian Iparraldeko tradizioa errespetatuz *ama gana* transkribatua badago ere, oraingoan batera dator: *haregana*. Harrigarria egiten zaigu amak alabari hika egitea. Altzaiko ereduan eta Chahoren A ereduan ere hika ikusten dugu. Chahoren B ereduan, ordea, zuka egiten dio amak alabari. Adizkiei gagozkiela, *(h)abilua* eta *(h)abil* formak ditugu. Lehena forma pleonastikoa da jatorrian *(h)abil* eta *(h)oa* adizkien bateratzea. Adizki hau berau aurkitzen dugu Chahoren A ereduan ere.

Altzaiko ereduan *èni koblen kantatsera* dugu, gurean, ordea*, hiri koblen khantatsera*.

4

Jaun gastia hau naisula ni souri mesutsera
Eya plaser dusunes jin gaur gourèkin aihaitera
Gaur gourèkin aihaitera eta eni koblen khantatsera

Ahapaldi honetan eta gainerako guztietan *gaur* adberbioak “gau honetan” zentzua du. Birritan *gaur* esaten badu ere, ez du *haur naisula ni* transkribatzen. Izan ere *hau[r] naizüla ni* delakoak “hona hemen ni” adierazten du. Altzaiko ereduan *haour naisula ni mèsia soué gana* ikusten dugu. Esapide hori ikusten dugu, besteak beste, Oihenarten *Haur ola zirola* errefrauean.

Mezütü aditzak “gaztigatu” edo “zerbaiten berri ematea” adierazi nahi du. Altzaiko ereduko *haour naisula ni mèsia soué gana* horrek “hona hemen ni mezua edo abisua zugana dakardala” adierazten du. Chahoren B ereduan apurren bat aldatuta *Capitagna hau duçula çoure gana Mecia egiten* du.

5

Inposible da anderia gaur sourè èchèrat jitia
Aria favorable dugu eta jouan behar aitsina
Adia favorable dugu eta jouan behar aitsina

Hitz bera bi gisatan transkribatua dago *aria* eta *adia*. Markagarria da erdal hitzen erabilera. *Favorable* eta *imposible* eta *aria/adia* hitzak halako zapore berezia ematen diote ahapaldi honi. Ohargarria da Altzaiko ereduan ere *inposible da* eta *adia faborable* berdin-berdin agertzen dela. Chahoren B ereduan ere hitz berak egitura beretan ikusten ditugu.

7

Anderia plasèr dusia sarthu outsiaren barniala
Guero algarèkin jouanen guira siekin aihaitera
Gaur sièkin aihaitera eta souri koblen khantatsera

Ahapaldi honetan *outsiaren* dio eta ez *ountsiaren*, hurrengo ahapaldietan egingo duen bezala. Ahapaldi hau ere, txikikeriak txikikeria, bat dator gehien-gehienean Altzaiko ereduarekin. Altzaiko ereduan *ountsin barnea* dator, gurean *ou[n]tsiaren barniala*. Berdintasun harrigarriak ditugu, bestalde, *gero biac jouanen gira gaour siekin aihaitara/ gaour sieke aihaitara éta…* dio Altzaikoak gure ereduari orpoz orpo darraiola.

8

Anderia fasil sartsen da ountsiaren barniala
Hagn bestènarèkin jaon kapitagnac eman urhe sagara
Eman urhè sagara eta harèkin lo belhara

Ahapaldi honetako hasieran lerro bateko hitzak ezabaturik daude: *Marinela marinela alha ésac ountsia*. Transkribatzaileak sarrera hori idatzi ondoren ezabatu egin du, hurrengo ahapaldikoa delako. Lehen idazkeran, bestalde, *sarten* idatzi badu ere, gero gainean *sartsen* egin du transkribatzaileak. Diogun, azkenik, eskuidatzian *jaun* hitzaren gainean –o– bat ikusten dugula. Guk, beraz, *jaon* transkribatu dugu. Azken hitzean hutsen bat edo beste egin du transkribatzaileak. Hitza garbiago gera dadin ondoan jarri du *belhara*.

Hitzei gagozkiela, hemen ere erdal hitz harrigarri bat aurkitzen dugu: *fasil*. Altzaiko ereduan ere hitz bera ikusten dugu: *Andere aourena fasil heltuda sarthuda ountsin barnera*. Ahapaldi honetan objektu miragarri bat dugu errege-erreginen eta printze-printzesen artean erabili ohi dena *urre-sagarra*.

9

Marinela marinela alhaesac ountsia
Ceren nic aurai boulharian diat desiratsen nin bouqueta
Desiratsen nin bouqueta eta lili araros èguina

Lehen idazkeran *araras* dator eta azken –a– bokalaren gainean –o– bokala jarriz zuzendu du transkribatzaileak. Aginteran dugu *alhaesac ountsia* esaldia. Altzaiko ereduan *hala ésak ountsia*. Nola ote da, beraz, aditza *hala(tü)* edo *alha(tü)*? Zentzuari dagokionez, *untzia halatzea/ alhatzea* frantsesezko "haler" aditzetik dator gaztelaniara ere eta itsasoko hitz bat dugu: "tirar de un cabo, de una lona o de un remo en el acto de bogar". Chahoren A ereduan agintera *thira(tü)* aditzarekin dator: *Thira marinelak thira/ Thira ezazie untzia.*

Altzaiko ereduan *o[rai] boulharian diat désir nian lili[a]* aurkitzen dugu. Gotaineko gure ereduan lilia izan beharrean *bouqueta* dugu, eta, buketa, *Egun bereko alharguntsa* baladan bezala ikusten dugu hemen ere: *"lili araros egina"*. Ez dugu dudarik egiten: Gotaineko eredua berriagoa da eta beste balada bateko kontaminazioa salatzen du.

10

Capitagna capitagna eta ser dusu phensatsen
Andèrè gastè hori èmosu othoi libertatia
Anderè gaste hori èmosu othoy libertatia

Transkripzioari gagozkiola *othoi/othoy* bietara ikusten dugu.

Ahapaldi hau eta Altzaiko hamabigarrena bat datoz. Altzaikoan *Andéré gacho hori othoi émosu libertatia* dator, gurean, ordea, *Andèrè gastè hori èmosu othoy libertatia*. Ez dago dudarik, bestalde, testu bietan ikusten dugun *hori* delakoa kasu datiboan dagoela eta "horri" formari dagokiola, bokal arteko –r– bigundurik.

Interesgarria da tratamenduaren erabilera. Marinel onak kapitainari zuka egiten dio eta kapitainak, aldiz, hika. Amak alabari hika. Andereak eta kapitainak elkarri zuka.

11

Marinela marinela alha esac ountsia
Nic khanberako nic nahi diat andèrè charmagaria
Alha èsac ountsia edo galduren duc bisia

Ahapaldi hau bat dator Altzaiko ereduko hamairugarrenarekin. Kapitainak egiten duen mehatxua hitzez hitz berdin-berdina da. Altzaiko ereduan honelaxe dator: *hala ésak ounts[ia]/ hala ésak ountsia edo galduren duk bisia*.

Gotaineko gure ereduan ez Altzaikoan ez Chahoren bi ereduetan ez datorren zehaztasun interesgarri bat dator *Nic khanberako nic nahi diat andèrè charmagaria* esaldiak argi eta garbi adierazten du kapitainaren desira.

12

Capitagna capitagna eta ser dusu phentsatsen
Ingoytic enè aita eta ama dabiltsa enè cherkatsen
Ingoytic ene aita eta ama dabiltsa ene cherkatsen

Gure ahapaldi honetan alaba kapitainari zuzentzen zaio, Altzaikoan, ostera, marinelari edo marinel onari. Altzaiko ereduko hamalau ahapaldiek eta gureek berdintasun harrigarriak dituzte.

13

Sourè aita eta ama dabiltsa sourè chèrkhartsen
Hirour mila lèkoua aurai haiètaric hurun guira
Bestè haign bestèren buruko haien ècherako guira

Altzaiko hamabosgarren ahapaldia eta gurea bat datoz zehaztasun gehienetan. Gurean zein Altzaikoan hiru mila legoa *–lekoa* prestamu zaharragoak agintzen duenez– urrundu da ontzia itsasbazterretik. Eredu bietan beste hainbeste egin ondoren –hots, beste hiru mila legoa– etxeratuko direla diotso kapitainak/marinelak neskatilari. Altzaiko ereduan aita eta ama bila ez dabiltzala dio. Gure ereduan bila dabiltzala. Altzaikoa, gure ustez, logikoagoa da.

13

Marinela plaser badusu pherestisasut espata
Ella larga ahal diokèdanes saiagno houni gueria
Larga ahal diokedanes saiano houni gueria

Ahapaldi hau bat dator Altzaiko ereduko hamazazpigarrenarekin. Aditzari gagozkiola, *larga ahal diokèdanez* horretako aditz laguntzailea *dirokedanez* formatik dator. Aditza hemen *iron dugu. Altzaiko

ereduan *l[ibra] diokedanes* irakurtzen genuen. Baliteke, beraz, *libra* izan beharrean *larga* izatea. Gotaineko gure ereduak, beraz, argitzen ditu beste ereduaren ilununeak. Breset honetan bi eratara transkribaturik dago *saiagno/saiano* hitza. *Saia* hitza "gona" dugu eta *–ño* txikigarria erantsia du. Altzaiko ereduan hitz bera berdin ikusten dugu: *saiagno*.

14

Marinela inosent da phèrèstatsen do espata
Haign bestenarekin andere Elènac erdiratsen du bihotsa
Haign bestenarekin andere Elenac erdiratsen du bihotsa

Ahapaldi hau bat dator Altzaiko ereduko hamazortzigarrenarekin. *Haiñbestenarekin* esapideak "orduan", "une hartan bertan" adierazi nahi du eta ondo baino hobeto dago dokumentatua bestaldeko tradizioan. Baladako gure protagonistak, andere gazteak, ezpata bihotzean sartzen du. Andereak bihotza erdiratzen du zentzu fisikoan, egiazkoan. "Bihotza erdiratzea" kolokazioa ezaguna dugu bestaldeko tradizioan. *Bihotz-erdiragarria* ere adjektibo ezaguna dugu.

Nork erdiratzen du bihotza? Andere Elenak. Ahapaldi honetan anderearen izena agertzen zaigu: Elena. *Andere Elena*, ordea, inolako dudarik gabe, berria da. *Andereaurena* da hitz zaharra eta hitz hori desitxuratu denean, herri etimologiaz, "andere Elena" bihurtu da. Anderauren hitza literatura zaharrean ondo dokumentaturik dugu eta are balada zaharretan ere. *Andereaurena* hitza dator Altzaiko ereduan eta Chahoren A eta B ereduetan ere.

15

Maradika dakiola dendariari eskia
Ceren hagn hersi eguin deron saiagno houni gueria
Ceren haign hersi eguin deron saiagno houni gueria

Kapitainak neskatila gazteari biluzteko agintzen dio. Kapitainaren aginduko ahapaldiak ez ditugu ezagutzen. Zeharka bada ere kapitainaren asmoen berri hamaikagarren ahapaldian ikusten ditugu. Oraingo ahapaldian neskatila da engainatzailea. Andereak gona estuegia duela dio eta ezpata eskatzen du. Andereak gona estua du soinean, jostunak estuegi josi diolako gonaren gerria. *Dendaria*, beraz, "jostuna" da gure ahapaldian eta andereak jostunaren eskua madarikatzen du. Madarikazio hau, harrigarriro, Bizkaiko Dimako aldaeran ere ikusten dugu: *–Deabru geiztoak eraman deieladendari onen jostura!/ Nonbaisten bere esturik dago neure soineko txamarra.*

16

Maradika dakiola aotsari eskia
Ceren haign sorots eguin deron espata houni moskoua
Ceren haign sorots eguin deron espata houni moskoua/fini

Ahapaldi honetan (*h)arotza* "errementaria" dugu. Arotzak ezpatak egiten ditu. Ezpatari punta edo "mosko" zorrotza egiten dio eta horrexegatik neskatila gazteak saiaren edo gonaren gerria askatzeko aitzakiarekin bere burua hilko du ezpata bihotzean sartuz, bihotza erdiratuz. Besteren menean jarri baino lehen, beraz, nahiago du neskatilak bere burua hil. Saia edo gonaren gerria tinkiegi daukalako aitzakian, beraz, bihotzean sartuko du neskatila gazteak ezpata.

Nor da ahapaldi honen esalea? Gure ustez kapitaina. Neskatilaren madarikazio bezalakoa da, egitura berekoa. Madarikazioa bi eratara formulatzen da Zuberoako baladetan *Madarika dakiola aotzari eskia!* (Gotaineko eredua) edo *madarika balekio autzari bexua!* (Altzaiko eredua).

Hizkuntzaren aldetik "zorrotz" adjetiboa *zorotz* bihurtzen da eta "(h)arotz", ostera, *aotz*. Zuberoako dardarkarien leuntzea eta desagertzea ikusten dugu bi hitz horietan.

13.2. *Gotaineko eredua gaurko ortografian*

Oraingo puntu honetan gaurko ortografiara ekarriko dugu Gotaineko eredua. Eskuidatziko *chalabachian* gure oraingo transkripzioan *xala baxian* jarriko dugu, Altzaiko ereduan ere *chalabagian* agertzen baita. Puntu honetan, bestalde, *khantari* eta *huren gañen* idatziko dugu:

1
Aldi batez nintzalarik xala baxian brodatzen,
khantari eijer bat entzüten dit huren gañe[n] khantatzen
huren gañen khantatzen eta kobla eijerrik emaiten.

2
Broderia phausa eta juraiten niz amagana,
eia plazer nündinez ützi istan bat galeriala,
khantari eijer bat entzün beitüt hari koblen ikhastera.

3
–Alhaba, abilua marinel harègana,
abil eta erran izon jin dadin gurekin aihaitera,
gaur gurekin aihaitera eta hiri koblen khantatzera.

4
–Jaun gaztia, hau[r] naizüla ni zuri mezützera,
Eia plazer düzünez jin gaur gurekin aihaitera,
gaur gurekin aihaitera eta eni koblen khantatzera.

5
–Inposible da, anderia, gaur zure etxerat jitia,
aria faborable dügü eta juan behar aitzina,
adia faborable dügü eta juan behar aitzina.

6
–Anderia, plazer düzia sarthü u[n]tziaren barniala?
gero algarrekin juanen gira ziekin aihaitera,
gaur ziekin aihaitera eta zuri koblen khantatzera.

7
Anderia fazil sartzen da untziaren barniala,
hañbestènarekin jaun kapitañak eman ürhe-sagarra,
eman ürhe-sagarra eta harekin lo-belharra.

8
–Marinela, marinela, alha ezak untzia,
zeren nik orai bulharrian diat desiratzen nin buketa,
desiratzen nin buketa eta lili arraroz egina.

9
–Kapitaña, Kapitaña, eta zer düzü phentsatzen?
Andere gazte horri emozü othoi libertatia,
andere gazte horri emozü othoi libertatia.

10
–Marinela, marinela, alha ezak untzia!
Nik khanberako nik nahi diat andere xarmagaria
alha ezak untzia edo galdüren dük bizia.

11
–Kapitaña, Kapitaña eta zer düzü phentsatzen?
Ingoitik ene aita eta ama dabiltza ene xerkatzen
Ingoitik ene aita eta ama dabiltza ene xerkatzen.

12
–Zure aita eta ama dabiltza zure xerkhartzen,
hirur mila lekua orai haietarik hürrün gira,
Beste haiñbesteren bürüko haien etxerako gira.

13
Maradika dakiola dendariari eskia!
zeren hañ hertsi egin deron saiño huni gerria,
zeren haiñ hertsi egin deron saiaño huni gerria.

14
Maradika dakiola arotzari eskia!
zeren haiñ zorrotz egin deron ezpata huni moskua
zeren haiñ zorrotz egin deron ezpata huni moskua.

15
–Marinela, plazer badüzü pherestizazút ezpata,
eia larga ahal diokedanez saiaño huni gerria,
larga ahal diokedanez saiaño huni gerria.

16
Marinela inozent da pherestatzen do ezpata,
haiñbestenarekin andere Elenak erdiratzen dü bihotza,
haiñbestenarekin andere Elenak erdiratzen dü bihotza.

14. *NESKA ONTZIRATUA* ALTZAIKO EREDUA

Balada honen gaia itsastarra izan arren, Euskal Herriko lur eremu sartuenean kantatzen zen, Zuberoan, Basabürüa menditsuan, Altzai herrian. Euskal lurraldeetatik itsasotik urrunen dagoen Basabürüako mendiarteko herrixka batean, Altzain, kantatzea harrigarria da. Kasu hau, ordea, ez da bakarra. Chahoren kantutegiko *Neska ontziratua* baladaren bi ereduak zuberotarrak dira. Kantu-kaiera norena zen ere badakigu Marguerite Pradas anderearena. Bai, halaxe da, kaieraren azalean *Marguerite Pradas* izendeituren azpian beste zehaztasun bat aurkitzen dugu *Alçay*. Kaieraren jabea Marguerite Pradas jostuna zen. Jaiotza-data 1904-10-05, heriotza-data 1970-10-03. Marguerite Pradasek zuen kaierean datorren hogei ahapaldiko *Neska ontziratua* baladaren tradizioa XX. mende hasierako ahuldua izango zen. Caubet Chubuko Arhan ere altzaitarra zen Marguerite Pradasen herri berekoa eta *Gaiteros de Pamplona* izenez ezagutzen diren ikertzaileek hiru ahapaldi jaso zizkioten (Gaiteros de Pamplona: 1978).

Balada hau idatzirik dagoen kaiereko papera ez da ona, zoritxarrez. Eskuetan hartu eta irindu egiten da. Gure balada lau orrialdetan dago transkribatua, hots, bi orritan, baina kantua ezin izan dugu osorik transkribatu, bigarren orria ez dagoelako osorik.

Gure eredu berri hau hogei ahapaldikoa da, orain arte ezagutzen dugun ahapaldi gehien dituena. Gaiari gagozkiola ere orain arte ezagutzen ez ditugun ahapaldi berriak ditu, ikusiko dugunez. Euskal herri literaturako pitxi bitxi eta baliotsu bat da, zalantzarik gabe: gure baladategiko urrezko ale bat. Eta aurkikuntza xume eta polit hau besterenganatu nahi dugu. Zeruko birtargi bat eskaini nahi genuke, hodeietako zilar argitsu bat, gogoangarria den euskal kanta zuberotar bat. Lan honetan testua bera ahalik eta fidel eta ondoen ematen saiatuko gara.

14.1. *Altzaiko ereduaren transkripzio zuzena*

Atal honetan balada eskuidatzian dagoen bezalaxe transkribatuko dugu. Kantu narratiboa lau orrialdetan transkribatua dago. Lehen orrialdean, lehen lau ahapaldiak; bigarren orrialdean hamargarren ahapaldirainokoak hartzen ditu, baina hamargarrena bera bi orrialdetan transkribatua dago; hirugarren orrialdean hamargarrenaren zati bat eta hamabosgarrenerainokoak hartzen ditu; laugarren orrialdean hamaseigarrenetik hogeigarrenerainokoak. Guk orrialde aldaketa markatzeko // zeinua baliatuko dugu. Transkribatzaileak ahapaldi bakoitzari zenbaki bat jarri dio gainean. Lehen ahapaldia markatzeko *1 couplet* dakar. *Couplet* hitza frantsesez kaier askotan ikusten dugun ezaugarria da, dudarik gabe, eta kopla baino gehiago ahapaldia edo erdarazko *estrofa* delakoa adierazi nahi du. Altzaiko

Eman ditzagun, aurrera baino lehen, kaieraren neurriak: 172 milimetro zabaleran, 224 milimetro luzeran. Kaiera ttipia da, beraz, eskola-umeek erabiltzen duten tamainakoa. Hona, besterik gabe, lehen transkripzioa:

1
Aldichebates nindiègoualaric chalabagian
brodatsen, Mainelbat entsun disut itcha
chon gañen kantatsen itchachon gañen
kantatsen éta koplak éjeric émaiten bis

2
Brodèria plaoutcha éta jouan nintsan
ama gana èia plaçer nundianes éitsi
ichtan bat galériala kantaibat entsun
beitut hari kloben ikhastéra bis

3
Alhaba àbiloua jaoun gaste haren
gana èia plaçer dianes jin gaour
gourekin aihaitara gaour gourekin
aihaitara éta éni koblen kantatsera bis

4
Jaoun gastia haour naisula ni
mésia soué gana èia plaçer dusunes
jin gaour gourekin aihaitara gaour
gourekin aihaitaraéta éni koblen
khantatsera bis //

5
Andéria inposible dat gaour ène
hara jitia Adia faborable béitu jouan
behar dit aitsina bis

6
Hasteko suc batusu etchian hiou anaié
gaour ni hara jin balin banendi
haièc hil nindiokéié bis

7
Horiéré hala dusu nic badit hiour
ánaié, bena haièt aric batére ésta
émaste es gison éhaile bis

8
Geihiena disut aita santu bigerena
bis érégé bigéréna bis érégenéna éta
tippiéna kardinale bis

9
Andèria plaçer badusu ichtan bat,
jin ountsin barnea gero biac
jouanen gira gaour siekin aihaitara
gaour siekin aihaitara èta souri
koblen kantatsera bis

10
Andere aourena fasil heltduda
sarthuda ountsin barnera//
Haibestéréki jaoun kappitagna[c]
énan deio urhe sagara eta harekin
lo belhara

11
Pharti àdi mainèla hala ésak
ountsia o—- boulharian diat
dèsir nian lili bis

12
Kapitagna kapitagna pharkamentu
rèkilan Andéré gacho hori othoi
émosu libertatia bis

13
Mainela mainela hala ésak hala ounts[ia],
ésak ountsia edo galduen duk bisia bis

14
Mainela mainela éta ser phentsatsen
dusu ingoiti éné aita eta ama
éne tcherkhan dabiltsatsu bis

15
Soure aita éta ama souré tcherkhan
es dabiltsa hiou milla lekou atan
hebentic hurun dia beste hai
beste égin éta goué étchialako bis //

16
Maradika dakiola dendariari éhia
séren hain hertchi égin deion
saiagno houni gèria bis

17
Mainela mainela, othoi phesta
éspata eia li[bra] diokedanes saiagno
honi geria bis

18
Mainela fasil heltu da g[ero] [ph]éstatu
do éspata hain besterekin andéré
aourenak érdiatu dut bihotsa bis

19
Marádika balekio aoutsari béchoua
sérén hain sorhots égin deion espata
houni motchkoua bis

20
Mainela mainela idoki ésak hebenti
ountsia es diokéc soporta aima
déséspéaturic bis

Atal honetan jatorrizko eskuidatziko testua dagoen-dagoenean jarri dugu, tilde eta ortografia errespetaturik. Bertso-lerroak ere dauden-daudenean jarri ditugu. Transkripzioko konturik zalantzagarrienak tildeak dira. Tilde guztiak grabeak ote dira? Gehienak bai, dudarik gabe. Zenbaitetan, ordea, ez dugu garbi ikusi era baterakoak edo besterakoak diren.

5

Kolaric estu hartu maouchinic
esdu behartu seron den jakinic
sorthu ostatun houm batec iduridu
behar diata gosatu behi herdenic
higatu gaitzic estu ésagutu medekinic
esdu bostu

6

Bai géo éné mathila gouatzan
aren étchialat félégri Paguen ichilla
nic su idukit zuk ni bermatus
aski chuchen banabila ai serbutcha
umila banu haitatzela milla es
nébaké bestderic bitha

1 complet

Eldichebatez nindiéquaimic chalabarin
brodatzen, Mainelbat entzun didut étcha
chon ganen kantatzen etchachon ganen
Kantatzen éta Kohlat éjerie emaiten bis

2

Brodéria plaoutcha éta jouan nintzan
ama gana éia plaçer mundianes éitzi
ichtan bat galériala Kantaibat entzun
beitut hari Kloben ikhastéria bis

3

Abhaba àbiloua jaoun gaste haren
gana éia plaçer dianes jin gaour
gouretzin aihaitara gaour gouretzin
aihaitara éta éni Hk Kobben Kantatzera bis

4

Jaoun gastia haour naisula ni
énésia soué gana éia plaçer dusun
jin gaour gouretzin aihaitara gaour
gouretzin aihaitaraétta éni Kobben
Khantatzera bis

5

Andéria inposible dat gaour ène
hara jitia Adia faborabla bitzu jouan
behar dit aitzina bis

6

Hastekó buc batutzu étchian hiou anaié
gaour ni hara jin balin banendi
haiec hil nindiokéeic bis

7

Honiéré hala diduc nic badit hiour
ànaié. bena hasietanic baleré ésta
émaste es gizon échaile bis

8

Geihiena didut aita santu bigerena
bis érégé bigerena bis érégérana éta
tippiena Kardinale bis

9

Andéria plaçer badutzu ichtan bat
jin ountzin barnea gero biac
jouanen gira gaour siekin aihaitara
gaour siekin aihaitara éta souri
Kobben Kantatzera bis

10

Andere aouvena fasil hetuda
sarthuda ountzin barnera

Haibestéréki jaoun Kapitagna
énan deio urhe sagara eta harekin
to belhara

11

Pharti àdi mainéla hala ésak
ountzia éa, bouthartzian diat
désir nian maitia lili bis

12

Kapitagna Kaputagna pharbamentu
rékilan Anaiéré gachohori othoi
émozu libertatia bis

13

Mainela mainela hala ésak ountz hala
ésak ountzia edo galduen duk bitzia bis

14

Mainela mainela éta ser phentzaltzen
duzu ig inguiti éné aita éta ama
ène tchekhan dabiltzatzu bis

15

Soure aita éta ama souré tchekhan
es dabiltza hiou milla e lekou atan
hebentic hizun dia beste hai
beste égin éta souré étchialabo bis



Neska ontziratua balada. Altzaiko eredua.

14.2. *Ahapaldiz ahapaldikako iruzkina*

Atal honetan lehen transkripzioa oinarri harturik grafia-ortografiak gaurkotuko ditugu. Zalantza batzuk argitzeko Chahoren bi ereduetako ahapaldiak ere ekarriko ditugu atal honetara. Ahapaldiaren transkripzioak sortu dizkigun arazoak azalduko ditugu batez ere.

1

Aldixe batez nindiegualarik sala baxian brodatzen,
ma[r]inel bat entzün dizüt itxason gaiñen k(h)antatzen,
itxason gaiñen k(h)antatzen eta koplak ejer[r]ik emaiten.

Lehen ahapaldi honek ez du zalantza handirik sortzen. Lehen transkripzioari gagozkiola, lehen lerroan *bagian* ikusten dugu transkribatzaileak leku faltaz azken *–n* apur bat oker eta orrialdearen ertzean idatzirik. Lehen *gaiñen* delakoan, inesibo arkaikoa mugagabean, argi ikusten da marra *–n–* horren gainean. Bigarrenean, ez da hain argi ikusten. Denok ontzat ematen dugu *gañen* inesibo arkaikoa dela, *haintzurren*, *ihizen*, eta abar bezala. *Itxason* ere inesibo arkaikotzat hartu behar ote dugu? Ez da, dena dela, eredu honetan bakarrik ematen. Chahoren bigarren ereduan ere halaxe ikusten dugu: *itxason*.

Transkripzioari gagozkiola, *ch* gaurko *x* bezala transkribatu dugu *Aldiche* hitzean. Nola transkribatu behar ote dugu, *chala* eta *itchachon* horietan? *Xala* eta *itxaxo*? Zuberoako testua dugunez gero, *itsa-/itxa-* horien artean bigarrenaren alde egin dugu[6]. Bukaerari gagozkiola, *–cho* hori *–so* egin dugu.

[6] Honelaxe agertzen da *Orotariko Euskal Hiztegia*n: “Itsaso” hitzean, “La mayor parte de los suletinos, (salvo Archu y Casenave), y algunos autores bajo-navarros (Dechepare, López (v. itsasbazter), emplean la forma *itxaso* en Xarlem, UskLiB, Eguiateguy, Inchauspe, Etchamendi. Hay tbn. alternancia de las dos formas en Tartas”.

Lehen ahapaldi honek Chahoren ereduko lehen ahapaldiarekin berdintasun handia du: *Aldichebatez nenguelaric/ Salabachian Brodatzen/ eskutari bat entzun nizun/ Galeriati khantatzen/ Galeriati khantatzen eta/ Kobla ederren emaiten*. Lehen ereduarekin berdintasun handia badu ere, bigarren ereduarekin berdintasun handiagoa du: *Aldixe batez nenguelarik sala baxian brodatzen,/ kapitain etzün dizüt itsason gañen khantatzen,/ itxason gañen khantatzen eta kobla eijerrik emaiten*.

2

Broderia phausa eta juan nintzan amagana,
eia plazer nündianez eitzi ixtan[t] bat galeriala,
k(h)anta bat entzün beitüt hari koblen ikhastera. (bis)

Ahapaldi garbia da letrari dagokionez. Badirudi, hala ere, zenbait huts egin dituela transkribatzaileak. Has gaitezen lehen kontuarekin. Nola idatzi du transkribatzaileak *plaoutcha* edo *phaoutcha* da? Lehena garbi eta argi badago ere, bigarrena izan behar du nahitaez.

Badago beste kontu bat ere. Lehen idazkeran *icha* idazten ari dela, zuzenduz, *ichtan bat* jarri du transkribatzaileak. Era berean *kantaibat* irakurtzen da eskuidatzian. Transkribatzaileak metatesis bat eginez *koblen* jarri beharrean *kloben* jarri du. Hala transkribatu behar ote dugu bigarren transkripzioan? Ezetz uste dugu, hirugarren ahapaldian ere *kl–* batez hasi ondoren, ezabatu, eta *koblen* idatzi baitu. Bi eretatik, bestalde, *koplen/koblen* horietarik, zein aukeratu behar ote dugu? Bi aukeretatik ugariena da bigarrena. Baliteke, era berean, modu bietara esatea ere. Lehen ahapaldian *koplak* jarri dugu, jatorrizko eskuidatzian bezalaxe, eta gainerakoetan *koblen*. Era horretara, eskuidatziaren legea dakargu transkripzio honetara.

Ahapaldi honetan agertzen den *eitzi* (eskuidatzian *éitsi*) zubererako "utzi" dugu. Forma zaharra *eutzi batetik letorke, Mitxelenak dioenez.

3

–Alhaba, abilua jaun gazte harengana,
eia plazer dianez jin gaur gurekin aihaitara,
gaur gurekin aihaitara eta eni koblen k(h)antatzera. (bis)

Ez du korapilo handirik sortzen testuaren transkripzioak. Bestaldeko tradiziozko erara dago transkribaturik *haren gana,* bereiz edo bi hitzetan. *Gaur* adberbioak "gau honetan" esan nahi du, eta ondo dator, beraz, *aihaitara*, hots, "afaritara" hitzarekin.

4

–Jaun gaztia, haur naizüla ni mezia zu[r]egana,
eia plazer düzünez jin gaur gurekin aihaitara,
gaur gurekin aihaitara eta eni koblen khantatzera. (bis)

Hizkuntzari gagozkiola, gogora dezagun lehenik, *haur naizüla ni* delakoak "hona hemen nauzula (zuk) ni" adierazi nahi duela edo "etorri naiz", "horra niz, naizü" adierazi nahi du. Ahapaldi honetan agertzen den *haur* honek ez du "haur" edo "sein" zentzuarekin zerikusirik. *Haur* honek "hona hemen" adierazi nahi du. *Haur ola zirola* errefrauean agertzen den "haur" bera dugu, beraz. Bigarrenik, *mezia zu[r]egana* hori "mezua", hots, "afaltzeko mezua" zuregana ekarri dudala nago ni, esan nahi du. Laugarren ahapaldi honetan jarri du lehenengoz *khantatü* hasierakoa *kh-* duela.

5

–Anderia, inposible da gaur ene hara jitia,
adia faborable beitü[t] juan behar dit aitzina,
adia faborable beitü[t] juan behar dit aitzina.

Ahapaldi honek ere ez du transkripzio eragozpenik. Adizkien artean, *dat* garbi ikusten da. Nola transkribatu gure bigarren transkripzio honetan *da* edo *dat*? Chahoren bigarren ereduko bosgarren ahapaldia gure honen oso antzerakoa da: *Anderia, inposible da ene hara jitia,/ airia faborable dit eta juan behar aitzina,/ airia faborable eta juan behar aitzina*. Kontuak honetara, *inposible da* jarri dugu bigarren transkripzio honetan.

Ez dago dudarik, bestalde, *adia* delakoa "airia" dela, ontziak nabigatzeko behar duen haizea.

6

–Hasteko, zük batüzü etxian hi[r]u anaie,
gaur ni hara jin balin banendi, haiek hil nindiokeie.
Gaur ni hara jin balin banendi, haiek hil nindiokeie.

Ahapaldi hau guztiz garbia da transkripzioari dagokionez. Hiru anaien aipamena ez dugu orain arte gai hau duen beste inongo baladatan aurkitu. *Frantziako anderea* baladan, Nafarroako Elizondoko ereduan, bi anaia eta arreba bat agertzen dira.

Ahapaldi honetan agertzen den baldintza hau guztiz markagarria da, dudarik gabe. Adizkiei gagozkiela, *jin banendi* horrek "joango banintz" adierazi nahi du, *edin aditz laguntzailea jokaturik. Baldintzaren ondorioa *nindiokeie* da *iron aditzaren forma jokatua *nindirokeie* batetik letorke eta *hil nintzakete* edo *il nentzakete* adierazi nahi du. (Haiek *ni hil nazakete,* baina ondorio hipotetikoago batean *hil nintzakete*, alegia). *Iron aditz jokatuaren adizkiak azken ahapaldietan eta beste batzuetan ere ikusiko ditugu. Dena indikatiboko aditzekin erabiliz honela ulertuko genuke: "*Gau honetan ni hara joango baldin banintz, haiek ni hilgo nindukete"*.

7

–Hori ere hala düzü: nik badit hi[r]ur anaie,
bena haietarik batere ez da emazte ez gizon-e[r]haile,
bena haietarik batere ez da emazte ez gizon-e[r]haile.

Ez du transkripzio arazorik. Neskatxak dioenean bere hiru anaietarik inor ez dela *gizon-e[r]haile* "gizon hiltzaile" esan nahi du. Gizon-e[r]aile konposizioa berria genuke, konposizio zaharra *gizer(h)aile* dugu Leizarragak lehenengoz dakarrena eta Jon Mirande batek ere erabili zuena bere idatzietan.

8

Gehiena dizüt Aita Santu, biger[r]ena Er[r]ege,
biger[r]ena Er[r]ege eta tipiena kardinale,
biger[r]ena Er[r]ege eta tipiena kardinale.

Transkripzio zuzena egitea erraz xamarra dugu. Duda bat *érégenéna* horrek ematen du. Badirudi *errege* eta *bigerrena* nahastu dituela. Nola ulertu behar dira, bestalde, agertzen diren hiru *bis* horiek? Uste dugu transkribatzaileak huts egin duela eta nahastu egin dituela bis horiek. Nola transkribatu behar ote dugu *tippiena*? Transkribatzaileak *ttipiena* esan nahiko ote zuen?

Gehiena horrek nagusia esan nahi du. Anaia nagusia Aita Santua dela, alegia.

9

–Anderia, plazer badüzü ixtan[t] bat jin untzin barne[r]a,
gero biak juanen gira gaur ziekin aihaitara,
gaur ziekin aihaitara eta zuri koblen k[h]antatzera. (bis)

Letra argiko ahapaldia. Ahapaldi honetan ere *kantatsera* dator eskuidatzian. Bestetan agertzen den *kh*– batez transkribatu dugu. Ahapaldi honetan hurrengo ahapaldian ere etorriko den egitura dator:

untzin barnera. Chahoren A ereduan ere berdin ikusiko dugu *untzin barnera*. Ahapaldi honek Chahoren B ereduko seigarrenarekin du zerikusia: *Anderia, othoi sar zite untzi hunen barnera,/ gero biak jun ginteke hekin aihaitera,/ hekin aihaitera eta zuri koblen khantatzera*.

10

Andereaurena fazil heltü da sarthü da untzin barnera,
hain[n]bestereki jaun kapitaña[k] eman deio ürhe-sagar[r]ra,
[eman deio ürhe-sagarra] eta harekin lo-belhar[r]a.

Transkripzioari gagozkiola, has gaitezen hainbat konturekin. *Anderaurena* hitza ikusten dugu lehenengoz balada honetan. Orain arte *anderia* deiki edo deigarrian ikusi dugu. Oraingo ahapaldi honetan estilo zeharrera goaz. *Anderauren* hitza andere goi mailakoa adierazteko da. Beste balada batzuetan ere ematen da *Zalduko* baladan, esaterako. Chahoren A ereduan ere *anderauren* ikusten dugu.

Transkripzioari dagokionez, bi eratara esaten da *heltu da* eta *sarthuda*. Lehen idazkeran, *hetu da* idatzi du transkribatzaileak, eta gero *–l–* tartekatuz, *heltu da* irakurtzen da. Nola transkriba *fasil* delakoa? Bi aukeretatik, *fasil* eta *fazil* horietatik, zein hauta? Aukera horretan bigarrenaren alde egin dugu guk. Beste transkripzio arazo bat *enan deio* horretan dugu. Argi dago *eman deio* izan behar duela.

Ahapaldi hau irakurtzeko gakoa, ordea, Chahoren A ereduko zazpigarren ahapaldian dugu: *Anderia erho heltu/ Sarthu da ountzin barnera/ Eskutariak harekilan lo belharra golkhora/ lo belharra golgkora eta/ Belaren desplegatzera*.

11

–Pharti adi, ma[r]inela, hala ezak untzia,
o[rai] bulhar[r]ian diat desir nian lili[a],
o[rai] bulhar[r]ian diat desir nian lili[a].

Ahapaldi honek baditu irakurketa arazoak. Orrialdeak hutsunea du eta *ountsia* eta *boulharian* hitzen artean ez da ezer irakurtzen. Zein izan liteke falta den hitza? Ahapaldi hau ezagutzen ditugun Chahoren beste biekin konparatzea da hutsunea betetzeko bideetako bat. Chahoren B ereduan, VIII. ahapaldian, hauxe dator: *Marinell, marinella,/ thira ezak untzia./ Aspaldian desir niana/ jin dük bera eskura*. Eredu honi erreparatuz gero, hitzak *aspaldian* izan beharko luke. Falta den hitza, ordea, *o–* batez hasten da eta laburra da, hiru silabako hitza ez bailitzateke tarte hain estuan, edo hain leku txikian sartuko. Ahapaldi hauen neurria 8/7A/8/7A/8/7A dugu. Ez ote da, beraz, *orai* hitza? Irudiaren aldetik ere ez ote dator ondo adierazia *bulharrian izatea lilia* beste ereduetako "eskura etortzea desira zuena" bezalaxe?

Maitia hitza ezabatu egiten du transkribatzaileak eta *lili* jartzen du ondoan. Hala ere *untzi* hitzarekin oskide izateko *lilia* izan behar luke.

12

–Kapitaiña, kapitaiña, pharkamentürekilan!
Andere gaxo hor[r]i, othoi, emozu libertatia!
andere gaxo hor[r]i, othoi, emozu libertatia!

Ez du ahapaldi honek transkripzio arazorik izan. Hoskidetasuna, ordea, ez da zaintzen besteetan bezala. Chahoren B ereduko IX. ahapaldiak honelaxe dio: *Kapitaña, kapitaña, pharkamentü eske nauzü,/ andereauren hori, othoi, libra ezazü*.

13

–Ma[r]inela, ma[r]inela, hala ezak, untzi[a]!
Hala ezak untzia edo galdü[r]en dük bizia,
hala ezak untzia edo galdü[r]en dük bizia.

Orrialdearen eskuinaldea deseginxea dago; ez dugu uste, hala ere, testurik galdu dugunik. Transkribatzaileak *hala ésak hala* idatzi ondoren, gainean *ountzi[a]* jarri du. Transkripzioak, ordea, ez du galerarik, irakurtzen ez dena hitz baten bukaera delako; eta *untzi–* horren ondoren *–a* etorri behar *bizia* hitzarekin hoskide izateko.

14

–Ma[r]inela, ma[r]inela, eta zer phentsatzen düzü?
ingoiti ene aita eta ama ene txerkhan dabiltzazü,
ingoiti ene aita eta ama ene txerkhan dabiltzazü.

Ez du transkripzio arazorik. Ahapaldi hau anderaurenak marinel onari zuzendua da. Chahoren B ereduko hamargarren ahapaldiarekin du zerikusia: *Marinella, marinella! Idek ezazü bortha!/ Ingoiti ene etxekuak ene unduan beitira!/ Ingoiti ene etxekuak ene unduan beitira!*

15

–Zure aita eta ama zure txerkhan ez dabiltza.
Hi[r]u milla lekuatan hebentik hür[r]ün dia,
beste hai[n]beste egin eta gu[r]e etxialako. (bis)

Errima galdurik du ahapaldi honek. Lehen begiratuan, badirudi ahapaldiaren zentzua bakarrik transkribaturik dagoela. Hala ere, ezagutzen ditugun beste ereduekin berdintasun handiak ditu. Hona, diogunaren froga argi bezala, Chahoren B ereduko hamaigakarren ahapaldia: *Hebetik eta zure etxera berrehün lekua da/ eta haibesteren bürian eniala heltüren gira,/ eta hainbesteren bürian eniala heltüren gira*.

Hitz batek transkripzio arazoak sortu dizkigu. Nola transkribatu behar da *haibeste* edo *hai[n]beste*? Ahapaldi honetan zein hamargarren ahapaldian *haibeste* ikusi dugu. Chahoren B ereduko hamaikagarren ahapaldian *haibesteren* zein *hainbesteren* ikusten dugu.

16

Maradika dakiola dendariari e[r]hia!
Zeren hain hertsi egin deion saiaño huni ger[r]ia,
zeren hain hertsi egin deion saiaño huni ger[r]ia!

Ez du transkripzio problema handirik. Bi aldiz jarri du *hain*: lehena *hayn* eta ondoren *hain*. Lehena gainetik ezabatu duenez, bakarra jarri dugu guk. Bete-betea du oskidetasuna edo errima *e[r]hia* eta *gerria* hitzetan. Chahoren A ereduan, XII. ahapaldian, errima galtzen da *orratza* eta *gerria* hitzetan: *Maradika dakiola dendariari orratza!/ zeren hain hertzi egin dien kota hunen gerria,/ kota hunen gerria eta ene bihotzeko pena*.

Ohargarria da, bestalde, ahapaldi bietan agertzen dela *maradika* eta ez *madarika*. *Madarikatu* aditza zabalago dabil *maradikatu* baino. Aditz honek metatesi bidez *maradika(tü)* ematen du. *Maradikatu*, ordea, latinezko *maledicere* aditzetik hurbilago ikusten dugu.

17

Mainela, mainela, othoi, phesta ezpata,
eia li[bra] diokedanez saiaño honi ger[r]ia,
eia li[bra] diokedanez saiaño honi ger[r]ia.

Hemen ere paperak zulo bat agertzen du. Ahapaldi honetan *eia* horren ondoren *l–* bat ikusten dugu, nahiz eta zuloak hasierako *l–* hori marra bitan zatitu. Hitzaren hasiera garbi dugu beraz: *l–*. Kontsonante horren ondoren *–i–* baten hasiera ikusten dugula iruditu zaigu. Baina izan liteke beste zerbait

ere. Chahoren bi ereduetan agertzen da ahapaldi hau. A ereduan, 11. ahapaldian: *Pheresta, ezkütaria, pheresta zure ezpata/ kota-gerria thinkegi beitüt larga dezadan jostura;/ jostura larga dezadan eta ena büria deskantxa*. Eredu honen arabera *larga* izan liteke aditz-erroa. Chahoren B ereduko 12. ahapaldian: *Jauna, pheresta izadazü istan bat zure sabria,/ nahi nikezü laxatü mement bat ene zintura,/ nahi benüke laxatü istant bat ene zintura*.

Kontuak honetara, hiru aukera ditugu *libratü/largatü/lachatü* hiruak *l–* batez hasten baitira, eta hiruen erroa izan bailiteke: *libra/larga/laxa*.

18

Mainela fazil heltü da g[ero] [ph]estatü do ezpata,
hainbesterekin andereaurenak erdi[r]atü dü bihotza,
hainbesterekin andereaurenak erdi[r]atü dü bihotza.

Bigarren orrian, gure ahapaldi honetan arazotxoak ditugu. Ahapaldi hau transkribatzeko orduan, *heltu da* horren ondoren paperak zulo handisko bat du. Ikusten den hurrengo hitza *éstatu* da. Garbi dago zulo horren azpian kontsonante baten arrastoa edo marra agertzen dela. Kontsonante hori –p– edo –g– ote da? Paperaren zuloa hartzen duen hitza ez dugu uste *éspata* izan litekeenik. Hurrengo korapiloa errazagoa da askatzen. Gure ustez *éstatu* horren kontsonante hasiera *p–* kontsonantea izan liteke. Hain garbi ikusten den *do* hori *diro* baten laburpena izan liteke. Delako *diro* adizkia ez dator *iron aditzetik *dereio* eta are laburragoko *deio* adizkiaren laburpenetik baino. Chahoren A ereduko XI. ahapaldiak ematen digu argia: *Eskutaria erho heltu, emaiten diro ezpata,/ anderaurenak harekila sarthu du bihotziala, / bihotziala sarthu eta ichuri bere odola.*

Nola ulertu behar dugu *erdiatu dut bihotza*? Andereak bihotzean sartzen du ezpata Chahoren A ereduan. Baina "ni" baten ikuspegitik *bihotza erdiratü dereit/deit* ulertu ote daiteke? Aurreko zortzigarren ahapaldiko *inposible dat* bezala azken –t soberan dagoela ulertu behar dela deritzagu.

19

Maradika balekio a[r]utzari besua!
zeren hain zorhotz egin deion ezpata huni moskua,
zeren hain zorhotz egin deion ezpata huni moskua.

Transkripzio errazeko ahapaldia. Eskuidatzitiko *bechua* delakoaren transkripzio zuzenak *bexua* izan beharko luke. Era berean, *motchkoua* horrena *motxkua*. Ez dugu uste palatalizazioa hain muturrera eraman behar denik. Ahapaldi honetan zein Chahoren 13garrenean, *arotz* bietan *h–* gabe dator. Era berean, bokal arteko –r– galdu ondoren *aotz* hori *autz* bihurtzen da. Hitz hau, jakina, *aoutz* transkribaturik (*aoutzari*, datiboan dagoela) ikusiko dugu. *Arotz* delakoak "errementari" adiera du.

Oso antzera dator Chahoren A ereduko 13. ahapaldia: *Maradika dakiola arotzari bessoua/ zeren ain zorrotz egin dian ezpata houni moskoua/ ezpata houni moskoua eta maitiaren phentsamentia.*

20

Ma[r]inela, ma[r]inela, idoki ezak hebenti untzia!
Ez diokek soporta a[r]ima desespe[r]aturik,
ez diokek soporta a[r]ima desespe[r]aturik.

Transkripzio aldetik ez du inolako arazorik sortu. Bukaera honen antzekoa dugu Chahoren A ereduan. Eredu horretako azken ahapaldiak gure azkena ere argi dezake, neurri handi batean. Gure ereduko *idoki ezak* aginterak "ken ezak" esan nahi du. Marinelak ontzia dagoen lekutik kentzeko agintzen dio. Honelaxe agertzen da Chahoren A ereduan: *Idek, marinalak, idek idekazie untzia!* Bada, bestetik, kontu interesgarri bat, *ez diokek soporta arima desesperaturik* horrek subjektua falta du. Subjektua "itxasuak" dugu. Chahoren B ereduan argi ikusten dugu: *Itxasuak ez diro sofri arima desesperatia*; eta hemen, duda handirik gabe, *sofri(tü)*-k eta *soporta(tü)*-k adiera bera dute.

Adizkiei gagozkiela, *diokek* delakoa **dirokek* batetik heldu da. Chahoren A ereduan *diro* ikusten dugu garbiki, **iron* aditzeko forma jokatua. Adizki jokatu hau lehenago ere ikusi dugu, seigarren ahapaldian *nindiokeie* adizkian; hamazazpigarren ahapaldian, *diokedanez* transkribatu dugunean. Delako *diokedanez* hori **dirokedanez* batetik dator, dudarik gabe.

14.3. *Altzaiko eredua gaurko ortografietara egokiturik*

Atal honetan gaurko ortografiara aldatuko dugu testua. Puntuazioa ere erantsiko diogu testuari. Ahapaldiak tolesteko orduan bi eratara egin dezakegu: hiru lerrotan edo seitan. Era bateko eta besteko abantailak kontuan harturik, hiru lerrotan transkribatzea erabaki dugu.

1

Aldixe batez nindiegualarik sala baxian brodatzen,
ma[r]inel bat entzün dizüt itxason gañen k(h)antatzen,
itxason gañen k(h)antatzen eta koplak ejer[r]ik emaiten.

2

Broderia phausa eta juan nintzan amagana,
eia plazer nündianez eitzi ixtan[t] bat galeriala,
k(h)anta bat entzün beitüt hari koblen ikhastera. (bis)

3

–Alhaba, abilua jaun gazte harengana,
eia plazer dianez jin gaur gurekin aihaitara,
gaur gurekin aihaitara eta eni koblen k(h)antatzera. (bis)

4

–Jaun gaztia, haur naizüla ni mezia zu[r]egana,
eia plazer düzünez jin gaur gurekin aihaitara,
gaur gurekin aihaitara eta eni koblen khantatzera. (bis)

5

–Anderia, inposible da gaur ene hara jitia,
adia faborable beitü[t] juan behar dit aitzina,
adia faborable beitü[t] juan behar dit aitzina.

6

Hasteko, zük batüzü etxian hi[r]u anaie,
gaur ni hara jin balin banendi, haiek hil nindiokeie,
gaur ni hara jin balin banendi, haiek hil nindiokeie.

7

–Hori ere hala düzü: nik badit hi[r]ur anaie,
bena haietarik batere ez da emazte ez gizon-e[r]haile,
bena haietarik batere ez da emazte ez gizon-e[r]haile.

8

Gehiena dizüt Aita Santu, biger[r]ena Er[r]ege,
biger[r]ena Er[r]ege eta tipiena kardinale,
biger[r]ena Er[r]ege eta tipiena kardinale.

9

–Anderia, plazer badüzü ixtan[t] bat jin untzin barne[r]a,
gero biak juanen gira gaur ziekin aihaitara,
gaur ziekin aihaitara eta zuri koblen k[h]antatzera. (bis)

10

Andereaurena fazil heltü da sarthü da untzin barnera,
hain[n]bestereki jaun kapitaña[k] eman deio ürhe-sagar[r]ra,
[eman deio ürhe-sagarra] eta harekin lo-belhar[r]a.

11

–Pharti adi, ma[r]inela, hala ezak untzia,
o[rai] bulhar[r]ian diat desir nian lili[a],
o[rai] bulhar[r]ian diat desir nian lili[a].

12

–Kapitaiña, kapitaiña, pharkamentürekilan!
Andere gaxo hor[r]i, othoi, emozu libertatia!
Andere gaxo hor[r]i, othoi, emozu libertatia!

13

–Ma[r]inela, ma[r]inela, hala ezak, untzi[a]!
Hala ezak untzia edo galdü[r]en dük bizia,
hala ezak untzia edo galdü[r]ren dük bizia.

14

–Ma[r]inela, ma[r]inela, eta zer phentsatzen düzü?
Ingoiti ene aita eta ama ene txerkhan dabiltzazü,
ingoiti ene aita eta ama ene txerkhan dabiltzazü.

15

–Zure aita eta ama zure txerkhan ez dabiltza.
Hi[r]u milla lekuatan hebentik hür[r]ün dia,
beste hai[n]beste egin eta gu[r]e etxialako. (bis)

16

–Maradika dakiola dendariari e[r]hia!
Zeren hain hertsi egin deion saiaño huni ger[r]ia,
zeren hain hertsi egin deion saiaño huni ger[r]ia!

17

Mainela, mainela, othoi, phesta ezpata,
eia li[bra] diokedanez saiaño honi ger[r]ia,
eia li[bra] diokedanez saiaño honi ger[r]ia.

18

Mainela fazil heltü da g[ero] [ph]estatü do ezpata,
hainbesterekin andereaurenak erdi[r]atü dü bihotza,
hainbesterekin andereaurenak erdi[r]atü dü bihotza.

19
–Maradika balekio a[r]utzari besua!
zeren hain zor[r]hotz egin deion ezpata huni moskua,
zeren hain zor[r]hotz egin deion ezpata huni moskua.

20
–Mainela, mainela, idoki ezak hebenti untzia!
Ez diokek soporta a[r]ima desespe[r]aturik,
ez diokek soporta a[r]ima desespe[r]aturik.

15. OIARTZUNGO EREDUA

Oraintsu-oraintsuko eredu baten berri emango dugu puntu honetan. Harrigarria badirudi ere, Agustin Mendizabalek Oiartzunen Pepi Arruti Mujikari bi ahapaldi bildu zizkion. Pepi Arruti Mujika Lizarre baserrian jaioa da 1940an. Kantua bere izeba bati ikasi zion.

Ai mariñela, ai mariñela
buelta nazazu atzera,
buelta nazazu atzera eta
nere aitetamen ondora.

Zure aitetamak, zure aitetamak
zutaz aazturikan daude
nola ba zu amar lekuaz
urruti nola bai zaude.

Beste egun batean *aparte bai zaude* esan zion. Berriemaileak hau dio: "mariñelak neska sekuestratu zun... azkenean sable bat eskatu zion ez dakit zertarako bere burua bestez egin zuen. Kantak momentu batean *emanazu sablia* esaten du".

Pepi Arruti Mujikaren iturria beraren izeba Juanita Mujika da. Agustin Mendizabalek, Juanita Mujika oiartzuarrarekin egon ondoren (Juanita Mujika 1933an jaioa da), beste ahapaldi bat eta erdi bildu ditu:

Madarikatua izan dedilla
dendari (y)orren eskua
zergatikan egin didate
korsia orren extua.

Sablia ori hartu zuen da
sartu zi(d)an biyotzian.

Biltze data ez dakigu, baina korreoz bidali dizkigu 2015. urteko irailaren 5ean. Kontuak honetara, Oiartzunen ere *Neska ontziratua* balada kantatzeko tradizioa erakusten duten frogak dira hauek.

16. BIZKAIKO ETA IPARRALDEKO EREDUAK

Hona ekarri ditugun ereduetan bateratasun handiak ikusi ditugu Bizkaiko ereduen eta Zuberoako ereduen artean. Zuberoako ereduek antzekotasun handiagoa dute Bizkaiko hiru aldaera osoenekin –Forua,

Dima eta Zamudiokoarekin–, ezagutzen ditugun gainerako guztiekin baino. Antonio Zavalak argitara emandako Ziarsoloren aldaera gutxirenduak edo eskastuak ez du zehaztasunetan, zoritxarrez, argitasun berririk ematen. Ziarsoloren aldaera hau ez da izan zitekeen aldaera osoago baten errainu ilundua baino. Ez dago esan beharrik, Bizkaiko eta Zuberoakoek badutela gainerako hizkuntzetakoekin kidetasunik, baina lan konparatu hori bego hurrengo aldi baterako. Hona hemen, oraingo puntu honetarako, zenbait kidetasun:

Hona Jesús Antonio Cidek dioskuna bere "Romancero hispánico y balada vasca" (Cid: 2000):

> La existencia de un fondo primitivo común en el repertorio de la balada vasca, y la difusión más amplia de ciertos ballad-types que en principio parecían limitados a una tradición local o una sola de las "ramas", se ha ido imponiendo como evidencia en estos últimos años gracias a las nuevas encuestas y textos inéditos.

Eta guri dagokigun baladari zuzen-zuzen dagokiola zehaztasun eder hau:

> El caso más notable en este sentido es el de "Neska ontziratua", que representa en la tradición oral vasca el tema baladístico del "marinero raptor" muy difundido en gran parte de Europa. La balada nos era conocida en textos del Norte, con el principio habitual "Brodatzen ari nintzen" o "Egun batez ari nintzelarik…", de gran belleza textual y melódica. Ha bastado, sin embargo que se publicase completa la versión de Forua que Azkue editó sólo parcialmente, que reapareciese la versión de Bermeo facilitada a Aitzol por M. Ziarsolo en 1936, y que se recogiesen en la década de 1980 otras versiones en verdad magníficas de Zamudio y Arratia, para que se advierta que el tema baladístico alcanzó difusión general en el país.

J.A. Cid-en esan hau on egiten dute berriz transkribatu ditugun Foruko aldaerak eta Zuberoakoek. Zergatik? Gure transkripzio berriko Foruko aldaerak antzekotasun, kidetasun eta bateratasun handiagoak erakusten dituelako gainerako Bizkaiko ereduekin. Bateratasunak, zer esanik ez, mamiari zein azalari dagozkionak dira. Goian esanak berritzen ibili gabe ere, uda mineko zeru oskarbia bezain garbi gelditu da, Zuberoako bi eredu berriek gai bereko euskal baladekin duten antzekotasun nabaria. Antzekotasun hau, gainera, are handiagotzen da Bizkaiko hiru eredu onenekin.

24
ARROSA XURIAREN AZPIAN BALADA

1. SARRERA

Badira gure artean balada bizkiak, edo, bestela esan, elkarren artean antzekotasun handiak dituzten baladak. *Brodatzen ari nintzen* balada eta *Arrosa xuriaren azpian* ez ote dira gai berekoak, eta ez ote dituzte gertaera oso antzekoak? Kasu bietan neskatila polit eta gazte bat gatibu hartu, eta urrutira daramate. *Brodatzen ari nintzen* baladan, itsasoz itsaso legoa askotan zehar jaiotetxetik urrutira daramate. Bigarren kasuan, *Arrosa xuriaren azpian* kantuan, lehorrez daramate neskatila. Eraman gainera, hain urruti, non Parisen berean ostatu hartzen baitute. Bi kasuetan, neskatilek besteren nahietara makurtu baino lehen bere burua hiltzen dute. Hil ondoren non ehortziko duten galdetzen da balada bietan. Lehenean itsasoaren uhinetan ehortziko dutela diote; bigarrenean: *Aitaren baratzean, ezpelaren azpian,/ liho liliz estalirik eta tunba eder batean*... Aipamen honek beronek bakarrik baladaren estetika fina eta landua erakusten digu. Liho-lilia baino lore politagorik ba ote dago inon? Landareen (arrosa, lilia) aukera ere ez da nolanahikoa. Eta landareak gutxi balira ere, badira zuhaixkak ere (elorri xuria, ezpelak). Landare-zuhaixka hauek beren loreen edertasuna ere badakarte baladara…

Bi kasuetan, kapitainak edo kapitainek neskatilarekin dostatu nahi dute. Balada gai bietan, gainera, kapitainak agertzen dira. Lehen baladan itsasontziko nagusi da kapitaina, eta, bigarrenean, hiru kapitain dira zaldiz dabiltzanak. Kasu bietan, gurasoen edo aitaren isilik edo gurasoen gogoaren kontra engainatzen dute neskatxa. Loak ere badu zerikusiren bat balada bietan. Lehenean, neska lokartzeko logarri bat erabiltzen dute. Bigarren kantan, neskatila lo dago arrosa xuriaren edo elorri xuriaren azpian. Eta bateratasun hauek ez dira, azken batean, handi-handika egiten ditugunak baino. Balada bietan, esaterako, neskatila gazteari zuzentzen bazaio kapitaina, beti darabil deiki edo deigarri bera: *anderia*. Hauek guztiak hala direla, badago besterik.

Antzekotasun hau beste era batera ere ispilatu da kantutegietan. Bi balada hauek gai eta tratamentuz berdintsuak direnez gero, elkarren segidan agertu dira zenbait kantutegitan. *Kantu kanta khantore* famatuan, esaterako, elkarren ondoan, 135. eta 136. orrialdeetan aurkituko ditu kantazaleak. Antonio Zavalaren bilduman ere –*ERRV* guretzat–, 233-255. orrialdeetan ikusiko ditugu *Brodatzen ari nintzen* baladaren aldaerak; hurrengo 257-272. orrialdeetan, *Arrosa xuriaren azpian* balada gaiari dagozkion aldaerak daude.

Euskarazko dokumenturik zaharrenetan ere eskuizkribuetan bata bestearen ondoren agertu ohi dira bi balada gaiak. Chahoren kantutegian *Arrosa xuriaren azpian* baladaren ondoren dator *Neska ontziratua*.

2. *ARROSA XURIAREN AZPIAN* EUSKAL BALADA ITZULPENA OTE?

Euskal kantu honen euskal jatorria zalantzan jarri zuena aita Donostia izan zen. 1936ko "Acerca de una leyenda vasca: Arrosa xuriaren azpian" berak Azkainen bildu zuen ahapaldi baten ondoren honelaxe dio:

> Mi sorpresa fue grande cuando hace algunos meses, examinando un cancionero nivernés [Recueil de Chants Populaires du Nivernais] di con una leyenda exactamente igual a la que acabo de transcribir en su texto literario, aun cuando sus melodías respectivas fueran diferentes.

Aita Donostiaren artikuluaren mami nagusia pasarte horretan trinkotzen da. *Arrosa xuriaren azpian* baladak duen antzekotasunaz hitz egiten du. Gerora, zenbait euskal baladak dituzten kide frantsesak azterturik itzulpen edo moldapenez hitz egin da gure artean.

3. DASSANCEK BILDUTAKO UZTARITZEKO EREDUA

Arrosa xuriaren azpian balada gaiaren eredurik luzeena Louis Dassancek bildu zuen bere herrian, Uztaritzen. Dassancek norbaitengandik bildutako eredu bakarretakoa izango da, beharbada. Beste eredu asko Iparraldeko kaier zaharretatik eta kartaz egindako eskabideetatik bideratuak dira. Louis Dassancek R. Lafitte nekazari batengandik bildu zuen eredua *Gure Herria* aldizkarian, 1931. urtean, eman zuen argitara.

1
Elorri churiaren azpian anderea lokartu
Arrosa bezen eder, elurra bezen churirik,
Hirur kapitainek hor deramate gorthez enganaturik.

2
Hirur kapitainak jin ziren anderearen cherka:
Zamarian ezarri dute mantoaz trozaturik,
Pariserat eraman dute ait'amek jakin gaberik.

3
Parisen ostalertsa batek ederki salutatu
Ederki salutatu, berriak ere galdatu:
"Borchaz ala amodioz jina ziren, anderea, errazu?"

4
Anderea zen orduian eztiki deklaratu
Ez, ez, ene bihotza arras bortchaz jina duzu,
Hirur kapitainek galeriatik ebatsirik jina nuzu.

5
Kapitainek hitz hori entzunik jin ziren andereagana:
"Anderea, afal zaite eztirik eta trankilik,
Hirur kapitain badituzketzu gaur zure zerbitzari.

6
Anderea hitz hori entzunik hil hotza zen erori
Kapitainak ere pa[r]titu beren tropak harturik
Ongi nigar egiten zutela andereari doku emanik.

7

"Anderea hila da, nun ehortziren dugu?
Aitaren baratzean ezpelaren azpian
Liho liliz estalirik eta tumba eder batean".

8

Handik hirurgarren egunean, hilak aitari oihu:
"Aita entzun nezazu ni orai hemen nuzu,
Birjinitatea beiratu nahiz hila egona nuzu".

9

"Hori hola egin baduzu behar bezalakoa zira zu.
Moltsan sartzen tut eskuak zure eskonarazteko
Jaun gazte aberats batekilan zure kalitateko."

4. UZTARITZEKO BEDERATZIGARREN AHAPALDIAREN GAINEAN

Dassancek bildu zuen Uztaritzeko ereduak badu euskal beste ereduk ez duen azken ahapaldi bat. Ahapaldi hori azkena da, IX.a. Louis Dassancek honela dio azken ahapaldiaren gainean:

> Le 9º et dernier couplet, aussi médiocre que prosaïque, paraît bien avoir été ajouté par un barde d'occasion à la légende primitive.

Bederatzigarren ahapaldi horrek aita Donostiari ere eman zion zer pentsatua 1936. urteko artikuluan ondoren transkribatuko duen iruzkina egiten baitu:

> (...) No es solo este cancionero nivernés el que me deparó la sorpresa de este hallazgo. Un libro muy interesante de un maestro en estas disciplinas folklóricas, Julien Tirsot [*La Chanson Populaire et les Ecrivains Romantiques*], vino a confirmarlo, y un tercer cuaderno de canciones, de E. Rolland [*Recueil de Chansons Populaires*, Tome III], –que ojeé al azar– confirmó esta penetración pacífica de los pueblos entre sí, poniéndome a la vista un detalle que la versión de Dassance traía como un estrambote, como un aditamento que, según él, no figuraría en la primitiva versión. Me refiero a la novena estrofa aparecida en su artículo de *Gure Herria*. Yo no la he recogido: mi versión es pareja de la nivenesa y de la de Tierson. También lo es de tres de las cuatro que trae Rolland. Pero éste nos da una cuarta, en la que aparece una última estrofa, la correspondiente a la novena de Dassance. Dice así la francesa:
>
> Quand les rosier blancs/ euren fleu[e]es nouvelles:
> –Allons, ma fille, allons,/ il faut vous marier.
> Pauvre capitaine,/ le duc va l'épouser!
>
> El desenlace feliz de esta historia se da también en la versión de Dassance, pero con la particularidad de que en ésta es un premio a la virtud:
>
> "–Hori hola egin baduzu, behar bezalakoa zira zu.
> Moltsan sartzen tut eskuak zure eskonarazteko
> Jaun gazte aberats batekilan zure kalitateko.
>
> El lector verá las pequeñas diferencias que existen entre las dos versiones, la vasca y la que doy francesa. No tengo por qué advertir que hay otras variantes entre los diversos textos, aún franceses.

Hurrengo puntuan ikusiko dugunez, bederatzigarren ahapaldia frantses eredu osoan ere berdin-berdin agertzen da.

5. *ARROSA XURIAREN AZPIAN* FRANTSES EREDU INTERESGARRI BAT

Parceval jatsuarraren kantu-kaierean, *Jardin d'amour* izenburupean, *Arrosa xuriaren azpian* balada frantsesezko bat dator. Euskarazko kantu-kaierean badator, frantses ere kantatzen zutelako da. Iparraldeko kaier gehiagotan ere frantses kantuak euskarazkoekin tartekaturik aurkitzen dira. Puntu honetara ekarriko dugun frantses eredua Louis Dassancek Uztaritzen bildu zuen euskarazkoaren oso antzekoa da. Puntu honetan frantsesezko testua kaierean datorren bezalaxe aldatuko dugu.

1
Dans un jardin d'amour la belle se promène
Blanche comme la neige Belle comme le jour
Ce sont trois capitaines, qui lui faisait la cour.

2
Le plus jeune des trois, la prend par sa main blanche
La prend et puis la monte, sur son beau cheval gris
Dedans Paris l'améne dedans un beau logis.

3
En voyant cet enfant, l´hotesse lui demande
Dites, dites la Belle, dites-moi sans mentir
Si vous êtes ici par force, ou bien poru votre plaisir.

4
La Belle lui repond, comme une fille sage
Je suis ici par force, et non pour mon plaisir
ce sont trois Capitaines qui m'y ont fait venir.

5
Quand elle dit cela le capitaines rentre
soupé, soupé la belle, soupe avec plaisir
Avec trois capitaines, vous passerez la nuit

6
En entendant cela la Belle tomba morte
Sonné, sonné, trompette, tambour bien tristement
Puisque la Belle est morte à l'age de quinze ans.

7
Ou l'enterrerons-nous, cette jolie Princesse
La-bas au pied d'un arbres au quatre coin fleuri
Son corps en terre Sainte, son ame en paradis.

8
Au bout de deux ou trois jour, la Belle se reveille
Ouvrez, ourvrez la porte mon pere sil vous plais
j'ai fait trois jour de morte, j'ai mon honneur gardé

9

Si tu as fait cela, tu es une fille sage
j'ai cent écus en poche, c'est pour te marié
Avec un gentil homme, de haute qualité.

Parceval jatsuarraren azken ahapaldia ere Louis Dassancek bildutakoaren berdin-berdina da, inolako dudarik gabe.

6. *ARROSA XURIAREN AZPIAN* AZKUEREN EREDUAK

Azkuek *Arrosa xuriaren azpian* baladaren hiru eredu eman zituen argitara, bi ahapaldi bakarrekoak eta bat zazpi ahapaldikoa. Ahapaldi bakarrekoak Hazparne eta Garazikoak dira, zazpi ahapaldiko eredua Donazaharrekoa. Hiru eredu horiek puntu honetara ekarriko ditugu.

6.1. *Hazparneko eredua*

Hazparneko eredua ahapaldi bakarrekoa da. Azkuek CPV lanean, 821. kantu-zenbakian, 951. orrialdean eman zuen argitara. Eredu hau ABA-RMA-001-0001-004-264 signaturan dator:

Arrosa śuriaren azpian anderia lokhartu
elurra bezeñ tśuri ekhia bezen ederrik
irur kapitainek zeraukaten gortez enjeiaturik.

Azkuek bere kantutegian argitaratu zuen eredua hauxe da:

Aſosa xuriaren azpian andera lokhartu
eluſa bezain txuri, ekhia bezain edeſik,
hirur kapitainek zeraukaten gortez inguraturik.



ABA-RMA-001-0001-004-264.

Eskuizkribuan datorren *enjeiaturik* testu argitaratuan "inguraturik" bihurtzen da.

6.2. *Garaziko eredua*

Eredu hau ez zuen Azkuek bere lanetan argitaratu. Antonio Zavalak bere baladategian argitaratu zuen lehenengoz. Eredu hau ABA-RMA-001-0001-004-187 signaturan dator. A. Zavalak dioen bezala, Azkuek ez zuen berriemailearen izenik jaso. Zehaztasun bakarrak hauexek dira: *BN Garazi 187* (kantuzenbakia). Honelaxe dator lehen dokumentuan:

Arrośatze śuriaren azpian anderia zuzun lokhartu
hiru kapitainek zizien gortez inguratu
abrean hartu eta Parisen zuten sartu.

Kantu honetan harrigarria egiten da zuka (*zuzun* eta *zizien*) eta sistema markagabea (*zuten*) biak batera erabiltzea. Zavalak bere kantutegian zenbait huts eta zuzenketa dituela transkribatzen du:

Arrosa xuriaren azpian anderea zuzun lokartu,
hirur kapitainek zizien gortez inguratu,
abrean hartu eta Parisen zuten sartu.



ABA-RMA-001-0001-004-187.

Inportantea da *arroxatze* hitzaren *–tze* atzizkia. Azkuek bere hiztegian honelaxe definitzen du:

> (BN, S) sufijo derivativo, contracción de la palabra atze (R), "árbol", que se agrega á nombres de árboles para distinguirlos de sus frutos: *gerezitze*, cerezo; *pikotze*, higuera; *guduiñatze* membrillo; *arrosatze* rosal; *arragatze* fresal.

6.3. *Donazaharreko eredua*

Azkuek Donazaharreko eredua Dominika Urrutiri bildu zion eta CPV lanean, 821 kantuzenbakian, argitara zuen. Eredu hau osatzeko bi dokumentu erabili ditugu bata ABA-RMA-001-0002-001, lehen eta laugarren ahapaldiak osatzeko; bestea, ABA-RMA-001-0002-002, gainerako ahapaldi gehienak zehazteko:

1
Arrosa xuriaren azpian, anderia lokhartu,
elurra bezain xuri iruzkia bezain ederrik,
hirur kapitainek zeraukaten gortez inguraturik.

2
Kapitainak yoan ziren beren zaldiak harturik,
hartu zuten anderea mantoz ontsa trozaturik,
Pariserat ereman zuten aitak jakin gaberik.

3
Parisen ostaliersak bazuen salutatu,
bazuen salutatu, berriak ere galdatu:
–Bortxaz ala amodioz jina zara? Anderea, errazu.

4
–Ez, ez, ene bihotza arras bortxaz jina duzu:
hirur kapitainek galeriatik harturik jina nuzu,
[hirur kapitainek galeriatik harturik jina nuzu.]

5
Kapitainek hori entzunik jiten dire andereagana:
–Anderea, afal zite, eztirik[1] eta trankilik.
Hirur kapitain izanen tuzu gaur zure zerbitzari[2].

6
Anderea, hori entzunik, hila zuzun erori[3].
Kapitainak joan ziren beren zaldiak harturik,
nigar egiten zutelarik, andereari[4] dolu eginik.

7
Handik hiru egunen buruan andereak aitari oihu:
–Ai, aita, ni orai hemen nagozu,
birjinitatea nahiz begiratu, hilaren egon nuzu.

[1] Transkribatzaileak *eztirik* hitzaren ondoren *baina* jarri eta ezabatu du. Irakurketa, era horretara, *eztirik eta trankilik* dugu.

[2] Jatorrizko testu idatzian *serbitzari* dator. CPV argitarapenean *zerbitzari*.

[3] Esaldi honetan bi aukera daude. Bata, *anderea, hori entzunik, hila zuzun erori;* eta, bestea, *andereak hori entzunik, hila zuzun erori*. Transkribatzaileak andereak jarri du lehen idatzialdian, gerora –a handiago batez *anderea* zuzendu du.

[4] Transkribatzaileak lehen idazkeran *andereak* idatzi du; gerora, ergatibo marka zuzendu eta datiboan jarri du: *andereari*.

ABA-RMA-001-0002-001



ABA-RMA-001-0002-002

7. CHAHO ETA *ARROSA XURIAREN AZPIAN* BALADA

Balada honen lehen testigantza, guk dakigula, Chaho zuberotarrarena dugu. Testigantza horrek behin eta berriroko aipamenak izan ditu. Zein da bada, testigantza hori eta non aurkitzen da? *Biarritz, entre les Pyrénées et l'Océan; itinéraire pinttoresque*. Bayonne: A. Andreossey, (1855) (2 vols., 18 cms.) bi liburuetako batean agertzen dena da. Hona hemen guri dagokigun pasartea (bigarren tomoa, 180. orrialdea) (Chaho: 1855):

> "Il n'est pas moins rare que l'amour ou la passion qui usurpe parfois ce titre, amènent chez les Basques le rapt et lest enlèvements de vive force ou par trahison. L'histoire de la jeune demoiselle enlevée par trois capitaines ou mousquetaires, a laissé une légende fort touchante: elle a le ton et la couleur de la fin du seizième siècle.
>
> La jeune personne s'est endormie au milieu des roses blanches: elle-même est aussi blanche que le lis et la neige, belle comme un soleil. C'est le barde qui parle. Les mousquetaires qui la guettaient fondent sur elle, l'enveloppent dans un manteau, et l'emportent rapidement à Paris. On la dépose dans un appartement éclairé par cent bougies.
>
> De belles peintures, des dorures éblouissantes et de grands miroirs de Venise qui redoublent cette grande clarté, frappent les regards de la jeune souletine. Sur une table couverte de vaisselle plate sont des bouquets de fleurs, des flacons de cristal et tous les apprêts d'un somptueux festin. Mangez et buvez sans crainte lui disent les trois corsaires. La jeune fille, à ce mot, jette un cri d'horreur et tombe morte. Les ravisseurs sortent de l'appartement, les larmes aux yeux, comprenant trop tard le crime abominable qu'ils ont commis.
>
> Hirour egunen burian,
> Hilak oihu aitari:
> -Aita, entzun nezazu,
> Othoi, sinhetsi behar duzu;
> berthutia beguiratu nahiz
> hilik egona nuzu.
>
> -Au bout de trois jours, la morte fait un cri à son pére. Ecoutez-moi, père, de grâce; vous devez le croire; c'est le vif desir de préserver ma vertu que je suis restée morte (à Paris)".

Pasarte hau batek baino gehiagok ekarri du, gorago esan dugunez. Louis Dassancek, esaterako, badakar (ikus *Gure Herria* "Elhorri churiaren azpian" Buruila-Urria 1931, gehigarri musikala).

Augusti Chahok kantu baten berri harrigarria dakar. Zehaztasun ikaragarriak eman ondoren, kanta pusketa bat baino ez du gehitzen. Kanta osorik nolakoa ote da? Chahoren kantutegiko kanta lehenbiziko aldiz argitaraturik Antonio Zavalaren baladategian ikusi dugu. Chahoren eredu argitaratu berriarekin nahaste hor-han-hemen sakabanaturiko ereduak ere badakartza (ikus 257-272. orrialdeetan). Baina Antonio Zavalak eskaintzen digun Chahoren eredua ez da lehen eskukoa, ez da Chahoren bildumatik hartua, Louis Dassanceren kopia batetik baino. Badago besterik ere, Chahok ez dakar *Arrosa xuriaren azpian* baladaren eredu bakarra. Chahoren kantutegian bi eredu behintzat badaude. Chahoren kantutegian bi eredu badaude, zein eredu hartu du Dassance-k? Ez lehena ez bigarrena, bi ereduen nahasketa bat baizik. Guk geure lan honetarako bi ereduak transkribatu eta iruzkinduko ditugu.

Atal honetan, beraz, bi ereduen lehen eskuko transkripzioak eman nahi ditugu. Bi ereduotan ez da agertzen frantsesezko azalpenean datorren dotorezia barrokorik; ez da agertzen ehun kandelak argitutako kanberarik; ez da agertzen pintura polit eta doratu itsugarririk; ez dira agertzen Veneziako mirail handiak; ez eta mahai gaineko zilarrezko ontziteria, ez eta lili-buket ederrak; ez eta kristalezko flakonak…

Baina bere xumean polit bezain erakargarri ez denik ezin uka. Esan beharrik ez dago bi eredu hauek Zuberoako euskarazkoak direla.

8. CHAHOREN KANTUTEGIKO LEHEN EREDUA

Lehen eredua 70. zenbakiari dagokiona da. Chahoren kantutegian 112/240 argazkian dator. Eredu hau orrialde bakarrean agertzen da eta zortzi ahapaldi ditu. Ahapaldi horiek ez daude zenbakiturik. Zenbakitzea, lanaren argigarri, gurea da. Badago datu garrantzitsu bat. Eredu hau ezabatua dago, goitik beherako marrak edo arraiak dituela. Zortzi ahapaldi agertzen dira eredu ezabatu honetan, baina begi aurrean ikusten dugun argazkia bi orri elkarri itsatsi ondoren egina da. Bosgarren ahapaldiaren lehen bi bertso-lerroak ez dira ikusten. Zergatik? Goiko orriari itsatsi ondoren bi bertso-lerro ez daudelako ikusteko moduan. Hona beste gabe lehen eredua:

1
Arrosa chouriaren artian
anderia louac hartu
Elhurra beçaïn chouriric
Ekhia becaïn ederric
hirour kapitain Çaudian
khortez inganaturic.

2
Kapitaïn hetaric batec
Çaldiala alchatu
aberiala alchatu eta
Mantouas ounxa trossatu
Pariserat Phartitu
aïtac ez deus jakintu.

3
Parisera heltu Nintzanian
ostalersac salutatu
banindiçun salutatu
baï eta Berriac Galthatu
Bortchas ala amourioz
yina ciren erraçu

4
Kapitaïngnac entçun cienian
khamberan nundien sarthu
anderia yan eçaçu
Phaussus eta trankilki
hirour kapitaïn bagutuçu
gaur çoure serbutchari

5
Aspaldian desir niena
oraï diçut gogatu
houra gogatu ezdudano
gaïc eztit mancatu.

6
Baratçian eïjer deya
yilofreya doratu
Aspaldian desir zunina
orai ducia gogatu
satisfatu cirenian
berria khounta eçaçu

7
Anderiac hori entçun cienian
hilic lurrerat errori
kapitaïnac ere baï youan
bere armac harturic
Nigarres ari cielaric
anderia hilgatic

8
Hirour egunen burian
hilac oïhu aïtari
Aïta entçun ezaçu
othoï plazer baduçu
birginitatia beguiratu nahiz
hilic egona nuçu.



Arrosa xuriaren azpian balada. Chahoren kantutegiko lehen eredua.

9. CHAHOREN LEHEN EREDUAREN AHAPALDIZ AHAPALDIKAKO IRUZKINA

Puntu honetan lehen ereduko ahapaldi guztiak iruzkinduko ditugu. Gure iruzkinak bi alderdi jorratuko ditu, transkripzio alderdia eta esangurarena.

1

Arrosa chouriaren artian
anderia louac hartu
Elhurra beçaïn chouriric
Ekhia becaïn ederric
hirour kapitain Çaudian
khortez inganaturic.

Lehen ahapaldi honek ez digu buruhauste handiegirik eman. Letra argi xamarra dela ere, dena ez dago erabat argi. Hizki larriak eta xeheak nahasi xamar ikusten ditugu. Eman dezagun kasurako *Elhurra* eta *Ekhia* hitzak. Hitz hauek "E" hizki larriaz idatzirik daude, *Arrosa* hitzaren lehen *A–* bezala. Gainerako hizkiak denak ikusi ditugu letra xehez. Badago beste konturik ere c zedilladuna (ç) gehienetan erraz nabarmentzen da. Zergatik? Hizkiaren azpiko marra garbia bezain bihurria delako. Argi ikusten dugu, beraz, lehen *beçain* hitzaren lehen agerreran eta *Çaudian* delakoan. Bigarren *becain* horretan, aldiz, ez. Horrexegatik ez dugu lehen transkripzio honetan hizki hori itxuratu. Transkribatzaileak bi puntu jartzen ditu *–i–* hizkiaren gainean (ï) frantsesez bezala ez irakurtzeko euskal testua. Euskaraz *kapitain* hitza irakurri nahi bada –tain– silabako bi bokalak ahoskatuz, frantseseko *capitain* hitza bezala ez irakurtzeko *–i–* hizkiaren gainean puntu bi jarri ohi zen. Lehen bi *beçaïn* hitzetan argi ikusten dira bi puntuak, *kapitain* hitzean, aldiz, ez. Hurrengo ahapaldian, ordea, *kapitaïn* hitzean argi ikusiko ditugu bi puntuak.

2

Kapitaïn hetaric batec
Çaldiala alchatu
aberiala alchatu eta
Mantouas ounxa trossatu
Pariserat Phartitu
aïtac ez deus jakintu.

Bigarren ahapaldi honetan badira kontu argigarri zenbait. Neskatila *zaldira* altxatzen dute. Nora kasua, adlatiboa, Zuberoako euskaran *-ala(t)* dugu. Bihurkia egiteko orduan, ordea, ez dute zaldi hitza errepikatzen eta "hiponimoa" erabili beharrean, hau da, *zaldia*, hiperonimoa darabil, *aberea*. *Çaldiala* idatzi baino lehen *Ab–* idazten hasi denez gero, badirudi *Aberiala* idaztera zihoala eta gainean *Çaldiala* idatzi duela. Azken ahapaldian, *Ez aïtac jakintu* idatzi du lehenengo, gero hasierako *Ez* ezabatu ondoren, *aïtac* eta *jakintu* hitzen artean *ez deus* idatzi du. Lehen ahapaldiko *Çaudian* hori bigarren ahapaldian datorren *Çaldiala* bera ote da? Lehen ahapaldian *Çaldian* irakurri beharko dugu? Grafiari buruz *ounxa* adberbioa Baxenafarroako *ontsa* da.

3

Parisera heltu Nintzanian
ostalersac salutatu
banindiçun salutatu
baï eta Berriac Galthatu
Bortchas ala amourioz
yina ciren erraçu

Duda bat baino gehiago ditugu ahapaldi honetan. Zer ote da *ostalerrac* edo *ostalersac*? Bi erre irudikatzen dituenean, azken errea idaztean beste hitzarekin lotzen du. Badirudi, beraz, *ostalersak* dela. Lehenengo *salutatu* hitza idatzi baino lehen *galthatu* idatzi du. *Galthatu* hau ezabatuxe ikusten da eta transkribatzaileak ondoan *salutatu* idatzi du. Konturik harrigarriena *bortchas ala amourioz* horretan dago Guk lehenean *–s* irakurtzen dugu eta bigarrenean *–z*. Biak ala biak instrumental formadunak izan arren, desberdin ikusten ditugu. Morfologiari dagokionez, kontu bitxi bat baino gehiago daude. *Parisera* forman ez dugu ikusten aurreko ahapaldian darabilen atzizkirik *–lat*. Aditz jokatuari gagozkiola, *heltu Nintzanian* gure *nentorrenean* adizkiak duen aspektua adierazten du.

4

Kapitaïngnac entçun cienian
khamberan nundien sarthu
anderia yan eçaçu
Phaussus eta trankilki
hirour kapitaïn bagutuçu
gaur çoure serbutchari

Ahapaldirik garbienetakoa da transkribitzeko orduan. Lehen idazkeran *Kapitaïn entçun cienian* idatzi du. Ergatiboaren marka jartzeko *Kapitaïn* hitzaren gainean *gnac* jarri du. Zalantzagarria gertatu zaiguna *cianian* edo *cienian* ote den da. Antzeko problema da *nundian* edo *nundien* ote den? Hirugarren pertsona singularra denez gero, kasu bietan –a– baderitzagu ere –a– delako hori –e– bihurtu da. Zentzuaren aldetik Zuberoako *gaur* adberbioak *gau honetan* adierazten du.

5

Aspaldian desir niena
oraï diçut gogatu
houra gogatu ezdudano
gaïc eztit mancatu.

Ahapaldi hau ez dugu osorik ikusten. Lehen bi lerroak gaineko orriak estaltzen ditu. Orijinalera jo ezik, ezin ikus daiteke zer den. Zer ulertzen da hemen? “Aspaldian nahi nuena/ orain dut lortu/ hura lortu arte/ gaurik ez dut hutsik egin”. Interesgarria da “gaurik” esateko *gaik* dioela *gai* hitza kontsonantez bukatua balitz bezala.

6

Baratçian eïjer deja
jilofreya doratu
Aspaldian desir zunina
orai ducia gogatu
satisfatu cirenian
berria khounta eçaçu

Kopla zaharren teknikako irudia dugu ahapaldi honen haseran: (Non zer eder). Zuberoako euskaran, gainera, fruitu baten izenak (zitroin, jirofreja eta abar) partizipio ezagun bat darama, *doratu* hain zuzen. Uste izatekoa da *doratu* aditza *loratu* hitzetik etorria izango dela. Adizkiei dagokienez, *zunina* forma *zuniana* baten laburdura da, gure estandarreko *zenuena*.

7

Anderiac hori entçun cienian
hilic lurrerat errori
kapitaïnac ere baï youan
bere armac harturic
Nigarres ari cielaric
anderia hilgatic

Hemen ere goragoko problema bera izan dugu. Zer irakurri behar dugu *cienian* edo *cianian*? Aurrekoetan bezala *cienian* transkribatu dugu. Harrigarria da balada berean adlatibo kasua hiru modu diferentetan emana izatea: *–ala* (*çaldiala, aberiala*), *–ra* (*Parisera*) eta *–(e)rat (lurrerat*).

8

Hirour egunen burian
hilac oïhu aïtari
Aïta entçun ezaçu
othoï plazer baduçu
birginitatia beguiratu nahiz
hilic egona nuçu.

Ahapaldi honetan ez dugu inolako problemarik izan transkribitzean. Harrigarria da nola transkribatu duen Chahok *Biarritz*… liburuan. Harrigarria *birginitate* hitza transkribatu beharrean *bertute* hitza jartzen duelako.

10. LEHEN EREDUA GAURKO ORTOGRAFIAN

Puntu honetan Chahoren lehen eredua gaurko ortografiara ekarriko dugu. Bigarren transkripzio hau lehenean oinarritua dago eta lehena da funtsezkoa.

1

Arrosa xuriaren artian anderia luak hartü
elhürra bezain xuririk ekhia bezain ederrik,
hirur kapitain[ek] zaudian khortez inganatürik.

2

Kapitain hetarik batek zaldiala al(t)xatü,
aberiala al(t)xatü eta mantuaz untsa trosatü,
Pariserat phartitü aitak ez deus jakintü.

3

Parisera heltü nintzanian, ostalersak salütatü
banindizün salütatü/ bai eta berriak galthatü:
–Bortxaz ala amurioz jina ziren errazü.

4

Kapitaiñak entzün zianian, khanberan nündian sarthü.
–Anderia, jan ezazü phausüz eta trankilki:
hirur kapitain bagütüzü gaur zure zerbütxari.

5
–Aspaldian desir niena orai dizüt gogatü
hura gogatü ez düdano gaïk ez dit mankatü.

6
Baratzian eijer deia yilofreya doratü!
–Aspaldian desir zünina/ orai düzia gogatü?
Satisfatü zirenian/ berria khunta ezazü!

7
Anderiak hori entzün zianian hilik lürrerat erori
kapitainak ere bai juan bere armak hartürik
nigarrez ari zielarik anderia hil(a)gatik.

8
Hirur egünen bürian, hilak oihu aitari:
–Aita, entzün (n)ezazü, othoi, plazer badüzü.
Birjinitatia begiratü nahiz hilik egona nüzü.

11. CHAHOREN BIGARREN EREDUA

Bigarren eredua ere gainean marra batzuk dituela agertzen da. Bigarren eredu honek sei ahapaldi besterik ez ditu. Lehen hiru ahapaldiak, gainera, osatu gabe agertzen dira. Badago beste kontu bat ere: eredu honetan tildeak ikusten ditugu. Tilde hauek ere transkribatu nahi izan ditugu gure lehen transkripzio saio honetan. Hona hemen:

1
Elhurra beçaïn chouri
Ikuskia beçaïn ederrik
hirou capitaïn nindicien
bortchaz engana aci

2
Parizen ostalersa batek
Nahi oukhan nindïen salutatu
Eta beriak galdatu
bortchaz ala amodioz
Andéria yina cira çu

3
Ez, ez éné bihotça
arraz bortchaz yina nuçu
Hirou capïtagnek harturik
yina nuçu

4
Hirou capitagnac hori éngunic
andéria ganat lazter
andéria ahauil cité
Ezti éta tranquilqui
Hirou capitan baguitçu
gaür çoure cherbitchari

5
Andériak hori engunik
Hila çuçun erori
Capitaïn horiek youan ciren
Béré trompétac harturik
Oungui nigar eïten cutélarik
Andériak dolu éguinik.

6
Hirou egun en burian
Hila aïtari oïhu
Aïta engunéçaçu
Eta chinetchi behar duçu
Birgin[it]atia beguiratu nahiz
Hila egona nuçu





Arrosa xuriaren azpian balada. Chahoren kantutegiko bigarren eredua.

12. CHAHOREN BIGARREN EREDUAREN AHAPALDIZ AHAPALDIKAKO IRUZKINA

Chahoren lehen ereduarekin jokatu dugun bezala jokatuko dugu bigarrenarekin. Bigarren eredu hau ere ahapaldiz ahapaldi iruzkinduko dugu.

1

Elhurra beçaïn chouri
Ikuskia beçaïn ederrik
hirou capitaïn nindicien
bortchaz engana aci

Baditu ahapaldi honek argi hainbat itzal. Lehen bertso-lerroan beharbada "chouriric" ikusi nahiko genuke, bigarren bertso-lerroko *ederrik* horren parean. Argi bezain garbi ikusten dugu *ikuskia*. Zergatik idatzi ote da hola, *ekhi* hitzaren analogia edo kutsaduraz? Harrigarria da, era berean, kapitain hitzak ez dakarrela *–ec* ergatibo marka. Adizkiei dagokienez, *nindicien* forma zukakoa da. *Ninduten* formaren (haiek ni) parekoa da. *Ninduten* forma *ninduzuten* litzateke zuka erara. Baina subjektu trantsitibo pluraleko *–te* marka Zuberoako eta Bizkaiko euskaran –e denez gero, *ninduzuen* sortzen da. *Ninduzuen* honetatik dator "nindizien".

2

Parizen ostalersa batek
Nahi oukhan nindïen salutatu
Eta beriak galdatu
bortchaz ala amodioz
Andéria yina cira çu

Bigarren ahapaldi hau lehen ereduko ahapaldiaren antzekoa da. Adizkiei dagokienez, *nindien* irakurtzen dugu. Euskara estandarreko "ninduten" adizkiaren baliokidea. Ez da lehen ahapaldian bezala zukako adizkia "ninduzu(t)en". Duda bat izan dugu ahapaldi honen transkripzioan. Zer dio *amodioz* ala *amudioz*? Badirudi *–o–* ez duela itxi goi aldean. Eta *–u–* bokaleak beste era batera egiten dituenez gero, *amodioz* transkribatu dugu.

3

Ez, ez éné bihotça
arraz bortchaz yina nuçu
Hirou capïtagnek harturik
yina nuçu

Ahapaldi hau ez da osoa. Komunztadurari dagokionez ere badu bitxikeriarik. "Ene bihotza" zer da deiki edo deigarria; hau da, ostalersari dagokion atributiboa edo "jina izan" aditzaren subjetua? Inolako dudarik gabe bigarrena da gainerako ereduetan ere halaxe ulertzen da eta. Modu horretara, *ene bihotça arraz bortchaz jina duçu* izan beharko luke.

4

Hirou capitagnac hori éngunic
andéria ganat lazter
andéria ahauil cité
Ezti éta tranquilqui
Hirou capitan baguitçu
gaür çoure cherbitchari

Hiru zenbakia lehen aldaeran azken *–r* duela ikusten dugu. Oraingo gure bigarren eredu honetan agertzen den aldi guztietan, lehen ahapaldian eta hirugarrenean, gabe ikusten dugu.

5
Andériak hori ençunik
Hila çuçun erori
Capitaïn horiek youan ciren
Béré trompétac harturik
Oungui nigar eïten cutélarik
Andériak dolu éguinik.

Ahapaldi honek ez digu arazorik eman transkribatzeko orduan. Badago gauza bat baino gehiago iruzkintzeko. Chahok *Bere trompetak harturik* bildu zuen. A. Donostiak *beren tropak harturik* (*Yakintza* aldizkariko bersioan). Lehenak edo bigarrenak du zentzu gehiago? Bigarrenak gure ustez. Beste alde batetik, *Anderiari dolu eginik* edo *anderiak dolu eginik* du zentzu gehiago? Aita Donostiak Chahok bezala dakar *anderiak dolu eginik*. Bigarren aldaki horrek ere badu bere zentzua.

6
Hirou egun en burian
Hila aïtari oïhu
Aïta ençunéçaçu
Eta chinetchi behar duçu
Birgin[it]atia beguiratu nahiz
Hila egona nuçu

Harrigarria den arren, azken ahapaldi honetan ere ergatiboa falta da. Bigarren bertso-lerroan *Hilac aïtari oïhu* behar luke, eta ez dugu horrelakorik ikusten. Ulermenari dagokionez, nola behar luke: *aïta, ençun eçaçu!* edo *aïta, ençun neçaçu!*? Kontua da oposizio hori neutralizatu egiten dela entzun aditza –n batez bukatzen delako. Transkripzio guztietan, baita Chahok ere egiten duenean *Biarritz*… liburuan, *entzun nezazu* agertzen da. Azken lerroari gagozkiola, transkribatzaileak lehen idazkeran *Hilic egona nuçu* jarri du. Baina bigarren idazkera batean *Hila* jarri du.

13. CHAHOREN EREDUA GAURKO ORTOGRAFIAN

Puntu honetan lehen dokumentuko testua gaurko ortografiara ekartzen saiatuko gara.

1
Elhürra bezain xuri, igüzkia bezain ederrik,
hiru kapitain[ek] nindizien bortxaz engana azi.

2
Parisen ostalersa batek nahi ükhan nindien salütatü
[nahi ükhan nindien salütatü] eta ber[r]iak galdatü:
–Bortxaz ala amodioz, anderia, yina zira zü?

3
[.....]
–Ez, ez ene bihotza, arras bortxaz yina nüzü.
Hiru kapitañek hartürik yina nüzü

4

Hiru kapitañak hori entzünik anderia ganat laster.
–Anderia, ahail zite ezti eta trankilki,
hiru kapitan bagitzü gaur zure xerbitxari.

5

Anderiak hori entzunik hila züzün erori.
Kapitain horiek juan ziren bere tronpetak hartürik,
ungi nigar eiten zütelarik anderiak dolü eginik.

6

Hiru egünen bürian hila(k) aitari oihü:
–Aita, entzün nezazü eta xinetxi behar düzü
birjin[it]atia begiratü nahiz hila egona nüzü.

14. CHAHOREN HIRUGARREN EREDUA

Chahoren hirugarren eredua 167/240. zenbakian agertzen da. Eredu hau, aurreko biak ez bezala, ez dago ezabaturik, letra garbian baino. Eredu honek bi zenbaki daramatza: alde batetik eredua bera transkribatu duen letra berarekin 32 zenbakia, eta beste zenbaki-molde batekin 100 zenbakia. Badirudi eredu hau lehen eta bigarren ereduak ardatz harturik egina dela. Bestela esan, lehen eta bigarren ereduak garbira pasaturik da hirugarrena. Garbi dago bestalde Arxüren ortografia sisteman transkribatua denez gero, Arxürena berarena dela. Azken aurreko *eghinik* eta azken ahapaldiko *beghiratu* hitzak transkribatzeko ortografia-sistemak argi salatzen du Arxüren eskua. Hona lehen transkripzioa:

(1)

Arrosa chouriaren artian
Anderia louak hartu
Elhurra bezaïn chouririk
Ekhia bezaïn ederrik
Hirour kapitaïn zaüdian
Khortes inganaturik.

(2)

Kapitaïn hetarik batek
Zaldiala alchatu
Aberiala alchatu eta
Mantouaz ountsa trozatu
Pariserat phartitu.
Aïtak ez deüs jakintu.

(3)

Parisera heltu nintzanian
ostalera aitzinatu
Baninduzun salutatu
Bai eta berriak galthatu
Bortchaz ala amorios
Jina ziren errazu?

(4)

Kapitagnak entzun zienian
Khanberan nundien sarthu
Anderia jan ezazu
Phaüsaz eta trankilki
Hirour kapitain bagutuzu
Ghaür zure zerbutchari.

(5)

Anderia hori entzunik
Hilik lurrerat erori,
Kapitaignak ere baï jouan
Bere ezpatak harturik,
Nigarrez ari zirelarik
Anderiari dolu eghinik.

(6)

Hirur egunen burian
Hilak oïhu aïtari
Aita entzun nezazu
Othoï sinhetzi behar duzu
Berthutia beghiratu nahiz
Hilik egona nuzu.



Arrosa xuriaren azpian balada. Chahoren kantutegiko hirugarren eredua.

15. CHAHOREN HIRUGARREN EREDUA AHAPALDIZ AHAPALDI

Puntu honetan hirugarren balada hau iruzkinduko dugu. Hirugarren eredua lehen ereduaren antzekoa denez gero, lehen ereduarekin batez ere konparatuko dugu.

1
Arrosa chouriaren artian
Anderia louak hartu
Elhurra bezaïn chouririk
Ekhia bezaïn ederrik
Hirour kapitaïn zaüdian
Khortes inganaturik.

Lehen ahapaldia lehen ereduko bera da. Ez dago inolako aldaketarik batetik bestera. Zer adierazten ote du *zaüdian* adizkiak? Gainerako ereduetan *deramate*, *zeramaten* ikusten da. Zuberoako euskaran *zeroadean* batetik datorrela uste dugu. Zuberoako euskaran *eroan* da aditza Bizkaiko aditza bezala. *Zeroaden* batetik etor liteke. Uste hau ez da erabatekoa.

2
Kapitaïn hetarik batek
Zaldiala alchatu
Aberiala alchatu eta
Mantouaz ountsa trozatu
Pariserat phartitu.
Aïtak ez deüs jakintu.

Bigarren ahapaldia ere lehen eredukoaren berdin-berdina da. Transkripzioaren aldetik azken lerroan *deü–* berban ez da ondo ikusten azken letra.

3
Parisera heltu nintzanian
ostalera aitzinatu
Baninduzun salutatu
Bai eta berriak galthatu
Bortchaz ala amorios
Jina ziren errazu?

Lehenengo ereduko ahapalditik honetara lerro bat bakarrik aldatu da. Lehen ereduan *ostalerrak salutatu* zen, gurean *ostalera aitzinatu*. Gainerakoan guztiz berdina da.

4
Kapitagnak entzun zienian
Khanberan nundien sarthu
Anderia jan ezazu
Phaüsaz eta trankilki
Hirour kapitain bagutuzu
Ghaür zure zerbutchari.

Ahapaldi hau ere lehen ereduko laugarren ahapaldiaren berdina da.

5

Anderia hori entzunik
Hilik lurrerat erori,
Kapitaignak ere baï jouan
Bere ezpatak harturik,
Nigarrez ari zirelarik
Anderiari dolu eghinik.

Ahapaldi honetan daude desberdintasunik handienak. Lehen ereduan *Kapitaïnac ere bai jouan bere armac harturic;* gure eredu honetan *bere ezpatak harturik*. Lehen ereduan negarrez ari dira *anderia hilgatic*; gure ereduan *Anderiari dolu eghinik*. Bigarren ereduan *anderiak dolu eguinik* dator. Ahapaldi hau bigarren ereduaren gainean eraikia dagoela dirudi.

6

Hirur egunen burian
Hilak oïhu aïtari
Aita entzun nezazu
Othoï sinhetzi behar duzu
Berthutia beghiratu nahiz
Hilik egona nuzu.

Hemen ere lehen eredutik aldaketa nabarmenak daude. Lehen ereduan *Aïta entçun ezaçu* dator; gure ereduan *Aita entzun nezazu*. Lehen ereduan *Othoï plazer baduçu*; gurean *Othoï sinhetzi behar duzu*. Lehen ereduan *birginitatia beghiratu nahiz hilic egona nuçu*; gurean *Berthutia beghiratu nahiz hilik egona nuzu*. Bigarren ereduan ere *Birgin[it]atia beguiratu nahiz* dator.

16. HIRUGARREN EREDUA GAURKO ORTOGRAFIARA EKARRIRIK

1

Arrosa xuriaren artian anderia luak hartü
elhürra bezain xuririk ekhia bezain ederrik,
hirur kapitain[ek] zaudian khortez inganatürik.

2

Kapitain hetarik batek zaldiala al(t)xatü,
aberiala al(t)xatü eta mantuaz untsa trosatü,
Pariserat phartitü aitak ez deus jakintü.

3

Parisera heltü nintzanian, ostalera aitzinatü
banindizün salütatü bai eta berriak galthatü:
–Bortxaz ala amorioz jina ziren errazü.

4

Kapitaiñak entzün zianian, khanberan nündien sarthü.
–Anderia, jan ezazü phausüz eta trankilki:
hirur kapitain bagütüzü gaur zure zerbütxari.

5

Anderia hori entzünik hilik lürrerat erori
kapitainak ere bai juan bere ezpatak hartürik
nigarrez ari zirelarik anderiari dolü eginik.

6

Hirur egünen bürian, hilak oihu aitari:
–Aita, entzün nezazü, othoi, sinhetsi behar düzü.
Berthütia begiratü nahiz hilik egona nüzü.

17. CHAHOREN EREDUAK ETA BESTE BALADA BATZUK: BATERATASUNAK

Kontu jakina da ahapaldi bera lerratzen dela, zenbaitetan, balada eredu batetik bestera. Antonio Cidek bere "Balada vasca y romancero castellano" artikuluan hainbat adibide ematen ditu. Lerratze kontu honetan badira adibide gehiago ere. Guk geure lan honetan adibide bat gehiago emango dugu. "Neska ontziratua baladaren eredu zahar-berriak" lanean *Idatz & Mintz* 36. genuen bigarren ereduko VIII. ahapaldia honakoa hau da:

Marinella Marinella
Thira eçac ountcia
Aspaldian desir niana
Yin duc bera escura
Aspaldian desir niana
Yin duc bera escura (bis)

Ahapaldi honek baditu bere kideak. Hor dugu *GH* 1921. urteko (*ERRV*-ko I. eredua):

–Nere mariñel ona, heda zak, heda, bela!
Beti nahi nuena jina zaitak aldera,
Beti nahi nuena jina zaitak aldera

Ahapaldi honek baditu kidetasun nabariak bestaldeko beste hainbat eredutako ahapaldi jakin batekin. Denak ezin ekarriko digutu hona. Eraskusgarri bitxitzat dakargun Bizkaiko eredu batean, Dimako aldaeran (*ERRV*-ko XIII. ereduan), agertzen den IX. ahapaldia:

Neure lagunok, bai marinelak, ate au idigi dezu,
mila urtean ezin dodana oraintxe dut logratu.

Ahapaldi hauetan guztietan bi kontzeptu behintzat adierazten dira: bata *nahi izan dena*. Nahi izate hori aspaldikoa da. Gure *Idatz & Mintz* ereduan *aspaldian* hitza dator. Hona aldatu dugun *GH* ereduan *beti nahi izan* dator. Bizkaiko ereduan *milla urtean*. Kasu guztietan beraz "luzaro" nahi izan da zerbait. Bigarren kontzeptua da nahi izan den hori lortu egiten dela. Guk argitaratu dugun ereduan *Yin duk bera escura* dio. Guk "bera" bakarrik edo *berez* itzuliko genuke. *GH* 1921eko ahapaldian ere *jina zaitak aldera* dio. Bizkaiko ereduan *oraintxe dot logratu*. Bi kontzeptu horiek bateraturik agertzen dira Zuberoako gure lan honetako lehen ereduan.

Ahapaldi honek antzekotasun handia du gure lehen ereduko bosgarren eta seigarren ahapaldiekin.

5
Aspaldian desir niena
oraï diçut gogatu
houra gogatu ezdudano
gaïc eztit mancatu.

6
Baratçian eïjer deya
yilofreya doratu
Aspaldian desir zunina
orai ducia gogatu
satisfatu cirenian
berria khounta eçaçu

Bi ahapaldi hauetan ideia berak ia hitz berekin agertzen dira *Aspaldian desir niena* lehenago ere ikusia genuen *Brodatzen ari nintzen* baladan. Lortu esateko *logratu* zioen Bizkaiko baladan, gure oraingo honetan *gogatu* dio. Are gehiago esango genuke. Ideia biak lotzen dituen ahapaldia gure aldaera honetan garatuago agertzen da. Zergatik? Neskatilaren erantzuna ere baduelako 6. ahapaldian. Zuberoako amodiozko kanta batean baino gehiagotan agertzen dira *desir* eta *gogatu* ideiak loturik. Hitz bi horiek, gainera, mutilaren ahoan agertzen direnez gero, desiratzen dena neskatilaren amodioa da eta gogatzen dena amodioa gauzatzea izaten da. Eman dezagun, kasurako, *Arengaraiko primaren khantoria* konposizioaren lehen ahapaldia (Haritschelhar: 1969-1970):

Ahaire zahar huntan bi berset berririk,
Alagrantziareki khantatü nahi tit;
Bihotza libratürik phena orotarik,
Desir niana beitüt orai gogatürik.

Bi kontzeptuak "desir ukhen" eta "gogatü" aditza batera ez ezik, aditz denbora eta "orai" adberbioa ere agertzen dira. Bateratasuna, beraz, ezin da handiagoa izan. Ideia horien gainean behin eta berriro egiten da indar kantorean. Bigarren ahapaldian, esaterako: *Ihurk etzin erranen, ezpeitzin üdüri,/ Gogatüren niala maitia jagoiti.* Laugarrenean ere ideia bera ikusten dugu: *Neskatilak beitira ordian handius,/ Bena gogatzen dira lüzin inganioz*.

Baina kontuak honetara, antzekotasun beteago ez ezik bateratasun hitz hitzezkoagoa du *Egüntto batez nindaguelarik* amodiozko kantuarekin. Eman ditzagun adibidetzat Sallaberriren 1870ko edizioko (76, 78. or.) bosgarren eta seigarren ahapaldiak:

–Baratzian zuiñen eijer jirofleia loratü!
Aspaldian desir niana orai dizüt gogatü;
Hura gogatü eztüdano gaiik eztizüt mankatü.

–Baratzian eijer deia jirofleia loratü?
Aspaldian desir züniana orai düzia gogatü?
Zerbütchatü zirenian berria khunta ezazü.

Kontuak honetara, kontaminazioaz edo kanta batean eta bestean agertzen diren ahapaldiez hitz egin dezakegu? Edo bestela esan, ahapaldien transmisio edo lerradura ote da? Hitzez hitzekoa denean, ez dago dudarik. Ideia berak direnean ahozkotasunaren izaterik behin edo funtsezkoena denik ezin uka. Ahapaldi hauek, esaterako, ez ote dute antzekotasun aparta harako Bizkaiko Marijesietako hasiera harekin?

Hogeta laugarrena
dogu abenduan,
desio genduena
logradu genduan.

Marijesietako kopla hau ezaguna dugu. Karmelo Etxenagusiaren *Euskerea nire bizitzan* liburutik aldatu dut hona. Marijesi-kopla hau Iurretakoa da eta beste Bizkaiko marijesi-koplak bezalakoxea da, hitzez-hitz. Ideia aldetik, ordea, gure balada eta amodiozko kantetako kontzeptuak dakartza "desio ukan" eta "logradu". Eta kontzeptuak aipagai ditugula *Perretxikotan nenbilenean* (*ERRV*, 453. or.) agertzen den hasiera hark ere ez du gure baladarekin antzekotasunik:

Perretxikotan nebilenean
Mendiolako basoan,
dama gazte bat aurkitu neban
elorri baten alboan.

Hemen gure *Arrosa xuriaren azpian* bezalaxe, dama bat aurkitzen dute elorri baten azpian edo artean izan beharrean, elorri baten ondoan… Aldaerak ere beti dira beste zuhaitz batzuei dagozkienak *kiñerra baten ondoan*, *areiztxo baten ondoan*, *gorosti baten ondoan*...

18. *ARROSA XURIAREN AZPIAN* BALADAREN AZKUEREN EREDUA

Azkueren kantutegiko aleen artean Donazaharreko Dominika Urrutiri bildutako balada bat aldatuko dut hona. Baladaren transkripzioa egiteko CPV laneko 821. kantura joan beharrean, argitasun gehiagoren bila, Azkueren eskuizkribuetara jo dugu. Gure kantua osatzeko bi dokumentu aztertu ditugu. Bata, ABA-RMA-001-0002-001, lehen eta laugarren ahapaldiak osatzeko; bestea, ABA-RMA-001-0002-002, gainerako ahapaldi gehienak zehazteko. Hona *Arrosa xuriaren azpian* balada zaharra:

1
Arrosa xuriaren azpian, anderia lokhartu,
elurra bezain xuri iruzkia bezain ederrik,
hirur kapitainek zeraukaten gortez inguraturik.

2
Kapitainak yoan ziren beren zaldiak harturik,
hartu zuten anderea mantoz ontsa trozaturik,
Pariserat ereman zuten aitak jakin gaberik.

3
Parisen ostaliersak bazuen salutatu,
bazuen salutatu, berriak ere galdatu:
–Bortxaz ala amodioz jina zara? Anderea, errazu.

4
–Ez, ez, ene bihotza arras bortxaz jina duzu:
hirur kapitainek galeriatik harturik jina nuzu,
[hirur kapitainek galeriatik harturik jina nuzu.]

5

Kapitainek hori entzunik jiten dire andereagana:
–Anderea, afal zite, eztirik eta trankilik.
Hirur kapitain izanen tuzu gaur zure zerbitzari.

6

Anderea, hori entzunik, hila zuzun erori.
Kapitainak joan ziren beren zaldiak harturik,
nigar egiten zutelarik, andereari dolu eginik.

7

Handik hiru egunen buruan andereak aitari oihu:
–Ai, aita, ni orai hemen nagozu,
birjinitatea nahiz begiratu, hilaren egon nuzu.

25
ANA JUANIXE BALADA

1. SARRERA

Atal honetan *Ana Juanixe* baladaren ereduak finkatzen ahaleginduko gara. Azkueren hiru eredu Azkueren eskutikako izkribuetatik zuzendu eta emendatuko ditugu. XX. mende hasieran Julio Bareñok Lumon bildu zuen eredua ere finkatu eta iruzkinduko dugu. Eredu horren lehen transkripzioa 2014ko gure lan batean eman genuen argitara. Eredu horren jatorrizko eskuizkribua oinarri harturik Lumoko eredua finkatzen ahaleginduko gara. Manuel Ziarsolo *Abeletxek* Bermeon bildu zuen eredua ere finkatuko dugu atal honetan. Chahoren kantutegian *Iru damatxo Donostiako* kantuan txertaturik dagoen hiru ahapaldiko eredua ere emango dugu atal honetan.

Gure asmo nagusia, beraz, eskuizkribuetan dauden ereduak finkatzea da.

2. LEHEN ALDAERA: ONDARROAKO A EREDUA

Manuel Lekuonak gerra aurrean, 1935. urtean, *Literatura oral euskérica* liburua argitaratu zuen. Liburu horrek hogeita hamar urte geroagora beste argitarapen bat izan zuen, 1965. urtean, izenburua apur bat aldaturik: *Literatura oral vasca*. 1965ko bigarren argitarapenean aurreko argitarapenean ez zegoen balada luze bat zetorren. Manuel Lekuonak baladaren biltzailea nor izan zen esaten ez badu ere, Augustin Zubikarai izan zen. Manuel Lekuonak baladaren aurkezpena honelaxe egiten du:

> El primer ejemplar que presentamos, se halla en la colección de Azkue, con el número 99, bajo el título de "Udabarrian"; pero nosotros daremos una versión más completa que la fragmentaria del gran folklorista vizcaíno, procedente ella de Ondarroa.

Balada honen aurkezpenerako ABA-LEK 1-22 signaturan gordetzen den Juan Mari Lekuonaren eskuizkribu bat erabiliko dugu gidatzat:

> Erromantze au, bizitzaz beintzat eta iraupenez, Ondarru'tarra dezute. Mariñel bizitzatik artua gaiaz mutriku'arra ba-da ere, emen jasoa dezute. Orain dela ogeita amalau urte, zuen antzerkigille ospetsu Agustin Zubika[ra]y danak, Gasteizko Seminariora eramana. Ondarru'n abestu zana, Ondarru'ko euskal-ondare aberatseko bitxi baliotsua.

a)Aurkezpena: Gaiaz maitale kanta degu; inguru-giroz, berri, erriarena, mariñelen mallakoa. Ana Juanixe'ren gertaeran, erriak unkigarritzat eta kantu berri baten diñakotz jo zuten aretan, lenengo ekitaldi laburra ontara dijoa: maite-bidearen asierak nola izan ziran, izkutuko maitale-ibillerak dituan zerak eta amaren kezkak... Bigarren ekiñaldi laburra "Londresko ziudadian" maitiarentzat joiak erosten. Saltzalleak (emakumezkoa izan) begiz jo du motrikuar gaztea. Bañan erantzuten dio arma-gurutzak "Motrikun utzi nituan- Ana Juanixen etxian..." Irugarren ekiñaldia: "Txalopatxu bat, txalopatxu bi Santa Klara'ren parian". Anaia aurkitzen du. Berri tristeak: "Ana Juanixe ezkontzen zala ziñoen atzo kalian..." Atzen ekiñaldia: "Ogeita amairu dama lindatxu Motriku'n molla-gañian..." Mutillak Ana Juanixe'kin elkar-izketa. Ez ezagun egiten du neskak. Mutillak: "Damatxu baten arma-gurutzak darudaz bularrian..." "Ez eixu esan berbarik banidadian- despedidako gabian bere- neure besuan ziñian". Eta bilakaera laburra, agian pusketaren bat besterik ez, onela da:

Joya asko bere ba'nekartzuzan
Zuretzat izan ustian.
Beste damatxuk gozako dituz
zeuk ezin al dozunian.

Pasartea, luzetxoa bada ere, interesgarria da. Juan Mari Lekuonaren sarrera-hitzak hirurogeiko hamarkadaren bukaera aldera idatziak daude. *Ana Juanixe* baladaren argudioa eta zenbait ekintza desberdin xehe-xehe esanak daude. Azalpen honen ondoren eman dezagun Ondarroako eredua:

I.–Egun batian ni ba'nenguan,
kostela-kostel gañian,
ni ba'nenguan kostel-saltzian
ezpabe gari-saltzian.
Iru damatxu etorri ziran.
bata bestien atzian
irugarrenak pregunta eustan
gariak zegan zirian.
–Bestientzako dirutan da
zuretzat laztan-trukian.
–Ez nagizula lotsatu, arren
onelan plaza betian;
onelan plaza betian eta
ainbeste jente-artian.
Orrelan bere esan bazeustan
leku sekretu batian,
gariak eta zeu ta neu bere
an konponduko giñian.
Ama neuria labarako da
goiz edo arratsaldian;
paseito bat emoidakezu
ama laban dan artian.
... ...

Ama labatik etorri eta
mutil usaiña etxian...
–Ana Juanixe, Ana Juanixe:
zein da dauana etxian?
–Katalinatxu auzokua da
beroi laban dan artian.

–Eztona ori Katalinatxu;
bizarra dau okotzian...
...Itxagon daizu mutil, itxagon,
argia piztu artian,
argia piztu artian eta
ikusi zeu nor zarian.
–Ama, berorrek ez dau nai
neure osasunik etxian;
biyotz-illunak egiten yataz
argiya datorrenian...
...Urten daik mutil; urten daik, mutil,
alako bentanarian,
ama neuriak urten dagiyan
kanpora sospetxerian...

II.–Egun batian ni ba'nenguan
Londres'ko Ziudadian,
maitiarentzat joyak erosten.
Tableru baten gaiñian,
dama bateri pregunta neutsan
joya ok zegan zirian.
–Bestientzako dirutan, eta
zeuretzat buru-trukian
–Eskerrik asko, dama galanta.
Ez dot armarik aldian;
neure arma onak itxi nituan
Motriko erri onian,
Motriko erri onian, eta
Ana Juanixe'n etxian.

III.–Txalopatxu bat, txalopatxu bi
Santa Klara´ren parian...
Neure anaiya antxe datorke
batian edo bestian...
–Neure anaiya, zer barri diraz
Motriku erri onian?
–Barriak onak diradez, baña
jazo da kalte sobria.
–Oh, neure anaiya: ez edo-da il
biyoren aita maitia?
–Biyoren aita ez da il, baña
jazo da kalte sobria.
–Oh traidoria! ez edo-da il
biyoren ama maitia?
–Biyoren ama maitea ez da il, baña
jazo da kalte sobria.
Ana Juanixe ezkontzen zala
iñuen atzo kalian,
Ana Juanixe ezkontzen zala

aita ta amaren lotsian...
–Ezin izan lei ori egiya;
neuk dot armia aldian;
armia eta Gurutza bere
neuk ditudaz bularrian;
ta neure arma onak tiretuko dau
bizi diraden artian...
... ...

Kapitan jauna: arria bela
txalopa nabegantian,
ainbat ariñen sartu gaitezan
Mutriku erri onian,
Mutriku erri onian, eta
Ana Juanixe'n etxian.

IV.–Ogeitamairu dama lindatxu
Motriku'n molla-gaiñian,
Ana Juanixe antxe dalarik
arexen danen artian...
Batak "agur" besteak "adios";
Juanixe negar batian...
–Ana Juanixe: zer pasatu da
Motriku erri onian?
–Zaldun gaztia: neuk bere ez dakit
Zeu nundikua zarian.
Neuk ba'dakit, ba, Ana Juanixe,
zeu nundikua zarian,
zeu nundikua zarian, eta
noren alaba zarian.
Damatxu baten arma-gurutzak
daruadaz bularrian;
Ana Juanixe, ondo dakizu
biok norenak dirian...
... ...

Ana Juanixe; ez eixu esan
berbarik banidadian;
despedidako gabian bere
neure besuan ziñian:
zeuk niri laztan, neuk zuri laztan,
an despedidu giñian...
... ...

Joya asko bere ba'nakartzuzan
zuretzat izan ustian.
Beste damatxuk gozako dituz
zeuk ezin al dozunian.

Juan Mari Lekuonak iritzi hau ematen du, azkenik, *Ana Juanixe* baladaren gainean:

> Atzenean ikusi oi degun bezala, pusketako erromantze bat da Ana Juanixe'na guk gaur eman deguna.
> Bere-biziko ederrak elkar-izketak. Antz aundikoak lenengo eta bigarren zatien esakerak. Maitale asierak, erostun eta saltzalle. Lenengoak[1] garia biotzaren truke; bigarrenak joiak buruaren truke... Eta nola igotzen dijoazen txalupatxoko izketaldian, neskatxak amari ematen dizkion erantzunak. Ba-dirudi asierako onetan utsunean dirala, nabarmen antzeko zertxo bait noski.
> Kantuaren zartasuna ikusteko jakingarri dira forma auek: *bentanarian*, "bentanatik" ordez; sospetxerian "sospetxatik" ordez. Ez daukagu aztermena egiteko betarik. Bañan itzen biurkiak, joskerak eta gaiaren mamiak, erriaren abotik jasotakoak, emen oi digu berri: erromantze erdi aroko jatorra degula, XV garren gizaldiz lehenagokoa.

Juan Mari Lekuonaren iritzi hau ere interesgarria da. Pusketako erromantzea dela ez dago dudarik. Euskaraz dugun tradiziozko baladarik luzeena ere bada, inolako dudarik gabe. Puntu honetan zilegi bekigu pasarte bat iruzkintzea J.M. Lekuonak dioena, maitale hasierak puska, ez ote da beste balada batekoa eta kontaminazioz *Ana Juanixe* baladaren ereduan txertatu? Hona diogun puska:

Ama labatik etorri eta
mutil usaiña etxian...
–Ana Juanixe, Ana Juanixe:
zein da dauana etxian?
–Katalinatxu auzokua da
beroi laban dan artian.
–Eztona ori Katalinatxu;
bizarra dau okotzian...
...Itxagon daizu mutil, itxagon,
argia piztu artian,
argia piztu artian eta
ikusi zeu nor zarian.
–Ama, berorrek ez dau nai
neure osasunik etxian;
biyotz-illunak egiten yataz
argiya datorrenian...
...Urten daik mutil; urten daik, mutil,
alako bentanarian,
ama neuriak urten dagiyan
kanpora sospetxerian...

Pasarte hau ez al da *Blancaniña* edo *Albaniña* erromantzearen ereduaren euskal bertsio bat? *Blancaniña* edo *Albaniña* erromantzean neskatilak amorantea ezkutatzen du eta kanpotik etorri den senarrarekin elkarrizketa bat izan ohi du. Gure kasuan Ana Juanixek, bere amorantea ezkutaturik ilunetan duela, amarekin du elkarrizketa. Pasarte hau, bestalde, gainerako eredu guztietan ez da bildu. Jon Aurrek bildutako ereduan, ordea, pasarte honen arrasto bat gelditzen da. Ahapaldi bat berdin-berdina baita:

Ama, berorrek ez dauela nai
neure osasunik etxian,
biotz-ilunak egiten jataz
argia datorrenian.

[1] Jatorrizko testuan *lenengoan*.

Esan dezagun, azkenik, Manuel Lekuonaren eredu honen eskuizkriburik ez dela aurkitzen. Itxurak direnez Agustin Zubikaraik emana da, baina orain arte ez da aurkitu Manuel Lekuonaren paperen artean. Zubikarairen ondorengoen artean ere balada honen eskuizkribuaren bila ibili bagara ere, ez dugu ezer aurkitu.

3. *COLAMUS CARMINA NOSTRA* BILDUMAKO EREDUA

Puntu honetan *Colamus carmina nostra* bilduman gordetzen den eredua transkribatuko dugu. Eredu hau gerra aurrekoa da, baina ez da zehazten nork bidalia den. Ez da zehazten, era berean, nori bildua dagoen. Zehaztasun bakarra izenburua da: *aintziñako euskeldun kantak*. Ereduaren bukaeran datorren zehaztasun bakarra *Ibarangelu'koa* (sic) da. Zehaztasun honek zer esan nahi du, Ibarrangelun bildu zela? Edo biltzailea dela Ibarrangelukoa?

A. Zavalak 1965. urteko Lekuonaren *Literatura oral vasca* liburuko eredua oinarri harturik Colamun carmina nostra bildumako ereduak dituen aldaerak markatzen ditu. Guk, ordea, eredu osoa dagoen-dagoenean transkribatuko dugu.

Egun batian ni ba'nenguan
kostela kostel gañian
Ni e'nenguan kostel saltzian
Ezpabe gari saltzian
———-
Iru damatxo etoŕi ziran
Bata bestien atzian
Irugaŕenak pregunta eustan
garik zean zirian
–Bestientzat dirutan da
Zuretzat laztan trukian
Neskatxak –Enaizu lotsatu
Orrela plaza betian
Eta ainbeste-
Jente artian.
Oŕelan bera esan ba'zeustan
leku sekretu batian
Gariak, zeu ta neu bere
An konponduko giñian.
Ama neure labarako da.
Goiz edo aŕatsaldian
Paseito bat emon keidazu
Ama laban dan artian
———-
Ama labatik etoŕi eta
Mutil usaña etxian:
–Ana Juanixa...
Zein da daukana etxian?
Katalinatxo auzokua da
Beoŕi laban dan artian.
–Eztona ori Katalinatxu,
Bitzaŕa dauka okotzian.

Itxagon dait mutiĺ
Argia piztu artian
Eta zeu nor zarian
Ikusi artian
–Ama, beoŕek ez dau nai
Neure osasunik etxian
Biotz iĺunak egiten jataz
Argia datoŕenian.
Urten daik, mutiĺ
Alako bentanatxo batetik
Ama neuriak urten deitxian
kanpora sospetxatik
——-
Egun batian ni ba'nengoan
Londres'ko ziudadian
Maitiarentzat joyak erosten
Tableru baten gañian.
Dama bateri pregunta neutsan
Joya ok zegan zirian?
–Bestientzat diruetan da
zuretzat buru trukian
–Eskeŕik asko dama galanta

Ez dot armarik aldian
Neure arma onak itxi nintuan
Motriko eŕi onian
Eta Ana Juanixen etxian.
——-
Txalupatxu bat, txalupatxu bi
Santa Klara´ren parian
Neure anaia antxe datorke
Batian edo bestian...
–Neure anaje, zer baŕi oi dek–
Motriku eŕi onian?
–Baŕiak onak dirade baña
Jazo da kalte sobria
¡O! neure anaje, ez edo da iĺ
Bioren aita maitia?
–Bioren aita ez baña
jazo da kalte sobria
–O! traidoria; ez edo da iĺ
bioren ama maitia?
–Bioren ama maitea
Ez da iĺ baña
jazo da kalte sobria
–Ez edo da iĺ bioren
Aŕeba maitia?
–Ana Juanixe ezkontzen zala
ziñuen atzo kalian

Eta Aita ta Amaren lotsian.
–Ezin ezan lei ori egie,
Neuk dot armia aldian
Armia eta kurutza bere
Neuk ditut bulaŕian.
Neure ama onak tiretuko dau
Bizia diradenen artian
“Kapitan jauna eŕia bela”.
Txalupa nabegantia
Ainbat ariñan sartu gaitezan
Motriko eŕi onian,
Eta Ana Juanixa’ren etxian
Ogeita amairu dama lindatxo
Motriku’n moĺa gañian
Ana Juanixe antxe dala
Arexen damen artian
Batak “agur” besteak “adios”
Ana Juanixe’k bat bere ez.
–Ana Juanixe, zer pasaten da
Gaur zeugaz?
–Zaldun gaztia neuk bere ez dakit
Zeu nundik noraku zarian.
–Neuk ba’dakit ba
zeu nundikoa zarian
Noren alaba zarian
Joyak bere ba’nakartzuzen
Zuretzat izan ustian.
Beste damatxuk gozako ditu
Zeuk ezin al dozunian
Neure ortuan dago madari
Adaŕak ditu amabi
Neure maitia begira dago
leyo eder batetik.



antzinako euskeldun
Kantak

1

43

Egun batian ni ba nenguan
Kosteka kostel gañian
Ni ba nenguan kostel baltzian
Ezpata yari baltzian

Gru damatxo etori zuan
Bata bestien atzian
Zuparenak preguntа eustan
Zaritxu zean zuan
— Bertsentzat dirutan da
Zuretzat bostan trukiau.

Neskatxak Emaizu, bbatu
Orreka phrasa batian
Eta amboste
Deuste artian.
Urretan bera etau ba'zeustan
Sieku sokretu batian
Zariak, zeu ta neu bere
Gu konformuko giñian.
Hirra nreure labarako da.
Goie edo arattaldian
Pateto bat emon deidazu
Hirra batan dan artian

Hirra batatik etori eta
Gutil utsña etxiau :



2

— Hirra Juanisa....
Zein da doukana etxiau?
— Katalinatxo auxotxua da
Beti laban dan artiau.
— Estora oi Katalinatxu,
Bitxaria dauka ekotxian.
Gizagon dat mutil
Hegia kotu artian
Eta zeu nire zarian
Gkuti artian
— Hirra, beiriek es dau nai
Neure etaturik etxian
Biok ilunak egiteu gataz
Hegia datorrentan.
Urten dait, mutil,
Hlako bentanatxotatetik
Hirra nreuak urten deitxian
Kanpora sopetxatik.

Egun batian ni ba'nenguan
Gondres'ko zuidadian
Martiarentzat jogak eretten
Zabiltzu batzu gañian.
Gauna batzu preguntа mandatzu
Goya dk zeztan ziriau?
— Bertsentzat dirutan da
Zuretzat buru trukiau.
— Etxeiek arako damu gatauta



3

Ez dot armarik aldian
Neure arma orrak etzi nintzan
Motriko eri orrian
Eta Ona Juanixeu etxian.

Txalupatxu bat, txalupatxu bi
Santa Klara'reu jarian
Neure amaia antxe datorke
Batian edo bestian...
— Neure amaje, zer bari di dek — Bañarak mak dirudu bañan
Motriko eri orrian ? Jaxo da kalte xobria
— O, neure amaje, ez edo da il
Bioren aita maitia ?
— Bioren aita ez bañan
Jaxo, da kalte xobria
— O! traidoria, ez edo da il
Bioren ama maitia ?
— Bioren ama maitia
Ez da il bañan
Jaxo da kalte xobria
— Ez edo da il bioren
Pleba maitia ?
— Ona Juanixe eskonkeu zala
Zinuen ako kalian
Eta ikusi ta ikusi xobian.
— Zin zau ki eri epel,
Neuk dot armia aldian
Armia eta kuruta bere
Neuk ditut butsian.



4

Neure arma orrak txuriska dau
Bizia diradeneu artian
" Kapitau jauna eria bela !"
Txalupa makegaitik
Lumbat arrian sartu jaiotzan
Motriko eri orrian,
Eta Ona Juanixa'reu etxian
Ogeita amairu dama lindatxo
Motriku'n moka jarriau
Ona Juanixe antxe dala
Prexeu daneu artian.
Batak "agur" bestiak "adios"
Ona Juanixek bat bere ez.
— Ona Juanixe, zer jasateu da
Gaur zeupaz ?
— Zaldun gartia mauk bere ez dakit
Eeu nundik norakuu zariau.
— Neuk ba'dakit ba
Zeu mundiko zarian,
Noren alaba zarian
Ofizik bere ba'nakartzeuen
Zuretzat zan uztian.
Bente damatxuk gozako ditu
Zeuk ezin al izanian
Neure ortuan dagoz madari
Ederrak ditu amaki
Neure maitia begira dago
Leyo eder batetik.

Jfarangelu'koa

Colamus Carmina Nostra bildumako eredua.

Eredu honen eta 1965. urteko *Literatura oral vasca* liburukoaren artean zein alde dago? Biak ote dira originalak edo bata bestearen kopia ote da? Kopiaren bat balego, zein zeinen kopia da? Ez dugu uste bi eredu original direnik *Literatura oral vasca* liburukoa eta *Colamus carmina nostra* bildumakoa. *Colamus carmina nostra* bildumako ereduak *Ibarangelu'koa* ekarri arren, ez da inondik inora ere Ibarrangelun bildua. Uste dugu 1965 urteko *Literatura oral vasca* liburuko ereduaren kopia dela *Colamus carmina nostra* bildumakoa. Bestela ezin bil liteke hain eredu luzean hitzez hitz beste herri batean. Ondarroako ereduan datozen arkaismoak kendu eta zenbait aldaketa txiki egin ondorengo eredua da *Colamus carmina nostra* bildumakoa: Ondarroako ereduan *sospetxerian* eta *bentanarian* hitzak bigarren ereduan *sospetxatik* eta *bentanatxo batetik*.

4. AZKUEREN HIRU EREDUAK

Azkuek hiru eredu bildu eta argitara eman zituen, lehena Amorebietakoa, bigarrena Mutrikukoa eta hirugarrena Sunbillakoa. Hiru eredu hauek finkatu nahirik Lekeitioko ikertzaile eta biltzailearen eskuizkribuak aztertu ditugu. Hiru ereduak lan argitaratuetan (dela CPV dela EY) eta jatorrizko eskuizkribuetan ez datoz bat. Gure atal honetan eredu argitaratuak eta argitaragabeak aztertu eta egiazko testua finkatzen ahaleginduko gara.

4.1. Ana Juanixe*: Amorebietako B aldaera*

Azkuek bere CPV lanean 904. kantu-zenbakian, 1052. orrialdean, Amorebietako Luziana Estankonari bildutako eredua dakar.

1
Udabaŕian zaŕa erara
Londresko ziudadean,
maitearentzat oiak erosten
denda aberats batean.

2
Dama galant bat topadu neban
tabladu baten ganean,
kortesiagaz itandu neutsan
oi oŕek zegan zirean.

3
Bestearentzat diruetan da
zuretzat biotz-trukean,
–Eskerrik asko, dama galanta,
eztot armarik aldean.

4
Armak etxean itxi nituzan
Motriku eŕi onean
Motriku eŕi onean eta
Ana Juanaren etxean.

5
Txalupatxu bat, txalupatxu bi,
Santa Klararen parean,
neure anaia ara antxe dator
Ana Juanaren legean.

Bost ahapaldiko eredu honek badu zer iruzkindu. CPV lanean, lehen ahapaldian, errata txiki bat aurkitzen da *Udabaŕian* ordez *Udabaiŕan* dator. Hirugarren ahapaldian *Bestearentzat diruetan da/ zuretzat biotz-trukean* horretan beste modu batera izan beharko lukeela dirudi: *Besterentzat/besteentzat diruetan da zuretzat bihotz-trukean*. Bestela esan, *bestearentzat* esaten bada beste horrek norbait ezaguna izan behar du. Azkuek, ordea, oso itzulpen zuzena egiten du: "Para otros en dineros y para vos a trueque de corazones". Esaldi horretan datorren *diruetan* delakoa "diru askoan" esan nahi du eta forma guztiz zaharra bezain jatorra da.

Testu honetako azken ahapaldiko *Ana Juanaren legean* nola ulertu behar da? Azkueren itzulpenak ez du ezer askorik laguntzen, itzulpen zuzena egiten baitu: *según ley de Ana Juana.* Bestela esan, *–ren legean* postposizioa nola ulertu behar da? Bizkaiko idazle klasikoek gutxi darabilte postposizio hori. Hona adibide bat: Frai Bartolome, Icasiquizunac III, *Jaungoicuac ta arrazoiac aguinduten daben leguean*. Gure kasuan *Ana Juanaren moduan* ulertu beharko da?

A. Zavalak, bukatzeko, ohar interesgarri bat egiten du:

> Azkuek 1/3 eta 2/4 lerroetan oiak eta oi esaten du. Dakigunez, joiak eta joi bear du.

4.2. *Azkueren lehen eredua landa-kaiereko eskuizkribuan*

Goragoko puntuan transkribatu dugun eredua ABA-RMA-002-004-024 signatura duen eskuizkribuan dator.

1
Udabarrian zarra erara
Londresko ziudadean,
maitearentzat oyak erosten
denda aberats batean.

2
Dama galant bat topadu neban
tabladu baten gaiñean,
kortesiagaz preguntau nion
oi orrek zegan zirean.

3
Bestearentzat diruetan da
zuretzat biotz-trukean,
–Eskerrik asko, dama galanta,
eztot armarik aldean.

4
Armak etśean itxi nituzan
Motriku erri onean
Motriku erri onean eta
Ana Juanaren etśean.

5
Tśalupatśu bat, tśalupatśu bi,
Santa Klararen parean,
neure anaje ara antśe dator
Ana Juanaren legean.



ABA-RMA-002-004-024.

Eskuizkribuko testutik testu argitaratura aldaketa gutxi dago. Nabarmenena bigarren ahapaldikoa da. Azkuek *kortesiagaz preguntau nion* jaso zuen Luziana Estankonaren ezpainetatik, argitaratu, ordea, *kortesiagaz itandu neutsan*. A. Zavalak ere Azkueren jatorrizko eskuizkribua kontsultatu zuen honelaxe baitio:

Beste lerro batean, 2/3-an, *itandu neutsan* irakurtzen da. Baina beraren esku-idazkietan *pregunta nion* idatzita dago.

Egia aitortzera eskuizkribuan *preguntau nion* da datorrena. Badira aldaketa txikiago batzuk. Bigarren ahapaldian *tabladu baten gaiñean* jaso zuen eta *tabladu baten ganean* argitaratu. Azken ahapaldian Azkuek *anaje* bildu zuen eta *anaia* argitaratu.

4.3. Ana Juanixe *balada: Mutrikuko eredua*

Azkuek CPV laneko 853 kantu-zenbakian *Ana Juanixe* baladaren bi ahapaldi dakartza. Bi ahapaldiak transkribatu ondoren zehaztasun hau dakar: *Lo aprendí en Motriku (G), sin haber anotado el nombre del cantor.* Bi ahapaldiak hauexek dira:

Kapitan jauna, eŕia belok
Mutrikun bistara artean
Mutrikun bistara artean eta
baŕura sartu artean.

Neure anaia ¿zer berri on da
Mutriku eŕi onean,
Mutriku eŕi onean eta
ama Juanisen etxean?

Bi ahapaldi hauetan bi huts nabarmen xamarrak ikusten dira lehen begiratuan. Nola izan liteke *ama Juanisen etxean*? Ez dago dudarik *dama Juanisen etxean* edo *Ana Jaunisen etxean* beharko lukeela. Azkueren ABA-RMA-001-0002-001-979 signatura duen dokumentua ikusi ondoren garbi ikusten da Azkuek Mutrikun bildu zuena *Ana Juanisen etxean* dela. Azkuek, beraz, huts bat egin zuen landa-kaieretik transkribatzean.

Hizkuntzaren senari gagozkiola, *Kapitan jauna, erria belok/ Mutriku bistara artean,/ Mutriku bistara artean eta/ barrura sartu artean* askoz hobeto dago *Mutrikun bistara artean* baino. Zer dator, beraz, jatorrizko landa-kaieretan? Azkueren bigarren eredua osatzeko bi landa-kaier erabiliko ditugu. Lehena ABA-RMA-001-0002-001-979 da eta hauxe dator:

Kapitan jauna erria belok
Mutriku bistara artean
Mutriku bistara artean eta
barrura sartu artean

Nere anaya ze berri on da
Mutriku erri onean
Mutriku erri onean eta
Ana Juanisen etśean



ABA-RMA-001-0002-001.

Dokumentu honetan, beraz, argi eta garbi ikusten da *Ana Juanisen etśean* dela eta ez Azkuek argitaratu zuen *ama Juanisen etxean*. Eredu bera Azkueren beste dokumentu batean ere aurkitzen da ABA-RMA-001-0002-002-979 signatura duenean:

2
Nere Anaya, berri onik ez,
zuretzat zori gaitza,
Ana Juanisa ezkondu dabe
aiten ta amen esanean.

3
Kapitan Jauna, erria belok
Mutriku bistara artean,
Mutriku bistara artean,
barrura sartu artean.



ABA-RMA-001-0002-002.

Bi dokumentuetan berdin dator: *Mutriku bistara artean/ Mutriku bistara artean eta*. Azkuek CPV lanean argitaratu zuen *Mutrikun bistara artean/ Mutrikun bistara artean* esaldia zaila da. Zergatik? Mutriku bera bistaratu artean nabigatu behar dugu ulertzen dugu eta ez Mutrikun (zerbait) bistaratu artean. Jatorrizko bi dokumentuak ikusi ditugunean, beraz, testu argitaratuko bi oker zuzendu ditugu. Puntu honetako bigarren dokumentuan, gainera, ahapaldi argitaragabe bat dator. Azkueren bigarren eredua okerrak zuzendurik eta ahapaldi bat emendaturik hauxe da:

1
Nere anaia, ze berri on da
Mutriku erri onean?
Mutriku erri onean eta
Ana Juanisen etxean?

2
Nere anaia, berri onik ez,
zuretzat zorigaitza,
Ana Juanisa ezkondu dabe
aiten ta amen esanean.

3
Kapitan Jauna, erria belok
Mutriku bistara artean,
Mutriku bistara artean eta
barrura sartu artean.

4.4. Ana Juanixe *baladaren D eredua: Sunbillakoa*

Azkuek CPV lanean, 33 kantu-zenbakian, Sunbillako Feliziana Arretxenari jaso zion kantua *Ana Juanixe* baladaren eredua da.

Garia saltzen nengoelarik
Donostiako kalean,
dama gazte bat etoŕi zitzaidan,
garia zenbana nukean.

–Besteendako amar ta erdian,
zuretzat ezkontzoŕdean.
–Ezkontzordean balin badezu,
yaŕi zaite ezkonbidean.

Kantua eman ondoren zehaztasun bat eman zuen Azkuek:

> En vez de *ezkontzoŕdean* y *yaŕi zaite ezkonbidean* cantó la vieja (y se daba cuenta de ello) una inconveniencia enorme.

Azkueren pasarte hau harrigarria da alde batetik baino gehiagotatik. Gehienetan bere berriemaile zaharrak maitekiro izendatu ohi zituen, eta erabili ohi zituen adjektiboak amultsuak izan ohi ziren, *anciana*, *cieguita*, eta abar. Kasu honetan, kontrara, *la vieja* dio. Azkuek eskaintzen duen bertsio txukundua ere ez dator guztiz bat kantuaren espirituarekin. Azkuek eskaintzen dituen konponketak ez dira sinesgarriak. ABA-RMA-002-0003-005-1310 signaturan Feliziana Arretxenari bildu zion benetako eredua dator. Azkuek Sunbillako ereduaren bi ahapaldi argitaratu zituen CPV lanean. Gainerako ahapaldiak kaier edo koaderno gorrian aurkitzen dira, 1310 kantuan. Kaier gorriak ABA-RMA-001-002-001/003 signatura du, eta 556. orrialdean dator. Kantaren titulua *Garia saltzen* da. Behin honetaraz gero, lehen bi ahapaldiak *Ana Juanixe* baladakoak izan arren, gainerakoak *Atea kix-kox* baladakoak direla esan behar. Hona hemen kantua osorik:

1
Garia saltzen nengoelarik
Donostiako kalean,
dama gazte bat etorri zitzaidan,
garia zenbana neukean.

2
–Besteendako amar ta erdian,
zuretzat gorpu trukean
–Gorpu trukean balin badezu,
atoz bada arratsean.

3
Atea[2] kos kos jo nizun eta
etzidan erresponditu.
Bigarrenean jo nizun eta
zer bear nuen galdetu.

4
Borondatea[3] zurea bada
zurekin hiz ein nai nuke.
Aita ere kanpoan da ta
amaren lagun bear nuke.

5
Ama ori loak artu artio
atalondoan nengoke,
gure tśakurra zaingaria da ta
ark salatuko ginduzke.

[2] Transkribatzaileak lehen aldian *ateak* jarri du eta gero azken *–k* ezabatu egin du.

[3] *Borondatea* hitza *loak* eta *artio* hitzen gainean jarri du.

6
Ogia ere nerekin dut eta
onekin bazka nezake.
Gure tśakurrak eztu jaten
besteak eman ogirik.

7
Zenbait uso edo eper
ezpada baita. (sic)



ABA-RMA-002-0003-005.

Horra, bada, Azkueren ustez zein zen *la inconveniencia enorme*. Harrigarria da, bestalde, Sunbillak *gorpu trukean* biltzea. Azkuek ez ote zuen *gorputz trukean* bildu? *Gorpu* hitza Bizkaiko euskarakoa da batez ere, eta hildako gorputzaren adieran erabili ohi da. Era berean, *garia zenbana* bildu beharrean *garia zenbatean* ez ote zuen bildu? Hazparneko ereduan ere berdin gertatzen da, *zenbana* galdetzen da eta ez *zenbatean*. Azkuek Sunbillan bildu zuen azken ahapaldiko *atoz bada arratsean* agindua dantza-koplarik polietenetako batean dokumentatzen da, Ataungo kopla bildumako 56ean:

Larrosa zurigorri
eder maietzean,
ez etorri egunez
zatoz arratsean.

5. *ANA JUANIXE* BALADAREN LUMOKO G EREDUA

Puntu honetara ekarriko dugun eredua Julio Bareño gernikarrak Lumon bildu eta A. Zavalari kartaz bidalitakoa da. Lumoko aldaera hau 1918. urtetsuan bildua da eta 1958. urtean eskutitz batean A. Zavalari bildu zion. Julio Bareñok bildu eta A. Zavalari bidali zion eredua, harrigarria bada ere, argitara gabe egon da guk artikulu batean argitara eman arte (Kalzakorta 2015). Eredu honen makinaz egindako transkripzioa Bizkaiko Aldundiko diputazioan Arana Martijaren funtsean aurkitzen da ARA-ARTX 0057/003 signaturan. Makinaz egindako transkripzioa Julio Bareñorena berarena da eta dantza-koplekin batera bidali zion A. Zavalari. Hona kartaren edukia:

Guernica 29 de Octubre de 1958

R.P. Antonio Zabala
Oña (Burgos)

Muy estimado Padre:

Como contestación a su amable carta del 4 de septiembre[4] tengo mucho gusto en hacerle una primera remesa de "koplak" recogidas casi todas ellas en la anteiglesia de Luno hace unos 40 años cantadas por personas ya ancianas en aquel entonces con lo cual quiero significarle que todas ellas son antiquísimas, y que fueron malamente escritas por los mismos aldeanos en un viejo cuaderno que no sé cómo se salvó de la quema del 37.

Entre todas estas estrofas las hay de ARIN-ARIN (las más) en compás del 2 por 4; del FANDANGO (compás de 3 por 4) los menos y también alguna que otra en ritmo de zortziko (5 por 8). Las he podido descifrar y ponerlas después en forma entendible. Le incluyo algún ejemplo de la música aunque no sé si ello le interesa.

Me queda aún algo de material, borradores, y no sólo de esta clase de coplas sino también BERSO BERRIAK pero tomadas de viva voz para lo cual estoy molestando aquí a todos los que creo saben o recuerdan algo de estas cosas.

No sé si en todo ello encontrará algo aprovechable aunque espero que sí a pesar de que muchísimas de estas estrofas son casi similares en todo el País.

No me tiene que agradecer nada en absoluto pues es trabajo que encaja perfectamente en mis aficiones de siempre y que, además, me sirve de gran entretenimiento y sedante de mi delicado estado de salud. Como por ello no puedo desplazarme ni siquiera a las aldeas circunvecinas que han sido siempre muy ricas en esto que andamos, he comprometido y escrito a varios amigos, incluso sacerdotes que no dudo me mandarán lo que recojan, y también a los bersolaris hermanos ENBEITA de Mújica, con los que me ha unido siempre una gran amistad.

Pero también yo necesito alguna cosa y le rogaría con toda humildad me tuviera presente, de vez en cuando, en el MEMENTO de sus misas.

Mientras recibo sus noticias con la impresión de esta remesa, le saluda con todo respeto y afecto su s.s.,

Bareño

En otras remesas tendré cuidado de descifrarlos siquiera a los ritmos de Ariñ y Fandango con más facilidad.

Julio de Bareño
Don Tello 20-2º
Guernica

Lumon bildutako dantza-koplen hasierako errezkadan *Ana Juanixe* balada dator. Testu hau makinaz idatzia dago. Hona hemen:

[4] Jatorrizkoan *Sepbre*.

1
Egun batian banenguan ni
Londresko ziudadian
maitientzako jake erosten
denda aberats batian.

2
Dama galantak preguntau nion
kuisiak zegan zirean
bestientzako dirutan-eta
zeuretzat truke-trukian.

3
Eskarrik asko dama galanta
eztot armarik aldien
Neure armak an itxi dodaz
Mutriku erri onien.

4
Motriku erri onian-eta
linde eder baten ganien.
perla eder bat agertuten da
mille santaren parien.

5
Araxe dator neure anaye[5]
txalupe elegantien.

6
Neure anaye ze barri dogu
gure Motriku aldien
Ana Junisa ezkondu dala
aitagaz aman pozien.

7
Ana Junisa ezin ezkondu
neuk dot firmie aldien
Kapitan firme arriau bela
Mutrikun sartu goizien.

8
Ogetamairu linde damatxuk
Motriku molle ganien
batzuk agur, bestiek agur
esanak joanak aidien.

[5] Jatorrizkoan bi aldiz agertzen da *anaje*.

9

Ana Junisa neure laztana
orain zer asartadude
bixerrakin datorrenari
agur eitie da usue.

Eredu honen ondoren hainbat dantza-kopla transkribatzen ditu Julio Bareñok. Julio Bareñok makinaz egindako transkripzio honek baditu bere itzal-argiak. Testuaren finkatzea eta iruzkina hurrengo puntuetarako utziko dugu.



1

1.- Agun batien nenguan ni
Londresko zaldaudan
martientzako jake erosten
denda aberats batian.

2.- Dama galantak preguntau nion
kuisiak zegan zirean
bestientzako dirutan-eta
zeuretzat truke-trukian.

3.- Eskarrik asko dama galanta
eztot armarik aldien
neure armak an itxi dodaz
Mutriku erri onien.

4.- Motriku erri onian-eta
linde eder baten ganien.
perla eder bat agertuten da
mille santaren parien.

5.- Araxe dator neure anaye
txalupe elegantien.

6.- Neure anaye ze barri dogu
gure Motriku aldien
Ana Junisa ezkondu dala
aitagaz aman pozien.

7.- Ana Junisa ezin ezkondu
neuk dot firmie aldien
Kapitan firme arriau vela
Mutrikun sartu goizien.

8.- Ogetamairu linde damatxuk
Motriku molle ganien
batzuk agur, bestiek agur
esanak joanak aidien.

9.- Ana Junisa neure laztana
orain zer asartadude
bixerrakin datorrenari
agur eitie da usue.

10.-Eder zalia ba-nintzan baña
aspertu nintzan ederrez
neure gustoa egin nuen da
orain bizi naz dolorez.

11.- Biturietik albora dago
erri txiki bat Gamarra
kakarraldoan bildurre gaitik
antxe itxi neban senarra.

13.- Andixerikan bialdu dostaz
gorua eta samarra
egin dayadanaga
arkondara luze-zabala.

13.- Bilbo zarrien esaten deutse
iñudetxu bik alkarri
a ze bizitza ona daukagun
lusaro iraun balegi.

14.- Neskatillatxu beltxeran txiki
anaren biotzelxua
ezpaziñian neuretzakoa
lagun zaidan Jaungoikuak.

15.- Aitari"padre"amari"madre"
amorio
sagartxuari manzana
kutxilloari kañabetie
amorioari laztana.

16.- Neskatillatxu nungoa zara
jauna ni Markiñelxua
eun dukat baño nayago nuke
bazíña neure errikoa.

17- Atzo goizian flementaduta
gaur naroazu basora
Lagun txarreko egur egiña
batzen Ikesto aldera.

18.- Arantza ondoan jesarri-eta
negarra gozo altsora
Abadiaren lapikotxua
etorten yatan gogora.

19.- Abadiaren lapikotxua
txikia baña zintzoa
ikaskiñaren topiña baltza
andie baña bastoa.

20.- Txikitxatikan aitak gura-ta
anak prailla nenduan nonbratu
estudioak ikasten bere
Salamankara bialdu.

21.- Salamankatik neu nentorrela
neban bidien pentsatu
estudiante pikaro baño
oba nebala ezkondu.

22.- Ezkondu nintzan, bai ezkondu
neuri bai sarri damutu
praka baltzetan ari zuria
etxat egundo faltatu.

23.- Ortik-enetik arantzagotik
dago Bilbora bidie
Barrenkaleko agure batek
saldudo leudu andrie.

Ana Juanixe balada. Julio Bareñoren transkripzioa.

6. *ANA JUANIXE*: LUMOKO EREDUA JATORRIZKO ESKUIZKRIBUAN

Aurreko puntuan esan dugun bezalaxe, Julio Bareñok Antonio Zavalari 1958. urteko urrian dantza-kopla sorta bat bidali zion. Dantza-kopla sortaren hasieran *Ana Juanixe* balada dator. Julio Bareñok balada honen transkripzioa makinatua ezezik, baladaren eskuizkribua ere bidali zion A. Zavalari. Puntu honetan eskuizkribuko eskuizkribua transkribatuko dugu. *Ana Juanixe* balada-testua hiru orrialdetan transkribatua dago. Ahapaldiak ere zenbakiturik daude.

1
Egun Vatian Vaneguani
Londresco Siudadian Maytian
tsaco jaque Erosten denda
Aberatsat batian

2
Dama galantac preguntau nion
cuisia segan sirien Vestien
tsaco diruetan da seuretsat
truque truquien

3
Esquerric Asco dama galanta
estot Armaric Aldien neure
Armoc An itsi dodas Motricu
Erri Onien

4
Motricu Erri onian eta
linde Eder Vaten gainian
perla Eder bat Agertutenda
Mille Santanen parian

5
Araise dator neure Anaje tsa
lupe Elegantian

6
Neure Anaje Se barri dogu
gure Motricu aldian Ana
Junisa Escondudala Aytegas
Aman posian.

7
Ana Juanisa esin Escondu
neuc dot firmie Aldian
Capitan firme Arrian Vela
goitsan Motrikun sartu g[aiti]an

8
Ogeta Amairu linde damatsoc
Motricu molle ganian batorrec
Agur Vestionec Agur
Esanac jonac Arian

9
Ana Juanisa nure lastana
Orain ser Asartadude Vijerra[quin]
datorrenari Agur Eytie usu
de Agur Eytie usu de Vaña
usu debejadude

Lumoko ereduan, zazpigarren ahapaldian *Ana Junisa* izena dator, bederatzigarrenean, ordea, *Ana Juanisa.*





Ana Juanixe balada. 1918. urte inguruko eskuizkribua.

7. LUMOKO BALADAREN IRUZKINA AHAPALDIZ AHAPALDI

Lumoko ereduak badu zer iruzkindua. Puntu honetan ahapaldiz ahapaldi Lumoko eredua iruzkinduko dugu.

1
Egun batian banenguan ni
Londresko ziudadian
maitientzako jake erosten
denda aberats batian.

Oso modu baladatarra *incipit* edo hasiera-ahapaldirako. Aditz aspektua kontuan harturik *Alostorre* baladako *ni ere banenguen lumatxo artian* pasartearen antzekoa da. Edo balada bereko *Alostorrian nenguanian goruetan*. Lumoko ereduan datorren *Egun batian banenguan ni* sarrera Ondarroako ereduan eta Galdakaokoan ere aurkitzen da.

2
Dama galantak preguntau nion
kuisiak zegan zirean
bestientzako dirutan-eta
zeuretzat truke-trukian.

Nahiz eta eskuizkribuan *cuisia segan sirien* agertu *kuisiak* pluralean izan behar du. Eskuizkribuan, bestalde, argi dator *diruetan* hitza. Modu horretara, *diruetan*, transkribatu behar da eta

ez *dirutan*, forma zaharra *diruetan* baita. Ondarroako ereduan ere oso antzekoa dan pasarte hau dator: *Bestientzako dirutan, eta/ zuretzat buru-trukian*.

3
Eskarrik asko dama galanta
eztot armarik aldien
neure armak an itxi dodaz
Mutriku erri onien.

Eskuizkribuan *Esquerric Asco* dator eta ez Julio Bareñok transkribatu zuen *Eskarrik asko*. Ahapaldi honetan, *arma* hitza bigarren aldiz datorrenean, plural hurbilean ikusten da eskuizkribuan: *armoc*. Julio Bareñok *armak* transkribatu bazuen ere, komeni da plural hurbilean jartzea.

4
Motriku erri onian-eta
linde eder baten ganien.
perla eder bat agertuten da
mille santaren parien.

Julio Bareñok *ganien* eta *parien* transkribatzen ditu, baina eskuizkribuan *gainian* eta *parian* hitzak dakartza. Eskuizkribuak, era berean, *Mille Santanen parian* dakar eta ez Julio Bareñok *mille santaren parien* transkribatzen duen bezalaxe. Eskuizkribuan *linde* hitza azpimarraturik dago.

5
Araxe dator neure anaye
txalupe elegantien.

Jatorrizko eskuizkribuan *Araise* agertzen da eta *Araixe* zein *Araxe* transkriba liteke.

6
Neure anaye ze barri dogu
gure Motriku aldien
Ana Junisa ezkondu dala
aitagaz aman pozien.

Seigarren ahapaldi honetan *Ana Junisa* badator ere, hurrengo ahapaldian *Ana Juanisa* irakurtzen da jatorrizko eskuizkribuan. Julio Bareñok *aitagaz aman pozien* transkribatzen badu ere, *aitegaz aman pozian* dator eskuizkribuan.

Bermeoko ereduan (A. Zavalaren VIII. ereduan), *Ana Juanita ezkondutzen da/ amaren da aitaren bozian,/ amaren da aitan bozian eta/ bere desborondatian* dator. Lumoko ereduak, beraz, neurri batean Bermeoko eredua argitzen du eta zentzuzkoagoa dirudi *amaren da aitaren pozian* izatea eta ez *amaren da aitaren bozian*. Era horretara, *bere desborondatian* hobekiago ulertzen da. Interesgarria da, bestalde, *noren pozean*, (*noren borondatean)* eta are *noren desborondatean* postposizio zoragarriak.

Ahapaldi honetako konturik bitxi eta markagarriena *X-ekin Y* euskal egitura zaharra da. Era horretara, *aitaren eta amaren pozean* beste era batera esan liteke: *aitagaz amaren pozean* (Lakarra: 1983).

7
Ana Junisa ezin ezkondu
neuk dot firmie aldien
Kapitan firme arriau bela
Mutrikun sartu goizien.

Ahapaldi honek baditu transkripzio arazoak. Julio Bareñok *arriau bela* transkribatzen du, eta halaxe izan beharko luke, nahiz eta eskuizkribuan *arrian Vela* errazago irakurri. Julio Bareñok *Mutrikun sartu goizien* transkribatzen du azken lerroa eta eskuizkribuan *goitsan Motrikun sartu g[aiti]an* irakurtzen da. Azken lerroko *goitsan* hori goizan agintera-adizkia. Eskuizkribuan, bestalde, ez ote dator *sartu gaitian*? Ondarroako ereduan ere agintera bat dator: *ainbat ariñan sartu gaitezan/ Mutriku erri onian,/ Mutriku erri onian, eta/ Ana Juanixe'n etxian*.

8
Ogetamairu linde damatxuk
Motriku molle ganien
batzuk agur, bestiek agur
esanak joanak aidien.

Ahapaldi honetan Julio Bareñok *ogetamairu linde damatxuk* irakurri arren, plural hurbila da argi eta garbi: *ogetamairu linde damatxok*. J. Bareñok ahapaldi honetan egiten duen transkripzioa errazkeriak eraginda egiten duela dirudi. Jatorrizko *batorrec agur Vestionek agur* honelaxe transkribatzen du: *batzuk agur, bestiek agur*. Jatorrizko eskuizkribuko *batorrek agur, bestionek agur* askoz eder eta indartsuagoa da, inolako dudarik gabe *bat* eta *beste* hitzei artikulu hurbila eransteak aparteko grazia ematen dio. Bermeoko ereduan ere antzera dator (Zavalaren baladategian VIII. eredua): *bateorrek agur, bestiorrek agur*. Ahapaldi honetako azken lerroa *Esanak jonac Arian* delakoaren interpretazio egokia da Julio Bareñok egiten duena: *esanak joanak aidien*.

9
Ana Junisa neure laztana
orain zer asartadude
bixerrakin datorrenari
agur eitie da usue.

Julio Bareñok ez du hapaldi hau osorik transkribatzen. Azken ahapaldi erdia honelaxe egiten baitu: *Bixerrakin datorrenari/ agur eitie da usue*. Jatorrizko eskuizkribuan luzapen edo jarraipena den ahapalditik ahapaldirako bihurkia dator: *Agur Eytie usu de Agur Eytie usu de Vaña usu debejadude*. *Debejadu* aditzak zer esan nahi ote du?

8. *ANA JUANIXE*: LUMOKO EREDUA GAURKO ORTOGRAFIAN

Eskuizkribuko testua ongi tolesturik ez da Julio Bareñok transkribatu zuen modu berean gelditzen. Badira aldaketa guztiz interesgarriak. Honelaxe gelditzen da testua:

1
Egun batian baneguan ni
Londresko ziudadian,
maitiantzako jake erosten
denda aberats batian.

2
Dama galantak preguntau nion
kuisia[k] zegan zirien,
bestientzako diruetan da
zeuretzat truke-trukien.

3
–Eskerrik asko, dama galanta,
ez dot armarik aldien,
neure armok an itxi dodaz
Motriku erri onien.

4
Motriku erri onian eta
linde eder baten gainian
perla eder bat agertuten da
Mille Santanen parian.

5
Araxe dator neure anaje
txalupe elegantien.

6
–Neure anaje, ze barri dogu
gure Motriku aldian?
–Ana Junisa ezkondu dala
aitegaz aman pozian.

7
–Ana Juanisa ezin ezkondu
neuk dot firmie aldian.
–Kapitan firme, arriau bela
goizan Motrikun sartu g[aiti]an.

8
Ogetamairu linde damatxok
Motriku molle ganian,
batorrek agur, bestionek agur:
esanak jo[a]nak a[i]rian.

9
–Ana Juanisa, n[e]ure laztana,
orain zer azartadu de?
Bijerra[kin] datorrenari
agur eitie usu de,
agur eitie usu de baña
usu debejadu de.

9. *ANA JUANIXE* BALADAREN BERMEOKO H EREDUA

Eredu hau Jose Ariztimuño *Aitzolen* funtsean aurkitzen da. Manuel Ziarsolo *Abeletxek* bidali zuen Bermeoko eredua. Guk erabili dugun A. Zavalaren argazkiak 443 zenbakia du. Manuel Ziarsolok bost ahapaldiko eredua baino lehen azalpen bat transkribatu zuen. A. Zavalak ateratako argazkian azalpen

hori ez da ondo irakurtzen, testu osoa argazkian sartua ez dagoelako. Gure irakurketa edo interpretazioa adierazteko irakurtzen ez diren hizkiak kortxete barruan sartu ditugu. Hauxe da azalpen-testua:

> Senaŕ-emazte-geyak ziran Mutriku-n. Senaŕgaya, it[xas] gixona zalarik, itxasibiĺaldijak egitera urten zan ema[zte] gaya ama ixateko bidian laga-ta. Alabea olan auŕkitzen [zala] uártu ebanian amak, beste bategaz ezkonduazo eban. Eta [Gabo]etan senaŕgaya etxeratu zanian jazo ei-zan amen berago jartzen dodazan olerkijok diñoena:

Testuaren ondoren azken zehaztasun bat dator:

> *Olerki oneik, Bermeo'ko Bilbao'tar Pelipa'ri entzun neutsozan. Eta larogetaz urtiak baño be zaŕago ei-di[r]a.*

Hona hemen Bermeoko eredua Manuel Ziarsolok transkribatzen duen bezalaxe:

(1)
Senar-gayak
Biajeratik datoŕenari
Agur egiten usau de
Ana Juanisa nire laztana
Neuretzat enojadu de.

(2)
Batak aguŕ ta bestiak adios
Ana Juanisa'k bat berez
Ana Juanisa neure laztana
Neuretzat enojadu de.

(3)
Ogeta amairu linda damatxu
Mutriku-molla ganian
Beste arenbeste eta geyago
Ana Juanise'n etxien.

(4)
Emazte-gayak
Galai gaztia neikua al-dezu
Gabonetako koplarik
Neure senaŕa entzuten daukat
kuartoko bentanilletik.

(5)
Zeure semia besuan daukat
senaŕa aldamenien
tersijo txarra du orain eta
Erdu tersijo onien



X

Senar-emazte-gayak ziran Mutriku'n. Senargaya it
rixona zalarik, itxasibifaldijak egitera urten zan, ema
gaya ama ixateko bidian laga-ta. Alabea olan aurkitzen
uartu ebanian amak,beste bategaz ezkonduazo eban. Eta
netan senargaya etxeratu zanian jazo ei-zan emen berago
jartzen dodazan olerkijok diñoena.

Senar-gayak-- Biajeratik datorenari
Agur egiten usau de
Ana Juanisa nire laztana
Neuretzat enojadu de.

Batak agur ta bestiak adios
Ana Juanisa'k bat berez
Ana Juanisa neure laztana
Neuretzat enojadu de.

Ogeta amairu linda damatxu
Mutriku-molla ganian
Beste arenbeste eta geyago
Ana Juanise'n etxien.

Emazte-gayak-- Galai gastia neikua al-dezu
Gabonetako koplarik
Neure senarra entzuten daukat
Kuartoko bentanilletik

Zeure semie besuan daukat
Senarra aldemenien
Tersijo txarra du orain eta
Erdu tersijo onien.

Olerki oneik, Bermeo'ko Bilbao'tar Pelipe'ri entzun
neutsozan. Eta larogetaz urtiak baño be zarago ei-dir

Ana Juanixe balada. Aitzolen eredua.

A. Zavalak eredu hau bere azalpena duela argitara eman zuen. Uste dugu beharrezkoa dela lehen dokumentuaren lehen transkripzioa egitea. Eman dezagun adibide garbitzat A. Zavalak transkribatzen duen azken ahapaldia:

Zeure anaie besuan daukat,
senarra aldamenien,
terzio txarra du orain eta
erdu terzio onien.

Argi dago Manuel Ziarsoloren testuan *tersijo txarra du orain eta/ Erdu tersijo onien* dioela. Bizkaiko *tersijo txarra* delakoak "garai txarra" adierazten duela. Bermeoko euskaraz *tersijo txarra du* esaldiak *garai txarra dugu* esan nahi du; bestela esan, *du* adizkia "dogu" adizkiaren laburdura da. Uste dugu, bestalde, irizpide nagusi bezala euskalkian euskalkiko fonetizismoak gorde beharra dagoela eta Bermeoko euskara eta Gipuzkoakoa nahasten duen eredu honetan ez da batere erraza irizpide finko bat sendo erabiltzea. A. Zavalaren azken ahapaldian badago huts larri bat baladaren esangura lausotzen duena. Jatorrizko testuan zeure *semia besuan daukat* dator eta ez Zavalak transkribatzen duen *zeure anaie besuan daukat*. Guztiz inportantea da besoetan daukana semea izatea, eskuetan anaia izateak ez baitu

inolako zentzurik. Hasierako azalpenean ere Manuek Ziarsolok dakarren zehaztasuna gora handikoa da: *Senaŕgaya, it[xas] gixona zalarik, itxasibiĺaldijak egitera urten zan ema[zte] gaya ama ixateko bidian laga-ta.*

10. BERMEOKO BIGARREN EREDUA

Manuel Ziarsolok, 1935ean, gerra aurrean bildu zuen *Ana Juanixe* baladaren eredua. 1981-1982. urteetan "Mikel Zarate" iker Mintegikoek Luziana Bilbaori bildutako eredua bat dator neurri handi batean Manuel Ziarsolo *Abeletxek* bildutakoarekin. Hona hemen:

1
Untzi bi agertu zirian
santa Manterion parian,
nere anajia etorriko da
batian edo bestian.

2
–Nere anajia, ze barri dezu
Motriku erri onian?
–Berriak onak, berriak txarrak
Ana Juanitan gaiñian.

3
Ana Juanita ezkondutzen da
amaren da aitaren bozian,
amaren da aitan bozian eta
bere desborondatian.

4
Despedidako gabien ere
txorruetara giñian,
urragorrizko yoyia bere
imiñi notsan bularrian.

5
Bateorrek agur, bestiorrek agur
alan despedidu giñian,
eguna b'izan seiñaladua.
santa Luzia gabian.

6
–Galai gaztia, neiku al dezu
gab'onetako koplarik?
Nere senarra daukat entzuten
kuartoko bentanillatik.

7
Zure semia besuan daukat,
senarra aldamenian,
orain tertzio txarra du eta
erdu tertzio onian.

8
Orain il bere ein nozu eta
enterra naixu lurrian
enterra naixu lurrian eta
Birjiña amaren aurrian.

9
Urregorrizko iru-lau letra
imin idezu sepulturian,
arek letrak esango dio
zegaitik nagon ni lurrian.

Eredu honetako zenbait ahapaldi eta Aitzolen eredukoak bat datoz. Aitzolen bostgarren ahapaldia eta puntu honetako zazpigarrena bat datoz bete-betean. Bietan *zure semia besuan* daukat esaten da. Bermeoko eredu hau Manu Ziarsolo *Abeletxerena* baino askoz geroago bildua den arren aberatsagoa da. Azken bi ahapaldiek interes aparta dute *Eguna zala, eguna zala* balada aztertzeko.

11. CHAHOREN KANTUTEGIKO EREDUA

Donostiako hiru damatxo kantaren gaineko artikulu batean ezagutzen nituen aldaera guztiak transkribatu eta iruzkindu nituen (Kalzakorta: 2002). Aldaera horietan Chahoren kantutegian aurkitzen zen Bizkaiko aldaera interesgarri bat zegoen. Chahoren eskuizkribuan aldaera hau agertzen da:

I
Irour damacho Donostiaco,
Errenterian dendari,
yosten b'ere badaquien, baïan,
Ardaou edaten poliqui!
Eta trisquitin, trisquitin, Arrosa claberin!
Ardaou edaten poliqui!

II
Irour damacho Donostiaco,
Irourac khona gorriac
Yuaten dira tabernara, ta
Yaguiten dira ordiac!
Eta trisquitin, trisquitian, Arroda claberin.
Yaquiten dira ordiac!

III

Donostiaco gaztelupeko
sag'ardauaren[6] goçua!
Houra edaten-guengo-ciala
Haousi-neban, nic, basoa, cristalescoa!
Ha trisquitin, trisquitan, Arrosa claberin!
Hausi-neban nic, basoa, cristalescoa.

IV

Zeoure-tzat hamabostian, baïan
Bestentzat hamaçortzian;
Hamabostian naï ezpadeçu
Korputsto orren trouquian!
Ha, trisquitin, trisquitan; Arrosa claberin!
Korputsto orren trouquian

V

Guizon gaztia, cer didaoutaçu
Orrelan plaça betian?
Orrelan plaça betian, ta
Hambeste yenderen aürrian?
Ha, trisquitin, trisquitian, Arrosa claberin
Ambeste yenderen aurrian.

VI

Guecho naçala etchongo naz ni,
Salaberride bidian!
Guecho bichitan sartu-çala,
Sartuco-çara atian!
Ha! trisquitin, trisquitan, Arrosa claberin!
Sartuco-çara atian!

VII

Balça naïz ta ichoussi
Iñoc enau goure ikoussi,
Piperra ere baltz-da, baïan
Askoc daroua erossi!
Ha, trisquitin, trisquitan, Arrosa claberin
Askoc daroua erossi!

VIII

Neüre ama kanberan dago,
Khona gorria yantciric,
Aourten ezcoundu bide daouela,
Milla deabrouac arturic!
Ha, trisquitin trisquitan, Arrosa claberin
Milla diabrouec arturic!

[6] Sagardauaren hitzaren gainean, hain zuzen u horren gainean zeinu bat dago aspirazioarena.

Zortzi ahapaldietatik hiru *Ana Juanixe* baladakoak dira. Honelaxe iruzkintzen nituen aipatutako artikuluan:

> Laugarren ahapaldia Ana Juanixe baladan ere aurkitzen dugu. Honelaxe transkribituko genuke: *Zeuretzat amabostian, baina/ bestentzat amazortzian/ amabostian nai ezpadezu/ gorpuztxo orren trukian*. Gehien harritzen gaituena adizkia da *ezpadezu*, Bizkaiko erara *ezpadozu* uste genuen lekuan. Baliteke, zenbaitetan mendebaldeko bi euskalkien nahasketa egotea.
>
> Bosgarren ahapaldia laugarrenaren segida izan ohi da "Ana Juanixe" baladan. Honelaxe transkribiko genuke: *Gizon gaztia, cer diraustazu/ Orrelan plaza betian? / Orrelan plaza betian ta/ Hainbeste yenderen aurrian!*. Zalantza handiena lehen bertsolerroko adizkian dugu *didaoutaçu* horretan. Bizkaierako *diraustazu* forma garbia ikusten dugu. Gainerakoan bizkai-euskararen adibide gehiago erakusleetan. Erakusleak –n batez bukatzen dira bizkai-euskaraz: *orrelan/ on(el)an/alan.*
>
> Seigarren ahapaldi honek beste balada baten oihartzuna dakarkigu. Balada hori modu batera baino gehigotara ezagutzen dugu gure artean. Moduetako bat "Izar argiak argi egiten du" da. Honelaxe transkribituko genuke: *Gexo nazala etxongo/etxungo naz ni,/ Salaberrire bidian!/ Gexo bisitan sartu zala/ Sartuko zara atian*! Balada honetan amore-minak dituen emakume batek bere maiteak hilurran bisitatuko duela dio. *Gexo* delakoa bizkai-euskara "gaixo" dugu. Gainerakoa ulergarria da gehienean.

Zehaztasun horiek aspaldiko artikulu batean, 2002koan, eginda nituen. Nik Chahoren kantutegiko argazkiak erabili nituen transkripzioa egiteko. Louis Dassancek egindako Chahoren transkripzioak, ordea, kantutegiko argazkietan aurkitzen ez den ahapaldi bat dakar:

Garija saltzen nenguenian Donostiako kallean
Damaxu batek itandu zidan garia zegan neukian.

Ahapaldi hori erabat *Ana Juanixe* balada dugu eta IV ahapaldia baino lehenago dator. Louis Dassanceren transkripzioa kontuan hartzen badugu, beraz, honela litzateke gure baladari dagokiona:

Garija saltzen nenguenian Donostiako kallean
Damaxu batek itandu zidan garia zegan neukian

Zuretzat amabostian baian bestentzat amazortzian
hamabostian nai ezpadezu korpusto horren trukian

Gizon gaztia, zer didautazu orrelan plaza bethian?
Orrelan plaza betian eta ainbeste jenderen aurrian?

Gexo nazala, etxongo naz ni Salaberride bidean!
Gexo bisitan sartu zala, sartuko zara atean

Baltza naiz ta itxusi, inork ez nau gure ikusi
Piperra ere beltza da bainan askok darua erosi

Neure ama kanberan dago gona gorria jantzirik
Aurten ezkondu bide dauela mila diabruek arturik

Chahoren kantutegian beraz hiru ahapaldi garbiak dira *Ana Juanixe* baladarenak. Honelaxe emango genituzke gure transkripzioan:

1

Garija saltzen nenguenian Donostiako kallean
Damaxu batek itandu zidan garia zegan neukian.

2

Zuretzat amabostian, baian bestentzat hamazortzian;
hamabostian nai ezpadezu gorpuztxo orren trukian!

3

Guizon gaztia, cer diraustazu orrelan plaza betian?
Orrelan plaza betian ta ainbeste jenderen aurrian?

Hiru ahapaldi horiez gainera hurrengo ahapaldia ere gure baladarena ote da? Nola ulertu behar da hurrengo ahapaldia?

Guecho naçala etchongo naz ni, Salaberride bidian!
Guecho bichitan sartu-çala, Sartuco-çara atian!

Ez da erraza ahapaldi hori interpretatzea. Ez dago dudarik kantu narratibo bati dagokiola. Nola ulertu behar da? *Geixo natzala etzungo naz ni, Salaberrire bidean/ geixo-bisitan sartu zala, sartuko zara atian!* Edota *geixo nazala etzungo naz ni* egin behar ote da? Bigarren aukera hobea dela deritzat. Era berean, *Salaberride bidian* nola ulertu behar da? *Sala berrire bidian* edo *Salaberrire bidian*? Bigarren aukera hobea dela deritzat. Bigarren erdia ere ez da erraza ulertzen. Ulergarria da *geixo-bisitan sartuko zara atian* esaldia, baina nahasmena sortzen du *sartu zala* delakoak. Gainerako ahapaldietako bat dantza-kopla dugu eta bestea ume-kantua. Zazpigarren ahapaldiaren iruzkina honelaxe egin nuen aipatutako artikuluan:

> Zazpigarren ahapaldi hau ere zoragarria da. Honelaxe transkribituko genuke: *Baltza naiz ta itsusi/ Iñok enau gure ikusi,/ Piperra ere baltz da, bai(n)a/ Askok darua erosi*. Zoragarria da ahapaldi hau alde askotatik. Azken bertsolerroko *askok darua erosi* delakoak *askok erosi ohi du* adierazten du. Eroan aditzak Bizkaiko tradizioan aditz transitiboen ohitura adierazteko erabili ohi da. Bizkaiko dantza-kopletan ardoaren irudia agertzen da hemengo biperrarenaren ordez. Errose Bustintzak "Mañariko"-k, *Euzkadi* 1931ko ekainaren 3an, eta Adolfo Arejitak "Zeanuriko kopla zaharrak" *Eusko Ikaskuntza*, Hizkuntza eta Literatura 2, 224-236 or. honelaxe dakarte: *Baltza nasela dinuste /Baña neuri dust ardure gitxi;/Ardaoa be baltza da,/ Baña askok egiten dau erosi.* Orain argitaratuko dugun Salamankako kanta batean ere ia ahapaldi bera aurkitu dugu:
>
> Belcha niz eta ichuchi
> ez naçaculla gaitz etsi
> bipherra ere belcha da bainan
> ascoc nahi du erosi.
>
> Ahapaldi honen transkripzioa honelaxe emango genuke: *Beltxa niz eta itxuxi/ ez nazazula gaitzetsi/ bipherra ere beltxa da bainan askok nahi du erosi.* Bateratasunak bete-betekoak direnez gero, bego horretan zazpigarren ahapaldi hau.

Chahoren *Ana Juanixe* baladaren eredua, beraz, hiru ahapaldikoa da.

12. JEAN DUVOISINEN EREDUA BA OTE?

Duvoisinek egin zuen kantu-bilduman *Donostiako hiru damatxo* kantua ere bildu zuen. Kantu horretako ahapaldiak ezagunak dira, guztiz. Duvoisinen ereduko azken ahapaldia, ostera, harrigarria baino harrigarriagoa da:

Donostiako molle gaiñian, egun senti-sentian
laztan eder bat eman ziraten bular biaren erdian.

Aurreko puntuan ikusi dugun bezala, Chahoren ereduan *Ana Juanixe* baladaren hiru ahapaldi txertatuak zeuden. Ondarroako eredu luzearen pasarte batek badu ahapaldi honekin zerikusi txikiren bat:

Ogeitamairu dama lindatxu Motriku'n molla-gaiñian,
Ana Juanixe antxe dalarik arexen danen artian…

Ondarroako ereduan *molla-gaiñian* daude *ogetamairu dama lindatxu*. Duvoisinen ereduan Donostiako hiru damatxok ematen omen diote norbaiti laztan eder bat bi bularren erdian. Harrigarria da, benetan, *bular biaren artean* sintagma. Euskal ahozko literaturan ez da lehenengoz agertzen egitura hau. *Neska ontziratua* baladan, Zamudioko aldaeran, ere aukitzen da:

4
Lobedartxu bat ipini zioen bular biaren erdian,
linde damia loak daroa bosteun legoa bidien.

Duvoisinek bildu zuen ahapaldiak, urrutitik bada ere, badu zerikusi txikiren bat gure balada ereduarekin.

26
BAZKO ETA SALBATORE BALADA

1. SARRERA

Azkuek bere kantutegian *Endechas y elegías* sailean sartu zuen *Bazko eta Salbatore* kanta. Azkuek bere sail horretan guk baladatzat ditugun hainbat kantu sartu zituen: *Andre Emili*, *Apez beltza*, *Anaiai gaztigatu nion*, *Bart amarretan*. Sail horretan, era berean, zenbait balada arrunt (*Au da urkamendiko* eta *Baldomeko oihana*) eta are amodiozko kantuak ere badatoz. *Bazko eta Salbatore* kantuak ere badu balada eitea, baina uste dugunez euskal alorrean inork ez du ballad-type bezala hartu. Atal honetako alorra finkatzeko, beraz, oinarrizko galdera bati erantzun beharrean gaude. *Bazko eta Salbatore* bezala ezagutzen dugun kantak baladaren ezaugarri beteak ote ditu? Edo zuzenago esanez, *Bazko eta Salbatore* kanta bete-betean euskal balada gai bat dugu?

Geure erantzunak ez du duda izpirik. *Bazko eta Salbatore* balada gai interesgarri bat dugu, inolako dudarik gabe, eta horrexegatik balada gai honek kapitulu bat merezi du. Balada gai honetako testu guztiek, gainera, testu kritika zorrotz bat merezi dute. Arrazoiak argi baino argiago daude. Argitara diren eredu guztiek badute akatsen bat, edo moldapen bat, katitulu honetan barrena frogatuko dugunez. Argitara diren balada gai honetako testu guztiak jatorrizko eskuidatziekin erkatu nahi ditugu atal honetan. Argitara dauden bost ereduen testu orijinal edo jatorrizko eskuizkribuetara joko dugu atal hau osatzeko. Eredu guztien ordena diakronikoa izango da, batez ere. Argitara emandako bost eredu horietaz landa, argitaratu gabeko eredu osoago bat ere eskainiko dugu. Argitaratutako ereduek gehienez bost ahapaldi dituzte. Guk argitara dakargun eredu berri batean –Aiherrako André Martinoen kaierean, hain zuzen– sei ahapaldiko eredu bat emango dugu argitara. Aurreko guztiek bost ahapaldi zituzten gehienez ere, argitara dakargun Aierrako kaiereko ereduan seigarren ahapaldi bat ere badator. Eta seigarren ahapaldia erabakigarria izango da. Eredu berri honetako azken ahapaldiak salatzen duenez, protagonista mutil bat izango da.

2. *BAZKO ETA SALBATORE* BALADA GAIA KANTUTEGI ETA BALADA BILDUMETAN

Euskal balada-bilduma guztietan ez dugu geure balada gaia aurkituko. Euskal kantutegi guztiak erkatzen baditugu ere, ez dugu gure balada kantuen artean ere erraz atzemango. Biltzaile guztien artean Azkuek bakarrik dakar. Azkuek eskaintzen dituen bi ereduetatik, bestalde, bakarra baino ez dago osorik. Bigarren ereduan lehen ahapaldia bakarrik dator. Gainerako kantu biltzaile guztiek ez dakarte balada gai honen eredurik, Ez Chahok, Francisque Michelek ez Salaberrik, ez aita Donostiak… Ditugun eredu bakarrak eta bakanak urregorriaren balioa dute, inolako zalantzarik gabe.

Bakantasun honengatik beharbada ez dugu euskal balada-bilduma garrantzitsu eta funtsezko zenbaitetan aurkitzen. Ez dute aipatzen, esaterako, ez Juan Karlos Gerrak ez *Euskal baladak* lan taldekoek. Azkue izan zen, ostera, guk dakigula, lehen biltzailea eta nolabaiteko balada estatusa eman ziona bere CPV lanean. Goraxeago esan dugun bezalaxe, Azkuek balada narratiboak batez ere V. *Endechas y elegias* eta X. *Romances y Cuentos* sailetan sailkatzen zituen eta gurea *Endechas y Elegias* sailekoa dugu, *Goizean goizik*, *Eguna zala, eguna zala* edo *Urteak zonbat egun tu?* balada gaiak bezalaxe.

Euskal kantariek ere baladatzat hartu dute. Imanol izan zen guk dakigula 1997ko *Erromantzeak* diskoan baladatzat hartu zuen lehena. Disko honetan, ostera, balada ezagunez gainera badira baladatzat nekez har daitezkeen amodiozko kantuak. Imanolen diskoan *Alostorrea*, *Urzo luma gris gaixoa*, *Goizian goiz jeikirik*, *Goizian goizik jaiki nündüzün*, *Ana Juanixe* balada onartuen ondoan badira amodiozko kantu garbiak baladatzat ezin har daitezkeenak. *Mendiak bethe belarrez, Intxauspeko alaba dendaria*, *Xori errexiñula üdan da kantari*, *Uso xuria errazu*.

Euskal balada bildumen artean argiro eta garbiro balada estatusa ematen dion lehen ikertzailea Antonio Zavala dugu. *Euskal erromantzeak* lanean atal oso bat eskaintzen dio, gure balada gaiari, eta, gainerako balada gaiei bezala, ezagutzen dituen ereduak transkribatzen ditu. Ez du, kontu ezaguna denez, azalpenik ematen. Ereduak eskaintzea da beraren helburu nagusia.

3. *BAZKO ETA SALBATORE* BALADA GAIAREN EZAUGARRIAK

Zer kontatzen da balada gai honetan? Zeintzuk dira balada gaiaren ezaugarriak? Zerk markatzen du bere baladatasuna? Zergatik dugu interesgarria balada gai hau? Galdera hauek eta gehiago ere egin litezke, dudarik gabe. Galdera hauei erantzuten saiatuko gara puntu honetan.

Bazko eta Salbatore baladan gazte baten gaisotze heriozkorra kantatzen da. Hogeita lau urte dituen gazte baten –beste eredu batzuetan hogeita bi– lanturua dugu kantua. Gaztea hilbeila batean gaixotzen da gau osoan gaubeilatu ondoren. Gaztearen gaixotzea eta are hilzoria ere kontatzen da. Gaztea hilzorira datorrenean mediku bati eskatzen dio laguntza. Pentsatzekoa da balada dramatiko honetan medikuagana maitemindua dagoela gaztea. Behin kontuak honetara, aitor dezakegu neskatila gazte baten gaixotze eta are heriotzatik hurbil dauden uneetako dramatismo garratza dariola lau aldeetatik balada honi.

Balada hau ekialdeko euskaran ematen ere. Ditugun ereduak lau dira. Zuberoakoa (A eredua, Azkuerena), Baxenafarroakoa (B eredua Azkueren B, Orabarrekoa), Lapurdikoa (C Eredua, Lapurdiko Jatsukoa) eta Nafarroa garaikoa (D eredua, Nafarroako Mezkirizkoa, Erro bailarakoa). *Bazko eta Salbatore* baladak badu, alde batera, Bizkaiko *Testamentuarena* balada gaiarekin antzekotasunik. Aipatu ditugun eredu bietan zenbait bateratasun badira. Balada gai bietan hilzorian dagoen neska baten berri ematen da. Bietan mediku bat aipatzen da. Bietan hil ondoren doluminik ez hartzeko aipatzen du neskatilak. Dramatismoa dugu, inolako dudarik gabe, euskal balada gehienen ezaugarririk nabarmenenetako bat. Balada honetan dramatismoa bete-betean ematen da. Baladaren exordio edo lehen aipamenean ere urteko datarik esanguratsuenetakoak aipatzen dira gerora etorriko den baieztapen sarkorrekin. Aste santua, Salbatore eta Pentekoste aipatzen dira. Jesusen heriotza eta berpizkunde datak. Bada beste kontu interesgarri bat ere. Balada askotan bezalaxe pertsonaia baten deitura bat agertzen da. Medikuaren deitura Mendigarai (A ereduan), monsieur Harriague (C ereduan), Bidegarai (D ereduan) ematen da. Deitura agertze hau ez da ematen (ia) inoiz XVIII. mendeko amodiozko kantuetan.

Bazko eta Mendekoste balada gaitzat har genezake, inolako dudarik gabe. Pena da bost eredu bakarrik ekarri izana kapitulu honetara. Bost ereduak, gainera, ez dira ahapaldi askokoak.

4. AZKUEREN A EREDU ARGITARATUA

Gorago esan dugunez, Azkue handia izan zen *Bazko eta Salbatore* balada lehen aldiz argitara eman zuena. Lehenengo aldiz *CPV* liburuan, lehen liburuan, 489. orrialdean, 391. zenbakian, eman zuen

argitara. Kanta bera, bigarrenez, inolako aldaketarik gabe, argitara zuen *Euskaleŕiaren Yakintza* lanean ere, IV. alean, 155. orrialdean, argitara zuen. Bigarren argitaraldi honen ondoren zehaztasun hau dakar:

> Aprendido en Atharratze (Tarbes) (sic). ¿De J. Algorri? Su humilde música hállase en la pág. 489 del Cancionero sin acompañamiento.

Bi lekutan agertzeak bere garrantzia ere badu. Azkueren lanean, EYan, batez ere kantutegiko ale estimatuak eman ohi zituen berriz argitara. Antonio Zavalaren *EE/ RV* liburuko 294-297. orrialdeetako *Bazko eta Salbatore* kapituluko atala aztertuko dugu gure kapitulu honetan.

Kantu honen aldaera gutxi aurkitu ditugu eta guk geure iruzkina egin baino lehen eman dezagun Azkueren *CPV* lanean datorren bezalaxe:

1. Bazko eta Salbatore
   hüĺanena Mendekoste
   ¡eta ni gaixo au triste,
   xutik ere ezpeinaite!

2. Franko gazte nintzalarik
   eritarzun bat sarturik
   sobera gai-beilaturik
   badit ondorio hunik.

3. Hogoi eta lau urthetan
   eri bat ofe batetan,
   ene lagunak plazetan
   ¡eta ni gaixoa phenetan!

4. Mendigarai medizia,
   ene kontsolatzailea,
   lüze zadazu bizia:
   phena da hola hiltzea.

5. Ni hiltzen baniz huntarik
   ez egin, othoi, nigaŕik:
   ez yauntzi oial beltzik,
   ezpeitüt sino-behaŕik.

Kantuaren ondoren datorren zehaztasuna hauxe da:

> Lo aprendí en Zuberoa, no sé si de J. Algoŕi. Hay otra canción muy popular, que es casi esta misma en tono mayor:
>
> Bazko eta Salbatore,
> orai eldu Mendekoste,
> ¡eta ni ohean triste,
> xutik ere ezbainauke!

Honaino, beraz, Lekeitioko jakintsu biltzailearen oharrak, Zuberoako bokalismo eta abarren markak ez dira hitz guztietan ikusten. Lehen ahapaldian *hüĺanena* agertzen badu ere, nola da posible *gaixo au* transkribatzea? Ez luke *hau(r)* transkribatu behar? Eta lehen ahapaldiko *gaixo au* eta

hirugarreneko *gaixoa* ez lukete berdin izan behar? Edo *xütik*, *lagün* eta abar? Laugarren ahapaldian *lüze* hitza behar bezala ikusten dugu transkribaturik.

Huts nabarmen guztiak ez ditugu hemen adieraziko. Huts horiek neurri batean konpontzen dira Antonio Zavalaren lanean. Azkueren iturri argitaratuan ez datozen zenbait *ü* konpontzen dira: *eritarzün, sartürik, lagünak, zadazü*. Harrigarri egiten zaigu, ordea, Antonio Zavalak egiten dituen zenbait moldapen. Laugarren ahapaldian, esaterako, *phena da* hola hiltzea irakurtzen dugu Azkueren argitarapenean, Antonio Zavalak, ostera, *pena düt hola hiltzea* dakar. Bestela esan, Zavalak Azkueren *phena da* jatorrizkoa *pena düt* zuzentzen du.

Antonio Zavalak bere irizpide finkoak direla eta, onartzen ditu jatorrizko testuko h zorionekoak, betiere kontsonante bat aurretik ez badu. Onartzen ditu *hüĺanena, hunik, hiltzea, hiltzen, huntarik, beharrik* horiek. Baina kontsonante aspiratuetako (th) (lh) (ph) grafia ez du onartzen. Azkuek trankribatutako *phena*, *phenetan*, *othoi*, *urthetan* A. Zavalak *penetan*, *otoi* eta *urtetan* bihurtuko ditu. Irizpide hau beti modu berean izango du. Geroago ikusiko dugun L. Dassanceren ereduarekin ere modu berean jokatuko du.

5. AZKUEREN A EREDUA ESKUIDATZIAN

Azkueren lehen ahapaldia ABA-RMA-001-0002-001 eskuidatzian dator. Gainerako ahapaldiak ABA-RMA-001-0002-002, signaturan, 794. kantu-zenbakian. Bi eskuidatzietako ahapaldiak elkartuz gero, honelaxe aterako litzateke eredua:

Bazko eta Salbatore
hülanena Pentekoste
eta ni gaisoa triste
sutik ere ezpeinaite.

Franko gazte nintzalarik
eritarzun bat sarturik
sobera gai-beilaturik
badit ondorio hunik.

Hogei eta lau urtetan,
eri bat ofe batetan,
ene lagünak plazetan
eta ni gaisoa penetan.

Mendigarai medezia
ene konsolatzailea
lüze zadazu bizia,
phena da hola hiltzea.

Ni hiltzen baniz huntarik,
ez egin, othoi, nigarrik,
ez ezartekoz mezarik;
ezpeitut sino-beharrik.



ABA-RMA-001-0002-001.



ABA-RMA-001-0002-002.

Transkripzio honetan ez dago irakurketa arazorik. Zerbait markatzekotan lehen idazkeran *bedezia* jarri duela esango genuke, eta, gero, zuzendurik *medezia*. Atxeterrari edo medikuari esateko modu hedatu samarra da, frantseseko *médecin* hitzetik nahiko hurbil.

Azkueren jatorrizko transkripzio honetatik argitaratu zuenera badira onerako aldaketak eta zalantzazkoak eta arbuiagarriak. Onerakoak dira, esaterako, *hogei eta lau urtetan* jaso bazuen ere, Zuberoako euskaran *hogoi eta lau urthetan* batera aldatzea.

Azkuek testu idatzian jatorrizko ereduko bertso-lerro bat aldatu zuen. Lehen dokumentuan datorren *ez ezartekoz mezarik* Azkuek bere asmakari batez ordezkatu zuen: *ez jauntzi oial beltzik*.

Jatorrizko forma horren antzekoa dugu, nola ez, geroago ikusiko dugun Dassanceren aldaeran: *ez emaitekotz mezarik*. Atal honetan bertan transkribatuko dugun *Le Pays Basque Eskual-Herria* aldizkariko eredua ere hurbil dago: *ez emaitekotz mezarik*.

Azkueren eredu garbitua modu garbituagoan emanda ikusi dugu Dassanceren paperetan. Eredu hau KKK libururako prestatua da, baina azkenean ez zuten argitaratu.

6. AZKUREN B EREDUA ESKUIDATZIAN

Azkuek, goragoko puntuan ikusi dugunez, bi eredu eskaini zituen, bata ahapaldi bakarrekoa eta bestea bost ahapaldikoa. Ahapaldi bakarrekoa ABA-RMA-S-16-1 koadernoan aurkitzen da. Ahapaldi bakar hau 1542. kantu-zenbakian honelaxe dator:

Bazko eta Salbatore
ondoan heldu Mendekoste
eta ni ohean triste,
śutik ere ezbainauke

ABA-RMA-005-0016-001.

Guk transkribatu dugun ahapaldi honek ez du ortografia zeinurik. Uste dugu pentagraman egoki taxutzea dela folkloristaren xede nagusia. Hala ere, ahapaldi bakar hau eta Azkuek argitara zuena berdin-berdinak ote dira? Zertxobait aldatzen da. Testu argitaratuan *orai heldu Mendekoste* irakurtzen da; lehen dokumentuan, ordea, *ondoan heldu Mendekoste*. Aldaketa txiki bat dugu, baina nabarmena.

7. PERPETUA SARAGUETAREN EREDUA

Perpetua Saragueta (1906-1986) euskara galdu den Nafarroako Mezkirizko Erro bailarako azken hiztun eta berriemaileetakoa izan zen. Berriemaile bikaina alderdi guztietatik, memoria argikoa eta hiztun aparta. Berak eskuz idatzi zituen kuadernoak ezin utzizko dokumentu zoragarriak dira ez bakarrik goi nafarrerako euskalkiaren testigantza aparta ematen dutelako, baita etnografia aldetik eta folklore aldetik ere. Dokumentu idatzi horiek, pusketa batzuk Jose Mari Satrustegik argitaratuak baziren ere, Andres Iñigo euskaltzainak berrargitaratuak dira *Perpetua Saragueta: Eskuidatziak eta hiztegia* liburuan. Liburu horrek badu azalean P. Saraguetari egindako grabazioez osatutako CD bat.

Antonio Zabala konturatu zen emakume honek altxor handi baten jabe zela eta, beraz ahoz Euskaltzaindiko Herri literatura batzordeko bilera baten aitortu zidanez, Auspoa Bildumako ale bat eskaini nahi izan zion. Mezkirizko Perpetua Saragueta Iruñera etorria zen bizitzera eta Iruñean bertan grabatu zion Antonio Zavalak baladaren lau estrofa:

Aste Saindu, Salbatore,
ondar egun Pentekoste,
eta ni gaixoa tristerik
xutik egon ez naiteke

…….
…….
nere lagun gazteak plazetan
ta ni gaxoa penetan.

–Bidegaray medikua,
nere konsolatzailia,
luze zadazu bizia,
triste da ola hiltzia.

–Ago, mutikoa trankilki,
utz zak gogua laxoki,
sendatuko aiz segurki,
baina gobern'ai obeki.

Antonio Zavalak bildu zizkion lau ahapaldi horietatik bigarrena osatu gabekoa da. Andres Iñigok argitaratu duen *Perpetua Saragueta: eskuidatziak eta hiztegia* liburuan, 29. orrialdean, ordea, guztiz osorik agertzen da. Guk hona dagoen-dagoenean aldatuko dugu eta geure puntuazioa jarriko diogu:

Aste Sandu Salbatore,
Besta berri Pentekostes,
eta ni gaixoa tristerik
txutik egon ez naiteke.

Aste Sandu Salbatore,
ondar egun Pentekostes.
Nere lagunak plazetan
eta ni gaixoa penetan.

–Bidegarai medikua,
nere salbazailea,
luze darazu bizia,
triste da ola iltzea.

–Ago mutikoa trankilki,
utzek gogoa laxoki.
Sendatiko aiz segurki
Baña gobernai obeki.

Bigarren eredu honek argi berria eransten dio ezagutzen genuen Antonio Zavalaren eredu bakarrari. Badirudi Antonio Zavalari emandako ereduan berriemailea nahasi egin zela eta lehen ahapaldian bigarren ahapaldiko bi bertso-lerroak eman zizkiola. Era horretara, bigarrenean osatu gabe eman zion ahapaldia. Baina horretaz landara, zer alde dago eredu batetik bestera? Ez ote du A. Zavalak –oharkabean bada ere– eredu nafarra gipuztu? Hirugarren ahapaldian *luze darazu* adizkia *luze zadazu* egin du, laugarreneko *utzek* eta *sendatiko aiz* apurren bat gipuzturik *utzak* eta *sendatuko aiz* egin ditu. Bi ereduetan, dudarik gabe, sinesgarritasun gehien duena iturburukoa da eta ez Zavalaren transkripzioa. Era berean, *Pentekostes* agertzen da bi aldiz Saraguetaren eskuidatzian. A. Zavalaren transkripzioan *Pestekoste*. Zavalak berak argitara eman zituen gainerako ereduetan ere azken –s gabea (*mendekoste*) ote delako? Nola ote da *Aste Saindu* Zavalak egiten duenez edo *Aste Sandu* Saraguetaren eskuidatzian bezala? Kasu hauetan *in dubio pro reo* makurtu gara gu ere.

Fonetismo edo fonetizismoei dagokienez, ez da irizpide bat jarraitzen. Zavalaren ereduan, lehen eta bigarren ahapaldian, *gaixoa* ikusten dugu. Laugarren ahapaldian, ordea, *mutikoa* eta *gogua*. Hiru hitzak –o batez bukatzen direnez gero (gaixo/ mutiko/ gogo), hirurek izan behar dute berdin: *gaxoa/mutikoa/ gogoa* edo *gaxua/ mutikua/gogua*. Eman dezagun beste adibide bat –e batez bukatzen diren hitzetan, Zavalak –ia egiten du, eskuidatzian –ea. Zavalak *konsolatzailia/hiltzia* eta Saraguetak *salbazailea/ iltzea*. Interesgarria da bi performance edo eguneratzeetan eman daitezkeen aldaketa txikiei ohartzea. Saraguetaren eskuidatzian *salbazailea* ikusten dugu eta Zavalaren ereduan *konsolatzailia*. Saraguetarenean *nere lagunak plazetan* eta Zavalaren ereduan *nere lagun gazteak plazetan*. Bi eredu horietan, dudarik gabe, Zavalarena hankaluzea da, behar baino silaba bat gehiagokoa.

8. JATSUKO PERCEVALEN EREDUA

A. Zavalak Louis Dassanceren eredu bat dakar *Bazko eta Salbatore* kapituluko hirugarren atalean. Eredu horren berri honelaxe ematen du A. Zavalak: *L. Dassance jauna zenaren paperetatik, esku-idazki batetik. Goien ohar hau: Cahier Jatsou*. L. Dassanceren eredu hau interesgarria da Azkuerenak bezala bost ahapaldi dituelako. Hona zabalaren eredua:

Pazko eta Salbatore,
handik fite Mendekoste,
eta ni gaixua triste,
xutik ere ez bainagoke.

Hogoi eta bi urtetan
eria ohe batetan,
gazte lagunak plazetan
eta ni pena handitan.

Oin gaztia nintzalarik,
errefria bat sarturik,
sobera gau beilaturik
badut ondorio onik.

Monsieur Harriague merikua,
eri konsolatzailia,
luza diedazu bizia,
pena da ni hola hiltzia.

Ni hiltzen baniz huntarik,
ez, otoi, egin nigarrik;
ez emaitekotz mezarik,
ez dut sino beharrik.

Hona aldatu dugun transkripzio Antonio Zavalak eskaintzen duena da. Guk Zavalak aipatzen duen Dassanceren testua ere aurkitu dugu eta Dassancek bezala transkribatuko dugu jatorrizko eredutik Zavalanera zer alde dagoen ikusteko:

1

Pasco eta Salbatore	handik fite mendekoste
Eta ni gaichua trichte	chutik ere ez bainagoke.

2
Hogoi eta bi urthetan — eria ohe batetan
Gazte lagunak plazetan — eta ni phena handitan.

3
Oin gaztia nintzalarak — errefria bat sarthurik
Sobera gau beilaturik — badut ondorio onik.

4
Monsieu Harriague merikua — eri kontsolatzailea
Luza diedazu bizia — phena da nik hola hiltzia.

5
Ni hiltzen baniz huntarik — ez othoi egin nigarrik
Ez emaitekotz mezarik — ez dut nik sino beharrik.


Cachiri Jatsou
Pasco eta Salbatore handik fite meskoro
Eta ni gaichua trichte chutik ere ez banagoke.
2
Hogoi eta bi urthetan eria ohe batetan
Gazte lagunak plazetan eta ni phena handitan
3
Oin gaztia nintzalarak errefria bat sarthurik
Sobera gau beilaturik badut ondorio onik
4
Monsieu Harriague merikua eri kontsolatzailea
Luza diedazu bizia phena da nik hola hiltzia
5
Ni hiltzen baniz huntarik ez othoi egin nigarrik
Ez emaitekotz mezarik ez dut nik sino beharrik.

Bazko eta Salbatore balada. Dassanceren eredua.

Jatorrizko ereduko aspirazio legeak, beste askotan bezala, ez ditu A. Zavalak guztiz errespetatzen. Bestela esan, jatorrizko *handik*, *hogoi*, *ohe*, *handitan*, *hiltzia* eta *huntarik* errespetatzen ditu. Zer esanik ere ez *Harriague* deitura. A. Zavalak ez ditu, ordea, kontsonante aspiratuak errespetatzen. Jatorrizko Louis Dassanceren *urthetan*, *phena* (bi aldiz), *sarthurik* eta *othoi* aspirazio gabe emango ditu: *urtetan*, *pena*, *sarturik* eta *otoi*. Era berean, jatorrizko *chutik*, *gaichua* eta *trichte* hitzak *xutik, gaixua* eta *triste* transkribatzen ditu. Ez dago dudarik bigarrena *trixte* transkribatu behar duela *–ist* multzoa XIX. mende erditik aurrera *–ixt* egiten delako: *ixtorio* eta *mixterio*, *ixtudiante*, *girixtino*, *trixte*, eta abar irakurtzen ditugu XIX. eta XX. meendeeetako testu askotan *ichtorio*, *michterio*, *ichtudiante*, *girichtino*, *trichte* eta abar idatzirik. Jatorrizko *Pasco*, bestalde, nola transkribatu behar ote dugu *Pasko* edo *Pazko*. A. Zavalak *Pazko* egiten du, guk uste dugu zuzenago transkribatua dagoela *Pasko*.

Badira, azkenik, bi kontu iruzkingarri. Hirugarren ahapaldian *nintzalarak* irakurtzen dugu. Nola liteke *–larak* bukaera? Guk *nintzalarik/nintzelarik* edo *nintzelaik/nintzalaik* espero genuen. Dassanceren huts bat ote da? Laugarren ahapaldian *phena da nik hola hiltzea* irakurtzen dugu. Hobeki esan, badirudi

lehen idatzian *phena da ni hola hiltzea* jarri du eta geroago *–k* bat erantsi diola dirudi, tarterik gelditzen ez zaionez gero, ergatibo marka txikiago eta idazte lerrotik beherago jarri baitu. Esaldi biak dira berez onargarri: *phena da ni hola hiltzea* edo *phena da nik hola hiltzea*. Gainerako ereduetan oso antzerakoa da baina ez da guztiz berdina. Azkuerenean *phena da hola hiltzea* eta P. Saraguetaren ereduan *triste da ola hiltzea* ikusten dugu.

Dassanceren eredu eskuidatzian *Cahier Jatsou* dakar, norena ote da kaier hau? Oxobik Oxalderen gaineko lana argitaratu zuenean 1950eko *Gure Herria* aldizkarian "Lurreko ene bizia" kantuaren azpian ohar hau zetorren (Moulier: 1950):

> "Bertsu hauk Louis Dassance Uztaritz-ko auzapezak hautetsirik Henri Perceval Jatsu Munjogainekoaren "kaier" batean.

Louis Dassancek Henri Perceval kantariaren kaieretatik bilduak izango zituelako ustea genuan Jatxu horrek salatzen zuenez. Henri Parceval kantariaren bi kaier ezagutzeko aukera izan dugu, zorionez, eta hantxe aurkitu dugu gure balada 26. orrialdean. Honelaxe dator Parcevalen kaierean:

Pasco eta salbatoré

1
Pasco eta salbatoré handic fité mendecosthé
Eta ni gaichua tríchte chutic éré es bainagocé

2
Hogoi eta bi Urtetan Eria ohe batetan
gaste lagunac plasetan eta nic pena handitan

3
Oins gastia nitzélaric erefria bat Sarturic
Sobera gau beilaturic badut ondorio onic.

4
Meusieu hariage mericua eri contsolailia
lusa diedasu bisia pena da nic hola hiltzia

5
Ni hiltzen banaiz huntaric es otoi egin nigaric
Es emaitecots mesaric es tunic sino beharic

Eredu biak atal honetan jarri ditugu eta ez dago dudarik zein den iturburukoa. Parcevalen eredua gaurko grafiara aldatu duenean zuzenketa argi batzuk egin arren hutsen bat edo beste ere egin du L. Dassancek. Argi dago jatorrizko *nitzélaric* adizkia *ni[n]tzelarik* transkribatu behar zuela eta ez *nintzalarak*.


26
Pasco eta salbatoré
1
Pasco eta sabatoré handic fité mendecostéré
Eta ni gaichua tríchté chutic eré es bainagocé
2
Hogoi eta bi urtetan heua ohé batetan,
gazte lagunac plazetan eta ni pena handitan
3
Oins gastia nitzélaric erefria bat Sarturic
Sobera gau beilaturic badut ondorio onic
4
Mensieu harriage merikoa eri contsolatzalia
luza diedazu bizia pena da nic hola hiltzia
5
Ni hiltzen baniz huntarik es otoi egin nigarric
Es emaitecotz mezarik es dut nic sino beharric

Bazko eta Salbatore balada. Percebalen eredua.

9. JATSUKO EREDUA GAURKO ORTOGRAFIAN

Puntu honetan gaurko ortografiara ekarriko dugu Henri Percevalen eredua. Orain arte erabili dugun gure transkripzio-sistema kontuan izanik hau da gure proposamena.

1
Pazko eta Salbatore,
handik fite mendekoste,
eta ni gaixua trixte
xutik ere ez bainagoke.

2
Hogoi eta bi urthetan
eria ohe batetan,
gazte lagunak plazetan
eta ni phena handitan.

3
Oin gaztia ni[n]tzelarik
errefria bat sarthurik,
sobera gaubeilaturik
badut ondorio onik.

4
Monsieu Harriague merikua,
eri kontsolatzailea,
luza diedazu bizia
phena da nik hola hiltzia.

5
Ni hiltzen baniz huntarik,
ez, othoi, egin nigarrik,
ez emaitekotz mezarik
ez dut nik sino beharrik.

10. AIHERRAKO EREDU ARGITARAGABEA

Aiherrako André Martinonen kaierean bi aldiz agertzen da *Pazko eta Salbatore* balada. Bi kaieretan balada bera bi eratara transkribaturik ikusten dugu. Ezagutzen dugun gure baladaren eredurik interesgarriena koaderno bi hauetan transkribatutakoa da. Gure eredu berri argitaragabea gainerako eredu guztietakoa baino osoagoa da: sei ahapaldi guztira.

Nongoa ote da eredu berri hau? Baxenafarroakoa, dudarik gabe. Kaieretan agertzen diren herri erreferentzia gehienetan Isturitz aipatzen da. Bi transkripzioak eredu berarenak dira, eta traskribatzailea ere –esku-letrak salatzen duenez– pertsona bera dugu. Transkripzioari dagokionez, ordea, ez daude erabat berdin transkribaturik. Gure atal honetan kaierik mardul eta aberatseneko eredua transkribatuko dugu lehenik, eta, kaier menostu edo gutxiratutako eredua, bigarrenik. Lehen kaierean kantuaren izenburua frantsesez emana da *Chanson d'un jeune homme.* Guk atal honetan dagoen-dagoenean transkribatuko dugu.

1
Pasko eta salbatore handik landa mendekoste (bis)
Eta gaichua ni triste chutik ere ez bainauke (bis)

2
Arras gaistia ninzelarik arrafia bat bildurik (bis)
Gauas/k kampuan emanik ezdut berce arrengurarik (bis)

3
Hogoi eta lau urthetan eri bat ohe bathetan (bis)
Gaste lagunak plazetan eta ni changrin handitan (bis)

4
Hirigaray midikua erien sendagailua (bis)
Luza dazu bizia trichte da hola hilzia (bis)

5
Ni huntarik hilzen baniz ez egin othoi nigarrik (bis)
Ez ukhaitekots mesarik ez baitut nigar beharrik (bis)

6
Ago muthikua tranquilki eguadia lagnoki (bis)
Achikak gogoua lagnoki eta goberna hobeki (bis)

Bigarren eredua orri asko falta dituen kaier batean transkribaturik dago. Gorago esan dugunez, lehen transkribatzailearen letra bera ikusten dugu bigarren kaierean ere. Bigarren kaier honetako ereduak huts gutiago ditu eta aurreko ereduko transkripzioak sortzen dizkigun korapilo asko askatzen ditu. Pentsatzekoa da bigarren eredu transkribaturik dagoen kaiera zaharragoa dela eta honetatik aldatu dela bestera. Bigarren koaderno honetako kantuak lehenaren segida bera dute. Lehena *Chansons d'un renard*, bigarrena *Chansons d'un jeune gens*, hirugarrena izenbururik gabe *Neska ontziratua* balada gaia, laugarrena *Sibourutik Saralat*, bosgarrena *Maitia chouri zira*, seigarrena *Baigorriko Urchoa*, zazpigarrena *Sorlekhua dut nik Frantzian,* zortzigarrena *Anderia gorarik zaude*, bederatzigarrena *Sorlekua dut Frantzian*, hamargarrena *Carlosa eta ezcondua*, hamaikagarrena izenbururik gabe (Suyet eder bat declaratzen dut gaztek etsemplu hartzeko), hamabigarrena *Isturitzerat beylara*.

Bigarren eredu honetako izenburua, antzerakoa bada ere, ez da lehenaren bera: *Chansons d'un jeune gens*. Funtsezkoa dugu, beraz, bigarren eredua hau ere transkribatzea.

1
Phasko eta salbatore handic landa Mendekoste <bis>
Eta gaichua ni prichte chutik ere ez bainauke <bis>

2
Arras gaztia ninzelaric arrafria bat bilduric <bis>
Gauz kampuan emanic ez dut berze arrenguraric

3
Hogoi eta lau urthetan eri bat ohe batetan <bis>
Gaste lagunac plazetan eta ni changrin handitan

4
Hirigaray midikua erien sendagailua <bis>
luza dazu bizia trichte da hola hilzia <bis>

5
Ni huntaric hilzen baniz ez egin othoi nigarric <bis>
Ez ukhaitekotz mezaric ez baitut nigar beharric <bis>

6
Ago muthikua tranquilki atchikac gogua lanjoki (bis)
Atchikac gogua laijoki eta goberna hobeki (bis)


Egin presondegian oila charbat ipcanic

Chanson Comique
Par Paulin Paris
M. C. H.

Chansons d'un jeune gens
1ere Couplet

Hiruna Phasko da salbatore handic landa Mendekoa
Eta gaichua ni prichte chutic ere ez bainauke <bis
2eme Couplet

Arras gaztia ninzelaric arrafria bat bilduric <bis>
Gauz kampuan emanic ez dut berze arrenguraric
3eme Couplet

Hogoi eta lau urthetan eri bat ohe batetan <bis>
Gaste lagunac plazetan eta ni chiangrin handitan
<bis>


4eme couplet
Horrigaray midikua erien sendagailua (bis)
luza dazu bizia trichte da hola hilzia (bis)
5eme Couplet
eth huntarie hilgen baniz ez egin othoi nigarric (bis)
Ez ukhaitekotz mezaric ez baitut nigar beharric (bis)
6 eme Couplet
Ago muthikua tranquilki atchikac gogua lanjoki (bis)
eftchikac gogua laijoki eta gobernu hobeki (bis)

Bazko eta Salbatore balada. Bidarrairen eredua.

Bi transkripzio hauetatik lehena askoz argiagoa da. Bigarren ereduan ulertzen ez diren hitzak argiago daude lehen ereduan. Bigarren ereduko *Ago muthikua tranquilki atchikac gogua lanjoki* lehen ereduan *Ago muthikua tranquilki eguadia lagnoki* dugu. Lehen ereduko *lagnoki*, hots, hobeto ulertzen da biarreneko *lanjoki* baino. Bigarren ereduan, azken ahapaldian, lehen ereduan baino bihurki garbiago bat dator.

11. *LE PAYS BASQUE ESKUAL HERRIA* AGERKARIKO EREDUA

Azken eredu hau Baionako *Le Pays Basque Eskual Herria* agerkarian, 316, zenbakian, *samedi 20 octubre de 1904* urtean, agertu zen. Izenburua *Muthil gazte eria* du. Bazko eta Salbatore baladaren lehen agerrera argitaratua Baionako aldizkarian izan zen. Kantuaren ondoren ez dator inolako zehaztasunik.

Phazko eta Salbatore
Handik laster Mendekoste
Eta ni gaichoa triste,
Chutik ere ez bainauke.

Hogoi ta bortz urthetan,
Eri ohe batetan.
Gazte lagunak plazetan
Ni gaichoa tristerikan.

Monsieur Harriet midikua
Ene kontsolatzailea.
Luza dautazu bizia,
Pena da hola hiltzia.

Ni hiltzen baniz huntarik
Ez egin othoi nigarrik
Ez emaitekotz mezarik,
Ez baitut sino beharrik.

Eredu hau ez da beste inondik hartua. Gainerako ereduen oso antzerakoa bada ere, desberdina da. Eredu honetan agertzen den medikuaren deitura ere desberdina da: Monsieur Harriet. Baionako *Le Pays Basque Eskual Herria* aldizkarian agertzen diren kantuak beste iturri batzuetatik aldatuak izan ohi dira. *Bazko eta Salbatore* eredu hau, ordea, ez dago beste iturri argitaratu batetik hartua.

27
EGUN ONAK JAUNGOIKUAK BALADA

1. SARRERA

Manuel Ziarsolo *Abeletxek*, Bermeon, 1936 urtean, *Egun onak Jaungoikuak* hasierako balada bat bildu zuen. Balada horretan neba-arreben arteko elkarrizketa indartsu bat ematen zen, *Urtsua* baladan ematen denaren antzekoa. Harrigarria zen Bizkaiko kostaldeko herri batean bildutako baladak antzekotasun handiak izatea Baztango *Urtsua* baladarekin. Beste alde batetik, Arxü zuberotarraren kantukaier batean Bermeoko baladaren antzeko beste kantu bat aurkitu genuen. Gure harridura, beraz, handitu zen ikustean Euskal Herriko erdialdeko *Urtsua* baladak –Baztango ibarreko Arizkunen eta ondoko herrixketan bilduak– kide hurbilak zituela Bizkaian eta Zuberoan. Bestela esan, oraintsura arte ezagutzen ez genituen bi eredu berrik –Euskal Herriko bi muturretan bilduak, Bermeon eta Zuberoan–, kidetasun nabariak zituzten *Urtsua baladarekin*. Atal honetan Bermeoko ereduarekin batera Zuberoako balada ere ekarriko dugu.

2. *URTSUA BALADAKO* ELKARRIZKETA

Urtsuako baladako hamahiru eredu bildu zituen A. Zavalak. Eredu horietan gehienetan neba-arreben arteko elkarrizketa bat eman ohi da. Elkarrizketa hori indar handikoa da. Eredu guztietatik bat bakarrik ekarriko dugu hona, A. Zavalaren laugarren eredua, Aita Jorge Riezuk *Nafarroa-ko euskal kantu zaharrak* liburuan bildu zuena:

1
–Agur nere arreba,
nere arreba Yoana,
berri bat aditu dut,
nere arreba Yoana.

2
–Zer aitu duzu bada,
nere anaia yauna?
–Enbraza omen zara,
nere arreba Yoana.

3
–Zertan ezautzen naute,
nere anaia yauna?
–Gerria loditu ta
laburtu kotilluna.

4
–Enazazula sala
ene aitametara,
et’are guttiago
Utsuko semetara.

5
–Zer emain duzu sari,
nere arreba Yoana?
–Txapela plumarekin
nere anaia yauna.

6
–Ez da, ez, hori sari,
nere arreba, Yoana.
–Bortzetan ehun luis
nere anaia yauna.

7
Hoiek ez tuzu aski,
nere arreba Yoana.
–Zaldia zelaturik,
nere anaia yauna.

8
–Hoiek ez tuzu aski,
nere arreba Yoana.
–Haurra besoetara,
nere anaia yauna.

9
Hori da, hori, hori,
nere arreba Yoana:
haurra besoetara,
nere arreba Yoana.

10
–Zazpi errota berri,
zortzi yauregi xuri;
hoien guzien gatik
nik ez Utsura nahi.

Eredu osoenetako bat ekarri nahi izan dugu puntu honetara. Hurrengo puntu batean neba-arreben arteko elkarrizketa zorrotz hau konparatuko dugu Zuberoako eredu berriko elkarrizketarekin.

3. BIZKAIKO *EGUN ONAK JAUNGOIKUAK* BALADA

Egun onak Jaungoikuak balada A. Zavalaren *ERRV* liburuan transkribaturik dator 298-299 orrialdeetan, "Izen ona / El honor" sailean. Balada Bermeon batua dago eta biltzailea euskal idazle bat izan genuen: Manuel Ziarsolo *Abeletxe*. Transkripzio hau Jose Ariztimuño *Aitzol*-en bildumakoa da eta 1936. urtean bildua izan zen.

Balada honen *incipit* edo hasiera, *Egun onak Jaungoikuak*, beste euskal balada askotxotan ikusten dugu. Jesus Antonio Cidek hain ondo aztertu duen *Urthubiako Alhaba* baladaren hasiera ere bertsua dugu *Gainkoak deizula egun hon*. Beste balada batean, *Leixibatxua* bezala ezagutzen dugun balada gaiko eredu askotxok ere sarrera bera dute. A. Zavalaren sailkapenean III, IV, VII, XII, XIII ereduak dira.

A. Zavalak bere baladategian balada-eredua transkribatu eta zehaztasun gutxi batzuk eman zituen:

> Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bilduman, 1936 urtean Bilboko Manuel Ziarsolo *Abeletxe*-k bialdua. Bermeoko Felipe Bilbaori jasota.
>
> Bigarren laukoan agertzen dan *txifle* itza ez degu iztegietan arkitu. Abel Muniategi adiskideari galdetu genion, bera Bermeon bizi dan ezkero. Onela erantzun zigun:
>
> –*Txiflea* ez; *txiplie* esaten da Bermeon. *Txiplie emon*, alegia. Belarrondokoa edo masaillekoa emon esan nai du. *Txipli-txapla* ere esaten da. Baiña gaur egun *plastazua emon* geiago entzuten da.
>
> Kanta onek zer ikusirik badu, gure iritzirako beintzat, Urtsuak zazpi leio asten dan kantarekin.

Manuel Ziarsolo *Abeletxe*k balada bat baino gehiago bidali zizkion postaz Jose Ariztimuño *Aitzoli*. Manuel Ziarsolok *Neska ontziratua* baladaren eredu gutxirendu edo menostu bat bildu zuen. *Egun onak Jaungoikuak* eredua, ostera, oso ona da. Balada hau elkarrizketa batean ardaztua dago. Elkarrizketa amebeo edo txandakatua da.

1
–Egun onak Jaungoikuak
emonda, arreba Juana.
–Alan ekarri daizula
neba zaldun ona.

2
–Txifle bat emon arren
ogean zagozana.
Txiflia bera bere
senar onak emona.

3
–Nok esan dotzu ori,
neba zaldun ona?
–Zeure senarrak esan dost,
arreba Juana.

4
–Altzatu egidazu
ganeko tapie,
erakutsi daizudan
gorpuztxu neurie.

5
Zazpi puñalada dodaz
neure gorputzian,
zortzigarrena daraukat
biotzaren erdian.

6
–Nok esan dautzu ori,
arreba Juana?
–Neure senarrak egin daust,
neba zaldun ona.

7
–Non dozu senar ori,
arreba Juana?
–Kalian pasiatzen,
neba zaldun ona.

8
–Zu olan ipini eta
kalian pasiatu?
Pagatuko dituz ongi,
bizi banaiz belu.



ARRARI VISITA

--Egun onak Jaun-Goikua'k
Emanda aŕeba Juana
--Alan ekáŕi daizula
Neba zaldun ona.

--Txifle bat emon aŕen
Ogean zagozana
--Txiflia bera bere
Senaŕ onak emana.

--Nok esan dotzu ori
Neba zaldun ona
--Zeure senaŕak esan dost
Aŕeba Juana.

--Altzatu egidazu
Ganeko tapie
Erakutsi daizudan
Gorpuztxu neurie.

--Saspi puñalada dodaz
Neure gorputzian
Zortzigaŕena daraukat
Biotzaren erdian.

--¿Nok egin dautzu ori
Aŕeba Juana?
--Neure senaŕak ein daust
Neba zaldun ona.

--¿Nun dozu senaŕ ori
Aŕeba Juana?
--Kalian pasiatzen
Neba zaldun ona.

--Zu olan ipini eta
Kalian pasiatu
Pagatuko dituz ongi
Bazi banai helu.

Olarkijok Bermeo'ko Bilbao Táŕ Pelipe'ri entzunikus

Bermeoko *Egun onak Jaungoikuak* baladaren eredua.

Urtsua baladaren ezaugarri nabarmenetako bat balada hori Euskal Herriko eremu jakin batean bildua izatea da. Eredu jakin eta mugatu hori Baztan dugu. *Urtsua* baladako ereduak ez dira, kontu jakina

denez, Baztanetik kanpora bildu. Ez al da harrigarria, beraz, Bizkaiko kostaldean, oso antzeko eredu bat biltzea?

Esanguraren aldetik bada kontu bat. Non egiten da, non burutzen da elkarrizketa hau? Argi dago etxe-barrukoa dela elkarrizketa. Bigarren ahapaldian esaten da emakumea ohean dagoela. Laugarren ahapaldian ere oheko estalkia altxatzeko diotso emakumeak bere nebari.

Aitzolek estimu handitan zuen balada hau, Lauaxetaren *Arrats beran* liburuaren prentsa-iruzkina egitean Lauaxetaren "Artzain baten eriotzean" eta balada honetako pasarte bat konparatu zituen (Ariztimuño: 1936):

> Entre otras, pertenece a este género "Artzain baten eriotzea". Escojo ésta porque evoca en mi el recuerdo de otra poesía euskaldun antigua, y desconocida totalmente, que puede pasar por un romance perfecto. Se titula "Arrebari bizita". Cántase en una de estas estrofas:
>
> "Zazpi puñalada dodaz
> neure gorputzian
> zortzigarrena deraukat
> biotzaren erdian."
>
> Heridas inferidas por su propio esposo. Esta y otras que tengo recogidas, demuestran que nuestros poetas no descuidaron este género, que ahora, notabilísimamente perfeccionado, renueva "Lauaxeta".
>
> Romances bellísimos son "Etxeko alabea" y la encantadora "Bolutxu zurija" y su gemela "Txiribogiñaren alabea."

Aitzolek garbi dio *puede pasar por un romance perfecto* gure baladaren berri ematen duenean. Aitzolek balada horren berri 1936. urtean izan zuen eta horrexegatik dio *poesia euskaldun antigua y desconocida totalmente*.

4. BERMEOKO BALADAREN EZAUGARRIAK

Hizkuntzaren aldeko ezaugarri nabarmen batzuk baditu. Bizkaiko euskara garbi-garbia bada ere, baditu beste euskalkietako ezaugarri batzuk. Bosgarren ahapaldiko *daraukat* adizkia bestaldekoa da, eta *grosso modo* Lapurdi eta Baxenafarroakoa dela baieztatu dezakegu. Ez dugu Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan holako adizkirik dokumentatzen. Azken esaldiko *Pagatuko dituz ongi/ bizi banaiz belu* horretan harrigarri egiten dira *ongi* eta *belu* formak. Bata ekialdekoa, batez ere Nafarroakoa, (Gipuzkoan *ondo* esan ohi da, leku gehienetan) eta bestea Bizkaiko mendebaldekoa.

Elkarrizketa hutsezko balada dugu, beraz, Bermeokoa. Antonio Zavalak intuizio eta sen ona erakusten du, gure ustez, *Urtsuak zazpi leio* baladarekin zerikusia duela adierazten duenean. Zeintzuk dira, beraz, berdintasunak?

Lantainako alaba eta bere neba apezaren arteko elkarrizketa oso antzekoa da. Kasu bietan neba-arreben arteko elkarrizketa dugu. Galdera-erantzunetan oinarrituta dago gure balada eta *Urtsua* baladaren pasarte esanguratsu bat ere elkarrizketan oinarritua dago. Galderek oso egitura antzekoa dute *Nok esan dotzu ori?* (4. ahap), *Nok egin dautzu ori?* (6. ahap.), *Non dozu senar ori?* (7. ahap.)

Galdera-erantzunen azkenean errepikatzen diren hitzak paralelismo nabarmena ezartzen diote baladari. Azken hitz hauek deiki edo deigarri indartsuak dira. Gure Bermeoko baladan *arreba Juana* eta *neba zaldun ona dira*; Utsuako baladan *ene arreba Juana* eta *ene anaia jauna*.

Bi ereduen arteko berdintasunik handiena hauxe litzateke. Bermeoko baladako *Txifle bat emon arren/ ogean zagozana* eta Urtsuako baladako *sinpleza batengandik/ oean etzana*. Kasu horretan berdintasun ikaragarria ikusten dugu. Esanguraren aldetik ere bada antzekotasunik. Bermeoko baladan lehenaren hitzetan *txifle bat emon arren/ ogean zagozana* esaten da. Ohean huskeria batengatik dagoela dio, baina gerora egia agertzen da. Zazpi puñalada ditu eta zortzigarrena bihotzean. Urtsuako baladan ere antzerako zerbait gertatzen da. Huskeria batengatik dagoela ohean dio Lantainako alabak, baina gerora larriagoa den beste zerbaitegatik dagoela dio.

Gure baladako laugarren ahapaldiak, egiturari gagozkiola, antzekotasun handia du Frantzia korteko harako *–Juanita, jatxi zaite,/ zaldien gañetik/ sar daitzudan puñal au/ biotzen erditik* (*ERRV* laneko VII. eredukoa) harekin.

5. *PLAZAN ZER BERRI DA* ARXÜREN KANTU-KAIEREKO EREDUA

Puntu honetan Jean Baptiste Arxüren kantu-kaier batean agertzen den kantu bat transkribatuko dugu. Kantu hau ez da beste inon argitaratu, guk dakigula. Kantuaren zenbakia 12 da eta Zuberoako euskaran dago. Puntu honetan dagoen-dagoenean transkribatuko dugu, ortografia zaharra errespetatuz.

–Plazan zer berri da
Ene anaia jauna?
–Zu izorra zirela,
Ene arreba anderia.
Tra la la la la
Tra la la la la

Nountic? Dioia hoiec
Ene anaia jauna?
Ene ganic ziradiala
En'arreba anderia.
Tra la la la la / bis

Nik zer eghin behardut
Ene anaia jauna?
–Erromara joan
Aita Saintia gana
Tra la la la la / bis

–Zer emanan deitadazu
erromara joaiteco?
–Zaldi eigerbat chouri
Ehun pichtola gorri
Tra la la la la / bis

Ni erromara heltu
Nic han haurra sorthu
Aphezkupiac egari
Aita Saintiac batheiatu.
Tra la la la la / bis


12 — Plazan zer berri da
Ene anaia jauna?
-Zu izorra zirela,
Ene arruba diberiao.
Trala la la la
Tra la la la la.
Nountic? diozu hoiek
Ene anaia jauna?
Ene ganic zuradielac
En arruba auberiao.
Tralalala lal (bis)
- Nic zer eghin behardut
Ene anaia jauna?
- Erromara joan
aita saintia ganao
Tralala lala (bis)
- Zer emanen deitabazu
Erromara joaiteco?
- Zaldi eigerbat chouri
Ehun pichtola gorri
Tralalala la la (bis)
- Ni erromara haltu
nic hiru hamar urthe
apheztupiac egari
aita saintiac bathciatu.
Tralala la la lal (bis)

Plazan zer berri da Arxüren kantu-kaierekoa.

Balada honen transkripzioan J.B. Arxüren ortografiaren ezaugarriak ditugu bete-betean. Testu honetan *egin* aditza idazteko aukera bakarra Arxüren grafian *eghin* da. Baldin *egin* idatzi balitz, beste

ahoskera bat izango genuke *eijer* hitzak duena. Horrexegatik ikusten dugu *eiger* idatzirik, guk *eijer* bezala idatziko genukeena.

6. *PLAZAN ZER BERRI DA* AHAPALDIZ AHAPALDI

Balada hau aberatsa dugu alderdi askotatik. Gure ustez, azal-mamiek iruzkin bat merezi dute. Puntu honetan ahapaldiz ahapaldi balada iruzkinduko dugu.

1
–Plazan zer berri da
Ene anaia jauna?
–Zu izorra zirela,
Ene arreba anderia.

Hemen ere gorago egin dugun galdera egin daiteke. Non da elkarrizketa hau? Guk uste dugu etxe barrukoa dela, eta uste dugu, era berean, emakumea ohe barruan dagoela. Etxe barrukoa da *plazan zer berri da?* galdetzen diolako arrebak nebari. Plazan zer berri da galdetzea, kanpoan zer berri den galdetzea bezalakoa da. Eta hori galdetzen duena barruan, etxe barruan edo jauregi barruan egon behar. Baliteke, goraxeago esan dugun bezala, arreba ohean egotea ere, zeren, itxurak direnez, umea laster egin behar baitu emakumeak. Baliteke, beraz, haurdun handi egotea emakumea.

2
Nountic? Dioia hoiec
Ene anaia jauna?
Ene ganic ziradiala
En’arreba anderia.

Gure bigarren ahapaldi honetan nundik galdetzea *norganik/norgandik* galdetzea bezalakoa da. Guk hona ekarri dugun Baztango eredua *zertan ezautzen naute?* da. Galdera desberdinak dira, guztiz. *Eneganik* forma zaharragoa dugu *enegandik* baino. Erantzun horri *norganik* galdera dagokio. *Nondik*, ordea, indartsuagoa egiten zaigu.

3
Nik zer eghin behardut
Ene anaia jauna?
–Erromara joan
Aita Saintia gana

Bestetan ere ikusia dugu hirugarren ahapaldian adierazten den kontua. Umea egiten duen andreak kanpora joan beharra dauka. *Xarmagarri zira eijer eta fresko* kantan apez batengandik haurdun dagoen emakumeak ihes egin beharra dauka. Kasu honetan Erromara joan behar du aita santuagana. Ez ote du baieztapen horrek neba apezak eragin diola umea adierazten?

4
–Zer emanan deitadazu
erromara joaiteco?
–Zaldi eigerbat chouri
Ehun pichtola gorri

Euskarari gagozkiola, *ist–* multzoa *ixt–* bihurtzea batez ere 1850. urteaz geroztikakoa da. Emakumeak eskatzen du saria eta Urtsuako ereduetan gizonak. Aditzari gagozkiola, *deitadazü* edo *deitadazüt* dira bi aukerak. Zaldi zuri baten aipamena egiten da ahapaldi honetan. Zaldi zuri edo zaldi urdinak zaldirik ederrenetarikoak dira. Zaldi zuri baten ondoren ehün pixtola gorri harrigarri egiten da, alde guztietatik. Pistola eskaintzen diolako, asko direlako, eta, azkenik, gorriak direlako.

5
Ni erromara heltu
Nic han haurra sorthu
Aphezkupiac egari
Aita Saintiac batheiatu.

Azken ahapaldi hau elkarrizketatik kanpora dagoela dirudi. Ahapaldi honetan *sorthü* aditzak subjektua ergatiboan dauka*: nik haurra sorthü*. Apeza etxe onekoa edo aberatsa da, zaldi zuria eta ehun pistola gorri eskaintzen dizkiolako. Umea bataiatu ere ez du edonork egingo. Aita santuak bataiatuko du eta apezpikua izango da aita besoetakoa. Zuberoako elkarrizketa honetan ere aita besoetakoaren gainean hitz egiten da. *egari* aditzak *eutsi* esan nahi du, eta *besoetan hartu* bezala ulertzen da.

Apezpikuak (edo metatesirik gabe edo metatesi bikoitzarekin *aphezküpiak*, *episcopus* hitzetik eratorria) besoetan hartu duela adierazten du *egari* aditzak.

7. *PLAZAN ZER BERRI DA* GAURKO ORTOGRAFIAN

Puntu honetan gaurko grafiara ekarriko dugu aurreko puntuan transkribatutako testua. Elkarrizketak ere markatu egingo ditugu gaurko erara. Ahapaldi bakoitzaren ondorengo leloa, bestalde, kendu egingo dugu. Hona, beraz:

1
–Plazan zer berri da,
ene anaia jauna?
–Zu izorra zirela,
ene arreba anderia.

2
–Nuntik? Dioia hoiek,
ene anaia jauna?
–Eneganik ziradiala
en’arreba anderia.

3
–Nik zer egin behar düt.
ene anaia jauna?
–Erromara joan
Aita Saintiagana.

4
–Zer emanen deitadazü
Erromara joaiteko?
–Zaldi eijer bat xuri,
ehün pixtola gorri.

5

Ni Erromara heltü,
nik han haurra sorthü,
aphezküpiak egari
aita Saintiak batheiatü.

8. *EGUN ONAK JAUNGOIKUAK* BALADAREN BESTE ARRASTORIK BAI OTE?

Baladak desegiten direnean, oso gutxitan bada ere, zenbaitetan ahapaldi bat edo beste lo-kanta bihurturik gelditzen da. Zenbait lo-kanta eta dantza-kopla baladetako ahapaldiak dira. *Colamus carmina nostra* bilduman bost kopla daude umea lokartzeko kantatzen zirenak. Hona hemen iturrian datorren bezalaxe:

Nere maitia lo ta lo
biyok egingo degu lo
zuk orain eta nik gero
maitia egin zazu lo.

Gure auŕa onen aur ona
balio baitu Bayona
Bayona bere giltzakin baño
naiago nuke aur ona.

Fanda Frantzian eŕege
baita Españian ere
Frantziekuk egiten dio
Españari fabore

Frantzian gaztelua
uŕez da adoratzen
ziĺaŕez eŕetalbuak
ditube paratzen

Orientxen ikustera
jende asko juntzen
nere aŕeba Juana
etzan an agertzen (Amaya)



Colamus carmina nostra bildumako eredua.

Bildutako kanta honetako azken hiru ahapaldiek lotura nabarmena dute. Hirugarren ahapaldian *Fanda Frantzian eŕege* nola ulertu behar da? Zer da *Fanda*? *Joan da* ote da? Azken aurreko ahapaldian, Frantzian gaztelua *uŕez da adoratzen* ez ote da *urrez da adornatzen*? Azken hiru ahapaldiek balada baten pusketa dirudite. Balada baten pusketa edo kantu narratibo baten pusketa. Azken ahapaldiko *nere aŕeba Juana etzan an agertzen* ez al da harrigarria? Hemen ere Urtsua baladan bezala *arreba Juana* bat aurkitzen dugu.

ITZULERA

28
KANZURIANO BALADA

1. SARRERA

Euskaldunok, eta batez ere bizkaitarrok, dugun leienda-pertsonaiarik interesgarrienetakoa da Jaun Zuria. Bizkaiko lehen jauna izan zen, Arrigorriagako guduan (gaur egun han bizi diren jatorrizko euskaldun bakanek *Arguya* esaten omen dute) leondarrak uxatu zituen lehen euskal buruzagi suharra. Jaun zuriaren gainean dauden lanik interesgarrienak hauexek dira: Jon Juaristiren *La leyenda de Jaun Zuria* (Juaristi: 1980); Julio Cesar Santoyoren *Irlandeses y vascos. Evolución histórica de una leyenda* (Santoyo: 1979)[1]; Jon Bilbaoren "La leyenda de Jaun Zuria" (Bilbao: 1980); Andrés Mañaricuaren *Historiografía de Vizcaya* (Mañaricua: 1970). Jaun Zuriaren berri iturri batetik baino gehiagotatik izan daiteke. Eta, inolako dudarik gabe, Jaun Zuria aztergai interesgarria da alderdi askotatik. Historia alderditik, esaterako, zeintzuk diren lehen iturri idatziak, nola emana dagoen Bizkaiko lehen jaunaren berria. Legenda sorrera eta garapenetik ere azter daiteke. Europako gainerako herrietan ere ba ote dira holakoak? Zeintzuk dira bateratasunak? Galde lezake jakin-minez zulatua dagoenak. Erdi Aroko ekintza eta mitoek batez ere XIX. mendean izan duten erromantikoen erabilera ere azter daiteke. Baina alderdi historiko eta legendistiko guztietatik at gure Jaun Zuria ere izan da balada gaia ere, eta gai hori ukituko dugu puntu honetan.

Kanzuriano balada gaia lehen aldiz Euskaltzaindiko Villabonako jardunaldietan izan genuen, 1989. urteko maiatzean. Antonio Zavalak Aitzolen funtsean gordetzen zen eredu bat irakurri zuen han zeuden guztien artean. Gerora 1991. urtean, Maria Eugenia Markaidak bere amari entzundako eredu berri bat argitaratu zuen *Litterae Vasconicae* aldizkarian. Euskaltzaindiko bibliotekan gordetzen zen dokumentu batetik guk geuk hirugarren bat argitaratu genuen. Eredu hauek guztiak finkatzea izango da gure helburu nagusia.

Gai hau ukitu baino lehen argitasun bat edo beste eman behar dut. Gure balada gaiak baditu Europako hainbat hizkuntzatan bere kide hurkoak. Baditu bere lehengusu, bestengusu eta izterlengusuak gainerako hizkuntzetako baladistikan.

---

[1] Lan zehatz bezain dokumentatua da Leopoldo Zugazak argitaratu zuen hau. Liburu honen bigarren zatian, 81. orrialdetik aurrera, "La otra cara del mito: el origen británico de los vascos" atalean, nik ezagutzen dudan azalpenik zehatz, labur eta dokumentatuenean Jaun Zuriaren jatorriaren berri ematen du.

2. JAUN ZURIA ERDI AROKO IZENDEGIETAN

Ez dugu uste puntu hau bere betean jo edo aztertu dutenik Jaun Zuriaren gainean jardun dutenek. Ez dugu uste, gainera, argi berri handirik emango dugunik ataltxo honetan, baina zilegi bekigu zertxobait esatea. Erdi Aroko izendegietan *praenomen* edo pluralean *praenomina* bezala *jaun* hitza agertzen da sarri xamar. Eta hitz honen zehaztailea den *zuria* ere bai zenbaitetan. Jose Maria Lacarrak argitaraturiko "Colección diplomática de Irache" vol I (958-1222)[2] lanari Mitxelenak egin zizkion oharretan holakoak ikus daitezke (Mitxelena: 1969). Hona hamalaugarren puntuan, 49. orrialdean zer dioen Mitxelenak: "Como *praenomina* vascos son corrientes *and(e)re* 'domna' y *jaun* 'domnus' 'senior'". Eta ematen dituen adibideetan *andre* hitzarekin *andre Zuria* (65, h. 1190, Barbatáin). Jaun hitzaren gainean honela dio: "Con *jaun*, entre muchísimos otros, *Jaun Çuria* (92, 1197), *Jaun Orti belza*, (120, s. XIII, Larraga); abbas *de Arraiça et Jaun Belça frater eius et don Garcia Sanz pater eius* (263, h. 1235).

Berri hauetaz gainera badira gehiago ere. Alfonso Irigoienen *Pertsona-izenak euskaraz nola eman (eta exotoponymiaz eraskin bat)* liburuan, *Begiurdin* bezalako izengoiti edo izen berezien artean, *Andre Zuria*, *Andreçuria* irakurtzen dut. 4.63 *Jaun belça*: *Jaun belça* (1235-1236, El gran Pr. Nav., dok. 263) andronymoa. Ikus *Belça* hirugarren zerrendan. 4.64 *Jaun Çuria*: *Jaun Çuria* (1197, El gran Pr. Nav., dok. 92) andronymoa. Ikus *Çuria* eta *Ayta Çuria* hirugarren zerrendan (Irigoien: 1994).

Hona ekarri ditugun datuetarik ahurtara bat ondorio atera daiteke. Guk geureak aterako ditugu, nahiz onomastikan ezjakinak izan. Mintza bitez, hortaz, gai horretan jakintsu direnak. Hona nire ondorio nagusia. Testigantza guzti hauek Erdi Arokoak dira, 1200. urte ingurukoak, eta guztiak Nafarroakoak, gainera. Nafarroan ere izengoitia *Jaun Zuria* bazen, beraz. Uste izatekoa da Erdi Aroan Euskal Herri guztiko izengoiti zahar hori zuela Bizkaiko lehen jaunak. Uste izatekoa da, gainera, Jaun Zuria azal zuriko –eta are begi zuri edo argikoa, jaun ipartarren tankerakoa– jaunen izengoitia izango zela, gure Jaun Zuriak (Eskoziako jatorrikoa izan edo ez izan) izango zuen bezalaxe. Honek guztiak, jakina, ez du inolaz esan nahi Bizkaiko lehen jauna denik Nafarroako dokumentu zaharretan ikusten dena. *Perceval* pertsonaia alegiazkoa ere, Chrétien de Troyes-ek XII mendean asmatua edo ahozko tradiziotik idatzira ekarria, ez da *Mondragoeko erreketa* balada zaharrean agertzen dena, izen bera zuen beste norbait baino. *Presebal* izena Europan Erdi Arotik hara kurritzen zuen pertsona-izen bat zen, inolako dudarik gabe. Tesi honetan Jatsuko zenbait balada aztertuko ditugu. Henri Perceval zenaren kaier batetik hartuko ditugu balada horiek guztiak.

3. *KANZURIANO* GURE BALADA GAIAREN IZENA

Antonio Zavalak bere baladategian *Kanzuriano, Kanzuriano* izendatzen du gure balada, birritan hitz bera errepikaturik. Bi aldiz hitz bera errepikatzen da baladaren lehen bi hitzak direlako.

Gure balada gaiari *Kanzuriano* deituko diogu. *Jaun Zuriano* deitzekotan ere egon gara. Zergatik *Kanzuriano* eta ez *Jaun Zuriano* edo besteren bat? A. Zavalak lehen aldiz 1998. urteko Villabonako herri literatura jardunaldietan izen hori erabili zuelako. Maria Eugenia Markaidaren ereduan *Jaun Zuriano* dugu eta guk argitaratutako hirugarrenean *Jaun Zianuri*. Hiru aukera horien artean lehena hobetsi dugu.

4. *KANZURIANO* A EREDUA ZAVALAREN TRANSKRIPZIOAN

Euskaltzaindiko Herri-Literatura Batzordeak eratzen dituen herri literaturako jardunaldietako lehenean, kontapoesia gai harturik, Villabonan, eratu zen harako hartan, Aita Zavalak "Kontapoesi zaharrari buruz" hitzaldi bikaina irakurri zuen (Zavala: 1996). 1989. urteko maiatzaren 26an egindako

[2] C.S.I.C. Instituto de Estudios Pirenaicos, Univ. de Navarra, Zaragoza, 1965.

hitzaldi hartan, Aita Zavalak balada zahar oso bi irakurri zituen bere hitzaldian. Bi balada horiek artean argitaragabeak ziren eta iturri zahar bitatik hartuak ziren. Bata XVIII. mendeko eskuizkribu bat, eta, bestea, 1936. urtea baino lehenagoko Aitzolen bildumako eskuizkribu bat. Bietako bat *Kanzuriano, Kanzuriano* deiki edo deigarri edo bokatibo bitu batekin hasten zen. Delako balada hori, Bizkaiko euskara zoragarrikoa zen eta Odiseoren etorrera eta Arturo erregearen legenda gaiak nahasten zituela ematen zituen. Hona balada irakurri ondorengo A. Zavalaren hitzak:

> Konturatuko ziñatenez, Ulisesen etxeratzea degu emen. Izenak ez dirala berdiñak, eta gezi-uztaiaren lekuan ezpata jartzen dala; beste aldaketarik ez dago.

Niri, esaterako, ezpata ateratzea harri-zirrikitu edo kaxa batetik Arturoren elezaharra zekarkidan gogora, baina gorago esan dudanez, ez naiz konparaketa kontuekin jardungo. Lehenengoz entzundako kanta eredu hura ez zen jardunaldiko gainerako artikuluak bezala *Euskera* aldizkarian argitara eman *Auspoaren auspoa II* liburuan baizik. Eredu bera gerora Antonio Zavalak bere baladategian *Itzulera* sailean sartu zuen, lehen postuan. Hona hemen:

Kanzuriano, Kanzuriano,
lo bazagoz iratzarri.
–Enago ni lo, enago ni lo,
moru-erriko moru ori.
Nok esan deutzu neure izena
truko erriko truko ori?
–Enaz ni moru errikoa
gitxiago truko eŕikoa
obetuago izango naz ni
zeruetako aingerua.
Jaun Zerukoak bialtzen nau ni
Gaur zugana mandatari:
Zure ezpose doñe Eŕose
bijar da espose baŕi.
biyar da espose baŕi eta
Biyar goizerako eldu bedi.
–Emetik eta ene etxera
Bosteun legua da bide
Bosteun legua da bide eta
Ni arek zelan ebagi?
Oriek ebagitiaŕen zer emongo
Zeunkio zuk ari?
Beŕeun kana urre-zintxa
Ama Graziakuari
amalau libra argiziritxu
Andra Santa Ursulari.
–Orra oi goian zazpi zaldi
Euretariko bategaz
Gau eta egun ebagi

II

Oles, oles, *Dios te salve*,
nik ostatua nai neuke.

–Emen ez dago ostaturik eta
beijue pobre ori aurrera.
–Oles, oles, *Dios te salve*
nik ostatua nai neuke
–Emen ez dago ostaturik eta
beijue pobre ori aurrera.
–Oles, oles, *Dios te salve*,
nik ostatua nai neuke
–Egun okupaue daukogu te
beijue pobre ori aurrera.
–Kanzuriano bizi zanean
pobreak emen baeben ostatua.
–Kanzuriano aittetu dau ta
betor pobre ori aurrera.
……
……..
Sillan jezarri erromes ori
oiñak garbitu,
pañua artun da sikatu.
……
…….

–Begiak begi badirudi,
miñak guzurra esan ezpaledi
gaurko gure erromes onek
Kanzuriano dirudi.

–Ixilik on adi batxiler ori
antxina il da/enteɬaute daukon
Kanzuriano eure ori.

Ortxe kaxan dago ezpatie
Kanzurianok itxie.
……..
……
–Gaurko ezkongai orrek
ataraten badeu ezpatie.

Juan da ezkongai ori,
ez dau atara ezpatie.
–Ia gaurko erromes orrek
ataraten badeu ezpatie.
Juan da erromesa ta
Atara dau ezpatie.
Pozez beterik doña Errosek:
Zu zara senar neurie.

A. Zavalak transkripzioaren ondoren zehaztasun hau dakar: “Kanta hau Jose Ariztimuño *Aitzol* jauna zanaren bilduman agertu da, Barinagako Jose Maria Arriaga Zuazok Ibarrangeluan, 1936. urtean, irurogei ta bost urteko Petra Uribarrenari jasoa.

Irakurlea oartuko zanez, Ulises-en etxeratzea degu emen. Izenak aldatzen dirala eta gezi-uztaien ordez, ezpata jartzen dala. Beste aldaketarik ez dago".

5. ZAVALAREN TRANSKRIPZIO ARAZOAK

Ez dago inolako dudarik ahalik eta transkripzio fidelena egiten saiatu zela A. Zavala.

Zavalaren testuan 13, 14, 15, 16. lerroetan *zure espose doñe Errose/ biyar da espose barri/ biyar da espose barri eta/ biyar goizerako eldu bedi* pasartean, bitxi eta zail egiten dira *doñe Errose*, *espose* hitzetako azken –e bukaera. Zavalak garbiago dagoenean ere, azken aurreko lerroan *Errosek* transkribatzen du, eskuizkribuak argiro *Eŕosak* badakar ere. Eskuizkribura jo dugunean bukaerako bokalaren transkripzioak duda bat baino gehiago sortzen badu ere, astiro aztertuz –a bat irakurtzen da, dudarik gabe. Modu horretara *doña Errosa* eta *esposa* transkribatu behar. Hona ekarri dugun beste duda bat *biyar* edo *bijar* ote da? Ibarrangeluko euskarari *bijar* dagokio eta halaxe dator eskuizkribuan. Berriemaile beraren bigarren transkripzioa aztertuko denean argiro aienatuko dira zalantza hauek.

Beste duda nabarmen bat 21 eta 22. lerroetako *oriek* eta *zeunkio* formak zer ote dira? Hona hemen pasartea:

–Oriek ebagitiarren zer
emongo zeunkio zuk ari?

Jatorrizko eskuizkribuan besterik den zerbait dator:

Orek ebagitiaŕen zer emongo
Zeuskio zuk ari?

Bizkaiko euskaran *nik arek zelan ebagi?* galderako *arek* plurala da, *areek* Bizkaiko euskara klasikoan. Galderaren erantzuna *orrek* (edo Bizkaiko euskara klasikoan *orreek*) da. *Kanzuriano* baladaren eskuizkribuan *oŕek* espero zen, baina transkribatzaileari tildea markatzea ahaztu zaionez gero, *orek* irakurtzen da. Pasarte honetako ondorioa garbia da *zer emongo zeuskio zuk ari*? Bizkaiko adizki garbia da *zeuskio* delakoa *zeunskeo* forma osoago batetik datorrena. Bizkaiko *emongo zeuskio* euskara estandarrean *emango zenioke* da.

Testuan sortzen den beste zalantzetako bat pasarte honetan dago:

27 Orra oi goian zazpi zaldi,
28 euretariko bategaz
29 gau eta egun ebagi.

Jatorrizko eskuizkribuan *Oŕa oŕ goian zazpi zaldi* irakurtzen da. Zavalaren *Orra oi goian zazpi zaldi* esangurarik gabe gelditzen da. Jatorrizko eskuizkribuan hiru aldiz dator *beijue* agintera. *Beijue* delakoak Bizkaiko euskaran *bihoa* esan nahi du. Lehen bi aldietan *beijue* dago idatzirik, hirugarrenean *beiue*.

49 Begiak begi badirudi,
50 miñak guzurra esan ezpaledi,
51 gaurko gure erromes onek
52 Kanzuriano dirudi.

Pasarte honetan berez Elantxobeko ahoskera eta aditz-sistema kontuan izanik *begijak begi dirudi, / miñak guzurra esan ezpalegi* izan behar luke, bestela esan, *edin aditz laguntzaile trantsitiboa izan

beharrean egin aditz laguntzailea behar du. Pasarte honen ondoren testutik kanpora *Amaginarreba* hitza dator. Ohar honek esan nahi du 53. lerroko *isilik on adi, batxiller ori* eta ondokoak Amaginarrebak esaten dituela.

58 eta 60. lerroetan jatorrizko eskuizkribuan *eskongei* dator. *–gei* atzizkia Azkuek bildu zuenez, bazter euskalkietakoa da: Bizkaikoa, Erronkarikoa eta Zuberoakoa; erdiko euskalkietan *–gai* da. Azkuek dakartzan adibideak ere gure balada iruzkintzeko ezin egokiagoak dira: *bordalgei* (R-uzt), *eskongei* (B, S): novio, aspirante a casado: fiancé, aspirant à être mari. Jatorrizko eskuizkribuko birritako *eskongei* hitza A. Zavalak *ezkongai* bihurtzen du.

51. lerroan *gaurko* etorri arren 58. lerroan *geurko* dator. Ez dago dudarik *geurko* delakoa gaurko hitzaren ahozko aldaera dela. A. Zavalak bi hitzak modu berean eman ditu: gaurko. Era berean *atera* aditza hiru modu desberdinetan dago transkribatua: 59 *etaratan*, 61 *atera*, 63 *ataraten*. Hiru formak modu bakarrera dakartza A. Zavalak bere transkripzioan: *atara*.

6. *KANZURIANO* A EREDUAREN GURE TRANSKRIPZIOA

Kanzurianoren A ereduaren lehen transkripzioa Aitzolen funtsean aurkitzen da. Kantuak 43 zenbakia darama eskuin aldean, eta Antonio Zavalak egin zituen argazkien arabera 000246 zenbakiduna da. Eredu hau Aitzolen funtseko alderdi galduari dagokio. Jatorrizko dokumentua norbaitek izatekotan Aitzolen ondorengoek izango dute. Jatorrizko dokumentuan bi zutabetan idatzirik dago eta lerroak ez daude zenbakiturik. Baladaren izenburua adierazgarria da: *Kanzuriano'ren kantua*. Kantua edo errezitatua zen ez da erraz jakiten, inolako partiturarik gabe agertzen baita. Hona Aitzolen funtsean datorren bezala:

1 Kanzuriano, Kanzuriano
2 Lo ba'zagoz iratzaŕi.
3 –Enago ni lo, enago ni lo
4 Moru eŕiko moru ori.
5 –Nok esan deutzu neure izena
6 Truko eŕiko truko ori?
7 –Enaz ni moru eŕikoa
8 Gitxiago truko eŕikoa
9 Obetuago izango naz ni
10 Zeruetako aingerua
11 Jaun zerukoak bialtzen nau ni
12 Gaur zugana mandatari,
13 Zure ezposa doña Eŕosa
14 Bijar da esposa baŕi.
15 Bijar da esposa baŕi eta,
16 Bijar goizerako eldu bedi
17 –Emetik eta nere etxera
18 Bosteun legua da bide
19 Ni arek zelan ebagi?
20 Orek ebagitiaŕen zer emongo
21 Zeuskio zuk ari?
22 Beŕeun kana uŕe sin txa
23 Ama Graziakuari
24 Amalau libra argiziritxu
25 Andra Santa Ursula'ri
26 Oŕa or goian zazpi zaldi
27 Euretariko bategaz
28 Gau eta egun ebagi

II

29 Oles, oles, Dios te salve
30 Nik ostatua nai neuke
31 –Emen ez dago ostaturik eta
32 Beijue pobre ori auŕera.
33 –Oles, oles, Dios te salve
34 Nik ostatua nai neuke
35 –Emen ez dago ostaturik eta
36 Beijue pobre ori auŕera
37 –Oles, oles Dios te salve
38 Nik ostatua nai neuke
39 –Egun okupaue daukogu te
40 Beiue pobre ori auŕera.
41 –Kanzuriano bizi zanean
42 Pobreak emen ba-eben ostatua
43 –Kanzuriano aitxetu dau ta
44 Betor pobre ori auŕera.
……
……
……..
45 –Ziĺan jesaŕi eŕomes ori
46 Oiñak garbitu
47 Pañua artun da sikatu
……
…….

48 –Begiak begia badirudi
49 Miñak gusuŕa esan ez pa ledi
50 Gaurko gure eŕomes onek
51 Kanzuriano dirudi.

Ama ginarreba

52 –Ixilik on adi batx iĺer ori
53 Antxina il da/enteŕau te daukon
54 Kanzuriano eure ori
55 Ortxe kaxan dago espatie
56 Kanzurianok itxie
……..
……
57 –Geurko eskongei oŕek
58 Etaraten badeu espatie
59 –Juan da eskongei ori
60 Ez dau atera espatie
61 –Ia gaurko eŕomes oŕek
62 Ataraten ba’deu espatie
63 Juan da eŕomesa ta
64 Atara dau espatie
65 Pozez beterik Dona Eŕosak
66 Zu zara senar neurie.

Transkripzioaren bukaeran *Uribaŕena'tar Petra 65 urte Ibarrangelua* dakar. Lehen orrialdean 56. Bertso-lerrora arte transkribatua dago. Bigarren orrialdean gainerako hamabi lerroak.





Kanzuriano balada. Aitzolen funtseko eredua.

7. *KANZURIANO* A LEHEN EREDUKO BIGARREN ESKUIZKRIBUAREN TRANSKRIPZIOA

Bigarren eskuizkribua Domingo Zuluagaren *Ibarrangelu kantu ta kontu* liburuan dator. Domingo Zuluagaren ama zen Petra Uribarrena. Eskuizkribu biek, beraz, berriemaile bera dute iturri. Kontuan izan behar da, ordea, bi eskuizkribu diferente direla. Bigarren eskuizkribu hau bost puskatan emana da. Bigarren eskuizkribu honen izenburua *Kansurianon kantie* da.

1 Kansuriano, Kansuriano
2 Lo ba'zago iratzaŕi.
3 –Enago ni lo, enago ni lo
4 Moru eŕiko moru ori.
5 –Nok ezan dautzu neure izena
6 Truko eŕiko truku ori?
7 –Enaz ni moru eŕikua
8 Gitxiago truku eŕikua
9 Obetuago izango naz ni

Zeruetako aingerua
Jaun zerukuak bialduten nau
Gaur zugana mandatari,
Zure esposa doña Eŕosa
Bijar da esposa baŕi.
Bijar da esposa baŕi eta,
Bijar goizeko eldu bedi
–Emendik eta nire etxera
Bosteun legua da bide
Ni arek zelan ebagi?
Oŕek ebagitiaŕen zer emongo
zer emongo zeuskio zuk ari?
Beŕeun kana uŕe zintza
Ama Grazia'kuari
Amalau libra argiziritxu
Andra Santo Ursula'ri
Oŕa or goian zazpi zaldi
Euretariko bategaz
Gau eta egun ebagi

II

–Oles, oles, Dios te salve
Nik ostatua nai neuke
–Emen ez dago ostaturik eta
Beijue pobre ori auŕera.
–Oles, oles, Dios te salve
Nik ostatua nai neuke
–Emen ez dago ostaturik eta
Beijue pobre ori auŕera
–Oles, oles Dios te salve
Nik ostatua nai neuke
–Egun okupatue dogu eta
Beijue pobre ori auŕera.
–Kansuriano bizi zanian
Pobriak emen ba-eben ostatua
–Kansuriano aitxetu dau ta
Betor pobre ori auŕera.
……
……
……..
–Siĺan jesaŕi
eŕomes ori
Oiñak garbitu
Pañu artun da sikatu
Apaldu (Aquí falta)

–Begija, begija, badirudi
Miñak guzuŕa ezan ezpaledi
Gaurko geure eŕomesonek
Kansuriano badirudi.
–Ixilik egon adi batxiĺer ori

55 Antxina il da/enteŕauta daukon
56 Kansuriano euriori
57 Ortxe kaixan dau espatie
58 Kansurianok itxije

(falta)

59 –Gaurko eskongei oŕek
60 Etaraten badeu espatie

(falta)
59 Juan da eskongei ori
60 Ez dau atera espatie
61 –Ia gaurko eŕomesonek
62 Etaraten daben espatie
63 Juan da eŕomesa ta
64 etara dau espatie
65 Pozez beterik Dona Eŕosak
66 Zu zara senar neuria.


Kansuriaŕon Kantie
– Kansuriano, kansuriano
Lo ba' zago iratzarri Dai
– Znago ni lo, enago ni lo
Mon eŕiko mon ori
Nok ezan dautzu neure-izena
Tzuko eŕiko tzuku oii?
– Znaz ni mon eŕikua
Gitxiago tzuku eŕikua
Obetuago izango naz ni
Senetzako aingerua
Laun zerukuak bialduten nau



- Dia or goian zazpi zaldi 14)
  Lauretariko bategaz
  Jan edo egun elbagi
  ~~24~~
- Oles, oles, Dios te salve
  Nik ostatua nai neuke
- Emen ez dago ostaturik eta
  Beijue jabe ori aviera
- Oles, oles, Dios te salve
  Nik ostatua nai neuke
- Emen ez dago ostaturik eta
  Beijue jabe ori aviera
- Oles, oles, Dios te salve
  Nik ostatua nai neuke



3) Gaur zugana mandatari
Zare espoza doña Biora
Bijar da esposa bat'i
Bijar da esposa bat'i eta
Bijar goizeko ebdu bedi
– Emendik eta nire etxera
Bostetun legua da bide
Nik arek zelan ebagi?
– Diek ebagitiaren
Ser emongo zeunskio zuk ari?
– Beteun kana ule zintza
Emna Grazia'kuari
Emalan libra argi-zintzu
Andra Santa Ursula'ri



Kanzuriano balada. Don Domingo Zuluagak bere ama Petra Uribarrenari bildutako eredua.

8. *KANZURIANO* A EREDUAREN BIGARREN TRANSKRIPZIOAREN EZAUGARRIAK

Puntu honetan Aitzolen funtseko *Kanzuriano* baladaren eskuizkribua eta Domingo Zuluagaren *Elantxobe kontu eta kantu* liburuko *Kanzuriano*ren eskuizkribua iruzkinduko ditugu. Bi eskuizkribuak iruzkindu ondoren, A. Zavalaren transkripzioa ere kontuan izango dugu. Bi eskuizkribuak aztertzean ez da ahaztu behar berriemaile beraren bi gaurkotze edo performanceren aurrean gaudela. Aitzolen funtseko testuaren transkripzio garaia badakigu 1936. urtea edo apurren bat lehenagokoa da. Bigarren testua noiz

transkribatu zen ezin jakin izan dugu. Lehen begiratura, eta testuak ondo aztertu ondoren ere bai, bi testuak oso antzekoak dira. Testu batetik bestera ia ez dago alderik. Alde batetik normala da berriemaile beraren balada bera delako.

Aitzolen funtseko transkripzioa markinar batek egin zuen, zehatzago esateko Markinako Barinaga auzoko Jose Maria Arriaga Zuazok. Ez ote zitzaion, konturatu gabe, adizki edo fonetismoren bat edo beste Elantxobeko ahozko euskaratik Markinako eredura irristatu? Eman dezagun adibideren bat edo beste:

Aitzolen funtseko ereduan 11 *Jaun zerukoak bialtzen nau ni*, Domingo Zuluetaren liburuan *Jaun zerukuak bialduten nau.*

Aitzolen funtsekoa *26 Andra Santa Ursulari,* Domingo Zulueta *Andra santo Ursulari.*

Markinako euskera da *bialtzen nau* Elantxobekoagoa da *bialduten nau.*

9. *KANZURIANOREN* B BIGARREN EREDUA

Villabonako Kontapoesia jardunalditik gutxira, Bizkaian, ahozko beste aldaera bat jaso zen eta *Litterae Vasconicae. Euskeraren iker atalak* aldizkarian, 5. zenbakian, eman zitzaion lekua artikulu polit bezain dokumentatu batez (Markaida: 1991). Bi baladetan *Jaun Zuria* beharbidean beste zerbait agertzen zen, antzeko zerbait zen *Kanzuriano/ Jaun Zuriano* hain zuzen. Aita Zavalaren aldaeran, Ibarrangelukoan, *Kanzuriano*[3] eta, Elantxoben bildutakoan, *Jaun Zuriano*. Zer dira, beraz, bi hitzak? *Jaun Zuria* eta atzizki bitxi bat: *–(a)no*. Garai hartan, 1996. urtea baino lehen, Alfonso Irigoien egunero ikusten nuen eta pertsona-izen baten bukaera hortaz, *-(a)no* delakoaz, galdetu nion. Erdi Aroan euskal izenei atzizki hori eranstea normala zela esan zidan. Erdi Aroan *Janzuriano* horretako *–(a)no* bukaera duten izenak normalak zirela baieztatu zidan Alfonso Irigoienek[4]. *Jaun Zuria* harrigarria eder egiten bazitzaidan holako balada batean, are eder eta bitxiagoa *Jaun Zuriano* delakoa. Orduz geroztik eta handik hara, gorago ikusi dugun *praenomen* edo izengoitiei eransten zaien *–no* delakoa Erdi Aroko hainbat eta hainbat izengoititan ikusi dugu. Gurearekin zerikusia duen *Jaun semeno* irukurtzen dut gorago aipatu dudan Alfonsoren liburu berean, "Beste zenbait izen XIV. mendea baino lehen Nafarroan agertzen direnak" atalean. Gure *Jaun Zuriano* horrek, beraz, badu Erdi Arotiko halako kutsu zahar eta miresgarria.

Jaun Zuriaren gaineko ahozko erreferentziak ahuldu dira. Ia oraintsura arte, ordea, bildu da zerbait. Joseba Agirreazkuenagak 1973-74. urteetan argitaratutako "Etnografia de Busturia" lanean (*Anuario de Eusko Folklore*, tomo XV, 1973-1974, 123-124 or.) non bizi zen Jaun Zuria esaten da.

Eta aurrera baino lehen hona Maria Eugenia Markaidak, Sopelan, Elisa Barrenetxea Elantxobeko alabari 1990eko maiatzean bildutako eredua:

1

–Jaun Zuriano, Jaun Zuriano, lotan zagoza? Izartu
zure esposa doña Errosa biar dala esposa barri (bis)

---

[3] *Jaun Zuriano* horretatik nola bihurtu da Kan- delakoa? Fonetika lege hau orokorra izan dela dirudi. *Jazinto* bezalako pertsona-izena *Kaxinto* bihurtu da leku askotan. Gaur egun, ordea, joera hau biziago dago Bizkaiko kostaldean. Markinarrontzat bitxi egiten zaigu lekeitiarren fonetika lege zenbait. Lekeition jotaz hasten diren hitzak kaz egiten dituzte. Portuan izotza, jela, egiten duenari *kelero* deitzen diote, esaterako. Jestoreari *kestore* eta abar.

[4] Atzizki honen gainean ez dut bibliografia handirik aurkitu. Nik aurkitutakoetan Alfonsoren lanetan honako hau aipatuko nuke "Algunas consideraciones sobre onomástica personal vasca", *Euskera*, 1977, XII, 561-623 or. Mikel Gorrotxategik beste artikulu honen berri eman dit, Patxi Salaberriren "Acerca del sufijo toponímico –ain", *FLV*, nº83, 2000, 113-139 or.

2

–Nor da ori Manbruori — manbru erriko trukuori
Manbru erriko trukuori — trukukumian semiori (bis)

3

–Ni neu enaiz Manbrukua — da gitxiago trukukua
ziertuago izan neinteke — aingeru zeruetakua (bis)

4

Emendik ara eruateatxik — zer emongo deustazu sari?
–Mila libra argari — neure Amabirjiñari
beste orrenbeste edo geiago — San Migel aingeruari.

5

–Gortan dekodaz zazpi zaldi — zein onena dan artu bedi.
Jaun Zurianok artu dau eta — arin doa erriz erri.

6

Oles, oles, Dios te salve — gaur ostatua gura neuke
–Emen eztago gaur ostaturik — Jauna lagun bekizu zeuri.

7

Oles, oles, Dios te salve — gaur ostatua gura neuke
–Emen eztago gaur ostaturik — Jauna lagun bekizu zeuri.

8

–Jaun Zuriano bizi zanian — pobriak emen eben ostatua
–Jaun Zuriano bizi zanian — pobriak emen eben ostatua

9

–Nor da pobriori — pobre inkietaduori
Jaun Zuriano atxitu dau-te — betor barrure erromesori (bis)

10

Berton daukat ezpata bat — Jaun Zurianok neuri itxia
aixe gora altzaten dabena — izango da neure gizongeia.

11

Berton daukat ezpata bat — Jaun Zurianok neuri itxia
aixe gora altzaten dabena — izango da neure gizongeia.

"Orra gazte brabu ori... Asi da baña ezin dau altza ezpatie. Ia bigarrenak... eta ezin. Ia pobre inkietadu orrek... Eta orrek begiz odo aditxuten dotzo.–Asi zaitez, ba, pobria. Ta asten da, ta gora daroa ezpatia."

Au da neure Jaun Zuriano
Au da neure emaztia.

10. *KANZURIANO* C EREDUA

Eredu hau Azkue Bibliotekatik hona aldatua da, eta gaur eguneko katalogazioaren kodearen arabera, ABA-RMA-0006-021 kodea darama. Azkueren paperen artean dagoen papertxo xingle eta maxkal bezain baliotsu bat da, inolako eta inondiko dudarik gabe. Azkueri norbaitek bidali zion, Joakin delako batek; eta honi, Epifanio de Pinaga y Foruria eskola-maisuak, Cardenal Cisneros kolegiokoak eskuetaratu zion. Joakin horren deitura ez dakigu orrialdeak alderdi bateko puskatxo bat falta duelako. Joakin delako hori frantziskotarra zen O.F.M. garbiki adierazten duelako. Papera ez dago osorik alderdi bateko ertzak deseginda dituelako. Argibide batzuk ere desegin dira papera txirtxilatu denean. Desegindura honek, zorionez, ez dio baladari kalterik egin. Hona hemen baladaren ondoko zehaztasunak:

> *Recogido de boca de D. Amalia Foruria, natural de […] y residente actualmente en Gauteguiz-Arteaga quien aprendió de su abuela Agustina Aurtenechea na[tural] del caserío de su apellido en Kortezubi y que mu[rió] a los 88 años en Beaskoa (Forua). D. Amalia tiene hoy 72 años cumplidos y contaría de 12 a 14 cu[ando] falleció su abuela.*
>
> *N. B. Este romance tiene su correspondien[te mu]sica. Los puntos suspensivos indican que a [su] juicio hay lagunas en el texto y desde luego está in[completa.]*
> *Sr. Epifanio de Pinaga y Foruria . Colegio Cardenal Cisneros. O.F.M. Joaquin […].*

Horiek dira zehaztasun guztiak, eskuizkribuan ere irakurri daitekeenez. Irakurtzen ez diren hitzak eta hizkiak markatzeko kortxeteak jarri ditugu. Kortxete barrukoa gure irakurketa dela markatzeko da. N. B. direlako hizki larriek *Nota Bene* esapidearen laburdura adierazten dute.

Balada honen berriemailea Amalia Foruria dugu, eta honek Kortezubiko Agustina Aurtenetxeari ikasi zion. Aldaera, beraz, Amalia Foruria nondikoa den ez dakigunez, Kortezubikoa da, Gernikatik itsasbazterrerantz, Ibarrangelurantz goazela dagoen herrikoa. Ez dago esan beharrik orain arte ezagutzen ditugun hiru aldaerak Bizkaiko ingurune berekoak direla.

Noiz bildua da balada hau? Azkue bizi zela izango da, zalantzarik gabe. Data bat markatzekotan kantutegiak argitara zirenetik Azkue hil zen urtera arteko epea jarri beharko dugu besterik ezean: 1923-1951. Biltze-data hurrengo atalean garbituko dugu.

Orain arteko datuetatik atera daitekeen ondorio garbi bat emango dut: ahozko literaturako zenbait bitxi miragarriro baino ez dira gugana etorri. Paper horretan aditzera ematen denez, hamabi-hamalau urteko edo gazteagoko ume batek bere amonari ikasitako balada da gure puntuko hau. Bitxi polit hori amona horrek zahartzaroan transmititua da. Beste aldaera edo eredu bati dagokionez, *Litterae Vasconicae* aldizkarian agertzen den baladari dagokionez, M. Eugenia Markaidak bere amari –Elantxobeko Elisa Barrenetxea Badiolari– bildu zionean, 1990. urtean, laurogei urte zituen. Elisa Barrenetxeak hamazortzi urte baino lehenago ikasi zuen *Jaun Zurianoren* balada, Elantxobetik Bilbora neskame etorri baitzen 18 urterekin. Balada hori kantatu zuen, bere alaba Benek adierazten didanez, Sopelako bere baserrian, “illunde baten”, eta alabak kontapoesiaren garrantziaz oharturik berriro kanta erazi eta kasetean grabatu zion. Handik urte bete edo bigarrenera hil zen Elisa Barrenetxea Badiola. Elisa Barrenetxea Elantxobeko portu-portuko etxe batean jaioa zen eta baliteke, zergatik ez, orain dela ia ehun urtera arte balada hori kantatzea Bizkaiko Elantxobeko sare konpontzaileen artean.

Puntu honetan eskuizkribua dagoen dagoenean transkribatuko dugu. Jatorrizko ortografia eta puntuazioa errespetatuko ditugu. Testua bi orrialdetan transkribatua dagoenez gero, orrialde batetik besterako jauzia // zeinuaren bidez egingo dugu. Testuaren lerroak zenbatuko ditugu atal honetan. Guztira 42 lerro ditu. Lehen 27ak lehen orrialdean daude eta gainerako hamabostak, hots, 28tik 42ra arte bigarrenean. Interesgarria da 22. lerroaren ondoren puntu handi bat agertzen duela eskuizkribuak. Horrek adierazten du, inolako dudarik gabe, ekintza beste leku batean ematen dela. Beste eszena bateko hitzak direla hurrengoak. Jokabide bera ikusten dugu Antonio Zavalaren *Kanzuriano* baladaren 28. lerroaren ondoren agertzen diren hiru puntuetan.

Testuak ez du transkripzio arazo handiegirik sortzen. Baladaren transkripzioa osorik badago ere, erdarazko oharra ez da osorik irakurtzen orriari eskuinaldeko puska bat falta zaiolako. Guk osatu duguna hala behar duelakoan [] zeinuen bidez egin dugu. Testua argi badago ere, zenbaitetan puntuazio markak ez dira hain argiak transkribatzailearentzat. Garai bateko kontsonante gangardunak (ŕ, ť, ixa gangarduna) ere jarri ditugu dauden daudenean.

¡Jaun Zianuri, Jaun Zianuri!
Lo badatzaz iratzarri.
–Nok erakutzi neure ixena
Moro triegu gogoŕari.
–Ez nas, ez nas morue,
Zerutik nator aingerue;
Jaun san Gabrielek biralduten neu
Gaur zeugañeko mandatari.
Zeure emaste andra Joanari
Gaur lereijoe zenar baŕi.
Zeu araixe eroatiegaiť ik
¿Zer emongo senduke zari?
Bosteun kinť el urre gorri
Aingeru san Gabrieleri;
Beste ainbeste argirizari
Maria santiximiari.
–Apunta bediz paperien da
Goazen auŕera bertatik.
–¿Baña, Jauna, nik zelan urten nei
Burdiña–onen artetik?
–Burdiñok argizarijak dira
Goazen auŕera bertatik
.....
.....
–¡Oles, oles! echeko andria,
Ostatu puskat naigeunke.
–Estau gaur geurien ostaturik,
Bijoas ospiť alera.....
.....
–Jaun Zianurik oiebanian
..... //
Eche onetan entrada,
Pobriak eta peregriñuak
Ostatu oi eben gabaz!
–Jaun Zianuri aiť atu dau ta
Idigi bekijo atia
Ardauchua epeldu eta
Oñak garbiť u oŕeri.
.....
Jaun Zianurik emonik daukat
Ezpatia bañan zarturik,
Aixe ateraten dabenaz baño
Ezin negike geur lorik.
Aproba bedi gizon gastie,

40 Aproba bedi gaur emen
.....
.....
41 Aprobadu da gizon gastie,
42 Aproba bedi peregriñua
.....
.....





Kanzuriano baladaren C eredua.

Recogido de boca de D. Amalia Foruria, natural de […] y residente actualmente en Gauteguiz-Arteaga quien aprendió de su abuela Agustina Aurtenechea na[tural] del caserío de su apellido en Kortezubi y que mu[rió] a los 88 años en Beaskoa (Forua). D. Amalia tiene hoy 72 años cumplidos y contaría de 12 a 14 cu[ando] falleció su abuela.

N. B. Este romance tiene su correspondien[te mu]sica. Los puntos suspensivos indican que a [su] juicio hay lagunas en el texto y desde luego está in[completa.]

Sr. Epifanio de Pinaga y Foruria . Colegio Cardenal Cisneros. O.F.M. Joaquin […].

11. C EREDUA BILDU ZEN URTEA 1927 EDO 1928

Gure balada Amalia Foruriari bildua da. Amalia Foruriaren jaiotza-agirian agertzen diren izendeitura osoak, orduko grafia errespetatuz, *Amalia de Foruria y Hormaechea* dira. Badakigu noiz jaio zen Amalia Foruria, 1855eko uztailaren hamaikan. Orduan 72 urte bazituen, 1927. urteko uztailaren hamaikatik 1928ko uztailaren hamaikara bitarteko data batean bildu zioten. Noiz ikasi zuen ere jakin dezakegu, 1867. urtetik 1869. urtera bitartean, bigarren karlistada hasi baino lehen, beraz. Amalia Foruriaren balada-irakasleak, Agustina Aurtenetxeak, 81 edo 83 urte izango zituen. Datu hauek zilegiak dira Agustina Aurtenetxea 1786. urteko urtarrilaren bian jaio baitzen eta laurogeita zortzi urte zituela hil baitzen, 1874. urtean.

Gure baladako emakume bi hauen jaiotza-agiriak *Bizkaiko elizaren histori arkibua*[5] delakoan aurkitu ditugu eta atal honetan transkribatuko ditugu. Amalia Foruriaren erreferentziak hauexek dira: ID 418285 Cód. Referencia ES/AHEB-BEHA/FOO6.169 (2119/003-01). Signatura 2119/003-01. Signatura zaharra 0002/003-01 Mikrofilm signatura 9-273-06. Orrialdeak 344-345. Liburuaren data: 1807-1868. Hona, beraz, jaiotza-agiria:

> Dia onze de Julio de Mil ochocientos cincuenta y Cinco yo D. Antonio Maria de Echevarria Presbitero Beneficiado y Cura dela Iglesia Parroquial San Martin de Forua bauticé solemnemente á una Niña, que segun declaración de su Abuela Materna Nació álas Nuebe de la Noche del dia Anterior, à quien pusé por Nombre Amalia, hija legitima de Juan Josef de Foruria, y de Josefa Antonia de Hormaechea Naturales y feligreses deEsta de Forua; Abuelos paternos Josef de Foruria y Josefa Antonia de Urrutia Naturales él deEsta, y ella de Ajanguiz y feligreses de Luno; Maternos Juan Josef de Hormaechea ya Difunto, y Agustina de Aurtenechea Naturales el deEsta de Forua y ella de Cortezubi, y feligres de Forua. Fueron padrinos Juan de Foruria y Ramona de Zaldumbide, residentes en Esta de Forua à quienes adverti el parentesco espiritual, que contrageron, y las obligaciones a que se constituieron; En cuya verdad firmo yo el Cura
>
> Don Antonio Maria de Echevarria

Gure berriemailearen amonaren jaiotza-agiria ere ekarriko dugu atal honetara. Hauexek dira erreferentziak: ID 388857 Cód. Referencia ES/AHEB-BEHA/FOO6.189 (2224/002-01). Signatura 2224/002-01. Signatura zaharra 0012/002-01. Mikrofilm signatura 9-300-02. Orrialdeak 064. Liburuaren data: 1781-1840.

> El dia dos de Enero de mil, setecientos, Ochenta, y seis, yo Don Juan Antonio de Veitia; Beneficiado de esta Parroquia de Santa Maria de Gauteguiz de [Arteaga] [bau]ticé solemnemente una Criatura/ laqual nacio a las ocho de la noche […][se]gun declaro su Comadre/ y le puse por nombre Agustina, [hija de] legitimo Matrimonio de Juan Manuel de Aurtenechea, natural de Cortezubi, y Maria de Ciarra, natural de esta, Vecinos y Parroquianos de esta. Abuelos Paternos Juan de Aurtenechea, natural de Cortezubi y Magdalena de Mutio, natural de Navarniz, Vecinos y Parroquianos de Cortezubi; Maternos Maria de Ciarra, natural de esta, y Maria de Ipinza, natural de Navarniz, Vecinos de Cortezubi y [pa]rroquianos de esta; fueron los Padrinos Joseph de [na]tural de Navarniz, y Maria Antonia de Arguinchona, natural de Mendata, aquienes adverti el parentesco espiritual, y Obligaciones, que contrageron, y para que conste la verdad firme.
>
> Don Juan Antonio de Veitia, Olacoa

[5] Erdaraz *Archivo histórico eclesiástico de Bizkaia* du izen ofiziala. Guk jarri dugun euskarazko izena ere halaxe da.

Agiri bi hauen bidez gure agiria noiz idatzi zen eta balada noiz ikasi den zehazten dugu. Gure baladaren bilketa data 1927 edo 1928 baldin bada, *Jaun Zurianoren* balada bilketarik zaharrena dela arrazoitzen dugu.

12. C EREDUAREN ARGUDIOA

C ereduan bi eszena eta aldi agertzen dira. Lehen lekua presondegi bat dela dirudi eta bigarrena Jaun Zianuriren etxea. Lehenean, lo dagoen Jaun Zianuri iratzarri egiten du norbaitek. Norbait hori ez da, irudien arabera, mauru edo turku bat, aingeru san Gabrielek bidalitako aingeru bat baino. Aingeruak diotso haren emazte andre Joana egun horretan berean ezkontzekotan dela, eta eramango duela haren etxera. Emaztearen etxera eramateko dirusari bat eskatzen dio aingeruak. Diru hori ez da ezereza, bosteun kintal urregorri harentzat eta beste hainbeste argizari Maria Santisimarentzat. Argizariaren jokoa bikoitza da lehen zati honetan, preso lotzen duten burdinak ere argizari bihurtzen direlako aingeruaren esanetara.

Bigarren zatian aingeru san Gabriel eta Jaun Zianuri bera emaztearen etxean presentatzen dira. Sarbiderik ematen ez diotenean, Jaun Zianuriren garaian pobreek eta erromesek sarbidea izan ohi zutela dio. Hitz horiek esandakoan sartzeko baimena ematen diote. Behin baimena eman ondoren, badirudi erromes mozorroturik dagoen Jaun Zianurik emaztearekin lo egitea eskatzen duela. Baimena emateko ezpata bat ateratzea da baldintza. Kontu hau ezaguna da eta Odiseoren etorrerarekin du zerikusia. Ulisesen emazteak, Penelopek, bere senar mozorrotuari froga bat jartzen dio: uztai edo arku bat tentsatu edo zabaltzea. Arturoren zikloarekin zerikusia duten leiendetan ezpata bat ateratzea da froga. Ezpata-izena ere ezaguna da: Scalibur.

Aipatu ditugun bi zati hauek biltzaileak berak ere puntu batez markatu ditu. Hainbat zehaztasun eman daitezke zati bakoitzean baina ez da gure puntu honetako zeregina. Hemen agertzen den leienda honen antzekoa bildua du Emile Larrek *Aiherra Nafarroaren leihoa*[6] bere liburuan. Hona 151-152. orrialdeetan agertzen dena:

> Belzunztarren historiaz eta berriez egia-erran ez dugu Aiherrako herritarretan, bizi direnetan, oroitzapen ainitzik aurkitu. Doi-doia lehenagoko supazterreko ixtorio pollit heietarik bat edo beste. Hala nola hau: kondatzen dute oraino xaharrek Belzuntze jauregi horretako noizbaiteko seme baten ixtorioa. Bai-eta ezkondu omen zen horgo seme bat auzo horietako alaba ontasun eta grado gabeko batekin. Holako emaztea ekarririk ez omen zuten burasoek ezkontza hori beren gostukoa aurkitu: on hartu zuten halere etxerat andere esposa, baina bakarrik sehi baten gradoan ezarriz.
>
> Handik denbora luzea gabe, gerlarat joan behartu zitzaion Belzuntzeko seme horri. Eta doi bat iraun zuen delako gerlak: etxeko seme hura soldado, eta emaztea beti Belzuntzean neskato. Hona beraz egun batez Belzuntzerat badatorrela gauazko egoitza galdez gizon bizar haundi erromes urrikalgarri bat. Orduko ongi-etorri ohiduren araberan errespeturekin hartu zuten delako gizon pobrea: Jesus Jauna bera balitz bezala, ebanjelioaren araberan. Eman zioten jatera, neskato batek zangoak garbitu eta artatu, lehenbiziko lana.
>
> Hain xuxen, delako neskatoa emazte fortuna gabe hura gertatu zen: eta erromesaren zango behatzetako sorseinale batetarik edo nik dakita, hantxet ezagutu… bere senar jauna! Senar eskelariak orduan ahoa tapatzen dio emazte gaixoari: dagoela ixilik eta ez oraino bere sendimendurik ager. Aratsean bakarrik jokatuko du bere partida: lo egiterat joaiteko ordua etorri delarik, erakusten diote eskelariari bere etzangia bero eta ongi prestatua. Baina honek ezetz: ez duela bakarrik lo eginen, baizik neskatoarekin. Etxekoek ezetz eta ezetz, ez dela holakorik egiten. Eztabada horrek doi bat iraun zuen baina gure arrotzak ez amor eman eta azkenean partida irabazi: zoala beraz erromesa neskatoarekin…
>
> Biharamun goizean ez bait zen gehiago erromesik! Hona non datorren gure "arrotza" bere etxeko-seme jauntzi ederrenetan, bizarra eginik eta apaindura guziekin eta bere andrea besotik, orduan bai ezagutu zutela jauregiko guziek etxeko semea! Bai-eta "neskatoarentzat" ere senarraren urrungo egintzek merezitu, hastean ukatua zioten gradoa.

[6] Itxaropena argitaldaria, Zarautz: 1980.

Gure balada gaiko eredu batean ere, Ibarrangelukoan, oinak garbitu egiten dizkiote erromesari. Gure balada gaiko eredu guztietan erromesa ezagutzeko ez dago sorseinalerik ezagutu beharrik, beste era bateko froga bat baino: ezpata ateratzea harri artetik. Orain arteko lehen bi ereduetan erromesak nola ateratzen duen ezpata egiaztatzen da. Gure balada honek Odiseoren etorrerarekin dituen bateratasun zehatzak ez ditugu emango. Horren berri jakin nahi duenak jo beza M. Eugenia Markaidaren artikulu ederrera.

13. *JAUN ZURIANOREN* KIDEKO BESTE BALADA BAT

C ereduan Jaun Zianuri presondegian dago, itxurak direnez. Zergatik? Bosgarren eta seigarren ahapaldietan dator azalpena:

5-¿Baña, jaune, nik zelan urten nei Burdiña onen artetik?
6-Burdiñak argizerijak dira goazen aurrera bertatik

Pasarte hau berau beste balada batean ere agertzen da. Balada horri *San Ignazio* balada izendatuko diogu, beste izenik ezean. Hona A. Zavalak zer dioen balada horren gainean:

> Beste kontapoesi bat eskeiñiko dizuet orain oso-osorik, ez bearbada onenetakoa, baiña guztiz ezezaguna, nere ustez beintzat, toki batean bakarrik arkitu baitet. Eskuz idatzita dago, XVIII. mendeko letraz. Itxura danez beintzat. Onela dio:

1

Jesus esanda abietzen naiz esaten printzipiua,
San Inazio Loiolakua kapitan balerosua.

2

Orain zeretzat ipiñi debe izen egiazkua,
izen egiazkua eta Kristoren biotzekua.

3

Egun batian zinjuazela morallaren gañian,
nun balazuaz eman zizuen zure gidalla ederrian.

3

Zauriarekin etorri ziñan zeure Loiola torrera
Zeure Loiola torrera eta eure aita ta amaren etxera.

4

Egun batian zionzala zeure Loiola torrean,
pensamentuak onak etorri ure aragi dulzean.

5

Pensamentuak jarri eta tentaziuak aurrian,
fuertemente bota zinduzen, ausi bidrigaduria.

6

Egun batian zinjuazela Parisko ziudadean,
pariseuak sartu zinduzen kartzela illun batean.

7

Inazio pena zer zan: bere astotxo gosia,
zerren ark erabiltzen zion bere libru kargia
ta soñeko kapia.

8

–Inazio, jaiki, jaiki, guazen gere bidean.
–Andria, nola jaiki al nindeke onen burnien artean?

9

–Inazio, jaiki, jaiki guazen gere bidean.
–Andria, nola jaiki nindeke onen burnien artean?

10

Burniak argizaiak dira, or zauren artian.

11

Inazio, anima zaitez, ase da orren gosia;
bere pesebrian sobratuta dauka garagarra ta babia.

Hemen transkribatu dugun balada honek bateratasun handiak ditu ezagutzen ditugun *Kanzuriano* baladako C ereduarekin. Zortzigarren ahapaldian ikusten dugun 8– *Inazio, jaiki, jaiki* hori hurbil dago *Kanzuriano, Kanzuriano/ lo bazagoz iratzarri* horretatik. Orain arteko eredu bietan, A eta B ereduetan, ez dugu ikusi Kanzuriano kartzelaratua dagoenik. Guk dakargun ereduko 5-6. ahapaldiak oso hurbil daude san Inazioren baladaren 9-10. ahapaldietatik.

14. *ZIANURIKO JAUNA* BALADA GAURKO ORTOGRAFIAN

Puntu honetan C eredua gaurko ortografiara aldatuko dugu. Hurrengo puntuan ahapaldiz ahapaldi jardungo dugu zertzelada nagusiak iruzkintzen. Ahapaldietan tolesteak uste baino buru-ala gehiago ematen ditu. Zergatik? Jatorrizkoan ahapaldiak banatu edo tolestu gabe badaude, eta bertso-lerroak falta badira, ez da erraza zein bertso-lerro zeinekin joan behar duen ikustea. Antonio Zavalak, esaterako, gu baino mila aldiz adituagoa izan arren, ez zuen berak argitaraturiko eredua ahapaldietan tolestu. Oraingo atal honetan, txarto-ondo, tolestu ez ezik, zenbakitu ere egingo ditugu.

Eskuizkribuan erre, te, iota, ene eta ixa gangardunak edo tildedunak ikusten dira. Horiek guztiak gure erara ekarri ditugu. Kontu horietaz gainera, eskuizkribuko *eche* eta *ardauchua* gure erara ekarri ditugu: *etxe* eta *ardautxua*:

1

–Jaun Zianuri, jaun Zianuri! Lo badatzaz iratzarri.
–Nok erakutzi neure ixena Moro triegu gogorrori.

2

–Ez nas, ez nas morue, Zerutik nator aingerue;
Jaun san Gabrielek biralduten neu Gaur zeugañeko mandatari.

3

Zeure emaste andra Joanari Gaur leroijoe zenar barri.
Zeu araixe eroatiegaittik ¿Zer emongo senduke zari?

4

Bosteun kinttel urre gorri — Aingeru san Gabrieleri;
Beste ainbeste argirizari — Maria santiximiari.

5

–Apunta bediz paperien da — Goazen aurrera bertatik.
–¿Baña, jaune, nik zelan urten nei — Burdiña onen artetik?

6

–Burdiñok argizerijak dira — Goazen aurrera bertatik.
…… — ……

7

–¿Oles, Oles! etxeko andria, — Ostatu puskat nai geunke.
–Estau gaur geurien ostaturik, — Bijoas ospittalera…
(…..)

8

–Jaun Zianurik oiebanian — Etxe onetan entrada,
Pobriak eta peregriñuak — Ostatu oi eben gabaz:

9

–Jaun Zianuri aittatu dau ta — Idigi bekijo atia
Ardautxua epeldu eta — Oñak garbittu orreri.

10

Jaun Zianurik emonik daukat — Ezpatia bañan zarturik,
Aixe ateraten dabenaz baño — Ezin negike geur lorik.

11

Aproba bedi gizon gastie, — Aproba bedi gaur emen
Aprobadu da gizon gastie, — Aproba bedi peregriñua.

15. C EREDUA AHAPALDIZ AHAPALDI

Gure eredu honetan konturik bitxi eta harrigarrienetako bat *Jaun Zianuri* izena bera da. Badirudi *Zuriano* hitzetik herri etimologiaz *Zianuri* bihurtu dela. Zergatik? Arratia herriko Zeanuri[7] herriak ez ote du indar egin? Baina kontura gaitezen ez dela Zeanuri bete-betean, antzeko zerbait den Zianuri baizik. Ez dirudi, beraz, bete-betean herri-etimologia denik. Kontu hori baino interesgarriagoa da hitz horren aurretik datorren *Jaun* delakoa. Kontu aski ezaguna da mendebaleko tradizioan aposizio esplikatiboa hitzaren ondoren datorrela: *alkate jauna*. Ekialdeko euskalkietan, ostera, alderantziz hitzaren aurrean: *jaun mera*. Badirudi tradizio zaharrean mendebal(d)ean ere ekialdean bezala zela, aposizio-hitza aurrean dela. Honen adibide dugu *Jaun Zuria* edo *Jaunzuriano*. Gure balada honetan, ostera, aposizio hitz guztiak aurretik datoz: Jaun san Gabrielek, emazte Andra Joanari.

[7] Alfonso Irigoienek Arratiako herria den Zeanuri Erdi Aroko Zeian pertsona-izenetik zetorrela uste zuen. 1366an Sancho Çeian azaltzen da Azkoinen (N). A. Irigoienen ustez Burgosko Villacián herriaren baliokidea da Zeanuri.

Orain joan gaitezen ahapaldiz ahapaldi hizkuntza oharrak egitera. C ereduaren zehaztasunak eman ondoren, ezagutzen ditugun beste bi ereduekin erkatuko ditugu. Horretarako Jose Ariztimuño *Aitzolen* bildumako Ibarrangeluko ereduari A deituko diogu. Eukene Markaidak bildutako Elantxobeko ereduari B. Joan gaitezen, beraz, ahapaldiz ahapaldi:

1

–Jaun Zianuri, Jaun Zianuri,/ lo bazatzaz iratzarri!/ –Nok erakutsi neure izena/ moro triegu gogorrori.

Lehen ahapaldian kontu bat baino gehiago ditugu. Lehen ahapaldi honetan aditz jokatu bat ikusten dugu lo aurretik duela: *lo badatzaz*. *Lo natza* esapidea *lo nago* esateko forma zaharra da, zalantzarik gabe. Esapide hori testu zaharretan ikusten dugu. Armedux-en eresian, Detxepare eta Leizarragaren liburuetan. Hemen zerbait zuzentzekotan, *lo bazatzaz* izan beharko luke. Bizkaiko *lo bazatzaz* horren baliokidea ekialdeko *lo bazauntza* da. Badago besterik ere, iratzarri forma zaharra –ra-erazlea (edo nahiago bada faktitibo edo kausatiboa) *du* eta –tu gabekoa da. Ohartzekoa da Ibarrangeluko ereduan A-*Lo bazagoz iratzarri* dela. Bigarren ereduan B-*Lotan zagoza? Izartu* dugu. Gure eredu honek, beraz, zaharragoaren itxurak ditu iratzarri eta etzan aditza jokaturik ikusten ditugulako.

Hitzei dagokienez, bestetako *moro* hitza ez ezik, *triegu* ere ikusten dugu geminatu semantiko bat osatzen dutela: *moro triegu*. Bi hitzetako *triegu* horrek A eta B ereduetako *truko* eta *truku* hitzekin zerikusia du. Eta hitz bi hauek *turko* hitzarekin. Era berean, bi hitzetan agertzen den *moro-herri* eta *truku-herri* formek erdal erromantzeetan hain ezagun den *moreria* hitzarekin zerikusia dute. Esan dezagun, azkenik, *gogorrori* horrek gainerako *moro triegu* hitz biko pleonastikoa indartu egiten duela. Esan beharrik ez dago –ori bukaera artikulu hurbila dela, eta ez erakuslea, eta horrexegatik batera idatzi dugu.

2

–Ez naz, ez naz morue,/ zerutik nator aingerue,/ jaun san Gabrielek biralduten neu/ gaur zeugañeko mandatari.

Bigarren ahapaldi honetan ezuste gutxiago ditugu. Busturia eta Bermeo aldekoa den *nigañe*, *zugañe*, *amagañe*[8] tankerako forma ikusten dugu modu adnominalean *zugañeko mandatari* horretan. Lehen ereduan, A ereduan, ez da adnominalik egiten eta *zugana mandatari* ikusten dugu. Halaxe ote dator jatorrizko eskuizkribuan? A. Zavalak bi era diferentetan trankribatzen du ahapaldi bera. *Euskal erromantzeak* liburuan *Enaz ni moru-errikoa*, baina *Auspoaren auspoa II* liburuko artikuluan *Enaiz ni moru errikoa*.

Duda sortu diguna besterik da. *Gaur* ikusten dugu baina *neu* dator hurrengo, *nau* agertu beharrean. Lau aldiz agertzen da *gaur* adberbioa. Azken ahapaldian ere *gaur* ikusten dugu, azkenaurrekoan, ostera, *geur*.

3

Zeure emazte andra Joanari/ gaur leroijoe senar barri./ Zeu araixe eroatiegaittik/ zer emongo zenduke sari?

Hirugarren ahapaldi honetan gehien harritzen gaituena *leroijoe* adizkia dugu. Adizki hau *eroan* aditzekoa dugu eta *leram(ki)ote* bezalako zerbait izango litzateke, *eraman* aditza jokatuko bagenu. Hau

[8] Uste baino bariante gehiago daude. *Zugañe* ez ezik, *zuraiñe* eta *zuaiñe* ere badaude. Aldaera asko daude batetik. Non egiten den ez dugu puntu honetan zehaztu nahi, gure oraingo asmoetatik ihes egiten digulako. Bizkaiko formak dira, inolaz ere, eta ez beste inongoak. Bizkaian ez Arratialdean ez Markinaldean ez dago holakorik. Gernika ingurutik hasi eta kostaldera egiten dira holakoak.

da *daramakiote* forma baina l- batez. Hitzetan eta esapideetan badago kontu harrigarririk. Hasteko eta behin, *zer emongo zenduke sari* esapidea bitxi bezain polita da. Esapide honekin, bestalde, Aitzolen A- *zer emongo zeunskio zuk ari?* hori hobeto ulertzen dugu. Aitzolen forma horrek beste modu honetara izan beharko luke: *zer emongo zeunskio zuk sari?* Baina era horretara, ez litzateke *zeunskio* izango, *zenduke* baizik. A eredu honetan, beraz, geroagoko egokitze bat izan da, itxuren arabera. B eredua ere bat dator gurekin laugarren ahapaldian *zer emongo daustazu sari?* agertzen baita.

4

Bosteun kinttel urre gorri/ aingeru san Gabrieleri;/ beste hainbeste argirizari/ Maria santisimiari.

Ahapaldi hau gardena da alderdi guztietatik. Badago ahapaldi honetan gauza polit eta ardurazko bat gure ustez. Ahapaldi honek badu antzekotasun nabarmena nik ezagutzen dudan sehaska-kantarik ederrenarekin. Kanta hau Julian Yurre kaputxinoak bildu eta argitaratu zuen (Jurre, 1968). Hona hemen: *Gure umetxu doyen orduen/ zaldi urdiñen ganien, bosteun kaskabel urregorrizko/ zaldiyek idunerien;/ beste ainbeste eta mille geyago atzeko petralerien*. Lokanta honetan ere *bosteun X urregorrizko* agertzen dira eta gero *beste (h)ainbeste* egitura…

Ahapaldi honetan bada hizkuntza kontu harrigarri bat *santiximiari* horretan. Ikusten denez ez da *santiximari* santiximiari baizik. Artikuluarekin jokatzen da santisima delakoa. Hitzei dagokienez, *argirizari* harrigarria ikusten dugu. Seigarren ahapaldian, ordea, normalagoa den *argizerijak* agertzen da. Forma bitxi honek, hala ere, badu kidetasuntxo bat A ereduan agertzen den *argiziritxu* hitzarekin. Zenbakiei dagokienez, *bosteun* da A ereduan ere: *bosteun kana urre-zintxa*. Eta gure ereduan ez dagoen bidearen berri ematen duen ahapaldian bostehun agertzen da: *–Emetik eta ene etxera/ bosteun legua da bide,/ bosteun legua da bide eta/ nik arek zelan ebagi*?

5

–Apunta bediz paperien da/ goazen aurrera bertatik./ Baña, jaune, nik zelan urten nei/ burdiña onen artetik?

Bosgarren ahapaldian bestetan ikusten ez dugun argibidea dator. Gorago ikusi dugun bezala preso dago Jaun Zianuri eta horregatik galdetzen du *zelan urten nei burdiña onen artetik?* Norbait baldin balego jatorrizko eskuizkribuan *burdiña onen artetik / burdiña orren artetik* artean zalantzaka, ez dago dudarik. *Onen* da dudarik gabe, bestela erre gangarduna edo tildeduna ikusiko genuke.

Hizkuntzari dagokionez, bada kontu polit bat aginte eretan *-tu/-du* gabeko formak ikusten ditugu *Apunta bediz paperien*. Azken bi ahapaldietan ere *aproba bedi* hiru aldiz. Baina agintera ez denean *aprobadu*, *–du* atzizkiarekin partizipioa markatuz.

6

–Burdiñok argizerijak dira/ goazen aurrera bertatik./…/…

Ahapaldi erdia baino ez daukagu. Hizkuntza aldetik ohartxo bat egingo bagenu *goazen aurrera bertatik* horretako *bertatik* lekua ez ezik, denbora ere bada. Dilogia bat eman badaiteke ere, *bertatik* denbora adierazteko da. Bestela esan: “Goazen hemendik aurrera” baino gehiago esan nahi du “goazen aurrera berehala”.

7

Oles, Oles! etxeko andria,/ ostatu puskat nai geunke./ –Ez dau gaur geurien ostaturik,/ bijoaz ospittalera…

Gure ereduan, B ereduan bezalaxe, oleska agertzen dira aingerua eta Jaun Zianuri. Pentsatzekoa da *gaur* horrek, ekialdeko euskalkietan bezalaxe, gaur gauean adierazten duela. Hurrengo ahapaldian

ostatu oieben gabaz esaten du, gure usteen indargarri. Hitzei dagokienez, birritan agertzen da *oles* hitza. Kopla zaharretan, ia beti Gipuzkoaldekoetan, *Oles eta oles* esapidea aurkitzen dugu. Modu luzeagoan *Oles ta oles etxekotxuak/-ok* aurkitzen dugu sarri. Bestetan, batez ere Oiartzun aldekoetan, *Oles ta oles Dios te salve*. Orain arteko A eta B ereduetan *Dios te salve*-rekin agertzen da Oiartzun aldeko kopla zaharretan bezalaxe.

Izan dugun zalantzatxo bat *bijoa/bijoaz* transkribatzean izan da. Halako borroi edo ezabatu une bat ikusten dut baina plurala jartzeko erabakia hartu dugu.

8

–Jaun Zianurik oi ebanian/ etxe onetan entrada,/ pobriak eta peregriñuak/ ostatu oi eben gabaz.

Berdintsuak dira beste ereduetakoak: A–*Egun okupaue daukogu te/ beijua pobre ori aurrera./ – Kanzuriano bizi zanean/ pobreak emen baeben ostatua*. Bigarren ereduan: B–*Jaun Zuriano bizi zanian/ pobriak emen eben ostatua./ Jaun Zuriano bizi zanian/ pobriak emen ostatua*. Kontu ezaguna da balada zaharretan erdal hitzak eta aditz zein hitz arkaikoak nahasten direla. Ahapaldi hau dugu adibide horietako bat *entrada* hitza ikusten dugu ahapaldi honetan, lehenean, ostera, *lo badatzaz iratzarri*…

9

–Jaun Zianuri aittatu dau ta/ idigi bekijo atia/ ardautxua epeldu eta/ oñak garbittu orreri.

Ahapaldi hau zoragarria dugu. Lehen ereduan ere antzekoa da baina osatu gabe dagoenez gero, Aita Zavalak honelako hau proposatzen du: *Sillan jezarri erromes ori/ uragaz oiñak garbitu/ uragaz oiñak garbitu eta/ pañua artun da sikatu*. Bigarren ereduan, ostera, ez dago holakorik. Ardoa epeldu eta oinak garbitu ez ote da Ulisesekin ere gertatzen? Harrigarria bada ere, beti hirugarren pertsonan ematen dira aginduak: *Idigi bekijo atia, aproba bedi gizon gastie*…

10

Jaun Zianurik emonik daukat/ ezpatia bañan sarturik,/ aixe ateraten dabenaz baño/ ezin negike geur lorik.

Hemen jatorrizkoan *zarturik* irakurri arren*, sarturik* izan behar du. Edo biak batera ote dira dilogia bat eginez? Ezpata, batetik, zaharturik dago, eta, bestetik, sarturik. Zentzu biak, ostera, Bizkaiko euskara mintzatuan (ia leku gehienetan) berdin esaten dira: *sarturik/ sartuta*. Bada besterik ere, *dabenaz* hori ulertzeko *dabenagaz* baten laburdura dela kontuan hartu behar da. Bizkaiko *dabenagaz* hori gipuzkerako *duenarekin* da.

11

Aproba bedi gizon gaztie,/ aproba bedi gaur emen/ aprobadu da gizon gaztie,/ aproba bedi peregriñua.

Jatorrizkoan *gaste* agertzen da bi aldiz. Bizkaiko tradizio zahar samarra dugu hau. Gerra aurreko Bizkaiko garbizaleek hala erabiltzen zuten gehienean *gusti* eta *gaste*, nahiz eta gainerakoetan gehienetan bereizi s/z idazteko orduan. Gure transkripzio honetarako ez dugu aldatu.

29
ANDEREA GORARIK BALADA

1. SARRERA

Ezagutzen ditugun kantutegietan *Eskutaria*[1] edo *Ama eta semearenak* bezala ezagutzen da balada hau. Egin diren balada-bilduma eta azterketetan, ordea, ez du kantutegi edo kantu-kaieretan hartzen duen izendatze era hori hartzen. Kantutegi eta balada azterketa gehienetan *Anderea gorarik (zaude)* bezala ezagutzen da.

Balada hau Iparraldeko tradizioan agertzen da bakarrik, Lapurdiko, Zuberoako eta Baxenafarroako tradizioetan dokumentatzen da bakarrik. Balada honek, bestalde, ez du inolako kiderik Nafarroa Garaiko edo Bizkaiko tradizioan. Uste izan da *Brodatzen ari nintzen* zein *Apez beltzaren* baladak, esaterako, Iparraldeko tradiziokoak zirela huts-hutsik. Lehenaren Bizkaiko aldaera bat baino gehiago bildu izan dira hegoaldean, bigarrenarena Mañariko bost ahapaldiko eredu bat argitaratu genuen.

Anderea gorarik balada ez dago bildua XIX. mendeko bilduma gehienetan. Ez dator ez Chahoren kantutegian ez J. D. J. Salaberriren *Chants populaires du Pays Basque* 1870. urteko liburuan, ez beraren paper argitaragabeetan, ez Madame Villehelioren *Souvenir des Pyrénées,* ez Hiribarrenen paperetan ez eta Duvoisinen kaieretan ere. Francisque Michelek balada honen gaineko ahapaldi bakarra dakar 1857ko *Le Pays Basque* liburu famatuan. Pentsatzekoa da Erdi Aroko kutsu handia duen balada honek (jaun handi baten ezkutari ibili den jaun gazte baten eta dama baten arteko solasek ez ote dute halako zahar aire bat?) mediebalista batentzat ale aparta eta estimatua izan behar zuela.

Francisque Michelek, beraz, aipamen hau egiten du 424-425. orrialdeetan:

> Plus nombreuses encore sont les chansons composées dans le but de stigmatiser le vice et de flétrir le scandale. A celles que j'ai données, j'aurais pu ajouter un dialogue qui a dû prendre naissance dans le environs de Saint-Jean-de-Luz. Il est relatif à la femme d'un marin, peu vertueuse à ce qu'il paraît et commence ainsi:
>
> Andere ederra, gora zaude leihoan,
> Zure senharra behera dago Frantzian
> Houra handic jin dateken artian
> Ezcutari nahi nuzia etchian?

[1] Hitz honek, jakina, erdarazko "escudero" hitza adierazi nahi du. Euskaraz, beraz, *ezkutari* izan beharko luke. Ez dugu, ordea, ezkutari inongo eskuizkributan aurkitu. Pentsatzekoa da herri-etimologia bat gertatu dela eta *esku* hitzetik *eskutari* hitza sortu dela. Herri etimologia bera gertatuko litzateke *eskupeta* hitzean, esaterako.

Francisque Michel mediebalistak ahapaldi horren ondoren itzulpena dakar. Itzulpena zuzena izan arren, azken *Ezcutari nahi nuzia etchian* galdera ez dago hitzez hitz itzulirik. Galdera horretako *ezkutari* hitzaren itzulpena ez dugu inon ikusten. Zeharka itzulirik ikusten dugu *Voulez-vous me donner audience chez vous?*

Gure balada honek artikulu monografiko bakarra izan du. Artikulu monografiko hori euskal kanten ezagutzaile handienetarikoari zor diogu, Louis Dassance jaunari: "Chronique de la chanson basque: Anderea gorarik", *Gure Herria* 1963ko hazila, 314-322 or. Louis Dassance izan zen, era berean, balada honen aldaera gehien bildu zituena. Aldaera horietako zenbait Antonio Zavalak bere baladategian argitara eman zituen. Guk ere atal honetan argitara daudenak jatorrizko idatzietan –zein eskuizkribuak izan zein testu makinatuak– dauden bezala ekarriko ditugu atal honetara. Argitaratuak daudenak zein argitaragabe dauden zenbait ere argitara emango ditugu. Balada gai honetako ereduek atal monografiko bat merezi dute, inolako dudarik gabe.

2. A EREDUA ARXÜREN ALDAERA ARGITARAGABEA

XIX. mendeko ale argitaraturik ez dugula ezagutzen esan dugu goiko sarreran. Francisque Michel mediebalistaren lehen ahapaldia dugu eredu osoago baten erakusgarria. Oraintsu ikasi dugunez, Francisque Michelek ez zituen berak zituen euskal testu guztiak argitaratu. Zenbaitetan balada edo kantore baten lehen ahapaldia baino ez du eskaintzen *Le Pays Basque* liburuan. Diogunaren beste erakusgarri bat dugu 528. orrialdekoa. Orrialde horretako oin-oharrean Etxahunen *Sohütako ezteientan* (1841) kantorearen ahapaldi bakarra eskaintzen du. Tankera horretako kantu osagabe gehiago ere badaude Francisque Michelen lanean.

Gaur den egunean, zorionez, hutsune horietako zenbait osatzeko moduan gaude. Arxüren kaier batetik eredu osoa eta azalpena transkribatuko dugu. Eredu osoa transkribatzea guztiz interesgarria dela deritzagu. Galdurik genuen eredu osatzea guztiz interesgarria da. Francisque Michelen eredua dugun zaharrena bezain bitxienetakoa dugulako. Dugun zaharrena Arxük bere kaiera 1840an datatzen duelako eta dugun bitxienetakoa azken bi ahapaldiek irudi desezagunak agertzen dizkigutelako[2]. Hona hemen Arxüren eskuidatziko 41. zenbakian *Dialogue* izenburuaren azpian agertzen den bezalaxe:

–Andere ederra, gora zaude leihoan,
Zure senharra behera dago Franzian;
Houra handic jin dateken artian
Eskutari nahi nuzia etchian?

–Ene senharra izanic gatic franzian
Hauzoac hounic utzi dauzkit aldian,
Hauzoac hounic utzi dauzkit aldian.
Eskutari beharric eztut etchian.

–Izatu nuzu Espainian, Franzian,
Anglaterran eta Eropa guzian,
Andere ederrac ikhoussitut aldian:
Zure pareric eztaite izan mundian.

[2] Arxüren kaieraren kopia digitalizatua Mauleko Sü-hazia kultura elkartean gordetzen da.

–Eskutaria, ederki zira minzatu;
Zure etzateco etchian badut ostatu;
Ohe ederrian lo ere eghinen duzu
Ene aldian, zuc plazer baduzu.

–Andere ederra, hori da klarki minzatzia,
Zure senharra, ni baino hobia,
Zazpi ourthez eman izan daut oghia,
Zortzi gherrenian bere azpico zaldia.

–Arramuiaren hostoaren pherdia!
Ezpeitu galzen behin ere koloria.
Erran duzadac, othoi, eni eghia,
Hi othe izanez ene lehen semia.

–Mariñelac itsasoa trabesatzen,
Ourthe hortan manobra hanitz eghiten
Kosta hegian sablia denian finitzen,
Erranen dauzut heia zure semia ninzen.


41 Dialogue.
– Andere ederra, gora zaude leihoan,
Zure senharra behera dago Franzian,
Horira haudic jin dateken artian
Eskutari nahi nuzia etchian ? !
– Ene senharra izanic gatic franzian,
Hauzoac hounic utzi dauzkit albian,
Hauzoac hounic utzi dauzkit albian.
Eskutari beharric ezta etchian.
– Ibatu nuzu Espainian, Franzian,
Anglaterran eta Europa guzian,
Andere ederrac ikhusi tut albian.
Zure pareric ezkaite izan mundian.
– Eskutaria, ederki zira minzatu;
Zure etzateco etchian badut ostatu;
Ohe ederrian lo ere eghinen duzu,
Ene aldian, zuc plazer baduzu.
– Andere ederra, hori da klarki minzatzia,
Zure senharra, ni baino hobia,
Zazpi ourthez eman izan daut oghia,
Zortzi gherrenian bere azpico zaldia.
– Arramuiaren hostoaren pherdia!
Ezpeitu galzen behin ere koloria,
Erran duzadac, othoi, eni eghia,
Hi othe izanez ene lehen semia.
– Mariñelac itsasoa trabesatzen,
Ourthe hortan manobra hanitz eghiten,
Kosta hegian sablia denian finitzen,
Erranen dauzut heia zure semia ninzen.
Cette chanson a dû prendre naissance
dans les environs de St. Jean de Luz.
Elle a pour objet la femme d'un marinier,
laquelle était, à ce qu'il paraît, peu vertueuse. Amour, tu perdis Troie et tu fais souvent oublier la fidélité conjugale.

Anderea gorarik balada. Arxüren aldaera argitaragabea.

> Cette chanson a dû prendre naissance dans les environs de St Jean de Luz. Elle a pour objet la femme d'un marinier, laquelle était, à ce qu'il parait, peut vertueuse. Amour, tu perdis croire et tu fais souvent oublier la fidélité conjugale.

Testu honek, zorionez, ez digu eragozpenik eman Arxüren esku-letra argia delako. Arxüren transkripzioen ezaugarri gehienak ditu transkripzio honek. Alde batetik ortografia berezia. Errazenik nabaritzen da *eghinen* (4. ahapaldian), *oghia zortzi gherrenian* (5. ahapaldian), *eghia* (6. ahapaldian), *eghiten* (7. ahapaldian), *kosta hegian* (7. ahapaldian). Era berean, deklinabide atzizkiak ia beti *–c* batez eta hitzak transkribatzeko, ordea, *k* batez egin ohi ditu. *Eskutari*, *klarki*, *dauzkit* eta abar. Deklinabide atzizkietan *handic*, *izanic gatic*, *hounic*, *pareric*, *etzateco*, eta abar.

Arxük ikusten badu kanturen batek berebiziko garrantzia izan dezakeela azalpenen bat jartzen du frantsesez. Gure baladaren kasuan ere azalpentxo argigarri bat ematen du frantsesez.

Interesgarria da, behin kontuak honetara, Francisque Michelek ez duela Arxüren frantses azalpena dagoen-dagoenean transkribatzen. Francisque Michelek Arxüren frantses testua ia hitzez hitz kopiatzen du, noizean behin tautologia txiki bat eginez.

> Arxü: Cette chanson a dù prendre naissance dans les environs de St Jean de Luz. Elle a pour objet la femme d'un marinier, laquelle était, à ce qu'il parait, peut vertueuse. Amour, tu perdis croire et tu fais souvent oublier la fidélité conjugale.

> Francisque Michel: "Plus nombreuses encore sont les chansons composées dans le but de stigmatiser le vice et de flétrir le scandale. A celles que j'ai données, j'aurais pu ajouter un dialogue qui a dû prendre naissance dans le environs de Saint-Jean-de-Luz. Il est relatif à la femme d'un marin, peu vertueuse à ce qu'il paraît et commence ainsi:

Beste azalpen bat ere egon liteke. Francisque Michelek *Le Pays Basque* liburua egiteko guk dugun Arxüren kaiera erabili beharrean beste bat Arxüren beste bat erabili zuen.

3. ARXÜREN A TESTUA GAURKO ORTOGRAFIARA EKARRIRIK

Puntu honetan gaurko ortografiara ekarriko dugu Arxüren testua. Testuari gagozkiola, lehen bost ahapaldiak gainerako aldaeren antzekoa dugu. Azken bi ahapaldiek berritasun nabarmenak dakartzate.

1
–Andere ederra, gora zaude leihoan,
zure senharra behera dago Frantzian.
Hura handik jin dateken artian
eskutari nahi nuzia etxian?

2
–Ene senharra izanik gatik Frantzian,
hauzoak hunik utzi dauzkit aldian,
hauzoak hunik utzi dauzkit aldian,
eskutari beharrik ez dut etxian.

3
–Izatu nuzu Espainian, Frantzian,
Anglaterran eta Eropa guzian,
Andere ederrak ikhousi tut aldian,
zure pareric ez daite izan mundian.

4
–Eskutaria, ederki zira mintzatu,
zure etzateko etxian badut ostatu,
ohe ederrian lo ere eginen duzu,
ene aldian, zuk plazer baduzu.

5
–Andere ederra, hori da klarki mintzatzia,
zure senharra ni baino hobia.
Zazpi urthez eman izan daut ogia,
zortzigerrenian bere azpiko zaldia.

6
–Arramuiaren hostoaren pherdia!
Ez beitu galtzen behin ere koloria.
Erran duzadak, othoi, eni egia,
hi othe hizanez ene lehen semia.

7
Mariñelak itsasoa trabesatzen,
urthe hortan manobra hanitz eghiten,
kosta hegian sablia denian finitzen,
erranen dau(t)zut heia zure semia nintzen.

Testuari gagozkiola, Arxük dioenez, egiaz ote da Donibane Lohizune ingurukoa berak transkribatutako testua? Ez ote du azken ahapaldiak Arxü itsutu. Izan ere, azken ahapaldiko *imposibilia* delakoa kostako irudi bat duela egiten du. Testua gure ustez Baxenabarrekoa da. Hona zenbait froga. Lehen ahapaldian agertzen den *jin* aditza lapurtera baino ekialdekoagoa da. Baxenafarroakoa eta Zuberoakoa. Hona zer agertzen duen *jin* hitzean *Orotariko Euskal Hiztegiak:*

> General en los autores suletinos y bajo-navarros, hat tbn. Un ej. De un catecismo de Arcangues de mediados del s. XIX (BOEI 432). Desde finales del s. XIX su uso se extiende a la práctica totalidad de los autores septentrionales –no se encuentra, con todo, en un continuador de la tradición puramente labortana como Zerbitzari– antes lo usa tbn. Goihecche 8210), autor labortano permeable al léxico de otros dialectos.

Era berean, lehen ahapaldian datorren *nuzia* adizkia, *nuzu* eta *–a* galdetzailea ez dira, itxurak direnez, ez bata eta ez bestea, ez dira erabat Lapurdiko tradiziokoak. Hona –a hitzean zer datorren *Orotariko Euskal Hiztegian*:

> Suf. or. sado facultativamente en interrogaciones totales. Al Norte de la frontera en BN, S y parte de L (no en Sara o en la costa; falta en los autores lab. Del s. XVIII y es escaso en Lç (12ejs. Sg. Lfn Sist I 440-): en uso en Arcangues, Hasparren…

Adibide gehiago ere eman genitzake. Testuko hitzek neurri handi batean euskalki bateko edo besteko erabilera finkatzeko balio dezakete. Euskalki eredua finkatzeko, ordea, era bateko aditzen erabilera erabakigarriagoa dela deritzagu. Eta dudarik gabe morfologia markak. Seigarren ahapaldiko *ene lehen semia* horretan, esaterako, *ene* posesiboa ekialdeko euskalki guztietakoa izan liteke. *Eni* forma, *ene* posesibotik eratorria, ordea, baxenafartarra dela deritzagu. Bigarren ahapaldiko *auzoak hunik utzi dauzkit* esaldian ere *hunik* delakoak Baxenabarrako forma dela salatzen digu. Atzizkiari gagozkiola, *–(r)ik* ekialdekoa da, aspirazioari gagozkiola, ez ote zaio Arxüri Zuberoako *h*– lerratu?

4. B EREDUA: CHARLES BORDESEK ARGITARATUA

Lehen aldiz balada bere osotasunean Charles Bordesek argitara zuen 1897ko *La tradition au Pays Basque* liburuko "La musique populaire des basques" atalean. Balada pentagrama eta frantses itzulpenarekin batera eman zuen. Baladaren ondoren zehaztasun hau jarri zuen:

> Cette dernière légende se chante également sur un autre air; nous l'avons entendue sous cette nouvelle forme à Saint-Esteben près de Hasparren, pendant une veillée où l'on écossait le maïs. Un Basque me l'a chantée en égrenant ses épis sur une vieille épée rouillée. Cette version est incontestablement plus belle que celle citée plus haut, mais elle paraît avoir été adaptée après coup à la chanson.

Zehaztasun horrek beste aldaera edo bertsio bat ezagutzen zuela adierazten zigun. Aldaera hori nonbait hitzaldian aipatu zuen, baina ez zuen transkribatu hitzaldi idatzian. Beste bertsio hori gabe gelditu gara, beraz.

Gaurko ortografiara aldatua ekarriko dugu Charles Bordesen testua, Bordesen testuko *etche* hitza, esaterako, "etxe" bihurtuko dugu, *churi* "xuri", eta abar. Ohargarria da *eskutari*[3] hitza hala jartzen badu ere lehen ahapaldian, gainerako bitan *beskotari* jartzen duela. Zergatik? Hitza bera ofizioa galdu ondoren ulergaitz izango zelako, gure ustez. Ez dugu ahaztu behar, bestalde, Azkuek bildu zuen ereduan ere *beskotari* hitza agertzen dela. *Uretako jauna* baladan ere agertzen da *eskutari* hitza modu batean baino gehiagotan: *eskutar, eskutari*. Hona hemen, besterik gabe, Charles Bordesen testua:

1
–Anderia, gorarik zaude leihoan,
zure senharra behera dago Frantzian.
Hura handik jin daiteken artian,
eskutari ni har nezazu etchian.

2
–Ene senharra behera deia Frantzian?
hura handik jin daiteken artian,
beskotari nihaur aski niz etchian,
hauzoak hurbil utzi derauzkitan juaitian.

3
–Izan niz Españian eta Frantzian,
bai eta ere Anglaterra orotan;
andere ederrik ikhusi dizit heietan;
zure parerik ez zen ene begietan.

4
–Muthil gaztia, ederki zira mintzatu,
zure ganako ostatu gure etchian baduzu;
ohia churi, ganbarak garbi diaudetzu;
ni ere aldian hurbil izanen nuzu.

[3] Modurik zuzenenean *ezkutari* izan beharko luke. Eta halaxe agertzen da hiztegietan.

5
–Zure senharra ni baino gizon hobia,
zazpi urthez harek eman deraut ogia,
zortzigarrenian Frantziarako bidia,
eta harekin bere peko zaldia.

6
–Uri-haizia, ura duienian uherlo,
andretto hok girare guziak parlero,
hizño hori juan zerautazu lachero,
ene senharrra zutan truka ez niro.

7
Anderia, hirain zautzu denbora,
eskeintu tuzu ohia eta ganbara.
Eta haiekin zure gorphutz propia
ezteia bada, errazu, hori egia?

8
Beskotari bilho urdin falsuia,
hi othe hiz ene lehen semia?
Altxa zadak ezkerreko begia,
ene semiak han dik sorseinalia.

Eredu honek baditu transkripzio arazotxoak. Arazo batzuk erraz konpontzekoak dira. Bordesek jartzen duen *gorkhutz* hitza *gorphutz* batera ekarri behar da, dudarik gabe. Baina *hirain* delakoa "iragan" desitxuratua bada ere, nola idatzi? Dagoen-dagoenean edo *iragan* edo *irain*?

5. AZKUEREN KANTUTEGIKO C EREDUA

Azkuek CPV kantutegian, 79. orrialdean, *Dama ederra* izenburuaren azpian, *Anderea gorarik* baladaren aldaera bat dakar. Azkueren aldaerak, ordea, ahapaldi bi baino ez ditu. Hona bi ahapaldiak:

Dama edeŕa: gorarik zaude etxean,
zure senaŕa aphalik dago Frantzian.
Hura hantik yin-artinoko aldian
ogipeko har nezazu etxean.

¿Ene senaŕa aphalik deya Frantzian?
Ta hura hantik yina daiteken-artean
beskotari nihaur aski niz etxean:
hauzoak hurbil utzi derauzkit joaitean.

Aldaera horren aurretik zein ondoren ez dakar ez non bildua duen ez nori. Bi ahapaldien itzulpena besterik ez dakar. Azkuek, beraz, ez dakar berriemailerik, ez biltze lekurik, ez inolako zehaztasun ez iruzkinik ere. Harrigarria da Azkuek kantu honetan ez jartzea inolako berririk. Azkuek bere kantutegiko kantu gehienetan zehar berriemaile, biltze-data eta kantua bildu den herria jarri ondoren, gehienetan iruzkin bat edo beste eskaintzen dio kantuari. Azkueren itzulpena, gainera, ez da hitzez hitzezkoa. Eman dezagun, kasurako, *beskotari nihaur aski niz etxean* esaldia "me basto a mí misma para servir en casa" da. Modu horretara, *beskotari* hitza "escudero/-a" hitza ez dugu ikusten itzulirik.

Azkueren eskuidatzietan ere agertzen da kantu hau. Eskuidatzietako koadernoko zenbakia 446 dugu, 64. orrialdean. Azkueren koadernoan bi ahapaldi agertu beharrean hiru ikusten ditugu. Hona hemen:

Dama edeŕa gorarik zaude leihoan,
zure senhaŕa aphalik dago Frantzian.
Hura handik jin artinoko denboran
serbütśari har nezazü etśian.

¿Ene senhaŕa aphalik dago Frantzian?
hura handik jin daiteken artian,
beskotari nihaur aski niz etśian
hauzoak hurbil utzi derauzkitan joaitian.

Izan niz Espaiñian eta Frantzian
bai eta ere Anglateŕa orotan;
andere edeŕik ikhusi dizit heietan
zure parerik etzen ene begietan.

Kantaren ondoren zehaztasun hau dakar erdaraz:

> Ch. Bordes publicó dos versiones: una parecida a esta, la otra completamente distinta. Canción erótica de Athaŕatze (S) Bedekaratz J.

Azkuek dioen Bordesen bi ereduak bi doinuri dagozkiola uste dugu. Charles Bordesek testu bakarra jaso zuen, guk dakigunez. Doinua, ostera, bi modutara bildu zuen.

Kantua, beraz, Atharratzen bildua zen J. Bedekaratz berriemailearen ahotik. Harrigarria egiten zaigu *serbütśari* Zuberoako hitza kendu *ogipeko* jartzea bere lekuan. *Ogipeko* hitza Bizkaiko mendebaldekoa dugu. Euskal autore zaharren artean Añibarrok bakarrik erabiltzen du bere *Escu-liburua* eta *Misionari euscalduna* lanetan. Liburu hauetatik, pentsatzekoa denez, Otxandioko eskuidatzira aldatu zen. XX. mende hasieran Azkuek bere hiztegiaren bidez hitz hau hainbat idazle landuren eskuetan jarri zuen. Bizkaiko mendebaldean Añibarrok bilduriko *ogipeko* hitza *zerbütxari* hitzaren lekuan jartzea salagarria dela deritzagu.

Bi hitzek hiru silaba dituzte eta ez dio kantuaren neurriari eragiten. Pentsatzekoa da, bestalde, ez dela ehuneko ehunean Zuberoako euskara islatzen hiru ahapaldiko kantu horretan. Eman dezagun adibide bat: *hauzoak* hitza Zuberoako euskaran *(h)ai–* espero genuen *(h)aizoak/(h)aizuak*. Aditz jokatuari dagokionez, *derauzkitan* bitxi baino bitxiago egiten da. Zuberoako euskaran *–au–* diptongoa zail egiten zaigu ondoren *–r* edo *–s* ez badarama (*kausitu, haur* hitzetan, esaterako). Uste izateko forma *derei–/dei–* da. Baliteke, nola ez, Zuberoako berriemaileak eredu nahasia kantatu izana. Baliteke, era berean, transkribatzaileak ere eredua ongi *e* transkribatzea.

6. *GURE HERRIA* ALDIZKARIKO 1921EKO D EREDUA

1921eko *Gure Herria* aldizkariaren lehen urtea aberatsa izan zen baladetan. Urte horretan agertu ziren *Anderea gorarik, Arima erratuaren kantua*, edo *Brodatzen ari nintzen* baladak. Balada batzuk, ordea, ez ziren osorik atera moztuak edo zentsuratuak baino. Zein *Brodatzen ari nintzen* zein *Anderea gorarik* zentsuratuak agertu ziren. Hona nola agertu zen *Anderea gorarik* 1921eko 4. zenbakian, musikako gehigarrian:

1
“Anderia , gorarik zaude leihoan,
Zure senharra urrun dago Frantzian;
Hura handik itzul daiteken artian,
Eskutari ni har nezazu etchian”.

2
“Ene senharra urrun dea Frantzian?
Hura handik itzul daiteken artian,
Eskutari nihaur aski niz etchian,
Hauzoak hurbil utzi dauzkit juaitian.”

3
“Izan niz Frantzian eta Espainian,
Bai eta ere Angleterra guzian;
Andere ederrik ikusi dut hetan…
Zure parerik ez zen ene begitan.”

4
“Eskutaria, ongi zira mintzatu,
Gaurko ostatu, en’etchian baduzu;
Gambera garbi, ohe churi dukezu;
Deusen eskaz jauna izanen ez duzu.”

5
“Zure senharra da ni baino hobia;
Zazpi urthez hak deraut eman ogia
Zortzigarrenian azpiko zaldia…
Anderia, beira fidelitatia!”

6
“Uri-haize, ura denean uherlo…
Andretto hauk girare oroparlero!
Hitzño hori juan zerautazu lachero
Ene senharra zutan truka ez niro.”
…….
…….
…….

7
“Eskutari jaun bilo urdin falsia,
Hi othe hiz nihauren lehen semia?
Altcha zak altcha ezkerreko begia
Ene semiak handik sor-seinalia.”

8
“Iratzea bethe denian udarez,
Zezena erditzen denian cha[h]alez,
Labea bethetzen denian elhurrez,
Errain dautzut zuria nizan bal al’ez!”

9

"Ur gainian eginen diat zubia
Han ereinen egizko hazi gorria.
Han jin arte ogizko ophil churia,
Ez duk izain amaren barkamendia."

Balada hau lehen kopla edo ahapaldia pentagraman agertzen da. Kantaren ondoren ez dator inolako zehaztasunik. Herri kanta dela adierazten duten X. X. X. direlakoak datoz kantaren ondoren.

7. DASSANCEREN D EREDUA

Atal honetan beste eredu bat transkribatuko dugu. A. Zavalaren baladategiko IX. eredua, hain zuzen ere. D eredu hau, guk geuk Dassanceren funtsean ikusi ahal izan dugunez, orrialde makinatu bat dugu. Eredu hori A. Zavalak berriro transkribatu ondoren zehaztasun hau jartzen du bakarrik:

> Aldaera au L. Dassance jauna zanaren bilduman agertu da, makinaz idatzitako orri batean. Berak nundik eskuratu zuan ez du esaten (ER 325).

Louis Dassancek bere 1963ko artikuluan ez zituen argitara eman eskuartean zituen *Anderea gorarik* baladako aldaera guztiak, baina zituen zenbaiten berri ematen du. Hona guri dagokigun pasartea:

> On y trouverait à coup sur de variantes intéressantes, telles que celles que nous ont fournies des cahiers provenant de Jatxou, de Saint-Pée, des Aldudes, et celui, très precieux, du vieux chanteur de Sainte-Engrâce, Dominique Bordachar, dit Chambra, mort il y a une dizaine d'années (316 or.).

Testigantza honen arabera nongoa ote da Antonio Zavalak dakarren XI. eredua? Galdera honen erantzuna Dassanceren beraren eskuidatzi batek eman digu. 1921eko *Gure Herria*ko eredua oinarri harturik egiten duen lan konparatibo batean ikusi dugunez, Jatsukoa izan behar. Jatsuko aldaerak diren esapideek ematen digute giltza. Jatsuko honek, esaterako, Nehor eta Dufauren laugarren ahapaldiko *ohe churia*, "ohia churi" da. Edo beste adibide bat emateko, Nehor eta Dufauren bederatzaigarren ahapaldiko *zezena erditzen denian chaalez* horren aldaera bezala dakar bere ondoan eskubitara Jatxou *zezen churia*.

Paper hori berori aurkitu eta dagoen-dagoenean jarriko dugu. Behin lehen transkripzioa egin ondoren xehetasun batzuk iruzkinduko ditugu.

1

Anderia gorarik zaude leihoan,
Zure senharra behera dago Frantzian,
Hura handik jinditaken artian,
Eskutari har nezazu etchian.

2

Ene senharra behera bada Frantzian
Auzoak hurbil utzi derauzkit aldian,
Hura handik jinditaken artian?
Eskutari beharrik ez dut etchian!

3

Ibili nuzu Espainian eta Frantzian,
Bai eta ere Angletarre guzian,
Ikhusi dizit andere ederrik heietan,
Zure parerik ez dut ikusi orotan.

4

Jaun gaztia ederki zira mintzatu,
Gure etchian baduzu gaurko ostatu,
Gambera eder ohia churi dukezu,
Gero heiekin ni ere plazer baduzu.

5

Emaztiak nola baitira lazero,
Arrazoin bat eskapatu zaut parlero,
Gogoetak egin izan ditut gero,
Neure senharra zutan truka ez nio.

6

Anderia, iragan zauzu dembora,
Hitzeman duzu ohia eta gambera,
Gero heiekin zure gorphutz ederra,
Zure hitza ez zazula desterra.

7

Eginen diot uraren gainian zubia,
Han ereinen ogi hazi gorria,
Han jin artian ogi ophil churia,
Ez duk izanen amaren barkhamenduia.

8

Elhorri beltza estaltzen denian arrosez
Sagar ondua bethetzen denian zitroinez
Zezen churia erditzen deinan chaalez
Jakinen duzu zuria naizen bai al'ez.



ABA ETA SEMIA

1

Anderia gorarik zaude leihoan,
Zure senharra behera dago Frantzian,
Hura handik jinditaken artian,
Eskutari har nezazu etchian.

2

Ene senharra behera bada Frantzian
Auzoak hurbil utzi derauzkit aldian,
Hura handik jinditak artian ?
Eskutari beharrik ez dut etchian !

3

Ibili nuzu Espainian eta Frantzian,
Bai eta ere Angletarre gusian,
Ikhusi dizit andere ederrik heietan,
Zure parerik ez dut ikusi orotan.

4

Jaun gaztia ederki zira mintzatu,
Gure etchean baduzu gaurko ostatu,
Gambera eder ohia churi dukezu,
Gero heiekin ni ere plazer baduzu.

5

Emaztiak nola baitira lazero,
Arrazoin bat eskapatu zaut parlero,
Gogoetak egin izan ditut gero,
Neure senharra zutan truka ez nio.

6

Anderia, iragan zauzu dembora,
Hitzeman duzu ohia eta gambera,
Gero heiekin zure gorphutz ederra,
Zure hitza ez zazula desterra.

7

Eginen diot uraren gainian zubia,
Han ereinen ogi hazi gorria,
Han jin artian ogi ophil churia,
Ez duk izanen amaren barkhamenduia.

8

Elhorri beltza estaltzen denian arrosez
Sagar ondua bethetzen denian zitroinez
Zezen churia erditzen denian chaalez
Jakinen duzu zuria naizen bai al'ez.

FONDS DARANCE – E DEPOT BAYONNE art. 2
CG 64 – PAB

Anderea gorarik balada. Dassanceren eredua.

Jatorrizko folio makinatuan dagoen bezala transkribatu dugu hemen. Jatorrizko orrian ahapaldiak zenbakiturik daude eta oraingo gure atal honetan ere bai. Dassanceren ereduan ahapaldi bakoitzaren lerroa letra larriz hasiko da. A. Zavalak bere ortografia sistema erantsiko dio Dassanceren testuari. Antonio Zavalaren *–nh–, –kh–, –th–, –ph–* direlakoak bakundu edo aspiraziorik gabeko moldera ekartzen ditu. Guk lehen ahapaldian *senharra* jarri dugu, Zavalak *senarra*. *Jin ditaken* aditz forma batera dakartza Dassancek, A. Zavalak bi ahapalditan. bitan jarriko du. *Etchian*, *chaalez* dakartza Dassancek, Zavalak *etxian*, *xahalez*. Era berean, *churia* dator jatorrizkoan, A. Zavalak *xuria* egingo du. A. Zavalaren aldaketa gehienak ondo eginak daude, dudarik gabe, baina guztiak ez. Uste dugu jatorrizko testuko *senharra*, *gorphutz*, *ophil*, *barkhamenduia*, *elhorri*, *bethetzen* horrelaxe transkribatu behar direla eta ez, A. Zavalak egiten duen bezala, *senarra*, *gorputz*, *opil*, *barkamenduia*, *elorri*, *betetzen*.

Esan gabe doa kontu hau guztia irizpide kontua dela, eta ez inola ere zenbaitek *h* zorionekoari dion gorrotoa. A. Zavalak ez du *leihoan, behera, har nezazu, hura, handik, beharrik, heietan, hitzeman, han, hitza, heiekin* transkribatzeko errukirik. Jatorrizkoan ez dagoen *–h–* bat ere eransten dio, hala baderitza. Jatorrizko testuko *chaalez* delakoa *xahalez* jartzen du. Guk geure lehen transkripzioan *chaalez* jarriko dugu, eta bigarrenean *xa[h]alez*. Erizpide kontu batek eta jatorrizko transkripzioaren errepetuz, beraz, egin dugu puntu hau.

8. DASSANCEREN D EREDUA GAURKO ORTOGRAFIAN

Aurreko puntuan jarri dugun eredua Dassanceren lehen dokumentu baten transkripzioa zen. Puntu honetan gaurko ortografiara ekarriko dugu.

1
–Anderia, gorarik zaude leihoan,
zure senharra behera dago Frantzian,
hura handik jinditaken artian,
eskutari har nezazu etchian.

2
Ene senharra behera bada Frantzian
Auzoak hurbil utzi derauzkit aldian,
Hura handik jinditaken artian?
Eskutari beharrik ez dut etchian!

3
Ibili nuzu Espainian eta Frantzian,
Bai eta ere Angletarre guzian,
Ikhusi dizit andere ederrik heietan,
Zure parerik ez dut ikusi orotan.

4
Jaun gaztia ederki zira mintzatu,
Gure etchian baduzu gaurko ostatu,
Gambera eder ohia churi dukezu,
Gero heiekin ni ere plazer baduzu.

5
Emaztiak nola baitira lazero,
Arrazoin bat eskapatu zaut parlero,
Gogoetak egin izan ditut gero,
Neure senharra zutan truka ez nio.

6
Anderia, iragan zauzu dembora,
Hitzeman duzu ohia eta gambera,
Gero heiekin zure gorphutz ederra,
Zure hitza ez zazula desterra.

7
Eginen diot uraren gainian zubia,
Han ereinen ogi hazi gorria,
Han jin artian ogi ophil churia,
Ez duk izanen amaren barkhamenduia.

8
Elhorri beltza estaltzen denian arrosez
Sagar ondua bethetzen denian zitroinez
Zezen churia erditzen deinan chaalez
Jakinen duzu zuria naizen bai al'ez.

9. *ANDEREA GORARIK* BALADA: DASSANCEREN E EREDUA

Eredu hau makinaz idatzia dago. Eredu hau, guk dakigula, argitaragabea da. Gainerako eredu askoren oso antzerakoa bada ere, ez da guztiz berdina. Eredu honen gaineko berririk ez dugu. Ez dakigu nongoa den. Dassancek bere artikuluan aipatzen dituen zein kaieretakoa ote da?

1
"Anderia, gorarik zaude leihoan,
Zure senharra behera dago Frantzian;
Hura handik jin daiteken artean
Eskutari nahi nuzia etchean?"

2
"Ene senharra urrun dea Frantzian?
Hura handik jin daiteken artean,
Eskutari nihaur aski niz etchean,
Hauzoak hurbil utzi derauzkit juaitean."

3
"Izan niz Espainian eta Frantzian,
Bai eta ere Engeleterra guzian,
Andre ederrik ikusi dut orotan…
Zure parerik ez zen ene begietan."

4
"Eskutaria, ongi zirare mintzatu,
Gaurko ostatu, ene etchian baduzu:
Ohe churi, ganbera garbi dukezu;
Deusen eskas, Jauna, izanen ez duzu."

5
"Zure senharra ni baino gizon hobea
zazpi urthez hark deraut eman ogia,
Zortzigarrenean, bere peko zaldia…
Anderia, beira fidelitatia!"

6
"Uri-haize, ura denean uherlo
Andretto hauk oro girare parlero,
Hitzño hori juan zerautazu lachero…
Ene senharra zutan truka ez niro!"

7
"Eskutari jaun bilho urdin faltsia,
Hi othe haiz nihauren lehen semia?
Altcha zadak ezkerreko begia,
Ene semiak han dik sor-seinalia"

8
"Iratzea bethetzen denean udarez
Zezen churia erdi denean chahalez,
Labea bethetzen denean elhurrez,
Errain dautzut zure semia nizan al'ez."

9

“Ur gainean eginen diat zubia,
Han ereinen ogizko hazi gorria.
Han jin arte ogizko ophil churia,
Ez duk izain amaren barkamendia!”



ANDERIA GORARIK ZAUDE LEIHOAN

I- "Anderia,gorarik zaude leihoan,
Zure senharra behera dago Frantzian;
Hura handik jin daiteken artean
Eskutari nahi nuzia etchean?"

2- "Ene senharra urrun dea Frantzian ?
Hura handik jin daiteken artean,
Eskutari nihaur aski niz etchean,
Hauzoak hurbil utzi derauzkit juaitean."

3- "Izan niz Espainian eta Frantzian,
Bai eta ere Engeleterra guzian,
Andre ederrik ikusi dut orotan...
Zure parerik ez zen ene begietan."

4- "Eskutaria,ongi zirare mintzatu,
Gaurko ostatu,ene etchian baduzu;
Ohe churi,gambera gerbi dukezu;
Deusen eskas,Jauna,izanen ez duzu."

5- "Zure senharra ni baino gizon hobea
Zazpi urthez hark deraut eman ogia,
Zortzigarrenean,bere peko zaldia...
Anderia,beira fidelitatia!"

6- "Uri-haize,ura denean ~~ubarrbo~~-uherlo
Andretto hauk oro girare parlero,
Hitzlo hori juan zerautazu lachero...
Ene senharra zutan truka ez niro!"

7- "Eskutari jaun bilho urdin faltsia,
Hi othe haiz nihauren lehen semia ?
Altcha zadak ezkerreko begia,
Ene semiak han dik sor-seinalia."

8- "Iratzea bethetzen denean udarez
Zezen churia erdi denean chahalez,
Labea bethetzen denean elhurrez,
Errain dautzut zure semia nizan al'ez."

9- "Ur gainean eginen diat zubia,
Han ereinen ogizko hazi gorria.
Han jin arte ogizko ophil churia,
Ez duk izain amaren barkamendia!"

Anderea gorarik balada, Dassanceren E eredua.

10. *ANDEREA GORARIK* BALADAREN SENPEREKO F EREDUA

Antonio Zavalak bere baladategian, 228. or., XI. eredua jarri ondoren zehaztasun hauek ematen ditu:

L. Dassance zanaren bilduman arkitu degu aldaera au, eskuz idatzita eta saiets batean oar au duala: “Version de St. Pée”.

Aldaera berdin- berdiña agertu da Jose Migel Barandiaran apaiz jauna zanaren bilduman.

Eta halaxe da izan, baina eman ditzagun zehaztasun gehiago. *Version de St. Pée* delako zehaztasunak Senpereko aldaera dela esan nahi du. Marcel Arribillaga senperetarraren kaierekoa. Kaier horretako 107. kantuaren izenburua *Eskutaria* da eta izenburu horren pean gure *Anderea gorarik* baladaren transkripzio argia datza. Kaier hau Piarres Lafitterena zenez gero, Piarres Lafitteren funtsean aurkitzen da, Euskaltzaindiko Azkue bibliotekan, 014 signatura duela, eta gaurko katalogazioaren arabera, 265. zenbakia dauka kantak. Dassancek Piarres Lafitteri eskatuko ote zion kantuaren kopia edo berak kopiatuko ote zuen? Eskuizkribuaren kopia bat dugunez gero, argi baino argiago dago ez dela Dassanceren eskuletra Lafitterena baino. Lafitten transkripzioa guztiz fidela da, inolako aldaketarik gabekoa. Marcel Arribillareren kaierean agertzen diren huts berberak ere berdin-berdin transkribatzen ditu Lafittek.
Hona hemen jatorrian zein Dassanceren paperetako Lafiteren transkripzioan aurkitzen den bezalaxe:

1
Anderia gorarik zaude leihoan
Zure senharra behera dago frantzian
Hura handik jin daiteken artian
Eskutari har nezazu etchian

2
Neure senharra behera bada frantzian
Hauzoak hurbil utzi dauzkit etchian
Hauzoak hurbil utzi dauzkit etchian
Eskutari beharrik ez dut etchian

3
Izatu nauzu españan eta frantzian
Bai eta ere angeletarre guzian
Andre ederrik ikhusi derait heietan
Zure parerik etzen neure begietan

4
Eskutaria ederki zira mintzatu
Gaurko ostatu neure etchean baduzu
Gambera berri ohea churi dukezu
Gero ni ere aldean plazer baduzu

5
Zure senharra ni bainon gizon hobea
Zazpi urthez fornitu deraut ogia
Zortzigarrenian bere azpiko zaldia
Anderia beira fidelitatia

6
Oi jaun gazte chapeldun bilo horia
Altcha zak altcha ezkerreko begia
Altcha zak altcha ezkerreko begia
Heian hi haizen neure lehen semia

7
Iratzeñua bethetzen denian udarez
Zezen churia erditzen denian chahalez
Zezen churia erditzen denian chahalez
Erranen dautzut zuria naitzen bai ala ez

8
Uraren gainean eginen diat zubia
Han erainen ogi hazi gorria
Han jin artian ogi ophil churia
Ez duk izanen amaren barkamendua




88

2

Nure senharra behera bada frantzian
Hauzoak hurbil ützi dauzkit dakian
Hauzoak hurbil ützi dauzkit etchian
Eskutari beharrik ezdiat etchian

3

Ützatu nauzu españan eta frantzian
Bai eta bre angeletarre guzian
Nondre ederrik ikhusi dehaiz heietan
Ez zure pareric etzen neure begietan

4

Eskutaria ederki zera muntzatu
Gaurko astatu neure etchean baduzu
Gambera berri onea churi dukezu
Gero nu ere aldean plazer bduzu

5

Zure senharra nu bainon ogenhobea
Zazpi urthez formatu deraut ogia
Zelzoparrehan bere azpiko zaldia
Erdarra beira fidelitatia

6

Oi jaun gazte chapeldun bdo horia
Altcha zak altcha ezkerreko begia
Altcha zak altcha ezkerreko begia
Heian hi hauzen neure lehen semia

7

Iratzeñua bethetzen denan udarez
Zezen churia erditzen deman chabalez
Zezen churia erditzen deman chabalez
Eranen daudzut zuria nautzen bai ala ez

8

Ubraren gainean eginen diat zubia
Han elamen ogi hazi gorria
Han jun artuan ogi apichi churia

Anderea gorarik baladaren Senpereko eredua.

Interesgarria da, goraxeago esan dugun bezalaxe, ez duela Lafittek ezer aldatzen. Jatorrizko Marcel Arribillagaren kaierean ez badago inolako puntuaziorik, berdin-berdin transkribatzen du Lafittek. Eman dezagun, kasurako, adibide zenbait. Jatorrizko eskuidatzian *frantzian*, *españan* eta *angeletarre* hitzak agertzen badira, berdin traskribatzen ditu Lafittek. Ez du, esaterako, zazpigarren ahapaldiko *naitzen* adizkia *naizen* batera ekartzen. Aldaketatxo hori egiteko arrazoia bazuen, *haizen* lehenago ere ondo baitador transkribatua.

Dassancek ez zuen eredu hau argitaratu bere 1963ko artikuluan ez beste inongo artikulutan, guk dakigula. Antonio Zavalak argitara ematen duenean berak egin ohi duen bezala egiten du. Ez du onartzen *senharra*, *ophila, bethetzen* hitzen grafia, *senarra*, *opila* eta *betetzen* baizik. Zuzen jokatzen du, bestalde, gainerako transkripzioetan *churia*, *chahalez*, *altcha* hitzak, kriterio sendoz, *xuria*, *xahalez*, *altxa* transkribatzen dituenean.

Antonio Zavalak *Aldaera berdin-berdiña agertu da Jose Migel Barandiaran apaiz jauna zanaren bilduman* dioenean, alde batera arrazoi du eta bestera ez. Barandiaranen bilduma Ataungo jakintsuak Sarako Gaztainalde baserrian kaier bat kopiatu eta *Anuario de Eusko-Folklore* aldizkarian argitaratu zuena da (Barandiaran:1981). Sarako kaiera, ostera, Senperekoaren kopia bat dugu, inolako dudarik gabe. Kopia bat, baina ez kopia osoa Sarako kaierean kantu gutxiago baitaude. Eta zergatik diogu kopia bat dela?

Kantuak hitzez hitz berdinak direlako, eta froga argigarriagoa dena, kantuen ordena ere berbera delako. *Eskutaria* kantuaren ondoren, esaterako, *Gerlako kantuak* dator eta hurrengo kantua *Dugun edan eta* izango da. Ordena hori ematen da Senperekoan eta ordena bera jarraitzen dio Sarakoak. Senperekoaren kopia denez gero Sarakoa, normala da huts gehiago aurkitzea Sarakoan. Sarako kaieraren kopia bat denez gero, *Anuario de Eusko Folklore* aldizkariko transkripzioan huts gehiago aurkitzen ditugu. Eman dezagun adibidetzat huts edo oker zenbait dituen azken Barandiaranen kopiako azken ahapaldia:

Uraren gainean eginen diat zubia
Han errainen ogi gazi gorria
Han jin artian ophil churia
Ez dute izanen amaren barkhamendua.

Ahapaldi honetan badira hainbat huts. Aipa ditzagun zenbait Barandiaranen *errainen* delakoa *erainen* ikusten da jatorrizko Senpereko ereduan. Barandiaranen *ogi gazi gorria* bitxia ez da erabat ulergarria. Senperekoan *ogi hazi gorria* dator. Era horretara, ongi ulertzen da kantuak esan nahi duena. "Ereingo duena ogi hazi gorria" izango da, jakina denez "hazia ereiten" delako. Senpereko eskuidatziko *Ez duk izanen amaren barkamendua* gaizki ulertzen da *Ez dute izanen amaren barkharmendua* horretan. Kontuak honetara, nork egin ditu transkripzio hutsak? Sarako kaier eskuidatzia egin zuenak edo "Amodiozko kantak" artikuluaren egileak edo beste zenbait silutegiko hutsak ote dira?

11. *ANDEREA GORARIK* JATSUKO G EREDUA

Henri Perceval Jatsu Munjogainekoaren eredua transkribatuko dugu puntu honetan. Eredu hau ez dugu beste inon aurkitu. Eredu honek, jakina, ez du berritasun handirik baina dituentxoak ere –balada aldaera gehienetan bezalaxe– interesgarriak dira. Eredu hau eskaintzeko Parceval jatsuarraren kaieretik egingo dugu. Kaier edo eskuidatzian zabar samar idatzia dago, baina hala ere ez du transkripzio-arazorik sortzen. Falta du, esaterako, inesibo markaren bat (*artia, denia*), hitz bera modu bitara idatzia dago (*frantzian*, *frantian*), eta abar.

1
Anderia goraric saude leuan
Suré senara béhera dago frantzian
hura handic jenditacé jen artia
Escotaris har nesasu etchian

2

Ene senara behera dago frantzian
hausuac onac utziseraisten juatian
hausuac onac utzi seraisten juatian
Escotari beharic esdut echian

3

Isanusu frantian étata espainian
bait éta éré engéléteré gusian
Andria frango basen hoyetan dénétan
suré pareric etzen en begietan

4

Escotaria baducésu bai austatu
ganbéra beri ohia churi ducesu
ganbéra beri ohia churi ducesu
Eta anderia aldian isanen dusu

5

Esceric asco oy etceco anderia
Suré senara ni baino gison hobia
Saspi urtés harec[4] eman daute ogia
Sortzi garenian béré aspico saldia

6

Estaris begi urdin tzar faltzua
hi oté hays éné léhén semia
Egin artian subi aspian ogia
Esduc isanen amaren barcamendua

7

Sagardia betétzedenia udarez
sésén churia erditzen denian chabalés
Sesen churia erditzen denian chabales
Eranén deraitzute sure semia naisen alez

[4] Hitz hau baino lehen *o* jarri du eta gero ezabatu.

9

Honberetze urté bisi isan gura bracelgares agrados
bai eta fete kuchtatu artam eyacinez geros
Jomodena soan handia den denis es dautacé éros
bori déla medio gura beac besco malusus

1

Andena goraric saude leuan
Zuré senara béhera dago frantzian
hura handic jendetacé gen artia
Escotaras has nesasu etchean

2

Ene senara behera dago frantzian
hausnac onac utziserausten guatian
hausnac onac utzi serausten guatian
Escotare beharic esdut echian

3

Izanusu frantian étata espainian
baut éta éré engéléterré gusian
Andena pango basen hoyetan kénitan
Suré pareric etzen en begietan



Anderea gorarik balada. Jatsuko eredua.

Zazpi ahapaldiko eredu honek baditu huts nabarmenak. Eskuidatzian, esaterako, *chabales* irakurtzen dugu, baina *chahales/–z* izan beharko luke. Zergatik ote da lapurteran *aretze/aretxe* delako jatorrizko hitza? *Ezkutari* hitza bezala desitxuratu egin ote da ezagutzen ez delako?

12. JATSUKO EREDUA GAURKO ORTOGRAFIAN

Eredu honek, berritasun handirik ez badu ere, merezi du gaurko ortografiara aldatzea. *Eskutari/ezkutari* hitzak ezezaguna eta arraroa izan behar zuen balada-transkribatzailearentzat apurren bat desitxuratua dagoelako: *eskotari*, *estaris*… Baina kontu hau beste balada gai beraren beste eredu askotakoa dugu. Dardarkariak bigunduak agertzen dira, batez ere Zuberoako testuetan ikusten dugun problema bera dugu.

1
–Anderia, gorarik zaude le[i]uan,
zure senar[r]a behera dago Frantzian.
hura handik jin ditakeien artia[n]
ezkutari har nezazu etxian.

2
–Ene senar[r]a behera dago Frantzian,
hauzuak onak utzi zeraizten juatian,
hauzuak onak utzi zeraizten juatian
ezkutari behar[r]ik ez dut etxian.

3
–Izan nuzu Frantzian eta Espainian,
bai eta ere Engeleter[r]e guzian.
Andria frango bazen hoietan denetan,
zure parerik etzen en[e] begietan.

4
–Ezkutaria, badukezu bai ostatu,
ganbera ber[r]i, ohia xuri dukezu,
ganbera ber[r]i, ohia xuri dukezu
eta anderia aldian izanen duzu.

5
–Esker[r]ik asko, oi etxeko anderia,
zure senar[r]a ni baino gizon hobia.
Zazpi urtez harek eman daut ogia
zortzigar[r]enian bere azpiko zaldia.

6
–Ezkutari begi urdin tzar faltzua,
hi ote haiz ene lehen semia?
Egin artian zubi azpian ogia,
ez duk izanen amaren barkamendua.

7
–Sagardia betetzen denia[n] udarez,
zezen xuria erditzen denian xahalez,
zezen xuria erditzen denian xahalez,
er[r]anen deraitzut zure semia naizen al[a] ez.

Atal honetan hainbat arazo sortzen zaizkigu gaurkotze kontu honetan. Nola transkribatu behar dugu *eskutari/-z* edo *eskotari/-z*, *jen* edo *jin*, eta abar. Horrexegatik dugu interesgarria betiere eskuizkribuaren transkripzio zuzena egitea.

Gainerako ereduen ikusian ezer berririk aipatzekotan, gehienetan *ezkutari bilo urdin faltsua* ikusten dugu. Hemengo honetan eskainiko dugun Zuberoako ereduan bezalaxe *begi urdin* agertzen da ondoren *tzar* duela. *Sagardi* hitza ere ez dugu uste inongo aldaeratan agertzen denik.

14. *ANDEREA GORARIK* BALADA: SANTA GRAZIKO H EREDUA

Dominique Bordachar *Chambra* kantariaren eredua ere badator Antonio Zavalaren lanean. Eredu hau berau Louis Dassancek argitara zuen "Chronique de la Chanson basque Anderea gorarik" *Gure Herria* aldizkariko 1963. urteko lanean. Louis Dassanceren transkripzioak, nahikoa fidela den arren, badu huts bat edo beste. Atal honetan transkripzio fidela eskainiko dugu, eskuizkribuan datorren bezalaxe. Eskuizkribuko izenburua ez da kasurik gehienetako *Anderea gorarik,* beste harriagarriago bat baizik: *Amaren eta semiarenac*. Hona, beraz, eskuizkribuan datorren bezalaxe:

1
Anderia Gorariq saude leyhouan
Çoure senhara aphaliq dago francian
Houra hanty jin artinoko denboran
Çerbutchari har banensasu Etchian

2
Ene senhara içana gati Françian
Çerbutchary behariq eztit Etchian
Bera hanty yin artinoko denboran
Aisouaq houniq uxy distasut khantia

3
Yçan nuçu francian eta Espagnan
bai eta ere anglatira herian
Andere ederiq Ikhousi diçut bay niq han
bena madama Çoure pareriq esen han

4
Jean Gastia Goraty Çira minxatu
Francia ezpagña Anglatiera ayphatu
Gaour Gore etchian harsen baduçu ostatu
Ohia churi khanbera Garbi dukeçu
Eta ni ere nonbait han ganti nukeçu

5
Anderia exitiala Othoy flata
Çoure senhara ni beno Gison hobiada
Caspi ourthez jan dit hareky ogia
Leyalitatez begiresosu Fedia

6
Oy yean gaste eyrera falsia
Tchapelian duçu Urhecurcuru hollia
Leyalky minsasez eran esadasut Egia
Çu çirenes ene lehen Semia

7

Houren Gagñen egisu lastos Subia
Hartan erein ogiaren Lilia
Hartariq egin ogi ophil moflia
Houra jan ondouan jakinen duçu Egia



Amarén Eta Semiarenaz

1

Anderia Gorarig Jaundo beghiean
Çoure senharra aphalig dago Françian
Houra hanty Jin artino Bo denboran
Çerbutchari har banensasu Etchian

2

Ene senhara icana Gati Françian
Cerbutchary bé harig eztit Etchian
Béra hanty Jin artino Bo denboran
Aisonag hounig urrij distasut Phantian

3

Jean nuen Françian eta Espagnan
bai eta ere anglatira herian
Andere Dorig Jaunsi dieut bayonag han
bene-madama Coure parerig esenhan

4

Jean Gastia Gorarty çira Minxatu
Françia ezpaña Anglatierra ayphatu
Gaxua Gore etchian haxen badiau ostatu
Chia Churi Phantera Garbi dukeen
Eta ni ere nonbait hanganduxukeen

5

Anderia exitiala Othoy Plata
Çoure senhara ni beno Gixon hobiada
Caspi ourthez Jandik hanetty ogia
Leyalitatez begueso su Pedia



Anderea gorarik balada. Chambraren eredua.

15. SANTA ENGRAZIKO EREDUA AHAPALDIZ AHAPALDI

Santa Grazikoa eredurik aberatsenetako bat denez gero, ahapaldiz ahapaldi iruzkinduko dugu.

1

Anderia Gorariq saude leyhouan
Çoure senhara aphaliq dago francian
Houra hanty jin artinoko denboran
Çerbutchari har banensasu Etchian

Lehen ahapaldi honetan ez dago transkripzio arazorik. Bestetan agertzen ez den forma adberbiala ikusten dugu ahapaldi honetan: *gorarik* horren oposizioan *aphalik*. Adberbio hau Ligiko Bordda kaiereko ereduan ere aurkituko dugu. Interesgarria da Lezarte eta Ligiko Bordda kaierean ere *hura hantik jin artinoko denboran* esaldia berdin-berdin ematen dela.

Estilistikoki balio handikoa da. Zuberoako eredu guztietan agintera ikusten dugu *har nezazü* Lezarten kaierean, *har nezazü* Ligiko Bordda kaierean. Gure lehen ahapaldi honetan aginterarik ez da agertzen, desira baino. Desira adierazteko baldintza baten bidez burutzen da. *Edin* aditz laguntzailarekin *har banenzazü* esapidean.

Kezkabideetako bat dugu nola transkribatu behar den *Frantzian* edo *Franzian*, hots, ia afrikatua edo frikatiboa den. Dassancek lehen ahapaldian eta hirugarrenean *Frantzian* transkribatzen du, baina bigarren ahapaldian *Franzian.*

2

Ene senhara içana gati Françian
Çerbutchary behariq eztit Etchian
Bera hanty yin artinoko denboran
Aisouaq houniq uxy distasut khantian

Ez du transkripzio arazorik. Azken lerroko *aizuak hunik ützi diztazüt khantian* delakoak “auzoak

on(ik) utzi dizkit aldean" adierazi nahi du. Gainerako Ziberoako ereduetan ez da aipatzen auzoak edo aizo onak utzi dizkiola ondoan. Auzoen aipamena Lapurdiko eta Baxenafarroako ereduetan ikusten dugu.

3

Yçan nuçu francian eta Espagnan
bai eta ere anglatira herian
Andere ederiq Ikhousi diçut bay niq han
bena madama Çoure pareriq esen han

Jatorrizko eskuizkribuan *anglatira* agertzen da, hurrengo ahapaldian, ostera, *Anglatiera*. Dassancek ahapaldi honetan *Anglaterra* transkribatzen du eta hurrengoan *Anglatierra*. Harrigarria da *Anglatierra herrian*, "herri" hitzaren zentzu zaharrean agertzea. Lazarteren ereduan *Angletteraco lurrian* ikusten dugu eta Ligiko Bordda kaierean *Anglateriako partean*. Zuberoako aldaera honek ditu arkaismorik interesgarrienak, dudarik gabe.

Zuberoako hiru ereduetan, Ligiko Bordda ereduan, Lezarteren ereduan, eta Chanbrakoan hiruretan *madama* deikia ikusten dugu. Esaldi bera ikusten dugu: *bena, madama, zure parerik etzen han*.

4

Jean Gastia Goraty Çira minxatu
Francia ezpagña Anglatiera ayphatu
Gaour Gore etchian harsen baduçu ostatu
Ohia churi khanbera Garbi dukeçu
Eta ni ere nonbait han ganti nukeçu

Ahapaldi honetan izan dugu transkripzio arazorik handiena. Nola dator *Gore* edo *Gure* jatorrizko eskuizkribuan? Dassancek *Gure* irakurtzen du, guk, ordea, *gore* ikusten dugu. Beste alde batetik argi dago *nonbait* eta *ganti* agertzen direla jatorrizkoan eta ez Dasssancek irakurtzen duen *nunbeit* eta *gainti*.

Ahapaldi honetan *gorati* adberbioa ikusten dugu. Lezarteren ereduan eta Ligikoan ere berdin aurkitzen da: *gorati(k).* Interesgarria da balada berean *gorarik/gorati* bikotea aurkitzea.

5

Anderia exitiala Othoy flata
Çoure senhara ni beno Gison hobiada
Caspi ourthez jan dit hareky ogia
Leyalitatez begiresosu Fedia

Ahapaldi honetan bestetan aurkitzen ez diren esapidea aurkitzen dugu. *Anderia, etzitiala, othoi, flata!* ez dugu bestetan aurkitzen. Azken esaldia, ordea, Zuberoako ereduetan ikusten dugu. Ligiko Bordda kaiereko aldaeran *etxkizazü hari bethi fedia* dator eta Lezarterenean *posible bada etxekozü konfidantxa*.

Transkripzio aldetik *leialitatez* jarri dugu, nahiz eta eskuidatzian –l– marra batez ezabatu. Jatorrizko *begiresosu* aditza nola jarri behar da *begira ezozü* edo *begirezozü* edo *begir'ezozü*?

6

Oy yean gaste eyrera falsia
Tchapelian duçu Urhecurcuru hollia
Leyalky minsasez eran esadasut Egia
Çu çirenes ene lehen Semia

Edertasun handiko ahapaldia dugu. Ez dugu bestetan aurkitu ahapaldi honetako urrezko kurkuru seinalerik. Amak semea ezagutzen du ez begiondoan edo gorputzeko beste nonbaiten duen orbanagatik,

ez etxeko zigilua den txapeleko urrezko zirkuruan. Zuberoako amodiozko kantuetan *txapel* eta *bunet* hitzak desberdintzen dira. Are gehiago zenbait kantutan *txapel/bunet* oposizioa ematen da. *Txapeldun/bonetdun* hitzek estatus diferenteak adierazten dute.

Txapelduna aberatsa izan ohi da; bonetduna, ordea, pobrea. Gure ahapaldi honetako burukoa txapela da, buruko dotorea, beraz, eta, urrezko zirkulu edo kurkuru bat du txapel horrek. Urrezko zirkulua duenez gero, gorria edo horia izan behar, nahitaez.

Ahapaldi honetan transkripzio arazo bat izan dugu. Nola transkribitu behar da lehen bertso-lerroko *eyre–* hori *eyrera* edo *eyrer*? Lehen transkripzio honetako adjektibo hori *eijer* edo *eijerra* eman behar ote litzateke? Dassancek *eijer* ematen du.

7

Houren Gagñen egisu lastos Subia
Hartan erein ogiaren Lilia
Hartariq egin ogi ophil moflia
Houra jan ondouan jakinen duçu Egia

Uste dugu *imposibilia* honetako *huren* delakoak plurala adierazten duela. Halaxe agertzen da Zuberoako gainerako bi ereduetan ere Lezarteren kaierean eta Ligiko Bordda kaierean ere: *huren gañen egin ezazüe zübia* Lezarterenean eta *Huren gañen egizü lastoz zübia* Ligiko Borddan.

Gainerako eredu gehienetan singularrean agertzen da. “Ophil moflia”, opil apatza edo fota dugu.

16. SANTA GRAZIKO EREDUA GAURKO ORTOGRAFIAN

Lehen transkripzioan hartu ditugun erabakien bidez testua finkatu dugu. Puntu honetan gaurko ortografiara ekarriko dugu testua.

1

–Anderia gorarik zaude leihuan,
zure senhar[r]a aphalik dago Frantzian.
Hura hanti jin artinoko denboran,
zerbütxari har banenzazü etxian…

2

–Ene senhar[r]a izanagati Frantzian,
zerbütxari behar[r]ik eztit etxian;
bera hanti jin artinoko denboran,
aizuak hunik ützi diztazüt khantian.

3

–Izan nüzü Frantzian eta Españan,
bai eta ere Anglati[e]ra her[r]ian.
Andere eder[r]ik ikhusi dizüt bai nik han,
bena, Madama, zure parerik etzen han.

4

–Jaun gaztia, gorati zira mintzatü,
Frantzia, España, Anglatier[r]a aiphatü.
Gaur gore etxian hartzen badüzü ostatü,
ohia xuri, khanbera garbi dükezü.
eta ni ere nonbait han ga[i]nti nükezü.

5

–Anderia, etzitiala, othoi, flata!
zure senhar[r]a ni beno gizon hobia da;
zazpi urthez jan dit hareki ogia,
leialitatez begirezozü fedia.

6

–Oi jaun gazte, ejer, faltsia!
txapelian düzü ürhe-kürkürü hollia.
Leialki mintzatzez er[r]an ezadazüt egia,
zü zirenez ene lehen semia?

7

–Huren gañen egizü lastoz zübia,
hartan erein ogiaren lilia.
Hartarik egin ogi ophil moflia,
hura jan onduan jakinen düzü egia.

17. LEZARTE KAIEREKO I EREDUA

Zuberoako aldaera honek baditu Zuberoako beste aldaerekin kidetasun nabarmenak, baina baditu beste aldaeratan agertzen ez diren berritasunak ere. Chambra kaierean, esaterako, *ogi mufle* agertzen da, hemen ere berdin ikusten dugu. Aldaera honek berritasun nabarmenak eta iruzkingarriak ditu, inolako dudarik gabe. Beste inongo aldaeratan ikusi ez duguna lehen ahapaldiarekin paralelismo zoragarria osatzen duen *Jaun gaztea gorarik zira zaldian* dugu. Hirugarren-laugarren ahapaldietan andereari *madama* hitz harrigarria zuzentzen dio. Hitz hau ez dugu beste aldaeratan aurkitu.

Berritasun nabarmen bat zenbakien erabilera baladatarra ere badugu. Ezagutzen ditugun eredu guztietan *zazpi urtez* ibili da semea aitaren zerbitzari eta *zortzigarrenean* eman dio aitak bere azpiko zaldia. Aldaera honetan, ordea, *hamazortzi* urtez izan da aitaren zerbitzaria eta *hemeretzügarrenean* eman dio bere azpiko zaldia. Zuberoako euskaran gainerako ereduetan *behera* dena *aphalik* dugu. Berritasun gehiago ere eman litezke, baina hona beste gabe eredu argitaragabea:

Anderia

1er couplet
Anderia goraric sira leihouan
Soure senhara aphalic Frantsian
Houra hantic jin artinoco demboran
Serbuchari har néssassu etchian.

2eme couplet
jaoun gastia goraric sira saldian
Ené senhara behera doua Frantsian
Houra hantic jin artinoco demboran
Serbutchari mentsik estit etchian.

3eme couplet
Issan nussu Frantsian eta Espagnan
Bai eta ere Angletteraco lurrian
Andé charmantic ikhousi dit hayetan
Bena Madama souré pareric étsén han.

4eme couplet

5 couplet
Madama soure senhara guisson ounésta da
Possible bada etchec ossu confidantcha
Hama sortsi ourthés eman ditassut oguia
Hémerétsu guerrenian beraren péco saldia.

6eme couplet
Jaoun gaste begui ourdin faltsia
Es othe hissa éné lehen semia
Ousté banu hori éguia déla
Ehuke hébén hanitch demboran bisia

7eme couplet
Houren gagnen eguin essassue subia
Hartan gagnen erein ogui bihia
Hartaric eguin ogui chouri mouflia
Haren jatian erranen deizut eguia.


Anderia
1er coupler
Anderia gorarie sira leihouan
Soure senhara aphalic dago Frantsian
Houra hantic jin artinoco demboran
Serbutchari har nessassu etchian.
2eme coupler
Jaoun gastia gorarie sira saldian
Éné senhara behera doua Frantsian
Houra hantic jin artinoco demboran
Serbutchari mentsic estit etchian.
3eme coupler
Issan nussu Frantsian éta Espagnan
Bai eta éré Angletterarco lurrian
Andeï charmantic ikhousi dit hayetan
Bena Madama souré harerie étsén han.
4eme coupler



5 eme couplet
Madama soure senhara quisson ounesta da
Possible bada etchec ossu confidantoba
Haima sortsi ourthés eman ditassut oguia
Haimeretsu guerreman beraren péco saldia.

6 eme couplet
Jaoun gasté begui ourdin faltsia
Es othé hissa éné lehen semia
Gusté banu hori éguia déta
Chutic hébén hanitch demboran bissia

7 eme couplet
Houren gagnen eguin essassue subia
Hartan gagnen erein ogui bihia
Hartaric eguin ogui chouri mouflia
Haren jatian erranen deizut eguia

Andereari gorarik balada. Lezarte kaiereko eredua.

Testu hau Lezarteren kaieretik transkribatu dugu iturrian agertzen den bezalaxe. Kaier hori noizkoa den ez dakigu, baina euskarazko grafia zaharra gordetzen du. ¨Kantariak, dirudienez, laugarren ahapaldia ahantzi du eta osatzeko tarte bat jarri du. Harrigarria da, bestalde, zein irizpide argiz dauden bokalak transkribaturik, *Houra*, *Oustë, ourthés* eta abar, baina banu, *ditassut*…

Eredu hau guztiz garrantzizkoa denez gero, lehen transkripzioa eskaintzea noraezekoa deritzagu.

18. LEZARTEREN EREDUA AHAPALDIZ AHAPALDI

Puntu honetan Lezarte kaiereko eredua puntuz puntu iruzkinduko dugu.

Anderia goraric sira leihouan
Soure senhara aphalic Frantsian
Houra hantic jin artinoco demboran
Serbuchari har néssassu etchian

Lehen ahapaldi honetan oposizio nabarmena dugu anderearen eta haren senarraren artean. Anderea *gorarik* dago leihoan; senarra, ordea, *aphalik* Frantzian. Oposizio hau Txanbraren kaierean ere ikusten dugu. Gorago ikusi dugun bezala, *Hura hantik jin artinoko denboran* esaldia Chanbra kaierean eta are Ligiko Borddarenean ere ikusten dugu. Ez ote da azken *zerbütxari har nezazü etxian* esaldiko “etxian” delakoa *sahetsian* batetik etorriko?

2eme couplet
jaoun gastia goraric sira saldian
Ené senhara behera doua Frantsian
Houra hantic jin artinoco demboran
Serbutchari mentsik estit etchian.

Beste inongo eredutan ikusten ez dugun esaldia aurkitzen dugu ahapaldi honetan: Jaun gaztia gorarik zira zaldian. Baladetan ematen diren egitura beren errepikaren adibide xarmanta da. Lehen ahapaldiaren errepika zoragarria da bigarrena. Emakumeak bere semearen hitzak berritzen ditu zertxobait aldatuz.

3eme couplet
Issan nussu Frantsian eta Espagnan
Bai eta ere Angletteraco lurrian
Andé charmantic ikhousi dit hayetan
Bena Madama souré pareric étsén han.

Ahapaldi interesgarria hau ere *Angletteraco lurrian* bitxi eta eder da. Emakumeari bi modutara zuzentzen zaio semea *Madama* eta *ande[r]e*.

4eme couplet

5 couplet
Madama soure senhara guisson ounésta da
Possible bada etchec ossu confidantcha
Hama sortsi ourthés eman ditassut oguia
Hémerétsu guerrenian beraren péco saldia.

Ahapaldi honetan gure ustez konturik interesgarrienetako bat zenbakien erabilera da. Hamatzortzi eta hemeretzi zenbakiak modu zoragarrian erabiliak daude.

6eme couplet
Jaoun gaste begui ourdin faltsia
Es othe hissa éné lehen semia
Ousté banu hori éguia déla
Ehuke hébén hanitch demboran bisia

7eme couplet
Houren gagnen eguin essassue subia
Hartan gagnen erein ogui bihia
Hartaric eguin ogui chouri mouflia
Haren jatian erranen deizut eguia.

Imposibilia hau interesgarria da hizkuntzaren aldetik. Inesibo arkaiko bat dugu *Houren gagnen* horretan. Chahoren B ereduan ere berdin aurkitzen dugu: *Itchasson gagnen khantatçen*. Gure ereduan *haren gañen* esan beharrean, *hartan gañen* dator. *Arengaraiko primaren k(h)antorean* berdin dator. *Gañen* inesibo arkaiko bat dugu *ihizin*, *haintzurren* bezala.

19. LEZARTEREN EREDUA GAURKO ORTOGRAFIAN

Lezarteren kaiereko eredua honelaxe transkribatuko dugu gaurko ortografian:

1
–Anderia, gorarik zira leihuan,
zure senhar[r]a aphalik Frantzian.
Hura hantik jin artinoko denboran
Zerbü[t]xari har nezazü etxian.

2
–Jaun gaztia, gorarik zira zaldian,
ene senhar[r]a behera dua Frantzian.
Hura hantik jin artinoko denboran
zerbütxari mentsik eztit etxian.

3
–Izan nüzü Frantzian eta Españan,
bai eta ere Angleter[r]ako lürrian.
Ande[re] xarmantik ikhusi dit haietan,
bena, madama, zure parerik étzen han.

4
–Madama. zure senhar[r]a gizon unesta da
posible bada etxekozü konfidantxa.
Hamazortzi urthez eman ditazüt ogia,
hémeretzügerrenian beraren peko zaldia.

5
–Jaun gazte begi-urdin faltsia,
ez othe hiza ene lehen semia?
Uste banü hori egia dela
ehüke heben hanitx denboran bizia.

6
–Huren gañen egin ezazie zübia,
hartan gañen erein ogi-bihia.
Hartarik egin ogi xuri muflia,
haren jatian erranen deizüt egia.

20. LIGIKO J EREDUA

Zuberoako eredu hau Lezarte kairekoaren oso antzerakoa da. Zuberoako eredu berri argitaragabe honek merezi du atal bat. Izenburua *Anderia gorarik zaoude leihouan da*. Hona kaierean datorren bezalaxe:

1
Anderia gorarik zaoude leihouan
Zoure zenhara aphalik dago Frantzian
Houra handik jin artinoko demboran
Zerbutchari har nezazu ni etchian

2
Jaoun gaztia gorarik zaoude zaldian
Ene senhara aphalic dago Frantzian
Houra hantik jin artinoko demboran
Zerbuchariak bazitit bai nik etchian

3
Izan nuzu Frantzian et Ezpagnan
Bai éta éré Angléteriako partian
Dama ederik ikhouzi dizut haietan
Bena madama zouré parerik etzen han

4
Jaoun gastia goratik zira mintzatu
Frantzia Espagna Anglatiera aiphatu
Hartzen baduzu gaour goure etchian oztatu
Ogia mouflé mahagna coumplet dukezu

5
Ezkerak azki ene anderé meztreza
Zouré zenhara ni beno gizoun hobia
Zazpi ourthez harekin jan dut ogia
Tchekizazu zuk hari bethi fedia

6
Andere horik guiradé bethi bur-erho
Hitz gno bat ezkapi zitazut lachuchko
Jaoun gaztia eran izadazut egia
Eia zu zirenez oi ene lehen zemia

7
Houren gagnen egizu laztoz zubia
Hartan gagnen ereñ ogi bihia
Hartarik egin dukezunian ogia
Nik ordian eranen deizut egia

21. LIGIKO J EREDUA AHAPALDIZ AHAPALDI

Puntu honetan ahapaldiz ahapaldi iruzkinduko dugu Ligiko eredua.

1
Anderia gorarik zaoude leihouan
Zoure zenhara aphalik dago Frantzian
Houra handik jin artinoko demboran
Zerbutchari har nezazu ni etchian

Lezarteren ereduaren oso antzekoa da. *Gorarik/aphalik* oposizioa Zuberoako ereduetan bakarrik ikusten dugu. Bi aukera ematen dira lehen ahapaldian *har nezazü etxean* edo *har nezazü sahetsean*. Bi aukeretatik bigarrena dirudi zaharrena.

2

Jaoun gaztia gorarik zaoude zaldian
Ene senhara aphalic dago Frantzian
Houra hantik jin artinoko demboran
Zerbuchariak bazitit bai nik etchian

Lezarteren ereduan bezalaxe bigarren ahapaldia lehenaren antzekoa da egituran. Lezarteren ereduan oposizioa *gorarik/behera* da bigarren ahapaldian. Ligiko gure ereduan jarraitzen du *gorarik/aphalik* oposizioarekin.

3

Izan nuzu Frantzian et Ezpagnan
Bai éta éré Angléteriako partian
Dama ederik ikhouzi dizut haietan
Bena madama zouré parerik etzen han

Lezarteren ereduaren antzekoa dugu hau ere. Lezarteren ereduan *ande[r]e /madama* hitzak ikusten genituen, gurean *dama/madama*.

4

Jaoun gastia goratik zira mintzatu
Frantzia Espagna Anglatiera aiphatu
Hartzen baduzu gaour goure etchian oztatu
Ogia mouflé mahagna coumplet dukezu

Lezarteren ereduan falta zen ahapaldiak honen antzekoa izan behar zuen. *Ogi muflea* ogi biguna da, egin berria. Bestetan oso nekez ikusten den ideia zoragarria dugu hemen. Ostatua hartzen badu mutilak, mahaia ogi biguinez guztiz betea izatea.

5

Ezkerak azki ene anderé meztreza
Zouré zenhara ni beno gizoun hobia
Zazpi ourthez harekin jan dut ogia
Tchekizazu zuk hari bethi fedia

Ahapaldi hau asko urruntzen da Lezarteren eredutik. Zer ote da, bestalde, *meztreza*? Frantseseko *maîtresse* hitzetik ote dator? *Maîtresse* delakoa amorantea da frantsesez, baina hemen adiera gogorragoan dator.

6

Andere horik guiradé bethi bur-erho
Hitz gno bat ezkapi zitazut lachuchko
Jaoun gaztia eran izadazut egia
Eia zu zirenez oi ene lehen zemia

Ahapaldi hau ere guztiz interesgarria da hainbat alderditatik. Hiztegietan, esaterako, *burtzoro* jasoa dago; *berer(h)o*, ordea, ez dugu ikusi.

7

Houren gagnen egizu laztoz zubia
Hartan gagnen ereñ ogi bihia
Hartarik egin dukezunian ogia
Nik ordian eranen deizut egia

Lezarteren eredutik hurbil dago ahapaldi hau. Ahapaldi honetan ere, Lezarterenean bezala, *gañen* inesibo arkaikoa dator.

22. LIGIKO EREDUA GAURKO ORTOGRAFIAN

1

–Anderia, gorarik zaude leihuan,
zure zenhara aphalik dago Frantzian.
Hura handik jin artinoko denboran
Zerbütxari har nezazü ni etxian

2

–Jaun gaztia, gorarik zaude zaldian,
ene senhar[r]a aphalik dago Frantzian,
hura hantik jin artinoko denboran,
zerbüxariak bazitit bai nik etxian.

3

–Izan nüzü Frantzian et Ezpañan,
Bai eta ere Angléteriako partian,
dama eder[r]ik ikhusi dizüt haietan
bena madama zure parerik etzen han.

4

–Jaun gaztia, goratik zira mintzatü
Frantzia, España, Anglatiera aiphatü.
Hartzen badüzü gaur gure etxian ostatü
ogia mufle mahaña cunplet dükezü.

5

–Esker[r]ak aaki ene anderw meztreza.
Zure senhar[r]a ni beno gizun hobia.
Zazpi urthez harekin jan düt ogia,
[a]txekizazü zük hari bethi fedia.

6

–Andere horik girade bethi burerho,
hizño bat eskapi zitazüt laxüxko,
Jaun gaztia er[r]an izadazüt egia,
eia zu zirenez oi ene lehen semia.

7

–Huren gañen egizü lastoz zübia,
hartan gañen ereñ ogi bihia,
Hartarik egin dukezünian ogia,
nik ordian er[r]anen deizüt egia.

23. AIHERRAKO K EREDUA

Aiherrako eredu hau Andre Martinonen kaieretan aurkitzen da. Eredu hau Xipri Arbelbideri esker ezagutzen dugu.

1

Andera gorarik zaude leihuan
Zure senharra behera baita Françian
Hura handik jin ditaken artian
Eskutarik har nezazu etchian

2

Ene senharra behera bada Françian
Hura handik jin ditakeen artian
Eskutarik beharrik ez dut etchian
Auzuak onik uzi deraiskit aldian.

3

Izan nusu Françian eta gastelian
Bai eta ere Angleterreko phartian
Andre ederrik ikhusi dizut orotan
Zure parerik ezen batere heietan.

4

Eskutaria goratik zira minzatu
Françiak eta gasteliak tuzu [ai]phatu
Bardin enekin plasserrik harzen baduzu
Ohia churi, gambera berri dukezu.

5

Zure senharra ni beno gison hobia
Zazpi urthes harekin jan dut ogia
Zazpi urthes harekin jan dut ogia
Zortzi garrenia[n] eman bere peko saldia.

6

Eskutari begi malzur falsua
Alcha zak alcha eskerreko begia
Alcha zak alcha eskerreko begia
Hi haisenes ene lehen semia.

7
Elhorri churia lilizen bada abendos
Sezen churia erdizen bada chahales
Sezen churia erditzen bada chahales
Erranen dausut suria naizen ba ala ez

8
Uraren gainean eginen diat subia
Haren gainean ereinen ogia
Hartarik egin artian ogi aphil churia
Es duk isanen amaren barkhamendua.





2 eme =

Ene senhara behera bada Françian
Hura handik jin dit aken artian.
Estut anik behar ik ez dut etchian
Auzuak onik uzi deraizkit aldian.

3 eme =

Izan naiz Françian eta gastelian
Bai eta ere Angleterreko ziartian
Andre edenik ikhusi diz ut oratan
Jure parerik ezen bat ere hiretan.

4 eme =

Estut aria garatik zira miuz atu
Françiatik eta gastetiatik [illegible]
Bardin enekin plasserik hazen badu zu
Ohia duri, gam bera berri hutk ezu ?

5 eme =

Jure senhara ni bero gison hobia
Gaspi urthes harekin jan dut ogia
Gaspi urthes harekin jan dut ogia
Zorsi gaxenia eman bere pekoz Jaubia

6 eme =

Estut an begi malzur falsua
Alcha zak alcha esterreko beza
Alcha zak alcha esterreko beza
Hi haxenes ene lehen semia.



Anderea gorarik balada. Aiherrako eredua.

30
ERREGE JAN BALADA

1. SARRERA

Euskarazko baladarik interesgarrienetakoa da *Errege Jan* balada. Balada honen bi argitarapen zahar bakarrik ezagutzen ziren orain arte: 1869. urteko Madame Villéhéliok bere kantutegi txikiko argitarapena eta 1899an Charles Bordesek argitara emana. Bi eredu horien artean Charles Bordesena osoagoa da. Orain arte bi iturri horiek aipatu dira. Beste iturri bitan ere argitaratua dago *Errege Jan* balada. *California-ko Eskual Herria* aldizkarian 1895. urtean, 45. zenbakian eta Baionako *Le Pays Basque/Eskual-Herria* aldizkarian, 277. zenbakian, Samedi 3 Janvier 1904. Kaliforniako aldizkariko eredua eta Charles Bordesena eredu bera da; Kaliforniakoa, ordea, bost urte lehenago argitaratua da 1895ean. Charles Bordesek iturri honetatik edan zuen edo egiazki berak bildu zuen *Errege Jan* baladaren eredurik osoena? Charles Bordesek berak bildua izateko arrazoi nagusia *La tradition au Pays Basque* liburuan datorren pentagrama da. 1895. urtean argitaratu zen aldizkarian ez dator pentagramarik, testu hutsa baino.

Errege Jan balada honen arrastorik ez dugu aurkitu erabili ditugun kantu-kaier guztietan. XIX. mendeko Duvoisin, Arxü, Chaho eta Salaberriren kaieretan ez dator gure baladaren arrastorik ere. XX. mendeko kaieretan ere ez dugu aurkitu balada honen eredu berririk. Gure atal honetako xede nagusia *Errege Jan* balada argitaratu izan den lehen lau publikazioetako ereduak ematea izango da eta lau publikazio horietan bi eredu bakarrik daudela demostratuko dugu. Askotan gure artean aipatu izan da *Errege Jan* balada eta *Le Roi Renaud* bat datozela. Gure arteko biltzaile eta aztertzaile kualifikatuenek adierazi dute: Charles Bordesek, aita Donostiak eta Louis Dassancek. Puntu honetan, besteek esan eta ondo baino hobeto frogatutakoa ez gara berriro frogatzen ibiliko.

2. *ERREGE JAN* BALADAREN A EREDUA: MADAME VILLÉHÉLIOREN EREDUA

Madame de la Villéhéliok 1869. urtean *Souvenir des Pyrénées* liburuan hamabi kantu argitaratu zituen. Bilduma txiki horretako bigarren kantuak *Allargunsa* “La veuve” du izenburutzat. Zortzi ahapaldiko balada ezkerreko zutabean argitaratu zen, eskuinekoan frantseseko itzulpena duela. Kantua, oro har, ulergarria da eta hitz bat edo beste ilunxko gelditzen baldin bada ere, frantses itzulpenak ulertarazten du.

1
Ene ama othoï erazu
Mithil horiec cer duten?
Ene alhaba deügeric es,
Samari belsa galduricquen.

2
Ene ama othoï erazu,
Nescato horiec cer duten
Ene alhaba deügeric es,
Zilhar uncibat haücheduten.

3
Ene ama es othoï
Es othoï eguin nigaric
Erregue jaüna ekharikodu.
Urhe eta cilhar armaretic.

4
Ene ama othoï erazu,
Khantu horiec cerdiren haiñ gora?
Ene alhaba deügeric es,
Processionia da juaïten.

5
Ene ama othoï erazu
Cer zaya ezar beharduden?
Zaya chouri edo goria?
Eder ciago da belsa.

6
Ene ama othoï erazu,
Thomba hori cerda haiñ gora?
Ene rena ecindeit gorda,
Erregue Jaüna ehorcia.

7
Ene ama ori urhé,
Urhe eta cilharen guilza;
Ene chéméa unsa hazzacie,
Eztitarzun equila.

8
Lur santia erdira bedi
Ni ere barnen sarnadin;
Lur santia zen erdiratu
Ni ere barnen sartu
Espus jaüna becharcatu
Jinco jaüna de la laüdatu.

Eredu hau zuberotarra bada ere, zenbait aditz aldatuak daude. Alabak amari egiten dion galderetako aditzak aldatuak daude, itxura guztiak direnez. Lehen galdera *Mithil horiec cer duten*? eta bigarren galdera *Nescato horiec cer duten*? horietako *dute* aditzak zuberotarrez *die* izan behar luke: *Mithil horiek zer dien*? *Neskato horiek zer dien*? Zenbait aditz ere eredu zabalago batean jarrita daudela dirudi. Zuberoako euskaran, esaterako, *laidatü* espero zen *laïdatu* idatzirik, eta lapurteran eta baxenabartarrez ikusten dugu *laüdatu* delakoa (hots, *lodatu* ez irakurtzeko –ü– gainean bi puntu dituela). Eredu honetan ama-alabEk elkarri zuka egiten diote. (Ikusiko dugun bigarren ereduan, ordea, Charles Bordesenean, amak hika eta alabak zuka).

3. MADAME VILLÉHÉLIOREN EREDUAREN FRANTSES ITZULPENA

Puntu honetan Madame Villéhélioren ereduak duen frantses itzulpena ekarriko dugu. Zenbait hitzetan frantseseko testua lagungarri da. Lehen ahapaldiko *zamari* hitzak, esaterako, "zaldi" esangura du edo bere jatorrizko esangura duen "zamatzeko aberea"? Guk lehena dela uste dugu, baina *jument* bezala dago itzulia.

1
Ma mère je vous en prie
Dites- moi qu'ont les valets? (bis)
"Ma fille ils n'ont rien
Ils ont perdu la jument noire"

2
Ma mère je vous en prie
Dites-moi qu'ont les servantes (bis)
"Ma fille eles n'ont rien,
Elles ont cassé un vase d'argent"

3
Ma mère je vous en prie
Je vous en prie pas de larmes (bis)
Le roi mon époux apportera
De l'or et de l'argent de la guerre

4
Ma mère je vous en prie
Dites-moi, quels sont ces chants si hauts? (bis)
"Ma fille ce n'est rien,
C'est la procession qui passe"

5
Ma mère je vous en prie
Dites-moi quelle robe il faut mettre? (bis)
La robe blanche ou la rouge?
"La noire me semble plus belle"

6
Ma mère je vous en prie
Dits¡es-moi que est ce tombeau si élevé? (bis)
“Ma bru vous ne pouvez plus l’ignorer
C’est celui du roi votre époux”

7
Ma mère tenez de l’or
De l’or est de l’argent la clef (bis)
Faites élever mon fils
Avec douceur.

8
Terre sainte entr’ouvre-toi
Que j’entre dans ton sein
La terre sainte s’est entr’ouverte
Moi aussi j’y entre
Mon Seigneur époux dans mes bras
Que le Seigneur Dieu en soit loué.

4. *ERREGE JAN* BALADAREN LEHEN EREDUA ORTOGRAFIA GAURKOTUAN

Madame Villéhélioren testua gaurko ortografiara ekartzeko saio bat egingo dugu. Ez da batere erraza problema asko sortzen baititu, eta transkripzio-korapilo guztiak ezin dira, inondik inora ere askatu. Gure gaurkotzea, beraz, ezin da erabatekoa izan.

1
–Ene ama, othoi er[r]azü
mithil horiek zer düten?
–Ene alhaba, deuserik ez,
zamari beltza galdüriken.

2
–Ene ama, othoi er[r]azü
neskato horiek zer düten?
–Ene alhaba, deuserik ez,
zilhar untzi bat hau(t)se düten.

3
–Ene ama, ez othoi,
ez othoi egin nigar[r]ik.
Errege jauna[k] ekhar[r]iko dü
ürhe eta zilhar armaretik.

4
–Ene ama, othoi er[r]azü,
khantu horiek zer diren haiñ gora?
–Ene alhaba, deuserik ez,
prozesionia da juaiten.

5
–Ene ama, othoi er[r]azü
zer zaia ezar behar düden?
–Zaia xuri edo gor[r]ia,
ederxiago da beltza.

6
–Ene ama, othoi er[r]azü
thonba hori zer da haiñ gora?
–Erre[ge] rena ezin deit gorda,
errege jauna ehortzia.

7
–Ene ama, ori ürhe,
urhe eta zilhar[r]en giltza;
ene xemea untsa haz zazie,
eztitarzünekila.

8
Lür santia erdira bedi
ni ere barnen sar nadin;
Lür santia zen erdiratü
ni ere barnen sartü
Espus jauna besarkatü
Jinko jauna dela laudatü.

Madame Villéhélioren testua zuberotarra da, baina testu ukitua da, gorago esan dugunez. Testuaren zailtasun bat seigarren ahapaldiko *Ene rena ecindeit gorda* horretan dago. Zer esan nahi du *En rena* delakoak? Ahapaldiaren frantseseko itzulpena hauxe da: *Ma mère je vous en prie/ Dites-moi quel est ce tombeau si élevé?/ "Ma bru vous ne pouvez plus l'ignorer/ C'est celui du roi votre époux".* Aukera bat *Erre[ge]rena ezin deit gorda* da.

Beste arazo bat –au– taldeak sortzen du. Madame Villéhélioren testua *haüche* delakoa *hau(t)se/hau(t)si* izan behar luke, hots, *hau–* hasiera duela. Azken ahapaldiko *laüdatu* aditzak, ordea, Zuberoako euskaran "laidatu" behar luke. Villéhélioren testuko *chemea*, esaterako, *xemea* ote da bustidura adierazkorra duela?

5. CHARLES BORDESEN EREDUA

Charles Bordesek 1899ko *La tradition au Pays Basque* liburuan euskal kantuen gaineko "La musique populaire des basques" artikulua idatzi zuen. Artikulu honetan *Errege Jan* balada argitara zuen. Balada baino lehen azalpen-hitz hauek idatzi zituen:

> Parmi les très rares légendes chantées que nos avons pu recueillir, figurent la chanson *Errege Jan*, qui n'est autre que la version basque de la célèbre chanson française de *Jean Renaud*, la chanson dite de *Tardets*, magistralement commentée par M.de Jaurgain, et la curieuse et informe légende *Anderia gorarik*, où se cache sous une chanson d'amour, sorte de sérénade, le drame étrange d'un Oedipe basque.

Euskarazko elezahar kantatu bitxien artean, hots, baladen artean, *Errege Jan* eta *Anderia gorarik* aurkitzen dira. Bi baladak "très rares légendes" dira, hots, oso gutxi ematen direnak. Charles Bordesen

hitzak gorabehera, *Anderea gorarik*, inolako dudarik gabe, askoz gehiago zabaldua egon da *Errege Jan* baino.

Charles Bordesek oso gutxitan entzuten eta biltzen diren balada horietako batzuk bildu ahal izan dituela dio. Charles Bordesek *Errege Jan* balada Atharratzen bildu duela dio eta Jaurgainek maisuki iruzkindu duela. Jaurgainen iruzkina ez dugu ezagutzen. Liburu bereko "Quelques légendes poétiques du pays de Soule" lanean Zuberoako beste balada batzuk iruzkintzen ditu, baina *Errege Jan* ez. Hona hemen Charles Bordesek ematen duen eredua:

(1)
Errege Jan, zaoriturik:
Jin izan d'armadetarik:
Am'anderia baratu ziozu
Etchian alagerarik.

(2)
"Errege Jan, kontsola zite,
Korajereki sar zite:
Zur'emaztiak errege tchipibat
barda sorthu ukhen dizu."

(3)
–"Ez ene emaztia gatik,
Ez errege tchipibat gatik,
Ni enaiteke kontsola:
Haiek biek jakin gabe,
Ama, hiltzeko ohebat."

(4)
–"Am'anderia, zer die mithil hoiek
Hainbeste nigar marrasketan?
–"Ene alhaba, ezin begira,
Galdu diñe zaldi gris bat."

(5)
–"Am'anderia zer die neskato hoiek,
Hainbeste nigar marrasketan?
–"Ene alhaba, ezin begira
Haotse diñe ourh'ountzi bat."

(6)
–"Ez zaldi gris baten gatik,
Ez urh'ountzi baten gatik,
Ez othoi egin nigarrik:
Errege Janek ekarriko dizu
Urhe eta zilhar armadetarik."

(7)
–"Ene ama, othoi, errazu
Khantu hoiek zer diren hain gora."
–"Ene alhaba, deuserik ez.
Prosesionia dun yuaiten."

(8)
–”Am’anderia, zer zaia behar dut jaontsi,
Ohe hontarik jalkhiteko?”
–”Ene alhaba, chouria, gorria
Ederrena dukezu beltza.”

(9)
–”Am’anderia, zer du lur saintu hounek,
Hain gora dagoenian?
–Ene alhaba, ezin begira,
Errege Jan dun ehortzirik!”

(10)
–”Am’anderia, oritzu giltz hoiek,
Urhe eta zilharren hoiek.
Eta errege tchipitto hori
Artha handieki eraik.”

(11)
–”Lur saintia, erdira’adi.
Ni barnen bara ahal nadin!...
Lur saintia erdiratu,
Eta nik errege Jan besarkatu!

(12)
“Lur saintia zerr’adi,
Ni barnen bara ahal nadin!...
Lur saintia da zerratu,
Ni errege Janeki baratu.

Egia da Charles Bordesek kantu bilketak egin zituela. Bildu zituen kantuetatik bakar batzuk bakarrik argitara eman zituen hamabiren bat liburutan. Argitaratu gabe gelditu zirenak betiko aienatu direla dirudi. Pierre Lafittek 1982an, *La tradition au Pais Basque* lana bigarrenez argitaratu zenean, liburuaren hitzaurrean, honelaxe dio:

> Charles Bordes a puisé les exemples dans la riche cueillette qu’il fit pendant plusieurs mois à travers nos villages. Il n’a du reste oublié qu’une partie de sa collection dans une douzaine d’ouvrages. M. Louis Dassance fit rechercher en vain ces inédits.

Charles Bordesen bilketa zenbait hilabetetakoa izan zela dio Pierre Lafittek; bilketa hori 1890. urtekoa da. Urte horretan bildu zituen, esaterako, *Maitiak bilhoa holli* eta *Errege Jan* balada.

6. *CALIFORNIA-KO ESKUAL HERRIA* ALDIZKARIKO EREDUA

California-ko Eskual Herria aldizkarian, 1895. urtean, 45. zenbakian, zutabe batean *Errege Jan* izenburuaren azpian gure balada dator. 1900. urteko *La tradition au Pays Basque* liburuan Charles Bordesek argitara eman baino bost urte lehenago itsasoaz bestaldean argitaratu zen *Errege Jan* balada. *California-ko Eskual Herria* astekaria Los Angelesetan argitaratzen zen. *Californiako Eskual Herria* astekaria Jean Pierre Goitynok sortu zuen eta 1893ko uztailaren 15ean hasi zen publikatzen (Arbelbide: 2003). *Errege Jan* baladaren oinean ohar interesgarri bat dator:

Bertsu eder bezen hunkigarri hok bilduak izan dire 1890ko uztarilan, Liginaga herrian, Atharratzeko kantonadan, herriko seme Carrique Goyeneix-ek kantatzen zituen ber demboran.

Errege Jan balada argitaratu zutenak, beraz, jakitun zeuden argitaratzen zuten kantuaren balioaz. Astekari berean argitaratu zituzten gainerako kantuekin ez bezala jokatu zuten argitaratzaileek. Kantua noiz bildu zen esaten da, 1890eko uztailean; nori bildu zitzaion; Carrique Goyeneixi, eta nola bildua izan zen ere adierazten da: *(kantariak) kantatzen zituen ber denboran*. Hona, gehiagokorik gabe, *California-ko Eskual Herria* astekariko aldaera.

1
Errege Jan, zauriturik
Jin izan d'armadetarik:
Am'anderia baratu ziozu
Etchian alagerarik.

2
Errege Jan, kontsola zite,
Korayereki sar zite:
Zur'emaztiak errege ttipi bat
Barda sorthu ukhen dizu.

3
–"Ez ene emaztia gatik,
Ez errege ttipi bat gatik,
Ni ez naiteke kontsola:
Haiek biek yakin gabe,
Ama hiltzeko ohe bat!

4
–"Am'anderia, zer die mithil hoiek
Hainbeste nigar marrasketan?"
–"Ene alhaba, ezin begira
Galdu diñe zaldi gris bat."

5
–"Am'anderia zer die neskato hoiek,
Hainbeste nigar marrasketan?"
–"Ene alhaba, ezin begira
Hautse diña urh'untzi bat.

6
–"Ez zaldi gris baten gatik,
Ez urh'untzi baten gatik,
Ez othoi egin nigarrik:
Errege Jan-ek ekharriko dizu
Urhe eta zilhar armadetarik."

7
–"Ene ama, othoi, errazu
Khantu hoiek zer diren hain gora."
–"Ene alhaba, deusirik ez.
Prosesionea dun yuaiten."

8
Am'anderia, zer zaia behar dut yauntsi,
Ohe huntarik yalkhiteko?"
–"Ene alhaba, churia, gorria,
Ederrena duken beltza."

9
–"Am'anderia, zer du lur saintu hunek,
Hain gora dagoenian?"
–Ene alhaba, ezin begira,
Errege Jan dun ehortzirik!"

10
–"Am'anderia, oritzu giltz hoiek,
Urhe eta zilharren hoiek.
Eta errege ttipitto hori
Artha handieki erraik."

11
–"Lur saintia, erdir'adi.
Ni barnen sar ahal nadin!...
Lur saintia erdiratu,
Eta nik errege Jan besarkatu!

12
"Lur saintia zerr'adi,
Ni barnen bara ahal nadin!...
Lur saintia da zerratu,
Ni errege Jan-eki baratu.

California-ko Eskual Herria astekariko *Errege Jan* baladaren transkripzioa oso ona da. Astekari honetan, *La tradition au Pays Basque* liburuan baino argibide gehiago daude. Charles Bordesek ez du esaten nori bildu zion, ez eta noiz ere. Non esaten du modu lauso batean, Atharratzen. Los Angelesetako astekarian, ordea, modu zehatzago batean Liginagan, Atharratzeko kantonamenduan, bildu zela kantua esaten da. Kontuan izan behar da *California-ko Eskual Herria* astekaria irakurtzen zuena kultura maila xumeko jendea zela, asko eta asko Ameriketara joandako artzainak. *California-ko Eskual Herria* 1899. urtera arte argitaratu zen. Ezagutzen den azken alea 1989ko otsailaren 25ekoa da. Xipri Arbelbidek idazten duenez, 1899. urteko *Los Angeles Times* aldizkarian (1899-5-9) berri hau dator:

> Most of these people (Basques) are sheepmen, and not given much to the reading of papers, and so Goytino stepped down and out from the editorial chair.

Hona itzulpena: *California-ko Eskual Herria* astekaria, artzainek batez ere irakurri ohi zutena, irakurtzera emana ez zen jende xumeak –batez ere artzainak– irakurtzen zuelako itxi zen. Astekari xume horretan datu gehiago ematen dira jende jakintsuak irakurtzeko prestatua zegoen *La tradition au Pays Basque* liburuan baino.

Baina natorren galderarik funtsezkoenera. 1895eko *California-ko Eskual Herria* astekariko balada eredua eta *La tradition au Pays Basque* artikulukoa bat bera ote dira? Bai, inolako dudarik gabe.



ERREGE JAN.

1
Errege Jan, zauritarik
Jin izan d'armadetarik:
Am'anderia baratu ziozu
Etchian alagerarik.

2
Errege Jan, kontsola zite,
Korayereki sar zite:
Zur'emaztiak errege ttipi bat.
Barda sorthu ukhen dizu.

3
—"Ez ene emaztia gatik,
Ez errege ttipi bat gatik,
Ni ez naiteke kontsola:
Haiek biek yakin gabe,
Ama hiltzeko ohe bat!

4
—"Am'anderia, zer die mithil hoiek
Hainbeste nigar marrasketan?"
—"Ene alhaba, ezin begira,
Galdu diñe zaldi gris bat."

5
—"Am'anderia zer die neskato hoiek,
Hainbeste nigar marrasketan?"
—"Ene alhaba, ezin begira,
Hautse diña urh'untzi bat.

6
—"Ez zaldi gris baten gatik,
Ez urh'untzi baten gatik,
Ez othoi egin nigarrik:
Errege Jan-ek ekharriko dizu
Urhe eta zilhar armadetarik."

7
—"Ene ama, othoi, errazu,
Khantu hoiek zer diren hain gora."
—"Ene alhaba, deusirik ez.
Prosesionea dun yualten."

8
—"Am'anderia, zer zaia behar dut yauntsi,
Ohe huntarik yalkhiteko?"
—"Ene alhaba, churia, gorria,
Ederrena duken beltza."

9
—"Am'anderia, zer du lur saintu hunek,
Hain gora dagoenian?"
—"Ene alhaba, ezin begira,
Errege Jan dun ehortzirik!"

10
—"Am'anderia, oritzu giltz hoiek,
Urhe eta zilharren hoiek.
Eta errege ttipitto hori
Artha handieki erraik."

11
—"Lur saintia, erdir'adi,
Ni barnen sar ahal nadin!....
Lur saintia erdiratu,
Eta nik errege Jan besarkatu!

12
"Lur saintia, zerr'adi,
Ni barnen bara ahal nadin!....
Lur saintia da zerratu,
Ni errege Jan-eki baratu."

Beren eder bezen hunkigarri hek baldaik izan dire 1890ko uztarian. Lagunaga herrian. Atharratzeko kantozadan, herriko seme Carrique Goyeneix-ek kantatzen zituen ber demboran.

Atheka - Gaitzeko
OIHARTZUNAK.

J. B. DASCONAGUERRE,
Conseilu Yeneraleko membra batez.

XI.

Errege Jan balada. *California-ko Eskual Herria* aldizkaria.

7. *LE PAYS BASQUE/ESKUAL-HERRIA* ALDIZKARIKO *ERREGE JAN* BALADAREN EREDUA

Baionako *Le Pays Basque/Eskual-Herria* aldizkarian, 277. zenbakian, Samedi 3 Janvier 1904, argitaratu zen *Errege Jan*. Kantuaren izenburua ere *Erregue Jan* da. Izenburuaren azpian kanta dator zenbakitu gabe eta inolako oharrik gabe. Kantaren azkenaldean ez dator inolako testurik ez oharrik.

Erregue Jan, kontsola zite,
Korajerereki sar zite:
Zur'emaztiak erregue tchipibat
Barda sorthu ukhen dizu.

–“Ez ene emaztia gatik
Ez erregue tchipibat gatik,
Ni enaiteke kontsola:
Haiek biek jakin gabe,
Ama, hiltzeko ohebat.”

–“Am’anderia, zer die muthil hoiek,
Hainbeste nigar marrasketan?”
–“Ene alhaba, ezin begira,
Galdu dine zaldi gris bat.”

–“Amanderia zer die neskato hoiek,
Hainbeste nigar marrasketan?
–“Ene alhaba, ezin begira,
Hautsi dine urh’ountzibat.”

–“Ez zaldi gris baten gatik,
Ez urh’ountzi baten gatik,
Ez othoi egin nigarrik:
Erregue Janek ekharriko dizu
Urhe eta zilhar armadetarik.”

–“Ene ama, othoi, errazu,
Khantu hoiek zer diren hain gora.
–“Ene alhaba, deuserik ez,
Prosesionia dun joaiten.”

–“Am’anderia, zer zaia behar dut jaontsi,
Ohe hortik jalkhiteko?
–“Ene alhaba, chouria, gorria,
Erregue Jan dun ehortzirik!”

–Am’anderia, oritzu giltz hoiek
Urhe eta zilharren hoiek,
Eta erregue tchipitto hori
Artha handiekin eraik.”

–“Lur saintia, erdir’aldi,
Ni barnen sar ahal nadin!...
Lur saintia erdiratu,
Eta nik erregue Jan besarkatu!

“Lur saintia, zerr’adi,
Ni barnen bara ahal nadin!...
Lur saintia da zerratu,
Ni errege Janeki baratu.”

Puntu honetara ekarri dugun *Le Pays Basque/Eskual-Herria* eredua egiazko aldaera ote dugu ala nonbaitetik aldatua? Aldizkari honetan oso kantu gutxi argitaratu ziren, eta nonbaitetik aldatua bada nondik aldatua dagoen esaten da, zenbaitetan. Aldizkari honetan, *Muthil gazte eria* izenburua duen balada

bat agertzen da. Balada hori *Phazko eta Salbatore* bezala ezagutzen duguna da. Aldizkari honetako aldaera ez da beste inon aurkitzen. *Errege Jan* baladaren eredu honetan, ordea, ez dago ezer berririk. Charles Bordesen eredutik kopiatua da, inolako dudarik gabe. Kopiatua eta gainera gaizki, Bordesen 7 eta 8 ahapaldiekin bakar bat egina dago eta. Eta, esaterako, azken-aurreko ahapaldian *erdir'aldi* irakurtzen da *erdir'adi* irakurri beharrean. Huts hau ez da ale honetan datorren lehena.

31
LEISIBATXO BALADA

1. SARRERA

Leisibatxo baladaren gaia Europako beste leku batzuetan ematen den gaia dugu. Gaztelaniaz ballad-type hau *Las señas del esposo* bezala ezagutzen da. Manuel Lekuonak bere *Literatura oral vasca* lanean idatzi zuenez, *Leisibatxo* baladaren gaia unibertsala da, Europako beste herri batzuetan, beraz, gure baladaren gai bereko baladak aurkitzen dira. Honelaxe adierazi zuen M. Lekuonak (Lekuona: 1965):

> Muchos de los temas desarrollados por nuestros Romances, pertenecen a la Literatura Universal, como ocurre también con los Romanceros de los demás pueblos; pero aún en estos casos su modo de tratarlos encierra innegables rasgos de verdadera originalidad.

Leisibatxo balada batez ere mendebaldekoa da. Eredu guztiak mendebaldekoak dira: *Leisibatxo* baladaren eredurik ekialdekoena Otsagikoa da. Otsagiko aldaera Azkuek bildu eta argitaratua da. Eredurik interesgarrienetako bat denez gero eredua finkatuko dugu.

Leisibatxo euskal balada gaia egoki baino egokiagoa da beste hizkuntza batzuetako ereduekin konparaketa lan bat egiteko. Gure atal honetako asmoa, ordea, besterik da. Geure atal honetan Azkue, Aitzol eta Lekuonaren ereduetako testuak finkatuko ditugu atal honetan.

2. *LEISIBATXO* BALADA: AZKUEREN EREDUAK

Azkue izan zen balada gai honen eredurik gehienak bildu zituena: Gabikakoa, Lumokoa, Arrazolakoa eta Otsagikoa. Puntu honetan ereduak finkatu eta interesgarrienak iruzkindu egingo ditugu.

2.1. Leisibatxo *balada: Gabikako eredua*

Azkuek *Goizeti yagi zara* izenburupean Gabikako eredu hau Lumokoarekin batera bere CPV laneko 842. kantu-zenbakian eman zuen argitara. Azkuek Gabikako eredua eman ondoren azalpen hau eman zuen erdaraz:

> Dice la leyenda que un día un hombre que estuvo ausente de su domicilio mucho tiempo se presentó disfrazado de fraile a su mujer con objeto de probar su fidelidad, y entablaron este diálogo. praĺe

Azkuek erdaraz eman zuen testua bere landa-kaierean idatzia zuen euskarazkoaren itzulpena da. Euskarazko argitaragabea hauxe da:

> Andrakume bati, senarra praĺe jantzita, bein etorri jakon, bere kirmentasuna noragiñokoa zan jakiteko.

Azkueren jatorrizko eskuizkribua ABA-RMA-002-0003-005 signatura duen dokumentuan aurkitzen da. Kantuaren ezkerretara Gabika (Dom Aboitiz) argitasuna dakar.

1
–Leisibatśu zuria dozu, andra gaztea.
–Ondotśu egosita, aita praĺea.

2
–Eskutśu zuria dozu, [andra gaztea.]
–Guantepean erabilita [aita praĺea.]

3
–Semerik edo badozu, [andra gaztea?]
–Semetśu bi daukadaz, [aita praĺea.]

4
–Semeak nun dituzu, [andra gaztea.]
–Eskolak erakusten [aita praĺea.]

5
–Senarrik edo badozu, [andra gaztea?]
–Senarra biajean, [aita praĺea.]

6
–Ezagutuko ete zenduke, senar zeurea?
–Lengo erropakin baletor, bai, [aita praĺea.]

7
–Laztan bat emongo neuskizu, [andra gaztea.]
–Ibaia dago bitarte, [aita praĺea.]

8
–Berton itoko al zara, [andra gaztea.]
–Berori txalupa dala[aita praĺea.]

9
–Suak erreko al zaitu, [andra gaztea.]
–Berori egurra dala, [aita praĺea.]

10
–Agur, agur, agur, [andra gaztea.]
–Beyoa ondo, ondo, [aita praĺea.]



ABA-RMA-002-0003-005

Leisibatxo baladaren lehen eredu honetan Azkueren eskuizkributik testu argitaratura ez dago inolako alderik. Eskuizkribuko testua eta testu argitaratua bat datoz bete-betean.

2.2. Leisibatxo *balada: Lumoko B eredua*

Bigarren eredu hau Azkueren eskuizkribuan ABA-RMA-001-0001-004-233 signaturan dator. Eredu honetan ohar bat egiten du Azkuek : *Aita praĺea dicen en Gabika por Jauna neurea V. var de Gabika*. Eskuizkribuan lehen ahapaldiko *o andra neurea* zein *jauna neurea* deikien azpian *id.* marka dator. Zeinu horren bidez gainerako ahapaldi guztietako elkarrizketa berdin bukatzen dela adierazi nahi da.

1
–Goizeti jagi zara, o andra gaztea.
–Leisibatśua egitearren, jauna neurea.

2
–Leisibatśu zuria dozu, [o andra gaztea.]
–Ondotśu jabonauta, [jauna neurea.]

3
–Senarrik edo bozu, [andra gaztea?]
–Biaje urrunean da, [jauna neurea.]

4
–Umerik edo bozu, [andra gaztea.]
–Jaungoikoak emonda bi, [jauna neurea]

5
–Ze opizio emon deutsazue, [andra gaztea?]
–Madrilgo estudioan dabiz, [jauna neurea.]

6
–Berton itoko al zara, [andra gaztea!]
–Berori txalupa dala, [jauna neurea.]

Azkueren bigarren eredu honetan ere ez dator inolako aldaketarik eskuizkribuko testutik testu argitaratura.



ABA-RMA-001-0001-004

2.3. Leisibatxo *balada: Arrazolako C eredua*

Azkuek Arrazolako Franziska Urizar andreari bildu zion hirugarren eredu hau CPV lanean, 832. kantu-zenbakian, eta E Y lanean eman zuen argitara. Hirugarren eredu honetan Azkueren eskuizkributik testu idatzira badira aldaketa zenbait. Azpipuntu honetan, beraz, CPV lanean 832. kantu-zenbakian argitaratu zuen bezala aldatuko dugu. Ahapaldi bakoitza lau lerrotan tolestu beharrean bi lerroan tolestuko dugu. Hona hemen:

1
–Egun on Jainkoak dizula, andratxo gaztea.
–Baita zeuoŕi bere, galaitxo maitea...

2
–Senarrik eta baaldozu, andratxo gaztea?
–Indietara yoan zan, galaitxo maitea.

3
–Umerik eta badozu, andratxo gaztea?
–Bi seme ta alaba, jauna, or dira.

4
–Umeok nundik dabizuz, andratxo gaztea.
–Eskolak ikastera, jauna, joan dira.

5
–Zanko edeŕa dozu, andratxo gaztea.
–Nik alan gobernatu, galaitxo maitea.

6
–Kopeta edeŕa dozu, andratxo gaztea.
–Nik alan oŕaztuta, galaitxo maitea.

7
–Surtan eŕeko altzara, andratśo gaztea.
–Zeu ilinti zareala, galaitxo maitea.

8
–Urak eroango al zaitu, andratxo gaztea,
–Zeu auŕetik zareala, galaitxo maitea.

2.4. Leisibatxo *balada: Arrazolako eredua eskuizkribuan*

1
–Egun on Jainkoak dizula, andratśo gaztea.
–Baita zerorri bere, jauna maitea.

2
–Gizonik eta badezu, andratśo gaztea?
–Orra Indietan, jauna maitea.

3
–Umerik eta badezu, andratśo gaztea?
–Bi seme ta alaba jauna or dira.

4
–Umeok nundik dabizuz, andratśo gaztea.
–Eskolak ikasten, jauna, joan dira.

5
–Zanko ederra dezu, andratśo gaztea.
–Nik ala gobernatu, jauna maitea.

6
–Kopeta ederra dezu, andratśo gaztea.
–Nik ala orraztuta, jauna maitea.

7
–Surtan erreko altzera, andratśo gaztea!
–Zeu ilinti zerala, jauna maitea.

8
–Urak eroango al zaitu, andratxo gaztea, andratśo gaztea.
–Zerori aurreti dala, jauna maitea.



ABA-RMA-003-0010

2.5. Leisibatxo *balada: Arrazolako eredua ahapaldiz ahapaldi*

Arrazolako eredua Azkue Bibliotekako ABA-RMA- 003-0010 signaturan aurkitzen da. Azkuek Arrazolan bildu zuen testua gipuzkerakoa da nagusiki. CPV eta EY lanetan argitara eman zuenean bizkaierara aldatu zuen. Aldaketa horiek ahapaldiz ahapaldi xehe-xehe azalduko ditugu.

1
–Egun on Jainkoak dizula, andratśo gaztea.
–Baita zerorri bere, jauna maitea.

Emakumeak dioen errepika testu argitaratuan *galaitxo maitea* da eta eskuizkribuan *jauna maitea.* Azkuek Arrazolan Franziska Urizarren ezpainetatik bildutakoa *jauna maitea da* eta argitaratzeko orduan *galaitxo maitea* bihurtu zuen. Era berean, *zerorri bere* bildu bazuen ere, *zeuroŕi bere* argitara eman zuen.

2
–Gizonik eta badezu, andratśo gaztea?
–Orra Indietan, jauna maitea.

Gizonik eta badezu, andratxo gaztea galdera da eskuizkribuan datorrena. *Gizon* da bizkai-euskara modernoan erabiliena eta ez *senarra*. Azkuek *gizonik* hitzaren ordez *senarrik* argitaratu zuen; aditzak ere Bizkaiko erara jarri zituen argitaratzeko orduan *badezu* argitaratu beharrean *baaldozu*. Jatorrizko eskuizkribuan, bestalde, *orra Indietan, jauna maitea* dator eta testu argitaratuan *Indietara yoan zan, galaitxo maitea*.

3
–Umerik eta badezu, andratśo gaztea?
–Bi seme ta alaba jauna or dira.

Hirugarren ahapaldi honetan ia ez dago aldaketarik. Jatorrizko eskuizkribuko *badezu* baldintza badozu argitara zuen Azkuek.

4
–Umeok nundik dabizuz, andratśo gaztea.
–Eskolak ikasten, jauna, joan dira.

Ahapaldi honetako lehen hitza ez da ondo ikusten jatorrizko eskuizkribuan. Azkue Bi ume idazten hasi da baina gero ezabatu egin du. Laugarren ahapaldian emakumeak *eskolak ikasten* erantzuten dio eta ez *eskolak ikastera*.

5

–Zanko ederra dezu, andratśo gaztea.
–Nik ala gobernatu, jauna maitea.

Ahapaldi honetan aldaketa txikiak daude batetik bestera. Azkuek bere irizpideari jarraiturik aditzak Bizkaiko erara ematen ditu *dezu* eskuizkribukoa, beraz, *dozu* bihurtzen du. Era berean, *ala* eskuizkribukoa *alan* bihurtzen du testu argitaratuan.

6

–Kopeta ederra dezu, andratśo gaztea.
–Nik ala orraztuta, jauna maitea.

Aurreko ahapaldiko aldaketa berak egiten ditu honetan ere. Eskuizkribuko *dezu* testu argitaratuan *dozu* da eta eskuizkribuko *ala* testu argitaratuan *alan*.

7

–Surtan erreko altzera, andratśo gaztea!
–Zeu ilinti zerala, jauna maitea.

Madarikazioa adierazten duen esaldia eskuizkribuan *surtan erreko altzera!* da. Testu argitaratuan *sutan erreko alzara!* Azkuek Gipuzkoako *zera* aditza *zara* bihurtzen du testu argitaratuan. Era berean *zerala* Gipuzkoakoa *zareala* da Bizkaiko euskara tradiziozkoan. Ahoskatze kontuetan ere Azkuek *altzera* forma da bildu zuena, non *(ah)al* horren azken –l kontsonanteak afrikatzen baitu *zera* aditz jokatuaren *z–* hasera: *altzera*. Argitaratu zuen *alzara* horretan ez dago afrikazio horren azterrenik.

8

–Urak eroango al zaitu, andratxo gaztea, andratśo gaztea.
–Zerori aurreti dala, jauna maitea.

Azken ahapaldi honetan Gipuzkoako euskara-ereduan *urak eramango altzaitu* beharko , eta ez Azkuek Bizkaiko erara bildu zuen *Urak eroango al zaitu*. Harrigarria da Azkuek bildu zuen *Zerori aurreti dala* esaldia. Okerren bat dagoela dirudi. *Berori aurreti dala* zilegi da. Eta, emakumea zuka ari denez gero, *zerori aurreti zarela* ere zilegiago da.

2.6. *Otsagiko eredua* CPV *lanean*

Azkuek Otxagiko Simona Ibañezi bildu zion *Leisibatxo* baladaren eredurik interesgarrienetakoa. Azkuek CPV lanean, 852. kantu-zenbakian, 992. orrialdean eman zuen argitara. Azkuek kantu honi ohar bat egiten dio:

> La cantora decía siempre *jaunaia zalduna*, sin duda porque al importar la canción no comprendían la voz *galaia*. También el vocablo aurena aparece el indísimo *urena* “principal, noble”, desfigurado en la importación.

Gaur beste era batera ikusten ditugu kontuak. Agertzen den hitza ez da ez *aurena* ez eta *urena* ere *andereaurena* baizik. Andereaurena hitza konposatua da eta *andere* eta *(g)urena* dira beraren osagaiak. Hitz hau, bestalde, zenbait baladatan agertzen da. Chahoren A ereduan, Altzaiko ereduan eta Gotainekoan apur bat desitxuraturik. *Uretako semea* edo *Zalduko jauna* baladan ere agertzen da.

1
–Xinkoak dizula egun on, andere aurena.
–Bai eta zuri ere galaia zalduna.

2
–¿Bokata latsan ari zira, andere aurena?
–Ekusi ere badukezu, galaia zalduna.

3
–Eskuak goŕi goŕi tuzu andere aurena?
–Urain barnean inik, galaia zalduna.

4
–¿Orai non duzu senaŕa, andere aurena?
–Eŕegeren serbitzuan, galaia zalduna.

5
–Zonbat denbora fan zela, andere aurena?
–Orai zortzi urte, galaia zalduna.

6
–¿Eztuzie familiarik, andere aurena?
–Bi alabaťo tit, galaia zalduna.

7
–¿Auŕak non tuzu goizean, andere aurena?
–Eskolan tit biak, galaia zalduna.

8
–Senaŕari, fan zenean ¿zer eman zinakon?
–Seta-mokanes bat nik eman niozun.

9
–So egizu ean au denez, andere aurena.
–Iduria dukezu hura bera dela.

10
–Hura ta bera duzu kau, o Margarita.
.....

2.7. *Otsagiko ereduaren gure transkripzioa*

Azkuek argitaratu zuen eredua eta bildu zuena ez datoz guztiz bat. Puntu honetan jatorrizko dokumentuan datorren bezalaxe transkribatuko dugu.

1
–Ṡinkoak dizula egun ona andere aurena.
–Bai eta zuri ere Jaunaya zalduna.

2
–Bokata latsan ari zira, andere aurena.
–Ekusi ere badukezu Jaunaya zalduna.

3
–Eskuak gorri tuzu and[ere] aur[ena].
–Urain barnean tuzu jau[aya] zald[una].

4
–Non duzu senarra, and[ere] aur[ena].
–Erregeren serbitzuan dit jau[aya] zald[una].

5
–Zonbat denbora du, and[ere] aur[ena].
–Orai zortzi urte jau[aya] zald[una].

6
–Eztuzie bertze familiarik and[ere] aur[ena].
–Bi alabaťo tit jau[aya] zald[una].

7
–Aurrak non tuzu [andere] [auena].
–Eskolan tit [jaunaya] [zalduna].

8
–Zer eman zinakon senarrari juan zenean
–Seta-mokanes bat eman niozun.

9
–So egizu au denez and[ere] aur[ena].
–Iduritu badukezu bera dela ere.

10
–Ura ta bera duzu Margarita.
–Jaiki zite jaiki... (Es cuento largo).

Hamargarren ahapaldiaren bukaeran Azkueren pekatutxoa agertzen da bete-betean. Honelaxe aitortzen du CPV lanean:

> Lástima no haber tomado más notas; pues veo en mi borrador, después de las palabras yaiki zaite, yaiki, la advertencia de que el cuento es más largo.



ABA-RMA-003-0010

2.8. *Otsagiko eredua ahapaldiz ahapaldi*

Eredu honek merezi du iruzkintzea ahapaldiz ahapaldi:

1
–Ṡinkoak dizula egun ona andere aurena.
–Bai eta zuri ere Jaunaya zalduna.

Lehen ahapaldi honetan *andre* idatzi ondoren zuzendu eta andere jarri du. Azkuek, beraz, andereaurena hitz konposatua bitan idazten du: andere aurena. Azkuek *Jaunaya* hitzean azken *–ya* berezkoa duela markatzeko azpimarratu egin du.

2
–Bokata latsan ari zira, andere aurena.
–Ekusi ere badukezu Jaunaya zalduna.

CPV lanean *ekusi badukezu, galaia zalduna* argitaratu zuen. Eskuizkribuan zuzenketa nabarmenak daude. Ekusi aditza gainean idatzi baino lehen *esku* eta ondoren beste zerbait idatzi du. Esku hitzaren ondoren *gorri* idatzi ote du Azkuek? Hurrengo ahapaldian eskuak gorri aurkitzen denez aukera bezala jartzen dut. Hala ere gorri hitzaren hasierako g– horren arrastorik ez da aurkitzen lehen ahapaldi honetan.

3
–Eskuak gorri tuzu and[ere] aur[ena].
–urain barnean tuzu jau[aya] zald[una].

Ahapaldi honetan bi aldaketa ikusten dira eskuizkributik CPVko testu argitaratura. Eskuizkribuan *Eskuak gorri tuzu* eta CPV lanean *Eskuak gorri-gorri tuzu*. Eskuizkribuan *urain barnean tuzu* dio CPV lanean *urain barnean inik*. Testu argitaratuan, beraz, nekezago ulertzen da.

4
–Non duzu senarra, and[ere] aur[ena].
–Erregeren serbitzuan dit jau[aya] zald[una].

CPV lanean eskuizkribuan ez datorren *Orai* batekin hasten da ahapaldia. Ahapaldi honetan ilunsko gelditzen den adizki bat dator. Lehen transkripzioan *dit* jarri duela dirudi: *Erregeren zerbitzuan dit*. Adizkian zuzenketa eginez, *dut* gelditzen da *dit* adizkiak duen –i– bokalaren gainean jarri ondoren. Ondoko 6. eta 7. ahapaldietan *tit* objektu pluralduna bi aldiz ikusiko dugu.

5
–Zonbat denbora du, and[ere] aur[ena].
–Orai zortzi urte jau[aya] zald[una].

Hemen ere eskuizkribuko galdera eta testu argitaratukoa ez datoz bat. CPVko testu argitaratuan *Zonbat denbora fan zela* irakurtzen da.

6
–Eztuzie bertze familiarik and[ere] aur[ena].
–Bi alabaťo tit jau[aya] zald[una].

Azkuek testu argitaratuan eskuizkribuan jaso zuen *bertze* hitza kendu zuen.

7
–Aurrak non tuzu [andere] [auena].
–Eskolan tit [jaunaya] [zalduna].

Azkuek aurreko ahapaldian eskuizkribuan jaso zuen hitz bat ez zuen argitara eman. Oraingo ahapaldi honetan alderantzira jokatzen du. *Aurrak non tuzu goizean* argitara zuen. Goizean hitza, ordea, ez dator eskuidatzian.

8
–Zer eman zinakon senarrari juan zenean.
–Seta-mokanes bat eman niozun.

Lehen esaldiaren ordena desberdina da eskuizkribuan eta testu argitaratuan. Testu argitaratuan esaldiaren ordena aldaturik *Senarrari fan zenean, zer eman zinakon?* irakurtzen da. Juan aditzaren transkripzio zuzena ez da samurra. Eskuizkribuan lehen idazkeran *juan* idatzi duela dirudi gainean zuzenduta baitago. Gaineko zuzenketa *djuan* dirudi dela. Lehen d– kontsonantea behintzat garbi dago. Harrigarri gertatzen da, beraz, CPV lanean *fan* izatea aditza.

9
–So egizu au denez and[ere] aur[ena]
–Iduritu badukezu bera dela ere

Eskuizkribuko testutik CPVlaneko testu idatzira zenbait aldaketatxo daude. *So egizu au denez* bildu bazuen ere, *so egizu ean au denez* eman zuen argitara. Azkuek Otsagiko euskaran kau erakuslea entzungo zuen seguraski. CPVko hurrengo ahapaldian 10. kau erakuslea eman zuen argitara. CPVko ereduan Azkuek *Iduritu badukezu bera dela ere* apurren bat ukiturik *Iduria badukezu hura bera dela* eman zuen argitara.

10
–Ura ta bera duzu Margarita
–Jaiki zite jaiki... (Es cuento largo)

Azkuek CPVko testuan eskuidatzian jaso ez zuen erakusle bat gehitu zuen: kau. *Ura ta bera duzu Margarita* jaso zuen eta *Ura ta bera duzu kau, o Margarita* argitara eman zuen. Era berean *Jaiki zite jaiki* eskuidatziko agintera ez zuen testu argitaratuan jarri, eten puntuak baizik.

3. AITZOLEN *LEISIBATXO* EREDUA

Aitzolen funtsean bi eredu aurkitzen dira. Bi ereduetariko bat bakarrik aurkitu dugu guk. A. Zavalak Aitzolen funtseko zati galduaren argazkietakoak dira biak. A. Zavalaren zenbait argazki ere galdu ote dira?

1

–Leisiba zuria daukasu
Andra gastia.
–Ondotxu egosita,
Aita Praiĺia.

–Eskutxu suriak dosuz,
Andra gastia.
–Guantepian ibiĺi ta
Aita praiĺea.

–Gizonik bai al dozu
Andria gastia?
–Indietara juan zan,
Aita praiĺia.

–Zenbat ume daukazuz,
Andra gaztia?
–Semetxu bi daukadaz
Aita praiĺia.

–Ze opesio daukoe,
zure semiak?
–Eskolak ikastia
Aita praiĺia.

–Suak erreko al zaitu,
Andra gastia.
–Berori iĺunti dala
Aita praiĺia.

–Urak eroango al zaitu
Andra gastia!
–Berori txalupa dala
Aita praiĺia.



Aitzolen *Leisibatxo* eredua.

4. LUMOKO EREDUA

A. Zavalak bere baladategian, X. ereduan, 1959. urtetsuan, Lumoko Alejandra Zubizarretak, 89 urte zituela, Julio Bareñori kantatutako eredua dakar. Alejandra Zubizarreta Julio Bareñok izan zuen berriemailerik oparoenetakoa izan zen. Uste dut Alejandra Zubizarreta Lumokoa zela. Eredu hau, beraz, Azkueren B eredutik hurbil dago. Gaur egun Julio Bareñoren funtsa Jose Antonio Arana Martijaren funtsean, Bizkaiko Foru Aldundiko liburutegian gordetzen denez gero, Julio Bareñok A. Zavalari bidali zion eredu makinatua ikusteko aukera izan dut. Dokumentua ARA-ARTX 0057/003 signatura duen dokumentuan dator. Hona hemen:

1
–Goizetik jagi zara, andra gaztia.
–Lexibia joteko, jauna neuria.

2
–Esku zuriak dozuz, andra gaztia.
–Zabal-zabal egonda, jauna neuria.

3
–Umerik ba'al dezu, andra gaztia?
–Semetxu bi ditudaz, jauna ne[u]ria.

4
–Nun dozuz ba semiok, andra gaztia?
–Estudioak ikasten, jauna neuria.

5
–Urak eroango al dau, andra gaztia.
–Berori batel dala, jauna ne[u]ria.

6
–Suak erreko al dau, andra gaztia.
–Berori egur dala, jauna ne[u]ria.



ANDRA GIZONAK.-
= = = = = = =

(Gizonak etxetik iges-egin, eta gero atzera emastiagana etorri zanekoak. Alejandra Zubizarretak (89 urte)
- - - - -

1.- Goizetik jagi zara
andra gaztia.
- Lexibia joteko
jauna neuria.

2.- Esku zuriak dozuz
andra gaztia.
- Zabal-zabal egonda
jauna neuria.

4.- Nun dozuz ba semiok
andra gaztia?
- Estudioak ikasten
jauna neuria.

5.- Urak eroango al-dau
andra gaztia.
- Berori batek dala
jauna neria.

6.- Suak erreko al-dau

Leisibatxua balada. Lumoko eredua.

Balada eredu hau andra-gizonak izenburu nagusiaren azpian dator. Argitasun hau dator balada baino lehen: *Gizonak etxetik iges-egin, eta gero atzera emastiagana etorri zanekoak. Alejandra Zubizarretak (89 urte)*. Emakumearen errepika *jauna neuria* izan ohi da. Hiru ahapalditan, ordea, 3.ean, 5.ean eta 6.ean *jauna neria* dator. Lehen ahapaldian emakumeak *Lexibia joteko, jauna neuria* dio eta ez A. Zavalak dakarren *Lexibia jotzeko, jauna neuria*. Gizonak darabilen deiki edo deigarria sei ahapaldietan beti da *andra gaztia*. Ez dakit zergatik, beraz, A. Zavalak deiki edo deigarri hau (hots, bokatiboa) azken bi ahapaldietan *andra neuria* transkribatzen duen testu argitaratuan.

5. LEKUONAREN EREDUA

Manuel Lekuonaren paperetan *Leisibatxo* baladaren beste eredu bat aurkitzen da. A. Zavalak eredu hau ondo transkribatzen duen arren, lehen dokumentuan datorren bezala aldatuko dugu hona. Eredu hau, bestalde, ez dakigu non bildua den ez eta nori.

(1)
Goizetik jegui zara andratxo gaztea
Egune zabaldute bai jaune maitea

(2)
Letxura zuri dezu andratxo gastea
Ondotxo garbitute bai jaune maitea

(3)
Uĺea lizu dozu andratxo gaztea
Ondotxo oŕastute bai jaune maitea

(4)
Umerik bai aldozu andratxo gaztea
Bi zeme ta alaba bai jauna maitea

(5)
Urek eroango alzaitu andratxo gastea
Berori auŕetik dala bai jauna maitea

(6)
Zuek eŕeko alzaitu andratxo gaztea
Berori ilinti dala bai jauna maitea.



Leisibatxu balada. Lekuonaren eredua.

5.1. *Lekuonaren eredua gaurko ortografian*

Goragoko transkripzioa gure ortografiara ekarriko dugu.

1
–Goizetik jegi zara, andratxo gaztea.
–Egune zabaldute, bai, jaune maitea.

2
–Letxura zuri dezu, andratxo gaztea.
–Ondotxo garbitute, bai, jaune maitea.

3
–Uĺea lisu dozu, andratxo gaztea.
–Ondotxo orraztute, bai, jaune maitea.

4
–Umerik bai al dozu, andratxo gaztea.
–Bi seme ta alaba, bai, jauna maitea.

5
–Urek eroango al zaitu, andratxo gaztea!
–Berori aurretik dala, bai, jauna maitea.

6
–Suek erreko al zaitu, andratxo gaztea!
–Berori ilinti dala, bai, jauna maitea.

32
ENE MUTILIK TTIPIENA BALADA

1. SARRERA

Balada guztiz interesgarria da *Ene mutilik ttipiena*. Guztira zortzi eredu bakarrik ezagutzen dira. Hiru Azkuek bilduak eta beste lau aita Donostiak. Azkuek bildutakoak Mugerre (L), Ziburu (L) eta Orabarrekoa (BN) dira; aita Donostiak bilduak Azparne (L), Donibane Lohizune (L), Azkaine (L) eta Zalgizekoa (Z). Eredu guzti-guztiak Iparraldekoak zirela uste genuen harik eta Ondarroako eredu bat Aitzolen paperetan agertu zen arte.

Aita Donostiaren eredu berri bat Donibane Lohizunekoa *Euskal baladak* lantaldekoek argitaratu zuten.

Ene mutilik ttipiena balada ez dugu Iparraldeko kantu-kaier bakar batean ere aurkitu. Ezagutzen diren bestaldeko eredu guztiak Azkuek eta aita Donostiak bilduak izan dira. Balada gai hau baladistika paneuroparrekoa da. Doncieux ikertzaileak *Romancero Populaire de la France* lanean *La courte paille* izendatzen du. Gure asmoa xumea da. Azkuek bildutako ereduak finkatu nahi baditugu ere, ez ditugu landa-kaieretan argitara eman zituen eredu guztiak aurkitu.

2. BALADAREN ARGUDIOA

Euskal baladak lantaldekoek honelaxe laburtzen dute *Ene mutilik ttipiena* baladaren argudioa:

> Balada honek lehorra aurkitu ezinik nabigatzen den untzi baten mentura dramatikoa kontatzen digu. Azken jakiak bukatzean guztiak salbatzearren zeinek hil egin behar duen zorte egiten dute, kapitainak galtzen duelarik. Honek orduan marinel gazte bati mastaren puntatik begiratzeko agintzen dio, lehorra erideteko itxaropenean. Marinelak urrunean kapitainaren alaba bere egitekoetan ikusten du; kapitainak, bere bizitza salbatzea eskertzearren, eskeintza batzu egiten dizkio. Baina marinelak uko egiten ditu, berak nahi duena, gehienetan, untzia baita. Dena den, portugaldar aldaera batzuetan, deabrua da eta kapitainari honen arima exijitzen dio.

Argudio hau orokorra da eta neurri handi batean *Ene mutilik tipiena* balada ulertzeko balio du. Gure baladaren haria ulertzeko aita Donostiaren “Quelques caractéristiques de la chanson basque” artikuluko pasarte bat ekarriko dugu hona:

> Je viens de vous indiquer l'absence ou l'extrême rareté des chansons de métiers de notre folklore. Mais encore on est plus étonné quand on pense que le peuple basque, peuple de marins, qui a donné au monde un Elkano ou un Pellot, n'a pas de chansons qui aient pour sujet la mer ou la vie marine. Serait-ce que les marins n'aiment pas à chanter quand ils se voient loin de leur famille, exposés aux périls des tempêtes? Un de ces périls, pire que les tempêtes, est cité dans une des mélodies que j'ai recueillies l'année dernière à Hasparren. Un bateau, labourdin peut-être, qui se dirigeait vers l'Anglaterre (ou vers le Spitzberg pour chasser la balaine?), se trouve en panne en pleine mer sans pouvoir avancer. Les marins ont épuisé toutes les provisions. Le moment arrive où le sort décidera qui va être sacrifié pour que les autres continuent à vivre. Le sort désigne le mousse, le plus jeune garçon de l'équipage.

Aita Donostiak egiazko gertaera bat balitz bezala kontatzen du gure baladaren argudioa. Egiazki euskal itsasontzi batean gertatutakoa mentura bezala kontatzen du *Ene mutilik ttipiena* baladaren argudioa.

3. AZKUEREN EREDUAK

Azkuek hiru eredu bildu zituen: Ziburukoa, Mugerrekoa eta Orabarrekoa. Eredu horien lehen dokumentuen bila abiatu gara eta bi lehenena aurkitu dugu, azkenarena, ordea, ez.

3.1. *Ziburuko eredua*

Azkuek CPV lanean, 865. kantu-zenbakian, 1005. orrialdean Ziburuko Jeanne Zerziat andreari bildutako eredua argitara zuen. Lehen bi ahapaldiak ABA-RMA-001-0002-001-882 signatura duen dokumentuan datoz. Hirugarrena eta laugarrena ABA-RMA-001-0002-002-882 dokumentuan.

Nere seme ttipiena
ik emaiten dautak pena
auil arat auil onerat
masta gainaren puntarat
ian ageri den untzirik
edo bertzenaz leiorrik.

Ai Aita eldu nuzu
biotza arras tristerik
ez dut ikusi ez untzirik
ez eta ere leiorrik
joan bear balin baduzue
il nazazue lenik.

Nere seme ttipiena
ik emaiten dautak pena
auil arat auil onerat
masta gainaren puntarat
ian ageri den untzirik
edo bertzenaz leiorrik.

Ai Aita heldu nuzu
biotza alegerarik,
ikusi dut untzia
bai eta ere leiorra:
zure alaba Maria
leioan josten jarria.



ABA-RMA-001-0002-001.



ABA-RMA-001-0002-001.

3.2. *Mugerreko eredua*

Eredu honen ahapaldi bakarra CPV lanean 410 kantu-zenbakian, 512. orrialdean argitara emana dago. Mugerreko Casenave zapatariarengandik bildu zuen. Eredu honen lehen dokumentua ABA-RMA-001-0002-001-686 signaturan aurkitzen da.

Hirur urthe baditítzu
uraren gainean ginela.
Bi urtheren bitantśa beizik
gurekin ezkinuyela
hirurgarrenean jan gititzun
śakurrak eta gatuyak.



ABA-RMA-001-0002-001.

3.3. *Orabarreko eredua*

Orabarreko ereduaren lehen dokumenturik ez dugu aurkitu. Bigarren dokumentuaren signatura ABA-RMA-005-0016-001-1543 da. Dokumentu honetako testua. Hona hemen bigarren testuan datorren bezalaxe:

Baditut zazpi urthe
uraren gainean girela
sei urtheren bitaĺa baizik
gurekin eman degula,
zazpigarrenean jan ditugu
gatua eta śakhurra.

Ene mutilik ttipiena,
ene mutilik maitena
habil hara ta habil hunat,
mastaño horren gainera
mastaño horren gainerat eta
ageri denez leihorra.

Azkueren bigarren dokumentu eskuizkribatuan *degula* aurkitu dugu. Testu argitaratuan *dugula* da. Harrigarria da, bestalde, adlatiboa bi modutara ematen dela *hara* eta *gainera*, batetik*; hunat* eta *gainerat*, bestetik.



ABA-RMA-005-0016-001.

4. ONDARROAN BILDUTAKO EREDUA

Neska ontziratua balada gaiarekin gertatzen zena gertatzen da *Ene mutilik ttipiena* balada gaiarekin. Iparraldeko ereduak bakarrik aurkitzen ziren, eredu oso gutxi gainera. Aitzolen funtsean, 1935. urtean, Kardaberaztarrak izeneko apaizgaiek bidalitako ahapaldi hau aurkitzen da:

Palogañeko Palogañeko
Palogañeko puntara
Aan dago Karmen
Lutoz beterik
Almuedazala bordatzen.

Ondarroako *Ene mutilik ttipiena* ereduak berritasun nabarmen bat dakar bere txikian. Bost eredutako bukaera-ahapaldian leihoan josten ari den neska bat agertzen da. Batean kapitainaren alaba da eta gainerakoetan arreba. Ondarroako kasuan ez da esaten ez arreba ez alaba den *lutoz beterik almuedazala bordatzen* ari dela baizik. Lutua, uste izatekoa denez, kapitainaren heriotzagatik da. Ondarroako ahapaldi bakarra, bere bakar izate horretan bada ere, indar handikoa da.



Ene mutilik ttipiena balada. Ondarroako eredua.

5. *ENE MUTILIK TTIPIENA* ETA *IPAR–HEGOALDETAKO TRADIZIOA*

Zenbait balada Iparraldeko tradiziokotzat ematen genituen *Neska ontziratua*, *Apez beltza*, *Ene mutilik ttipiena*. 80ko hamarkadan Bizkaiko bilketa berriak direla eta 1998. urtean A. Zavalaren baladategia argitara denean ipar eta hegoaldeetako tradizioa uste baino lotuagoak daudela ikusi dugu. Ondo etorriko zaizkigu Jesús Antonio Cidek bere "Romancero hispánico y balada vasca" artikuluan esandako hitzak (Cid: 2000):

> En suma, creo que puede hablarse de la balada oral vasca como un género unitario y común a todo el país, aunque la unidad "originaria" aparezca hoy fracturada, y a simple vista sean más perceptibles las diferencias que las similitudes entre el área occidental y el Norte.

Hitz hauen ondoren adibideak ematen dituen beste pasarte bat ere ekarriko dugu hona:

> La existencia de un fondo primitivo común en el repertorio de la balada vasca, y la difusión más amplia de ciertos ballad-types que en principio parecían limitados a una tradición local o a una sola de las dos "ramas", se ha ido imponiendo como evidencia en estos últimos años gracias a las nuevas encuestas y a la aparición de textos inéditos. "Ana Juanixe", por ejemplo, parecía una balada propia de la zona costera (Mutriku, Ondarroa, Bermeo), en tanto en cuanto reflejaría un suceso "local" acaecido en Mutriku; se conocían, sin embargo, textos y fragmentos de la zona interior del País, que junto con nuevas versiones nos dan idea de una difusión mucho más amplia (Amorebieta, Galdakao, Lezama, Eibar); súmese las versiones muy notables recogidas recientemente en Arratia, y estrofas sueltas procedentes de Sunbilla y Aranaz, y el resultado es el de una balada poco menos que "pan-euskérica", puesto que el principio de "Ana Juanixe" sirve de incipit a una versión labortana de un poema dialogado, que en mi opinión no es narrativa, "Atia kis-kos jo nion baña…". De modo análogo, temas baladísticos que parecían confinados a sólo una de las dos grandes áreas del país han resultado tener su contrapartida en la otra. El caso más notable en este sentido es el de "Neska ontziratua", que representa en la tradición oral vasca el tema baladístico del "marinero raptor" muy difundido en gran parte de Europa. La balada nos era conocida en textos del Norte, con el principio habial "Brodatzen ari nintzen" o "Egun batez ari nintzelarik…", de gran

belleza textual y melódica. Ha bastado, sin embargo, que se publicase completa la versión de Bermeo facilidada a Aitzol por M. Ziarsolo en 1936, y que se recogiesen en la década de 1980 otras versiones en verdad magníficas de Zamudio y Arratia, para que se advierta que el tema baladístico alcanzó difusión general en el país. Un ejemplo último: la balada de "Urtsua", a que ya nos hemos referido, no era presumible que se difundiese fuera del área pirenaica, en cuanto expone un suceso trágico local del Baztán. Sin embargo Zavala publica un texto vizcaíno desconocido hasta ahora que tiene evidente parentesco con la balada navarra.

Ematen dituen adibideei gehitu behar zaie tesi honetan ikusi ditugun *Apez beltza* balada eta are *Ene mutilik ttipiena* ere. Ondarroako ahapaldi bakarreko ereduak garbi erakusten du Hegoaldean ere *Ene mutilik ttipiena* baladaren tradizioa izan dela.